bertsoarenharia



HERNANIN

Estitxu Eizagirre Kerejeta

Bertsoaren haria Hernanin

Bildutakoak argitaratzeko grinez,
kanpo geratutakoen minez,
hurrengoan sartzeko zinez.

Etxekoei eta bestetxekoei

eta batez ere
Inixio Arruti Azkue, Ihintza Eizagirre Arruti eta Beñat Eizagirre Arrutiri.
Zuekin eman ez dudan denbora honetarako zen.

1800-1900

Lehen harribitxiak

1813an Donostia ez zen izan Euskal Herrian erre zuten herri bakarra, frantsesek Arbizu sutan jarri zuten moduan kiskali zuten Hernani. Victor Hugo idazlea ume moko bat zen orduan, baina ondo asko ulertu zuen bere aita militarrak Hernanin urte hartan gertatuaz kontatu ziona, bere antzezlan famatuenari *Hernani* izena jartzeraino.

Egiaz, hernaniarrek XIX. mendean egoera beliko etengabea bizi izan zuten. Gerra karlistak izan ziren gogorrenak; 1874an Hernani penagarri zegoen karlistek egindako setio latzaren ondorioz. Herri aurrerazale eta liberala izaki, Donostiaren atze-goardia defendatzea tokatu zitzaion behin baino gehiagotan. Victor Hugo bertan izan zenean Lehenengo Gerrate Karlistako orbanak oraindik agerian zeuden, baina halaxe deskribatu zuen herri-kaskoa:

> *"Hernanik ez dauka monumenturik, eliza arrunt bat –Pompadour estiloko portiko aberatsa duen arren– udaletxe ezdeus bat; baina Hernanik paisaia miresgarria dauka eta katedral batek adina balio duen karrika. Hernaniko karrika nagusia, dena erliebezko armarriek, bitxi-balkoiek, atari jaungoenekoek apaindua"*

Erliebezko armarrien atzean abizen ilustreak eta negozianteak daude. XVIII. mendean zuaznabartarrak izan ziren merkataritzan aktiboenetakoak, Caracaseko Errege Konpainian buru-belarri aritutakoak. Hortaz, ez da harritzekoa hurrengo mendean giro liberala gailentzea Hernaniko ahaltsuenen artean. Halako familiekin biltzen zen Agustin Iturriaga apaiza, giro aurrerazale erabatekoan.

Iturriagak eskola propioa ireki zuen herrian, ikas-material elebidunak sortu zituen eta pedagogia berritzailea erabili. Baina ez zion asko iraun, urte batzuen buruan itxi baitzioten. Euskararen etorkizunaz kezka handia zuen, hezkuntza publikoak ez zuelako haren bizirautea bermatzen. Portalez kanpoko eraikin txikian zegoen eskola publikoa; Biterikoa askoz beranduago eraiki zen, 1907an.

Dena dela, XIX. mendeko Hernanin euskal hiztunak nagusi ziren eguneroko bizitzan, etxean, kalean, azokan... Peri plazan –gero Foru Plaza eta orain Plaza Berria– izaten zen azoka ostegunez. Hantxe egin zuen *Xenpelarrek* betroiaren tratua. Izan, bai baitziren toki batzuk bertsotarako giroa sortzen zutenak. Herriko festak –zezenketak eta aurreskua gehienean–, tabernak eta sagardotegiak, barrioetako erromeriak...

Ereñotzu zen bertsotarako joera handiena zuena, handik atera ziren egungo antologiek jasotzen dituzten bertso ugari. Egun Txilibita izeneko etxearen altzoan sortua, Ereñotzu burdinolek gorritutako bailara industriala izan zen betidanik, XVIII. mendeko Fagollagako aingura lantegia adigarri. Fagollagan 1756an egin zuten azkeneko aingura, baina haren ondotik etorri dira zementu labeak, harrobiak eta baita pareta okerreko ozpin-fabrikak ere, Latxeko Txirritak argi utzi zuen moduan. Dena den, XIX. mendean Ereñotzu lehen sektorera emana zegoen guztiz eta baserrien ingurumarian kantatu ziren bertsoak eta bota desafioak, baita 1866an auzolanean egindako San Antonio ermita aurrean ere.

Hamarkadek aurrera egin ahala eraldaketa pausatua izan zuen Hernanik. Norteko Trenbidearen obrak egiten 1860 inguruan hasi ziren eta bi urte geroago jadanik martxan zegoen. Bigarren Gerra Karlistan bala batek "aidian" botatako udaletxea 1886rako berritua zuten, Aiarragarai arkitekto hernaniar *sevillano*aren eskutik. Mende amaieran paper, ehun eta adreilu fabrika handi eta modernoak eraiki ziren Florida, Antziola eta Zikuñaga inguruetan, auzo horietako batzuen fisionomia aldatzeraino. Kultur giroan ere nabari zen aldaketarik: musika bandaren sorrera, lagun elkarteak, egunkari eta aldizkarien ugaritzea, bertso-paperen pixkanakako gainbehera... XX. mendea eta garai berri bat ate joka ziren jadanik 4.000 biztanle izatera iristen ez zen herri honetan.

URKO APAOLAZA AVILA

JOSE JUAKIN ERROIZENEA INTXAUSPE "TXABOLATEGI"

1769-02-03, Ereñozu

Ereñozuko Txabolategi baserri zaharra. Hemen jaio zen bertsolaria. Argazkia: Unai Agirre.

Osinagako Bortoluene Borda, bertsolariaren bizileku izandakoa. Argazkia: Unai Agirre.

Gaur egun Osiñagako Txabolategin bizi dira Jose Maria Pagola Alberdi Erroizenea eta Mirari Pagola aita-alabak, Txabolategi bertsolariaren ondorengoak. Egilea: Unai Agirre.

TXABOLATEGI ETXEA

Abillas gaineko Txabolategi baserrikoa zen. Gero Bortoluene Bordara esposatu omen zen, Osinagatik bastante gora, Oindira goazela Perrapa baserritik goraxeago dagoen baserri zahar handi horretara. Baserri horri Txabolategi deitzen diote (bertsolariak eramandako izena hartu baitzuen), baina ez da hala. [**Fernando Erroizenea**]

Jose Maria Pagolak gogoan du nola burdinazko ohe bat bazen baserrian gurpil eta guztikoa, eta aitak nola esaten zion: "hau bertsolariarena huan".

[**Unai Agirre**, Hernaniko Urtekaria 2007/08]

ARTOAREN GOARDIAN

Txabolategi baserrian jaio eta gaur bertako etxeko jauna dan Telesforo Oiarbide'k, onela esan digu: «Or, arunzko aldean, bada arkaitz bat, eta arkaitzaren azpiko aldean soro bat, eta an egiten zuten artoa. Eta, gerra-denboran, Txabolategi egoten omen zan gabean, laputxako eskopeta batekin, arkaitzaren atzean, artoaren goardian. Auzotikan, gabean, artoa ostutzera etortzen omen ziran. Laputxako eskopeta zuan, kañoiaren muturretik kargatzen zana.»

Zer gerra ote zan? Gure iritzirako, erderaz *Guerra de la Convención* deritzana (1793-1795), edo, bestela, frantzestea (1808-1814). Bigarrengoa izateak itxura geiago du. Soldaduak ere, bai alde batekoak eta bai bestekoak, tokian tokiko gauzak janez mantentzen ziran. Ala, ikaragarrizko gosetea zabaldu zan alderdi guzietara. Orduko gorabera izango da, beraz, Txabolategiren artoaren goardia. [**Antonio Zavala**, Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak]·

KARABINEROEI

Karabineroek alto eman omen zioten Txabolategiri, eta honek:

Buenos dias esanaz jaunak
erantziko det txapela
inposible da gauz horrengatik
preso sartuko nautela
poltsan dirua bainan hobeto
da patriketan papera
pasian ordez emango diet
komonioko txartela.*

*Elizan, Komunioa egiten zutenean, txartel bat ematen omen zuten.
Aitak kantatuta dakit bertso hori, mutil-kozkorretan ikasi nuen.

[**Florian Oiarbide**]

ARANOKO EHIZTARIAK

Antonio Zabalak idatziriko liburuak biltzen ditu Ereñozuko Jose Oiarbide zenaren ahotik jasotako Txabolategiren bertsoak. Dirudienez, Aranoko mendietan otsoren batek ardiak hiltzen zituen, eta ehiztari mordo bat bildu eta otso ehizara irten zuten mendira. Tartean bi apaiz ere ba omen ziren, besteek baino eskopeta dotoreagoekin. Bidean Txabolategirekin topo egin zuten nonbait eta bi bertso dotore hauek bota omen zizkien:

Aranoko ehiztariak
urumiatarrak,
kolore biñakuak
zenituzten armak:
zarrallak beltxak eta
kañoiak nabarrak
ederragua zeukak
Belaundia jaunak
dezente egon bihar dik
hola joango danak.

Miel Domingo jauna
Don Bitor apaiza,
otsua harrapatzen
duda gabe gaitz-ta;
artzai hoiengandikan
errenkura maiz-ta:
ardia edo bildotsa
jan diela aixa;
dituenari beti
galdu bihar zaizka.

[Unai Agirre, Hernaniko Urtekaria 2007/08]

MANDO BATEN TRATUA

Onako auek ere, Ereñozu'ko Jose Oiarbide'ren aotik jasoak: «Urnieta'n, bein batez, mando baten tratua egin omen zuten ango bi gizonek-edo. Bein zutik jarri ezkero oso ibillera dotorea omen zuan mando orrek, bañan bera bakarrik ezin lurretik altxa. Eta Txabolategi ere an izaki, eta bertso auek kantatu omen zituan:

Saltzallia Inazio,
erostuna Pepe,
mando baten tratua
Urnieta'n dute;
ori artu dubenak
beretzako kalte,
sasoi polita zuben
orain ogei urte.

Manduari begira
Inazio parraz,
lau lagun ari ziran
zutik ezin paraz;
aide gaiztuen batek
baldartu du gabaz,
neria balitzake
ilko nuke balaz.

[Antonio Zavala, Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak]

ANDRIAK MUDATZEKO ENKARGATZEN NAU

Onako sei bertso auek, Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunaren libreta batetik artuak dira. Libreta onek dionez, Amezketako Zabalak ez, baña Ernani'ko Txabalategik ta Fernandok (Amezketarrak) kantatu zituzten.

Fernandok:
Gizon orrek bide du
puntura artua,
ez dala kantun truka
karga artua;
egiten baldin badu
preziyo altua,
geienian utsikan
da gure zakua;
nere trabajua
ezin billatua,
nago probatua,
nork du sobratua?
au de nere pobreza
gogoratua!

Txabalategik:
Gizon tabernariyak
askok degu lan au:
jai arratsak kanpuan
bostetatik lau;
ezin erretiratu
ez egun ta ez gau;
jan eta kantatu
sakelak badirau;
zurrut eta mamau,
ez danian barau,
okerrena nerau,
badet ezaguera au;
andriak mudatzeko
enkargatzen nau.

Fernando Amezketarra.

HERIOTZA

Harrobian lan egiten omen zuen, baina ez zen etxetik oso aparte ariko, bazkaria alabak eramaten baitzion otarrean. Otarrean botila esne omen zeramakien alabak gainerako jakien artean eta erori eta muturretik hautsi omen zitzaion. Aitak botila hartatik esnea edandakoan kristal izpiren bat ere tragatu egin zuen, nonbait, eta horretatik hil zen. Hil aurrean bertso famatu hau kantatu zuen:

Espezia txarren bat
sartu zait barrenen,
bildur naiz nere bila
etorri ote den;
San Pedrok sar nazala
portalian arren.
Hala izan dadila,
biba Jesus amen.

[Unai Agirre,
Hernaniko Urtekaria 2007/08]

Eli Pagola, 2013ko Tabernetako Txapelketan nagusi.

Txabolategiren ondorengoa da Eli Pagola bertsolaria. Berak horrela azaldu du ahaidetasuna: "Txabolategiren alaba bat Aiako Iraola baserriko Pagola batekin ezkondu zen eta hiru seme izan zituen. Semeetan zaharrena nire birraitona zen, alegia, aitonaren aita.

Fernandok:
Gizonik biarrena
nerau naiz erriyan,
iñor ez det para nai
nere neurriyan;
arrisku gutxi daukat
arto ta gariyan,
ez daukat deretxorik
amarrendegiyan,
orobat primiziyan,
neke ta biziyan,
labore erosiyan,
naiz urte guziyan,
ez nauk aberastuko
nere biziyan.

Txabalategik:
Errentarik ez badek
ofiziyo ontan,
ezin bizi litekek
erregalotan;
konbiatuagatik
noizik bein ardotan,
karga labore gutxi
libratu errotan;
ari gaituk ontan,
nori zer dadukan,
urre gutxi poltsan
sartzen dek bertsotan,
ez bada enpliatzen
beste lanetan.

Fernandok:
Manifestuan dago
errenta guria,
kantuz ez dala sartzen
poltsan urria,
ezta errotan ere
karga laboria;
asko estimatzen det
tokante noblia,
ni gizon pobria,
ez gauza sobria
etxian gordia,
dedanarekin pasatzen
ni naiz ordia.

Txabalategik:
Amorraia juan da
putzura sariak
iñoiz bota oi ditu
arrantzaliak,
arren orduko lanak
dira debaldiak;
errenta gutxi dakar
aurten ugaldiak;
badaki jendiak
zer diran guriak,
ez poltsan urriak
askotan sobriak;
beti nekatzen gaituk
gizon pobriak.

[**C. Muxika,** Pernando Amezketarra bertsolaria, Auspoa 54]

TXABOLATEGI BERTSOLARIARI

1

Hernaniko ballara
paketsu batean,
Onyi eta Agiña
mendien artean;
len pagadi ziranak
gaur piñu artean,
baserritxo bat dago
Jaunaren pakean.

2

Horrek "Txabolategi"
du bere izena,
bertsolari bat bazan
txukun ta zuzena.
Antxe jaio ta bertan
bizi izan zana,
etxearen izenez
deitzen ziotena.

3

Txabolategi lengo
gizaldikoa zan,
munduan ibilia
bertsolari gisan.
Sagardotegietan
baita ere plazan,
aren entzute ona
nork ez degu izan?

4

Txabolategirenak
bertsoa ugari,
entzuten nion nere
aitona zanari.
Zergatik il zan ere
ark esana neri,
gaur bertsotan jarriko
dizuet zueri.

5

Lantokira esnea
Txabolategiri,
emazteak eraman
oi zion berari;
bidean zeramala
botilla erori,
lepo-lepotik autsi
baiñan ez ixuri.

6

Emazteak botilla
senarrari eman,
esanaz, nola autsi
zitzaion bidean;
baiñan ardura gabe
ark esnea edan,
eta kristal printza bat
sartu sabelean.

7

Este danak zulatu
kristalaren printzak,
ta ezin asko iraun
munduko bizitzak;
bertsotan jarri zuan
bere eriotzak,
Jesusi eskeñiaz
azkeneko itzak.

8

Bertso eder xamur bat
guztiz zerutarra,
norbaitek eman zion
artarako indarra.
Itz neurtuzko otoitza
ta azken agurra,
bukatu ordurako
il omen zan, orra!

9

Txabolategi gizon
fede aundikoa,
il zorian Jaunari
kantatutakoa.
Uste det erakutsi
zuala naikoa,
bertsolaria zala
ben-benetakoa.

10

Naiz ta bertsolariak
izan berekiko,
jatorrizko doaia
itz neurtuetako,
ez da lan egokia
nere usterako,
eriotzean dagon
gizonarentzako.

11

Milla eratakoak
naiz sortu mundura,
eriotzari danok
diogu ardura.
Neri sarritan auxe,
datorkit burura,
Txabolategik zuan
espiritu ura.

12

Bukatzera nijoa
asitako lana,
sentimentuak bultza
ta egin dedana.
Euskaldun izar eder
goxo arengana,
bertsolari bizi ta
bertsotan il zana.

[**Florian Oiarbide,** Zeruko Argia, 1976-3-21]

JUAN BAUTISTA BELAUNTZARAN ZABALA "PATXI BAKALLO"

1832an jaioa Errenterin, 1896an hila Argentinan

Gurasoak zituan: "Miguel Joseph", ernaniarra, ta Juana Maria, aranoarra. [**Antonio Zavala**, Hiru bertsolari]

Errenteri'n jaioa izanarren, Osiña'ko "Oianeder" baserriko alabarekin ezkondu zan (Maria Ramona Iraolarekin, 1856an). [**Basarri**, "Nere Bordatxotik" atala, Zeruko Argia 1967ko urrilak 15]

Patxi, esan digutenez, bizi-modua ateratzearren era askotara saiatutako gizona izan zan: etxean taberna izan zuan, mineral-karraio ibilli zan, nekazaritzan zerbait ere alegindu zan... Ta, bati entzun diodanez, itxas-arrantzara ere bai, bakallotara, Ernani'tik artara iñor joaten etzalarik; ta, ain zuzen, orregatik ezarri omen zioten Bakallo izengoitia. Bañan, nork jakin ola ote dan?
Ta emen bizi-modua ezin atera zualako, Argentina'ra joan zan fameli guziarekin. Ernani'n esan digutenez, karlisten bigarren gerrate inguruan joana izan bear zuan. Bati entzun diogunez, emen egindako zor guziak andik pagatu egin zituan. Agidanean, azkenerako kukuak ondo jo zion... Bere billobak eta Ernani'n esan dizkigunetatik, onako erri auetan beintzat bizi izan zan: Buenos Aires, 25 de Mayo, Trenque-lauquen, ta Mercedes. [**Antonio Zavala**, Hiru bertsolari]

XENPELARRI DESAFIO



Xenpelar. Argazkia: Juan Francisco Petriarena Recondo, Auñamendi Entziklopedia.

Ona emen bina bertso Astigarragako Patxi Bakallo-k, Xenpelarri botatako desafioarenak:

Bakallo:
Iñork ba-dakizute
Oyartzun'go berri,
eskumuñak Ardotxi
eta Xenpelarri
Libertsiyo polit bat
nai ba-dute jarri,
bidez erdi bezela
dago Bentaberri;
gonbidatutzen ditut
nai ba-dute etorri.

Desapiyo ori da
Bentaberri'rako,
konpormatzen ba-dira
bidez erdirako.
Ezpazaye egiten
gogorik arako,
lagun bat artuko det
nere guardirako,
berdin prestatuko naiz
Errenteri'rako.

Xenpelar:
Pazkubigarren-goizez
artu nuen karta;
bestek firmatua da,
ez da zure palta.
Suma ederra dezu,
eztarriya alta,
abiyatuko nauzu
itz oyek esan-ta:
gizona gonbitzia
libertsiyo bat da.

Xenpelar probatzeko
egin dute faza,
gizon baten itzari
eman diyot traza.
Ez Astigarra'tikan
onuntzago pasa;
bertara juango naz,
egon zaite lasa;
nai dezun ordurako
eska zazu plaza.

[**Jesus M. Etxezarreta,** Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak]

ALATIK EMAKUME BATI

Garai artan, minerala egosteko ola asko zan, Urumea ibaiaren bazterretan, Ernani'ko partean: Oianabarren, Osiñaga, Epele, Pagollaga, Ereñozu, Amillatz, Olazar, Olaberri, Pikoaga, Añarbe...

Minerala, aaletan karreatzen zan. Beerakoan urak eramaten zuan; gorakoan, idi-pareak tiratzen zioten aalari ibaian sartuta. Asko lekutan, ur lodia zegoanetan alegia, igari bezela ibiltzen ziran idiak; ur mea zegoanetan, berriz, aala arrastaka bezela joaten zan, iya ondoa joaz. Patxi Bakallo, etxea ibai ondoan baitzuan, lan ortan ere ibilli zan. Egun batez, ba omen zijoan mineral-karraio, bera aala erdian exerita; idiak, berriz, uretan sartuta. Alako batean, Zikuñagako ixkiñan emakumezko ijito bat ikusi zuan ibai-bazterrean, eta aalatik bertso au bota omen zion:

Goizian jeiki eta
onen abiyara,
iñun ezer senti badu
lapurreriya da;
gezurrik gabetandik
ori egiya da,
kontzientzi gaiztoko
Judasen kriyada.

[**Antonio Zavala,** Hiru bertsolari]

BERE BURUARI

Onako iru bertso auek, Patxi Bakallok bere buruari jarriak omen dira. Ala esan digu bertsoak buruz zekizkianak, Oiartzun'go Okillegi baserriko etxekojaunak, Jose Zugarramurdi'k:

1

Iñor etortzen bada
Bakalloren galdez,
exkiñan ortxen dago
ardo edanez;
gerta laiteke zenbait
euskaldun ta prantzes,
ori egiya dala
egin zazu trabes;
lanetikan iges
txit nabil aldrebes,
andria dolorez,
egiyak esanez,
alare konforme da
bere gizonez!

2

Mundu guzian dago
gauza ageriya,
nola aberasten dan
bertsolariya;
nekez etxeratze'itu
arto ta gariya,
igual dendatikan
soñeko berriya;
badaukat premiya
artzeko neurriya,
diruz naiz urriya,
deus ezin baliya...
au da nere pesta ta
erromeriya!

3

Nere bizimodua
nua deklaratzen,
erozein jarri bedi
erreparatzen:
zorrak erraz egin ta
neketan pagatzen,
oraiñaldian ori
zait neri gertatzen;
laboriak artzen,
kontuz dira neurtzen,
errotan lajatzen,
an ere bajatzen,
nork bere deretxorik
eztik barkatzen.

[**Antonio Zavala**, Hiru bertsolari]

EMAKUME BERTSOLARIAREKIN LEIHOTIK LEIHORA

Oianabarren'en [liburuak hala dio, Oianeder da etxearen izena] ondo-ondoan, etxe txiki bat dago. Txurdiñanea [liburuak hala dio, Txuria-enea izateko itxura osoa du] esaten zitzaion garai artan. Etxe ontako alaba bat, neskatxa gaztea, bertsolaria zan. Ta Patxi ta biak, askotan jarduten ziran bertsotan alkarrekin. Goizean egun onak emateko, bertsoa; ta alkarri esan bear zioten guzia esateko ere bai, kasik. Jai-goizetan, Ernani 'ko Osiñaga aldeko jendeak Oianabarren'en ataritik pasa bear zuten mezetara joateko. Bein baño geiagotan gertatu omen zan, ordea, meza-zale oiek andik pasatzerakoan Patxi ta aldameneko neskatxa bertsotan aritzea, ta, auen bertsoak entzuteagatik, gelditu ta mezetara berandu irixtea.

Ala, gau batean, Patxirenean alaba bat jaio zan. Ta goizean, aldamenekoai berria ematearren, leiotik kanpora muturra atera ta bertso au bota zuan Patxik:

Bertsoa botako det
leiotik leiora,
bart gure etxe ontan
alaba jaio da;
iñork nai badu etorri
orren bataiora,
aur orren gurasoa
Patxi Bakallo da.

Ta Xenpelarrek, bertso onen berri izan zuanean, beste au kantatu omen zuan Bakallorentzat:

Beraz andria dezu
ezur-berritua,
ala eman didazu
neri mandatua;
bankete bat eiteko
badet desiua,
abisatu zaidazu
noiz dan bataiua.

[**Antonio Zavala**, Hiru bertsolari]

PEDRO ANTONIO SANTA KRUZ ETXEBESTE

1839an Andoainen jaioa Antzizu baserrian - 1905ean hila Ereñozuko Alkatxuin baserrian

Beraren seme Gregoriok esanda, badakigu Antzizu baserrian sortua zala. Baserri au, Andoain'go estaziotik Urnieta aldera dago, kamiotik eun bat metrora eskubitara, burnibideaz beste aldean.

Nekazaritzaz gañera, beste irabazbide bat ere izan zuan: palanketa, tiroa sartzeko arri-zulatzea alegia. Ain zuzen Pedroren denboran egin zan Irun'dik Madrida bitarteko burni-bidea. Pedro ere an aritu izan zan lanean. Arrobietan ere jarduten zan. Pedro, 27 urterekin ezkondu zan, Andoain'go alaba zan "Ramona de Carrera"-kin. Aduna'n jarri ziran bizi izaten, Pagake edo Paake deritzaion baserrian. Iru seme izan zituzten. Emaztea gazterik il zan, 38 urterekin, ta Pedro berriro ezkondu zan, Amasa'ko Larre baserriko alaba zan Manuela Antonia Arregi'rekin. Sei seme-alaba izan zituzten. 1891 urtean, Aduna'ko Pagake edo Paake ortatik Ernani'ko Alkatxuin baserrira aldatu zan, gero esango degun arrazoiagatik. Emen amalau urte egin zituan; il zan arte alegia. [**Antonio Zavala**, Hiru bertsolari]

"ANDRE BERTSOLARI GIZATXAR'AREKIN

(Ereñozu) Auzoan andre bertsolari gizatxar bat omen zuan, eta arekin ere, alkarrekin aserre-aizea egokiturik, bertso-saio bat edo beste egiña izan bear zuan. [**Antonio Zavala**, Hiru bertsolari]

BERTSO JARRIAK

Zoritxarrez, ez da Santa Cruz'en aotik aorako bertsorik gorde izan. Bere seme Gregoriok bat bakarra eman digu. Bertso jartzen ere saiatzen zan ordea, ta oietatik zenbait eldu dira, Jaunari eskerrak, gure eskuetaraño, batzuek bertso-paperetan, besteak, berriz, bere seme Gregorio onek buruz zekizkian bezela.

Pedrok gorde ta bildu egiten omen zuan, txukun asko, berak jarritako bertso-paper bakoitzetik ale bina edo iruna. Bera il ondoren ere, etxean gordeta egon omen ziran urte askoan; bañan, egun batez, bere seme Martin Joxe zanak, etxerako gelditua zanak alegia, eskaleren bati eman omen zizkan guzi-guziak. Pena ederra artu zuten, noski, jakindakoan, bere senideak...

Soroan ari zala ere, bere artean argurioan, kantuan alegia, jarduten omen zan. Gero, etxera etorri ta kuarto batean sartzen omen zan. Semeak ate-zirrikituetatik zeletatu omen zioten bein baño geiagotan, eta, idazten ikusi zuten beti. Berak idazten baitzituan, somatu-ala, bertsoak, eskola ona zuan da.
[**Antonio Zavala**, Hiru bertsolari]

Pello Errota. "Pedro Santa Cruz ez omen zan plazetan bertsotan aritzen; bai ordea sagardotegi ta lagun-arteetan. Makiña bat bider kantatu omen zuan Pello Errota ta Joxe Bernardo Otaño'rekin".
[**Antonio Zavala**, Hiru bertsolari].

IZUALDIAK HIL

Pedro Santa Cruz, izu-aldi batetik il zan. Illunabar batean, gaizkiturik zegoan lengusu batengana joan zan, Fagollaga'ra, gau erdira arte gaixoari kontu egitera. Ordu biak inguruan, erreleboa etorri zitzaionean, etxe aldera abitu zan. Alako batean, ordea, bide erdian zakur aundi bat jarri zitzaion, ta ezin andikan iñola ere uxatu. Parte gaiztokoa izango zalakoan, eta sorgiña, pigura aurrean eta bera atzean izaten zala gogoraturik, makillarekin kolpea atzera tira zion, bañan orduan makilla eskutik kendu ziotela esaten zuan. Orrekin zakurra galdu egin zitzaion bistatik, bañan bera ikaragarri izututa gelditu zan. Baita bereala gaizkitu ere. Dana aunditu egin zan. Izuarekin biotza mugitua zuala, esan zuan medikuak. Illabete iraun zuan. [**Antonio Zavala**, Hiru bertsolari]

MUTILZAHARREN BERTSOAK

Bertso auek ere paperetan atera omen ziran, inprentatuta. Bañan paperarik ez degu arkitu iñon ere. Pedro Santa Cruz'en semeari kopiatu dizkiogu, buruz zekizkian bezela. Beste bertso bat ere ba omen zan, bañan ezin oroitu izan zan.

1

Bertsuak paratzeko
artu det ordena,
au da pretensiyua
mutil zar batena;
irakurtzeko ondo
bizitza arena,
Jauna, zure laguntza
biar det aurrena.

2

Gaztetan nitzan oso
mutil ugariya,
gorputz delejentia,
kolore gorriya;
zenbaitek izan zuben
nere inbiriya,
amaika damak bota
ziraten begiya.

3

Sasoiak itxogingo
zubela ustian,
ibazin ibilli nitzan
bat eta bestian;
orain arkitutzen naiz
estadu tristian,
neskatxak ikusi nai
ez naute aldian.

4

Nere polsan badago
zenbait begi-gorri,
aien pozian ez du
iñork nai etorri;
arrimatzen asitzen
banatzaio iñori,
despreziyua azkar:
«Ortik zikiñ ori!».

(1891) ETXE-ALDAKETA EDO BERTSO BATZUEN ONDORENA

Pedro Santa Cruz Aduna'n bizi zan, Pagake edo Paake deritzaion baserrian. Maizterra zan, ta nausiak zituan Aduna bertako Etxeberri baserriko iru anai mutilzar. Ta mutilzarren bertsoekin izugarri asarretu zitzaizkan, berentzat jarriak ziralakoan. Pedrok ezetz eta ezetz, bertsoetan illoba bat agertzen zala ta berak illobarik etzutela ta abar esan oi zien, bañan etziran konformatu. Mengantzaz, Pedrok ibiltzen zituan lurretan sagastia jarri ta orrela asi zitzaizkan; despatxatu ez alegia, bai ordea al zuten enbarazu guzia egin... Ala, modu artan an bizitzerik etzegoala etsirik, beste baserri baten billa asi zan; da Alkatxuin deritzaiona arkitu zuan.

(...) Aldaketa egiten ai zan egunean, –San Martiñak alde ortan ain zuzen–, Fagollaga'ko tabernan Goizueta'ko Xardia bertsolaria egotea suertatu zan. Xardia onek erdiko iru beatzak falta zituan, beatz txikia ta lodia ez beste guziak, ta orregatik esaten zioten Xardia, aren eskuak sardea zirudialako. Ala, Xardiak, tabernatik Pedro gurdiarekin ikustean, onela kantatu zion:

Adixkidia, Andoaindikan
zatoz Eñazu aldera,
nik aditua dedanez noski
Alkatxuingo larrera;
egunen batez goatuko zera
noiz egin dezun sarrera,
bizi-mou ona pasatutzeko
etzatoz leku txarrera!

Ta Pedrok onela erantzun zion:

Adixkidia, tabernatikan
egin dirazu ijua,
nunbait etzazu zuri gustatzen
orain nijuan lekua;
ontzai egatzeko gustatzen zaio
beti paraje altua,
lenago ere ez nazu beti
erriberan usatua.

Dakigunez, Pedro andoaindarra zan jaiotzez, eta andoaindarrai *ontza* esaten zaie izengoitiz. Orregatik aitatzen ditu emen egazti auek. Xardiak beste bat ere kantatu omen zion, bañan Pedrok, kasorik egin gabe, aurrera segitu zuan, kanturako umorerik ez baitzuan izango... Arrezkeroztik etzuan geiago bertsorik jarri ta saldu, andik bost urtera Ereñozu'ko Mixioarenak izan ezik.

[**Antonio Zavala**, Hiru bertsolari]

5

Bein batez neskazar bat
pretenditu nuan,
esan ziran: «Zu ta ni
alkarren onduan
oyik ezin berotu
biar dan moduan,
otzak ilko giñuke
datorren neguan!».

6

Ark ere etsipena,
nik daukat trantzia!
au da estimaziyua
batetan galtzia!
esan dit sasoyian
nagola pasia,
eztala nere zale,
alapekotxia! (1)

(1) alapekotxia = esaera bat,
alajaña bezela, orduan asko esaten zana.

7

Etsiyan egon biarko
det bat ere gabe,
jaiotetxian bada
nere danen jabe;
kuarto batzuk baditut,
aiek eman noble,
anaiak ta koñatak
artuko al naue!

8

Satispaziyoz bildu
nitzan aietara,
orain probatutzen det
bost aieketara;
oiekin bizitzerik
eztago naiera,
bost aldiz juaten naiz
zaputzez oiera.

[**Antonio Zavala**, Hiru bertsolari]

9

Zaputzez oira juanda
mutil zar tristiak
asarretxo daduzka
tripako estiak;
Lorikan ezin egin
nagola gosiak,
ta gañera baditut
persegidoriak.

10

Zikiñak iya jan nau,
azienda ugaritu,
garbitzailerik iñon
ezin det arkitu;
denboraz balitzake
oik zeñek garbitu,
bakoitzak eun errial
baliyo balitu.

11

Illoba bat badegu,
alaba bakarra,
lotsagabia oso,
gaiztua ta azkarra;
aren dotriña neri
burla eta parra,
judiyuetan ere
obegorik bada.

12

Gabian esertzen naiz
etxian sartuta,
gure illoba trastia
ez luak artuta;
kokotzian bizarra
daukat luzatuta,
atzera botatzen nau
andikan elduta.

13

Orduantxen artzen det
bastante kolera,
jipatzeko asmuan
abitzen naiz bera;
zer belaun gozo dedan
ortan siñale da:
bereala erortzen naiz
muturrez aurrera.

14

Silla ta guzi oi nau
ankaz gora bota,
apariyaren ordez
balenziano buelta;
ezer esaten badet
aba zabalduta,
illatiya sartzen dit
eskuba sartuta.

Argazkia: AJA, mendienartean. blogspot.com

DESPEDIDA

Akola baserriko seme bat, Gregorio, Ameriketara joan zan soldaduskaren igesi, desertore alegia. (...) Gregorio ori, Epele 'ko beste lagun batekin joan zan. Auzokoa eta laguna baitzuan, Pedro Santa Cruz'ek Epele'raño lagundu zion. Gero karta bat egin zion bertsotan emendik Ameriketara, orduko despedira gogora-aaziaz. Sei bat bertso omen ziran, bañan bakar bat besterik ez du orain gogoan Pedroren seme Gregoriok:

Agur bana egiñaz
alkarri begira,
Epeleko langan zan
gure despedira;
begitikan malkua,
eskuairi tira,
juan biar zendubela
oso urrutira...
bost aldiz oroitzen zait
orduko partira.

[**Antonio Zavala,** Hiru bertsolari]

Gure aitonaren aitona bertsolaria zen, Pedro Santa Kruz. Aitonak askotan bere aitona zenaren bertsoak kantatzen zizkigun. Txirritaren bertso liburuak ere ematen zizkidan, eta auzo honetan gehienak aritzen ziren bertso zaharrak kantatzen.



Agustin Pascual Ugalde Iturriaga.
Iturria: Auñamendi Entziklopedia.

AGUSTIN PASCUAL UGALDE ITURRIAGA "AGUSTIN ITURRIAGA"

1778an Hernanin jaioa, 1851n hila

LAU GERRA BIZITAKOA

Lau gerra-aldi bizi izandakoa dugu Iturriaga: Konbentziokoa lehenik (1793-95); Independentziako gerra (gure artean Frantsestea esan izan dena) gero (1808-13); "Trienio Liberal-konstituzional"-ean (1820tik 23ra) erregezaleek egindako altxamendua hurrena; eta, azkenik, gure herriaren historia hain sakon markatu duen Karlistada: Lehen Karlistada (1833-39). Hamasei urte luze bizi izan zen Agustin, era batera edo bestera, ekintza armatuen erdian.

ETXE ONEKOA ETA INGURUA

Etxe onekoa zen Agustin: "zezakeen jendea" ziren Pascual Iturriagatarrak. Zezaketenak eta, herrian zein Probintzian, zezakeen jendearekin harreman estua zutenak.

Gipuzkoako jende ikasiarekin, Hernaniko eta Donostialdeko jende ilustratu eta, oro har, liberal famakoarekin bildu ohi zen sarri Agustin.

Donostiako bilerak Fermin Lasala Collado "Mandasko duke"aren gurasoen etxean egiten ziren, askotan. Gipuzkoako gizarte-hierarkian goi-mailan zegoen jendea biltzen zen Hernaniko eta Donostiako bilera horietara. Jende ikasia, ilustratua; gizartearen esparru instituzionalean, ekonomikoan edo kulturalean goi samarrean zegoena edo gorabidean zihoana.

Euskaltzale eragilea zen Agustin, eta bere moduko kezka-gogoak ageri zituzten gipuzkoar eta euskaldun gehiagorekin harreman estuak izan zituen. Deigarriak dira, alde horretatik, Juan Inazio Iztuetarekin izandako harremanak, bai gutunez eta bai aurrez aurre. Aieteko parean, "Oriyamendiko gañean" egin ohi zituzten elkarrizketak, zenbaitetan behintzat. Euskara aurrera nola atera, hori izaten zen itxuraz "goi"-bilera horietako solasgai nagusia. Lagunarte dotorea eta euskaltzale-taldexka bizia: horiek izan zituen bere harreman-sarearen oin biko oinarri.

Pedagogo ona izateagatik dugu Iturriaga batez ere ezagun. XIX. mendeko bi iritzi-joera handietako batetik, pentsaera ilustratu-liberaletik, zetorren Iturriaga: hori zuen etxeko giroan eta lagunarte jasoan gidari, eta bide horri eutsi zion, bere gorabeherekin, bizi izan zen artean.

Gatozen, azkenik, Iturriagaren etsaietara. Horrelakorik ere askotxo izan zuen Iturriagak bere bizian. Denetan agiriena, jasotako datuak zuzenak

Hernaniko bilerak Zuaznabartarren etxean egiten ziren batzuetan, Iturriagarenean ere bai aldian behin. Iturria: guregipuzkoa.com.

baldin badira, Hernaniko "beste" irakaslea: Mariano Arizmendi. Etsai okerrenak badirudi, halere, paperetan ageri ez direnak, edota hala seinalaturik ez daudenak, izan zituela. Herrian bertan izan zituen, itxuraz, etsairik gogorrenak. Uste izatekoa da, apezpikuak herritik desterratu zuenean erabaki horren xaxatzaileak ez zebiltzala batere urruti.

ESKOLA BERRITZAILEA

1817an, gizarte-giroan aldarte politiko egokia izanik hartarako, bere anaia Cayetanorekin eta herriko maisu eta organo-jole Manuel Larrarterekin "casa de educación" edo ikastetxea zabaltzea pentsatu zuen Agustinek. Ikastetxe pribatua zen berea, herri-kaskoan lehendik zabaldurik zeuden beste biak (Herriko eskola eta Mariano Arizmendiren pribatua) osatzera zetorrena. Tramite guztiak amaitu eta 1818an zabaldu zuen Iturriagak ofizialki, bere ikastetxea. Berritzailea zen ikastetxe hori, alde batetik baino gehiagotatik. Zigorra debekatua zegoen eskolan, eta ikasgai osagarriak eskaintzen ziren: kultura-giro osoan txertatuz erakusten ziren hizkuntzak, bere hutsean irakatsi ordez. Famatua egin zen ikastetxea, eta ikaslez gora egin zuen berehala. Hernanitik ez ezik Gipuzkoa osotik, eta are Nafarroatik, etortzen omen zitzaizkien ikasleak (Barnetegi moduan funtzionatzen zuen, besteak beste, ikastetxeak).

Lan horretan hasi eta handik gutxira, Gipuzkoako eskoletan hizkuntza kontuan gaizki jokatzen zela konturatu zen Agustin: gaztelaniaz erakusten zitzaien irakurtzen, erdaraz ezer gutxi zekiten edo tutik ere ez zekiten umeei. Etxetik euskaldun izanik ikasle gehienak (eta horietariko asko elebakar), irakasle lanak probetxu onik aterako bazuen alfabetatzea lehen -lehenik euskaraz egin behar zela ikusi zuen Iturriagak.

GIPUZKOA OSORAKO IKASMATERIALA SORTZEN

1820an, Madrilen gobernu-moldea aldatu eta liberalek agintea eskuratu zuten. Eskola-sistema berritu nahian hasi ziren Probintziako agintari berriak. Eskola kontuan eredugarri zelakoan, Iturriagarekin akordatu ziren 1821ean eta beregana jo zuten. Eskola kontuetarako aholkulari hartu zuten berehala. Gehiago ere bai: Gipuzkoa osorako ikasmaterial egokiak presta zitzan eskatu zioten, 1821eko urte-amaieran. Handik berehala, bere apaiz- eta irakasle-lanak alde batera utzi gabe, Aldundi liberalaren enkarguz ikasmaterial elebidun egokiak sortzen hasi zen buru-belarri.

ESKOLA ITXIARAZI

Ez zuen luze iraun, ordea, kontuak. 1823an erori egin zen aginte liberalkonstituzionala, burrundara bizian, eta gauzak asko itsustu ziren Iturriagarentzat. Bai beretzat eta bai bere eskolarentzat. Hasteko, ikastetxea itxi edo itxiarazi egin zen kolpean. Bestetik, susmagarrien zerrendara pasa zen Agustin. (...) Bere kontrako epaiketa hasi zen. (...) 1824ko sententziak zera erabaki zuen: errege-indultuaren barruan gelditzen zela Iturriaga eta, beraz, 206 errealeko kostak ordainduta libre gelditzen zela eta bere apaizlanean jarrai zezakeela Hernanin. Baina debekatua zuela, handik aurrera, irakasle-lanean jardutea. Hori izan zuen Agustinek bere biziko kolperik larriena: 1823tik aurrera ez zuen Iturriagak irakasletzan jarraitu ahal izan.

EUSKARA INDARBERRITZEKO PLANA

Une batez, 1830ean, deia jaso zuen Gipuzkoako Batzar Nagusiek eratu berria zuten Sustapen batzordetik. Euskara gainbehera zetorrela, zerbait egin beharra zegoela ikusten zutela Batzar Nagusietan, eta euskara indarberritzeko plan bat egitea erabaki zela. Plan hori idatzi eta aurkeztea eskatzen zitzaiola berari, Agustin Iturriagari.

Esan dezagun baiezkoa eman zuela Agustinek eta (...) enkargu horri erantzun nahirik joan zitzaizkiola Iturriagari bizpahiru urte. Iztuetarekin eskuz esku jardun zuen horretan. Horretantxe ari zen, 1833an Lehen Karlistada lehertu zenean. Han bukatu ziren, aldi baterako, Herri-aginteen enkarguak eta enkargu-ondoak.

IPARRALDERA ALDEGINA

Gerra luzea eta gogorra izan zen Lehenengo Karlistada, 1833an hasi eta (gure artean) 1839an, Bergarako Besarkadaz, amaitu zena. Istilu haien artean ez zuten Agustinek, bere anaiek eta beste zenbaitek beren burua batere seguru ikusten. Hori dela-eta herritik alde egin zuten Agustin Iturriagak, anaia Cayetanok eta zenbait lankide zaharrek, 1834an: Donostiara joan ziren lehenik eta Agustinek Iparraldera jo zuen hurrengo urtean. Han egon zen bost bat urtez, harik eta 1840an Hernanira itzuli zen arte.

Non bizi izan zen, Iparraldeko urte horietan? Badirudi hasieran, 1835etik aurrera, Hendaian bizi izan zela lehenik, Zuaznabartarrek bertan zuten etxean, (Ana Batistaren) kapilau moduan. Gero, Ana Batista hil ondoan eta Hernanira itzuli aurretik Milafrangan bizi izan zen, Arrangoitzeko markesaren Larraldeko jauregian Ana Batistaren iloba zen Arrangoitzeko Bernat, Iturriagaren hitzetan esanik "Iruburuko alkate, Baionako Batzarre andian esertzen dan Bernardo jauna". Larraldeko jauregi horretan ondu zituen Agustinek, azken ukitua behintzat hor eman zien Bernaten beraren laguntzaz, bere Fabula-ipuin famatuak. Jakin badakigu 1840an Hernanin zela berriro.

[**Mikel Zalbide**, Euzkaltzaindiko sarrera hitzaldia, Donostia, 2007an]

BERNARDO JAUNARI

Arkangoitzko Jauregiko seme, Iriburuko Alkate, Baionako batzarre andian esertzen dan Bernardo Jaunari:

Bernat, joan dan neguan,
biok geundenean
ederki apaldurik
suaren aldean,
egin oi zenduen maiz
eztanda irriaz,
ipui oiek arturik,
zuk irakurriaz.
Nola zerez bait-dezu
belarria fiña,
eta gustoa berriz
da gauza jakiña,
bein baño geiagotan
zure esanakiñ
ipui oiek berriro
oi nituen egiñ.
Ala, onak badira,
zuri zaizkitzu zor,
ez dute, ez, zu beste
jaberikan iñor.

[**Agustin Iturriaga**, Ipuiak, Auspoa]

SAN INAZIO MARTXA ETA HILERRIKO ESALDIA

Euskarari jendaurreko ekimenetan ordura arte izan gabeko lekua eskaintzen saiatu zen eskolatik kanpora ere. Horrela etorri zen San Inazioren martxa, ordura arte gaztelaniaz kantatu ohi zena, euskaraz jartzea eta errotulazio publikoan euskarari presentzia argia ematen hastea. Hernaniko hilerriaren sarreran dagoen goiburua ez zen, oker ez banago, bere saio horren lekuko bakar gertatu.

Argitalpenak

- "Ipuiak". Auspoa
- "Alegiak". Gero
- "Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano, con un diccionario basco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos" (1842an)
- "Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa"(1842an)

EUSKAL-ERRIKO GAZTERIARI

Nere Euskal-Erriko
gazteri ederra,
ez det uste derala
egin lan alferra,
ipuaiak ifintzean
gure zortzikoan,
kantatzeko, nai bada,
arturik gogoan.
Badirade latiñez.
badira erderaz;
ez al ditugu bear
guk ere euskaraz?
Bai, on da jakitea
lengo denboretan
txit omen zekitela
ederki itzketan
txakur eta katuak,
auntzak, azeriak,
itz batean, orduko
abere guztiak.
Ala dio Esopok;
gizon egitia
ote zan, ez dakit nik,
edo gezurtia;
baña ez da dudarik
zala txit txikia,
bizkar makurra eta
jakintsu andia;
eta lendabiziko
onen mesedeak
mintzarazo zituen
ederki abereak.
Aditurikan oien
jardun-erausiak,
egingo dituzute
askotan irriak;
esango ere dezute
egiñikan farra:
«Ez uen orregatik
jende ura narra!»
Ipuien akaballan
dauden sententziak,
agiri da dirala
egia andiak;
eta, sartzen badira
zuen biotzetan,
damutuko ez zazute
zeren egunetan.
Orra Esopo jaunak
nai duen saria,
eta orra nik ere
nai dedan guzia.

[**Agustin Iturriaga**, Ipuiak, Auspoa]

JUAN ANTONIO LEKUONA UGALDE "KUXKULLU"

1850ean Ereñozuko Tellerian jaioa, 1920an Oiartzungo Lekune baserrian hila

Lekune baserria, Oiartzunen. Iturria: guregipuzkoa.net

Kuxkullu onen billoba Madalenari galdetuta, bere aitona Ereñozu'ko Telleria'n jaioa ote zan erantzun digu. Andik, Andola baserrira ezkondu zala eta bizi izaten antxe jarri. Baserri ori, Zikuñaga'ko ondoan da. Andola'tik, berriz, Loiola'ko Uba'ra aldatu omen ziran. Eta, azkenik, andik Oiartzun'go Karrika'ra, Lekune baserrira.

Juan Antonio Lekuona edo Kuxkullu bertsolaria Ernani'n ezkondu zan, 1871'eko Ilbeltzaren 23'an, bertako alaba Josefa Antonia Belderrain Etxeberria'rekin.

(Kuxkulluren biloba Madalena Lekuonak kontatua): Gure anai batek, Antoniok, bazuen aitonaren aidu pixka bat bertsotarako. Berez etorri bear du eta arek bazuen. Aitonarekin aritzen zan bertsotan. Aitonak ere ikasi zituen aren bertso batzuek. Guk ere, al genduenean, zerbait ere aritzen giñan aitonarekin, eta anaiarekin ere bai beste pixka bat, eta ola.

ZERGATIK "KUXKULLU"

– Eta Lekune'ko bertsolari oni zergatik erantsi zioten izengoiti ori?

Bear genduan argibidea, billoba zarrenak, Ernani'ko Tolarieta'ra ezkondu eta bertan bizi dan Madalena Lekuona'k, eman zigun:

«Mendian, basoan-eta, orduan aritz asko zan eta aritz-arbolaren zepak ateratzera joaten ziran, karobira ekarri, sua egin eta karea egiteko. Urrena, andikan, zepak zeuzkaten pujetatik, kuxkulluak, kanika bezelako batzuk ateratzen ziran. Eta antxe bildu eta, iñoiz errira-edo joaten baldin bazan, edozein umeri kuxkulluak ematen aritzen zan gure aitona zan ori. Karrikara jetxi jaiean eta berdin, ume asko zan orduan eta. Ez genduen asko bear izaten guk orduan konsolatzeko eta danak poxez. Eta gero elkarri:

– Oi! Zeñek eman dizkin?

– Zeñek? Kuxkulluk.

Eta umeak jarri aitonari izengoiti ori. Ori ola da. Ala esaten zioten gero aundiak ere: Kuxkullu.

Beste izengoiti edo beste ezaugarri bat ere bazuen Kuxkullu bertsolari onek, beraren billoba Madalenak esan digunez: «Gari-garbitzallea ere esaten zioten. Makina etxe batetik bestera eraman eta gari garbitzen aritzen zan. Gariak orduan, gure txiki denboran, bastante egiten ziran. Eta gari garbitzeko makina batekin ibiltzen zalako, gari-garbitzallea esan eta olaxe entenditzen zan».

BERTSOTAN ZAHARTUTAKOAN

Itxura danez, zartutakoan asi zan bertso-lanean Kuxkullu bertsolari ori. Bertsogintzara zerk bultzatu zuan, beraren illoba Madalenak itz auetan ederki adierazten digu: «Ura ere, nere gisa, biotzetik gaixo. Etzan lanerako gauza. Eta, denbora pasa, bertsoak jartzen zituen.» Pena da, bañan arek jarritako bertsoetatik, ale bakar bat ere etzan inprentatu. Askok esan bai paperetan ateratzeko, bañan ez omen zuan nai izaten. Liburu onetan irakurleari eskeintzen dizkiogunak, iñoren aotik ja-

soak dira: beraren billoba Madalena, Lekungaraiko Koxme Mitxelena eta bere arreba Anttoni. Bañan bertso oiek, adiskide oien buruan salbatu diran pizarrak ditugu. Askoz geiago izango dira arek jarriak eta betiko galduak. Bat-bateko jardunean etzan asko saiatuko. Etzuan plazan kantatzen. Tabernan edo lagun artean zerbait ere ariko zan, bañan alakorik ez digu iñork aitatu ere egin.

ZEZENA (1913)

Karrika'ko Lekungarai baserriko Koxme Mitxelena'k onela kontatu digu:

«Or menditik zezena artu dute, mendiko zezen oitakoa, eta zakurrekin orrera ekarri dute aurrean, Karrikako errekara, gure etxe azpiko Lekune›ko erreka ortara. Eta an, estrata goiti zakurrakin deguelluan zetorrela, zera atera da, Lekuneko aiton orren semea. Etxera esposatua zegoena zen, Gillermo. Ango zakur-soñua eta destitxa, eta ejuka jendea, eta ura garrotea artu eta atera, zer baño zer ote zen. Gure atari-zakurra ona zegoen, eta an ere bai, Lekunen, bi atari-zakur gogorrak, eta auek ere segitu diote. Eta topo egin zezena, estratan beiti goiti eldu dela, eta eskapo egiterik ez; eta muturrean joka asi da bertan Gillermo ori, eta bi zakurrak sugur-mintzetatik itsatsi. Eta estrataren estolda saltatu eta goitik bera erreka -zulora etorri zezena, eta an errenditu zuten. Bere zakur ta guzi joan zen goitik bera. (...) Gero kalmatu zen. Zezen oi an lotu, eta aziendakin, timoiarekin, zeratu zuten; erreka-zulotik Gartxieneko beiakin atera zuten. Timoia, ganaduak elkar ez jotzeagatik jartzen dena da. Eta Lekuneko aitona ere ateria, ba. Ordurako, bi bastoirekin al zuen bezela ibiltzen zena zen, eta arek bertsoak jarri:

Milla bederatzireun ta
amairu urtetan,
txikana bat pasa da
Lekuneko errekan;
begira jarri nitzan
bada zer ote zan,
ez nuen esperatzen
ori ikusterikan.

Zezen ori zetorren
entero itxusi,
semia saltatu zan
makil eta guzi;
muturrian gogotik
joka zion asi,
errekara juan zan
zakur eta guzi.

Arbolaren gañera
asi naiz iyotzen,
biotza triste eta
etziran laguntzen;
nigana zetorrela
ezpazan jiratzen,
bertatik asi nintzan
Jesusi eskatzen.

Errekan sartu eta
gora eta bera,
zakurrak kozkaka ta
ezin zan atera;
saltua egin zuen
ezponda batera,
kojua erne zeguen,
juan zan eltzera.

Lezo eta Oiartzun
goizutarrarekin,
lesakatar bat ere
bazuten berekin;
zezena lotutzera
soka aundiarekin,
eraman bear dutela
Antxo'ra berekin.

Geiago ere baziran, bañan ez dauzkit gogoan.
Kojua, zezenaren atzetik zetorrena, ura arrapatzera edo ekartzera joantako zera bat zen. Lezo'koa izango zen gañera.»

OSABAREN EZTAIETAN

Lekungarai'ko Koxme Mitxelena'k esana: «Gure osaba bat, Jose Kruz Mitxelena, bigote aundi bat Axerigorri'ko alaba batekin ezkondu zen. Errenteri'ko fronteran egiten zuen lana (erderaz topo esanda entenitzen dan tren txikiari, euskeraz frontera esaten zaio).

Aik esposatu ziranean, baziran bertsoak Lekune'ko Antonio orrek jarriak, gure anai batek atera balitu bezela:

Etxetik juan zaizkigu
aita ta anaia,
osaba ikustera
ta izeba berriya.
Oieri zeñek artu
bear die neurriya?
Tiroz aidatu dute
Oiartzun'go erriya.

Oiartzun'a etorrita
tiroka saiua,
oien pasadizua
esatera nua:
bata kozinera ta
bestia errerua,
guri eman digute
naiko endrerua.

Zarpielek ollua
zintzilik jarriya,
etzan txarra izango
ango bazkariya.

Zarpiel, andregaiaren aita zan. Izengoitia izango zuen orrek Zarpiel. Bertso oiek ere geiago izango ziran, biño nik oiek aditu».

BAT-BATEKO BAKANA

Kuxkulluk aotik aora kantatua, bertso bakarra bildu degu. Bertso ori, Lekungarai'ko Koxme Mitxelena'ren aotik jasoa.

Onela esan zigun: Lekune'ko aiton orren semea, Gillermo, eta Ttolare, Jenaro, biak Karrika'ra joan eta andik puska bat edanda etorri. Eta jatekoa txarra zegoela-edo, zerbaiti keja etxean atarian asita. Eta aitak, Kuxkullu orrek, bertsoa:

Jaten asi dira ta
ezin dio buka,
oraiñ e kozinerak
izango du kulpa;
emango nioteke
biña pezta multa,
erdi mozkortuak datoz
Karrika'ra junta.

[**Antonio Zavala**, Berridi eta Kuxkullu bertsolariak, Auspoa 146]

TXABOLATEGIREN DESAFIOAK

VILLABONAKO DESAFIOA

Ez dira gaurkoak norgeiagokak Euskalerrian. Lenengo notizia XIX-garren gizalditik datorkigu. Bai Iztuetak eta bai Gorosabelek biak aipatzen dute 1801an izan zan desafioa. Euskalerri guziak ezagutzen duana. Parte artu zuten bertsolariak Juan Ignacio de Zabala, Amezketakoa eta José Joaquin de Erroicenea "Txabalategi" Hernanikoa. Apustua bosna ontzako urre (denera 10 ontzako urre). Lekua Billabonako plaza aundia, bi erritatik erdi-bidera zegoana. Garaia, Otsailean karnabal-inguruan. Diotenez lau mila entzule bildu omen ziran (badakizute personen kontaketa oso zaila izaten dala). Edozein modutara jendetza izugarria bildu zala bi bertsolariei entzutera.

Villabonako errebote plazan jokatu zen ezagutzen den lehen desafioa, 1801ean. Iturria: rastreadordenoticias.com.

Juezak: Altamira, Aizarnazabalgo sakristaua, "Txabalategik" aukeratua. Beste aldetik berriz, Zabalak; Juan Ignacio de Iztueta aukeratu zuan (berak dionez) baina erida aundi bat egun aietan egin zuenez, bere ordez "Fernando Amezketarra" eraman zuan. Irugarrena; juez "alderdikeri gabekoa", "inpartziala" Billabonako alkatea, baina bildurturik edo geiegi ulertzen ez zualako, bere ordezko Tolosako arziprestea aukeratu zuten José de Mendizabal oraindik apaiz naiko gaztea baina bertso mundua asko ezagutzen zuana.

Bi koplariak, bi ordu luzetan jardun zuten batak bestea nola menderatuko. Iztuetak dio "Batac besteari asmatu al citzaten itz-gairic nequezenac iriquiaz nondic eta nola alcar naspillatuco zuten aleguiñic andienac eguiten zituztela" (Euskadi aldizkaria, 12 urtarrila).

Txaloen artean bi ordu igaro ondoren garraxika eta oiuka entzuleek erabakia artu zuten: biak berdin-berdin egon zirala.

Jendea pixkat baretu zanean Altamirak, Aizarnazabalgo sakristauak, onela kantatu zuan:

Txabalategi eta
Zabala gaztea
askok deseo zuten
kantuz ikustea.
Atsegin aundietan
geldi da jendea;
bata adinbat egin
bear degu bestea.

Jende guztia txaloka utziaz. Ondoren Fernando Amezketarrak, jeiki, jendearengana urreratu eta onela kantatu zuan:

Ezin gentzake, bada,
beste gauzik egin;
nik goguan naukana,
zuk dezu itzegin.
Utzi bear ditugu
biak berdin-berdin,
Gipuzkoa guziak
ar dezan atsegin.

Tolosako bikario Jaunak epaimaiko lendakari eta juez erabakior bezela kantatu zuan:

Jaunak, mintzo zerate
griña txarrik gabe,
pozkidatu nazute
txit asko, alare;
egia esateko
ipiñiak gaude:
bata bezin bestea
kantari onak daude.

Jendea gustora eta atseginez etxeratu zan, alako desafio ederrik ez zuala aspaldian ikusi eta. Iztuetak dio, bi bertsolarien artean anaitasun luzea izan zutela eta bukatzen du esanaz, Virgilioren Eglogatan berdin gertatu zela Tirsis eta Damon-en artean Platón juez zutelarik.

[**Jesus M. Etxezarreta**, Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak]

TOLOSAKO DESAFIOA

Tolosa'ko erri leñargitiko batzartar jaunak, 1802'garren urteko iñauteriaren azkenengo arratsaldean, biribillatu zituzten lau itz-neurtulari, Gipuzkoa'n aurki al zitezkean onenak: Zabala, Pernando, Txabalategi eta Altamira, lauak letra bat bakarra ere ezagutzen etzutenak. Plaza zarreko baranda banatara igorik, kantatu zuten arratsalde guzian bi-bitara. Ain atsegintasun aundikoa ta pozkidatsua izandu zan arratsalde gogoangarri ura, ezik, illunduta gero ere, deadarka zeuden entzuleak, aurrera ere kanta eragiteko, eta uste det, baldin eguna zabaldu arterañoko guzian ere ari izandu balira kantari, etzala aldenduko entzuleen artekorik iñor ere.

[**Iztueta**, Txabolategi Gipuzkoa'ko dantza gogoangarriak]

Iztueta, bolara artan, Tolosa'n zan, bañan kartzelan: 1801'eko abenduaren 6'an preso artu, 18'an Tolosa'ra eraman, eta 1802'eko maiatzaren 11'an Azpeiti'ko kartzelara aldatua. Tolosa'ko saio ori, berriz, 1802'eko «iñauteriaren azkenengo arratsaldean» izan zan. Iztueta bertan zegoalarik, beraz. Garai artan Tolosa'ko kartzela zein tokitan zan, guk beintzat ez dakigun gauza da. Bañan udaletxean baldin bazan, plaza zarrean alegia, etzegoan Iztueta bertsolariengandik urruti; auek «plaza zarreko baranda banatara igorik» kantatu baitzuten. Bearbada, an egongo zan gizarajoa, belarriak erne-erne, illunpe artatik bertsoak entzun naiean. Kontu polita au ere: bertsolariak plazan kantuan, eta aien kronista edo berri-emalea bertsoak espetxetik entzuten...

[**Antonio Zavala**, Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak]

PASTOR IZUELARI ZIRIKA

Agustin Arruti Larragoien "Pastor Izuela" garai hartako beste bertsolari handietako bat zen, aiarra. Behin Hernanira etorrita bertso hauek kantatu omen zizkioten elkarri Txabolategik eta biak, beste askoren artean seguru asko. Zenbait kontakizunek diote, Hernaniko aberats batek prestatu zuela bi bertsolarien arteko desafioa, Txabolategi Izuela baino hobea zela iritzita. Baina aldi honetan ere onena zein zen erabaki ezinda geratu omen ziren. Hauek dira gorderik dauden bertsoetatik bost (guztiak ez dira elkarren segidakoak), hiru puntuko handian:

1

Txabolategik:
Aizu Agustin Izuelako
ahuspez lurrean jarririk,
bizkarra ere makurtu zazu
bakartasunez beterik,
admiraturik aurkitutzen naiz
ez dezulako andrerik.

2

Izuelak:
Jose Joakin, zer egingo det
baldin modurik ez bada?
Lan horregatik korritu ditut
Bizkaia eta Araba,
zure esperantzan egon naiz ta
hazi zaidazu alaba.

3

Txabolategik:
Nere alabai suerte onen bat
ein al baneza munduan,
egingo diyot enkargu hori
etxera nuan orduan:
ia ezkontzeko pentsamendurik
ote dadukan buruan.

4

Izuelak:
Hiru osaba Parisen dauzkat
Bonaparteri serbitzen,
haien umiak, zazpi lehengusu
gobernadore Cadizen,
donzellatasun hau zertaño dan
nik ez diyot entenditzen.

5

Txabolategik:
Gure etxian lau ollo dira
hiruk daukate kiyua,
oilarra berriz haien ondoren
tantaian gora iyua,
adios jaunak beste bat arte
pasa da dibertsiyua.

[**Unai Agirre**, Hernaniko Urtekaria 2007/08]

PERNANDO TA ZABALARI

Bein Txabalategi ta Ernani'ko beste bertsolari bat, Lekunberri'ko bi bertsolarikin aritu ziran bertsotan. Gero, Ernani'ko bi bertsolari aiek Amezketa'koakin –Pernando zan beren artean– Tolosa'n arkitu ziranean, Ernani'ko Txabalategi'k bertso au bota zuan:

Pernando ta Zabala
erri batekoak,
badakit zeratela
koplari bapoak.
Ez izanagatikan
zuek añakoak,
gu ere egin ginduzen
zerbait Jaungoikoak.
Lengo apustukoak
Napar-errikoak,
Lekunberri'koak,
etziran pijoak;
askoz obeak gaituk
Ernani'koak.

Entzuleen artean an zegon Ametza, bertsolari onenetakoa, ta Pernando'ri zirika askotan aritzen zana. Txabalategi'k amezketarrak nola goratu zituan entzuteak min piskaren bat eman zion Ametza'ri noski. Pernando'k arpegian ezagutu zion eta ona bota zion bertsoa:

Ametza omen dago
gizon arrittue,
itxuraren kontrako
entendittue;
onek jarritzen digu
kontu luzittue,
gu geiago gerala
ezin suprittue;
kantuzko pleittue,
beartzen gaittue,
galduko zaittue,
jarri nai goittue.
Amezketa'k zedukak
kantuz kredittue.

[**C. Muxika**, Pernando Amezketarra bertsolaria, Auspoa 54]

BERTSO PAPERAK

ERBIAREN BERTSOAK. SANTA KRUZ

Ama Birjiña Kontzezioko egun batez, bere terrenoai buelta ematen zijoala, sagasti batean erbia lotan zegoala ikusi zuan. Etxera etorri, bere pistoizko eskopeta artu ta sagastira joan zan berriro, ixil-ixilik. Erbia lengo tokian arkitu zuan, lotan oraindik ere. Tira dio, bañan su artu ez... Tximinetaren otsarekin, berriz, erbiak esnatu ta alde egin zuan, tximista bezin azkar, eiztaria esku utsik gelditzen zala.

Andik, naigabea kentzera-edo, sagardotegira joan zan gure bertsolaria. Erbiarekin zer pasa zitzaion lagunai kontatu zien, da auek, gertaera arek bertsoak jartzea merezi zuela, da arren da arren jartzeko asi zitzaizkan. Baita jarri ta paperetan inprenta-arazi ere. Lenengo txandan, 1.000 paper atera zituan. Ta oiek artuta, Donostira joan zan seme zaarrena, Jose. Paperak, bosna xentimo ematen zituan, baita egun artan bertan, guzi-guziak saldu ere. Orduan, beste 1.000 paper inprentatu zituan, da Tolosara joan zan saltzera. Baita emen ere guziak saldu. Zoritxarrez, ordea, bi milla paper oietatik ale bakar bat ere ez da gure eskuetaraño etorri.

Bertsoak, emen jarri degun eran, Tolosa'ko Baleriano Mokoroa zanak eta Pedro Santa Cruz'en semeak, Gregoriok, buruz zekizkiten bezela daude, bien artean sailla osatuta, bertso baten erdia izan ezik, irakurleak ikusiko duanez.

1

Para biar nituzke
zenbait bertso berri,
Adunan zer pasa dan
itzegiñez garbi;
nola peatu didan
erbi batek neri,
jakiñ nai dituena
atenditzen jarri.

2

Birjiña Kontzeziyoko
arratsaldian,
rejistruan nebillen
nere sagastian;
erbi bat ikusi det
sasi-bazterrian,
lo etzanda dagola
patxara ederrian.

3

Etxera joanda ekarri
nuan eskopeta,
baita ustez erbiyari
ederki apunta;
beankai tira niyon
ta ederki salta,
surikan ez dit artu
pistoia ez lertuta.

4

Tximenetaren otsa
entzun duanian,
denbora asko ez du
pasa sasi-pian;
beldur enemigon bat
ote zun gañian,
gutxienaz salta da
larogei oñian.

5

Lurra jo duanian
ai aren abira!
junturak bigun zeuzkan
itxurak badira;
aldapai gora ekin
diyo ensegira,
etzan luzaro egon
atzera begira.

6

Sagastian jetxita
laster zan soruan,
golde bat lur pasa du
lenengo saltuan;
gero boteka asi da
a pie-ka juntuan,
"ez natxiok iretzat"
ark bere goguan.

7

Alako martxarikan
zuanik erbiyak,
sinistuko ez nuen,
orra esan egiyak;
arin zeramazkiyen
anka ta ipurdiyak,
laster ein ditu nere
bistako aldiyak.

8

Itxoiteko esan nion
bañan etzan jira,
errespuesta eman balu
utsa zan sikira;
ni mogitu baño len
joan zan urrutira,
ez agur ta ez ariyo
egin dit partira.

9

Erbi ura ez dago
nigana koleran,
sano utzi deralako
oraingo bolaran;
ark esango du: "Pedro,
zer gizon ona dan!",
ain gaizki tratatua
apenas juana dan.

10

Neri suak utsegin
eztu egin negarrik,
ondorian atera
bai salto ederrik;
belarriak erne dauzka,
listo anka gorrik,
San Gregorioi ez dauka
promes in biarrik.

11

Arrapatu ezkero
balitzake nork jan,
ai zer kazuelakada
ederra dadukan!

12

Orra amabi bertso
para erbi bati,
iltzia uste nun bañа
sano da nigati;
zerri aulak ezkurra
amets oi du beti,
jan nai genduan bañа
egin digu tati!

[**Antonio Zavala**, Hiru bertsolari]

(1889) "DESGRAZIA BAT SUZEDITU ZAT ..." PATXI BAKALLO

Bertso auek Argentina'n inprenta-arazi zituan Patxik. Kanta-papera, Isaak Lopez-Mendizabal jaunak bialdu zidan andik. Onako moldiztegi ontan argitaratua da: *"Tipo. Lito. La Nueva Central Piedad 1041".*

1

Milla zortzireun larogei eta
beatzigarren urtean,
desgrazia bat suzeditu zat
Buenos Aires'ko partean;
egun aretaz oroituko naiz
biziya dedan artean,
mediku ona ez banu izan
sartua nitzan lurpean.

2

Alanbre batek enredatuta
makur bota det pausua,
kosta zitzaidan nere gorputza
lurretik ezin jasua;
espalda atera bi tokitatik,
ausia neukan besua,
asko pentsatzen ez nuen bañan
zer ordu lastimosua!

3

Pedro San Martin deitzen dioten
mediku kuranderua,
ez da posible arrapatzia
gizon bat leialagua;
puñu azkarrak, jakintsua da,
kariñoz ere berua,
nere partetik bizi bedi ongi,
iltzen danean zerua.

4

Lastimatuta dagon gizonak
dauzka alderdi laburrak,
Don Pedro jaunai abisatu diot
ausi ditudala ezurrak;
alde batera etortzia nai,
bestetik berriz bildurrak
pasa bezela kontatzen ditut,
oiek ez dira gezurrak.

5

Etorri eta abiatu zat
"Zer dezu, Patxi?" galdezka.
"Len zuzen zeuden ezur pobriak
ona nun dauden trabeska."
Ikusi eta kontestatu dit:
"Ez ikaratu, deus ezta."
Nere goguan: "Naiago nuke
atzo bezela baneuzka!"

6

Pedro San Martin famatua da
Amerikako lurrian,
neonek prueba ikusia naiz
nere begien aurrian;
probatu eta jakiten dira
mediku azkarrak nor dian,
zenbait lekutan gertatu banitz
ez negon leku txarrian.

7

Akordatzeko moduan ditut
egun artako pausuak,
sufritutzeko sortua naiz ni
samiñak eta gozuak;
ez izan arren prezisamente
terreno peligrosuak,
uste ez diran parajietan
badaude estrapozuak.

8

Arras batian gertatu banitz
beste askotan bezela,
testimonioz sortuko zuten
Bakallo mozkorra zala;
egun argitan suzeditu zan,
lanian ari nitzala,
ordu gaiztuan allegatzetik
jainkoak guarda gaitzala.

9

Bertutiaren indarrak dira
gugandik diperentiak,
ori sinisten ez duten denak
dirade inozentiak;
naiz izan bitez gizon azkarrak,
igual komerziantiak,
gure jainkoak nai duen artean
gerade balientiak.

10

Esan dirade alanbre orri
eskapatu izan banio,
... zi galduak izaten ditu
edozein erremedio;
datorrenari ongi etorri,
dijuanari adio,
pazientzia artu biarko det,
bestenaz eztu balio.

11

Bestek jana eman, bestek bestitu
lotuta nagon lekuan,
geienaz ere ala jartzen da
lapur andi bat zepuan;
besua ausita, triste burua
nenguan klase bajuan,
iñoiz aisago kaminatu det
Buenos Aires'ko kanpuan.

12

Amaika salto ibiliya naiz
errioan ta legorrez,
askok bezela banidaderik
ez det izandu indarrez;
franko manejuz gobernaturik
gorputza obeto biarrez,
familia dena aunditua det,
ez daukat aurrik negarrez.

13

Berrogei ta emezortzi urte
kunplitzen zaizkit Urrian,
asko ikusteko sortua naiz ni
mundura larru gorrian;
ni gertatu naiz mendian eta
igual plazaren erdian,
nik ainbat kopla botatakorik
gutxi da Euskalerrian.

[**Antonio Zavala,** Hiru bertsolari]

14

Ezurra ausita lastimosoa da
gizon zarraren erida,
ni bezela iñor gertatzen bada
egon zaitezte begira;
istanpatian atrasatu det
bizimoduko segida,
paseak pasa, konforme nago,
orain sendatzen ari da.

15

Paper batian ortxen dabiltza
amasei bertso berriak,
marka aundirik ez lezake egin
gizon beso-elbarriak;
bestela etzuten ikasiko ere
parientien erdiak,
izenetikan jakin dezaten:
Patxi Bakallok jarriak.

16

Azkenerako kalkulatu det
bertso batzuek saltzia,
nai det jendeak zertako diren
abertentzian jartzia;
mediku eta botika eta
sangijuela eta partxia,
bentaja aundia dator neretzat
orrekin pagatutzia.

BETROIARENAK. XENPELAR (1835-1869)

Bertso berriyak jartzen
orain naiz abiyan,
predikatzera nua
Euskal-erriyan;
betroi bat artu nuen
Ernanin feriyan,
galantziya egingo
zuela agiyan;
tristura begiyan,
beti auleriyan,
ez aren premiyan
nere fameliyan;
Senpelarrek dakizki
Errenteriyan.

Ostegun joan danian
amabost Ernaniñ
betroiaren tratua
genduen egiñ;
Inaziyo saltzalle,
erostuna Fermiñ,
emeretzi ezkutu
geniyon eragiñ;
sabelian du miñ,
iñork ase eziñ,
artuari muziñ,
eztu nai edoziñ;
atzetik biar ditu
zazpi medeziñ.

Informe txarrak dira
orrentzat auzotik:
espalda ateriya,
urgun besotik;
eztula ta antziya
ukullo-zokotik,
desterratuko nuke
nik nere bototik;
amarra lepotik,
grilluak orpotik,
makillaz ondotik
jotzen det gogotik;
etzaio ajolarik
ezerengatik.

Oraindik gaztia da:
ogei ta sei urte;
ernari omen ditu
bost illabete;
nik eztiyot igertzen,
ala esan dute,
gezurra baldin bada
engañatu naute;
aragiya aparte,
ezurretan torpe,
zañak dauzki fuerte,
zeñek nai du merke?
zikiro baten truke
emango nuke.

Kara iguala du
aurrian ta atzian,
basurdia diruri
zutik jartzian;
konsuelo bat daukat
nere biotzian:
bizirikan gelditzen
bada Ilbeltzian,
ori umatzian,
esnia etxian,
gazta abatsian,
gazura arratsian;
belarrak gizenduko
du Maiatzian.

Zure arboletikan
datorren loria,
frutua konserbatzen
pare gabia;
umatzen baldin bada
ai zer poderia!
guardatuko diot
bere onoria;
orren koloria
beltza ta moria,
juan zaio floria,
lenago obia;
nere fameliyaren
ondadoria.

Begi bat itxua du,
adar biyak motzak,
krisellua dirudi
aren kokotzak;
ikaratutzen gaitu
eztularen otsak,
burlaka asi zaizka
elizatik ontzak;
sano dauzka ortzak,
agiña zorrotzak,
tristura biotzak,
dantzan dabill otzak;
eztiyo onik egin
leku arrotzak.

Borroka dabillela
juan zaizka adarrak,
eziñ sujetaturik
bere indarrak;
lurrera botatzen du
euliyaren kargak,
talentu onak dauzka
nere betroi zarrak;
jendiaren farrak
ez dirade txarrak;
ganadu elbarrak
juntura igarrak;
burruntziya diruri
aren bizkarrak.

Nere betroiak ez du
auko loalia,
egunero nai ezik
ogi-alia;
alare eziñ jaso
lepoko jualia,
buruba makurtuta
zerbaiten galdia;
aren zaldalia
ezta debaldia,
gauza onen zalia,
bizkotxo jalia;
malezi asko duen
arrantzalia.

Buruba jarri zaio
lurrera begira,
belarriyak zintzilik
ai zer segira!
albaitero guziyak
ikaratzen dira,
zeñek sendatuko du
orlako erida?
bajatzen ari da
irutatik bira;
au nere perdida,
nork nai du erdira;
bañan eztet eman nai
Euskal-errira.

Urtiak gallendu ta
ajiak azaldu,
daukanak obe zuen
artu ezpalu;
etxetikan kanpora
eziñ det bialdu,
joka asten naiz bañan
laister urrikaldu;
aragiya galdu,
larrua ona du,
ezurrak onradu;
frantzesak nai badu,
laban-kirtenetako
obe det saldu.

Orra bertso berriyak
Senpelarrek para,
askok jakin dezala
nere euskara;
ustez alabatu det
betroiaren kara;
ukulluan eztulka
pasatzen du gaba;
au gure ikara,
sano du ijara,
guziya tripara,
orlakua zara;
desterratu nazazu
gezurra bada.

[Bertso jarriak, Xenpelar. Auspoa, 1969 Klasikoen gordailua]

GERRAKO BERTSOAK

SAN INAZIO LOIOLA'KOAREN ALABANTZAK. TXABOLATEGI

Bertso auek, Aita Jose Inazio Arana'ren bildumatik ditugu. Moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper bat da. Beste bertso-paper bat, Azpeiti-an: Pablo Martinez-en Moldizteguian argitaratua, iru tokitan arkitu degu: Getari'n, Balentziaga apaiz jaunaren eskutik; Oxford'ko Bodleyan Library'n; eta Chicago'ko New Library'tik, Bonaparteren paperetatik. Chicago'ko paperak oar auek ditu eskuz erantsita: «S. Inazio-ren zillarrezko talluaren condaira». Eta: «1828-aldean baserritar batec egin, eta berriro molderatutaco itz neurtu amarrecoac».

Bertsoak noiz jarri ziran edo aurreneko aldiz noiz argitaratu ziran adierazteko, paper batean 1816 urtea ageri da, eta beste batean 1828.

Nor izan ote zan bertso auen egillea? Aita Arana›ren bilduman azaldu dan moldiztegi-izenik gabeko paper ortan, izenburuaren gaiñean, eskuz idatzita, iru itz auek irakurtzen dira: »Del famoso Chavalategui».

...

Bertsoak ulertzeko azalpen historikoak

Konbentzioko gerra 1793›an asten da. Urrengo urtean, frantzesak Loiola›z jabetzen dira, eta jesuiten etxean soldadu-talde bat uzten dute. Gipuzkoa›ko Diputazioak agindu bat ematen dio orduan ixilka Elgoibar›ko Pedro Larrunbide›ri: Loiola›n indarrez edo al duan moduan sartu eta ango gauzarik baliotsuenak ateratzeko. Larrunbide, soldadu eta boluntario berreun gizon artuta, Loiola›n sartzen da eta amabi kaja betetzen ditu. Oietako batean, San Inazioren irudia, desarmatuta. Elgoibar›era eramaten ditu kaja oiek, eta andik Madrid›era. Frantzesak, mengantzaz, Larrunbide›ren etxea sakeatzen dute.

Frantzia eta Españia›k 1795›ean egiten dute pakea. Andik bi urtera, 1797›an, jesuitarik ez baitago eta berak gerra ortan beren Urdazubi›ko etxea galdu baitute, Loiola›n bizitzeko baimena lortzen dute premonstratenses izeneko prailleak. San Inazioren irudia ere badator Madrid›tik, eta Loiola›ko aldare nagusian jartzen da. Urdazubi›ko beren etxe ori berritutakoan, 1806›an, ara dijoaz erlijioso oiek; eta Loiola›ko zaintzalle Migel Pizarro gelditzen da, Extremadura›koa bera, bere bi seme Pedro eta Joserekin.

Loiola ondoan, eguzki aldera, bada beste etxe aundi bat, sei arkupe dituana. Gaur egunean gogo-jardunak egiteko erabiltzen bada ere, garai batean ostatua zan. Ostalaria, berriz, Fernando Erauskin zeritzan. Bertsoak bentero deitzen diote. Anai bat ere bazuan, Juan Bautista izenekoa. «Bernardo txikia eta hermano Bautista» esaten die laugarren bertsoak, leenengoaren izena aldatuz. Bi anai oiek eta beste bi lagun izan omen ziran irudia salbatu zutenak, laugarren bertso orrek dionez. Baiña beste iru esan bearko luke, Pizarro aita eta bere bi seme izan baitziran. Irugarren bertsoak onela dio:

Orain bidaltzen dute
kausa apuntean,
ori guardatzeko
leialak nor ziran

Ain zuzen, Loiola›ko artxiboan bai omen da berrogei ta amabi orrialdeko memoria bat, Migel Pizarro›ren seme gazteenak, Josek, idatzia, gertaera auek danak kontatuz. Ori izango da dalako apunte ori.

Frantzesteko gerra asi zanean, 1808›an, Pizarro orrek, bere bi seme oien eta Erauskin bi anaien laguntzarekin, San Inazioren irudia eta beste gauza asko pareta-zulo batean sartu zituzten, pareta berri batekin dana estaliz. Orixe da bigarren bertsoak aitatzen duana.

1

Aita San Inazio,
zure milagroa
urte gutxiz onoztik
orain igaroa,
lengo guziyak baño
au da geiagoa.
Ni zure alabantzak
esatera noa,
basta da zaitugula
probintzianoa.

2

Santu glorioso au
pareten artean
kolejiyoan gorde
zuten presentean.
Gero pentsatu zuten,
andik irtetean,
para obeko zela
kajatxo batean,
bestela gaur Frantzia›n
egon zitekean.

3

Aita San Inazio,
sarturik lurpean,
frantzesaren bildurrak
dago iru urtean.
Orain bidaltzen dute
kausa apuntean:
ori guardatzeko
leialak nor ziran.
Zu nai zinduztekenak
badira Nortean.

4

Bernardo txikia ta
hermano Bautista,
beste bi ere fiñak
ziran zure gisa.
Emanagatik ere
milla topaitza,
kontuz aterako da
zuen autik itza,
gauza delikaduak
isillik bebiltza.

5

Aguztuko egunean,
illaren iruan,
parisiyua franko
badu inguruan.
Ustez egonagatik
toki seguruan,
ez geiegi fiatu
oraingo munduan,
galdutzeko lau beatz
falta etzenduan.

6

Aita San Inazio,
zure relikia,
benteruak gordeta
maitero irukiya.
Frantzesak orren billa
ainbeste porfiya,
infame traidoreak
zuten urrikiya,
etzutela billatu
zu zeunden tokiya.

7

Asko trabajatu da
bentero Bernardo,
lagunak billaturik
santu orren bando,
frantzesai bere botuz
ez diote emango.
orrek merezi luke
zerbait agirando,
munduan pasa dezan
bere zartzia ondo.

8

Bernardo saiatu da
bere auzo legean
santu au guardatzen
gau ta egun pelean,
minuto guzietan
frantzesen mendean.
Arkitu diotela
etsi du azkenean,
susto bat aztuko da
galdu eztanean.

9

Difuntu glorioso
Hugarte-mendia,
Patriyari ziyona
amoriyo andiya.
Jakitera etorri da
kontu oin berria,
bazuten aspaldian
norbaiten premia,
Bernardori galdetu,
ark daki egiya.

10

Zeruko santu eta
santen egunean,
ditxoso au zugana
etorri zanean.
Jakitea zeneukan
zere poderean:
ondotxo gorderikan
usotegipean,
kajan enterratuba
sarturik lurrean.

11

Mendizabal jeneral
fama aundikoa,
Españia'n bada ta
gizon benditoa.
Rezibitu degu
orren abisua:
Bilbao'ra pasatzeko
dala prezisoa,
gabatxoen artetik
agudo bijua.

12

Aita San Inazio,
guazen igesi,
ez gaitezke Loiola'n
deskantsuban bizi.
Sinplemente galtzia
ez luke merezi,
badaki dirala orain
frantzesak nagusi,
etsaien eskuetan
bere burua utzi.

13

Telleria jauna ta
letradu Arizpe,
allegatu dirade
santu onen eske.
Gauzarik onena
disponi bezate:
Bilbao'ra pasatzeko
arren jai edo aste,
peligroan dagoala
frantzesakin uste.

14

Lenbiziko irteera
zuen Azkoiti'ra,
korrejidore jauna
dagoen tokira.
Probintziako buru
orain berok dira,
beste lekutan baño
emen obeki da,
eramateko asmoak
dituzte urrutira.

15

Beste mobimentua
zuen Motriku'ra,
karretero triste bat
leial ibiltu da.
Santuak izan arren
illaren itxura,
beti eska zaiozu
fortuna on dizula,
berak sartuko zaitu
zu paradisura.

16

Motriku'tik Bilbao'ra,
andik Santanderra,
agudo Coruña'ra
pasatzea obeko da.
Gu baño gutxiago
bildurtzen zan bera,
zergatik probatua
dan lenago gerra,
Cádiz'a juan ezkero
an seguru zera.

17

Abisatu bekio
San Inaziori,
bere probintziara
nai badu etorri.
Luzitu bear badu
komentuak ongi,
au bere parajian
beti da konbeni,
gaizki esaten badet
galdetu edozeiñi.

18

Aita San Inazio,
esperatzen det nik
lagunduko dirala
seguru zerutik.
Soldadu pasa zuben
ainbeste bat pais,
fuertea izandu zen
kanpañetan agitz,
etzeukan onore au
faltsoa izan balitz.

19

Azpeiti'ko seme bat
badator ontzian,
alako mariñelik
ezta probintziyan.
Errezibituko da
jaun au Donostiya'n,
engañatzen ezpanaiz
nere iritziyan,
baña eskatzen dute
joan zan tokiyan.

20

Aita San Inazio
barkuan mariñel
frantzesaren beldurrak
ara non dabillen,
oraingoan Cádiz'en,
lengoan Madrid'en.
Mundukoak bagiña
ori bezain fiel...
Etorkizunen berri
orrek bazekien.

21

Iturriaga jauna
zen errezibitzen,
edozeiñ juateak
etzuen serbitzen.
Enpleo andiyetan
nola dan ebiltzen,
erriak argatik du
bedorri epeintzen,
alako prozesio
ederra egin zen.

22

Alako estaduan
santua ekusita,
errezibitu zuten
jaun ori pozika.
Prozesio ederra,
gañera musika,
desonra zeritzaten
nolanai utzita,
ongi egiñak eztu
merezi gaitzika.

23

Alik ere ongiena
errespetaturik,
andetan daramate
soñean arturik.
Boluntariomente
ez du traturik,
ez geiago plantatu
orrentzat barkurik,
eskapo ibiltzeko
eztu pekaturik.

24

Esaten badituzte
egiya justuak,
sei milla erreal beren
badira gastuak.
Prestatu zituztenak
ez daude aztuak,
bueltatzeko denboran
atzera eskuak,
zorra eztu pagatzen
auzoko juzguak.

25

Banderarekin dator
beron Elizalde,
konpañia onraduban,
desluzitu gabe.
Aspaldian ausente
ibilli bada ere,
noizbait egin dirade
Patroiaren jabe,
paraje arrotzian
ezta egon zale.

26

Gizon balientia
Inazio Mari,
konpañia guztian
au da buruzagi.
Agradatzen zitzaion
jende guztiari,
bertso oik argatika
nai diozkat jarri,
orra zure santua
komentura etorri.

27

Agur, Loiola'kuak,
biba Azpeitia,
santuak arkitu du
leneko tokiya.
Etzuen biaje au
agitz egokia,
desluzitua dakar
berniza guztia,
ezta gustora ibilli
beron nagusia.

[**Antonio Zavala**, Frantzesteko bertsoak II, Auspoa 213]

BORDEL DONOSTIAN SOLDADO (1823)

Bertso auek Jose Maria Satrustegi jaunak argitaratu zituan, bere *Bordel bertsularia* liburuan, Auspoa' ren 45-46 zenbakian. Berak nundik zituan adierazteko, onela esaten du: «Pedro Lizarraga›ren bertso papera. -Eskuz idatzirik dago. Asieran esaten du: «Cantiac formatiac luzaiden Juan Echamendi zenak zorci eun eta lauetan ogoiyan». Orduko hila zen bertsularia, 1879›ko mayatzaren 30›ean. Behar bada Lizarragak bere «kopia» atera zuen urtea izango da asieran duena. Pedro Lizarraga Bordelen denborakoa zen eta, berez, maistrua. Luzaiden, Karrikaburuko semea, paper asko utzi zuen galdu ta erre ez balira».

Leenengo bertsoak dionez, 1823 urtean Bordel bertsularia «Donostia hirian» zan, «zerbitzuan» (soldaduskan), «liberalitateko bandera berrian».

Gerra artan, «San Luisen eun milla semeak» deitu zitzaien soldaduak etorri ziran Frantzitik, realistei liberalen kontra laguntzera. Bidasoa ibaia 1823›ko apirillaren 7an igaro zuten. Donostiak, ordea, arpegi eman zien; eta naizta inguru guzia frantzesak artua egon, etzuan amor eman iraillaren 27a arte. Egun artan errenditu zan.

Frantzesak kanpotik ziran, beraz. Bordel eta bere soldadu lagunak, berriz, erri barruan. Frantzesen aldera pasatzea erabaki zuten bederatzi lagunek. «Desertatu» alegia, berak leenengo bertsoan esaten duanez. (Bando batetik bestera pasatzeko komeriak kontatzen ditu sorta honek).

Jose Maria Satrustegi, Bordel bertsularia liburuaren egilea.
Iturria: www.euskomedia.org

1

Mila zortzi ehun eta
ogei ta irurian
zerbitzuan ginauden
Donostia hirian
liberalitateko
bandera berrian,
hartarik desertatu
inozentkerian,
miserable erori
etsaien erdian.

2

Hura zen ekainaren
amabigarrena,
gauazko bederatziak,
partitzeko orena;
konda ahala bana
gehiago du pena;
sofritzia ere ahal da
hala dabilena,
etsaiaren esklabo
munduko abilena.

3

Murraila pian sartu
bederatzietan,
kanale bati barna
atera errestan;
bederatzi baginen
konpañia artan,
zenbaitek malezia
zuten beren baitan,
deklaratzera nua
aski doloretan.

4
Murrailatik atera
ondoko segida
errepartitu ginen
oro, bana bida:
seinale garbia zen
ez ginela fida,
guardiak erne zauden
azantzer begira,
kontent ginen bizirik
heltzia zubira.

5
Zubira ginenian,
oro elgarrengana,
presentatzeko lotsa
guardiarengana;
batek, berak juaiteko
hartu zuen plana;
gu bida gibeletik
beldurrez engana:
arribada hunian
sartzeko orena.

6
Arribada baneza
ongi manifesta,
lastima ez laitenik
konpañian ezta:
bi aldetarik tiroka
gure errekesta,
kosta aize bateki,
lur barna tenpesta,
han ikusi ginuen
terribleko besta.

7
Bestaren erretoria
dolore tristia,
miletan aisago da
orai erraitia:
ingurina guzia
etsaiez betia,
miserable zen gure
estremitatia,
ez ginuen dudatzen
an desegitia.

8
Parlamenduko bida,
tristeziareki,
etzanik konserbatu
biziak uroski,
gero frantzesetara
juntatziareki,
nezesario zela
juaitia, preziski,
jeneralarengana
gure arrazoineki.

9
Prinzipal hari nion
eskatu grazia:
«Jauna, otoi barkatu
gure ausartzia!
Konpañia badugu
gibela utzia;
desiratzen ginuke
harat laguntzia
konbeni balitzaizu
gutan fidatzia».

10
Errepostua fite
prinzipalak neri,
oben egin liola
bere graduari.
«Jauna, urrikal zite
gure manerari,
biziaz nahi dugu
berme jarri
deus gerta balakio
zure armadari».

11
Soldaduak an ditu
manatzen berehala,
konpañiarengana
lagun gintzatela;
zenbaitek uste zuten
hilak gintuztela,
alegerarik zauden
herioa bezala,
otoitzak guretako
eginik zaudela.

12
Fite konsolatzeko
gaizki abiatu,
desfortunak holako
seinaleak ditu:
gu ere guardiara
zortzi arribatu,
gidari berriekin
bidiari lotu,
jeneralari behar
zela presentatu.

13
Jeneralarengana
arribatzen gira
pasaporten artzera
Tolosa hirira;
bi jendarmen artian
atseko Ernanira
an sala polizian
alojatzen gira,
miserabliak, odre
onaren begira.

14
Tolosara arribatu
biharamunian,
ilaren amairu
garren egunian,
zuzenak ginelakotz
opinionian
dekret bat eman zuten
umore hunian
esplikatu gabe zer
kausaren gainian.

15
Dekretatu zenian
Tolosan konpleta,
sententzia emaile
ba zen fornimenta;
nigar iturrietan
iru madamita,
guri ordenatziaz
ainbertze tormenta;
bainan bertzek ereman
ontsa lotu eta.

16
Utzi ginuenian
Tolosa gibela,
segur da bihotzian
pena ginuela;
ordenatzen zaguten
heriotze krudela,
anitz pikarderia
egin ginuela,
Michelenaren plaza
behar ginuela.

17
Billafranka herrira
hurbiltzen pausia,
begien bistan daukat
hango presentzia:
lehenbiziko pena
zepuan sartzia,
bigarrena, esperantza
galtzeko bizia,
hobe zela Jainkoari
bihotza altxatzia.

18
Bertze bi egunetan
gero Mondragora,
irugarrena pausan
dezagun ohora;
gau erdiko jeikirik
bidiari gora,
guri beti bezala
hiltzia gogora,
nonbaitereko ditxa
gabeko denbora.

19
Salinasko mendira
gira arribatzen,
unibersalak hasi
gure arrobatzen:
ez diru ez arropaik
etzaigu baratzen,
bertzen zaharrak ditu
soinian paratzen,
halako pobrerikan
ez da paseatzen.

20
Unibersal horiek
zer kaballeruak!
Gerla bertzek egin ta
soldadu beruak;
gizon mañifikuek
dituzte graduak
Herodesen pareko
salbai borreguak.
Legerik ez dakiten
jende barbaruak.

21
Bitoria aldera
berehala martxe,
uste ginuen hiltzen
ginuztela hantxe;
gure kontra espantuz
hango dama beltxek,
presentatu ginela
sobera berantxe,
barkamendurik etzela
guretzat oraixe.

22
Gobernadoriaren
gana arribatu,
gure manerak oro
hari deklaratu;
kristauaren legian
harek errezibitu,
bai eta kordetarik
guziak libratu,
nola bere semeak
harek konsolatu.

23
Konsolatu ginituen
kaesa beruan,
eta menbro guziak
paratu libruan;
despatxa gintzazkela
etxerat lerruan,
balitz gure eremuko
zonbaiten graduan:
gure tribunalia
zela Nafarruan.

24
Nafarruako seme
kreatu mundura,
probintzian penetan
ibili ardura;
arribaturik ere
gure eremura,
mila barbaridade
eta arrangura:
purgatoriotarik
sartu infernura.

25
Infernu bat in daike
españolezkua,
ez dute ikusi nahi
presuna justua;
nola zerbitza diron
jendiak gustua?
Beti errespetatzen
dute injustua,
lur huntan dugulakotz
gobernu gaistua.

26
Goberniaren kontra
erreklama naite,
behar den erregela
ez dutela maite;
jende miserablia
arrobatzen dute,
pena da irautia,
erran ahal daite
afer mantenatzen da
sobera tunante.

27
Tunantekeriako
arraza guzia,
damurik utzi behar
munduko bizia!
Odolian dutela
beren noblezia,
negoziatzen dute
mila malezia,
larrutu nahi dute
jende buluzia.

28
Nafarruako serbil
lepondo gorriak,
Luzifer lotsa diro
haren koloriak;
montañesak girela
oro traidoriak,
martier finitzeko
emanez odriak.
Arrasatu balitu
enperadoriak.

29
Zortzira, ehun palo
ordenatu zauten,
duda niz halakuek
arimarik bauten;
ez dakit nehork ere
sinetsiko nauten,
zenbat purgatorio
erakutsi zauten!
Bihotza trankilago
bizi gira aurten.

30
Gure libertatia
ongi etorri dela!
Lehen ikusi dugu
denbora krudela,
estima dezagula
gure amodio fidela;
pena duten guziak
konsola ditela,
atsegin duteneri
egin guri bezala.

[**Antonio Zavala**, *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*. Auspoaren Sail Nagusia]

ANDOAIN (1837)

Bertso auen gaia, Andoainen, 1837'ko iraillaren 14'an gertatu zan burrukaldia da. Egun ori, Gurutze Santuaren festa da. Orren aitamena, leenengo eta azken bertsoak egiten dute.

(Liburu berean "Pirala kondairalariak" erderaz narratzen duen bertsioaren arabera, horra bertso jarri hauek kontatzen duten gertakaria):

Hernanialdean, liberalen tropen komandante O'Donell jarri zuten. Karlistena, berriz, Uranga. Liberalak gehiago ziren artilleriaz eta soldaduz, eta Hernanin zeukaten oinarritik abiatuta, Urnieta eta Andoain hartu zituzten. Karlistek atzera egin behar izan zuten, Oria eta Leitzaran ibaiak zeharkatuz. Liberalek, batez ere ingelesek, herriak hartu ahala, bidean aurkitutako baserriak erre egin zituzten, ehun eta hogeitasei, eta herritar hauek oso haserre eta bengantzarako gogoz geratu ziren.

Hau dena gertatu bitartean Uranga Nafarroan zen, eta jakin zuenean Tolosatik barrena etorri omen zen, Andoain berreskuratzera.

Karlisten tropak gutxiago izanik, tranpa jarri zieten liberalei, eta hauek frente egin ezin eta nola hala erretiratu beharrean aurkitu ziren. Karlistek labankadaz hil omen zituzten liberalak, batere kupidarik gabe: koartelera preso eraman beharrean, karlistekin zihoazen herritarrek erretako baserrien bengantza hartu zuten, eta hau ohiukatzen omen zuten: "ez da kuartelik su ematen dubenentzat".

Hernaniko harresietan babestu ziren liberalak, karlistei herriko ateak itxiz. Berriro Urnietara jo zuten liberalek eta bertako eliza eta ia herri osoa erre zuten eta karlistek aurre egin zieten ostera. Gorabehera hauetan 620 liberal hil ziren, hauetatik bi herenak ingelesak. Karlisten aldetik, berriz, ehundik behera hildako izan omen ziren. O'Donellek besteren zaldiz eta bidean trikornioa galduta alde egitea lortu zuen.

O'Donell, liberalen komandantea.
Iturria: www.zumalakarregimuseoa.net.

Uranga, karlisten komandantea.
Egilea: Isidoro Magués. Iturria: commons.wikimedia.org

1

Orain abiatzen naiz
paratzen kantuak,
kobardiatu dute
kristino tontuak;
karlistak a cuchillo,
an ziran kontuak;
milagroa egin du
gurutze santuak.

2

Seko gelditu dira
zortzi eun da piko,
zuzen ibilli balira
etzituzten ilko;
etxerik erre gabe
ez dutela utziko,
oraň pagatuko dute
larrutikan pijo.

3

O'Donnell jeneralak
zuela agintzen,
panparroia zebillen
etxeak erretzen;
solamente jaun ori
ez da gaitz izutzen,
kapela galdurikan
Ernanin sartu zen.

4

Kapela galdu zuen,
gañera zaldia,
beste batena artuta
itzuri abia;
gezurrik gabetanik
esan det egia:
traidorea da baña
kobarde andia.

5

Merezi duen gisan
ari naiz ondratzen,
alegiña badabill
bazterrak ondatzen;
mundu guziak daki
gauza ori nola zen,
orren gerra guzia
etxeak erretzen.

6

Orrenbeste bat pena
nekazariari
eman gabe zebillen
Dn. Gaspar Jauregi;
gogor abiatu da
O'Donnell jaun ori,
besterik ezin duta
jende komunari.

7

Zer asi duen ongi
ez daki lan ori,
len amar kontrario,
orain dauzka amabi;
jendeak ikasi du
tiratzen armari,
ez geiegi fiatu
abarkadunari.

8

Enemigorik ez den
lekuan baliente,
mundu guztian gaizki
juzkatuko dute;
gero nonbait karlistak
kontra egin dute,
kanpamentuak laja
etxearen truke.

9

Ainbeste kanpamentu
asko zabalduak,
uste ortan etziran
araño biralduak;
aiek guztiak ere
dituzte galduak,
zer zirala uste zuten
probintzianuak?

10

Laguntzalle ez txarra
gañetik naparra,
esan geiago baña
batalloi bakarra;
tirorik egin gabe
baioneta kala,
laister izutzen dira
kristinuak ala.

11

Jainkoak daki zenbat
urdai eta baba,
beste portziyotxo bat
arroza ere bada;
berentzako asmoan
eramana ara,
gu deskantsuan jaten
orain ari gera.

12

Bakallua eta illarra
eta barbantzua,
utzirikan juan ziran
beren arrantxua,
zergatik etzitzaien
eman deskantsua;
aientzako kaltea
gure probetxua.

13

Kantidadez zapata,
arropa ta zaldi,
pozik uzten zituzten
dan guztiak geldi;
arrapatzen zanari
burua bi erdi,
zergatik egin zuten
ainbeste pikardi.

14

Andoaingo elizan
olioa ugari,
arin iriki diye
karlistak beltzari;
dan guztiak utzita
juan ziran itzuri,
bastimentua eraman
diote ontzari.

15

Orra amabost bertso
aspaldiko partez,
aditzera eman det
noski orrenbestez;
aziyo bat polita
eman da nere ustez,
gurutze santuaren
obraz ta birtutez.

[**Antonio Zavala**, *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*. Auspoaren Sail Nagusia]

MUÑAGORRIREN KANTAK. AGUSTIN ITURRIAGA

Muñagorri Berastegin: Independentzia, Pakea eta Fueroak aldarrikatzen. Iturria: Zumalakarregi museoa.

Muñagorri, emaztea eta alaba Tolosara atxilo eraman zituztenekoa. Iturria: Zumalakarregi museoa.

(Muñagorriren kantak III) Muñagorriren aldeko kantak ditugu auek ere.

Bertso auek, Gregorio Mujika zanak argitaratu zituan bere Ernani'ar ospetsuak liburuan, Iturriaga'ren esku-idatzietatik artuta, idatzi oiek berak nun arkitu zituan esaten ez badu ere.

Bertso-paperetan inprentatu eta zabaltzeko asmoarekin moldatuko zituan Iturriaga'k bertso auek. Baiña ala egin ote zuan ez dakigu, bertso-paper oietakorik bakar bat ere ez degu iñon arkitu eta.

Bertso auek Iturriaga'renak badira, arenak izango dira, dudarik gabe, onen aurreko bi saillak ere (Muñagorriren kantak I eta II). Aita beraren umeak dirala ematen du, gure iritzirako beintzat.

Auspoa'ren 71-72 zenbakian argitaratu genituan guk bertso auek; Iturriaga'ren bertso-lan guzien bildumarekin prestatu genituan liburuan, alegia.

Jose Antonio Muñagorri, Berastegin jaioa, Tolosako eskribaua zan karlisten leenengo gerratearen denboran. Gerraz asperturik, agiri bat zabaldu zuan -leenengo bertsoak proklama esaten dio- , euskaldunen bandera pakea eta fueroak izan bear zutela, eta besterik ezer ere ez.

Eskutitz bat ere bialdu zion Don Carlosi:

> *«SEÑOR: La felicidad de mi país, la felicidad de España, me han prescrito un deber sagrado. Ambas me impelen a buscar los medios de poner término a la guerra civil (...). Treinta mil familias han desaparecido de nuestro suelo, otras cien mil se hallan reducidas a la más horrorosa miseria.*
>
> *Esta desolación, estas desgracias nos han venido por vos. (...)*

V.A.R. conocerá fácilmente que le es preciso salir de estas provincias. Vos y vuestros consejeros las habéis convertido en un desierto; habéis sembrado en ellas el luto y hacinado a montones los cadáveres. Abandonadlas, pues, cuanto antes.

(...) Si tenéis derechos a la corona de España, nosotros no nos opondremos a ello; pero sabed que ésta no es una guerra de personas y que nosotros, navarros y vizcaínos, no hemos reconocido jamás otros reyes que nuestros fueros y nuestros privilegios.

¿Vos queréis reinar? Marchad, pues, a las provincias que os puedan reconocer por rey; (...)Que decida la espada entre vos e Isabel, entre vos y todos los demás pretendientes;

pero no contéis más, en adelante, con los esfuerzos de las provincias exentas.

Abandonad el suelo de Navarra; marchad, señor; nosotros queremos paz.

(...)Cuartel general del ejército independiente. En Verástegui, 19 de abril de 1838. Firmado: 1.A. de Muñagorri. A S. A, el infante D. Carlos».

Agiri eta eskutitz auetan esanak bertsoetan jarri arazi zituan, beraz, eta Euskal Errian zabaldu.

Muñagorriren egiñalak alperrikakoak izan ziran. Berak ere azken txarra izan zuan: Elorrio txapelgorriak il zuan, gerra bukatu ta gero, 1841'eko urriaren 14'an, Erasungo Zumarrista izeneko lekuan.

[**Antonio Zavala**, *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*. Auspoaren Sail Nagusia]

MUÑAGORRIREN KANTAK I

1

Muñagorrik diona
bere prokiamian:
gerrak ondatzen gaitu
bostgarren urtian;
igaz jarri zan Karlos
Madrilko bidian,
bultza zuten atzera,
gerra bere oñian.

2

Agintari onenak
preso daduzkate,
euskalduna izatia
du bakoitzak kalte;
Tejeiro ta Maroto
guzien alkate,
zer gizon oietatik
espera gentzake?

3

Karlos agertu ezkero
probintzi aubetan,
beti bizi gerade
neke ta penetan;
maiz kendu guk duguna,
beñere ezer eman,
bost negar egiteko
nunbait jaio giñan.

4

Semiak soldadu ta
preso gurasuak,
eziñ pagaturikan
kontribuziuak;
trintxera lanetara
gañera auzuak,
dolorezkoak dira
gaur gure pausuak.

5

Kordoiz inguraturik
kostatik Ebrora,
trabaz josirik gaude
bera eta gora;
atzenikan frantzesak
itxi du frontera,
gerrak ez dakar onik
iñundik iñora.

6

Atiak itxi eta
ogia garesti,
artua ere ai da
igotzen poliki;
diruba ezkutatzen da
egunero emendi,
nola bizi geraren
arritutzen naiz ni.

7

Bost urte badijuaz
ta nekian beti,
ia bear ditugu
begiak idiki;
karlistak Ebroz gora
motel eta gutxi,
aien esperantzetan
ez gaitezen bizi.

8

Ainbeste odol ixurtze
ez da doloria?
Il da probintzi auetan
gaztien loria;
Patria defenditzea
litzake onoria,
anaia anaien kontra
txit gauza tristia.

9

Oraiñ seieun urte
gutxi gora bera,
Gaztelako reinura
unituak gera;
Gaztelan zein buru dan
ura guk artzera,
fueroak gordezkero,
egin zan papera.

10

Disputarikan bada
zeiñentzat korua,
erabaki bear da
Gaztelan pleitua;
errege edo erregiña
gure deretxua,
beti gorde digula
garbiro fuerua.

11

Zertan sartu gerrara
juez iñorentzat?
Madrilen da tronuba
gaztelaubentzat;
an koronatzen dena
guztion burutzat,
fueroa gordezkero
ona da guretzat.

12

Adiskide maiteak,
ona klaro gauza:
bakarrikan fueroak
dira gure kausa;
aiek defenditzeko
deretxua dauka
probintziko semiak,
ori eziñ uka.

13

Relijio santuan
guk elkar arturik,
ez du gure artean
izango kalterik;
len bezela egiñikan
gure funtzioak,
elizetan sermoiak
ta prozesioak.

14

Zori onez berentzat,
gure aurrekoak
beti gorde zituzten
leialki fueroak;
urtero mudaturikan
diputazioak,
Juntan ematen ziran
orduban kontuak.

15

Etzan lapur famarik
diputazioan,
ez da beste soñurik
oraingo denboran;
deitu gabe Juntarik,
illunpe moduban,
artu eman garbirik
ez oi da munduban.

16

Juntak eta apaizak
elkar artu ezkero,
noren beldur gera gu
ez orain ta ez gero?
Gerrak idiki ditu
guztion begiak
unitzeko, ez bagaude
burutik jausiak.

17

Legea autsi ezkero
bizi gera penaz,
legea osa dezagun
laster eta benaz;
pakea etorriko da
ondoren txit erraz,
Muñagorrik diona,
kontentuz ta pozaz.

18

Muñagorri, zu zera, zu,
zorionekua,
bandera altxatu dezu
gure bakekua.
Potentzi ongilleak
emanik besua,
laister egingo degu
bake ditxosua.

19

Probintziano gazte
onorez betiak,
bandera bakekora
guazen guziak;
soldadu, ofiziale,
orobat jefiak,
danak izango ditu
gradu ta agintiak.

20

Potentzi indartsubak
eman dute itza,
egiteko bakiak
prestuak dabiltza;
probintziak bakean
daduka bizitza,
nork ez du bere amaren
sendatu nai gaitza?

[**Antonio Zavala**, *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*. Auspoaren Sail Nagusia]

(1874-XII-8)
KARLISTEK URNIETA HARTU ZUTENEKOA

Bertso auek, 1874-eko abenduaren 7 eta 8-an karlistak Urnietan lortu zuten garaipena kontatzen digute.

Ez da egillearen izenik esaten; ezta moldiztegiarenik ere.
(Aita Zavalak, Altzoko Imazek jarriak izan zitezkeela dio liburuan)



Hernaniko plaza 1875ean.
Txistulari eta dantzari artean daramatzate gerrako erituak.

Istribillo
Era, era, Tolosa aldera,
Loma, bizirik
sartuko etzera.

1

Milla zortzireun irurogei ta
amalaugarren urtean,
Ama Birjiña Konzepzioko
zan señaladamentean;
zer pasatu dan esango ditut
beltz ta karlisten artean,
Donostiatik abiatuta
Anduaña bitartean.

2

Ernani ortan egin dituzte
beltz oiek juntamentuak,
karlistak sarri menderatzeko
zituzten tratamentuak;
aurrera samar paseak noski
buruzko pensamentuak,
bañan atzean gelditu zaizte
obrazko pulamentuak.

3

Leku danetan gelditu ziran
beltz jende oien ondarrak,
txit penatuak zeuzkan lenago
isillik egon bearrak;
egun oietan azi zitzaizten
mingañetako indarrak,
sustrai gaiztoak edozeiñ garaiz
ematen ditu adarrak.

4
Beltz kasta oiek guziak zeuden
arrotu eta jarriak,
itzez aietan nonbraturikan
aiuntamentu berriak,
oien mendean gobernatzeko
beren gustora erriak;
buruz aurrera, ankak atzera
dabiltza parragarriak.

5
Tropak zabalduazi nai beltzak
diru asko aginduta,
ordaindutzeko geiagorekiñ
gero karlistai kenduta;
gisadu ori etzedukaten
ustez gaizki konponduta,
tripako miñak aundiak oraiñ
ori eziñ logratuta.

6
Donostiatik asi ziraden
artan umore onean,
kanpanak joaz Anduaindaño
lenbiziko egunean;
an lo eginda Tolosaraño
gero biaramonean,
probintzi dana konkistatzeko
gerozti nai duenean.

7
Asmo oietan asi zitezten
beltzan tropa al zan danak,
ta Urnietan karlistak topo,
an izandu ziran lanak;
asko ill eta franko eritu,
iges egiñ al zuanak,
zer kontatua badadukea
bizirik juan ziranak.

8
Biba Egaña, jeneral ona
euskaldunen arterako,
jendea ondo ideatzen du
atakean asterako;
jefe onari mutil flojoa
nekez zaio aterako,
are animo geiago dauka
oraiñ beste baterako.

9
Premia ere bazegoan da
orra jenerala ona,
merezi du ta eman daiogun
onra, fama eta sona;
azioetan ezagutzen da
nolakoa dan gizona,
bildurrez eta ikaran dago
kontra juan bear zaiona.

10
Biba Mogrovejo Egañarekiñ,
biba Karlos da mutillak,
a cuchillo juan aurrera eta
an izan ziran naspillak;
atake ortan ikusi dira
karlistak batek bost illak,
kinto txarrai konpondu zaizte
baionetakiñ kostillak.

11
Beltz jende oiek ugari ziran
mendi guziak betean,
goizetik arro noranai juango
ziradelako ustean;
gero igasi ibilli bear,
asko izana kaltean,
kinto jendeak eztu balio
euskaldunaren artean.

12

Loma jaun ori agintzen zuten,
ura txit grabe eritu,
aiudantea eta soldadu
asko illda ta gelditu;
ikaratu ta igasi asi,
karlistak berriz segitu,
modu artako gizon illtzerik
ezta iñun suzeditu.

13

Alegiñean gizonak illtzen
moduak dira ikusi,
tiroaz franko botatzen ziran,
asko baionetaz josi;
ezpalirade arropak eta
koartoak kentzen asi,
Donostiraño grano bat ere
etzan juango igasi.

14

Modu batera penagarriak
onelako desgraziak,
lur estalia mutill illakiñ,
amak neketan aziak;
gaizto batzuen pikardiatik
etorri dira guziak,
ill al balitez lau aldiz ere
or badira mereziak.

15

Donostiako beltzak kapoiak
jan nai Eguarrietan,
ez ona gutxi, irureun pare,
etzan txorakeririkan;
bañan etzaie aien ezurrik
jarriko eztarrietan,
gero jakin da karlistak kendu
an dabiltzela dietan.

16

Ostentazio orra beltzena:
kapoia jan nai lukea;
bestetatikan eraman bear,
lanik asko dadukea;
kinto oriek arbia ere
pozikan al balukea,
bai ortzetako miñagatikan
nai aña baledukea.

17

Biba Egaña, txit fiña dala
jendea da oartua,
karlista oraiñ argati dago
bere grandeza artua;
ikara berriz beltz guzietan
ezurretara sartua,
modu askotan degu bentaja
gizon ori agertua.

18

Ea, Egaña, onelaxe fiñ
guziok saia gaitean,
Jaungoiko ona fabore degu
eta arekiñ batean;
Karlos septimo jarri dezagun
al dan lenena Kortean,
deskansurikan ezta izango
ori logratu artean.

19

Sujetatzea ezta komeni
beltz oien Gobiernoan,
ez dute beti ibilli bear
drogan eta trastornuan;
Karlos errege jarriko degu
Españiako reinuan,
an egongo da danoi agintzen
tokatzen zaion tronoan.

[**Antonio Zavala**, Karlisten bigarren gerrateko bertsoak, Auspoa]

HERNANI DAGO PENOSO (1875)

Askok dakite nola nik
luzaro egun bat onik
ez daramala Hernanik;
beti tiroka granadapian
dauka Santiagomendik;
gaitz da libratzen argandik,
kaltiak dirade haundik,
egiten diranak handik.

Bala bat lehertzen kalian,
bestia berriz aidian,
beti badira bidian;
lo ez dagonak maiz aitzen ditu
tiro soñuak aldian:
egunaz hala gabian,
beti etxietan bian
egon bihar da gordian.

Urbietaren herria,
lehenaz etzana berria,
alperrik galdu da ia;
galbai zahar baten itxuran dago
granada zuloz josia;
Kontzejua da hausia,
joan zan aidian guzia,
frankok galdurik bizia.

Gerra zan ezkeroz hasi,
izan da zenbait desgrazi,
gaitz asko dira ikusi;
jende asko da gelditu pobre,
herria berriz itxusi;
horla izate ta guzi,
sufritzen diranak bizi,
plazik eztute nahi utzi.

Hernani dago penoso,
beti tiropian preso,
hartzen du zenbait balazo;
lenaz gain beste bateria bi
berriak dizkate jaso;
hoiek harturik eroso,
gogor diote eraso,
puskatu nahi dute oso.

Bonbakin granadak nahaste,
karkak lehen ere bastante
tira izandu dituzte;
baldin herria purrukatuta
hartzia badute uste,
beste makiña bat urte
pasa biharko dituzte,
eta hartuko eztute.

Bigarren gerra karlistatik du Hernanik soinean *invicta* titulua. Plaza liberala eta Donostiaren maskor hautsi ezina, karlisten granadapean iraun zuen hilabete luzez herri honek. Mende eta laurden geroago, herio haren lekuko errimatua ekarri dugu hona. Bertsolari ezezagun batek gerrako sufrikarioak islatu zituen, odola bete taupada diruditen zazpi bertsorekin.

Bertso hauen egilea zein den ez dakigu, sinadurarik ez baitu, eta hortaz, anonimoa da. Hernaniri! izeneko titulua darama eta ez da zaila asmatzea bigarren gerra karlistaz ari dela, 1872tik 1876ra Euskal Herria bitan zatitu zuen hartaz, alegia. Zazpi bertsotan gure herriak jasandako zoritxarrak eta liberalek egindako balentriak nabarmentzen ditu egile ezezagunak, aro klasikoko Atenas baten epopeiaren antzera. Hernani liberala zen, eta donostiaren zentinela lanak egin zituen karlistak erasoan hasi zirenean. 1874an setio ikaragarria jasan zuen herri kaxkoak: bonbardaketak, blokeoa, gosea, beldurra... ondoko bertsoek egun lazgarri haietara garamatzate zuzenean, silabaz-silaba eta doinu ezagun baten airean.

Urnietaco doñuba

Gerra karlistetako bertso gehientsuenak bezala, honakoak ere misterio bat dira. Zeinek idatzi zituen? Zein motiborekin? Nork jaso zituen? Galdera askotxo bat-batean. Egilearen berri ez dugu, baina bertsoen lorratzari jarraituz galdera horietako batzuen erantzuna aurki dezakegu. Esaterako, peskizan hasiz gero, segituan ohartuko gara 1875ean idatziak izan zirela eta Peña y Goñi musikariak harmonizatu zituela. Ordainetan, Hernaniko udalak erloju batentzako kate paregabea erregalatu zion musikariari: «como remate lleva (kateak) una granada y en ella 'bombardeo, año de 1875' constituyento en su conjunto una magnífica obra de arte» esan zuen haundiki *Diario de San Sebastián* egunkariak, opariaren motiboa azalduz. Dena den, bertsoak ez ziren 1893 arte publikatu, *Ecos de Vasconia* izeneko liburuxkan. Kantu bilduma honen egileak Jose Maria Echeverria lasartearra eta Juan Guimon donostiarra dira. Bildumak oihartzun handia izan zuen ga-



Oriamendiko batalla. Egilea: Hornbrook, Thomas Lyde. Iturria: http://www.zumalakarregimuseoa.net.

rai haietako adituen artean, Agur Jaunak kanta ezaguna ere bertan jaso zuten, beste zortziko askoren artean, Hernaniri! izeneko gure bertsoak barne. Hernaniri buruzko bertso hauen ondoan doinua ere irakur daiteke: "Urnietaco doñuba" jartzen du paperean. izena ez da ezaguna, airea aldiz bai (Elizanbururen "ikusten duzu goizean..." bertso ederren doinu berbera da). Baina doinua bertso horiek baino zaharragoa da. Zein da jatorria? Zergatik aipatzen da Urnieta? Badirudi doinuaren benetako izena "Horra nun dan Urnieta" dela, eta lehen gerra karlistan sortu zela, Muñagorri karlista disidentearen bertso batzuk musikatzeko.

Kronika belikoa: herri barrutik bertsotan

Beraz, egile enigmatikoaren baimenarekin, neurri bereziko doinuan jarritako bertsoak leitu edo abestu ditzakegu gaur egun. Lehenengo bertsotik giro dramatiko batean sartuko gara: "...luzaro egun bat onic / ez daramala Hernanic..." esaten da bertan, eta Santiagomenditik botatzen zizkieten granadetaz ondo akordatzen da bertsolaria. Ez zen egoera erosoa. Don Carlosek 1874ko maiatzean erabaki zuen Hernani menderatzea, Bilboko porrotaren zauria itxi nahirik-edo. Horretarako artilleria mordoa ekarri zuen, Oriamendi, Buruntza, Antonenea eta Santiagomenditik gure herria bonbardatzeko. Hernaniko liberalek, aldiz, Santa Barbarako fuertetik erantzun zieten. Bonbardaketak maiatzaren azkenetan hasi ziren, eta karlistek, ikusirik herria ez zela errendituko, biolentzia izugarriarekin jaurti zituzten granadak: "...galbai zar baten ichuran dago / granada zulos josia..." dio hirugarren bertsoak. Deskribapena ezin egokiagoa da, hiruzpalau egunetan 1.000 granada baino gehiago jaso baitzituen herriak (Atzietako etxe bateko horman sartuta bi burni puska ikus daitezke gaur egun, gerra hartako granadak omen dira). Setioa ekainaren 2an amaitu zen, karlistek atzera egin zutenean. Horregatik, ekainaren 2a festa handia izan zen urte luzetan Hernanin, liberalena lehenik eta errepublikarrena gero. Baina maiatzeko erasoaldi frakasatuaren ondoren, karlistek ez zuten etsi eta hilabete luzez jarraitu zuten herri liberala zigortzen. Horretarako bateria gehiago jarri zituzten inguruetan: "...lenaz gain beste bateriya bi / berriyac dizcate jaso..." gerra luze zijoan eta sektore askotatik bakerako deia egiten hasiak ziren. Hain zuzen, sorta honetako laugarren bertsoak ondo erakusten du gerraren etsipena. 1875ean Espainiako Gobernuak *invicta* izendatu zuen Hernani, karlisten erasoari eusteagatik, eta azken bertsoak dioen bezala *tituluba ta diruba* eman zion horren truke. Horrela amaitu zen Atenas txiki honen epopeia handia.

Bertso-paperak: XIXgarren mendeko propaganda

Bertsoen jatorriaren enigma, paradigma bihurtzen zaigu kasu honetan, normala baita bertsolariaren daturik ez izatea. Bertso-paperak propaganda eraginkorra ziren gerrate karlistetan, baina egileak ez zuen bere izena inon agertzerik nahi, etsaiaren errepresioaren beldurrez. Jakin badakigu, eskuartean dabilkigun bertso sorta bertsolari liberal batek egin zuela, karlisten euskalduntasunaren topikoari muzin eginez.

[**Urko Apaolaza**, Hernaniko Kronika, 2007-07-29]

Hernaniri eskainitako beste bertso batzuk badira, autore ezagun batek eginak gainera. Serafin Barojak, Pio Baroja idazle ospetsuaren aitak, zortziko bat eskaini zion "garaitu gabeko" herriari, eta honela dio lehen bertsoak: libertade maitea bandera santua, itxu eskergabeak, abotan artua, ez gerade eroriko, egon segurua, ur-meko inguruan zaude landatua. Serafin Barojak idazlan ugari argitaratu zituen euskaraz eta San Sebastián martxaren olerkia ere berak idatzi zuen. Izan al zitekeen Hernaniri eskainitako zortzikoa, gure herriko martxa kuttuna? agian. Baina patuak ez du horrelakorik nahi izan, eta kapritxo historikoetatik kanpo geratu zaigu, ahanzturan.

[**Urko Apaolaza**, Hernaniko Kronika, 2007-07-29]

"ERNANIRI" ZORTZIKOA. SERAFIN BAROJA

Libertade maitea,
bandera santua,
itxu eskergabeak
abotan artua,
ez zerade eroriko,
egon segurua,
Ur-meko inguruan
zaude landatua.

Baldin
iñoiz libertadeko
izarren argira
odei arre illunak
bildutzen badira,
oju bat entzungo da
gabaren erdira
deitzen: Ernaniarrak
ta Ernani nun dira?

Zutik, Zutik!
Gora! Gora!
Deadarra dijua
gora, gora,
egan mendiz mendi,
erriz erri, esanaz:
Zutik! -anaiari-.
Gora, bada, guziyak!
Zutik dago Ernani
berriz biziya eskaintzen
libertadeari!
Ta ernaniarrak
eskañi ezkero
beren biziyak
nai badira,
azkeneko arnasea,
azkeneko zaña
ustu ondoren
bizirik gabe
eroriko dira.

Libertade maitea,
bandera santua...

Bertso edo itz neurtu auek, beren izenburu eta ondorengo adierazpenarekin, Jose Manterola zanaren bilduman arkitu ditugu. Eskuz idatzita daude. Emen Ernaniko erriari goralpenak egiten zaizkio, bonbardeoa aitatu gabe ordea. [**Antonio Zavala**, Karlisten bigarren gerrateko bertsoak]

(1875-IX-28) BERTSO BERRIAK

1

Publikatzea deseatzen det
bertso batzuek berriak,
biotz oneko karlista danak
konsolatzeko jarriak;
beltz oiek oraiñ izan dituzte
galera izugarriak,
umildu eta juanak dira
arrotuta etorriak.

2

Milla zortzireun irurogei ta
urte amabostgarrena,
ogei ta zortzigarren eguna
agorreko illarena,
beltz da karlistak Txoritokitan
batalla egin duena,
laguntza izan dute karlistak
gure Jaungoikoarena.

3

Nazionalak, beltz orienak,
goizeti balienteak,
karabiñeroz eta kintoaz
eskiñe danak beteak;
iskanbilla ta arrokerian
aurrena mikeleteak:
sarri artuko dituztela, bai,
karlista txarren fuerteak.

4

Beltz jende oiek Ergobiatik
asi ziraden aurrena,
San Marko aldera Txoritokitan
mikeleteak urrena;
Oiartzundikan sarrera berriz
gero soldadu zarrena,
refuerzoa Renteriati
aitzenean zetorrena.

5

Erdi mozkortu zituzten eta
iskanbilla ta karrasi,
Trágala joaz ekarri zuten
indarra añe pantasi;
gero karlistak tiroka eta
baionetarekin asi,
guziak illko ez baziraden
sarri ziraden igasi.

6

Lurra betean beltz oietati
dira illda geldituak,
lanikan asko bazuten berriz
eziñ jasoz erituak;
egun onetan eztira izan
gustora ibilituak,
jipoi ederra guregandikan
daude errezibituak.

7

Goizean galak zeuzkaten eta
arratserako lutoak,
Trágala-rikan etzuten jotzen,
musikak ere mutuak;
Muerzak bidean berriz tiroka
ondo akonpañatuak,
modu orretan bizi diranak
dira erretiratuak.

8

Beltz jende oiek itxituetan
pantasi asko daukea,
morallak eta artilleriaz
ematen dute nekea;
kanpo librean onelakoa
maiz bagendu atakea,
kinto txar oiek akabatuta
sarri genduke pakea.

9

D. Eusebio Rodríguez degu
gure jeneral berria,
zorionean Gipuzkoara
garai ontan etorria;
orrek eman du beltz oien kontra
batalla izugarria,
berrizko ere bildurrez dago
aren aurrean jarria.

10

Biba Rodríguez jeneral ona,
ontzat bear dit aditu:
balientea berori eta
mutillak ere baditu;
maleziarik ote dabillen
beti kontuz atenditu,
sentitzen bada justizi egiñ,
betiko bertan gelditu.

11

Ernanin berriz gertatu zaie
komeria bat polita,
itzgai ederra bersoetako
baldiñ baneduka dita;
txoro aizeak karlistaegatik
burlagiten ibillita,
gero ederki nozitu due
kastiguak etorrita.

12

Orra karlistak granadaren bat
tira dute Donostira,
leertu ez ta nolakoa dan
jarri zaizkio begira;
nunbait txikia iritzi eta
burlatzen ibilli dira,
leran sartuta eraman due
berak nai duen tokira.

13

Leran jarrita batek aurreti
ganaduari elduaz,
ezin tiratu balitz bezela
balenkakiñ lagunduaz;
jende guzia parraz begira
burlatutzeko moduaz,
txoro aizeak eskarmentatu
gabeak zeuden munduaz.

14

Urrengo egun berean berriz
Ernaniara tiratu,
ta Kontzejuan bolborak zeuden
parajean allegatu;
danak su artu, etxeak puskatu,
jendeak ill da ondatu,
berreun baño geiago beintzat,
orra Jaunak kastigatu.

15

Biba Don Karlos, biba Rodríguez,
biba karlista guziak,
ez ikaratu, lagunduko du
Jaungoikoaren graziak;
ondo bagabiltz ark ez gaduzka
bere eskutik utziak,
penatu arren guk eramango
beltz oiekiko auziak.

Bertsoen egillea nor zan ez da esaten. Bertsoak ere ez dute ori somatzeko biderik ematen. Baiña aurreko sail batean, auen antzeko bertso batzuen egilletzat Altzoko Imaz bertsolaria jotzen zan. Auena ere ez al da bera izango?
[**Antonio Zavala**, Karlisten bigarren gerrateko bertsoak, Auspoa]

KUBAKO GERRARENAK. TXIRRITA

Espainiako soldaduak Kubako gerran.
Iturria: elviajedelahistoria.blogspot.com.



Kubako ejerzitoa. Argazkia: Otero y Colominas, Habana.
Iturria: hojassdeprensa.blogspot.com

1

Milla zortzireun irurogeita
amaseigarren urtian
ekaitz gaisto bat sartu zitzaigun
Kantabriyako partian;
lenago etzan kintik tiratzen
gure sor leku maitian,
elementu au nondik sortu zan
ongi entera gaitian.

2

Kintak jarrita ondorenian
beste ogei bat urtian
zenbait amaren seme onradu
Kuban sartu zan lurpian
guraso askok negar egin du
ura saldu zan artian,
geyenak lutuz jantzi giñaden
Kantabriyako partian.

3

Aberats askok pagatzen zuen,
soldadu juan zenbait pobre
legi ori jarri ez bazan ere
arlotiarentzat obe;
atzenerako extranjerua
egintzan islaren jabe,
len ere Kuba saldu ziteken
oinbeste gizon ill gabe.

4

Oraiñ Errege juan zaigulako
askok biyotzian mindu
ez antziña oin portamenak
ondo letuko bagendu;
aitak biyotza gogorra zuen
orri etzayo bigundu
oraiñ ederki bizi liteke
naiko dirua egindu.

5

Urte batzuek pasa zituen
erreino ontan nagusi,
Donostiyara bueltak egiñaz
bere fameli ta guzi;
puska ederrak saldu zituen,
etzun ezer erosi,
naikua bildu, duen garayan
Frantzira juan da igesi.

6

Zori gaistuan sartu ziraden,
oyek korteko atian,
lege berriyak jarri zituzten
Euskaldunaren kaltian,
lenago libre bizi giñanak
lotu ginduzte katian.
oraingu ortan ere ez dakit
nola portatuak dian.

7

Milla zortzireun irurogeita
zortzigarrengo urtian.
Urriko illak ogei ta zortzi
zien egun batian,
garai orretan gure Fueruak
sartu zituzten lurpian
errespetua guardatu zuten,
amona zegoen artian.

8

Garai orretan aldegiñ eta
andikan zortzi urtera
doña Isabelak bialdu zuen
karta zorrotz bat kortera,
letu zazuten Bergaran dagon
konbeniyoko papera,
Euskaldunak zer deretxo duen
ortik kontuak atera.

9

Zure amona zenbat egiya
munduan esandakua
ogei ta bederatzi urtian
Erregiña izandakua
orrek altuan zeukan konduta
jetxi nai zuten bajua
emen Fueruak ez galtziatik
aldegiña, da gajua.

10

Lengo gizonak kortiari eta
lege berriyak non nai
esanaz: Ara emen biria,
ortik barrena jon ari.
Amaika burla egiten diyo
jende gaistuak onari,
jeniyu oyek ez dituzu zuk
ikasiyak amonari.

11

Gure errege izandu ori
portatu da oso noble,
gerrik onena baño pakia
badakit degula obe,
oraň Alkala Zamora dago
Españiko jaun da jabe
nolabait ere konpondu dira
odolik ixuri gabe.

12

Semiak lana akabatu du,
beraren aitak asiya,
gizon justua nola atera
oyen tartian aziya?
gure Fueruak kendu zituzten
Abana orla utziya,
len Kantabriya ondatu zuten
t´oraň Españi guziya.

[**Jose Manuel Lujanbio "Txirrita"**, Bertsolariya]

MELILLAKO GERRA.
NIKOLAS LUJANBIOK ANAIA ANJELI

Bertso auetan aitatzen dan Anjel ori, Nikolasen anaia zan, senideetan gazteena. 1907'garren urteko kintakoa zan, bañan libre gelditu zan. 1909'garren urteko udaran Melilla'ko gerra asi zan; Anjelek soldauzkan bear zuan garaian, beraz. (Argentinatik jarritakoak).

1

Bertso bi jarri bear
dizkat Anjeli're,
beltzak Marrokian
etzaudek aiskire,
asarretu zaizkigu
bastante guri're,
ez baintzan atera
kintotzatik libre,
oien igesi laister
emen intzan i're.

2

Izugarriyak dituk
moro oien ontziyak,
laguntzen omen ziek
aieri Frantziyak,
pasatzen omen zizkak
armak ta jantziyak,
sarri bi milla urte
Judasek utziyak,
erdibana dituzte
nunbait ganantziyak.

[**Antonio Zavala**, Saiburutarrak, Auspoa]

LEHEN MUNDU GERRA. TXIRRITA

Iturria: forum.paradoxplaza.com

Field Marshal Foch,
bertsoetan aipatzen den generala.
Iturria: commandperformanceleadership.
wordpress.com

Bertso auek 1914-1918'ko gerrari buruz jarri zituan Txirritak. Amaikagarren bertsoan onela esaten du:

Gerra gaizto au eman zutela
au da bostgarren urtia ...

Gerraren azken urtean jarriak dira, beraz. Txirrita guka ari da bertso auetan; bera frantzesa balitz bezela alegia. Zergatik ote? Beste sail bateko bertso batean onela dio Txirritak:

Españi ontan bizi izan naiz
iñoizka juanaz Frantzia ...

Joan-aldi oietan ain frantzes-zale biurtu ote zan, beraz? Ala Bidasoa'z beste aldeko euskaldunen batek jarri arazi zizkion bertso auek? Ez dakigu zer erantzun, eta galdera oiek bere ortan utzi bearko ditugu.

Baiña aleman-zalerik ere bazan bertsolarien artean, eta bertso auek ordaiñak izan zituzten. Errenteri'ko Jose Ramon Taberna bertsolariak amairu bertso atera zituan; emengo Txirritaren esanei oso gogor erasotzen die.

1

Zori gaiztoan fundatutako
Alemaniya'ko gerra,
aixa nai zuten eskuperatu
gure erreino ederra;
oraindik ere bada Frantziya'n
diruba eta indarra,
len zan bezela ipiñitzeko
izango degu biarra.

2

Beljika'tikan galdetu zuten
lendabiziko pasua,
jakiñik nola zeguen Paris'a
andik bide erosua;
aitatik ere artubak dira
uste etzan erasua,
porrakatu ta puskatu zuten
naziyo txiki gaxua.

3

Ogei ta amar milla milloiko
asi zitzaigun eskaka,
otso gaizto bat zirudillela
artaldiari oskaka;
jeneral Foch'ek bialduba da
Holanda aldera eskapa,
orain lau urte ainbat erronka
garai onetan ez dauka.

4

Amorratubak ziruditela
etorri ziran Frantzia,
orain esaten errezago da
orduko gure trantzia;
jenerak Foch'ek eman diyote
uste etzuten partxia,
mereziko du diamantezko
estatua bat jartzia.

5

Beren joera Paris aldera
egin ziguten aurrena;
ango etsiyak artu zituzten,
Verdun'a berriz urrena;
sei illabete sutan pasa ta
etzian sartu barrena,
ezta andikan gustora juana
Kaiser'en seme zarrena.

6

Ernegatuta jarri giñuzten
zerbait egin biarrian,
zergatik gerra eman ziguten
arrazoi-bide txarrian;
jeneral Foch'ek artu zituben
danak guziyak aurrian,
gaur iru urte ainbat aleman
ez da Frantzi'ko lurrian.

7

Lenbizi oiek pentsatzen zuten
ilko giñala guziyak,
bañan oraindik gure kuadrillan
bagera gizon biziyak;
indar aundiko armak dauzkagu
soñian ondo jantziyak,
Alemani'ko buru arruak
bajatu ditu Frantziya'k.

8

Aleman batek neri esana,
biyok geundela kafian:
«Kaiser agintzen ikusiko da
laister Parisko kortian».
Zepelinakin aidetik eta
sumarinuak ur-pian,
disgusto asko eman digute
jun daneko lau urtian.

9

Zepelin zarrak bonbaz betiak
goiko oroian tartian,
millaka minak itxasoan da
sumarinoak ur-pian;
oiek sumatzen ibilli dira
berrogei ta lau urtian,
Kaiser Parisen ez da sartuko
Wilson bizi dan artian.

10

Orrek etzuben errespetatzen
legorrik eta urikan;
sententzi txarra emango zaio,
ortan ez dago dudikan;
orrek nai zuben amenazatu
Frantziko errepublika,
berriz Parisen ez du egingo
len bezelako burlikan.

11

Gerra gaizto au eman zutela
au da bostgarren urtia,
oiek besteren interesakin
artu nai zuten partia;
inglesa eta amerikano
gu bezin jende fuertia,
alemanaidi eman diyote
izugarrizko golpia.

12

Laguntzalliak nundik dituben
ezagutu du Frantziyak;
geren setari eutsi diyogu,
ez giñan dudan asiyak;
biba gerra ontan gure fabore
ibilli diran guziyak,
nere partetik ematen diztet
eskerrak eta graziyak.

[**Antonio Zavala,** Txirrita]

1936KO BERTSOLARI TXAPELKETAN. TXIRRITA

Aldi ontan ere Basarriri utziko diogu itza:

«Aurreko urtean bezela, agurketako bertsoen ondoren, epai maiekoak ezarri dute gaia. Artean «atomikaren» aztarnik etzan arren, esan ziteken gizon aiek etorkizuna ikusten zutela. Gerra, guda, ipiñi zuten mintza-gai.

«Pakerik txarrena obe da gerrarik onena baño» dio lenengo bertsolariak. Pake-denboran sardiña zarrak naiago litukela gerra-denboran txuleta sendoak baño, esan digu beste batek. Mutillak sasoi onenera ekarri, gurasoen laguntza ta itxaropena diran garaian gerrara joan eta geiago ez etxeratze orrek sendietan ekartzen ditun negarrak gogoratzen dizkigu beste batek. Danak an ari dira zein baño zein iaioago ta bizkorrago gerra nundik azpiratuko ta nork geiago gorrotatuko.

Azken aulkian Txirrita dago; amargarren bertsolaria da bera. Zerbait somatu bearrean da, baña gauza berria somatu nai luke. Ainbeste tristuren artean parre-algara sendoak aterazteko zerbait. Bai sortu ere, arranetan! Begira nola:

Zenbat errezo egin izan det
nere denboran elizan,
ta pozik nago ikusirikan
pakian nola gabiltzan;
ni naizen bezin kobarderikan
iñor ezin leike izan,
semeak gerra ez joateatik
mutil zar gelditu nitzan.

Saio ontan beste bi bertso auek ere bota zituen Txirritak:

Asko dirade nai lutekenak
mundu danian nagusi,
pakian bizi diran kristauak
bere soldadu ta guzi.
Orlakuari tira atzetik
joan dedilla igesi,
gerra nai duan gizonak ez du
salbaziorik merezi.

Okasiua ara, jendiak,
nola gerta litekian,
obea degu gerratan baiño
bizi umore onian.
Zenbait bezela ez naiz izaten
fondetan eta kafian,
gerran gosiak baiño naigo det
naikua janez pakian.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

NERONEK TIRAKO NIZKIN. SEBASTIAN SALABERRIA

Iturria: www.arratia.net

"Gure agintariak esan ziguten bazegoala beste erri bat Yurre izena zuana, gure kontrarioen mende zegoana, eta uraxen artu bear genduala. Agintariak erabaki zuten gure konpañia zala erri ori artu bear zuana, eta ala erten giñan gu Yurre aldera."

(...)

Mayatzaren ogei ta laua zan, eta bero ikaragarria gañera.

Bide erdian bezela, arkitu genduan irurogei ta zortzi edo amar bat urte zituan gizon zar bat, euskaldun bizkaitarra, andikan onera bidez-bide zetorrena.

Kapitanak zenbat eta zer jende zegoan jakin nai zuan, eta asi zitzayon zer edo zer galdetzen. Bañan aitona zar arek etzekien erderaz mintzatzen, eta gure kapitanak ere ez euskeraz, eta ola esan zigun orduan:

– *¡A este no se le entiende nada! ¡A ver si hay algún vasco que pueda hablar con este señor!*

Orduan guk galdetu genion:

– Zer degu, aitona? Nora zoaz?

Eta erantzun zigun:

– Onera zuengana! Or ez dago bizitzerik! Or ez dago bizitzerik!

– Zer ba?

– Zer ba? Beste askori bezela, neri ere ostu dizkidate etxean nituan beyak, txalak, olloak eta gauza guztiak! Aspertu naiz jende orrekin bizitzen eta zuengana nator!

Kapitanak esan zigun galdetzeko ia Yurre erri artan jende asko zegoan, eta gizon zar arek erantzun zigun:

– Ez dago iñor erri ortan! Aldegin dute danak, beren kañoi eta gerrarako tresna.

– Aizu, aitona: ia egia dan zuk esaten dezuna, or ez dagoala iñor erri ortan.

– Orixe! Etzerate piyatzen? Ez bazerate piyatzen nik esandakoakin eta erri ortara bazoazte, neroni jarriko naz zuen aurretik, eta erakutsi eta lagunduko dizuet!

(...) Orrelaxen joan giñan bide guztian: gizon zar ori gu baño amar bat metro aurrerago zala, eta gu fusilla bizkarrean konfiantza osoan.

(...) Erri guzia ixil-ixilik zegoan, eta, errian sartzen asi giñan momentuan, aiton ori rau!, ezkutatu egin zitzaigun erriaren sarreran zegoan etxe batean.

Eta ura ezkutatu zanean, zabaldu ziran erri guztiko leyo-zuloak, eta danak fusillakin eta ametralladorakin ikusi genituan. "Oraintxe egin diagu lan ederra!", esan genduan.

Ekin zioten alde guztietatik gure kontra tiroka. Balazoak kazkabarra bezela zetozten. Gu danak bistan giñan, eta bakoitzak al zuan tokira ezkutatzen asi giñan.

(...) Batzuk erri inguruan zabaldu ziran, eta beste batzuk berriz etxe baten atzean gorde giñan. Batzuek esaten zuten:

– Emen gaizki gaudek, eta atera egin bear diagu emendik!

Bañan bein andik atera ezkero, etzegoan ezeren babesik, dana garbi baitzegoan; eta ateratzen ziran danak, an il edo eritzen ziran. Eta jakiña: ayek ala ikusi ta besteak bertan gelditu giñan.

Bañan gure sarjentoa ere an zegoan, eta ala esan zigun bere pistola aundia erakutsiaz:

Hala, muchachos! ¡Hay que salir de aquí en seguida a luchar!

Ala, pentsaturik antxen izango zala nere azken ordua, Jaungoikoari otoitz egiten asi nintzan:

Jesus, Jesus! Lagun zaiguzu ordu larri ontan!

Ori esanaz atera nintzan ni andik. Ikusi nuan etxetik amabost bat metrora nola zegoan aran-arbol zar bat, eta arentxen ipurdian gorde nuan nere burua. Burua maite, noski!

Nik tiro bat tira nuan, ez dakit nora, bañan oñak nunbait bistan gelditu ziran, eta berealaxen eman zidaten tak! oin batean. Begira jarri nintzan, eta tak! bestean.

Tiro batekin, nola baitzan "bala explosiva" izenekoa, ezkerreko oñaren erdia puskatu eta zintzilik utzi zidaten; beste tiroarekin eskubiko zankoan ebaki edo zauri luze bat egin zidaten.

(...)

(Iruñeko Ospitalean zegoela) Egun batez, gutxiena pentsatzen nuan garayean, nere oyaren gañean exerita zerbait irakurtzen negoala, an ikusten det atean gizaseme bat sartzen dala. Jartzen naiz berari begira, eta zein izango, eta Kaximiro!... (anaia)

Berak ere bereala ezagutu niñun, eta etorri eta eldu zidan lepotik. Asi giñan biok negarrez, eta alkarri zer esan asmatu ezin genduala egon giñan pixka batean, arpegiak pareta baño zuriago eginda pozaren pozez.

Gero noizbait asi giñan izketan, eta galdetu zidan:

– Ze erida klase dituk?

– Ara, motel, gerrak zer aurrerapen ditun: tiro batekin eskubiko zankoan zauri luze bat egin zidateken, eta beste tiroakin berriz ezkerreko oña puskatu eta zintzilik utzi, eta orain moztuta zeukat.

Berriro galdetu zidan:

– Nun eritu iñuten?

Eta nik erantzun nion:

– Yurre izena duan erri batean.

– Yurre-n? Zein egunetan?

Mayatzaren 24-an eguerdiko ordubata inguruan.

Eta gizarajoak, negar samiña egiñez, bizkarretik eldu eta erantzun zidan:

– Orduan ire oiñ oyek jo zituzten balak neronek tiriak izango dituk! (...) Atake artan ni ere an niñuan!

(...)

[**Sebastian Salaberria**, Neronek Tirako nizkin]

PASARTEA BERTSOTAN

Askotan oroitzen naiz nere gerra-denboraz. Eta egun batez, ala gogoak emanda, bertso auek jarri nituan:

Mila beatzireun gañera ogeita
amaseigarren urtian,
gerra triste bat sortu zitzaigun
Españiyako partian;
esan biarrik ez dago zala
soldaduentzat kaltian,
ni ere kintak arrapatuta
oro ibili naiz tartian,
amaika amaren seme sartu da
urte auetan lurpian.

Bizkayan Yurre izena duan
erri batian sartuta,
bizirik juxtu atera nintzan
sari ederra artuta;
Mayatzak ogei ta lau zituan
egunian erituta,
kamilleruak jaso niñuten
geyena odol ustuta,
ospitalera ekarri naute
tiruak anka moztuta.

An bi anayak alkarren kontra
giñala guk ez genekin,
inkurriorik gabe alkarri
tiroka fusillarekin;
urrena berriz ospitalian
bildu giñan alkarrekin,
negar egiñaz berak esana
ordun pena ederrarekin:
"Ire oiñ oyek jotako balak
neronek tirako nizkin".

ESPAINIAKO GERRA TRISTEARI. SEBASTIAN SALABERRIA

Santa Barbarako harresia. Iturria: meta.gipuzkoakultura.net.

1936'garren urtean gerrate triste bat sortu zitzaigun Españia'n; eta, naiz batak bestearentzat gorrotorik izan ez, anaiak alkar iltzen ibili giñan. Gerrate au piztu zanean, nik ogei ta bat urte neuzkan eta soldadu joan bear izan nuan, beste millaka asko bezelaxe. Or ibili nintzan bala tartean larri; eta gero, bi tiro oin bakoitzean bana arturik eta ezkerrekoa moztuta, an arkitzen nintzan Iruñe'n, ospital militarrean, eta denbora pasa bertso batzuk jartzea bururatu zitzaidan gerrate orri buruz.

1

Amaika bider esan izan det
mutil koskorra nintzala:
ogei bat urte nitunerako
gerra urbilduko zala.
Zoritxarrez bai etorri ere
nik pentsatuta bezela,
ezin ukatu bala tartean
larri ibili naizela,
samindurikan diot gauzarik
negargarriena dala.

2

Milla beatzireun ogei ta amasei-
garren urtean ain zuzen,
Uzta-illaren emezortzian
gerra triste au pixtu zen.
Nik ogei ta bat urte neuzkan da
soldadu berialaxen,
agintariak gogor zioten:
"Fusillak artuta goazen!"
Gaur nik bi oñak osorik neuzkan
ori gertatu ez bazen.

3

Neronek ere igartzen nion
iritxi zala denbora,
ta larriturik esaten nuan:
"Soldadu joan bearko da".
Eunka mutil gu Donosti'ra,
lenengo Gobiernora;
ardien gisa bildu ginduzten
danak alkarren ondora,
gero emendik sarjento batek
Norte'ko estaziora.

4

Trenean sartu, Aitaren egin,
txorakeriak utzita,
gerrate ontan ilko giñala
baigeunden oso etsita.
Negarrez asi giñan geienok
ezin genion eutsi-ta,
jende guztia kupiturikan
gu ain triste ikusita,
aiek eta gu agurtu giñan
begiak malkoz bustita.

5

Iritxi giñan Iruña'ra ta
geienak infanterira,
larriagoak ziran batzuek·
ta aiek artillerira.
Bertan ikasi instruzioak
eta gero Bitori'ra,
gauz auek nola gertatu diran
zuzen datoz memorira,
nola eraman ginduzten danok
Billarreal'ko mendira.

6

Martxoko illaren azken aldera
guk lenengo atakea,
kañoi, egazkin, mortero, fusil,
danak antxe jo ta kea.
Eun bat metro beti aurretik
gure gidari tankea,
egun guztian danok laixterka,
ura orduko nekea!
Pentsatzen gendun berialaxen
egingo zala pakea.

7

Artu genduan Billarreal da
jarraitu Bizkai aldera,
kontrarioak atzeraka ta
gu geienean aurrera.
Bizi giñanak asko zauritu,
iltzen ziranak lurrera;
mendi oietan komeri latzak
ikusiz ibili gera,
ta aizkenean etzan goxoa
Yurre erriko sarrera.

8

Beste aldetik aitona zar bat
etorri zan guregana,
esanaz nola utsik zegoan
Yurre erri ori dana.
An sartu giñan xinisturikan
gezurti aren esana,
burruka gogor ekin genion
ta lurrera iltzen zana,
berialaxen neuri bi tiro
oin bakoitzetikan bana.

9

Lagun on batek atera niñun,
ain negon trantze txarrean,
antzika neure zaurietatik
odol ustu bearrean.
Geroxeago ni Bitoria'n
bi medikuren aurrean,
oña moztuta jarri niñuten
oe zuri ederrean,
ta gaur Iruñe'n arkitutzen naiz
ospital militarrean.

10

Aldamenean dagon batentzat
egoten naiz kupituta,
nor ez litzake urrikalduko
oin biak motzak ditu-ta?
Zutik jartzeko esperantzik ez
orrenbeste sufrituta,
gure Jainkoak bakarrik daki
nola gauden geldituta,
geuren sasoirik ederrenean
betiko elbarrituta.

11

Dotriñak garbi esaten digu,
nai badegu irakurri:
inbiria ta gizon iltzea
nundik zaizkigun etorri.
Kain gaiztoak Abel il zuan,
begira zaiogun orri;
baña oraingo gerra triste au
ezberdiña izugarri:
anaiak bata bestea iltzen
gorroto gabe alkarri.

12

Gure aurreko guraso zarrak
askotan esanak daude:
gerrik onena baña pakerik
txarrena degula obe.
Jesus maitea, ordu guzitan
zure bearrean gaude,
eskatzen dizut Zu zeralako
zeru lurren Jaun da Jabe:
pake gozoa eman zaiguzu
odolik ixuri gabe.

[**Sebastian Salaberria**, Nere soroko emaitza, Auspoa 172]

TERUELGO BERTSOAK. PAULO ZUBIARRAIN

Etorri zan gerra; ta ni, lenengo, alde batetik ibilli nintzan, Bizkai aldera joanda. Baiña Bilbao artu baiño lenago, iru izkutatu giñan da etxe aldera abiatu. Beste aldera pasa. Bat, arrapatu ta il-edo egingo zuten. Ez da azaldu geiago. Bestea bizi da. Kalera jetxi ta an ibilli omen zan. Egun batzutan ez omen zion iñork ere kasorik egin. Gero arrapatu zuten. Ni, berriz, illunabar aldean abitu ta gabaz ibiltzen nintzan. Lendabiziko, nere burua Legazpi'n ezagutu nuen Gipuzkoa'ko lurretan. An trenbidera jetxi ta Tolosa'raiño trenbideaz etorri. Ortik Uzturre mendira igo ta Amasa'ko atze ortan barrena etxera allegatu, zutik egoteko gauza ez nintzala. Etxean ez dakit zenbat denboran egon nintzan gordeta, sagardo-upelaren barrenean. Ta gero:

-Nortea artu ditek eta gerra bukatu dek, motell!

Sinistatu ta azaldu nintzan. Bai besteak artu ta ostera gerrara eraman ere. Teruel'go batallan an egon giñan, asi ta buka, elurretan da jeletan. Ederrak pasa genituen. Ordukoak dira bertso auek. Baiñan ez nik bakarrik jarriak. Naparroako Zubietakoa, Joxe Bera esaten zioten bat bazan gurekin eta ura asi zan bertsoak jartzen. Nunbait ezin zituen ondo osatu ta neregana etorri zan, ea lagunduko nion. Orregatik arek asitako bertsoak dira. Pentsatzen asia, ta osatzen edo bukatzen nik lagundu. Mordoska jarri genituen. Arek batzuren batzuk eskribitu zituen. Nik bat ere ez.

...

Gerra bukatuta, batean Zestuan giñan Uztapide ta biok, bertsotara joanda, ta ango taberna batean bertso oiek kantatzen ari ziran. Onela esan nion Uztapideri:

-Ola ta ola guk jarriak dira bertso oiek.

-Bai zera!

-Bai. Zortziren bat baziran, eta orain burutik joanak.

1

Milla urte pasa ta
bederatzireun, (bis)
aurten oi ta emezortzi,
garbi esan zagun.
Teruelen bakarrik
ogei milla lagun
il eta erituak
illabete barrun;
eztakit zer biaje
atera biagun.

2

Jela ta elurtea
zegon Ilbeltzian, (bis)
Naparroko Brigadak
sutan sartutzian.
Sanoak gaixotu ta
eriak il zian,
kontatuko ditugu
nork geren etxian
zer sufritu genduen,
au bukatutzian.

3

Lastimagarria da
emen pasa dana, (bis)
lutoz jantzita daude
zenbait aita ta ama,
baita alargundu're
makiña bat dama;
soldaduak lan egin,
jefeentzat fama;
kondenatua dago
au sortu zuana.

4

Gizon jakintsu oien
inbentu aundiak: (bis)
fusil eta mortero,
tanke ta kañoiak,
ta beldurgarrienak
dira abioiak;
oien azpian gaude
urrikalgarriak,
kulpik gabe etxetik
iltzera ekarriak.

[**Paulo Zubiarrain,** Ia kantatuz bezela, Auspoa 190]

GERRAREN OIHU ISILA. UNAI AGIRRE

Hernaniko plaza bonbardatua. Iturria: MCU. Archivos Estatales. Argazkiaria: Mario y Otero.

I

Hernani herri bildua;
bizi beharrak zaildua;
lanean korapildua.
Mila beatzirehun hogeita hamasei
triste hartan abaildua;
nahigabean amildua;
uztail beltzak umildua;
tiro hotsek isildua.

II

Gerrako abioi tutu,
lubaki erdi-ezkutu,
elkarren aurka estutu...
Kanposantuko pareta zaharrek
zer ez zuten ezagutu?
Zahar eta gazteak juntu,
bala errazen jo-puntu;
orduan ziren mututu.

III

Herri honen azpi lotsak,
desberdinak guztiontzat,
zer indar dun heriotzak!
Galarretatik Tellerigaina
zeramazkiten hilotzak...
hausten zituen bihotzak,
eta isiltasun hotzak:
gurdiaren negar hotsak.

IV

Herriko jende aparta
lurperatu zen hamarka,
zapata eta abarka;
izeba zenak, izen abizen,
esan zizkidan bakarka...
falangista eta carca
denez oroitzea marka!
ta ni mututzea barka...

V

Suntsitze antolamendu
hau da gordean mantendu,
nahiz ta seguru gauden gu.
Ondarretako kartzela zena
gogotikan ezin kendu!
Urri, azaro, abendu,
itsasoak ekartzen du,
baldin entzun nahi bagendu.

VI

Galdutakoen altzora,
oroigarri eta lora,
jarri duenik asko da.
Hor lurperatu omen zituzten
berrehun gorputzetik gora;
berriz hezurrak kanpora,
eraman ziren gerora,
norbaitek badaki nora...

VII

Kanpandorreko ezkila;
agonian norbait hila,
hiru urtez zenbait mila...
Hernanin hainbat hildako utziz
joan zen Gerra Zibila;
askok jarraitzen du bila,
eskatuz entzun dadila:
GERRAREN OIHU ISILA.

[**Unai Agirre**, Argia 2311. alea 2012-02-19]

1997KO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETAN. JEXUX MARI IRAZU

Santa Barbarako harresia. Iturria: www.guregipuzkoa.net.

Gaia: Gaztetan eraman zintuzten gerrara. Gaur, zahartuta, gerrako zeure zauriei begira zaude.

Doinua: Habanera.

Goitik agindua eman:
"fusila eskutan hartu",
gerraren gogortasuna
txikitatikan probatu;
frenteko lehen lerroa
ederki nuen gozatu,
etsaia ala laguna
aurrekoa tirokatu!
Mendian gora ta behera,
han ezin gendun nekatu;
orain begiak malkotan
ta ezin dira lehortu,
nere zauriei begira
begiak zaizkit lausotu,
zauriak ez dira itxi
ta gerra ez da bukatu.

Nahiz barrutikan beldurrez,
itxuraz behar zan trebe;
odola ez zan neretzat
sorpresa ta nobedabe;
Gerran maltzurkeri dana,
ezin da izan herabe,
nere bizia arriskuan
ezin nun utzi debalde.
Nahiz beti zalantzan izan
han gelditu edo alde,
beti onartzen ditugu
kanpokoen hainbat lege;
beti behar ote degu
etsaien zaurien mende?
Ordun zatitu gintuzten
ta oraindik hala gaude.

Nere desioan kontra
aberkide harei tira,
nork murgildu ninduen ni
hainbesteko sarraskira?
Orain hurreratua naiz
jubilazio eztira.
Oraindik gogoan daukat
orduko gauen dizdira;
halare barru-barruan
biharko egunan desira,
begiak itxita goxo
etorkizunai begira,
nere zauriak, badakit,
lurpean itxiko dira,
ojala herriarenak
han itxiko ez balira!

1940 arte

Urrezko aroa

1876an foruak abolitu zituztenean ondorio nagusietako bat izan zen euskaldunak soldadutza egitera derrigortu zituztela. Kubara 1895ean gerra hasi zenean edo hurrengo mendean, Marokora, gazte ugari kintatan joan behar izan ziren, tartean hernaniarrak. Beste askok ordea hura saihestu zuten Ameriketara ihesean edo *profugo* joanez; halaxe despeditu zuen Pello Errotak bere semeetako bat Epeleko langan, begiak malkotan.

Foruen galerak euskaltzaletasuna piztu zuen eta abertzaletasunaren hazia jarri. Antoine d'Abaddiek Urruñan hasitako Euskal Jaien bidea indarberrituta iritsi zen XX. mendera. Testuinguru horretan, 1909an Hernaniri egokitu zitzaion Euskal Jaiak antolatzea. Egitarau oparoa izan zuten: ganadu feria, dantzariak eta su artifizialak... Bertsoak entzuteko parada ere izan zen Txirritaren eta Pello Errotaren eskutik; sagardotegi itxurako karroza batean paratu zituzten kantuan.

Sagardotegiaren konpartsak arrakasta itzela izan zuen egun haietan. Egiaz, XX. mende hasieran inguruotako herri guztietan sagastiak ziren nagusi. Hernanin sagardoaren kulturak eta ohiturak tinko biziraun dio denboraren joanari –1931n Gipuzkoako bosgarren udalerri ekoizle handiena zen–. Aitzitik, egoera oso diferentea zen. Mende hasieran kaleko tabernetan ere sagardoa ia besterik ez zegoen; bandoa jotzen omen zen probatzeko sasoian. Urteen poderioz baina, sagardoaren inguruan biltzeko ohitura dolare-sagardotegietara mugatzen joan zen.

Ardoaren gisan, "aurrerabide" gehiagok hernaniarren bizimodua aldatu zuten. Donostiatik Hernanirako tranbia 1903an inauguratu zuten eta oso ezagun egin zen *tximist gurdi* ezizenez. 1916an berriz, Leokako labadero zaharra berritu zuten eta egun duen itxura eman zioten. Leokak beti izan du ur gardena eta osasuntsua emateko fama; 1885ean kolerak herria jo zuenean, garbileku hura lehenetsi zuen Ruperto Erize alkateak: *"Arkitzen det neurririk onena bezela, bezino guztiyari konsejuba ematia ez dezatela naiz erateko eta naiz beren etxeko biarretarako usatu erri barrunbeko iru iturriyetako urik, baizikan usa dezatela guztiyak Leokako iturriko ura"*.

Txertoaren zabalkunde masiboak zenbait gaitz desagertzea ekarri zuen; agian horregatik sortu zen halako iskanbila 1918an baztangadun gaixo batzuk herriko Benefizentzia etxera ekarri nahi izan zituztenean. Iraganeko gaixotasunen itzulerak ikaratuta edo, herritarrek aurre egin zioten erabaki horri, emakumeek batipat: *"Zaarrak eta gaztiak / neskatx ta andriak / andre txit aberatzak / baita ere pobriak"*. dio Joxepa Zubeldia "Barbaxenekoak" jarritako bertsoetako batek.

Aldaketarik nabarmenena ideietan sumatu zen. Inguruko herrialdeetatik jende mordoa etorri zen Hernanira bertoko fabriketan lan egitera, eta ideia ezkertiarrak aisa zabaldu ziren, baita bertakoen artean ere. Maiatzaren 1eko ospakizunak egundokoak izan ziren 1936ko gerra arte. Bestetik, abertzaletasunak ere indar handia hartu zuen urte gutxitan. Bi ideia horiek defendatzen zituztenen arteko talka gertatu zen gerra aurrean, batez ere Bigarren Errepublikaren garaian. 1934ko urrian, adibidez, UGTko militante ugari tiroka irten ziren kalera eta haietako 39 auzipetu zituzten iraultzak porrot egin zuenean. 1936ko San Jose egunez Joxe Aranburu jeltzalea tirokatu eta hil zuten Plaza Berrian.

Bigarren Errepublikak herritar askori ekarritako abantailei eta zerbitzuei –hezkuntzan, osasungintzan...– muzin egin eta espainiar eskuindar eta karlistek kolpea jo zuten. 1936ko uztailaren 18an hasi zen gerra zibila. Lehen egunetako beldurraren ostean –Loiolako koarteleko borrokaldiak tarteko– nolabaiteko normaltasuna itzuli zen herrira. EAJren ingurukoek eskuindarrak babesten jardun zuten batez ere, sozialista eta komunistek aldiz, lubakiak egin eta gerra fronterako prestatzen. Lehen bonbardaketak abuztuaren amaieran

hasi ziren; herritarrak sinesgaitz ziren abioiek kalte handirik egin zezaketenik, ikusi zuten arte haietatik jaurtitako bonbak etxeak goitik behera txikitzeko kapaz zirela. Hainbat lagun hil ziren gisa horretara.

Enegarren aldiz Santa Barbarako fuertea Hernaniren babesle handiena suertatu zen, baina gerra karlistetan ez bezala, oraingoan ezin izan zuten bertatik herria defendatu eta irailaren 13an faxistak eta erreketeak sartu ziren *Viva Cristo Rey!* oihukatuz. Orduan, urte asko iraun zuen gau iluna hasi zen. Joseba Tapiak musikatutako Joxe Zapirain errenteriarraren bertsoek ederki asko deskribatzen dituzte etxe askoren tristurak eta negarrak:

Adierazi bear dizutet
esango dizutet ziñez,
Tristura ontatik iñola ere
apartatu al bagintez;
atenziyua izan biagu
errezo asko egiñez;
bi seme illak, beste bi preso,
beste bi non dan jakiñ ez,
nere biotza tristuran dago
ezin sendaturik miñez.

Milagru ezta pena aundiya
izatia biyotzian,
negar-malkuak saltatzen zaizkit
iñoiz gogoratutzian;
ezeren mantxik eta batere
kulpa gabiak il zian,
beste bi preso Ondarretatik
San Kristobala joan zian,
zer kontatua izango dute
elkarrengana biltzian.

URKO APAOLAZA AVILA

JOXE MIEL OTXOTORENA

Osinagako Bortoluene baserrian jaioa - Epele-torre etxean hila

Antonio Zubiarrain: "Bortoluene Osinagatik gora igota dago. Handik Epelera ezkondutakoa zen aitona". Iturria: mendienartean.blogspot.com

Txirritaren bertsokoa gure aitona zen: "Joxe Mielek atera digu oso hizketa leuna". Gure aitona Epelekoa zen eta "Bortto" deitzen zioten. Baina aitonaren etxea Epele-torre da. Arrebari galdetu nion: "Gure aitonari Bortto zertarako deitzen zioten?". "Borttolonekoa zelako!". Aitonik ez nuen ezagutu nik. [**Antonio Zubiarrain**]

JOAKINA ETXEBERRIA

Aitona bertsolari ederra zen. Serioa, eh! Amonak ere egiten zuen bertsotan. Joakina Etxeberria, zabal-zabal bat zen. Gizona Fagollagara joan eta pixka bat deskuidatzen bazen bertsotan aritzen zen, Artzai Txikia eta beste bertsolariekin. Hala failatzen bazion gizonak, amonak sega-potoa bizkarrean hartu, behiak lotu eta janaritara joaten zen. Bertsotan ederki egiten zuen. [**Antonio Zubiarraine**]

PEDRO MARIA OTAÑOREKIN

Pedro Maria Otaño, Amerikatik bueltan, Hernaniko Karabel tabernara etortzen zen, eta gure aitona ere berarekin han aritzen zen bertsotan. Bertsoekin ez naiz gogoratzen baina despedidako batekin bai: "haurrak eta emaztia/Herreran dauzkat zai/beste egun batian/kantako degu lasai" esanda joan zen Pedro Maria Otaño.

Otañok gure aitonari eta Txirritari liburuak eman zizkion, Amerikan zela idatzitakoak. Eta irakurtzen inork jakin ez! Gure amak zekien irakurtzen, monjetan pixka bat ikasten ibilia baitzen. Epele auzoko etxearen aurrean arbola bat zuten; ikaragarria zen arbola hura, harrigarritako bat! Hara bildu denak, eta gure ama defuntuari, neska koxkorra bera, hari kantarazten zizkioten Otañoren liburuko bertsoak. [**Paulo Ttikia**, ARGIA 1831 zenbakia. 2001eko azaroaren 25a]

Santa Kruz apaiza. Iturria: www.euskomedia.org

SANTA KRUZ APAIZAREN BIZKARTZAINA

Epele-Torre etxeko aitona, Santa Kruz apaizaren bizkartzaina omen zen. Santa Kruzek esan omen zuen "Jeneral Jauregik ume txikiak ditu eta Frantziara pasa behar dute" eta hark pasa omen zituen Frantziara. Handik urteetara mutil kozkor hura hazi, Frantziako ejertzitoan sartu eta marinako komandante tokatu zaio Pasaiara etortzea, eta ezagutu behar zuela hura Frantziara eraman zuenaren baserria. Pasaian taxia hartu eta Epelera etorri zen. Epeleko aitona, xahar-xaharra eta baietz, hura zela eraman zuena. Urrezko erlojua erregalatu zion.

[**Antonio Zubiarrain**]

ITURRIAN ZER DAGO?

Aitonak-eta Oiartzungo festetan afaria egin zuten behin. Erreka omen zegoen etxetik iturria baino askoz bertago. Hango etxeko andre zaharrak esan omen zion: «Joxe Migel, baldekada bat ur ekarriko al zenuke?» «Ekarriko ez dut bada!». Joan da korrika, eta baldea errekan sartu, eta amuarrainak eta dena ekarri zizkion. Esan omen zion hango andreak: "Joxe Migel, iturritik ekarri al duzu?" eta "Nondik ekarriko nuen bada!", aitonak. "Joño, gure iturrian amuarrainak jaio al dira?"

[**Paulo Ttikia**, ARGIA 1831 zenbakia. 2001eko azaroaren 25a]

OLEGARIO GARIN ADURIZ

1844an jaioa

OLEGARIOENEA

Karrozeria jarri nahian zebilen. Asko begiratzen zion inguruan ura izateari. Zinko-Enean hiru iturburu baziren eta San Juan poxpolo fabrika (Kale Nagusia 59, oraingo "Carrocerias Hernani" den horretan) erre egin zen eta aukera baliatuz 1888an hor jarri zuen karrozeria. San Juan etxea esaten zitzaion, eta Olegariok bertsotan fama pixka bat hartu zuenean "Olegarionia". Karrozeriaren ondoan sagardotegi txiki bat zuten, Olegarioenea. Uste dut tolarea bazuela eta sagardoa egiten zutela. Txirrita oso gustura etortzen omen zen. [**Antton Garin**]

TXIRRITAREN KOTXERO

Txirrita eta Olegario zena, oinez joan omen ziren behin Hernanitik Ezkurrara, kantatzera. Goizuetan bazkaldu, alpargata berriak erosi, eta gauerako Ezkurrara, afaltzera. Saioa eginda etxeraino nola etorriko ziren, ba! Bidaltzean etorri behar! [**Paulo Ttikia**, ARGIA 1831 zenbakia. 2001eko azaroaren 25a]

Txirrita askotan nire aitaren aitonak (Olegariok) eramaten zuen batetik bestera. Astoa eta karroa bazituen eta horiekin asko ibiltzen omen zen. [**Antton Garin**]

Ernani'ko Pablo Zubiarrain bertsolariak onela kontatu digu: «Olegario Ernani'koa ere bertsolari zaarra, ta Txirrita ta biak beti parrandan. Bein batez, illobarekin abixua bialdu omen zion: Getaria'n San Antonak zirala ta bertsotara joan bear zutela ta etortzeko Ernani'ra. Olegariok Txirritari abixu ori bialdu. Ala, etorri omen zan; apaldu ere egin omen dute, ta Txirrita sagardotegira. Ernani'n dana sagardotegi zan ba orduan.

Sagardotegian bertsotan batean da bestean aritu da goizaldera arte.

Alako batean, zaldia ta karrua preparatuta zeudela, ta Olegariok Txirritari:

– Jeiki adi! Jeiki adi!

Ta Txirritak:

–Bai, bereala!

Bañan ez jeikitzen ura oietik; ez jeikitzen oietik eta alaba bialdu omen zion:

–Esaion jeikitzeko aguro, kotxerua preparatuta dagola-ta!

Alaba joan da, esan ere bai, bañan Txirrita ez jeikitzen. Olegariok ostera bialdu zun alaba:

–Jeikitzeko azkar esaion, aspertu dala kotxerua ta!

Joan da alaba, ta Txirritak:

–Esaiozu aitari ezin detela! Bartarratsean emen aldatu nintzala, eta ezin ditutela galtzerdiak billatu! Bat billatzen detela, ta bestea ezin detela billatu!

Igo omen da Olegario, ta:

–Zer pasatzen zaik?

–Nik etzekit ba! Emen aldatu niñuen bartarratsean, da iñun eztit billatzen orain galtzerdia! Ta anka batean galtzerdia ta bestea ankutsik ezin joango nak ba!

Orduan Olegariok alabari:

–Joan adi dendara! Olako dendatik ekartzin aguro galtzerdiak onentzako!

Joan da ekarri omen zizkion, da etzeukan anka artan jantzi omen zun galtzerdia.

Ura propio noski; tipoa izan ura! Gero beste ankean asi da erazten lengo zarra, ta:

–Ara! Au ere nik egin bear nin! Nola billatuko nin, ba, biak anka batean jantzita zeuzkat eta!

Ta, berriak jantzita, ederki ura Getari'ko San Antonetara. [**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

BAT-BATEKO BERTSOAK

Ez dut uste plazetan asko ibili zenik. Noizbait Ereñozun San Antoniotan kantatu zuela uste dut.
[Antton Garin]

KARRO TXIKI POLIT BAT

Gure berraitona karrogilea zen, eta Pello Errotak esan omen zuen "karro bat behar dut astoarentzako, eta Hernanira joango naiz Olegarioenera". Etorri eta esplikazioak eman dizkio, nolakoa behar zuen, eta berraitonak (Olegariok) "lasai, etorri bila hemendik 15 egunera". Kristoren giroa izaten omen zen Olegarioenean (sagardotegian), eta Zinkoenea tabernan eta jendea ari zen "Pellok etorri behar dik karroaren bila, eta baietz, baietz Olegariok punturen bat bota...". Pello etorri zenean, gure berraitona hasi omen zen:

Karro txiki polit bat
astuarentzako
Pellok enkargatu nau
ondo egiteko
material iharrakin
lodi eta sendo
bestela ez diola
luzaro iraungo
baina pagatu gabe
ez dek eramango.

Eta Pello Errotak erantzuna:

Jaunak, Olegario,
xelebrea zera.
Aspalditik banuen
zure aditzera.
Zertsu kostea badakit
gutxi gora behera:
kurtixia, ardatza
eta errubera
ta hurruna etortzean
konponduko gera.

"Arre!" egin eta alde egin omen zuen, ordaindu gabe! Eta gero gure aitak esaten zuen aitona Olegariok esaten zuela: "Asteasuk Hernaniri ontzako urrea zor ziok!".
[Antton Garin]

DOMINIKA ANDREARI

Bere andrea Dominika hil zenean, bertsoa kantatu omen zion, andrea kajan zela:

Nere andrea Dominika
nere emaztea zana
ni behartzen nintzenean
serbitzen zidana
lanean ere bazakien da
gogoz aritzen zana
zor guztiak pagatu eta
zerura joan zana.

[**Antton Garin**]

Txirrita ta Olegario, beren eginkizun bat zutela-ta, Indiola'ra joan ziran. Olegariok andrea il berria zuan. Andrea il ta andik bi illabetera edo ola zan gertaera au. Begitik malkoa zeriola bertsoa asi zuan:

Nere andre Dominika
emazte izandua,
ziaro zartu gabe
utzi zun mundua;
nere pameliaren
beko zimendua,
estremidade askotan
neri lagundua ...

Ola gelditu zan, bertsoa bukatu eziñik. Eta Txirritak bukatu zion:

Lenago eman zizunak
antxen du kendua.

Gero, andik illabete batzuetara, gure Olegario beste alargun batekin ezkontzeko asmotan zebillela-edo, Txirritak onako bertso au bota zion:

Aizu, aitona, beirozu gero
eltzen badizut lepotik,
lenago ona etziñan baño
gaiztotu zera gogotik;
aspalditxuan zabiltza ortxe
alargun baten ondotik,
zure gustua kunplitu gabe
juan biar dezu mundutik.

Ernani'ko Ereñozu'ko Jose Oiarbide'ri ere jaso nion bertso au.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

UDARREGIREKIN

Udarregik:
Mendira joanda egurra ekarri
gerri-gerritik moztuta
pagatu ere oso gutxitan
ahal dan guztia ohostuta
txarra ta ona biak ibili
alkarri ondo nahastuta
gero dirua galanki hartu
galipotakin belztuta.

Olegariok:
Diferentiak izaten dira
likoria ta mistela
zuk diozunez gaur erraz aski
nik egiten det pastela
ona bakarrik ibiltzen det nik
sasira bota ustela
orain daukaten parroki on hau
ez nun egingo bestela.

[**Mikel Ruiz**]

OLEGARIORI

Saiburutar Nikolas Lujanbiok Argentinatik anaia Joxeri bidalia

Gaitan egongo dira
Olegariyogan,
zarra izanagatik
zer zelebria dan;
bertsolariya dala
ezagun du karan,
lastima lagun txarrak
jarri zaizka traban;
urtiak espaldan
eta anka baldan
korritzeko maldan,
ez det uste igual dan;
Jose, galde zaiozu
pizkortu al dan.

[**Antonio Zavala**, Iru anai bertsolari, Auspoa 73.]

ERANTZUN EZ ZUEN BERTSO BAKARRA

Olegario bertsolaria oso laguna zuen Txirritak. Hil zela jakin zuenean ikustera joan omen zen. Hilkutxatxo beltz batean sartua omen zegoen lau kandelen erdian, gurutze txiki bat eskuetan eta lore batzuk ere bai ondoan.

Hamaika bider bertsotan jardunak ziren biak elkarrekin eta Txirritak agurtu zuen beti bezala bertso batekin. Olegariok ez zion bertsorik trukatu, ba hila zegoen gaixoa eta! Txirritak hala erantzun zion orduan: "Oraintxe sinisten dit benetan hil haizela; ez hintzan bestela erantzun gabe geratuko".

[**Antton Garin**, Hernaniko Urtekaria 2009]

AITONA OLEGARIORI

Badira urtiak joan zinala
aitona zu hemendikan.
Zure umorea eta bertsoak
ez degu ahaztu oraindikan.
Karro egile famatua eta
bertsolari gainetikan.
Zuk izandako bizitza ederra
ez da izan alferrikan.

Pena haundi bat beti izan det
aitona ez ezautua.
Etxian bertan izango nuen
bertsotarako maisua.
Txirritarekin hara eta hona
hartuz zaldi eta karrua.
Herri askotan biok jarriaz
umore eta bertsua.

Agur eder bat gaur esanez
malkoak ditut begian.
Gertatzen baita Olegarion
histori bat egitikan.
Bertso txaloka han egongo da
pozik izarren artian.
Garin familia ez gera ahaztuko
bizi garen bitartian.

[**Antton Garin**, Hernaniko Urtekaria 2009]

JOXE MANUEL LUJANBIO RETEGI "TXIRRITA"

1860an jaioa, Ereñozuko Latxe baserrian - 1936an hila Altzako Gazteluene baserrian

Iturria: Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak.

Gurasoak, Bautista, ernaniarra, eta Juana Josefa, oiartzuarra, izan zituan. Aitaren aldeko aiton-amonak, Pedro Lujanbio eta Paskuala Ganborena, biak ernaniarrak; amaren aldekoak, Inazio Retegi, oiartzuarra, eta Frantziska Iraola, errenteriarra. [**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

ETXEZ ETXE

Latze'n bizi izan zan Txirrita, amairu bat urte bete arte. (...) Fabrika batek artu zituan, ordea, Latze'ko soro eta lurrak. Au dala-ta, bertako familiak alde egin bear izan zuan andik, eta Errenteri'ko Txirrita baserrira aldatu zan. Dalako fabrika ori, izen onekin ezagutu da ia oraintsu arte: *Hijos de Jaime Puig - Destilería de Leñas y Fábrica de Productos Químicos.* Baiña gaur itxita dago. [**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

NIRI BERTSOTAN ERAKUTSI

Ernani'ko 1860 urteko *Padrón Municipal*'ean esaten danez, Txirrita jaio zaneko urtekoan beraz, Ereñozu'ko Txabolategi baserrian, Txabolategi bertsolariaren jaiotetxean, Domingo Erroizenea izeneko etxekojauna bizi zan. Ereñozu'ko Jose Oiarbide'k, Domingo orren aditzera bazuan, leengo zaarrei entzunda. Bertsotan zer edo zer aritzen zana omen zan, eta Txirritak, artean zortzi edo bederatzi urteko mutikoak, onela esaten omen zion:

-Neri bertsotan erakutsi bear didazu, Domingo.
[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

Txirritak ba al dakik zergatik eraman zuen hura (Paulo Ttikia) Ereñozura, lehen plaza egitera? Txirritak esaten zuen: "Joxe Miel Otxotorena, (Pauloren aitona) zen nire profesorea, eta nik profesore egingo dut orain Paulorena!".
[**Antonio Zubiarrain**]

Txirrita baserria San Markos mendiaren azpiko aldean dago, Errenteri'tik Astigarraga'ra dijoan kamiotik eskubira, kaletik kilometro ta erdira. [**Antonio Zavala**, Txirrita liburua].
Iturria: www.blogari.net

Txirrita artaburuak aletzen Gazteluene baserrian, 1930 aldean (bertan bizi izan zen azken urteetan, arrebarenean). Ezkerretik eskuinera: Marcial eta Bernardo Erauskin Arrieta, Txirrita eta Fermina Erauskin Lujanbio. Iturria: www.flickr.com

BERTSOTAN PLAZAZ PLAZA

Txirritak urtean 11 plaza egiten omen zituen, zeukan famarekin!
Joaten zen lekuan, lehenbiziko tragoa egiteko dirua bazuen, hortik aurrera seguru; bertsotan hasi eta erronda denak ordainduak zituen. [**Florian Oiarbide**]

"Izugarri bertsolari ona zan. Bi aldeta zekien hark, mozketan eta laguntzen. Itzein ere bertsotan eiten zun eta haren inguruan jendea beti parrez eta algara batean egon oi zan. Boza ere halakoa, nik ezagutu dedan onena".
[**Paulo Ttikia**, Bertsolari, 1991ko iraila]

Boza ikaragarria zuen. Lodia. Petxua ere handia zuen, eta a zer indarra ematen zion. Txirrita karroan eramaten zuten Goizueta aldera. Doinua bakarra ibiltzen zuten. Serio aritzen bazekiten, baina gehienean zirika aritzen ziren. Edan? Txirritak ez zuen asko edan beharrik zirikan hasteko. Umila zen bertsolaria oso. Baina burla pixka bat egiten bazioten...
[**Antonio Zubiarrain**]

BIZIMODUA

Nekazaritza utzi eta argintzan asi zan. Seguru asko, etxetik urruti gabe ikasiko zuan langintza ortan, San Markos'ko fuertea egiten ari zirala-edo. Lana sortzen zitzaion tokietan jarduten zan. Geienetan, Errenteri'n, Ernani'n, Irun'en eta alakoetan. Baiña urruti samarrera ere joan izan zan: Zaragoza'ra, Prantzi'ra ... Donosti'tik Bilbo'ra dijoan burnibideko paretak jasotzen ere ibili zan. Eta lantegia zuan errian etxeren batean ostatuz jarri eta orrela bizi izaten zan.

Egun batean galdetu zioten:

– Txirrita, nun ago ostatuz?

Eta Txirritak:

– Ementxe, irabazi-ala gastatuz.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

Jakiña, Txirritak ere, langille beroa izateko, nagusi askotxo ezagutu zituan, nola euskaldun ala erdeldun. Danak berdintsu errespetatzen zituan, parranda egin bear zuanean. Poltxikoan dirurik etzuanean, gizon bezela portatzea gustatzen zitzaion lantegian. Baña dirua zuanean, sagardotegiko etxekoandrearentzat ere kupitu egiten zan, ark ere norbaiten diru laguntza bearko zuala pentsaturik eguneroko ogia etxeratzeko, eta geienean bertara jotzen zuan. Nagusi erdeldunarekin lanean ari zala, gertatu omen zitzaion ondoren idatziko dedan au.

Orduan ere parrandak egiten omen zituan, baña astearen aurreneko egunetan lanera zintzo joaten omen zan. Ostegunean jai erdia egokitu nunbait; eta, norabait bertsoak kantatzera joan da irabazitako txanponakin, ostiral egun guztian parranda egin omen zuan, eta berriro ere larunbatean zintzo lanera, ez noski lanerako gogo geiegirekin, baña lanean pasatako egunak kobratuko baziran joan egin bear.

Nagusiak, illunabarrean, kontuak egiterakoan, onela esan omen zion:

– *Txirrita, usted ayer medio día ¿no?*

Eta Txirritak:

-¡Qué medio día! ¡Todo el día, sidrería, Rentería!».

[**Sebastian Salaberria**, Txirrita liburua]

Pareta egiten ari zen, eta harekin laguntzaile mutil koskorra. Patrikan eskua sartu eta txanpona aurkitu eta mutilari esan omen zion: "hi, ni hor goitik erortzen banauk hau besteren batek gastatuko dik, eta joan hadi, horrako baserrian sagardoa bazegok, eta hartzak ontzi hori eta ekartzak sagardoa". Hara joan da, eta ekarri sagardoa eta trago batzuk egin dituzte, eta "beno, orain ni horra gora joan eta behera jaisterako, hau (sagardoa) belztua zegok. Eta hau bukatuta igo behar diat". Izorra ezak hura! Hark bertsotan egiteko kristoren kaja zuen. [**Florian Oiarbide**]

Egun batean, ala omen zion:

– Duro bat duan gizonak lanera joan bear al du? Nik duro bat badet eta batere ez nijoa lanera.

Urrena lanera bildu zanean, lagunak ala esan zioten:

– Oraingo ontan botako au nagusiak lanetik, Joxe Manuel.

– Ez natxiok botako.

– Bai. Botako au. Irekin asper-asper eginda ziok.

– Ez. Ez natxiok botako, maite natxiok eta.

Baietz eta ezetz, ezetz eta baietz, apostua egin dute pitxar bat ardo.

Nagusiarengana urreratu eta bat-batean, aurrea artuz alegia, ala esan zion Txirritak:

- Txintxurreraiño nazka eginda niok emengo lantegiaz eta ekatzak kontua. Ez diat geiago irekin lan egiterik pentsatzen.

Apostua irabazita zeukan: bera atera zan lanetik; etzuan nagusiak bota.

[**Sailburu**, Txirrita liburua]

Joxe Oiarbide "Ttanttua", Txirritarekin ere aritu omen zen. Txirritaren eriotzaren 50. urteurrenean liburua atera genuen, eta jende guztiari entzuten nion Txirrita alferra zela, eta alferra zela... pentsatzen nuen "baten bati atera behar diot langilea zela..." eta Joxerengana elkarrizketa egitera joan nintzenean galdetu nion "aizu, Joxe, Txirrita horrelako alferra al zen?". "Txirrita alferra? Mundiala!". [**Juanjo Uria**]

LIBURUA IDATZITAKOA

1930'garren urtean, liburutxo bat atera zuan: *Txirrita'ren Testamentua. –117 bertso bere denboran jarri dituan obenak– 1930, Imp. Macazaga, Rentería.*

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

Komentarioa egin zidan Olanotar batek: harremana zeukan Koldo Izagirre idazlearekin, eta hark errieta egin omen zion "gezurra zirudik, Txirritaren 50. urteurrena bazetorrek, eta inork ez dik idatzi letra bat ere!". Ni ordurako ari nintzen ordea, eta handik hilabetera edo aterako zen liburua. Barre pixka bat egingo zuen Koldok hori ikusita.

Idaztea nire gauza izan zen. Informazio pixka bat bildu, eta nire iturri nagusia Antonio Zavala izan zen, gehigarri batzuekin. Bukaeran herritarren bertso jarriekin osatu genuen liburua.

Txirritaren liburuxka publikatu eta Diario Vascon karta bat etorri zen niri zorionak emanez, zein ausarta izan nintzen liburuaz gain konkretuki Txirritaren bertso gordin xamar batzuk publikatzeko, lehen argitaratu gabeak zirenak: "lehendabiziko tirua xuxen sartuko nizun beltzian" diotenak. **[Juanjo Uria]**

TXAPELDUN

1935ean, Lehenbiziko Euskal Herriko Txapelketan, bigarren egin zuen. Basarrik jantzi zuen txapela.
1936ko Txapelketa, berriz, Txirritak irabazi zuen.

ERIOTZA

1936 urteko maiatzaren azkenean, Goizueta'n zerbait festa bazala-ta, Txirrita deitu zuten, bere lengusu Saibururekin bertsotara joateko. Goizeko bederatzietan automobil bat etxeraiño billa etorriko zitzaiola. Txirrita garaiz prestatu eta zai jarri zan etxeko atarian. Goizueta'ra aillegatu eta amaiketakoan gazta miña jan bear zuala esaten zuan.

Atarian egon da egon, denbora aurrera eta automobillik etzan agertzen. Koñaduaren anaia, Saturnino Erauskin, bertsolaria bera ere, atarian zebillen eta onela esan zion:

– Bazaude, baiña etzaizu gaur automobillik etorriko.

Txirritak bertso batez erantzun zion. Zoritxarrez, illobak ez dira bukaeraz baizik oroitzen:

zu aixa ari zerade emen
ijua eta marrua,
baña ez apuratu, Saturnino,
etorriko da karrua.

Goizueta'n, tabernan-edo, besterik kantatu ez bazuan, au izan zan Txirritaren azken bertsoa. Noizbait bear eta azaldu zan automobilla. Automobillean sartu eta Goizueta aldera abiatu ziran. Goizueta'ra allegatu eta amaiketakoan, Loiarte'renean ain zuzen ere, gazta miña eskatu zuan. Bai gustora jan ere. Jan da gero, maitik altxatzean, onela esan zuan:

– Nere eun da berrogei ta amar kiloak bapo jarri dituk orratik oraintxe.

Bearbada, oiek izan ziran bere azken itzak. Ori esan eta kanpora abiatu ziran danak, bertso-saioa asteko. Loiarte etxetik irten eta plazara zijoazela, Txirrita bide bazterrean zegoan arrizko aulki batean exeri zan. Orduan konturatu ziran lagunak zerbait bazuala. Atakearen asiera zan.

Goizueta'tik telefonoz abixua bota zuten Altza'ko Martillun deritzaion tabernara. Emengoak, berriz, mutil bat bialdu zuten Gazteluene'ra. Andik ordu betera edo, goizean osabaren billa etorritako automobil ura bera etorri zan. An zetorren Txirrita gizarajoa; baita mediku bat ere ari lagunduz. Artu eta aidean eraman zuten oiera. Automobillak segituan alde egin zuan andik. Telleri-txiki bertsolaria Txirritaren ordez artu eta Goizueta'ra berriz ere, emengo bertso festa galdu etzedin.

Medikuak, Txirritak *«hemorragia cerebral»* zuala esan zien, eta iru bat egunean biziko zala. Eta ala gertatu zan.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

PRENTSAN ALBISTE

Prentsak eman zuen Txirritaren gaitzaren eta eriotzaren berri. Garagarrillaren 4ean, onela zion El Díak (laburtuta):

Es de suponer el general sentimiento que en Euzkadi entera causará hoy tan triste nueva de la muerte del "txapelduN" del I Día del Bertsolari, que expiró a los 76 años de edad.

¡Descanse en paz el inolvidable bardo euskérico cuya memoria perennemente guardará el pueblo vasco!».

Ondorengo egunetan, *Aitzol,* Basarri eta abarrek idatzi zuten Txirritaren eriotzaz.

Argia astekariak, berriz, onela zion garagarrillaren 4an "Txirrita il da" artikuluan (laburtuta):

Euskal Erri ta Jakintzaren alde

IZPARRAK

AMONA TA ARDATZA

UDABERRIKO EGUN BAT

Iturria: el pueblo vasco.

Txirrita ezagutzen ez duen euskaldunik ez al da izango. Ain zan ezaguna. Euskalerria batetik bestera bein baño geiagotan igaro izan du, an da emen bere bertsoak entzun nai izaten ziralako. Bertsolari batzaldian lenengo saria beretzat izan zan. Txirrita bezelako bertsolariak gustatzen zaizkate gure baserritarrei: zirikalariak. Eta zirikalarietan bazan ba bat gure Txirrita ospatsua. Irakurle, Aita gure bat Txirrita'ren gogo aldez.

Ernani'ko bertsolari iaioa

Aren ziriak eta batez ere esanaren mamiak etzuten alderatzekorik. Txirrita'k, erriaren filosofi izpiritu zoliaz girotutako jakintza iraultzen zekien bere bertsotan eta bidebatez mintzagairik benetakoena (iñori gogoratuko etzitzaion eran) satira bidetik eramaten zekien, jendeari luze-luze par egin erazirik eta abotan artutako gaiari errespeturik kendu gabe.

(...)

Olakua zan gure Txirrita. Ez gerra edo beste zerbait kondenatzeko, ez iñor goraipatzeko, etzuen sermoi aspergarri eta seriotara jo bearrik. Gauza bakoitzaren muiña iñork ez bezela somatzen zekien eta aietatik ateratzen zuen iritzi sarkorra naiago zuen benetan baiño txantxetan aditzera eman, bere izakera alakoxea baitzan.

No habrá huelga de estibadores hasta el día 30 de este mes

EUSKAL GAIAK

EL DIA

"TXIRRITA"REN OMENA

CARNET POLITICO

ELIZALDE IDAZLEA "PIZKUNDEN"

EUSKAL GAIAK

EL DIA

Actividad social

Este número ha sido visado por la censura

Baiñan, Txirrita'ren txantxak egiarik mardulenak gordetzen dituzte bere baitan. Onetxegatik Txirrita'ren bertsoak ez dira ilko euskaldunak bere senari eusten dion artean.

[**Yon Etxaideko**, Zeruko Argia, 1963-epaillak 24an].

El Día egunkariak Txirritaren heriotzaren berri eman zuen.

PAKEAN HILA

Gogoratzen naiz nola etorri ziren Oindin behera karlistak. Txirrita fueroen bertsoak jarri berri xamarra zen, Canovasengatik ere jarri zituen, eta bertsotan esaten du: "kastigatzeko beldur ez banintz esango nuke izena". Karlistek Hernanin sartu zirenean galdetu omen zuten: "Txirrita non bizi da?". "Txirrita Errenterin bizi zen, baina hil zen". "Hil al zen?! Bestela gaur bertan hilko zen!".

Altzan hil zen Txirrita, arrebaren etxean.

[**Antonio Zubiarrain**]

SAIBURUTARRAK
JUAN JOXE LUJANBIO "SAIBURU"

1874an jaioa Hernaniko Sahatsain baserrian - 1954an hila Errenterian

Juanjo Uria: "Saibururen aita eta Txirritaren aita anaiak ziren, Lujanbio. Aitak Abilakoak ziren".

Saiburu baserria Zamalbiden dago. Taberna zuten, oraingo Mugaritz den hori. Errenterian zen tabernarik zaharrena hura omen zen. [**Antonio Zubiarrain**]

BATAIOA

Saiburu jaio zenean, orduan izaten omen zen hiru egunen barruan bataiatu beharra. Ama mando gainean jarri, umea besoan hartu, eta aita aurretik oinez mandoa eutsita. Traka-traka-traka, Sahatsaindik Usategietara atera, eta hor baserritarren batek esan omen dio "hi, Lujanbio, nora hoa!", "umea bataiatzera niek, hiru egun baditu eta...". "Ez hadi Hernanira joan, sutan zegok eta!". Pin-pon-pin, kristoren tiro soinuak "sua eman ziotek, zera zebiltzak, karlistak eta liberalak!". Jira, hartu mandoa eta Aranora. Eta Aranon bataiatu! [**Antonio Zubiarrain**]

TXAPELKETAN

1936ko Txapelketan finalean kantatu zuen.

TXIRRITAREKIN KANTUAN

Txirritarekin Ereñozura kantatzera asko joaten zena bat zen Saiburu. [**Antonio Zubiarrain**]

Gure osabak esaten zuen Saiburu ez zela bertsolari izugarria. Harek lehengusu izan behar zuen Txirrita, eta horrela asko defendatu zela, haren anparoan joaten zela plazetara. Orduan dirua ere ateratzen zuten. Gogoratzen naiz ni mutil-koxkorra izebarenera etorri eta leihoaren atzean nengoela, eta Saiburu leihora atera eta nola kantari ari zen. [**Florian Oiarbide**]

Basarrirekin. Iturria: www.guregipuzkoa.net

Iturria: www.guregipuzkoa.net

Bein batez, Txirrita Saiburu baserrira etorrita, bi lengusuak kantuari ekin zioten, ta amalau egunean ia ixildu gabe jardun omen ziran. Amabosgarrenean, Txirrita, oso zaartu ta baldartuta baitzegoan, gurdi gañean jarri ta Gazteluene'ra, bera bizi zan baserrira, arrebaren etxera alegia, eraman zuten. [**Antonio Zavala**, Iru anai bertsolari, Auspoa 73.]

ELIOREKIN

Bi puntu ditut gogoan Saiburu eta Eliorenak.

Saiburuk:
Ameriketan badet anai bat
diruaz bete-betia
pentsatutzen det airoplanu bat
hartuta hara juatia.

[**Pedro Joxe Mujika** "Anatx"]

Eliok:
Juan Joxe ez dezu gauz onik eingo
lantegi hortan hasita
putzura ia eroitzen zeran
katxarru hori hautsita.

TXIRRITA BERANDU

Txirrita berandutu da eta Saiburu eta Telleri Txiki zain. Etorri da noizbait ere.

Saiburuk:
Hamar t'erdiak dira-
de nahiko berandu
meza nagusia ere
aspaldin eman du
nik ez det ikusi baino
jendiak hala esan du
Txirrita ez omen dala
mezetan izandu.

[**Antonio Zubiarrain**]

Txirritak:
Gizon honen jokera
beti akziuan
hola saiatzen bada
bere negoziuan
zu leheno kapitan zinan
kongregaziuan
orain zertan sartzen zera
gure soziuan.

ZEPAIREKIN GOSEAZ

Ereñozun bertsotan aritu ziren. 1943 urte ingurua zen, eta kristoren gosea zegoen. Ez ogirik, ez oliorik... Atera zuten bertsotan gose kontua eta:

Saiburuk:

Nagon tokitik esango'izutet
jaunak oraintxe egia
Zepai jauna're ez dago oso
lodia eta nagia.
Gure jainkuak itsas gainian
egiten badu zubia
San Antoniok Argentinatik
ekarriko dik ogia.

Zepaik:

Gose galantak pasatzen
ditu(gu)
gorputzarentzat kaltian
pazientzia hartu dezagun
ta lasai egon gaitian.
Baldin gosiak ez bagera
hiltzen bien bitartian
ogirik jateik ez zegok hemen
Franco bizi dan artian.

Haiek parrak! Kartzelara eramateko ere!

[Antonio Zubiarrain]

Zepai eta Txapel. Iturria: www.eke.org

MUTILZAHARREI

Bein batez, Oiartzun'en, bertsotan ari ziran bertako Zurko baserriko Kaskazuri, Prantsez Txikiya -onek Pedro zuan izena-, Txirrita ta Saiburu. Au izan ezik, beste irurak mutilzarrak ziran. Alako batean onako bertso au kantatu zien Saiburuk besteai:

Ezkongai daude Kaskazuri ta
Pedro ta Txirrita zarra,
beti juzkatu izandu dana
oso iruko azkarra;
nik banakike neska aundi bat
itxusiya ta baldarra,
ontaz aurrera irurentzako
basta da ura bakarra.

[Antonio Zavala, Iru anai bertsolari, Auspoa 73.]

SAIBURUTARRAK
NIKOLAS LUJANBIO

1877an Hernaniko Sahatsain baserrian jaioa - 1958an hila

ARGENTINARA

Lenengo, Emani'ko ostatu batean lan egin zuan. Soldaduzka kunplitu ondoan, Amerika're-kin lilluratuta, Argentina'ra joan zan. Arunzkoan itxasoan nola ibilli ziran, bertsoetan kontatzen du. 1906 edo 1907'gn. urte inguruan joan zan. Mar del Plata'ko Hotel Continental zeritzaionean, sukaldari asi zan. Ta asi ez-ezik, bertan iraun zuan Amerika'n bizi izan zan denbora guzian.

...

Andik onera, etxera alegia, eskutitzero bialtzen zituan bertsoak, asko edo gutxi.

...

Bi aldiz etorri zan andik onera bisitaz. Aurrena, bere anai gazteena, Anjel, esposatu zanean, 1917gn. urtean. Bigarrena, 1930'gn. urte inguruan.

...

Azkenekoz, ta emen betiko gelditzeko, bere anai Juan Jose il da gero etorri zan, 1954'gn. urtearen ondoren, beraz.

[**Antonio Zavala**, Iru anai bertsolari, Auspoa 73.]

NIKOLASEN JAKIAK

Andik onera zetorrenean, etzuan ollaskorik eta iñolako okelik nai izaten. Ameriketan naikoa jana zala esaten zuan. Fruta, berdura ta olakoxeko gauzak gustatzen zitzaizkan.

Gari-alea, berriz, gordiñik jaten zuan.

Ni Ernani'ko semia naiz ta
euskaldun puru-purua;
jan-eranian eman dirate
aberatsaren gradua,
arkumiari atzia janda
zakurrarentzat burua
eun urtian desio nuke
olako bizi-modua!

Olluari're billatzen diyot
nun daukan puskik onena:
aurria baña askoz obe du
atze aldeko laurdena;
nausiyak ere ematen digu
asko jateko ordena;
eztu gosiak bereala ilko
aukera ori duena.

[**Antonio Zavala**, Iru anai bertsolari, Auspoa 73.]

TXIRRITARI

Nere lengusu Jose Manuel,
bertsolarien artzaia,
Ameriketan askok daukagu
zurekin itzegin naia;
Jaun Zerukuak eman dizute
aurten txit urte lasaia,
zer gozo dauden gure Ernani,
Errenteri ta Pasaia!
Mar del Plata'tik aditutzen det
orko sagardo-usaia.

Produkto onak omen ditu aurten
Gipuzkoa ortan lurrak,
danak betiak omen dirade
sagar, intxaur eta urrak;
aieri beira pozez zoratzen
aitona bizkar-makurrak,
sagardoz berriz freskatu eta
lasaiturikan ezurrak;
gizon formalak abisatzen dit,
apenas dira gezurrak.

Txirritarenak Otañorekin
lenago Xenpelarrenak,
Ameriketan juzgatu diran
bertsolairik ederrenak;
ariyen markak iya jo ditu
gure anaia zarrenak,
Bakallero ta Udarregi're
ez omen ziran txarrenak,
iñor mendratzen ez det ari nai,
ederrak zerate denak.

Bein baño geiagotan bialdu zizkioten alkarri bertsoak Txirrita ta Nikolasek.

1
Argentina'tik joanda
aurten Donostiya'n
euskaldun bat egon da
udara guztiyan;
bueltan etorri zaigu
ostera ontziyan,
bertsolarien nota
eman dit itz biyan:
Txirritak nola dauzkan
danak bere azpiyan.

2
Txirrita jaiua da
Ernani'ko Latze'n,
eskribitzen ez daki,
oso gutxi letzen;
gaztetan aritzen zan
artua jorratzen,
nunbait etzuen andik
naikua sobratzen,
gero ikasi zuan
arriya labratzen.

3
Esan dedan bezela,
jaio ziñan Latze'n,
Nikolas Lujanbio
berriz Abillats'en;
lengo fuero maitiak
zaizkigu goatzen:
Don Juan Urbieta ere
angua omen zen,
lau probintzi kintatik
libratu ta il zen.

4
Apellidu batekuak
gerade ni ta zu,
aitak anaiak ziran,
semiak lengusu;
zu eskolarik gabe
egin ziñan maisu,
alare denak baño
geiago dakizu,
jendeak argatikan
oinbeste nai dizu.

5
Premiyo bat ekarri
omen du Zarauz'tik,
eta auskalo zenbat
ura ezkeroztik;
sekula eztala izan
orrelako festik,
orrek abildadia
olaxe berez-dik,
beintzat kolejiyotik
ekarriya eztik.

6
Bertsoak jarri ditut
Mar de la Plata'n,
Errenteri aldera
bialtzeko kartan;
arkitzen bazerate
diruaren faltan,
abundantzi aundiya
da Ameriketan,
baforia beteta
sarri or naiz bueltan.

[**Antonio Zavala**, Iru anai bertsolari, Auspoa 73.]

SAIBURUTARRAK
ANJEL LUJANBIO

1886an jaioa Donostiako Basozabal baserrian

Martina (bere aurreko arreba) ta Anjel Donostia'ko Basozabal baserrian jaio ziran. Basozabal, Oriamendi ta Astigarraga bitartean dago.

Bañan etziran emen denbora luzean bizi izan. Errenteria'ko Saiburu edo Sareaburu baserrira aldatu ziran. Saiburu Zamalbide ballaran dago, kamioaren ondoan, oso leku politean.

Bere bi anaiak baño gutxiago jardun izan zan bertsotan, bai kantuz ta bai idatziz. Guk ez degu jaso al izan aren iru edo lau bat bertso baizik; bertsolaria zala jakiteko doi-doia, beraz.

...

Bertso zaarretan izugarri zekiana omen zan.

...

Arena da onako bertso au:

Urte asko daukazkit
mundu ontan junak,
txarrak asko dirade,
gutxi dira onak;
ez nau ondo artutzen
nekia ta lanak,
alimentuik ezpadet
laster akabo nak.

[**Antonio Zavala**, Iru anai bertsolari, Auspoa 73.]

Anjel ere bertsolari ederra zen! Hura ezagutu nuen bertsotan, baina ez zen plazetan ibiltzen. Koadrilan eta tabernan...

[**Antonio Zubiarrain**]

JOSE MANUEL "ARTZAI TXIKIA"

Tximistanekoa zen. Hari andrea hil omen zitzaion, eta esan zioten beste ahizpa han zegoela nahi bazuen inguratu, eta "tela klase batetik traje bat nahikoa dut" erantzun omen zuen. [**Florian Oiarbide**]

FAGOLLAGATIK IRTEERAN

Egun batean Artzai Txikia Fagollagan omen zegoen eta goizaldera atera dira eta oilarrak kukurrukuka.

Oilarra honek goiz jotzen du
kukurruku kukuttu ta
burua gora altxatutzen du
ttonttorrian ukuittuta
zorioneko edari honek
engainatutzen gaitu ta
txintxo txintxo orain etxera
poltsako xoxak aituta.

[**Antonio Zubiarrain**]

TXIRRITA ARTZAIARI ZIRIKA

Txirritak:

Artzai Txikiyak eman biaizkit
lau bat arrazoi fuertiak,
ire ardiyak nere soruan
egin dituzten kaltiak!
Punta berriyak moztu zizkatek,
eman zizkatek kortiak,
ire aziendak erretira itzik,
nik itxiko'izkit atiak.

[**Anizeto Kalonje,** Txirrita liburua]

Artzai Txikiak:

Joxe Manuel, emango'izkiat
lau bat arrazoi klaruak,
ziertorikan ez dakit bañan
ala ematen dit goguak;
gauza au emen sinistezkeroz
bearko ditek txoruak,
Artzai Txikiyak ardik bezela
Txirritak dizkik soruak!

Artzai Txikia bertsolaria bean piontzan eta Txirrita goien argintzan ari omen ziran.

Txirritak:
Diran bezela esan
biar ditut gauzak,
nola izaten diran
artzaiaren kausak:
eztu ikaratuko
muturreko lotsak,
zer moduz gobernatu
eztaki bildotsak,
aurki negu aldera
ilko dizka otzak.

Artzai Txikiak:
Txirrita, itzegin zak
polleki-polleki,
beirok gero bestela,
demontra polaki!
Bildotsak gobernatzen
artzaiak badaki;
udan esnia eman,
neguan barruti,
nere aziendaren
kezkik ez eduki.

[**Jose Oiarbide**, Txirrita liburua]

BIKOTE ARTISTIKOA KRISIAN

Artzai Txikia eta Txirrita beti alkarrekin ibiltzen ziran kantuan. Bati eztaietara-edo kantatzera joateko esaten bazioten, arek besteari otsegin eta alkarrekin joango ziran. Oitura ala zuten. Bein, ordea, Artzai Txikiari pregoi-apari batera deitu zioten; baiña Txirritari ezer esan gabe, beste batekin joan zan. Urrena, Txirrita deitu zuten eztaietara joateko; eta Artzai Txikiari ezer esan gabe, beste batekin joan zan. Biaramonean, biak Santiago-mendi'ko Bostieta baserrira deituak izan ziran, eta bertso auek bota zizkioten alkarri.

Artzai Txikiak:
Tripa-zakua bete biar du
gaztiak bere bolaran,
besteren bizkar ibillitzia
ai zeñen gauza ona dan!
Neri kasorik egin gabetan
eztakit nolaz joana dan,
jornal ederrak etxeratu'izkik
bart arratseko jornaran.

Ain zuzen, musean jardun eta duro bat galdua omen zan Txirrita. Orregatik, «jornal ederrak» esaten dio.

Txirritak:
Ollo erria sobra mayian,
ai ura ardozko asia!
Orrelakoa izaten oi da
nobiyuaren klasia.
Ez nuen uste Artzai Txikiyak
ortan punturik artzia,
aizak, aurriak erakusten dik
nola dantzatu atzia.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

ZAKURRAREN PUTZA

Beste argibide au, Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Txirritaren illobari zor diogu: «Jokorako apizio aundia omen zuen (Artzai Txikiak), baña geienean galdu egiten omen zuen; eta, zituen diruak galtzen zituenean, «Asko diat!» esan eta gelditzen omen zan. Bere andrea agin ateratzen aritzen zana omen zan; eta, jokoan galdu eta xoxik gabe gelditzen zanean, askotan esaten omen zuen:

– Gure Jainkoak emango al ziok bat edo bati agiñeko miña!

Nonbait, andreak dirua irabazi zai egoten zan, jokora joateko.

Bestek puntua asi ta osatzen ere oso azkarra omen zan. Orregatik, bein batean, jokoan danak galduta zegoen batean, Txirritak onako puntu au esan zion:

Zakurraren putza edo
ogei milla ezkutu,
zuk zer nai zenituzke
eskuan estutu?

Eta, asnasia artzeko beta gabe, onela erantzun zion Artzaiak:

Ekarri itzazu neri
ogei milla ezkutu,
eta zakurraren putza
naizun aña estutu.

[**Antonio Zavala,** Txirrita liburua]

TXIRRITAREKIN DESAFIOA

Batean, Astigarraga'ko guarda zanak kontatu zidanez, Donostia'n-edo, kuadrilla bat ari omen zan:

– Txirrita obea dek.

– Ez. Artzai Txikia obea dek.

Ta Astigarraga'ko sagardotegi batean egin omen zuten: bost juez alde batetik eta beste bost bestetik. Upel banaren gaiñean jarri sillak eta bertsolariak an exeri.

Iruna saio egin omen zituzten; saio luzeak. Ez bertso bat edo bi. Ta danak konbentzituta geratu omen ziran: Artzaia zuzenagoa ta obea zala.

[**Paulo Zubiarrain,** Ia kantatuz bezela, Auspoa]

"FRANTZES TXIKIA"

Frantzesa Hernanin bizitu zen urte askoan baina ez zen hernaniarra. Gero Errenteriara edo joan zen bizitzera. Bertsolaria bai ederra! [**Antonio Zubiarrain**]

TXIRRITAREKIN XEXTRAN

Prantzes Txikia ere oso bertsolari ona omen zan. Bein batean bertsotan ari ziran Txirrita eta Prantzesa. Baiña Txirrita geitxo edana, eta Prantzes Txikia tente oso, eta bera gaillen. Biaramonean, Prantzes Txikia bere andregai Petrarekin ikusi zuan Txirritak, eta bat-batean bertso au bota zion:

Bartarratsian izandu nuen
kantatutzeko pereza,
beragatikan artuko zidan
eskaxaguak grandeza;
zenbaitek aña modu baneuka
egingo nuke trabesa:
Zinkunegi'ko neska Petrakin
ezetz ezkondu Prantzesa.

[**Mariana Erauskin**, Txirrita liburua]

Gipuzku'ko erri txiki batean bertsolari bi: Txirrita ta Prantzes txikia.
Saio egokia egin dute meza nagusi ondoren. Alkate jaunak au erregutzen die bertsolarieri:
Arratsaldeko saioa bostetan izango dala kanta bear dezute bertso banatan. Alaxe egin zuten, goiz parteko ekiñaldiari azkena emanaz.
Arratsaldeko bostak dira. Txirrita igo da Aiuntamentuko balkoi nagusira. An dago alkatea; an daude kontzejal jaunak. Jo dute bost eta laurdenak; geroxeago, bost eta erdiak. Asarretu da alkate jauna. Era ontan mintzatzen da:

– Zuretzat, Txirrita, eztet zer esanik. Ordurako etorri zera, agindu bezela, baña bestea ezta ageri, Prantzetsa ezta azaldu...
– Nola azalduko da ba Prantzesa –erantzun zion Txirrita'k– eguardian nik aña edan du-ta.
Amaika arroatik gorako gizona zan Txirrita; bost arroa exkaxekoa, Prantzesa.

Txikiak estu ibili bear
aundiarekin ekiñez,
neurri kazkarrak uste baño len
egiten baitute gañez.
Jendea plazan egonagatik
Prantzesa'ri itxogiñez,
Artasoroan etzanda ura
bapo siesta egiñez.

[**Basarri,** Zeruko Argia 1964ko uztaila]

Beste batean, Oiartzun'en, kantuan ari zirala, itzetan berotu egin ziran Txirrita eta Prantzes Txikia. Ordu erdian jardun eta ezin zuten alkar menderatu, eta iñork etzuan amor ematen. Txirritak bertso bat onela bota omen zion:

Zere denboran izandu zera
tunantia ta litxarra,
infernuetara joan bearra
ori daukazu lan txarra;
lendabiziko erreko zaizka
illia eta bizarra,
burruntziyaren puntan bueltaka
sobratzen zaion pizarra.

Baiña Prantzes Txikiak onela erantzun zion:

Jende guziya nazkatu dezu
zure izketa zikiñez,
kulpik ez duen aingeru ona
trapu gaiztotzat egiñez;
bikariyotza nai zenduke ta
sakristautzako jakiñ ez,
zer nola meza emango dezu
eztakizu-ta latiñez?

Bertan omen zegoen bertso auek kantatu zirenean.

[**Gregorio Santa Kruz,** Txirrita liburua]

Pablo Zubiarrain, Ernani-Txikia bertsolariak onela esan digu:

Gu gazte xamarrak giñala, Ernani'ko ganadu-peria egiten zan tokian, frontoiko atzean, kiosko koskor bat bazan da an bertsotan ezagutu nitun Saiburu, Txirrita ta Frantzes Txikiya. Pikatu xamarra beti kantatzen zuten, da asi ziran: katarrua zeukala Frantxexak, eta berriz ere eukiko zula bota zion Txirritak; San Antoniori kandela aginduta, promesa eginda zeukala, ta joan da etziola jarri kandelik. Ontatik asi ziran. Azkenean gero Frantzesa alleitu zan botatzera. Ni ez naiz bertsoa dana gogoratzen, urte asko dira-ta; bañan Frantxexak, bukaera onela zun bertsoa bota zion Txirritari:

Zuk biar zendun Gipuzkoa'ko
alperren diretoria.

Ta Txirritarena ere, dana ez naiz gogoratzen; erdia bai:
Frantzez Txiki (y) au xapuxtutzian
nei lasaitzen zait barrena,
ez al dakizu sokor austeko
alperra dala onena?

Gero, beintzat, Txirritaren beste bertso bat, dana ez, erdia:
Aspertutzen e asiya nago
zure moduko prendakin,
erle gorriyak eldu badizu
igurtzi zazu mendakin.

Ikaragarriak bota zizkaten alkarri.

[**Antonio Zavala,** Txirrita liburua]

Prantzes Txikiya ori, batean portalean lo egin, bestean eskailleretan goraiño igo eta an, bestean meta ondoan eta edozein tokitan, gizajoa; ola ibiltzen zan. Saiburu'ko atarian, atearen ondoan, gure aitak duro bat ematen ikusi izandu nuan nik. Baiña bertsolari ona zan. Gobernurik-ezak galdu zuan ura. Ta alpreta josten ere oso ona izan bear zuan. Ala esaten zuten beintzat. Bein batez, bertso au kantatu zion Txirritari:

Ezer gutxitik zenbait pertsonak
erreparua artzen du,
eta zu ere saiatzen zera
iñola al baldin bazendu;
zureganako inkurriyorik
ez det beñere izandu,
oker samarra izan bazera
obeko dezu zuzendu,
denan maisua izango ziñan
ondo ikasi bazendu.

[**Juan Mari Lujanbio "Saiburu"**, Txirrita liburua]

Donosti'ko Loiola'n, San Inazio egun batean, bertsotan ari ziran leiotik leiora Txirrita, Saiburu ta Frantzes Txikia. Txirrita eta Saiburu Frantzes Txikiaren kontra asi ziran, lanik egiten etzuala eta alper aundi bat zala esanez. Bere txanda iritxi zanean, Frantzes Txikiak bertso au bota zien:

Eskerrik asko lasai xamarra
dadukatela gibela,
ta oiek berriz gaizki esateko
ez dute mingain motela;
publiku ontan itzegin dute
alper xamarra naizela,
ta edozeñek juzka lezake
oiek mantentzen nautela.

[**Pello Zabaleta,** Txirrita liburua]

Donostiako teatro batetan, zazpi bertsolari ari ziren kantu lanean, eta saria bakarra zen. Azkenerako bi geratu ziren: Frantses Txikia eta Gaztelu. (...)

Berdin juzgatu zituzten. Berriro kantatzeko esan zieten, baina gai bezala ahal zen gauzarik zaharrena hartuta, ordea. (...)

Eta besteak baino gauza zaharragoa aipatu zuelako, Gazteluri eman omen zioten saria.

[**Antonio Zavala**, Gaztelu bertsolaria, Auspoa, 61]

MATEA JOXEPA ZUBELDIA ELIZEGI

1867an Hernanin jaioa, Ibarluze baserrian - 1947an Kale Nagusian hila

Ibarluze baserrian jaio zen, orain poligonoa den horretan (baserria botea dago). Baserriaren jabeak Madrilgoak ziren. Ohitura zegoen baserriko alabak Madrilera, nagusien etxera neskame eramatekoa. Horrela pasa ziren Madrilgo etxe hartatik Ibarluzeko hainbat emakume. Joxepari ere tokatu zitzaion, neska kozkorretan, Madrilera joatea.

Madrilen neskame egonik, arratsalde bat edo egun bat izango zuen jai astean eta Manuel Ortiz Martinez ezagutu zuen, Burgoskoa. Neskametzatik ateratzeko modua ezkontzea zen eta Madrilen bertan gizon honekin ezkondu zen. Eta bost seme-alaba izan zituzten Madrilen (Nina, Amadeo, Pepe, Joakin eta Josefina). 1904 inguruan Hernanira itzuli ziren eta hemen jaio ziren bi alaba (Maria eta Juanita). 7 seme-alaba eta 27 biloba izan zituen.

[**Mikel Ruiz**, Joxepa Zubeldiaren biloba]

Madrildik itzultzean Iztil-Artenean jarri ziren bizitzen, Portun, Shangai taberna inguruan. Gero Kale Nagusira joan ziren, 15. zenbakira eta janari denda jarri zuen. Ondoren Kale Nagusiko 3. zenbakira aldatu ziren, Riojanos taberna parera, eta janari denda jarri zuen (Maite zapata denda den horretan).

[**Joxan Ruiz**, Joxepa Zubeldiaren biloba]

Ortiz-Zubeldia familia.

ETXEAN EUSKARAZ

Gizonak ez zuen euskaraz ikasi, baina etxean seme-alabek dena euskara egiten zuten. Askotan galdetu nion nire amari "eta aitonak zer egiten zuen?" "Ixildu!". Joxeparekin gazteleraz egiten zuen, baina euren artean hitz egiten zutenean bakarrik. **[Mikel Ruiz]**

Semeetako bat, Joakin Ortiz (1896-98 inguruan jaioa), lagunartean eta bertsotan aritzen zen. Madrilen jaioa zen baina gazteleraz ikaragarri gaizki egiten zuen. Parrandazalea eta mugitua zen, eta euskaraz kantatzeagatik atxilotu izan zuen guardia zibilak. *"Cómo te llamas?" "Joakin Ortis!" "Y dónde has nacido?" "En Madrid!"*. Muturrekoa ematen zioten *"no nos tomes el pelo!"*.

[Mikel Ruiz]



Manuel Ortiz Martinez, senarra.

Joxan eta Mikel Ruiz, bilobak.
Argazkia: Estitxu Eizagirre.

BARBASENEA DENDA

Senarra mehatzeetan lan egina zen eta erabat gaixo zegoen. Ez zuen lanik egiten, asmak jota zegoen, ezin zuen harnasik ere hartu. Joxepak, seme alaba eta guzti, berak bakarrik jarri eta atera zuen aurrera denda. Eta jeneroa negoziatu eta kontuak eraman eta... Esaten dutenez, gizona denda aurrean egoten zen aulki batean eserita, bere bizarrarekin. Hernanin bizardun bakarra bera zen, eta horregatik gara gu barbasenekoak. [**Mikel Ruiz**]

Dendak aurretik Kale Nagusira ematen zuen eta atzetik Ezkiaga pasealekura. Atzealdean ardiak hiltzen zituzten, gazta egin, usoak eta oilagorrak ere saltzen zituen ehiza garaian eta onddoak eta gibelurdinak... [**Mikel Ruiz**]

ANSORENATARREN ESKAINTZA

Eta trastiendan piano beltz bat zeukan! Ez zuen jotzen baina musika gogoko zuen. San Joanetan bazkaria egiten genuen han. Eta San Jose egunean (bere eguna zenez) ansorenatarrak joaten zitzaizkion txistua jotzera! [**Joxan Ruiz**]

IDAZLE

Nik ezagutu nuen amona nola egoten zen idazten. Luma eta tinteroarekin idazten zuen. Poesiak, errezu asko eta bertsoak idazten zituen. [**Joxan Ruiz**, Joxepa Zubeldiaren biloba]

Gure amak esaten zuen elizan kantatzen ziren kantu batzuen hitzak Joxeparenak zirela. [**Mikel Ruiz**]

Papeleratik paper roiloak ekartzen zituzten. Nik ikusten nuen berak nola egiten zituen orriak papera neurrira moztuz. Eta orratzarekin eta liztaiarekin josiz, pasta bat jartzen zien aurre eta atzean eta koadernoak osatzen zituen. Denbora librerik ateratzen zuenean idazten zuen eta bere koadernoak erakusten zizkidan, oso txukun zituen! Idazteko erabiltzen zuen mahaia jasoa dugu guk. [**Joxan Ruiz**]

Oso ilustratua izan behar zuen. [**Mikel Ruiz**]

1946ko urtarrilaren 1eko argazkian: Joxan Ruiz (biloba), Angelita Ruiz, Ramon Ruiz (biloba), Josefina Ortiz (alaba), Joxepa Zubeldia Elizegi, Juanita Ortiz (alaba), Maria Ortiz (alaba), Arantxa Ortiz (biloba) eta Martxel Ruiz (biloba)..

Koaderno pila idatzi zituen. Alabak oso lotsatzen ziren bere ama bertsolari zelako eta jendaurrean kantatzen zuelako. Emakume bat gizonezkoen giro horretan ikustea gogorra egiten zitzaien... Eta alabek, ama hil zenean koaderno denak erre zituzten. A zer galera! [**Mikel Ruiz**]

BERTSOTAN

Entzuna dut bertsolari bat (ez dakit ziur zein) kalera joaten zela, bertsoak botatzen zituela eta Joxepak Kale Nagusiko balkoitik erantzuten ziola, bertsotan. [**Mikel Ruiz**]

Ezkiagan, frontoi atzean herri bazkariak egiten zituzten eta berak bertsoak kantatzen zituen. [**Joxan Ruiz**]

Baztangarena gertatu zenean, herri bazkaria egin zen Ezkiaga pasealekuan. Mahai gainera igo eta aulki batean eserita kantatu zituen bertso hauek. Gure amak esaten zuen "zer lotsa guretzat, gure ama mahaira igo zenean jende guztiaren aurrean bertso haiek kantatzera!". [**Mikel Ruiz**]

BERTSO BERRIK ANDRE BATEK JARRIK ERNANIKO BERRIK OSO ARRIGARRIK

Josefa Zubeldiak, 1918an

BERSO BERRIK

ANDRE BATEK JARRIK

ERNANIKO BERRIK;

OSO ARRIGARRIK

Hernaniko Alkate jaunaren deialdi premiatsu baten ondotik, 1918ko apirilaren 1ean, Batzarre Oso bat ospatu zen Udaletxeko Areto Nagusian, bertan zirelarik Benefizentzi eta Osasun Batzordeak eta herritar multzo handi bat. Hona auzia zertan zetzan. Gobernadore Gorenak emaniko agindu bat, hurrengo eguneko 10ak baino lehen, Lasarteko baztangadun gaixoak, batzuek egoera oso larrian, eta bizia galtzeko arrisku gorrian, Hernaniko Benefizentzi Etxera ekar zitezen.

Gogorra izan zen batzarrearen haserrea, herritarren osasuna eta Benefizentzi Etxeko egoiliarrena ere arriskuan ipintzen zelako eta hala berean herriko industriaren interesak, eta horregatik aho batez erabaki horren kontra agertu ziren, Gobernadore jaunarekin Donostian mintzatzeko batzode bat izendatuz.

Lehen agintariaren intransigentzia ikusita, eta uko egin ziolako batzordea hartzeari, protestazko telegramak igortzeari ekin zioten Ministrari Kontseiluko Lehendakari zen Maura jaunari, Gobernuko Ministrari zen Garcia Prieto jaunari, eskualdeko Diputatu zen Marques de Santillana jaunari eta Jauregiko Etxezain Nagusiari, delako erabaki hori atzera zedila eskatuz, bien bitartean irtenbide bat, Hernaniko herriaren interes moral eta materialarekin harmonian bilatzearren, Gobernadorearen jarrera jasanezinezkoa mehatxagarri baitzen herriaren osasunerako.

Gestioak biderapenetan ziren bitartean heldu zen lekualdatzeko ordua, eta herria, orobat elkarturik "ez klase eta ez sexu, inolako diferentziarik gabe", halaxe esaten da ondoko Akta batetan, gaixoei aurpegi ematera irten zitzaien, eta bere esku zituen medio guztiak erabiliz, atzera eragin zieten, ordenu publikoaren urraketarekin. Ekintza hau zela medio, erabakia aurrera eramatea eragotzi zen, eta Hernaniko herria egun horretan, 1918ko apirilaren 2an, doluminez betetzea ere bai, halaxe izango baitzen agintekeria hura azken burura eraman izan bazen.

Hernaniarren defentsarako hartu jarrera gogorraren aurrean, Lasartetik urrundu gabe barrakoi batetan kokatu zituzten baztangadun gaixoak.

Gure herriarentzat hain kezkagarri izan zen gertaera hau Joxepa Zubeldiak, hernaniarra bera, zehaztasunez jaso zuen ondoko 24 bertso hauetan:

[**Begoña Gorospe Pascual,** Hernaniko Urtekaria]

1
Apirillaren biyan
Ernaniko erriya
Lau orduban egon zan
ikaragarriya
karrasi ta diarka
orduko larriya
eskerrak gendubela
batasun aundiya.

2
Gertaerau izan zan
astiartiarekin
aurreko egunian
ezkenduben jakin
emen izandu zala
astelenarekin
Gobernadore jauna
gogor egin nairik.

3
Ikusi nai zubela
bere begiyekin
Ernaniko ospitala
nola zegon jakin
ia ote zegoen
kondiziuakin
erakutsi ziyoten
leyaltasunakin.

4
Laister ontzat eman du
kondiziyo onakin
bialdutzeko zazpi
gaxo bastangakin
baña beste gauz asko
mintzu oyen gatik
etzitun erabaki
emengo jaunekin.

5
Gobernadoriari
gure alkate jaunak
eskeñi omen zizkan
erosotasunak
zaindu ta sentatzeko
an bastangadunak
toki berezi baten
txit ederki danak.

6
Alperrik izan ziran
arrazoi guziyak
etzizkan aintzat artu
Gobernadoriak
askotan oi bezela
beriak obiak
entzun gor egin ziyon
goi agintariak.

7
Gure alkate jaunak
bere lagunekin
Donostira juan ziran
gabeko amaikakin
konpontzen ote ziran
jaun aundi orrekin
trixte bueltatu ziran
goizeko irurakin.

8
Gabez juanagatikan
larritasunakin
etziyen kasorikan
jaun oyeri egin
au egiten dubenak
erriko jaunekin
zer egingo ote du
jende pobriakin?

9
Goizeko zazpiyetan
ostera juan dira
Tolosa juan zayote
Gobernadoria
ayek bialdu zuten
errira partia
"bastanga eta indarra
beriala or dia".

10
Ordubantxe Ernanin
etzan lo jendia
kanpana ta tronkua
dantzatubak dia
tronko aundikin itxi
ziraden bidiak
barrika gurdi eta
asma al guziyak.

11
Bidera atera giñan
emakume asko
ta allegatu baño len
egin degu alto
zibillak esan zigun
etxera biltzeko
baizutela baimena
odola ixurtzeko.

12
Ixurtzen badezute
odola gurekin
ill biarrak zerate
zeon zaldiyekin
guziyok bizkor gaude
gauza gogorrekin
biurtu obe dezute
bastangadunekin.

13
Zibilla pranko baizan
zaldi galantakin
guri desapiyoka
beren ezpatakin
ez giñan ez izutu
oyek guziyekin
danok atera giñan
mirari aundiyakin.

14
Mikela ta Axentxi
pareja fuertia!
Ayek aurren zirala
fiñ giñan jendia
zarrak eta gaztiak
nexkatx ta gaztiak
andre txit aberatzak
baitaere pobriak.

15
Lana egin genduban
kupira aundi gabe
senarrak utzirikan
bazkayrik gabe
ustuta petroleoz
ospitala iyurtzi
aguro erretzeko
kristal danak ausi.

16
Apaizak eta monjak
negar eta ausi
alako tranzerikan
ez zuben ikusi
gure monja gaixuak
belauniko jarri
eta telefonuan
Madrira Maurari.

17
Arren suplikatzeko
Gobernadoriari
nolako tranze estuba
zegoen Ernani
alkatia aurren zala
Ernaniko jaunak
ondo egin zituzten
telefono lanak.

18
Molestatu zituzten
erreguetan danak
Garcia Prieto ta
Santillana danak
Azkeneko tranzian
estu eta larri
suplikatu zioten
koronel jaunari.

19
Arren erregutzeko
Gobernadoriari
ez uzteko galdutzen
orrela Ernani
permisua eskaturik
Montes prestubari
bere telefonuan
Tolosara jarri.

20
Atenditurik ondo
teniente koronelari
eta gañera gure
alkate jaunari
orduban bigundu da
biyotz gogor ori
damuz barkazen zayo
pekatariyari.

21
Urrengo egunian
guziok alkarri
"emen gertatu danak
ametz bat dirudi"
kulpa gabe galtzerik
nonbait ez komeni
graziyak eman danok
Jangoiko jaunari.

22
Nik suplikatzen diyot
alkate jaunari
osekiyo txiki bat
emakumiadi
zortziko eder batekin
zar da gaztiaidi
alegre gerta dedin
egun triste ori.

23
Gizonak erregalo
emakumiaidi
loretxo polipana
zar da gaztiaidi
egun ortan guztiyok
jantzita ibilli
ondo distingitzeko
egun aundiyori.

24
Orra bertso berriyak
andre batek jarri
eztiot esker txarrik
ematen iñori
orduko uniyua
beti da komeni
ala gerta dedilla
biba gu ta Ernani.

ELIO

Garai artan ba omen zan Ereñozu aldean mutil zar bat, Elio esaten ziotena, kaskoan aizea besterik etzuan gizarajo bat. Jaietan tabernara joaten zan; eta, bi trago egin ezkero, derriorrean bertsotan ari bearra izaten zuan. Baiña izan ditezken bertsorik aldrebesenak botatzen zituan. Erakusbide bat emango degu.

Epele-torre'ko Jose Migel Otxotorena, oso bertsolari polita zana eta artzai ibiltzen zana, Pardiola'ra etortzen zan andregaia bisitatzera. Jakin zuan ori Elio orrek eta egun batean bertso au bota zion:

Erromeriya txarrik
eztago munduan,
Oiartzun'dik asita
Epel-errekara;
Epel-errekatikan
Astigarra'raño,
Astigarraga'tikan
Pardiola'raño,
zer arraiotan abil,
sudur aundi ori?

Oi dan bezela, jendeak parre algara aundiak egiten zituan olakoak entzutean, eta txalo asko jotzen zizkion bertso bakoitzari. Orduan Elio ori arrotu egiten zan, eta ixildu gabe aritzen zan bertsotan.

Egun batez, Txirritak eta Eliok tabernaren batean alkarrekin topo egitea gertatu zan.

Txirritarekin kantatzeko egokiera zuala-ta, pozik asi zan bertsotan Elio ori. Txirrita, ordea, aguro aspertu zan noski, eta ixil arazteagatik izugarriak bota zizkion.

Bertso bat onela kantatu zion:

Perrak baditu soñean bañan
mantxua degu birian,
basta polit bat jarri bear zaio
gaur orrixe bizkarrian;
latoi orizko kabestru fiñak
ipiñirik muturrian,
aitona kojo begi-bakar bat
traban duela aurrian,
a zer saltuak maiatza balitz
etxe-buruko larrian!

Baiña Eliok etzion amor ematen; eta, beste askoren artean, bertso au bota zion Txirritari:

Txirrita tripa aundiya
birian korritua,
i're juten baldin baaiz
izango dek lekua.
Zer zirala uste uken
kastillanuen gonak?
Aixa izurratze'izkitek
i bezelako tontuak

Ain zuzen ere, Elio ori Kastilla aldean ibilia zan. Txirritak, orduan, azkeneko puntuak onela zituan bertsoa bota zion:

Orren lengo lagunak
Santa Ageda'n daude,
urte bete baño len
joango dek au're.

[**Gregorio Santa Kruz,** Txirrita liburua]

JUAN JOXE ANDOLA

Txirritaren laguna zen (berarekin hargintzan aritutakoa), baita Paulo Zubiarrainena ere. Eta ia ia auzoak, ze Paulo Epelen jaio zen eta gure aitonak (Juan Joxe Andola) Belauntzan jaioa izan behar zuen baina umetan Zikuñagara etorri zen.

Gure aitonak ez zekien irakurtzen: goiz batean joan omen zen eskolara. 9etan joan, 12etan bueltatu eta kito, ez zen gehiago joan.

Aitonak egiten zuen bat-batean, baina gutxi. Segur aski gaztetan kantatuko zuen, eta Txirritarekin eta seguru arituko zela, baina nik Paulo Txikiaren traza berbera hartzen nion: kontalari ona. Euskara sueltoan aritzen zen, bertsotan erraz, burua argi argia zuen... Igande eguarteetan Txintxua tabernara joaten zen, han baserritarrak biltzen ziren, eta 11etatik 13:30etara arte hantxe egoten ziren, hamaiketakoa eginez aitonaren kontuak entzuten. **[Juanjo Uria]**

ZALETASUNAREN TRANSMISORE

Gu mutil kozkorrak ginela Aterpen ukuilu txiki bat zegoen. Behiak txapelketetara aurkezten zituen, eta beti garbi garbiak egoten ziren. Ukuilu hark ia ia ofizina ematen zuen. Berarengana jaitsi eta aitona bertsotan aritzen zitzaidan: Txirritarenak kantatzen zituen... Niri bertsoa hortik sartu zitzaidan. **[Juanjo Uria]**

Oso bertsozalea, bertso asko zekizkiena, eta mundu horretan piper eta gatza ikaragarri zuena zen, nire aitaren osaba zena, Juan Joxe Andola: zenbat pasadizo, zenbat ipuin, zenbat istorio... Auzoak ginen, eta ni mutil koxkorra nintzela askotan igotzen zen gure osaba hori gure etxera. Ni hura etortzeko amorratzen egoten nintzen, haren txispa eta bizitasuna disfrutatzeko. Bertso zahar asko kantatzen zituen eta Txirritaren gertaerak kontatu. **[Joxe Mari Arrieta]**

TXIRRITAREN LIBURUARI ZUZENKETAK

Antonio Zavalak Txirritaren lehen bertso liburua atera zuenean ni berehala joan nintzen erostera, eta aitonak hango bertso horiek denak bazekizkien. Ni hasten nintzaion liburutik kantari, doinuak berak erakusten zizkidan, eta bukatu eta esaten zidan "ez, hori ez dago ondo". Nola egongo dira gaizki, hau gizon jakintsu batek idatzi du eta! "hori gaizki eskribitua dago, bertso hori ez da horrela", eta berak bere aldaerak edo zuzenketak egiten zizkidan. **[Juanjo Uria]**

TOLOSATIK HERNANI

Behin, igande arratsaldean, etxetik ateratzen ari gara eta aitonak galdetu "zer, nora zoazte?". Futbola ikustera gindoazen eta "aitona, Tolosara goaz, Hernani ikustera" eta aitonak "Tolosara Hernani ikustera? Orkolaga gain horretatik hobeto ikusiko duzue Hernani!". **[Juanjo Uria]**

TXIRRITAREKIN LANEAN

Txirrita ori parrandan askotan. San Martzial batzuetan parranda ikaragarria eginda, urrengo goizean berandu lanera; ordu bete geroago. Joan omen da lanera eta an omen zegoan; trapu zar bat odolez betea Irun'go mataderan artua, eta an omen zegoan kontuak esaten eta lanean asi eziñik.

Andola'k esan omen zion:

– Baiña, Txirrita, asi adi lanean! Nagusia emen da eta asi adi lanean!

– Esaiok miñ artu detela!

– Nola?

– Trapuarekin beatza lotuko det nik, eta ik esaiok miñ artu detela!

Eta odolez beteta zegoan trapuarekin an ari omen zan beatza lotzen eta lotzen; nagusia etorri omen zitzaion eta:

– Zer pasatzen da, Txirrita? Kolperen bat artu?

Eta:

– Bai, aundi xamarra gañera!

– Zer? Arriren batekin?

– Ez, birekin; erdian arrapatu didate-eta!

[**Paulo Zubiarrain**, Txirrita liburua]

"XOXUA"

Juan Joxe Andolari Xoxua esaten zioten. Serio samarra zen. Besoak atzean jarrita ibiltzen zen, oraindik begien bistan daukat. Morrale-tarrak ere baziren herrian (morralea zakutoa da), eta horietako batek burlaz Xoxuari "danba!" eskopeta imintzioak eginez. Eta besteak berriz "bota baldin baduk sar ezak morralean!". [**Inaxio Mari Zubeldia**]

JOXE BLANCO SALVADOR

1905ean Hernanin jaioa -1987an Urnietan hila

Joxe Blancoren familia: Mari Blanco, Joxe Blanco, Migel Blanco, Ina Agirre, Asun Blanco, Meltxora Olano eta Anizeto Blanco. Migel eta Inaren ezkontza egunean (1968-09-21).

Bere bizitzan ez zuen ezagutu ez bere amarik ezta aitarik ere. Ama Salamancakoa ote zen eta Donostiako hotel batean zerbitzari zela neskatan izandako haurra zela uste zen. Bere bi deiturak amarenak ziren. Behin apaizen batek galdetu izan behar zion, ea ama ezagutu nahi ote zuen eta berak erantzun: "Orain arte ez da nitaz asko arduratu eta nik zertarako behar dut hura orain". **[Laxaro Azkune]**

Urnietan bizi izan zen, Setien Moko sagardotegian 1945 urtera arte. Jose Maria Setien gotzainaren aitak jaso omen zuen bere etxean, Joxe Blanco haurra.

Meltxora Olanorekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten. Etxeko maiorazkoa ezkondu zenean etxetik irten beharra izan zuten.

1945 urtean etorri zen Azpeitira eta 68 urterekin erretiroa hartu zuenean, 1973 urtean, berriro Urnietara joan zen bizitzera eta han bizi izan zen 1987an hil zen arte.

LANDETA ETA AITZAKI

Azpeitian bere bi sartetxe nagusiak, Lizaso bertsolariaren Landeta taberna eta Jesus Arakistainen Aitzaki taberna izan ziren. Batean ez bazegoen bestean izango zen, bertso giroan ongi pasatzen zuen. Hizketan ere erantzuna sarri errimatuz emateko ohitura zuen. [**Laxaro Azkune**]

Behin Lizasoren Landeta tabernan Blancok Manuel Olaizola "Uztapideri" kantatu izan behar zion "ama bazuela baina aitarik ez" eta Manuelek kantatutako bi bertso gogoan ditu Sebastian Lizasok:

Lehen ez nekien gauza bat orain
jakin berri det suertez,
erantzuera badet zuretzat
entzun arte egon zaitez.
Zuk diozunez ama badezu
eta aitarikan batez,
Jesus bezela jaio al zinan
Espirituan bitartez?

Udaberrian jaiotzen dira
gibelurdin eta susak,
ta hoiek dira nundik datozen
inork ez dakien gauzak.
Aurrera ere jarraitzen badu
orain dagoen jentuzak,
gehiago ere izango dira
holako niño-jesusak.

[**Laxaro Azkune**]

"Blankoren amaika pasadizo eta ateraldi eder bada, baiña bat kontatuko dizut. Bein batean, gure atariko postera igo eta or ari zan: "*A ver, mesa; aquí alto de Mandubia*" egiñez, Telefonicako bere nagusiei oska. Tokitan dago Mandubiko gaiña, Landetatik. Baiña etzeukaten orain bezelako kontrolik, itxura danez". [**Joxe Lizaso**]

Joxe Arakistain Aitzaki tabernakoak ere kontatzen omen zuen beste pasadizo bat:
Telefonicatik deitu omen zioten behin Aitzakinean zegoela eta hala erantzun omen zien: "*aquí, cortando ramas*". [**Laxaro Azkune**]

TABERNA-BERTSOLARIA

Joxe Agirrek 1950ean egin zuen jendaurreko bere aurreneko saioa: taberna batean, Arronan, Joxe Lizaso lagun zuela. "Azpeitian bazen José Blanco izeneko urnietar bat telefonista bezala lan egiten zuena. Arronaneko afari batera joango zela hitz emana zion Joxe Lizasori baina azken orduan ezinezkoa zitzaiola eta niri deitu zidaten". Halaxe hasi zen Agirreren karrera.
[**Enekoitz Esnaola**, Uztarria, 2003ko urtarrila]

Noiz edo noiz plazan ere kantatua zen. Dena den etxekoek diotenez ez zen plazan aritu zale, taberna-bertsolaria zela diote. [**Laxaro Azkune**]

GERRA GARAIAN

1936ko gerrara ez zen joan, Telefonicako langile zelako. Inoiz baino beharrezkoago izango ziren telefono hariak gerran, eta langintza horretan aritu zen orduan ere. Gerra garaian Batzoki batean behin kantuan aritu zelako zigortu eta bota egin zuten Telefonicako langintzatik. Hala ere, beste lagunen baten bidez lortu omen zuen nola edo hala berriro onar zezaten.

Bergarako erasoaldian larri ibili izango zen, etxe bateko eskailera azpian, egundo errezatutako aitagurerik benetakoena errezatu zuela esaten zuen berak, Intxortako bonbardaketa betean hantxe egokitu baitzen nonbait.

[**Laxaro Azkune**]

Hernaniko bertsolarien zubi izan zen Paulo Txikia. Txirritarekin hasi eta 90eko hamarkadako bertsolariekin kantatua. Argazkia: Argia.

ZUBIARRAINDARRAK
PAULO ZUBIARRAIN OTXOTORENA "HERNANI TXIKIA"

1912an jaioa, Ereñozuko Telleria baserrian
2002an Hernanin hila

ETXEAK

Gure jaiotetxea, Telleria baserria, orain botea dago. Epele'n zegoen, Floricloro fabrika baiño pixka-pixka bat lentxeago, Ernani'tik Ereñotzu'ra goazela. Erreka txiki bat baserriaren azpiko aldean, ta gero Urumea ibaia.
Sei anai ta bi arreba, zortzi senide izan giñan.
[**Paulo Zubiarrain**, la kantatuz bezela]

Epelen bizitu zen ezkondu arte. Geroztik, Manoli emaztearekin bizi izandu da Villa Manolitan eta Lasarten, eta azken hamar urteotan Zaharren Egoitzan, Sandiusterrin.
[**Hernaniko Kronika**, 2002ko apirilaren 5ean]

HASIERA

Etxean bertso asko zan: bertso-paperak-eta. Orregatik, bertso berriak kantatzen ziran gurean, geok asmatuta, ta lengo zarrak ere bai. [**Paulo Zubiarrain**, la kantatuz bezela]

Etxean denak aritzen ginen bertsotan, anai guziak. Aitona ere, Joxe Migel Otxotorena, bertsolaria genuen, eta bere anaia itsua ere bai.
Lehenengo plaza San Antoniotan egin nuen, Hernaniko Ereñozu auzoan bertan, 17 urterekin. Jose Oiarbide lagunak eta biok, Txirrita eta Saibururekin kantatu genuen.
Baina lehendik Txirritari bertsoa bota nion, bai. Hiru Bidieta tabernan bertsotan aritzen zen Txirrita, eta han ari zen orduan Prantzesa esaten zioten batekin, oso ona zen Prantzesa bertsolari hura.
14 urte izango nituen, eta lehengusua eta biak eskaileretatik gora igo, eta, han ari ginen "bota bihar ziou", ta "bota bihar ziou". Eskaileretatik bota nion bertsoa eta alde korrika! "Nongoa zen ume hura?" galdetu omen zuen Txirritak. Handik berehalaxe hasi nintzen Txirritarekin, gure aitonaren laguna baitzen. [**Paulo Ttikia**, ARGIA 1831 zenbaki, 2001ko azaroaren 25a]

Gero, badakizu, tabernara edo sagardotegira joaten ere asi giñan, ta ari egiten giñan bertsotan-da an. Ernani'n bazan orduan, Joxe Goiarro esaten zioten guarda bat. Ta arek nunbait ere gu bertsotan aditu ta onela esan zidan:
– Ola ta ola bertsotara joan bear dezute, Ereñotzu'ko festetan.
Joxe Oiarbide zan bestea; Joxe Ttanttua esaten diotena. Ori ere pixka bat aritzen zan, ba. Ura ta biak izan giñan. Txirrita ta Saiburu ekartzen zituzten orduan, ta aiekin kantatu genduen. Ori izan zan nere lendabiziko asiera plazetan. Neronek ez nekien zenbat urte nituen orduan, ta gero orrek esan zidan, Joxe Oiarbide'k:
– Nik onenbeste urte nizkin, ta diferentzi au diagu, ta ik amazazpi bear ituken izan. [**Paulo Zubiarrain**, la kantatuz bezela]

BERE BURUAREKIN BERTSOTAN

Orduan hizketan baino bertsotan gustorago aritzen nintzen. Aisa etortzen bertsoa eta, neronek bai saio ikaragarriak, neure buruarekin! Bat bota, eta neronek botatakoari neronek erantzun; eta denboretan gainera, ordubete eta gehiago!

Anaia defuntuarekin ere bai. Aitak mendian janariak egitera, ebakitzera bidali eta, sega bizkarrean hartuta joanda, sagarraren ipurdian jartzen ginen. Aitak esaten zigun "joango nauk hemendik ordu erdi batera-edo, karroarekin bila!". Gu sagarraren azpian, bi anaiak bertsotan. Gero larri, janariak egiteko! [**Paulo Txikia**, Argia 1831 zenbakia. 2001ko azaroaren 25a]

BERTSO IBILERAK

Erruz ibilli nintzan bolara batean. Txirritarekin ere bai. Nerekin ondo itzegin ta ondo aritzen zan, gazteari lagunduz. Gero, ordea, gerra etorri zan. Ederki aztu ziran orduan bertsoak. Aztu bearko. [**Paulo Txikia**, Txirrita liburua]

Ernani'n, San Juanetako fiesta batzutan, Paulo Txikia zapaterua bazen or bertsolaria, ta ura, Saiburu ta Txirrita, irurak atera ziran plazara. Paulo zapatero orrek Txirritari bota zion bertsoa, arentzako aña lan ia ez al zen emen, urrutira joan gabe; Frantzian barrena ibillia zen ba ura, Txirrita, argintzan. Eta Txirritak:

Aldian lanik ez nualako
juan nitzan urrutieta,
amaika bider nere bizkarrin
ibillia naiz maleta;
oraiñ etxian alperrik dauzkat
mallua eta paleta,
gusto badezu emango'izkizut
ni ez naiz aien zale-ta.
[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

(Gerra) Bukatu zanean, berriz ere asi giñan. Mitxelena'rekin ibilli nintzan asko. Zepai'rekin ere bai. Txapelekin ere bai, Zaldibi'n da. Uztapiderekin, berriz, zer esanik ez. Basarrirekin ere bai zenbait lekutan. Baiña ez orain bezela ibillita: artu kotxea ta aide. Olako erreztasunik etzegoen orduan. [**Paulo Zubiarrain**, la kantatuz bezela]

Gaur bezala ez zegoen beste herrietara joateko konbinaziorik.

Gehiegi aritzen ginen gu. Uztapidek esan zidan: "Tontoak galantak izandu gaituk, motel. 30 duro kobratu beharrean 100 duro kobratu bagenitu, berdin berdin herriarentzako eta guretzako mesede ederra!". Ez etortzen burura orduan, ordea! Zugarramurdin behin 40 duro kobratu genituen, urruti zegoela-eta. Bizikletan joaten ginen haraino.

Balkoitik kantatzen genuen. Behin Mitxelena eta biak hitzik egiten ez genuela geratu eta etxera etorri ginen. 7 egunetan 9 herritan izandu ginen. Beste bi herritarako enkargua hartuak geunden. Baina, gastatu zen eztarria eta, bestela ere txarra-eta, orduan bat ere ez! Hitzik ezin egin! Hartu bizikleta Arizkunen iluntzean, eta benga, bizikletan triki-traka. Goizeko ordu bietan-edo Irunera ailegatu ginen. Artean tabernak irekiak zeuden. Sartu tabernan, zerbeza puska bat edan, diru kontuak egin eta etxera. Uztapideri kontatu genion batean, esan zigun: "Ni hamabi

MANUEL ZUBIARRAIN

Gure anai difuntu arek oso ondo egiten zuen bertsotan. Arrazoi zorrotzak eta bai ederrak. Manuel zuen izena.

Orain il da Julian Barrenetxea, Ernani'koa bera. Orrek, gau batean, oietik sumatu zuen, goizeko ordubietan:

– Zein dek or bertsotan ari dan ori?

Jeiki oietik eta leiotik aren bertsoak aditzera. Portu, Ernani'ko barrio txiki bat da, eta ango festak ziran. Ta gure anai ori parrandan, gaztea zan baiña. Julian Barrenetxea orrek ere esan izan zidan:

– Zure anaiak Karabel'en kantatzen zuena ere, kaletik, gure etxetik, aditzen genduen. Arek zuen eztarria, arek!

Biok aritzen giñan bertsotan. Aitak janariak egitera bialdu mendira, ta jarri biok sagar baten azpian. Ni ordurako pixka bat asia plazetan Txirritarrekin -da, ta malizia geixeago. Baiña arek etorri izugarria zuen. Biok, jo ta fuego, igual ordubeteko saioa.

Oso mutil ederra zan nere anai ori. Altua ta zabala. Bikaiña mutilla. (...) Gerra etorri zanean, gaixotu egin zan. Eraman da operatu zuten. Ta geiago ondo jarri ez. Esteetan tumor bat-edo omen zeukan. (...)Eraman zuten etxera ta an il zan.

[**Paulo Zubiarrain,**
la kantatuz bezela]

egunean hamabost herritan izandu nauk. Etxera joan ninduan hanka tartean isatsa sartuta joaten den zakurra baino umilago!" [**Paulo Txikia**, Argia 1831 zenbakia. 2001ko azaroaren 25a]

Beste batean, Beruete'n izan giñan Zepai ta biak. Iru egun pasa genituen bertsotan. Kontuak egin genituenean, etxera etorri bear, ba, noizbait ere; ta orduan, etzegoen gaur bezelako konbenientzirik. Joateko ere gaizki ta etortzeko ere bai. Beruete'tik Lekunberri'ra oiñez etorri bear genduen. [**Paulo Zubiarrain**, Ia kantatuz bezela]

Naparroa'n asko ibilli nintzan ni. Arizkun'a bastante urtetan joan nintzan. Larralde pelotaria an ezagutu nuen. Zugarramurdi'ra ere bai. Geiena ni an ibilli nintzan. Gustora joaten ginan Naparroa'ra. Bertsolarientzat toki ona da ura. Orduan beintzat ala zan. [**Paulo Zubiarrain**, Ia kantatuz bezela]

Ni larri ibiltzen nintzen bozarekin. Urrutira joaten zen nire boza, baina mehea nuen. Leku itxian oso ondo kantatzen nuen. [**Paulo Txikia**, Argia 1831 zenbakia. 2001ko azaroaren 25a]

Ereñozun tabernan ere kantatzen zuen Paulok Txirritarekin. [**Antonio Zubiarrain**]

EGINDAKO PLAZAK

Zein herritara joan zen bertso lanetan, zerrenda bat egina du Paulok:

- Oiartzun (4 bider)
- Irun (2)
- Hondarribia (3)
- Donostia (Igeldo, Gros, Alde Zaharra, Antiguo, Fronton Moderno, Astoria, Loiola, Martutene, Astigarraga, Ergobia, Intxaurrondo) (1)
- Urnieta (1)
- Errenteria (3)
- Tolosa (2)
- Usurbil (3)
- Andoain (2)
- Villabona (2)
- Alkiza (1)
- Amasa (1)
- Sorabilla (1)
- Belauntza (2)
- Amezketa (1)
- Zaldibia (1)
- Legazpia (1)
- Aztiria (1)
- Urkizu (2)
- Beasain (1)
- Lezo (3)
- Aia (2)
- Zestoa (1)
- Beizama (3)
- Nuarbe (4)
- Azkoitia (2)
- Elgoibar (4)
- Ondarru (3)
- Lekeitio (1)
- Marin (Eskoriatza) (1)
- Berriz (1)
- Zugarramurdi (1)
- Arizkun (4)
- Amaiur (1)
- Legasa (1)
- Lekarotz (1)
- Doneztebe (1)
- Etxalar (1)
- Zubieta (3)
- Donamaria (2)
- Ezkurra (2)
- Lesaka (2)
- Arano (4)
- Goizueta (2)
- Lekunberri (7)
- Beruete (1)
- Leitza (2)
- Baraibar (3)
- Betelu (2)
- Alkoz (Baztan) (1)

1945eko Txapelketa, Tolosan. Ezkerretik bigarrena Saiburu, Paulo Zubiarrain, Basarri, Uztapide, Ondartza eta Zepai.
Argazkia: Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak.

TXAPELKETAK

Milla ta bederatzireun da berrogei ta bostean izan zan Tolosan bertsolarien txapelketa bat. An giñan gu ere. San Migel biaramona zan, Agorraren ogei ta amarra. (...)

Zazpi bertsolari giñan: Zepai, Asteasuko Batista Kortajarena, Saiburu edo Lujanbio, Mitxelena, Pablo Zubiarrain Ernani-Txikia, Basarri eta ni, Uztapide. (...)

Alako batean jaikitzen da don Benantzio Errekalde, ta lenbiziko saria Basarrirentzat zala ta bigarrena Uztapiderentzat; irugarrena Mitxelena, eta laugarrena Pablo Zubiarrain, Ernani-Txikia". [**Uztapide**, Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak]

Batean Txapelketa Bergaran jokatu, eta Mitxelena aurrena, eta bigarren Paulo Txikiarekin enpate Altxo. Gero finala jokatu behar zuten, eta Mitxelenak irabazi eta bigarren Paulo, eta gure Altxo bosgarren geratu omen zen. Seigarren Zepai eta zazpigarren Txapel izan ziren. [**Florian Oiarbide**]

BERTSO IDATZIAK

Ia orain denbora gutxi arte kantatu det plazetan. Orain amar bat urte edo ola geratu. Baiña bertsorik ez det orain arte paperean jarri. Ezta bein ere burura etorri. Ez nuen jarriko ere nik bertsorik sekulan. Baiña orain bi-iru urte, txerria iltzera etzi joan bear dedan anai orrek, Joxe Mari, Lexotiren koñadua, Epeleko Bordaberri'n bizi danak, onela esan zidan:

– Ez al dek bein ere bertso-aldi bat edo zerbait jarri bear, señalea uzteko bertsolaria izan aizela? Jar itzik, motell; besterik ez bada, Adarra mendiko bordari. Ta uraxe buruan artu ta artantxetik asi. Bestela, nik ez nuen bertsorik jarriko. Orain, berriz, orixe ari naiz pentsatzen: zapateriko traste zar oiek danak saldu, badaukat erostuna gaiñera. Ta, urte asko ez baidauzkat nik mundu ontan bizitzeko, irurogei ta amalaugarren urtean banoa-ta, ortan bakarrik ariko nintzake: bertso jartzen.

Mendi zoko batean dago gure beste anai baten etxea: Labezarreta. An bakar bakarrik jarri, goizean jeiki ta antxe, beste gauzik buruan ez daukatala. [**Paulo Zubiarrain**, Ia kantatuz bezela]

Gure Paulo artzain ibilia zen, Adarra mendin. Adarrako iturritik, Iturri goxotik haruntzaxeago zegoen borda zahar-zahar bat: Agerre. Huraxe zen Epeleko gure aitonaren borda. Bertso ederrak badauzka bordari jarriak gure mutilak:

Borda xar honek ematen zigun
nahiko esnia eta zezina
orain besterik ez dago hemen
pinua eta zikina
borda gaixuak bueltan daduka
uhuntza, larra ta osina
aitona laxte hilko zinake
berriz pixtuko bazina.

[**Antonio Zubiarrain**]

Bi liburu argitaratuak ditut: "Ia kantatuz bezela" (Auspoa, 190) eta "Gaziak eta gozoak" (Auspoa, 194). Eta beste liburu bat ateratzeko adina ere badut idatzia. Nik buruan beti bertsoa ibiltzen dut bueltaka. Bertsoari diodan maitasunagatik. Eskopeta, ehizeko txakurra eta bertsoa. Hiru horiek nire-nireak ditut. [**Paulo Txikia**, Argia 1831 zenbakia. 2001ko azaroaren 25a]

2001ean egindako elkarrizketaren ostean Hernaniko bertso eskolako kideekin.

OMENALDIAK

Paulori bi omenaldi egin zizkioten, bat Euskal Herri mailan, Loidisaletxerekin batera. Hango bertsoak:

Eskertu nahi zaituztet
ahal nezaken gisan
guretzako gaiztoak
ez zerate izan
erregutuko diot
jaunari elizan
entzule maite hauek
zintzo gorde ditzan
norbere etxean ta
geroko bizitzan.

Eta beste omenaldia Elur Txori elkartean egin zioten, 1987an.

[**Juanjo Uria**]

GERRAKO BIZIPENAK

Paulok izugarri sufritu zuen gerran. Teruelen ikasi zuen galtzerdi egiten. "Hamar fusilatu behar dira!", zozketa egin eta jarri hiru-lau ormaren kontra, eta "horiek fusilatu behar dituzue!". "Kaben dio, nik ez dut inor hil nahi"! pentsatzen duzu, baina ez baduzu bestea hiltzen zerorri hilko zaituzte! Paulori aditu izan nion fusilatzera derrigortu zuten batek fusila jira egin zuela eta ra! bere buruari tiro jo. [**Antonio Zubiarrain**]

NERE BURUARI

1
Gaztea izan nintzan
baiñan orain zartu,
ondu egin bearrean
jenioa txartu.
Burua zuritu ta
gerria gogortu,
ez det aspaldi ontan
asko aurreratu.

2
Zartzea da sendatu
ez liteken miña,
orrek txikitutzen du
gizonik aundiña.
Orain naiko txuleta
badaukagu baiña,
alare ez naiz leno
aza janda aiña.

3
Txori-kabien billa,
saltoka jostatzen,
orduan ez giñaden
askorik nekatzen.
Garai artan ez gendun
orrela pentsatzen,
ara uste gabean
nola dan etortzen.

4
Ez giñan nekatutzen
igotzen mendira,
errez joaten giñan
nai gendun tokira.
Salto egin da igual
aidean bi jira,
orain ementxe nago
besteai begira.

5
Len ibiltzen giñanak
salto eta dantza,
uste gabe asi naiz
egiten balantza.
Ondo ibilitzeko
au da esperantza,
eserita jartzean
ezin gaituk altza.

6
Etzanda jartzen banaiz
gero nork mugitu?
Belarritikan ere
ezin det aditu.
Bista're bajatu ta
ajeak berritu,
demoniño gaiztoak
arrapatu gaitu.

7
Gabez igual parranda
ta egunez lanean,
asko nekatu gabe
sasoia zanean.
Beti ibiltzen giñan
umore onean,
eziña etorri da
zartu geranean.

8
Guk ere len ez gendun
sasoiaren palta,
orain leno bezela
ezin degu salta.
Desgastea ta reuma,
kojua galanta,
arpegia zimurra,
au degu au planta!

9
Lagunikan onena
andrea orduan,
naiz beti ez ibilli
beraren onduan.
Aren esanak zintzo
egin baginduan,
geren buruarentzat
obeko genduan.

[**Paulo Txikia,** Gaziak eta gozoak, Auspoa 194]

HARITZ BATEN BIZITZA

1
Ni arbol bat naiz sortu nintzana
mendian arkaitz onduan,
ezkur-ale bat nunbait bizirik
an gelditu zan neguan.
Udaberria etorri zan da
aretxek piztu ninduan,
pixkabanaka azi nedien
gero urteen buruan.

2
Ezkur artatik muskil txiki bat
azaldu nintzan aurrena,
lurrean zaiña itsatsi eta
gora jo nuen urrena.
Gorputza gero adar da ostoz
tapatu zitzaidan dena,
ta izan nintzan mendi artako
arbolikan ederrena.

3
Urte askoren buruan baiña
ni azitzen egunero,
bitarte artan pasea nintzan
amaika otz eta bero.
Jela, elurra ta aize miña
eta eguzkia gero,
zer izaten dan badaki batek
aurrez probatu ezkero.

4
Nere garaian ni ere asi
nintzan ezkurra ematen,
usoak eta ango piztiak
maitasuna bazidaten.
Zenbat basurde aundi ta txiki
an allegatu zan jaten?
Nere frutuak pizti aientzat
etziran txarrak izaten.

5
Amaika txori politen kantak
pozez entzuna nago ta
txantxangorria egunsentian
an asiko zan txioka.
Ark bazekien arbol-zuloan
nola egoten zan ontza,
arentzat biak berdiñak ziran
beroa bezela otza.

6
Ez dakit zenbat urte dituten
baiñan bai zarra naizela,
ni ez ninduen aizeak orren
errez botako bestela.
Obe luteke an banengoke
zutik lenago bezela,
seguru nago ango piztiak
pena izango dutela.

7
Nere frutua jaten zenduten
ainbeste uso ta txerrik,
pena bat daukat: zuek goseak
utzi bearra bakarrik.
Nere adarrak igartu ziran,
ez det emango ezkurrik,
emen ez baita iñor betiko
etorritako pizkorrik.

8
Arbol azpian ainbeste pizti,
nik goitik ezkurra bota,
jan zezatela nai zuten aiña
ortarakoxe nago-ta.
Muxarra ere nere gaiñean
an ibiltzen zan saltoka,
sapelaitzak'e ni izan nindun
lo egiten zuen kota.

9
Ni arrapatu ninduen gero
ezkurrik eman eziñak,
gorputza untzak tapatu zidan
ta igartu zaizkit zaiñak.
Txepetxak ere nere gerrian
amaika kabi egiñak,
piztiak izan ziraden nere
maitalerikan aundiñak.

10
Zer gauza piska geran lur ontan
ez naiz oroitu izandu
-au aize arek len botatako
arbola zarrak esan du-.
Sortu nintzaden da gero azi,
igartu eta usteldu,
emen gizonik jakintsuenak
ere ala egiten du.

[**Paulo Txikia,** Gaziak eta gozoak, Auspoa 194]

ZUBIARRAINDARRAK
ANTONIO ZUBIARRAIN

ETXEKO GIROA

Gure afizioa aitonarengandik (Joxe Miel Otxotorena) eta amonarengandik (Joakina Etxeberria), bietatik jaso dugu. Aitonaren etxean ere denak ziren bertsolariak! Ibiltzen ez zirenak, baina denak bertsolariak. Txirritak bere bertsoan aipatzen duena gure aitona zen: "Joxe Mielek atera digu oso hizketa leuna".

Aitak gutxixeago egiten zuen bertsotan, baina poliki egiten zuen. Beasaingo Muñagorri baserrikoa zen, orain CAF fabrika dagoen horretan. Enpresak baserria erosi zuenean Epeleko Telleriara etorri zen. Gure amak bertso asko zekizkien, batez ere foruen gainekoak.

Gu zortzi senide ginen, sei anai eta bi arreba. Gehientsuenok egiten genuen bertsotan, arreba gazteenak ere ederki egiten zuen! Bazkalondoan eta afalondoan jarduten ginen bertsotan; gehiena arto zuritzen! Eta ukuiluko lanak egiten ari ginenean ere bai, batek simaurra atera bitartean bertsoa bota eta besteak beste aldetik erantzun... Anaietan plazan gehiena ibili zena, Paulo. Baina gu ere atera ginen.

TOLAREA

Gure etxean tolarea zen. Nola baserri handia zen (ehun gurdikoa!), han bospasei baserriren artean egin zuten tolarea, gero denek sagardoa egiteko. Batean ari ziren sagarra txikitzen (eskuz eragin behar makinari!), bestea simaurra ateratzen ukuiluan, eta bertsoa bota, eta "mekaguen sos, egon hadi pixka bat!" arnasestuka, makina geratu eta arnas hartzen bertsoa botatzeko!

IKUSI NUEN LEHEN PLAZA

Nik lehenbizi ikusi nituenak Ereñozun bertsotan, Txirrita, Saiburu, Errenteriako Telleri-Txiki eta gure anaia Paulo. Horietan ondoena Txirrita ibiltzen zen. Nik 9-10en bat urte izango nituen. Aitak eraman ninduen eskutikan hartuta. Paulo eraman behar zuen Txirritak plazara eta aitak semea ikusi egin nahi ba, eta nik ere mutil koxkorra anaia ikusi nahi...

POLIPASOREN ESKOLA

Fagollagako presa baino pixka-pixka bat aurreraxeago genuen eskola. Hilabetean behin edo horrela joaten ginen. Eskola hartan Polipaso aizkolaria eta elkarrekin ibiltzen ginen. Polipaso txikitan ere handia zen! Gogorra ere bai. Maistra Epele-Etxeberriko alaba zen. Kredoa bidali zigun Migel eta bioi, eta jakin ez. Erdia lardaskatu nuen eta Polipasok batere ez! Kastigatuta jarri gintuen egurra ekartzen, estufari botatzeko. Hura basoan egur txikitzen eta ni egur kargatzen, egun guztia horrela pasa genuen. Eta nik gero beti hala esaten nion: "Hi, Miel! Hik aizkorako afizioa ba al dakik non hartu huen? Ereñozuko eskolan!".



Migel Irazusta Goikoetxea, Polipaso, 1965ean Donostiako Trinitate plazan egindako erakustaldian. Argazkia: Arturo. Iturria: Auñamendi Entziklopedia.

PLAZAK

Ni Xoxokaraino ere joana naiz bertsotan: Pedro Joxe Mujika "Anatx" izango nuen lagun.

Ereñozuko festetan aritua naiz bertsotan, mutil kozkorretan: Joxe Manuel Ugalde, Nikolas Santakruz, Arriurdinetako Bixente Gorrotxategi eta ni atera ginen. Ba al dakizu zeinek abisu eman zidan? Oialumeko guarda Jabier Barrenetxeak: "Ereñozun kantatu behar duzue!". "Kantatu?" "Bai! (aita inguruan nuen eta esan zion). "Atrebituko al dira?". Guk San Antonio bezperan kantatu genuen. Eta gero San Antoniotan bertsolari onak ekarri zituzten: Uztapide, Zepai, Saiburu... Nik hamaseiren bat urte izango nituen.

Oiartzungo Altzibarren festak zirela, eta bertsotara propio joan ginen: Ugalde eta ni Hernanitik, eta handik Ostolaiz Mariano "Kattua" eta Lexoti. Zuberoa jatetxea baserria zen lehenago, eta hor. "Tozte Oiartzuna!" esan, eta baita gu joan ere!

Ni bertsotan aritu izan nintzen, baina ez plazetan: Zepairekin, Uztapiderekin, Saibururekin frankotan, Lasarterekin ere bai... Auzokoen artean gehiena ibili zena Paulo zen. Besteok ez genuen hemendik horra joateko korajerik ere! Lau lagun jartzen baziren begira, dar-dar-dar hasten ginen!

Gero utzi egin nuen, Nafarroara alde egin nuen eta. Osaba batekin urte mordoxka egin nituen han. Han berriz jota kantatzen ikasi genuen! Euskaldunik ez zen eta! Denak abizen euskaldunak eta euskararik ez zekiten! Gero etorri eta ostera lehengo martxan, bertso kantari.

LANA

Gerratik Paulo etorri zenean zapatari hasi zen, eta laguna behar zuela eta ni ninduen maitea, eta harekin hasi nintzen. 16 urte izango nituen. Eta jakina da zer gertatzen den: batetik lan egin behar galanki, familia atera egin behar aurrera, eta bertsotan aritzeko komeriak izaten dira. Beno, bertsotarako afizioa badu eta berezkoa badu, tartea beti hartuko du!

1943an, Gure Izarra elkartearen gainean "Centro Republicano" zegoen. Franco sartu zenean errepublikanoek alde egin zuten eta itxita geratu zen. Baimenak eta paperak atera eta bertan guk ireki genuen zapateria. Anaia askotan kanpoan ibiltzen zen, bertsotan, eta niri uzten zidan lana!

Zapatagintzan ere industriak iraultza handia ekarri zuen. Lehen denak neurrira egiten zirenean bazen negozioa, baina gero zaildu egin zen. Paulok esan zidan jubilatu egin behar zuela. Nik pentsatu nuen lantoki bat bilatzea. Amaran gas fabrika zen eta horko zuzendariak hanka bat zuen motzagoa bestea baino, eta takoi bat jarri behar izaten zitzaion. Guk jartzen genion urtetan, eta esan nion anaia jubilatzera zihoala eta ni toki bila ari nintzela... "nik emango dizut lantokia gasean! postu ona gainera!". Eta ona eman zidan, e! Horrela tratua egin genuen: nik hari bizi zen artean zapata takoia neurrira jartzekoa! Azken urteak han egin nituen.

BERTSO JARRIAK

Nik bertso franko jarri ditut. Basarrik Berasategiren bodegara eramaten ninduen. Koadrila biltzen ginen: Matxain tokalaria eta abar, eta Basarrik Voz de Españan nire hiru sorta edo atera zituen. Orain ez dut batere bertsorik jartzen. Azkeneko, urrezko ezteiak egin genituenean.

EKOLOGIA

Sail honegatik, gas fabrikako gure nagusiak (Don Manuel Subijana koronela, Villabonako Subijana papelerako nagusia ere bazena. Euskalduna, karlista amorratua) lanpostu hobean jarri ninduen. A ze postu ona, laborategi ondoan, buzo txuria jantzita.

1
Barrengo minak utzi ezinda
jartzera nua bertsuak
inork ikasi nahi baldin baitu
hortxen dijuaz batzuak.
Gure jainkoak eman zaizkigu
oso mendi opatsuak
zuhaitz lerdenak, zelai zabalak
ibaietan arraitxuak
orain begira jarrita berriz
ikusten dira antzuak.

2
Garai batian euskal mendian
ziraden enbor buruak
falta zaizkigu lizar ta intxaur,
gaztain, haritz ta paguak
mendiak soilak otez betiak
ikusten dira leguak
begiratuta ematen digu
negar iteko goguak
hola etziran garai bateko
guraso zaharren fueruak.

3
Ondatu dira itsas ixkinak,
ondatu ditu ibaiak,
falta zaizkigu orain angulak
izokik eta amorraiak
garai batian gure uretan
aukeran ziran arraiak
gure ondorengo gaztientzat
ez datoz egun alaiak
okerrak zuzen nahi baditugu
iritsi dira garaiak.

4
Egun batian goguan daukat
aitona zaharrak ta biak
basora joanda onto beltzekin
bete ginuzen saskiak
pago usuak ezkurrak janez
pilaka izugarriak
adarretatik guri begira
zabiltzan katagorriak
zorro ertzetik korrika nola
aldegin zigun erbiak.

5
Galdu ditugu baso galantak
ehizaren paradisuak
nun dira erbiak eta usuak
birigarro ta zozuak
hoiengana're iristen dira
ehiztarien erasuak
bistan agertu baino lehenago
hango perdigonazuak
sasi tartetik irten ezinik
hor dabiltzade gaixuak.

6
Zenbat pinudi ondatu ditu
hemen suak eta garrak
izan'e indar hartzen baitute
otiak eta txilarrak
ondorenian leku askotan
etortzen dira negarrak
irabazteko partez galduta
berriro jarri beharrak
gauz hoiek nola izaten diran
badaki baserritarrak.

7
Ibaiak eta mendiak daude
oraintxe errukarriak
gauza bat dago beharrezkoa
urak jartzeko garbiak
mendi maldetan gero aldatu
zuhaitz landare berriak
agintariak hartu ezkero
behar bezela neurriak
mundu guztian ispilu izan
behar luke Euskal Herriak.



Urdaburu.
Iturria: www.flickr.com. Argazkia: Montxo.

PERRETXIKOTAN

Hau neroni pasea da, 1981eko urrian. Atera naiz kristoren eguraldiarekin goizean oinez, Urdaburun barrena buelta ematera, perretxikotan. Ez zegoen perretxikorik, zipitzik ere. Baina mendian ibiltzeko gogoa! Sartu zait galerna, haizea eta tximista eta trumoia... eta ni mahuka-hutsik! nora joanik ez, eta nik pasa nituen egun hartan! Azkenean jarri larru-bizik, galtzontziloak bihurritu, galtzak ere bai, eta pagoan zintzilik jarri nituen. Eta Pikoaga-Etxeberriko artzainak harrapatu ninduen! "Joño, Telleri, zer egiten duzu hemen?". Etxera natorrela, bidean bertsoak jarri nituen, nire amorrazioarekin.

1
Larogeita bateko
agorraren bia
mendi egal batean
nere komeria
trumoi eta tximista
haizia ta euria
non gorde jakin ez ta
ito nindun ia.

2
Bostak eta erditan
ohetikan jaitsi
zazpirak alderako
mendira iritsi
bost orduan bueltaka
eta ezin etsi
nekatu galanki ta
perretxiko gutxi.

3
Perretxiko biltzaile
faltarikan etzan
neroni ere joan nintzan
zerbaiten zalantzan
andria goxatuko
nuen esperantzan
erosi beharko dizkit
Donostiko Bretxan.

4
Mendira juateko
badeu korajia
orporaino jaitsi zait
goizeko kafia
baita sendatu ere
atzoko ajia
mozkorra pasatzeko
a ze parajia!

5
Egun hartan uretik
bagendun aukera
euri zapar galantak
lepotikan behera
hor ibiliak gaude
tximuaren era
bakailuak bezela
beratuak gera.

6
Horra pasadizuak
garbi esan kantuz
ni lehenago pasia
bainaiz eskarmentuz
aterki edo zerbait
hartu pulamentuz
halare Urdaburun
trumoiakin kontuz!

ORBEGOZO AURREKO HERNANI

Iturria: guregipuzkoa.net

Nik ezagutu dut 5.000-6.000 biztanleko Hernani. Herritarrok denok ezagutzen genuen elkar. Andre kalea eta kale Nagusia ziren. Eta inguruan, Atsegindegiko etxe handi hura. Oraingo Caserio taberna hori, "Orpoxikinenea", Arrozpidetarrena. Aurrera joanda orain Dori kafetegia den horretan, lehen kale horretan bi etxe zeuden. Gora aldera beste bi edo hiru etxe. Kito, hor ez zegoen ezer gehiago. Estazio aldera papelerak. Inguruan villa bat edo beste (gu Villetako auzoan bizi ginen, Gure Borda villaren aurrean). Latxunben etxe handi bat zen, beste ezer ez. Guria kafetegia dagoen horretan (Urbieta kalean), eskola profesionala zegoen lehenago. Eta eskola profesionala baino lehenago, zinea zegoen. Haren aurrez aurre Pepe Adarragaren tolarea eta azpiko aldean pastelak egiten zituen tokia. Aurreraxeago joanda Setien obispoaren etxea, gero eskola publikoak eta akabo, hor ez zen etxerik ez ezer. [**Inaxio Mari Zubeldia**]

Ni mutil koxkorra nintzala, Urumea inguru ortan, ia danak bertsotan aritzen ziran, tabernara joan ezkero. Afizio izugarria zan. Orduan barrio alaia zan gurea. Gabean, goiz aldera arte, sagardotegian kantari.

Garai artan asko tabernan bertsolari; baiña plazetarako bertakorik etzan. Txirrita, Saiburu, Prantzes-Txikia ta oiek etortzen ziran. [**Paulo Zubiarrain**, la kantatuz bezela]

Ba al dakizue ze arau izaten ziren? Ereñozura joan, eta mahaian jarri eta botilardoa atera. Porroi handia hartu, botilatik hara ardoa bota eta gainetik limonada. Denei bertso bana bota arazten genien, eta bota nahi ez zuenak hura pagatu behar izaten zuen! "Baina nik ez zaukat ideiarik!" "Igual dik, bota ezak gaizki edo ondo!" Eta zenbat eta okerrago bota orduan eta barre gehiago egiten genuen! [**Antonio Zubiarrain**]

Azurmendiren tabernan juntatzen ginen eta bertso ederrak kantatzen zituen Eltzekondok. Boza motz motza, lodi lodia zuen baina... [**Antonio Zubiarrain**]

SAIOAK

(Ereñozuko festetan) Goizean kantatu eta bazkaria izaten zen Hirubidietan, eta bazkaltzean berriz bertsoak. Txirritak 5 duro ez dakit kobratzen zuen, eta gureak (Paulo Txikiak) eta batere ez! [**Antonio Zubiarrain**]

San Juanetatik urrengo ostegunean Ernanin izaten giñan. Urte askotan izan naiz an ere.

Lenbiziko urtean gerra asi baño len izan giñan: Txapel da Zepai; irugarrena ez dakit zein izango zan: Mandiolatza edo Saiburu, bitan bat izango zan; da bestea ni. Lau bertsolari giñala badakit.

Gu orduantxe giñan, ba, bertsolari berriak, eta orduan estimazio izugarria izaten genduan. Aurreko San Sebastian bezperan Donostin izan giñan txapelketan, eta jendeak orduan ezagutuak, ni beintzat; eta andik urrengo San Juanetara bost illabete daude danak ere, eta orduantxe gu Ernanin. Ori lenbiziko urtea zan. Gerra ondorenean ere urtero joaten giñan, Zepairekin eta Basarrirekin, Pablo zapateroa ta Mitxelenarekin, eta gero atzenean Lasarte eta Arozamenarekin eta Azpillagarekin, oiek danakin kantatu izan det nik Ernaniko plazan. Makiña bat modutako bertsoak kantatuko giñuzen, Ernaniko plazak izketan baleki.

Beti plaza batean ez genduan kantatu ere egiten, baña lenbizi, luzaro, ganadu-peria egiten zan leku artan; orain ez dago peria egiteko moduan baña. Gero, berriz, tiloetako plazan urte askoan. An kantatzen genduala, ganaduen premioak ere izaten ziran. Gero, Txantxillako kanpoan ere bai. An egiten genduanean, beste pestaren batzuek zeudelako izango zan. Garziarena ta Ernaniko uztargillea ere antxe ikusi giñuzen aizkoran, bentaja emanda. Ez dakit zenbat bentaja izango zan, baña uztargilleak irabazi zuala bai beintzat.

Sokatirak ere bai, oiartzuarrak an erriko bertakoen kontra. Pultsoan ere bai, zeñek kilo geiago jaso. Orrelaxe, Txantxillako kanpoan ikusi ditugu oiek danak eta geiago. Ni akordatzen ez naizenak, zenbat izango ote dira?

Ernanin, bertsoak entzuteko zaletasun aundia dute bertako jendeak; baña kanpoko jendea asko nastu da orain an ere, eta lengo konturik ez da izango. Garai bateko ango aitonak ikusiko baluteke, orain ibiltzen geran bezela, bertsoak kantatzeko bildurrak, ez dakit zer esango luteken.

Ernanin kantatu ez duan bertsolaririk ez da izango asko. Zinean ere izaten ziran noiznai bertso-saioak, eta zortzi bat bertsolari izaten ziran orduan ere. Batean batzuek eta bestean besteak, beti ganbiatuan izaten ziran. Ernanin badute orretan gustoa, bertsolari danak ikustekoa.

Euskerak naikoa larri ibilli bear du Ernanin ere. Kanpoko jendea geiago jarri da errikoa baño. Oiek ez dute ikasiko euskeraz, eta guk ikasi bearko degu oien izkuntza. Guk ez degu onezkero ikasiko, baña bein erderaz ondo ikasten duanak, euskerari utzi egiten dio; ez litzake ala bear baña. Ala ere, bat ikasitakoan besteari aztutzen uztea ere, zerbait da. Bat ikasi baño lenago besteari utzitakoak ere badira; gure moduan astakeriak esanez-eta derrior erderaz egin bear. Orrela geldi-tzen dira gero euskaldunen umeak euskeraz ikasi gabe, gurasoak etxean erderaz egiten dutelako, euskeraz askoz obeto egingo lutekela ere.

[**Manuel Uztapide**, Lengo egunak gogoan]

URUMEA NERE BALLARA

1
Gaur ere poza ematen dida
Urumea'ren izenak,
txoko oi ondo maitatzen degu
bertan jaio giñadenak.
Ni ere ortxe pasea bainaiz
ordurikan goxoenak,
zutik munduan nabillen arte
aztuko etzaizkitenak.

2
Ni mutikoa nintzan garaiko
gauzak daukazkit goguan,
barrio ortan urte batzuek
onak pasatu nituan.
Gaur ez daukagun pake santua
genduelako orduan,
zu bezelako parajerikan
ez da neretzat munduan.

3
Emaztearen naia zalako
orain bizi naiz Lasarte'n,
baiña neretzat obeko nuen
ez banu emendik erten.
Egun batzuek pasa ezkero
biotza asten zait esaten:
Zoaz aruntza, maite dezula
anaiak jakin dezaten.

4
Udaberriko goiz alaietan
eguzkiak berotzean,
kukuen kantak basoan eta
kukuka ibai-ertzean.
Sortu nintzaden txoko ortara
joaten naizen bakoitzean,
bestetan ezin detan gauza bat
sentitzen det biotzean.

5
Urumea da ibaia eta
bi aldetatik mendia,
kristauarentzat zail da aztutzen
bera jaio zan kabia.
Zu izan zera nere zerua,
zuri zor dizut bizia,
ez daukat penik barrio ortan
jaioa eta azia.

6
Dana lantokiz bete zaituzte,
–batzuentzako zer poza!–,
gero pillaka etorri zedin
kanpoko jende arrotza.
Lenago danak euskeraz eta
gaur berriz erdera utsa,
orretxengatik dago mindua
erri zar onen biotza.

7
Mundu ontatik joanak ditut
lagunik maitatuenak,
egunak joan da etorri arren
aztu ezin litezkenak,
aiekin pasa bainituen nik
urterikan ederrenak,
bate neroni oroitu gabe
iges egin didatenak.

8
Oraindik ere gogoan dauzkat
orduko egun goxoak,
Urumea'ko mendietan guk
ematen giñun pausoak:
Epele-errekan ollagorrak il,
Azketa'n berriz usoak,
jaio zirala beste errurik
etzuten txori gaixoak.

9
Orain ainbeste azkartasun da
orain ainbeste talentu,
alare danak asarre gabiltz,
iñor ez gaude kontentu.
Kukuak dira mututu eta
eizak mendian gastatu,
beldur dirade munduak laister
bear duela bukatu.

[**Paulo Zubiarrain,** Ia kantatuz bezela, Auspoa 190]

PORTUKO BERTSOLARIAK

Jesus! Makina bat saio eginak gara hor, (Portu auzoko Shangai tabernan)! Elizara baino horra txintxoago joaten ginen. Uztapide, Zepai, Txapel... ere etorri izan ziren. On horiek bakarrik ez, orduan baserrietan bertsolari koskor asko zen, tabernan bilduta bertsotan egiten zuena. [**Paulo Txikia**, Argia 1831 zenbakia, 2001ko azaroaren 25a]

FERNANDO ITURRALDE 'ANDOAIN"

Beste bertsolari bat bazen oso polita, "Fernando Andoain" deitzen genion, Portun bizi zen. Gizaseme bikaina zen, kolore gorriak izaten zituen. Lehengo bertso zaharrak asko zekizkiena, Portuko festetan bertso kantuan nabarmentzen zena. [**Inaxio Mari Zubeldia**]

Uztapide askotan joaten zen Xoxokara. Bakarrik edo bestela Fernando "Andoain"ekin. Behin gure aita joan zen entzutera, eta berak ekarri zuen Fernando "Andoain" etxera. Bidean esan omen zion: "bertsotan ederki egiten duzu, Fernando! Sekula ez zintudan hain ondo aditu!". "Baita berriz ere, Uztapideren ondoan! Bidea jartzen baitu!". [**Inaxio Mari Zubeldia**]

Hark bai egiten zuen bertsotan! Uztapiderekin ikusia daukat, ederki egiten. Boza airean jartzen zuen. [**Pedro Joxe Mujika "Anatx"**]

GRAXIANO ZUBELDIA

Graxiano Zubeldia, Portukoa, Txirritarekin aritzen zen bertsotan. Tobera jotzen aritzen ziren bi anai, Portuko eta Oialumeko Goiarrotarrak. [**Juanjo Uria**]

Portuko ballarako Graxiano bat, eta Makala, ta Maldaburu, eta Eltzekondo ta aiek, egun guzian egongo zitezkean bertsoak aditzen. Eta bertso zarrak ere bai, bazekizkiten aiek egun baten kantatuko etzuten ainbat. Gizon galantak ziran, baña abots ederrarekin kantatu ere egingo zituzten aiek.

Graxiano zanarena badakit bat, bertsoa alegia. Elgoibarren zegoan klinikan, beiak bota ta belaunean min artu ta Arrillaga'ren klinikara eramanda. San Isidro aurre ori zan.

Joan giñan, ba, eta an zegoan gure Graxiano ori. Ia zer moduz ta ondo zegoala, baña lenago ederrak ikusi zituala, eta, ala, arek sei bertso etzituan ortik onerakoak kantatu; baña neri bat ez besteak aztu egin zaizkit, eta au, bisitatzera joan zanean, semeari kantatua:

Naiko janaia badaukak eta
ez akela egiñ olerik;
bei eru arek egiten al dik
len bezelako boterik?
Nik etzedukat etxe onetatik
puska batean joaterik;
etxeko lanak eiñ itzik zintzo,
bestela ez daukak doterik.

Orrelakoxe aitonak ziran aiek; beti umore onean.

[**Manuel Uztapide,** Lengo egunak gogoan]

Behin Ereñozun gaiak jarri nituen. Bukatutakoan Xalbadorrek ekarri gintuen kotxez Hernanira Uztapide eta biok. Halako batean Uztapide Portura begira jarri zen. Eta esan zuen: "Ño, hamaika egun gozo pasatako parajea horixe!". "Bai, e?" esan nion. "Bai, Egañarenean izaten nintzen. Graxianoren etxean!"; "Mekasuen! Lehengusua genuen hori! Graxiano Zubeldia". Egaña etxe hori Portun zen. Zubia pasa, hartu segituan eskuinera eta azkeneko etxea zen, erreka bazterrean. Uztapide askotan egona zen etxe horretan. [**Inaxio Mari Zubeldia**]

Grazianok (Pedro Mari) Otaño ere ezagutu zuen. Baita bertan ikusi ere, Ernani'ko Karabel'go tabernan gure aitonarekin. Eta Grazianori aditu nion, bein Amerika'tik etorrita nola aritu ziran bertan. Orain dana ez naiz gogoratzen. Baiñan Otaño'k, saioa eginda, azkeneko bertsoa onela kantatu omen zuen:

Errera'ko ondoan
antxe dago Pasai,
aurrak eta emaztea
an daduzkat nik zai,
beste egun batian
kantako deu lasai.

Ori kantatuta partitu omen zan.

[**Paulo Zubiarrain,** Gaziak eta gozoak]

Bazuen terreno bat Akarregi aldean, eta Portutik etortzen zen, astoarekin eta karroarekin janari bila. Joatearakoan gure tailerraren parean pasatzen zen eta bueltakoan, Karabelgo tabernan geratzen zen zerbait hartzen, eta astoa bakar bakarrik pasatzen zen janariarekin gure tailerraren aurretik. Igual geratuko zen bertsotan tabernan! eta astoak bidea jakin.
[Antton Garin]

JERONIMO MAKALA

Batean, kalean berandu bai omen zebillen, da ura orduan ere umore onean kantuan. Lo egiteko ere etzan izango garai txarra, eta serenoak txistu jo omen zion. Bestea irrintzika asi omen zan orduan, da serenoak txalo jo. Makalen aldera abitu omen zan, eta, bada ezpada ere, etxera joan omen zan Makala. Serenoak, urruti izan arren, ezagutu, eta urrengo egunean topo egin du serenoak Makalarekin. Ia zer formalidade zan esan omen zion, bartarratsekoa alegia.

– Zer ba? Nik zer egin nuan, ba?

– Kantuan ordu aietan! Nere txaloak eta txistuak ez al zinduzen aditu?

– Bai, ba! Ondo ari nintzalako jotzen zenduala txalo pentsatu nuan nik, eta orduan da aundiagoak egiten nituan ujuak! Atzenean irrintzika ere jarri ninduzun! Serenoa ez omen zan oso gustora ere geratu, baña atzenean ere barkatu egin omen zion beintzat. [**Manuel Uztapide**, Lengo egunak gogoan]

1
Lengoan egon nintzan
Portu'ra begira,
gaztetan ibillitzen
giñaden tokira,
galdetuaz: «Orduko
aitonak nun dira?»
Joan ziran emendikan
oso urrutira.

2
Graziano zarra ta
Joan Jose Andola
goratuko nituzke
banekike nola.
Iduritzen zait beren
ondoan nagola,
ezin baititut aztu
nik aiek iñola.

3
Bat izaten zan beti
kuadrillako buru,
an alkartuko ziran
lau aiton inguru.
Aiekin alkartzean
bertsoak seguru,
Makala aterea
makiña bat orru.

4
Jerolimo Makala
zalarik burua,
ura zan pakea ta
ura zan zerua.
Gaur ere artu leike
alako girua,
bañan mudatu zaigu
ederki mundua.

5
Maldaburu ere etzan
izan lagun txarra,
gaur badago alako
batzuen bearra.
Bertsoa ta txistea,
broma eta parra,
ura zan Euskadi'ko
lengo lege zarra.

6
la etxero bazan
sagardotegia,
bakallo errea ta
etxeko ogia.
Berriz noiz ezagutu
ain mundu garbia?
Parra egiten ere
aztu zaigu ia.

7
Ernani'ko Portua'n
Sanghai'ko taberna,
ta nagusia Jose
izena zuena.
Antxen bilduko ziran
aiton jende dena,
erriak eman zuen
jenderik onena.

8
Arratsaldea pasa
nola edo ala,
etzuten osatutzen
laukote makala.
Nik uste det zeruan
sartuko zirala,
ta an ere kantari
ariko dirala.

[**Paulo Zubiarrain,** Gaziak eta gozoak]

SAN JOAN ERRONDA

San Joan errondan ateratzen ziren Txirrita, Jose Antonio Goñi "Mandaburu" eta Graxiano Zubeldia. Mandaburu bertsozale amorratua zen, soinua jotzen zuen eta ondoren Txirritak bertsoa bota. Ez dakit Mandaburuk edo Graxianok, silla eramaten zuen. Txirrita baldartu baitzen ba! Sillan eseri eta botatzen omen zuen Txirritak bertsoa. Gure Graxiano honek makila handi bat eramaten omen zuen eta makila kopetari eutsiz jarrita egoten omen zen Txirritak bertsoa bota bitartean! Graxianok ez zuen errondan kantatzen. [**Inaxio Mari Zubeldia**]

Beste tokietan Santa Ageda bezperan bezela, Ernani aldean San Juan bezperan ibiltzen dira etxez-etxe kantari eta eskean. Txirrita, berriz, koplaria izaten zan. Bikario eta alkatearen etxeetatik asten omen ziran; gero kontzejalak, beste apaizak, medikua, beterinarioa...

Danen berri ondo zekien bat Txirritaren ondoan joaten zan, bakoitzari zer esan bear zitzaion salatuz. Guk bildu eta emen jarri ditugunak, ez dira danak urte berean boteak izango; baiña ondo aditzera emango dute urtero gau artan nola ibiltzen ziran kopla eta bertsotan.

Zaragueta'renean, urte batean duro bat eman zieten. Urrengoan, berriz, bi pezta. Eta, irugarrenean, Txirritak onela kantatu zuen:

Aurten bi urte durua zan da
joan dan urtean bi pezta,
deskuidatutzen ez baldin banaiz
aurten xentimorik ezta.

Adarraga'renean gizon lodi bat bizi omen zan; eta, balkoira azaldu zalako, kopla au bota zion Txirritak:

Gure bertsoak aitzeagatik
etorri al da berori?
Balkoia xinple egon bear du ta
kontu beraño erori.

Gaberdian, serenoak ixiltzeko esatean:

Kapa-petikan atera digu
urka añako ezpata,
errespetua jarri nai luke
iru arrua ez da-ta.

Urte batean, irurogei ta zazpi urteko gizon bat, ogei ta bi urteko neska batekin ezkondu zan. Neska ori, Enporru esaten ziotenaren alaba zan. Kopla au bota zion gizonari:

Zuk egindako tratuarekin
arritzen dago erriya:
traje zarrari erantsi diye
aurten enporru berriya.

Ernani'ko apaiz bati:

Aurten berorren sermoiarekin
konbertitu da jendia,
astoa ostuta bizi ziranak
entregatuak badia.

Koplatzen ari zirala, neskatxa bat leiatillatik begira zegoan. Txirritak somatu eta au bota zion:

Ez du uste baña nik ikusten det
nola dagoan txut-txutik
kamis utsikan, guri begira,
leiatillaren txulutik.

-Ez, ba! Ez nago kamisa utsik! -esan omen zuen neskatxak asarretuta.

Ona emen mutil aietako batek, Ernani'ko Egañaene'ko Fernando Iturralde'k, kuadrillan Txirritarekin zebillela, gogoan artu eta esan zizkigunak:

Biaramonean meza berria eman bear zuan eta aita ta amaren erdian balkoian zegoan Don Pedro apaizari:

Aita ta ama kristau ondraduk,
semia sazerdotia,
goguak emate'it berarengana
konfesatzera juatia.

Gerora beida egon betandik
astera nua bertatik:
ollo aundi bat ostu izan det
Astigarra'ko bentatik.

Atxukarro apaiza zanari:

Apellidua Atxukarro du,
Don Jerbasio izena,
amaika anima purgatoiotik
ateratako gizona.

Meza-emale azkarra eta
konfesorea jatorra,
goatze'al zaizu noiz saldu nizun
zazpi urteko zekorra?

Uste eztan kasua pranko
arkitutzen da guretzat,
arakiñentzat eztaukat bañan
oraiñ e badet zuretzat.

Kamiñero-kabo izandutako batek duroa eman zien; orduan Txirritak:

Duro eder bat bialdu digu
zimelduba ta onduba,
kamiñero zebillen arte
norbaiti muntan kenduba.

Adarraga'enean sagardoa ta txokolatea saltzen baitzuten, onela kantatu zuan:

Negun sagardo ederra badu,
udaran txokolatia,
oiek badute jendia gober-
natzeko borondatia.

Goiz jeiki eta pasatze'ituzte
mendiak eta basuak,
urrutitik ekartzen dituzte
meriendatzeko usuak.

Beste toki batean, kopla bota eta bota ari zan, baiña limosnarekin etzan iñor ageri; geiago kanta arazi nai zioten nunbait. Ori ikusirik, Txirritak:

Edozein gauza sortutzen dute
kristau eskandalosuak,
eskian gabiltzala igual
esango dute batzuak.

Orduan neskamea azaldu zan diruarekin, eta Txirritak:

Nik bi andregai izandu ditut
panplonesa ta bilbaña,
emandakua artu iten det
eskian ez nabil baña.

Amerikano bati:

Okela suelto izan ezkero
etzait gustatzen arrayik,
zure etxera etorriko naiz
falta badezu morroyik.

Neri gustatutzen zaitena da
beatzik arte oyian,
bañan amabik ingururako
an izango naiz mayian.

Beste indiano bati:

Agidanian ikusiya da
Amerika'ko kortia,
ango urriak pillan dauzka ta
nik e nai nuke partia.

Amerika'tik diru askokin
gizon ederra etorri,
nik ere laister juan biar det
danak ezpaituzu ekarri.

Indiano onen koñata jostuna zan, eta galtzak josteko kantatu zion aurretik, eta gero:

Ze estatura-modua dedan
bialduko'izut tarjeta,
oso aundiyak biarko ditut
baldar-baldarra naiz eta.

Etxe bateko alaba, neskazarra bera, Madriden neskame egoten zan, baiña San Juanak, erriko festak, pasatzera etorria zan, eta ari:

Madrill aldetik ze ideatan
etorri zerade, Rita?
Ernani'n ondo saia zaitia,
soltero dago Txirrita!

Ernani'n bizi zan Goierriko mutilzar bati kantatua:

Etxe onetan izan biar du
goiarriarra morroia,
mutilzartuta egiña dauka
anka-zañetan erdoia.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

Orain il zan Txirrita ta San Juan eskea ere bai.

[**Manuel Uztapide,** Lengo egunak gogoan, Auspoa]

BERTSO PAPERAK

BERTSOLARIYA

15 XENTIMO

MUNDU ONTAKO BIZI MODUA

ASTE ONTAN TXIRRITAK JARRIYAK

Laister asi zan jendea (Txirritari) bertsoak jartzeko enkarguak ematen ere. Nundik edo andik, usterik gutxiena zuenean etortzen zitzaion andregaiarekin asarretutako nobioren bat, edo mutillak utzitako neskatxaren bat bere anaia edo aitarekin; eta an kontatzen zizkaten beren naigabeak, eta zenbait kontu xelebre ere bai. Berak nola ez baitzekien eskribitzen, illobari deitzen zion. Onek apuntean artzen zituen nola batek itz eman da gero ukatu egin zion; besteak berriz ia ezkontzeko garaia etorri eta nola beste andregaia egin zuen; besteak, berriz, zergatik ez dakiela, despeira eman ziola, eta abar eta abar.

Ainbeste gauza, gertaera eta kontu esaten zioten, arek danak aditu eta illobak apuntatu egiten zituen. Egun bat izendatzen zuen; geienean zortzi-aldi bat edo aste beteko denbora artzen zuen, aiek esandako pasadizo aiek bertsotan jartzeko. Aueri ere amar duro kobratzen zioten, eta aietatik bat illobari eman eskribitzeagatik. Duro oiei idi-begia esaten zioten. Orregatik bein baño geiagotan, orrelako enkargu bat etortzean, esaten zuen:

– Orain ere badegu, bada, idi-begia!

Enkargua artzen zuenean, bereala asiko zan bertsoak pentsatzen eta sumatzen. Kaso edo motibo bakoitzari bi edo iru bertso jarriko zizkion, ta gogoan eduki ere bai illobak apuntatu arte; gero beste bi edo iru. Ta orrela osatzen zituen amabi, amalau edo amasei bertso. Gero, esan bezela enkargatu zituena billa etortzean, danak banaka-banaka letu, ezer baldin bazegoen ondo etzegoenik, zuzendu, eta eramaten zituen. Izaten ziran batzuek inprentatzea ere Txirritaren kontu uzten zutenak, onela berak ezertan ere endreatu gabe. Etziran danak neska-mutillen kontuak izaten, baizik gazte kuadrilla bat asarretu zalako, deskalabroren bat pasa zalako, edo gertaera arrigarri bat pasa zalako ere etortzen ziran; bañan geienak emakumeren bat edo beste izaten zuten tartean. Askok etzuten nai izaten zeñek jarri zituen iñork jakitea. Orregatik bein baño geiagotan gertatu izan zan, batek bertsoak jarri ta zein bertsolarik jarri zituen jakin ez iñork; eta bertsoak jarrierazi zituenari ordañak edo bueltak jartzeko bestea ere Txirritarengana etortzea.

Ta bein batean onoko kaso polit au gertatu zan. Etorri zan mutil gazte bat bere lagun –orduan kontrario– batzueri bertsoak jartzeko. Orduan ere bazuten neskatxa bat edo beste tartean. Bañan etzuen nai iñork jakitea, eta orregatik inprentatu ere Txirritak egin erazi zituan. Esandako garaian etorri zan billa, esanaz beste egun batean etorriko zala danak pagatzera; ta ala eraman zituen, bañan pagatzera etzan azaldu. Bertso aiek kalean zabalduak izan ziran gauaz, ta ori dala-ta sesio eta burruka asko izan ziran.

Esan degun bezela, Txirrita an gelditu zan bertsoak jartzea kobratu ez, bañan illobari idi-begia eman eta inprenta pagatuta; eta etzegoen lasai. Etzekien nungoa zan, eta izena nola zuen bertsoak jarri erazi zizkionak; bañan bai zeñi jarri zizkan, jarri eraztera etorri zanak, naiz bere izenik ez esan, bestearena esan baitzuen. Txirrita asi zan onen billa, eta bereala jakin zuen erri artan bertsoak zeñi jarri zizkioten. Abisatu dio etortzeko, ta baita etorri ere gazte kuadrilla bat; ta nola baitzekiten gutxi gora-bera zer gertatzen zan, berak errezeloa zuten lagun askoren erretratoak ekarri zituzten, ia an ote zan bertsoak jarri erazi zituena. Baita aguro ezagutu ere illobak. Orduan agindu zioten jartzeko berari, eta artan gelditu zan. Andik oso egun gutxira, emen dator lendabizi bertsoak jarri erazi eta pagatu etzituen ura, jakindu baitzuen zer pasatzen zan; eta esan zion:

– Nik nere bertsoak pagatuko dizkizut, eta beste oienak ere bai, ez jartzeagatik. Orrela, lanik egin gabe irabaziko dezu.

– Ez! –esan zion Txirritak–. Nik jarriko nizkiola agindu nion, eta emandako itza bete egingo det, beste askok baño obeto.

Len jarri erazi zizkionak pagatu zituen eta joan zan. Ta orduan Txirritak esan zuen:

– Orrek bai merezi lukela ez jartzeagatik dirua artu eta ala ere jartzea!

Bañan etzion kobratu, eta besteak, esan bezela, jarri egin zizkan.

Etziran danak enkargatuak izaten. Bere buruz ere askotan jartzen zituen; esate baterako, gerrate bati, gertaera aundi bati, deskalabro bati, gizon ospetsu bati, eta abar eta abar. Denbora asko xamar pasatzen bazan iñondik bertsotarako deirik edo jartzeko enkargurik gabe, ala esaten zuen:

– Gure Jainkoak ez ote ditu neska-mutillen batzuek asarretuko, nundik edo andik idi-begi batzuek irabazteko?

[**Jose Ramon Erauskin**, Txirritaren illoba. Txirritaren liburua]

JUAN JOSE MAKAZAGAREN MOLDIZTEGIA

Garai artan bazan Errenteri'n Makazaga izeneko inprenta bat; moldiztegi bat, lengo bertso-paper zaarretan ageri dan bezela esateko. Bertako nagusia, Juan Jose Makazaga Mendiburu zeritzan. Altza'n jaioa zan, 1887an, eta Errenteria'n il zan, 1963an.

Moldiztegi ontan bertso-paper asko eta asko argitaratzen zan: batzuk berri-berriak, jartzaillearen enkarguz; eta beste batzuk lengo zaarrak, Xenpelarrenak eta abar, bertso-saltzailleak ala eskatuta. Azkenerako, Makazaga jauna bera ere guztiz bertso-zaletu zan. Eta arrezkeroztik bera bere kontu bertsoak argitaratzen asi zan; eta bertso-paperak ez-ezik, liburutxo batzuk ere bai. Ona emen Makazaga'k argitaratutako bertso-liburutxoen zerrenda:

Euskal Erriko Kanta Zarrak, iru liburutxo.

Xenpelar Bertsolaria, Luis Jauregi apaiz jaunaren itzaurrearekin.

Bilintxen Bertsoak.

Txirrita'ren Testamentua, 1930.

Baiña Makazaga jaunaren lanik aundiena, Bertsolariya aldizkaria izan zan. 1931-IX-20'an asi zan, eta 1932-IX-25'ean bukatu. Guzira, 54 zenbaki argitaratu zituan. Astero-astero ateratzen zan. Geienetan, zortzi orri-alde izaten zituan. Orri-alde oiek bertso zaarrez eta berriz betetzen ziran. Bazan antxe aukera: Xenpelar, Bilintx, Otaño, Altzo'ko Imaz, Alkain, Fermin Imaz, Txirrita, Saiburu, Lexo, Zapirain anaiak, Zabaleta anaiak, Urrutia, Erauskin, eta abar eta abar.

Zerbait geiago jakin nairik, Txirritaren illoba Jose Ramon Erauskin'i galde egin genion. Itz-lerro auek idatzi eta bialdu zizkigun:

Egun batean etorri zitzaion Makazaga jauna Txirritari eta esan zion:

– *Bertsolariya* izena duan orritxo bat atera bear degu astero-astero, eta orretarako zuk bertso batzuek jarri bear dituzu.

– Ez al da jendea aspertuko beti nere bertsoak aditzen? –esan zion Txirritak.

– Ez dira zureak bakarrik izango; beste laguntzalle batzuek ere billatuko ditugu: Saiburu, Telleri-Txiki, Zabaleta, eta beste batzuek ere bai. Nik astean zortzi duro emango dizkizut, eta zuk astero amar edo amabi bertso jarri itzazu. Eta, iñoiz edo bein, len jarritako edo kantatutako batzuek ere jarriko ditugu. Orrela egin zuten tratua, eta zortzi duro oietatik bat bere illobari, orain au eskribitzen ari dan oni berari, ematen zion, bertso aiek apuntatzeagatik. [**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

BERTSOLARIYA ASTEKARIA

Bertsolariya asteroko onen asmoa da bertsorik ederrenak bildu, eta liburu bikaiñ bat egitea (3.500) zar eta berri urte betean izango ditu gutxienez, lau orrialdi, aurreneko biyak bertso berriyak, eta beste bi bertso zarrak asko aztuta txokoan dauden Xabaletegi, Pernando, Udarregi, Xorrola, Ardotx, Xenpelar, Larraburu, Lertxundi, Pello Errota, Txillas, Lexoti, Bordondo, Bilintx, Anton Ixkiña, Otaño, Mendiage, eta beste geyagorenak.

Txirritak itza eman digu, astero orri bat osoa beteko dubela bere bertso berriyakiñ eta gañera ondoren, Lexoti, Sailburu, Telleri Txiki, Lopetegi, Urreta, Enbeita, Rejino, Gaztelu, Juan Jose Lexo Errazkin, Zabaleta anayak, eta beste gañerako gogoa duten guziyak, zarrak eta gaztiak izango dute lekua nai badute idatzi, eta bigaldu (Imprenta de Macazaga Calle Viteri, 32 Rentería).

Azkenik urteko arpidea edo pagatu bearra (7 pezeta) izango da eta asteroko ontan sartzen diranai emango zaye bakoitzai txukun gordetzeko liburu gañeko azal eder bana.

Asteroko onek (15 xentimo) saritu bearko da eta urtian 5 bider aterako da 8 orrikua bakoitza 25 xentimotan.

Bertsolariya onek agurtzen diyo danori.

(Txirritaren erretratua dakar portadan)

[**Bertsolariya**, 1. zenbakia, 1931ko Agorrilla'ren 20'an]

Igandero ateratzen zan iru orriko bertso-paper bat, "Bertsolariya" zeritzana, dana bertso zar eta berriakin beteta, bere preziyoa amabost zentimo zuana. Nere kutizi guztia bertso-paper ayek erostea izaten zan, bei-kontu nebillen garayean kantatzeko edo ikasteko. [**Sebastian Salaberria**, Neronek tirako nizkin]

KALEAN SALGAI

Hernaniko perian makina bat bertso saltzen zen, Atzietan. Mendaro horretatik bizitzen zen. Begi bat itsua zuen eta beste begi aurrean kristala jarrita aritzen zen kantatzen, boza oso ona zuen. Paperak erosten genituen eta handik ikasi. Ierolako itsua ere aritzen zen paper saltzen. Ez dakit Otxotorena ez ote zen bera ere. Hernanikoa zen. Bertso paperak erreala kostatzen ziren. [**Antonio Zubiarrain**]

Mutil koxkorra nintzala, nere lana beyak larrean zaitzea izaten zan, eta geyenean poltxikuan izaten nuan bertso-paper zar edo berriren bat, eta antxen jarduten nintzan kantari, udaberrian txoriak baño alayago; eta bertso on xamarrak edo nere gustokoak baldin baziran, azkar ikasten nituan memoriz.
Garai artan ni igandeetan Errenteri-ra joaten nintzan meza entzutera, eta, mezetatik ateratzen giñanerako, eleiz aurrean an egoten zan gizon bat bertso-paperak saltzen. [**Sebastian Salaberria**, Neronek tirako nizkin]

Oso txikitan, batzuetan Urnietara joaten ginen eta bestetan Hernanira, amarekin esneak eramanez bere astoarekin. Mezatik ateratzerakoan hantxe egoten zen saltzailea bere paperekin. Ez dakit hamar xentimo edo zer balio zuten. Kantari gehienetan aritzen zen Mendaro, luparekin. Txirritarenak baino gehiago, Xenpelarrenak saltzen zituen. "Xenpelarrek jarria" jartzen zuen eta inprenta Makazaga Errenteriakoa. Sailean sailean hartzen nituen lehen gogoan, orain jada ez.
[**Pedro Joxe Mujika "Anatx"**]

Gure amonak, aitaren amak, igandetako mezetan saltzen zituzten bertso paper haiek memoriaz ikasita zeuzkan zazpi urte zituenetik. Eta laurogeitaka urterekin oraindik gogoratzen zituen. Eta Markesaren alabaren bertsoak denak zekizkien.
[**Maialen Lujanbio**]

Gure amonak (Maria Antonia Rekaldek), umetan ardi zaintzen egoten zenean bertso paperak ikasten omen zituen buruz. Kontatzen zigun nola peritik ekartzen zituzten, eta buruan zituen sailak kantatzen zizkigun. [**Itziar Eizagirre**]

Lehendabizi, Lexotiren gogoan, bi xentimo kostatzen omen zen bertso papera. Urrena, Txirrita ta hoiek amar xentimora altxa omen zuten. Gero, pezeta batera igo zen prezioa.

Lexotik, berriz, duro batera jaso. Bera izan omen zen, duro batean bertso papera lehendabizi saldu zuena.

Lexotik, berak bertsoak jarri, berak kantatu, ta berak saldu papera. Marka polita izan zen hau.

[**Iñaki Arbelaitz Gelbentzu, Miren Mitxelena Belauntzaran, Joxe Anjel Arbelaitz Irastortza, Mariano Ostolaiz, Antonio Zavala.** Lexoti bertsolaria, Auspoa 157]

APELLIDUA OLAZABAL DET

Bertso auetan ez da egillearen izenik ageri, baiña Txirritarenak dirala, bere illobak esanda jakin degu. Beste zenbait argibide ere eman digu. Neskatxa bat aur egiña omen zan, eta Irun'go mutil baten kulpa egin nai zuten. Bertsoak onela diote:

besteren batek oker egin da
neri nai ziran erantsi.

Orduan mutilla Txirritagana joan zan, eta bertso auek jarri arazi zizkion. Bertsoak inprentatu ziran, eta Txirrita bera izan zan saltzaillea, jai goiz batean paper-mordoa besapean artu eta Irun'go kale kantoi batean kantari asita. Alako batez, errriko erretorea azaldu zan, eta onela galdetu zion:

– Zer ari aiz?

Eta Txirritak:

–Emen bertso saltzen, pagatu egin didate ta...

Eta erretoreak:

– Nik erosiko dizkiat danak!

Ala, danak erosi zituan, baiña Txirritak ostera inprenta arazi zituan, eta urrengo jai goizean an zan berriro, lengo kantoian, bertso saltzen...

1
Apellidua Olazabal det
eta Felix da izena,
irundarra naiz Bidasoa'ko
Elorri'n bizi naizena;
bertso birekin egin nai nuke
esplikaziyo zuzena,
kulparik gabe bada amaika
nigatik gaizki esana.

2
Milla zortzireun larogei eta
amairugarren urtian,
landaretxo bat jaio da Irun'go
Bidasoa'ko partian;
ni bizi naizen palaziyotik
ezta leku apartian,
ia itoan ibilli naute
iru atsoren artian.

3
Urriko illaren ogei ta zazpin
uste det izango zala,
gure etxera atso bat juan zan,
etzeukan mea azala
aren marrixka zepuan dagon
basakatuak bezela,
aurren bat nunbait jaio dala ta
aren aita ni naizala.

4
Atso zar orri au esan nion:
"Zer modu, adiskidea?
Kulpa gabia kastigatzeko
al dabilkizu idea?
Nork erakutsi dizu nundik dan
gure etxera bidea?
Alper-alperrik etorri zera,
aur ori ez da nerea".

5
Atso zar orrek eztul aundi bi
egin zituen lenbizi,
gero pauso bat atzera eta
ezpaiñ biurrika asi;
besteren batek oker egin da
neri nai ziran erantsi,
esaten zuen: «Ez al du aur orrek
aitormenikan merezi?».

6
Modu txarrian itzegitea
kristauarentzat kalte da,
anima asko da argatik juana
etsai gaiztoen tartera;
eta beiñ ara sartzen danikan
geiago ezin atera;
zuretzat ere orixe dator
konparazio batera.

7
Abertzentziyan ipiñi dute
Irungo erretoria,
bitarteko bat bialdurikan
izugarri dotoria,
al baldin bada billa dezala
aien aurraren jabia;
ark ere aisa asolbitu nau
pekaturikan gabia.

8
Aingeru orrek izan bear du
iturri asko nastua,
eta tragorik gozoen ura
nun eran zuen aztua;
nun kargatu dan ez dakiela,
da azkenian ustua,
ni ote naizen pekataria
atso gaiztoen juzkua.

9
Aur gaiso ori or agertu da
urrikaltzeko moduan,
estimazio aundirik gabe
bere amaren onduan;
arentzat ere ez dira izan
gusto guziak munduan,
enpeño batez biartuta ere
ez daki aita nor duan.

10
Alabaren bat egin dezula
aditu degu, maitia,
al dan lenena sendatutzeko
ongi goberna zaitia;
zeñena dezun ez dakizula
lotsa dezu esatia,
beragatikan sortu dezute
ni naizala kulpantia.

11
Tropesi batek arrapatuta
orduko orren pobreza,
baño lagunak izandu zuten
aiudatzeko nobleza:
oiñuts gorrian Lezora juanda
kunplitua da promesa,
fabrikan bertan dirua bildu
an ateratzeko meza.

12
Beiñ tropesiak konkortu zuen,
ezta bereala zuzendu,
"Suerte txarra dauka gaisoak!"
makiña batek esan du;
ai, pekatuan erortzen danak
larrutik pagatutzen du,
obe zenduen zure lorea
ongi guardatu bazendu.

13
Kaballero ta bigote-dunak
gustatzen zaizka aldean,
aiek lajatu duten orduan
asi da nere galdean;
musika-soñu ederra franko
aditua da Katean
plaza betean ibiltzen ziñan
amaikak arte bailean.

14
Zerbait bazala bazerizkion
orrek bere buruari,
pretendiente balienteak
izandu ditu ugari;
eta txaskoak gertatzen zaizka
orrela dabillenari,
ontaz aurrera pakean utzi
kulparik ez duenari.

15
Zeru ta lurren bikarioa,
erregien alkatia,
zuk ere noski jakingo dezu
ez naizala kulpantia;
bestela banaiz ejenplo onez
ero doaiaz betia,
motibo ortaz ez dit itxiko
zeruetako atia.

16
Alde batera kantak jartzia
ezta ederki egiña,
Jesus bezela pazientziaz
konpleto egon bagiña;
bertso oietan ezta gezurrik,
dena izketa berdiña,
lotsa ederra eman dit baño
artu dezala ordaña.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

JOSE MARIA MUJIKA "BEGI TXIKIA"

Ernani'ko Begi-Txikiya segalariak bei-parea eta gurdia utzi zizkion basorako beste baserritar bati, onek ala eskatuta. Urrena, berriz, astoa eskatu zion. Auek ondatu zizkionean, idi-parea eskatu zion. Idiak artu eta Frantzi'rako asmotan igesi abiatu zan baserritar ori, baiña garaiz arrapatu zuten. Orduan Txirritagana etorri zan Begi-Txikiya, pasadizo oni buruz bertsoak jartzeko eskatuz. Bai jarri ere. Inprentatu omen ziran, baiña saldu ez. Guk ez degu paperarik iñon billatu. Onako auek, Txirritaren illoba txikia eta Saiburu bertsolariaren semea dan Jose Maria Lujanbio'k emanak ditugu:

1
Bertso berriyak jartzera nua
euskera eder batian,
gizon batekin piatu nitzan
anbat neretzat kaltian;
etsai gaiztuak Kristo bezela
lotu niñuten katian,
ixtillu txarrak ikusi ditut
andik libratu artian.

2
Lanak artuta anparo billa
zan neregana etorriya,
lendabiziko prestatu nizkan
bei-paria ta gurdiya;
aitatik ere eztet kobratu
baliyo zuten erdiya,
asto bat ere il ziran eta
ara naiko pikardiya.

3
Astua il da gurdiya ausi,
egun tristiak orduan;
beiak lanian purrukatuak
urrikaltzeko moduan;
gaiztuak milla karkulaziyo
ibiltzen ditu buruan,
sujeto ori ezagutu det
denbora juan da onduan.

4
Oiek orrela ondatu eta
eskatu dizkit iriyak,
eder askuak prestatu nizkan
bastante tirakariyak,
espalda-ezurrak eta kostillak
etzauzkitenak eriyak;
aiekiñ ere izan ginduzen
zelebrezko komeriyak.

5
Nere iriyak Frantziya'rako
gogo txikiya daukate,
bire erditik bueltatu ditut
nola baitagon aparte;
gobernatuko luke erriya
ori balego alkate,
zernai pikardi berak eginda
beti besterik kulpante.

6
Jose Maria Mujika daukat
apellidu ta izena,
pena gogorrak sufritzen ditut,
ez nago oso gizena;
nere denboran etzat aztuko
lagun zar batek esana:
badago zeñek zurrupatua
deskuiratzen dan gizona.

7
Zerbait eskaka asi dan arte
prestua eta umilla,
bañan beria egiñ ezkero
arrotutzen dan mutilla;
iñor iñondik etortzen bada
orren informian billa,
Santiyo-mendi'n bizi naiz eta
ni gana etorri dedilla.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

FRANTZES EUSKALDUN BAT

1
Frantzes euskaldun bat etorri zait
ipiñitzeko bertsuak,
deklaratuaz aren etxian
gertatu diran kasuak;
danak ez dira errexak baño
esango ditut batzuak,
argitasuna ematen badit
gure Juan amorosuak.

2
Nere barrengo sentimentuak
nai ditut adierazi,
zer estadutan gelditu naizen
iñork nai badu ikasi;
izarra baño ederragoko
andria juan zait igasi,
oraiñ bi urte aldegiñ ziran,
geoztik ez det ikusi.

3
Ogei ta amar urte daukazkit,
oraindik franko gaztia,
eta andriak bi gutxiago,
au bizi-modu tristia!
Ark neri egiñ dizkidan gauzak
esatekuak eztia,
txurrero batek engañatuta
eraman dit emaztia.

4
Biar bezela funzionatzen
ez dago errex fabrikan,
lau urte pasa alkarrekiñ da
ez degu izan aurrikan;
alegiñ egiñ-faltan ez daukat
kontzientziyan zorrikan,
oraiñ Paris'en txurruak saltzen
an omen dabill korrika.

5
Bi gona motz ta kamisa zar bat
besterik ez det ikusi,
ziran diruak arrapatuta
aldegiñ ziran igesi;
baita toxa bat ederra ere
bere tabako ta guzi,
jayian aita gonbidatzeko
ez ninduen gaizki utzi!

6
Alaxen ere desio dizut:
izan zazu osasuna;
non ote dago garai bateko
gure aiskiretasuna?
Etsai gaxtuak au da burura
zuri bialdu dizuna,
oraiñ andriak bi toxa eta
bat ere gabe gizona.

7
Txurrerua're lan senzillua
da asko irabazteko,
orrek biñipiñ ez du egiten
mantendu eta jazteko;
andriarekiñ alkar artuta
ni modu ontan uzteko,
bi kristau gaxto naikuak dira
baztar guztiyak nasteko.

8
Andria iges juan zanian
arren anaiak esana:
«Nere arreba dek, Patxi, baña
etziak trapu zuzena».
Ni naiz orduan ajustadore
Baionan ari nitzana,
zuk oraiñ dezun txurreru ori
ez bezelako gizona.

9
Ni emaztiak utzi ninduan
estadu triste batian,
beste batekiñ aldegiñ ziran
anbat beretzat kaltian;
txurruak janaz ederki dabill
diruak aitu artian,
zer esan biar ote dit neri
Josafatara juatian?

10
Gauzik onenak eta diruak
arrapatuta juan zian,
nuen trajerik onena ere
ostu ta eraman zian;
gosiak zeon txurreru ori
jarri da taju-antzian,
oraiñ Paris'en bizi omen da
trapero baten etxian.

11
Ez det milagro edukitzia
malkoz beteta muxuak,
kabi ta guzi iges egiñ dit
tamañ ortako uxuak;
nik berriz iñon ikusten badet
adituko du gaxuak:
Non ote dira garai bateko
gure izketa goxuak?

12
Txurreru ori zer gizona dan
sinistu entzun deguna:
lana egiteko gogua falta
eta mingaña leguna;
bedeinkatua izan dedilla
aldegiñ zuten eguna,
gizarajuak arrapatu du
bere moduko laguna.

[**Txirrita**, Bertsolariya aldizkaria, 11 zenbakia, 1931n]

PROPORZIO BAT IZANDU NUEN...

1
Mixiolari baten moduan
juan dan lau illabetian
nabil ejemplo onak ematen
inozentien tartian;
txorakeriyan ibilli giñan
sasoi genduen artian,
allegatu naiz irurogei ta
amabigarren urtian,
zer lastima dan ezkondu gabe
sartu biarra lurpian!

2
Proporziyo bat izandu nuen
erdi zartu ta gero're,
neskatxa batek: «Txirrita, biyok
esposatuko gerade;
ditudan gauzak eta diruak
zutzat izango dirade,
edo bestela azken fiñian
penetan illko zerade
gurasu zarren mobimentua
nola dan ikasi gabe».

3
Esan bezela neskatxa orrek
eman ziran albistia,
errespuesta aditu arte
larri egon zan tristia:
«Alde batera pena artzen det
zu modu ortan uztia,
baña zartu naiz, ezta posible
lan oriyetan astia;
borondatia istimatzen det,
eskerrik asko, gaztia».

4
Serio xamar letu omen du
bautismoko liburuan
ogei ta zortzi urte dauzkala
San Migelak inguruan.
«Zartu baño len asi zaizkizu
ille txuriyak buruan,
nerekiñ ere etzera asi
oso leku seguruan,
gax'orrek egon biarko dezu
beste askoren moduan».

5
«Bi oi ta bost milla errial dauzkat
amona zarrak utziyak,
milla pezeta arraia saltzen
neronek irabaziyak;
ankak listo ta eztarri ona,
mobimentuak biziyak;
nik dedan ditxa ez dadukate
munduan diran guziyak,
mixeriyarik ez dadukagu
Jaungoikuari graziyak».

6
Mutill zar eta neska zar asko
gelditu giñaden, baña
gure partiak eta geiago
badago zeñek egiña,
sortzen ditugun labore-puskak
aisa kastatzeko diña;
ogei pezeta anea artua,
lau duro t'erdi iriña,
berrogeitaño iritxiko zan
danak ezkondu bagiña.

7
«Ama-alabak bakarrik bizi,
mantenu ona mayian,
esposatzeko egon banitzan
ipiñi nazu gayian;
oinbeste diru sobratuba ta
senarra artu nayian;
eziñ billatu baldin badezu
Donostiya'n ta kayian,
Txomiñenian billera da ta
zuaz urrengo jayian».

8
Aiskide batek esan dit neri
Donostiya'ko partian:
«Iya lazuan sartu ziñuzten,
etzabiltza apartian;
neskatx orri ez kasorik egin,
utzi zaiozu pakian,
goizero an da botillarekiñ
Amueneko atian,
litro erdi bat patar biaute
ama-alaben artian».

9
«Diru ta oiak baziñuela
amona zarrak utziyak;
ni engañatzen ibilli ziñan,
gezurrak dira guziyak;
zuek bi aizpa omen ziñaten
ama gaxuak aziyak,
zurrut geiago egitiátik
arraia saltzen aziyak,
zuk ez baño arrek merezi ditu
eskerrak eta graziyak».

[**Txirrita,** Bertsolariya, 1932-01-24]

10
Ardua ere kastatzen dute,
ez aguardienta bakarrik,
bazkalduta're kaferik gabe
ez da artutzen patarrik;
ez Donostiya'n jaiotakorik,
aiñ gutxi goierritarrik,
bere buruba ola ofrezitzen
ez dabill neskatx jatorrik;
baño gaxuak nere kontura
etzuen busti muturrik.

11
Leio-zulotik beiratzen zuen
gu ari giñan lekua,
anima salbo antzarran gisa
luzaturikan lepua;
berak pentsatu zuen bezela
egiñ bazuen jokua,
ni izandu naiz alako batek
merezi bezelakua:
lenago iru baldin badira
ai zer nolako laukua!

12
Eziñ sinistu izandu nuen
neskatxa orren esanik,
ta berak ere etzekiyen ni
zurruterua nitzanik;
alkarrengana bildu bagiña
etzan gurekin gauz onik;
jende geiegik jakiñ ez dezan
ez det esango izenik,
oraindik ere soltera dago,
etzuen artu gizonik.

BERTSO BERRIYAK

NESKAZAHAR BAT TENTATZEN

1
Dozenatxo bat bertso
nai nituzke jarri
jayetan kantatzeko
entretenigarri,
nere publikatzia
izango da sarri
alabanatzak emanaz
zenbait neska zarri.

2
Neska zar bat tentatzen
asi naiz lenguan
izan ere alako
pollita zeguan;
umill eta seriyo
itz egin genduan
baño gusto guziyak
ez dira munduan.

3
Izketan asi giñan
biyak goxo goxo,
ezkontzeko mandatu
egin diyot atzo:
leyotikan ujuka
ama ta bi atso;
– Ez dek arrapatuko
uste bezin mantso.

4
Ama preparatu zait
asarrez betia,
lenbiziko ujuba:
– ¿Zenbat dek dotia?
ainbeste kostatako
alaba maitia
lastima izango dek
iri ematia.

5
– Nere fameliyari
errespetoz eldu,
inozente daudenak
ez ditezen galdu,
diru truka alaba
nai zenduke saldu,
¿lenago gustokorik
ez altzayo azaldu?

6
– Nere jakinduriya
ari da azetzen
errex dala uste du
zenbaitek ezkontzen;
promesa on bat egin da
ezpazera ontzen
lanak izango dira
zurekin konpontzen.

7
– Ez dezu sinistu nai
egiya esandare,
zintzua nai genduke
pobria izandare,
gure baztarrak baño
obiak nun dare
alabari sasoya
pixka bat juandare?

8
– Bere alabarentzat
orrenbeste fama
nik ez det sinistatzen,
aiziak darama,
zure baztarrian nik
egitia lana,
izan liteke baña
ez det uste ama.

9
– ¿Ez aldala uste dek
orren errespuestik?
atarramendu onik
mutill zarrak ez dik,
nere alabak ez dauka
ezkontzeko kezkik
i ez bezelakua
nai ezta dakazkik.

10
–Itz bat esan biar det
nere borondatez,
ez banau iñork lotzen
grilluz edo katez,
ezkontzeko ideak
banituan ustez,
ardua maitatzen det
andriaren partez.

11
–Mutill malizioso
deabruz betia
ez dizut zabalduko
geyago atia,
beñere etzaitut izan
biotzez maitia,
nigatik libre zera
or konpon zaitia.

12
Orra amabi bertso
oraingo berriyak
bere andregayari
Txirritak jarriyak,
emandizkit desgusto
ikaragarriyak;
negar egin lezake
nigatik arriyak.

[Txirrita]

HERNANIKO EUSKAL FESTETAN

"Baña Euskal-Erria oraindik ere bizi da?" galdetu zuen, eta berak erantzun zion galderari: "Bai, zauriturik badere, bizi da. Bere semeak gera. Onen bularretatik bere titi gozoa edoski degu. Bere itskuntz ederra erakutsi digute, bere legeak ezin da obeak dauzka bere biotzean guretzat gorderik". 1909a zen, eta hitzok Jesus Maria Echeverria kanonigoak bota zituen, Hernaniko elizako meza nagusian. Ele burrunba sortu zuten herri hartako euskal jaiek, asmo politiko zehatza omen zutelako. Ziertoki, euskal jaiek gertaera dramatiko batek markatuta egin zuten 1876tik aurrerako xenda: foruen galera.

1853ko Urruñako edizioarekin hasi eta hurrengo urteetako euskal jaietan Antoine Abbadie mezenasaren arrakasta izugarria izan zen. Gerora, Iparralde eta Hegoaldeko euskaltzaleen arteko harremana sendotu zuen Abbadiek -bai eta Bonaparte printzeak ere- eta ondorioz 1879an euskal jaiak Hego Euskal Herrian egin ziren lehen aldiz, Elizondon zehazki.

Galdutako foruen defentsak, euskal pizkundea eta euskal jaien espiritua leku eta erakunde gehiagotara zabaldu zuen. Horrela, Donostiako Euskal Jostaldien Batzarrea euskal jai propioa antolatzen hasi zen Gipuzkoako uri zaharrean. Mende amaieran, Diputazioak ganadu feria gehitu zion Donostiako jai horri eta probintziako beste herrietara eraman zuen euskal jaia: 1896an Arrasatera, ondoren Oiartzun, Zestoa, Zumarraga, Zumaia, Azpeitia, Oñati... eta hola iristen gara 1909ra, Hernaniko sarreran jarritako arku kolosalean leitu daitekeelarik: *Probinziako Diputazio argiya. Ernani-ko erri ezagugarri ta leyal ontara Ongi betorkigu.*

1909ko iraileko Hernaniko Euskal Festak. Iturria: Auñamendi Entziklopedia.

Euskal jaiak irailaren 17tik 22ra ospatu ziren eta denetarik egon zen. Ganadu feria (...) Ekitaldi erlijiosoak, hitzaldi ofizialak eta banketeak ere izan ziren herriko plaza nahiz kaleetan, bai eta dantzariak eta dantzaldiak, su artifizialak eta "sumendiak", Txirrita nahiz Pello Errotaren zipla eta takoak, Eltzekondo borrokalariaren gihar erakustaldiak, konpartsa eta aurreskua, makildantzari irrintzilari blankolari, pultsolari eta zulladunak... Bestalde, kultura "jasoago" baterako tartea ere izan zen Hernaniko 1909ko euskal jaietan, emanaldi literario-musikalekin eta lore-jokoekin. Lore-jokoak Erromantizismoak XIX. mendean berreskuratutako lehiaketak ziren. Katalunian Erdi Arotik zetorren tradizioa zen eta Hego Euskal Herrian foruen defentsak bultzatu zuen holako ekitaldiak antolatzera. Bertan musika, bertso, literatura lantzen zen batik bat. Hernanin arrakasta itzela izan zuten Gregorio Mujikak, Ramon Inzagarayk, Jose Elizondok, Inazio Urangak edota Bernardo Gabiolak, beste askoren artean. Alfredo Laffitte donostiar kazetaria zen lore-jokoen antolatzaile eta bere sarrera hitzaldian oso gogoan izan zuen, batez ere, aita Agustin Kardaberaz Hernaniko semea. Izan ere, euskararen berri ona eman zigun jesuitaren gorpuzkinak urtebete lehenago "aurkitu" eta ekarri zituzten Italiako erbestetik eta oraindik presente zuten hori euskaltzaleek.

[**Urko Apaolaza**, Argia 2197. alea 2009-09-13]

Olegario Garinek 1909. urtean Hernanin egin ziren Euskal Jaietako bertso saioetan parte hartu zuen, Pello Errotaren ordez hain zuzen. [**Antton Garin**, Hernaniko Urtekaria 2009]

Egun batez, euskal festa batzutan, bertsotan ari ziran Ernani'ko plazan Txirrita eta Saiburu, Gaztelu eta Pello Errotaren kontra. Ona emen Txirrita eta Gazteluk, Pello Errotagatik kantatu zuten bi bertsoren erdia. Erdiaz baizik etzan oroitzen au eman diguna, Ereñozu'ko Akola baserriko Gregorio Santa Kruz.

Txirritak:
Erare aundiya eduki arren
oraindikan e gait'ona,
amaika arto ostutzen duen
Astiasu'ko aitona.

Gazteluk:
Xentimorikan ez du gastatzen
Tolosa'n da Donostiya'n,
urre-pillan bat edukiko du
errotarriyen azpiyan.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburuan]

1897AN OIARTZUNGO EUSKAL FESTAN

Txirrita Oiartzun aldera abiatu zan. Izugarri euskal festa ederrak izan ziran (1897ko uztailean). Bertsolari auek kantatu zuten: Pello Errota eta Juan Kruz Elizegi anaiak, asteasuarrak; Esteban Elola, asteasuarra; Txirrita; Juan Jose Lujanbio, Saiburu, Txirritaren lengusua, errenteriarra; Juan Jose Sarasola, *Lexo*, Lezo'koa; *Artzaia*, Altza'koa; eta Jose Joakin Urbieta, Kaskazuri, oiartzuarra. Asi omen ziran bertsotan eta Txirrita jendearen gustoa egiten ari omen zan, eta jendea parre-algaraz aren bertsoekin. Pello Errota, berriz, euskal festak ziran ezkero, euskera goratuz ari zan, saria irabaztearren. Pello Maria Otaño juraduan zegoan, eta Txirritari onela esan omen zion:

-Ederki ari aiz, Txirrita. Ederki ari aiz. Jendearen gustoa egiten ari aiz. Baiña arbola aitatzen ez badek, premioa Pello Errotarengana ziak.

Orduan Txirritak bertso au bota zuan:

Gernika'ko arbola
igartu da orra,
ez daukate jarririk
olako enborra;
ari zañak ebaki
zizkion satorra,
berrogei kana luze
bazuen muturra,
ura etzan izango
euskaldun jatorra.

Egun artan botatako beste bertso bat ere gorde izan da:

Ai lenago're Oiartzun'dikan
atera izan da gizona,
gaur ni nagoen parajetikan
urrutikoa etzana,
umilla eta korajetsua,
leiala eta zuzena,
lizar-makilla aundi batekin
Erroma'n bertan izana,
guri eliz au siñaletako
emen eginda il zana.

Antziñako Lartaun aitatzen da emen. Ernio menditik Erroma'ra erromatarrekin burruka egitera joan ziran euskaldunen buruzagia izan omen zan. Bere lurretan egin omen zan Oiartzun'go eliza. Bertso-saioa bukatuta, juraduko jaunak Txirrita eta Pello Errota, biak batera, leendabizi gelditzen zirala erabaki zuten; eta urrena, Saiburu.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

TXAPELKETAK

Bertsolarien lehen eguneko parte hartzaileak. 1. Basarri; 2. Zepai; 3. Txirrita; 4. Txapel; 5. Saiburu; 6. Erauskin; 7. Mintegi; 8. Sarasola; 9. Nekezabal; 10. Tellaetxipi; 11. Abarrategi.
Iturria: Auñamendi Entziklopedia.

1935 urteko Bertsolari-Egunean, bertsolari auek bildu ziran:

Basarri, Zarautz
Zepai, Errezil
Txirrita, Altza
Txapel, Azpeiti
Lujanbio, Saiburu alegia, Errenteri
Abarrategi, Bizkaia
Telleri-txiki, Errenteri
Nekazabal, Zarautz
Sarasola, Lexo alegia, Antigua, Donosti
Mintegi, Ordizia
Erauskin, Ordizia
Kortatxo, Itziar
Zabaleta Pello, Errenteri
Zabaleta Juan, Errenteri
Sorozabal, Aiete, Donosti
Etxeberria, Aiete, Donosti
Uriarte, Bermeo

Basarrik irabazi zuan leenengo saria, eta berak emango digu txapelketa aren berri:

1935'garren urtera goazemakizu, irakurle. Kursaal antzoki edo teatroan lenengo bertsolari-eguna ospatzen da. Ordua baño ondotxo lenagotik, areto apain ura jendez gañeztua dago. Epai-maia ezarri dute, Juraduko jaun serioak artu dituzte beren aulkiak.

Beren abilidadeak neurtzera joandako ogei bertsolariak ere exeri dira bakoitza bere tokian. Asi da bertso-gudua. Iruna kantatuaz agurtu dute bertsolariak aurrekaldeko entzule-talde ugaria.

Ezin da egokiago asi da jai-aldia, ta ondo asten dana sarritan ondo bukatzen da, orduan gertatu zan bezela. Bigarren asi-aldirako Juraduak izendatu bear du gaia. Beren izkuntza goraltzea agindu zitzaien, eta al zuenak al zuen ondoen ortara saiatu ziran.

Gure Txirritaren txanda eldu zanean, bere eun ta berrogeitaka kilorekin, kabitu ezin zan eserleku artatik era ontan abestu zuan:

Larogei urte gaiñean ditut,
nago anketako miñez,
Donostia'ra etorria naiz
erren aundia egiñez;
bi bastoirekin txit larri nabil
pausorik eman eziñez,
euskera ia aztu zait eta
erderarikan jakiñ ez,
maixu batekin eskolan laxter
asi bear det latiñez.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

Nik amazazpi urte nituala, Donostiko Kursaalean egin zan bertsolari-txapelketa bat. Artako lendabizi Donosti inguruko errietan aukeratzen zituzten bertsolaririk onentxuenak, beren bertso-saioak egin ondoren. Txapelketa artako zuzendariak egun batez Aieteko ballarara etorri ziran, eta, emengo bertsolari zarrak eta gazteak bildu eta alkar probatu ondoren, Kursaalera joateko gelditu giñan: zarretatik Aranburuko Martin Etxeberria ta Beraberako Nikolas Sorozabal, eta gazteetatik Oriamendiko Jose Leon eta ni. Esan bezela, txapelketa-egun artan bildu giñan Kursaalera, eta ango zuzendariak esan zidan, Jose Leon etortzen bazan, guk biok kantatu bear genduala lendabizi, baña, ez bazan etortzen, ezin kantatuko nuala bakarrik. Eta nola etzan azaldu, ez nuan kantatu.

Bañan esan zidaten, txapelketa bukatzen zanean, joateko beste bertsolariekin batera bazkaltzera, eta an joan giñan agintari, zuzendari eta bertsolari danak ostatu eder batera; an agindu zidaten neri ere kantatzeko, eta beste bertsolariai bezela eman zidaten saria; eta, egun zoragarri bat pasatu ondoren, eman zitzaion bukaera egun artako bertsolari-festari. Egun artan Basarri gelditu zan txapeldun.

Garai artako bertsolari zarrak bazuten Donostian txoko polit bat, oso maite izaten zutena: kale Eason –gaur Víctor Pradera 3– Bar Manolo. Donosti aldera etortzen ziran bertsolariak, ostatu ontara biltzen ziran; Txirrita baitzan onera maiz xamar etortzen zana eta nik uste det danak aren arrastuan ibiltzen zirala. Gañera, bertako nagusia Manuel ere bertso-zale purrukatua baitzan. Egun artan, guk bazkaldu genduan ostatuan, bertsolariak irten da gero, inguratu zitzaidan nere lagun bat, Patxi Lazkano, Altzako Otxoki baserrikoa, eta bera ere bertsolaria, ni baño gaztexeagoa. Etzekian nunbait ongi Donostiko berri eta neri galdetu zidan:

– Aizak: ik bai al dakik bertsolariak nun egiten duten billera?

– Jakingo ez diat, ba? Ia, etorri adi nerekin. Bereala erakutsiko diat.

Ala, etorri giñan Manuelen ostatura, eta an zeuden bertsolari geienak, Txirrita beren maixu aundiarekin, batzuek maiean exerita ta beste batzuek zutik. Gu sartu giñanean, etzan iñor ari bertsotan; danak ixilik zeuden.

Txirrita, berriz, bakar-bakarrik mai txiki batean meriendatzen ari zan, kaxuelkada bat tripaki eta botilla bat ardo bere aurrean zituala. Eta nola ortzik etzeukan eta tripakiak ere zaill xamarrak zeuden, aoan ibilli ta mai-pera botatzen zituan. An bazebillen txakur txuri txiki bat eta arentzat etzetozten gaizki.

Ontan nere lagun Patxik esan zidan:

– Bertso bat botako niokek ba oraintxen Txirritari!

– Bota akiok ba, motel!

– Lotsatu egiten nak!

– I lotsatu egiten baldin baaiz, neronek botako zioat ba!

Alaxen, aulki bat artuta, jarri nintzan Txirritaren mai artan, eta esan nion:

– Jainkoak gabon dizula, Txirrita. On egin dizula!

– Igualmente, gazte; eskerrik asko.

Eta ontan kantatu nion nik bertso bat; ez naiz artaz ondo oroitzen, bañan olako zerbait zan:

Ederki kosta zaizu, Txirrita,
kaxuelka ori jatia,
tripaki-puxka pranko badezu
mai-pe ontara botia,
txakur onek gaur zure kontura
egin duan banketia!
Onentzat ez da gaizki etorri
zuk ortzik ez izatia.

Ori aditu zuanean, bultza zion Txirritak kaxuelari, –ordurako geiena ustuta zeukan–, trago bat edan da bereala bertsotan asi zan, olako zerbait kantatuaz:

Txakur txar onek antzeman dit
nik ortzik ez daukatena,
berialaxen billatutzen du
neri sobratzen zaitena;
kaxuelka bat tripaki banun
ta berak jan dit geiena,
gero kontua pagatzeko ni,
orrek ematen dit pena.

Orduan ekin zion beste bertsolari batek, esanaz parrandan gastatzen zituan diruekin etzeukala ortza berriak jarri eziñik, eta orduan errezago jango zituala tripakiak txakurrari eman gabe.

Kursaal'ean ederrak kantatu ziran, bañan an kantatu ziranak etziran batere txarragoak. Gu gaubean, amarrak aldean, atera giñan etxe aldera, eta artean ere an gelditu ziran danak, zeñek baño zeñek bertso ederragoak kantatuaz. Zeru txiki baten antza ematen nion nik Manuelen ostatuari egun artan. Bazirudian aingeru-talde bat ari zala kantari, triste zeudenak alaitu naiean. Izan ere, orrelako egunak gogoangarriak izaten baitira Euskalerrian, batez ere euskal oitura onak maite ditugunentzat. [**Sebastian Salaberria**, Neronek tirako nizkin]

1935eko abenduaren 29an jokatu zen Tolosako kanporaketa. Bertsotan, ezkerretik eskuinera: Txirrita, Saiburu, Ugartemendia, Ezeiza, Moxo, Etxeberria, Txapartegi, Pantxo Zarra eta Ondartza. Argakia: Jesus Elosegui.
Iturria: Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak.

Finala jokatu zuten bertsolariak. Lehenengo ilaran ezkerretik: Dargaitz (Otsondo), Harriet (Aldude), Txirrita (Altza), Iriarte (Irurita), Etxeberria (Andoain). Bigarrengoan: Txapel (Azpeiti), Saiburu (Errenteri), Zepai (Errezil), Uztapide (Zestoa). Argazkia: Jesus Elosegui. Iturria: Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak.

1936KO TXAPELKETA

Hiru kanporaketak egin ondoren (Tolosan, Azpeitian eta Elizondon), Donostiako Victoria Eugenia antzokian ospatu zan bigarren bertsolari gudu gogoangarria. Geiago puska batean ez zan ospatzerik izan gerra zitala zala eta...

Ogeita amar bertsolarik parte artu zuten, oietatik amar aukeratu ziran finala jokatzeko, baiña bat ez zan azaldu.

Epai-maia auek osatzen zuten: "Aitzol", Altzaga, Lekuona, Olaizola, Leizaola, eta Basarri. Onek gai-jartzaille bezela egin zuan, Zubimendi Jaunari, amagiarreba il zitzaiolako egunberean.

Garai artan ez zuten mikrofonorik (goragaillurik) erabiltzen, beraz abotsa oso garrantzizkoa zan.

Egun gogoangarri ura goiz-goizetik asi zan. Amarretan meza "Matxin" Lapurdiko bertsolari ospetsuaren izenean (1935ko guduan bigarren geratu zana). Meza ondoren denak "Victoria Eugenia" antzokira abiatu ziran, baiña dena leporaiño beterik zegoen. Jaialdiari asera emateko "Aitzol" Jaunak itzaldi eder bat egin zuan bertsolari zarrak gogoratuaz eta batez ere "Matxin". [**Jesus M. Etxezarreta**, Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak]

(Saioaren ostean) Donosti'ko Eusko-Gaztedia'k duan aretoan, bazkari eder bat eman zitzaien eratzailiekin batera anaitasunean baturik. Ba-zan antxe umore ta bertsotako gogoa.

Arratsaldean, sari banaketa Eusko Gaztediko aretoan egin zitzaien. Ara nola:

Lenengo saria: Txirrita, 150 laurleko.
Bigarren saria: Uztapide, 100 laurleko.
Irugarren saria: Zepai, 74 laurleko.
Laugarren saria: Dargaitz, 50 laurleko.
Bostgarren saria: Iriarte, 25 laurleko.

Murua yaunak emanda, bertsolari zarrenarentzat beste 25 laurlekoak Txirritari eman zitzaizkion eta gazteenekoak Iriarteri.

Sari gabeko beste bertsolari guziei ere 25na laurleko eman zizkioten.

Sariak jaso ondoren ia bertsolari danak Poxpolin antzokira joan ziran jaialdi ederrari amaiera emateko. Poxpoliñ-en Toribio Altzagaren "Mutil zaar" antzerkia antzesten baizan eta bertsolariak an ere kantatu zuten. Bukatutzean, txapeldunaren omenaldia aipatu zan, lenbailen egiteko. Beraz, Txirritari tokatzen zitzaion omenaldia.

Uztapidek, bere liburuan dio, bera zala leenengo (juraduko batek ala esan ziola) baiña nik bertso danak irakurri ondoren, bat baiño geiago aldiz, Txirrita ikusten dut txapeldun ezpairik gabe. Orduan ere juraduan buru berotzailleren batzuk egongo ziran, Uztapidek diona egia bada.

Emen jartzen dizuet Uztapidek bere liburu "Lengo egunak gogoan"-en nola esaten duan:

"Gero juraduko batek esan zidan ia kontentu gelditu al nintzan premioarekin. Baietz esan nion. Kontentu gelditu ez nintzan, ba, bigarren premioarekin...?

– Ba, lenbizikoa irabazi dezu –esan zidan–. Baña Txirrita gizarajoa zarra dago ta urrengo urtean etortzeko ere zuk itxura geiago daukazu. Ori urte askotan ezin liteke etorri, ta aurten orri ematea pentsatu degu".

Oiek dira Uztapideren itzak. Bertsoak irakurri eta bakoitzak juzga dezala!

[**Joseba Zubimendi**, Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak]

El II Día del Bertolari centenares de euskeltzales rindieron homenaje a las voces populares de la raza

EL DIA

¡A POR VOTOS!

El Día egunkarian, 1936-1-29 (Txirritak txapela jantzi eta 10 egunera) bertso batzuk argitaratu ziren "Txirrita zarra" izenburuarekin, "Bertsolari zar" goitizenez sinatuta. Egunkari berean, handik bi egunera, Salbador Zapirain "Ataño" idazleak beste sorta bat argitaratu zuen, "Txirrita, zorionak" izenburupean, "Bertsolari berri" goitizenarekin.

ZAHARRAREN AGURRA

Donostia'n, 1936-1-19'an, Bertsolari-egunean, txapela jantzi ondoren, bost bertso jarri zituan Txirritak eskerrak ematearren-edo, eta El Día egunerokoan azaldu ziran, 1936-II-1an, or goien ezarri degun izenburu orrekin berarekin (*Zarraren agurra)*. Bearbada, auek izango dira Txirritak jarri zituan azken bertsoak.

Onela diote:

1
Ontzat artzen det zenbait
bromako esate,
eta bestiak ere
oi egiñ bezate.
Aita banitz bezela
maitatu nazute,
ta nola nagon zarra
ikusten dezute,
ontaz aurrera zuek
segi zaiozute.

2
Gaztiak jardun dira
bertsuetan bapo,
ixildu gabetandik
zipla eta tako;
oriyek ez daukate
memoriya flako,
bakoitzak biar ditu
bi ni bezelako,
errespetatu naute
zarra naizelako.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

3
Talentu asko ditu
zenbaiten buruak,
oietatikan datoz
gauza seguruak;
guretzat izan dira
gizon onraduak,
zar-gaztiak dotatu
ginduzen Murua'k,
ixtimatutzen ditut
zure bost duruak.

4
Zubimendi ta Ariztimuño
ez dira izdun itsusiyak,
eskolaz ondo jantziyak daude,
gauza asko ikusiyak;
juradu eta sekretariyo
gizon abillak guziyak;
Basarri zuten laguntzallia,
merezi ditu graziyak,
nola maiteko ez du euskera
Zarautz'en jaio ta aziyak?

5
Arrokeriyan ez naiz asiko
irrintzi eta algara,
umildadian itzegitia
gustatutzen zait, al bada,
danak alkarri lagunduta're
bizitzen naiko lan bada;
salan ez daukat ezer askorik,
iya ustu zait ganbara,
nere bertsuak aituxe dira,
orain gaztien txanda da.

SAGARDOTEGIAK

Iturria: El Día.

Gerra aurrean, 1920 inguruan, Hernanik kaskoan 45 kale-baserri eta 45 sagardotegi zituen. Karkaban bertan 5 sagardotegi zeuden: Pepe Adarragarenak bi, beste bat Asteasutarrena (Asteasutik etorritako familia, Errekondotarrak), eta Gorrotxategitarrenak beste bi. Asteasutarrek denda zeukaten, zapatak eta alpargatak saltzen zituzten eta denda bazterrean zeukaten sagardotegia.
[**Inaxio Mari Zubeldia**]

Sagardotegitan ohitura handia zegoen bertsotan egiteko. Guk ohitura gutxi genuen sagardotegitarako. Hernanin sagardotegi asko zen: Akarregikoa. Kalean, Bar Deportiboren frentean, Kiskillutarrena. Adarragatarrek ere bazuten. Upel koxkorrak izaten ziren, eta etxeetatik etortzen ziren bila, batek botila bat bete, besteak beste botila bat... hustu arte! Ereñozun Goikoetxea, famatua. Ibarluzen Txintxuatarrak, oraingo Txintxua hotelekoaren anaiak. Añarregin bestea. Iparburun ere bai. Elorrabin ere bai. Altzutan beti. [**Antonio Zubiarrain**]

Txirrita Ernani'ko sagardotegi batean zala, sartu da gizon luze bat, aberatsen etxeetara neskak eramaten aritzen zana. Orduan Txirritak:

Ara Joxe Ramon,
gizon prudentia,
eskolarik gabeko
estudiantia;
zartuagatik dago
oso dezentia,
Urumea'ko nesken
komerziantia.

[**Lino Kalonje**, Txirrita liburua]

Len, garai batean, pitarra izaten zan baserrietako edaria. Pitarra izaten da sagarra tolarean jo eta ura bota izan zaion patsa. Pisoiarekin zapaltzen dan sagarrari deitzen zaio patsa. Sagardo mustioa egin bear danean, etzaio urik botatzen. Baiña bai pitarra egin bear danean. Eta, ura bota bear danean, ez du neurri jakiñik izaten. Sagar-urte ona danean, ura gutxiago botatzen zaio. Eta, sagar-urte ona ez danean, geiago. Ez naiz oroitzen zein baserritan; baiña, sagar-urte txarra zan batean, zazpi zaku sagarrarekin emezortzi kargako kupela bete omen zuten. Morroiak egun osoa pasa omen zuan errekatik ur karraio. Txirritak, berriz, oitura auxe zuan, baserri baten ingurutik pasatzen zanean:

ATZO SANTIYAGO ZAN

Urte batean, Patxi Bakallo Billabona'ra eraman zuten bertsotara, Santiagotan, erriko festetan alegia. Joan zan, bañan bai kantuan irabazitako diru guziak bertan gastatu ere.

Biaramonean, artean Billabona'n zala, sagardotegira joan da sagardoa saltzen ari zan amonari, onako bertso au kantatu zion:

Atzo Santiyago zan
gaur biyaramona,
laneko gogo gutxi,
erateko ona;
erariya pagatzen det
basoko txanpona,
salduko badet ere
andriaren gona,
beste baso bat bete
biezu, amona.

[**Antonio Zavala**, Hiru bertsolari]

– Txarro bat pitar emango al didazute faborez?

Baserri danetan ematen zioten txarro bat, eta bi ere bai. Baiña egun artan bat naikoa zuala esan omen zioten, eta abiarakoan:

– Pitar onek bazeuzkak bi gauza, onak: bata, ontatik edaten duana ez dek mozkortuko; eta, bestea, badezutela pixka bateko edaria. Aio, jaunak! Eskerrik asko! Urrenarte!

Baiña ez omen zan urte artan geiago baserri artara joan.

[**Sebastian Salaberria**, Sagardotegiak, Auspoa 247]

KANDELERO EGUNA, ARTZAI TXIKIARENA

Kandelero eguna
otsailaren bian
orduko afaria
degu haragian
lau lagunek pasatzeko
xelebrekerian
holaxe gustatzen zait
sagardotegian.

[**Florian Oiarbide**]

SAIBURUTAR NIKOLAS LUJANBIOK JARRIAK

Gaztetako kontuak
dauzkat nik gogotan,
pentsatzen egoten naiz
alperrik prankotan;
len gauza merke, bazan
Gipuzkoa ortan:
pitxarra sagardua
amar xentimotan.

Ameriketan alargundu ondoren, onera azkeneko aldiz etorri baño lenxeago, onako bertso au bialdu zuan:

Elkar ikusi gabe
bizitzia motz-ta,
ogei urte, etzaizkit
oso gutxi kosta;
preparatu zaitezte
laister bagatoz-ta,
elkar abrazatuaz
emateko bosta,
diran ontzi guztiyak
bete sagardoz-ta.

[**Antonio Zavala,** Iru anai bertsolari, Auspoa 73]

SAGARDOA PAULO TXIKIAREN UZTATIK

1
Lenengo arbolak izan bear du
paradisuan sortua,
Adan da Ebak andik jatea
zeukaten debekatua,
gure Jainkoak euskaldunentzat
zeukalako aldatua,
gero sagardo biurtu zedin
ematen zuen frutua.

2
Azi artatik sortu ziraden
lur ontako sagastiak,
guraso zarrak ondiatuta
lenago zeuden sasiak
Bi arbol-klase jarri zituzten,
dira geza ta gaziak,
aien zumoa edan zezaten
euskaldun seme guziak.

3
Donostia'tik etortzen ziran
tranbe zar danak betean,
Astigarraga ta Ernani'ra
jendea garai batean.
Danak euskeraz kantatzen zuten
upel aundien tartean,
orain dagoen aiña kanpotar
ez baitzegoen artean.

4
Euskalerria paradisotzat
bezela zegon munduan,
baserri danak sagardotegi
izaten ziran orduan.
Obe genduke gaur e bageunde
garai artako moduan,
aurrerapenak gure lurrera
ara zer ekarri duan.

5
Sagardotegi maitagarriak,
joan ziñaten bukatzen,
kimikaz egindako ardoa
asi baitziran ekartzen.
Etxean degun gauzik onena
arrezkeroztik baztartzen,
euskaldunari gauza askotan
orixe zaigu gertatzen.

6
Sagardotegi maitagarriak,
beti zaituztet goguan,
zuen barruan neguan antxe
egoten nintzan zeruan.
Zar eta gazte danak bildurik
upeltxoaren onduan,
bertsolariak ederki daki
zenbat gozatzen genduan.

7
Alez beteta dauden arbolak
zer poza ematen duten,
sagar-urte bat izugarria
nola gertatu dan aurten.
Len zokoetan zeuden upelak
apenas lanik daukaten
lengo urtetan egoten ziran
bezela utsik egoten.

8
Garai batean baserrietan
ziran sagasti edarrak,
geientsuenak igartu dira,
tapatu zituen larrak.
Ondorengoak izandu gera
olako seme zabarrak,
au ikusita guraso aiek
eingo zituzten negarrak.

9
Len garbi zeuden mendi guziak
asi ziraden beztutzen,
sagarra kendu eta piñua
asi zanean sartutzen.
Garai batean debalde zana
gaur urrea pagatutzen,
ia iltzera ekarri degu,
baiñan asi da piztutzen.

10
Aspaldi xamar asiak ziran
gu galdu naian etsaiak,
kale aldera bialdu-azten
mendian zeuden artzaiak.
Txarrenak orain droga zabaltzen
emen dabiltzan izaiak,
zenbat beneno tragatu degu
Gipuzkoa ta Bizkaia'k?

[**Paulo Zubiarrain,** Ia kantatuz bezela, Auspoa 190]

SAGARDOARI 1979AN JARRIAK

1
Mila urte ta bederatzireun
larogeita hemezortzi
agostuaren hamaseian
horra nik garbi idatzi
bertso batzuek jarri artian
ez naute pakian utzi
sagardoaren entierrua
nahi genuke erakutsi.

2
Sagardoaren entierrua
eta ondo merezia
jateko ere ona da eta
nahiz geza eta gazia
beraz sagardo bihurtu eta
paregabeko grazia
zu bai zerala fruitu guzien
artetikan bereizia.

3
Mundu guztiak estimatzen du
sagartxo zoragarria
zure zumua baita onena
kendutzeko egarria
tolarietan zanpatu eta
gero upeletan jarria
horregatik da hain sonatua
Astigarrako herria.

4
Tolare dana sagarrez bete
eta erdian ardatza
goitikan behera zanpatu eta
hantxen geratzen duk patza
bere zumua sagardoa da
guztiz edari garratza
kontuz ibili erantsi gabe
gero mozkorren bat latza.

5
Arboletikan zintzilik dago
sagartxo musugorria
zure bitartez egiten degu
hemen sagardo berria
tolaretikan upelak bete
gero sagardotegia
hori baitzuten garai bateko
bertsolarien kabia.

6
Arrantzale ta nekazariak
berdin da fabrikantia
Euskal Herrian beti izan da
oso edari maitia
bere omenez pentsatu degu
entierrua eitia
aurrera ere gure egarrik
asetzen saia zaitia.

7
Mendi malkarrak hondeatuta
lur berrik sagastik jartzen
garai bateko aitona zaharrak
asko ziraden saiatzen
orain pinuak eta sasiak
danak ai ditu estaltzen
upel ederrak alperrik dituk
ez bada berririk jartzen.

[Antonio Zubiarrain]

SAGARDOTEGIAK

1
Sagardoa da sagarra eta
ideia on baten frutu
edanda ez da ezer gertatzen
nahiz Adan janda damutu
mutuai bista itzultzen dio
eta hiztuna itsutu
mila txokotan eginagatik
kupeletik kukurruku
leku gutxitan atera zaio
Hernanin adina zuku.

2
San Sebastian abiapuntu
Aste Santua helburu
kriston jendetza erakartzen du
ehundaka mila inguru
botilak ditu purgatorio
kupeltegia tenplu du
ateo gehien biltzen dituen
erlijioa seguru
Hernanin eta inguruetan
sagardoarena dugu.

3
Lehen tragoa usaitu eta
aztertzen da kolorea
bigarrenean esan daiteke
ona duen zaporea
hirugarrena beti da ona
ta laugarrena hobea
jaki pixka bat lagun hartuta
halako plan dotorea
munduan nonbait izan daiteke
nik non ez dakit ordea.

4
Hala're ardi galduak erraz
tokatu ohi dira antza
hark irrintzia honek antsia
ta beste horrek arrantza
ezinbesteko erritmoa da
kupelarteko balantza
otorduetan harrokeria
ta ordaintzean zalantza...
maindirerikan zurienetan
somatzen da gehien mantxa.

5
Horren kontura bizi garela
asko esatea bada
horrekin ongi bizi garela
esanda pakea hara.
Asteburuko jende oldeek
sortzen duten lurrikara
gure tabernek baretzen dute
egin ez dezaten traba
Ongi etorri mundu guztia
sagardoaren mekara!

6
Ohitura zaharrak mundu berrira
dakartzatenentzat gurdi
afalondoko bertsolarien
inspiratzaile bihurri
arrotzarentzat gehiegizkoa
maite dutenentzat urri
igaro behar izanagatik
mila krisi ta izurri...
izandu degu, da ta izango
mama gozoen iturri.

[**Joxe Luis Urdangarin**, 2003an Joxe Legarretaren omenez Ereñozun egindako bertso-emanaldirako jarriak]

HERNANIKO TRANBIA

1913ko Hernani. Argazkia: Jesus Maria Gómez. Iturria: http://www.spanishrailway.com]

Niri 10 zentimo ematen zizkidan amak tranbiarako, gu bizi ginen tokitik (gaurko Ertzainetako paretik) herriraino. Gutxitan ematen zizkidan, e! Eta 10 zentimo ematean Adarragaren kafetegira joan (Urbieta kalean, orain Caja Laborala dagoen ertz horretan), berak egindako karamelu haiei begira egon, mukiak utzi kristalean eta etxera! [**Inaxio Mari Zubeldia**]

50. URTEURREN FESTA

Tranbia desagertu zela 50 urte bete dira aurten. Hernaniar ugari tranbia zeneko garai hartan hazi eta bizi izan ziren; ez hori bakarrik, Tilosetako bailea ere izaten zen garai hartan, eta Hernaniko eta inguruko bikote asko elkartu ziren bertan, baita koadrilak ere. Guzti hori ez dute ahaztu nahi izan eta, hori dela eta, tranbiaren inguruko jaia antolatu dute otsaila-



Tranbia Plaza Berrin, 1950ean. Argazkia: © Luis Blas Sedano. Iturria: www.spanishrailway.com.

TXIMIST-GURDIA 1903-1958

San Joan konpartsak 2002ko ekainean argitaratu zuen liburuxkan tranbiari buruzko informazioa aurki daiteke. Antza, tranbiari tximist gurdia deitzen zioten, egiten zuen zaratagatik eta ateratzen zituen txinpartengatik. Tranbia 1903an hasi zen martxan eta 11.681 metroko ibilbidea egiten zuen. Bost estazio zituen: Peñaflorida, Amara, Loiola, Astigarraga eta Hernani. 25 geldialdi egiten zituen. Tranbiak berebiziko garrantzia izan zuen martxan izan zen urteetan. Alde batetik, baserritarrei beren produktuak Donostian saltzeko aukera ematen zien. Bestetik, donostiarrei sagardotegietara eta jaietara joateko aukera ematen zien, besteak beste. Tranbiak azken bidaia 1958an egin zuen, gaueko 09:15ak aldera. Jose Cruz Lasartek gidatu zuen, ordurako erretiroa hartuta zuten hasierako gidariek lagunduta.

[**Hernaniko Kronika**, 2008-02-16]

ren 24rako.

Pili Lujanbiori etorri omen zitzaion ideia burura, "zergatik ez berreskuratu egun batez bada ere, gure haurtzaro eta gaztaroko garai haiek, tranbia Hernanin barrena ibiltzen zeneko garai hura, eta Tilosetan, Musika Bandaren eskutik, bailea izaten zeneko garai hura?". Esan eta egin.

Tranbiaren inguruko jaian ezin zen tranbiarik falta eta horretarako Logroñotik ekarritako txu-txu trena itxuraldatu egingo dute. Itsuraldaketa Andres Maizek egingo du. Hernaniarrek tranbian ibiltzeko aukera izango dute beraz egun horretan, eguerditik bazkalordura arte. Floridarainoko ibilbidea egingo du itsuraldatutako trenak. Arratsalde partean, Kaxkoan barrena ibiliko da trena, Caserio taberna dagoen horretan geldialdia eginda, Tilosetako bailera joan nahi duenarentzat. Trenean ibiltzea euro bat kostatuko da. Beste tren txiki bat ere jarriko dute Plaza Berrin barrena ibiliko dena. Haurrei euro erdi bat kobratuko diete eta helduei euro bat. Itsuraldatutako trenaz gain, Plaza Berrin garai batean izan ziren zenbait komertzio ere berreskuratu edo garai bateko girora egokituko ditu Andres Maizek: Adarraga gozotegia, Cuevas farmazia, Portalondo eta Caja de Ahorros-a. Horrez gain, Azurmendi taberna ere irekiko dute ordu batzuetarako. Azurmendi taberna oraingo Atxur tabernaren parean zegoen. Garai bateko zerbitzariak ere bertan izango dira: Adeli, 37 urtez bertan lanean aritutakoa, eta Maitere. Tilosetako baileari dagokionean, Kaxko elkarteak ahalegin bereziak egin ditu, 1974 aldera desagertu zen ekitaldi sozial hura ahalik eta ondoen berreskuratzeko. Gaur egungo bikote ugari, Hernanikoak eta ingurukoak, bertan elkartu ziren eta espero dute egun horretan berriro ere estu-estu helduta dantzatzera animatzea. Hala ere, ez dute ahaztu behar garai hartan txaperoa ere izaten zela eta dena kontrolatzen saiatuko dela. Manolo Sagarna bandako zuzendari izandakoa eta Patxi eta Joaquin Apezetxea ere izango dira bertan. Horrekin batera, garai batean bezala oilaskoak errifatuko dituzte. Bailearen aurretik txokolatada ere izango da eta garai bateko gozoak berreskuratuko dituzte, boladoak esaterako, uretan urtzen

ziren azukrezko bola haiek.

Tranbiaren inguruko jaialdi hau prestatuta ezin ahaztu garai hartako tranbiaren gora beherak inork baino hobeto ezagutzen dituztenak, gidariak, garai hartako memoria historikoaren gordailu ere badirenak. Bizirik dauden 6 gidariak omenduko dituzte: Manuel Borja hernaniarra, Patxi Urbizu ereñotzuarra, Astigarragako Luis Zumeaga eta Antonio Zapirain, Donostiako Juanito Egiza eta 103 urteko Jose Astarbe.

Kaxko auzo elkarteak herritar eta dendariei eskatu die egun horretan garai hartan bezala janzteko. Bestalde eskerrak eman nahi izan dizkie ekitaldi hau antolatzen lagundu dutenei, diruz eta bestela: Udala, Berriak elkartea, Adarraga gozotegia eta herritar anonimo ugari. [**Hernaniko Kronika**, 2008-02-16]

ANDRES MITXELENAREN BERTSOAK

1
Mila urte pasata
bederatzirehun
aurten zazpigarrena
broman pasa zagun,
dama gazte polit bat
ustez neukan lagun
gazte-gaztia zala
egina ezagun;
mingainez alegria
amorioz ilun.

2
Ezkontzeko hasita
hara desgrazia!
Pertsona tranposakin
tratatzen hastia,
ni fin nenbilen baina
horrek malizia
orain hargatik nago
bazterren utzia;
publikatzera noa
asunto guzia.

3
Zelestina daduka
dama horrek izena
Aranon jaio eta
han bizitzen dena.
Andres honeri kantak
jartzen hasi dena
baina ez izan balitz
alaja zuzena;
nik hola mendratzen det
merezi duena.

4
Ezkontza zerratu zan
San Juan bezperan
gaueko hamaiketan
kanpoan ihintzetan.
Bidez azpikaldetik
leku polita zan
aingeru bat bezela
ari zen hizketan;
ni arrrunt engainatu
gazte xamarra izan!

5
Bera're gaztia da
ez ditu urte asko
hemeretzi eskasak
hemezortzi oso.
Andresek hogeita hiru
ez dauzka uzteko
balientia zaude
tranpan jokatzeko;
egiak esan arte
ez naiz isilduko.

6
Eskutikan helduta
hasi zen esaten:
"Andres zuregandikan
ez naiz apartatzen.
Lore ederragorik
ez det nik ikusten,
ezkondu aurretikan
diberti gaitezen;
jai bat seinalatu ta
Donostira goazen!"

7
Handik hamabost egun
ez ziren pasatu
gau batez esan nion:
"etzi goazemazu!"
"Pozik egingo dizut
horrenbeste gustu"
hori esanda laster
eman zidan muxu;
orduan bero zinan
orain oso hoztu.

8
Etxetik Hernanira
joan ginen oinez
bidean hitz potolo
ederrak esanez.
Donostira tranbia
noiz zegoen galdez
frantsesarekin igoal
hasitzen zan ingles,
erderaz ere fuerte
nahiz bate jakin ez.

9
Tranbi hortan sartuta
jo degu Donosti
Bulebarrera juan ta
pasiatzen hasi.
Gero Bretxatik bueltan
kaliak ikusi
eskuineko besotik
ein zidan imurtzi;
zapata pare on bat
behar niola erosi.

10
Zapata hoiek hartuta
bazkaltzera Fonda(ra)
galdetuz "abaniko
almazena non da?"
hura're erosi nion
neskatx horri joanda
burua freskatzeko
izugarri on da;
horrek nire kontura
pasatu du broma.

11
Gero dibertsiua
musika ta guzi
baltsian hasi ginan
poliki-poliki.
Le(he)ndik inglesez eta
hortan'e badaki
gero errefreskua
zerbeza ta guzi,
hortik aurrerakua
guk bestek ez daki.

12
Hurrengo egunian
jo degu Herrnani
tranbian mano-mano
begira elkarri.
Han erosi nizkion
sei painuelo txuri,
agua koloniatik
beste botila bi;
orduan zapuztu zan
nire birjiña hori.



13
Santiagotan ziran
azkeneko planak
zuzena okertzen du
hortarako danak.
Neska tranposa haren
orduko esanak,
etziyotela uzten
aitak eta amak;
han bukatzen zirela
ezkontza haren lanak.

14
Aranon jayua naiz
askok dakitena
ongi eginda gaizki
pagatu nautena.
Zelestina daduka
dama horrek izena
igoalak zerate
familia dena;
Ollinen bizitzen da
Andres Mitxelena.

AMERIKATIK ETORRITAKO DONOSTIARRA

Lengo tokian or dago plaia,
jiran daduzka mendiak,
Urgull'dik jarri begira eta
gozatzen ditut begiak.
Baiña bi gauza falta ditu gaur
ni jaio nintzan erriak:
or ibiltzen zan tranbe zarra eta
lengo sagardotegiak.

[**Paulo Zubiarrain,** Ia kantatuz bezela , Auspoa 190]

TRANBIAREN OROIMENEZ BERTSUAK

Julian Ezeiza "Aterpe":
Garai hartako tranbero haiek
ba zutela talentua
ogi bidea hori zuten da
egin behar onartua
negu ta uda bero eta otz
bazutela meritua
gosaritako ogi artean
sardin zahar bat prejitua
gaur zorionez ohitura hura
dena bai dago galdua.

Julian Ezeiza "Aterpe":
Motor aldeko bi alderdiak
kristal ta ate gaberik
ez zen faltako giro otzetan
euri ta aize faltarik
negu gorrian gidari haiek
ez zeukaten nun gorderik
zortzi orduan hanka gainean
exeri leku gaberik
zerua irabaziko zuten
baldin badago zerurik.

Antton Garin:
Herria triste eta malkuak
denok ginula begian,
Hernanitikan tranbia honek
azken bidaia egitian.
Donosti aldera joaten ginan
pozik ta txispa batian.
Tximist gurdia deitzen zioten
aballa artzen zuenian.

Antton Garin:
Berrogeita hamar urte badira
kendu zutela hemendikan.
Gaur ikusten det hernaniarrak
ez gera ahaztu oraindikan.
Orduan guk'e ez ginun behar
aballa haundiko trenikan.
Hiru ordu laurden behar genitun
Donostira Hernanitikan.

[**Hernaniko Kronika,** 2008-02-23]

TXIRRITAREN HITZAK

Campeones vascos
Un poeta de 150 kilos
Por JOSE R. RAMOS

Madrilgo Estampa aldizkarian Txirritari egindako elkarrizketa erreportajeatua argitaratu zuten, 1936ko apirilean, Txirrita hil baino bi hilabete lehenago. Txirritari egindako azken elkarrizketa izan daiteke, beraz. Hiru orri oso eman zizkioten, argazki ederrez jantzia. José R. Ramos kazetariak sinatu zuen. Txirritaren erreportajea, "Un poeta de 150 kilos" izenburu zuena, "Campeones vascos" serieko hirugarrena zen. Atal horretan txandan aterako ziren beste hiru euskaldun handiak ziren: Keixeta aizkolaria, Kortajarena harri-jasotzailea, eta Patxi Bollos, Antiguoko Istingorra elkarteko kidea, 236 kroketa jan ostean afaldu egin omen zuena. larrabetzutik.org webguneak berreskuratu zuen erreportaje hau, Madrilgo artxiboa zokomihatuta.

Estampa aldizkarian erdaraz ageri diren Txirritaren hitzak euskarara itzuli ditugu:

"Ez zait iruditzen bertsolari onak izango direnik 'poeta' horiek. Bertsoak kantatuta luzitzen du. Errenteriako papeleran ere ez dago nik nire denboran kantatutako bertsoak idazteko paperik.

Behin, Andoainen erromerian, Pello Errotak eta biok topo egin genuen tabernako atean. Jendea zirikan hasi zitzaigun. Pello egon den bertsolari onenetakoa izan da. Ez genuen inork zirikatu beharrik izaten. Pellok eta biok aurrez aurre topo egiten genuenean istilua pizten zen. Ni hasi nintzaion, estreinatu berri zuen blusaren kontuarekin. Berehala erantzun zidan, nire triparekin sartuta. Ni ez nintzen isildu, baina bera ere ez zen mutua. Bere lagunek hari jotzen zioten txalo, eta nireek niri. Tabernan afaria prestatu ziguten. Afaldu bitartean bertsotan jarraitu genuen, elkarri trapu zaharrak boteaz. Ez zen sagardorik falta. Horrela jardun genuen gau osoa, bietako inork amore eman gabe. Taberna itxi ziguten, eta eguna argitu zuenean bakarrik geratu ginen pixkanaka, plazan... Ea beste poeta horiek hainbeste bertso lotsagabe non idatzi dituzten, ezta meza emateko latinezko liburu handi horietan ere...

Biok ongi atera ginen. Pellok azken bertsoan esan zidan nahikoa sagardo zegoenean ondo zegoela lagunak dibertitzeko kantatzea, baina dagoeneko izarrak ere lotara joanak zirela. Nik erantzun nion niri ere ez zitzaidala gustatzen eztarri lehorrarekin jarduterik, baina ez nintzela jarraitzeko beldur, izarrek alde eginda ere, oiloak zebiltzala kalean".

"Andregaia behin izan nuen eta ordubeteko. Txomineneako erromerian. Paseatzen ari ginen eta erroskillak erosi nizkion. Baten batek bertsotarako desafioa jo zidan eta ixtantean aldegin nuen. Ez nintzen berehalakoan etorri, eta bitartean soldadu batekin joan zen hura. Nik erositako erroskillak janaz nola zihoazen ikusi nuen".

TXIRRITAREN LEHENDABIZIKO BERTSO-LAGUNAK

Ereñozuko ermita.
Iturria: Auñamendi Entziklopedia

1
Milla zortzirehun hirurogei ta
hamalau urte urrian,
lehenengo plazan kantatu nuen
nik Hernaniko lurrian,
San Antonio deitzen diogun
ermita baten aurrian,
lagunak alkar ixtimatuaz
lehengo ohitura zaharrian.

2
Joxe Migelek atera zuan
oso hizketa leguna:
«Au da, gaztiak, prezisamente
guk egin bihar deguna:
altxa dezagun San Antonio,
gaur da beraren eguna!».
Gaur Goiatz-txikin dago itxututa
orduko nere laguna.

3
Orduko hango bertsolariak
lau lagun ginan guziak,
Hernanin bertan bataiatuak,
barriu hortan haziak:
Joxe Migel da Erramun hilak,
ni ta Juan Mari biziak,
San Antoniok merezi du ta
eman zaizkagun graziak!

4
Hirurogei ta hamar bat urte
badaduzkat bizkarrian,
kargamenturik txarrena hau da,
ezin utzi baztarrian;
hanka batetik kojoka nabil,
reuma daukat ixtarrian,
baino baditut laguntzaileak,
ez nago modu txarrian.

5
Gazte-gazterik hasi nitzan da
oraindaino bitartian
zenbait umore eder jarri det
Kantabriako partian;
pixka batian ez naiz ahaztuko
sartuagatik lur-pian,
nere aitamenak izango dira
beste larogei urtian.

Txirritak aipatzen ditu "Joxe Miel ta Erramun hilak, ni ta Juan Mari biziak". Joxe Miel (gure aitona zena) eta Erramun lehengusuak ziren. "Gaur Goiatz Txikin dago itsutua orduko nere laguna". Gure aitona Joxe Miel eta Goiatz Txikiko itsua anaiak ziren. Goiatz Txikikoak dira Otxotorena. Handik etorri ziren bizitzera Altzera. Eta Altzen begia galdu, ez dakit mandoak jota-edo. Eta begibakar geratu. Goiatz Txikira joan eta sagarrak kimatzen ari omen zen, eta adaxka batek ukitu du eta beste begia hustu! Eta itsu geratu.

"Ni ta Juan Mari biziak" dio, eta Juan Mari ezagutu nuen nik, hori zen Ugaldetarra.

[**Antonio Zubiarrain**]

GARAIKO BERTSOLARI HANDIEKIN

Xenpelar bertsolaria 1869'garren urteko abenduaren 8'an il zan, ogei ta amalau urterekin. Txirritak, 1860'garren urteko abuztuaren 14'ean jaioa izanik, bederatzi urte zituan orduan. Ura ezagutzeko umeegia zala esango luke edozeiñek. Baiña etzan orrela izan. Onela kantatu omen zuan Txirritak Errenteri'n, 1931'garren urteko uztaillaren 24'ean, egun artan Xenpelar zanari egin zitzaion omenaldian:

Oraintxen dira iruroi bat urte
Xenpelar zana il zala,
bi bider beintzat ikusi nuen
txiki-txikia nintzala.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

UDARREGI

Udarregi bertsolaria, Juan Jose Alkain alegia, 1895'eko urriaren 2'an il zan, irurogei ta sei urte bete eta biaramonean. Aren illetan, Usurbil'en noski, elizkizuna bukatu eta amaiketakoa egin ondoren, bertso bana kantatu omen zuten iru bertsolari auek: Gaztelu, Txirrita eta Pello Errota. Txirritarena auxe izan omen zan:

Gizajua il zan da
sartu zuen lur-pian,
zañak eta ezurrak
alkarren artian;
asko sufritu zuen
bizi zan artian,
orain deskansa deilla
guztizko pakian,
gu ere juango gera
alako batian.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

OTAÑOTARRAK

Edozein bertsozalek dakianez, Zizurkil'ko Errekalde'tik bi bertsolari aundi sortu ziran: Jose Bernardo Otaño, osaba, eta Pedro Maria Otaño, illoba. Otaño'tar oiek *Baria* eta Baretarrak zuten izengoitia. Zazpi bertsolari Ernani'n bildu omen ziran; eta, beren otordu legea egin ondoren, kantu lanari ekin zioten. Zizurkil'ko Jose Bernardok izengoitia Baria omen zuan, eta Txirritari bertso au bota zion:

Joxe Bernardo ikasia da
atia zeñi iriki,
ta pamiliko buruzbidia
jarri nai luke egoki.
Mutil zintzoa nola zeran zu
nere alabak badaki,
gure etxera juan zaitez ta
biziko zera ederki.

Txirritaren erantzuna au izan omen zan:

Zure alaba enpleatzeko
artu dituzu idiak,
orretarako biarko ditut
etxeko eskubidiak.
Terrenu oitan zabalduko'itut
zimaurrak eta kariak,
muturra atzera biarko ditek
inguru artan bariak.

Beste batean, Txirrita Zizurkil'era joan eta leenbizi Jose Bernardoren alaba ikusi omen zuan, zelaian paotxa ebakitzen ari zala. Galdetu zion:

– Aita non da?

– Or da nonbait ere etxe aldean.

Eta bertsoa bota omen zion Txirritak Jose Bernardo edo Baria'ren alabari:

Gauz bat esango dizut
modu ondraduan,
noski ez naiz asiko
emen endreduan.
Nunbait egongo zera
aldarte beruan,
gaur orla zabiltzanian
udako beruan,
ezta atsegin izango
zure inguruan.

Eta Jose Bernardoren alabak erantzun au eman zion:

Arrazoi orrek badu
bere parezera,
konprendituko dezu
mutilla bazera.
Udarako beruaz
kejatzen al zera?
Lana ortan badezu
egiten atzera,
praille sartu ziñazke
komentu batera.

[**Antonio Salaberria,** Txirrita liburua]

Pedro Mari Otaño.

Beste bertso auek, Txirrita'ren Testamentua liburuxkatik artuak ditugu. Ez dakigu aotik aora kantatuak ala paperean jarriak diran. Pedro Maria Otaño, 1898'garren urteko ilbeltzaren 26'an abiatu zan Ameriketara azkeneko aldiz, Pasaia'n ontzia arturik. Jende asko bildu omen zan ari azken agurra ematera. Txirrita ere bai, berak bertso auetan aditzera ematen duanez:

Ilbeltz illaren ogei ta seian
San Polikarpo eguna,
makiña bat jende Antxo aldera
pausua eman deguna,
Amerikara dijualako
gure Pedro Mari ona,
zierto dakin fameliatik
aita faltatzen zaiguna,
zeñek etzuen istimatuko
alako bizi-laguna?

Utzi dituzu leku zabalak,
utzi dituzu mendiyak,
utzi dituzu Españia'ko
anai ta lagun aundiyak;
zuri begira tristetu zaizkit
alai neuzkiyen begiyak;
oik nola diran bire luzian
korritzen duten zubiyak,
oraindik anbat gerta liteke
juntatutzia gu biyak.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

Pedro Maria Otaño Ameriketan il zan, 1910'garren urteko maiatzaren 1an. Ordukoak dira Txirritaren beste iru bertso auek:

Emen zizurkildar bat
genduan gizona,
eskola aundikua ta
euskaldun zuzena;
Ameriketan urte
askuan izana,
Pedro Mari Otaño
zedukan izena,
amaika bertso polit
jarrita il zana.

Zizurkil'go seme bat,
esan dedan trazan,
euskera predikatzen
emen ibilli zan;
beti konpontzen giñan
adiskide gisan,
ez genduen beñere
asarrerik izan,
irugarren bisitan
Amerikan ill zan.

Zizurkil' go seme bat
ain gizon umilla,
euskaldun jakintsuna,
eskolaz abilla;
zenbait saio egiñak
lege zarren billa,
nik aginduta ezta
Jaungoikuak illa,
zeruaren erdiyan
gertatu dedilla.

[**Antonio Zavala,** Txirrita liburua]

PELLO ERROTA

Txirritak bertso au bota omen zion bein batean Pellori:

Zenbat platera beteta ekarri
ainbeste ustuta bialdu,
dudarik gabe gizon flakuak
jaten geiago bear du;
matrall-ezurrik gelditu gabe
pasatu dituk bi ordu,
amaika arroa egingo intzan
beti orrela jan bau.

[**Jose Antonio Loinaz-Otaño**, Txirrita liburua]

Iturria: meta.gipuzkoakultura.net

Pellok:
Ari naizela, ari naizela,
or ikusten det Txirrita,
eta zein ez da arrituko gaur
gizon ori ikusita?
Dudarik gabe egiña dio
andregaiari bixita,
oso dotore etorri zaigu
bi alkandora jantzita.

Eta Txirritak:
Auxen da lotsa eman didana
gizon artera sartuta,
edozer gauza esaten degu
edan tantokin poztuta;
bi alkandora ekarri ditut
bat eraztia aztuta,
Pellok bi nola jantziko ditu
bat bererikan eztu-ta?

[**Antonio Zavala,** Txirrita liburua]

Bertso auek oso ezagunak dira Euskalerrian. Batzuek Andoain'en kantatuak dirala diote; beste batzuek, berriz, Goizueta'n. Txirrita goien omen zegoan, balkoian; eta Pello, berriz, bean, kalean. Eta onela kantatu zioten alkarri.

Txirritak:
Bertso polit bat kantatuko det
balkoi ontatik kalera,
Pello Errota ikusi eta
nik artzen dedan kolera!
Astiasu'tik etorri eta
erronkan asi al zera?
Laixter uxatuko zaitut nik zu
jetxitzen banaiz or bera.

Pellok:
Arrazoi batez ez dek egundo
ezagututzen pertsonik,
poliki xamar asi aiz baño
ez dek egingo gauz onik;
sekulan iñork etzidak esan
erronkosua naizenik,
balkoi ortatik ez dek jetxiko
ni uxatzeko gizonik.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

Pello Errota Ameriketan, Arjentina'n, ibili zala gauza jakiña da. Andik etorri eta bertso au bota zion Txirritak:

Lasaitasun gogorra
sartu da Konporta'n,
ondo biziko dira
Astiasu ortan;
lenago mixeriya
izana frankotan,
asko ekarri bearko
zuen tabakotan,
len besteri kenduak
ordaindutzekotan.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

Pello Errotak:

"bertatikan egingo
nuke apustua
Txirrita nere alabarekin
ezkontzia litzake nere gustua"

Eta Pello Errotaren alaba haur egina izan, Fraisoron, eta Frantziara eramana diximuluan. Eta Txirritak:

Adizu Pello aitu bihazu
nere ahotik epela
bestek esanda enteratu naiz
ezer ez nakin bestela
zure alabak'e izan behar du
irikitzen dan kartzela
zure alaba hoi dontzella egongo
da nere ama bezela.

[**Antonio Zubiarrain**]

TXIRRITARENAK

Iturria: gipuzkoakultura.nirudia.com

LANEGUNAK

Astelehena det jai bat hartua
pekatu mortal purutzat
asteartean kolpeik jotzeko
gogorik etortzen etzat
asteazkena, hauxen da pena!
tristura handia sartzen tzat
ta osteguna, peri eguna
burua dana nahasten tzat
aste guztia kolpeik jo gabe
neri holaxe joaten tzat.

[**Antonio Zubiarrain,** kantatua]

EREÑOZUKO ERMITARI

Goiko etxeko Nikolas zana
jende askoren aurrian
beste mordo bat harria biltzen
goiko Alkatxuingo larrian
nere aita ta Pizarro berriz
ganaduakin larrian
ermita eder hau nik egin nuan
txokolateren lurrian.*

**Azpiko gure etxea Txokolatenekoa baita!*

Zenbat aldiz nei goatzen zaidan
ene ermita maitia!
zu egiteko auzo guztiak
hartu zun borondatia
nere aitak'e ontza bat urre
bai omen zuan botia
San Antoniok eraman ziken
nik bihar nuan dotia.

[**Antonio Zubiarrain**]

HARGIN ANDALUZA

(Latzen) Fabrika egitean, langilleetan bazan argin andaluz bat. Bein batean onek, berak bezperan egindako pareta, okertua arkitu zuan. Bultzaka asi zan, pareta okerra zuzendu nairik. Lan ortan ari zala, Txirritak ikusi zuan. Artean mutiko gaztea zan, baiña bertso au bota zion:

Aiziak biali du
andikan onuntza,
geroztik emen dabil
gure andaluza;
argiñ ona zala ta
zakurraren putza,
bera eroriko dek,
ez akiyok bultza.

[**Gregorio Santa Kruz,** Txirrita liburua]

JAIOTETXEAN

Egun batean, gizon larria zala, Latze inguruan ari omen zan lanean Txirrita. Artean, Latze baserria oso-osorik zegoan. Fabrikako enkargatua or etorri zitzaion, bere jaiotetxea ikusi nai zuala esanez. Baietz, lagunduko ziola, erantzun zion, eta alkarrekin joan ziran. Ateondoraiño eldu ziran, eta orduan Txirritak onela esan zuan:

– Arrayia! Arrayia! Esaera zaarra da: jaiotako tokira iltzera. Ni ez noa, ba, barrena sartzera.

Eta buelta eman eta sartu gabe alde egin zuan.

[**Gregorio Santa Kruz,** Txirrita liburua]

Beste egun batean, Ereñozu'ra kantura etorri eta bertso au bota zuan bere jaiotetxeagatik:

Txirrita zarrak beti izan du
aurreko zarren fedia,
zenbait bezela ez da izandu
sinismenikan gabia;
zaku bat urre izan biar du
gure aitonak gordia,
saiatzen dira galanki baña
ezin billatu ordia.

[**Jose Oiarbide,** Txirrita liburua]

MAIORAZGO DESPATXATUA

Beste batean, amak ala galdetu omen zion:

– Aizak: aita nun dabil?

Eta Txirritak bertso batekin erantzun zion:

Etxeko maiorazkua
nintzan tokamentuz,
baldin serbitu banu
aita pulamentuz;
nere bizimodua
beti dabil kantuz,
despatxatuko naute
ez banabil kontuz,
aita ikullun dabil
beiak gobernatuz.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

ALBAITERUEN SALAN

San Markos mendiko fuertea egiten ari ziran garaian, langille batzuk Txirrita'n zeuden ostatuz. Goiz batean, oietako bat, ondo-ezik edo miñez zegoalako itxura egin, beranduago jeiki eta aize pixka bat artzera zijoala esanez, kanpora atera zan. Baiña ordurako bere pardela balkoitik botea zeukan. Eta pardela artu, ostatua zor utzi eta alde egin zuan. Amak, noski, pena artu zuan. Baiña Txirritak esan zion egoteko lasai; berak billatuko zuala gizon ori, eta kenduko ziola dirua.

Esan eta egin. Atzetik joan eta arkitu du gizon ori. Kargua artu eta kendu dio dirua. Baiña txanponak berak jaso zituanean, Albaiteruena deitzen zitzaion taberna batera joan eta danak gastatu zituan. An, dantzan eta saltoka zebillela, txurnioa estrokatu zuan (txorkatilla biurritu), eta bestek ekarri bear izan zuten etxera aidean.

Gisa artan ikustean, onela galdetu zioten etxekoak:

– Motell, zer egin dek? Zer pasa zaik?

Eta Txirritak bertso onekin erantzun zien:

Albaiteruen sala
demonio ortan,
demoniozko estropozo bat
egin nuen bertan.
Demoniuak emen,
demoniuak an,
demoniuak beti
gorputzaren bueltan,
demoniuak sasoi zeukaten
demoniuetan.

Albaiteruen sala ori Bonatxo baserrian zegoan.

[**Jose Ramon Erauskin Lujanbio**, Txirrita liburua]

MATEMATIKAK

Txirrita oso gaztea zala, etxera sei sardin ekarri omen zituzten; eta aita eta amak bina, eta berak eta anaiak bana izan omen zuten. Orduan bertso au bota omen zuan:

Gure etxean laurentzako
gaur sei sardiña,
bañan ez dute egin
partizio berdiña;
guri bana eta berak
jan digute biña,
zergatikan ez partitu
bana ta erdiña?

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

AMARI

Txirrita bertsotara kanpora ateratzen asi zanean, ala esan zion amak bein batean:

– I beti or abil batean eta bestean, baiña etxean ez dek kantatzen. Noiz kantatu bear dek?

Eta Txirritak orduan onela kantatu zion:

Atso lepa luze bat
dala nere ama,
Errenteria'n dauka
sorgiñaren fama;
soñean jazten ditu
lau edo bost gona,
ni gaiztoa naiz baña
bera ez dek ona.

Amak, asarretu eta esan zion:

– Alde egin zak emendik! Orrekin naikoa dek gaizto zital orrek!

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

ANDREGAIAK

Andregaia ere izan omen zuan. Bertsoa onela kantatu izan omen zuan beintzat bein batean:

Andregai bat banuen eta
esan bear det zeiñ ere,
mantal txuria jantzitzen zuan
da ibiltzen zan dotore;
amaika bider eskatu nion,
etzidan eman beñere,
geroztik iru aur izan ditu,
Paris'en dabil iñure.

[**Estanislao Urruzola,** Uxola, Txirrita liburua]

Mutilzar gelditzea erabaki zuan ezkeroztik, txantxetan artu zuan beti bere izate ori. Egun batean, Zizurkil'era joanak ziran Gaztelu eta Txirrita, biak mutilzarrak.

Tabernako atean, batek besteari onela otsegin zion:

– Txirrita, umeak nun dituk?

Eta besteak:

– Ireekin jostatzera joanak dituk.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

NI EZKONTZIAN

Urrengo iru bertso auetan, eztaiak nolakoak izango zituan esaten du. Ez dakigu boteak ala jarriak diran.

Ogei eta bi urtetarako
nitzan ezkondu nayian,
irurogei ta bederatzitan
oraindik nago gayian;
lendabiziko nere preoia
botatzen duten jayian,
suzko zezenak izango dira
Zurriola'n da kayian.

Gañera berriz esposatzean
debalde napar zezenak,
kostako zaizkit galanki baño
aundiak eta gizenak;
aiek iltzeko bi kastillano
indar aundiko gizonak,
Machaquito ta Bombita ditut
etorritzeko esanak.

Dozen erdi bat urdai azpiko
zintzilik dauzkat jarriyak,
saltxitxoi eta lukainka asko
Aragoi'tik ekarriyak;
lau kapoi pare eta sei ollo
agindu dizkit erriyak,
eta ondoren toreatzeko
bi zekor gorri-gorriyak,
ni ezkontzean izango dira
bankete izugarriyak.

[**Jose Ramon Erauskin Lujanbio,** Txirrita liburua]

TABERNAKO ATIA

Zaartu ondoren, Altza'n arrebaren etxean bizi zala, erriko medikuak –Don Inazio Casares eta Don Leandro Aizpurua omen ziran– Txirrita ostatutik etxera ongi serbituta bialdu bear zutela pentsatu zuten. Kosta omen zan pixka bat; baiña bai fardel ederra eman ere. Urrengo goizean, seietako mezetara zijoan jendeari, bertso au kantatu zion Txirritak:

Zabal dagola ikusten badet
nik tabernako atia,
iduritzen zait pekatu dala
an sartu gabe joatia;
gure erriko bi medikuak
pikaro xamarrak tia,
bart arratsean bialdu naute
pipa bezela betia.

[**Sebastian Salaberria**, Txirrita liburua]

Urte pranko Ernani'tik palta Txirrita. Ta batean etorri ta Ezio baserriko Manuelekin asi bertsotan. Txirritak bertso bat onela kantatu zun:

Zu Ezio'ko Manuel zera,
ni jaio nitzan Latxian,
garai batian barriyu ontan
neskatx ederrak bazian;
gazte denboran ibiltzen giñan
pandanguan da baltsian,
gure orduko aixkire zarrak
danak ezkondu al zian?

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

SAN JOANAK EGAÑANEAN

«Jendetza aundia biltzen zuan Txirritak, bertsoak kantatzera norabait joaten zanean; eta ez gutxiago Ernani'n kantatu bear zuanean, bertako semea baitzan. Ernani'ko San Juan festetan bertsotara deitzen ziotenean, zintzo joaten omen zan, eta portatu ere bai, erriko jendeari naiko parra egin eraziz bere bertso eta ateraldi arrigarriekin. Amabost bat egun pasatzen omen zituen, festetara zetorren bakoitzean, plazan, tabernetan eta sagardotegietan bertso-saio galantak egiñez.
Errian ate guztiak zabalik zeuden berarentzat. Ain maitea edo gogozkoa baitzuten danak. Baña geienean Egaña izeneko ostatura biltzen zan. Emen antolatzen zioten gela bat lotarako, eta gela orri Egaña'nekoak Txirritaren gela edo kuartoa deitzen omen zioten beti.
Ostatu ontan len komona bajoa omen zuten, eta, Txirrita gizon aundia zala ikusirik, bertako etxekoandreak festetarako komona berria jartzea pentsatu omen zuan, gorputzetik egin bearrak jendeak exeri ta lasai egin zitzan. Beartu omen zan, bada, Txirrita ere eta sartu omen zan. Baita exeri ta lasai jarri ere. Baña ipurdia beera sartu omen zitzaion eta iñola ere ezin atera; eta, larriturik, jendeari deika asi omen zan. Joan omen ziran ez dakit zenbat gizon berari laguntzera. Danak tiraka atzaparrak eten bearrean, eta ala ere ezin atera Txirrita komon berri ortatik. Eta ala, tiraka ta bultzaka zebiltzala, or puskatu dute komona. Pena ederra izan bear zuan Egaña'neko etxekoandreak. Baña Txirritak esan omen zion:
-Barkatu, etxekoandre. Marka ederra egin degu. Baña etzaite aserretu. Badakizu ofizioz argiña naizela, eta neronek egingo dizut karaitz arriarekin berria sendo-sendoa.

[**Sebastian Salaberria**, Txirrita liburua]

PRESA EGINEAN

Ugarretxe enpresakoak Fagollagako presa hori egiten ari zirela, kristoren jela bota zuen. Hotzak eta mukia dariola ezin aguantaturik zeudela, etorri da kontratista eta Txirritak:

Osasun ona kontserbatzeko
hau da goi giro preskua
bi belarriak ubel ubelak
sudurran punta beztua
hanka gaxuak sumil sumilak
ta ipurdia hoztua
beste inuan berotu ezinda
hankatartian eskua.

Fagollagako presa.

Bertsoa bota omen zuen eta kontratistak "beno, beno, gaur eguartea jai egizue".

[**Antonio Zubiarrain**]

Beste batean, markes bat alderatu eta begira jarri zitzaion, lana nola egiten zuan. Orduan Txirritak bertso au bota zion:

Txikitandikan artua nuen
argintzan afiziyua,
beñere aprendiz ibilli gabe
ikasi ofiziyua;
eman ezkero materiala,
gañera despaziyua,
denborarekin egingo nuke
markesen palaziyua.

[**Juan Bautista Gesalaga, "Zaldubi"**, Txirrita liburua]

NESKETAN

Neskak hala esan zion:

– Bota Txirrita neri bertso bat. Nik hiru pezeta emango dizkizut.

Txirritak honela erantzun zion:

– Merkeago ere aritu izandu naun neska. Botako diñat:

Atzo goizian, labak aldian
maindire denak altxian,
nahiago nuke zure blankua
eduki banu etxian,
lehendabiziko tirua xuxen
sartuko nizun beltxian,
biarrenguak kale eginda ere
ajola haundirik etzian.

[**Juanjo Uria,** Txirrita 50. urteurrena liburua]

PULTSUAN

Behin, zortzi egun parrandan pasata azaldu zen Txirrita lanera eta kontratistak hala esan omen zion:

– Aizak, horrelakorik gehiago egiten badek, ez haut berriz ametituko.

Txirrita isilik gelditu zen eta handik hilabeterako hamar egun pasata etorri omen zen berriz.

Kontratistak:

– Hi ez etorri honera, jira adi hortik. Ez dit ezer jakin nahi hirekin. Lehen ere esan nian.

Baina Txirritak funtzioa jartzen zien askotan eta mutilak pena haundia hartu zuten eta zerbait aipatu omen zioten nagusiari. Txirritak 100 metro edo pasa zituenean, nagusiak oihu bat egin omen zion:

– Etorri adi honera. Esango al didak ba, non ibili haizen?

Eta Txirritak hala esan omen zion:

Bilbaon izandu naiz
San Frantzisko kalian,
pultzuan probatutzen
bihatz bakarrian,
doblatuta utzi naute
lehenengo gabian,
sendatzen egondu naiz
hamar egunian.

[**Juanjo Uria,** Txirrita 50.urteurrena liburua]

CANOVASENAK

Antonio Cánovas del Castilloren hilketa (1987-08-08).
Irudiaren egilea: Ginés, V.

Michael Angiolillo, Canovas hil zuena, garrote
Billarekin hil zuten Bergarako espetxean, 1897ko
abuzutuaren 20an.

Iturria: elbauldejosete.wordpress.com

Antonio Cánovas del Castillo jauna, Españia'ko gobernuaren buru zan lau probitzietako fueroak galdu ziranean, 1876'garren urtean alegia. Jaun ori tiroz il zuan Angiolillo'k Mondragoi'ko Santa Ageda'n, 1897'ko abuztuaren 8'an. Politiko orri buruz bi bertso ditu Txirritak. Leenengo aldiz, Ernani'ko Antonino Pagola zanari jaso nizkion. Orri batean idatzita bialdu zizkigun. Ona emen beraren itzak:

Egun batian, kasinuan, orain Donosti'ko Ayuntamentua dagon orren terrazan, omen zegon Cánovas'en señora. Ta an pasa omen zan Txirrita beste batekin, da esan omen zion:

– Aizu, Txirrita: orixe da Cánovas'en señora.

Ta Txirritak onoko bi bertso oiek kantatu omen zizkion:

II da Cánovas, juan da Cánovas,
pikaro gaizki aziya!
Galdu zituen ifar garbiyak,
jarri du trumoi nasiya,
galdu zituen fueruak eta
Jaungoikuaren graziya,
galdu zituen bere lagunak,
galdu du bere biziya!

Iru relejo, iruna kate,
iru mallakin bakoitza,
buruan berriz iru korona,
petxuan iru orratza,
iru doblako amoriyua
tximista bezin zorrotza,
iru tirotan utzi zizuten
zuri senarra illotza,
iru ezpatak zulatzen dute,
señora, zure biotza.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]



Casado de Alisalek oleoz egindako erretratua.

Bertso bat badu Txirritak, Cánovas orri buruz kantatua. El Día egunerokoan arkitu degu, 1936-VI-24'eko zenbakian, Ernani'ko berri emale zan eta Aitz -zorrotz firmatzen zuan batek bialduta. Onela dio:

« ... Oraiñ urte batzuek dirala Gernika'n abestu zun, ta askon artian bat au abestu zun:

Iru gizon pikaro
gu saltzen zebiltzan,
aiekgatikan gaude
oraiñ gauden gixan;
geroztik etzuten bik
osasunik izan,
irugarrena berriz
Santa Ageda'n il zan».

Santa Ageda'n il zan ori, edo obeto esateko il zuten ori, Cánovas izan zan. Baiña beste biak zein diran, ori ez dakigu.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

HAURRA GALDU ZEN HARRIA

Latze baiño goraxeago, ordu laurden baten bidean edo or nunbait, arkaitz bat dago, gaur egunean ere «Aurra galdu zan arriya» esaten zaiona. Orra nundik datorkion izen ori:

Iturralde baserriko etxekoandre berria larrera joan omen zan auntzak mudatzera. Aurra –artean bere aur bakarra ain zuzen– xextuan zeraman; ta, auntzena egin bitartean, xextua aurrarekin arkaitz orren gaiñean utzi zuan. Arranoak ikusi, ordea, eta jetxi eta aurra eraman egin zuan. Aurraren aztarrenik ere etzuten arkitu.

Txirritaren urrengo bertso onek gertaera dana kontatzen du. Ez dakigu nun eta nola bota edo kantatu zuan. Onela dio:

Ezkonberri bat mixerablia
auntz-kontura etorriya,
aur txikitxo bat xexto batian
xatar tartian jarriya;
Urdaburutik tranpiyan sartu
zaio arrano gorriya,
oartu gabe eraman dio,
ura amaren larriya!
orain argatik deitzen diogu:
«aurra galdu zan arriya.

[**Jose Ramon Erauskin**, Txirrita liburua]

Hernaniko udal artxiboan agertzen da ondare kulturalaren zerrendan, haurra galdu zan harriya. Hortik kontuak atera, zenbateko pisua daukan istorio, kondaira edo dena delako horrek Hernanin, eta batez ere, Ereñotzun. Dena dela, harkaitz hori izkutuan dago gaur egun, basoak jan diolako ingurua, eta bertara iristeko behar beharrezkoa izan da auzotarren laguntza. Florian Oiarbide eta beste ereñotzuar batzuen laguntzaz atera dugu arrastoa. Akola mendiko hegoaldeko magalean dago harkaitz haundi hori, basoan izkutatuta, bere punta zorrotz eta guzti.

[**Eñaut Agirre**, Hernaniko Kronika, 2011-08-06]

ZUK HIL ZENDUEN ARTZAIA

Liberalen eta karlisten artean Bergarako Besarkada egin zanean (1839-VIII-31), konforme etziran karlistak Frantzira alde egin zuten; eta gaiñerakoak, armak entregatu eta norbere etxera joan ziran. Orrela bukatu zan Euskalerrian karlisten lenengo gerratea (1833-1839). Uxategieta edo Urepel izeneko mendietan soldadu mordoxka bat gelditu zan. Toki ori Urumea eta Leizaran ibaien artean dago, Gipuzkoa eta Naparroako mugan.

Zer egin etzekitela zeuden, eta beretako bati onela esan zioten:

– Joan adi i Tolosa'ra, eta gero bueltan esaiguk nola tratatu auten.

Joan zan eta fusilla kendu, duro bat zillar eta bazkaria eman eta libre utzi zuten. Pirala kondairalariak dionez, Bergaran, leen esandako Besarkada ori egin zanean, karlisten buruzagiei beren soldatak eman zizkieten; soldadu bakoitzari, berriz, duro bana. Seguru asko, beste errietan ere duro bana emango zioten arma entregatutako soldadu bakoitzari, eta ori izango da emen aitatzen dan duro zillar ori.

Bueltatu zan esan degun mutil ori lagunengana, eta onela esan zien:

– Motellek, ez natxiotek gaizki tratatu. Duro bat zillar eta bazkaria eman zizkidatek beintzat.

Orduan Tolosa'ra joan ziran bat ez beste danak. Joan gabe gelditu zan ori, Antonio Diostegi zeritzan. Ijitoa omen zan. Bakarrik gelditu eta zenbait egunetan an bertan egon zan. Baiña jatekoak aitu zitzaizkionean, abiatu zan ura ere bere fusilla ta guzti, baiña bera jaiotako txokora, Ernani'ko Fagollaga'ra, joateko asmoz. Artzai bat arkitu zuan eta onela esan zion:

– Egidazu mesede Fagollaga'ko bidea erakustea.

Agidanean, artzaia bildurtu egin zan gizon armatu ura ikusita, eta onela esan zion:

– Eguraldi txarra dator eta aziendak bildu bear ditut, ordea.

– Aziendak beren gisa utzi eta atoz nere aurretik bidea erakusten.

Ez dago gizon armatu baten esanetara jarriko ez danik, eta abiatu ziran artzaia aurretik eta Diostegi ori fusillarekin atzetik. Bide puska bat ibili ta gero, onela esan zion artzaiak:

– Adiskidea, neretzat diferentzi aundia dago zurekin joan edo aziendak bildu. Igo zaite or aurreko gain ortara (Mandoegi mendiko tontorrera), ta segi gero gaiñez-gaiñ. Onyi mendia ikusiko dezu; eta, ara irixtean, jetxi besterik ez daukazu, Fagollaga'ra joateko.

Baiña Diostegi'k onela erantzun zion:

Iturria: Auñamendi Entziklopedia

– Bi urte auetan makiña bat buelta eman izan det mendi auetan; baiña beti toki ontara atera naiz, bidea ezin asmaturik. Segi, bada, gelditu gabe. Jarraitu zuten, beraz, aurrera, artzaia aurretik eta Diostegi fusillarekin atzetik. Gaiñez -gaiñ zijoazen, ezker-eskubi Leizaran eta Urumea ibaiak zituztela, mendi-tarte sakon eta estuan biak ere.

Bide luzea ibilita, iritxi ziran Lepatxiki'ra. Andik Fagollaga ikusten da.

Artzaiak esan zion:

– Ara: orixe dezu Fagollaga.

Eta Diostegik:

– Bai; ortxe da nere jaiotetxea.

Baiña gero, segituan, onela esan zion:

– Fusil ontako kargazoiak gizona nola iltzen duan ikusi bear det orain.

Eta tiroa tira eta artzaia il zuan. Gero, etxera abiatu zan.

Urte asko igaro ziran. Diostegi ori oso zaartua zegoan: gorputza makurtua, eta ibili ere bi makulurekin egiten zan, anka ankari ezin aurreraturik. Larogei bat urte zituan. Bakarrik bizi zan. Eskean-da ibiltzen zan. Iñork etzuan maite.

Aurrak ere aren bildurrez egoten ziran. Zearo gaiztotua zegoan. Mundu ontako gauzak jakin egiten dira eta, nola edo ala, jendeak bazekian Diostegi zala artzaia il zuana.

Egun batean, Txirrita Fagollaga'ko tabernan zegoan. Izbidea ola etorrita, Diostegi ortaz ari ziran izketan. Bazekiten nunbait ara etorriko zana eta onela esan zuan Txirritak:

– Batere biotzik baldin badu, jo gabe ere jarriko det nik ura marruz.

– Naiko lan! Zearo gogortua ziok ori.

– Bai. Jo gabe jarriko det nik ura marruz, sartu bezin laister. Gogoratuko zaio oraindik ere.

Alako batean, sartu zan Diostegi ori eta esan zuan:

– Egun on!

Baiña inork etzion ez «baita zuri ere» esan, ezta ere kasorik egin. Jendea ixil-ixilik zegoen, Txirritak zer esango zion zai. Diostegi'k baso aundi bat ardo artu zuan, eta maiera alderatu zan, basoa eskuan zuala. Orduan, bat-batean, bertso au bota zion Txirritak:

Larogei urte pasatu ditu
dirudiyela etsaya,
orain bi ankak arrastaka ta
burua soiltzen asiya;
gizarajuak badu beregan
makiña bat desgraziya,
ez dago garai batian bezin
arrua eta lasaya,
beste munduan ikusiko du
emen il zuen artzaya.

Diostegi'k onela esan zuan orduan:

– Zergatikan etzidan bidea erakutsi bear neri?

Baiña oraingoan ere etzion iñork erantzunik eman. Danak ixil-ixilik eta begira zeuden. Taberna guztian etzan txintik ere aditzen. Eta Txirritak beste bertso au bota zion:

Kulparik gabe bota zenion
fusillako kargazoia,
gizon gaxuak aserretzia
ez al zuen arrazoia?
Diabru zarrak aditzen dute
zure animan usaia,
eriotzaren etor-bildurrak
estututzen du lasaia,
zu baño gizon formalago zan
zuk il zenduen artzaia.

Orduan Diostegi'k, *dakl,* maiean basoa kolpean utzi ta alde egin omen zuen. Andik egun asko gabe il omen zan.

Gertaera: Bizente Oiarbide. Txilibita baserria, Ereñozu, Ernani. Aitari entzun zion. Ama Txirritaren lengusua zuan. Txirrita urtero izaten zuten etxean bazkaltzen San Antonioetan.

Bertsoak: *Txirritaren Testamentua.*

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

TXIRRITARI OMENALDIAK

Txirritaren omenaldia, 1936an Errenterin. Ezkerretik eskuinera: Eserita: Alkain, Lexo, Aitzol, Txirrita, Basarri, Alkain (semea), Txapel. Zutik: Hernandorena, Saiburu, Garmendia, Telletxea, Idiazabal, Zubimendia, Lizaso, Arzelus, Gaztelumendi, Olaizola, Uztapide. Iturria: Auñamendi Entziklopedia.

1936 ERRENTERIN

Txirritari eskeiñitako omenaldi ori, 1936-III-22'an egin zan. Egun artako berri, *Luzear'ek* eman zuan andik bi egunera *El Día* egunerokoan. Idazlan luzea baita, ezin jarriko degu emen dana, baiña zati batzuk bai:

Txirrita baldartua eta autamobillean ekarri zuten. Errenteri'ko elizak ar-malla edo eskallera asko ditu. Ain zuzen, 1895 urtean berritu ziranean, Txirrita ere antxe jardun zan lanean. Baña, bere bi makuluren laguntzagatik ere, oso nekez igo zituan orain Txirritak. Meza nagusia, ildako bertsolarien animengatik eskeñi zan. Meza ondorenean, zenbait euskal erritan oi zan antzera, txistulariak euskal doiñu batzuk jo zituzten kontzejupean.

Amabiak laurden gutxiagotan, teatrora. Ager-tokian, erdi-erdian jarrita, bere patriarka zaar itxurarekin, Txirrita. Bere inguruan zenbait bertsolari: Lujanbio edo Saiburu; Telleri-Txiki, Alkain aita-semeak, Uztapide, Lexo, Basarri ta Txapel. Baita euskaltzale-mordoska bat ere.

Aurrena, Jose Ariztimuño apaiz jaunak, *Aitzol'ek* alegia, itzaldi bat egin zuan: Txirrita, bertsolarien erori-aldian, antzu-aldian, guzien eusle, buru, biotz eta maixu izana zala, eta bertsolari guziak aitortzen ziotela maixutasun ori; bertsolariak diran bitartean gure erria ez dala ilko. Beste orrelako gauza asko esan zituan, Txirrita eta bertsolari guziak goratuz.

Urrena, Bitor Idiazabal'ek, Errenderi'ko *Euskaltzaleak* alkartearen lendakariak, makil eder bat eskeiñi zion Txirritari. Makillaren esku-lekuaren inguruan onela zion: *Errenteriko Euskaltzaleak Txirritari,1936'go Epailla'k 22.*

Ondoren, bertsolari guziak bertso pare bana bota zioten, aren bertsotarako trebetasuna goratuz eta leenagoko bi makillen gaiñetik irugarrena zertarako ote zuan galdetuz. Jende tartetik ere izan omen zan beste bertsolari baten erantzuna.

Txirritak bi bertso kantatu zituan, bere makil berri ura gai artuta.

Emen geienak bazenekiten
ni nola neguen eri,
orregatikan bastoi eder au
eman dirazute neri;
au ikusi nai duenak orain
ondo beiratu berari,
erromatarrak bentzitutako
lizar makilla diruri.

Irurogei ta amasei urte,
garaia det umiltzeko,
bultza bearrik ez nadukake
goitik bera amiltzeko;
bi makil oiek aski nitun nik
munduz mundu ibiltzeko,
irugarrena andregaiari
arkakosuak iltzeko.

Andik atera eta bazkaria. Eta, bazkaldondoan, bertsolari guziak kantu-lanari ekin zioten. *Luzear'ek* onela dio: «Ango bertsoak jaso izatera, gaurko izperringi osoa txikia genuke guzientzat. Kilometroka neurtzekoa zan atzoko etorria».

Uztapide zanak, bere *Lengo egunak gogoan* liburuan, omenaldi onen berri ere ematen du. Egun artako bazkalosteko saioaz onela dio:

«Bazkal ondoan beste saio bat egin genduan bertsotan. Gozatu genduan Txirrita ta beste an ziran jendea. Onela jardun genduan Txirritak eta biok:

Uztapidek:

Zure bertsua beti izaten da
garbia eta klarua,
estimatzeko modukua da
zuk daukazun zartzarua;
zu bezelako aita batekin
gaztientzat anparua,
ankak piska bat makaldu arren
argi daukazu burua.

Txirritak:

Nere arteko pasadizua
esaten biet abitu,
zuri ez dizu kalte egingo
eta mesedez aditu:
reuma gaiztuak arrapatuta
elbarri nintzan gelditu,
neri gaitz ori eman ziranak
zuretzat ere baditu.

Ondoren, txistulariak, dantzariak eta pelotariak izan ziran. Urrena, bertso-saioa berriz ere. Eta, azkenik, euskal erromeria. Egun artan eskeiñitako makilla, oraindik ere gordetzen dute Txirritaren illobak, osabaren oroipengarritzat.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

1935 EREÑOZU

Gure aitak (Joxe Oiarbide, 1912an jaioa) Txirritarekin zeozer amistadea izango zuen, baina oso gaztetan. Txirrita eta Paulo Txikiarekin kantatu zuen, Txirritari lehen omenaldia egin ziotenean, Ereñozun. Paulok 17 urte zituen eta gure aitak, Afrikatik soldaduskatik etorri berria, 23 urte. Gureak ez zuen segitu bertsotan. Txirrita bizirik ezagutu zuen, gure aitak 29 urte inguru zituenera arte.

Aita Zavalari Txirritaren bertso idatzi asko eman zizkion gure aitak. Bertso asko zekizkien buruz.

[**Florian Oiarbide**]

1963 HERNANI

Txirritari lehen omenaldia egin ziotenean Hernanin, goiko plazan, han kantatu omen zuten Basarrik eta Uztapidek, eta bertako Altxok eta Bixente Arriurdinetakoak ere bai.

[**Florian Oiarbide**]

1963 EREÑOZU

1963'ko urriaren 20'an, omenaldia egin zitzaion Txirritari Ereñozu'n. Baita ere oroitarri bat, bere irudiarekin, Latze baserriaren pareta zaarren ondoan ezarri.

[**Antonio Zavala**, Txirrita liburua]

TXIRRITA IKUSI ZUTENEKOA

Txirrita hiru aldiz ikusi nuen bertsotan: bitan Ereñozun eta bat Hirubidietan. Epelera ere etortzen zen tarteka tarteka, baina Epelen ez nuen sekula bertsotan ikusi. [**Antonio Zubiarrain**]

Nik bi aldiz ikusi nuen Txirrita Ereñozun: batean Paulo eta Saibururekin aritu zen kantuan. Beste urtean Telleri-Txiki, Errenteriakoarekin aritu ziren.

Gai librean aritzen ziren. Ereñozuk kamio izkinan iturria zuen lehenago, aska bat bezala, koska batekin. Han jartzen zuten barrika bat eta handik bertsolari bat aritzen zen, kamio izkinatik, eta beste bertsolaria Txokolatenea etxetik.
[**Antonio Zubiarrain**]

Tiloetan, bazen harrizko kiosko handi bat, eta han ikusia nago ni Txirrita kantatzen. Ereñozun eta han, bitan ikusi nuen nik Txirrita, hamabost egunen barruan. Sei urte nituen. Berriz ikusteko amorratzen nengoen, eta hil egin zen.

Oraindik begitan daukat nola hasi zen Ereñozuko eliza frenteko etxe hartan. Bestea, Saiburu, eliza frentean zen. Ez zen orduan aparaturik (mikrofonorik), baina adierazten zuten. San Antonioak ziren, eta jendea biltzen zen entzutera.

Tilosetako hartan baziren gehiago, lau bat bai, baina zein ez dakit. Jende asko biltzen zen entzuteko. San Joanetan kantatu zuen azken aldia zen, urte hartan bertan hil baitzen. Hortxe ikusi nuen Paulino Uzkudun. Hortza gorriekin, eta espalda zabalekin, ederra gizona. Beregatik aritu ziren, "kanpeon" eta esango zizkioten. Zilarrezko duroa bota omen zion Txirritari.
[**Pedro Joxe Mujika "Anatx"**]

Amonak (Maria Antonia Rekalde) kontatzen zuenez, gaztea zela behin kalean pasa eta jende pila bat omen zegoen balkoira begira. Han ikusi omen zuen gizon buruhandi bat; Txirrita omen zen, horren irudia zeukan. Baina ez zuen aprezioz kontatzen eszena hura. [**Itziar Eizagirre**]

PELLO ERROTA ETA TXIRRITA EMANALDIA

Txirrita kantuan.

Jexux Mari Irazu: "Ni Pello Errotaren paperean aritu nintzen, Txirritak bazeukan berezkoa, Unai Agirre".

Asteasuko emanaldia Sarasola sagardotegian egin genuen Joxean Goikoetxea eta Idoia Noblek musikaz lagunduta. Tartean bat-batean egin genuen, bertso jarriak kantatu ere bai, bertsotan kupela artean... saio polita egin genuen, berezia izan zen. Pello Errotaren urteurrena zen eta Pello Errotaren etxean jokatu genuen. Gero Txirritaren etxera etorri ginen, Eizmendi sagardotegira, baina desmadratuxeago atera zen.

Gero, Txirrita hil zeneko 70. urteurrenean, Kultur Etxetik eskatu ziguten ea emanaldi bat egingo genuen. Ederra izan zen. **[Unai Agirre]**

Ikusi genuen bertso on ikaragarri zeukala Txirritak eta gaur eguneko tematikari buruz kantatzeko ere aukera ematen zuen. **[Jexux Mari Irazu]**

Txirrita bukaerarik ez duen almazena da, gero eta gehiago arakatu, gero eta gehiago aurkitzen da, eta joko handia eman zigun. Gainera biok harrapatu gintuen zerbait egiteko gogoarekin eta bertso jarrietan saiakera egin genuen. Lehen aldia zen bertso musikatuekin zerbait egiten nuena, eta asko erakutsi zidan kantatzen. Baita gerora bat-batean kantatzeko ere. **[Unai Agirre]**

Beldurtu egin nintzen ibilbidea luzatzearekin. Estetika bat zuen saio hark, Txirrita jantzita ateratzen nintzen, bere 70. urteurrenean zentzua zuen, baina handik kanpo beldur pixka bat ematen zidan, saioak behar ez zuen izaera hartuko zuen. Eta saioetara joateko denbora ere behar da. Nik uste momentu onean moztu genuela. **[Unai Agirre]**

Pena ez genuela itxurazko grabazio bat egin. **[Jexux Mari Irazu]**

1940-1960

Ilunpea eta pizkundea

1936ko irailetik aurrera kasik Gipuzkoa osoa atzeguardian geratu zen. Hernani errepresio gune nagusi bilakatu zen udazken horretan, gauero hamarnaka lagun fusilatzen baitzituzten kanposantuko paretan, gehienak Ondarretako kartzelatik "libre" atera eta gero. Ez dira gutxi gau zital horiez herritarren memorian gordetako istorioak: tiro hotsak, odol arrastoak, hilotzez beteriko zabor gurdiaren gurpil soinua... Beldurra, horixe sentitu zuten gehienek une horietan, nori aldaba joko, zein atxilotuko.

Errepresioa jendarteko arlo guztietara iritsi zen: kartzela zigorrak, derrigortutako lanak, purgak, konfiskazioak... asko izan ziren euren etxeak eta ondasunak inkautaturik ikusi zituzten hernaniarrak. Emakumeek zigor espezifikoak eta umiliazio publikoak jasan behar izan zituzten. Gerraosteko urte horietan emakumeen papera oso garrantzitsua izan zen; kasu askotan eurak bakarrik atera zuten familia aurrera, gizona hilda edo kartzelan zelako. Arrazionamenduaren ondorioz sortutako gose eta beharrak merkatu beltza sustatu zuen eta estraperloan aritzen ziren emakume errekarderak asko ziren.

Bigarren Mundu Gerran, Ipar Euskal Herria eta Frantzia osoa nazien esku geratu zenean, kontrabandoan aritzen ziren horien esperientzia oso baliagarri izan zen mugalari lanak egiteko. Hernanin, Comète sareak funtzionatu zuen 1941etik 1944ra. Abiadore ingelesak Belgikatik Espainiara eramatea zuen helburu erakunde klandestino horrek eta hainbat hernaniarren laguntza giltzarri izan zen, horietan ezagunena dugu Florentino Goikoetxea, Altzueta baserriko semea.

Alemanen porrota gero eta gertuago zela, nolabaiteko esperantza zegoen aliatuek Francoren kontra egingo zutela. Baina ez zen halakorik gertatu. AEBen eta Sobietar Batasunaren arteko tentsioa tarteko, Espainiako diktadurarekiko hasierako gogortasuna lausotuz joan zen, 1955ean Nazio Batuen Erakundean onartu zuten arte. Urte gogorrak izan ziren euskal erresistentzia antifrankistarentzat, are gehiago Jose Antonio Agirre lehendakaria zendu zenean. 1960an abertzaleek hondoa jo zuten.

Hala eta guztiz ere, aparatu frankistaren kontrolpetik eta zentsuratik ihes egiteko moduak bazeuden. Herri gehienetan elizari loturiko taldeen bidez lortu zuten euskalduntasuna adierazteko ekitaldiak antolatzea. Hernanin luistarren kongregazioa izan zen aktiboen, bere inguruko taldeek pilota partiduak, jaialdiak, antzerkiak, koroak eta abar antolatu zituzten eta honen baitan batu ziren gerraurreko eta gerraosteko hainbat abertzale, Juanito Olano edo Tiburtzio Odriozola kasu. Azkeneko honen bultzadaz hasi ziren 1962an Santa Agedako erronda egiten, oraindik ere kopla bidez eskean segitzen duen abesbatza.

Euskararen egoera tamalgarria zen frankismoaren urte ilunenenetan, etxeetan zokoratuta zegoen eta etorkizuna beltza ikusten zen. Euskal Herrian baziren hainbat erakunde gerraren ondoren berregituratu ahal izan zirenak, horietako bat Euskaltzaindia izan zen. Euskararen arauketa antolatzeaz gain, 1956ko biltzarretik aurrera zabalkundeaz ere arduratu zen eta horren ondorioz Bertso Txapelketa Nagusiak antolatzen hasi zen 1960an. Urte horietan Gipuzkoako Bertso Txapelketa ere ospatzen hasi ziren, 1962ko finala Hernaniko Aitor Zineman egin zen, jendez lepo zela.

1960ko hamarkadan nolabaiteko euskal berpizkundea gertatu zen, lehen ikastolak sortu ziren –Hernanin Enseñanzas Urumeak 1962an ireki zituen ateak, Elbira Zipitriaren arrastoari segika– eta kantagintzan Ez dok amairu gisako taldeak agertu ziren. Arlo politikoan ere mugimendu nabarmenak antzematen ziren. Jeltzaleen katarsia ezin eramanik gazte ugarik sortu berria zen ETA erakundearekin bat egin zuen. Pintaketak egiten eta ikurrinak klandestinoki zabaltzen hasi ziren, herriko paretetan eta mendi ibilaldietan... ez gutxitan agertu zen Hernaniko hilerrian ikurrina honako leloarekin: *Arerio maltzurrak zuek bazterrean utzi arren, Euzko Gogoan toki berezia daukazue.*

ETAk bere ekintzak bizkortu ahala, frankismoaren errepresioa basatiago bihurtu zen. 1970eko hamarkada Burgoseko prozesuarekin abiatu zen, hainbat preso politiko heriotza zigorrera kondenatu zituzten eta horri erantzunez mobilizazio handiak izan ziren Euskal Herrian eta mundu osoan. Hernanin istilu larriak gertatu ziren Santa Barbara inguruetan. Francok abenduaren 30ean indultua eman zuenean, erregimena garaitzeko aukera bazegoela ikusi zuten askok.

URKO APAOLAZA AVILA

SETIENDARRAK
PATRIZIO SETIEN, IEROLAKOA

1909an jaioa

Kristoren aitona omen zen, nik ez nuen ezagutu. Gerran alde egin eta gero Etxegaraten egon zen mikelete eta Irunen jarri zen bizitzen.

Irunen txapelketan (Patriziok 41 urte zituen) Basarrik puntu hauek jarri zizkion, hain handi ikusita:

Asko jaten al zendun
gaztia zinala?

Harrapatzen nun tokitik
beti eginahala
hoinbestekua ez nintzan
hazi berihala
amak zion mantentzen
aspertu zirala.

[**Florian Oiarbide**]

Onak izango ziran
zure gurasuak...

Bai, onak ziran baina
hil ziran gaixuak
Jaunak izango ahal ditu
zerura jasuak!
eta handik entzuten
semian bertsuak.

Bertsolari ederra: Patrizio Setien. Gizon galanta zan ura. Eun da ogei ta amar kilo pisatzen zituan, eta etzan ala ere gizon parregarria.
Ura ere Ereñozu ballarakoa zan jaiotzaz. Arekin kantatu izan genduan iñoiz Irunen; ura an bizitzen zan, ba.

[**Manuel Uztapide**, Lengo egunak gogoan]

Pagoaga baserrian Lizeaga "Kizkurra" zen nagusia eta egur lanean ibiltzen ziren. Fabrika guztietan izaten da bat xelebre xamarra, eta Agustin Errekaldeko hura han, beti denen alkahuete, saltsa jartzen aritzen zena. Baten batek esan omen zion Patriziori "hori, ardiarekin larrutan ari zen lehengo igandean!", akaso kontua izango zen dena. Eta etxerakoan, bazkaltzera zihoazela, jartzen omen da eta:

Alperrikan da denbora joanda
gero egotia penetan
orain artian gezur ta saltsa
libratu zera danetan
ez al dakizu ze ibili zeran
lehengo igande horretan?
gizonak eztu ondo ematen
ardiarekin larrutan.

[**Florian Oiarbide**]

SETIENDARRAK
INAZIO SETIEN, ZINKOENEAKOA

Ernaniko Zinkuaneko Inazio Setien ere an izaten da (Ereñozuko saioa entzuten). Ura ere ez da txarra.

Batean bota zion Jose Inporruri bertso ederra, Irundik gentozela trenean. Aiek biak eta Basarri ta ni gentozen, da, lastima, dana ez nion artu, baña erdia gogoan daukat orain ere:

Begiratuta ematen dizut
gizon kaskarren itxura,
eltzen badizut ipur-zakutik
botako zaitut putzura.

[**Manuel Uztapide,** Lengo egunak gogoan]

LEXOTIK ERNANIKO INAZIO SETIENI JARRIAK

1
Zinkoene'ko Inaxiori
nago itzegin biarra,
ez da bertako seme ain zuzen
baño bai ernaniarra.
Sal-erosketan balio du ta
atera dio kiarra,
mats gozuaren mama salduaz
artua dauka indarra.

2
Aspalditxuan ezagutzen det
nik Inaxio Setien,
lengo batian nere lagunei
gauza bat entzuten nien:
guk bere ondra jarri nai degu
apalian txukun goien,
gure sendiko bat izan ezik
ori maite degu geien.

3
Tratante ere ibilli ziñan,
ez dezu etxerik galdu;
joan da Kastilla'n beiak erosi
ekarri ta emen saldu.
Mesede asko iñori egin
ta bera ondo azaldu,
lagun urkoa maite duanak
zerbait merezi ez al du?

[**Iñaki Arbelaitz Gelbentzu, Miren Mitxelena Belauntzaran, Joxe Anjel Arbelaitz Irastortza, Mariano Ostolaiz, Antonio Zavala,** Lexoti bertsolaria, Auspoa 157]

JOXE MANUEL UGALDE

1920ko hamarkadan jaioa - 2010ean hila

Ugalde aita-semeak (Joxe Miel eta Joxe Manuel) aritzen ziren bertsotan. [**Julian Albistur**]

Ez zen plazan ibili, baina bertsotan ondo egiten zuela esaten zuten. Epelen bizi zen. Elf Atochemen egiten zuen lana. [**Florian Oiarbide**]

Bertsolari ederra zen hura, e! Boza ederra zuen. Bere aitona zen Juan Mari, Txirritaren bertsokoa "Joxe Mari ta Erramun hilak, Juan Mari ta ni biziak". Epeleko Ugaldetarrei Kubako gerran soldaduskarako deitu zieten. Bi anai ziren (Joxe Manuel eta Joxe Martin), eta anaietako batek bi metro eta bost zentimetro zituen eta besteak bi metro eta bederatzi zentimetro. "Luxiatarrak" izena hortik omen dator. [**Antonio Zubiarrain**]

BERTSOLARI HANDIEN ZIURTAGIRIA

Batean Paulo anaiak eraman zuen bodegara eta Txirritarekin saioa egin zuten. Gustatu zitzaion Txirritari. Baina ez zuen barrenik plazan ibiltzeko. [**Antonio Zubiarrain**]

Dozena bat urte nituela, Epeleko Etxeberri jatetxe ospetsua zen. Basarri eta Uztapide han ziren bazkaltzen eta Joxe Manuel Ugalde ere han tokatu, eta bertsotan arituak izan behar zuten. Basarri eta Uztapidek esaten zuten "Joxe Manueli lagunduz gero bertsotan egingo likek". Baina taberna giroan eta aritzen zen. [**Julian Albistur**]

ANDREGAIA

Oiartzunen, Otsozuluetako ondoan zuen Altamugarri baserria. Hau bere puntu erantzun bat da:

Joxe Manuelek Altamugarrin
andregaia bazun

Eta besteak erantzun:

Nik nahi nion baina
berak nahi etzun
geroztikako guzian
ari naiz errezun
fraile sartu bihar det
laster Arantzazun.

[**Florian Oiarbide**]

JUAN MARKO "ALTXO"

1930ean jaioa Etxola-berriko Minetan - 1998an hila

ALTXOTARRAK

Jose Maria Marko (Lizartza) eta Anbrosia Otxotorena (Hernani, Ierola), hiru umerekin joan ziren minetara, 1918an, Goizuetatik; ume txikiena, jaioberria zuten. Azkeneko sei umeak han jaio ziren, minetako etxean (Benta Mudaz zuen izena).

Marko, abizenez, baina auzoan, Altxo dute izengoitia. Aitari jarritako izengoitia omen da, eta gero, familiari gelditu. (Luisek kontatzen duenez) «Aitari 'Altxo' izena jarri zioten, eta gu Altxokin gelditu ginen. Altzoko Haundia ba omen zen, eta gurea berriz txikia zenez, burlaz jarri omen zioten Altxo. Eta Altxokin gelditu».

«Juanitok, nire aurreko anaiak, bertsotan asko egiten zuen. Boza ere ederra zuen hark! Baina plazatan ibiltzea ez zitzaion gustatzen. Tabernan gehiago; juergista xamarra zen. Bertso onak bazituela badakit». Bai izan ere. Oso-osorik ez dugu lortu, baina bertso zati bat bai, Juanito Altxok bere jaiotetxeari jarria. Florian Oiarbidek kantatu digu, Dionisiren semeak, Luisen ilobak:

Ni bizi nintzan Hernanik duan
etxerik urrutinian
handik ez zegon ateratzerik
kotxian edo trenian
....
....
oinetakuak hausteko beldur
hanka hutsik gehienian.

[**Eñaut Agirre**, Hernaniko Urtekaria 2011]

Altxo hori nire amaren anaia zen. 20-21 urterekin ibili zen txapelketetan.

Xoxokan kantatzeko deitu zioten Altxori, Legarraldeko Mielekin, txapelketaren ondorean.

Nik ezagutu nuenean ez zen aritzen, oso gazterik utzi zion hark.

[**Florian Oiarbide**]

BASARRIRI PUNTU ERANTZUNA

Basarri puntu jartzen zen Irunen txapelketan, eta ez orain bezala paperean idatzita. Bat-batean jartzen zituen puntuak. Gure osabari jarri zion bat:

Lehenbiziko premiyua
espero al dezu?

Ez, bertsolari txarra
etorria nazu
hobeak badirala
zeorrek badakizu
baina pozik hartuko det
ematen banazu.

[**Florian Oiarbide**]

Juan Marko oso bertsolari polita zen, eta Basarrik esaten zion "atera egin behar duk!" baina bestea lotsatia zen eta ez zuen nahi izaten. Baina lagunartean bertso dotore askoak botatzen zituen. [**Inaxio Mari Zubeldia**]

Juan Marko Altxo bat-batean baino gehiago idatziz aritzen zen. [**Julian Albistur**]

TXIRRITARI JARRIAK

1
Berrogeita hamar urte
zu mundutik joanik
orduan mutikoa,
sei ez nituan nik.
Auzokoa maisurik
haundina izanik
ezagutu gabe hil
ez det beste penik.

2
Zu gure artetikan
juan ezkeroztik
asko mututu ziran
bertso ta abestik
ekaitzaren menpean
ilunpetan guztik
etzegon izaterik
euskaldun artistik.

3
Ondoren hura etzan
izandu trankila
hemengo militarra
ta horko zibila
zu hiltzeko ibili
omen ziran bila
igual hilko zinuten
ez bazinan hila.

4
Herrian jarri ziran
agintzen arrotzak
besterik ez zuten nahi
danak mingain motzak
euskaldunari bide
estu ta zorrotzak
eta agudo kendu
bizkarreko hotzak.

5
Orduan bertsolarik
gai txarrena zuten
ikusi egin behar
zein zeuden entzuten
orain hasiak dira
egiak esaten
garai batean etzan
hau libre izaten.

6
Gizon argitan dago
gaur bertsolaritza
zuk hemen utzitako
diamante printza
ate haunditik sartu
nahiean dabiltza
eskuratuko dute
ate horren giltza.

[**Txirrita,** 50.urteurrena liburua]

AITORKETA BAT

1
Berpizkunde egunez
urteroko era
asmo sendo batekin
joanak gera
Ama bixitatuaz
Aloña gainera
anima gaixoaren
kargak arintzera
jaun baten aurrera
euskalduna bera
hark neri galdera:
"ezkongai al zera?"
hortaz hitz egin degu
gogor antzera.

2
Mutilzahar nagolako
hasi zan hizketan
galdezka zer egina
naizen gaztetan.
Garbi aitortu nizkan
ez nago kezketan
oker haundirik gabe
neronen ustetan
libre nintzanetan
hainbat jolasetan
lanera askotan
jai arratsaldetan
etzan gaurko girorik
garai haietan.

3
...
lagun eta anai
gaudenak ezkongai
neskatxak ere nahi
askotan dantzatuaz
izerditan blai.

4
Danok ez degu hemen
suerte berdina
etortzen dana hartu
hori jakina
batzuek saiatua-
gatik ahalegina
igual izan liteke
topatu ezina
badet nere mina
izateko dina
neska bat birjina
moja aldegina
nunbait etzan neretzat
Jaunak egina.

5
Gainera, bai al dago
danok ezkontzerik?
gaiean egon behar
tontoak berik
horregatikan hemen
gera pekatarik
ez dago ba munduan
jende eskasirik
beltzak eta zurik
erdiak goserik
bestean pausorik
ezin ikusirik
elkar jan beharrean
bizi-bizirik.

6
Askotan egoten naiz
gauza bat pentsatzen
baina ez da erreza
ondo kontatzen
gizonok ari gera
mundu hau ondatzen
ez degulako behar
bezela jokatzen
baserriak aitzen
zer jana urritzen
kaleak hazitzen
jendea ugaritzen
zaila da luzaroan
hola segitzen.

7
Askok pentsatu gabe
egiten du parra
topatzen duanian
ezkongai zaharra
baina ez da nahikoa
uztartu bakarra
gero seme-alabak
datoz barra-barra
lanera senarra
etxean negarra
gau bizitza txarra
eta laister gerra
anaiak alkar hiltzen
hasi beharra.

8
Dibortziorik ezin
dala debekatu
mutilzahar gelditzea
berriz pekatu
horra gure dotrina
erabat aldatu
ikasitzen ez ginan
alperrik nekatu
orain modan hartu
alkar engainatu
egia ukatu
gezurrez jokatu
gehiegi esan gabe
nahi det bukatu.

SEBASTIAN SALABERRIA

1915ean jaioa, Oiartzungo Elbitxuri baserrian - 2003an Hernanin hila

Ezkerretik eskuinera: Martzelino Manterola, Sebastian Salaberria. On Manuel Lekuona, Iñaki Arbelaitz eta Mariano Ostolaitz, 1984-an.

Iturria: www.euskaraz.net



AITA BERTSOTAN

Ni ez naiz oroitzen gauza ontaz, baña, nere anai zarragoak esan didatenez, gure aita zana ere bertsotan aritzen omen zan gaxotu baño lenago, eta neri ere oso gazterik sortu zitzaidan bertso-zaletasuna.

[**Sebastian Salaberria**, Neronek tirako nizkin]

SARIAK

1963-garren urtean, Ernani-n, Txirritaren omenaldian, lenengo bertso -paper txapelketako sariak banatu ziran. Bigarrengoa Salaverria-k jaso zuan Ama Euskerari jarritako bertsoekin. Mikrofonora alderatu ta bertso polit bat kantatu zuan, eskerrak emanaz.

Orain illabete pare bat, berriz, bigarren bertso-paper-txapelketan ere bigarren saria irabazi zuan, Donostia-ko Manuel Machain eta Isasondo-ko Jesus Lete-kin batera. Ontaz gañera, badu beste zenbait bertso inprentatuta, eta asko eta asko paperean jarririk. Orain, berriz, Agora-ren nobela-saria irabazi du, bere lenengo nobelarekin ("Neronek tirako nizkin") beste seiri eraginda.

[**Antonio Zavala**, Neronek tirako nizkin]

MORROI

Donosti-ko Antigua-ko partean dagoan "Artola" izeneko baserrira joan nintzan morroi. (...) Andik atera eta bereala jakindu nuan Donosti-ko Ayete ballarako "Azken-Portu" izeneko baserrian morroya falta zala, eta araxen joan nintzan. (...) (lana gutxitu zen baserrian); neroni ere geyenetan diru-premian arkitzen nintzan, eta beti morrontzan ere aspertuta negoan, eta egun batez esan nion:

– Aizu, Juan Mari: nik laister soldadu joan bear det, eta txanpon batzuk irabaztera norabait joan nai nuke ba.

Eta erantzun zidan:

– Bai, motel: emen gu biontzako lan gutxi zeukagu, eta nai baldin badek, nunbait asi adi.

[**Sebastian Salaberria**, Neronek tirako nizkin]

TRANSPORTISTA

Alaxen, egun batez Donosti-ko Patxi Erdozia jaunarengana joan nintzan. Jaun au transportista zan, eta Donosti-ko gas-fabrikako ikatzak kayean baporetik artu eta bere kamioyakin ekartzen zituan. (...)

Garai artan Hernani baporea zan fabrika ontarako Asturias-tik ikatza ekartzen zuana. Amabostean bein edo ola etortzen zan, eta ura ustutzen lau bat eguneko lana izaten genduan. Gañerako egunetan etxean baserrian jarduten nintzan nagusiari laguntzen. Gero Hernani baporea desegin zuten zarra zalako, eta andik aurrera ni egunero ibili nintzan Erdozia-rekin, gerrara joan nintzan arte.

Amar pezta irabazten genduan eguneko soldata, eta etxean astean ogei pezta pagatzen nuan, eta goiz-illunabarretan etxeko lanetan lagundu. [**Sebastian Salaberria**, Neronek tirako nizkin]

DONOSTIKO UDALEKO LANGILE

(Gerran hanka galdu eta) Geroztik beti Donosti-ko Ayuntamentuaren serbitzari izan naiz, orain aspaldi ontan nere eginkizuna Oriamendi-ko uraren depositua zaitzea dala.

Ala, ezkondu ezkeroztik mendi aldean bizi gera, seme bat eta bi alabakin. Gure etxe au oso leku paketsu eta alayean egiña dago, Ayete ballarako Oriamendi inguruan. [**Sebastian Salaberria**, Neronek tirako nizkin]

Azken 15 urteak Hernanin egin zituen. [**Juanjo Uria**]

TXOMINENEAN

"Garai artan Loyola-n Txomin-enean billera egiten zan. Esku-soñua jotzen zuten, eta an ibiltzen ziran neska ta mutil dantzan, eta ni ere igandeetan araxen joaten nintzan nere lagunekin". Iturria: loiola.weebly.com

"Txomin-enean puxka batean ibili eta gero Ernani-ko tranbean Donostira; eta emendik Ayete-ko Munto baserrira. Emen sagardoa saltzen zuten, gaur ere saltzen duten bezelaxe: eta merienda pixka bat egin eta etxera danok zintzo, urrengo goizean ere lanera joan bear baitzan". Iturria: donostia2013.wordpress.com

JOSE LUIS LEKUONA "LEXOTI"

1925ean jaioa Oiartzungo Maixta Borda baserrian - 2006an Ereñozun hila

Bere aitonak morroi lanak egin zituen Lezoti izeneko baserri batean, eta izengoiti hori jarri zioten. Ondoren bere aitari ezarri zioten izengoiti bera, eta azkenean Jose Luisi egokitu zioten.

Aitona bertsotan ibilia zen, eta aita ere bai; aita, maiztasun txikiagoarekin. [www.eu.wikipedia.org]

Aitona ere bertsolaria genuen, hura gehiago esaten zuten, eta osaba ere bai, osaba Manuel, baina nik ezagutu nitueneko gutxi egiten zuten. Gure etxean gutxi egiten zen, igual nahiago zuten ni ez ibiltzea baina nik afizioa banuen eta...

[Argia, 1989-01-15, 1.228 alea]

Joxe Luix Lekuona "Lexoti" bertsolariaren erretratua, Aierdi baserri aurrean 1985. urtean.

Argazkia: Ainhoa Fraile.

Iturria: Oiartzun; Udala Informatzen Aldizkaria.

LANAK

Oiartzunen eman zioten barrendero plaza eta hor ibili zen. Mitxelenak esaten zuen "sekula lan egin gabea eta orain barrendero jarri zutela", eta euren zirikatzeak bazituzten. [**Florian Oiarbide**]

Lan askotan ibili zen, ez zuen sekula lan finkorik izan. Mendiko guarda, hargin, kanalak ebakitzen, garraiolari, kale garbitzaile eta bertso saltzaile lanetan ibili zen.

Ni Oiartzun'en nabil
kaleak garbitzen
erria serbitzen;
onela ikusi ta
zaude errukitzen.

Bañan ezkontze ori
ez dizut agintzen,
leku obeagorik
ez baidet arkitzen;
emen gutxikin jakin
bear da bizitzen.

[www.eu.wikipedia.org]

BERTSOTAN

15 urtetan hasia, bera baino zaharragoekin, sagardotegietan trebatu zen bertsotan. 21 urterekin aritu zen lehen aldiz jendaurrean, Oiartzungo Iturriozko plazan Joxe Torreskoa, Anbolatzko Joxe Luis Jaungoikoa eta Joxe Joakin Mitxelenarekin. Handik gutxira herritik ateratzen hasi zen, eta adibidez, Astigarragara bizikletan joaten zen beti Mitxelenarekin.

Garai hartan Basarri, Uztapide, Zepai, Mitxelena, Saiburu, Lexoti eta Elio ziren plazan nabarmentzen ziren bertsolariak.

1947. urtean, Donostiako La Perlan antolatutako bertsolari txapelketa irabazi zuen, 22 urterekin.

Ondoren, bertsoak saltzen hasi zen Lexoti, garaiko beste bertsolari batzuk egiten zuten bezala, Gipuzkoan eta Nafarroan gehienbat.

Pixkana izena egiten joan zen Lexoti bertsolarien artean. Hemen bere bertso bat:

Ni Oiartzun'en aldi onetan
bizitzen bainaiz aldrebes,
nere pobreza argi ta garbi
kantatuko det txit errez;
au entzun eta jende guztia
kasik egon leike parrez,
ementxe nago erdi gaixorik
bizi ezin da il nai ez.

[www.eu.wikipedia.org]

Halere ez naiz ni asko ibili, Nafarroan ibili izan naiz asko, 4 egunetarako joanda Andres Narbarte (Xalto) Goizuetakoa zenarekin, Mitxelenarekin... Harekin Ezkurrara joan 2 egunetarako eta 4 ere pasa izan nituen, pagatzen ziguten eta! Mitxelenarekin berriz, Berastegira 2 egunetarako joan eta amerikano batek beste biko pagatu eta hantxe pasa genituen. Guk poz handia hartzen genuen holakoetan. Irunen ere asko ibilia naiz, dozena erdi bat urte edo zortzitan.

[Argia, 1989-01-15, 1.228 alea]

Bertsotan Oiartzungo hizketa erabiltzen zuen asko. [**Florian Oiarbide**]

3 edo 4 bertsotan baino 40tan hobeto! Mitxelenak eta biak, bi ordutako saioak askotan egiten genituen. Gu ari ginela taberna bete-betea eta isil-isilik gainera jendea. Hori bai, izan nuen bertsoa oso aisa asmatzen nuen sasoia.

[Argia, 1989-01-15, 1.228 alea]

Lexoti Lazkanorekin bertsotan. Iturria: www.badok.info

KONTRARIO BILA

Lexoti bere bizitzan oso demazalea izan da: korrikalari, ibiltari, harri jasotzaile, haizkolari, ahari eta oillar prestatzaille. Eta bertsoetan ere berdin, demazale purrukatu. Lexotiri demagiroa falta bazaio, bereak egin du. Lexotik kontrario bat behar du beti aldamenean, eta ez baldin badu asmatu egingo du; zirikatzen hasiko zaio norbaiti, Mitxelena, Uztapide edo Koxme Lizasori.

[**Xabier Lete**, Lexoti bertsolaria, Auspoa 157]

Disfrutatu egiten zuen hark bertsotan, kontrario bila ibiltzen zen, eta ez bazuen kontrariorik, denei banaka bota eta segi. San Antoniotan kantatu, eta Txilibitan tabernara joan, baso erdi batzuk hartu bazkaldu aurretik, eta mostradorean jarri eta tipiti tapa bertsotan jardungo zen. Lexotirekin amistade handia nuen, etxera asko etortzen zen. [**Florian Oiarbide**]

Korreoan (Goizuetara doan autobusean) sartu naiz, eta Inazio Iraola Zinko Eneakoak ezetz, kotxean ekarriko nindutela. Zinko Eneako tabernan saioa egin genuen Lexotik eta biok. Beste aitzakiarik gabe, enkarguak egitera etorriak izango ginen. Aranon ez zegoen afizio klase hori. Ereñozun ere aritzen nintzen Lexotirekin. Gustatzen zitzaion festa eta parranda. Ehun kiloko zilindroarekin harri-jasotzen aritzen zen Ugaldetxoko festetan. [**Manuel Huizi**]

TXAPELKETETAN

– 1962ko Sariketa Donostian. Gazteen txapelketan txapeldun.

Donostian izaten zen horrezaz gain (1947an La Perlakoa) "Semana Vasca" zelakoan egiten zen kanpeonato bat ere eta hura ere beti nik irabazi nuen seiren bat urtean. Gero, beste txapelketa bat jarri zuten (1962an), Agirreri irabazi niona, orduan ere jende guztiak Agirreren alde egiten zuen baina neri tokatu zitzaidan hura irabaztea ere. Ondo ibiltzen nintzen, abilidadea nuena baino gehiago egiten nuen kanpeonatuan, estuasunean oraindik eta gehiago ateratzen zitzaidan, ez nintzen ikaratzen.

Gogoan dut nola Ordiziara ere joan nintzen 1960. urtean, han ere nituen kontrario gogorrenak Lazkao Txiki, Imanol Lazkano eta Lizartzako Itsua. Goizetik lauak klasifikatu ginen, baina Lazkao Txiki bentaja haundiarekin bera aurrena, eta gero, ez dakit, basoerdi batekin edo besterekin deskuidatu zela edo, arratsaldean harek deus ez zuen egin eta nik goizean baino hobeto berriz, eta neri eman zidaten. [Argia, 1989-01-15, 1.228 alea]

Mitxelena.
Iturria: Auñamendi Entziklopedia

TXERTOA

Mitxelenak ere esaten zizkidan ederrak! Behin, Berastegin ginela, Mitxelenak burla egin zidan mutil zaharra nintzelako eta nik harei andrea bai baina familiarik ez zuelako:

Emaztegaian bila 'Lexoti'
sarritan iten da saia
hontaz aurrera topatzen honek
izango du oso zaila
andregai eske pasatu ditu
Errenteri eta Pasaia
behin hontaz gero hartuko'iote
akerzarraren usaia.

Eta nik berari:
Behin behar eta disparateak
gaur kantatzen Mitxelena
gaizki esanda trankiltzen baita
zenbait gizonen barrena
balio ez duna gauza izatia
nik hortan hartzen det pena
honek etxian alperrik dauka
nik txertatuko nukena.

[Argia, 1989-01-15, 1.228 alea]

XALTOREKIN

Bertso auek, Goizueta'ko Andres Narbarte bertsolaria zanaren aotik jaso genituan. Narbarte'k etxean pareta berriren bat egiña zuan. Bañan gau batean pareta erori egin zan. Baita Narbarte ere arekin batera oe ta guzi. Eskua autsi zuan, eta bekaiña idiki. Lexoti, berriz, bere etxeak su artuta erre, ta arrebarenean bizi zan. Biak ere bazekiten alkarren berri. Urrengo Goizueta'ko festetara Lexoti eraman zuten, Narbarte'rekin bertsotan egiteko. Ari-ari zirala, Lexotik au kantatu zuan:

Oraingo ontan txorakeritan
ez naiz egingo ni asi,
i bezin ume itxusirikan
sekula ez diat ikusi.
Goizeko bosterdietan ustez
engon eure etxeko nausi,
beko erreka or jo omen dek
ere pareta ta guzi.

Ta Narbarte'k:
Egia da bai erori zala
nere etxeko pareta,
eskerrak diru pixkat banula
maleta zarran gordeta.
Ostera zutik jarri nun bañan
galanki xamar kosteta,
Lexoti berriz kanpuan dabil
len zuan zarra erreta.

[**Iñaki Arbelaitz Gelbentzu, Miren Mitxelena Belauntzaran, Joxe Anjel Arbelaitz Irastortza, Mariano Ostolaiz, Antonio Zavala**, Lexoti bertsolaria, Auspoa 157]

25 urte edo izango nituen nik, eta pleuresiarekin egon ostean, sendatutakoan, tabernara joan nintzen eta Jose Mari Iriarte hori gaizto-gaizto eginda hor zegoen eta ederra kantatu zidan:

Lexoti honek pasa omen du
oso min klase luzia
eoteko martxaz apenas dago
oaindikan ere hasia
gandul guztien txapeldun dago
alper ta erdi pasia
ta sendatutzen ez da erreza
honek daukan min klasia.

Eta nik hari:
Lexotikuai alperra esanda
ustez egin du grazia
beare opiziale on ez dela
dago ondo ikusia
alperrak mina berekin dula
hi'aiz kontatutzen hasia
hik ordun minez pasatu beharkok
hire denbora guzia.

[Argia, 1989-01-15, 1.228 alea]

Ereñozun tunelak pasa zituzten mendiak zulatuz, ura Donostiara eramateko. Andaluzak eta estremadurarrak aritu ziren lan horietan. Igandetan sekulako festa egiten zuten, kantatuz eta sevillanak dantzatuz... Irubidietan zen: Tomasek esan zion Lexotiri "baso-erdi bat pagatuko dizut, horiei bertso bat botatzeagatik!". Eta Lexotik bota:

Mirandaz goitik etorri eta
egiten digute parra
esan liteke: zertarako da
euskaldunaren indarra?
Jendaila honek lepoa beltza
eta muturra iharra
txarrena degu Euskal Herrian
gerok mantendu beharra!

Hura kantatzen ari zen bitartean denak ixilik geratu ziren, berari begira. Bukatu zuenean "*qué bien canta este tío*!" txaloka (jakin balu zer esan zien!). [**Florian Oiarbide**]

UZTAPIDERI, ANDREGAIAREKIN IKUSITA

Txikierdira joaten ziren Mariano Ostolaiz Oiartzungo uztargilea eta Lexoti. Uztapide han dator, andregaiari besotik helduta. Marianok "Hi, Lexoti! Uztapide hemen duk Maritxurekin..." Lexotik "Ez al da lotsatzen mutilzahar hori! Aditu behar dik ba ederra!". Ailegatu denean, Lexotik:

Hoita bi urtekua
ein dezu andregaia
zerorrek berrogeita bost
badituzu ia
behine mugitze ezkeroz
bazendun garaia!
Hau dek mutilzahar itsusi
belarri handia!

Andregaiak: "Joxe Luis, ixilik egon hadi!" eta Uztapidek "Lasai, ez apuratu!":

Lexoti, bertsotako
etorriak gaude!
Uztapidek behin bihar ta
entzun bihar hau're!
Santa Agedan etxe berriak
ederrak badaude
asto zuri baten gainian
aurki han dek hau're.

[**Antonio Zubiarrain**]

UZTAPIDEREKIN MUSEAN

Uztapide etorri zen behin Oiartzungo Zuberoa tabernara Mitxelenaren bila, elurra ari zuen eta Mitxelena etorri zai han zegoen, eta ni ere sartu nintzen, alkatea ere han zen, hura zen tabernako nagusia; hor hasi ginen txitxarroa jokatzen musean. Batean Uztapidek: "Parisen teila adina enbido haundira". Alkateak berriz: "gure etxeko platanoak adina tanto enbido txikira", tira, eta tira... Uztapidek berriro: "Parisen teila adina enbido paretara"; jokorik ez, ez, eta ez, eta nik esan behar zerbait eta "gure etxean mila duro adina enbido"; eta Uztapidek: "bale, bale, paso esan nahi zian honek!".

[Argia, 1989-01-15, 1.228 alea]

XALTOREKIN ESANA LIBREAN

Andres Narbarte "Xalto", behin batean, Iparraldean bertsotan aritua zen, eta bueltakoan korreoan (autobusean) sartu zen, Goizuetara joateko. Eta Lexoti Ereñozun zela jakin zuen, eta jaitsi korreotik eta Lexotirengana azaldu, bertsotara. Orduan ez zen oraingo kotxerik eta konbinaziorik, gero Goizuetara joateko! Hasi zaio bertsotan, eta batak besteari kristorenak boteaz, esana librean! Xaltok:

Hemen bakoitzak dituan tatxak
al degu esan beharra?
Belarrik ere handiak dituk,
sudurra berriz okerra.
Hire gorputzak beidatu batez,
moteil, emateik akerra!
Hala ere hori deus ez hukek,
ez baitzakek alperra!

[**Florian Oiarbide**]

EREÑOZUN AZKEN URTEAK

Lexotik arreba Epelera ezkondua zuen (Bordaberri baserrira). Ama hil zenean arrebarengana etorri zen eta hemen pasa zituen azken 20 urteak, gutxienean. [**Florian Oiarbide**]

Lexoti eta Paulo koiñatuak ziren. Lexotiren arreba zuen nire anaiak andrea. Lexoti bera mutilzaharra zen.
[**Antonio Zubiarrain**]

ARREBARI

Lexotik aldi bat izan zuen osasunetik gaizki xamar egon zena. Bere arreba Pepitak jaso zuen, eta aren etxean, Ereñozu'ko Iru-bireta ballaran, denbora-aldi luze xamarra egin zuen; amalau illabete-edo. Lexotik asko eskertzen dio bere arrebari mesede ura. Bertso auek, 1982 urteko Martxoaren 25'an paratu zituen, Ergoin'eko Bide-Alde tabernan.

Lexoti zarrak kantatuko du
gaurkoan milloi bat egi,
garai aretan gelditu nitzan
ez buru ta ez arpegi;
arreba ta kuñaduak neri
egin ziraten igerri,
ni oso gaizki negoelako
aik mantendu ninduten ni.

Jan ta edana nik banuen ba
aoa bete-betian,
etxe artara joatia etzan
bate neretzat kaltian
dudik ez dago izan naizela
euntalako on suertian
biyen kontura egon nintzan-da
amalau illabetian.

Gu elkarrekin ondo giñala
izandu nuen suerte,
koñadu ta arreba neretzat
izan zuten borondate;
nik ere poza orixe daukat
aiek nindutela maite,
Lexoti etzan etxera etorri
berak nai zuten bitarte.

Beste bertso bat kantatuko det
Jaungoikoaren graziko,
argi ta garbi denen aurrian
emen det adieraziko:
izan dedilla nere bizitza
oso denbora luzeko,
koñadu ta arreba ezian
ni ere ez nintzan biziko.

[**Iñaki Arbelaitz Gelbentzu, Miren Mitxelena Belauntzaran, Joxe Anjel Arbelaitz Irastortza, Mariano Ostolaiz, Antonio Zavala,** Lexoti bertsolaria, Auspoa 157]

PEDRO JOXE MUJIKA BIDEGAIN "ANATX"

1929an jaioa, Aitzola Bordan (Anatx etxe zaharrean)

Aitona, gure amaren aita, Aranazkoa zen, hortik Anatx izena.

Gure aita (Pedro) aritzen zen bertsotan, harengandik hartu nuen zaletasuna. Etxean bertso zaharrak kantatzen zituen. Aitari ez nizkion ikasi, amonari (Pantxika Rezola) ikasi nizkion bertso zaharrak.

Nirea afizioa ez, lardaska zikin bat zen, nola izaten den ur zikina? Txapelketa batean Donostian, gogoan hartu nituen bertso mordoxka bat, zortzi-hamar bat bai. Lagunarengana joan nintzen hurrengo egunean, eta han kantatu nituen bezperan ikasitakoak. "Ez ditek milimetro baten okerrik" esan zuen hark.

Epelen obran ari ginela, Zelaiatarrak ziren elkar hartuak, eta haietan batek esaten zuen: "Markesaren alaba? Oraindik ez diat inor sumatu danak tajuz kantatzen dituenik". Eta nik kantatzen nituen denak, segidan.

NIKASIO REZOLA

Nikasio Rezolak (Agin Labururen aitonak) esaten zidan "bazekiat aritzen haizela, arrebari (Maria), belazean lanean ari zaretenean". Ezkerranean bizi ziren. Bera eta biok aritzen ginen pixka bat lardaskan, eta Xoxokara joaten ginen. Hark kantatu zuen bertso hauxe:

Parientiak gerade Joxe
esan liteke lehengusu
hala ikasi genuen eta
ontzat hartu biharkoezu
zerbaitegatik holako elkar
maiteak gera ni ta zu
jendea beida ez balegoke
emango nizuke musu.

Xoxoka.
Iturria: Urnietako udala.

"Oraindik Xoxokan kantatu dan bertsorik ederrena" esan zioten barratikan. Harrek egingo zuen bertsotan gaur bezala eskolarik izan bazen.

ZEPAIREKIN

Behin aritu nintzen Zepairekin, plazara joanda, Ergobiko festetan. Migel Arozamena eta Zepai ari ziren. Ni Arozamenari aritzen nintzen bertsotan, eta etortzeko keinu egiten zidan. Nik atzera egiten nuen, baina azkenean ekarri naute eta Arozamenak "Hau ere bertsolaria dugu!", "Ongi etorri! Konponduko gera hemen!" Zepaik.

Orduan bertsotan aritzen nintzen eta, Zepairekin pixka bat lotsagabetu edo ez dakit zer egin nintzen. Gauza handiak egiteko txiki xamarra nintzela bota zidan. Nik erantzun nion etxean zera esaten zigutela: belarri handiak nituela eta koskortuko nintzela, noski. "Hori bertso hori moldatzeko, bertsolaria duk!" esan omen zion Manuel Matxainek (gai-jartzaileak) Arozamenari.

ANALFABETOA MAISU

Guk eskolarik batere ez genuen. Ni Arriatsun ibili nintzen sei hilabetean, eta kabi denbora zen eta ez nintzen joan erditan. Juan Batixta eskolan ibilia zen 14 urtera arte, bere laineza hura izaten zuen. Behin Inaxio "Poxta" laguna eta biok juntatu ginen, eta baso erdi bana edatera eliza frenteko tabernara jo genuen. Batixta hori inguratu da eta egin dugu saioa. Egun ona tokatu zitzaidan, eta esan zutenez, paliza eman nion gainera. Kantatu omen zidan "ni bezala eskolan ibili bazina, jakingo zenuen nik adina". Nik erantzun:

Eskola ta eskola
zinanian gazte
beti estudiatzen
hortxe jai ta aste
asko pintatu(d)izunik
ez zazula uste
analfabeto bat gaur
bada zu hainbeste.

AROZAMENAK BULTZA

Arozamenak esaten zidan "joan hadi bertsotara, hik nik adina egiten duk, eta nik eramango haut, Basarrirengana joan behar diagu". Haren txofer sartu baitzen Arozamena gaztetan. "Motel, nik ez zeukeat denborarik Basarrirengana-eta joateko, gure etxean bazegok lana" esaten nion.

Berehala utzi nion bertsotan egiteari. Soldaduska pasa eta obran lanean hasi nintzenean. Gero andregaia ere egin nuen eta horrek ez zuen nahi, "zorretarako nuela" eta nik ere gogo handirik ez... Hala, seko ahaztu zitzaidan, ahaztu.

Ez zegoen ondo ikusia, mozkorra zen bertsolaria.

SEMEA BERTSOTAN

Ez naiz gogoratzen semea (Joxe Mari Mujika) behin ere entzutera joan naizenik. Nik berari kontsejurik eman? Ez, ez, eskolan zebilen eta nik zer erakutsiko nion, bada!

Bertsolari aterako zirenak baziren lehenago ere, eskolak izan balira.

KINTOEN BAZKARIA

20 urte nituen. Kintoen bazkaria egin genuen, Villabonako Izkina tabernan. Goizean joan, bertan gosaldu, ardoa ere edan eta han asentatu ginen. Intxaustik (Muebles Intxaustikoak) jartzen bazizun espaldan eskua, seguru punturen bat botako zizun. Nik ahal nuena erantzuten nion:

Intxaustik:
Idiazabalgo gaztak
berdinikan ez du

Anatxek:
bera eiten dutenak
eingo dira poztu
alimentua dula
ez dezagun ahaztu
nahiz ta egiten duan
pitilina moztu.

Gizon bat etorri zen, asteasuarra, eta "zer, bertsolariak al zarete?" "Hau mundiala!" (niregatik, lagunek). Berarekin hasi ginen, eta egin genuen saioa, handia: hasteko handian, eta txikian gero. Ondoko mahaian emakume koadrila bat zegoen eta umore ederra jarri genuen. "Ni baino hobea zera!" hori esanda bukatu zuen asteasuarrak. Kontuak egitera joan ginen, eta nagusiak ez zigula kobratuko batere. Oraindik ez zuela taberna hark halako betekadarik hartu sekula. Ez zegoen eta aukerarik bertsorik entzuteko!

MIGEL AROZAMENA LARRALDE

1930an Lesakan jaioa - 1976an Hernanin hila

Arozamena nafarra zen jaiotzez, baina hemen hasi zen bertsotan, Martindegin. Bere anaia ere bai.
[**Florian Oiarbide**]

Berak zazpi urte zitualarik, Astigarraga'ra etorri zan fameli guzia, eta Ollalume ballarako Arana-eder etxean bizitzen jarri.
[**Antonio Zavala**, Mikel Arozamena. Nere Aldia]

Lehenengo aldiz kantatu, berriz, bere etxetik hurbil, Ergobian kantatu zuen Arozamenak, hango zaindari jaiak zirela eta. Garai hartako entzuterik handieneko Manuel Olaizola Uztapide eta Iñaki Eizmendi Basarri ziren bertsotan nonbait herriko jaietan, eta haien saioa entzuteko irrikitan joan omen zen harainoxe.

Migel Arozamena Arruerekin 1966ko Nafarroako txapela buruan.
Iturria: Argia

Hala behintzat, eguerdiko saioa egin bide zuten bi bertsolari ezagun horiek, eta bai gozatu ederra hartu ere Arozamenak. Saioaren ostean, berriz, herriko sagardotegi ezagun batera joan ziren, sagardo trago batzuk egin eta festetako bertso jaialdia osatzeko, agian. Migel gaztea ere haien atzetik joan zen, zer ikusiko eta, batez ere, zer entzungo. Bere idoloekin gozatzeko abagune ezin hobea etorri zitzaion, eta betebetean bizi nahi zuen momentu hura. Sagardo egarria ez baina bertso egarri ase ezin bat omen zuen bere barrenean Migelek egun hartan; eta nola ez zekiela bera ere han hasi omen zen bi munstro handi haiekin kantari, bertsolari konsagratuei txanda hartuz.

Hamalau edo hamabost urte izango zituen garai hartan, gutxi gorabehera; eta gaztetasunaren ausardia eta artean ondo ezagutzen ez zuen ofizioaren estutasuna elkarri lotuta, korapilo handi bat zerabilen buruan eta eztarrian egun guztian zehar. Hala ere, oso gustura gelditu zela kontatu ohi zuen Basarri eta Uztapiderekin bertsotan egin zuela behintzat eta. Bertsoa bukatu ezinda errenka eta hola ez omen zen gelditu une batez ere, eta ez zen gutxi hori. Lehenengo aldiz bertsozaleen aurrean egindako proba aise gainditu zuela, eta pozik zen mutila, ezbairik gabe.
[**Joxe Mari Iriondo**, Migel Arozamena Larralde liburua, Bidegileak bilduma 54]

Nafarroan, Gipuzkoan, Bizkaian eta Iparraldeko bertso jaialdietan arrunt ezaguna zen. Bizitzan beste lanbide eta zeregin bat zuelarik ere, herri askotako bertso jaialdietara heltzen zen urtearen buruan.
[**Joxe Mari Iriondo**, Migel Arozamena Larralde liburua, Bidegileak bilduma 54]

ASKO IBILIA

Arozamena asko ibili zen. 100.000 pezetako saria jarri zutenean (1968an) goizean baino arratsaldean puntuazio hobea egin zuen, eta finaleko zortzi bertsolaritan sartu egin zen. Basarrik irabazi zuen. Bigarren ez dakit Xalbador zen, hirugarren Lasarte, eta laugarren egin zuen Uztapidek. Lopategi, Mitxelena, Mattin eta zortzigarren Arozamena geratu zen. Hark izen handia eman zion eta plazan asko ibili zen, horiekin denekin. Inguru hauetan asko, Ergobin, Astigarragan, inguruotan edozein tokitan.

[**Tturko**]

TXAPELKETAK		
Nafarroako txapelketa	1962	Txapeldun (Bera)
Nafarroako txapelketa	1964	Finalista (Iruñea)
Nafarroako txapelketa	1966	Txapeldun (Iruñea)
Txapelketa Nagusia	1962	Finalista (Donostia)
Txapelketa Nagusia	1965	Finalista (Donostia)
Txapelketa Nagusia	1967	Finalista (Donostia) (Xalbadorri txistu jo ziotenekoa)
100.000 pezetako sariketa berezia	1968	Finalista

OMENALDIAK

LESAKAN

Nafarroako txapeldun den Mikel Arozamena bertsolariari omenaldia eskaintzen diote lesakarrek, maiatzaren 23an. Lesakako herriak ez ditu nolanahi ahantzi nahi bere semeak.

Maiatzaren 23an, alai esnatuko da Lesaka txistularien txistuz.

11etan, herri-meza, herriarekin, bertsolariekin, txistulariekin eta apai bertso-zaleekin. Igartzabal, Garmendia, Gorrotxategi eta Etxeberriak ihardungo dute mezatan.

12etan, bertso saioa bertako pilotalekuan: Azpillaga, J. Lizaso, Lazkano, J. Agirre, Mitxelena, Lazkao-Txiki, Mattin, Xalbador.

Ordubidetan, bazkaria Hiru-bide jatetxean.

[Zeruko Argia, 1976-5-23]

HONDARRIBIAN

Hil eta handik hamabost egunera, Hondarribian omendu zuten berriro, 1977ko urtarrilaren 6an, Errege Egunez. Urepeleko Xalbador handiarekin batera Arozamena zena omentzeko asmoz eta gogoz.

[**Joxe Mari Iriondo**, Migel Arozamena Larralde liburua, Bidegileak bilduma 54]

HERNANIN

Bertsolariek bertsolariei izeneko jaialdian biak (Xalbador eta Arozamena) omendu zituzten berriro 1977ko otsailaren 26 hartan Hernanin, biak ere nonbaitetik begira izango ziren itxaropen betez. Bertso saio luzea eta handia izan zen hura, eta bertsolari eta bertsozale guztiek antolatua gainera. Imanol Lazkanok eta Iñaki Muruak egin zituzten aurkezpen lanak; eta haien esanetara hogei/hogeita bi bertsolarik beren sentimendurik ederrenak kantatu.

[**Joxe Mari Iriondo**, Migel Arozamena Larralde, liburua, Bidegileak bilduma 54]

BERTSO JARRIAK

1976ko maiatzaren 23an bere sorterriak egin zion omenaldi eder hartako giroaz baliatuz, Nere Aldia liburuxka argitara eman zuen Antonio Zavala tolosarrak. Auspoan argitara emandako bertso horiez gainera, Principe de Viana, Umeen-deia, Eudeia, Goiz-Argi, Zeruko Argia eta Eguna agerkarietan argitara emandako batbateko nahiz bertso idatzi gehiago ere baduela hark gogoratu nahi genuke, noiz edo noiz norbaitek denak bildu eta argitara eman nahi balitu ere.

[**Joxe Mari Iriondo**, Migel Arozamena Larralde, liburua, Bidegileak bilduma 54]

XALTORI

Batek ez daki mundu onetan
zenbat ordu dun berekin
al den artian saiatu biar
borondate onenarekin.
Zuk ere etzendun oker aundirik,
ta lasai egon orrekin
gu're ez gera luzarorako,
ta laister gera elkarrekin.

[**Mikel Arozamena**, Nere Aldia]

TXANTXANGORRIA

1
Txori txiki polit bat
ezagungarriya,
Jaunak mundu onetan
guretzat jarriya;
bire-baztar guztitan
azaltzen da iya,
bakarrikan bazuaz
zure gidariya,
beti olakoxia
da txantxangorriya.

2
Kristabari laguntzen
goiz ta illuntzian,
txio ta txio dabil
birian ertzian;
pixka bat ixiltzen da
sasira sartzian,
bañan azaldutzen da
iñor gelditzian,
gustora artzen baitu
zerbait botatzian.

[**Mikel Arozamena**, Nere Aldia]

EHIZEKO KONTUAK

1
Lagun maitiak, esan nai nuke
eizakin gertatzen dana,
garai batian izaten gendun
ibilitzeko afana;
gaur alperrikan ibilaldia
ta egiten degun lana,
etxetik irten gabe egon leike
txanponikan eztaukana.

2
Erri geienak jarri dituzte
uso-tokiak saltzen, da
lenago zegon askatasuna
orretatikan galtzen da;
naiko txanpona daukan gizona
ederki dibertitzen da,
nere moduko mixerablia
etxian gelditutzen da.

[**Mikel Arozamena**, Nere Aldia]

MANUEL HUIZI LEGARRETA

1932an Aranon jaioa, 35 urtez geroztik Ereñozun bizi da



Argazkia: Estitxu Eizagirre.

Gure osaba Ramon Huizik eta auzoko batek bertsotarako afizio handia zuten. Osaba Hernanin aritzen zen lanean eta asteburutan joaten zen Aranora. Ferietan erositako bertsopaperak ekartzen zituen.

Xabier Legarretaren aita eta ni lehengusu propioak gara. Xabier Legarretaren aitona eta nire ama, anai-arrebak.

FELIPA HUIZI

Nik arreba bat neukan, lau urte zaharragoa, Felipa Huizi (Olazaharrera ezkondua, Amaia Otxotorenaren amona). Nik ez dut dudarik egiten, gaur 20 urte balitu hura bertsotan ibiliko zela. Irakurtzeko zuen afizio bat! eta kantatzeko ere bai. Orduan pentsatu ere ez zen egiten emakumeak bertsotan egiterik. Ikasitako bertsoak kantatzen aritzen zen eta gu hari entzunaz.

ARTOZURITZEAK

Etxeetan biltzen ziren artoa zuritzera. Ni ere ailegatua naiz, Aranon, arrebekin, besteen etxeetara. Txistea kontatu, bertso zaharrak kantatu... horretan aritzen ziren gure arreba eta ere, baina bat-batean ez.

ARANO

Anaia Ramon eta biok bertsotan aritzen ginen, geure kasa. Aranon ez zen bertsotarako halako afiziorik, tabernan ez zen bertsotan egiten. Urte zahar gauean kopla kantari aritzen ginen baserriz baserri. Soinuarekin joaten ginen eta koroak "dios te salve" kantatzen zuen eta nik atzetik bertsoa, etxe bakoitzari buruz. 24 urterekin hasiko nintzen kopla kantari. Horrela hasi nintzen bertsotan.

LANA

Consorcio Comunal Basozale bazkide talde bat zen, mendiak erosi eta pinuak aldatu zituena. Soldaduskatik etorri eta haiekin hasi nintzen lanean. Handik pare bat urtera Leizaran erosi zuten eta hara pasa ninduten. 45 urte egin nituen nagusi berekin. Gero Foru Aldundiari saldu zitzaizkion lur horiek denak, eta nik jada 62 urte nituen eta erretiratu egin nintzen. Ni ez naiz aldundiko basozain izandu, beti partikular ibili naiz.

Garai hartan ez zegoen adelanturik saioz saio ibiltzeko. Apaizak eta udaletxeko sekretarioak zuten Aranon telefonoa, eta lokutorioak. Hara iristen zitzaizkidan abisuak, eta handik oinez etortzen ziren abisua ematera. Kotxea banuen eta harekin joaten nintzen.

NAFARROAKO TXAPELKETAN

Hiru aldiz atera nintzen Nafarroako Txapelketan (1962, 1963 eta 1966an). Hiruetan finalera pasa nintzen. Beti hirugarren-laugarren ibili izan naiz.

Iruñeko "Vianako printzea" saria ematen hasi ziren eskoletan. Euskaraz zekien ume bakoitzari 40na duroko kartila irekitzen zioten. Gero egun bat ospatzen zuten, Ezkurran eta Eratsunen egin genuen urte batean. Umeei sariak banatzen zitzaizkien, hamaiketakoa izaten zen, eta bertsolariok joaten ginen. Niri askotan deitu zidaten hara joateko.

1966tik aurrera ez zen Nafarroan txapelketarik gehiago antolatu. Jarri balute agian ez nintzen aterako edo agian bai, ez dakit. Baina orduantxe tokatu zitzaidan nerbioak pasatzea, hortzetatik operatzea eta bertsoa utzi egin nuen.

PLAZETAN

Txapelketatik hasi nintzen. 1963ko udan dei batzuk izan nituen. Garzaronen (Nafarroa, Basaburua) frontoi berria egin zuten eta Anjel Aldaz eta biok kantatu genuen Santiago egun batean. Etxalarren bitan izan nintzen, batean Lazkao Txiki, Migel Arozamena, Bautista Madariaga eta laurok aritu ginen. Nafarroako Zubietan, Berastegin, Leitzan... Aranatzen jaialdi batean Manuel Lasarte, Andres Narbarte "Xalto", Bautista Madariaga eta ni jardun ginen.

Beste batean Florian Oiarbide eta biok Urnietan Bentan aritu ginen bertsotan afalostean, Paulino Beasaini soldadu joaterako egin zioten despedidan.

IRRATITIK

Irratia oso goiz erosi nuen, eta Basarri aditzeko pozez egoten zen mendian jendea. Orain ere irratitik jarraitzen ditut bertsoak. Ez naiz plazara joaten entzutera, irratitik hobeto entzuten ditut, arreta osoa bertsoei jarriz. Gainera ederki grabatzen dituzte!

XALTO

Santiotan Aranon seguru izaten geunen berarekin bertso atakea. Gero Goizuetako festetara joaten nintzen ni eta han ere aritzen ginen.

Nik Xaltorekin amistadea eduki nuen. Konfiantza bai, elkarri bertsotan handiak esateko. Baina handik aurrera elkarri errespetua.

Ereñozuko elizak ehun urte betetzea zuela eta Xalto eta biok jardun ginen.

gaiak

HERNANI

BITERITIK HONA

1
Umetan parte hartu genuen
Biteriko historian
bandera gorri-horixka eder
bat gendula atarian,
gero Cara al Sol ozen kantatu
denok zutik galerian,
queso de bola ta leche en polvo
hiru t'erdiak aldian,
zein zoriontsu izandu ginen
España libre haundian.

2
Aurreko bertso hortan brometan
aurkeztu det iragana,
baina ez pentsa brometarako
izan genuela dana,
garai haietan gure herrian
gertatu zen hainbat drama,
bat bereziki maiz sosegua
leher arazten zidana,
ordu ezkero nire barnean
eraman ezin dudana.

3
Goiz jeiki eta bide luzean
badoa baserritarra,
barnean amak, erakutsia
beren hizkuntza bakarra,
erdera ia ez dakilako
egingo diote parra,
derrigortuta, arrotza duen
hizkuntzan egin beharra,
irripar batez ezkutatu du
bere barneko negarra.

4
Garaiak zerbait aldatu ziran
nahiz ez guk nahi bezain laster,
ta euskaldunak sortu genitun
hainbat ekitaldi eder,
ikastolaren sorrera eta
euskara bazterrik bazter,
halere hemen ez digu guri
inork oparitu ezer,
dagona dugu euskal jendeak
egindakoari esker.

5
Esan det urte luzetan zeinek
egin duen ahalegina,
euskaldun jator askoren lanak
izan du bere eragina,
eta efektu kurioso bat
badu berakin egina,
gaur Españako demokraziak
daraman tripako mina,
ez al da Francok ordun izaten
zunaren berdin berdina?

6
Lehen historian ta orain berriz
Españako histerian,
bandera bera, mutur aurrean
oraindik gori-gorian,
leche en polvo ez, baina letxeak
daramagun nekaldian,
baina euskaldunok hogeita zazpi
garren erori aldian,
ikasiko deu danok biltzea
komeni dela agian.

[**Juanjo Uria**, 2003an Joxe Legarretaren omenez Hernanin egindako bertso-emanaldiarako jarriak]



Inaxio Mari Zubeldia.
Argazkia: Estitxu Eizagirre

Bertso-saioetara lau baserritar gizajo joaten ginen. Kaletarrik ez, normalean. Jende gutxi biltzen ginen eta urtean saio gutxi izaten zen, jaietan.
[Julian Albistur]

Nik entzun dut emakumea bertsotan! Sabin Ugalde "Komun-arratoia"ren andrea. Orain musika eskola den horretan bizi ziren, eta behin Atzietan barrena sartu nintzen eta andrea kantari sumatu nuen. Nola kantatu, gainera! Zoragarri! Umea loarazteko bertsoak kantatzen ari zen. Artean mutil kozkorra nintzen.
[Inaxio Mari Zubeldia]

Bertso saioa festetan izaten zen: San Joanetan Hernanin eta San Antoniotan Ereñozun. Bietan gaiak jartzen nituen. San Joanetarako bertsolariak askotan Migel Arozamenak ekartzen zituen.
[Inaxio Mari Zubeldia]

AZPILLAGA ETA LOPATEGI FRANCO GARAIAN

Saioak antolatzeko baimenak udaletxeak sortzen zituen nonbaitetik. Ezkiaga pasealekuko Kioskoan izaten zen San Joanetako saioa, eta jendea zutik egoten zen entzuten. Franco ezin genuen gaietan aipatu. Euskara kontuak eta ateratzen genituen. **[Inaxio Mari Zubeldia]**

Bizkaitarrak ere etortzen ziren bertsotara, Jon Azpillaga eta Jon Lopategi. Gai bero samarrak jartzen nituen, eta askotan jarri beharrik ez! Lopategi bera berotzen zen bere gisa! Jendea ere builan "bota motel, bota beldurrik gabe!" eginez. Batean esan nien "bota beldurrik gabe esan, eta beste horiek hemen azalduta? Zer zirku armatuko da hemen?" erraza zen, "bota!" eginez jardutea! Gazteak ziren eta batez ere Lopategik sekulakoak botatzen zituen, eta arrazoizko bertsoak! Franco garai bete-betean gauza serioa zen hura, e! **[Inaxio Mari Zubeldia]**

Francori haiek egurra ematen zioten. Gozamen hutsa zen diktadura garaian. Beste bertsolariek politikaz ez zuten hitzik ere egiten, eta erregimenaren kontra hitz erdi bat ere ez, beldurra zegoen, eta haiek beldurrik gabe kantatzen zuten.
[Julian Albistur]

Azpillaga eta Lopategi asko etortzen ziren. Nabarmenak izan ziren. Politika gaia, herriko arazoak, besteek baino gai gaurkoagoak erabiltzen zituzten, giroarekin parekoagoak. Adierazi ere bai, multak ere izaten zituzten... Guretzat Lopategi egundoko bertsolaria zen. Oso landua, bertso mundialak botatzen zituen errima aldetik, sakonak... **[Iñaki Aranzadi]**

Gure aitona (Juanito Goia) garai hartako abertzale horietakoa zen. Aberria egiteko aitzakia horretan gauza asko egin zituzten. Urumea ikastola eurek egin zuten, bertso saioak antolatzen zituzten, bertso saiotara joaten ziren... amak kontatzen du Iparraldera ere eramaten zutela bertso saiotara; hainbeste jende mugitzen ez zen garai hartan, hauek bai joaten ziren, kontzientzia hori bazutelako eta bertsozalea zelako. Bertsoa ere abertzaletasunarekin bat eginda bizi zuten.
[Unai Agirre]

Aitona ia ez nuen ezagutu. Ni oso umea nintzela hil zen. Gure amaren bidez entzun ditut aitonak kantatzen zituen bertsoak. Auspoaren kolekzio osoa zegoen gure etxean. Hil zenean, Iñaki Aranzadi apaiza etorri zen eta ia kolekzio osoa eraman egin zuen (harreman handia zuten) eta ale batzuk geratu ziren. Gure izebari iritsi zitzaizkion ale horiek eta niri eman zizkidan. 30-35 ale izango dira. **[Unai Agirre]**

1965, TXISTUAK ETA TXISTULARIAK

Dibertsioarekin lotu izan zen urte luzez Hernaniko dantzaldia, baina baita iskanbilarekin ere, sagardoa erruz edaten zen eta batzuetan festa bere onetik atera ere egiten zen. Ezaguna da txistulariei txistu egiten zieteneko pasadizoa, 1960ko hamarkada erdialdean. Txistulariek deskantsuan jotzen zuten, baina antza, jende batzuei ez zitzaien gustatzen musika hori, sueltoan dantzatzekoa –eta ez agarraoa, bandaren piezekin egin zitekeen bezala–; txistu izugarriak egiten zizkieten ansorenatarrei. Askoren esanetan txistu egiten zutenak "kanpoko" jendea ziren, Lore-Tokitik, Lasarteko hipodromotik edo Donostiatik etorriak batez ere, eta erdaldunak. (...)

Funtsean, konflikto identitario bat ere bazen hura, ez soilik musika gustuen kontu bat, ez zen huskeria bat. Hernaniar askok sentitu zuen txistulariei txistu egitean eraso egiten ziotela euskal nortasunari, hain justu euskaltzaletasunak berpizkundea izan zuen urteak ziren haiek gainera. Hura moztu beharra zegoela erabaki zuten herriko zenbait lagunek eta hala egin zuten. Ez ziren falta izan kolpeak eta borrokak koadrilen artean, askotan Hernaniko gazte taldeek apeaderoan itxaroten zieten "bronka armatzera" etorri zirenei –"falangekoak-edo izango ziren"– eta beste batzuetan Tilosetan egurtu eta kiosko azpiko lokaltxoan edukitzen zituzten sartuta dantzaldia bukatu arte. "Erreakzio popular bat" izan omen zen hura Inaxio Mari Zubeldiaren esanetan.

(...) Tamalez, istilu horien ondorioz Patxi eta Felix Ansorenak eta Jose Ugaldek agur esan zioten udal txistulari karguari. 1965eko martxoaren 23an dimisioa aurkeztu zuten: *"Se da el denigrante caso de que para que un país exprese su tipismo en su propia tierra, sus representantes tengan que actuar bajo la protección de la fuerza pública"*, diote gutunean. (...) hilabete batzuen ostean, txistua ikasten ari ziren hainbat gazte hasi ziren zeregin horretan: Antonio Insausti, "Txobito" eta Joakin eta Patxi Apezetxea anaiak. Baina borrokak eta egoera zailak ez ziren berehalakoan bukatu Tilosetako agertokian. Patxi Apezetxeak bere *Hernani eta Txistua* liburuan, holaxe kontatzen du txistulari hasi berriok nola bizi izan zuten garai hura:

"Momentu batzuetan halako abarrotsa sortzen zuen egiten zitzaigun txistu-hots eta protestak, batabestearen kontra bil -bil jota ere, ezin geniola ezertxo ere aditu elkarri, eta ezta norberak jotzen zuena ere. Baina berdin zion, guk jotzen jarraitzen genuen, bukatu arte, kiosko inguruan jartzen ziren herriko koadrilek babestuta. Behin baino gehiagotan jaurtiki zizkiguten pezetak, hartxintxarrak, kioskoa inguratzen duen jardineran zeuden landareen pusketak...".

Zorionez, denborak aurrera egin ahala, jendearen txistu-zarata apalduz joan zen eta txistu-soinua indartu egin zen.

[**Urko Apaolaza Avila**, Hernaniko musika banda: 150 urte herria doinuz alaitzen]

18 urte nituela jarri nituen bertsoak aurreneko (Tilosetako txistu-jotzeez).

Lau bertso ziren. Aurrenekoa gogoratzen dut:

Tilosetako dantzatokia
behin zegoen lotsagarri
txistulariak hasi ziran da
sesiua zuten jarri.
Haiek ez zuten jakingo, noski
gure ohituraren berri
hizkuntza bizirik daukagunok
esku emanda alkarri
eutsi txistu ta danbolinari
eutsi ohitura zaharrari.

Beste bat:

Negarra ere egingo zuten
orain larogei bat urte
garai bateko aitona zaharrak
ikusi izan balute.

Bertso horiek nik Basarriri bidali, eta Basarrik radiotik kantatu zituen.

[**Florian Oiarbide**]

1969 SAN JOANIK OSPATU EZ ZEN URTEA

Hernaniko Pedro Orbegozo fundizio lantegian 2.000 lagun inguru zebiltzan garai haietan. 1969ko otsailaren 7an langileek asanblada egin zuten, poliziaren begiradapean, eta grebara jotzea erabaki zuten. Astebeteko grebaren ondoren Orbegozoko zuzendaritzak 19 langile despeditu zituen eta ondorioz langileen batzarrak grebarekin segitzea erabaki zuen. (...)

Egoera zail horretan, San Joanak gainean zirela, 1969an herritarrek festarik ez egitea erabaki zuten. (...)

Hernanin, 1969ko festen programak alkatearen eta parrokoaren agurra zekarren eta ohiko moduan "...alaitasun kutsuarekin datozen Juan Deunaren jaiak ondo igaro ditzagun..." eskatzen zuen alkateak. Ekitaldiz betetako festak izan behar lukete: etxafuegoak, pailazoak, zezenak, musika bandaren diana, prozesio eta kontzertuak... zeuden aurreikusita. Baina ez zen halakorik izan, ez behintzat herritarren parte hartzeari zegokionez. *Herria* aldizkarian argitaratutako artikulu honek laburbiltzen du ezin hobeki zer gertatu zen festekin eta musikariekin:

"(...) Hortakotz, herriko bestez okupatzen diren Hernaniarrek, hartu dute xedea, bestarik egiterat ez uzteko. Ez baita alegeratzerik, holako gorabeherekin.

Halere, Jondoni Joani bezperan musikariek ideki zuten usaiako bala. Bainan dantzatzeko orde, ehunka gazte lurrean jarri ziren. Apur batean buruan gazte multzo bat igo zen musika lekurat, musikarien handik kasatzeko. Poliza etorri zen musikarien gerizatzerat. Borroka partida batzuen ondoren, musikariek ihes egin zuten. Bi gizon izan ziren arrastatuak: bat gaztea, bertzea adinekoa.

Biharamunean, gauza bera gertatu zen. Ikusiz gazten aserrea, musikariak ez ziren lotu musika jotzen.

Anartean, gaztek kausitu zuten herriko alkatea (mera), plazarat etorria, ikusterat gauzak nola zoatzin. Gazte multzo batek alkatea ixkutatu dute, ale tzarrez ito eta, zintzurretik harturik erabili. Erran diote garbituko dutela, ez baditu bi presonerak librarazten.

Alkatea, ikaratua, joan duzu gobernadorearen ganat eta bi gizonak librarazi ditu.

Ba, egiazki besta ederrak izan dira aurten Hernanin. Ohart Hernanik badituela ogoi mila arima. Hiri kozkor bat da beraz. Anitz erran nai baitu, holako jendeketa ados agertzea "bazter nahaslen" sustengatzeko... Badute odol Hernaniko gaztek".

[**Urko Apaolaza Avila**, Hernaniko musika banda: 150 urte herria doinuz alaitzen]

Orbegozon ez zieten ordaintzen eta sekulako saltsa zen. Pentsa, ez zen egin festarik San Joanetan! Urte hartan lau bertsolari ziren etortzekoak: Uztapide, Manuel Lasarte, Patxi Etxeberria eta Migel Arozamena, herrikoa. Jakin genuenean ez zegoela festa girorik, jendea haserre zegoela, Jexux "Mesie"ren motoa hartu eta Oiartzuna joan ginen, Uztapideren etxera. Ordubetetik gora aritu ginen berriketan. Joan izana eskertzen zigula esan zigun. "Zuk nire berri pixka bat badakizu eta ni oholtza gainera igo eta txistuka hasi balira, bertan gelditu nintzen!" esan zidan. Bihotzetik eskas samar baitzebilen ordurako.

2.000 pezeta kobratzen zituzten bertsolariek. 2.000 pezeta polita zen, garai hartan. Jexuxek ez dakit nondik baina osatu zituen 2.000 pezeta horiek eta ostera motoa hartu eta han joan ginen bere etxera. Uztapidek puruak atera zituen, botila bat ardo ere bai mahai erdira eta jarri ginen berriketan. Azkenerako, galdera: "Zertara etorri zarete ba?". Esan nion "horrela eta horrela, azkeneko ez joateko aginduarekin etorri ginen, ba gizona, orain sos batzuekin etorri gara". 100 pezetako billetetan 2.000 pezeta mahai gainean jarri nituen. Dirua atera nuenean begira-begira geratu zitzaidan Uztapide. Esan zuen: "Ni naiz bertsolari bakarra bertsotatik bizi naizena. Baina lanik egin gabe ez dut hartzen". Gizona hor probatzen da! Ostera 2.000 pezeta haiek patrikan hartuta etorri ginen.

Udaletxean kontzejal Tedi Setien zegoen, obispoaren anaia. Tedi hura Migel Arozamenaren bila zebilen, bertsolariak gutxieneko ekarri behar zirela esanez, festa egin behar zela... Migelek erantzun zion: "Nik eskatuta ez dira etorriko! Herria betiko delako eta gu berriz ez!".

[**Inaxio Mari Zubeldia**]

EREÑOZU

BERTSOLARIAK

Juanito Altxo, Bixente Lizeaga, Migel Mari Legarraldekoa... [**Aterpe**]

Epeleko Joxe Manuel Ugalde (hark guk danok baino hobeto egiten zuen), Martin Otxotorena (atezainaren aita), Bixente Gorrotxategi Arriurdinetakoa... horiek denok aritzen ginen lardaskan. Ereñozun biltzen ginen, Irrintzi tabernan.

[**Pedro Joxe Mujika "Anatx"**]

Eduardo Oiarbide, osaba, Eibarren atera zen Gipuzkoako Txapelketan, 1945-1950 aldean. Antonio Pagola eta ziren epaile. Uste dut Joxe Lizasok irabazi zuela. "Haietan ni baino hobea hura bakarra huen!" esaten zuen. Laugarren uste dut geratu zela gurea. Hurrengo txapelketan ez zen batere joan. [**Florian Oiarbide**]

Behin edo behin elkartzen ginen Ereñozu alde horretan afaltzen soziedadean eta bertakoak hasten ziren kantari. Altxotarrak, batez ere. Barre puska bat eginez gustura egoten ginen. Zaletasuna bazen herrian, eta bertso giro polita sortzen zen.

[**Inaxio Mari Zubeldia**]

AUZOKO BERTSOLARIAK

1
Ereñotzuri begiratuta
bururatutzen zait neri
bertako izanak nola ditugun
horrenbeste bertsolari
hortaz gainera entzule finak
lehen eta orain ugari
hoiek ezean alperrikan da
ibilitzea kantari.

2
Txirrita lehendik goian daukagu
ezin da gorago jaso
Patxi Bakallo, Pedro Santa Kruz
onak genituen oso
ondorenian Pablo Txikiyak
bertsolaritzan eraso
Juanito Altxo geroago zan
kantatzen zuen eroso.

3
Legarreta-ta Joxe Migeli
ipintzen diot arreta
aipatu behar sartu ezkero
behin bertsolari zaharreta
gainera bere semia gendun
hemen Joxe Legarreta
esan nahi nuke nola guztiok
diogun hainbat zor eta.

4
Joxe Ttanttua bertsolariya
hura beti umorian
lehengo kontuak kontatzen zitun
oso era dotorian
ondorengoak jarraitzen dute
hark utzitako bidian
momentuan bat aipatzekotan
esango nuke Florian.

5
Lehengo zahar hoiek utzi ziguten
bertsolaritza herentzi
ordutik hasi ta orain arte
galtzera ez dugu utzi
orain gazteak indartsu datoz
bertsolari dira jantzi
horrengatikan nik zorionak
Iboni eta Aritzi.

6
Aipatutako batzuak hilak
emanda beren pausua
beste batzuak edadetuak
maite dugunak bertsua
orain gaztiak ikusi eta
guretzat une gozua
hontaz aurrera zuen esku da
Ereñozuko auzua.

[**Manuel Huizi**, 2003an Joxe Legarretaren omenez Ereñozun egindako bertso-emanaldirako jarriak]

SAIOAK

Ereñozura ere joaten ginen gaiak jartzera. Baten batek behar eta ni. Xalbador, Uztapide, Basarri, denak Ereñozuko festetan izaten ziren bertsotan. Gaiak jartzen aritu nintzen batean Xalbador eta Uztapide ziren, eta Xalbadorrek ekarri gintuen bueltan kotxez tren apeaderora. Bere galtza txukunen gainetik bonbatxo batzuk jantzi zituen eta han sartu zen kotxean. Bi zaharren artean etorri nintzen isilik, gustura haien kontuak entzunaz! Oso elkar maiteak ziren. [**Inaxio Mari Zubeldia**]

Garagarrillaren amairuan Ereñozura joango giñan. Ara ere urte askoan joan nintzan.

Lenbizi joan giñanean, lau bertsolari izan ginan: Saiburu edo Lujanbio; Azpeitiko Mandiolatza'koa; Ernaniko kurtiderian egiten zuan lana; uraxe bestea, eta Zepai ta ni. Beti bezela, bi saio egin giñuzen: bat goizean eta bestea arratsaldean.

Bien bitartean joan giñan bazkaltzera, eta neskatxa bat ikusi genduan, bersotan ederki egiten zuana, guk bazkaldu genduan tokian. Ez dakit zarrak edo berriak zer kantatuko zituan, baña boza ederrarekin kantatzen zituan. Ereñozun jende asko izan oi da kanpokoa, eta ez dakit egun orretarako etorritakoren bat edo zer izango zan ura. Geiago ez det nik ura ikusi.

Ernaniko Migel Toledo majiña bat bider joango zan onezkero, berak esan izan duanez. Migel Toledo ori gerra aurreko alkatea zan, da orrek beti gurekin bazkalduko zuan. San Antonio egunean aspaldian etzuan urterik galduko Ereñozura joan gabe.

Gero Basarrirekin asi nintzan joaten. Orrekin ere urte batzuek egin nituan. An ere, goizeko saioa egin ezkero, lanik txarrenak egiten ziran. Soziedade bat zegoan; ara bildu oi giñan, plazako saioa egiten genduanean, eta an izaten ziran kanpotik etorritakoren batzuek. An, tragoska bat egiñaz, bertsosaioren bat egingo genduan, da iñon baño atentzio obea edukiko zuten. Urumea errekan bada afizioa, eta entenitzen dute aiek bertsoa zer dan. Batenbat ixilik ezin egon bazan, berealaxe esango zion an batenbatek:

– Ixilik egon edo bestela alde kanpora emendik!

Basarrik eta nik biok arratsaldean egingo genduan beste saioren bat, eta goizean baño errezago; kezka gutxiagorekin beti ere. Jendea agurtuko genduan plazan, urrengo urte arte esanda eta berriz ere ez aztutzeko gurekin, eta jetxiko giñan, soñu -jotzalleari txanda eskeñiaz.

Urte batzuetan segitu genion Basarrik eta biok, baña arek utzi egin zion gero, eta ni Lasarterekin asi nintzan orduan.

Lasarterekin ere urte askoan joan giñan. Biok ondo alkar artutzen genduan, eta bertsotan errez egin ere egiten genduan. An, Txilibitanea esaten zaiona, bada taberna bat, eta ura ere bisitatu bear izaten genduan. Suia ere, bat soñu jotzallea du Txilibitak, eta egundoko juerga egin oi zan etxe artan.

An ere beti egin bear izaten genduan bertso-saio bat.

Beste batean, Agirre azpeitiarrarekin ere izan nintzan. Bertsolari bizia da uraxen; jendeari gusto emateko modukoa. Ereñozun bazekiten aren berri ordurako; len ere askotan izanda zegoan ura.

An izaten dira, bertsotan entenitzen duan jendea ere, Juan Marko ta Uizi naparra.

Jendea, berriz, nik ez dakit nundik etortzen dan ainbeste jende errekazulo artara. Ikusi egin bear da ango automobillen emana ta ango jendetza.

[**Manuel Uztapide**, Lengo egunak gogoan]

Eliza goiko koskatik, eskailera maila bat jaitsi eta hor aulki bat jartzen zuten, eta hor esertzen zen bertsolari bat, eta bestea frenteko etxeko leihotik. Gero nik ezagutu nuen goien, bi etxeren tartean, Goikoetxeren eta bestearen artean, bolatokia zen hor, eta hortxe. Nik hor ezagutu dut Saiburu. Xalto ere aritu omen zen intxaurraren gainera igota!

[**Florian Oiarbide**]

Ereñozuko festetan, urte askoan ezagutu dut Pablo Zubiarrain, Mitxelena ere bai eta bestea Lexoti. Jendeak disfrutatzen zuen... urte guztia haren zain! Barrioko festa behar zuen bertsolaria aditzez gero!
[Florian Oiarbide]

LAGUNARTEAN

Gure gurasoen taberna-dendara biltzen ziren jai iluntzean. Afari mokoa egin eta gero bertso zaharrak kantatzen zituzten. Bertso asko zekizkien Epeleko Joxe Miel Ugaldek (Joxe Manuel Ugalderen aitak). Joxe Luis Artola ere etortzen zen, Alkatxuingoa.

Bertso zahar bat ez zekienik barrioan ez dakit zein izango zen! Baita emakumeak ere! Txirritarenak batez ere.
[Florian Oiarbide]

Afizioa zegoen batek besteari puntuak jartzekoa. Joxe Luis Artola, Daniel Zerain, Joxe Zerain, Inixio Arretxe... Goizean sei eta erdietako mezetatik atera, eta kruzea dago 100 metro gora joanda, Katiluxar. Kruzeraino puntutan joaten ginen, eta handik aurrera batzuk Alkatxuinera eta besteak Larre-Gain aldera jarraitzen genuen.
[Florian Oiarbide]

LUISTARRAK

Gu iritsi ginenean oso komisio jatorra zegoen. Larretxeak egiten zuen buru eta Joxan Ruiz ere tartean zen. "Gu uztera goaz" esan zidaten, eta "urtebete behintzat iraun ezazue, hemengo jendea ezagutu arte" eskatu nien. Beste aldetik don Eusebio Iraola bikarioak, kargu hori kendu egingo zigutela komisioko horiek botatzen ez bagenituen! "Ez, ez dut onartzen" esan nion eta urtebete iraun zuen junta horrek.

Harri-burni, plazako Gaztetxea sortua zen ordurako. Taberna geneukan, gela batzuek... eta hori guk eramaten genuen, erabat. Gero sartu ziren Jokin Peñagarikano, Olano, Aldasoro... Mendi-Gain ere gure ardurapean zegoen.

1970etik aurrera, Aitor zineman, Errege bezperan saioa antolatzen zen. Betekada izugarria izaten zen, politika aldetik bertsolaritza beti ibili baita muga-mugan. Joxe Mari Arrieta izaten genuen gaiak jartzen eta bertsotan onenak: Lasarte, Lazkao-Txiki... Behin gaia jarri zuen: "Zer eskatuko zenieke hiru erregeeri?" Imanol Lazkanok bota zuen:

Gizonak gizon bitez
eta herriak herri
nik hau eskatzen diet
hiru erregeeri.

Etxamendi eta Larralde ere asko ekarri genituen. Debekatuta zegoen. Guri oso eraginkorrak eta irekiak iruditzen zitzaizkigun eta urtero ekartzen genituen. Oso bolada ederra izan zen. [**Iñaki Aranzadi**]

Luistarrek antolatzen zituzten kultur ekitaldi gehienak. Mendi elkartea ere bazuten, Mendi Gain. Euskal gaietan mugitzen ziren, elizaren babesean. Bestela ez zegoen ezer egiterik! Eta hala ere poliziak nahiko bijilatuak zituen Hernanin luistarretan zein mugitzen ziren... Bertso gauzetan Inaxio Mari Zubeldia aritzen zen gehiena. Bere etxean makina bat bertsolarik lo egin zuen! [**Antton Garin**]

(Joxe Legarreta "Pepito"k) Euskal kultura maite zuen, beste guztiaren gainetik eta kultur ekitaldiak antolatzen aritzen zen askotan Ereñotzuko gazteen aitzindari: Luixtarren garaia zen eta ibilaldiak, dantza txapelketak, bertso saioak eta karrozak ez ziren inoiz falta izaten, bera inguruan bazen.
["Pepito"ren omenez liburuxka. 2003ko ekainean]

22-23 urterekin sartu nintzen Mendi Gainen. Teorian mendi elkartea zen. Mendia bai, urte osoko programa egiten genuen. Baina beste gauza asko ere egiten genituen, horren itzalean: hitzaldiak, euskara klaseak, aldizkari bat atera genuen euskaraz eta erdaraz Hemen izena zuena, kantaldiak ere antolatu izan genituen, Borda eta Sarasola eta beranduago Guk taldea ekarri genituen... Mendi Gainetik atera zen kultur aktibitate zabal hori eta bertso munduan bi gauza egiten ziren: San Inazio festak, eta honen bezperan bertso saioa. Asko etorri izan dira Enbeitatarrak: Balentin, Jon eta Abel, eta Moises ere bai urteren batean. Bezperako jaialdi horretan kantatzen zuten, gero gauean hemen geratzen ziren eta San Inazio egunean Santa Barbaran jarduten ziren.

Eta San Jose egunean Txirritaren omenezko bertso saioa egiten genuen. Eguartean egiten genuen, gehienetan Galarretan. Galarreta dohainik uzten ziguten. Seiko koadrila izaten zen bertsotan, eta koadrila ona: Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Jon Lopategi, Jon Azpillaga... gaiak jartzen ni aritzen nintzen eta 400-500 pertsona biltzen ziren.

[**Juanjo Uria**]

ERRONDAK

Hiru-lau lagun elkartzen ginen ostegunero Irizarreneko tabernan. Kafea, fariasa piztu, koparik ez genuen hartzen, botila sagardoa hustu eta erronda egiten genuen herri osoari kantari. Patxi Odriozola, Juan Miel Zugasti "kattarrotarra", tarteka Juanito "Emeri"... tabernetan sartzen ginen baina ez denetan, hurrengo egunean lanera joan behar zen eta! eta kanta zaharrak kantatzen genituen. Azkeneko saioa, luzetxoena Ramon Amerikanoanean joaten zen (Setiendarrena zen. Andre kalearen bukaeran zegoen, Plaza Berrin).

Santa Ageda bezperako erronda 1962an berreskuratu zen. Iturria: Noticias de Gipuzkoa.

Orduan ere tabernan geunden. 1962a zen. Irizarrenean, kafea hartuaz, Koldo Goia, Patxi Odriozola eta ni. Patxik esan zuen "gerra aurretik ateratzen ginen Euzko Gaztedi Taldekoak Santa Agedan eskean... Zuek laguntzen badidazue aterako dut koadrila!". "Benga!"."

Gerra aurretik errondan ateratzen zuten diruarekin futbol talderako materiala lortzen zuten. Gu maindire zahar batekin ateratzen ginen eta biltzen ziren sosak beharrean zen familia bati ematen zitzaizkion. Eta afaria egiten genuen Joxe Mari tabernan. [**Inaxio Mari Zubeldia**]

Errondan lehenengo atera zen bertsolariaren bila Anjel Osa eta biok joan ginen Azpeitira: Joxe Agirre.
[Inaxio Mari Zubeldia]

Ni aurreneko 1963an atera nintzen. Aurreko urtean Joxe Agirre atera zen. Gero harekin Amerikanoan saio bat egin genuen, eta hurrengo urtean ni. Hainbat urte errenkan ni atera nintzen. Errondan ez zen altabozik ez ezer erabiltzen. Ez zen ederra izaten. Gero altabozarekin hasi ginenean, hura paseo bat zen! Baina azkenerako aspertu egiten da bat.
[Tturko]

Hernanin ni bakarrik ateratzen nintzen. Urte batean ni ez nintzela aterako esan nuen eta Batista Madariaga nafarra etorri zen; azkenean ni ere atera nintzen eta biok ibili ginen. Beste batean ni atera ez eta Xalto etorri zen. Ni ateratzen ez nintzen urtetan Eusebio Igartzabal ateratzen zen. [**Tturko**]

Jon Odriozola Ohitura Zaharrak Abesbatzaren kideak azaltzen duenez, garai desberdinak ezagutu ditu Santa Ageda bezperako eskeak. 60. hamarkadan herria askoz txikiagoa zen, baina bizitza kalean egiten zen eta horrelako ekimenek jende asko biltzen zuten. 70. hamarkadan, ordea, apostu handia egin zen euskararen alde eta hurrengo urteetan taldeak ohiturari eutsi dio.

[**Aitziber Muga**, Noticias de Gipuzkoa 2012-02-03]

Kopletan Arozamena eta Tturko ezagutu nituen nik. Agirre ere urte bat edo bitan etorri zen. Gero Igartzabalek hiru-lau urte egin zituen, eta esan zuen: "bueno, zuek jada honako nahikoak zarete, Antton, Aterpe, Argiñarena...". 80 ingurua zen.
[Julian Ezeiza "Aterpe"]

Gu joan ginen Eusebio Igartzabalen etxera errondarako lotzera, eta berak lan pila egin zuen. Igual etorri izango zen hura 6-8 urtean Gabiriatik hona. Guk esaten genion "hau halako taberna duk, goien hau bizi duk, aurrean dagoena horrelakoa duk...". Kaminoa jartzen genion eta bera poliki poliki aritzen zen. Guk lehenbizi inbidia, baina gero haren ondoan "nik ere

botako diat bertso bat!" sentitzen genuen. Poliki poliki hasi ginen, eta handik urte batzuetara jada gehiago hasi ginen Igartzabalekin sartzen, eta azkenean Eusebiok esan zigun "ba al dakizue zer pentsatu dudan? jada ez naizela gehiago etorriko. Zuek nahikoak zaretela Hernaniko lanak egiteko". Horrela hasi ginen gu gehiago elkartzen.

Eta gogoratzen naiz urte batean bertsolari gehiago izan ginela abeslariak baino! Igual zortzi bat izango ginen: Aterpe, Anatx, Tapia, Argiñarena, Eizmendi, Aristorena... **[Antton Garin]**

2005eko erronda.

Ibilbidea: Hasi eliza-atzetik, handik atera eta Paulo Txikia bizi zen etxera joaten ginen, Buxkando aurreko Villa Manolitara. Han kantatzen genuen eta handik plazara. Plazatik Andre kalean Zinko Enearaino, gero Zinko Eneatik kale Nagusian behetik goraino, zeharkako kalean pixka bat sartzen ginen, eta eliz aurreraino. Han bukatzen genuen. Gero Joxe Marirenera joaten ginen afaltzera. Baina norberak pagatuta, e! **[Tturko]**

Antolazalea zen Patxi Odriozola, "Tiburtxio". Hori izaten genuen gure nagusia. Entsaioa parbulitoko eskoletan egiten genuen. Han izaten ziren Mitxirrika, Tejedor, Ugaldetarrak hiru anai... **[Tturko]**

Lehen bi erronda egiten genituen, San Joanetakoa eta Santa Agedakoa eta orain hiru egiten dira, Urte Zaharretakoa bestea.

Santa Agedako erronda hasi zenean, igual ibiltzen ginen 50 laguneko koadrila, Patxi Odriozolarekin. Patxi izan zen "alma mater". Guretzako ere bai, bertsotarako "zuek botako duzue! benga, segi! bota horri!".

Zenbat urtetan gertatu zaigun Santa Agedetan kalejira egin, bertsoa bota, horrelako balkoian dagoen neskari, edo tabernan porroiarekin dagoenari, horrelako tabernariari ura gehiago ibiltzen duela ardoa baino... eta plazan erronda bukatzen genuenean Patxik: "ba al dakizue zer esango dizuedan? Santa Agedari ez diozuela bertso bat ere bota!". Eta arrazoi zuen e! Hura erne ibili beti! **[Antton Garin]**

Errondari badiot kariño berezi bat, gure aurrenetako plaza naturala izan delako. Inork deitu gabe joaten uzten ziguten, eta bertan kantatzeko aukera eduki dugu beti. Guretzat inportantea izan da. Uste dut errondak eboluzio bat eduki duela: garai batean erronda hori janztera joaten ginen, eta gaur egun bertsolariak dira errondaren zentroa. Niretzako badu bere mamia errondak, ez hainbeste tradizioaren kontuagatik, baizik eta aukera ematen duelako bertsoa kalera eramateko. Errondan gabiltzanean, aurrean daukagu urte osoan saio bakar batera joango ez den jendea. Aukera hori aprobetxatu egin behar da. **[Joxe Luis Urdangarin]**

Hernanin antolatzen diren errondak dira Santa Agedatakoa, San Joan bezperako erronda, sagardotegietako Gabon Gaueko erronda (Loidin hasi, Elorrabi, Iparragirre, Altzueta, Otsua-Enea, Itsasburun barrena egiten dena) eta Urte Zaharretako erronda.

Santa Agedakoa izaten da normalean joko gehien ematen duena, gehien luzatzen delako, eta aste gorrian igual egiten delako eta ez jai bezperan. Jai bezperatan herria dagoen bezala dago eta hor enkajatzea ez da hain erraza izaten.

Ni bertsotan ari naizenetik errondan atera naiz. 14 urtera arte Ikastolako errondan ateratzen ginen eta hortik aurrera herrikoan. Urtero hiru errondetan behintzat atera naiz. Badira gehiago ni bezain finak edo finagoak.
[Joxe Luis Urdangarin]

Nire bertso ibilbidean, oso garrantzitsuak izan dira errondak: lagun artean ondo pasatzeko aitzakia oso polita dira eta bertsotan gutxi xamar zabiltzanean zure burua pixka bat motibatzeko oso ondo datoz. Bereziki Santa Ageda erronda da gure artean kuttuna, bere luzera eta urte garaia kontutan hartuta oso saio ederrak atera izan dira.
[Iñaki Zelaia]

2004ko Urte Zaharretako erronda.

Ikastola garaitan hasi ginen, maindirea eramaten. Gaueko 11ak arte egon ginen, hurrengo egunean ikastolara joan behar zelako. Eta handik aurrera urtero atera gara Iker Osa eta biok, Hernanin egiten diren hiru errondetan. Gu hasi ginenean Aterpe eta Garin ibiltzen ziren, gero pixka-naka utzi egin zuten eta guk jarraitu dugu. Iñaki Zelaia eta Joxe Luis Urdangarin ere nahiko finkoak dira, eta gustura.

[**Jon Iraola**]

Igual huts egin izan dugu Santa eskeren batean, herri as-kotatik eskatzen dituztelako bertsolariak eta banatu izan garelako. Baina gehienetan hor izan gara Iraola eta biok. Hiru-lau-sei-zazpi bertsolari izaten gara. Entzuletan ez da beti nahi beste izaten, baina gure artean giro polita izaten da eta horrek balio du. [**Iker Osa**]

SANTA AGEDAKO ERRONDA 1989-02-04

Jon Eizmendi:
Santa Ageda genun santua
aspaldi mundutik juna
baina halare hemen urtero
gogoratutzen deguna
garai batian hasi zan eta
geroztikan oihartzuna
gaur ere hala kunplitzen degu
eman genion eguna.

Antton Garin:
Ai, Eizmendi zu gogor zera-ta
bertsotan baita iaiua
Santa Agedetan zintzo asko bai
zuk ematezu pausua
ez dakazu zuk ohitura zaharra
orain behintzat'e ahaztua
gaztea zera baino oraindikan
merezi dezu txalua.

Julian Ezeiza "Aterpe":
Eta Eizmendik azaldu digu
santa maitiaren grina
nola genduen oso aintzinan
mundutikan aldegina
gero Jainkuak halaxe nahi ta
egin zun amabirjina
hobe genduke guztiok haren
tankerakuak bagina.

Jon Eizmendi:
Hemen jarraitzen baldin badegu
bukatuko da negua
eta guk berriz beste norabait
mugi nahi degu hegua
nik oraindikan nola daukaten
jarraitutzeko gogua
beste tokira joaten bagera
hartuko degu tragua.

(...)
Julian Ezeiza "Aterpe"
Lehenago ere bagenekigun
Azurmendineko berri
horregatikan gaur gauean gu
honuntza gera etorri.

Antton Garin:
Ohitura zaharrez beti bezela
Santa Agedan gaude-ta
zorion eta agur bero bat
Joxe eta suia dela.

Jon Eizmendi:
Lehenago sarri ibili gera
leku honen konpainian
abaniko bat jarri diote
orain atian gainian.

Julian Ezeiza "Aterpe":
Adela honek merezi ditu
gure bertsorik onenak
beti horlaxe ekartzen baitu
borondatia duenak.

Antton Garin:
Batek makila, bestek porroia
zerbeza urruti ere ez dago
martxa hontan ere bukatuko deu
eurian bildurraz nago.

Jon Eizmendi:
Ardua eta zerbezarekin
joaten baitira egarrik
hemen guztiok busti nahi degu
baina ez kanpotik bakarrik.

Julian Ezeiza "Aterpe":
Hemen danetik ikusten danez
nola daukagun aukera
horrela gozatzen badirade
berriz etorriko gera.

Antton Garin:
Santa Ageda bezpera degu
ta gaur gabiltza kantatzen
aurreraxio, gehio edanen
behintzat ez gera goatzen.

Jon Eizmendi:
Pentsa zazute gu betirako
hona etorri ez gerala
eta porroiak uzten ditunak
berak pagatu ditzala.

(...)
Antton Garin:
Ondo jantzita sonbrero ta guzi
ikusi det hor gizona
tankera onian argazkiaz ta
sonbrero handia daukana
dudarik gabe hoi izango da
fabrikan baten egona
baino aurrian maindiria egonda
ez du bota horrek txanpona.

Jon Eizmendi:
Gure Anttonek gaur eman digu
hoinbesteko inbidia
bestiak ere hitz egiteko
badegu eskubidia
galdetutzen det zergaitikan dan
Santa Ageda martiria
hemen dirurik bota nahi ez bada
alperrik do maindiria.

Antton Garin:
Orain banua gaur agurtzera
Xantin familiarekin
oain dala gutxi etorri omen da
hori sei basurdiakin
guk ez degu ezer probatuko
aspalditik badeu jakin
gaur guk ere konforme behar
txorixo bokadillokin.

(...)
Antton Garin:
Aurten hondantzan zer moda eongo dan
dauneko zera enteratu
zu lasai egon zure alabak
trajebainoa ingoizu prepatu.

Jon Eizmendi:
Berriro ere trajebainuai
hasi behar al deu begira?
gaurko egualdia beti badegu
laiste izkutatuko dira.

Julian Ezeiza "Aterpe":
Aspaldin ere nik ez det entzun
izandu horrelakorik
iruditzen zait ez ote dagon
neure tamainakorik.

Antton Garin:
Martxa hontan ere trajebainua
hor egon biharko utzita
Julian hau're hobe egongo da
abrigo handi bat jantzita.

Jon Eizmendi:
Beti horrela jarraitu baino
bidia bado oraindik
negu guzia pasa artian
segi dezagun hemendik.

(...)
Julian Ezeiza "Aterpe":
Pozikan gaude Txantxangorrira
gaur etorri geralako
urteko antza gaur ere ondo
hemen porta diralako
etorkizunai begira jarri
eta horrek ematen du poz
gu zahartzen hemen ai gera baino
landare berrik badatoz.

Antton Garin:
Aspalditikan ixtimatzen deu
guk ere Txantxangorria
hemen badaude arrantzalarik
eta bado ehiztaria
guk ere hementxe gustoz geratu
prestatzen deu eztarria
deskantso eder bat merezi deu ta
jan zagun gero tortila.

Jon Eizmendi:
Hemen tortila eukitze horrek
nola ematen digun poz
istimatu're egiten degu
guk hemen eskerrikaskoz
Santa Ageda kopla kantatuz
makilarekin lurra joz
txantxangorriak ez gera baino
kabi hontara bagatoz.

Julian Ezeiza "Aterpe":
Eta agurra hontaz aurrera
eman bihar det nik laiste
hau ikusita ez gero pentsa
inor dagonikan triste
faisana eta eperra asko
hemen zaharra eta gazte
haien haragik jan ta ondoren
hezurrak uzten dituzte.

Jon Eizmendi:
(...)
baina agur bat gaur eman gabe
nola geran aterako
tortila danak jaterako ta
ardu hoi edaterako
ura aspaldi utzi genduan

1993KO GABON ERRONDAKO BERTSOAK

Urtero egiten da Gabonetan erronda baserriz baserri. Han kantatzen dute Aitor Mendiluzek eta Iñaki Zelaiak (lehenago Anatxek ere bai). Umetatik joan izan naiz familiarekin eta azken urtetan kantatzea ere tokatu izan zait eta gustura.
[Eli Pagola]

Joxe Mari Mujika "Anatx":
Zikuñaga hontan ere badago
ere hainbat borondate
beldurrik gabe bota zazute
maindirea bete arte.

Jokin Sorozabal:
Euria hasi azkar eiten dik
eta gelditu poliki
gelditu arte segi behar badek
aspertuko haiz ederki.

Joxe Mari Mujika "Anatx":
Gaur eskerako ekarri degu
guk maindire bat galanta
baina paperik ez bota arren
busti egingo dira-ta.

(...)
Joxe Mari Mujika "Anatx":
Aizu gaurkoan ez da tokatu
kapritxoko egualdia
bixitatzera etorri gera
Aterpeko familia.

Julian Ezeiza "Aterpe":
Kopla batzuek botatzen hemen
egingo det ahalegina
oraindikan'e etxian daukat
zuentzako oroimina.

Jokin Sorozabal:
Hobe zenduke barrura sartzen
ez utzi ezkero danak
gu baikera behin sartu ezkero
ateratzen ez geranak.

Joxe Mari Mujika "Anatx":
Galdera bat det: jakin nahi nuke
zerorren opiniua
aizu Julian zer moduz doa
zure operaziua?

Julian Ezeiza "Aterpe":
Ni bezelaxe beste asko're
ohi dira konturatuak
ta nik dauzkaten hiru hanka hauek
daduzkat izorratuak.

Joxe Mari Mujika "Anatx":
Andreai ere galdetutzia
ez al da idea ona?
Gizonak hiru aipatu ditu
zein ote dauka sanona?

Jokin Sorozabal:
Aizazu Anatx, edukazioz
asko ez dezu ikasi
bakarka esan behar diranak
hemen galdetzen ez hasi.

(...)

Jokin Sorozabal:
Berdintsu dio lehenen kantatzen
bat edo beste hasita
ta Egineko agintariak
hor dauzkagu eserita
zerbait susmatzen ari gera gu
hoiek hola ikusita
egunkari bat ez da egiten
tabernetan ibilita.

Joxe Mari Mujika "Anatx":
Eginekoak Sorozabalek
exeita ditu ikusi
alper xamarrak ote diraden
nahi zuen adierazi
ta hi ohiean hengon garaian
hoik lanean dituk hasi
hainbat ordutan lan egin dunak
hoinbat ez al dik merezi?

Jokin Sorozabal:
Ez det esaten deskantsurikan
ez dezutenik merezi
baina ez nun inoiz Txintxuanean
hainbeste jende ikusi
egia esan horrek badauka
hemen nahiko zerikusi
esango nuke hemen daudela
Atutxangandik ihesi.

Joxe Mari Mujika "Anatx":
Haundia esaten ari haiz baina
jendea zegok trankila.
Atutxa hoi're nere ustetan
ez al da jende abila?
gaurkoan ere bildu gerade
sekulakoa koadrila
baldin horren da baliente bada
orain etorri dadila.

EREÑOZUN

Bi gazte etorri zitzaizkidan Santa Agedan Ereñozuko errondan ateratzeko eskatuz: Daniel Zerain eta Pepito Legarreta. Familiakoak ez izateko huts handia sortu zidaten baten eta bestearen heriotzak.

Tturko ere Ur-Mia elkartean entrenatu zen Hernaniko errondan ateratzeko.

Ereñozun lehenengo urtean ni atera nintzen, 1964-65ean. Ni bakarra nintzen koplari, eta gazte gaztea koruak kantatzen, Florian Oiarbide. Gizon hori lan handia egina da, Santa Agedetan ere.

Soinuarekin Balentin Zialtzeta ateratzen zen.

Dozena erdi bat urte edo egingo nituen, eta gero ondoezik hasi nintzen. Nerbioak jasaten ditut oraindik batzuetan, eta plazetan aritzeak ere kaltea pasa zidan. Santa Agedetakoa horrelaxe utzi nuen. Lehen mutilak bakarrik aritzen ziren, eta neskak handik bost urtera edo hasi ziren ateratzen.

Erronda bukatutakoan Florian Oiarbideren gurasoek zeukaten tabernara joaten ginen afaltzera. Afalondoan dantzan eta bertsotan aritzen ginen, eta Florianek han bertsoak kantatzen zituen. [**Manuel Huizi**]

Ereñozun Santa Agedan eskean ateratzen gara, koplaka. Urte askoan Manuel Huizi eta atera ziren, gero Florian Oiarbidek eta utzi zutenean kanpotik ekartzen genituen Joxe Fermin Argiñarena eta Anatx, eta gero Aritz Zerain eta biok hasi ginen. Azken urteetan Unai Agirre ere etorri da. Koplaka egiten da eta bukaeran Larre-Gainen bertsotan aritzen gara.
[**Ibon Miner**]

Joxe Fermin Argiñarenarekin 24-25 urtez aritu nintzen Ereñozun errondan. Eta Garin eta Aterperekin kalean.
[**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

Lehenik Hernanin atera nintzen, Igartzabalekin (1975-80 inguruan). Gero Ereñozun hasi nintzen errondan, Florian Oiarbiderekin, geroztik Anatxekin... Anatxekin oso kimika ona nuen eta hogeita gehiago urtean hutsik egin gabe atera ginen. Baserri denak pasatzen genituen eta Larre Gainen bukatzen genuen. Eta gero Ur-Mia elkartera joaten ginen afaltzera.
[**Joxe Fermin Argiñarena**]

Behin atera nintzen Ereñozuko errondan kopla kantari, Unai Agirre eta Aritz Zerainekin.
[**Arnaitz Lasarte**]

TXAPELKETA NAGUSIAK



Uztapide irabazlearen sariarekin.
Iturria: Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak.

Atal osoaren iturria: **Jesus M. Etxezarreta**, Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak liburua.

1962KO TXAPELKETA NAGUSIA DONOSTIAN

Astoria Antzokian, abenduaren 30-an.

Euskaltzaindiak, kanporaketak egitea erabaki zuan, baiña askoz geiago eta eskualdeka. Amazazpi kanporaketa egin ziran, Bizkaian, Nafarroan eta Gipuzkoan.

Basarri eta Uztapide, txapelduna eta ordekoa, besterik gabe zijoazen finalera. Kanporaketetan 84 bertsolarik parte artu zuten.

Kanporaketa oiek egin ondoren amar bertsolari geldi-tzen ziran Donostirako, Sailkapena:

Txapeldun Uztapide.
Bigarren Basarri.
Hirugarren Xalbador
Laugarren Lazkao Txiki
Bosgarren Mitxelena
Seigarren Arozamena
Zazpigarren Mattin
Zortzigarren Azpillaga
Bederatzigarren Lopategi
Hamargarren Zabaleta

Epai-maia:
Antonio Arrue, Koldo Mitxelena, Antonio Zabala, Bordari, Juan Mari Lekuona, Marcelo Andrinua, Antonio Valverde, Pedro Diez de Ulzurrun, Juan San Martin, Alfonso Irigoien (gai jartzailea), Emile Larre eta Mixel Itzaina edo Pierres Lafitte (ziur ez dakigu zein).

Arozamena bakarko lanetan

Or aurrean daukazute bixigu eder bat, bixigu fresko-fresko bat. Oraintxe bertan arranparrillan errea, eta baita olioarekin, ozpiñarekin eta barazuriarekin maneatutako salsa beroa. Or dago ori ere. Bertso bat.

Berak esan dirate
zerbait kantatzeko,
ni emen nago berriz
ikunplitzeko,
bixigua ekarri
usaya artzeko,
piper eta oliyo
ederki jartzeko,
oi guri neurtzeko,
inbirin sartzeko,
gero oztutzeko,
baña ez galdutzeko,
giro ederra dago
orain bazkaltzeko.

Puntua:
Ez da txantxetakoa
aurtengo negua,

Arozamena:
ederki zuritu du
mendi ta sorua,
lenbiziko jela ta
gero erasua,
pixkateko kendu digu
gorputzan berua.

Puntua:
Zer dezu nayago zuk
ardo ala wiski?

Arozamena:
ortatik erateko
ibiltzen naiz gaizki,
ardua merke degu,
oi berriz garizti,
askorik eran gabe
bearko deu noski.

Puntua:
Inbiriya da gauza
sendatzen ez dana,

Arozamena:
askotan bat bestiai
kanpuan emana,
bestela berriztikan
ixilik esana,
sendatzeko errezatu
Aita-gure bana.

Puntua:
Erori nintzan eta
galdu nitun bi ortz,

Arozamena:
oker aundik neretzat
orretatik datoz,
birian zegon arriya
ura ere zorrotz,
zer janikan gabe orain
arkitzen naiz ni motz.

Mattin eta Arozamena ofizioka

Biok orain amabost urte ezkondu ziñaten. Mattinek amabi seme-alaba ditu, ta Arozamenak bat ere ez.

Mattin:
Ofizioaren esplikatzeko
ethorri da tenoria,
amabi umekua baita
Mattinek dun familia,
gure etxian arrats guziez
badago bai umoria,
eta lagun hau beti triste da
bate umerik gabia.

Arozamena:
Orain dala amabost urte
biyok giñaden ezkondu,
eta Jaungoikuak gui eztigu
biyori berdin lagundu,
nik seme-alabik eztet eta
onek amabi izandu,
gau eta egun, Mattin maitia,
etzera geldik egondu.

Mattin:
Amabost urthe eztitut pasa
nekean edo penetan,
alegrantzia izaten baita
haurrak diren familietan,
batian dela batayua ta
bestian komunionetan,
ni bestaz-besta ortxen nabila
orai nere umietan.

Arozamena:
Zure izketai bear bezela
orain nai diot erantzun,
familirikan eztegu bañan
konsueloz pasa zagun,
gizon txikiyak bizkorrak dira,
begiratu ta ezagun,
fabrikan baten lan eiten bezu
ai zer jornala daukazun.

Mattin:
Jakin beauzu ni haur oiekin
arras kontentu nagola,
eta nai nuke luzaro bizi
segur oino hola-hola,
ta gero ere zabalduko da
Mattin gaizoaren odola,
eta han berriz zertarako da
fruitu gabeko arbola?

Arozamena:
Fruturikan gabeko arbola
naiz ta sayatu lanian,
gure Jainkuak ez gaitu ikusten
danak begi berdiñian,
bañan, Mattin, ez nuke egon nai
zure larrun barrenian,
ai zer etorkizuna daukazun
ezkontzen aste'iranian.

1965EKO TXAPELKETA NAGUSIA

Ezkerretik hasita: Mugartegi, Azpillaga, Lizaso, Uztapide, Basarri, Lasarte, Lazkano, Egileor, Agirre.
Iturria: Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak.

Anoeta pelota-lekuan.

Aurreko txapelketan bezela, ia urte osoa kanporaketak egiten pasa zuten, Nafarroan, Bizkaian eta Gipuzkoan. 115 bertsolarik artu zuten parte kanporaketa oietan, orra alderdi bakoitzetik zenbait: Lapurditik 1; Baxenabarratik 1; Naparroatik 16; Bizkaiatik 26; Gipuzkoatik 71. (Hernanikoa Pablo Zubiarrain)

Azken saioa urte berri egunean ospatu zan. Ondoren (Uztapidek azken saioa bakarrik egin zuan). Sailkapena:

- Txapeldun Uztapide
- Bigarren Lazkao Txiki
- Hirugarren Xalbador
- Laugarren Mitxelena
- Bosgarren Mattin
- Seigarren Lopategi
- "Gaiñerako beste laurak" (Mugartegi, Arozamena, Garmendia, Narbarte)

Epai-maia: Emile Larre, Mixel Itzaina, Pedro Diez de Ulzurrun, Jose Mari Satrustegi, Aita Martzel Andrinua, Gabriel Aresti, Antonio Arrue, Juan San Martin, Fernando Artola "Bordari", Eusebio Eizmendi "Txapel"eta Alfonso Irigoyen.

Migel Arozamena

Iru bertsu gezurrari

Gure Alpontxok zer esango zun
entzundakuan banakin,
t´asi nai nuke orain kolpetik
entzuten diran itzakin,
bire okerrak artutzen dira
askotan bai mingañakin,
beste batzuek berriz dezente
bizi dira gezurrakin.

Guk txikitatik olakorikan
iñun ez gendun ikusi,
eta dotriña ikasi gendun
eskolatikan lenbizi,
zuzen-bidetan egon nai bada
disgustorik gabe bizi,
lagun maitiak, gezur esaten
iñori ez erakutsi.

Gure itzak gezurra orrekin
azkeneko kondarretan,
aritzen gera engañatutzen
alperrikako lanetan,
egiy'esanda're bizi gera
mundu onetan zorretan,
beste batzuek berriz kotxian
dabiltzalik gezurretan.

1967KO TXAPELKETA NAGUSIA

Donostian, Anoeta pelota-lekuan.

Etapa ontako azken txapelketa izan zan au. Gorabera aundiak sortu ziran, txapelketa onen ondoren.

Juradua, eztabaidatua izan zan aurreko txapelketan ere, gaiak ere bai eta azkenik Xalbadorri jo zioten txistuak (inongo arrazoirik gabe) errotik jota utzi zuan bertsolari txapelketa nagusia. Beste puska batean ez zan egingo eta beste sistema batzuk asmatzen asi ziran (Sariketak, dirutza aundiko premioak, puntuak bistan ematen eta abar...).

Bertsolari txapelketa guzietan bezela, oraingoan ere aurrez kanporaketak egin ziran errialdeka, txapelketa nagusirako onenak aukeratzeko.

Finalistak, sailkapena:

- Txapeldun, Manuel Olaizola "Uztapide"
- Bigarren, Fernando Aire "Xalbador"
- Hirugarren, Jon Lopategi
- Laugarren, Jose Migel Iztueta "Lazkao-Txiki"
- Bosgarren, Jose Luis Gorrotxategi
- Seigarren, Migel Arozamena
- Zazpigarren, Txomin Garmendia
- Zortzigarren, Mattin Treku
- Bederatzigarren, Juan Mugartegi
- Hamargarren, Bautista Madariaga

Epai-maia: Antonio Arrue, Fernando Artola "Bordari", J. M. Satrustegi, J. M. Lekuona, Mixel Itzaina, Emile Larre, Mariano Izeta, Anbrosio Zatarain, Akilino Izagirre "Zepai", Antonio Zabala, Aita Andrinua, Xabier Amuritza, Alfonso Irigoien (gai jartzaillea).

Xalbador eta Uztapide sariekin.
Iturria: Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak

Lau oinekin sari berezia

Sari berezi bat jaso zuen Arozamenak. Alfonso Irigoyen gai-jartzailearen hitzetan: Gañera, bertso-zale batek bosteun pezeta eman ditu, gaur goizean Arozamena'k Urumea'ko ibaiari kantatu dion bertsoarentzat.

Jarritako lau oinak: ibaia, arraia, usaia, garaia

Arozamena:
Etxe onduan daukagu
eundoko ibaia,
bañan urri samar dago
barruan arraia;
Urumea errekak
or dauka usaia,
garbitzeko're mutillak,
badiyeu garaia!

Migel Arozamena eta Txomin Garmendia

Garmendia, osasun onenean zaude; bañan, iltzen zeranerako, kaja bat, zerraldo bat, erostera zoaz. Zu zera erostera zoazena, eta zu, Arozamena, arotza.

Garmendia:
Egiya esan, ni gaur nago
osasun onenean,
bañan eriotza'r'etortzen da
usterik gutxienean;
zerraldo batzuk egiten, lagun,
jarduten zera lanean,
oietako bat erosi nai det
edukiz aldamenean.

Arozamena:
Ez dezu esango zure gorputzak
ez daukala indarrik,
ta biyotzetikan oraindikan
sentitu gabe okerrik;
kajaren eske ementxe zatoz,
etzazu egin negarrik,
zure gorputza sasoiko dago,
oraindik ez dezu biarrik.

Garmendia:
Neure korputza ikusten dezu,
ta ez naiz oso luziya:
metro ta irurogei ta amarrek'oi,
ezta ere itxusiya;
kaja beltz bat nik nai nukena,
artuta daukat etsiya,
egiten baezu ordainduko'izut
eskatzen dezun guziya.

Arozamena:
Onen burua gaur gertatzen da
bire txarretan lotua,
egur pixka bat, nai baldin baezu,
badaukat inguratua;
kaj´oi eraman da jartzen baezu
zure etxian sartua,
denbora baño len jarriko'zu
fameliyako lutua.

Garmendia:
Egiya da, bai, zuk diozuna,
ni ortan pentsatzen nago,
entierrua baña boda on bat
Garmendiak e naiago;
bañan beste oi're guretzat dago
lentxo edo geroxeago,
ta gauzak ondo pentsatu ezkero
zertan tristetuik ez dago.

Arozamena:
Preziyoz ere ari gerade
kaj'orretaz alkarrekin,
nunbait egin baña lenagotik
onek, bai, nai zuan jakin;
etorri zaitez zure etxetik
milla peztako batekin,
eta gustora egingo dizut
egurrik onenarekin.

Arozamena bakarka

Beste iru bertso testigu falso bati.

Gaur dan euneko zenbait gizonek
nola naute ni arritzen!
testigu falsuz gauza askotan
onela gera ibiltzen;
gezurrarekin etorri ziñan
t'ementxen gaude sufritzen,
Jaungoikuaren dotrin santuak
ez digu ori agintzen.

Egik bezela esaten ditu
guztizko borondatian,
bere burua santutzaz jarri
eta, gezurrak tartian;
gaur zoritxarrez bizi gerade
orrelako suertian,
bizi-modu onik ez daukagu
zu bizi zeran artian.

Aizu, palsua, gezurrak beñe
munduan ez du indarrik,
zu ezpaziña guk ez genduke
gure etxian okerrik;
aldegin zazu orain bistatik,
ez degu zure biarrik,
falsokeriyan etzazu jarri
Euskalerriyan negarrik.

Egun artako goraberarik gogorrena azken saioan izan zan. Xalbador finala jokatzeko autatu zutenean. Denok sufritu gendun, bertsolariak, batez ere, epaimaiak! eta baita ere entzuleak.

Ikus zazute Irigoienek nola dion...

Irigoyen'ek: Juraduak artu du erabakia: Uztapiderekin jokatuko du Xalbadorrek.

(Au entzundakoan, txistu-soñu aundia sortzen da, ta bertsolariak ezin kantatu dute denbora-puska batean. Ondoren Uztapidek:)

Orain bi urte emen nitzan da
berriro emen nator gaur,
zertan egongo nazute emen
zuei itzegiteko beldur?
Kopeta beltza dakarkit baña
biotza daukat txit samur,
anai-arreba biotzekuak,
egiten dizutet agur.

Uztapide eta Xalbador 1967ko finalean kantari.

(Uztapidek kantatutakoan, Xalbadorren txanda; bañan txistu-soñuak ez diote uzten. Beste asko, berriz, txaloka asten dira. Bulla pixka bat eztitzen danean, Xalbador bertso au kantari asten da:)

Anai-arrebak, ez, otoi, pentsa
neure gustura nagonik,
poz gehiago izango nuen
albotik beha egonik;
zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat, ez, nik,...

(Jende guzia txaloka asten da, ta ezin jarraitu du denbora-puska batean; gero, onela bukatzen du bertsoa:)

zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat, ez, nik,
txistuak jo dituzute bainan
maite zaituztet oraindik!

(Oraingoan jendea eskuak puskatzerañoko txalotan asten da, ta, txistu-soñurik gabe, txapelketak aurrera jarraitzen du).

1968KO SARIKETA BEREZIA

Azkeneko txapelketa naikoa gaizki bukatu zan. Epaimaia gogor kritikatua izan zan eta baita ere antolatzailleak... Xalbadorri jotako txistuak naiko ondoren txarrak ekarri zituzten.

Jendeak edo antolatzaille berriak aldaketa bat eskatzen zuten eta batez ere Euskaltzaindiaren eskutatik antolatze-lana kentzea.

Auek ziran arrazoi aurkestuak:

1.- Txapelketan ateratako diruak nola banatzen ziran edo nora joaten ziran?

2.- Epaimaiak emaitzak bistan ematea (arbel edo pizarra baten jarri ziran).

3.- Sariak aundiagoak izatea (100.000 pta) izan zan lenengo saria.

4.- Bertsolari onenak parte artzea (askok ez baizuten parte artzen).

Emaitza auek jasotzeko antolatzaille berriak agertu ziran (Oiñatibiatarrak eta abar...) "Piensos onena" patrozinadore zutela.

Sariak izugarriak jarri ziran garai artako... 100.000 pta lenengoari. 50.000 bigarrenari... eta zortzigarrenari 10.000 pta.

Sari auek naiko tentagarriak ziran eta bertsolari ezagunen eta onenen partaidetza lortu zuten... Basarri, Lasarte, Oranda... Txapelketari muzin egiten zioten danak parte artu zuten sari onetan.

Amasei bertsolari onenak aukeratu zituzten eta bi igandetan ospatu ziran jaialdiak. Lenengo igandean zortzi kanporatzen ziran eta urrengoan beste zortzirak jokatzen zuten sariketaren finala.

Bertsoak kantatu ondoren epaimaikoek puntuazioa gizon bati ematen zioten eta onek arbel batean denen bistan jartzen zuan.

Epai maikoak auek izan ziran: Juan Mari Lekuona, Xabier Amuritza, Pedro Diez de Ulzurrun, Emile Larre, Jose Mari Iriondo (gai jartzaille).

Finalera pasatu ziranak auek izan ziran:

Basarri
Xalbador
Lasarte
Uztapide
Lopategi
Mattin
Mitxelena
Arozamena

Hamar puntu baiño gutxiago alkarri ateratzen bazioten sariak partitu egingo zituzten eta alaxe gertatu zan. Bi lenengoak 75.000 pta. eraman zituzten naizta Basarrik sariketa irabazi.

Onekin bukatu ziran txapelketa eta sariketa guziak... (gazteenak ezik).

NAFARROAKO TXAPELKETAK

1960. LESAKA

- **Andres Narbarte "Xalto", txapeldun**
- **Juan Perurena, txapeldun orde**
- Anjel Aldaz
- Felix Iriarte
- Bautista Madariaga
- Manuel Iriarte
- Bautista Perurena
- Joxe Mari Mutuberria

Gerla ondoren, 1960.eko abenduaren 18an Donostiako *«Victoria Eugenia»* antzokian jokatu zen Euskal Herri mailako lehen Bertsolari Txapelketara Andres Narbarte «Xalto» eta Juan Perurena joan ziren. Ordukoa da Narbartek Fabiola erregina zela eta ez zela botatako bertsoa.

1961. ETXARRI ARANATZ

- **Bautista Madariaga, txapeldun**
- **Andres Narbarte, txapeldun orde**
- Martin Azpiroz
- Manuel Iriarte
- Migel Arozamena
- Martín Oreja
- Juan Perurena
- Mikel Zabaleta

1962. BERA

- **Migel Arozamena, txapeldun**
- **Mikel Zabaleta, txapeldunorde**
- Andres Narbarte
- Bautista Madariaga
- Martín Oreja
- Simun Ibarra "Zubikoa"
- Juan Perurena
- Manuel Uhitzi

1962.eko abenduaren 30ean Donostiako "Astoria" antzokian jokatutako Txapelketa Nagusira Migel Arozamena lesakarra eta Mikel Zabaleta aresoarra abiatu ziren. Urte hartan Xalbadorrek hirugarren Saria jasoko zuen Uztapide eta Basarriren ondotik.

"Liburuxka hau sutara bota e! nik nirea hala bota nuen. Orduan uste dut grabatu beharrean idatziz hartzen zituztela momentuan bertsoak. Kantatu ziren bezala ez ziren hartu, eta gauza gehiago ere ez zeuden gertatu bezala kontatuak". [**Manuel Huizi**]

Goizuetako Loiarte kontratistaren arrebarekin ezkondua zegoen Seberiano Berroeta Sakana aldekoa. Berroeta Nafarroako Txapelketaren antolakuntzan sartua zegoen. 1962an izango zen, kanporaketa Goizuetan jokatu zen. Garai hartan Nafarroako Txapelketa antolatzeko bi zona bereizten ziren. Goizueta eta Aranori "Villas" esaten zitzaien eta zona berean zeuden Sakana aldea, Basaburua goia eta behea, eta beste zona izaten zen Baztan aldea, Doneztebe... Bakoitzak bere zonan kantatzen zuen eta bakoitzeko lau onenak pasatzen ziren finalera.

Aranon apaiz egondako Don Pedro Diez de Ultzurrun epaimahaian zen.

Seberiano Berroeta hori Aranora etorri zen Santiotako festetara. Atera egin behar nuela esaten zidan. Nik esan nion ez nindoala lana hola eta hola uztera. Ematen banion nagusien helbidea berak idatziko ziela. "Ez, horrela ibili beharrik ez daukat" erantzun nion. Hala behintzat atera egin nintzen Goizuetako kanporaketan.

Goizuetan kantatu genuen Andres Narbarte "Xalto" (Goizuetakoa), Bautista Perurena (Goizuetakoa), Martin Oreja (Errazkingoa), Anjel Aldaz (Igoakoa)... zortzi-hamarren bat izango ginen.

Bigarren eman zidaten. Aurreneko Xalto geratu zen.

Finala Bera Bidasoan jokatu zen. Han ere lau aurrenekotan pasa nintzen. [**Manuel Huizi**]

1963. IRUÑEA

- **Migel Arozamena, txapeldun**
- **Andres Narbarte, txapeldunorde**
- **Bautista Madariaga**
- Simun Ibarra "Zubikoa"
- Manuel Arozamena
- Manuel Uhitzi
- Martin Oreja
- Anjel Aldaz
- Mikel Zabaleta
- Roman Mihura

"Príncipe de Viana" erakundeak eratutako txapelketa kalitatez gora eta gorpuzten joan zen. Lehen aldiz, 1963an azken saio nagusia Iruñeko Gaiarre antzokian jokatu zen jendez lepo beteta. Saio honetan txapeldun eta bigarren suertatu ziren Narbarte eta Arozamena ofizioan aritu ziren gai honetan:"Lapur bat etxe batera ostutzera dijoa, eta zakur bat ateratzen zaio". Narbarte izan zen lapurra eta txapeldun suertatu zena zakurra.

Narbarte:
Lapurra naizela esan dutenez
asi bear det kantari;
nunbait inbidi aundia diot
besten etxeko gauzari;
lanik ein gabe arrapatzea
ona izaten da ori,
bildurrikan e' bate ez diot
baztarreko txakurrari.

Arozamena:
Goiz goizetikan ementxe nago
zerbaitez konturatuta,
joan dan aspaldin lapurra onek
aziuk eiten dituta;
gau eta egun guardin nago
ala ere puskak ostuta,
ai! zer koska egingo nizuken
ni ezpanengo lotuta.

Narbarte:
Txakurra gogor mintzatu zaigu
entzuleak, aistiko ortan,
bañan lapurrak olako bildurrik
gaur ezpaitauka burutan;
an joaten nintzan denbo guzian
antxen egoten da lotan;
ia ernago jartzen al zera
lapurra billatzekotan.

Arozamena:
Gure lapur au nola dabillen
txakurrak dio igarri,
gaur aurrez aurre arkitzen gera
t'esango dizka elkarri;
eunen batean joan bear dezu
galtzik gabe lotsagarri;
lotan nagola ate onduan
t'etzaitezela etorri.

Narbarte:
Berai egia aitortuta 're
bate etzait inportikan;
lapur listoak beñe ezpeitu
txakurraren bildurrikan;
ni izutzetik gaurko onetan
asi zera alperrikan;
atean zaunkaz asitzen bada
sartuko naiz leiotikan.

Arozamena:
Kanpokuak naiko ez digula
orain asi zait barruan;
eta leiotik sartuko dala
lendabiziko saltuan;
txakurra zai an egongo naiz ni
beste askoren moduan;
au bañan lapur aundiagorik
ez dut somatu munduan.

1963an Areson kantatu genuen kanporaketan. Areson aurrena atera nintzen eta Xalto bigarren. Finala Iruñeko Gaiarre antzokian egin genuen, eguerdian. Harrituta egoten naiz pentsatuz garai hartan norbaitek zer lanak egin zituen han bertso saioa antolatzeko. Ez dakit Gaiarreko ateak nola ireki ziren, gure mailako jendearentzat.

Antzokia ez zegoen jendez gainezka, garai hartan ez zitekeen izan: ez zegoen oraingo aukerarik mugitzeko, eta Iruñeraino joan egin behar zen. Finalaren ostean Hotel del los Tres Reyes-en bazkaldu genuen. [**Manuel Huizi**]

1964. IRUÑEA

- **Andres Narbarte, txapeldun**
- **Migel Arozamena, txapeldun orde**
- Bautista Madariaga
- Anjel Aldaz
- Manuel Arozamena
- Roman Mihura
- Joxe Mari Mutuberria
- Moises Jaso

"Príncipe de Viana" erakundeak ez zuen 1965ean Nafarroako Txapelketarik antolatu, Euskaltzaindiak 1964etik bi urtean behin eratzeko erabakia hartu zuelakoz.

1966. IRUÑEA

- **Migel Arozamena, txapeldun**
- **Andres Narbarte, txapeldun orde**
- Bautista Madariaga
- Manuel Huizi
- Anjel Aldaz
- Martín Oreja
- Dionisio Mujika
- Martin Goikoetxea

1966ko finalistak. Iturria: Argia.

Hirugarren urtean, kanporaketa Berueten izan zen. Oso arratsalde txarra izan nuen eta bosgarren egin nuen, finaletik kanpo geratu nintzen. Aste osoa mendian pasatzen nuen, behean zegoen zentralean afaldu eta lo eginaz. Larunbata gauean etxera etorri, eta abisua, biharamunean Aranon 8tako mezaren ondorenean Seberiano Berroetaren semea zain edukiko nuela kotxearekin: batek huts egin zuela, gaizkitu egin zela, eta Iruñera txapelketara joateko. Gaiarren kantatu genuen finalean.

Nafarroako Txapelketa bukatu egin zen. Bigarren aldiz Gaiarren kantatu, Hotel de los Tres Reyesen bazkaldu, eta zuzendaritzakoen artean eztabaida piztu zen, handia. Batzuek esaten zuten hurrengo urtean Iparraldekoak sartu behar zirela eta besteek ez zela posible. Orduan gauzak serio zeuden, oraindik.

Hemen Iparraldeko Xalbador eta Mattin entzuten ziren. Herrietan Mattin famatuagoa zen, gero txapelketetan Xalbador atera zen aurrera, eta hura hobea zela esaten zen... [**Manuel Huizi**]

Donostiako Anoeta pilotalekuan 1967.eko ekainaren hamaikan jokatu zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian, Nafarroatik Migel Arozamena eta Bautista Madariaga azaldu ziren. Andres Narbarteri zegokion partehartzea baina gaisotu eta bere ordez Madariaga aranztarra igorri zuten.

Donostiako saio honekin bukatu ziren Euskal Herriko eta Nafarroako txapelketak. Arratsaldeko saioan, Uztapiderekin txapela jokatzeko epaimahaiak Xalbadorren izena eman zuenean, Anoeta pilotalekuan bildutako jendetzak jotako ia sei minututako xixtukada ospetsua erabakikorra izan zen gehiago txapelketarik ez antolatzeko.

[**Pablo Jose Aristorena**, Nafarroako bertsolaritza liburua]

PAULO YANTZI SARIA

1979tik 1982ra Paulo Yantzi saria izan zen Nafarroako Txapelketa. Saio bakarrera jokatzen zen eta Lesakako udalak antolatzen zuen. Lau hauetan parte hartu nuen.

Nafarroa ahaztuta genuen. Anaiak eta biok esaten genuen "zerbait egin beharko diagu! Oraindik ere Batista Madariaga eta bizi dituk eta zer edo zer hasi beharko diagu".

Lesaka aldera joanez, topo egin genuen oso bertsozalea zen Dionisio Mujikarekin. Mujika hau asteasuarra zen, Hernaniko Marrakaren alabarekin ezkondu eta Lesakan bizi zena. Eraikuntza enpresa bat zeukan. Gaiak jartzen eta aritzen zen. Harekin bilera batzuek egin genituen eta nolabait hasi ginen, lehia moduko batekin, gurdia martxan jartzen: Paulo Yantzi saria alegia.

Paulo Yantzi ez nuen ezagutu. Haren omenez hasi ginen eta bere anai Pepito eta Joxe soinujoleak bizi ziren eta haiekin ere biltzen ginen.

Iparraldekoekin hitz egin genuen: haiek gutxi ziren eta gu ere bai, eta elkartuta zerbait egingo genuela. Horrela ezagutu genituen Mixel Aire Xalbador II, Txomin Ezponda, Ernest Alkat, Jean Pierre Mendiburu, Jean Louis Laka...

Lesakako udalak antolatzen zuen, eta udaletxeko areto nagusian egiten zen. Sariketa jokatuz, gonbidapena egiten zitzaien Jon Azpillagari eta Euskal Herriko onentsuenei, eta haiek ere beren saioa egiten zuten.

Denborarekin, eta bertsoa oso ondo ikusia zegoenez, beti jendea gehitzen joan ginen, hori da garrantzitsua. Gorputza hartu zuen. [**Joxe Fermin Argiñarena**]

1979ko Paulo Yantzi saria

- **Argiñarena, Joxe Miel (Txapelduna)**
- Madariaga, Bautista
- Goñi, Jesus
- Argiñarena, Joxe Fermin
- Fagoaga, Euxebio "Fagoaga I"
- Elizagoien, Bittor
- Perurena, Juan

1980ko Paulo Yantzi saria

- **Aire, Mixel "Xalbador II" (Txapelduna)**
- **Argiñarena, Joxe Miel (Txapeldun ordea)**
- Fagoaga, Joxemari "Fagoaga II"
- Mendiburu, Jean Pierre
- Perurena, Pello
- Argiñarena, Joxe Fermin
- Fagoaga, Euxebio "Fagoaga I"
- Arrosagarai, Joanes
- Laka, Jean Louis
- Elizagoien, Bittor
- Perurena, Juan
- Olano, Antonio
- Amorena, Txomin

1981ko Paulo Yantzi Saria

- **Mendiburu, Jean Pierre (Txapelduna)**
- **Argiñarena, Joxe Miel (Txapeldun ordea)**
- Aire, Mixel "Xalbador II"
- Argiñarena, Joxe Fermin
- Alkhat, Ernest
- Laka, Jean Louis
- Elizagoien, Bittor
- Olano, Antonio
- Amorena, Txomin

1982ko Paulo Yantzi Saria

- **Argiñarena, Joxe Fermin (Txapelduna)**
- **Mendiburu, Jean Pierre (Txapeldun ordea)**
- Jaso, Moises
- Fagoaga, Joxemari "Fagoaga II"
- Perurena, Pello
- Alkhat, Ernest
- Arrosagarai, Joanes
- Laka, Jean Louis
- Argiñarena, Joxe Miel
- Elizagoien, Bittor
- Olano, Antonio
- Amorena, Txomin

BERTSOZALE ELKARTEAK ANTOLATUTAKO NAFARROAKO TXAPELKETAK

1983tik urtero antolatu ditu Nafarroako Bertsozale Elkarteak txapelketak. 2003 arte Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoakoek ere bertan hartzen zuten parte. Nafarroako Txapelketetan arituak dira Hernaniko bertso eskolako Joxe Fermin Argiñarena (1983-1990. 1986an eta 1990ean txapeldun egin zuen), Pablo Joxe Aristorena (1987-1988) eta Xabier Legarreta "Arano" (1995etik 2002ra). **[Estitxu Eizagirre]**

Yantzi saria gorpuzten hasi zenean, hasi ginen biltzen Lontxo Aburuzarekin, Eugenio Arraizarekin... bazetorren beste jende bat nahiz eta kantatu ez, laguntzeko prest zegoena. Nafarroako Elkarteak hartu zuen ardura eta Nafarroako Txapelketa izatera pasa zen.

Gaur egunean Nafarroako Hegoaldekoek egiten dute euren txapelketa, nahikoa jende badagoelako, eta Iparraldekoek berena. Biak batera hasi ginen indarrik ez genuelako bakarrik egiteko eta orain gai dira bakoitza bere bidetik hegan egiteko. **[Joxe Fermin Argiñarena]**

1983

- **Ezponda, Txomin (Txapeldun)**
- **Argiñarena, Joxe Miel (Txapeldun orde)**
- Madariaga, Bautista
- Aire, Mixel "Xalbador II"
- Mendiburu, Jean Pierre
- Argiñarena, Joxe Fermin
- Perurena, Juan

1984

- **Mendiburu, Jean Pierre (Txapelduna)**
- **Aire, Mixel "Xalbador II" (Txapeldun ordea)**
- Madariaga, Bautista
- Argiñarena, Joxe Fermin
- Alkhat, Ernest
- Arrosagarai, Joanes
- Ezponda, Txomin
- Argiñarena, Joxe Miel

1985

- **Ezponda, Txomin (Txapelduna)**
- **Aire, Mixel "Xalbador II" (Txapeldun ordea)**
- Mendiburu, Jean Pierre
- Argiñarena, Joxe Fermin
- Alkhat, Ernest
- Martikorena, Anjel
- Argiñarena, Joxe Miel
- Iantzi, Josetxo

1986

- **Argiñarena, Joxe Fermin (Txapelduna)**
- **Alkhat, Ernest (Txapeldun ordea)**
- Aire, Mixel "Xalbador II"
- Taberna, Mikel
- Mendiburu, Jean Pierre
- Azpillaga, Bernardo
- Ezponda, Txomin

1987

- **Alkhat, Ernest (Txapelduna)**
- **Ezponda, Txomin (Txapeldun ordea)**
- Aire, Mixel "Xalbador II"
- Taberna, Mikel
- Mendiburu, Jean Pierre
- Argiñarena, Joxe Fermin
- Iñurrategi, Felix
- Aristorena, Pablo Joxe

1988

- **Aire, Mixel "Xalbador II" (Txapelduna)**
- **Arozena, Manolo (Txapeldun ordea)**
- Aburuza, Lontxo
- Mendiburu, Jean Pierre
- Argiñarena, Joxe Fermin
- Alkhat, Ernest
- Ezponda, Txomin
- Aristorena, Pablo Joxe

1989

- **Ernest Alkhat (Txapelduna)**
- **Manolo Arozena (Txapeldun ordea)**
- Jexux Arzallus
- Jean Pierre Mendiburu
- Txomin Ezponda
- Mixel Aire "Xalbador II"
- Joxe Migel Argiñarena
- Joxe Fermin Argiñarena

Pablo Joxe Aristorena (1988-03-20 Iruñea)

Adiskide zenuen batek, aberastu denez geroztik, ez du zurekin deus jakin nahi.

Haurtzarotikan izandu dedan
lagun jator ta haundina
urrutiratzen hasi zait orain
zeren diruaren grina
gogoko bait du eta hargatik
orain hurbildu ezina;
garai batean bazenuen ba
lagun on baten premina;
egin duzunak izenik ez du
horrek ematen dit mina.

Orain ez dakit non ote zauden
ni hemen nago Gaiarren
nere dehiadar oihua lagun
entzun ezaidazu arren;
diruarekin uste baduzu
dena badagola hemen
esango dizut gaizki zabiltza
guztia ez da izanen,
galdu bait duzu urte askotan
laguna zenduena lehen.

Nere hitz hauek zure bihotza
ez dakit dezaken mugi
baina kontzientziz lasai al zaude
ni nengokeen urduri
haunditasunak laino beltz hori
zuregan horra ixuri;
baina gorroto apurrik lagun
ez dizut gordeko zuri
lehen bezala nere ondora
etortzen bazera guri.

Pablo Joxe Aristorena - Ernest Alkat (1988-03-20 Iruñea)

Ernest Alkat, zuk egindako lapurretagatik Aristorena espetxean, gartzelan dago. Bixita egitera joan zara.

Alkat:
Oraino ere naski
lagunak gabiltza
baina zure postura
oso da bortitza,
lapurra in naiz eta
egin obra hitsa
barkatu, nik ondatu
derautzut bizitza.

Aristorena:
Egunero kartzelan
ari naiz ai-aika
eta gaur horra non dan
Alkaten bixita;
gainera jartzen duzu
aurpegi polita
zoaz begi bixtatik
alu hipokrita.

Alkat:
Mintzatua bait zira,
bihotza betean
badakit zureganat
nagola kaltean,
zai egongo naiz beti
kartzela atean
baina ez aserretu
aluen artean.

Aristorena:
Honek lotsik ez dauka,
kristorenak dauzka,
nik ekintzik ez egin
epaileek juzka.
Aurpegia egingo
nizuke bi puska
guardiaren makila
eskuan hartuta.

Alkat:
Hunek naski makila
derauka nagusi
baina ni naiz lapurra
bertze bat biluzi,
kartzela hortarikan
nahi zaitut jautsi
gorputza kendu baina
mingaina hor utzi.

Aristorena:
Esaten du: "Ni nabil
hor eginalean
ikusi nahi bait zaitut
nerekin kalean".
Lagun ona bazara
sartu itzalean
bixitatuko zaitut
datorren hilean.

Pablo Joxe Aristorena - Felix Iñurrategi (1988-03-13 Goizueta)

Jendearentako oporraldiak eta bidaiak eratzen dituzten agentzia batean lanean ari da Felix Iñurrategi. Munduko bazter guztietara antolatzen omen dituzte bidaiak, baina gaur Aristorena etorri da ilargira joan nahi duela esanez.

Aristorena:
Bidai bat egiteko
daukat nik asmoa,
antolatzen duzula
hartu det susmoa.
Eta gure mundua
ez denez sanoa,
zuek denak utzita
ilargira noa.

Iñurrategi:
Sano asko etorri da
hona bere kasa,
eta galdetutzen dut
ote da kapaza?
Ta gainera esan du
dena lasa-lasa,
hortarako bisita
behar duzu Nasa.

Aristorena:
Zuk esan behar ote
didazu ba nora,
hau al da gizon batek
gaur daukan ganora.
Preparatu dezazun
hartzazu denbora,
satelite txiki bat
neretzat nahiko da.

Iñurrategi:
Ideia disparatu
asko daduzkazu,
bainan zuk Pablo Joxe
hauxe entzun (e)zazu.
Ilargiraino lasai
joango zera zu,
autobuses joatia
asmatzen badezu.

Aristorena:
Hori antolatzea
kostako da hamaika,
ez zait neri gustatzen
mundu politika.
Eta igual le(he)rtuko da
gerra atomika,
handik ikusiko det
nik zirko polita.

Iñurrategi:
Zure segurtasunez
hainbeste zarata,
planteatuko dizut
ideia aparta.
Ikasi zientifiko
edo astronauta,
orduan dohainikan
joango zerata.

Joxe Fermin Argiñarena-Ernest Alkat (1989-04-23 Baigorri)

Zu, Alkat, aita zara eta semeari animali bat erosteko eta etxera ekartzeko baimena eman diozu. Zu, Argiñarena, semea zara eta tximinoarekin agertu zara etxera.

Alkat:
Baimena eman dautzut semea
ta tronpatu zira naski
zu etxe barnean izan geroz
bazen ziminorik aski.

J.F. Argiñarena:
Esan dekenarekin gaur Alkat
ni bate ados ez niok
zer bikote polita egingo
tximinoa eta biok.

Alkat:
Gaurko gazteak erotzen dira
naski dago betikoa
gure etxea laborantza da
ez da batere zirkoa.

J.F. Argiñarena:
Erakutsitzen gure aita honek
jarri ditun enpeinuak
tximinoak ikasiko ditu
nere aitaren keinuak.

Alkat:
Aitarenak ikasiko bainan
lehenik naski berea
etxetik kanpo zoaz horrekin
einen dezute parea.

J.F. Argiñarena:
Gure etxean errita asko
hori ez zan nere nahia
tximinoa, aita maitea zu
az al da gauza alaia.

Alkat:
Gauza alaia izan ditaike
baina nik ez dut atsegin
baimena lehen eman nuen ta
konpondu hor amarekin.

J.F. Argiñarena:
Orain amakin sartzeko ere
ez degula tenoria
estimatuko degu aurrera
tximinoan umoria.

1990EKO TXAPELKETA TALDEKA

1. D Taldea: Manolo Arozena, Joxe Fermin Argiñarena, Antonio Olano, Eusebio Fagoaga.

2. A Taldea: Mixel Aire "XalbadorII", Bittor Elizagoien, Laka, Lontxo Aburuza.

Joxe Fermin Argiñarena - Ernest Alkat (1990-04-01 Lekunberri)

Alkat neska zara, zu aldiz, Argiñarena mutila. Orain arte harremanak kartaz, eskutitzaz izan dituzue. Gaur elkar ikusi duzue lehen aldiz. Espero zenutena al da?

Alkat:
Orain artean ilunbea zan
orai etortzen argia
aspaldi hontan maitatzen eta
nik nuen ikus nahia
bihotzetikan bakar bakarrik
azaltzen bait zen begia
lehen aldikotz ikusten zaitut
eta aitortzen egia
zuk luma polita duzu
deraukazun aurpegia.

Argiñarena:
Orain artean karta bidea
guk ezaugarri bakarra
ezagutzeko eguna heldu
begietan irriparra
eskrituretan ez nuan egin
nik hain irudia txarra
izan behar du ene potxolak
oso bihotza xamurra
baina gorputzari begiratuz
barkatu, zera baldarra.

Alkat:
Gorputza baldar balin banago
zilegi da agertzea
bakoitza giren bezela gaude
ez dago ezinbertzea
gorputza dago bigarren mailan
lehena da maitatzea
zu neretzako egoki zera
eta aizu aitortzea
gero onari begiratzeko
sudurra aski luzea.

Argiñarena:
Neska langile fina izateko
lepo ondoa du guri
gorputz baldarra bigarren mailan
asko axolik ez zuri
nik gustoko gorputza nahi nuke
arrazoietan ixuri
ni gaur zurekin ezkontzen banaiz
gelditu ametsan erdi
asto gainetik eroritako
pulpa zakua dirudi.

Alkat:
Ez dut pentsatzen pulpa zakurik
zuk dautazun maitatuko
elgarrengana urbildu gira
Lekunberri da lekuko
zu neri asko gustatzen zira
hemen ikusi orduko
gorputzez doi bat meharra zira
eta dautzut aitortuko
lehenbizi zaitut gizenduko ta
ondotikan gizonduko.

Argiñarena:
Itxura danez gizon plantarik
zuk ez didazu ikusten
aurreak nola dantzatu behar
atzeari erakusten
gorputz baldarra dadukazula
sarritan degu entzuten
beste batean beharko du ta
ez zaitut hartu nahi aurten
Santa Luzitan Zumarragara
ia erosten zaituzten.

1997

- **Xabier Silveira (Txapelduna)**
- **Jexux Arzallus (Txapeldun ordea)**
- Bittor Elizagoien
- Xabier Legarreta
- Estitxu Arozena
- Estitxu Fernandez
- Oskar Estanga
- Mikel Altzuart

1998

- **Estitxu Arozena (Txapelduna)**
- **Xabier Legarreta "Arano" (Txapeldun ordea)**
- Bittor Elizagoien
- Iñigo Olaetxea
- Jexux Arzallus
- Manolo Arozena
- Xabier Silveira
- Estitxu Fernandez

Xabier Legarreta "Arano" (1998-03-29 Zuraide)

Hitza: Izerdia.

Astean zehar gau eta egun
aritzen naiz igeltsero
ta galerazten urreratzen zait
hainbat eta hainbat ero
erabiltzen det eraikuntzako
hainbat material jenero
lendabizi teilak edo
eta porlana da gero
uda ta negu izarditan blai
hantxe jarduten naiz bero
eta gaitzerdi egindakoa
ondo ordaindu ezkero.

Kartzelako gaia: Diruz betetako maleta bat aurkitu duzu kalean, bi aldiz pentsatu gabe jabeari eraman diozu. Ekintza horrek ordea, zer pentsatu ugari sortarazi dizu..

Hau aurkituta trantze bikainik
ezin inola igaro
pentsatzen nago hartu ta hurrun
ez ote naizen juango
baina bestetik hori eginda
ez naiz geldituko ondo
arinak ditut bi zango
umore txarrez bi trago
neureganatu edota utzi
zalantzan jarrita nago
baina diruak ez nau sekula
kartzelara eramango.

Bilete berde, hoien itxurak
ez dit burua galduko
bihotz oneko izan naizela
denak zerate lekuko.
Nahikoa egin ta etxera noa
aspertuta nago gaurko,
ez diot egin nahi uko
baina, ez naiz umilduko
munduan ez da seguruenik
hamaika nere moduko
baina, lehen igual lapurtua da
berriz ez dut lapurtuko.

Xabier Legarreta "Arano" (1998-03-21 Lizarra)

Kartzelako gaia: Herriko apeza zara eta ikusirik gazteak ez zaizkizula mezetara etortzen erabaki duzu zerbait asmatzea horiek elizara erakartzeko. Kontaiguzu zer pentsatu duzun.

Gazteekiko beti jardun naiz
ni haserre eta teman.
Apaiza dago nahiko pentsakor
ikusi daiteken eran.
Gazteek nunbait ez dote orain
Jesusen kaliza edan.
Aldaketa bat egin behar det
nahiz ez itxuroso eman,
aurrerantzean meza emango det
baina herriko tabernan.

Elizkizuna aldatzea da
herriarentzat mejora,
ta aipatu det non egin behar
dedan lehenengo aproba.
Lau katu ez da etortzen eta
hola ez goaz inora.
Denai zeozer al dan azkarren
aldaketa beharko da,
saiatuko naiz ez dedin igo
bi ardo terditik gora.

Xabier Legarreta "Arano" eta Iñigo Olaetxea (1998-04-05 Elizondo)

Iñigo Olaetxea, nerabe koxkor bat zera eta eskolan sexuari buruzko idazlan bat egin dezazun eskatu dizute. Xabier Legarreta zure aitarengana joan zara laguntza eske.

I. Olaetxea:
Bat erlijioa ta
gero errespetoa,
baina azkenik apurtu
da borren betoa.
Zugandik badut aita
asko ikastekoa,
nola erabiltzen da
hanka tartekoa.

I. Olaetxea:
Barruan gordetzea
nik dudan asmoa,
hori hola ez zenikan
zen zure susmoa.
baina ni galdetzera
oraingoan noa:
zer da erotikoa
eta zer pornoa.

I. Olaetxea:
Irakasleak hori
badaki bai berdin,
baina galdera bati
berriz diot ekin.
Atzo gauean bazen
buila eta muzin,
zer ari zinen zu atzo
nere amarekin?

X. Legarreta:
Irakasleak jarri
dizkizu baldintzak,
aitak ez ditu hoiek
hartu behar haintzat.
Nola atera diren
semearen hitzak,
kantzontzilo barruan
zuk oraindik behintzat.

X. Legarreta:
Galdera horri ere
ez diot igarri,
maixu artean bada
makina bat txerri.
Etxera zure maisu
jaun hori ekarri
esplikatuko diot
bi gauza hoien berri.

X. Legarreta:
Semeak, galde txarra
egin du tartean,
seguru aitarentzat
izan da kaltean.
Afari baten nintzan
ni atzo gauean,
ama zer aritu zen
bien bitartean?

1999

- **Bittor Elizagoien (Txapelduna)**
- **Xabier Silveira (Txapeldun ordea)**
- Estitxu Arozena
- Juan Mari Lopez
- Iñigo Olaetxea
- Estitxu Fernandez
- Joxema Leitza
- Xabier Legarreta "Arano"

2000

- **Amets Arzallus (Txapelduna)**
- **Xabier Legarreta "Arano" (Txapeldun ordea)**
- Estitxu Arozena
- Sustrai Colina
- Xabier Silveira
- Bittor Elizagoien
- Manolo Arozena
- Iñigo Olaetxea

DONOSTIAKO PERLA-N

1947 urtean, Donostiako Perla-n, bertsolari txapelketa bat antolatzen dute. Hogei ta bi bertsolari azaltzen dira eta Lexotik irabazten du. Hogei ta bi urterekin, nahiko komeri izaten du Lexotik txapelketa honetan parte hartzeko:

Manuel Arbelaitz-ek –orduko alkatea– eta Mitxelena bertsolariak Lexoti Donostiara joatea ez dute nahi. Horiek Iriarte-k irabaztea nahi dute noski.

– Hi beste urte batean joango haiz, oraindik gaztea haiz eta!-esaten diote.

Lanak agudo egin ondoren, amari erropak jartzeko esaten dio Lexotik, pelota partidoa jokatu behar duela eta.

Errenteriaraino oinez joaten da, eta gero tranbeaz Donostiara, hamabi duro patrikan duela. Eta han, oiartzuarrak arrapatzen dituenean, ze nolako gauza ez-ustekoa! Behintzat, denei kopa bana eskeintzen die. Baina Oiartzunen kopak sei erreal balio eta Donostian duro bat; eta, bederatzi lagun izatearekin, hamabi durotatik hiru duro bakarrak gelditzen zaizkio.

– Izorratu nauk ederki oraintxe: patrikan sos askorik gabe gelditu nauk ba!-esaten dio bere buruari.

Gero, txapelketa berak irabazten du eta baita berrogeitamar duroko saria ere. Kanpora ateratzen denean, esaten du:

– Donostian dagoen gizonik aberatsena naiz orain!

Juradoa honako hiru gizon hauek osaten dute: Antonino Pagola, Ernanikoa; Benantzio Rekalde, oiartzuarra baina Donostian albaitari egoten zena; eta Txomin San Sebastian, Astigarragako sakristaua: Gai jartzailea: Basarri.

Behin honela jartzen dio gaia:

– Oherakoan, bost milioi pezeta bilatu ditu Lexotik. Zer egingo zenduke haiekin?

Eta Lexotik:

Suerte batez milloi eder oik
nik billatuko banitu,
aizu, Basarri, zer eingo nuken
laister biaizu aditu:
ni ezagutzen nauten guziyak
egin litezke arritu,
Lexotikuak errukalmentuk
beartsuentzat baditu,
bat netzat gorde ta beste lau oik
pobrin tartian partitu.

Finala, Astigarragako Inazio Berasarte Elio bertsolariarekin jokatzen du. Txapelketa bukatu baino lehen, biak oso berdin ari dira eta:

– Enpatea bientzat dela konformatuko al zarete?

– Ez –dio Lexotik–. Jokatu egin nahi dut, galdu ala irabazi!

Lexotik irabazten du. Egun hartako beste lau bertso ere gogoan ditu Lexotik: bi Eliorenak eta bi bereak gai librean. Berasarte ezkongaia zen, etxean bakarrik bizi zena.

Lexoti:
Berasarte au bakar-bakarrik
etxian bizi da triste,
komenentzi bat jarriko diot,
txarra danik ez det uste:
etxean dauzkat basarrirako
propiyak bi neska gazte,
anaia morroi artu nazazu
eta arreba emazte.

Elio:
Eztago dudik, Lexotik nau ni
biotzetikan maitian,
danan aurrian aitortuko det
gauza nola leitekian:
mesedetako ustez artuta
au izango det kaltian,
gu ez giñazke ondo etorri
bi alper etxe batian.

Lexoti:
Erregin batek ainbeste gradu
gure Pepitak baditu
ta, Berasarte, ura artu gabe
etzaitezela gelditu.
Auzuetako jende guziya
guk eingo dugu arritu:
langille ona arreba da ta
biok mantenduko gaitu.

Elio:
Etzakela emen gaurkuan kanta
gezurkeri eta saltsik,
batere neri etzait gustatzen
Lexotiku onen martxik.
Soñurik gabe santa sekulan
nik ez det egiten dantzik,
langille ona arreba bada
ez du anaiaren antzik.

[Iñaki Arbelaitz Gelbentzu, Miren Mitxelena Belauntzaran, Joxe Anjel Arbelaitz Irastortza, Mariano Ostolaiz, Antonio Zavala, Lexoti bertsolaria, Auspoa 157]

Han zen Jose Mari Iriarte izeneko bat, denak nere aldean bertsolari ona juzgatu zuten eta hala izango zen, baina kanpeonatu hartan atzean geratu zen. Han zen Arozarena ere, 8 baino gehiago izango ziren denetara, eta nik 'Eliot'ekin enpate egon nintzen eta juraduak 'cara o cruz' bota zuen eta neri tokatu. Irabazi ez nion egin, 'cara o cruz' irabazi nion, hala esan zidaten behintzat.
[**Lexoti**, Argia, 1989-01-15, 1.228 alea]

LEXOTI ETA ALTXO

Bein, Goizueta'ko festetara joan zan Lexoti. Egun berean etortzeko asmoak omen zituan, bañan lagunekin-edo, an pasatzen ditu bi egun; eta irugarrenean, goizean, Goizueta'ko korreoan etortzen da etxera. Bitartean, bere koñadu bat, Juanito Altxo'k galdetzen du:

– Nun dek Lexoti?

Erantzuten diote:

- Goizueta alde ortan ibilli bear dik! Ez dek aste guztian etorriko ura.

Bañan orra Lexoti etorri. Eguerdi arte lo egiten du eta arratsaldean Iru-Bide tabernara joaten da. Eta Juanito Altxo'k puntua jartzen dio:

Lengo egun oietan
non zerade izan?

Ta Lexotik:
Farrandan ibilli naiz
askotako gisan,
batzuetan tabernan
besteetan plazan,
irugarren goizean
etxeratu nintzan.

Juanito Altxo orrek berriz ere:
Zure arreba Pepitak
zer zion orduan?

Lexotik:
Ondo artu nindula
dadukat goguan;
itzegiñik goxoki
aingerun moduan,
beiñe baiño obeto
gosaldu genduan.

[**Iñaki Arbelaitz Gelbentzu, Miren Mitxelena Belauntzaran, Joxe Anjel Arbelaitz Irastortza, Mariano Ostolaiz, Antonio Zavala**, Lexoti bertsolaria, Auspoa 157]

PATXI BAKALLO ETA PEDRO SANTA KRUZI OMENALDIA (1967)

Santa Kruz, Patxi Bakallo eta Txirritaren omenezko monumentua, 1967ko omenaldian jarria.
Egilea: Iñaki Linazasoro.
Argazkia: Auñamendi Entziklopedia.

(Joxe Legarreta "Pepito") Patxi Bakallo eta beste bertsolari batzuen omenez festa antolatzen aritu zen beste batzuekin batera. Monolitoa eta plaka jarri zituzten Ereñotzuko plazan.

Haiek ez ziren garai errazak horrelakoak antolatzeko eta egun horretan Pepitok larri samar ibilia behar zuen. Guardia zibilak atxilotu egin nahi izan zuen, gauean auzo guztian zehar ikurriñaren pegatinak jarri zituena bera izan zelakoan. Juxtu-juxtuan libratu omen zen norbaiten laguntza tarteko.

[Joxe Legarreta "Pepito"ren omenez Liburuxka].

"Ernani'n, Ereñozu ballarako gazteriak, bi bertsolari zarren oroipenez, jaialdi bikañak eratu ditu igande ontarako. Patxi Bakallo ta Pedro San Cruz dituzute bertsolari zarrok.

Amarretan, meza nagusia. Izlaria: Juan Mari Lekuona.

Amabitan, oroitarriaren estalpe kentzea ta bedeinkatzea.

Ondoren, omenaldira azalduko diran bertsolarien lenengo saioa. Gero, txistu soñua ta dantza, bazkari ordura bitarte.

Ordubitan, anaitasun bazkaria (Ur Mia elkartean).

Bostetan, zortzi bertsolariren ekiñaldia: "Uztapide", "Xalbador", "Lazkao txiki", Arozamena, Azpillaga, Lasarte ta Agirre, kantatuko dutenak.

Gai jartzaile ta bide-emale: "Basarri". Egun gogoangarria izango ote dan derizkiot gaurkoa, Ereñozu ballararentzat. Nun dira an baño maiteago bertsolariak?

[**Basarri**, Zeruko Argia, 1967ko urrilak 8]

Txirritaren eskultura jarri zenean, eta Santa Kruz eta Bakalloren eskultura jarri zenean, onenak etorri ziren, Basarri, Uztapide, Xalbador ere bai. Ur-Mia elkartean bazkaldu genuen eta han jardun nintzen bertsotan haiekin. [**Manuel Huizi**]

"Florian Oiarbide degu gaurko bertsolaria.

Patxi Bakallo ta Pedro San Kruz'en berriak emanaz datorkigu".

1
Milla urte ta bederatzireun
irurogei ta zazpia,
Urrilla'ren amabostean
degu egun berezia.
Ereñozu'ko gaztediaren
jaialdi zoragarria,
aurten gañera nola baitegun
beste jolas bat jarria,
gure aurreko bi bertsolari
jatorren omenaldia.

2
Bi bertsolari oiek ziraden
Ernani'n bizi ziranak,
"Patxi Bakallo", Pedro Santa Kruz,
zituzten beren izenak.
Euskalerria'k bera bezela,
ben-benetako gizonak,
Jaungoikoaren lege santua
ondo betetzen zutenak,
amaika bertso abestu eta
mundu ontatik juanak.

3
"Patxi Bakallo" errenteiarra,
bertan jaio ta azia,
ezkondu eta Ernani'n jarri,
osaturik pamilia.
Al zun bezela atera bear
guztientzako ogia
baña etzuan, zoritxarrean,
izan bear zun guzia,
ta azkenean Amerika'ra
juan zan bertsolaria.

4
Ikusi zuan zegon tokian
bizitzerik etzeukala,
pentsatu zuan urez aruntza
juatea bereala.
Esanaz berriz euskalerrira
etorri bear zuala,
penagarria da azkenean
Ameriketan il zala
Zizurkildarra Pedro Maria
Otaño zana bezela.

5
Pedro Santa Kruz, jaio ta azi,
Andoain'go partean,
ango "Anzizu" izena duan
ain baserri politean.
Bizi-lekua ura izan zun
ogeitazazpi urtean,
ezkondu eta Aduna'n jarri
emazteakin batean,
"Pake" izena dan baserrira
Ernani'ra jun artean.

6
Agur egiñaz erri artako
makiñatxo-bat laguni,
Esanaz: Ereñozu aldeko
txoko artara nua ni.
Egun batean Aduna utzi,
ta artu zuan Ernani,
bere semeak ezagun ditut,
angoa bainaiz neroni,
oraindik ere bi bizi dira:
Gregorio ta Antoni.

7
Iñoiz edo bein izan bazera
Ereñozu'ko elizan,
aretxen goian da baserri bat
"Alkatxuin" bere deritzan.
Antxe bizi zan gure Santa Kruz
baserritar onan gisan
beti osasun ederrarekin,
gaitz txarrik etzuan izan,
izualdi bat izandu zuan
eta artatikan il zan.

8
Bizimodua ateratzeko
jarrita zegon legean,
izarretatik izarretara
gelditu gabe lanean.
Beren seme ta alabak azi
al zan modu onenean,
saiatu ziran biotz onetik
beren bizitza danean,
irurogeita zazpiña urte
zituzten il ziranean.

9
Aiek merezi duten ainbat nik
bertsotan ezin abestu,
baña al dedan guzia egin;
geiago nereak eztu.
Gauzik bearren bearrena da,
onak zirala sinistu;
omenaldian euskaldun danok
biotzak ditzagun poztu,
baratz oneko loreak ziran
ta ezin gindezke aztu.

10
Jaunak ba-dauzka zeru goietan
ondo gordeta tokiak,
lore ederrez apaindurikan
euskaldunentzat jarriak.
Antxe sartuak egongo dira
gure bi bertsolariak,
umildadean egin ditzagun
otoitz bero ta garbiak
egunen batez toki on artan
goza gaitezen guziak.

[**Zeruko Argia**, "Bertso berriak" saila, 1967-urrillak 29]

1965-2-21. Sorta horrek ireki zuen bertso jarrientzat txoko bat Zeruko Argiaren lehen orrietan, Basarriren "Nere bordatxotik" atalaren ondoan. 1936an gerra zela eta *Zeruko Argia* kaleratzeari utzi, eta urte luzeen ondoren berriro ekin zioten urtea zen. Geroztik gaur arte, *Zeruko Argia*n aurrena eta 1980az gero bere oinordeko den *Argia*n ondoren, etenak eten, beti izan da bertso jarrien atala.

[Estitxu Eizagirre Kerejeta]

Gure bertsolariak

NERE BORDATXOTIK

SAVIN

'EGUNEROKO ARDOA'

«SIERRAS ALAVESAS»

BERTSO JARRIAK ZERUKO ARGIAN IRAKURGAI

(Basarri:) Ereñozu ballarako Luistar bat dezute ondoren irakurriko dituzuten bertsoen egille. Donosti'n izandako Aizkora Txapelketa gai artuta, ara zer lore sorta eskeintzen dion Polipaso'ri. Maiteak dira bertsolariak Zeruko Argian. Poz pozik ematen dio toki Ereñozu ballarako luistarrari.

I
Milla urte ta bederatzireun
irurogei ta bostian,
ilbeltz illaren amazazpian
jokatu zan Donostian.
Aizkolarien zeingeiagoka,
nai zuna Españi guztian.
Ta sei euskaldun bildu ziraden
ango sarien eskian.

II
Bizkaiatik bat, Gipuzkutik bi,
eta beste iru napar.
Seirak batera bota zituzten
neurtu zezatela alkar.
An egun artan gertatu zana
joko geienak or dakar,
onen guziak bilduta ere
batek irabazi bear.

III
Amabiña egur jarri zizkaten
irurogei ontzakuak.
Abildadiak neurtzeko, noski,
izango dira naikuak.
Danok aobatez esaten degu
ura ikusitakuak
iñork pentsatzen eztun tokian
kantatzen dula kukuak.

IV
Gorritiarra gogor ari zan
lenbiziko egurretik
mutil bizkorra, ta nerbioak
irten zitzaizkan neurritik.
Amaikagarren puska ebaki
zuen bastantez aurretik
Ta azkenean txapela galdu
iru segundorengatik.

V
Azkenengoan asi ziraden
gauzak zijoazen estu,
ordun daukana agertu bear,
geroko uzterik eztu.
Polipaso, zuk egin zenduna
nola ordea sinistu
lendabiziko egurra baño
minutu bat leno moztu.

VI
Ardi galdua bezela ibili
edade ederrenean,
ogeitamalau urte eginda
asi aizkora lanean.
Aurten berrogei ba-dituzu ta,
oraindik sasoi onean,
danen txapeldun jarri zerade
aitondu zeradenean.

VII
Zartuta gero asi ziñaden
egur aiek ebakitzen,
olakoa izan zindezkeanik
etzitzaigun iruditzen.
Zenbateraño irixten zeran
zalla dago igerritzen,
kolpe bizia, ta petxu ona;
indarrik etzaizu aitzen.

VIII
Gorputz aundia daukazu baña
eztezu oso motela,
len asko geunden orrelakorik
sinisten ez genduela.
Gaur ikusita aitortzen degu
onena zu zeradela,
Santo Tomas'ek Jesukristo'kin
egin zuena bezela.

IX
Polipaso, zuk egin dituzu
marka ikaragarriak,
olako seme askorik eztu
mantendu Euskalerriak.
Baña arbola zarran ondoan
ba-datoz gazte berriak,
ta oien aurka jun aurretikan
ondo garbitu begiak.

X
Aizkolarien txapela dago
Ernaniarran eskuan
argi oneko eguzki printza
sartua da Gipuzkuan.
Jaungoikoaren saria da ta
gorde kutxa urrezkuan,
ta gaur daukazun sasoi orrekin
eduki urte askuan.

[**Luistar bat**, Zeruko Argia, 1963-2-21, 6. orria]

Zeruko Argian bertsoak argitaratu zituzten hernaniarrak (argia.comen ikusgai):

60KO HAMARKADAN

- Sebastian Salaberria (3 sorta)
- Juan Marko (2)
- Arruarte (8)
- Florian Oiarbide (6)


IKUSMIRAK

Sebastian Salaberria

NERE BORDATXOTIK

Ez Merkenak,
Bai Onenak!

FANDERIA

(Basarri:) Bere bizitza guzian izan du Salaberria'k bertsotarako zaletasuna. Entzutea, besteak jarritakoak irakurtzea, ta berak jartzea gustatzen zaio, beta dunean. Jun dan udazkenean Iturriotz gañean jokatu zan sega-apustua, estua ta bikaña izan zan gogotik. Bere entzuera urtetan izan dedin, ona emen Salaberria'k moldatutako bertsoak.

Ongi etorri, Sebastian, Zeruko Argiaren orrialdetara!

1
Milla beatzireun irurogei ta
aurten laugarren urtean,
apustu latza ikusi degu
Iturriotz'ko partean.
Bi segalari janean zeuden
gutxiñez urtebetean.
Oien barrenak etzeuden lasai
alkar probatu artean.

2
Ogeitazazpi egun agorrak
azkenengo igandia
goizean garaiz mendi aldera
abiatu zan jendia.
Modu artako giroak ere
gutxitan izaten dia,
otzaren beldur aundirik etzan;
ezin eskatu obia!

3
Iritxi giñan Iturriotz'a
asmo au artu gendunak.
Eta biotza alaitzen zuen
emengo edertasunak
amabi milla kristautik gora
eta danak euskaldunak.
Maizago egin bear giñuzke
olako alkartasunak.

4
Ezpadegu nai gure izkuntza
eta oiturak galtzea.
Gauzik onena dala uste det
mendiz mendi ibiltzea.
Zer atsegiña Iturriotz'en
ainbat euskaldun biltzea
danen zaindari goien degula
Ernio'ko gurutzea.

5
Sarrerak artu eskuetan da
sartu giñan belazera
berealaxe aitona zar bi
neregana jolasera
nork irabazi bear ote du?
lendabiziko galdera
erantzun nien: "kezka ortatik
laister aterako gera".

6
Bi segalari ain umill beren
maixuaren esanean
segak eskutan artu zituzten
ordua eldu zanean,
saio latzari ekin zioten
amaikak jo zutenean
ordubata arte an jardun ziran
gelditu gabe lanean.

7
Zulaika degu Zarautz'koa ta
Aburuza Oiartzuarra
biak dirala segalariak
dago aitortu bearra.
Motorra duen tresnaren gisa
ebaki zuten belarra
txikia ona dagola baña
aundia ere ez da txarra.

8
Irabaztuna Zulaika degu,
jendeak jo dio txalo.
Marka polita jarri ote dun
artu degu errezelo.
Zortzi milla ta zazpireunekin
berrogei eta lau kilo,
belar mordo au botako bada
eztago egoterik lo.

9
"Eun larogei eta amarri"
txikian alde trabesa.
Ori entzunda askok au zion:
"nai duenak artu beza".
Irabaztuna nor izango zan
asmatzen etzan erreza
amabi kilo gutxiagokin
gelditu da Aburuza.

10
Bi gizon bata bestean aurka
segan ziranetik asi.
Ezta burruka gogorragorik
Iturriotz'en ikusi.
Orrenbeste lan egiten dunak
galtzerik eztu merezi.
Baña jokoak ori du txarra:
biak ezin irabazi!

11
Bazkal ordua iritxi zan da
sabelak zeuden zimurrak.
Baña jendea etzan egon an
jan da edateko beldurrak.
Mendi oietan zabaldu ziran
ogi ta ollasko ezurrak,
egun batzutan etziran gaizki
or goiko artzai-zakurrak.

12
Iturriotz'en joka izan da
makiñat sega-apustu.
Baña gutxitan ibili dira
oraingoan bezin estu.
Bietan batek galdu bear du:
ez iñork kopetik beztu.
Alkarri eman bostekoa ta
gorroto txar danak aztu.

[**Sebastian Salaberria,** Zeruko Argia, 1965-loraillak 30]

(Basarri:) Oso ondo ari zerate portatzen euskaldun bertsolariok. Zeruko Argiak eztauka asteroko bertso sail onen paltan gelditu beldurrik. Lan asko dauzkagu jasota, ta danak batera ezin argitaratu. Txandaren zai egon bearra dago oraingoz. Ez ordea estutu, denborarekin danak azalduko dira ta. Pozik gera ain langille agertzen zeratelako.

Doinua: Ezkondu eta ezkongai.

1
Guk ba-daukagu laguna
emen ondo zegoana
artzai Amerika joana.
Kontatu nai det andik onera
abixatutzen duana
amets bat zun eramana
itxutu diruangana...
eta sortu zaio lana!

2
Euskalerri ontatikan
sei urte dira joanikan
supritzera Amerikan.
Ai, garai artan bere etxean
jan eta edanetikan
etzan ezeren paltikan
baña asko nai patrikan
joan zan orretxengatikan!

3
Iritxi zan egunetik
nagusi baten ondotik
abiatu zan barkotik.
Gutxienez joan ogei legura
auzorikan urrenetik,
esanaz bere burutik
zartu baño lenagotik
eztiat ezeren paltik!

4
Mendira igo zanean
asi baño len lanean
ardien aldamenean;
nagusiakin tratua egin
oso soldata onean
seireun pezta egunean
ordaintzeko nai zunean
iru urte barrenean.

5
Urteak joan dira errez
diru pozaren indarrez
gañeztu zalako urrez.
Nagusia bai eztia bezin
goxo itzegiten aurrez,
ta orain idea txarrez
zor diona ordaintzen ez,
urtutzen dago negarrez!

6
Dirua dala merio
mendi artaraño io
orain an dabil serio.
Nagusiari soldata eskatu,
bueltan bereak aundio,
ikaratzeko, propio,
pistolakin desapio,
iltzeko egiten dio.

7
Ainbat urtean lan egin
geroko esperantzarekin
orrek ematen dio min.
Orain gizon bat lagundutzeko
nun daukan nai luke jakin
saiatutzeko arekin
zerbait eskuratu dedin
utsikan nola aldegin?

8
Berak, euskeraz aparte
eztu jakingo itz bat-e
nora emango du parte?
Nagusi arek morroi tontoa
izatea eztu kalte
debalde ainbeste urte
aurrera-re nai dan arte,
antxe edukiko dute.

IKUSMIRAK

BERTSO BERRIAK

UGALTZEN GOAZ

Ez Merkenak, Bai Onenak!

FANDERIA

JAKIN LAGARTO

JAKIN LAGARTO

9
Era ortako nagusik,
enuke esan nai guzik,
baña ba-dira ikusik.
Berak naiz bizi dirua edo
interesarekin josik,
eta tokatzen dan sosik
supritua irabazik
morroiei eman nai ezik.

10
Pobrearen ibillera
jango badegu lanera
joan bear norabaitera.
Baña pausoa ematerako
kontuak ondo atera
gure lagunaren era
orrenbeste supritzera
zertako joan apartera?

[**Juan Marko**, Zeruko Argia, 1966-azillak 20]

(Basarri:) Irakurleok ondo dakizutenez, itz berdiñeko bi punturi "poto" esaten zaio bertsotan. Itzak berdiñan izanarren, oso esan-gai desberdiñekoak izan daitezke ordea. Orduan eztago "potorik": merituzko bertsoak dira alakoak. Ernani'ko Arruarte'k burua nekatu du ontan.

Lau ta bost puntuko bertsoak irakurriko dituzute. Itz berdiñak; esan-nai desberdiñak. Irakurri astiro.

BERTSO BERRIAK

NERE BORDATXOTIK

AN DA EMENGO BERRIAN

ZERUKO ARGIA OPORRETAN

MARGO EDERDUN ENZIKLOPEDIA

NASKETA

1
Apusturako neuzkan
jarriak bi ari,
batek ez du balio
albiño bat ari.
Ta alperrik gastuan
eznuke nai ari
pentsu asko ez diot
nik emango ari.

2
Arrobin ari danak
baditu bi alde,
suertea aurka izan
edo izan alde.
Eta gorde lekurik
ezpadako alde
sua datorrenian
urrutira alde.

3
Kanposantua dago
ornitua illez,
nola nere burua
bizarrez ta illez.
Asko baitira junak
abenduko illez,
ni ere makur baña
oraindikan ill ez.

4
Naparruan erri bat,
izena du Bera,
ta bertako jendea
oso biotz-bera.
Begiratu ezkero
ondo goitik bera,
danetan politena
izango da bera.

5
Lagunak erregia
eztakit or duan,
bañan eztet utziko
oraingo orduan.
Ezpadegu botatzen
biar dan orduan.
Musian zertarako
ibilli orduan?

6
Ni amerikatikan
etxera eltzian,
oi, gutxi gora bera,
bikuak eltzian.
Or ikusiko dituk
urriak eltzian,
batzuek astintzeko
kasketak eltzian.

7
Iru kapoi daduzkat;
emia ta bi ar,
ernegazi nautenak
makiña bat biar.
Bañan salketa txarrik
eztet egin biar;
ta zuk oietakorik
ezpadezu biar
perira juango dira
gaur edo biar.

8
Bide egiñan ibili
gerade aldian,
ala baita oitura
Ernani aldian:
orain obeto daude
len zeuden aldian
bañan nola etxetik
eztagon aldian,
galdezka asi ziran
bukatu al dian.

[**Arruarte,** Zeruko Argia, 1968-dagonillak 25]

MUTIL ZAR BATEN AITORKETA

1
Aitorketa nerea
urtetik urtera,
ta bizi motxekoa
egiz esatera.
Lengo obenak berak
gañean ostera,
damutasun sendoa
ote zan atera?

2
Lengo penitentzia
egin nuan dana,
zerbait alderatzeko
Jaungoikoangana.
Ta saiatzeko parten
zuzentzen al dana
au da argaldadea
nik dadukadana!

3
Egite onak aztu,
okerrean oitu,
gorputza baldanduta
anima ere loitu.
Bear ez dan moduan
diru danak aitu,
griña txarren indarrak
menderatzen gaitu.

4
Nere mingaña dago
purgaren premian,
otoitz garbirik ez du
egin aspaldian.
Birau gaiztoak jarri
Jaungoiko aundian,
ez itzegingo banu
euskera garbian.

5
Nere elizarako
gogorikan eza,
zertaraño dan ez da
neurritzen erreza.
Egite txarretako
ainbesteko presa,
ta gerorako utzi
igandeko meza.

6
Ez naiz oroitzen zer zor
diodan amari,
ain gutxi laguntzerik
premian danari.
ta eskerrak emanaz
osasun onari,
otoitz bat egin gabe
sekula Jaunari.

7
Bosgarren agindua
iñor ill ez baña,
gorrotoa bai, noski,
maitasuna aña.
Eta bekaitza ere
zabaldua zaña,
indar kaltegarriak
artu dute gaña.

8
Gorputza asetzeko
aragiak nastu,
eta anima berriz
deabruan esku.
Pekatura joateko
Jaungoikoaz aztu,
orrela dabillenak
azken onik eztu.

9
Zerbait galtzen bazaio
bere jabeari,
jirako diotenik
ez geiegi ari.
Olakoan begiak
jartzen zaizkit argi,
ezer ez dan lekuan
atzaparrak garbi.

10
Astean erdirako
patrikarak utsik,
biotzetik triste ta
doi doi ortxe zutik.
Billatu eziñikan
prestamo laguntzik,
merezi nuan parra
ez dit egin gutxik.

11
Aurrezki kutxak daude
emengo ta ango,
sos batzuek sartzera
ote naizen joango.
Baña egon ditezke
sinistuta ondo,
oiek nere kontura
ez dutela jango.

12
Edanean sarritan
gañez egin neurriz,
tamañan ibiltzeko
nere gogo urriz.
Gero nere burua
esnatzean berriz,
zenbat aldiz obea
azarena balitz!

13
Nun ote zabiltz nere
izar gidaria?
betik lañopean
al zaude jarria?
Eman zaidazu, arren!
bear dan argia,
ikusteko galdua
nabillen bidia.

[**Arruarte,** Zeruko Argia, 1968 urriak 6]

(Basarri:) Ernaniko Ereñozu ballaran bizi dan Florian Oiarbide datorkigu bertso sortatzoarekin. Ogeitairu urte betetzera dijoan gaztea dala esaten digu. Ikusten eta somatzen ditun gauzak agertzen dizkigu itz neurtuz.

BERTSO BERRIAK

NERE BORDATXOTIK

Basarri

DANETIK ZERBAIT

1
Bertso berri batzuek
nua ni jartzera
orra, asiera!
egiak azalduaz
gutxi gorabera.
Ogeita iru urte
nua egitera,
orrengatikan nator
gauz au esatera,
gaurko gaztediaren
berri ematera.

2
Gu gazte geradenok
geienean alai
al degunean jai,
beti jarrita gaude
igandearen zai.
Ederki jolastuaz
ibiltzeko nunai
zine ta billeratan
tabernan ere bai...
gabeko amabiak
alde arte, lasai.

3
Alaitasuna dago
gure inguruan
bear dan moduan,
aurrekoak olaxe
ziraden munduan.
Baña pentsatu onek
zer esan nai duan
etsaiak zirikatzen
dabiltza onduan,
txorakeri geiei
daukagu buruan.

4
Oraingo neskatx askok
kalera juanda
billaturik denda,
galdetzen dute gauza
berririk bai al da?
An esaten diote:
au da orain moda,
laister artutzen dute
dirua emanda
danak jantzi nai dute
"ye-ye" "mini-falda".

5
Larri zegon jendea
moda jarri arte
artutzeko parte,
oraingo neskatillak
gona motzak maite.
Dutena azaltzeko
lotsarik ez bate,
orrela ibiltzea
berentzako kalte,
seigarren aginduan
utsegiten dute.

6
Alde guzitan dauka
moda orrek sona
baña ezta ona,
neskatilla gazteak
jantzitzen dutena
ikusitzen badegu
orrelako gona,
pentsamentu gaiztoa
dator guregana,
pekatuan jartzen da
jator dagoana.

7
Ara oraingo beste
gauza bat berria
ain lotsagarria!
mutillak ille luze
ikaragarria.
Neri iruditzen zait
eztala garbia,
askori indartuko
zaiote zorria,
ori ere daukagu
gaur modan jarria.

8
Askok egiñagatik
moda orri parra
ba-dauka indarra,
eztet esango danik
denentzako txarra.
Baña bai al zegoan
gauz orren bearra?
zuk iritzia eman
euskaldun jatorra,
ez al degu obea
lengo lege zarra?

9
Neskatx eta mutillak,
gazte geradenak
eta guk geienak,
biar edo etziko
andre ta gizonak.
Guretzat mesedea
itzatea onak,
adiskide, ezagun,
ta gure lagunak,
alkar lagunduz bizi
bear degu danak.

10
Amar agindu onak
Jaunaren legean
gorde bearrean.
Berak jarri zituan
guretzat onean.
Danok ibilitzeko
oien esanean
saiatu gaitezen ba
bide zuzenean.
Agur gazte danori
nere izenean.

[**Florian Oiarbide**, Zeruko Argia]

70EKO HAMARKADAN

- Juanjo Uria (sorta 1)

80KO HAMARKADAN

- Julian Ezeiza "Aterpe" (sorta 1)
- Joxe Mari Arrieta (3)
- Beltza, espetxetik (2)

ZORION EGARRIA

bertsoak

ZORION EGARRIA

Joxe Mari ARRIETA

1
Bertso batzuek jartzera,
besteren beta artzera,
neretik egan nijoa zure
sukalde ertzera.
Biotzetikan ortzera
barruko kezkak lertzera...
Bakardadean sortzen diranak
zuri agertzera.

2
Zelaietikan egira
gure pausoei begira,
jarri ezkero au galdetzen naiz:
beroiek zer dira?
Ondasunaren dirdira
bakoitzak bere zagira
sartu nai baño denok osorik
iñork ez erdira.

3
Jartzen bagera gañetik,
zeñen era apañetik!
itz gozo eta lore ederrak
sobre mingañetik.
Baña zer da ezinetik?
arek dakarren miñetik?...
Zulatzen bada odola dator
bizi dan zañetik.

4
Gutxitik azkar askora
pasa nai ori kaskora...
Alde aundirik bai al da ortan
zintzotik gaiztora?
Begira bera ta gora,
galdetu nor dan gustora:
Aitzurrak sarde izan nai luke
ta segak aizkora.

5
Jaiotzen negar arrantza,
gero kezka ta zalantza.
Zer da ordea gizarte onek
jarri digun dantza?
Lore arteko arantza...
Nortasun ustelan gantza...
Berak nai gabe ernaldutako
emearen antza.

6
Nork du nai ainbeste zori?
Arre erantzun isori,
lenez gañera indartu zaigu
naikoa gaitz ori.
Denok, beltz, zuri ta ori
orra aazturan erori:
leoiak leoi bear duela
ta txoriak txori.

7
Soro batetik bestera
larre obeen eskera
gabiltzan ardi artaldekoak
baizikan ez gera.
Biar guztiok ostera
atzo moztuak moztera,
albokoaren samiñarekin
geronak poztera.

8
Bei bide errezean
artzaiaren babesean,
lasto apur bat eman dezaigun
larrerik ezean.
Arkumeak jolasean,
ardi zarrak solasean,
aotik jaten ez dan bazkatik
ezin txit asean.

9
Artaldetikan igesi
joateko ez giñan ezi,
ez bai da errez austea zerbait
langa eta esi.
Ametsa edo eresi
zer dan nik ezin berezi,
baña gizonak ari izaterik
ez luke merezi.

10
Zorionaren atean
norbait egunen batean
sartuko balitz, aurki dedilla
betiko pakean.
Luzaroko illunpean
bizi osoko epean
erori gabe topatzen bada
illargi betean.

[**Joxe Mari Arrieta**, Argia 1985-5-26]

LEIHOTIK BEGIRA GILTZAPEAN

Doinua: Bart arratsean etorri nintzen... (Txirrita)

1
Orain pentsatzen jarri naiz eta
nik hitzegin nahi dutela
tapaturik ohean gorriak
ikusten ari naizela
leihotikan kanpora begira
nahiko bero dut odola
kaiolan sarturikan txoriak
egoten diren bezala.

2
Txoriek ere atea noizko
dioten ba irikiko
beharra gaur ere horretan lo
hartzea nik nerekiko.
Gauean ametsetan goizean
berri ona izateko
eskerrak amets hauekin poza
izaten den bizitzeko.

3
Egunekoa amaitu eta
orain nago txapaturik
leihotik begiratutzen nago
ez dago argi pizturik
ohean etzan buelta ta bira
ez dut batere logurik
umoreari esker ari naiz
bertsotan bakar bakarrik.

4
Gaur ere ni sartu naizenean
hemengo mantape hontan
eguneroko izarak ditut
bakarrik nago hizketan
begientzako bista alaia
zeruko izar hoietan
lagunak lo daude gehientsuak
bakoitza beraren kotan.

5
Askok nahi digute betirako
preso ta gainez lotuta
gogoan izan dezaten hauek
ez gaudela gu galduta
momento askotako txarrenak
pasatzen gaude ohituta
jende askok uste duen baino
hobeto gaude zailduta.

6
Entretenigarri haundirikan
ere ez dugu txabolan
gauza urriak izaten dira
gu gabiltzan lekuetan
komon eta arraska txiki bat
ohea ta mahaia burnitan
jantziak txukun izatearren
balda eskas batzuetan.

7
Erratza bat ere badaukat nik
txabola ez dut hain garbi
mahairen gainean liburuak
hiztegi bat, lapitza bi
beste muñeko bat zintzilikan
bere bibote ta guzti
horrela edukiko nituzke
kartzelero hauek beti.

8
Aitortu nahi dut ere amets bat
gertatzen dena sarritan
teorikan izadia maite
dut bihotz bihotzetikan
ikusi gabe urteak hemen
belar eta zuhaitzikan
ala ere poztutzen naiz eta
ikusirik telebistan.

9
Euskal Herriak ez gaituela
nahi gu hemen betirako
espainolak ez badute argi
errez dute ikasteko
beren iritziz ekarri gaitu
hemen gogor zigortzeko
euskaldunak Euskadirengatik
ez dugula guk etsiko.

10
Amaitu behar dut gaurkoz ere
nere saiotxo ttipia
gorantziak bidaliz gogotik
hor zauden lagun maitia
zuk utzitako txabola daukat
berriro hemen betia
zorion aspaldiko lagunak
Piti Sarrionaindia.

[**Beltza**, Argia 1985-X-14]

2000KO HAMARKADAN

- Jexux Mari Irazu (15 sorta)
- Maialen Lujanbio (10)
- Unai Agirre (4)
- Aitor Mendiluze (1)

Argian "Bertso berriak..." atala izan zen 2006tik 2012ko uztailera. Astero, sei bertsoko sortak argitaratu ziren bertan.

Hernaniko bertso eskolan sortu zen ideia. Merezi duela bertsoak iritzi sailean leku bat. Jendeari eman behar zaiola bertso jarriak garatzeko toki bat, bere funtzioa duena: argitaratu eta onak badira jendeak komentatu eta ikasi egiten dituela.

[Estitxu Eizagirre]



IRITZIAREN LEIHOA

Dopinari jarriak

I

Bizitzak zenbat gurpila ditu?
Bi beharrean hiru balitu!
Zenbat ziaboga, zenbat palada
itsas olatu, uhin balada
muskulu masa
odola, hormona edo arnasa...
baina ez da deus berririk pasa.

II

Zer gara geurez, zer da laguntza?
Nondik aurrera ezin da bultza?
Estutu eta behartzen baitu
zerk eraginda nork jartzen gaitu
lehia hutsean
dopina bera ere funtsean
buruan dago ez gorputzean.

III

Zer eskandalu, zer harridura,
hutsa urruti balego hura.
Etxean nola ote gabiltza?
Guztia al da pasta ta pizza?
Giharrak sutan
afizionatu eta heldutan
eta edozein asteburutan.

IV

Muga-helmuga arteko herrak
ta interesen arteko gerrak.
Orain gurpilak haizez hustuta
baloia berriz puztu-puztuta
borobil, bitxi
nahiz Europan ez aterik itxi
Alemaniara ez da iritsi.

V

Antidopina, famatu bila
langilea izorra dadila!
Alemanian putetxe berria
Mundialen aitzaki jarria
larrua uzten
analisitan ez al da ikusten
zer hartu beharko ote zituzten?

VI

Ta politikan ba al da dopinik?
Garbitik zenbat duen jakinik...
Berdin du legez zein legez kanpo
gehienak ere hartzeko pronto.
Ta bertsogintzak?
Ba al du dopinik ahozko hitzak?
Analisitan ez dator behintzat.

30

DOINUA: Juana Bixenta Olabe.

DOPINARI JARRIAK

Doinua: Juana Bixenta Olabe.

I
Bizitzak zenbat gurpila ditu?
Bi beharrean hiru balitu!
Zenbat ziaboga, zenbat palada
itsas olatu, uhin balada
muskulu masa
odola, hormona edo arnasa...
baina ez da deus berririk pasa.

II
Zer gara geurez, zer da laguntza?
Nondik aurrera ezin da bultza?
Estutu eta behartzen baitu
zerk eraginda nork jartzen gaitu
lehia hutsean
dopina bera ere funtsean
buruan dago ez gorputzean.

III
Zer eskandalu, zer harridura,
hutsa urruti balego hura.
Etxean nola ote gabiltza?
Guztia al da pasta ta pizza?
Giharrak sutan
afizionatu eta heldutan
eta edozein asteburutan.

IV
Muga-helmuga arteko herrak
ta interesen arteko gerrak.
Orain gurpilak haizez hustuta
baloia berriz puztu-puztuta
borobil, bitxi
nahiz Europan ez aterik itxi
Alemaniara ez da iritsi.

V
Antidopina, famatu bila
langilea izorra dadila!
Alemanian putetxe berria
Mundialen aitzaki jarria
larrua uzten
analisitan ez al da ikusten
zer hartu beharko ote zituzten?

VI
Ta politikan ba al da dopinik?
Garbitik zenbat duen jakinik...
Berdin du legez zein legez kanpo
gehienak ere hartzeko pronto.
Ta bertsogintzak?
Ba al du dopinik ahozko hitzak?
Analisitan ez dator behintzat.

[Jexux Mari Irazu, Argia, 2.049. alea 2006-07-16]

ZUBIETAKO ERRAUSTEGI PROIEKTUARI JARRIAK

Doinua: Iparragirre abila dela.

I
Urnietan zen hasieran ta,
Arizetara hurrena
Landarbasora eraman gero
Zubietara azkena (?)
Gipuzkoa Hiria?
Ez, gaitz sirimiria
hondakinetan barrena
zer komon klase jarri bakarrik
ote da gure problema?

II
Ez noski baina, hori ere bai
ta sudur puntan duguna
lehendik ere Gipuzkoan dena
ez baita larros lurruna
San Markos edo Lapatx
ingurua zabor hats
inzineradora suma
ta proiektua bera da orain
kiratsa botatzen duna.

III
Hiri zaborren tratamentua
bada arazo itzela
alternatibak aurkeztu baina,
onartu ez badaudela
erre egin behar erre
ezin beste ezerre
ezin dela, ezin dela
aberasteko beste modurik
ez baleukate bezela.

IV
Organikoa ongarri egin
ta konpostajea labe
begiratu nahi duenarentzat
adibideak badaude
ta Gipuzkoan bertan
politikaren bueltan
ikusi berriak gaude
nola erre ta desegin leiken
erraustegirikan gabe.

V
Zaborrei beste tratamentua
emateko ahalegina
aldika gogor, hurrena damu
ardurei uko egina.
Erakundeei kaña
kulpak besteri bana
geuk sortzen dugu zikina
ta politikan ere batzutan
ez da oso desberdina.

VI
Hiri hondakinak ez erretzea
ez da aterako merke
legeak asko lezakeenik
sinestea bera neke.
Hauteskundeetan zer
aldatuko al du ezer
kalea ere trabaz bete...
Baina denetan indarra eginda
buelta etorri liteke.

[**Jexux Mari Irazu,** Argia, 2.080. alea 2007-03-18]

KALE BIZHITSARI JARRIAK

Doinua: "Errota zahar maitea".

I
Hauxe egun motela...
denbora ez-gauza.
Tabernako barraren
kanpoaldean dautza
erratzak daramala
harlauzaz harlauza
astelehen akitu
zahar baten zerrautsa.

II
Ez du aste hasieran
jotzen eguzkiak,
astelehen ta astearte
astelehenduz biak.
Herri ilun, kale isil,
espaloi bustiak,
sotoek irentsiak
bizidun guztiak.

III
Sortu asteazkena,
ta noizko adio...!
Bar-man bakartuari
luze dohakio.
Pintxoari mahonesa
tanta bat dario...
goizez jausten hasi ta...
eutsi egin dio.

IV
Ostegun mortuetan
hego-bako hontza,
eskuak patriketan,
zeharrean poltsa,
gau hutsari eztula
egiteko lotsa.
Etxe zuloetatik
"teleberri" hotsa.

V
Egun anfibio bat
bi jaien gerizan,
promesa eternoa,
biharko peskizan.
Jausi da ostiral bat
asteroko gisan,
zerbait zirudiena
ta ez zena izan.

VI
Azkenik larunbata!!
ta antsia jasa!
Whisky, insalus, rona,
kubata, gin-kasa,
WC ta WC
pasa, pasa, pasa!
Izerdia, musika,
tabako arnasa,
litroak, isuriak,
humanoide masa,
jendetza, uholdea,
kaosa, anabasa.
farra, farranda, besta,
manboa, desfasa,
aluzinantea txo!
topea, demasa!
Kristoren martxa dabil!
Tumatxa gaupasa!

Hauxe egun motela...
denbora ez-gauza.
...

[**Maialen Lujanbio**, Argia, 2.129. Alea 2009-03-23]

IRITZIARGA LEIHOA

Kale bizhitsari jarriak

26

DOINUA: "Errota zahar maitea".

URUMEARI JARRIAK

Doinua: Zaldi zuriarena.

• IRITZIAREN LEIHOA •

Urumeari jarriak

I

II

III

IV

V

I
Ezkurran sortu eta
bidea badaki:
Goizuetan barrena
sartzen da aurki.
Donostiraino doa,
luzea izaki.
Ibai edo errio
zuek erabaki.
Harrien tapaki
ta zentralen jaki.
Moztu ta ebaki
mila adabaki.
Aurten makina bat ur
badaramaki.

II
Urumea dijoa
neurritik irtenda
azken astetakoak
nola zerrenda?
Inguruko ur denak
irentsi ta benga!
Aldeginda hor dabil
handi egin zen da.
Bidea ta xenda
garaje ta denda
maite ditun prenda;
guk nola defenda!
Atea ireki gabe
bera sartzen da.

III
Karabelgo zubitik
jarri naiz begira
–ez dakizuenontzat
hau Hernani da–.
Errioa hor dator
karga eta tira
futbol zelaian sartu
rugbykoan jira.
Beste alderdira
antzeko dizdira
txikitik handira
aldatu da di-da
baratzeak arrozal
bihurtu dira.

IV
Urumea ibaiak
baditu bi parte
diferenteak nola
hau eta Marte.
Zikuñagaz goikoa
jotzen det aparte
baina behera ditu
hamaika aldarte.
Gure estandarte
Donosti bitarte
ia etxe tarte
batean dakarte...
Zuzen joaten da baina
aspertu arte.

V
Arkitekto, sailburu
tekniko, apaizik
arrastoan sartzeko
ez da kapazik.
Urak ez du ezagutzen
regla ta konpasik,
bide berririk edo
milagro errazik.
Ez dauka jolasik
ez dauka arnasik
ez du egin kasik
ez dakien gauzik
lehen kendutakoa
eskatu baizik.

[**Unai Agirre**, Argia 2.174. alea, 2009-03-01]

2010EKO HAMARKADAN (2012 arte)

- Jexux Mari Irazu (15 sorta)
- Unai Agirre (2)
- Agin Laburu (3)
- Beñat Gaztelumendi (2)

HERNANIKO BERTSOLARITZARI JARRIAK

I
Hazi, sabel ta emagin (Bis)
sortu ta sortzen eragin
aho ahoz eskuz esku
bertsolaritza Hernanin.
Hazi, sabel ta emagin
bertsolaritza Hernanin.

II
Olegarioren plazerra (Bis)
zaldi ta karro ederra.
Gaur egun kotxea baina
Txirritak bere txoferra.
Olegarioren plazerra
Txirritak bere txoferra.

III
Urumeatik barrena (Bis)
zer da urak dakarrena?
etxero bertsolariak,
bertsolaritzan edena.
Urumeatik barrena
bertsolaritzan edena.

IV
Paulo Txikiaren bira (Bis)
ordu txikitako jira.
Bertsotatik bizikletaz
Arizkundik Hernanira.
Paulo Txikiarenbira
Arizkundik Hernanira.

V
Tturko, Garin ta Aterpe (bis)
Patxi Odriozola fuerte,
bertsoaren surik ez zen
garai gogorren aterpe.
Tturko, Garin ta Aterpe
garai gogorren aterpe.

VI
Gaurkoa omen da moda (bis)
Amurizan kurtsillora
bi hilabetez joan ziren
ehun lagunetikan gora.
Gaurkoa omen da moda
ehun lagunetikan gora.

VII
Ikastaroa zimendu (Bis)
ondoren bidea sendu,
bizarrak zuritu dira
suak gorri jarraitzen du.
Ikastaroa zimendu
suak gorri jarraitzen du.

VIII
Langilen ta Urumean (Bis)
bertsoa ikasgunean
indarrak bildu zituzten
gehien behar zen unean.
Langilen ta Urumean
gehien behar zen unean.

IX
Zenbat tanta olatuak (Bis)
norberera moldatuak.
Joan-etorrian iturri
batetik abiatuak.
Zenbat tanta olatuak
batetik abiatuak.

X
Lanak bere herentzia (Bis)
emana eta utzia:
Bi txapel ta buru asko
hor dago diferentzia.
Lanak bere herentzia
hor dago diferentzia.

[**Jexux Mari Irazu**, Argia 2.216. alea, 2010-01-31]

DUKAN DIETARI JARRIAK

Doinua: Iparragirre abila dela.

I
"Flakatu ein haiz" eta antzeko
ez dakit zenbat lausengu
entzun nahiean ibiltzen gera
kiluak kendu ta kendu.
Dieta baten truke
askok egiten dute
burua haizez gizendu,
mende hontako jainko berriak
Dukan izena omen du.

II
Gari artian gosiak egon
biharrekua da hau (e)re:
baxoerdi bat, pastel txiki bat...
zenbat tentazio daude?
Nahiz ta saldu elkarri
eta askotan jarri
dietik onenaren pare,
nere bizitza ez det ulertzen
pekatu txikirik gabe.

III
Lehendabiziko hiru edo bost
egun proteina hutsekin,
fase gehiago ere badaude
baino ezin da hutsegin.
Zenbait mutil ta neska
sumatu det galdezka
"honek zer dik" ta "hark zer din?"
Goserik ez da pasako baino
inbiria berdin-berdin.

IV
Gozo muttur bat ezin probatu
eta alkohol lehortia,
maiz osasuntsu egon asmotan
galdu daiteke nortia.
Legatza eta xerra
janaz ez da ederra
kiluak ezin botia,
baino seguru al gaude zer dan
osasuntsu egotia?

V
Batzuen auto-sakrifizio
bestien autoengaino,
Dukanek argi ikusten duna
Aginentzat dago laino,
oreka baita giltza
ta gu bila gabiltza:
noiz arte eta noraino?
Nahiago ditut sei kilo sobran
bizi poza faltan baino.

VI
Suposizioz hitz egiten det
ez naiz eta medikua,
baino ikusi deten apurra
ez det izan begikua.
Nere dieta ordia
ez da askoz hobia,
izan arren betikua:
merkuriodun arraia eta
tomate transgenikua.

[Agin Laburu, Argia 2.295. alea, 2011-10-23]

2012ko irailean, iritzi sailaren barruan, hiru bertsoko zutabera pasatu zen lehenago sei bertsoko sorta zena. Gaurkotasunari estuago lotzeko asmoz, bertso gutxiago baina landuagoak izan zitezen, eta jende gehiagok idatz zezan.
[Estitxu Eizagirre]

TALIBANAK

Doinua: Aita izena.

Izan Gobernu, izan Kongresu,
Udal zein Foru Aldundi
baldin botere gunea bada
gizartearen irudi
gure mintzoak nor ipintzen du
prentsaurrekotan urduri?
Hizkuntzak berez omen ditugu
pertsonen arteko zubi
baina gurea amildegi bat
bihurtu dela dirudi.

Hitz ematetik hitz egitera
galtzen den konpromezuak
ageriago utzi ohi ditu
gugan dauden konplexuak
inkestek sortu arren etsipen,
kezka, min eta kexuak
belaunalditan iraungo badu
gure arbasoen sua
euskaraz izan beharko dute
edukiak zein mezuak.

Nahiz talibanak edo naziak
esaka ari zaizkigun
hemen euskaraz dakigun denok
garelako elebidun
gure harrizko herria hain da
burugogor, mingain-bigun...
Euskara gugan dagoelako
ez PPn eta ez Bildun
ea hurrengo Lehendakariak
nola hitz egiten digun.

[**Beñat Gaztelumendi,** Argia 2.342. alea 2012-10-28]

IRITZIAREN LEIHOA

Mikel Alvarez

AHTren zuloa eta zorrak

BERTSO BERRIAK

Talibanak

Beñat Gaztelumendi Arandia

1970eko hamarkada

Eutsi zitzaionekoa

Gerraosteko hurrengo hamarkadetan Euskal Herriko beste hainbat herrien gisan Hernanin ere bigarren industrializazio prozesu indartsu bat jarri zen habian. 1953an Orbegozo metalurgia fabrika eraiki zuten, 1.000 lagun ingururi lana ematen ziena, eta paper lantegiak ere ugaritu egin ziren. 1970eko hamarkada amaitzerako zenbait auzotan industriara bideraturiko lur kopurua hirukoiztu eta laukoiztu egin zen. Zikuñagan, esaterako, %8tik %29ra igaro zen bigarren sektoreak okupaturiko lurra.

Barrio horretan ospe handiko erromeria egin ohi zen irailaren 8an, ermita eta Hernaniko zaindari den Amabirjiñaren inguruan, dantzari, txistulari eta bertsolariekin. Baina Elizak ermita zegoen lurrak saldu zizkion aldameneko paper lantegiari. 1979ko apirilaren 12an ezezagun batzuek Zikuñagako Amaren irudia lapurtu zuten eta horren ondoren erromeria galdu egin zen eta ermita zaharraren harriak gordeta daude egun. Hernaniar askoren iritziz lapurreta hura interes ilunek bultzatu zuten.

Zikuñagako kasua Hernaniko beste hainbat auzoren antzekoa da, etxe andana egin baitzuten bertan, batez ere Andaluzia eta Extremaduratik etorritako beharginentzat. Portun, Elizatxon, Lizeagan, Sagastialden... Hasierako urteetan, etorkinak urbanizatu gabeko kale artean eta egoera kaskarretan bizi behar izan ziren. 1970eko hamarkadan Karabeleko eta Etxeberriko blokeak izan ziren eraikitzen azkenak. Langile auzootako fisionomia eta giroa erabat aldatu zen; kanpotik etorritakoek gizarte mugimendu bizia sortu zuten, festak indartu, kultur ekitaldiak ugaritu...

Donostia inguruko industria gerrikoa osatzen duten beste hainbat tokitan bezala, Hernanin, gerraosteko etorkinen eta bertakoen arteko harremanak pixkanaka indartzen joan ziren, eskolak, lantegiek eta giro politiko antifrankistak lagunduta. Esaterako, asko izan ziren euskarara hurbildu eta ikasi zutenak gau-eskolen bidez.

Alfabetatzeak eta euskalduntzeak sekulako indarra hartu zuen 70eko hamarkadan. Hala, euskarak galdutako prestigioa berreskuratu zuen apurka, *kaxero*en hizkuntza izateari utzi zion. 1976an AEK sortu zen, orduko euskaltegien sare nagusia, eta 1988an Hernanin lehen AEK Eguna ospatu zen. Hasierako urte horietan Euskal Herri osoan 40.000 ikasletik gora izan zituen AEK-k. Udal euskaltegia, berriz, 1991n sortu zen.

Kultur giroa ere nabarmen zihoan gora. Floridako eliz-parrokiaren egoitzan, Padres de Familiakoan, Harri-Burniren lokaletan eta Mendi Gain elkartearenean hamaika kultur ekitaldi antolatu zituzten garai horietan. Bestalde, Hernaniko soziedade zaharrenak 1940 eta 1950eko hamarkadetan sortu ziren, eta hasierako lagunarteko bilgune funtzioaz gain, ekitaldiak antolatzen hasi ziren urteak aurrera joan ahala: danborrada, kaldereroak, txarangak, txapelketak... Herriko kultur giroaren euskarri handietako bat bilakatu ziren. Hain justu, Hernanin bertsolaritza suspertzeko lehenengo txapelketak soziedadeetan egin ziren: lehena 1979an Elur Txorin eta bigarrena 1980an Peña Otañon. Dena den, soziedadeak gizonentzako eremua ziren oraindik; gezurra badirudi ere, elkarte gastronomiko gehienetan emakumeek ez dute sarbiderik eta bazkide izateko eskubiderik izan atzo arte.

Kirol elkarteak ere indartuz zihoazen. Errugbi elkartea 1965ean sortu zen eta 1978an lortu zuen lehen aldiz ohorezko mailara igotzea; arraunean 1971n debutatu zuen Hernanik, hainbat denboraldiz Kontxako estropadetan aritu zen hamarkada horretan –1978an, Elorrabiko zubian zorigaiztoko istripua izan zen urtean, sailkatu zen azkenekoz Kontxarako–. 1970ean Galarreta Jai-alai frontoia inauguratu zen, erremon-

tearen katedrala. Udalak konbenioa sinatu zuen Galarreta kudeatzen zuen enpresa pribatuarekin, urteko kuota bat kobratzeaz gain, Udalak eskubidea izango zuen instalazio horietan hainbat ekitaldi antolatzeko, tartean bertso saioak. 1980an 1.000 lagunetik gora bildu omen ziren Usurbilen kontrako desafioa ikusten, eta Errege Eguneko lehen bertso saioak (1992an) ere taulatu horretan egin ziren. Bertsolaritzaren eta pilotalekuen arteko harremana, ordea, aspaldikoa da, Tilosetan erreboterako frontoia zenean, koplatan aritzen omen zen Josefa Zubeldia bertsolaria, aulki batean eserita.

Giro politiko nahasia bizi izan zen 1970eko hamarkadan. Frankismoaren azken urteak gogorrak izan ziren, salbuespen egoerak ugaritu eta errepresioa jasan zuten euskal herritarrek. 1975ean Franco hil zenean egoerak ez zuen hobera egin, langileen kontrako erasoaldiak bortitzagoak ziren, 1976ko martxoaren 3ko Gasteizko sarraskia da horren erakusgarri. Baina aldarrikapenak etengabeak ziren, alde batetik lan arlokoak –CCOO, ORT eta LAB gisako sindikatu eta mugimendu asanblearioen eskutik– eta bestetik politikoak, presoentzako amnistia kasu.

Testuinguru horretan sortu zen Alkateen Mugimendua deiturikoa. 1976ko uztailean Bergaran bildu ziren hainbat udalerritako alkateek eskaera zehatz batzuk egin zizkioten Madrilgo gobernuari, tartean euskararen ofizialtasuna eta baita ikurrinaren legeztapena ere. Fraga Iribarnek Venezuelako telebista kate batean esana zuen ikurrina "bere hilotzaren gainetik" legalizatu beharko zela, baina alkate taldea Madrilen izan zen Martin Villarekin negoziatzen, Hernaniko alkate Ignacio Iruin barne, eta azkenerako lortu zuten ikurrina udaletxeetan jartzeko baimena. 1977ko urtarrilaren 16an Etxarri Aranatzen ikurrina jaso zuten lehen aldiz ofizialki, hortik egun gutxira Hernanin gauza bera egin zuten. Ikurrinaren aldeko oihartzunak 1980an jo zuen goia, Martin Zabaletak eta Pasang Tembak Everesteko gailurrean jarri zutenean.

1977an Txibertan abertzaleen artean izandako negoziazioek ez zuten fruiturik eman eta ezker abertzalea osatzen zuten mugimendu anitzek eta EAJk bide ezberdinak hartu zituzten. Batzuk hausturaren aldekoak, besteak erreformistagoak. 1978an Espainiako Konstituzioak ez zuen euskal herritarren babesik izan, abstentzioa gailendu zen. 1979ko udal hauteskundeetan sortu berria zen Herri Batasuna koalizioa atera zen garaile Hernanin eta Juanjo Uria izendatu zuten alkate. Urte berean Gernikako Estatutua onartu zen. Baina askorentzat ez zegoen bermerik euskal herritarren subiranotasuna, lurraldetasuna, hizkuntza eta eskubide sozialak errespetatuak izateko. ETAren bi adarrek –*miliak* eta *polimiliak*– jarduera armatuarekin segitu zuten, indar polizial eta parapolizialek inpunitate osoz odoldu zituzten kaleak, eta ilusioz hasitako hamarkada hark norabide ezezaguna zeraman beste hamarkada bati egin zion toki.

URKO APAOLAZA AVILA

JULIAN EZEIZA LANDA, "ATERPE"

1929an Balantxan jaioa

2005eko Bertso Latako jaialdian, bertso eskolaren omenaldia jaso osteko bertsoak kantatzen.

Gure etxean ez zen beste inor afizioa zuenik. Nire amaren aita albizturtarrak, hark zer edo zer egiten zuen bertsotan.

IRAKURRIZ ETA IDATZIZ HASIA

11-12 urte nituela, gure jaiotetxean gertatu zen liburu bat, "Santa Genoveva de Bramante", eta beste bat Pernando Amezketarrarena. Eta handixe hasi nintzen, pixkanaka, bertsoak buruz ikasten.

1947-48 urtean, Basarrik bi liburu atera zituen: bata Atano IIIri buruzkoa eta bestea berea. Eta horiek ere irakurri nituen. Orduan ateratzen ziren liburu denak irakurtzen nituen. Gero bertso saioak non, hara joaten ginen. Urrutira ez: Lasarte, Ereñozu... Ez zen orain adina saio egiten.

1960-1964. urtean bertsoak idazten hasi nintzen. Enkargatu egiten zizkidaten: jubilatu zenarentzat, lantokirako, hiletetarako ere bai... Buruz ikasi eta kantatzen nituen, buruan aise sartzen baitzitzaidan bertsoa.

MAISU, AROZAMENA ETA AMURIZA

Arozamena Oialumen bizitzen zen, eta harekin batera aritzen nintzen bertsotan pixka bat. Orduantxe bertsoa janzten hasi nintzen zer edo zer, gutxi. Hasiera poliki egiten genuen, baina bukaeran ezin errematerik eman. Hori gertatzen zen.

Ni bertsotan pixka bat jarri nintzen, Amuriza hemen eskola ematen hasi zenean. Orduan. 1979-1980a zen.

PLAZAK

1978an Santa Barbaran kantatu nuen lehendabizikoz, ermitan, San Inaziotan. Joxe Fermin Argiñarena, Antton Garin, Tapia, eta laurok ginen. Zenbat izerdi ateratzen nuen nik! Bertsoak buruz ikasi, eta gero jakina, gogoan eraman behar! Euria zen, eta guardasola eskutan dardarka nerabilkien, nerbioekin. Egun hartan Karabelen uholdeak ziren, eta festa suspenditu eta Peña Otañora etorri ginen.

Garai hartan ostegun batean, Garinek eta biok ferian (Txilibitako ondoan) kantatu genuen; hiruna edo launa bertso bota genituen.

Ondorenean, presoren bat etxera etorri zela eta Antiguora askotan joaten ginen, Añorgara ere bai eta batez ere Lasartera. Antton Garin eta biok Lasartera 20 aldiz baino gehiago joango ginen.

Ereñozun bi aldiz izan gara (don Juan apaizari omenaldia egin zioten batean han ginen), eta Aparraingo zuhaitz egunetan ere bai...

Portuko festetan bost-sei urtean kantatu nuen, 1980tik 1986ra. Antton Garin eta Joxe Fermin Argiñarenarekin kantatu dut Portun gehien. Saio hark fama zuen, giro izaten zen. Guk ez genuen dirurik kobratzen, baina makina bat mokadu harrapatu dugu!

Orain hamabost urte bi operazio izan nituen zazpi hilabeteren barruan, eta utzi egin nion plazan kantatzeari. Nekatu egiten nintzen.

LAZKAO TXIKIREKIN

Puente la Reinara eskurtsiora joan ginen eta bazkalostean Koxme Lizaso eta Lazkao Txiki bertsotan aritu ziren. Bueltako autobusean, Koxme beste autobusean sartu zen eta Lazkao Txiki gurean. Joxe Arrizabalagak esan zion "Joxe Miel, ez al duk kantatu behar?"; "Bai, bakarrik nauk eta!"; "Hor zegok Aterpe!" eta halaxe, launa edo bosna bota genituen.

ERREKORRA

Sagardotegitan ez naiz bertsotan ibili. Urtean behin edo bi aldiz bakarrik joaten naiz. Balantxan nire errekorra dago paretan idatzia: Gipuzkoako 45 herrien izenak esaten ditut 18-19 segundoan.

TXAPELKETAK

Fernando Amezketarra Herri Arteko Bertsolari Txapelketan (1985) parte hartu genuen.

HURA HERNANI HURA!

1

Gure Hernanik beti izan du
jende jatorraren sona
bizi poza ta umoreakin
bizitutzen zen pertsona
eguneroko ogia bazen
familiko zoriona
gaurko aukerik ez zen orduan
jaten baizuten zegona.

2

Portu bailarak zitun orduan
sagasti eder askuak
eta inguruko baserrietan
sagardo bikain freskuak
Zikuñaga ta Iberduero
ez dauzkagu ahaztuak
argi indarra jarri zuten ta
orduntxe giñan poztuak.

3

Ta Ereñozu aurkitutzen da
patxaran mendi tartean
ibai ederra ur ederrakin
dadukate hankapean
Juan de Urbieta hantxe jaio zan
Arriurdiñeta batian
eta Txirrita berriz Latxian
ta ez oso urrutian.

4

Hernani beti nabarmendu da
kultura ta kiroletan
aitona batek neri esana
oraindik det gogoetan
Aita Orkolaga igarle ona
Adarraga bizikletan
ta Eltzekondo pultsuan maixu
eta Txirrita bertsotan.

5

Gaurko gazteai amets ugari
bururatutzen zaizkio
nahiz gurasoak etxe zuloan
han egon negar jario
orain ehun urte ez zan izango
gaur dagon hainbat bizio
lujo handirik ez zuten ordun
eta dirua gutxio.

6

Orain ehun urte gure herria
osatzen zan ur iturriz
ta batez ere intxaur ta gaztain
eta sagar muxu gorriz
gaur hoiek denak baztartu dira
diskoteka batzuk jarriz
garai bateko sanidadia
ez da ikusiko berriz.

[**Julian Ezeiza "Aterpe"**, 2003an Joxe Legarretaren omenez Hernanin egindako bertso-emanaldirako jarriak]

FLORIAN OIARBIDE

1944an jaioa, Abillatsen

Florian Oiarbide.
Argazkia: Estitxu Eizagirre.

Ni Abillatsen jaio nintzen eta 17 urterekin etorri nintzen Ereñozura: Txilibitaren frentean taberna hartu zuten gurasoek. Denda eta taberna, biak ziren. Eta horra biltzen zen koadrila: jai iluntzean afari mokoa egin eta bertso zaharrak kantatzen zituzten.

Bertso ona bazen, gogoan erraz hartzen nuen orduan!

Etxean bertso zaharrak kantatzen aritzen ziren gure osaba-eta. Bi osaba ziren bertsolariak: amaren anaia Juan Altxo, eta aitaren anaia Eduardo Oiarbide.

AITA, "TTANTTUA"

Nire aitonaren aitari jarria da goitizena. Mutil-kozkorra zela, mandoaren gainera igotzerakoan edo, esango zuten "hau igoko ez diagu ba, ttanttu hau?", ttikia alegia. Eta handik aurrera "ttanttua".

Gure aitak (Joxe Oiarbide, 1906an jaioa) Txirrita bizirik ezagutu zuen, gure aitak 29 urte inguru zituenera arte. Txirrita eta Paulo Txikiarekin kantatu zuen, gure aitak 23 urte zituen eta Paulo Txikiak 17. Gureak ez zuen segitu bertsotan.

Bertso asko zekizkien buruz. Aita Zavalari Txirritaren bertso idatzi asko eman zizkion.

Lehen ohitura handia zegoen puntuak jartzeko. Gure aitari edozer gauza esan, eta errimatuz erantzuten zuen: Jela hausten batean, eta lanean berarekin aritzen zen Joxe Luis Artolak: "Zer, Ttanttua, mailun?" (mailuarekin jela puskatzen), "bai, orain xamurtu da baina lehen zail hu(e)n!".

EGINDAKO SAIOAK

Soldaduskatik 23 urterekin itzuli eta 30 urte egin arteko tartean ibili nintzen bertsotan.

Gaizki pasatzen nuen saioaren aurretik. Behin hasi eta pixka bat berotuz gero, hor nonbait!

San Joan eskean atera nintzen Lexotiren partez, Igeldon. Igeldok baserri pila ditu, eta urruti, eta dena oinez egin genuen! Bi koadrila irten ginen, bertsolari bat bertakoa, Nikolas "Gorria", soinujole batekin eta ni bestearekin. Soldaduskan lizentziatu berria nintzen, 23 urte edo nituen.

Plaza-plazan lehenbizikoz Portun kantatu nuen. Jon Lopategi eta Jon Azpillagari galarazi zioteneko garaia zen. Portura ez ziren etorri, eta Manuel Huizi eta biak aritu ginen. Huizi jada Nafarroako Txapelketan zebilen, Goizuetan Xaltok irabazi eta berak bigarren egin zuen.

Portuko saio horren ondoren Santa Barbarara joan ginen, San Inazio egunean. Joxe Ramon Marko lehengusua, eta biok moto Bultaco harekin. Gora joan gara, eta Anjel Osa etorri zitzaidan. "Hi, hola ta hola hituen etortzekoak, eta Abel Enbeita bakarrik bidali ditek!" gaizki ulerturen bat izan zen bertsolarien artean. "Ni nola aterako nauk bada?" Baietz eta baietz, hark. Abel Enbeitarekin aritu nintzen Santa Barbaran eta arratsaldean Hernanin kantatu genuen, eliz aurreko balkoitik.

Ur-Mia soziedadeko bazkaria egiten da urtero, eta bazkalostean kantatu izan nuen. Manuel Huizirekin askotan. Beste batean Iñaki Otañorekin, beste batean Migel Arozamenarekin. 26 bat urte izango nituen orduan.

Tturkorekin ere bastante aritua naiz. Plazan ez, e! Tturkok bertsotan egin egiten zuen, bertsotan aritzeko lagunik onenetako bat zen.

LEXOTIREN GONBIDAPENA

Kotxea ekarri berria nuen, 26 urterekin eta behin Lexotik esan zidan: (ez dakit nongo herritan, Saldias, Ituren edo...) "hi, hara biok joan behar diagu! Mitxelenak ez omen zaukak joaterik, okupatua zegok...". "Ni nola joango nauk ba! Ni ez nauk ibili eta...", "baietz-ba, erraz egingo diagu!". Gero behintzat Lexoti gaixotu egin zen eta saioa besteren bati utzi edo ez dakit zer egingo zuen.

Joxe Luis Lekuona Garayar "Lexoti" bertsolariaren erretratua 1985. urtean.
Argazkia: Rafael Labandibar.
Iturria: Oiartzun; Udala Informatzen Aldizkaria.

BERTSO JARTZEN

Imanol Kamiori askotan jarri dizkiot bertsoak berak musikarekin kantatzeko. Maiatz batean hiru jarrialdi eginarazi zizkidan. "Mutila Goizuetakoa eta neska ez dakit nongoa, horrela ibiltzen dena..." pistak ematen zizkidan, eta nik jarri, ezkontza bukaeran atera eta kantatzeko. Zilarrezko eta urrezko ezteietan... honezkero jarriko nizkion 60 aldiz, eta agian motz geratuko naiz.

Behin Aita Zavala etorri zitzaidan. Bertso liburua osatzeko erdia baino gehixeago baneukala esan zidan. Zavalak nik ateratako bertso jarri denak bilduta zeuzkan! Zeruko Argian eta La Voz de Españan Basarriri bidalitakoak ere bai. Baina ez neukan gogorik, erabat utzi nion.

Liburu hauetan argitaratu ditut bertso jarriak:
Txabolategiren liburua.
Txirritaren 50. urteurrenean Juanjo Uriak idatzitako liburua.
"Pelota, euskal jokoa".
Bilintx-en 100. urteurrena ospatzeko antolatutako bertso sariketako liburua.

SARIKETETARA BIDALIAK

1976an Bilintxen 100. urteurrenean omenaldia egin zioten Donostian. Bertsoak jarri behar ziren maitasunaren gainean. Xalbadorrek irabazi zuen. Bigarren Inozentzio Olea izan zen eta hirugarren Aietekoa, Segundo Kalonje. Laugarren sarirako hiru berdinduta geunden: Pello Esnal, Xanti Zabala "Lexo" eta ni.

Makinaz pasatzeko ere lanak izaten ziren, orain alabak pasatzen dizkit baina... Batean Juanjo Uriak pasa zizkidan eta poto egin zidan! Eta gero konturatu nintzen, sariketara bidali eta gero!

ZERGATIK UTZI BAT-BATEAN KANTATZEARI

Ereñozuko Santa Agedako errondan 17 urterekin hasi 14 urtean atera nintzen. Lehenbizi Manuel Huizirekin, orduan Nafarroako Txapelketan atera berria. Baina mendiko lanean nola aritzen zen, eta askotan etorri ezina izaten zuen, gero bakarlari aritu nintzen. Bakarlari eta koplari ere bai. Koplari 8-10 bat urte egingo nituen.

Urte hartan ama apendizetik operatuta geneukan, klinikan. Eguerdian arreba gazteena eta biok joan ginen bisitatzera, eta etxera etortzeko zain zegoen, oso ongi, ustez. Benta Berrin ari ginen santa eskean, eta bakarlari kantatzen ari nintzela, atzetik Joxe Mari Miner zenak "hi, ama hil dala" esan zidan. Gazterik joan zen, 59 urte zituen. Nik 29.

Handik urtebetera berriro ere Santa Ageda. Atera eta berriro bakarka koplari neroni. Martzelina Otxotorena Epelekoa, Otxotorena futbolariaren amona, nire amaren izeba zen. Ama hil zenean, hura zegoen erietxean. Santa Agedara kantatzera joan nintzenean, Martzelina gaixo zegoen. Gauza sentimentalekin oso bera naiz, aise emozionatzen naizena. Kopla kantatzen hasi eta bete egin nintzen. Denak batera etorri zitzaizkidan gogora, hari kantatzen ari nintzela. Bukatu nuen bertsoa, egina neukan eta, baina nahiko lotsagarrikeria eginda. Orduan esan nuen "ez dut gehiago nire ahotik bertsorik kantatuko". Geroztik aritu izan naiz lagun artean eta zeozer, baina jende aurrean ez.

30 urterekin utzi nuen, gazterik. Jarraitu banuen ere ez nintzen bertsolari handia izango.

ESPERANTZAN

Sagardo lehiaketa batean Julian Ezeiza Aterpe eta Tturkorekin aritu nintzen, Elur-Txorin. Diario Vascon orduan Jose Luis Gonzalezek idazten zuen herriko kronika. Eta jarri ere bai *"Ttanttua debería seguir porque el bersolarismo ganaría"*, eta nire artean "ba leku ederrean zegok, nire esperantzan baldin badago!".

LEHEN HERRI MEZETAN

Frankismo garaia zen, baina jada bete-betean ez, pixka bat irekitzen hasia zegoen. Zerbait nahi zuena lotan ez, eta herri mezak egiten hasi ziren.

Lehenbizikoa Floridako elizan izan zen, oraingo San Jose Obrero horretan ez, beste eliza txiki bat bazen, eta hantxe. Hango apaiz zegoen orduan Don Jose Luis Goikoetxea, Astigarragakoa, gero obispoaren txofer ibili zena. Hark behintzat herri meza egiteko trabak jarri zizkien.

Inzatarrak ziren antolatzen, Floridako Benta Berri taberna zeukatenak, eta nire bila etorri ziren. Eta apaizak galdetu zuen "y el bertsolari qué ba a cantar?" (hura ere gu bezala euskalduna zen, baina...) eta "no sabemos, el bertsolari tiene que improbisar" esan zioten. Eta txalapartarik ez jotzeko agindu zien.

Komeriak ziren apaiz horrekin eta nik bertsoak kantatu nituen politikan ezer sartu gabe. Eta gero apaizak "el bertsolari muy bien" esan zuen, ez nintzen ezertan sartu eta! Baina besteak txalaparta bai jo ere bere garaian! "dije que no pero ha tocado!", kontu harekin komeriak izan genituen.

Gero Hernanin egin zen herri meza eta Manuel Huizik eta biok kantatu genuen. Eliza betea zen. Han ere ezertan sartu gabe kantatu nuen, orduan hitz bat ateratzea, larria zen! Jendea gustura geratu zen, ordura arte dena itxia zegoen eta. Jendeak antsia zuen.

LATXE FABRIKA

1
Bertsoz esango det zer zan
nik Latxeko fabrika:
pago ta haritz egurrez
egiten zan kimika.
Hango labe ta kaldera,
bidoi eta barrika,
hogei bat langilerentzat
zegon lana jarrita.

2
Nagusia xahar-xaharra zan,
izena zun "On Pepe"
bere garaian izana
Hernaniko alkate.
Langile ta auzotarrak
guztiok gendun maite.
Bera bizi zan artean
dana egon zan tente.

3
Goizeko zortzitan xuxen
jotzen zuten kanpana
orduan hartu aizkora
zerra edo arpana
beste batzuk bizkarrean
bakoitzak borra bana
burni ziriz egur hausten
bazuten nahiko lana.

4
Gauza askoren artean
lortzen zuten ikatza
langileak jasan behar
gero beraren hautsa
zaku zahar bat mantal gisa
eta aurpegi beltza,
euskaldunak izan arren
afrikatarren antza.

5
Nahiz ta etzuten jasoko
gehiegizko soldata,
beti umore onean
buila ta zalaparta.
Lana ere era hortan
arinagoa da ta,
beraien artean zuten
oso giro aparta.

6
Gogamen politak ditut
fabrikaz oroitzean
aspaldin geldirik dago
ta erori antzean
orain bere aurretikan
pasatze bakoitzean
halako tristuratxo bat
sortzen zait bihotzean.

[**Florian Oiarbide**, 2003an, Joxe Legarretaren omenez Ereñozun egindako bertso musikatuen-emanaldirako jarriak]

JOXE MARI ORMAZABAL "TTURKO"

Zizurkilgo Abeletxen jaioa

AITONA BERTSOLARIA

Aitona, Antonio Ormazabal, bertsotan zerbait aritzen zen, garai batean. Andarro deitzen zioten, Andarro baserrian jaioa, eta handik Abeletxera ezkondua, Zizurkilera.

Gerra denboran gure auzoan (Zizurkilen), baserri batean, soldadu tropa bat egon omen zen. Handik behin etorri omen zen kapitaina bi soldadurekin, botak lepoan jarrita. Aitona han azaldu zen eta nire ama harekin. Aitonak erdaraz ez zuen asko jakingo, eta amari zerbait esango zioten, aitonak zenbat urte zituen edo, eta hala esan omen zien aitonak: "Cuatro veinte y tres, nahi badek entendi zak eta nahi badek ez!". Soldaduek "que dice?" eta "lehengoa berriz'e!" hark.

ZIZURKILDIK HERNANIRA

Zizurkilen, auzokoak ondartzatarrak ziren, eta horien iloba Antonio Kortajarena bertsolaria zen. Gure etxera askotan joaten zen. Nire anaia eta biak bertsotan aritzen ziren, eta ni ere haiekin saltsan zer edo zer. Baina gutxi. 11 urterekin etorri nintzen Hernanira. 13rekin hasi nintzen linternero, lanera.

Afizio handirik ez dut izan nik. Ari baino ez ari nahiago, baina muturra pixka bat berotutakoan zer edo zer zirt edo zart bota eta aurrera!

Ni bertsotan oso gutxi aritu naiz. Aritu naizena sagardotegira joatean.

XANPUNEKIN

Iparraldera joanak ginen, Tapatxulos eta Kinito ikusiz, eta han geunden, taberna batean. Gizon bat sartu zen, kaskazuriarekin. Zein izango, eta Xanpun! Sasoian, Armagnac edanez. Nik bertso bat edo bi kantatu nituen, eta burua behera begira zuela entzunez egon zen. Esan zidan: "Zein zera zu?" "Ba, ni hona etorri naiz bisita egitera". "Zu baino txarragoak badabiltza hemen!" esan zidan. Erronda pagatu zigun eta alde egin zuen.

PLAZAK

Santa Ageda eskean aritu nintzen urte askoan. Gero Hernanikoa utzi nuenean Egiatik etorri zitzaizkidan kantatzeko eske. Xanti Zabala "Lexo" eta biok ibili ginen.

Asteasun ere ibili izan naiz Santa Eskean, soldadu nengoela. Goizean hasi eta hurrengo egunean bukatu genuen, egunsentian. Pasara hartu nuen, anaia etorri zitzaidan motoarekin bila eta bueltako bidean lo hartzen nuen. Zizurkilen ere atera nintzen. Mitxelenarekin kantatu izan dut festetan Astigarragan. Arozamenarekin ere bai, Zikuñagan.

Hernanin bi aldiz aritu naiz plazan, jende aurrean. Batean, San Joanetan Tilosetan kantatu nuen Manuel Lasarte, Lazkao Txiki eta Sebastian Lizasorekin. Orduan bi gaztek ere kantatu zuten, bat Joxe Mari Mujika "Anatx" izango zen eta bestea Izeta.

Geroago Hernaniko gazteekin ere kantatu dut: Joxe Luis Urdangarin, Jon Eizmendi eta Unai Agirrerekin Elur Txorin. Jexux Mari Irazurekin osteguneko ferian. Jon Garmendia Txuriarekin pare bat aldiz.

Batean Caserio tabernan nengoen eta Andoni Egaña sartu zen. Igual ordubeteko saioa egin genuen!

Garai batean bertsolari on askorekin kantatzeaz gain (Mitxelena, Lizaso, Lasarte)... Hernaniko kaleetan hamaika aldiz aritutakoa. Tturkok gero atzera egin zuen, ez mailan, baina ez zuen nahi izan. Guk ezagutu genuen Tturko suelto suelto kan-

tari. Egun batetik bestera isildu zen. Noski, soziedadean tokatuz gero hor bai, egiten zuen, baina bestela ez. Bertsotan poliki egiten zuen, hamarreko handian hasten zenean kontuz! Eta gainera oso ahots polita zuen. [**Juanjo Uria**]

(2013an) Afaria egin genuen Elur-Txorin eta bera ere tartean zen. Elkartean bertsotan aritu zen. Gero poteoan aritu ginen eta Bodega tabernan mahaian eseri eta bertsotan jo eta fuego aritu ginen! 3-4 orduan, isildu gabe. Bota zituen latzak, eta pena, grabatu gabe. [**Aitor Barrenetxea**]

SAGARDO BOLADAN TTURKO HIL?

Gripearekin ohean egun mordoxka bat pasa nituen. Bolada hartan Floridan linternero bat hil zen eta jendeak "Tturko omen zegoen ondoezik, eta Tturko izango zen!". Batek esan eta besteak errepikatu, herri osoan zabaldu Tturko hil dela. Anjel Garaiar taxilariak hura aditu eta bere lagun Bascongada funerariako nagusiari esan, eta funerariakoa etxera etorri zen, nire datuak hartzera. Gure ama zaharra bizi zen, eta "bai, ez dago ederki baina ari da bizkortzen" esan zion. Hark pentsatu zuen "amona hau joana zegok! Ez duk harritzekoa, horrela pasa bazaio...". Amak "zer, enkargu bat al zenuen beretzat?", "Ez, ez, nik bera ikusi nahi dut". Ekarri zuen, eta ni ohean. "Oi, bizi haiz eta!".

"Turko bazkide den Elur-Txori Elkarteko arduradun batek hori jakin zuen bezain laster, Elkarteko masta-makiletik ikurriña jarri zuen zintzilik krespoi beltz eta guzi".

[**Juanjo Uria**, Txirrita 50. urteurrena liburua]

Eguerdian jaiki nintzen eta atea jo zuten. Ireki nuen eta Joakin, Petritegi sagardotegiko nagusia bere andrearekin. Meza dirua ematera etorriak ziren. "Aiba, hau ere ba al dugu? Maria eta Jose!" zur eta lur geratu ziren ni bizirik ikusita. Bizarra moztu, eta eurekin joan nintzen sagardotegira, ospatzera. Haiek kotxetik atera eta sukaldera, eta Joakinek aitari: "Tturko hil dela", eta aitak "bai, motel, ez duk gehiago etorriko hura ere!" eta "e! Zeinek esan du hori!" nik besoak zabalduta. Gora igo ginen sagardotegira, eta han Pacok, kanpotarrak *"mira, quien viene ahí! Ya decía yo, Tturko se va a morir? en la temporada de sidra?!"*.

Petritegi sagardotegia. Iturria: www.sidrerias.ws

Jose Joakin Mitxelena Agirrezabal. Iturria: Auñamendi Entziklopedia

MITXELENAREKIN

Noiz edo noiz Mitxelena etortzen zen eta harekin bertsoren bat edo beste kantatzen genuen. 17 bat urte izango nituen; Amerikanoaren bodegan (Banco Gipuzcoanotik beheraxeago, ardo almazena ere bazuen) afaria egin genuen: baba oiloarekin. Afaria antolatua zuten, eta ni eramanarazi ninduten, ezer esan gabe (bestela ez nintzen joan ere egingo-eta). Juanito Goia, bere anaia Patxi, Joakin barberua... horrelako koadrila bat bildu zen. Handik atera eta Amerikanoa tabernara joan, eta Mitxelena behin hasiz gero isiltzen ez zena zen, eta hor egin genuen saio bat. Orduan Mitxelena onenean zegoen, indarrean. Handik aurrera noizik eta behin, Leku Zaharren eta tokatu izan ginen.

Gero Juan Joxe Uriak esan zidan, horren gainean bertsoak jarri behar nituela, eta azkenean zerbait jarri nituen.

Doinua: Mutil koxkor bat

1
Milla beatzirehun larogei eta
hirugarrengo urtian,
Urtarrilaren hamazazpian
astelehen triste batian,
Turko hil dala beste konturik
etzan Hernani guztian,
ikurriña're ipiñi zuten
Elur-Txori-ko atian,
ez egin gehio horrelakorik
bizi naizen bitartian.

2
Gaixo nenbilen, ohetik altxa,
berriz ohean etzanaz,
baina notizi horrek jarri nau
estuasunik beltzanaz,
ikusia det San Pedro eta
ikusia det Satanas,
sustoarekin ia hil nintzan
sinistu nik diodanaz,
gezurtia ez gehio etorri
larrialdiak emanaz.

3
Sendi guztia alkarri deika
gehienak erdi negarrez,
beste bat zala, ez nintzala ni
etzuten sinistu errez,
baina ni gaixo nengon gorputzez,
osasunez ta indarrez,
notizi horrek ipini nindun
ia hilian dardarrez,
akats haundia egin zirala
nago aitortu beharrez.

4
Astelehen batez, hor esan zuten
linternero bat hil zala,
ta batek dio, Turko zan gaizki,
ta ni izango nintzala,
ta beste batek erantzun zion
hori egia ez zala,
hor zabaldu da ezetz ta baietz
berriketan dabiltzala,
baina oraindik Jaunak eman dit
arnasa eta itzala.

5
Urtarrilaren hamazazpian
notizi txar bat entzuna,
Turko hil dala esan duanak
galdua dauka zentzuna,
sinistatzen det odol txarretik
hori esango etzuna,
ez jakiñean ez dedin egon
hil nintzala esan zuna,
bizi naizela bertsotan eman
nahi nioke erantzuna.

6
Elur-Txoriko Elkarte hortan
jarri zuten ikurriña,
erdian zeukan lazo bat beltza
nere lagunak egina,
Turko hil dala eta orduntxe
bazuten zer hitzegina,
neretzat etzan izandu baina
oso une atsegina,
oraindik behintzat bizirik nago
noiz arte ez dakit baina.

7
Egun hortantxe ez dakizute
zer trago nuan eraman,
bizik dagona hiltzat jotzea
begira nora daraman,
begik itxita ikusten nuan
haizeak nola neraman,
gezurra zala nahi ordurako
ez zion errez antzeman,
berriz holako rato txarrikan
ez akidazute eman.

8
Hil naizela ta kezka batean
sendia eta lagunak,
beste konturik etzan herrian
etziran ordu legunak,
dardar batean igaro ditut
ondoreneko egunak,
meza dirua ematea're
baziran etxera junak,
gezurti horri barka zaiola
zeru ta lurraren Jaunak.

[**Joxe Mari Ormazabal "Tturko"**, Txirrita 50. urteurrena liburua]

BERTSO JARRIAK

Alkarrena bilduta
auzo naziuak
hoien akziuak
egin behar dituztela
estradiziuak
sozialista faltso
en traiziuak
berritu nahi dituzte
kontribuziuak
Gonzalez ta Miterran
bi demoniuak.

Txirrita balitz bezala jarriak:

Bai al dakizute nuntsu dagon
Donostiako Atotxa?
Han izan dedan jolasbidea
ez da ez izandu motxa
neska gazte bat inguratu zait
izena duna Arantxa
lau peztagatik hor utzi dida
hanka tarteko pototxa
ederki asko bai zimurtu're
Txirrita zaharran lokotxa.

Brusa bizkarretikan hartuta
banua etxe aldera
berriro beste neska gazte bat
datorkit aldamenera
antzeman diot, jarri nahi zidak
lehen eindako lan klasera
barkatu bainan berriz ez nua
lantegi hortan hastera
neduzkan zorna guztiak hortxe
Arantxak dizkit atera.

Tturkori ikasi nion bertso hau, baserritarraren paperean jarria:

Nere etxian behia susara,
txerria berriz, inausi
txakurra altan dagola eta
astua ieltzen hasi
katua ere marruxka dabil
egin nahirikan ihesi
bart arratsian nere andriak
lo egiten ez dit utzi
lehiotik behera botako nuen
bere kamisoi ta guzi.

Behin bakarrik kantatzen zizkidan, eta esaten banion "e, aber, hori apuntatu behar dut..." "ez, niri ere behin kantatu zizkidaten, eta hik ere nahi baduk horrela ikasi!" erantzuten zidan. [**Aitor Barrenetxea**]

JUAN ORMAZABAL

Nire anaia ez zen Hernanin plazan atera. Zizurkilen bizi ginela, Pedro Mari Otañori omenaldia egin zioten eta nire anaiak sariketa irabazi zuen. Zizurkilgoak bakarrik ziren bertsotan. Bigarren Teodoro Mujika, hirugarren Joxe Antonio Iturbe "Saizar" eta laugarren Kortajarena geratu ziren. Anaiak 17ren bat urte zituen orduan. Enpate geratu ziren bi, eta anaiari puntu hau jarri zioten:

Errota aritzen da
trinkili-trankala

irina egingo badu
jardun bihar hala
artorikan ez baitu
puskatzen bestela
nun da tartian sartzen
ez zaion ustela.

Tolosan bi-hiru aldiz atera zen txapelketan baina ez zuen aurrerako asko egin. Behin puntua jarri zioten:

Zer moduz portatzen da
zuen behi pintua?

jateko kontu hortan
ez dago tontua
tratalaiak saldu arte
bazuten kontua
orain zeinek kendu hari
esnian tantua?

Gero jada geratu egin zen. Santa eskean bi-hiru aldiz atera zen Asteasun.
[Joxemari Ormazabal Tturko]

"Hura ere aritzen zen bertsotan, ondo gainera".
[Florian Oiarbide]

"Juanek kontatu zidan bera bertsotan ibiltzen zela gaztetan. Hernanin eta Gipuzkoa guztian. Eta esan zidan: 'Andregaiak eskatzen zidan bertsoa edo ni eta utzi egin nion bertsolaritzari'".
[Iñaki Aranzadi]



Antton Garin.
Argazkia: Estitxu Eizagirre.

ANTTON GARIN

1942an jaioa, Andre Kalean

17 urtera arte Andre Kalean bizi izan nintzen eta gero Elkanora jaitsi ginen, ezkondu eta Lasartera joan ginen arte (Zabaleta auzora). Orduan gustura joan nintzen, Lasarte Hernani zen eta esatea baneukan "Hernaniko auzo batera etorri naiz bizitzera". Muga Oria ibaiak egiten baitzuen lehenago. Gero isildu egin behar! Nik Lasarten lo egiten dut, eta bizi Hernanin. Hernanin daukat dena, lagunak, elkartea... Zapatek beti Hernanira egiten didate.

BERTSOTAKO HASIERA

Aitak istorio asko kontatzen zizkidan bere aitonarenak: aitaren aitona, Olegario bertsolaria zen. Aitak bazuen afizioa bertsotarako, asko kantatzen zuen. Baina kalean eta ez, beti lanean. Karrozeroa zen, eta karroak edo automobilak egiten hura beti kantari edo txistuka ikusten nuen. Baina niri inork ez zidan esan bertsoak kantatzen hasi behar nuenik. Ematen zuen barnetik su bat etortzen zitzaidala. Gaztetan bakarrik nengoenean bertsoa kantatzen nuen. Lanean hasi nintzenean ere, makina bat bider aritu nintzen tornuan piezak egiten bertso kantari...

PLAZAK

Atrebentzia hartzeko asko lagundu digu Santa Ageda errondan ateratzeak. Horrek irekitzen ditu ate guztiak. Horrek egiten du mikrofonoari beldurra kentzea, jendeari beldurra kentzea, egin egiten zara eta ez zara moztuta geratzen. Hasi ginenean bagenituen 30 urte. Lehenengo aldiz jendaurrean, Santa Agedatik aparte, Feri festan kantatu genuen. Juanjo Uriak ikusten zuen kantatzen genuela eta berak zirikatu gintuen, giroa jartzeko: trikitia zen Atzietan (han egiten zen feria lehen eta Txerri plaza jarri zioten izena), eta Julian Ezeiza "Aterpe" eta ni kantari, Txilibitako koskan tente jarrita. Jende asko zen, eta bukatu genuenean "buuf" egin genuen, deskantsua!

Hernanin festak ziren auzo guztietan kantatu dugu Aterpek eta biok, bazkari truke: Elkano edo Latxunbe, Lizeaga, Florida, Portu, Karabel, Zikuñaga goian...

DOINUA

Tailerrean banuen lagun bat, mekanikoa. Berez Aranazkoa zen eta handik etortzen zen lanera gugana. Eta hark kantatzen zituen denbora bateko bertso zaharrak, doinu batekin. Doinu hori buruan sartu zitzaidan, 16 bat urte izango nituen. Behin saio batean Jon Eizmendik esan zidan: "Hi Antton, hasi hadi doinu horrekin, e! asko gustatzen zaidak eta!". Gerora Maialen Lujanbiok ere kantatu zuen doinu harekin.

KIROLARI

Futbolean lau urte jokatu nuen, Hernanin. Bi urte hondartzan eta beste bi urte jubeniletan, atezain. Gero soldaduskara joan nintzen eta ondoren zortzi urte egin nituen eskubaloian. Gipuzkoako kanpeon izan ginen. Azkenean esan nuen "atzekoei tokia utzi beharko diegu..." portero ni bakarrik bainintzen. Koadrila guztia mendira joaten zen eta ni inbidiatan beti, eskubaloiko partiduengatik joan ezin! Ia 28-30 urtera arte aritu nintzen, beraz, denbora horretan bertsotan ia batere ez nintzen aritu. Eskubaloia utzi eta mendian hasi nintzenean, bertso giroa gehiago sartu zitzaidan.

JOXE MARI ARRIETA LASARTE

1952an jaioa, Orkolaga baserrian

Aita Joxe Arrieta, Orkolagakoa eta ama Ramoni Larrarte, Martuteneko Inbutegi baserrikoa. Bi seme ditut, Mikel eta Iñaki. Biterin ikasia naiz.

LANA

Akarregin zerran aritutakoa, Orbegozon ere bai. 1984tik 20 urtez baserrian, esne behi produkzioan. Ondoren ganaduak kendu, eta baserrietan aritu naiz ordezkari lanak egiten, Ene-Lur enpresarekin.

ZALETASUNA

Oso bertsozalea zen nire aitaren osaba zena, Juan Joxe Andola (Juanjo Uriaren aitona). Auzoak ginen, eta ni mutil koxkorra nintzela askotan igotzen zen gure osaba hori gure etxera.

Nahiko umetan hasi nintzen gurasoekin saioetara entzutera joaten. Gero nire kasa moldatzen hasitakoan, ahal zen guztietara: Hernaniko bertso saioetara joaten ginen (Aitor Zinean) eta Donostialdera ere zabaltzen hasi ginen. Eta behin hogei urte ezkero, inguruan ziren bertso saio eta txapelketa gehienetara. Nik bertso saioa izugarri entzun dut. Baina bertsotan ez dut lagunarteko giroan disfrutatzeko modurik izandu, urte batzuk gerora arte.

BERTSO KOADRILAK

Amurizaren ikastaro hartan parte hartu nuen, baina gero ez nuen bertso eskolan jarraitu.

Hori baino lehen sartu nintzen bertso munduan: Tolosan biltzen ginen, elkarte batean, Anjel Mari Peñagarikano, Millan Telleria, Xanti Zabala "Lexo", Argiñarenatarrak... Han ez zen barkamenik izaten.

LEHEN PLAZA

Izugarrizko beldurra nion jende aurrean bertsotan hasteari. Ez plazan bakarrik, koadrilan ere bai. Gogoan daukat lehenengo bertsotan jardun nintzen aldia: 17 urterekin, Sorian, osabarekin usotara joanda. Azpeitiar bat egokitu zitzaigun, nik baino 9-10 bat urte gehiago izango zituen, eta badakit txapelketetan parte hartua zela. Oso ondo egiten zuen bertsotan eta elkarrekin jardun ginen arrats batean, afaldu eta gero.

BERTSOTAN

Jardun izan naiz Julian Ezeiza "Aterpe" eta Antton Garinekin, izan dut suertea Manuel Lasarterekin jarduteko, Joxe Agirrerekin, Xabier Amurizarekin berarekin, Sebastian Lizasorekin, Mitxelenarekin, Lazkao Txikirekin... Horiekin denekin jardutea tokatu zait. Eta gazteekin ere bai, oraingo belaunaldiarekin.

Asko kostatzen zait bertsotan egitea. Zeren bertsotan ondo egitea oso gauza zaila da eta bertsolari txar bat entzuteak niri min izugarria ematen dit.

1979-12-16 Manuel Lekuonari egindako omenaldian kantatu zuen, Karmelo Baldan. Imanol Lazkano eta Iñaki Murua aritu ziren gai-jartzen, eta kantuan 32 bertsolari, besteak beste, Sebastian Lizaso, Balentin Enbeita, Jon Azpillaga, Patxi Etxeberria, Xabier Amuriza, Lazkao Txiki, Basarri...

Arrietak ikaragarri egiten du bertsotan. Guk Amurizaren ikastaroa egin genuenerako, Arrietak egiten zuen bertsotan, asko. Idatzian onena izan zen bolada batean, eta kantatu oso ondo egiten zuen. Plazan ez zuen kantatzen, tabernan eta afariren batean. [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

BERTSO JARTZAILE

Idatzitako bertsoekin eman nuen neure burua ezagutzera. Nire lehen jarrialdia Zeruko Argiara lagun batek bidali zuen. Gero Diario Vascoko Basarriren txokoan atera nituen, gero Eginera ere bidali nituen eta Goiz Argin ere azaltzen ziren, Basarrik kolaboratzen baitzuen han. Ikusi nuen ongi hartuak zirela, eta idatzi eta bidaltzen jarraitu nuen. Bolada batean asko gozatu nuen, gainera, idazten.

Bat-bateko bertsoa indarrean zegoen, baina bertso idatzia itzali-antxa. Ni bertso jartzen hasi nintzenean bazirudien hauspo batek brasa suspertu zuela. Bazirudien denek niri bertsoak bidali nahi zizkidatela, eta bidalitako bertso horiei nik erantzun egiten nien. Handik ezagutu zen pixka bat nire izena. Hortik hasi nintzen Hernaniko bertsolariei gai-jartzen, eta pixkanaka zabaltzen...

1982an Kaskazuri Lehen sariketa irabazi nuen, "Astoa sasoian" sailarekin.

Bertso liburua ere argitaratu nuen, "Nere ondar alea" (Auspoa 162), lehendik atereak nituen bertsoen bilduma. Antonio Zavalaren ideia izan zen. Edorta Uriak asko lagundu zidan bertsoak biltzen, fotokopiatzen... Azken ukitua ematen Aita Zavalak lagundu zidan. Liburuak oso harrera ona izan zuela esan zidan.

ASTOA SASOIAN

1
Bertsoz emango ditut
etxeko berriak,
nola gabiltzan jakin
dezan erriak;
asto bati medio
dauzkagun larriak,
arek egin dizkigu
ikaragarriak;
bere belarriak
atzera jarriak,
ta bigun gerriak,
astindu zorriak.
Ziria sartu digu
Etxeberria'k.

2
Etzaizkio atsegin
ari krabestoak,
zer esan pasta txintxa
eta zestoak;
ez ditu nai soñean
ain tresna bastoak,
mingarriak gertatzen
aien arrastoak;
biurri gaiztoak,
jan aza-ostoak,
baba ta artoak,
baztertu lastoak.
Tontotik ez du ezer
gure astoak.

3
Len portatzen zitzaigun
ondradu ta gozo,
zerbitzu pranko bazun
etxe ta auzo;
jenero gogorra da,
makiña bat pauso
bizkarra kargatuta
emanak eroso,
baiña aspaldi oso
itxusi jiboso,
ta lanari paso,
isatsa bai jaso;
arentzat berdin dira
arre ta iso.

4
Egun-sentiarekin
arrantza goiztarrak,
logurerikan ez du
gure maizterrak;
gero belar billa joan,
zesto ta otarrak
aidean bota dizkit,
auzo denen parrak!
Jaso ditu perrak,
ez dauzka alperrak,
ondatu bazterrak,
zabaldu izterrak,
orrelakoa maiz du
gure astarrak.

5
Apal ibiltzekorik
ari ez eskatu,
ille zarrak botata
oso preskatu;
larrera aterata
jan ez-ta jostatu,
etxekotik kanpora
nai luke ostatu;
amarrak puskatu,
ta noiznai askatu,
auzoan bazkatu,
guztiak nazkatu,
begiz ikusi gabe
ezin juzkatu.

6
Bera dago nagusi,
bera da jueza,
iskanbilla sortzen ez
ain aldrebesa;
sermoia arrantza ta
ostikoa meza,
bazter guztiak nasten
daukan interesa;
lan egin nai eza,
nunbaite bajeza,
ez dago erreza
arekin babesa,
badabilki puzkerra
eta laiñeza.

7
Gaur goizean domatzen
gera alegindu,
bear dan arrastoan
ez da berdindu;
auzoko eme batez
zaigu maitemindu,
bera ikusi du-ta
lanik ez agindu;
ura ondo zaindu,
isatsa astindu,
atzeak arindu,
ezpaiñak zikindu;
ogei bat aldiz pixa
ere egin du.

8
Aitak ala esan dit:
«Obeko dek saldu,
etxeko pakerikan
ez dedin auldu».
Nik bere esanari
nai nioke eldu,
pizti biurri orrek
ez gaitzan zapaldu;
ez du bate galdu,
bizkarra zabaldu,
indarrez ugaldu,
norbaitek nai al du?
Ernani'n Orkolaga'n
dago, azaldu.

GAI-JARTZEN

Gai-jartzaile Hernanin eta Hernaniz kanpo leku frankotan iritsi nintzen, Gipuzkoan.

Lasarte, Lazkao Txiki, Agirre, Lizaso aita semeak, Mitxelena, Peñagarikano, Mañukorta, Azpillaga, Lopategi, Amuriza, Telleria, Egaña, horiei denei jartzea tokatu zait. Urte frankotan aritu naiz.

1986KO ETA 1989KO TXAPELKETETAN EPAILE

Garai hartan bertsolariek eta Euskaltzaindiak halako eten bat izan zuten. Txapelketa aurrera atera nahi zuten bertsolariak epaimahai izateko eske etorri zitzaizkidan. Orduan bertsoarekin maiteminduta nengoen, edozer egiteko prest. Baiezkoa eman nien, eta oso esperientzia ona izan zen. Gogorra, baina ona.

Arbitro izatea zer den konturatu nintzen. Zer presio zegoen, zer giro, su bat zegoen han... hurrengo egunean a zer agujetak neuzkan gorputzean! Han edukitako presioak sortutakoak.

Lehenengo epaimahaira igo nintzenean, Joxe Mari Aranalderi galdetu nion: "Joxe Mari, zer egin behar da bertsoa ongi juzgatzeko, kontseju bat emaidazu". Eta esan zidan: "Ahal den lasaiena egon, eta ondo entzun. Bertsoa ondo entzun".

1986ko txapelketan puntuazioa momentuan erakusten zen, txartelean altxatzen zen. Hura karga bat gehiago zen. Bertsoa juzgatzea berez zaila baldin bada, gainera erakutsi egin behar! Jendea gainera etortzeko modu bat zen. Gainera puntuaziotan gorabehera handiak izaten ziren. Nik ez nuke gomendatuko.

Bi txapelketetan epaimahai egiteko lan horrek, egia esan, bertsoaz pixka bat enpatxatu ninduen.

KOPLAK

Miren eta Bingen Zupiriak soinujole txapelketan parte hartu zuten, eta irabazi. Txapelketarako Bingenek kopla batzuk eskatu zizkidan. Nik idatzi, hark irakurri eta esan zidan: "Ez, hau ez da nik nahi dudana. Koplak teknika berezi bat du". Esplikatu zidan teknika hori, eta horko kopletan ikusten da:

Lehenengo puntuan gauza polit bat esan, eta bigarren puntuak izan behar du, lehenengoan esandakoarekin zerikusirik ez balu bezala, baina ezkutuko lotura handi bat duena. Intentzio horrekin egindakoak dira.

1
Amorraiaren zai-zai
errekan amua;
neska, alperrikan den
geroko damua.

2
Arranoa usoen
atzetik basoan;
alabatxo, ez adi
erori lazoan.

3
Suaren inguruan
errez da epeltzen;
Miren, ez gero utzi
gerritikan eltzen.

4
Adar-igar gaiñean
kukua ku-ku'ka;
gure neska sorgiña
mutillei kiñuka.

5
Elorriarena bai
arantza zorrotza;
odola dariola
daukazu biotza.

6
Laiñoz estali zaigu
izarren jardiña;
nik sendatuko dizut
biotzeko miña.

7
Katuak Otsailla,
astoak Maiatza;
noiz jasoko ote det
nik zure baietza?

8
Eskutikan elduta
poliki-poliki;
atariko lizarrak
izketan baleki!

9
Neguak galtzen ditu
udako loreak;
ez ditun betirako
ire koloreak.

10
Katagorri ariña
pagotik pagora;
seigarren nobioa
utzi du albora.

*****

11
Neskazar baten kasoa
daukat kopletan jasoa;
baldin entzuten baditu
ez da jarriko gozoa.

12
Garai batean apaiña
omen ziñan oso, baiña
ederki aldatu zera,
gaixo ori, alajaiña!

13
San Antoniori meza
eta perfume inglesa;
sasoia joan zaio baiña
ez da etsitzen erreza.

14
Dama uste aundikoa,
len denei ipurdikoa,
pozikan artuko luke
orain erdipurdikoa.

** * **

15
Kontatuko dizuet
aiean-aiean,
nola ibili nintzan
Ernani'n jaiean,
erromerira joanda
gona-usaiean.

16
Nereganatu nuan
ustez ederrena,
bizkar-okerra eta
anketik errena;
obeto begiratu
bearko urrena.

17
Faborez eskatuta
asirik baltsean,
etzan giro arekin
pausoa galtzean,
tokia egiten zun
aurre ta atzean.

18
Jakin nai al dezute
ondorengo berri?
Igurtzi nizkion nik
izter eta gerri,
ar edo emea zan
ez nion igerri.

[**Joxe Mari Arrieta**, Nere ondar alea, Auspoa 162]

JULIAN LAGUNARI

1
Bere itz goxoekin
biotza dit ostu,
kanpora atera zait
baiña ez da oztu.
Zure bertso mordoxkak
ez nau gutxi poztu,
lore asko dago or
ta batzuek moztu,
bear baiño geiago
ez nadilla puztu.

2
Itz jario gozoan
asi da Aterpe.
nere barruko ekaitz,
kezkaren aterpe;
bat aurkitzen danean
nekepean torpe,
orrelako bultzada,
gaiñera ain merke,
ixtimatzekoa da,
laister nauzu eske.

3
Biotz itxumen eta
begiko lausoak
sarri okertzen ditu
gizonen pausoak.
Maitasunez urriak,
inbiriz osoak;
ez al dira bi gauza
zail baiña gozoak,
batera izatea
lagun da auzoak?

4
«Bertsoak bear dira»,
diozu zuk larri,
euskera nola dagon
gaixoa elbarri;
gogortu zan bidea
sasi eta arri,
etorri ingurura,
eskua ekarri,
danok lagundu bear
diogu alkarri.

5
Euskera, mendeetan,
amaika otz-bero,
ikusiko zenduan
noski onezkero;
ezer gutxi lortzen da
emen ero-ero,
baiña negu beltz ori
bein pasa ezkero,
udaberri alaia
etortzen da gero.

6
Denbora joan da gero
zertarako penik?
Ez dezagula galdu
guk itxaropenik.
Erri baten pitxia
izkuntza da leenik,
ta ez eduki arren
nai nuken kemenik,
nere ondar alea
jartzen det emen nik.

[**Joxe Mari Arrieta**, El Diario Vasco, 1980/I/2 eta Goiz-Argi, 1980/I/5 argitaratuak. Nere ondar alea, Auspoa 162]

MUSTAFAREN BIZITZA

1
Zuria eta beltza,
kolorez pintoa,
katu bat ba-degu guk
erdi-ijitoa;
oso xagu-zalea,
eiztari gaiztoa,
ganbaran sapaiean
amaika itoa.

2
Katu orrek xagutan
ez du berdiñikan,
etzaio zikinduko
bere jardiñikan.
Nere bixtan jan ditu
gaur sei gordiñikan,
sukaldean ez izan
nunbait sardiñikan.

3
Mustafa deitzen diot
jaio zanetikan,
beti ez da bizitzen
bere lanetikan;
nik baiño len probatu
bear danetikan,
orrek ateratzen nau
nere onetikan.

4
Malizia sartua
dauka ezurretan,
lo-papera egiten
daki gezurretan;
bakarrik gelditzean
azkar lapurretan,
denborik ez du galtzen
ogi-papurretan.

5
Zakurra eta biak
beti egurrean,
bixta ona ta ezin
ikusi urrean;
belarriak makurtu
era maltzurrean,
atzaparrak jarriaz
aren zintzurrean.

6
Ura ikusten badu
aldatzen da dana,
oso itxusitzen da
Mustafa laztana.
Bizkarra okertuta,
arrotu buztana,
orduan nabarmen da
gustora ez dana.

7
Erabili oi ditu
izkuntza arrotzak,
«fu ta fa» ekin dio,
aiek aize-otsak!
Besoa azkarra ta
azkazal zorrotzak,
laister kendu dizkio
belarriko otzak.

8
Mustafa'k sutondoan
ura ordu-pilla,
aren epelean du
bere otza illa;
oporketa garaia
berriz Otsailla,
etxea utzi eta
maitearen billa.

9
Bakarrik umatzen da
ganbaran lastotan,
oera jeixten ditu
andikan askotan;
txikiak ere pozik
biguiñean lotan,
ez da arkakusorik
paltako zokotan.

10
Umea pasiatzen
onek zenbat saio,
dirudianez oso
atsegiña zaio;
ez du bear ez kotxe
eta ez arraio,
lepotikan artuta
dabilki karraio.

[**Joxe Mari Arrieta**, El Diario Vasco, 1981-II-1 eta 3]

HERNANI

(Ume garaiko Hernani) Nahiko erdaldundua zegoen, oso euskara gutxi egiten zen kalean. Graziak etxean beti euskaraz egiten zela, bestela... Eskolan batere ez! Egunon esaten bazenuen sarreran nahastuta, *"e! Qué has dicho? Sal fuera, cierra la puerta y vuelve a entrar!"*. Eskolan lagunen bat edo beste izaten zen euskaraz bazekiena, eta harekin harremana hartzen zenuen euskaraz egiteko. [**Antton Garin**]

Gure ume garaian kalean ez zen batere bertso girorik. Garai hartan oraindik, gure barrioan euskaraz egiten zen, guk 10 urte egin genituen arte, gutxi gora behera. Barrioa txikia zen, lau baserri: Beloki, Altzea, Orkolaga, gure etxea... Handik aurrera erabat erdaraz egiten zen, kanpoko asko etorri zen, estremadurarrak, andaluzak... [**Juanjo Uria**]

(Zikuñaga) Orduan zenak eta oraingoak ez zuten antzik ere. Gure etxetik jaitsi eta semaforoko inguru hartan baserri bakarra zen, Beloki. Auzo hura dena etxerik gabe zen. Dena euskaraz egiten zen, baina ez daukat gogoan halako bertso girorik. [**Joxe Mari Arrieta**]

Hernanin erdaraz hitz egiten zen dena. EPOra joaten nintzenean Ereñozukoak, Urnietakoak eta Astigarragakoak ginen euskaraz hitz egiten genuenak. Hernanin ez zegoen oraingo tabernetako bertso girorik eta ezer ere ez! [**Florian Oiarbide**]

Umetatik nahiko erdalduna ezagutu dut Hernani. Guk ere eskolara joaten ginenean, dena erdaraz egiten genuen. Banituen lagun batzuk Ereñozukoak, eta haiekin lagunartean eta koadrilan euskara girora itzultzen ginen, baina gainerakoan, kalean... Euskara zekienak ere oso gutxi egiten zuen. [**Joxe Mari Arrieta**]

1968an Hernanira etorri nintzenean, parrokian euskarazko gauza denak egin beharra tokatu zitzaidan: mezak, hiletak... niretzako oso giro euskalduna zegoen, nik hala bilatu nuen. [**Iñaki Aranzadi**]

BERTSOLARIAK

Sagardotegian pixka bat berotzean denak bertsolari, baina bestela ez zen bertsolaririk. Ostegunetan feriara etortzen zena Urnietako Alkain. Hura pixka bat berotzean afalondoan aritzen omen zen. [**Julian Ezeiza "Aterpe"**]

Garai hartan ez naiz gogoratzen Hernanin besterik aritzen zenik bertsotan. Juanito Altxo, Ereñozun. Harekin aritu izan naiz bertsotan, gutxitan. Musean aritzen ginen, jeneralean, eta elkarri adarra jotzen bertsotan zerbait, baina oso gutxi. Ereñozun ateratzen zuten Santa Agedako erronda, Florian Oiarbide aritzen zela badakit. Gainerakoan, Asteasuko Urretabizkaia izeneko bat etortzen zen eta hura ere ibiltzen zen. [**Joxe Mari Ormazabal "Tturko"**]

Bertsotarako girorik ez zegoen, gure aitona horrek (Juan Joxe Andola) jartzen zuen giro hura, baina hura ere ez zen guretzako ez gazteentzako, jende helduarentzako zen. [**Juanjo Uria**]

Kalean ez zen inor aritzen bertsotan. Oso modu partikularrean, Paulo Txikia eta Uztapide biltzen ziren Portun, baina hori ez zen jendearentzako. Eta tabernetan ez zegoen girorik. Franco oraindik bizi zen, ez zegoen askatasunik, beldurra, eta horri eransten badiozu bertsoak ez zeukala erakartzeko moduko ezer... Ez zen jaialdirik egiten. [**Juanjo Uria**]

Lehenengo kalean ezagutu nituen bertsolariak Aterpe eta Antton Garin izan ziren. 70eko hamarkadaren hasieran ni ere ibili nintzen auzotako festetan kantuan, Txintxuaneko hartan, Zikuñagan beste bi-hiru bertsolarirekin: Xanxanategi, beste oiartzuar bat... [**Iñaki Aranzadi**]

Gero hasi ziren Julian Ezeiza Aterpe, Antton Garin, Sansonategi eta Marrakaneko Juan Mari ere bai (Saretxo jatetxea daukana). Horiek ikusi nituen batean eta bestean. Auzoetan festa jarri nahi eta presupuestorik ez bazen, horiek etortzen ziren. Ahalegina egiten zuten eta izugarrizko giroa sortzen zuten. Saiatu ikaragarri egiten ziren. Joxe Fermin Argiñarenak lan asko egin du, bertsotan eta asko ibili da, Aterpe eta Garinekin hor izaten zen. [**Joxe Mari Arrieta**]

Hernanin hilda egon zen bertsolaria urte askotan. Denak kanpotik etortzen ziren beti.
Guk ikusi dugu Hernanin bertsolaririk batere ez izan, eta gero pila bat etortzen (bertso eskolarekin). [**Antton Garin**]

BERTSO GIROA TABERNA BATZUETAN

Basoerdiak edaterakoan ohitura zen koadrilan kantatzea. Eta noizik eta behin bertso bat edo bi kantatzen genituen, tartean. Jendea gogoarekin ikusten genuen. Ereñozuko bat oso polita zen kantuan, Juan Kruz Beasain. Mendi irteera zenean, autobusean biok bertsotan joaten ginen askotan.

Ez dakit zer festa zen, eta tabernaz taberna ibili ginen baso erdiak edan eta bertsoak kantatzen. Juan Kruz Beasain ere animatu zen. Jendeak kalean erdara egiten zuen, baina bertsoak entzuten geratzen zen. Egañarenean, Azurmendin, Irizarren, Amerikanoan... bazegoen giroa. Baina ez zegoen bertsolaririk herrian.

Baserritarrak etortzen zirenean feriara, afaldu eta gero bertsotan aritzen ziren tabernan, eta gu gustura. Ez genekien zein ziren, inork ez zuen ez izenik, ez famarik, ez ezer. Zinko enean entzuten genituen, bertsotan. "Zein duk?" "Horrelako baserrikoa". "Eta seguru asko erosi duen txekorra ahaztuta utziko dik eta etxera joango duk". Taberna batzuetan izaten zen giroa.

Politikari buruz aditu izan dut kantatzen tabernetan, gu ume ginela. Baina normalki ikasitako bertsoak izaten ziren. Txirritarenak, esaterako, "Hil da Canovas". Edo Markesaren alabarenak nola kantatzen zituzten aitona horiek! Beren kaxuelita janaz. Gu mutil koxkorrak gustura haiei aditzen.

Gehiena adarra jotzea izaten zen. Politika nahiko zorrotza zegoen. Euskaraz ere ez zegoen ia kalean ezer egiterik eta! Dena debekatuta zegoen. Politikari buruz hasten bazinen, ez zenekien komedorean besteren bat egongo zen aditzen eta hurrengo egunean bila etorriko zitzaizkizun etxera, kartzelan sartzeko. [**Antton Garin**]

Aitari beti aditu nion Hernanin bertsotarako tokia Zinko eneako taberna izan dela. Eta Portun Xangai taberna.
[**Antton Garin**]

BERTSO SAIOAK

San Joanetan

San Joanetan bertsolariak urtero izaten ziren, Elur-Txorik antolatutako saioan, Baserritarren Egunean. Askotan ni izaten nintzen bertsolariak ekartzen. Bat Arozamena hartzen genuen, herrikoa eta gainerakoan Lasarte eta... lau bertsolariko saioa izaten zen. Tilosetan eta Txantxillan kantatzen zuten, herri-kirolekin. Bazkaria Elur-Txorin jartzen genien, eta sukaldari neroni izaten nintzen askotan. Gogoratzen naiz Jexux Mari Irazuk nola esan zidan "ederra zegok legatza!" eta Sebastian Lizasok erantzun "motel motel, ezagun duk mendikoa haizela, bakailaoa duk eta!". [**Joxe Mari Ormazabal "Tturko"**]

San Joanetan, Baserritarren Egunean kantatzea behin egokitu zait: Baten batek huts egin eta azken momentuan Julian Ezeiza Aterpek eta biok kantatu genuen Tilosetan eta gero Elur-Txorin bazkaldu. [**Antton Garin**]

San Joanetan saio bakarra izaten zen, Baserritarren Egunean. Lau bertsolari etortzen ziren, onak: Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Lizaso zaharra, Egileor, Mitxelena, Manuel Lasarte... Uztapide eta Basarri ere bai. Bertsolari ona beti Hernanira.
[**Julian Ezeiza "Aterpe"**]

San Isidro Egunean

San Isidrotan aritzen ziren Hernani Txikia, Mitxelena, Arozamena, Tturko...

Artzaianean izaten genuen bazkaria (Justel farmaziaren parean, karkabaren kontra zegoen, Felix Izagirre zuen nagusia).

1964. urtea zen, eta Hernaniko bikarioa gonbidatzen zuten eta batek esan zuen "gaur gizon bat falta duk hemen" eta Lasarteko Migel Zuaznabarrek esan zion: "eta gizon hori fina al da?"; "izango ez da, ba!". Gero esan zuenean zein zen, Donostiako gobernadorea, Jose Maria Diez del Moral, bikarioaren laguna! "Ez, ez, ez, bestela ere nahiko kastilanoa bazegok hemen" pentsatu genuen. [**Julian Ezeiza "Aterpe"**]

Aitor Zinean

Txapelketako egun batean bloka eta boligrafoarekin joan nintzen saioa entzutera eta bukaerak apuntatu nituen, denenak. [**Julian Ezeiza "Aterpe"**]

Bai guk antolatu ere! 70eko hamarkadan izango zen, Iruin alkate zegoela. Bazen Luistarretan lan asko egiten zuen gizon bat, Juanito Olano. Txapelketak, danborradak eta gauza asko antolatzen zituen. Olano hil zen eta haren omenez talde zabal bat osatu zen eta kultur ekitaldiak antolatzen zituen talde horrek. Lehendakaria Iñaki Bilbao "Botikas" genuen. Aitorren bertso saioa egin genuen, bastante urtean. Gero talde hori desegin egin zen.

Larunbata goizean Anjel Osak eta biok pentsatzen genuen "zer bertsolarirekin egingo dugu saioa"? Igande goizean Osaren kotxea hartu eta rekorridoa egiten genuen. Urte batekoa gogoratzen naiz: lehenbizi Azpeiti aldera, Joxe Lizasorekin eta Joxe Agirrerekin hitz egin, eta handik Gabiriara, Eusebio Igartzabalen baserria bilatu, eta harena. Hura bukatu eta Ibarrara, Muñoarengana.

Lehen ohitura zegoen bertsolari onak eta zaharrak ekartzekoa. Baina gu saioak antolatzen hasi ginenean, gazteak ateratzen hasi ziren eta guk ohitura hartu genuen bertso saiotan beti gazteak ere sartzeko. Eta pentsatu genuen Muñoa eta Kosme Lizaso ekartzea.

Etxez etxe bertsolariak lotzen ari ginela, behin Gabirian Eusebio Igartzabalen baserrira joan ginen goizeko 9:00etan eta bere amak "Hernanitik honaino etorri eta zer nahi duzue hartzeko?" eta guk sagardoa eskatu, goizeko 9etan! Gabiriatik Oiartzuna, Kosme Lizasoren baserria bilatzera. Bertsolariek baietz esan eta taldea osatzen genuenean, lasai bueltatzen ginen Hernanira, arratsaldeko 15:00etan! Orduan ez dakit, gauza horiek ez ziren telefonoz egiten edo...

Arozamena ere ekartzen genuen jaialditara, Oialumen bizi zen. Baita Patxi Etxeberria eta Lasarte ere. Iparraldetik Mattin ere etorri izan da. Haren bila ez ginen gu joaten, beste batek egiten zigun lan hori. Mattin, gizon xelebrea! Ordubete lehenago kantari egoten zen zinema aurrean! [**Antton Garin**]

Txintxuan

Txintxuan ere urte askoan kantatu dugu. Onak ekartzen zituzten bi, baina gero gu sartzen ginen, elkarrekin saltsan. Lazkao Txiki eta Manuel Lasarte, Joxe Agirre eta Eusebio Igartzabal... Haiek gauerako ere geratzen ziren. Xanxonategi ere arrimatzen zen. Txintxua hil zen 1993an eta orduan bukatu zen hango saioa. [**Julian Ezeiza "Aterpe"**]

Zinko eneako saioak

San Agustin festak egiten ziren Zinko enean. Eta bertso saioak egiten ziren leihotik leihora. Orain Hernani karrozeria dagoen horretan lehen terraza zen, eta silak jarri eta bertsolari bat han jartzen zen eserita. Eta beste bertsolaria jartzen zen, Zineko eneako etxeko (orain botea dago) leihoan. Jende dena behean egoten zen entzuten. Bertsolaria bat Manuel Uranga "Azpeiti" izaten zen eta besterik ez zait gogoratzen, mutil koxkorra nintzen. [**Antton Garin**]

(Zinko eneakoak) Ziren festa batzuk oso oso bertakoak. Grazia guztia zuen erdian zegoen etxeak. Korrika apustuak eta denak egiten ziren han. Korrikalari onak, igual 40 buelta emango zituzten. Famatua zen aro karrera, ni ere atera izan naiz: Latxunbeko labaderoraino joan eta etorri. Bertso saioa leihotik leihora... Gauean jazzband izaten zen.

Festa hori galdu egin zen, Hernaniko trafikoa ere asko pasatzen hasi zen hortik... Oso jende hernaniarra zen hor bueltan: gure aita eta lau anai ziren karrozerian, ondoan Rufinotarrak, karroarekin eta behiarekin Hernanin basura biltzen ibiltzen zirenak. Gero ondoan mekanikoak, Zumetatarrak, hiru anai kotxe mekaniko oso onak. Zinko enea taberna sekulakoa zen, giro euskalduna zuen erabat. Baserritarrak bertsotan aritzen ziren han, kaletarrak gutxi. [**Antton Garin**]

1989ko Santa Ageda eskean Zinko enean kantatuak:

Antton Garin:
Aspalditikan Zinkone alde hau
izan da asko famatua
hemengo ixkina denbo haietan
majina bertso aitua
ez ezaututa aitona ginun
guk'e oso famatua
txoko hontako baztar guztiak
bertsotan baitzun pixtua.

Julian Ezeiza "Aterpe":
Zinkone honek izaten ditu
oso une atseginak
hori guztia esan lezake
bertako berri dakinak
ardo zaharra edan eta odolak
gero hortxe irakinak
toki hontara biltzen baitira
zurruterorik haundinak.

Jon Eizmendi:
Gure Aterpe kontuk esaten
azaldu zaigu artista
berak'e lehendik nola dakien
taberna hontako pixta
zurruteruak nola biltzeidan
haiek zuzentzen du bixta
Xanti Frailia gaur falta zaigu
pasatzen badegu lixta.

Portuko saioak

Urte batean Portuko festetan ez zuten bilatu bertsolaririk eguerdirako, eta arratsaldean Saiburu eta Zapirain zaharrak kantatu zuten. Portu beti bertsozalea izan da, eta batere gabe ez geratzeagatik ekarri zituzten horiek biak.

Urte askoan Zepai eta Txapel etorri ziren Portura, biak. Zepaik hamar segundo nahikoak izaten zituen bertsoa botatzeko. Castellanoren batzuk builan ikusi eta haien gainean kantatu zituzten, dotoreak. [**Pedro Joxe Mujika "Anatx"**]

Urte batzuetan Zepai eta Saiburu ekarri zituzten, hurrengoan Mitxelena eta Uztapide, eta Hernani Txikia eta Uztapide... [**Julian Ezeiza "Aterpe"**]

Bazen Amaran Kalamendi abizena zuen bat, txapela begietaraino sartuta ibiltzen zena. Zaharra zen, 65-70 urtekoa. Sasi bertsolari horietakoa zen hura ere. Mitxelena mutil gaztea, eta elkarri puntua jarrita hasi ziren. Askotan puntu-jartzen Goiarro bi anaiak, Asintxio eta Julian Barrenetxea aritzen ziren. Bestea Fernando Andoain. Behin jarri zien:

Kalamendi Amaran
baitago alkate

Mitxelenak:
Nunbait gizon aukera
haundi(r)ik ez daukate
dabilen leku danetan
egiten du kalte
adar gorriak laister
eramango dute.

[**Julian Ezeiza "Aterpe"**]

Festetan urte askoan joan gara bertsotara. Okerrena zen igande eguerditan izaten zela eta Donostian traineruak izaten zirela. Eta bertsotara joan behar...

Gu txikiak ginela, Portuk fama zuen, San Joan txiki esaten zioten. Uste dut han "Azpeiti"k kantatzen zuela. Portun beti izan dira bertsolariak, giroa zegoen auzoan. [**Antton Garin**]

Santa Barbarako saioa

San Inazio festak Mendi Gain elkarteak antolatzen zituen, eta bezperan bertso saioa egiten genuen. Asko etorri izan dira Enbeitatarrak: Balentin, Jon eta Abel, eta Moises ere bai urteren batean. Bezperako jaialdi horretan kantatzen zuten, gero gauean hemen geratzen ziren eta San Inazio egunean Santa Barbaran jarduten ziren. Urte askoan egin zen horrela. Eta gero jiroa eman zitzaion, Julian Ezeiza Aterpe eta hasi zirenean, eta beranduago bertso eskolakoak. [**Juanjo Uria**]

1978 baino lehenago egiten ziren Santa Barbarako festak, eta bertsolariak kanpotik etortzen ziren: Lopategi, Enbeita aita eta hiru seme eta suhia, Xalbadorren semea, Ezponda, Joxe Agirre, eta Tturko bastante urtetan. Arozamena... [**Julian Ezeiza "Aterpe"**]

Antton Garin eta Julian Ezeiza "Aterpe" bazkarirako gosea irekitzen.

Behin, Santa Barbarako festetan Jon Azpillagari esan zioten: Herriko bikarioarekin ez gaude oso konforme. Hortxe egongo da eta esaiozu alde egiteko herri honetatik. Hasi zen, hemen dago Don Eusebio, eta "beste gauzik ez nuke nahi, zu obispo egitea!" bota zion. [**Iñaki Aranzadi**]

Bezperatik zer giroa jartzen zuten! Kalean 20:00tarako kantari aritzen ziren tabernaz taberna. Gero festak beheraka joan ziren eta jada ez ziren etortzen.

Gero taldetxo bat hasi zen San Inazio festak antolatzen, tartean Anjel Osa, eta guri deitzen ziguten kantatzeko.

1978an kantatu nuen lehen aldiz, eta gaur arte, urtero. Noizbait huts-egingo nuen, hemen ez nengoelako. [**Antton Garin**]

Don Eusebio izaten zen meza emaile. Jakina, denak haren kontra aritzen ziren, Tapia, Garin eta Argiñarena. Eta ni beti Don Eusebioren alde. Urte hartan esan nion:

Gaurko apaizen lana baita
aldaria ta korua
gezur batzuek kontatu eta
seguru bizimodua
karrera hori egin duena
ez da zihero erua
lanik zailena izango dute
irabaztia zerua.

Geroago Maidaganek ematen zuen meza. Urte batean haserretu egin zen, "meza motza eta sermoia luzea" edo esan nuela... Hurrengo urtean joan nintzenean esan nuen:

Juan dan urtian Maidagan jauna
gurekin haserretu zan
meza motxa ta sermoi luzia
egin zula nuen esan
une txar bat izan nula
oso leku aldrebesan
barkaziyua gaur eskatzen det
jende denak entzun dezan.

Meza erdian Migel Lujanbio kanpai sokari tiraka jarri zen eta zast! eten. Eta lehen ere hiru-lau aldiz etena zegoen. Nik bi operazio izandu nituen eta bi urtetan ez nintzen joan. Hirugarrenean joan nintzenean, nire artean pentsatu nuen "kanpai soka berria".

Orain bi urte kanpaia zegon
nagitsu eta herrena
berakin zaukan soka zahar hura
lau-bost tokitan etena
ikusitzen det aurten berriya
norbaitzuk jarri dutena
hor ezagun da ermita honek
izan dun aurrerapena.

[Julian Ezeiza "Aterpe"]

Lehenbizi Indioren omenaldia izaten da eta han bi bertso kantatzen ditugu. Gero handik ermitara joaten gara. Meza izaten da ermitan, eta ez dakit nondik atera zen ohitura mezan bertsotan apaizari adarra jotzekoa. Badaramakigu 30 urte horri eusten. Lehengo bikarioa, Eusebio Iraola, bera ere ederra zen bada hura! Guk bertsoa botatzen genuen, baina hark meza erantzunarekin bukatu! "Nik ez dakit zer gertatzen den azken aldi honetan, baina bertsolariak beti sartzen dira apaizarekin edo guardia zibilarekin!" horrekin bukatzen zuen beti.

Ermitatik jaitsi eta Atarrabioren harrian beste bertso pare bat bota. Behera jaitsi eta segituan saioa izaten da, herri kirolariekin. Beti esaten diet "bukaeran ez hasi bertsotan, zeren jendea deseatzen egoten da aizkolariak egurra noiz ebakiko, tabernara joateko". Bazkalondoan ere giro pixka bat izaten da: mahaian dagoen jendeari adarra jo... [**Antton Garin**]

Festa hori txikitatik urterokoa izandu dut; familiarekin lehenago ohitura zen bakoitzak etxetik jana eraman eta egun pasa egiteko erromeria giroan. Gero hasi ziren pixkanaka herri bazkaria antolatuz. Bertsolariak urtero izaten ziren. Nire osaba (Anjel Osa) aritzen zen antolatzen eta berak esan zidanez Bizkaitik Lopategi eta Enbeitatarrak eta Azpillaga etortzen ziren.

Gero pixkanaka bertso eskolakoak hasi ziren, Eizmendi, Aristorena, Unai Agirre, Zelaia... Guk ere parte hartu genuen bi-hiru urtean, eta iritsi zen momentu bat antolatzaileak edadean aurrera joan zirena. Guri egokitu zitzaigun antolatzea eta oso gustura egiten dugu, oso giro polita sortzen da eta jarraipena eman nahi diogu. [**Iker Osa**]

Bi-hiru urtean kantatzen aritu ginen, gero antolatzeko jende premia zuten eta antolatzera gonbidatu gintuzten, eta hainbeste gustatzetik azkenean antolatzera pasa gara.

Bi aste lehenago bertso afariren bat, bertso bazkariren bat edo jaialdiren bat egiten dugu. Egunean bertan Aterpe eta Garin etorri izan dira urtetan. Eta saiatzen gara herriko bertsolari gazteak ekartzen. Zaharragoak eta gazteagoak tartean sartzen. [**Jon Iraola**]

Gustatzen zait Santa Barbarako saioa (2010ean kantatu nuen lehen aldiz). Kristoren asta-kozkorrak ibiltzen dira eta handikeriak bota eta gustura geratzen naiz. Inor ez da haserretzen, ez da hitzak neurtzen aritu behar, zeinek handiagoa bota orduan eta hobeto. Gustura ibiltzen naiz han. [**Eli Pagola**]

Zikuñagako saioak

Zikuñagan Arozamenarekin kantatu nuen, Ama Birjinetan (irailaren 8an) ermita zenean. Horra neronek ekarri izan nituen kantatzera Aristeta, Azpillaga eta Lopategi. Antton Goikoetxea Eziagokoaren etxean bazkaldu zuten. Whiskiak agindu izango zuen pixka bat, eta harro harro eginda atera ziren bertsotara, eta kristorenak esan zituzten eta multa eman zioten.

Orduan gaiak jartzen Juan Joxe Uria aritzen zen. [**Joxe Mari Ormazabal "Tturko"**]

Zikuñagan goian sekulako euskal giroa zegoen. Gu baino lehen, kanpotik bertsolariak etortzen ziren bertara: Joxe Lizaso, Joxe Agirre... ni mutil koxkorra nintzen, eta bertako festak sakratuak ziren hernaniarrentzako. Zikuñaga zen auzo bakarra, festetan Hernaniko musika banda jotzera joaten zena. [**Antton Garin**]

FESTA JARTZEKO TALDEA

"Hi, halako saiotarako etorriko al zarete?" galdetzen ziguten eta ez genekien ezetz esaten. Taldetxo bat egin genuen: lau bertsolari (Juan Mari "Marraka", Aterpe, Argiñarena eta laurok), harri jasotzen bi (Kinito eta Pakito), eta aizkoran beste bi (fijoa zen Juan Miel Larrabide, eta bestea aldatu egiten zen, batzuetan Joxe Anjel Tapia oiartzuarra, bertsotan ere aritzen zena). Hernanin sei auzotan (Portun, Floridan, Elkanon...) gurekin egiten zuten festaren parte bat. Bazkari trukean joaten ginen. [**Antton Garin**]

SAGARDO LEHIAKETAK

Elurtxori urtebete lehenago hasi zen Txantxangorri baino. Baina Elur-Txorin gu baino lehenago Tturko aritzen zen saria ematen eta bertso kantatzen. Tturkok behin edo bitan egin zuen, gehiago ez. Imanol Larretxeak zuzentzen zuen lehiaketa eta urte batean esan zigun ea joango ginen, bertso pare bat kantatzera. Tturkori ikusia nion, eta Aterperi esan nion "emango al ditugu sariak bertsotan?" eta horrela hasi ginen gero gu. Hernanin hiru txapelketa egiten direnez, Txalaparta-koa, Elur-Txorikoa eta Txantxangorrikoa, hiru elkarteetatik deitzen ziguten. Peña Otañok ere egin zuen bi urtean.

[**Antton Garin**]

Garin eta biok hasi ginen, Txantxangorrin, duela 26-28 urte. [**Julian Ezeiza "Aterpe"**]

TXIRRITAREN OMENEZKO JAIALDIAK

Igaz ekin genion, Mendi-Gainek antoloturik, Txirrita zenaren omenez, Hernanin bertsolari jaialdiak antolatzeari.

Igazko jaialdia, benetan interesgarri eta atsegina gertatu zen. Jendetza haundia bildu zen Galarretan, eta bertso eder asko entzun genuen.

Hona hemen Lopategiren bertso bat. Gaia, "gogoko zaizun gauza bat".

Auxe da gai polita
goxo ta leguna
zuek eta nik, denok
maitatzen deguna
nola desio degu
gure etorkizuna
lendabiziko ametsa
da askatasuna.

Mendi Gainen kartela.

Jakin dugu, jendea pozik irten zela Galarretatik. Guk, antolatzaileok, hori lortu nahi izan genuen eta jakina, gu ere, pozik geratu ginen.

Egoera honek asko indartu gaitu; hemen bagatoz berriz, IIgarren Oroigarri hau eskaintzera. Berriz ere sei bertsolari bikain eta trebe aukeratu ditugu San Jose egunaz Hernanin kanta dezaten: Lopategi, Azpillaga, Igarzabal, Agirre, Lizaso, eta Gorrotxategi.

Iturengo Fagoaga anaiek ere (11 eta 12 urte) saio labur bat egingo dute.

Igazkoa bezain ederra gertatzen baldin bada ez gara haserre izango. Bestalde, badugu itxaropen, igaz adina jende bilduko dela aurten ere martxoaren 19an, Hernaniko Galarreta Pelotalekuan, goizeko 11;30etan.

Esan behar dizuegu, aita Zabalak beste liburu bat argitaratu duela Txirritari buruz. Oraindik ez da salgai ipini dendetan, baina, San Jose egunerako bukaturik izango da, eta egun horretan ikusiko du argia Txirritaz egindako liburu berri honek.

[**GAZTE BI**, Zeruko Argia, 1976-3-14]

HERNANIKO TXAPELKETAK

LEHENA 1979AN

Patxi Odriozolak, Joxe Arrazolak eta Bixente Zubiriak antolatu zuten . Egun bakarrera jokatu zen, Elur-Txorin.

Kantatzen: Joxe Fermin Argiñarena, Antton Garin, Xanxanategi, Tapia eta ni. Ni irten nintzen txapeldun. Bastante bete zen sozidadea. [**Julian Ezeiza "Aterpe"**]

Juanjo Uria alkate zela, udalak antolatu zuen, bertsotan aritzen ginenen artean giroa jartzeko. Irekia zen, baina seik bakarrik hartu genuen parte. Baziren beste pare bat Hernanin, baina ez ziren animatu. Ereñozuk bazituen bertsolariak, baina ez zen inor etorri.

Giro oso polita egon zen, agian lehenbizikoa zelako. Elkarteak asko lagundu zuen, berak antolatu zuen dena, eta garai hartan mikrofonoak jartzea sekulakoa zen guretzat! [**Antton Garin**]

Jendea bertsotan aritzen zen, oso gutxi, baina bagenekien aritzen zela. Joxe Anjel Tapia, Anttonio Aranburu "Xanxanategi", Antton Garin, Julian "Aterpe", Antonio Olano, Tturko, Joxe Fermin Argiñarena...

Azken finean afari bat zen, eta aitzaki horrekin librean kantatu beharrean, arau batzuen barruan kantatu beharra. Eta kito, gero txapela eman baten bati. Horrelako gauza xinplea izan zen, ez gehiago. [**Juanjo Uria**]

"Hernanin bertsotan" Zeruko Argiako kronika

Hona hemen Hernaniko Udaletxeak azaroaren hirurako antolatu zuen bertako bertsolarien saioaren berri. Sei gizon ziren kantatzekotan Elurtxorin, baina bat azaldu ez zenez gero (Marraka) bostekin egin behar izan zen saio nagusia: Olano, Garin, Xanxanategi, Tapia eta Aterpe. Gaijartzaile Errazkingo Joxe Argiñarena bertsolaria.

Antton Garinek ekin zion jaialdiari agur hau botaz:

Gabon denori hasi behar da
hemen bertsoa kantatzen
eskerrikasko Elurtxoriri
ongi ai zera portatzen
zuen orduan afaldu deu ta
orain purua erretzen
giro edarra euskaldunentzat
hasi bai zera jarritzen.

Pakea nola lortu galdetu zien Argiñarenak bina bertso kanta zitzaten; Tapiaren bigarren bertsoak honela zion:

Garaia dago oraindik eta
ez gaude hain bildurtuta
gauza txarrak pasa diralako
ez gauden hainbat izututa
pakia hori zer ederra dan
piska piskat pentsatuta
oraindik ere zerbait in leike
bat bestiai lagunduta.

Aterperen lehenengoa honela izan zen:

Mundu honetan danok ibili
behar genuke guk kontuz
jakintsu asko histori billa
hortxen dabil munduz munduz
pake zalea naiz aspalditik
hori gustatzen zait erruz
alkar maiteak izan gaitezen
gu alkar errespetatuz.

Euskara ikasi beharrean, inglesa ikastera doala, eta euskara ikasi nahi duenari bertso hau bota zion Olanok:

Anai bezela euskara nahi dek
gaur hik hemen ikasi
nik erakusterik ez daukat ta
banoa hemendik igesi
ikusten ditut gauzak garbi
gu ez gaituk hor nagusi
hik ikastea gaur hemen ez dek
oso gauza itsusi.

Puntu hau jarri zion Joxe Argiñarenak Xanxanategiri:

Zer moduz zabiltzate
alkate berrikin

Eta Xanxanategik erantzun ziona:

Erantzuna emango dit
segitun nerekin
hori gizon ona zala
lendikan banekin
oi badegu biziko
gaituk Euskal Herrin.

"Parranda joan behar dukanean, andrearekin ala bakarrik gustatzen zaik joatea", esan zion gaijartzaileak Tapia bertsolariari bi bertso kantatzeko. Begira Tapiak zer esan zuen bigarrenean:

Noizbaite jaio eta
behar baita bizi
ta lotsikan ez dunak
inporta du gutxi
orain behar al didak
hontan erakutsi
zerbait egin nahi badek
andria auro utzi.

Eta jaialdiari bukaera Aterpek eman zion. Gaia: Alperra. Julian Aterpek bigarren bertsoa hau esan zuen:

Oraintxe ere nik esango det
behar dan leku egokin
adiskidiak zer esango zun
lenago ere banekin
gaia horixe jarri didazu
nei egundoko pozakin
langileak e lan egin behar
alper asko dagon tokin.

Bertso hau izan zen hain zuzen, bertsorik onenarentzat zegoen saria eraman zuena.

Eta egia esan behar baldin bada epai mahaia osatzen zutenek oso paretsu juzgatzen zituzten hemen aipatu ditugun azken bi bertsoak; eta hain paretsu ikusten zituztelarik, bertso hauk bota zituzten bi bertsolarien artean beste saio laburra egitea ere pentsatu zuten, baina entzuleek ere eman zuten beroien iritzia txartel batetan eta epai mahaikoek berdintsu ikusten bazituzten ere, ez zen horrelakorik gertatu entzuleen iritziarekin. Hauek Aterperen bertsoen alde jo zuten eta azkenean beste saiorik egin gabe Aterperi eman zitzaion bertsorik onena botatzen zuenarentzat jarria zegoen saria.

Azkenik, zorionak ematea besterik ez da gelditzen. Zorionak bertsolariei, zorionak Aterperi eta zorionak jaialdi hau aurrera ateratzeko lan gehien egin duen gizonari, hau da Joxe Argiñarenari.

Epai mahaia Inazio Mari Zubeldia, Iñaki Aranzadi, Juan Jose Uria eta Tturko-k osatu zuten, eta Tturko aipatu dugunez gero esan behar da bi bertso ederrak eskaini zizkiola Txirrita Haundiari. Egunen batean agertuko ditugu hemen.

Esan behar da ere bertsolari hauek ez ezik, izan zirela Elurtxorin beste batzuk, bakoitzak dozena erdi bat bertso botaz: Lasarte Bertsolariaren semea, Argiñarenaren anaia, Telleria Albisturkoa, e.a. [**Juanjo Uria**, Zeruko Argia, 1979-11-25]

BIGARRENA 1980AN

Koadrila bera ginen eta Joxe Fermin Argiñarenak irabazi zuen. [**Julian Ezeiza "Aterpe"**]

Hurrengo urtean Peña Otañok antolatu zuen. Jende gutxiago etorri zen entzutera, baina guretzat lasaiago. Joxe Mari Arrieta izan zen gai jartzen.

Ondoren etorri zen Usurbilgoekin desafioa. Gu sei bat ginen, eta Usurbildarrek bostekin bota zuten desafioa. Horregatik egin zen kanporaketa bat Zelaian, 1980an, seitik bost aukeratzeko. Oholtza jarri zuten upel artean. Eta seigarrena atera zen Xanxonategi. [**Antton Garin**]

HERNANI-USURBIL DESAFIOA

ERRONKA, BERTSO JARRIEN BIDEZ

Horra hernaniar bertsolarien izenean Julian Ezeiza "Aterpe"k Usurbilgo bertsolariei botatako desafioa. Bi urte pasa dira Usurbilen Saizar izeneko sagardotegian herriko bertsolarien txapelketa egin zenetik. Iaz ere egin zuten eta urtero egiteko asmotan dira. Bi txapelketa horiek txapeldun bakarra eman dute: Antton Aranburu.

Hernaniarrek, Usurbildarrak eredutzat harturik, orain bi hilabete egin zuten beren txapelketa. Zeruko Argiako orrialdetan bertako alkatea den Juan Jose Uriak idatzirik eman genuen horren berri. Ea ba usurbildarrak berotzen diren.

...Egin zaidazu bixita

1
Usurbildarrak ikusten ditut
oso bertso zaletuak.
Eta oraintxe asmo berriak
omen dituzte hartuak.
Sasoi ederra daukate denek,
ez baitaude nekatuak,
eta lehenbizi proba nahian
dabiltza Hernanikuak.

2
Inguruetan jarriko dugu
makinatxo bat armoni,
baina gehiegi harrotutzea
hemen ez zaigu komeni.
Bertsoak hemen gustatzen zaizka
gaur herritar edozeini.
Anai bikiak bezala dira
Usurbil eta Hernani.

3
Hernanin bost edo sei lagun
pozikan bilduko gera,
une goxo bat igarotzeko
izaten dugun aukera.
Bertsoen faltaz Euskal Herria
gaurkoz ez doa behera,
ea guk elkar probatzeko, ba,
noiz izaten dugun era.

4
Bertsolariak entzun behar du
hainbat gezur eta egi,
hortik denetik Txirrita zaharrak
bazekien bai ederki.
Eta Usurbilgo semeak ziren
Gaztelu ta Udarregi...
Haien atzetik, zuek gazteok,
ahal duzuen arte segi.

5
Herri horretxek beti izan du
bertsolariaren sena,
hamaika bider gizon haietaz
ni oroitzen naiz maizena.
Gazte ugari ikusten ditut
oso indartsu daudena,
Euskal Herrian ez da ahaztuko,
Usurbil, zure izena.

6
Txoko honetan beti izan da
jende on eta mardula.
Hernani ere jan-edanean
sekulan ez da ahula.
Herri honetan fama dutenak
Txuleta eta Angula.
Biltzen bagara, hortik nahiko
guk jan beharko dugula.

7
Lehengo igandez zuk, gazte horrek,
niri egin desapioa,
ikusiko da herri honetan
non dagoen balioa.
Gure gazteak urte hauetan
daude goraino igoak,
badaukagu, bai, hernaniarrok
probaketako gogoa.

8
Ikusten dugu gure lurrean
hainbeste ezin-eraman.
Denen gustoa hemen egiten
badugu makina bat lan.
Hernanik gure Usurbilekin
dauka milaka harreman...
Gizona hemen, probatu arte,
ez da jakiten zenbat dan.

9
Nik gazte horri erantzun nizun,
gaur zuk ez eman latikan.
Nik ondo dakit gazte askotxo
bilduko dela hortikan.
Ni Hernanitik, lagunarekin,
hor naukazue pozikan:
Usurbildarrek ez dute izango
erantzunaren faltikan.

10
Anai bezala jokatu behar
dugu, bai, guk gizartean,
eta, hauzoak nola izanak
garen hainbeste urtean,
zuen Herrira joango gara
patxada eder batean.
Ta borondatez joka dezagun
gure Euskalerri maitean.

11
Herri horrekin gizatasunez
behar baitugu elkartu,
hontaz aurrera hemen gehiago
ezingo gara nekatu.
Ea haruntza gu joatean
eiten zareten portatu.
Gaizki esanik baldin badago,
behar duzue barkatu.

[**Julian Ezeiza "Aterpe"** Zeruko Argia, 1980-1-27]

Gure aldizkariaren 861. alean eta hernaniar bertsolarien izenean, Julian Ezeiza "Aterpe"k usurbildar bertsolariei desafio bat egin zien. Usurbildarrak ez dira burua makurtuta gelditu, eta desafioari erantzunez ona hemen Saizartarrek bidaltzen dizkiguten hamaika bertso jator eta alai hauek. Hernaniarrok arretaz irakurri!

Hortzak erakutsi

1
Zeruko Argiara goaz gaur
Usurbildik ate joka
pake asmotan gabiltza jaunak
gure hau ez da borroka
"Aterpe"ri erantzun nahirik
horra gure bertso sorta
Hernanitik hasi bai zaizkigu
bertsotan desafioka.

2
Bertsolariak asko gerala
hori dago ikusita
errespuestarik izango da
egon zaitezte etsita
desafioka hauxe diote
"Egin zaidazu bixita",
Usurbil eta Hernanitarren
arteko tema hasi da.

3
Aitormen bat egin behar dugu
gaurkoz apal eta umil:
bertso lur oparo izan dira
Hernani eta Usurbil
Udarregi eta Txirrita bat
ditugu testigu hurbil
oraindik ere bertsotarako
zaletasunik ez da hil.

4
"Aterpe" lagun maitea egon
zaitezen enteratua
Martxoaren azken igandea
jartzen det izendatua
eguerdiko hamabietan
izan liteke ordua
Patrinera azaldu zaitezte
han egingo da tratua.

5
Desafioka agertu dira
hitz arro eta sakonez
usurbildarrik ez da ordea
kanbiatuko kolorez
esan bezela, Patrineraino
etor zaitezte faborez
han ikusiko dugu Hernanin
ba dan gizonik edo ez.

6
Hernani hortatik Usurbila
ez dator erronka gutxi:
txorikaka batzuek gera gu
hernaniarrak nagusi!
Hernaniarrok gauza bat nahi dut
argi eta garbi utzi
kontsigna bakar bat daukagu guk:
"denei hortzak erakutsi".

7
Bertsolarien neurketa hori
ez da ez gure kalteko
batzuek kontra izanagatik
beste batzuek aldeko
bertsolari bezela kontseju
bat ba daukat emateko:
sopa batzuek jan itzazue
mutil haundi egiteko.

8
Barkatu baina, zuek baino gu
bertsolariago gara
hala ere ez zaitezte bildur
ez zaiteztela ikara.
Bitartekotzat har ezazue
zaindari Santa Barbara
usurbiltarren bertsoetatik
hark zaitzatela anpara.

9
Ixilikan egon besterik ez
pake pakean Hernanin
sortuko zaizkizute ba nik ez
dakit zenbat tripako min
honuntza pozik etorri arren
joango zarete armonin
batzuk ipurdiko minez eta
beste batzuek agonin.

10
Desafio bat gure artean
zuek nahita sortua
gure partetik iritxiko da
zuekiko akordua
zuen itsasontziarentzat txit
urruti dago portua
erretiratu nahi baduzue
orain duzue ordua.

11
Gazteluren bertso hura daukat
zuei gaur gogorazteko:
motiborikan ez degu eman
desafioka hasteko
Usurbil hontan bertsolaririk
zanik ez zuten usteko
bost usurbildar nahikoak gara
horko hamabost hausteko.

[**Saizartarrak,** Zeruko Argia, 1980-2-9]

Hernaniarrek usurbildarrak desafiatu zituzten. Usurbilgo Saizartarrek desafioa onartu ondoren, bertso gogor batzuek bidali zizkien eta gauzak baretu nahirik, berriro hernaniarrak datoz. Desafioko eguna ailezatu bitartean batzuen hitz gogorrak eta besteen asmo apalak parekatzen joango ez ote dira eta bata besteenganako hika-mika honetan bertso jarioa ez ote zaie galduko.

Usurbila bake bila

1
Hernanitikan bertso kantari
berriro gu Usurbila,
lehenengo gure agurra hartu,
Saizar aldeko koadrila.
Lagun giroan goaz gizonki,
ez setakeria bila,
gugan duzuen laztasun hori,
arren, legundu dadila.

2
Zer eta nola gertatu zaigun
argi eta garbi esan
nai genuke gaur ez dakienak
egi dena jakin dezan;
hernaniarrok egindakoa
gonbidatze bakarra zan...
zuengandikako erantzuna
ez al da gogorra izan?

3
Hortzak erakustea omen da
zuen kontsigna bakarra,
auzo lagunak, ez ote da hau
txit erabaki zakarra?
Guk maiteago bihotz alai ta
ezpaineko irriparra,
anaia artean ez da atsegin
gorrotoaren aparra.

4
Zuen bertsoak irakurri ta
gaude sinistu ezinez...
Nola demontre gu igurtzitzea
nahi gaituzue osinez?
Diozuenez atera behar
dugu tripetako minez...
Pasako zaigu, Saizar aldean
trago batzuek eginez.

5
Indarra sobra omen dago ta
hemen gatoz Usurbila
Hernanitikan bertsotarako
kilobatioen bila:
upeletikan jarabea ta
kaxuelako papila...
Orain gainezka omen daukate
jakinduriaz aspila.

6
Zorroztasuna nabarmen dauka
zuen bertsoen ezpalak,
guk ez ditugu zital astintzen
ez haizkora ta ez palak.
Burua bere tokian jarri,
izan gaitezen apalak,
arrisku latza baitu berekin
goregi dagon apalak.

7
Gure aldetik nahi bakarra zan
lagunarte bat igaro.
Ez dago hemen zertan jarririk
"ni igitai ta hi garo".
Lehen ere horrek itsusitu du
hainbat zelai eta soro...
Gizonki joka dezagun denok,
ez zentzugabeko zoro.

8
Aitortu nahi genuke egia,
jarriak gaude kezketan,
bildur baikara ote zaudeten
itxuraik ez dun kasketan;
ezten zorrotza dabilkizue
zuen bertsozko hizketan,
itsusia da auzo artean
hastea zimaur nahasketan.

9
Gutaz behartuz gero sekula,
etorri gizon pausoan,
beti hartuko zaituztegu ta
anaia antzera besoan;
garen apurra eskaintzeko prest
gaude maitasun osoan,
herri lagun bat non daukazuen
badakizue: auzoan.

10
Ez aurka, baizik alde nahi dugu
bertsoa maite dugunak,
bestela oso moztuko'itugu
gure pitxien egunak;
berriro ere zain gaude eta
bidali kopla legunak...
Agur Usurbil, beste bat arte;
besarkada bat, lagunak.

[**Zeruko Argia**, 1980-4-27]

DESAFIOA

Galarreta frontoian antolatu zen. Leporaino beteta, milatik gora lagun zeuden. Gai jartzailea Joxe Mari Iriondo genuen. Gogoratzen naiz nahiko txukun gindoazela denok: Usurbildik fama handia zuen Antton Aranburuk, eta beste taldekideak ziren Olloki eta Pana, eta Aiakoa izanagatik Usurbilekin kantatzen zuena Lertxundi.

Kartzelako lanean denak behera eraman zituzten eta ni bakarrik geratu nintzen oholtzan. Gaia jartzen hasi zen "Zu mendizalea zara" eta "mendizalea" aditu nuenean lasaitu nintzen. "Everestera igo zara, motxila ireki duzu eta barruan hor azaldu zaizu piper potoa". Nik bota nituen nire bertsoak, gero Usurbilgoek, gero Hernaniko hurrengoak... ez dakit gure artean zein zen, piper poteak zer esan nahi zuen asmatu ez zuena. Hor hasi zen, piper potea, melokotoi potea... hor galdu genuen puntuazio gehiena. Eta Usurbilgoek denek asmatu zuten. [**Antton Garin**]

Ikusten izan nintzen Galarretan. Jende asko bildu zen. Gaiak xelebreak jarri zizkieten. "Everesteko tontorrera igo eta motxilatik piper-potoa atera zitzaiola". Gogoratzen naiz Aterpek nola esan zuen: Everesteko puntan ikurrina baino hobea izango zela piper potea. Jateko kontua ateratzen zuen baina piper potoa badakizu zer den... [**Joxe Mari Ormazabal "Tturko"**]

Martin Zabaleta Everest gainera igoa zen. Ez dakit besteek eramango zuten buruan, baina nik hiru bertso eraman nituen, gai hori jartzen bazidaten. Jarri ziguten, baina ikurrinaren tokian piper-potea. Nire bigarren bertsoa:

Nola dan Martin Zabaleta
Portu auzuan jaiua
gure herriak ezagutzen du
mutil honen baliua
munduko mendi altuenera
sherpa batekin iua
herriai fama ekarri zion
ta amai errosariua

Boitila aita santuak hilabete lehenago Everestera igo eta errosarioa utzi eta hura joan zenean hartu eta ekarri egin baitzuen! [**Julian Ezeiza "Aterpe"**]

"Usurbil eta Hernani deman" Zeruko Argiako kronika

Bertsolariak ezagutzeko modurik onena, beren bertsoak entzun edo irakurtzea da. Maiatzaren 31ean, Galarreta pelotalekuan, Hernani eta Usurbilgo bertsolarien arteko desafioa egin zen. Hona hemen bertan bota ziren bertso batzuk.

"Lasarteko herria hor dago, bururik gabe. Nor da errudun: Usurbil ala Hernani?"

Antton Aranburuk bi bertso bederatzi puntuan bota zituen.

Usurbil ta Hernanik
mendean daukate,
horrekin badugu guk
guztiok kalte.
Hor eginak ditugu
zenbait disparate,
gauza horretaz denok
ohartzen gerade.
Ba da zenbait kate;
ez gaude aparte,
beharko da galde:
horrela noiz arte?
Lozorrotik esnatu
zaite, Lasarte.

Galdera xinplea da:
nor da nagusia?
Haundien eskutatik
dago utzia.
Ondo pentsatuz gero
gauza itsusia.
Nork zutitu du zugan
dagoen hesia?
gaizki berezia,
ez du merezia.
Hontan da auzia:
Lasarte hautsia.
Noiz etorriko zaigu
demokrazia?

Antton Aranburuekin ibilitako neska, Garinekin hasi omen da orain. Aranburuk, bi bertsotan, honela zioen Garini.

Asunto hori diskutitzeko
orain ez daukat astirik,
bart arratsian hari helduta
Garin, zaitut ikusirik.
Nere bihotza gogortu da ta
ez det haren inbidirik.
Hartu ezazu, neri ez bait dit
sartuko holako ziririk.

Hainbat denboran ibili nintzen
neska hau besotik hartuz,
aitortzen dizut, neska ona da
eta argia talentuz.
Bainan kontseju bat emateko
nere lagun honi kantuz:
Bakar-bakarrik esango dizut,
Garin ibil zaite kontuz.

Aterpe eta Aiaolak, gaiak zioenez, emazteak trukatzea pentsatu dute. Baina, Aterpe, lehengo zaharraz konforme da nonbait.

Hemen hasi beharra
gaur arpegi alaiz,
aukera ere jarri
bait digute garaiz.
Lenago ere horlakuak
ikusi ditut maiz...
Ni lehengo zarrarekin,
behintzat, konforme naiz.

Hori pentsatutzen gaur
ez naiz nekatuko,
Aiaola-n esanakin
ez ikaratuko.
Nik ez det uste gaizki
danik portatuko.
Munduko onenangatikan
ez det trukatuko.

Olano eta Lertxundik, Moskuko Olinpiadata bai ala ez? gaia erabili zuten. Lertxundi Moskura joatearen alde zegoen. Olano, ezetzean. Hona hemen Lertxundiren bertsoak.

Gai xelebrea etorri zaidak
ixil-ixilik nagola,
ta Euskal Herrian gauz honekin'e
izan lezake ajola.
Gainuntzekoak baztertu eta
gure kirola dagola...
Mosku aldean azaldu dedin
Euskal deporte odola.

Aizu, Olano, bai al dakizu
gure kirolen katea
hor ba daukagu erdi itxirik
jarri nahi duten atea.
Bainan kirola Euskal Herrian
beti izan da maitea.
Guretzat bide ederrena da
orain Moskura joatea.

Azkenik, desafioa usurbildarrek irabazi zutela adierazi nahi dizuegu.

[**Zeruko Argia**, 1980-6-15]

1980ko hamarkada

Bertso eskolekin, kolorea

1980ko hamarkada hasieran benetako izualdi bat gertatu zen Hernanin eta inguruko herrietan, talde parapolizialek sortua. Batallón Vasco Españolek hainbat atentatu eta ekintza armatu egin zituen herritarren kontra. 1980ko apirilaren 20an Felipe Sagarna "Zapa" hernaniar danbor jole ezaguna hil zuten tiroz eta hortik hilabete batzuetara Miguel Mari Arbelaitz eta Luis Mari Iriondo gazteak erail zituzten.

AGUR LAGUNAK!

1980.eko irailaren 7an Hernanin eskuindarren esku hilda gertatu ziren Luis Mari Elizondo eta Migel Arbelaizi eskainitako bertsoak.

Euskalerri zauritu
erdi puskatua
au da au gorrotoa
ezin bukatua
euskaldun izatea
zuten pekatua
odolaren zigorrez
biek pagatua.

Izen gabekoa da
olako ekintza
odol biurtu zuten
goiz aldeko intza
zertarako aitatu
pakearen itza
gorrotoaren billa
baldin ba-dabiltza.

Senide gurasoak
negarra ugari
emazte eta lagun
malkotan igeri
itzez ezin agertu
barruko miñ ori
agur, agur eta agur
Mikel ta Luis Mari.

[**Joxe Mari Arrieta**, Argia 1980-10-05]

Herri Batasuna udal gobernuan zen une horietan eta gauetan zaintzak antolatu zituzten, poliziak "inkontrolatu" horiekiko zuen utzikeriari aurre egiteko. Bestalde, ETAren adar ezberdinek eta Autonomoek militarren eta polizien kontra egindako ekintza ugariek ez zuten etenik eta ia egunero izaten zen hilketaren bat. Espainiako koarteletan arnasten zen kirats faxista izugarria zen, Estatuaren aparatuen iragan frankistak pisu handia baitzuen oraindik. 1981eko otsailaren 23an estatu kolpea gertatu zenean, euskal herritar askok ihes egin zuen badaezpada, horien artean hernaniarrak ez ziren gutxi izan.

Sozialistek 1982an Espainian agintea hartu zutenean gerra zikina ez zen baretu, alderantziz, 1983an GAL sortu zuten, Ipar Euskal Herrian atentatu ugari burutu zuen taldea; lehenengo ekintzetako bat Joxe Mari Larretxearen bahiketa saiakera izan zen. 1984a urte gogorra izan zen: GALek Rafa Goikoetxea hil zuen Arrosan eta hortik gutxira poliziak Hernaniko Nafarroa kaleko etxe batean hainbat lagun inguratu zituen eta tiroak eta lehergailuak jaurtiz Agustin Agirre "Txuria" eta Juan Luis Lekuona "Kattu" hil zituen, beste hainbat atxilotzeaz gain. Frantzia euskal herritarrak estraditatu eta deportatzen hasi zen, eta atxiloketak eta torturak eguneroko ogia ziren.

Bistan zen Estatua militarki garaitzeko ahalmenik ez zela, baina KAS alternatiba negoziatzera behartzeko adina indar, ustez bai. 80ko hamarkadaren azken urteetan ETA eta Espainiako Gobernuaren artean Algerren izandako elkarrizketa antzuen aurreko pausoak ematen hasita zeuden. Aitzitik, ordukoa da baita ere Ajuria Eneko Ituna, euskal jendartea are gehiago zatitu zuena.

1980ko hasieran bestelako buruhausteak ere bazeuden. Euskal Herri osoan gertatzen ari zen industriaren desegiteak bete betean jo zuen Hernani. 1984an Orbegozoren birmoldaketa hasi zen, 1.400 lanpostu

zuzen zituen fabrika hark 1992an itxi zituen ateak behin betiko. Grebak eta protesta gogorrak izan ziren arren, langileek ezin izan zieten euren lanpostuei eutsi. Hernanin hamarnaka enpresa zeuden metalgintzari lotuak, horietako asko ere desagertu egin ziren, baita papergintzako beste hainbat ere (Norteko papelera, Biyak Bat...). Hala, hamarkadaren amaieran langabezia tasa %30era iritsi zen, Euskal Herriko altuenetakoa.

Panorama ilun horretan, gazteen artean drogaren problematika ugaldu zen. Hainbat substantziaren erabilera 70eko hamarkadatik zabaltzen hasia zen arren, Hernanin 80ko hamarkadan eragin zuen gehien, batik bat ezezagutzak eraginda. Belaunaldi oso bateko hogeitaka lagun hil ziren heroinaren ondorioz. Hasierako laguntza taldeetatik, prebentzioa eta hezkuntza lantzeko elkarte berriak sortu ziren, Askagintza gisakoak. Geroztik, Hernanin makina bat jardunaldi eta topaketa egin izan ditu talde honek. 1992an inkesta bat egin zuen hernaniarren iritzia jasotzeko: %92a "Corcuera Legearen" kontra azaldu zen –epailearen agindurik gabe etxeetan sartzea baimentzen zuena–, baina era berean, gehiengo zabal batek uste zuen poliziak ez zuela behar beste pertsegitzen droga trafikoa.

Borroka antinuklearra, antimilitarra, aldarrikapen feministak eta abortoaren aldeko manifestazioak, okupazioak, gaztetxeak eta autogestioa... Aurreko urteetan ikusi gabeko mugimendu alternatiboek indarra hartu zuten 80ko hamarkadan. Belaunaldi berriek munduaren beste ikuskera bat zuten, batipat estetikaren eta musikaren bidez adieraziak: "Identifikatu nahi gaituzu? Arazo bat duzu!" zioen orduko abesti ezagun batek. Euskal Rock Erradikala hamarkadaren erdialdean gorpuztu zen *La Polla Records, Kortatu, Hertzainak, RIP, Potato, Zarama*... eta beste talde oso anitzen ekarpenarekin. Jendartearen zati handi baten inkonformismoari ahotsa jarri zioten, antisistema ziren, eta batzuk "heriotzarekin maiteminduta" zeuden.

Doinu horiek Molotoff Irrati jaio berrian edo kaseteetan entzuten zituzten gazteak, mugitzen hasi ziren Hernanin. Hala, *Heroina y policía la misma porquería* edo *Orbegozo despidoen aurka, pin pan pun!* pintadek frontoiko paretak apaintzen zituztela, lehenengo Gazte Olinpiadak antolatu zituzten arrakasta handiz 1986an eta hurrengo urteetarako erreferentzia bilakatu ziren; Akelarrea ere orduan sortu zen, herriko gazteak biltzeko intentzioz... 1990eko hamarkadan loratuko zen gazte mugimenduaren hazia ereinda zegoen.

URKO APAOLAZA AVILA

JUANJO URIA

1951n Zikuñagako Aterpe-n jaioa

Aita Damaso genuen: Papeleroa zen, gillotineroa, Danak-en eta Zikuñagan. Egunero 12 ordu egiten zuen lan, larunbata barne. Igande goizetan Zikuñagako papeleran aritzen zen 13:00 arte, eta arratsaldean Hernaniko bandara joaten zen, friskornioa jotzera. Langile soila, baina kultua. Mendizalea zen, dantzaria ere bai... Oso euskarazalea, oso abertzalea... Beragatik ez bazen, nik orain agian ez nuen euskaraz hitz egingo. Zeren iritsi ziren urte batzuk euskaraz etxean bakarrik egiten genuena.

Ama, Txirritaren lagun Juan Joxeren alaba zen. Euskaraz suelto egiten zuen, erraz.

Bere ikasle izan zirenengandik omenaldia jasotzen.

AITONARENGANDIK BERTSOA

Bertsoarekin lehen harremana aitonarekin (Juan Joxe Andola) egin nuen. Hari jarri nion bertso hau:

Geroxeago altxor eder bat
iritsi zen niregana
gure aitonak auzoan zuen
giroa sortzeko fama,
gazte garaian Txirritarekin
lagun handia izana
ta bertso zaharrak kantatzeko zun
doaia eta afana
ume nintzela bertso munduaz
goza arazi zidana.

Gu mutil kozkorrak ginela aitona bertsotan aritzen zitzaidan. Txirritarenak kantatzen zituen. Niri bertsoa hortik sartu zitzaidan: Zer gauza goxoak ziren, zer esaerak, "ezagutzen al dezute Joxe Latxekua? Gizon txiki xamar bat, pixkor antzekua", hori sartu egiten zen. Bertsoak, istorioak, Antonio Diostegik Fagollagan artzaina hil zueneko bi bertso horiek... Niri sekulako inpaktua egin zidaten "zu baino gizon formalago zan zuk hil zenduen artzaia". Aitonarengandik ikasi nituen horiek 6-7 urterekin. Hortik datorkit afizioa.

KONTZIENTZIA

15-16 urtetik aurrera (1967an), gure belaunaldikoak euskal munduarekin kontzientziatzen hasi ziren. Handik aurrera hasi zen mugimendu politiko kulturala eta bertsolaritza adar bat gehiago zen. Nik bertsoa umetatik edan nuen eta oso gustuko nuen, baina ingurukoei, nahiz eta euskaltzaleak izan eta prest egon euskal giro hori bultzatzeko, bertsoek ez zieten ezer esaten. Gainera nahiko fama txarra zeukaten bertsolariek, taberna, sagardotegia... kutsu hori egon zen guk 20 urte inguru genituen arte.

Zoriontsu izan nintzen
Aterpen haurtzaroan,
familia eder baten
barrunbe oparoan
gero gazte bihurtzeak
sortzen duen beroan
dena egin nahi nuen
hango herri giroan
eta lehenengo urratsak
euskararen soroan
pixka bat prestatu eta
beti daukat gogoan,
nola neure buruari
esan nion: "noan,
euskarak gure babesa
senti dezan ondoan".

GAI-JARTZEN

Aurreneko saioa Zikuñagako festetan egin nuen. Oso festa ospetsuak ziren, San Joanen ondorengoak. Bi bertsolari on eramaten zituzten beti: Lazkao Txiki eta Lasarte, edo Lopategi eta Azpilaga... Hori izan zen nire hasiera. 1974-75a izango zen, hortxe. 17 urte nituela, anaia Edortak esan zidan: "Hi, Juanjo, bi bertsolari ekarri behar dizkiagu eta hiri bertsoak gustatzen zaizkik eta gaiak jartzera joan behar duk". "Gaia jartzera? Nora?", "Hemen, Zikuñagan elizaren aurrean txabola eder bat egingo diagu" ,"Eta zein dituk etortzekoak?", "Lasarte eta Lazkao Txiki". "Joe, niri beldurra ematen zidak, motel! Kaka eginda geratuko nauk! Ni ez nauk joango!", "Ba hik joan behar duk. Hemen bilera bat egin diagu..." eta halaxe joan nintzen. Zer gai jarri? Orduantxe gai sozialen bat, eta enpresetako arazoak, eta politikoak... eta katxondeoko batzuk ere jarri behar ziren... Nik beti hiru edo lau gai eta puntu pare bat eramaten nituen, eta oso motz joaten nintzen. Aurkezpena egiteko ere trabatuko nintzen beldurrez...

1977-78 izango zen. San Jose egunean saioa egin eta hurrengo astean Iñaki Alkortak deitu zidan. Hau beti ibili da ezin duen munduan lanean, Gureaken eta abar. "Ze saio ederra! Eta gaiak jartzen asko ibiliko zara, ezta?" esan zidan. "Ni? oso gutxi, Hernanin bakarrik. Eta konturatu naiz pixka bat zabaltzen ari dela sarea, eta ez zait batere gustatzen lantegi hau eta segituan moztuko dut!", "Eske pentsatzen ari gara 8-10 saio egitea Gipuzkoan atzeratuen alde, eta zuk aurkeztea nahi dugu, ze apaizetatik jada potrotaraino gaude". Ezezkoa emateak apurua ematen zidan. Bergaran frontoian egin zen saio bat, mila pertsonatik gora egongo ziren, akordatzen naiz frontoitik begiratu eta gainezka nola zegoen. 7 saio egin genituen, oso politak. Denak oso gustura geratu ziren. Helburua ez zen dirua, Gipuzkoan elkarte hauen lana zabaltzea baizik. Bukaera Donostiako Astorian eman zitzaion. Jendez gainezka zegoen. Orduko Hoja del lunes en saioari buruzko kronika idatzi zuen Santiago Aizarnak, euskaraz: "Saioa polita... dena ondo, failo bakarra: gai jartzailea zozoegia!". Periodikoan!

Gai-jartzeko sarea bat-batean hasi zen zabaltzen, eta ni ez ninduen erakartzen batetik bestera ibiltzeak. Bi astetik behin edo saioren bat izanez gero, aurkezpena landu egin behar zela, gaiak prestatu, eta gero gau edo egun hura galdu... Konturatu nintzen horrek denbora asko eskatzen zidala, eta tranpolin horretan jarriz gero, urte pare batera gelditu gabe ibili beharko nuela, eta moztu egin nuen.

Jendeak kobratzen hasteko eskatu zidan, baina sekula ez nuen xentimorik kobratu. Nik beti oso garbi izan dut: nire lanetik bizi izan naiz, eta kulturaren aldeko mugimenduetan ez dut kobratu. Geroztik noiz edo noiz jarri nituen gaiak, Hernanin saioa egin zen Txapelketan, adibidez.

BERTSO JARRIAK

2004ko Bertso Latan, jarritako bertsoak kantatzen, alaba Maddik soinuz lagunduta.

ALKATETZA URTEAK

Gure aurreko udalak frankista kutsukoak izan ziren, nahiz eta orduan aritutako jende batzuk ez ziren inondik ere frankistak. Baina gu iritsi arte ez zegoen euskal kulturaren alde jotzeko ez azpiegiturarik, ez intentziorik, ez baldintzarik... Ezin zaio kritika pertsonalik egin aurreko urteetan ezer egin ez zuenari, ondorengo urteetan egin ez zuenari akaso bai!

Udaletxera programa batekin sartu ginen, hizkuntza, kultura eta beste hamaika gauzaren alde. Bertsolaritzaren kasuan, gogoratzen naiz Antonio Zavala nola etorri zitzaidan Paulo Txikiari buruzko liburu bat egiteko diru laguntza eske, eta berehala esan nion baietz! 90.000 pezeta ziren, 200 liburu Hernanin doan banatzeko. Baina bertsoa ez zen bereziki bultzatu gu udaletxean egon ginenean.

Bai nabarmena izan zela Amurizaren ikastaroa, 1981ean.

1989 inguruan bertsoak jartzeko lehen bolada izan nuen, eta sariketa batera bidaltzea bururatu zitzaidan. Eta irabazi egin nuen.

Niri bertsoak jartzea asko gustatu izan zait beti. Bi urte baino gutxiago iraun zituen jartzeko bolada horrek, eta dozena bat bertso sorta jarriko nituen. Sariketetara bidali, eta lau sariketa irabazi nituen. Argiako saria ere irabazi nuen, eta bigarren sariak beste bi edo hiru.

Gai-jartzen gertatu zitzaidan bezala, pixka bat ahotan entzun nuen "zer, Juanjo, bertso jartzen..." eta utzi egin nuen.

Bertsorik jarri gabe egon naiz 15 urtean, duela hiru lau urte arte. Azken urte hauetan gozatzen ari naiz. Igande arratsaldean Patronatura joaten naiz paseatzera, Argia astekaria hartzen dut, eta eramaten dut boligrafoa eta papera eta astekaria irakurri ahala bertsoak eta bestelako idatzi batzuk ere egiten ditut. Bertsoak eta komentarioak jasoak ditut, hainbat gairi buruzko apunteak, nik bizi izandakoak, goi sozialak, politikoak eta arinagoak...

Liburu bat idatzi dut (Txirritarena), bi alaba izan ere bai, eta arbola aldatu ere bai. Jada hil naiteke edozein momentuan!

2003KO GIPUZKOAKO TXAPELKETAN

Maialen Lujanbiori txapela jantzi zionean kantatu zuen bertsoa.

Txirritan berri nik izan nuen
oraindik ume nintzala
ederki asko iragarri zun
izango zuen itzala.
Bera Hernanin gazte hasi zen
hemen Maialen bezala
ta gaur entzunda uste det pozik
aurrera dezakedala
gure herrian gaurdanik beste
Txirrita haundi bat badala.

Argazkia: Estitxu Eizagirre.

JOXE MARI MUJIKA OTAÑO "ANATX"

1966an Urnietan jaioa, Aitzola Bordan (Anatx baserrian)

Etxean bertsozaleak denak izandu dira. Bertso liburu batzuk baziren eta zortzi urterekin bertsoak kantatzen genituen liburutik. Eta gurasoak erremolatxa jorran ari zirenean gu ondotik, edo sagar biltzen ari baginen arbola gainetik, ikasitako bertsoak kantatzen aritzen nintzen.

Aita janaritara edo joaten zenean, istorio zaharrak kontatzen eta kantatzen aritzen zen. Txirritarenak ere bai. Xabier Letek kantatzen bazituen irratian, "hor laugarrena falta duk" eta zein zen kantatzen zuen. Gurean afizio ikaragarria izan da.

EREÑOZUKO SAIORA ESKAPO

Hernanira eskolara etortzeko bizikleta erosi zidaten. Eta etxean ez zekitela, 14 urterekin bizikletaz eskapo egin nuen San Antonio egun batean Ereñozura, bertsolariak aditzera. Joxe Agirre eta Lizaso zaharra zirela esango nuke. Ustez etxean enteratu gabe joana nintzen, baina nabarmena, apaizaren ondoan eseri omen nintzen Ereñozun. "Mutil-kozkorra?" "Anatxenekoa!" han baten batek ezagutu egin ninduen.

BERTSOA ESKOLAN

Gu Arriatsun ibiltzen ginen, eskola publikoa zen, eta kastillanoz ikasi genuen. Gero Biterira etorri ginen, hor urtebete bat edo pasako genuen. Eta azkeneko urtebetea edo bi Gaimurren egin genituen. Eta hor bazen maisu bat, Xabier Agirre (Aramaioko Manex Agirre bertsolariaren aita), euskarazko klasea ematen zuena (erdarazko eskolan). Eta han hasi zen azaltzen, bertsoa nola izaten zen eta errimak eta neurria izaten zituela...

Nik bertsoak kantatzen nituen, ikasitakoak edo aitari hartutako doinuak, baina nola egiten zen arrastorik ez nuen. Eta maistra baten erretiroa zela eta bertsoa nola egiten zen erakutsi zigun. Eta "haren omenaldian, ze gauza polita euskaldunak hori egitea"... esan zigun. Hiru lagun animatu ginen egun hartan kantatzera: Felix Salaberria, eta bestea Pagoakoa, Joxe Luis Lizeaga; bertso pare bana edo kantatuko genituen. 1981ean izan zen. Bertso horiek osatu genituela, eta Eskolarteko I. Txapelketara joan behar genuela esan zigun Xabier Agirrek.

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1981	Finalista (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1982	Finalista (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1983	Finalista (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1984	Finalista (handitan)

Eskolarteko I Txapelketa: Eguna iritsi da, eta nire lagunek atzera egin zuten. Bakar bakarrik joan nintzen baina lagunak bela egin nituen. Zabalegin egin zen idatzizko froga. Guk zer jakingo genuen kantatzen! Idatzizkoan bakarrik parte hartu nuen. Idatzian ere, nire bi bertsotatik bat poto omen da. "Suspentsoa edo kalabazen" gainean zen gaia. Bertso horiek, nire poto eta guzti finalean kantatu nituen.

Hurrengo urteko Eskolarteko Txapelketan bat-batekoen sailean atera nintzen. Arrasaten hasi ginen. Gogoratzen naiz Eguzkitze eta biok elkarrekin egon ginela. Errimak emanda bertso bat kantatu behar zen, eta gaia jarrita beste bat.

1981 HASIERA URTEA

Eskolarteko Lehen txapelketan parte hartu genuen. Amurizaren ikastaroa ere, nik esan behar banu, urte horretan izan zen. Eta ikastaro horren ostean asteartetako bileran jarraitu genuen.

1985ean Urnietako festetara lehenengoz etorri nintzenean bertso hau entzun nion Anatxi: eliza ondoan Bar Juanito dago, eta meza ostean salda hartzen ari ziren. Hau bota zuen, gutxi gora behera:

Begira nola bizi diran ba-
serritarrak baserrian
meza nausira etortzen dira
fedearen indarrian
gero salda hartzen dute ta-
bernako mahai bazterrian
hoiek bai bizi dirala lehengo
usadio zaharrian.

Askotan botatzen dut, sermoian ere.

[Iñaki Aranzadi]

SARIKETAK

Artxanberri eta Patxi Errota saria	1989	Txapeldun ordea
Lizardi saria	1983	Finalista
Lizardi saria	1984	Bertso onenaren saria
Lizardi saria	1985	Txapeldun ordea
Xenpelar saria	1984	Finalista
Xenpelar saria	1985	Txapeldun ordea

BERTSO IRAKASLE

Langile ikastolan hasi zen Juanjo Uria eta ni haren laguntzaile. Bertsotan hasi eta hirugarren urtea izango zen, nik 17 urte nituela. Ordurako Joxemari Gabiria ari zen Urumean.

Ereñozun ere egin nuen irakasle. Mikel Mendizabalek oso material ona ematen zidan, kaseteak eta dena atera zituen Ikastolen Elkarteak. Bi-hiru urte egin nituen Ereñozun, ume mordo politarekin. Jauregiko eskolan ere bai, Martutenen ere beste bi urte bai...

Eskoletako umeekin saio bat egin genuen Biterin. Eta han eraman zuen Jon Eizmendik orain txapeldun atera den matraka hau (Maialen Lujanbio). Gogoan daukat nola esan zigun: "nik neska honekin ez diat karrerarik ateratzen. Nik baino askoz gehiago zekik eta ea zer arraio egiten duzuen berarekin!".

AUZOTAKO SAIOAK

Auzotako saioetan hasitako lehenbiziko gaztea ni izango naiz. Garin, Aterpe, Argiñarena, Tapia eta horiekin. Gu hasi ginenerako Aterpe eta Garin bertsotan tapa-tapa aritzen ziren. Guk juxtu juxtu osatzen genuen kopla, eta haiek hartu gintuzten babesean.

Horiekin bertso eskolan konfiantza hartu eta pixka bat bertsoa osatzen ikasi genuen garaian, Hernaniko auzo gehienetan festak izaten ziren, eta bertako bertsolariak izaten ziren, Ereñozun ezik, han profesionalak aritzen baitziren. Baina han ere jardun gara bertsotan. Horrela hasi nintzen auzotako festetara joaten. Ordurako Joxe Fermin Argiñarena Nafarroan txapeldun aterea zen, eta plazetan asetuta zegoen, eta "hi, halako egunetan halakora noa, lagunduko al didak?" esaten zidan. Mutil-kozkorretan hartu ninduten, eta asko ikasi nuen nik Argiñarena, Aterpe eta Garinekin. Bai ibiltzen, bai egoten, bai aritzen. Gogoratzen naiz Argiñarenaren kotxean dezente ibilia.

PLAZAZ PLAZA

Garai hartan geroni ez ginen konturatzen zertan ari ginen ere. Bertsoa gustatzen zitzaigun, lagunak topatu genituen, ondo pasatzen genuen eta jendeak txalo jotzen zuen!

Gerora hasi ginen konturatzen "ño, hau mundu handia duk!».

Suertea izan dut lagunak oso onak izan ditudala; Sarasua, Eguzkitze... erremesa horretan sartu ninduten edo ibili nintzen. 16-17-18 urterekin Eskolarteko Txapelketaren eta Mikel Mendizabalen laguntzaren bitartez, udara partean saio batzuk egiten genituen. Gehiena 16 urtetik 19-20ra ibili ginen Sarasua, Euzkitze, Izarzelaia, Arantzazu Loidi... sariketaz sariketa eta plazetan.

BERTSOKERA

Bertso-eskolako heziketa izan arren, jario zaharreko bertsolaria : etorri erreza, golpe bizia eta hizkuntz taxuera egokia. **[Bertsolaritzaren datu-basea]**

Anatxek grazia zuen nabarmena. **[Iñaki Aranzadi]**

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako kanporaketa	1988	
Txapelketa Nagusia	1989	(Azken-laurdenak)
Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Finalerdiak (Urnieta-Andoain taldean)

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusirako Gipuzkoako Kanporaketa (1988)

Anatx aita eta Loidisaletxe semea. Aitak leihotik ikusten du ganaduak zaintzera joan den semea, jertse gorria hartu eta zezena toreatzen.

Anatx:
Aitak leihotik jakin nahi luke
etxekuen informea,
jertse gorria hartu ta hola
zertan zabiltza semea?

Loidisaletxe:
Toreroaren odol klase ho(r)i
nola detan berezkoa,
gaur edo bihar izan nahi nuke
Paquirri-ren ordezkoa.

Anatx:
Aizazu seme, zure postura
ez da batere normala,
zuk badakizu korri araziz
behiak flakatzen dirala.

Loidisaletxe:
Hara zu aita umore txarrez
hargatik jarri al zera?
Asto gainean jarri zaitez ta
etor zaitez pikatzera.

Anatx:
Aizu semea zure joerak
ez dauka grazi askorik,
etxeko zera baina zurekin
ez daukat negoziorik.

Loidisaletxe:
Esan dezu lehen behiak horrela
plakatu e(g)ingo dirala,
adarrez baino hezurrez uste(du)t
min gehio eman didala.

Anatx:
Aizu semea zertako zaude
zeure aitan kontrario?
Hola okelaz galtzen dut eta
esnea ere gutxio.

Loidisaletxe:
Esnean ez da alde haundirik
gaur iluntzean izango,
hauek emanak trago batean
laister nituzke edango.

Anatx:
Horrek emanak trago batean
honek edango lituzkela,
berriz e(re) gutxi izango dute
baldin bazabiltz horrela.

Loidisaletxe:
Egia esan gauza horretan
ez det egiten okerrik,
aspaldi hontan guretzat letxe-
roak dirade alperrik.

Anatx:
Zer egin ere esango dizut
azkenera iritsita,
pentsu piska bat eman zaiezu
txorakeriak utzita.

Loidisaletxe:
Ni ustez ondo nengoen oso
agindutako tokian,
gustoko lana e(g)iten a(r)i naiz ta
utzi zaidazu pakian.

KANTULAGUNAK

Xabier Amuriza, Jon Lopategi, Mugartegi, Mañukorta, Sebastian Lizaso, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Jose Luis Gorrotxategi, Egileor, Txomin Garmendia, Patxi Etxeberria, Manuel Lasarte, Lazkao Txiki... garai hartako gehienak pasa ditugu.

Andoni Egañarekin kasi batera hasi ginen gu. Urtebete lehenago hasi zen bera. Sarasua eta Euzkitzeren arrastora joan nintzen garaian Loidisaletxe eta Egaña genituen gure aurreko bi erreferentzia bakarrak. Aurreragokoak ziren Attola, Iñaki Murua, Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikano. Hasiera hartan Egañarekin bastante ibili ginen. Loidisaletxerekin asko ibili naiz, egun-pasak egin ere bai.

Mitxelenarekin ere kantatu nuen. Ikaragarri gustatzen zitzaidan.

UTZI

Ni gustura ibiltzen nintzen konturatu arte asko egin behar nuela jendearen aurrean. Orduan, jada gaizki pasatzen hasi nintzen. Putzu handiegitan sartu nintzen. Haiek bertsotan ikaragarri egiten zuten eta nik banuen maila bat, sagardotegian edo afaritan bertsotan pixka bat egiteko, baina orduan jaialditan eskatzen zen beste maila hori ez.

Akaso izan liteke, beste bertsokera bat eskatzen zutela han. Beste estilo bat. Baina ni oso gutxi gozatua naiz jaialdietan, ez zen bertsotan egiteko nire postura, ez nuen nire burua bilatzen. Ni han oso gaizki sentitzen nintzen eta ez nuen bertsotan egiten, konturatzen nintzen han ez zegoela niretzat tokirik.

Garai hartan bertan oso plaza politak egin nituen Sorozabalekin. Gustura sentitzen nintzen bertsokera hura zen: egun osorako bi lagun joan, goizean zerbait kantatu eta bazkalondoan gaien bat edo beste jarri, eta arratsaldean berriro. Hura bai. Gipuzkoan Sorozabalek eta biok pasa gabeko herririk gutxi izango zen. Eta udara partean aste bukaerarik libre ez genuen izan ere egingo.

Gogoratzen naiz Ereñozun Sebastian Lizaso eta Iñaki Muruarekin kristoren eguna pasea eta bertsotan gustura gelditua.

Baina "hiru-lau bertsotan asko esan behar dik, eta asko egin behar dik"... ez zen nire modua. Han sufritu egiten nuen, asko gainera. Konturatzen nintzen ez nuela erantzuten. "Bertsoa beste zerbait duk" pentsatu nuen. Beste modu hori gero eta zailagora joan zen.

Nik uste dut ondo egin nuela bere garaian planto emanda. Pena handiarekin bolada batean, baina jaialditarako ezezko franko eman nuen.

Jaialdiak utzita ere Sorozabalekin egin nituen egun-pasa batzuk baina Sorozabal jada oso gora zihoan eta hari ere segitu egin behar zitzaion! Sorozabalek bertsotan ikaragarri egiten zuen eta laguna behar zuen segitzen ziona.

Plazak utziagatik bertsoa buruan ibiltzen dut. Orain ere sagardotegira joan eta eguna parean tokatzen bazait, bertsotan edo nire gustuko horretan ariko naiz tapa-tapa. Egunak izaten dira bertsoa bere gisa etortzen dena.

SEME-ALABEKIN JOLASTU!

Seme-alabak hor dabiltza bertso eskolan, eta nik derrigortu ez ditut egingo ezertan. Beti esaten dudana: Bertsoa jolastu, bertsoarekin sufritzera ez joan.

Nik urte batzuk izan nituen bertsoarekin kristorena gozatu nuena. Lagunarte beldurgarriak egin ditut eta ikaragarri ondo pasatu dut. Eta nire umeak inora badoaz, ondo pasatzera joan daitezela. Ez txapelketako erreferentziekin. Hori ez dut nahi. Lagunarte bat egin, eta noranahi afaltzera edo meriendatzera joanda gaitasuna izan dezatela puntu bati erantzun edo bertsotan broma bat egiteko. Nik ez diet besterik esaten. Aritzen gara kotxean puntuak jarriz eta ahal duenak ahal duena egiten du, bai nik eta haiek ere bai. Baina bertsoa jostatu egin behar du edade horretan, eta gerora ere, ahal bada bai. Bertsoak hori du polita.

SAIOAK GOGOAN

19 urterekin, Aitor Zinean kantatuta joan nintzen soldaduskako sorteora. Eguerdian kantatu eta Elur-Txorin zen bazkaria: Xabier Amuriza, Sebastian Lizaso...

Gero polikiroldegia egin zen eta han hasi zen saioa egiten. Lazkao Txikirekin azkeneko han kantatu nuen nik. Lazkao Txiki hil zen urtean izango zen.

1990-02-10 Antzuola Jaialdia

Zuen iritzia soldaduzkari buruz.

"Anatx":
Soldaduzkataz hitzegiteko
bada arrazoi formala,
lehen Sarasuak esan dizute
ni libratua nitzala,
neronek ere libratutzeko
egin nuen eginahala,
besuagatik deitu zidaten
neri inutil totala.

Jokin Sorozabal:
Zuri inutil deitu gabean
nola ez zegon uzterik,
zorionean ez zendun izan
traje berdea jazterik,
mutil ederra nitzan ni berriz
izanagatik gazterik,
eta handikan ez nun ekarri
bizio txarra besterik.

Joxe Angel Lizarreta:
Arazo beltza ekartzen digu
hogei urte inguruan,
batzuk inutil dirala eta
uzten dituzte albuan,
hemendikan bi bakarrik ginan
militarraren onduan,
orain ondo nabarmentzen da
gizatasuna nork duan.

Jon Iñaki Izarzelaia:
Gazteok aspaldi baditugu
soldadu kontuez lanak,
denok barnera sartu nahiean
horiek dira afanak,
nik ezpainak pinta nituen da
ez nituen hartu armak,
nola militarrek behar duten
gizon «macho»ak diranak.

Jon Maia:
Oraindik ere ez zait argitu
soldaduzka horren duda,
baina gauza onik ez dago
alde horretara junda,
alegauko det «tonto completo»
ala «locura profunda»,
edozer gauza ez entzuteko
turuta hoien burrunda.

Aitor Sarasua:
Soldaduzkara joan leiteke
nun dezue juizioa?
Militarrei eman behar zaie
Euskaditik lezioa,
gauza aldatzen hasi dedila
behar degun sesioa,
lehenengo behintzat objetatu ta
gero intsumisioa.

"Anatx":
Arrazoi daukak al baldin badek
hoiengana ez azaldu,
ta Sorozabalek esan duna(r)i
beharko diot nik heldu,
lehen formala zan da soldaduzkan
lehendik zeramana galdu,
ni lehen(ag)o nitzan inutila ta
hori bertan inutildu.

Jokin Sorozabal:
Batzuk Loiolan egin genduen
beste batzuk Valentzian,
beste batzuek libratu ziran
inutilaren klasian,
inutil noizbait guztiok gera
mundu hontako auzian,
ni urte bete bakarrik baina
hauek bizitza guzian.

Joxe Angel Lizarreta:
Istruzioa lau-bost bat ordu
jo behera eta jo gora,
modu hartako bizitzarekin
ez leike joan inora,
Jon Maia honek alegatzea
luke beretzat mejora,
traje berderik ez da egiten
bi metro t´erditik gora.

Jon Iñaki Izarzelaia:
Españatik egiten digute
hara joateko dearra,
eta gazteok gutxitan degu
erakusten gure indarra,
pentsatzen jarri eta ez al degu
ho(r)i jokaera kaxkarra?
gogoaz kontra joanda ere
burua makur beharra.

Jon Maia:
Buru gainean txapela jarri
ta eskuan metraileta,
badaezpada kantzontzilotan
granadaren bat gordeta,
alegatzia daukat onena
ondo zoaz Lizarreta,
nere tailako zapatilikan
inon ez daukate eta.

Aitor Sarasua:
Sekula ez naiz soldadu joango
pozik esan nion ama(r)i,
zure ondoan eukiko nauzu
eta egon zaitez lasai,
horrela nik ezetz esan nien
militarre(r)i eta arma(r)i,
solda(d)utza bada gizon e(g)iteko
ez dut gizona izan nahi.

JOKIN SOROZABAL ANSA

1967an Andoainen jaioa

Etxean ez zen aparteko bertsozaletasunik. Familia tradizional bateko kontuak: Gure aitonak, amaren aitak, San Pedro egunean bertsoa botatzen omen zuen etxean. Gure aita Larraulgoa zen eta bertsolariak, harri-jasotzaileak eta idi-apustuak zituen gogoko. Gurasoentzat gauza normala zen radioan bertsoak entzutea, Basarri entzutea...

LASALLEKO BERTSO ESKOLA

Lasallen lanbide heziketa ikasi nuen, baina ordurako Mikel Mendizabal ari zen ikastoletan eta hara ere etorri izan zen, bertako irakasleak animatzeko, materiala emateko... gu ginen eskola hartako koadrilarik euskaldunena, erdi baserritarrak, hizketan hika egiten genuenak... "hemen inork egitez gero, hauek" esango zuten. Taldetxo batean bildu gintuzten. 17 urte izango nituen, eta hortik aurrera beste etapa bat hasi zen.

Lehenengo bildu ginena ostiral karnabala zen. 5-6 lagun ginen. Irakasleek Anatxen osaba, Iñaki Otaño konbentzitu zuten guri klasea emateko. Lasallen, jada inork erabiltzen ez zuen erdi gimnasio erdi soziedade zahar batean biltzen ginen zerbezaren batzuk edanaz.

Otaño hori gizon serioa da, eta ez zuen asmorik urte askoan gurekin arrastan ibiltzeko. Bilera haiek pedagogikoki gaur egun eskandaluzkoak lirateke. Bertso jarrien liburu bana ekarri zigun, Joxe Mari Arrietaren Nere ondar alea, eta aste batetik bestera sorta pare bat derrigortuta buruz ikastea zen haren lezioa. Hark sinismen handia zuen horretan: bertso asko buruz ikasi, burua bete, almazena osatu. Eta klase horretara ikasi gabe joaten zenak apuru pixka bat pasatzen zuen, gainera. Udara hartan Joxe Mari Arrietaren liburua osorik ikasi nuen. 500 bertso edo ez dakit zenbat egongo diren. Eta oraindik biltzen garenean, hango bertsoak kantatzen aritzen gara.

Hura baserrian bizi zen, eta udaran lana, belarra eta bere istorioak izango zituen, eta "nik igande goiza daukat ba libre!" esan zigun. "zer ordutan?" guk, "8ak aldera edo!". Eta horrela, igande goizetan 8tan bildu izan ginen bertsotan egiten.

Gure taldean astez aste diferentzia ikusten zen. Buruz ikasitakoen ostean, bat-batean kantatzen genuen. Klase haietan paperik eta lapitzik ez genuen asko gastatu.

ZALDIBIKO ARTXANBERRI SARIA, 1985

Urtebete lehenago hasi ginen bertsolaritza lantzen. Sariketa hura izan zen gure debuta. Ikustekoa zen gazte sariketetan zer giro egoten zen: Zaldibiako txapelketa horretan frontoia aurretik atzeraino beteta, eta aurre aurrean hantxe Jon Azpillaga, Joxe Lizaso, Imanol Lazkano... bertsoak aditzen. 19 ginen parte hartzen. Pablo Joxe Aristorenak irabazi zuen.

SARIKETAK

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1985	Finalista (handitan)
Artxanberri eta Pello Errota saria	1985:	Finalista
Artxanberri eta Pello Errota saria	1989	Txapeldun
Errexil saria	1988:	Finalista
Lizardi saria	1985	Finalista
Lizardi saria	1986	Txapela eta bertso onenaren saria
Osinalde saria	1985	Txapeldun ordea
Osinalde saria	1986	Txapeldun ordea
Xenpelar saria	1985:	Finalista
Xenpelar saria	1986	Txapeldun
Xenpelar saria	1990	Epaile

SARIKETETATIK PLAZETARA

Zaldibiako txapelketan kantatu eta hurrengo astean telefono deia, ea Gabiriako txapelketara joan nahi nuen. Bale, enkantau. Hara joan, eta berehalaxe, hurrengo hilean edo, Eskolarteko Txapelketa. Ni Eskolartekoan behin atera nintzen, azken urtea harrapatu nuen.

Eta udara hartan, 15-20 plaza egin nituen, eta plaza -plazak, Oiartzungo bertso astean, Usurbilen... Sorabillan kantatu genuen Lazkao Txiki, Mitxelena, Lasarte eta Lopategirekin.

Bertsolari sentitzeko moduan, telefonotik deitzen zidaten etxera: "ni joatea nahi badute, zeozer izango gaituk!" pentsatzen nuen. Hori gauza ederra da, zoazen tokian zure zain daudela jakitea.

Lizardi Saria eta Xenpelar irabazi nituen 1986an. 1989an Zaldibiako Artxanberri saria, jokatu zen azkenekoa. Eta 1989an atera nintzen aurrenekoz Txapelketa Nagusian, ordurako jada plaza batzuk eginda.

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Final-aurreak (Andoain-Urnietako taldean) / Antolatzaile
Gipuzkoako Kanporaketa	1988	Finalista
Gipuzkoako Txapelketa	1991	Final-aurrekoak
Gipuzkoako Txapelketa	1995	Finalista
Txapelketa Nagusia	1989	Finalaurreak
Txapelketa Nagusia	1993	Finalista
Txapelketa Nagusia	1997	Final-aurreak
Txapelketa nagusia	2001	Final-aurreak

Oroitzapen oso ona dut 1989ko Txapelketa Nagusiarena. Puntuazioena guretzat berria zen, eta ikusten genuen sailkapenean sartzen ginela Millan Telleria, Mikel Mendizabal, Andoni Egaña... fase bat pasa eta finalera iritsi gabe, baina nahikoa eginda, lehen txapelketa izateko.

Baina Azpeitiko finalaurrekoan gertatu zen. Ofizioaren jabe zarela uste baina oraindik ondo ondo egiteko gai ez zarenean, eta gai konplikatuak daudenean, eta 2.000 pertsona aurrean... hori ez da bertso eskolan kantatzen aritzea eta gaiei bigarren buelta eman behar zaie txapelketan ateratzerako. Eta han sexismoan erortzeko arriskua zuen gai batean jata bete betean sartu nintzen. Momentuan gainera ez nuen erreakzionatu, nik uste mundu guztia konturatu zela "pasa egin da", eta ni ez nintzen jabetu. Komentarioak izan ziren hurrengo egunetan, eta uste dut normala zela, hotzean aztertuta. Hori izan zen txapelketaren sentsazioa izorratu zidana. Gogoratzen naiz Imanol Lazkanok segituan nola esan zidan: "honek mesede egingo dizu zuri, luzera". Pentsatzeko "kuidao, jada ez zabiltza edozein lekutan, pentsatu ondo zer esan behar duzun".

Behin ere ez dut jakin txapelketa bat ondo prestatzen, baina zeozer saiatu nintzen hor. Handik bi urtera Gipuzkoakoa etorri zen, eta han ere poto egin nuela ez nuela, bestela 1991ko hartan hantxe izango nintzen finalean.

Ikusten duzu konfirmatzen doala gauza. Eta beste salto txiki bat egiten duzu goraxeago, eta asmatu izanaren sentsazioa daukat 1993ko Euskal Herrikoan. Preparatzeko Anjel Mari Peñagarikanorekin bildu nintzen. Han jada hasi eta bukatu erregular egin nuen, nahiz eta finalean arratsaldean nekearen ondorioz kontzentrazioak behera egin zidan pixka bat. Nolanahi ere, txapelketa hartan saiorik onena ez nuen finala egin, nik uste dut Leitzan saio hobea egin nuela. Bertsotan disfrutatzeko eta dena parean etorri izanaren sentsazioa hangoa daukat.

1993koaz geroztik presioa, nekea sumatu nuen. Gipuzkoako bat etorri zen, 1995ean Mendiluzek irabazi zuena, eta dudak izan nituen parte hartu edo ez. Txapelketa Nagusian egondako inor ez zen joan, ni bakarrik. Nik nire burua oraindik txapelketan ikusiko nuen nonbait, beste horietatik gazteagoa ere banintzen, eta txapelketari ihes egiten hasteko azkartxo ote zen... baina Txapelketa Nagusia eta gero, dianaren erdi erdian zegoen nire argazkia, eta hori presio handia da. Nik uste ez nuela txapelketa hartara joan behar.

Elkartearen inguruan ibili gara beti, eta txapelketak Elkartearentzat salbazio bat izan dira bai diru aldetik, bai bertsolaritzaren eskaparate diren aldetik... gure inguruko jendeak nahi zuen bai ni eta bai beste batzuk ere joatea... Laxaro Azkune asko estimatzen dut, eta hark esan zidan "orain lehenagoko maila hori konfirmatu egin behar zenuke, beste bi urtean". Ondo egin banu ederra litzateke, baina... 1995eko hartan gauzak nahiko ondo egin nituen, baina azken orduan gauzak estutu zirenean, ezinean aritu nintzen, bi poto egin nituen...

Bertso afari batean, lasai ari zarenean, bertsoaren bukaera etortzen zaizu bestea kantari ari den bitartean, eta hark bukatutakoan aldatu egiten duzu, hari erantzuteko. Erraztasun hori nik eduki dut, eroso ari izan naizen garaian. Txapelketan hortik oso urruti sentitu naiz, eta horrek eginarazten du behera.

Sorozabal ere neurtuta geneukan punta-ipurdiraino, zenbat zezakeen. Pena handiak izanak gara txapelketetan. Konbentzitua nago gaur ere ez dutela neurtzen behar bezala. Ez baitu harrokeria hori! Oso suabea da. [**Iñaki Aranzadi**]

ELKARTEAN

EHBE (1992-1997); Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko idazkari (1991-2000)

Elkartean nahiko hasieratik jardun nintzen. Bertsolarien artean antolatutako aurreneko txapelketa hartan (1986an) nahiz eta ez genuen gazteok kantatu, gu ere deitzen gintuzten bileretara. Egitura pixka bat finkatzen hasi zenean, herrialdeetako batzordeak sortu ziren eta Gipuzkoako Elkarteko ardurak hartu nituen. Alaba zaharra jaio zen arte jardun nintzen. Bertsotan bezala, hor ere faseak egoten dira, pixka bat egin behar da, egiten utzi ere bai, eta besteek nola egiten duten ikusi ere bai.

BERTSOAREKIN HARREMANA

Gaur egun ia ez dut plazarik egiten. Etxean ere falta gehiago egiten dugu garai batean baino; eta familia familia da. Oso epoka polita tokatu zait asko ibiltzeko, askatasun handia eta konpromiso gutxi nuen garaian, felizidade guztia, gaztaroa bete betean... Orain pereza gehiago emango lidakeenean, eta bizitzaren beste konpromisoetan gehiago nekatzen garenean, apurka hasi naiz nire burua hortik kanpo ikusten.

Egoerak ekarri nau albo batera jartzera. Nik ez dut bertsolaritza utzi. Igual berak utzi nau pixka bat eta orain ondo moldatzen naiz bigarren plano horretan. Suertea ere bada, sasoain ibiltzeko aukera izan eta lasaitasuna estimatzeko garaian, hura ere izatea.

BAT-BATEKO BERTSOAK

1993ko Euskal Herriko Txapelketa. (Abenduaren 19an Donostia)

Puntua:
"Gerrikoa estutu"
entzuten da sarri.

Sorozabal:
Erantzun behar zaio
jende klase horri:
"gerrikoa estutzeko
mezua ekarri,
eta berak nahi duten
neurrikoa jarri!"

1989-04-16 Zaldibia Sariketa

Joxe Mari Mujika "Anatx" mutila eta Jokin Sorozabal neska azken igandetan lagun egin zarete eta gaur neskak esan dizu urtebeteko haurra duela.

Anatx:
Zu ezagutu zintudan eta
ahaztu zan bihotz egurra,
hain zera polit dizdiratsua,
hain dezu bihotz samurra,
baina uste det azken kontua
ez dela hemen gezurra,
gauza ondoegi ote zijoan
baneukan nahiko beldurra,
eta mesedez esan zaidazu
nondik sortu zendun haurra.

Sorozabal:
Sasoi betean oraintxe nago
dauzkat hogeita bi urte,
nere bihotza zureangandik
ez dabil oso aparte,
baina uste det izan dudala
bizitzan zuk hainbat suerte,
nere baratzan zure aurretik
norbaitek bazuen parte,
beti zain ezin egongo nitzan
zu espabilatu arte.

Anatx:
Nik pentsatzen det zu ote zeran
beste askoren iguala,
ni engainatu bitartean zuk
egin dezu martingala,
lehengo batean meta atzean
jardun ginan eginahala,
eta zerorrek esan zenidan
lehenbizikoa nintzala,
nik pentsatzen det jostatu gabe
haurrikan sortzen ez dala.

Sorozabal:
Zure ondoan baldin banabil
etor leike bigarrena,
baina lehenari jaiotzen utzi
beharko zaio aurrena,
dudarik gabe zu izan zera
nere lagunik onena,
nere bizitzan hauxe izan det
lantegi gustokoena,
ez zera izan lehenengoa ta
ez zera izango azkena.

Anatx:
Nik jakin gabe, kontu batzuek
bazenituen gordiak,
eta uste det oraindik ere
esan dituzu erdiak,
nik zuretzako pentsamentuak
eta maitasun handiak,
nahiz fama txarra emango didan
nere auzoko jendiak
zu gabe ez naiz ni ezer eta
maiteko zaituztet biak.

Sorozabal:
Bada urte bat izan nuela
harekin hasteko era,
lore polit bat sortu ere bai
harek nere baratzera,
hura bidean etorri arren
ez zazu egin atzera,
berandu baina eman deiogun
gure lanari hasera,
bizkiak igual izango dira
azkar aritzen bazera.

JON EIZMENDI GOIBURU

1970an jaioa, Portu auzoan

Suertea eduki genuen: Urumea ikastolan ibili ginen denboran bertsolaritza indartu nahi izan zuten eta LHko 7.-8. mailan ikasgai moduan eman ziguten. Majo lagundu ziguten irakasleek (gure bertso maisu Joxemari Gabiria izan zen). Gu gara ikastoletatik ateratako bertsolarien lehen belaunaldia.

Ondoren ikastolan 4-5 bereizi gintuzten, eskola orduz kanpo geure kasa aritzeko. Pablo Joxe Aristorena, Joxe Mari Aizega, Estibaliz Urrestila, Ruth Martin...

ASTEARTETAKO BILERAK

Herrian Xabier Amurizaren ikastarora joandako jendearekin egokitu ginen. Ni ez nintzen Amurizaren ikastaroan izan, gero batu nintzen haiengana. Astean behin biltzen hasiak ziren eta gu ikastolatik haiengana joan ginen. Orduan egin genituen Anatxekin eta beste jende zenbaitekin ezagupenak. 82-83 urtea zen. 11-12 urte izango nituen.

Jon Eizmendik ere, Otañorekin, mutil-kozkorra zela zer jende pila bildu zuen Zinko enean bere bueltan! Eizmendi galtzamotzekin, hura da bertsotan egitea mutil-koxkorrak! Hori etorri zen artista! Bederatzikoa zortziko txikia bezala botatzen zuen, bata bestearen segidan puntua erantsita! Bizkorra harrigarria. [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

Bakailaoa saltzen zuen bat bazen, Kardaberaz kalean. Ezkonduko al nituen galdetu zidaten, Lezon zela elizkizuna eta ea bertsolari pare bat eramango nituen. Nik baietz. Pablo Joxe Aristorena eta Jon Eizmendiri esan nien. Bertso pare bana bota zituzten. Eizmendi puntu hauek bota zituen, gutxi-gorabehera:

Mundu honetan gauzarik ederrenak bi dia:
txerria hiltzen den astia
andrea hartzen den urtia
nik ere hortan noizbait hartuko al det partia.
[**Iñaki Aranzadi**]

Antiguoko Lurdes Txikin, ezkontza batean ideia hauxe bota zuen: Lasto bat puskatzea erraza da; baina bi-hiru elkarrekin bilduta zaila; horixe da ezkontza. [**Iñaki Aranzadi**]

Beste batean perretxikotara eraman ditut Aristorena bi anaiak, Eizmendi... gibelurdin bat ikusi eta "kontuz, gibelurdin bat dagoen tokian gehiago ere badaude, ondo begiratu hemen!" bila jardun ginen. Hurrengo egunean Donostiako Kilometroak jaia ari ziren ematen irratitik, eta Jon Eizmendiren bertsoa:

gibelurdin bat dagon tokian
beste asko den bezela
euskaldun bat dagoen tokian
gehio bildu gaitezela!

[Iñaki Aranzadi]

Pablo Joxe Aristorena eta Jon Eizmendi.
Argazkia: Argia

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1981	
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1982	Txapeldun (txikitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1983	Txapeldun (txikitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1984	Txapeldun (txikitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1986	Txapeldun ordea (handitan)
Gipuzkoako eskolarteko txapelketa	1988	Finalista (handitan)

Eskolartekoan 9 puntukoa bota duen bakarrenetakoa da.

SARIKETAK

Fernando Amezketarra	1985	
Lizardi saria	1983	Finalista
Lizardi saria	1984	Finalista
Lizardi saria	1985	Finalista
Lizardi saria	1986	Finalista
Lizardi saria	1987	Txapeldun ordea
Lizardi saria	1990	Txapeldun
Xenpelar saria.	1983	3.
Xenpelar saria	1984	Finalista
Xenpelar saria	1985	Finalista

PLAZAK

Batez ere taldean deitzen ziguten batetik bestera joateko. Talde horretan ginen, batez ere Arrasateko Almen ikastolatik etorritako laukote bat (Sarasuatarrak, Danel Goikolea, Arantzazu Loidi, Felix Iñurrategi, Jon Iñaki Izarzelaia), inguru honetatik Pablo Joxe Aristorena, Joxemari Mujika "Anatx" eta hirurok, Xabier Euzkitze, Usurbilgo Joxemari Izeta... Horrela ibili ginen lauzpabost urtez, poliki, hango eta hemengo plazatan. Oiartzun aldetik asko deitzen ziguten, Bizkaira pixka bat iritsi ginen eta Iparraldera noiz edo noiz ere bai. 82tik 86ra edo iraungo zuen bolada hark. Gure hasiera hartan, orduan gehien ibiltzen zirenekin tokatu ginen: Imanol Lazkano, Jon Lopategi, Millan Telleria, Anjel Mari Peñagarikano. Baita ere Lertxundi, Otaño...

17 URTEREKIN

Ume denboran bertsoa oso oso gertutik bizi nuen, baina nerabezaroan sartzean, ume aroko gauzak atzean uztean, buruan gauza berriak sortzen hasten dira, beste kezka batzuk, galdera berriak... behar bada galdera horiek bertsoa egiteko moduan txertatu nahi nituen, estilo baten bila ibili nintzen, behar bada kontzienteki, estilo propio bat landu nahi izan nuen, galdera asko nituen, erantzun gutxi... kezka horiek bertsotan transmititzeko gogoa nuen, baina zailtasuna ere bai. Esaten zuten halako "batxe aldi batean" nenbilela. Ordurako plazetan poliki ibiltzen nintzen, gero deiak bakantzen joan ziren eta harrezkero ezin izan dut lehengo trena berriz hartu. Esango nuke 17 urteez geroztik plazatan halako ibilera handirik ez dudala egin, oso plaza gutxi zanpatu dudala.

BERTSOA BETI BURUAN

Jarraitu nuen, bai, zaleturik eta neure kasa lantzen urte askoan ibili naiz. Nire moduan, bertsozaletasuna bero mantentzen saiatu naiz, erreflexuak ez galtzeko. Nire kabuz irakurriz, besteek botatakoa jarraituz... Bertso txispa hori nire bizitzan toki handia hartu duen afizioa izan da. Bertsoa beti buruan ibili dut: garai batean ikasitako bertsoak berriz buruan erabiliz, pixka bat horien inguruan pentsatzen jardunaz, bertso liburuak patxadaz hartu eta buruan irauliz...

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	1991	Kanporaketak
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	1995	Finalaurrekoak
Euskal Herriko Txapelketa	1997	Azken-laurdenak

ESTILOA

Asko edan dugu bertso zaharretatik. Bertso zaharrak gure belarri barruan nolabaiteko oihartzunak izan ditu eta nolabaiteko gure ametsa izan da oihartzun horri jarraipen bat ematen asmatzea. Ez da erraza, bat-batean ari garelako.

1995eko Gipuzkoako Txapelketa (Apirilak 29, Urnieta)

Gaia: Gauzak ondo lotuta uzteko asmoz, hiltzen zarenean zure gorputzari zer egin bertsoz idaztera zoaz.

Badakit edozein orduz
gertatu dakidakeela,
jaio guztiak hiltzea zor du
legeak dion bezela.
Etxetik hurbil baratz bat dugu
nahiko terreno ospela,
nere errautsak udazken arte
kajan gorde ditzatela,
gero han bertan barreiatzeko
haizeak narabilela.

Joan beharrean gaude guztiok
jarria dagon bidetik
eta laguntza hel dakigula
amaieraren beretik.
Nik famili bat utzi beharko det
beraien eskumenetik
eta nahiz ta ni berak ez nauten
izango aldamenetik,
baratz hortantxe lagunduko'iet
nere biharamonetik.

1990-04-07 Hernani, jaialdia

Objetua: Jeringila bat.

Gaur e(re) berriz zein ez da izango
drogaditoen kupiran?
Sobredosisak hildakoak e(re)
edo eroriak SIDAn,
gaur la(run)batean bostak aldera
zoazte Hernanitik jiran,
hainbeste gazte ikusiko da
kale ertzean segiran,
ezin asmatu bizirik hiltzen
edo hilak piztu diran.

Jeringilak e(re) gaitzaz batera
zenbat utzi ditun larri...
Ospitaleko argi urdinaz
itsuak eta elbarri,
baina hala ere gorputza nekez
oraindik gehio(re)n egarri,
gure heroinak bere eskutik
jaso ditu beldurgarri,
harek aspaldi e(ra)mandakoak
berriz ez zitun ekarri.

Hirugarrena kantatzea(re)kin
nik behar nuke bukatu,
nahiz ta honetaz bat hitzegiten
ezin den be(reha)la nekatu,
zuek guziok badakizute
osasuna(re)kin jokatu,
lehenago hortan sartutakoak
ez bitez berriz drogatu,
eta zaudeten gazte maiteak
ez zazutela probatu.

1995-01-06 Hernani, jaialdia

Hi, Xebastian Lizaso, esploradorea haiz eta hi, Eizmendi, kanibala. Afrikako lurrak esploratzera joan eta kanibalaren pertzan bukatu duk.

Lizaso:
Nere intentzioak
ziran nabarmenak,
baina ezin domatu
nik honen kemenak.
Asko dira oraindik
hau ez dakitenak:
jangarriak ez dira
animali denak.

Eizmendi:
Gizon jakia ere
oso det graziko,
horrelako piezarik
noiz zan ikusiko!
Bertatik alde egiten
ez diot utziko,
nahiko jakia badet
nik negu guziko.

Lizaso:
Aspaldi heldu nintzan
zuen parajera,
ta galdu dutxatzeko
lehen nuen aukera.
Garbitu gabe sartu
zuk zure pertzera,
hasi hanketatikan,
aspertuko zera!

Eizmendi:
Pertza txikiak kasi
egin du enbazu,
oso lodia zaude
hala dirudizu.
Behetik eman nahi diot
ahal baldin bada su,
metxerorik ez det ta
puru hoi ekazu.

Lizaso:
Ni ohartu berri naiz
beronek esanda,
egin beharko diot
neronek demanda.
Sua pizteko ere
gero omen txanda,
Bizkaiko txerriana
selban pasako da.

Eizmendi:
Laster egosiko det
honi su emanik,
jateko esperantza
behintzat badaukat nik.
Holako lodi eta
zabala izanik,
gizenak apartatzen
ez daukagu lanik.

Lizaso:
Ni kolpetik jatea
zuretzat kalteko,
nola tribu guztia
ez dezun beteko.
Armak ere badauzkat
ehizera joateko,
neuk ekarriko dizut
nahikoa jateko.

Eizmendi:
Holako ehiz onikan
noiz zan bereziko?
Tribu honek ez al zun
hainbat mereziko?
Esan dizut, ez dezu
hortik ihesiko,
zure hezur askorik
ez dut ikusiko.

Lizaso:
Kanibal honek ez du
normalan itxurik,
sua pizteko ere
ez baitu bururik;
ez metxero, ez poxpolo,
ez daduka surik,
euria hasi du-ta
ez dut arriskurik.

Eizmendi:
Lehenago Bizkaikoa
aipatu duela,
orain jarraitu nahi det
nik lehengo nobela,
eta esango dizut
Lizaso honela:
bizarrez sutuko det
txerria bezela.

JOXE FERMIN ARGIÑARENA OTAMENDI

1953an jaioa Errazkinen

Argazkia: Estitxu Eizagirre.

ERRAZKIN

Nafarroako herri txikia, Aralarren magalean. Dena euskara egiten da. Erdara zer zen ere ez genekien eskolara joan arte. Gure haurtzaroa 10 urtera arte baserrian izan zen.

Gogoan dut Uztapide eta nola joaten ziren gure herri inguru haietara kantatzera. Txomin Garmendia ere bai, Manuel Lasarte, Lazkao Txikirekin amistadea egin genuen... guretzat jainkoak ziren.

Franco garaian Jon Azpillaga eta Jon Lopategi asko joaten ziren Nafarroako herri txikietara. Gure motoa hartu eta Errazkindik Mutrikuraino joaten ginen Azpillaga lotzera, telefonorik ez baikenuen. Gaia jartzea niri egokitzen zitzaidan eta biharamunean kuarteletik pasa behar izaten nuen, derrigor. Sartu orduko galdetzen nuen "¿qué he roto ayer?".

ETXEKO GIROA

Bertso giroa baino euskal giro handia zegoen. Irratiz Basarri eta bertsoak entzuteak bazuen bere erakargarria guretzat. Joxe Miel anaia bertso munduan hasi zen eta lorpentxo batzuek egin zituen, txapelketetara joaten zen eta ni ere hura imitatu nahian edo horrelaxe hasi nintzen. Lagunarte oso euskalduna eta bertsozalea genuen.

TOLOSARA IKASTERA

Familia handia ginen, hamabost senidetatik gazteena nintzen eta norabait eskolatu beharra neukan. Senide bat gaztetatik baserri batera joan zen morroi, beste bat Uruguaira joan zen eta hamazazpi urte nituela ezagutu nuen. Ni hamar urterekin Tolosara ekarri ninduten, Sakramentinoen komentura. Euskara hutsetik pasa ginen euskaraz egitera galaraztera, erdaraz ikasi behar, latinez lardaskatu eta grekoa ere ematen ziguten. Hor borroka handia izan nuen nire izaerarekin. Ikusten nuen nire hizkuntzan ez neukala hitz egiterik, erdara oso arrotza egiten zitzaidan, latina zer esanik ez...

Urtetara apaiz euskaldunak ere izan genituen, 1963-64an halako iraultza kulturala izan zen. Tolosako ikastetxea itxi egin zen, Iruñean bukatu nuen batxilergoa eta lanean hasi nintzen.

BERTSOTAN AUTODIDAKTA

Neure kasa ikasi dut, ikasi badut. 12 urtez gero bertsoa buruan ibiltzen nuela gogoan dut, Sakramentinotan zerbait zenean niri esaten zidaten bertsoak jartzeko. Pixkanaka, ez dakizu nondik edo zergatik, baina hor daukazu.

1981ean Amurizak Hernanin emandako ikastarora etorri nintzen.

LANEAN

Soldaduska eginda, 1972-73an, basomutil ibili nintzen anai batekin. Patua behar du: Azpeitian geunden, basoan, eta pentsio batean lo egin eta jaten genuen. Etxeko andrea nor izango eta Uztapideren iloba! Pakita Agirre Gabiria Olaizola, emakume ikaragarri ona.

Gero eraikuntzan hasi nintzen eta gaur arte.

HERNANI

Soldaduskara etorri, Hernaniko jendea ezagutu eta Hernani aldera bildu nintzen. Hernanik salbatu ninduen.

Andregaia aranoarra egin nuen (Maribel Olano, bera dut andrea) eta Ereñozun bizi zen. Bertso mundutik zerbait edaten hasia nengoen eta Ereñozu... ezin hobea zen! Ereñozun segituan lekutu nintzen. Hemen ezkondu ginen 1978an eta Hernanirekin segituan txertatu nintzen. Izan nuen suertea Juanjo Uria ezagutzekoa, Aterpe, Antton Garin, Joxe Anjel Tapia (oiartzuarra)... oso giro euskalduna zegoen. Hernanik ateak, besoak eta denak ireki zizkidan.

PLAZARATU

Lizardi saria irabazi nuen eta hortik hasi nintzen: Egunkari batek zerbait esaten du, Hernanin harreman onak neuzkan eta segituan jakin zuten... eta elur pilota abiatu zen.

Plazan santa eskean hasi nintzen, errebalida hor pasatzen zen. Lehenik Hernanin, Eusebio Igartzabalekin (1975-80 inguruan). Gero Ereñozun, Florian Oiarbiderekin, geroztik Joxe Mari Mujika "Anatx"ekin... Anatxekin hogeita gehiago urtean hutsik egin gabe atera ginen.

TOLOSAN BERTSOA AUSNARTZEN

Amistadea banuen Anatxen osaba Otañorekin, Joxe Luis Otamendirekin (aiarra), eta Xanti Zabalarekin eta Tolosako Lizardi kultur etxean biltzen ginen, Joxe Mari Agirre eta beste euskaltzale batzuek deituta. Bertsotan egiten genuen eta aztertzen genuen nola egin behar zen, gaiak nola jorratu eta abar. Bertsolaritza militantzia kultural moduan bizi genuen.

PLAZAZ PLAZA

1980tik 2000ra dezente ibili nintzen. Iparraldekoekin kimika ona genuen, Ernest Alkat, Mixel Aire Xalbador II, Jean Pierre Mendiburu, Txomin Ezponda, Jean Louis Laka... asko aritu nintzen haiekin. Bertsolari baino gehiago lagunak ginen. Gipuzkoan Anjel Mari Peñagarikano, Millan Telleria, Mikel Mendizabal, Imanol Lazkanorekin inoiz Ereñozun, Jon Azpillaga, Manuel Lasarterekin kantatu dut, Luis Otamendi, Xanti Zabala, nire anaiarekin dezente...

Hernanin Aterpe eta Garinekin. Militantziaz aritu ginen, euskal kultura suspertu eta gure ekarpena egiteko gure era zen. Festa guztietan kantatzen genuen eta omenaldietan eta herriaren arazoetan han izaten ginen.

Deustuko unibertsitatean kantatu dut Sebastian Lizasorekin! Hain eskola gutxikoa izan eta unibertsitatetik deitzea? Edo Arriaga batean kantatu dut, izugarria zen niretzat! Ez nuen nire buruan han bertsotan ikusten, tabernan botila ardoarekin, agian.

UTZI

Urteak aurrera, ikusten nuen eman beharrekoa emanda neukala. Familiarekin ere egon nahi nuen, semea heltzen ari zen, bertsotara egun guztirako joanez gero emaztea bakarrik geratzen zen semearekin... nekatzen hasi nintzen. "Bazegok zeinek egina, esku onetan uzten diat" pentsatu nuen. Gainera azukrearekin hasi nintzen borrokan, eta medikuak esan zidan nik banekiena: "ez zaizkik tentsio uneak komeni, horiek saihestu behar dituk".

SARIKETAK:

Ampo saria		Finalista
Artxanberri saria		Finalista
Lauaxeta saria	1980 - 1981	
Lizardi saria	1976	Txapeldun
Osinalde saria	1978	Finalista
Xenpelar saria		Finalista

TXAPELKETAK:

Gipuzkoako Herri ArtekoTxapelketa 1999 (Gai-jartzaile, arduradun Andoain-Urnieta taldean)		
Nafarroako Txapelketa	1983	Finalista (Donibane Garazi)
Nafarroako Txapelketa	1984	Finalista (Sunbila)
Nafarroako Txapelketa	1985	Finalista (Leitza)
Nafarroako Txapelketa	1986	Txapeldun (Doneztebe)
Nafarroako Txapelketa	1987	Finalista (Bera)
Nafarroako Txapelketa	1988	Finalista (Iruñea)
Nafarroako Txapelketa	1989	Finalista (Baigorri)
Nafarroako Txapelketa	1990	Txapeldun (Goizueta) Taldeka jokatu zen; kideak: M. Arozena, A. Olano eta E. Fagoaga
Paulo Yantzi I saria (Nafarroako Txapelketa)	1979	Lesaka, saio bakarra
Paulo Yantzi II saria (Nafarroako Txapelketa)	1980	Lesaka, saio bakarra
Paulo Yantzi III saria (Nafarroako Txapelketa)	1981	Finalista (Lesaka)
Paulo Yantzi IV saria (Nafarroako Txapelketa)	1982	Lesaka, saio bakarra
Txapelketa Nagusia	1982	Azken-laurdenak
Txapelketa Nagusia	1986	Azken-laurdenak:
Txapelketa Nagusia	1989	Azken-laurdenak:

Ez naiz lehia zalea izan. Oso gaizki pasatzen nuen. Konturatzen nintzen nire mugak banituela. Etorri ziren gazte gehiago, kultura handiagoa zutenak eta "utzi pasatzen, segi dezatela beren bidea" pentsatu nuen.

1982 Euskal Herriko Txapelketa (Maiatzaren 15, Tolosa)

Hasierako agurra:

Agurtzen zaitut Tolosa
bertso leku aproposa
bertso kantari nator
eta hau da poza!
nahiz eta estutu boza
saio on bat nahi dut osa
bertsozale jatorrok
dezazuten goza.

1989 Nafarroako Txapelketa (apirilaren 23, Baigorri)

Zaldi lasterketa batean gaude. Zuk Joxe Fermin Argiñarena lau mila duro edo mila franko jokatu dituzu Joxe Migel Argiñarenaren alde. Zu Joxe Migel lasterketa egitera asto zahar baten gainean etorri zara.

J.F. Argiñarena:
Jinete honekin nitun
eginak lainezak
begira zer ekartzen
entrenatu ezak
asto zaharra(re)n pausoak
dira aldrebesak
lekutara joan dira
gaur nere ametsak.

J.M. Argiñarena:
Nere asto zaharrarekin
egin det ahalegin
apustuan saiatu naiz
beti jator ta fin
galdu detela ta zertan
daukat hainbeste min?
trabesa nik esanda
hik ez dek gaur egin.

J.F. Argiñarena:
Jokatzen dun guztiak
beldur izaten du
eta kontu hoietan
egi esaten du
Norteko tren zahar baten
antza ematen du
nunbait lastoarekin
dute ta mantendu.

J.M. Argiñarena:
Etzakela hemen esan
gaur kontu txororik
ez diat nik baldarka
emanda pausorik
ta etzaikela ahaztu
nik esandakorik
ez al dakik ez dagola
joko segurorik.

J.F. Argiñarena:
Joku segurorik ez
nago ohartuta
hogei mila pezta naiz
gaurkoan galduta
zerbait egitera ni
nago behartuta
mugituko da astoa
piper bat sartuta.

J.M. Argiñarena:
Asto zaharra(ri) piparra
sartu edo ez sartu
erreminta zaharra ez zak
horrela behartu
egin zitekenik nik
ez diat ukatu
badakik hurrengoan
nere alde ez jokatu.

JULIAN ALBISTUR

1950ean jaioa Epele-Borda baserrian

Argazkia: Estitxu Eizagirre.

Gure aita bertsozalea zen, baina besterik gabe, garai hartako baserritar gehienak ziren bezala. Etxean Txirritaren bertso zaharrak genituen, Makazagaren inprentakoak, eta umetatik irakurri ditugu bertsoak: Pello Errota, Pedro Mari Otaño, Genoveba de Bravanteren sorta...

UZTAPIDE ETA BASARRI ENTZUNAZ

Zaletu-zaletu 11 urterekin egin nintzen. Ereñozuko festetan Uztapide eta Basarri haiek entzunda. Txundituta geratu nintzen, bertsoaren magiak harrapatuta.

1975ean ezkondu eta Errenterian jarri ginen bizitzen.

TXIKI ETA OTAEGI

Nire lehen bertso sorta extraofiziala Francoren azken azainari jarri nion: 1975ean FRAPeko hiru kide eta Txiki eta Otaegi fusilatu izanari. Oraindik ez nuen ongi menperatzen bertso-jartzeko langintza, eta nire kabuzko zortzi bertso jarri nituen.

FAGOLLAGAN IKASLE, IKASTOLAN GURASO

Franco garaikoak gara, Fagollagako eskolan "cara al sol" kantatuz hazitakoak. Sei urtera arte euskaraz bakarrik nekien, eta eskolara hasi eta han erdara ikasi genuen. Ikasi? bai, azkar asko, makil motz harekin! Nik ikasketa denak erdaraz egin ditut.

1997an sorta honekin Joxe Legarreta lehiaketako bigarren saria eskuratu nuen: "Euskeraz bizi eta gazteleraz hezi, tortura hura ez genuen merezi" (Fagollagako eskolaz).

1
Argazki zahar baten bila,
igaro dut otsaila;
armairu eta kajoi miatzen
naiz oso abila.
Bizitzaren maratila
eta oroitzapen pila,
argazki hortan jasoak daude
ta ager dadila!

2
Kartazalean itxia,
hain dokumentu bitxia;
auskalo noiztik zegoen hantxe
gordeta utzia.
Badu zer erakutsia,
ez baitzegoen hautsia;
gaur ikusita, egia esan,
dirudi kurtsia.

3
Berrogei urtetik gora...
azkar pasa da denbora!
Garai hartako gauza ugari
datorkit gogora.
Petatxuzko alkandora;
anaiaren kazadora...
Gauzak aldatu dira ordutik
gaurko haurtzarora!

4
Gure lehenengo eskola,
ez zen izan ikastola;
garai haietan ez zutelako
onartzen inola.
Heziketa espainola,
eta esango dut nola:
kanta araziz "Cara al sol", ta ez
"Gernikako Arbola".

5
Kanpokaldean bandera,
gorri-horia gainera.
Gela barruan argazki zaharra:
zen Franco berbera.
Mintzatzeko, gaztelera,
bakarra gure aukera.
Ama hizkuntza kontutan hartuz
heziak ez gera.

6
Gogo onez ezin ekin,
orduan, sei urterekin:
han kastilanoz hitz egin behar
nahiz ezer ez jakin!
Hizkuntza arrotzarekin,
lortzeko nahiko etekin,
"A" ereduan hezi gintuzten,
makil motzarekin.

7
Hizkuntzaren eraginez,
sarritan buruko minez.
Dotrinan ongi moldatzen ginen
euskeraz eginez.
Errosaioa latinez,
hitzak ulertu ezinez.
Hiru hizkuntza erabili ta,
bat ongi jakin ez!

8
Eskolak, gela bakarra;
ikasleak barra-barra:
batek mukia zintzilik eta
besteak puzkarra...
Maistra genuen zakarra:
matrailean hatzaparra;
diktaduraren pedagogia:
umeen negarra.

9
Berrogeita hemeretzi;
ia ezin da sinetsi.
Hogeita hamaika mutilak eta
neskak ho(ge)ita zortzi.
Nola zitekeen onetsi?
Pedagogoak ez etsi,
irakaskuntza hobetzekotan
bihar edo etzi.

10
Ereñozu eta Latxe;
Fagollaga-koak hantxe.
Lastaola ta Epele-tarrak
gogoan oraintxe.
Ikasteko "a", "be", "ce", "che",
"de", "e", "efe", "ge", ta "hache"...
Zailtasun asko genituen guk
mekaguen la letxe!

11
Argazkia da lekuko
eta nik ez dut salduko;
ttikitan jasan genuenari
ezin egin uko.
Epele-Ereñozuko,
denek dute sinestuko:
hor galerazi zuten hizkuntza,
ez dugu ahaztuko.

12
Herri zahar honen kultura,
hizkuntza eta ohitura,
galtzeko aina indartsu ez zen,
izan diktadura.
Genozidio saio hura,
berriz nik ez nuke gura
eta ez bedi inoiz itzuli
gure ingurura!

Semea ikastolan hasi zenean nire buruarekin lotsa ere sentitu nuen, euskaraz idazteko gai ez nintzelako. Nire ahalegina hori izan zen, guraso gisa buru-belarri nenbilen ikastolan eta txostenak euskaraz idazten nituen. "Bertso sortaren bat egin beharko diagu..." hori izan zen nire buruari jarritako erronka. Euskaraz idazteko ohitura hartzeko hasi nintzen sariketetan.

KILOMETROTAKO LEHEN KANTAREN EGILEA

Publiko egindako lehenengo sorta 1984an jarri nuen, ikastolen Kilometroak festa Errenterin zela eta. Ikastolako ordezkari nenbilen Federazioan, festa Errenterira ekarri genuen, eta buru-belarri sartuta nengoen antolaketan. "Hau da nire momentua, bertso sorta bat egin behar dut" pentsatu nuen.

Garai hartan bertso jarrien Xenpelar sariak ospe izugarria zuen eta parte hartzeko baliatu nuen. Bertso sariketa hura antolatu zen azken aldia izan zen. Nik uste nuen onak zirela, orain ikusten ditut eta "Julian, ze ausarta izan hintzen!" esaten diot neure buruari. 114 bertso sorta eta 77 egile aurkeztu ziren. Pentsa zer jendek parte hartu zuen: Jexux Mari Mendizabal "Bizargorri"k irabazi zuen, bigarren Xabier Amuriza geratu zen (orduan Euskal Herriko Txapeldun zen) eta hirugarren Pello Esnal. Ni bezala saririk gabe Andoni Egaña, Jon Sarasua, Rufino Iraola, Arantzazu Loidi, Juanjo Uria... handik hilabete batzuetara, igandez, Diario Vascon argitaratu ziren nire hamalau bertso haiek.

Nire bertso sorta hori hartu zuten herriko musikari batzuek (Donato Larrañaga tartean), lau bertso aukeratu eta doinua jarriz, Kilometroei abestia egin zioten. Ikastolako umeek kantatu zuten, eta nire semeak eta oraindik buruz dakizkite bertso haiek. Kilometroetako lehen kantua izan zen.

EHUN SORTA ETA LIBURUA

Hasi nintzenean komentzituta nengoen sekula ez nuela sariketa bat irabaziko. Bigarren sorta Zapirain Anaiak sarirako egin nuen, 1989an (pentsa, lehen sortatik bost urtera!). Lehen aldia zen Errenteriako bertso eskolak antolatzen zuena, eta nire buruari esan nion: "ni herri honetan bizi naizenez, urtero parte hartuko dut, zintzo". Hortik aurrera hasi nintzen urtero Errenteriakoan parte hartzen, eta herriz kanpokoetara ere ausartzen. Geroztik urtean bost-sei sorta jarri izan ditut. Urte batean 9-10 sorta ere egin nituen, baina gehiegi da.

Urte guzti hauetan bost sariketa irabazi ditut (tartean Basarri Saria), beste bostetan bigarren egin dut, eta beste bostetan aipamen bereziak jaso ditut. Nire lana oso apala izan da, baina bihotz handiz egindakoa. 98 sorta eginak ditut eta ehunera iritsi beharko dut!

Gaur egun parte-hartzea asko jaitsi da, eta ekimen hauei eutsi nahirik jarraitzen dut idazten.

Nire bertso sortak Dozenaka sortuak liburuan bildu nituen (Auspoa 320) 2011n.

SEMEA ERE JARTZAILE

Semea, Aitor, ni baino jartzaile hobea da. Sari gehiago irabazi ditu, gogotsu ikusten dut eta niri ere harrotasun puntua ematen dit! Bilobari ere bertsozaletasuna sartzen saiatuko naiz.

IÑAKI ARANZADI

1937an jaioa Seguran

Argazkia: Estitxu Eizagirre.

Misteriosoa da. Gure etxetik inor ez da bertsotarako zaletasuna duenik. Bazegoen ohitura esaerak bat-batean botatzekoa "paseon? gauza onen deseon!"; "ilustre? zuk hala uste!" eta antzerakoak, horrelako joerak gure aitari entzuten nizkion. Baina elizan bertsoak kantatzea oso kontrakoa zuen bai aitak eta baita anaiek ere "elizan nola kantatuko duk bada?".

ELIZAN BERTSOAK KANTATU?

Ahal dudan guztietan! Baditut bertsolariei momentu bakoitzerako harrapatutako bertsoak, eta haiek erabiltzen ditut bataioetan, ezkontzetan... Hiletetan beti nik egindakoak botatzen ditut. Bertsoak jarri egiten ditut baina denak bota egiten ditut, ez daukat bat bakarrik ere gordeta! Ursuaranen (Idiazabalgo auzoan, apaiz egon nintzen lehenbiziko herrian), duela 48 urte bertso hau jarri nuen ezkontza baterako eta geroztik hau erabiltzen dut:

Senideekin bildurik
zaudete gaur alai
denbora igaro da
une honetxen zai
zuen amets ederrak
biziz bihurtu nahi
Idoia eta Jexux
heldu baita garai
esateko elkarri
bihotzetikan bai.

Hiletetan askotan botatzen dut Xalbadorren hau, eder askoa:

Penatan da etxea,
penatan auzoa
horrekilan batera
herri bat osoa
gizon bat galtzea ez
baita gauz gozoa
baldin gizona bazan
zu bezelakoa.

Ni bertsoaz izugarri baliatu naiz.

HERNANIN

1968an etorri nintzen eta 1985ean joan. Tartean hiru urte Ameriketan egin nituen: 1972tik 1975era motxila hartu eta Hego Amerikari buelta eman nion. Argentinako panpan hasi eta Amazonasen bukatu nuen.

70eko hamarkadaren hasieran ibili nintzen auzotako festetan kantuan, Txintxuaneko hartan, Zikuñagan... beste bi-hiru bertsolarirekin: Xanxanategi, Tapia... Ni ez nintzen kantatzera ausartzen, oso lotsatia izan naiz, baina horiekin animatu egiten nintzen.

Plazan oso zeharka aritu naiz, asteartetako taldean egiten nuen bertsotan.

1985ean Urnietara etorri nintzenean utzi behar izan nion Hernanira bertso eskolara joateari. Etxeko andre batekin bizi nintzen (Kristina Egiguren) eta gauean berandu etortzea ez zitzaion gustatzen. Pena handiarekin utzi nion.

JUAN MARI LEKUONA PEÑA OTAÑON

Boladatan mutilzahar batzuek biltzen ginen Elur-Txori eta Peña Otañon ere bai... Ohitura xelebrea genuen, igandetan oesteko pelikula botatzen zuten Aitor zineman, eta haruntza joaten ginen, gallinerora. Behin bururatu zitzaidan afaltzera Juan Mari Lekuona ekartzea. Nire bizitzan pasa dudan arratsalde onena izan zen hura. Harrigarria. Kitarrarekin etorri zen eta Txirritaren bertsoak kantatu zituen. Gero berari mila bider esan nion: "Bertsoa kantatzeko hire xarma ez zioat inon inori entzun".

PABLO JOXE ARISTORENA LASA

1968an Kardaberaz kalean jaioa, Iruñean bizi da

Argazkia: Estitxu Eizagirre.

ETXEKO GIROA

Banuen aitona bat, Pablo Lasa, oso bertsozalea zena. Uztargilea zen eta Atzietan zeukan bere lantegia. Bertso asko entzuten genizkion aitonari. Handik zerbait etorriko zen.

1981. HASIERAK

1981ean izan zen I. Eskolarteko Txapelketa. Ordurako, Urumea ikastolan bertsolaritza lantzen genuen Joseba Labururekin eta Joxe Mari Gabiriarekin. Urumeatik ume talde bat joan ginen Baldako saio hartara, ikasitako bertsoak abestera: Jon Eizmendi, Joxe Mari Aizaga, anaia Juan Batti Aristorena, Niko Lizeaga... Nik 12 urte nituen. Egun hartan liburu bana eman ziguten opari eta 2.000 pezeta.

Ordurako Xabier Amuriza bertso ikastaroak ematen hasi zen, eta Hernanikoa urte hartan bertan azaroan izan zen. Ni ikastaroko gazteena izan nintzen. Izena ematera joan nintzen eta udaletxeko idazkariak, Pilar de Simonek, ezetz esan zidan, txikiegia nintzela. Ez zitzaidan batere gustatu, eta alkatearengana, Juanjo Uriarengana joan nintzen eta gertatutakoa azaldu eta esan nion "hau ez da posible! nire ilusio guztiarekin etorri naiz eta!". Juanjo Uria nirekin etorri zen eta izena eman nuen. Hala, Eskolarteko Txapelketan jaso nituen 2.000 pezeta haiek inbertitu nituen Amurizaren ikastaroan. Ehundik gora lagun bildu ginen astearte arratsero, azarotik abendu erdira arte. Xabier Amurizak izugarrizko glamourra zeukan eta komunikatzeko gaitasun itzela: denak inplikatzen zituen jarritako ariketetan.

ASTEARTETAKO TALDEA

Ikastaroa bukatu zenean, Iñaki Aranzadi apaizak esan zuen mereziko zukeela Hernanin jarraipenik ematea. Taldea osatu zen, eta asteartero biltzen jarraitu genuen, Udaletxeko azken solairuko sala handi batean. Oso talde handia zen, jendea ahal zuenean etortzen zen, inolako loturarik ez zegoen borondatea salbu. Askotan eta askotan Joxe Mari Mujika "Anatx" eta biok bakarrik bildu izan ginen.

Urtean behin edo bitan Benta-Berrira joaten ginen, egun pasa. Aurrena pilota partida egiten genuen, gero bazkaria eta ostean gure arteko txapelketa.

SAKRISTIAKO BERTSO ESKOLA

Garai hartan monagiloa nintzen. Larunbatetan, Iñaki Aranzadik arratsaldeko 18:00etako meza eman ondoren, sekulako bertso saioa egiten genuen Hernaniko parrokiako sakristian. Hor bertsotan aritzen ginen Iñaki Aranzadi, Manuel Beraza apaiza, eta hiru monagiloak: Joxe Domingo Lopetegi, anaia Juan Batti eta ni. Joakin Dorronsorok noizean behin punturen bat botatzen zuen eta entzule pribilegiatua izaten genuen don Eusebio parrokoa, bere pipatzarra errez. Jo eta fuego aritzen ginen bertsotan, niretzat sekulako entrenamendua zen.

Askotan sakristiatik Kristina Egigurenen etxera joaten ginen, Iñaki Aranzadi han bizi baitzen. Kristinak sekulako afariak jartzen zituen eta hor jarraitzen genuen bertsotan. Kristinaren etxea pieza klabea izan zen. Askotan Jon Eizmendi eta biok izaten ginen han afaltzen eta kantuan. Aranzadik bere soldataren zati handia horrelako afaritan jartzen zuen. Afaloste horietan ohorezko entzule bat izaten genuen: Iñakiren anaia Dionisio Aranzadi, Deustuko Unibertsitateko errektorea. Jon Eizmendi eta biok mutikoak ginen, eta Iñaki Aranzadiri esker lortzen genuen etxean baimena halako ordutan erretiratzeko.

1982. BOOMA

II. Eskolarteko Txapelketan, Jon Eizmendik eta biok sari bana jaso genuen. Gure belaunaldikoak dira Sarasua anaiak, Felix Iñurrategi, Xabier Euzkitze, Arantzazu Loidi, Jon Iñaki Izarzelaia, Danel Goikolea, Aitor Arbelaitz oiartzuarra... 1982ko txapelketa horren ondoren, udara hartan eman zen fenomeno bat izan zen haur-gazte bertsolarien saioak antolatzea. Sekulako saio pila antolatu ziren Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa iparraldean.

Nik 13 urte nituen eta Jon Eizmendik 12. Uda hartan Hernaniko auzoetako festetan 10 saio egingo genituen. Oiartzunen beste saio mordo bat, Aranon, Goizuetan, Donostian ia auzo guztietan... Gipuzkoako beste zenbait herritan eta Bizkaian ere ibili ginen.

Bazirudien zernahi gauza antolatuta ere, bertsoak tartean behar zuela. Gehiegizkoa izan zen. Uda hartan igual egingo genituen 80-90 saio, ia egunero. Neurria galarazi zigun, agian denbora baino lehenago nekarazi ninduen.

Donostiako Marianistetan ikasten nuen eta bula bereziak izaten genituen batera eta bestera kantatzera joateko. Uztapideren hiletara bertsotara joan ginen Jon Eizmendi eta ni! Gaurtik ikusita oso frikia iruditzen zait, nire seme-alabei ez nieke utziko. Baina orduan hala gertatu ziren gauzak.

KANTULAGUNAK

Normalean beste gazteekin aritzen ginen, eta noizean behin helduekin ere kantatzen genuen.

Ilusio berezia egin zigun Hernaniko plazan egindako saioak. Bertan kantatu genuen Joxe Mari Mujika "Anatx", Jon Eizmendi eta hiruok, Xabier Amuriza, Jon Lopategi eta Lazkao Txikirekin. Gu bezalako mukitsu hasiberrientzat horiekin kantatzea izugarria zen! Lazkao Txikirekin beste pare bat saio ere egin genituen.

1985-86an besteak beste Sebastian Lizaso, Mikel Mendizabal, Millan Telleria eta Anjel Mari Peñagarikanorekin aritu ginen.

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETAN

Iruñera bertsotan egiten genuen ikasle andana iritsi ginen: Nikolas Izeta, Felix Iñurrategi, Manu Gomez, ni... gipuzkoarrak denak. 1988an Nafarroako txapelketan parte hartzera gonbidatu gintuzten eta han atera ginen. Mixel Xalbadorrek irabazi zuen txapela, baina ni ere zori zorian egon nintzen. 19 urteko kanpoko batek Nafarroako Txapelketa dantzan jartzea oso desegokia izan zen. Antolatzaile aritzen zen Eugenio Arraiza eta esan zidan "agian komeniko da datorren urtean zu ere antolatzen aritzea, baina ez parte hartzea", "bai, bai, lasai" erantzun nion. Nik ez nuen gehiago parte hartu. Nafarroako Bertsolari Elkartean aritu ginen lanean Lontxo Aburuzarekin, 1990 arte edo, saioak antolatzen eta gazte sariketen bidez Nafarroako bertsolari gazteen mugimendua bultzatzen (Estitxu Arozena, Xabier Silveira...). Iruñeko kazetaritza ikastaroak burutu eta orduan utzi nuen Elkartea eta baita bertsoa ere.

1987ko Nafarroako Txapelketako kanporaketan. Ondoan Felix Iñurrategi eta Joxe Fermin Argiñarena dituela. Argazkia: Argia.

TXAPELKETAK:		
Gipuzkoako Kanporaketa	1988	
Nafarroako Txapelketa	1987	Finalista
Nafarroako Txapelketa	1988	Finalista
Txapelketa Nagusia	1989	Azken-laurdenak

BAT-BATEKO SARIKETAK:		
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1982	Txapeldun (txikitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1984	Finalista (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1985	Finalista (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1986	Txapeldun (txikitan)
Artxanberri Saria	1984	Txapeldun
Lizardi Saria	1985	Txapeldun
Osinalde Saria	1985	Txapeldun
Xenpelar Saria	198	Txapeldun

BERTSOA UTZI

Hainbeste, hainbeste ibili ginen, ze bertsoz ase nintzen. Denak ere entrenamendu oso onak ziren, baina pentsa zer saturazio maila nuen: Asteartetan udaletxean biltzen ginen bertso eskolan, larunbata goizetan Urumea ikastolak bertso eskola antolatu zuen, bertako ikasleentzat. Oarson zituen lokaletan biltzen ginen Joxe Luis Urdangarin, Iñaki Zelaia, Jon Eizmendi... Larunbata arratsaldetan, meza ondoren, sakristiako bertso saioa egiten genuen. Larunbata askotan sakristiatik atera eta Kristina Egigurenen etxera afaltzera, eta hor beste saioa... hori bai, oso gustura ibiltzen ginen denetan, lagunarte zabala genuen...

Horri gehitu, gainera, 1982an izan zen booma, ume eta gaztetxo denok asko ibili ginen. Ez dut uste 12-13 urteko ume batentzat egokiena denik. Ordukoetatik ez dakit egun inork bertsotan jarraitzen duen.

Bestalde, kazetaritza ikasketak egiten ari nintzela kanpora ateratzen hasi nintzen, Frantziara, Alemaniara... konturatu nintzen gazte bezala banituela ezagutu nahi nituen beste esparru batzuk. Ordurako bertsoa utzia nuen, baina 1991-1992an seminariora sartzea erabakigarria izan zen, orduan dena utzi bainuen. Agian erradikalegi utzi nuen bertsoa.

BERTSOAK EMAN DIDANA

Aukera izan nuen Euskal Herria ongi ezagutzekoa eta harreman asko egin genituen. Asko ibili nintzen Ipar Euskal Herrian, asko. 80ko hamarkada bukaeran egindako harremanak mantentzen ditut. Hori da bertsotatik gelditzen zaidana. Besterik apenas. Noizean behin punturen bat botatzeko gai naiz, gehiago ez.



1989ko Euskal Herriko Txapelketan.
Argazkia: Argia.

IKASKETAK ETA BIZILEKUAK

Iruñean kazetaritza ikasi nuen. Teologia ikasketak Donostiako seminarioan hasi nituen eta 1996an Madrilera joan nintzen. Ikasketak bukatu eta ez apaiztea erabaki nuen. 2002an Parisera joan nintzen eta 2010ean itzuli nintzen Iruñera. 14 urte bizi izan naiz Euskal Herritik kanpo.

LANA

Batez ere kazetari lanetan aritu naiz eta dokumentalista. Parisen Euskal Etxean aritu nintzen bolada batez lanean eta finantza munduan beste pare bat urtean. Egun Eugenio Arraizaren morroi egiten dut lan. Bere memoriak idazten ari da eta memoriak dokumentatzeko agiriak bilatzen dizkiot, testuak zuzendu...

Argitaratutako liburuak: Nafarroako bertsolaritza. Nafarroako Gobernua , Iru

Liburu hori 1991n idatzi zen, korrika eta presaka eta hamar eskurekin. Garai hartan, Bertsolari Egunean bertsolari zaharrak omentzen ziren. 1991koan Teodoro Hernandorena, Emile Larre eta Mariano Izetaren omenaldia egin zen. Hiru horiek izan ziren Nafarroa osoan (Ipar eta Hego Euskal Herrikoan) bertsolaritza mantendu zutenak. Eta omenaldirako liburua idaztera bultza gintuen Eugenio Arraizak. Lontxo Aburuza, Kike Diez Ultzurrun eta hiruok egin genuen, nahiz eta nire izena jarri zen.

1988 Txapelketa Nagusirako Gipuzkoako kanporaketa (azaroaren 20a, Villabona)

Jubilatuen bidaian doaz eta Joxe Mari Izeta amona ohartu da Pablo Joxe Aristorena aitona gidari bezala doan neska gazteari kinuka ari dela.

Izeta:
Gure aiton koskorrari
lerdea dario,
begiak okertuak
zer erremedio,
neskatxa gazte horri
eginaz adio,
zure amona zaharrak
ez al du balio?

Aristorena:
Noski balio dezu
hala ere apurra,
zergatikan ez egin
neskari agurra,
maitea daukazu hain
azala zimurra,
zaharra naiz baina nahi det
haragi samurra.

Izeta:
Baina zuk zahartzaroa
daukazu baldintza,
beraz ahaztu ezazu
holako langintza,
nahiz ahotik darizun
lerde eta bitsa,
ez zaitu onartuko
alperrik zabiltza.

Aristorena:
llusioak egin
gaur bere kontura,
ni ez nau onartuko
ta ez zait ardura,
baina ene maitea
ikustean hura,
zurekin e(g)indakoak
datozkit burura.

Izeta:
Beraz gure bizitza
ez dezu ahaztua,
orain lasaitua naiz
lehen nengon estua
oraindik aurkitzen naiz
amona preskua,
gozatu genezake
luzatu eskua.

Aristorena:
Amonak bota dizkit
hainbeste enbite,
emakumeek ondo
hortan badakite,
oraindik maite zaitut
maite nere maite,
hura kapritxua zan
lasai egon zaite.

1988-08-20 Goizueta, jaialdia

Nolako emakumeak gustatzen zaizkizue.

Sebastian Lizaso:
Askorentzako emakumea
haurrak e(g)iteko makina,
baina neretzat eskubidetan
gizonezkoen berdina,
eta neretzat nik zer nahi detan
esanez hau da mitina:
gizonezkoan hutsegiteak
errez barkatzen dakina.

Jon Lopategi:
Hutsagitetan errez jauzten da
gizonezkoaren jira,
emakumea, maitasun hori,
ez zazu inoiz erretira,
nere bihotza zabal da beti
lore hoieri begira,
eta gehienak gustatzen zaizkit
borondatetsu badira.

Imanol Lazkano:
Emakumeak gure eskubide
berdinetan balirake,
zalantzarikan ez dut batere
denok hobeki ginake,
baina barkatzen jakitez gero
gure hutseginen truke,
apaizek baino barkamen gehigo
eman beharko lukete.

Joxe Fermin Argiñarena:
Gure andreak, lagun Lazkano,
bazekitek bai barkatzen,
estualditan oso maitakor
nola gaitun besarkatzen,
pikaro samar jokatzen degu
ta horrekin naiz kezkatzen,
sentzila behintzat izan dadila
besterik ez det eskatzen.

Pablo Joxe Aristorena:
Neronek oraindik asko ez dut
emakumeen dotrina,
baina halare egina daukat
maite dudan imajina,
izan dedila euskaldun ona
langilea eta fina,
izan dedila eman bezela
berak e(re) hartzen dakina.

Manolo Arozena:
Esijentziak haunditzen ere
ez naiz askorik aritzen,
edozertako tokatu ere
gaur ez da inor harritzen,
tarteka a(r)i naiz lehen daukatena(r)i
ta beste batzuei beitzen,
gutxieneko jakin dezala
arrautza batzuk prejitzen.

Sebastian Lizaso:
Gizonezkoak bakardadean
ez daduka zer eginik,
amarengandik hasi begira
zer degu haren berdinik,
Goizuetako andrezko danak
utzi nahi ditut jakinik,
nahizta Lizaso inork ez maite
denak maite zaituztet nik.

Jon Lopategi:
Maitagarriak dira izan ere
nola egun hala gaba,
nahiz ta noizbehinka jartzen diguten
oztopoa edo traba,
geu golfo izan eta aingeru
batzun bila joaten gara,
eta emakume txar asko ez da
norbera gizona bada.

Imanol Lazkano:
Nunbait nahi zuen sentimentuak
guk azaltzea kanpora,
galdetu digu zer ote leike
bakoitzak gustoko lora,
eskerrak bera(r)i galdetutzea
honi ez zaiola gogora,
bestela ziur ginake bai gu
lista hortatik kanpora.

Joxe Fermin Argiñarena:
Emakumeak ez du behar da
inoiz gizonan esklabo,
hori gertatzen baldin bada inoiz
maitasun danak akabo,
emakumearen alde mintza
naiz gaur baino lehenago
nerea ni hainbeste bada ta
ni oso konforme nago.

Pablo Joxe Aristorena:
Konforme dago beraz gizona
zuhurra eta apala,
neronek berriz ez daukat eta
kezketan nabil zabala,
emakumerik ez dut neurtzen
neska orok jakin dezala,
bat maite banu, maiteko nuke
soilik bera dan bezala.

Manolo Arozena:
Emakumeen meritu asko
hartzen ditugu serio,
edo bestela gure ondotik
egingo dute adio,
sentimentutan baikorra nahi dut
edo zer erremedio,
gure erristak aguantatzeko
denak ez dute balio.

ERNANI ETA EUSKERA

Bertso auek jarri nituen, len nola izaten giñan gogoratuta: orduko sagardotegi eta umorea, bertso zar eta berriak eta alkartasuna; eta gaurko diferentzia ikusita. Beste mundu bat baizan. Gaur kanpotarrez beteta dago dana, eta lengo sanidade ura falta da.

1
lru edo lau bertso
bear dizkat jarri,
bizia zor diodan
erri polit orri.
lñork ez du joan nai,
pillaka etorri,
or dago ispillua
zer degun Ernani.

2
Nere erri maitea,
etzaitut aztutzen,
umetako garaia
zait gogoratutzen.
Arrats osoak igual
ditut pasatutzen,
oiera joan eta
zutaz pentsatutzen.

3
Askotan egiten det
ixilik negarra,
ain baizaitut maitea,
jaioterri zarra.
Izango degu seme
leialen bearra,
ez dezatela egin
gugatikan parra.

4
Bat badegu balio
duena urria,
alkate izandua
Juan Joxe Uria.
Ura saiatutzen da
ematen beria,
alako asko bear
ditugu ordia.

5
Saia gaitezen danok
euskera il ez dedin,
seme danen laguntza
litzake atsegin.
Ez jakiteak ditu
ainbeste utsegin:
euskaldunak izan da
erderaz itzegin.

6
Ola ikusten ditut
beatzitik zazpi,
beren umetxoairi
erakusten gaizki.
Esnatzeko ordua
izango da noski,
ez da «euskalduna naiz»
esatea aski.

7
Orrela guk euskera
nola aberastu?
Damakigun jokerak
zentzurikan eztu.
Emen au pasa baietz
egin leike apostu:
kanpokuak ikasi
ta etxekoai aztu.

8
Izkuntza guztietan
lenengo lorea
dala esaten dute
munduan gurea.
Garbia ta apala,
biraorik gabea,
gordetzen dakiena
Jaunaren legea.

9
Izkuntza maite duten
zenbait seme abil,
bere etsaien kontra
borrokan badabil.
Asi zaigu piztutzen,
egondu zan umil,
lagun zaiguzu, Jauna,
ez dezatela il.

[**Paulo Zubiarrain**, Gaziak eta gozoak, Auspoa]

Kalean, Zikuñagan, dena erdaraz egiten zen: guk 10 urte genituenetik aurrera jende guztia kanpokoa zen, andaluzak, Extremadurakoak, eta dena erdaraz egiten genuen. Hernanin kalean ere dena erdaraz egiten zen, eta etxekoak salbatu zuen gure euskara. [**Juanjo Uria**]

TABERNA GIROA

Orduan bazen bertsotarako giroa! Edozein tabernetan! Azurmendi, Egañanea, Amerikanuanea (peri kalearen bukaeran, behean), Zinko enea, Deportivo... "txissst! bertsotan ari dituk eta!" jendea adi jartzen zen. Eta bertsoa kantatuta merienda zenuen! Gerora, plazan pixka bat galdu egin zaio errespetu hori bertsoari. [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

Guk 17-18 urte genituela Xamarbide ostegunero etortzen zen. Gu lanetik etorri zain egoten zen eta Zinko ene, Justo, Huizi, hiru-lau tabernetan aritzen ginen, eta 30-40 lagun atzetik ibiltzen genituen. Ardoa debalde nahi adina, eta kantatu beldurrik gabe. Hasteko lotsarik gutxiena hark izaten zuen, eta guk segi. Hark giro hori jarri egiten zuen. Orduan bertsoa sumatzen bazen jendea biltzen zen bela. Ostegun iluntzean baso erditan jende pila ibiltzen zen. "Hi, etorri hai, ikasikok bai, nekin aitzebayaz" esaten zidan. [**Joxe Mari Mujika"Anatx"**]

Orain baino gehiago kantatzen zen. Nire koadrilakoek "hi Kaxka, bota bertsoa!" esaten zidaten (orduan kaskagorria nintzen, orain kaskazuria naiz baina...). Sagardotegira joaten ginenean dozena erdi bertso bota gabe ez ginen ateratzen. Ohitura hori bagenuen. [**Antton Garin**]

Kontraste handia zen. Andoainen gerora bertso eskola sortu zen baina kalean ez zegoen Hernanin zegoen girorik. Niretzat sekulakoa zen hainbesteko koadrila elkartzea, bertsoez entenditu, egin edo jolasteko ahaleginean. [**Aitor Mendiluze**]

BERTSOLARIAK

Tturkorekin asko aritu nintzen tabernan. Eta Joxe Manuel Errazkin "Otsua"k ere bertsotan asko egiten zuen. 1985-86an, kalean bertsotan egiten zuen aitona mordoa zegoen. Etxaniz karnizeroaren aita eta... Iñaki Aranzadi apaizarekin joaten bazinen, "hau nire laguna da eta kantatu ezaiozu bertso bat", kalea goitik behera pasatzerako dozena bertso bota beharko zenituen. [**Joxe Mari Mujika"Anatx"**]

Salto handia zegoen garai eta baldintza jakin batzuetatik sortutako bertsolarietatik gerora sortzen hasi zirenetara. Koska ikaragarria zegoen bai denbora aldetik, bai perfil aldetik eta baita adinaren aldetik ere. Garai hartan kalean oso presentzia ahula zuen bertsolariak, eta presentzia zeukanak oso irudi txarra. Niri etxean beti esan didate "baina hik ba al dakik zertan ari haizen?". Bertsolaria taberna-zuloa, fama txarra... orain ez dakit irudi ona daukan, baina orduan behintzat txarra zuen. [**Joxe Luis Urdangarin**]

SAIOAK

Gogorra izaten zen niretzat gaiak jartzera jende aurrera ateratzea. Ezinean aritzen nintzen. Azkenerako sortu zen Xoxuatarretako Juanjo Uria eta bera aritu zen. [**Inaxio Mari Zubeldia**]

Portuko festetan eta Karabelen kantatzen genuen. Karabelen batean jendea builan ari zen eta kantatu ezinik genbiltzala, Anatxek kantatu zuen "bialdu behar ditugu belarrimotzak". [**Jokin Sorozabal**]

Arriatsun, Nemesio Zeberioren aitak urtero ekartzen zituen Uztapide eta Lizaso zaharra. [**Iñaki Aranzadi**]

AMURIZAREN IKASTAROA

Amurizaren kursilloa, nik esan behar banu, 1981ean da. Eta azaroak 11, nik hala esango nuke. Erreziboa gordea daukat, "Hernaniko bertso eskolara, 2.000 pezeta". Gure etxean ere eman zidaten diru hura. 14 urte nituen nik.

Ikastaro hori bi hilabetez izan zen, astero. Asteartetan biltzen ginen, 20:00etatik 22:00etara edo, Udaletxeko goiko pisuan.

Ehun lagunetik gora biltzen ginen. Aterpe, Garin, Orkolagako Joxe Mari Arrieta, Iñaki Otaño, Joxemari Altuna donostiarra... nik ez nuen inor ezagutzen, Pablo Joxe Aristorena ezagutzen banuen, bale. [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

Ideia udaletxeko taldean sortu zen. Amurizari deitu zitzaion eta nahiko arrakastatsua izan zen. Ilunabarretan izaten zen, ni despatxuan edo batzorderen batean izaten nintzen, eta libre antzean izanez gero korrika igotzen nintzen atikora. 50 lagun inguru bilduko ziren. [**Juanjo Uria**]

Ni ez nintzen han izan, baina izan nuen haren berri. Amurizaren ikastaroa oso entzutetsua izan zen. [**Jon Eizmendi**]

Jendeak oso harrera ona egin zion Amurizari, eta oso gustura ibili ginen. Ikasteaz aparte, oso giro ona genuen.
[**Joxe Mari Arrieta**]

Amurizaren ikastarora jendea etortzen zen, e! Andoaindik, Tolosatik, Villabonatik, Usurbildik, Altzotik ere bai... Igual elkartzen ginen 60 bat! Neskak ere bai. Jendearen artean aldea ikusten zen, guk lehendik ere pixka bat kantatzen genuen kalean, eta beste batzuk hutsetik hasi ziren.

Amurizak bertso bat idatzi, eta galdetzen zuen "zein atrebitzen da bertso hau kantatzera?". Gehienetan gu ateratzen ginen.
[**Antton Garin**]

Pizarra batean esplikatzen zuen eta bakoitza bere lapitza eta koadernoarekin aritzen ginen. "Kopla doinuan, eta neurriak ez du axola, errimatzen saiatu, eta arrazoia bota". Arrazoiarena beti esaten zuen. Orain egiten den seguidilla tipo horretara, jendea soltatu eta elkarri gauzak esaten jartzen gintuen. Zenbatek kantatuko zuten bada? Aleren batzuek, lehendik pixka bat ibiltzen zirenek. "Nik errima bat jarriko dizuet, eta ea zer arrazoi datorkizuen errima honekin". "Eta orain beste norbaitek esango al du beste errima bat honi segitzekoa eta beste arrazoi batekin?". [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

Amurizarekin izugarrizko zorroztua eman genion bertsoari, gehiegizkoa nire iritzirako. Harek ez zuen bi silabarekin bakarrik errimatzen, hirurekin! "Kordela, nor dela, orbela...". Gehiegizko preokupazio horrek grazi edo bat-batekotasun pixka bat kendu zion orokorrean bertsoari. Askotan bertsoak zer esaten zenuenari baino garrantzia handiagoa ematen zitzaion janzkera horri. [**Iñaki Aranzadi**]

ASTEARTETAKO BILERA

Amurizaren ikastaro hori bukatu zenean, beste aste batean edo bitan bildu ginen. Guk ez genuen bertsotan egiten baina bazen jendea bertsotan egiten zuena. Erabakia hartu zen jende ikaragarri zela toki baterako. Jendea urrutitik etortzen zen, eta Donostian bilera bat egin zuten ingurukoentzat, Tolosan beste bat eta Hernanin beste talde bat gelditu zen. Donostiako taldea berehala desagertu zen. Tolosakoak gehiago iraun zuen baina desegin egin zen.

Hemen gelditu ginen Julian Ezeiza "Aterpe", Antton Garin, Joxe Fermin Argiñarena, Joxe Mari Arrieta, Pablo Joxe Aristorena, Jon Eizmendi, Joxe Mari Izeta Usurbilgoa, Juan Mari Etxabeguren, Iñaki Aranzadi, Lasartetik David, Joakin Kanpozabal, Olazarko Joxe Manuel, Juan Mari "Marraka"... baina berehala hasi zen jendea atzeratzen eta dozena erdi bat gelditu ginen, "atico del fondo" (giltzak hala jartzen zuen) hartan biltzen ginen, asteartetan 20:00etan. Iñaki Aranzadik eramaten zuen taldearen martxa. [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

Amurizak bukatu zuenean, esan genuen "zer egin behar dugu?". Iñaki apaizak hartu zuen ardura eta esan zuen "bueno, gutxienez Hernanikook hasi behar dugu gure artean biltzen". 6-8 biltzen ginen. Orduan hasi ziren Anatx, Jon Eizmendi, Pablo Joxe Aristorena, Usurbilgo Juan Mari eta Aitor Mendiluze ere bai.

Gure artean puntuak jartzen genituen, bertsoak kantatu... bukaeran esaten zen "bakoitzak bi bertso ekarri hurrengorako, tximistari buruz". [**Antton Garin**]

Astearteko bilera horretan jendea ikaragarri pasa da: (lehen esandakoaz gain), Jon Odriozola, Manu Gomez, Joxe Mari Izeta, Nikolas Izeta, Joseba Tapia, Pello Zubiria...

Gainerako herrietan helduentzat ez zegoen talde askorik, plazan izan gabe pixka bat aritu nahi zutenentzat. Rikardo Gonzalez de Durana eta Serapio Lopez Gasteiztik etortzen ziren, hortik kontuak atera! [**Joxe Luis Urdangarin**]

Hernaniko bertso eskolak fama bazuen, puntan zebiltzan bertsolari batzuk bazirelako, Anatx eta Sorozabal, eta jendea etorri egiten zen, etorri eta joan. Garai hartan jende asko pasa zen. [**Unai Agirre**]

Gutxitan, baina lehenengo aldiz joan ginenetan Joxemari Arrietarekin eta Urnietako Iñaki Aranzadi apaizarekin ere bildu izan ginen. Usurbildik koadrila etortzen zen: Tapia, Tola, Kerman, Joxemari Izeta... Koldo Aldalur, Lezea, Oiartzabal, Sorozabal, Anatx, Eizmendi, Aristorena... denak batera ez, baina horiek denak tokatu zaizkit. Berehalaxe bakantzen joan zen koadrila, ez dakit gu sartu ginelako edo (kar-kar-kar). [**Iñaki Zelaia**]

HUSTUTZEN

Bigarren urtea oso gogorra izan zen: Juan Mari Etxabeguren soldadu joan zen, Iñaki apaiza Urnietara joan zen, Izeta maisu joan zen... berehala bakandu ginen lau-bostera. Eta gero bolada dezentean bi bildu izan ginen, Pablo Joxe Aristorena eta biok. Zenbat aldiz esan nion "eutsi, etorriko duk jendea. Ez diagu etsi behar". [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

BETEALDIA

Andoainen, Iñaki Otaño maisuak Sorozabal eta Oiartzabali irakasten zien bertsotan. Otaño hori osaba dut, eta "hi, afari bat egin behar diagu, Andoainen bazeuzkaat hire moduko bi edo hiru..." esan zidan. Xoxokan afaria egin genuen, elkar ezagutu, eta astearteko bilerez aparte, Andoaina La Salleko bajeretara joaten hasi nintzen. Gero haiek bakandu egin ziren eta haiek hasi ziren Hernanira etortzen. [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

Xoxokako festetan antolatu zuen Iñaki Otañok (gure Andoaingo bertso irakasleak) afaria. Anatx iloba zuen, eta harekin kontaktua egin zuen. Nik uste Otañok erabaki zuela "hauei bertsotarako beldurra kendu behar diegu jada". Anatxek Euzkitze ekarri zuen. Besabin afaldu genuen eta ez zegoela lekurik, eta kanpoan jardun ginen bertsotan isildu gabe. Nazkatu arte.

Gero Xoxokara jaitsi ginen eta han tabernan ere fuego aritu ziren, osaba-ilobak bertsotan. Gu jada han tabernan eta jende aurrean konplejo gehixeagorekin. Gero Trakets taldeak bukatu zuen berbena, trasteak biltzen hasi ziren eta jata Anatx han ziek, gora! eta osaba atzetik! gu arbola atzean gorde ginen. Osaba-ilobak han aritu ziren, elkarri kristorenak esaten, ea ezkondu eta gero han zer egiten zuen eta besteak ea andregaia non zuen...

Etxerakoan Otañoren kotxean gentozen, eta gure etxe parean gelditu eta esan zigun: "egun batean gaur bezala juntatu nahi baduzue, kaso egin. Baina hemendik aurrera, nahi baduzue zuek egin behar duzue. Jada badakizue nola egin behar den eta zer egin behar den". Itsaso zabalean barrena bidali gintuen.

Guk astero jarraitu genuen biltzen. Gero Oiartzabal eta biok bakar xamar geratu ginen, pauso hori Andoaingo besteek ez zuten eman nahi izan. Eta orduan hasi ginen Hernanira etortzen, 18 urterekin. [**Jokin Sorozabal**]

Eizmendi Urumean zebilen bertsolaritza ematen. Eta Aristorena eta biok justu ibili ginen garai horretan, orduan hasi ziren etortzen Urumeatik Joxe Luis Urdangarin, Iñaki Zelaia... Nik Langile ikastolan urte pare bat egin nituen irakasle, Juanjo Uriari lagunduz. Hortik bat-batean egiten zutenak astearteko bilerara ekarri genituen. Gorka Tolosa, Unai Agirre... Huraxe izan zen salbazioa. [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

Pausoa erraza izan zen. Juanjo Uriak zirikatu eta Anatxek bideratu gintuen. Astearteko taldeak oso beso zabalik hartu gintuen. Oso gazterik hasi ginen hor biltzen. [**Unai Agirre**]

Adin talde zabala zen, eta eskoletatik zetozen belaunaldiekin elkartu nahi zuten. Ikastolatik ateratako lehenengoak hor Aristorena eta Eizmendi izango ziren, eta hurrengoetakoa ni izango nintzen adinez. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Ikastolatik udaletxerako pausoa eman genuenean, gure problema ordutegia zen: gaueko 22:00etan bukatzen zen, eta baserrira itzuli behar. Anatxek esan zigun "nik eramango zaituztet". Eta horrelaxe hasi ginen, gu baino helduagoak zirenekin. Beste errespetu bateko saioak izaten ziren. [**Iñaki Zelaia**]

Hamalau bat urte izango nituen, "zaharren bertso eskola" esaten genion orduan. [**Aitor Mendiluze**]

Ume ginenontzako jende helduarekin kantatzeko aukera ederra zen. Tourrerako ekipoan sartzea bezala. "Astearteko bertso eskolara noa", beste konnotazio bat zeukan. [**Gorka Tolosa**]

METODOLOGIA

Iñaki Aranzadi apaizaren garaian guk ez genuen plazarik egiten, Eskolartekoa eta beste sariketaren bat. Harako preparatibo gisa, gaia jarri eta bertso bat osatu, edo puntua jarrita edo errimak emanda... horrelako lantegiak Aranzadik bideratzen zituen, eta batak besteari jartzen genizkion. Baina Aranzadik alde egin zuenean erabat jarri ginen librera. Aurrena tertulian egin saio bat, eta gero ahal zuenak ahal zuena. Bai Langilen eta bai udaletxean, bueltan bueltan jarri eta kantatuarazi egiten genien denei. Legea hori izaten zen, "txarxeagoa edo hobexeagoa, ahal zuenak ahal zuena, erronda etortzen zenean bota". Botatzen ez zuena, hurrengo astean seguruena ez zen etorri ere egingo, jendea pixka bat horrekin ere atzeratu zen. Han kantatu beharra zegoen, ezin zen gustuz besteei entzutera bakarrik joan. Aise kantatzen zutenak baziren hor, sekula txandarik pasatzen ez zutenak: Garin eta Aterpe. [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

Ni nintzen beste bat, eta besteak baino ahulagoa. "Parean tokatzen zenean bota" lege edo baldintza bakarra zegoen han. Prezio berean hobea botatzeko kapaz bazinen, bota. Gure metodoa zen lehenik disfrutatzea. Guri ez zitzaigun batere inporta bertsolaritzan aurrera edo atzera egitea. Izugarri gozatzen genuen, sekulako lagun artea zegoen han. [**Iñaki Aranzadi**]

Mahai borobilean lehenbizi puntutan hasten ginen, poliki poliki. Gero ofiziokako gaiak jartzen genituen, gaiak ere bat-batekoak. Ordu eta erdi biltzen ginen beti. [**Jon Eizmendi**]

"Ostras" zen esaera handiena: "ostras, hori huan bertsoa hori!". [**Iñaki Aranzadi**]

"HERNANIAR BERTSOKERA"

Hernanin bertsoa ulertzeko modu bat dago edo daukagu. "Honek oso hernaniar egiten dik" esaten genuen: txikian asko, erantzutera... bertsote klase hori, "betikoa" edo "klasikoa". Nik beti ezagutu dut hori hemen, librean, zortziko txikian tapa tapa, elkarri adarra jo eta erantzutera joan, puntuari erantzun eta puntutan egin... Eskolarteko Txapelketara joaten ginenean beste bertso eskoletako jendeak ez zuen horrela egiten. Akaso teknikoago, akaso serioago, doinu luzeagotan egiten zuen... Iruditzen zait gure bertsokera astearteko bilera horretan definitu zela. Asko daukagu, hein batean behintzat, Anatxen bertsokeratik, Sorozabalen bertsokeratik... horienetik dezente jaso genuen, gero bakoitzak bere erara garatu badu ere. Zortziko txikirako zaletasuna orduan sortu zitzaigun. Nik uste gero plaza librerako zaleak izan bagara, hein handi batean horri esker dela. Guk zerbait ikasi bagenuen, besteetatik bereizten gaituena, horixe da: librean tarte luze batean aritzeko kapazidadea jaso genuela. Ez akaso bertso ale mundiala botatzen, baina bai bertso ale dezenteak eta saio osatuak egiten. Erraztasun dezentea hartu genuen. Mahai-bueltan datorrena datorrela, beti besterena entzun eta erantzun egin behar zen.

[Aitor Mendiluze]

Saltoa handia izan zen, eskema batetik bestera pasatzea bezala. Kotoi tartean edukitzen gintuzten ikastolan, Mikel Mendizabalek batez ere, bertsoaren teorizazioekin, eta praktikak beti zuen pisurik gutxiena... eta hemen aldiz ez zegoen teoriarik eta ez zegoen irakaslerik. Bildu eta kantatu. Hor ez zegoen bertso zaharrik, ez errima sortarik, ez ezer. Joan, eta aurrena agur bana bota eta gero librean egin. Zirika papera jokatzen zuten soltura gehiena zeukatenek. Anatxek egiten zuen tiratze lan hori, eta Sorozabalek ere segituan hartu zuen martxa eta tiratzen zuen...

8-10 lagun jartzen ginen mahaiaren inguruan eta bota bertsoa, eta hurrengo txanda iristerako pentsatu bada ezpada ere. Ez zegoen erronda isilik uzterik. Aldaketa handia izan zen, eta ikaragarri lagundu zidan. Bertsoak sortzeko dinamikan sartu ginen, hainbeste kezkatu gabe errima ondo sartuko dudan edo arrazoia ondo doan. Kuestioa zen bertsoa botatzea. Eta hamarretik bat ona ateratzen bazen, zorionak. Lan egiteko modua beti zen gai librean. **[Joxe Luis Urdangarin]**

Gu ume mokoak izanik, ordurako plazan probatua zen jendearekin eseri eta "benga, hasi" esaten ziguten. "Hasi, zer esaten?" "Hasi, aitzakiarik ez". Eta buelta etortzen zenean, pasorik ez, benga bota. Presioa zen baina ez txarrera "hik egingo duk" esaten ziguten. Behartu ez baina bultza bai dezente egiten zuten. **[Aitor Mendiluze]**

Kontua ez zen bertsoa nola egiten zen azaltzea, baizik bertsoari beldurra galtzea. Teorizazioa ordezkatzen zen jendearen komentarioekin. Gainera orduan bezain sano eta gordin, geroztik ez da egin. Normalean aholkuen norabidea berdintsua zen beti, berde sartzen ginenok bagenekien halako irakaskuntza bat jasoko genuela. Baina beraien artean ere ematen zen. **[Joxe Luis Urdangarin]**

Librean aritzen ginen. Gainera uste dut hori dela modurik onena bertsotan ikasteko: aurrena ikasi bertsoa aurrera eramaten, kantatzen, txanda segitzen, eta gero gaiari kantatzen, ikasi behar baldin bada. **[Unai Agirre]**

IKASI GENUENA

Frakasatu totala izan naiz bertso munduan. Nirekin ibilitako gaztetxo denek utzi egin zuten. Jon Eizmendi Gernikara joan zen eskolara, eta etorri zenean utzia zegoen. Anatx punta puntan ibili zen, ikaragarri estimatua nuen, eta utzi. Aristorenak utzi. Usurbilgo Izetak ere utzi... "Hau duk marka, hau!" esaten nuen. **[Iñaki Aranzadi]**

Teknika baino gehiago bilatzen zen bertsoari naturaltasuna ematea. Guk juxtu hori behar genuen. Ordura arte bertso eskolan ibili ginenok teknika lantzen genuen, eta naturaltasuna behar genuen. Hari bati jarraitzen ikasi, erantzun... eta hori asko lantzen zen. **[Joxe Luis Urdangarin]**

Sorozabalekin eta Anatxekin bertsokera hori ezagutu genuen, elkarrizketa, erantzuna, elkarri ziria sartzen saiatzea... garai hartan Hernaniko bertsolariak bakarka dezente korapilatzen ginen, orokorrean. Ofizioka hobeto aritzen ginen. Igual hortik etorri liteke. **[Iñaki Zelaia]**

Txikitatik helduagoekin harremana hartzea guretzako garrantzitsua izan da, bertso munduan motibatzeko eta jarraitzeko. **[Iñaki Zelaia]**

Hortxe trebatu ginen. Lan handia egin zuten bai Anatxek, bai Sorozabalek... Guretzako beste pauso bat emateko bide oso naturala izan zen. **[Unai Agirre]**

IRTEERAK

Asteartetako bilera ostean beti herrian buelta bat egiten genuen, hiru-lau taberna pasatzen genituen, hizketan. [**Iñaki Aranzadi**]

Jon Eizmendi, Pablo Joxe Aristorena, honen anaia eta beste gaztetxoekin larunbatetan bertso zintak aditzen egoten ginen, Uztapidek eta Lizaso zaharrak Arriatsun egindako saioa, esaterako. Bertsoak egiteko nolako erak zituzten aztertuz asko gozatzen ginen. Gaztetxoak hantxe egoten ziren, begi-belarri zinta horretan sartuta. [**Iñaki Aranzadi**]

Nire etxean urtean lau-bost afari egiten genituen. Bakailaoa afaldu eta kantari aritzen ginen. Urnietako Otañok txapelketa zuenean ere preparatu nahi izaten zuen eta gure etxean afalduz biltzen ginen. [**Iñaki Aranzadi**]

Meagasera irteera egin genuen. Hernaniko bertso eskolakoak eta Zarauzkoak elkartu ginen afaltzeko. Imanol Murua zen alkate, eta bere anaia eta biak han azaldu ziren. Alkateak ere bertso bat bota zuen eta guk ere bai. [**Iñaki Aranzadi**]

Orkolaga baserriko Luxiok ikaragarrizko memoria zuen, Hernaniko kontu eta bertso asko zekizkien. Gazteekin dozena bat aldiz joango ginen haren etxera, harekin hizketan egitera. [**Iñaki Aranzadi**]

Sagardotegi garaian astearteko bilerara joan, eta Anatxek "gaur sagardotegira joan behar dugu!" esaten zuen. Oso espontaneoak ziren. Edo Udaletxetik ateratzen ginen kalera kantatzera, edo Joseba Tapiak soinua ekartzen zuen eta Hernanin kalejiran bukatzen genuen... [**Iñaki Zelaia**]

Handik irten eta askotan "goazen sagardotegira" esaten ziguten. Astearte buruzuri batean, 13-14 urte, eta iluntzeko 20:00ak aldera telefonoz hots-egin eta "ama, sagardotegira goazela!". [**Aitor Mendiluze**]

Bertsoak beste modu batean bizitzeko lehenengo pausoa izan zen: bat-batean egin, gai librean, sagardotegira joan afaltzera... beste giro batean sartu ginen. [**Unai Agirre**]

HASIERAN IBILITAKOEN BAZKARIA

Bi urtetik behin, inozente egun inguruan, bazkari bat egiten dugu hasieran ibilitakook, 10-12 lagun biltzen gara. Orain ere gauza bera egiten dugu, mahaiaren bueltan bazkaltzen ari garenok txanda iritsitakoan kantatu. Ez dago salbaziorik, etortzen dena etortzen dela kantatu egin behar da! [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

BERTSO ESKOLAK

EREÑOZUN TABERNA ESKOLA (70eko hamarkadan)

Ba al dakizue ze arau izaten ziren? Ereñozura joan, eta mahaian jarri eta botilardoa atera. Porroi handia hartu, botilatik hara ardoa bota eta gainetik limonada. Denei bertso bana bota arazten genien, eta bota nahi ez zuenak hura pagatu behar izaten zuen! "Baina nik ez zaukat ideiarik!" "Igual dik, bota ezak gaizki edo ondo!" Eta zenbat eta okerrago bota orduan eta barre gehiago egiten genuen! [**Antonio Zubiarrain**]

IRAKASLEAK

Udaletxeko asteartetako helduen bilera (1982).

Urumea Ikastolako bertso eskola: (1980) Mikel Mendizabal - (1982) Pablo Joxe Aristorena - (1983) Jon Eizmendi. Gelan: Joxe Mari Gabiria - Don Manuel - Gregorio Olasagasti.

Ereñozuko eskola: (1984-87) Joxe Mari Mujika "Anatx" - (1985-1991) Florian Oiarbide - (1992) Joxe Luis Urdangarin - Aritz Zerain eta Ibon Miner.

Jauregiko eskola: (1984-1988) Joxe Mari Mujika "Anatx".

Langile Ikastolako bertso eskola: (1985) Juanjo Uria eta Joxe Mari Mujika "Anatx". Gelan: Ixiar Otamendi.

1990ean Hernaniko bertso eskola osatu zen, Biterin denak elkartuz.

EREÑOZUKO ESKOLA

Ereñozuko beheko eskolan hiru urte egin nituen, eta eskola berrian beste hiru, denera sei. Azkenerako aspertu ere egin nintzen. Gainera, ikasgai bezala jartzen zuten azkenerako. Nota jartzea nahi izaten zuen irakasleak, eta hori ez zitzaidan gustatzen! Nik giro horretan sartzen nituen, "orain ez bazaizue gustatzen gero seguru gustatuko zaizuela, eta zaila da bertsolari izatea, saiatu egin behar da, eta behintzat bertsoa zer den ulertu. Bertso bat ona edo txarra bota duen, hainbeste baloratzeko gai izan, zeuek botatzeko abildaderik ez baduzue ere" eta horrelakoak esaten nizkien. [**Florian Oiarbide**]

URUMEAKO IKASTOLAKO BERTSO ESKOLA

Joxemari Gabiria oso bertsozalea zenez eta bertsolaritza oso gertutik bizi zuenez, bera hasi zitzaigun lehenbiziko materialak ematen. Orduan gauza berria zen, jendeak harrituta begiratzen zigun. [**Jon Eizmendi**]

Ikastolan 4-5 bereizi gintuzten, eskola orduz kanpo geure modura aritzeko. Pablo Joxe Aristorena, Joxe Mari Aizega, Estibaliz Urrestila, Ruth Martin... denok izan ginen lehendabiziko Eskolarteko Txapelketan parte hartutakoak. Eskola orduz kanpo biltzen hasi ginen, patata tortilla bat eta sagardo botila ekartzen zizkiguten... [**Jon Eizmendi**]

Don Manuel eskola zaharreko irakaslea zen bertsotan. Lehenengo egunean bertsotan jarri gintuen, puntuka. Hizkuntza nola menperatzen genuen jakin nahi zuen, eta horretarako denok ezagutzen genuen doinu bat hartu eta "benga, hasi kantari" esan zigun. Inportantzia handia ematen zion bertso zaharrak ikasteari. Bertsolari zaharren bizitza eta istorio asko kontatzen zizkigun, eta asmatzen zuen, zeren erdi ipuin gisa kontatzen zituen eta erakargarri bihurtzen zituen. Imajinatu egiten genuen garai hartan bertsolari bat izan zitekeena. Bertso zaharrak kantatu, bertsolarien historia kontatu, eta gero jo eta fuego egiten genuen bertsotan. Hori dena eskola ordutan. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Urumean hiru fasetan zegoen planteatuta bertso irakaskuntza:

Lehen fasea ikasgai formatuan zen, denak pasatzen ziren hortik, 5. mailan hasi eta 8. mailara arte. Hortik, bi irizpide jarraituz, hizkuntza zer mailatan menperatzen zen eta bertsoekiko genuen jarrera, hautaketa egiten zuten eta ikasle batzuek bideratzen gintuzten astean behingo beste talde batera.

Asteazkenetan bazkalorduan geratzen ginen Mikel Mendizabalekin. Talde dezentea zen, adin desberdinetakoak ginen eta bertso zaharrak kantatzen genituen, doinuak landu, errimak, eta gero elkarrekin arrazoiketa batzuk egiten saiatzen ginen: hasieran neurtu ere egin gabe, gero neurtuz, gero errimatuz... han herrian gutxien espero duzun jendea aritzen zen.

Asteazkenetako talde horretan gogoa azaltzen zutenak, Eskolarteko Txapelketan agertzeko eta jendaurrean kantatzeko, hirugarren fasera pasatzen ginen.

Hirugarren fase horretan talde txiki batera bideratu gintuzten, eta hor lau lagun elkartu ginen: Iñaki Zelaia, Aitor Lasarte, Juanjo Usarraga eta ni neu. Baina gu izan ginen bigarren labealdia. Lehen labealdia izan ziren batez ere Pablo Joxe Aristorena eta Jon Eizmendi. Haiekin batera aritu ziren Jon Odriozola, Pablo Joxeren anaia... Gu bigarren labealdia izan ginen, eta hirugarren labealdia ere izan zen: Maialen Lujanbio, Iñaki Lete...

Hirugarren fase horretan Pablo Joxe Aristorena izan genuen irakasle, lehen urtean. Aristorenak ikastera kanpora joan behar izan zuenean, Jon Eizmendirekin hasi ginen. Jonekin beste urtebete egin genuenean, dinamika bat hartu genuen gure artean diziplina minimo batekin biltzeko eta aritzeko. Eta hortik aurrera gu bakarrik bildu ginen, bi edo hiru urtean. Ostiral arratsaldero Oarson biltzen ginen elkarri akatsak ateratzen eta gaiak jartzen. [**Joxe Luis Urdangarin**]

11 urterekin lehenengo Don Manuel apaiza etortzen zen eta merienda ematen ziguten, tortilla patata pintxoak, eta kopla batzuk egin, idatziz, hutsuneak bete.... horrela egin genituen hiru-lau saio kurtso bukaeran. Eskola orduz kanpo. Aitor Lasarte eta Aitor Urrutia gogoratzen ditut lehenengo klase horietan.

Hurrengo urtean berdina planteatu ziguten, eta han Juanjo Usarraga, Joxe Luis Urdangarin, Lasa, Amaia Olano, koadrilatxo bat bazen gerora jarraitu genuenak. Mikel Mendizabal etortzen zen eskola orduz kanpo. Bertso zaharrak kantatzen genituen eta buruan grabatuta daukadana da "hutsuneak bete" ariketa; Mendizabalek ekartzen zituen paperak.

Bigarren urtetik aurrera, behean bazen sukalde eta gimnasio moduko bat, eta han biltzen ginen. Txapelketa garaia zetorrenean pribilegio txiki batzuk izaten genituen, zeren zuzendariak matematika ematen zigun, ingeleseko irakaslea ere oso bertsozalea zen eta euskarakoa ere bai, orduan, klase guzti horietatik piper egin, gimnasiora jaitsi eta txapelketa prestatzen genuen. [**Iñaki Zelaia**]

Ikastolako azken garaietan, bai Pablo Joxe Aristorenak, bai Jon Eizmendik, Jon Odriozolak, eskua botatzen ziguten klasez kanpoko saio horietan. Ofizialki Mikel Mendizabal etortzen zen astean behin, eguerditan, eta saio ofizial horiez aparte esandako horiek laguntzen ziguten. Beraiek Urumeatik alde egin eta gero ere buelta bat ematen zuten guri esku bat botatzeko. [**Iñaki Zelaia**]

Hiruok biltzen ginen Jon Eizmendirekin (Iñaki Lete, Anjel Telleria eta Maialen Lujanbio), eta aldi berean gu baino helduagoak ziren Iñaki Zelaia, Joxe Luis Urdangarin, Aitor Lasarte eta koadrila hori juntatzen zen, baina aparte. Haiek aurreratuago zebiltzan.

Idatziz hasten ginen, bertsoak osatzen, errimak... Jonek gaiak jartzen zizkigun eta etxean bertsoak jartzea proposatzen zuen. Hurrengoan kantatu egiten genituen, zuzendu... ordu asko hizketan eta bestelako kontutan ematen genituen. Jonekin gogoan daukat ez dakit zenbat egun pasa genituela Etxahunen bizitzaz hizketan. Gu entzuten eta bera kontatzen. Niretzako apasionantea zen Etxahunen bizitza. Jonek badu mundu hori, bazekizkien istorioak eta pasarteak... kontaketa horrek, periferia edo testuinguru horrek bere partea bazeukan bertso eskolan. [**Maialen Lujanbio**]

LANGILEKO BERTSO ESKOLA

Langile ikastolako guraso eta irakasle batzuek etorri zitzaizkidan esanaz bertso eskolaren bat sortzeko saiakerak merezi lukeela. Ideia oso ona iruditu zitzaidan. Orain, beti esaten nien: "Baina pentsa ezazue hemendik bertsolaririk ez dela aterako! hori seguru egon, bertsolariak ez du urte pare batean ikasten bertsotan. Baina positiboa izango da".

Hasierako kurtsoa gaika planifikatu nuen: adibidez, Xenpelarren bertsoak kantatuko ditugu, eta Xenpelar Errenteriakoa zen, garai honetakoa... eta azken ordubetean gaiak jarri, oinak idatzi arbelean, eta bertso osatu.

Kopletan ere aritzen ginen. San Joan bezperan eta Santa Ageda bezperan ateratzen ginenean, hasieran nik jarritako bertso batzuk kantatzen zituzten, buruz ikasita: Egaña tabernaren aurrean, Zinko enean... Baina gero kopla txikiak osatzen zituzten, jada bat-batean, gero gehixeago... eta ikusi zen bertsotan ikasi daitekeela.

Nituen harremanetatik ateratako jakinduria apur hori irakatsi nuen. Ez zegoen materialik ez ezer. Bertsolariei entzunda, hainbat gai iristen zitzaizkidan: errima aberastu egin behar dela, arrazoiak bilatu... baina ez zegoen erreferentziarik, oso puntualak ziren, nire kontaktuetatik atereak.

Beraz etena bazetorrela
konturatu ginenean
ikastoletan saiatu ginen
bertsolaritza lanean
guk apurtxoa eta umeak
ekinean ekinean,
txalupa bezain errez aurrera
ur bare haien gainean
guztia errez egiten baita
gauza bat maite danean.

[Juanjo Uria]

Bertsoak osatzeko gai izan daitezela, afariren batean broma ateratzeko. Hortik bertsolari izatera Jesukristoren aldea dago. Arian arian eta bizkorrak baldin badira atera egiten dira. Guk ez genuen pentsatzen hortik bertsolaririk aterako zenik. "Ariko gara, ondo pasako dugu eta lagunarte bat osatuko dugu, mundiala gainera. Guk disfrutatu eta eurak gozatu dezatela". Hor ez zen beste asmorik. **[Joxe Mari Mujika "Anatx"]**

Bertso eskola sortu zenean ikastolan ikaragarrizko booma sortu zen. Jendetza juntatu ginen, hiru geletan banatuta. Langilen uholdea sortu zen. **[Eñaut Agirre]**

Biterin hasi ginen eta handik pasa ginen Laubidietara, eraikina egin zutenean. Juanjo Uriarekin hasi ginen, eta gero Anatxekin ere bai. **[Gorka Tolosa]**

Lehen eguna gogoan daukat: Biteriko gela handi eta zahar hartara joan ginen, ikaragarrizko ume pila. Armairu gainean jendea eserita... igual 40 ume egongo ginen. **[Unai Agirre]**

Langile ikastola zaharrera joan nintzen, orain Kultur Etxea den horretara, artean bere makramezko soka zaharrak zintzilik eta egurrezko zoru zahar hura zituela. Majadero koadrila bat topatu nuen, eta beste mundu bat irekitzea izan zen niretzat.

Lehen egunaz gogoratzen dut gela handi bat, Juanjo Uria hantxe, bere betaurrekoekin eta txintxo aurpegiarekin, paperak eskuan zituela, eta ume mordo bat mahaietan, armairu gainean eserita, lurrean... gela bete jende zen. Juanjok bertsoak kantatzen zizkigun, eta doinuak eta fotokopiak eman... hortik hasi ginen. **[Aitor Mendiluze]**

Uriak karpeta gris haietan ekartzen zizkigun ariketak: beti sorta bat kantatzen genuen, gero hiru-lau hitzekin oinak atera eta bertso bat idazten genuen gaia emanda. [**Aitor Mendiluze**]

Txokantea zen niretzat. Gure eskolan pare bati gustatu zitzaigun bertsoa eta Hernanin berriz 40 lagun eskolatik irten eta horra joaten ziren, armairu gainean bertsoak idaztera. Pare bat buelta egindakoan ni bakarrik hasi nintzen Andoainen eskolatik irten eta korrika autobusa hartuta hona etortzen nire koadernoarekin. Eta zer jarrera diferenteekin egiten nuen topo: Gorka Tolosa han ibiltzen zen gelan korrika, geldi egon ezinda, satitsua baino bizkorrago. Niretzat kontraste handia zen "niretzat ez dago ezer klase hau baino inportanteagorik, eta hori korrika dabil, jolasean, eta bertsoa egiten du". [**Aitor Mendiluze**]

Poliki poliki bertsoak idatziz hasi ginen. Aurreneko bertsoak etxean dauzkat nonbait, Uriak karpetatxo batzuk ematen zizkigunez, gure amak gorde egiten zituen. Bertso txar-txar-txar-txar batzuk, baina bere balorea badaukatenak, pertsona nondik abiatzen den ikusteko, eta nola errimatzen duen, eta harrigarria da baita ere gai jakinen gainean zer pentsaera agertzen den, kohete eta gerra bati buruzko bertsoak daude idatzita... [**Unai Agirre**]

Aurrena bertso sorta bat kantatzen genuen, gero oin zerrendak atera, gero bertsoak egin eta gero nahi genuenak geratzen ginen bat-batean egitera. Juanjorekin borobilean jarri leiho ondoan eta puntutan aritzen ginen: puntua burura etortzerako ahaztu zer errimarekin ari ginen ere! Juanjo beti animatzen aritzen zen, "ez bazaizu bururatzen paso egin eta ea hurrengoan zer gertatzen den", pixkanaka gure artean giroa sortzen zen eta konpetibitate sano hori, "hik bota baduk nik ere botako diat". [**Aitor Mendiluze**]

Unai Sasiain, Aitor Zubeldia, Aitor Mendiluze, Gorka Tolosa... dezenteko koadrila geunden aurrera egin genuenak. Gero segi genuenak hirukote bat izan ginen, Toloxa, Mendiluze eta ni. [**Unai Agirre**]

Hasieran mordo bat ginen. Unai Sasiko, Unai Agirre, Asier Mertzero, gero Aitor Mendiluze etorri zen, Mikel Berasategi (hori gazteagoa)... [**Gorka Tolosa**]

Gero gazteagoak zetozen, anaia Eñaut, Ixiar eta Estitxu Eizagirre, Urko Apaolaza, horiek gurekin batera Langilen biltzen ziren, gu aurreraxeago geundenean eta eurek idatziz egiten zutenean. Beste generazio bat ziren. [**Unai Agirre**]

Juanjo Uriak Laubidietako beheko pasilloko geletan ematen zituen klaseak. Gela bete ume, gure gelatik igual 10 ume joango ginen, Ixiar Otamendik bideratuta. Zale zaleak eta gerora segi genuenak: Iker eta Urko Apaolaza, Iratxe Apaolaza, Karmele Apezetxea eta Estitxu eta ni. Beste lagunak ere etorri ziren hasieran, arrimuan. Eserita egoten ginen lehenbizi idatzizko lanak egiten, eta gero klasearen bukaeran kantatu egiten genituen, bertsoak bukatzera iritsi baginen. Eta aldameneko gelan handiak egoten ziren, bat-bateko bertsoak botatzen. [**Itziar Eizagirre**]

Nik gogoratzen dut buila. Bakoitza bere bertsoak idazten aritzen ginen eta Juanjo kristoren pazientziarekin banaka banaka etortzen zen eta lagundu egiten zuen. Bukaeran kantatu egin behar ziren, eta kantatzea tragoa zen guretzat. Gero gu etxera bidaltzen gintuzten, edo pixka bat geratzen ginen, eta zaharrak bat-batean hasten ziren. [**Estitxu Eizagirre**]

Juanjoren pazientzia gogoratzen dut, beti bere tonuan... [**Itziar Eizagirre**]

Geroxeago hasi ginen bat-batean. Baina bat-baterako Juanjok bere burua ez zuen ikusten eta Anatx deitu zuen. Anatxengandik asko ikasi genuen, bera gurekin koadrilan sartzen zen eta bertsotan egiten genuen. Anatxek beste erritmo bat sartzen zigun. 11-12 urte izango genituen. [**Unai Agirre**]

Bertso eskolara joan eta Anatxek "hasi gaztea", bere betiko esaldia botatzen zigun. Agur bana kantatu, eta lau oinak eman eta bertsoa noizko kantatzen genuen ikusi behar. [**Aitor Mendiluze**]

IRTEERAK

Juanjoren R12 txuri hartan batera edo bestera mugitzen ginen, gogoratzen dut eskolaren batean saioa egin izana... **[Aitor Mendiluze]**

Tokatu zen ikasle horiek ere sariketa batetik bestera ibiltzea. Gu gustura joaten ginen, makina bat tokitara iritsi gara ume horiek kotxean sariketetara eramanaz. Ume horiek ikastola batetik bestera ere ibili behar izaten zuten kantari, diru-laguntza lortzeko. Taldetxo bat hartu kotxean, eta "gaur emanaldia egin behar dugu Astigarragako ikastolan". Gero Astigarragakoa etorriko zen Hernanira bere kantalditxoa egitera. **[Joxe Mari Mujika "Anatx"]**

Behin esan ziguten "Afaltzera etorriko al zarete 3 lagun, bertso kantatuz?" horrela eraman genuen Goizuetara Mendiluze, merienda egitera. Goizeko 3-4ak aldera etorri ginen bueltan. Mutil kozkor horrek egin zuen bertsotan! **[Joxe Mari Mujika "Anatx"]**

Sagardotegira joan ginen Anatxekin, 8 urterekin. Gelan esan zuen gure irakasle Ixiar Otamendik "bertso eskolakoak sagardotegira doazela!". Denak "joe, ze suertea!". Lehenengo aldia zen sagardotegira joaten ginena eta ez genekien zer egongo zen ere. **[Estitxu Eizagirre]**

Umeek ere bertso eskolan egin edo sagardotegian egin, gazta mutur bat janaz edo sagardo pixka batekin, askoz gusturago ibiltzen ziren. Sagardotegira joatea gauza handia zen umeentzat! **[Joxe Mari Mujika "Anatx"]**

Geroztik bertso eskola kalera asko atera zen, erronda egiten genuen Santa Agedetan... Eta bertso eskolaren bueltan giro handia sortu zen herrian. **[Eñaut Agirre]**

GURE UMEAK

Nik ez dut asko bereizten nire ikasle izan diren edo ez. Denak maite ditut, igual igual. Ibilbide bera egin dute, ikastola batean edo bestean, gainera herri berean... Sentsazio oso atsegina da, baina ez maila pertsonalean, ez "nik egindako" gisa, sentipen orokor atsegin bat da. Horretan asmatu egin da herrian. Bere fruituak eman ditu, oinarri sendoa dago jarria eta gainera bertsotan oso ondo egiten duen jendea ateratzen da! Zalego bat ere badago, eta sare hori dena oso polita da.

Maialen Lujanbiok txapela jantzi zuen momentu hura izan zen zenita. Ikaragarria. **[Juanjo Uria]**

Nik satisfazio ikaragarria dut. "Nire umeak" esaten dut beti. Hernaniko bertso eskolakoak hor hasi ziren, gogoratzen naiz Maialen Lujanbio umetan nola ekarri zuten eta Jexux Mari Irazu nola etorri zen. Ereñozukoak ere nire mutil-koxkorrak dira, Aritz Zerain eta Ibon Miner. Aitor Mendiluze bat Jokin Sorozabalen arrastotik etorri zen, 13-14 urteko mutila. Orain ikusten dut bertso eskola horretatik zer bertsolari eta zer pila etorri diren. Guk egin genezakeena egin genuen. **[Joxe Mari Mujika "Anatx"]**

UMEAK BERTSOTAN?

Usurbilgo Kalexarrera joan ginen bertsotara Arantzazu Loidi, Jon Iñaki Izarzelaia, Jon Sarasua, Xabier Euzkitze, Joxe Mari Izeta gai jartzen... Edadetu mordo bat zegoen han. Galdetu genuen:

– Komisioa edo festen organizadorea zein da?

– Zer duzue ba?

– Ez, zera, bertsotara etorri gara eta...

– Aditu al duk? bertsotara etorri omen dira. Zer egin behar duzue ba zuek? piura ederra daukazue. Hori ere bai? (Arantzazu Loidirengatik).

– Bai, hori ere bai

– Zuek zer uste duzue? horrako tripandi horrek akaso egingo du pixka bat (ni seinalatuaz).

Estututa gelditzen ginen; eta Arantzazuk entzuten zituenak! Edadeko jendeak bazeukan aurreiritzi hori, gero denborak jan duena. Mespretxu hori, gazte jendeak ezin egin dezakeela. Bertsolariak behar zuen tripa-handia, txapelarekin eta gizon handia gainera! [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

Gure edadeko jendea bertsotan ikustea ez zen oso normala. Gaztea bat-batean eta plazan ikustea harrigarri egiten zen.

[**Jon Eizmendi**]

Orduan zeuden bertsolari bertsolariak, helduak, eta "bertsolari gazteak". Eta bertsolari gazteen gainean beti zegoen jakin -min hori "ea eskolatik datozen gazte hauek zer egiten duten, ea nolakoak datozen". Gazte txapelketetan pixka bat azaltzen zenari, ra, jendeak heldu egiten zion. Bertsolari gaztea! Ostra, hori herriko festetarako. [**Jokin Sorozabal**]

Oraindik nobedadea zen, lehenengo Eskolarteko Txapelketak ziren. Batzuek harridura agertzen zuten, nola zen posible hain umetatik kantatzea, beste batzuek sinesgaitz agertzen ziren, hori ez zela posible, berezkoa behar zuela...

[**Joxe Luis Urdangarin**]

Askotan entzuten genuen berezkoarena, ez berezkoarena, ikasiarena... baina Xabier Euzkitze eta plazetan ari ziren pixka bat, eta jende batek jada onartzeko ere ordua bazuen. [**Iñaki Zelaia**]

"Ume batzuek bertsotan ikasi?" harridura hori bazegoen. Gu Langile ikastolako lehen bertso belaunaldia ginen, ez zekiten zer emaitza emango zuen. Irakasle denak zain... orduan guretzako gauza berezi bat zen. Guk horrela bizi genuen eta kanpotik ere nola horrela bizi zen, dimentsio handia hartzen zuen. [**Unai Agirre**]

Aldaketa handia eman du denbora gutxian. Guri ikastolan ez dut esango burla egiten zigutenik, baina "kaxero" deitu eta kasi barre egiten ziguten, "aitonen gauzetan zer ari dira hauek?". Handik urte gutxira bueno, miretsiak ginen, telebistan ateratzen ginenez... [**Maialen Lujanbio**]

Langilen bertso eskolak ematen hasi nintzenean ez nuen inondik ere pentsatzen bertsolariak aterako zirenik. Niri aitonak erakutsi zizkidan bertsolariak Uztapide, Txirrita, Basarri ziren. Nola ikasiko zen bertsotan eskolan? Bilakaera ematen hasi zen: oinak zerrendan jarri arbelean, eta batek bertso polita idatzi du! Ni bai konturatu nintzen azkar, bertso politak idazteko jende dexentek zeukala erraztasuna, ez batek edo bik bakarrik. Baina gero esaten nuen "hurrengo pauso hori, bat batekoa, oso oso handia da". [**Juanjo Uria**]

Nik ez nuen esaten "ez da posible bertsotan ikastea". Hori ez zen planteatu ere egiten! Xabier Amurizak gaia planteatu zuen arte. [**Juanjo Uria**]

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Lehen bertso eskoletako ikasleak Manuel Uztapide bertsolariarekin, 1983ko maiatzaren 14an. Bi hilabetera hil zen maisu zaharra, ekainaren 8an. Ikasleen artean: Jon Eizmendi, Felix Iñurrategi, Jon eta Aitor Sarasua, Joxe Mari Mujika "Anatx", Xabier Euzkitze, Arantzazu Loidi, Iñaki Izarzelaia eta Danel Goikolea. Txirritarekin kantatu zuen Uztapidek, ondoren Basarrirekin, eta bertso eskolak ere ezagutu zituen. Garaian garaiko ikuspegira egokitzen jakin zuen.

Txapelketa ondoren bisitak egiten ziren, bertsolari zahar batengana. Aurrenekoa Uztapiderengana egin genuen. Bigarrena Balentin Enbeitarengana. Mattinengana ere joan ginen. [Joxe Mari Mujika "Anatx"]

Patxi Goikolea eta ziren Eskolarteko I. Txapelketa aurrera eraman zutenak, eta Arrasateko Almen eskolatik banda oso bat etorri zen. Pixka bat girotzeko, bertsotan jardun ziren Sarasua hiru anai, Izarzelaia... tapa-tapa bertsotan, bata besteari puntu jarri eta erantzuten...! Hura ikaragarria zen! Almenetik etorritakoek bakarrik egiten zuten kopla osatu, edo puntuari erantzun... beste inork ez eta pila izango ginen Gipuzkoatik. Haiek jada uste dut zazpi-zortzi urte zeramazkitela bertso eskolan, Xanti Iparragirre eta Patxi Goikolearekin. Horiek aurretik lana eginda zeukaten. [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

Bere papera bete du Eskolartekoak. Nik rekuerdo ona daukat. Guretzat kurtso bukaerako etsamina zen. Bat-batean hasi ginenean gure burua gehiago estutzen lagundu zigun, eta hobetzen, zabarkeriatik ihesi, denoi gustatzen zitzaigun ahalik paperik txukunena egitea jendaurrera igo behar genuenean. Pizgarria zen. Hor galdu nion beldurra jende aurrean kantatzeari, konturatu nintzelako beste askok nik baino okerrago pasatzen zutela. Hor sartu zitzaidan harra, eta hor dabilkit oraindik bueltaka! [**Joxe Luis Urdangarin**]

Bertso idatziak egitera sailean joaten ginen ikastolatik denok. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Eskolarteko lehenengo saioa Beasainen egin nuen, eta nire ondoan eserita zegoena agurrean trabatu egin zen, ez zen kapaz izan bertsoa bukatzeko, eta saio osoan eserita egon zen. Mutil horrek ez zion bueltarik eman eta badakit ez zela gehiago atera jende aurrera. Jendea ondo prestatzera eta pentsatzera behartzen zuen txapelketak. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Txapelketa guztiak bezala, gauzak ondo ateraz gero eta gustura geratuz gero, motibatzekoa zen. Badakit jende asko lehenengo txapelketan desmotibatu zela. 12-13 urterekin txapelketarekiko harreman hori askotan gogorra izan da. Gogoan dut bat nola jarri zen lehen aldiz mikrofono aurrean, 10 minutu pasa, lehenengo bertsoa bota eta gehiago ez zuela parte hartu txapelketan. Lehenengoa ongi atera zitzaigunoi, noski, akuilu bezala lagundu zigun. [**Iñaki Zelaia**]

Frontoi handi batean jende pila bat, eta denak begira, irakasleak eta gurasoak begira... Parte hartzen zuten ikastola guztiek bidaltzen zuten autobuskada. Jende asko erakartzen zuen Eskolartekoak eta bertso munduan bere lekua egin zuen. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Eskolarteko txapelketetaz oso oroitzapen ona geratzen zait, motibazio gisara balio izan ziguten. Gu bakarrik 14-15 urterekin entrenatzeko bildu, giltza hartu, lokal batean sartu eta benga egurra bertsotan aspertu arte. Bestetik hipodromoko festa haietan ere primeran pasatzen genuen: Carmelo Balda frontoian kantatu ondoren, pixka bat antolatzen lagundu eta ordainetan helduekin Dana Onara eramaten gintuzten bazkaltzera. Anatx, Oiartzabal, Sorozabal, Pablo Joxe Aristorena eta abarrekin otordu politak egin genituen. [**Iñaki Zelaia**]

Gu boskarren-seigarren Eskolartekoan atera ginen, eta bertsolari kopurua ere ez zen hainbestekoa, hiru kanporaketa eta finala jokatzen ziren. 20 bat parte-hartzaile izango ginen. [**Iñaki Zelaia**]

Gu bertsotan aritzen ginen aritze aldera, umeak ginen, puntutan eta jijijaja egiten genuen... Baina Mikel Mendizabal etorri zen behin eta Zelaia sagardotegira joan ginen bertso eskolakoak, 10 edo 11 urterekin. Guretzako sekulakoa zen hara joatea... Mendizabalek ariketa batzuk ekarri zituen, hutsuneak betetzekoak eta ariketa xinple batzuk. Kupel artean ariketa denak egin genituen. Koadrila dezentea ginen orduan. Bukatutakoan Mendizabalek Juanjo Uriari esan zion Aitor Mendiluzek, Gorka Tolosak eta nik bat-batean atera egin behar genuela Eskolartekoan. Eta guk ezetz, "baina nola! ez dakigu eta bertsotan!".

Nolabait konbentzitu gintuzten. Gure gurasoekin ere hitz egin zuten, eta haiek ere ez zeukaten oso garbi, 11 urterekin ume bat han ateratzea, mikrofono baten aurrera bat-batera... Nik uste gurasoei ere bertigo pixka bat eman ziela, baina ni orduan potroso xamarra nintzen eta ez zuten kontra handirik egin. Mendiluzerenean berdin, eta Toloxarenean berdin.

Eta esprinta jo genuen, bi hilabetean: ostiraletan ikastolan biltzen ginen, baina horrez gain Juanjo Uriaren garajean ere bai.

Hernanira etorri gara, Sandiusterrin saioa egin dugu... orduan on xamar batzuk baziren Eskolartekoan, baina ez zitzaien ongi atera, eta batere uste gabe finalean sartu ginen. "Zer egiten dugu final batean ez dakigu-ta bertsotan!". Segi genuen preparatzen esprint horretan, eta Balda betean atera ginen final hartan. Toloxa ere sailkatu zen, Mendiluze ez dakit, eta Zelaia eta ere han ziren. [**Unai Agirre**]

Gorka Tolosa eta Unai Agirre, bertso eskolan urtebete zeramakitenak, txapelketara presentatu, biak finalera sartu eta Unaik irabazi egin zuen. Gogoratzen naiz osaba nola zegoen emozionatuta txapelketa hartan, Juanjo bera, Anatx... Hernanira etorri eta ikastolan harrera egin zitzaien: ume pila bat juntatu zen, berriz ere txapelketako bertsoa kantatu zuten eta giro handia sortu zen. [**Eñaut Agirre**]

Txapelketa inguratu heinean, agurra pixka bat entseatzen genuen, Juanjoren garajean ere bildu izan ginen, eta harrapatzen genuen tarte denetan bertsotan egiten saiatzen ginen. [**Aitor Mendiluze**]

Abildadea hartu genuen bertsoa egiteko. Orduan ere maila bazen baina gutxi batzuek zuten, ez zegoen jende asko bertsoa osatzen zuenik. Maialen Lujanbio zen atzetik zetorrena, eta gure inguruan zeuden ondo xamar egiten zuten bertsolariak. Nik erraz egiten nuen, seguru eta horregatik irabazten nuen. Ez zuen garrantzirik, momentuan eta norberak ematen die garrantzia txapelei. [**Unai Agirre**]

Seguru asko gure aurretik kantatu zutenek are intentsuago biziko zuten, ze jende guztia zegoen zain ume horiek bertsotan nola egiten zuten ikusteko. Guk ere haren hondar bat bizi izan genuen, entzule asko biltzen zen. Bertsolariak joaten ziren entzutera! Familia guztia han izaten zen. [**Unai Agirre**]

Txapelketa zenaren kontzientzia handirik gabe joaten nintzen Eskolartekora. [**Gorka Tolosa**]

(Lehen) Final hartaz ez naiz asko gogoratzen, bertsoren batean geratu egin nintzela. Luze egiten den isiltasun horietako bat, ezin bukatu bertsoa...

Hurrengo urtean taldeka egin zen, eta gu atera ginen Urumea ikastolako Anjel Telleria, Iñaki Lete eta ni eta Langile ikastolako Gorka Tolosa. Taldea Jon Eizmendiren gidaritzapean egin genuen. Hor txapeldun atera ginen, taldeka. Hori izan zen txikitako azken urtea. [**Maialen Lujanbio**]

Eskolartekoen oroitzapen oso ona dut, hunkigarria. Baina batez ere testuinguruarena, ez hainbeste saioena. Guk genuen mundua eta beste bertsolarien pertzepzioa eta miresmena, eta autobuska bete nola joaten ginen Baldara, eta nola egoten zen pankartaz betea, eta egurrezko aulkiak, eta jende artean jaistea behera, sariaren bila joate hori... Egun eta giro berezi bat zen. Gure idolotxoak genituen, liluratzen gintuzten bertsolariak... pikeak ere bazeuden... hor zegoen Unai Agirre dena irabazten zuena eta gure idoloetako bat zena, eta nire beste idolo bat Jon Maia zen... haiek aditzea ederra zen. Eta ikastolako jendearekin, eta beste herrietako ikastoletako jendearekin lehenengo aldiz topo egiten genuen... [**Maialen Lujanbio**]

90EKO HAMARKADA

Denak Joxe Luis Urdangarinen kotxean joaten ginen, Renault6 berde hartan. Edo Anatxen kotxean bestela. Egun politak izaten ziren, egun-pasa joaten ginen. [**Eñaut Agirre**]

Entzule gazteak izaten dira, baina zu ere adin berekoa zara: bertsolari bat entzuleari ari da han ere. Bere errespetua du beti, eta jarri egiten zara jendaurrera. Eskolarteko Txapelketan aurrerago edo atzerago egin, ez genion inportantzia handirik ematen. [**Xabier Legarreta**]

Guri boom handi hura tokatu zitzaigun: Eskolartekoa 20 parte-hartzailetik 200 lagunekoa izatera pasa zen. Horrelako festa batean parte-hartu eta aurrean ibili nahi izatea gehiegi zen, behar bada. Saioa bukatutakoan festa handi bat izaten zen. [**Iker Osa**]

Ez zaio beste munduko garrantzirik eman behar. Orain begiratu eta iruditzen zait umetan serioegi hartzen genuela. Eta azkenean lau bertsotatik batean huts egin eta kalera joaten ginen normalean. Bertso eskolen lana da ikasleei jakinaraztea Eskolartekoari ez zaiola behar baino garrantzia handiagoa eman behar. Eta bertsolaritza bere osotasunean erakutsi behar da.

Aurretik bi-hiru hilabete oso oso estu pasatzen genituen. Baina horrek eman zigun ilusioa gure arteko bilerak aurrera eramateko eta zaletasun horrekin segitzeko. Hortik sortu ditugu lagun koadrila pila bat eta giro ederra... damurik batere ez dut eta oroitzapen politak dauzkat. [**Iker Osa**]

Eskolartekoaren presioarekin hasten ginen bertso eskolan espabilatzen. Tentsio hori sartzen zigun, etsaminetan bezala, azkeneko momentuan lantzen genuen. [**Itziar Eizagirre**]

Ikastolarekin entzutera joaten ginen: idatzizkoan parte hartzen genuen eta gurekin bertso eskolan zebiltzan helduak bat-batean eta nola kantatzen zuten entzutera joaten ginen. Guretzako festa zen, autobusean joan, idatzizkoari kristoren inportantzia ematen genion, eta bat-bateko saio horretan flipatu egiten genuen. Idatzizkoa beti Aitor Sarriegik irabazten zuen, eta gu haren lanekin harrituta geratzen ginen..

Baina gero han kantatzea probatu genuen, eta ez daukat hain oroimen idilikorik, alderantziz: nik han sufritu egiten nuen, jende aurrean. Gerora irakaspen modura hartzen duzu, estropezu egin eta gero zutitu egiten zinen. Hori zen nire alde positibo bakarretakoa Eskolartekoan. Bizirik ateratzen nintzela. **[Itziar Eizagirre]**

Hernaniko palmaresari ez diogu asko aportatu.

Beti ateratzen ginen taldean apaolaxatarrak (Iker, Urko eta Iratxe), Karmele eta bi ahizpok (Ixiar eta Estitxu Eizagirre), eta beti egoten zen edo agurra ahaztu, doinua nahastu, bestea bukatu ezin... oso gaizki pasatzen genuen bezpera, eguna bera, eta hurrengo eguna. Saiotik bueltan Karmele, Ixiar eta hirurok uzteko zorian izaten ginen.

Baina gero altxa egiten zinen, eta hurrengo urtean joaten zinen esanez "ba, lehengo urtean baino okerrago ez dugu egingo!". Momentu horretan hartzen dituzun zaplakoak gogoan geratzen dira. Eta gero altxa egin bazara, horrek bizitza osorako balio dizu. **[Estitxu Eizagirre]**

Zirku erromatarra zen niretzako hura. Ze buila! **[Estitxu Eizagirre]**

Eskolartekoaren aurretik egiten ziren afariak ederrak izaten ziren. Hor egin genituen lehen harremanak gure belaunaldiko bertsolariekin. Zarautzera joan eta Iñigo Mantzizidor «Mantxi»rekin, Imanol Epelde, Julen Zulaika eta hauekin kristoren festa egin genuen, hurrengo batean Oiartzunen oiartzuarrekin tokatu ginen... afari horiek ziren beste bertso eskolekin bilduz egin genituen lehenengotakoak eta sekulako giroa egoten zen. **[Estitxu Eizagirre]**

2000KO HAMARKADA

Eskolartekora irakasle bezala joaten zarenean beste perspektiba batetik ikusten duzu, eta alde ona eta txarra ikusten diozu. Ume bakoitzak diferente bizi du eta sorpresak hartzen dituzu: ume batzuei lehia gustatzen zaie eta pentsatzen duzu "funtzionatzen badio ba segi dezala". Gogoratzen dut Andrea nola aritzen zen tabladuan lasai eta bere buruarekiko sekulako segurtasunarekin. Ni marabilatuta geratzen nintzen. **[Itziar Eizagirre]**

Gu irakasle izan garenean ume guztiak eraman ditugu Eskolartekora. Batzuetan esaten duzu, "zer ari gara, guk gaizki pasa eta gauza bera errepikatzen?!". **[Itziar Eizagirre]**

2002an Txapela buruan.

Altsasun Euskal Herriko Eskolarteko finala epaitzen aritu nintzen. Eta zer berezia izan zen txikien saioan zuberotarrak kantuan entzutea. Zoragarria, ahaztu egiten zitzaidan puntuatu behar nuenik ere. Ulertzeko ere batzuetan lanak nituen. Baina gozatu egin nuen hango hizkuntza aberastasunarekin. **[Bakarne Urreaga]**

Txapelketa beti da motibazio iturri. Irakasleak ikusten duenean bertsoa botatzen duzula eta manejatzen zarela, txapelketara bultzatzen zaitu. Hasieran beldurra ematen dizu, baina gero atera eta ikusten duzu bertsoa osatzen duzula, eta nik

behintzat esperientzia politak pasatu ditut. Bertso eskolan dabilen ume bat mikrofono aurrean kantari hasteko, horrelako zerbait egon behar du. [**Asier Azpiroz**]

Jendaurreko lehen esperientzia Eskolartekoa da. Txapelketa formatua duela? Bai, baina adin horretan aukera horixe bakarrik daukazu. [**Oier Iurramendi**]

Guretzat Eskolartekoa Txapelketa Nagusia zen! 1997an eta 2001ean helduen Txapelketak ikustera joaten ginen, eta zeinek irabazten zuen eta nola aritzen ziren ikusten genuen, baina guretzako gurea inportanteagoa zen beti.

Ume batentzako krudelkeria handi xamarra da bertsoa txapelketarekin lotzea. Erretzeko arriskua dago. Txapelketari garrantzia handia ematen badiozu eta kale eginez gero, aukera handiak daude bertsoa uzteko, zure ibilbide guztia horretara lotu duzulako. [**Beñat Gaztelumendi**]

Txikien mailatik handitara pasatzen zara eta "bertso bat? hori aurten erraz botako nuke..." sentitzen duzu, baina aurreko urtean ez zenuen erraz botatzen. Handien mailan ibili, eta hurrengo urtean besteak ikustera joaten zara eta "joe, bost bertsogatik apuratzen ginen, e!" pentsatzen duzu. Gero konturatzen gara behar baino beldur gehiago pasa dugula.
[**Arnaitz Lasarte**]

Hori da adin horretan dagoena, kristoren inportantzia ematen diozu, urte osoko lana hor erakutsiko bazenu bezala. Eskolartekoa bukatu, joaten zara hurrengo urtean finala ikustera eta esaten duzu "hau al zen?". [**Unai Gaztelumendi**]

Guretzat ona izan da finalean kantatzeko aukera izan dugulako. [**Arnaitz Lasarte**]

Eskolartekoan lagun giro baten falta sentitu nuen. Pena daukat Eskolartekoa jolas bezala gehiago hartu ez izana. Hernanitik beti bideratu gaituzte jolas bezala hartzera, baina horra igotzen zara eta hainbeste aurpegi ikusten dituzu zuri begira, kazetariak aurrean... jolas hori nahiko serio bihurtzen da. Eskolartekoa bukatutakoan zurekin kantatu duten horiekin harremana egiten duzu, eta zure lagun bihurtzen dira. Baina pena daukat Eskolartekoan eurekin pasatako denbora ez aprobetxatu izana. [**Beñat Gaztelumendi**]

(Beñat anaia eta biok) Nola txiki txikiak ginen eta bertsotan isildu gabe egiten genuen, plaza batzuk egiten genituen, eta jendea zain zegoen. Bertso eskolatik inolako presiorik gabe joaten ginen, baina ataskatzeari sekulako beldurra nion. Txikitan behintzat Eskolarteko eguna gogorra izaten zen, finalera pasa nahi, derrigor.



Gaztelumendi anaiak 2005eko Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan.

Handien mailan bakarka ateratzen ginenez, halako konpromisorik ere ez nuen sentitzen, ez dituzu taldekideak izorratuko... gusturago aritu nintzen.
[**Unai Gaztelumendi**]

LORPENAK

Talde ona tokatu zitzaigun: Aitor Larreta, Beñat Gaztelumendi eta Peru Iurramendirekin kantatu nuen eta txapela atera genuen. Hurrengo urtean ere txapela irabazi genuen, Jon Otxotorenarekin. Hurrengo urtean Arnaitz Lasarterekin atera ginen taldean eta finalera iritsi ginen, eta ni Euskal Herrikorako sailkatu nintzen.
[**Unai Gaztelumendi**]

Gipuzkoako Eskolartekoan txikien mailan Hernanirekin bi txapela irabazi nituen. Euskal Herrikoan txikien mailan hiru txapela. Handien mailan irabazi nituen bi txapela Gipuzkoakoan eta hiru Euska Herrikoan. [**Beñat Gaztelumendi**]

Unai anaiak Eskolartekoa irabazi zuen urte hartan bertso eskolan ni baino hobeto zebilen. Urte bat edo pare bat baziren bertso eskolan bera gozatzen ikusten zela. Etortzen zen, jolasten zuen... irabazteko aukera gehiago ikusten nizkion berari. Momentuan pena hartzen duzu bigarren egin duzulako, "kabendio, irabazi nahi nuen!", baina gero anaia txapelarekin ikusi, eta ederra izan zen, gainera berak egin zuen saio horrekin! [**Beñat Gaztelumendi**]

Gipuzkoakoan bost bertso dira puntuatzen direnak eta batean despuntatzen baduzu eta besteetan ez baduzu failatzen, hor ibiliko zara. [**Unai Gaztelumendi**]

Gauza askorik espero ez genuenez, ahal zena egitera ateratzen ginen. Finalera ailegatuz gero ongi, eta bestela, kasik hobeto! Handien mailara pasa eta esaten nuen "dio, aurten zer edo zer egin behar diat, bada!" eta ez zen ateratzen eta orduan, "bueno, hurrengo urtean izango duk ba!". Eta azkenean arroza pasa! [**Oier Iurramendi**]

Urtetik urtera txapelek pisu handiagoa daukate. 18 urterekin kaka eginda joan nintzen Euskal Herriko Eskolarteko finalera. Azkeneko urtea nuen, jende guztiak niri begiratzen zidan, nik irabaztea espero zuten... Kartzelako lana iritsi zen eta lehenengo bertsoa ongi bota nuen, ikusten nuen irabazteko aukera nuela. Eta bigarren bertsoa kantatzen ari nintzela kazetarien aurpegiak ikusten nituen, jendearen begiratuak, aurreko txapel guztien oroimena etorri zitzaidan... eta erori egin nintzen bertso horretan. Txapelketa bizitzeko modu horrek dakarren ordaina da. Berez hainbesteko seriotasunik ez daukana hain serio hartu izanarena. [**Beñat Gaztelumendi**]

2010EKO HAMARKADA

Oroimen ona dut baina ez naiz oso zalea izan. Txikien mailan bertso bakarra kantatzen genuen, ikaragarri urduri joaten nintzen, bertsoa bota eta lasaitzen nintzen, baina jada ez nuen gehiago kantatu behar. Eskas geratzen zitzaidan. Handien mailan egin beharreko lana ere motzegia egin izan zait. Baina kantatzeaz gain, jendea ezagutu dut eta amistade onak egin ditut, esperientzia positiboa izan da. [**Eli Pagola**]

Zutik ezkerretik hirugarren eta laugarrenak: Eñaut Martiarena eta Elixabete Pagola. Eta eskuinetik lehena Maialen Lujanbio.
Iturria: http://www.zingizango.com

SAGARDO FESTAK 1990EAN

"SAGARDOA TXOTXETIK EUSKARA GOGOTIK" KANPAINA

Sagardotegian saioak egiten hasi ziren, lau bertsolarirekin. Gure taldean Maialen Lujanbio, Joxe Mari Mujika Anatx, Antton Garin eta ni ginen.

Guri lehenengo tokatu zitzaigun Zapirain, bigarrengo Bereziartua, hirugarrengoa Astarbe, laugarrengoa Borda, bosgarren Zelaia eta seigarren Itxasburu. Eta gero saio denak bukatu zirenean, denak Otsua-Enean egin genuen afaria. Hura mundua! Zelaianeko eta Otsua Eneko saioak irratian bota zituzten. [**Julian Ezeiza "Aterpe"**]

Maialen Lujanbio ordurako ezaguna zen eta bere irrikaz etorri ziren Zelaiara komunikabideak, eta bera egun hartan gaixotu eta etorri ez! [**Antton Garin**]

Zelaia sagardotegian, 1990-04-13

Laxaro Azkuneren bertso programan emana, Herri Irratian.

Antton Garin:
Arratsaldeon denori hemen
kantatzera gu bagatoz
modo onian ohitura zaharra
zeuri eakusteko modoz
giro edarra gaur egiteko
hirurok pentsatu asmoz
beteko gera bai bertsoakin
ta beteko gera sa(ga)rdoz.

Julian Ezeiza "Aterpe":
Honen aurretik izandu degu
sagardozaleen deia
hauxen da guk beti borondatez
guztiontzat degun nahia
horretarako guk aukeratu
sagardotegi Zelaia
ia guztiok ospatzen degun
une goxo ta alaia.

Anatx:
Gabon lehenengo andre ta gizon
ohitura degun bezela
badakizute bertsotarako
gu apropos gatozela
ta Hernanin dan bertso eskola
hortakoak geradela
lehendabiziko opa dizuet
danoi on e(g)in dizutela.

Antton Garin:
Jende jatorra gaur ikusten det
hemen dela bai alkartzen
giro polit bat kupel aldian
jaunak baidegu ikusten
eskerrak ere sagardozale
ondo ai zerate portatzen
zuekin al bada egingo deu
geure euskera indartzen.

Julian Ezeiza "Aterpe":
Eginkizuna al dan ondona
guk egingo degu bete
gaurkoak behintzat ez deigula gui
inolatan egin kalte
hemen dagola Anatx gaztea
Antton Garin ta Aterpe
kontuak kontu, baina afa(r)ia
ederra eman digute.

Anatx:
Arrazoi dezu, alabeharrez
bagendun nahiko afari
gu lau ginaden ordenatuak
ta orain hiru bertsolari
Maialen gaixo dagoela-ta
gu ari gera kantari
azkar sendatu dadila bera
irratitikan berari.

Antton Garin:
Oraintxen ere bertso batian
hemen egia esan du
laukotetikan neska jator bat
gaur egin zaigu faltatu
Maialen zutzat goatzen gera
beste batean azaldu
ta bitartian hemen daudenen
txalo guztiak zuk hartu.

Julian Ezeiza "Aterpe":
Toki hontara bilduak gera
sagardozale geranak
lehenengo on ein digula danoi
hemengo jan ta edanak
hain gogozkuak Euskal Herriak
barrika hoitan dauden mamak
SIDArik ez du harrapatuko
hortik edaten duanak.

Anatx:
Badakizute bertsolaria
sagardo zalea dela
badakizute Udaletxeak
antolatu digutela
sagardo zalek lagundu ere bai
ohitura duten bezela
gu etorriko ez ote ginan
beldurra zuten bestela.

Antton Garin:
Gustatutzen zait giro edar hau
gainera denok armonin
euskera ere sagardotegin
indarra zula ez nakin
aspalditikan hola gabiltza
euskaldunak'e Hernanin
ta Astigarrakin elkartuta
lana ona dezute in.

Julian Ezeiza "Aterpe":
Hemen da nonahi alkartasunak
nola diraden ezarri
aspalditikan guk badakigu
sagardotegiko berri
hamaika aldiz ziri haundiak
hemen botiaz elkarri
hemen ez bada bada kanpotik
zuek sagarra ekarri.

Anatx:
Guk esan'be ere hoiek sagarra
lasai ekarriko dute
gero jendea nola dagoen
beraien lanaren truke
lehen gizonezko ta emakumeak
orain hainbeste emakume
emakumeak sagardotegin
gaizki ematen dezute.

"Anatx gerrarako etorri zaigu, ikusten denez!" (Laxaro Azkunek komentarioa, irratitik)

Auskalo zer astakeria bota nituen orduan! Akordatutakoa kantatzen genuen. [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

Antton Garin:
Euskaldunak'e Zelaia aldera
ondo eman dute pausuak
ikusten ditut gozo gozo gaur
dantzatzen bere basuak
merezi zute agur eder bat
hemen zuek irratikuak
eta hementxe zaudeten denek
me(re)zi dezute txaluak.

Julian Ezeiza "Aterpe":
Halabeharrez etorri gera
sagardotegi batera
gaurko gure hemengo bilera
nola ez doan kaltera
urtero hau antolatu zuek
berriro etorriko gera
ia guziok elkartutzeko
izaten deguan era.

Anatx:
Sagardotegin era gozoan
bete liteke kikara
Hernani eta Astigarrako
udaletxeak anpara
ta bertso eskolan gaudenak ere
zuen eskutako gara
hola alkartzen bagera beti
indartu leike euskara.

JOXE LEGARRETA BERTSO-PAPER LEHIAKETA

JOXE LEGARRETA "PEPITO"

Asturiasen jaio zen, Luarca herrian, 1931. (...) Hernanira etorri ziren bizitzera: Kardaberaz kalean bizi izan ziren urte batzuetan, gero Igerola baserrian eta Pagoagan, eta azkenik Fagollagan.

(...) Pepito bera bertsozalea zen, euskal kulturaren adierazpen bat zelako batez ere.

(...) ikurriña legeztatu zutenean, inon baino lehenago jarri zen Hernanin ikurriña, baina ez zen kasualidadez izan. Pepitok berak andreari oihal txuri, gorri eta berdeak ekarri eta ikurriña ezkutuan egiteko eskatu zion eta han eduki zuen gero gordeta egun hori iritsi zen arte.

(...) Joxe Legarreta Hernaniko zinegotzia izan zen 1971tik 1979 bitarte lehenengo eta ondoren, 1984tik heriotzak mundu honetatik eraman zuen bitarte, 1987ko Urtarrilak 23.

Bere ibilbide politikoa auzoarekin, mendiarekin eta naturarekin oso lotua egon zen. Aparrain, Santa Barbara eta Akola atseden-lekuen sorrera bultzatu zuen eta 1974an berreskuratu zuen Zuhaitz egunaren tradizioa.

[**Joxe Legarreta**, "Pepito"ren omenez liburuxka, 2003ko ekainean]

(...) Bada azpimarratu behar den zerbait, Joxe gustora sentitu arazten zuen zerbait, bere izakera goxo eta humilarekin bat zetorren zerbait: NATURA EDO IZADIA.

(...) Horregatik eta Joxe, zure gustokoa izango zelakoan, bihotzez, antolatu dugu I. Bertso Paper Lehiaketa hau zure izenean, bi urtetin behin ospatuko delarik. Hau bultzatzearen helburuak, euskara suspertzea batetik, eta hainbat lan egin zenuenagatik (Zuhaitz eguna...) aukeratu dugu NATURA gaia, bestetik, gure artean beti bizirik iraun dezazuen, euskara, Natura eta Joxe Legarreta "Pepito".

[**Hernaniko Udala**, Joxe Legarreta I. Sariko liburuxkaren sarrera]

Saridunak:

Antolatzailea: Hernaniko udala, euskara zerbitzua

1.- 1987: **Lehen saria** Joseba Santxo.
Bigarren saria Xanti Zabala.

2.- 1989: **Lehen saria** Rikardo Gonzalez de Durana.
Bigarren saria Jesus Mari Etxezarreta.
Hirugarren saria Xanti Zabala.
Epaimahaia: Joxe Mari Arrieta eta Mikel Mendizabal.

3.- 1991: **Lehen saria** Xanti Zabala.
Bigarren saria Juanjo Respaldiza.
Hirugarren saria Xanti Zabala.

4.- 1993: **Lehen saria** Pello Esnal.
Bigarren saria Xanti Zabala.
Hirugarren saria Joxe Luis Urdangarin.

5.- 1995: **A mailan** Ekaitz Goikoetxea.
B mailan Nahikari Gabilondo.
C mailan lehena Juanjo Respaldiza eta bigarrena Asier Oiarbide.

6.- 1997: **A mailan** Amets Arzallus.
B mailan Ekaitz Goikoetxea.
C mailan lehena Unai Agirre eta bigarrena Julian Albistur.

7.- 1999: **A mailan** Irati Goikoetxea.
B mailan Ekaitz Goikoetxea.
C mailan lehena Unai Agirre eta bigarrena Pello Esnal.
Epaimahaia: Joxe Mari Arrieta, Aitor Mendiluze eta Mikel Mendizabal.

8.- 2001: **A mailan** Joxe Munduate.
B mailan Alaitz Sarasola.
C mailan lehena Jon Martin eta bigarrena Nikolas Zendoia.

9.- 2003ko ekaina: lehiaketaren ordez bertso musikatu-emanaldiak egin ziren (bat Ereñozun eta bestea Hernanin). Herriko bertsolariek herriko gaien inguruan idatzitako bertso-paperez osatuak.

"NATURA SUNTSITUZ"

1
Natura izanikan
luxuzko ondare
lur bizia laister da
desertuko hare
porlana da paraje
berriko landare
trenbide ta kaminu
danak parez-pare
Euskadi bihurtu da
armiarma sare.

2
Sasi negoziaketa
baten atseginez
Leizaran bete dugu
ke eta zikinez
zuhaitzak ordezkatuz
asfalto gordinez
lehengo txori kantuen
ordezko eginez
eguna esnatzen da
kotxeen txirrinez.

3
Orain zuzenduko naiz
Itoizko putzura
Nafarroako herri
txikien kutsura
urtegi handi batez
nahi dute ingura
garai berrietako
jaungoiko da ura
norentzat izango den
ez dakigun hura.

4
AHT-a ere
hau aurrerapena
Europan garaturik
datorkigun trena
komeni ez zaienez
gerta litekeena
gizarteak frenurik
ipintzearena
azkar bezain ixilik
pasako dutena.

5
Y-grekoaren forman
kanpotik eraso
nahiz ta guztiz kontrako
eritziak jaso
Hernanin ere sortu
du hainbat arazo
adio Akarregi
eta Landarbaso
zerbait zutik utziko
digute akaso.

6
Urumeara buelta
txiki bat eginez
hobe da ez joatea
txit usaimen finez
itsasoa ere da
kolore berdinez
industriaren kontrol
ezak eraginez
bazterrak bete dira
gure hondakinez.

7
Ekidin litezkeenez
hamarretik zortzi
aginteko hamaika
pertsona arrotzi
ezin litekeela
nahi diot egotzi
hondakin toxikorik
edonon ehortzi
mundua bilakatuz
gure zakarrontzi.

8
OTAN-ek ere igo
gintun kategoriz
asko aprobetxatuz
horrelako zoriz
Nafarroako gune
marroi eta horiz
Yankiei nola lotu
ginen soka lodiz
Bardeak bete ziren
metalezko txoriz.

9
Yupi kirolak nola
modan jarri diran
itsasertzeko azken
proiektuen jiran
kirol portuak daude
non nahi ikusmiran
bela eta ur motor
piraguen segidan
turistak ehizatzeko
zepoak bailiran.

10
Eta guzti honekin
haunditzen ari da
zenbait haundi maundiren
patriken dizdira
sinesten ez baduzu
jarri zaitez tira
Suitzan irekiriko
kontuei begira
garapen aitzakian
aberastu dira.

11
Geure aldetik ere
jarrera arina
bakoitzak kotxe bana
ahal dutenek bina
zaborra egunero
bi poltsa, jakina
erdiaz gendukake
pasatzeko dina
kontzientziatuago
egongo bagina.

[*Unai Agirre, 1997ko sorta sariduna*]

EREÑOZU - SARRERAKOAK

1
Denak izan zaitezte
ongi etorriak
hurbildu zeratenak
guk erakarriak
ahotsez ta musikaz
gure aldarriak
zuentzat dakarzkigu
auzoko berriak
le(he)ngo ohitura zaharrean
bertsotan jarriak.

2
Naparraldeko mugan
abiatuz behera
Urumea sartzen da
Gipuzkoa aldera
Pagoagan hasita
Lastola parera
bostehunen bat egoskor
gutxigorabehera
bizi geran lekua
bailara hauxe da.

3
Nahiz bizileku izan
sarri tokirik ez
hemen etxeak egin
ohi baitira nekez
frontoi promesa ere
ezkutatu da kez
baina gaudenez buru
eta mingain askez
saioa bete degu
auzorako eskez.

4
Le(he)ngoak ere izan
ditugu goguan
Latxen fabrika za(ha)rra
erreka onduan
Fagollagan eskola
orduko moduan
auzoak zenbat bertso
bota ta entzun duan
lan ta festa egiten
zekiten orduan.

5
Auzoan bikote bat
badegu begiko
hoiek ahaztea ere
ez da komeniko
izenez ta izanez
tamaina haundiko
auzoari lotuta
dauzkagu betiko
San Antonio patroi
ta Txirrita jainko.

[**Aritz Zerain,** 2003an Joxe Legarretaren omenez Ereñozun egindako bertso-emanaldirako jarriak]

HERNANI - SARRERAKOAK

1
Herri bat bada bere
zilborraren erdin
kanpoan famatua,
etxean ez berdin;
erdia euskalduna,
erdia etorkin;
haundi baina txikia;
goxo baina gordin...
portal denek bi ate
dauzkate Hernanin.

2
Neguko zoramena,
udarako pake;
sagardoaren kabi,
zuritoen parke,
Nafarroatik gertu,
Donostia maite;
mendiko haize berde,
papelerako ke...;
hemen portal guztiek
dauzkate bi ate.

3
Larunbata festa gau,
jaia festa oste;
kanpotarren pagotxa,
herritarren nahaste;
herri-bizi motela,
herri-gogor ospe;
igual bitxi izaki...
igual asko uste...
Hemen portal guztiek
bi ate dituzte.

4
Naturzalea baina
zementuz jarria.
Bizimodu arrosa,
borroka gorria.
Maiz maitatua ta maiz
gorrotagarria.
Heldu eta gaztea;
zaharra ta berria...
portal denek bi ate
dauzkaten herria.

[**Maialen Lujanbio,** 2003an Joxe Legarretaren omenez Hernanin egindako bertso-emanaldirako jarriak]

BERTSOZALE ELKARTEA

(Elkartearen sorrera) Txapelketa bat antolatu nahi izan zuen Euskaltzaindiak, bertsolariak ez zeuden gustura hango araudiarekin, eta pentsatu zuten beren inguruko jendea bildu eta txapelketa beraiek antolatzea. Txapelketa hura bukatu zen, eta dirua gelditu zitzaien kaxan, eta horrek aukera ematen zuen jada egun hartatik Jexux Murua liberatuta jartzeko. Hasiera hasieratik Dokumentazio Zentroaren ideia ere hor egon zen, orduan Artxiboa esaten zitzaion. Bertsolarien artean ordurako antolatzen ziren omenaldiak eta Bertso Egunak hobexeago lantzen hasi ziren. [**Jokin Sorozabal**]

Elkartearen sorreraz (1986an) oso oroimen polita daukat. Imanol Lazkanok eta koadrilatxo batek deitu ziguten, ordurako herri bakoitzean mugitzen hasiak ginen jendeari. Imanolek bururatzen zuen koadrila hori oso konbentzituta zegoen aldaketa egin behar zela bertso munduan eta bereziki txapelketen antolaketan. Euskaltzaindiak antolatutako azken txapelketarekin oso erreak geratu ziren, eta hortik abiatu ginen, konbentzimendu batetik. Euskal Herri osoko jendea bildu ginen eta hasierako helburua txapelketa zen. Eta handik aurrera, txapelketatik aparte, antolakuntza, Elkartea, eta hasierako abiada. Ez zuen etenik izan, eta hor etorri zen, alde batetik txapelketak, bestetik Elkartea, eta bestetik telebista saioen hasierako negoziazioak. [**Juanjo Uria**]

Finala Belodromora pasatzea apustu oso fuertea zen: areto batean 4.000 pertsona bilduz gero sekulako arrakasta dena, Belodromoan 4.000 bilduz gero frakasoa da. Hori asko eztabaidatu zen, baina azkenean ausart jokatu genuen, horrekin bezala beste gauza batzuekin, nahiz eta denean ez zen asmatu: esaterako, epaimahaiak puntuazioak ematerakoan txartela altxatzearekin. Loiolako bilera bateko irudia daukat buruan: herri kiroletan aritzen den Andres Osa Sakona aulkitik altxa eta nola esaten zuen: "nola ez garela ausartuko puntuak bistan ematen! Hau egin egingo diagu!". Niri korapilatsua iruditzen zitzaidan, baina kontra ere ez nuen ezer esan, joera hori zegoen garai hartan. [**Juanjo Uria**]

Motor lana tokatu zitzaigun, bertsolaritza berritzeko garaia zen. Mugimendu guztiak bezala, bertsolaritza oso gurdi geldoa zen, hori mugitu eta astindu beharra zegoen. Bertso eskoletan ere saiakera egin zen, oso bitarteko gutxirekin, baina begira gero zer ekarri duen. Elkartearen inguruan berdin: ez zegoen ezer ere, hutsune handi bat besterik ez, sortu beharra zegoen, eta aldi berean oinarritxo bat jarri beharra ere bai, haren gainean arbola handi egiteko. Bertsolaritzaren barruan eta Elkartea ardatz dela, begira zer etorri den! Nola zabaldu den, prestigioa irabazten nola doan, teorizazioa zer mailetara iristen ari den... [**Juanjo Uria**]

Oso modu naturalean, tradizioarekin lotutakoekin talka etorri zen. Bertsolariak ez zeuden tradizioan trabatuta, aurrera begiratzeko zeuden. Aurrera begiratzeko zeudenez, bitarteko gutxi, diru gutxi, egoitzarik ez... baina bide bat egin zen, behar beharrezkoa. [**Juanjo Uria**]

TELEBISTAREKIN TIRA-BIRAN

Txapelketako finala izan zen telebistaz botatako lehen emankizuna. Baina ikusten genuen maizago emateko moduko produktua egin zitekeela. Telebistako jendearekin harremanetan jarri ginen eta hasierak zailak izan ziren, negoziazio gogorrak... Anekdota batek marka utzi zidan: Telebistaren ordezkari Joxe Mari Iriondo zegoen, eta gure asmoak ez zituen inondik ere betetzen. Eztabaida publiko egin zen, prentsan azaldu zen, eta Herri Irratitik deitu ziguten debaterako. Telebistatik Iriondo eta Elkartetik ni joan nintzen. Berak Durangotik egin zuen, telefonoz. Hamar minutuko debatea behar zuena ordu erditik gorakoa izan zen, bera bereari eusten saiatu zen, eta iruditzen zait nik errazago neukala gure postura defendatzea. Ze beste gauzetarako hainbeste milioi gastatzen zituen erakunde batek (kirolerako eta abar), euskal kulturaren zatitxo den bertsolaritzara ia ia apurrekin etortzea, ez zen inondik ere itxurazkoa. Alde horretatik, bera inondik ere atakatu gabe gurea defendatu nuen. Kalentura pixka batekin joan nintzen, eta zeharo izerditan bukatu nuen, ez nintzen

konturatzen ondo edo gaizki egin nuen... bukatu eta egun berean Sebastian Lizasoren deia izan nuen: "Juanjo, de puta madre egondu haiz!". Prentsako eta irratiko eztabaida publikoak bere ondorioak izan zituen. Durangora joan ginen, negoziatu genuen, eta telebista saioak ematen hasi ziren. **[Juanjo Uria]**

ESKATU BAINO GEHIAGO EMAN

(1989ko Txapelketan) Ez zegoen gaurko egiturarik, orduan lau katu ibiltzen ginen. Ni Harreman Publikoetan, Jaurlaritzarekin, Diputazioarekin, Udaletxearekin... Sebastian Lizaso eta Imanol Lazkanorekin joaten nintzen batera eta bestera. Oso harrera ona egiten ziguten leku guztietan.

Gure dokumentazioekin karpetatxoa prestatzen genuen eta kasu honetan Donostiako alkatearekin, Ramon Labaienekin biltzekoak ginen. Larunbatean 12etan etortzeko esan zigun. Joan gara Sebastian, Imanol eta hirurok, eta sala batean kristoren jende pila topatu genuen, luntxean, denak han jan eta edanean... bilera formalean sartu gabe, jende guzti haren inguruan, Labaienek horrela bota zigun: "Uria, zera pentsatu dut, aurten 3 kilo ematea. Konforme al zarete?". Joe, eta guk karpetako idatzian 2 milioi geneuzkan eskatuta! Elkarri begira hasi ginen hirurok, eta "hau kanbiatu beharra zegok nola edo hala!". 10 minutu egin genituen han berarekin, eta nik berehala "bale, Ramon, gaur oso okupatuta zaude hemen, eta zuen erabakia hori izan bada, ba ondo dago, onartzen dugu. Orain egon lasai, eta ni hurrengo astean pasako naiz eta karpeta zure idazkariari utziko diot...". Berak "ez, ez, ez, Uria, utzidak karpeta, hori jada erabakita zegok...". "Joe, Ramon, hemen hainbeste jenderekin, eta jada hire galdezka hari dituk eta zer ibiliko haiz hemen karpetarekin" nik karpeta etxera eraman nahi nuen! Eta azkenean kristoren tirabira, eta ez dakit tira egin zidan karpetatik edo zer, azkenean karpetarekin bera geratu zen. Hurrengo astelehenean, goizeko 9etan, bere idazkari Esteban Goikoetxeak deitu zidan "hi, Juanjo, zer moduz Ramonekin?" "Ba ondo, ondo...". "Zer esan zizuen?" "Bueno, hiru milioi emango zizkigula...", "bai, bai, bai, baina zuek bi eskatu dituzue". "Bueno, bai, baina hi, Esteban, hemen alkatearen hitzak asko balio dik, e!". Hizketan egon ginen eta azkenean zera esan zidan. "Zuei defiziten bat sortzen bazaizue Txapelketa honetan, bi milioiren partez hiru emango dizkizuegu". Baina diruz ez bazarete gaizki ateratzen, bitan utziko diagu".

1
Larunbata zen eta ordua
eguerdian hamabitan
eta hiruok txintxo geunden han
hamabiak bost gutxitan.

2
Bizkartzain pare sendoa nuen
Imanol eta Lizaso
hainbeste jende dagon ezkero
hartuko gaitu akaso.

3
Urrutitikan eskua altxaz
esan zigun hurbiltzeko
luntxa guretzat ere bazala
beldurrik gabe hartzeko.

4
Gugana mantxo hurbildu eta
azkar jo zuen enbido:
lasai egon, ze aurten zuentzat
gorde ditut hiru kilo.

5
Ta gu hirurok gelditu ginen
begiratuaz alkarri
holako pastel ederrarekin
ez gera topatu sarri.

6
Bat-batez gure begirada ze
elkarren magnetismoa
nolabait altxa behar diagu
jarritako minimoa.

7
Guk eskaeran bi genituen
ta berak eskaini hiru
sekula inork ez digu eman
hain erraz hainbeste diru.

[Juanjo Uria]

Juanjo Uriak oso paper garrantzitsua izan zuen Elkartearen sorreran, eta entzuna dudanez ez dut uste sorrera oso erraza izan zutenik. **[Aritz Zerain]**

TXAPELA ETA LEHENDAKARIA

Elkarteak 86an erabaki zuen, eta geroztik oinarri honi jarraitu dio, txapela ematen duena bertso munduko norbait izan behar zuela. Kasu hartan motibo guztiak zeuden, Don Manuel Lekuona oraindik bizi baitzen. Erabaki hori hartu eta Don Manuel Lekuonari esateko intentzioa genuen. Eta tarte horretan hitz egin genuen bai telebistako jendearekin, emankizunaz, eta bai Jaurlaritzakoekin, diru kontuez. Jaurlaritzatik esan zitzaigun guztiarekin ados zeudela, baina txapela lehendakariak jarri behar zuela. Jose Antonio Ardantza zegoen orduan. Guk erantzun genien errespetu osoa jasoko zutela, eta protokolo guztian lehen mailan egongo zirela, baina gure barne erabakia zela eta ulertu behar zutela, kultur ikuspegitik hartutako erabakia zela. Oso postura makurra hartu zuten, ezezkoan zeuden, telebistak ere mehatxu egin zuen atzera botako ote ziren... Polemika kalera atera zen, eta guk duda genuen Don Manuel ausartuko ote zen txapela janztera, erakundeei errespetu handia zielako eta ikuspegiz ere oso tradizionala zelako... Berarengana joan beharrean, ilobari esan nion, Joan Mari Lekuonari: "pentsatu dugu Don Manuelek jantzi behar duela, baina arazo hau dago. Garbi esan nahi dizugu". "Bueno, bueno, lasai egon. Osaba etorriko da, e!". Lehendakaria ez zen azaldu.

[**Juanjo Uria**]

90EKO HAMARKADA

Bertsozale Elkartean egin daitekeen ekarpenik handiena bazkide aktibo izatea dela sinisten dut. Ni Jexux Muruak sartu ninduen, Tolosako bertso eskolan nire irakasle zela. 1994an gertatu zen Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Igor Elortza eta laurok bertsotan ari ginela ETBko Debaldeko Festa programa eten ziguteneko hura, eta horri buruzko bilerarekin eta bata eta bestearekin, han sartu ginen. [**Jexux Mari Irazu**]

1998 aldera nirekin harremanetan jarri ziren Koldo Tapia eta Jexux Murua, aholkularitza eske. Antolaketa aldetik, edo bideragarritasuna lortzeko moduak topatzen laguntzeko. Horietako bat izan zen Lankuren sorrera. Bere garaian hiru gabezia ikusten ziren Bertsozale Elkartean: besteren esku egonik ezin zela saioak baldintza egokietan antolatzea bermatu, produktu berriak lantzeko plataforma bat behar zela, eta hirugarren helburua zen, Bertsozale Elkartea izaeraz defizitarioa izanik, diru-iturri gehigarri bat sortzea. Oraindik ere Lankuko proiekturen inguruan aholkulari paperean aritzen naiz tarteka. Bertsolaritza garai berrietara egokitzen laguntzeko eta berrikuntza sustatzeko tresna izan beharko luke. [**Joxe Luis Urdangarin**]

1999ko Herriarteko Txapelketa antolatzeko Gipuzkoako Elkartean eragile edo liberatu bat behar zuten, eta hartu egin ninduten. Oso gustura aritu nintzen eta asko ikasi nuen. Txapelketa ere oso ondo atera zen. Txapelketa bukatu eta gero aukera izan nuen liberatu segitzeko. Baina utzi egin nuen: bertsoa niretzako plazera izan da beti, eta konturatu nintzen erre egingo nintzela. "Bide honetan joaten bahaiz, lana bukatu eta ez duk bertsorik aditu nahiko sekula santan" pentsatu nuen. [**Unai Agirre**]

2000KO HAMARKADA

Euskal Herriko sustapen arduraduna izan nintzen. Niretzat interesgarriena izan da Elkartea, funtzionamendua eta hor dagoen jendea ezagutzea eta elkartea egiten ari den lanaz jabetzea. Harrigarria da Mintzola Etxera joan eta zenbat jende ikusten den han bueltaka. Hori da bizia. Ikasketa da hor pasa den jendearen filosofia eta kulturgintza ikuspegia jasotzea, bertsolaritza ulertzeko modua eta lanerako borondatea... [**Maialen Lujanbio**]

Bai Euskal Herrikoa eta bai Gipuzkoako elkartea, niretzako lanerako eskola izan ziren. Bileretan parte hartzen ikasten duzu, zerbait ateratzea nahi baduzu etxean lan egin beharra dagoela, beste jendearekin adosten... [**Estitxu Eizagirre**]

Elkarteak balore handiak ditu. Zerbait egin nahi baduzu ateak zabalik dituzu. Potentzial handia ikusten diot. Bertsolaritzako erreferente nagusia da. Eskertzekoa da horrelako elkarte bat edukitzea, zerbait martxan jarri edo zabaltzeko nukleo bat edukitzea, jende pila bat biltzen duena eta legitimotasuna ematen dioguna. Hori oso ona da denontzako, sektore guztia antolatzeko.

[**Estitxu Eizagirre**]

Jexux Mari Irazu eta biok Gipuzkoako Elkarteko zuzendaritzan ibili ginenean, asko hitz egiten genuen bertso eskolako irakasleez, erreleboaz, pena zela irakasleak beti zerotik hasten zirela eta esperientzia bildutakoan uzten zutela... Elkartetik Gipuzkoako bertso eskolen sarea osatzen saiatu ginen, materialak trukatzeko, formazio ikastaroak antolatzeko, irteerak elkarrekin egiteko... Eta hezkuntza arautuan ere orduan hasi ziren Gipuzkoan klaseak ematen, Aitor Mendiluze eragile zela. Garbi genuen ikastoletan bertsolaritza epe luzera lantzen hasiz gero emaitza antzemango zela, bertso eskolara ume gehiago eta oinarri batekin etorriko zirela. [**Estitxu Eizagirre**]

Gipuzkoako Elkartean ikuspegi bat finkatu genuen, bai 1999ko Herriarteko Txapelketa antolatzean, eta transmisio politika definitzeko bidean (Estitxu Eizagirrerekin). Esaten zen Gipuzkoan bertsolariak berez sortzen zirela, ez zegoela ezer egin beharrik. Bitartean, errealitatea zen Eskolarteko Txapelketan hiru bertsolariko taldeak ateratzeko eskualdeak elkartu egin behar zirela, eta ez edozein eskualde, Goierri bezalako eskualde oso bat Urretxu-Zumarragako bailararekin elkartu behar zen.

Bertso eskolak asko famatzen ziren baina ez zuen inork benetako apusturik egiten, mugimendu hori bultzatzeko ez zen dirurik jartzen. Gure apustua hau zen: benetan garrantzia baldin badu hor inbertitu egin behar da, eskola arautura iritsi behar da, ikusi baita eraman den garaitan emaitzak eman dituela. Horrek gero herrian artikulatu egin behar du. Eta aisialdian bertsoa beste era batera bizitzeko aukera eman. Gu gehien saiatu ginen Gipuzkoako ikastetxeetan bertsolaritza ikasgaia sartzen eta gero hortik herriko bertso eskolak elikatzeko bidea izaten. [**Jexux Mari Irazu**]

Euskal Herriko transmisio arduradun lan egiten dut. Saiakera da nola eman koherentzia gehiago bertso eskolan egiten den lanari, ikastetxeetan bertsolaritza erakusten egiten den lanari, eta aisialdiko (topaketak, udalekuak...) ekintza osagarriei. Hiru eremu horien artean zubiak nola jarri, baliabideak ere optimizatzeko. Eta hainbat beharrei erantzuna ematea (irakasleen formazioa dela, materialgintza...) zazpi lurraldeetan. Eta generoa kontuan edukitzea.

Hori Hernanira ekarrita: definitzea Bertsozale Elkarteak bertso eskola autonomoei ("autonomo" deitzen diegu herri mugimendutik sortu direnei, beren kasa antolatu eta dinamika propioa dutenei) lagunduz zer proiektu aurrera eraman ditzakeen herri mailan, zer eskualde mailan, herrialde mailan eta Euskal Herri mailan. Oso garbi edukitzea Elkarteak Hernaniko bertso eskolari zertan eskaini ahal dion laguntza.

Elkarteak ziurtatuko du eskola guztietan bertsolaritza landuko dela. Gero eskoletan zaletzen ditugun umeak bertso eskolara bideratzeko. Harremana egiten dugu ikastoletako eta bertso eskolako irakasleekin eta haurrak bideratu.

[**Itziar Eizagirre**]

Gu bertso eskolako irakasle ginenean, lan asko gestio hutsa ziren baina 15 urterekin militantziaz ari zarenean, lana eskatzen dute: autobusak lotu, aterpetxeak hartu, gurasoentzat oharrak idatzi... horrelako hainbat gestio lan Elkarteak hartu ditu beregain: topaketetarako aterpetxea hartu, Gipuzkoako Bertso Eskolen Egunerako autobusak jarri... Eta bertso eskolako irakasleei formazioa eta materiala eskaintzen dizkie. [**Itziar Eizagirre**]

Lankun lanean aritu nintzen, oso bolada motzean. Hiru hilabeteko ordezkapen txiki bat egin nuen, komertzial gisa udaletxez udaletxe Lanku eta Bertsozale Elkartea zer ziren azaltzen, eta bertso saioak eta ekoizpen bereziak saltzen.

Dezente saldu nuen, asko, esango nuke. Batez ere ekoizpen bereziak saldu ziren: "Inaxitoren ametsak", "Bertso magia", Amurizaren Lazkao Txikiri buruzko emanaldia, Enbeitatarren emanaldia, eta bertsolaritzaren erakusketa. [**Gorka Tolosa**]

Iker taldean nabil. Mintzolarekiko harremanak lantzen aritu gara, udako ikastaroak antolatzen EHUn eta UEUn, eta bertso estrofak izendatzeko irizpideak jartzen. [**Beñat Gaztelumendi**]

Koordinatzailea naiz. Elkarteko lanak asko baldintzatzen du bertsotako ibilera. Ase ere bai, batzuek taula gainetik egiten dute ekarpena eta beste batzuek atzeko lanetik. Denak dira beharrezkoak. Nik ez dut Bertsozale Elkartekoa lan soil kontsideratzen, badu borondatezko partea, eta horrek dezente asetzen nau. [**Aritz Zerain**]

(Elkartean lanean hasi nintzenean) Gehien harritu ninduena izan zen autoantolaketa horretan zer garbi zeuden landu beharreko ildo nagusiak: transmisioa, sustapena eta ikerkuntza. Eta bakoitzaren papera zein garbi zegoen eta elkarren artean duten lotura.

Elkarteak bertsolaritza geroratzea, zaintzea eta etorkizuna bermatzea du helburu eta horretarako hiru alor horietan aritzen da. Transmisioan ekosistema osoa birsortu behar du, ez bertsolariak bakarrik, bertsozaleak, antolatzaileak, gai-jartzaileak... denak behar ditu ekosistema osatzeko, eta horretarako lan bat egin behar da transmisioan. Gero egin behar da beste lan bat sustapenean, bertsolaritza zabaltzeko, hedatzeko, plazatan, medioetan, eta hirugarrenik ikertu egin behar

da, ezagutzan sakontzeko eta hobetzeko helburuarekin. Oso garbi zegoen bakoitzean nola lan egin behar den, dena lotu eta kate bat osatzeko.

Eta gainera hori islatzen da herrialdeetan. Herrialde bakoitzean oso egoera diferentea bizi du bertsolaritzak baina baita euskarak ere orokorrean, eta herrialde bakoitzaren egoera herrialde bakoitzak daki. Hiru ardatz horietan herrialde bakoitzak non eragin behar duen edo non jarri indar handiagoa, bakoitzak erabakitzen du.

Eta hartu nuen beste sorpresa on bat izan zen bertsolariek proiektuarekiko duten inplikazioa, askotan beren proiektu pertsonalaren gainetik. Eta bertsolari-bertsozale binomio hori nola uztartzen den Elkartean. Bertsolaritzan sortzaileak eta hartzaileak daude eta bertsolaritza zaindu behar bada, biek jokatzen dute paper garrantzitsua. Hor bada anekdota bitxi bat, Bertsolari Elkartea izenarekin sortu zela, eta berehalaxe Bertsozale Elkartea izatera pasa zela, bien beharra handia dagoelako. [**Aritz Zerain**, Argia, 2338. alea 2012-09-30]

Hernaniko bertso eskolako kide asko pasa dira sailetatik eta zuzendaritzatik. Elkartea bertso eskoletako jendez hornitzen da. Bertso eskolek osatzen duten sare hori guztia da elkartearen ondarerik garrantzitsuena. [**Aritz Zerain**]

Imanol Lazkano sari banaketan. Atzean Juanjo Uria Kontxako barandatxoa eskuan.

1980KO TXAPELKETA

1
Milla bederatzireun,
euskaldun laguna,
larogeigarrena da
asi deguna
Urtarrillaren seia,
Errege Eguna,
Donostia'ko Balda'n
bai giro leguna;
baratz euskalduna,
ura osasuna!
Bertsozko jarduna,
nor zan txapelduna?
Amuriza Xabier
irabaztuna.

2
Balda inguru artan
nork zedukan otzik?
Etzegon ekaitzikan,
etzan izotzik.
Guztiok senideak,
iñor ez arrotzik,
euskera barra-barra
eta danok pozik;
burrukatu zortzik
ta ez izan lotsik,
bat ezpaizan motzik
ba-zan antxe itzik!
Su artu etzuanak
ez du biotzik.

3
Arrasate'n jarriak
egosten eltzean,
ta Gernika'n jarraitu
ain su beltzean.
Auetatik erdiak
Donosti'n biltzean,
zenbat arrazoi sakon
zintzilik iltzean;
gaiari eltzean
lurriña pertzean,
usaia ertzean,
mamia ortzean,
ai, zeru ura banu,
launa, iltzean!

4
Danak lepo egiñak
ainbat exerleku,
eta zutik ere bai
zenbaitxo leku.
Iriondo'ren mende
artu zuten esku,
bat oillar baldin bazan
bestea zan kuku;
emendikan ku-ku,
andik kukurruku,
aingeruen zuku,
edertasun zaku,
txapela zeiñi jarri
nork egin juzku?

5
Amaika bertsozale
ta euskaldun tinko,
igandean bildu zan
or nerekiko.
"Kaixo, Joxe Manuel!
Zer moduz, Periko?
Esku ori luza zak,
lagun aspaldiko"
Aiton da mutiko,
ta zenbat sasoiko.
"Eskerrak, Jaungoiko"
nion belauniko.
Euskerarik oraindik
etzaiguk ilko!

6
Amuriza txapeldun,
Enbeita bigarren,
beste sei bertsolari
jatorrak urren;
konturatu gaitezen
al danik azkarren,
orrelako jai batek
zenbat on dakarren;
naiz ta sarri erren
guk ikusi arren
gazte eta zarren
kanpo eta barren,
igandean euskera
genduan aurren.

[**Joxe Mari Arrieta**, El Diario Vascon argitaratua (1980-1-16 eta 17). Nere ondar alea, Auspoa 162]

1990eko hamarkada

Txapeldun koadrila

Soldadutza bada gizon egiteko / ez dut gizona izan nahi, halaxe kantatu zuen Aitor Sarasuak Antzuolan 1990eko otsailean egindako bertso jaialdian (ikus 330. orria). Bertan zen Hernaniko *Anatx*, soldadutzatik libratzeko eginahalak egin zituen bertsolaria. Urtebete lehenago aurreneko intsumisoak Bilboko Gobernu Militarrean agertu ziren zerbitzu militarrari ezetz esateko. Eredugarri bihurtu zen protesta baketsu, original eta desobedienteari hasiera eman zioten.

Hernanin soldadutzaren kontrako jarrera oso irmoa izan zen. 1988an hainbat lagunek euren burua objektore izendatu zuten eta mugimendua pixkanaka indartuz joan zen. KEM-MOCek emandako datuen arabera, 1990ean bost hernaniar egin ziren intsumiso, 1991n 16, 1992an 22 eta 1993an 36 lagunek egin zioten uko zerbitzu militarrari. Euskal Herrian 8.000 intsumisotik gora zenbatu ziren 90eko hamarkadan, horietatik 150 inguru hernaniarrak. Lehenengo epaiketak eta espetxeratzeak 1993an hasi ziren Nafarroan, eta Hernanin ere urte horren amaieran epaitu zituzten lehen intsumisoak; zenbaitek Martutenen amaitu zuten. Lehenik kartzelarekin, eta ondoren, kode penal berriak zekartzan isun eta inhabilitazio luzeekin, halaxe erantzun zion Estatuak erronkari. Baina horrek ez zituen gazteak kikildu. Mobilizazio ugari egin ziren epaitegien aurrean, akanpadak, parodiak, ekintza ikusgarriak, abestiak... ekimen sozial guztietan presente zegoen gaia zen. Soldadutzaren eta militarismoaren kontrako iritzia jendarte osora zabaldu zen, eta azkenean, Aznarren gobernuak nahitaezko zerbitzua bertan behera utzi zuen 2001ean.

Beste talde asko bezala, urte horietan sortu zen Hernaniko Gazte Asanblada ere soldadutzaren kontra jardun zen buru-belarri, baina horrez gain, herriko koadrilen arteko harremana dinamizatzen saiatu zen. 1995eko udan eraberritu zuten taldea hainbat gazte koadrilek eta hortik gutxira sexualitateari buruzko ikastaroa antolatu zuten Gazte Topaketen barruan. Iker Amiama eta Jon Benito ereñozuarren heriotza kolpe gogorra izan zen arren, asanbladak aurrera segitu zuen, *play back* herrikoiek ehundaka lagun bildu zituzten Tilosetan. 1997ko IV. Olinpiadak izan ziren mugimendu horren kolofoia, 20 taldek eta 300 lagunek parte hartu zuten bertan. Gazte Asanbladaren eskaeretako bat zen euren jarduerak antolatzeko lokala izatea, orduko udal gobernuarekin ika-mika dezente izan zuten horren harira.

1991ko udal hauteskundeen ondoren Jose Antonio Rekondo izendatu zuten alkate, EA, EAJ eta PSE-EEren arteko ituna baliatuz. Herriko hainbat talderen eta Udalaren arteko harremana berehala mikaztu zen. San Joanak izan ziren egoera horren ispilu –banderen jaitsierako istiluak tarteko–; azkenerako Jai Batzordea festa alternatiboak antolatzen hasi zen.

Giro politikoa ere halakoxea zen. Aljerreko elkarrizketen porrotaren ondoren ETAk jarduera armatuarekin segitu zuen, bahiketa luzeak egin zituen eta politikariak eta kazetariak jomugan jarri zituen. Jendarteko sektore bat ekintza horien kontra mobilizatzen hasi zen; Hernanin ere izan ziren kontzentrazioak eta istiluak. Urte horietan kale borroka ekintza ugari izan zen, politikarien kontrako erasoak ere bai, Ertzaintzaren oldarraldiak, debekuak, kaleen okupazioa, sarekada masiboak, torturak, heriotzak, omenaldiak... Bestalde, presoen sakabanatzearen amaiera izan zen aldarrikapen politiko nagusietako bat. 150 lagun inguruk Hernaniruntz plataforma sortu zuten eta Ereñozuko Etzakit musika taldeak herriko jai guztiak alaitu zituen *Gurekin* kantu ezaguna zabalduz.

Artean, gertaerak ez dira gutxi herrian. 1991n futbol taldea Bigarren B mailara igo zen; 1992an Frantziako Tourrak bisitatu zuen herria; urte berean hasi ziren Urumea ibaia bideratzeko obrak, baita Ertzaintzaren komisaldegikoak ere, eta amaitu zituzten anbulategi berriarenak; ospakizunak ugaldu egin ziren

90eko hamarkadan (Txakolin Eguna, Mikologia astea, Dantzari Festa...); 1996an Tolarea sagardoaren kofradia sortu zen, eta parrondotarrak Segurako dantza txapelketan garaile izan ziren; 1998an Agustin Iturriaga eta Karmelo Labaka institutuek bat egin zuten...

1998an merkatari eta herritarrek garaipen garrantzitsua lortu zuten. Galarreta inguruan egitekoa ziren merkatal gune erraldoiaren proiektua bertan behera geratu zen, Prycak atzera egin eta gero. Herrietako merkataritza gainbeheran sumatzen zen azken urteetan –hain justu hura biziberritzeko jaio zen 1993an Hernaniko Berriak merkatarien elkartea– eta lege eta hiri ordenamendu berriek etorkizun iluna zekartzaten, herrietatik kanpo hipermerkatu eta gune handiak irekitzeko aukera zabalik utzi baitzuten. Tamalez, Hernanikoa atzera bota bazuten ere, beste hainbat tokitan (Urbil, Garbera...) ez zen halakorik gertatu.

70eko eta 80ko hamarkadetan euskararen ezagutza izan zen euskalgintzaren erronka, baina 90eko hamarkadan jadanik bistakoa zen erabilera ere sustatu beharra zegoela –1992an Udaleko Euskara Batzordeak eta Siadecok hitzarmena sinatu zuten, erabileraren inguruan ikerketak eta kanpainak egiteko–. 1993an Dobera Euskara Elkartea sortu zen, batik bat kale erabilera sustatzeko helburuz. Hasieratik hainbat ekimen bultzatu zituen Doberak euskararen inguruan eta herriko beste elkarteekin ere itunak sinatu zituen konpromisoak batuz. Doberaren proiekturik arrakastatsuena baina 2000. urtean irten zen argitara: *Hernaniko Kronika*. Denbora gutxian egunkari hori hernaniarren informazio iturri erreferentzial bilakatu zen euskara hutsean, eta oraindik ere hala segitzen du. Azken urteetan, gainera, Doberak aisialdiaren inguruan antolatutako ekimenek indarra hartu dute.

Euskararen erabilerak ez du nahi adina aurrera egin azken hogei urteotan Euskal Herrian (%10,8tik %13,3ra igaro da); Gipuzkoan aldiz gorakada nabarmena izan da (%23,3tik %32,7ra) eta Hernaniko datuei erreparatuz ere halako zerbait ikus liteke: 1989an hernaniarren %21,30ek hitz egin ohi zuen euskaraz eta 2011an %39k. Aitzitik, azken urteetan oro har geldialdia nabaritu da erabileraren gorakadan eta eragile ugarik hausnarketa orokor baten beharra azaldu dute.

URKO APAOLAZA AVILA

JEXUX MARI IRAZU MUÑOA

1972an jaioa Larraulen

Ikasketak eta lana

Filosofia eta Gizarte Antropologiako lizentziaduna.

Hernaniko Kronika egunkariaren sortzaileetakoa, kazetari lanetan aritua da bertan.

Bertsoa.com Bertso Plaza Digitalaren sortzailea.



ETXEKO GIROTIK

Etxeko giroari esker abiatu nintzen bertso munduan. Gurasoek bazuten bertso zaharrak kantatzeko ohitura, eta bertso liburuak ere baziren etxean. Pello Errotaren bertsoak irakurri, ikasi eta kantatzen nituen umetan. 12-13 urterekin-edo neureak moldatzen hasi nintzen nola-hala eta eskolan ere zerbait egiten genuen. Nerabezaroan, orduan eskolartekoan eta gazte sariketetan zebiltzanak gogo handiz jarraitzen nituen: Unai Agirre, Jon Maia, Joxe Munduate, Narbarte... eta nire bertsogintza berriz lagunartean joan zen gorpuzten, koadrilako giroari esker.

TOLOSAKO BERTSO ESKOLAN

18-19 urterekin pentsatu nuen "probatu egin behar diat". Buruari buelta batzuk eman eta Tolosako bertso eskolara azaldu nintzen. Ez nintzen bertsoa erabat osatzeko gauza baina gogoa bai latza. Tolosan astero biltzen ginen, eta horri esker etxean burua martxan jartzearekin, aldea antzematen hasi nintzen.

Tolosan biltzen ginen Jexux Murua, Jokin Sorozabal, Lezea, Sasiain... Jexux Muruak han izugarrizko lana egin zuen. Asteroko martxaz gain, bertsolari handien (Amuriza, Egaña...) irakaspenak ere jaso ahal izan genituen. Orduko nire gogoari astean behingoa gutxitxo iruditu eta Hernanira ere joatea pentsatu nuen.

HERNANIKO BERTSO ESKOLAN LEHEN EGUNA

Oroitzapena daukat trenaren zain nola nengoen, beldurrez, Hernanin jada bertsotan latz egiten zuen jendea zegoelako, urte askoko eskarmentuarekin. Oso-oso ondo hartu ninduten, hasieratik bat gehiago bezala, eta hori gauza handia da. Bertso-eskolan hasi eta aste gutxira Joxe Mari Mujika "Anatx"-en eskutik hiru-lau plaza egiteko aukera izan nuen, Floridan, Osiñagan eta Santa Barbaran. Poz eta arnas izugarria eman zidan horrek niri. Urte berean Lizardi sariketa etorri zen, nire lehen parte hartzea sariketa batean. Iñaki Zelaia gailendu zen Zarautzen, eta niri bigarren egitea egokitu. Hasi berri batentzat pox handia da hori. Udazken horretan Hernanira etorri nintzen bizitzera eta bertso-eskolako taldearekin harremana sendotuz joan zen. Talde giro horrek asko lagundu zidan bertso mundua pasioz eta gogoz bizitzen.

Ordurako Euskal Herrian barrena jada bertsolari gazte talde sendoa zegoen, bertsolari gazteen eguna egiten zen, gazte jaialdiak zeuden, eta giro horretan murgildu nintzen pixkanaka.

PLAZETAN

1992an Xenpelar irabazita hasi nintzen plazetan gehixeago ibiltzen. Gogoan daukat Jon Maiarekin egin nuela lehen bertso-afari "ofiziala" 1993an Errenterian eta ez ziren motzak izan bertsotan egin genituen 40 minutuak... eta pixkana jaialdiak ere etorri ziren: Algortan gazte jaialdia, Anoetan bertsolari helduekin lehen jaialdia... Oso oroitzapen politeko garaia da. Bertsolari gazteei bereziki lagundu zitzaien garaia izan zela esango nuke, saio, zirkuitu... belaunaldi berriak bazetozen, baina etorkizuna ondo sendotu beharra balego bezala-edo...

Hasierako bide horretan ere bertso-eskolako lana eta lan pertsonalagoa uztartu nituen. Bertso-eskolan ere, geure erara, uste dut talde lanean moldatzen jakin genuela, elkarri gauzak esaten, elkarri zuzentzen, proposamenak egiten... horrek ere asko laguntzen du.

Plazetan hemezortzi urterekin hasi eta hogei pasako ibilia daramat. Bide horretan, mila bertso saiotik gora egina naiz Euskal Herri osoan barrena.

GAZTE SARIKETAK

Lizardi saria	1991	Txapeldun ordea
Lizardi saria	1992	Parte-hartzaile
Osinalde saria	1992	Txapeldun ordea eta bertso onenaren saria
Osinalde saria	1993	Finalista eta bertso onenaren saria
Xenpelar saria	1992	Txapeldun
Xenpelar saria	1992	Txapeldun
Hernaniko txapelketa	1996	Parte-hartzaile

HERNANIKO ESTILOA

Eskola bakoitzak bere arrastoa uzten du eta Hernanikoari nabarmentzen dizkiote bertso estilo "bizia" esaten zaiona, erantzutekoa, hizkuntzarekin jolastia, fina..., baina uste dut saiatzen ginela mamiari ere bere garrantzia ematen, klitxeetatik aurreraxeago joaten, begiradari ere bere pisua ematen... Ezaugarri horiek bertsotan asko estimatzen dituena naiz eta ahal dudan neurrian badarabilzkidana, eta irudipena dut Hernaniko bertso eskolak hasieratik jarri gintuela norabide horretan. Bereziki, norbere posizio ideologiko eta bizitza ereduarekin sintzeroa den bertsogintza dut estimutan. Fintasunaren miresle eta bertso-elkarrizketaren defendatzaile ere banaiz.

TXAPELKETAK

Gipuzkoako Txapelketa	1995	Txapeldun orde
Txapelketa Nagusia	1997	Finalean laugarren
Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Txapeldun orde (Erniope taldean) / Antolatzaile
Txapelketa Nagusia	2001	Finalista
Gipuzkoako Txapelketa	2003	Finalista
Txapelketa Nagusia	2005	Finalaurrea
Gipuzkoako Txapelketa	2007	Finalista
Txapelketa Nagusia	2009	Lehen fasea
Gipuzkoako Txapelketa	2011	Finalista
Txapelketa Nagusia	2013	Finalaurrea

Gazte sariketen ondotik, eta jada plazan lehen pausoak ematen hasita 1995eko Gipuzkoako Txapelketa etorri zen. Bertsolaritza aparralditik hozten ari zen garaia zen, telebistarik gabe, eta txapelketa bera zalantzazko formatu zela. Aitor Mendiluzek jantzi zuen txapela eta bigarren gelditu nintzen ni. Sorozabal, Murua, Mendizabal... ziren tartean. Hogeita hiru urte bete berriak nituen nik. Gazteak normalean txapelketan haizea alde izaten du. Bertsotan erosoago egiten da bazatozenean, zaudenean baino, eta hasierako bide horren mugarria 1997an etorri zen.

Batez ere, txapelketen jiran ardaztutako gure bertsogintza honetan, jakinekoa da Euskal Herriko Txapelketak paper handia jokatzen duela. Lehen Euskal Herrikora gogotsu joan nintzen ni, prestatuta eta berriaren askatasunarekin... Gauzak ondo atera zitzaizkidan eta oso gustura gelditu nintzen egindako lanarekin, bereziki arratsaldeko saioan. Ordukoak dira *gerrako bertsoa*k aitonaren zauriei boteak... Txapelketako tentsioa ere ezagutu nuen final hartan, erdi-kanpotik: bertsolari handi bat, oholtzan, ur basoa hartu eta ostera lurrean uzten ikusi nuen. Eskuak dardar egiten zion eta ezin izan zuen basoa ahora eraman.

Txapelketa hartako lanak eta emaitzak plazaz plazako atea parez pare ireki zidan: 120 plazatik gora urtean, ardura, Euskal Herria ezagutzea... 25 urterekin bertsolaritza zen nire dedikazio nagusia. Neurria jarri beharra ere sumatu nuen, urtebete beranduago Ingalaterrara joan nintzen hilabetetarako, ingelesa ikasteko aitzakian.

1999an Gipuzkoako Herriartekoa egin zen. Bertsozale Elkartean bete-betean nenbilen ni, Euskal Herriko eta Gipuzkoako zuzendaritza kide nintzen. Bertsolari gisa eta Elkartetik proiektuaren bultzatzaile gisa bizi izan nuen txapelketa hura, bertsogintzaren mugimendu osoa bildu eta artikulatzen asmatu zuena. Orduan Hernanin jende asko zen eta *Erniope*ko taldean atera nintzen, Txomin Garmendia, Amaia Agirre eta Aitor Usandizagarekin. Gipuzkoako bertsolaritzari izugarri eman zion bezala, ez dakit Hernanikoari mesede gehiegi egin ote zion. Jende asko zela eta, gune bakarreko dinamika hirutan banatu zen, hiru talderen bueltan, eta luzera horrek bere arrastoa utzi duelakoan nago.

2001eko Euskal Herriko Txapelketan jada ez nintzen zetorrena. Hogeita bederatzi urte, gaztea baina bide zerbait egina. Zetorrena baino, nengoena nintzen ni ere, ardurak hartzea zegokion belaunaldiko kide. Finalean sartzea lortu nuen eta aurrekoan beste gozatu ez, goizeko saioarekin eta batez ere bakarka egindako bi lanekin oso gustura gelditu nintzen.

Geroztik, esan liteke txapelketan erabat neurerik eman ezinda bezala ibili izan naizela. Gipuzkoako 2011koa salbu. Landu nahi izan ditudan aspektuetan eta edukietan ere agian zorte gehiegirik ere ez dut izan. Plazan aldiz, urte horietan denetan dezente ibili izan naiz eta oso gustura. Alde batera, badut pena txiki bat 1997ko jauzia beste era batera ez bideratu (ahal?) izana, bertsoari denbora gehiago ez eskainia, gehiago ez landua. Zenbaitek besterik pentsa lezakeen arren, ikasle garaietan izan ezik, lan dedikazio aldetik ez dut bertsoa inoiz nire dedikazio eremu nagusi izan.

2011ko Gipuzkoako Txapelketako finala, Donostiako Ilunben. Iturria: villabona-aiztondo.hitza.info.

BERTSO PAPER LEHIAKETAK

Leioako bertso-paper lehiaketa	1993	1. saria	15 urtetik gorakoen mailan
On Manuel Lekuona bertso-paper lehiaketa	1997	2. saria	16 urtetik gorakoen mailan
Zapirain anaiak bertso-paper lehiaketa	1997	2. saria	19 urtetik gorakoen mailan

Bertso jarriena ere oso lan polita da, bat-batean dabilenarentzat bihurri ere gertatzen dena, paperak beldur puntu bat gehiago eransten diolako-edo. Beste espresio eremu bat da eta bat-batekoa iristen ez den lekura heltzeko ahalmena du. Hasieran bertsoa lantzeko bide gisa planteatzen nuen, eta gaztetan zenbait sariketetara bidali nituen lanak. Pixkana zentzu propioa eman nion idatzizkoari. Bertso musikatuak kantatu izan ditut Anje Duhalderekin, Mikel Markezekin, Tapia eta Leturiarekin... Kantuen hitzak egin (Kepa Junkera, Sorotan bele, Alaitz eta Maider...) eta bertso emanaldi musikatuak ere egin izan ditut. *Txirrita 2006* izan da horietako bat, Txirritaren heriotzaren 70. urteurrenean. Unai Agirre, Joxan Goikoetxea eta hirurok landua, Txirritaren eta geure bertsoez ondua.

Hernaniri dagokionez, Eñaut Agirre eta Xabier Legarretaren "Ai Martin" emanaldirako jarritako bertsoek sortzen didate nostalgia puntu bat, gazteagoak gineneko Hernaniko parranda giroari jarriak...

Bertso jarriekin badut istorio bitxi bat. Ni bertsotan hasi berritan, Asteasun bazen apaiz bat berezi xamarra, eta bertso batzuk jartzea pentsatu nuen. Jarri ere egin nizkion, gaxtea ni eta gordin xamarrak. Nire asmoa zen garai bateko bertso jarrien funtziora bueltatu eta elizaren parean uztea, koxkaren batean, eta handik aurrerako bidea bertsoek beren kasa egitea. Plan guztiak egin nituen, bertso batzuk erdipurdikoak jarri ere bai egiletza disimulatzeko, baina, detaile denak ez nituen kontuan hartu... zer eta amak ikusi. Irakurri zituen suspirio ahotsarekin esan zidan: "Baina motel, ze egin behar duk? Horiek ez dituk ba, inora bidaliko!". Amak harrapatuta, akabo nire plan sekretuak.

Azken urteetan Argia Astekarian argitaratu ditut bertso jarriak, aktualitateko gai baten bueltan jarriak. Uste dut Argiak asmatu duela formula egokia bertso jarriek gaur egunean ere funtzio sozial bat izan dezaten.

1995-01-06 Hernani jaialdia

Hi, Jexux Mari Irazu, argazkilari famatu bat haiz. Ruandan argazkiak ateratzen ari haizela, bertako mutil koxkor honek (Jon Sarasua) aurre egin dik.

Irazu:
Ruandan zabiltzate
halako peskisan,
ez zinaten egon ez
holako desditxan.
Hona ez naiz etorri
ni turista gisan,
argazkitxo bat utzi,
ez gogorra izan,
munduak bere begi
itxuk zabal ditzan.

J. Sarasua:
Itsuen mundu horrek
nun du memoria?
Argazki bat ote da
gure historia?
Zerua grisa eta
lur dena horia,
nik hexurrak bakarrik,
buru eroria,
zenbaten saltzen dezu
nere hilzoria?

Irazu:
Nere arrazoirikan
sakonena zuk har,
zure argazkiaren
diruik ez det behar,
nik hau ez det egiten
neu aberastear,
zabaldu egin nahi det
nik munduan zehar,
bihotzik gogorrenak
egingo du negar.

J. Sarasua:
Zure jarrera hori
da faltsu askoa,
zure fama seguru
dala txit prestua.
Iruditan ohitzea,
horra arriskua,
zeozer badaukazu
maitasunezkua,
bota kamara eta
luzatu eskua.

Irazu:
Hemen pobre zaudete,
ez argi ta ez su,
eta aurpegi hortan
urrea daukazu.
Gerora izan ez dedin
hainbeste arazu,
argazkia egiten
utzi ezaidazu,
ta nere bi eskuak
zuretzat dituzu.

J. Sarasua:
Azkenean zuriak
esan du nahikoa,
bigundu egin zaizu
bihotzan txokoa.
Detailea izan da
nere gustokoa,
baina gosea daukat
ia erotzekoa,
kamarak ba al dauka
zerbait jatekoa?

Irazu:
Aizu, gauza gehiegi
dago galdetzeke,
mundu honetan jana
ez dago hain merke;
aspaldi hontan zehar
goseak zaudete,
kamararen barnean
jatekorik ote?
Orain ez dauka baina
eduki lezake.

J. Sarasua:
Ez naiz asko fidatzen
promesa hoiekin,
gosez hiltzear nago,
badakizu jakin.
Ezer ez badaukazu
hemendik aldegin,
probetxuzkoa dana
lagaizu gurekin,
ta jateko ez dena
eraman zurekin.

2010ean Gasteizko Artiumen egindako bertso rap emanaldian.
Iturria: http://www.flickr.com

2006-12-30 Hernanin, Bertso-Latako jaialdia

Jexux Mari Irazu eta Sustrai Colina: Zuek biok oso ezagunak zarete Euskal Herrian. Olentzero bana zarete. Denek pentsatzen dute Olentzero bakarra dagoela, baina Zarauzko peajean bat baino gehiago egoten dira. Gaur ere egunak argitu du eta bart bezala zaudete, geldirik, baina behintzat bertsoak kantatuz eguna pasatzen duzue.

S. Colina:
Peaje baten jarri gintuzten
kaikua eta txapela.
Aho ertzean pipa erreaz
ezin zitekeen bestela;
askoren ustez hementxe gaude
bi estatua bezela
eta jendeak pentsatu ohi du
gu obren parte garela.

J.M. Irazu:
Gu obren parte ote geran bai
batek hala nabari du.
Urtea ia azkenetan da
zorionaren testigu
baina ez gera normal-normalak
nahiz izan bi edo hiru
guri jendea pasa ahala
poltsa bete egiten zaigu.

S. Colina:
Eta kotxeak aurretik doaz
igaro eta igaro;
batzuek mantso eta besteak
inoiz baino azkarrago.
Nahiz Olentzero ipintzen duten
Gabonetan aroz aro
aurretik pasa ohi direnentzat
erregalorik ez dago.

J.M. Irazu:
Erregaloa sei euro dira
eta onartu beharko;
bide polita obrarik gabe
Zarauztikan Bilborako.
Lehen hiru ginan orain bi gaude
hementxe gaudenak bapo
Guardia Zibilek eraman zuten
sospetxosoa zalako.

S. Colina:
Sospetxosoa zan bestea ta
eraman zutenez hola
guri borborka jarri zitzaigun
pipa punta ta odola.
Peajeari heldu zaiozu
lagun inondik inola
berriro ere jarri baitute
Guardia Zibilek kontrola.

J.M. Irazu:
Ertzainak ere ibiltzen dira
denetik dago hau marka!
Eta burua altxatu behar
aldamenetik pasata.
Trafiko astuna ze kotxe pila
kolak'e ez dira falta;
guk egunero ikusten degu
erregeen kabalgata.

ETXEBIZITZA HERNANIN

1
Etxebizitza medio
kontuak ez du balio
dena espekulazio.
Bestela ezin jan leizken hitzei
zentzua aldatu zaio:
eskubideai "negozio"
bizitza osoai "prezio"
loteriari "protekzio".

2
Gastu gutxi hormigoitan
lujoa behe eta goitan
harri politak kantoitan.
Etxe bat behar baldin baduzu
bildu nere arrazoitan
bistak ta euzkia balkoitan
Agustinatako hoitan
merke, 40 milioitan.

3
Etxeetaz hitz egina
askok bat lortu ezina
besteak nahiko ez bina.
Non ote dago tortila honi
buelta ematen dakina?
Frustraziorik haundina
ez al litzakeen berdina
geu promotorak bagina?

4
Ixiltasuna aditzen
zoko iluna argitzen
gauza ez da hor gelditzen
hori egiten utzi zunaren
izena zail da ixiltzen
denak ez dira bizitzen
Mailus eta Las villasen
Hernani-Beberly Hillsen.

5
Batzuk hiru-lau etxe ta
ez saldu ta ez errenta
beti eskasa errenka.
Sobre dunari jardunagatik
erregu eta arrenka
aukera onak aleka
ta etxe hutsak kaleka
ez hoi libre ez baleka.

[**Jexus Mari Irazu**, 2003an Joxe Legarretaren omenez Hernanin egindako bertso-emanaldiarako jarriak]

JOXE LUIS URDANGARIN GOÑI

1972an jaioa Hernanin

Enpresa zientzietan lizentziaduna. Tolosaldea Garatzen agentziako gerentea.

Ni bertso munduan inertziaz sartu nintzen. Urumea ikastolan nenbilen, eta 10 bat urte nituela, 5. mailan, ikasgai baten barruan bertsolaritza eman ziguten Don Manuel apaizak eta Joxemari Gabiriak. Han hasi nintzen bat-bateko bertsoarekin lehen kontaktua izaten.

AITONA SANTIOMENDIKOA

Etxean beti egon da presente bertsoa. Batez ere amaren aldeko aitona, Santiomendikoa, oso bertsozalea zen. Bere garaian Bertsolariya aldizkaria beti erosten zuen, buruz ikasten zituen bertsoak eta edozein bazkalondo edo afalondotan kantari aritzen zen... Udarak baserrian pasatzen genituen, eta astebukaera askotan ere joaten ginen, eta aitonak jakin zuenean halako zaletasun bat bazekarrela biloba batek, txoko batean maitasun handiz gordetzen zituen bertsoak ateratzen hasi zen: karpeta handi batetik ateratzen zituen eta kantatzen aritzen zitzaigun, Jenovebarenak eta Esnesaltzailearenak...

Juntatzen ginen guztietan nire izebek ilusio horixe izaten zuten, aitonaren aurrean biloba batek bertsoa botatzea. Eta aitonak beti esaten zuen: "oso ondo, baina beste bixitasun batekin kantatu behar duk orain" (bertso eskoletako ikasle guztioi hasieran falta zitzaigun naturaltasunaz ari zen). Azkenean onartu zidan ondo ari nintzela, eta orduan lasaitu nintzen.

IKASTOLATIK ASTEARTEKO TALDERA

Bertsoekiko genuen jarrera eta hizkuntza gaitasuna ikusita, ikasle batzuek astean behingo beste talde batera bideratu gintuzten. Asteazkenetan geratzen ginen, bazkalorduan, Mikel Mendizabal bertsolariarekin.

Asteazkenetako talde horretan gogoa azaltzen genuenak beste talde txiki batera bideratu gintuzten. Hor lau lagun elkartu ginen: Iñaki Zelaia, Aitor Lasarte, Juanjo Usarraga eta ni neu. Pablo Joxe Aristorena izan genuen irakasle, lehen urtean. Aristorenak ikasketengatik kanpora joan behar izan zuenean, Jon Eizmendirekin hasi ginen. Jonekin beste urtebete egin genuen. Hortik aurrera gu bakarrik bildu ginen, bi edo hiru urtean. Ostiral arratsaldero Oarson biltzen ginen elkarri failoak ateratzen eta gaiak jartzen.

Fase horretan geundenean, gonbidapena jaso genuen asteartetako helduen bileratik, bertara inguratzeko. Nik uste Pablo Joxe Aristorena eta Jon Eizmendiren bidez etorri zitzaigula gonbidapena.

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1987	Finalista (handitan)

Eskolarteko Txapelketak bat-batekoan aurrenekoz 1984-85ean hartu nuen parte, 14 urterekin. Idatzizkoan lehenagotik parte hartzen genuen.

1987an handien mailan (14-18 urte artekoetan) Baldan kantatu nuen, finalean. Garai hartan gainera Euskal Herri mailakoa zen, gogoan dut tartean zirela Jon Maia, Juan Mari Lopez, Joxe Munduate, Zigor Enbeita, Joxe Joakin Aizpurua, Aritz Lopategi... eta gero hasi ziren Eskolarteko Txapelketak herrialdeka antolatzen.

SARIKETAK

Lizardi saria	1987	Finalista
Lizardi saria	1988	Finalista
Lizardi saria	1989	Finalista
Lizardi saria	1991	Finalista
Lizardi saria	1992	Parte hartzaile
Lizardi saria	1993	Parte hartzaile
Xenpelar saria	1987	Parte hartzaile
Xenpelar saria	1992	Txapeldun ordea.
Orixe saria	1999	Parte hartzaile

LEHENENGO SAIOA

1984-85ean izango zen, 12-13 urte nituela. Alegiko elizan izan zen, jubilatuen festa batean. Juanjo Usarraga eta biok ginen, eta aurrenekoz tokatu zitzaigun aldaretik kantatzea. Saio motzak egiten genituen.

PLAZAN

Bost-sei urtez herrian ibili ginen. Errondak zirela, auzotako festak zirela... Gure habitat naturala Hernani zen.

1991ko txapelketan kantatu izanak eta nire aurrikuspenak gainditu izanak, pizgarri bezala balio izan zidan, adin kritiko batean aurrera jarraitzeko. 19 urterekin, Eskolarteko Txapelketa bukatuta, herrian kristoren giroa dago, baina zer gehiago? Ikusi genuen gure neurrian, baina bagenuela leku bat eta bazeukala zentzua jendaurrean kantatzen saiatzeak. Gipuzkoako Txapelketa hartan neu izango nintzen bost gazteenetako bat. Eta parte hartu nuen azken txapelketan hirugarren zaharrena nintzen. Asike urte batzuk pasa ditugu!

Txapelketen inertzia horretan Hernanitik kanpo saio batzuk egiten genituen: Errenterian, Donostian, Astigarragan, Ereñozun, Andoainen, Zumaian, Zaldibin, Alegian, Urnietan, Lazkaon, Oiartzunen...

Nik ez dut sekula plaza asko egiteko aukerarik eduki, baina ez dut horren hutsunerik sentitzen.

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Txapelketa	1995	Finalaurrekoak
Gipuzkoako Txapelketa	2003	Azken laurdenak
Gipuzkoako Txapelketa	2007	Azken laurdenak
Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Parte hartzaile (Hernani-Iraulio taldean)
Gipuzkoako Txapelketa	1991	Azken-laurdenak
Txapelketa Nagusia	1993	Azken-laurdenak
Txapelketa Nagusia	1997	Azken-laurdenak

1991ko Gipuzkoako Txapelketan, Usurbilen kantatzea tokatu zitzaigun eta nahiko konpromisua izan zen. Jende helduxeagoarekin eta plazan aritzen zen jendearekin aritu behar horretan, etxean ere jada susmoa hartzen hasi ziren bertsotan zerbait aritzen ote nintzen. Oroitzapen oso ona daukat, koadrilako lagunentzat nahiko arrotza zen mundu hau eta denak sartu egin ziren... saio hartan lehenengo Zeberiok egin zuen eta bigarren nik, eta hurrengo faserako sailkatu nintzen. Niretzat hori izan zen pizgarria, irratitik eta saioetatik ezagutzen genuen Zeberio baten ondoan jarri eta lotsagabe lotsagabe ahal zena egin genuela. Hurrengo saioa Azkoitin izan zen, final laurdena, han aritu ziren kantari Xabier Euzkitze, Sasiain, Jon Maia... hor erori nintzen, baina saioa bera oso fuertea izan zen eta puntuazioei esker lortu nuen Euskal Herriko Txapelketara lehen aldiz sailkatzea. Oroitzapen oso ona dut, frontoia beteta eta bertsotan gustura egin izanarena.

Hortik aurrera kolpeka funtzionatu izan dut. Handik bi urtera Euskal Herrikoan Laudion kantatu nuen, eta hartarako ere prestatu egin behar. Handik bi urtera berriro Gipuzkoakoa zen, eta berriz lortu nuen sailkatzea Euskal Herrikora... bi urteroko olatutik olatura ibiltzea lortu nuen. Gure maila apalean, baina olatua galdu gabe. Hori inportantea izan zen eusteko, beti genuelako hobetzeko eta saiatzeko aitzaki bat. Uste dut lan txukuna egiten genuela, genituen aspiraziotarako. Nik behintzat oroitzapen polita daukat.

Lehenengo Euskal Herrikoan bai sentitu nuela "non sartu naiz?". Guk txapelketa haiek Eskolartekoak bezala prestatzen genituen. Baina ikusten zen bazegoela jendea urtean zehar kantari ari zena, eta ofizio handiagoa agertzen zuena. Hala ere, Euskal Herrikoan kantatzen gure labealdiko lehena izanik, uste dut balio izan zigula ikusteko bagenuela hor ere zeresana eta ez zegoela besteekiko halako alderik. Denborak erakutsi du hori.

Urtean zehar saiorik apenas eginda, Euskal Herriko Txapelketetan aurreneko 22-25etan sailkatzea eta Gipuzkoakotan aurreneko 18tan sailkatzea, niretzat halako satisfakzioa da. Neurri eta maila politean aritu naizelakoan nago, hortik gora edo behera kontraesanetan erortzeko arriskua baitago: txapelketan puntan ibili eta urtean zehar ia isilik, edo alderantziz.

BARRUKO HARRA

Barruko har hori betiko da. Kontua da bakoitzaren bizitza plana aldatuz joaten dela eta jakin behar dugula gure afizioak eta gure behar horiek egokitzen.

BERTSO JARRIAK

Txikitatik heldu nion jartzeari. Ohitura hartu nuen bertsopaper lehiaketen aitzakian bertsoak egiteko. Bertsoak idazten, kantatzen adina edo gehiago gozatu dut. Bat-batean denbora faltagatik esan edo borobildu gabe gelditzen diren ideiek bidea libre daukate idatzizkoan. Ez dago aitzakiarik bertsoak maila teknikoan eta literarioan kalitate handiagora eramateko.

Bertso dexente idatzi ditut, eta nahiko maniatikoa naiz sortzeko orduan. Nire bertso sail bakoitza gau bakarrean idatzia da, gelako atea eta leihoa itxita. Erritmorik hartzen ez badut, utzi eta biharamunean berriro saiatuz.

Sari batzuk jasotzea ere tokatu zait. Enkarguz ere askotan jarri dut, lagunen baten ezkontza, urteurrena edo eskela medio, edo baita neskaren bati eskainia.

BERTSO PAPER LEHIAKETAK

Andoaingo bertso paper lehiaketa	1991	2. saria
Arrano beltza	1986	1. saria
Arrano beltza	1987	1. saria
Balendin Enbeita	1989	2. saria
Joxe Legarreta	1993	3.s aria
Leioako saria	1992	1. saria
Lekuona	1989	3. saria
Lekuona	1990	2. saria
Zapirain anaiak	1991	1. saria
Zapirain anaiak	2001	Akzesita
Zapirain anaiak	1990	1. saria
Zumarraga eta Urretxu	1995	1. saria
Zumarraga eta Urretxu	1997	1. saria
Basarri saria	2004	1. saria
Okelar saria	2003	1. saria

GAU BATEN KRONIKA

11.00
Mugikorra, Chesterrak,
belarriko pintza,
bi koloni printza,
hogeita hamar euro,
kondoia ta giltza
riñonera barruan
sartzean, bizitza
iruditu zait dela
benetako ditxa;
mundua jango nuke
presaka ez banintza.

12.00
Lagunak hamaiketan
esan zidan baina
falta alajaina!
Ez naiz zain egoteko
irten hain apaina.
Etortzerako pronto
aitzakia bikaina:
"amonak lehertzear du
kopeteko zaina".
Hil zitzaionetikan
ezin nau engaina.

01.00
Etorri garenean
halako bi lora
taberna zulora,
zer nahi dugun eskatu,
barratik: "ondo da".
"Zuena zer zen?" ordu
erdi ta gerora.
Nik: "gaztea naiz, hartu
behar den denbora...";
saltako nintzaioke
gai banintz lepora.

02.00
Bihotzaren bulkadaz
dantzan jo ta fuego;
beno, dantzan edo...
erritmora moldatzen
asmatu ezkero.
Kolko aldea ipar
ipurdia hego,
jauzia aitagure
ostikoa kredo;
hemen hotza duenak
infernuan bero.

03.00
Chesterra piztutzeko
aitzakiarekin,
neska bati ekin:
"bikote ona egingo
zenuke nirekin,
zu zaitu nire bihotz
gaixoak errekin,
proba zazu egizko
gizonen batekin..."
"barka zure mutila
hau zenik ez nekin".

04.00
Maskuria heldu zait
ia eztarrira,
komunak non dira!
Tristura etorri zait
anima erdira,
mutilenean dago
e(g)undoko aintzira,
neskenerako zain
ehun daude guztira;
zerbeza bat edanaz
pasako zait, tira.

05.00
Lagun usteko ezagun
bat inguratu da
mandeuli modura;
ihesi joatea
datorkit burura,
baina aitzakirikan
ez daukat ta hura
bakarrizketan hasi
zait bere kontura.
Somatuko ote du
nire negargura?

06.00
Ni naiz edariaren
muga non den soma
dezakeen pertsona,
baina gaur gauekoa
ez da gero broma;
azkeneko zerbeza
ez zegoen ona,
irakiten jarri dit
buruko bonbona...
nor da botila honen
barruan dagona!

07.00
Zerbait gosaldu eta
zinbili-zanbala.
Erne! Banoala,
etxea aurkitu ta
sartu nola hala.
Kondoia kajoiera
gauero bezala,
ni ohera bi oinek
txanda eman a(ha)la.
Argia nahi duenak
itzali dezala.

08.00
Mila zazpirehun eta
hirurogei ta lau
lo(r)ik e(g)in gabeko gau
alferrik galdu ditut,
gaurkoz azkena hau.
Astean bost egunez
egin arren barau,
seigarrenaren grinak
lehengoan dirau...
presaka ez banabil,
munduak jango nau.

2007ko Gipuzkoako Txapelketa. (Irailaren 23a, Hernani)

Kartzelako gaia: Tren geltokian zaude trena noiz iritsiko zain.

Alaba ez det inoiz tratatu
oso aldarte onean:
beti erritan hartzen nuen ta
aldegin zun azkenean;
bainan hala're bizitza bueltak
ematen hasten denean
beste aukera bat eskeini nahi dit
kupidaren izenean;
horregatikan azken aukera
etorriko zait trenean.

Berrogei urte pasatu ditu
aparte dabil luzaro;
nik eskutitzan aipatu nion
hiltzera noa, akabo!
Baina hala're poza piztu zait
gero eta argiago;
azken finean denbora joan da
dena bere lekun dago
aitak zu behar zaituelako
zuk aita baino gehiago.

Trena iritsi da eta trenetik
jeitsi da nere alaba;
hainbeste aldiz pentsatutako
hitza ahaztu zait hara!
Bainan hala're oso ederra
zaude bertatik bertara;
zu berriro ez ikusteak nei
sortzen zidanez ikara
alaba arren barka nazazu
beranduegi ez bada.

IÑAKI ZELAIA IRAZUSTA

1973an Hernanin jaioa

Mekaniko ikasketak egindakoa. Tolosan egiten dut lan, papelerentzako ekipamenduak egiten dituen enpresa batean, 1994tik.

HASIERAK IKASTOLAN

Gurasoak beti izan ditut bertsozaleak. Herri Irratiko bertso programa astelehenetoko irratsaioa zen gure etxean.

Lehenengo pausoa ikastolan eman nuen, 11 urte nituela. Irakasle bat etorri zen "bertso eskola moduko bat martxan hasteko asmoa dugu eta zein animatuko litzateke?" galdezka. Ez nekien zalea nintzen edo ez, baina kuriosidade hori sentitzen nuen eta izena eman nuen, etxean ezer esan gabe. Lehenengo urtean don Manuel apaiza genuen irakasle, Mikel Mendizabal hasi zen arte. Guretzat Pablo Joxe Aristorena, Jon Eizmendi eta Jon Odriozola ere laguntza handia izan ziren.

Handik pare bat urtera, Urumeak bazituen Oarson gela batzuk eta giltza eman ziguten guk nahi genuenean erabiltzeko. Bertan laukote fijo xamarra izaten ginen Joxe Luis Urdangarin, Laxa, Juanjo Usarraga eta ni. Eskolarteko Txapelketak inguratzen zirenean gela hartan sartu eta ahal genuen bezala prestatzen genuen, gure artean. Lagunarte ona osatzen genuen, eta bolada batean ia egunero biltzen ginen.

Urumeako azken urtean, Eskolarteko Txapelketako azken urtea ere bagenuenez, Anatxek esan zigun udaletxeko taldera joateko (asteartetako bilerara).

Gero Biterin bertso eskola "ofiziala" martxan hasi zen, eta han elkartzen ginen. Hori izan zen hurrengo pausoa.

ERRELEBOA

Testigu aldaketa bizi izan genuen, Antton Garinek eta Julian Ezeiza "Aterpe"k egiten zituzten saio batzuetan beraiekin batera kantatzen hasi ginen: errondetan, auzoetako festetan (Osinaga, Etxeberri, Santa Barbara).

Gogoratzen naiz lehenengo festetako saio bat Anatxekin egin izana, Etxeberrikoetan.

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Euskal Herriko Eskolarteko I. Txapelketa	1989	Finalista (handitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa	1990	Finalista (handitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa	1991	Finalista (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1986	Finalista (txikitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1987	Txapeldun orde (txikitan)
Gipuzkoako eskolarteko txapelketa	1988	Finalista (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1990	Finalista (handitan)

SARIKETAK

Lizardi saria	1987	Finalista
Lizardi saria	1988	Finalista
Lizardi saria	1989	Finalista
Lizardi saria	1990	Finalista
Lizardi saria	1991	Txapeldun
Lizardi saria	1992	Parte hartzaile
Hernaniko Txapelketa	1996	Finalista
Orixe saria	1999	Parte hartzaile
Orixe saria	2001	Finalista
Orixe Saria	2003	Finalista
Orixe saria	2005, 2009, 2011	Parte hartzaile
Orixe saria	2013	Finalista
Osinalde saria	1992	Finalista
Osinalde saria	1993	Finalista
Osinalde saria	1994	Finalista
Xenpelar saria	1987	Parte hartzaile
Xenpelar saria	1989	Finalista
Xenpelar saria	1990	Txapeldun ordea
Xenpelar saria	1991	Finalista
Xenpelar saria	1992	Parte hartzaile

14 urterekin Lizardi Sarian hasi ginen parte hartzen eta 13-15 bertsolari azaltzen ginen. Orain izenematea libre utziz gero, 100 igual apuntatuko lirake. Urte batean irabaztea tokatu zen eta poz handia hartu genuen. Hainbeste sariketetan parte hartu eta batean txapela lortzea, satisfakzio handia da.

LEHENENGO SAIOA

Eskolarteko Txapelketa aparte utzita, lehenengo aldiz jendaurrera kantatzera Alegiko elizara joan ginen. Trenean sartu ginen Joxe Luis Urdangarin, Juanjo Usarraga, Laxa eta laurok. Familia bat omen zetorren Ameriketatik eta haientzako meza eta bazkaria omen zen. Urumeako irakasleren baten bitartez esan ziguten joateko. Buruz ikasitako bertso bana kantatu, eta gogoratzen naiz milana duro eman zizkigutela.

Gainontzekoak herriko saioak izango ziren. Molotoff Festa eta Txalaparta Festa, horiek izango ziren jendaurreko lehenengo saioak.

PLAZARATZEA

Plazaratu? deitu diguten guztietan. Gehienak herri inguruko plazak izan ditut. Behin 14 urtetik aurrera herriko ekintza guztietatik (festak, egunak, omenaldiak...) deitzen zutenean oso gustura joaten ginen. Herritik kanpora ez gara inoiz gehiegi ibili eta gehientsuena 17-19 urte buelta horretan. Sasoi hartan gazteen saiotarako deitzen ziguten, ondoko herrietatik: Andoainen zela, edo gaztetxetako bazkari eta afarietarako.

Baina behin 22-23 urtetik aurrera kasualidadezko saioak egin ditut, ezagunen bitartez handik edo hemendik deituta. Herritik kanpora plazak kontatuak izan ditut.

Bertsolaritza niretzat hobby bat da, denbora librea pasatzeko modua, afizioa.

2005eko Bertso Latako jaialdian Andoni Egaña estu hartzen.

BELARRIA

Nire belarri txarra ezaguna da, eta txikitan are larriagoa zen. Beti esaten zidaten "belarri txar horrekin, dituzun okurrentziengatik ez balitz"... okurrentziengatik ez balitz, seguraski ez nuen bertso eskolan jarraituko, oso gaizki kantatzen nuelako.

Gure etxeko lehenengo radiokaseta nigatik erosi zen. Jon Odriozolak eta Pablo Joxe Aristorenak zinta bat grabatu zidaten doinu pila batekin.

Edade batekin txapelketetan egin genuenarekin, plaza gehiago ez egiteko motibo nagusietako bat, belarria izan da. Nik hori oso argi eduki dut beti.

Plazan beti beldurrez egon naiz, "zer doinu hartuko dute?", sei bertsolari librean hasi eta lehenengoak doinu petral xamar bat aukeratuz gero, akabo. Baina nirea nahiko jakina zen eta denek galdetzen zidaten zein doinu hartu nahi nuen.

Denborarekin, errepikatzearen ondorioz, hobetu egiten da. Baina doinu berri bat ateratzen baldin bada, nik handik hiru txapelketetara erabiltzen dut, jada belarria egindakoan. Txapelketaro bat ikasten saiatzen naiz, batez ere bakarkakoak. Bestela beti berekin arituko nintzateke.

KANTUKIDEAK

Puntualki, orain elitean dabiltzan gehienekin kantatzea tokatu zait. Hernaniko Bertso Latako jaialdiak hartuta, edo Ereñozukoak edo San Joanetakoak edo Aranokoak... Hortik aparte, Joxe Agirrerekin kantatu dut bertso bazkariren batean, Jokin Sorozabalekin, Lasarteko saio batean Anjel Mari Peñagarikano eta Patxi Etxeberriarekin, Jon Maiarekin bertso afari batean, Jon Enbeitarekin Andoainen jaialdi batean, Sebastian Lizasorekin pare batean, Osinagan Millan Telleriarekin ere bai...

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Txapelketa	1991	Kanporaketa
Gipuzkoako Txapelketa	1995	Finalista
Txapelketa Nagusia	1997	Finalaurreak
Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Lehen kanporaketa (Hernani-Iraulio taldean)
Txapelketa Nagusia	2001	Azken-laurdenak
Gipuzkoako Txapelketa	2003	Final-aurrea
Txapelketa Nagusia	2005	Azken laurdenak
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2007	Finalaurrekoak
Txapelketa Nagusia	2009	Final erdiak
Gipuzkoako Txapelketa	2011	Azken-laurdenak
Txapelketa Nagusia	2013	Azken-laurdenak

Parte hartu genuen aurrenekoa 1991koa izan zen. 18 urterekin, Hondarribiko arrantzaleen kofradian. Jon Eizmendi eta biok ginen Hernanitik, eta Eizmendi pasa zen saio hartatik bigarren fasera. Gustura geratu nintzen egindako saioarekin. Puntu gutxigatik geratu nintzen kanpo.

Hurrengo Gipuzkoakoan, 1995ekoan, finalean kantatu nuen. Esperientzia polita izan zen. Ondorengo hilabete askoan bertso guztiak buruan izan nituen bueltaka, errepasatzen, "hau egin banu, hura egin banu...". Ezagutzera emateko txapelketa izan zen, "hau finalean egon zen hori duk".

1997ko Euskal Herrikoan oso oroitzapen ona daukat: Aramaion egin nuen lehen saioa Xabier Silveirarekin, eta Beran finalerdia. Jendaurrean plazer gehiena sentitu dudan eguna Berako finalerdia izan zen, frontoiaren burrunbagatik eta egin nuen saioarengatik. Gaskako finala baino kasi emozionanteagoa kantukideengatik, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Loidisaletxe.

Bederatzigarren geratu nintzen, finaletik pauso bakarrera. Haritz Lopategi sartu zen finalean zortzigarren, eta zortzi puntuko aldea edo zegoen. Pena hori geratzen da. Aukera hori bizitzan behin izango dut!

Eskolarteko Txapelketan Sebastian Lizasorengandik saria jasotzen.
Argazkia: Argia

BERTSO PAPER LEHIAKETAK

Arrano Beltza bertso-paper lehiaketa (Donostia)	1987	Aipamena (14 urtetik beherakoen mailan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketako bertso idatziak	1986	Aipamena (12-14 urte artekoen mailan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketako bertso idatziak	1991	Aipamena (15-18 urte artekoen mailan)
On Manuel Lekuona bertso-paper lehiaketa	1990	3. saria (18 urtetik beherakoen mailan)

2005-06-12 Hernani, jaialdia

Hernanin hemezortzi baserri soilik omen dira baserritik bizi direnak. Zuek biok baserritarrak zarete, baina egoera ezberdinean zaudete. Zu, Joxe Agirre, beti baserrian bizi izan zara; zu, Iñaki Zelaia, ordea, baserrian jaiotakoa zara, baina egun ez zara handik bizi.

I. Zelaia:
Baserri asko hustuta daude
beste askok lana utzi
lanbide horrek guri ez baitigu
aurpegi onik erakutsi:
prezio danak baju dabiltza
ezin etekinei eutsi;
baserrian dago lana asko
eta negozio gutxi!

J. Agirre:
Arrazoi dezu jarria dago
nahiko jokera tristia
eta nik berriz hortxe daramat
nere denbora guztia;
ni baino askoz listuagua
aterako da gaztia:
bizi izatea gauza bat da ta
sufritutzia bestia.

I. Zelaia:
Sufritzen ari dana joaten da
baserritikan ihesi;
askok diote "Hola ibiltzeak
asko ez baitu merezi"
baina Joxeren kasua orain
argitu nahi det lehenbizi:
inori ez diozu esaten
ondo ez zeranik bizi.

J. Agirre:
Ni juxtu-juxtu ibilitzen naiz
aitortuko det ondradu;
bizitzeko ere izaten dira
munduan hamaika modu
baina nere ustez baserritarrak
oraintxe ia-ia jo du
eta jendeak zer jan behar du
lurrak ematen ez badu?

I. Zelaia:
Lurra ez degu gehiegi lantzen
emanda nago tankera;
horrek ekarri digu baserri
ugariren amaiera.
Kanpoko produkto trasgeniko
hoiekin ezin aurrera...
dauden apurrak hustu baino lehen
konturatuko al gera?

J. Agirre:
"Dauden apurrak hustu baino lehen"
orain zuk esan dezunez
benetan ondo hartutzen dizut
neuk hala uste dedanez
kanpotik ere hala moduzko
gauzak etortzen diranez
laster jendeak hasi beharko du
hemen plastikoa janez!

AITOR MENDILUZE GONZALEZ

1975ean Andoainen jaioa



Ingeniaritza ikasketak egiten aritua da eta Gizarte Heziketa ikasia. Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko langilea da, herrialdeko koordinatzaile eta eragile hasieran eta gaur egun irakasle.

Gu bertsotan hasi ginen Andoaingo ikastolan bertsolaritza atal bat lantzen zelako: bertso batzuk kantatzen hasi, eta jakin-mina piztu zitzaidan, "honek badu grazi bat, forma berezi bat...".

AMAREN ESKUTIK

Gustuko nuela, eta amak Hernaniko Langile ikastolako bertso eskolaren berri jakin zuen. Amari eskutik heldu eta ostiral batean etorri nintzen, zortzi-bederatzi urterekin; eta geroztik urtetan, ostiralero ostiralero. Langileko bertso eskola sortu zen eguna edo kurtso hasiera zen behintzat, iraila.

Zenbat eta gehiago egin, orduan eta zaleago nintzen. Bertsoekin gero eta paper gehiago betetzen jarraitu nuen, rotuladorearekin eta letra handi handiekin. Azkenean harrak harrapatu ninduen eta geroztik ez nau utzi.

ETXEAN

Amona zena bertsotan ona omen zen, bere garaian. Nik ez nuen sekula bertsotan ezagutu. Gure aita zena bertsozalea zen, egin ere egiten zuen pixka bat.

Bertsozaleak baziren etxean, baina sekula ez ginen bertsotan aritu.

Hernaniko bertso eskolan hastearekin batera hasi nintzen herriko eta inguruko bertso saioak aditzera joaten. Aita zenarekin Xoxokako festetan Mitxelena aditzera joan nintzen, Manuel Lasarte ere bere plazako azken garaian harrapatzeko suertea izan genuen.

Bolada batean, ostiral iluntzetan bertso eskolatik etxera joan, afaldu eta aita eta biok salan jartzen ginen. Aitak kafea hartzen zuen aurrean, eta bertsotan aritzen ginen. "Seme maitea esango dizut" hasten zuen beti lehenengo bertsoa! Horrelako gizaseme batekin parez pare jarri eta egin egin behar, derrigor! eta gainera ez zen edozein, aita. Zer gehiago ume batentzat!

LANGILEKO BERTSO ESKOLA

Perfekzionista nintzen batetik, eta bestetik banuen kezka, idatzi denek nik baino lehenago egiten zuten eta edozer gauza ez nuen bada egingo. "Hi baino hobeak dituk denak" pentsatzen nuen. Lau buelta ematen nizkion bertsoari eta bosgarrenean ere aldatzen nion zer edo zer. Horrek zaildu egiten du hasieran erritmoa eta erraztasuna hartzea. Oso ona bota nahi duzu eta orduan denbora asko hartzen duzu.

Paperetik bat-batekorako saltoa oso gogorra izan zen. Hasieran sentsazio txarra neukan, besteek nik baino azkarrago eta hobeto botatzen zituzten bertsoak. Niri gaia jarri eta noizko bertsoa ekarri! Baina egoskorra izan, eta jardunaren poderioz iritsi nintzen juxtu bestaldeko puntura, bi bertso idazteko gai bat jarri eta hamar idaztera.

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Euskal Herriko Eskolarteko IV. Txapelketa	1992	Finalista (handitan)
Euskal herriko Eskolarteko Txapelketa	1990	Finalista (handitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa	1991	Finalista (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1988	Finalista (txikitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1990	Finalista (handitan)
Gipuzkoako eskolarteko txapelketa	1992	Txapeldun (handitan)
Gipuzkoako eskolarteko txapelketa	1993	Txapeldun (handitan)

Joxe Mari Mujika "Anatx" etortzen zen Langileko bertso eskolara Juanjo Uriari laguntzera eta berarekin biltzen ginen bat -batean egiteko. Lau oinak eman eta bertsoa botatzen genuen. Gogoan dut bertsoa botatzetik Eskolartekoan ateratzera tarte motza egon zela. Behin Anatx etorri eta esan zigun "izena eman dizuet Eskolartekorako" eta nola? eta "bai, joan egin beharko duzue...".

Sekulako beldurrarekin, Sandiusterriko aretoan egin nuen debuta txapelketan: Gorka Tolosa, Unai Agirre, Joxe Luis Urdangarin, Iñaki Zelaia, eta Aitor Lasarte ere aritu ziren. Eta lehentxeago (1986an) Etxeberriko festetan Unai Agirrerekin eta Iñaki Zelaiarekin aritu nintzen.

LEHENENGOTAKO PLAZA, AITAREKIN

Nire lehenengotako plaza aitarekin egin nuen nik. Ohitura handia genuen jai iluntzetan Adunako herriko tabernan afaltzeko. Han zerbitzari aritzen zen Txomin Garmendiaren andrea, Karmen. Eta beti afaldu, gozokiren bat jan eta kontu esaten aritzen ginen, askotan bertso kontua, Joxerekin, hango nagusiarekin. Egun batean ez dakit nondik eta nola, aita eta biak bertsotan hasi ginen. Jendea isildu egin zen eta koadrila bat hantxe aditzen egon zen. Ni mundua deskubritu banu bezala geratu nintzen, sekula baino azaina handiagoa eginda. Dozena bat urte izango nituen, lehenengo Eskolartekoan kantatu eta bolada horretantxe izango zen.

SARIKETAK

Juan Basurto bertsolari gazteen lehiaketa	1993	Finalista
Lizardi saria	1990	Finalista eta bertso onenaren saria
Lizardi saria	1991	Finalista
Lizardi saria	1992	Finalista
Lizardi saria	1993	Txapeldun ordea
Lizardi saria	1994	Txapeldun ordea eta bertso onenaren saria
Xenpelar saria	1992	Finalista
Xenpelar saria	1994	Txapeldun ordea
Hernaniko Txapelketa	1996	Finalista

ASTEARTEKO BILERAK

Gero jada pasa ginen libreko saioa pixka bat gehiago kontrolatzera. Jarri mahai bueltan, hasi eta tipi tapa egitera. Hamalau bat urte izango nituen joan nintzenean, "zaharren bertso eskola" esaten genion orduan. Sekula txori bat ikusi ez duen bat lehoi artera botatzea bezala zen. Gu ume mokoak, ordurako plazan probatua zen jendearekin, han eseri eta "benga, hasi". Eta buelta etortzen zenean, pasorik ez, bota. Eta handik irten eta askotan "goazen sagardotegira". Berandu etorriz gero beti kargu hartzen zidaten gurasoek: "non ibili zarete...". Baina bertsotarako izanez gero, joaten nintzen tokira joaten nintzela, beti libre. 13 urterekin sagardotegira joatea astearte batean, gure etxean normal hartzen zuten, bertsotara joaten ginela-eta ohitu egin ziren. Gu ere ohitu ginen, eta zaletu ere bai!

BERTSOTAN SALTOA

Eskolartekotan bakarrik kantatzen nuen eta hemen auzotako saioetan. Hasi nintzenean konturatzen nintzen beste ikaskideak ni baino bi koska gorago zeudela. Unai Agirrek txapelak irabazten zituen Eskolartekotan eta ni ez nintzen finalera ere iristen. Konturatzen nintzen bertsoa egiten jakin bai baina kapazidadea neurrian neukala eta kosta egiten zitzaidala. Nire prozesua mantsoagoa izan da.

Eskolartekoan handien mailara pasa ginenean, orduan bai, nabaritu nuen beste maila edo gaitasun bat neukala, lehen ez nuena. 14 urterekin eman nuen saltoa. Eskolarteko azken bi urteetan etorri ziren txapelak, baina aurreko bi urteetatik bazetorren bide hori.

Orduan hasi ginen mundu horretan mugitzen zen jendearentzat ezagunago egiten, eskoletan saio gehiago egiten, herri batera eta bestera joaten Mikel Mendizabalekin...

Guretzat mundu bat deskubritzea zen. Plaza batera joan, inork ez zigun pistarik ematen zein ziren eta zer egiten zuten, mikrofono bat ematen ziguten eta "guk hemen zer egin behar dugu?" pentsatzen ge-

Argazkia: Sara Santos.
Iturria: http://www.flickr.com

nuen. Eta hor bai igartzen zela asko asteartetako bileretan librean egiten ikasi genuela, eta ezerezetik ordu erdiko saio bat ateratzeko gai ginela. Nik hori beti eskertuko dut.

Bazegoen konpartsa paper hori: gaztetxo batek zerbait egin duela txapelketaren batean, eta kolpetik Euskal Herriko bertsolaririk onenekin jartzen da herriko jaialdian. Oso argazki polita, baina guretzako garai hartan handiegi geratzen zen. Kristoren ilusioa izaten genuen, noski! Baina jakinda haientzat faena zela, ezin genuela haien erritmoan aritu. Guretzat zer sorpresa zen Sebastian Lizaso batekin plazara joan eta berak guri bizkarretik heldu eta "horrela egingo diagu" esatea. Nik uste 15 bat urterekin kantatuko nuela maila horretako bertsolariekin, Andoaingo saioren batean.

18 urterekin azken Eskolartekoa irabazita ere, plazan gutxi ibiltzen nintzen. San Tomas egunez Estitxu Arozena eta biok joan gara Azpeitira, eta Estitxu harrituta: "ni Nafarroatik etorri eta jende denak ezagutzen nau, eta zu Gipuzkoako Eskolarteko txapelduna zara eta inork ez zaitu ezagutzen!". Ordurako ni baino gaztexeagoak zirenak, Maialen Lujanbio eta Estitxu Arozena eta horiek jada plazan dezente zebiltzan. Horretan ere nire jirakoak baino beranduxeago iritsi nintzen. 18-19 urte nituen gehixeago mugitzen hasi nintzenean.

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Txapelketa	1995	Txapeldun
Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Final-aurrekoak (Andoain-Urnieta taldea)
Gipuzkoako Txapelketa	2003	Hirugarren
Gipuzkoako Txapelketa	2007	Txapeldun
Txapelketa Nagusia	1997	Final-aurrekoak
Txapelketa Nagusia	2001	Finalista
Txapelketa Nagusia	2005	Finalista
Txapelketa Nagusia	2013	Finalista

Manuel Lasarte 1995eko Gipuzkoako Txapelketan: "beraz, zu Mendiluze zaitugu txapeldun. Zorionak bihotzez horixe nahi gendun".

1995eko Gipuzkoako Txapelketan, Eskolartekoan bezalaxe gertatu zitzaidan: Txapelketan ikusi zen saltoa, baina lehendik emana nuen jada.

Txapelketa aurretik, udaberri hartan, Lasarteko bertso eskolak Goiegin bertso afaria antolatu zuen. Sebastian Lizaso eta biak ginen buruz buru. Eta ni dar-dar batean joan nintzen. Artean plazan gutxi ibilita, eta Sebastian batekin, 80 lagun afaltzen... "ba egingo dugu ahal dugu-na"... eta egin genuen hiru ordu eta gehiagoko saioa. Nik errimatu eta neurtu bakarrik egiten nuen. Beste dena berak: Saioa kontrolatu, erritmoa jarri, gaiak atera, niri lagundu, dena. Saio bukaeran ni leher eginda nengoen eta jendea etorri zen eta "hi, zorionak..." eta Sebastianek esaten zidan "ondo, aurten txapelketarako ondo ibiliko haiz eta badituk aukerak...".

Nahiz eta oso gustura geratzeko moduko txapelketa egin nuen, konturatzen nintzen ordurako bide bat egina nuela. Oso zaila izaten da txapelketa batean nabarmentzea aurretik ezer egin ez bada. Kontua da egin den horrek ez duela halako oihartzunik.

Txapela irabazi berritan, San Anton egunez Getariara joan ginen Sebastian Lizaso eta biok. Sebastian eta Andoni Egañak urtero joateko ohitura zuten, baina Andonik ezin eta Sebastianek "bueno, hi, txapeldun berria hi haiz eta biok joango gaituk" esan zidan. Hara iritsi eta "Egun on, Sebastian, zein duk laguna?". "Hau ez al duk ezagutzen? Hau duk Gipuzkoako txapeldun berria!" besteak zeharka begiratu zidan eta Sebastianek "egon hadi, egon hadi, ikusiko duk!". Joan ginen goiko balkoira eta lehenengo saioa Iparragirreren doinuan egin genuen. Dale berak, eta nik erantzun, ahal nuen bezala. Nahiko saio polita atera zen, eta gero Kaipera joan ginen bazkaltzera. Han ere saioa egin genuen, eta erretirakoan, Sebastianek esan zuen "ikusi duk, ez? hau zein den!". Behar nuen gizarteko aurkezpen hori egin zidan, bertsolari handi batekin joan eta berak "hau halako eta halako duk" esatea.

1999ko Herriartekoa. Handik oso oroitzapen polita daukat, desberdina zen, kolektiboagoa.

2001eko sailkapena. Ordurako Bertsozale Elkartean ari nintzen lanean: sailkapen hura antolatzen aritu nintzen, kantatu ere egin nuen, irabazi ere bai... denak batera egin nituen orduan!

2001eko Euskal Herriko Txapelketan finalista. Gazi-gozo daukat gogoan, hirugarren egin nuen, Txapelketa Nagusian orain arte egin dudan posturik onena, eta aldiz ez nuen gogoratzeko moduko ezer utzi.

2003an bigarrenez Gipuzkoako Txapeldun atera nintzen.

Ordurako banekien zer zen txapela janztea, plazan banenbilen, baneukan leku bat... beste era batera hartzen da, batetik esaten duzu "hamabi urte daramatzat 95eko txapelaz gero plazan dezente ibiliz, urtean saio batzuk eginez, izen batekin, eta bigarren txapel hau konfirmazioa da, hamabi urtean hor aritu eta berriro txapela irabazteko gai izatea".

Joxe Mari Altuna urtetan Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko diruzaina izandakoa 2007an Mendiluzeri txapela janzten.

TODOTERRENOA

Zerbait baldin badaukat, erregulartasuna da, bataz beste nahiko maila onean aritzeko kapazidadea. Eta harrokerik gabe esan dezaket bertso brillanteak ere utzi ditudala. Akaso todoterrenoa ere banaiz. Urteak dira Anjel Mari Peñagarikanok esan zidala "hi luxuzko suplente bat haiz". Niretzat lore dezente da esatea "hi edozeinen partez joan hinteke edozein saiotara eta beti egingo duk bertsotan". Edozein saiotan eroso sentitzen naiz.

Aitor Mendiluze eta Fredi Paia. Larrabetzuko HORI BAI gaztetxean. gabonetako bertso saioa.
Iturria: http://www.flickr.com

JOXE LIZASO ETA JOXE AGIRREREKIN

Guadalupen Joxe Lizasorekin zenbait urtetan egindako saioak oso bereziak dira niretzat, Joxe Lizasorekin egindakoak direlako.

Gogoan dut Joxe Agirrek eta biok Ereñozun egindako saio bat, biok parez pare begietara begira, Ur-Mia elkarteko terrazan. San Antonio eguna edo igandea izango zen, goizean saioa egin eta arratsaldean jaialdia egiteko geunden. Agirrerekin hori da nik egin dudan saio politenetako bat. Ona ez dakit, eta ez dago grabatuta.

PLAZAN

Suertea dut. 1995eko txapelketaz geroztik, 80 plazatik gora egin ditut urtero. Urte batean pasa naiz 100 saiotik. Niretzat sekulako kopurua da. Sekula ez naiz beste batzuk adina ibili eta ez naiz ibiliko, nire bertsokeragatik, nire karismagatik, nire izaeragatik, nire irudiagatik... baina ezta nahi ere. Hortik behera? Etorriko da. Guk lekua kendu genien batzuei eta beste batzuk kenduko digute guri.

NORK EZ DU LORERIK ENTZUN?

Doinua: "Ai hori begi ederra".

I
Nork ez du lorerik entzun?
Zein apain, zer edertasun
ze ondo geratzen zaizun!
"Zureak ere nahiko nituzke..."
zuk ere lorez erantzun
naizenaren harrotasun
hortan berretsi nazazun
ea laguntzen didazun.

II
Lehenengo begiraldian
distira buru erdian
ile falta agerian.
Neure buruaz beste egiten
hasi ziren aspaldian.
Lehengo multzo ugarian
emigranteak abian
itzultzekotan agian.

III
Goitik zenbat ile jausi
bekainak hainbeste hazi
bihurtu dira bi sasi.
Denborarekin beltzen artean
ile zuriak nahasi
lehenaz gain, luzatzen hasi
eta jada dira kasi
begiradaren orrazi.

IV
Begietara begia
utzi du hor ere ia
denborak bere egia.
Ziren hartatik gaur direnera
alde nabarmenegia:
lehengo distira erdia
ez dutela alegia
itzali zait aurpegia.

V
Sudurrak denen irria
nahi gabe erakarria
hain dago barregarria...
Zain gorriz bete eta bikoiztu
egin da bere neurria
zalantzan nago jarria
zer den, irudi berria
ala alarma gorria?

VI
Lepoarekin zer lana
honek ere zer esana
ziur emango didana!
Lepo gihartsu atletikoa
aspaldi da iragana
orain zintzilik darama
nire egoaren zama
a zer zakua daukana!

VII
Zail da begiak ixtea,
zail lepoari eustea,
zail berriz ilez janztea,
zail sudurrari gorria kendu
eta argalaraztea,
beraz, loreen eskea
hobe albora uztea
lehen entzunak sinistea!

VIII
Ustezko galai dotore
entzun arren mila lore
eman behar dut amore
ez didazunez egiten ustez
merezi hainbat ohore
ez begiratzea hobe
eta giltzapean gorde
agur ispilu traidore!

[**Aitor Mendiluze**, IX. Balendin Enbeita bertso paper sariketako sorta irabazlea]

DOINUAK

- "Duela hogei urte" Aitorrek sortu eta plazaratua, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako (1995) final-aurrean, Errenteriako saioan.
- Gipuzkoako Txapelketan Tolosan plazaratutako bakarkako doinua, 7 puntukoa.
- 2008an Mendaroko agur batean 10eko txikia.
- 2009ko urtarrilean Oñatin agurreko 10eko txikia.

Ohitura handia dut txistu jotzeko. Txistu jotzen hasi eta "puntu hori desberdina zen"? eta errepikatu egiten dut buruan eta orain mugikorrean grabatzen dut. Hura berreskuratu eta hari beste puntu batzuk erantsi, nik horrelaxe egin ditut doinuak.

Txapelketan atera nuen zazpi puntuko hura izango da nire doinuetan arrakasta gehien izan duena, gehien erabili dena. Errioguardan emaztearekin afaltzen ari nintzela, burutik pasa zitzaizkidan bi puntu, eta "ostra, egon segundo bat!" mugikorrean grabatu eta utzi egin nuen. Biharamunean entzun, sumatu eta "hauxe doinua, listo". Gero ez dakizu, igual ez du batere balio, baina nahiago dut plazaratu eta nonbait grabatuta geratzea galtzea baino.

UNE ZAILENETAN BERTSOTAN

Idoiak (emazteak) istripua eduki zuenean, hil ala bizi egon zen egun batzuetan. Orduan eta gure aita hil zenean, pentsatu nuen: "eta zer egin behar dut, etxean geratu negarrez? eta bihar ere bai eta etzi ere bai? eta noiz arte?" bizitzak segi egiten du eta bizitzari eutsi egin behar zaio.

Plazak sendagaitik ere badu. Plazara joan, hustu, akaso zure min horretatik sortzen asmatu, eta seguruenik plaza horren ondoren pixka bat hobeto egongo zara. Uste dut bi kasu horietan saio txar txarrik ez nuela egin. Niri lagundu egin dit bi kasu horietan plazara joateak. Aurre egiten diot bizitzari, aurre egiten diot munduari, eta ea kapaz naizen daukadan beldur edo pena hori bertso bihurtzeko. Eta badakit tabladutik jaitsitakoan mina hor egongo dela.

BIRIBILA

Bertso eskolako Aitor Mendiluzeren bertsoarekin akordatzen naiz beti. Ertzain batek gazte bat egurtu zuen aurrena, eta gero bere amona joan eta hura ere egurtu egin zuen. Gaia jarri genion eta Mendiluzek:

Lehenik ilobari eutsi
ta gizarajoak etsi
zenbateraino eman zioten
ezin det sinetsi
gero amona ikusi
eta begirune gutxi
oraindik bada errespetua
zeini erakutsi.

[**Unai Agirre**]

1995eko Gipuzkoako Txapelketa (azaroaren 11, Errenteria)

Epailea zaitugu. Garrantzi handiko kasua duzu esku artean. Erabakia ematekotan zaudela heriotza mehatxua jaso duzu.

Epailea naiz ta juzgatzeko
oraingo hontan aukera,
kasu gogorra eta datozkit
atzetikan atakera.
Orain nor ote garrantzitsua
epaile edo norbera?
Une hontatik aurrera,
dudatan hasi ohi gera.
Merezi arren kondenatzea
izan liteke kaltera,
neure kondena firmatzen badut
haienarekin batera.

Batzutan otso izaten dena
beste batzutan bildotsa,
baina mehatxu baten aurrean
inor ezin izan hotza.
Erabakiak izan behar du
justua bezain zorrotza,
baina sentitzeko lotsa,
horra pistolaren hotsa.
Jarraitu behar ote dut orain
barrunbearen ahotsa,
gaur zein ote da garrantzitsuna
burua ala bihotza?

Zuzenbidea ikasi nuen
ta zuzen naute hezia,
baina inorrek ezin lagundu
gainditzen gaurko hesia.
Aukeratzea nahiz eta izan
nik daukadan lan guzia,
pentsatzen nago hasia,
eta guztia nahasia.
Hala ta guztiz kondenatuta
nahiz eta galdu bizia,
nere bizitza dala ta ez dala
ez gelditu justizia.

2001eko Txapelketa Nagusia (azaroaren 18a, Markina-Xemein)

Erabat maiteminduta zaude neska batekaz. Badakizu droga arazo larriak dituela berak. Ezin duzu burutik kendu!

Doinua: Naufragoarena¶

Sudurzulotik sator-zulora,
hilkutxa, meza, malko ta lora;
laburtuz zoaz horretarako
geratzen zaizun denbora.
Behin lortu zenuen droga,
egin zenuen aproba,
eta orduan gustora;
baina konforme ez eta hortan
jarraitu dezu gerora;
arrisku hori merezi badu
oso ona izango da.

Guraso jator batzun alaba,
daude ez irri ta ez algara,
gogorregia egiten ari
baitzaie azken bolada.
Ta inor kezkatzen bada,
berandu omen da jada;
betiko aitzakia, hara.
Saiatu egin omen zera ta
ezin omen duzu laga;
maite zaituzten guztien mina
baino gehiago al da ba?

Jada ez zaude zeure onean,
pozoia dezu zainen barnean
ta sinistu nahi ez duzun arren,
hilko zaitu azkenean.
Gainditu behar denean,
saiatu gogor lanean
lagun denen izenean;
eta ez zazu beldurrik izan
larritzen zeran unean,
zure ondoan egongo bainaiz
hala behar nauzunean.

UNAI AGIRRE GOIA

1975ean Hernanin jaioa

Gipuzkoako Sagardogile Elkartean ari da lanean; aurretik besteak beste, Hernaniko Kronikan egin du lan eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartean ere aritu zen, 1999ko Herri Arteko Bertsolari Txapelketako antolakuntzan.

HASIERA

Langile ikastolan genbiltzala, Juanjo Uria hasi zen bertso eskolak ematen. Zerbait izango zen hara bultza ninduena. 9-10 bat urte nituen. Astean behin joaten ginen eta guretzat gauza berezia zen.

ETXEA

Gure etxea nahiko bertsozalea izan da beti: amak bertso zahar asko dakizki, aitonari ikasita gehienak. Gure aitonak oso bertsozalea izan behar zuen. Bertso liburu asko zituen, eta bertso zahar asko kantatzen omen zituen, bertso saioak antolatzen ere zer edo zer ibilia zen... aita, berriz, errezildarra izaki, beti izan du bertsoa zer denaren sena. Bertso eskolan hasi ginenean, etxean bertsozaletasun hori piztu egin zen: kotxean Errezila bidean gindoazela, ama eta aita puntutan hasten zitzaizkigun edo bertso kontuak kontatzen, edo Txirritaren bertsoak kantatzen...

Amaren anaia zena, osaba Koldo, oso bertsozalea zen. Xabier Amurizaren ikastaroan ibili zen, eta bertso jartzaile txukuna zen. Ostiral gau batzuetan joaten ginen bere etxera afal ondoan. Hor izaten ziren garai bateko diskusio haiek, zigarroa erre eta politikaz eztabaidatzen zuten... eta bertso eskolan hasi ginela jakin zutenean, gurekin bertsotan egiten zuten. Gogoratzen naiz garai hartan asko zaletu nintzela.

ERREZIL

Errezil herri bertsozalea da, baina agian garai batean orain baino gehiago. Gurasoekin tabernara joaten ginenean, han bertsotan egiten zen. 13 bat urterekin, gogoratzen naiz nola aritu izan nintzen Errezilgo zenbait bertsolari heldurekin bertsotan. Tokatu izan zait, baina gutxitan. Arazo bat ere banuen, gainera: Nik doinu asko nekizkien ustez, baina han ateratzen zituzten zenbait doinu ez. Han geratzen zen guk gutxi ezagutzen genuen aspaldiko poso hori, geroztik Ereñozu aldean eta ere somatu izan dudana. Beste bertsokera bat zen. Gertatu izan zait puntutan hasi eta doinurik ezin segi.

Hizketa eta bertsoarekin halako jolas bat izan du Errezilek beti. Nik uste garai eta giro hark asko eragin zuela nigan, artean oso umea banintzen ere.

MUNDU BI

Nire lagun artean ez zen bertso girorik. Eskolarteko Txapelketekin azkar sartu ginen zurrunbiloan, eta bertso eskolako lagunek mundu aparte bat genuen: bertsoa. Lagunentzat bertsolaria nintzen, eta egunen batean zirikatuko ninduten, baina normalean ez.

LANGILEKO BERTSO ESKOLA

Juanjo Uriarekin bertso jarriak lantzen hasi ginen koadrila handi bat, eta poliki poliki lehen jenerazio hartako jendea bertso eskola uzten joan zen eta segi genuenak Gorka Tolosa, Aitor Mendiluze eta hirurok izan ginen. Geroxeago hasi ginen bat-batean Anatxekin, Juanjok berak etortzeko deituta. 10-11 urte izango genituen. Garai artan asko zaletu ginen eta asko ikasi genuen bertsotan.

ASTEARTEKO BILERAK

Anatx gure irakasle egonda, pausoa erraza izan zen. Juanjo Uriak zirikatu eta Anatxek bideratu gintuen astearteko bileretara. Oso gazterik hasi ginen hor biltzen eta astearteko taldeak beso -zabaldik hartu gintuen. Joan eta kantatu egin behar zen han eta eskarmentua hartzeko balio zuen. Urumeatik zetozen bertsolariak ere bertan biltzen ziren eta gure maisu lana egingo zuten bertsolariak ere bertan izaten ziren: Anatx, Jokin Sorozabal... Hernani inguruan sortzen ziren saioetara ere joaten ginen bertatik.

IRUÑEAN

Iruñera joan nintzen ikastera eta normalean astea bertan pasa eta ostiraletan etortzen nintzen Hernanira. Hernaniko bertso koadrila jada erdi-koadrila ere bazen, asko juntatzen ginen. Baina asteartetako taldera jada ez nintzen etortzen.

Iruñean taldetxo bat elkartzen zen bertsotarako Zaldiko Maldiko elkartean: Bittor Elizagoien, Burgi, Manu Legarra, Manu Gomez, Diaz de Ultzurrun, Joxema Leitza, Mikel Urdangarin, Mikel Altzuart... bertsotan egiten genuen baina bapo afaldu eta ondo pasa ere bai!

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1987	Txapeldun (txikitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1988	Txapeldun (txikitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1990	Txapeldun ordea (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1992	Finalista (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1993	Finalista (handitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa	1989	Txapeldun (txikitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa	1990	Finalista (handitan)

ESKOLARTEKOAN TXAPELDUN

Eskolarteko Txapelketan parte hartu nuen lehen aldian (1987) finalean kantatu genuen Gorka Tolosa, Aitor Mendiluze eta hirurok. Iñaki Zelaia zen faboritoa final hura irabazteko, baina poto edo egin zuen. Lau oinak eman zizkidaten eta bertsoa nahi gabe kateatu nuen, nik ez nekien hain ongi egiten baina bertsoa bera atera zen:

Gaur tokatu ezkio
egun aldrebesa
hementxen ez daukagu
inorren babesa
txapela irabaztia
eztago erreza
zuzen ta zorrotz dago
atzian jueza.

Nik neukan mailarako bertso ona zen, baina nahi gabe atera zitzaidan.

Lanak bukatu, tabladutik jaitsi eta arpa jotzen hasi ginen, "egin dugu, gustura", jiji-jaja... hor ari ginela, Juanjo Uria etorri zen eta esan zidan "Unai, bada ezpada ere agurra pentsa ezak..." "zergatik?", "eske igual txapela irabaziko duk". Dardarka hasi nintzen, bihotza danba danba... eta agurra hala-moduzkoa kantatu nuen. Txapelketa hura, niretzat eta bertso eskolan elkartzen ginenontzat, garrantzitsua izan zen, espero ez genuena. Aurrerako animo handiak eman zizkigun, polita izan zen.

Ikastolan ongi-etorria egin ziguten...

SARIKETAK

Lizardi saria	1990	Finalista
Lizardi saria	1993	Txapeldun
Lizardi saria	1994	Txapeldun
Orixe saria	1999	3.
Orixe saria	2007	Txapeldun
Osinalde saria	1993	Finalista eta herriaren saria
Xenpelar saria	1991	Txapeldun
Hernaniko Txapelketak	1996-1998-2002	Txapeldun

PLAZARATZEA

Aurreneko bertsoa mikrofonotik Aitor zinean kantatu nuen. Langile ikastolakoak Biterin aritzen ginen bertso eskolan eta ume mordo batek ikasitako bertsoak kantatu genituen. Gero ikastolaz ikastola joaten hasi ginen ginen, batera eta bestera.

Asteartetako bileretan Jokin Sorozabal, Anatx, eta horiekin biltzen hasi ginenean, pixka bat mugitzen hasi ginen. Hasieran eurekin batera, halako sagardotegitara joan behar zutela, eta gu ere joaten ginen, jada inguruko saio batzuetan ere sartzen gintuzten... Floridan zela saioa, Osinagan zela, Portun zela... aurrenetako saioak hor egin genituen bat batean.

Eskolarteko Txapelketetara, sariketetara, denetara joaten ginen, Hernanin koadrila bat geunden eta ekipoan mugitzen ginen.

Bolada batean gure artean saio batzuk egin beharra ere tokatu zitzaigun, bertso afariak zirela eta abar. 15-16 urterekin behin baino gehiagotan tokatu zitzaigun Iñaki Zelaia eta bioi mano mano kantatzera joatea. Hor hartu genuen guk eskarmentu pixka bat, libreko saio asko ziren, eta nik uste bertsotan ikasteko modu naturala hori dela. Guretzako neurriko saioak ziren, koadrila baten aurrera joaten ginen kantatzera eta hor ikasi genuen bertsotan egiten.

ALMAZENA

Almazena asko bete nuen bere garaian, gustatu egiten zitzaidalako bertso zaharrak irakurri eta kantatzea. Bertso asko jan eta ikasi nuen buruz. Ikasitako horiek ez ditut aspaldi berritu, eta norbait kantatzen hasten bazait egundoko soka daukat oraindik, baina neroni buruz hasten naizenean kosta egiten zait gogoratzea.

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Txapelketa	1995	Finalaurrekoak
Gipuzkoako Txapelketa	2003	Final-laurdenak
Gipuzkoako Txapelketa	2008	Finalista
Gipuzkoako Txapelketa	2012	Finalista
Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Lehen kanporaketa (Hernani-Ereñozu taldean)
Txapelketa Nagusia	1997	Finalaurrekoak
Txapelketa Nagusia	2001	Finalaurrekoak
Txapelketa Nagusia	2009	Lehen fasea
Txapelketa Nagusia	2013	Finalaurrekoak

Gipuzkoako Txapelketan 1995ean parte hartu nuen aurrenekoz. Ez daukat oroitzapen txarrik, Ordiziako finalaurrekora sailkatu nintzen eta nahiko saio txukuna egin nuen.

1997ko Euskal Herrikoa. Sentsazio arraroak dauzkat. Niretzako ur handiak ziren, lehen saiora joan nintzen esanaz "baina nora noa 21 urterekin?". Tolosan, Leidorren kantatu nuen Sebastian Lizaso, Igor Elortza... Saioa egin eta aurrera segitzea tokatu zitzaidan; ez nuen espero. Hurrengoa finalaurrekoa izan zen Igorren. Han kantatzeko mentalizatu eta preparatu egin ginen tope. Sei puntuko bertso batean kateatu egin nintzen, kosta egin zitzaidan bertsoa bukatzen. Baina gustura geratu nintzen egindako saioarekin.

1999ko Herriartekoa. Gure taldeak bi saio egin genituen Errenteriaren kontra, eta galdu egin genuen. Oso giro ona sortu zen gure artean eta oroitzapen oso ona daukat. Galtzaile onak nonbait!

2001eko Euskal Herrikoa. Lehenengo saioa Elorrion egin nuen. Saio gora beheratsua eginda aurrera egin nuen, juxtu juxtu. Finalaurrekoetan Markinan eta Hendaian lasai atera nintzen. Markinan bertsotan ondo egin genuen guztiok, saio ona atera zen, baina nik ez nuen hain ondo egin izanaren sentsazioa eduki. Gustura geratu nintzen baina arantza txiki batzuekin "nik hau eta hau eta hau hobeto egiten bazekiat" eta horiek egin izan banitu... denborarekin konturatzen zara erabat gustora geratzeko saio gutxi izaten direla txapelketan, hori oso gutxiren esku dagoela.

2003ko Gipuzkoakoa. Espero izaten da, "ni honaino iritsi banaiz aurrekoan, oraingoan ere iritsi behar dut". Eta saio tristea egin nuen. Txapelketa horren ondoren nire buruarekin borroka moduko bat izan nuen. Bertsotarako deitu eta ezezkoa ere esan nuen, geldialdi bat izan nuen, irriki falta bat.

2007ko Gipuzkoakoa. Atera ez atera egon nintzen, "nahikoa diat" esaten nion neure buruari, aspaldi gutxi ibilita nengoen, aurreko txapelketako sentsazioak gogoan... ingurukoek asko animatu ninduten eta esan nuen "bale joango nauk baina aurten gozatzera". Lehen aldietakoa izan da hainbeste jenderen aurrean bertsotan gozatu dudana, gustora geratu naizen saioak egin ditudana. Finala desberdinagoa izan zen, "lasai joan behar diat" esanagatik zaila da bederatzi mila lagunen aurrean abstraitu eta bertsotan tajuz egitea. Orokorrean oroitzapen ona daukat txapelketa horrena.

BERTSO PAPER LEHIAKETAK

Joxe Legarreta bertso-paper lehiaketa	1997	1. saria (18 urtetik gorakoen mailan)
Joxe Legarreta bertso-paper lehiaketa	1999	1. saria (18 urtetik gorakoen mailan)
Basarri bertso-paper lehiaketa	2009	2. saria
Joxemiel Barandiaran literatur lehiaketa (bertso-paperak)	1989	1. saria (12-14 urte artekoen mailan)
Literatur lehiaketa egile berrientzat	1997	1. saria
On Manuel Lekuona bertso-paper lehiaketa	1999	2. saria

TXAKURRAK HANKUTSIK

Doinua: "Ezkondu eta ezkongai".

I
Asteleheneko resaka:
korrika eta presaka,
iratzargailua saka.
Goizeko seiak, hasia nago
zaunkaka gaizki esaka:
"Kaka! Ta bi aldiz kaka!"
Etxetik irten ta, kanka!
Berriro sartu det hanka.

II
Lau hankakoen kasoa,
goizeroko arazoa,
bertso sail batek jasoa.
Sudurrak behar ditugu libre
eta zorroztua soa:
kendu begiko lausoa,
kontu non eman pausoa...
minatu dute auzoa.

III
Hustu ezkero barrenak,
daramala dakarrenak,
emeenak nahiz harrenak;
multa, eskari, amenazuak...
bat, bi, hiru... hamarrenak;
alperrik dira arrenak!
Nonahi daude aztarrenak;
hanka bikoak txarrenak!

IV
Hitz txarrik zeinek ixuri?
Pintto, Lagun, Laika, Txuri...
handi, txiki, argal, guri...
Txakurren menpe bizi beharra
egokitu zaigu guri.
Zazpi, sei, bost, lau, hiru, bi;
zenbat mutur ta irudi!
Zoologikoa dirudi!

V
Arkakuso ta barkazta,
nahiz etxean sartu, zasta!
Begiak itxi ta basta.
Eske txakurrak ligatzeko ere
ba omen du arrakasta:
- Ze pedigria, ze kasta!
- Ze fin egiten dun hazka!
- Zure begi berak dauzka.

VI
Beste moda bat doi-doia:
indarraren arrazoia;
handienaren galoia.
Borrokarako zakurren grinak
ere orain jo du goia:
Rodwailerraren sasoia;
Pitt Bullaren armazoia...
tigrea eta lehoia.

VII
Lehoi, tigre, basakatu...
herriak piztiz kargatu;
baietz hamar azkar batu.
Kontra egitera behartuz gero,
hobe da ondo armatu!
Nahiko bazenu ausartu,
bakea jartzera sartu:
protesi bat enkargatu.

VIII
Trabak luze-laburrean
azaltzen dira aurrean,
nola mendiak Tourrean.
Opariren bat nahi ez duenak
hankape, hankezurrean:
hartu makila urrean,
jarri pintza sudurrean,
ta begirada lurrean.

IX
Garai bateko beldurra:
ostikoa ta egurra,
txakur gaiztoek segurra.
Gaur berriz ondo orraztu eta
azkazalak limaz urra;
nahiz mantaz estali lurra,
nahiz kremaz busti muturra,
zakurra beti zakurra.

X
Eten gabeko katean,
multak etxeko atean,
nituzke instant batean.
Nire beharrak eginez gero,
paseatzera joatean...
Utzi nazaten bakean
espaloi eta parkean,
jarriko naiz lau hankean.

[**Unai Agirre**, 2010eko Basarri Bertsopaper Lehiaketako bigarren saria]

2007-03-11 Orixe Sariketa

Alaba txikia oheratzen ari zara. Azken musua eman ondoren hala galdetu dizu: "Amatxo, aitatxo non dago?".

Gaur arte egin ez dedan arren
orain behar det kontatu
gaur arte ez dizut azaldu izan
ta alabatxo barkatu.
Hartu ezazu pelutxea ta
lasai ohe hortan sartu
historia ez da horren samurra
eta arnas sakon hartu;
zeorrek galde didazun arte
ez naiz esaten ausartu.

Bizitzak sarri horrelakoak
ez dizkigunez igorri
nere barruan daukat guztia
ez diot esan inorri.
Orain bihotza taupaka daukat
eta aurpegia gorri
istripu batek eraman zuen
zer egingo zaio horri?
Biak batera gertatu ziran:
hura joan zan zu etorri.

2001eko Euskal Herriko Txapelketarako Gipuzkoako sailkapena (Maiatzaren 12a, Irun)

Zu, Unai Agirre, itsulapikoa zara eta Jon Martin, berriz, haurtxoa. Orain arte dirua bota dizu Jon haurtxoak. Gaur, ordea, eskuetan mailua duela datorkizu.

U. Agirre
Kotxe bat erostea
bere kapritxoa,
txanpon guztiak botaz
hau da hau bitxoa!
Baina mailua utzi
ta izan txintxoa,
oraindik erdi hutsa
dago txerritxoa.

J. Martin:
Ai nere eltxetxoa,
ai txerritxo fina,
gaurkoan eman behar
dizut kriston mina;
mailua hartu eta
a ze ahalegina!
Jadanik ailegatu
zaizu San Martina.

U. Agirre:
Txanponak poltsikoan
mila enbarazu,
baina pezetak soilik
zenitula kasu;
eltxetxorik ez zazu
puskatu jo ta su,
beste bat erosteko
ere ez daukazu.

J. Martin:
Ez omen dut besterik
dudan diruan truk,
aurrean jarri zara
zu tente eta zut;
mugimendu arrarorik
ez zazu egin zuk,
zulotxoa pixka bat
handituko dizut.

U. Agirre:
Mailuakin nigana
oraintxe zuzendu,
zuloa handitzea
digu nabarmendu,
baina ideia hoiek
burutikan kendu,
zulo handitik honek
gehiago jaten du.

J. Martin:
Mailuak sortzen dizu
hainbeste ikara;
krask! hautsi egin behar det,
diru gutxi, hara;
baina konponbide bat
badut beharbada:
Lotite pixkatekin
osatuko zara.

GORKA TOLOSA USARRAGA

1976an jaioa Martindegi auzoan, Errezilen bizi da

Fisioterapia ikasketak egin zituen, eta lanbide ugari izan ditu: fisioterapeuta, udaltzain, bertso eskolako irakasle...

Bertso doinu bat plazaratu dut: "Oiartzun aldeko boza".

Etxetik bertsoaren berri banuen. Aitarekin bertsoak egiten nituen, jolas modura. Gure aitona oso bertsozalea zen eta Gabonetako afalostetan gure etxean bertsoak kantatzen ziren.

Langile ikastolan nenbilela, orduantxe sortu zen bertso eskola jartzeko asmoa, Juanjo Uriarekin. Gelaz gela galdetu zuten ea nork apuntatu nahi zuen eta baiezkoa eman nuen. Eta hortik hasi nintzen.

LANGILEKO BERTSO ESKOLA

10 urterekin hasi nintzen. Hasieran mordo bat ginen. Bat-batean taldetxo bat hasi ginen, Unai Agirre, Aitor Mendiluze eta ni. Gainerako jendeak, askok behintzat utzi egin zuen.

MARTINDEGI

Auzoko festetan bertsolarien aurretik pare bat bertso botatzen nituen. Teloilari lan hori egiten nuen. Oroitzapen on hori badut, saio koxkor bat egitea zen niretzat, bi hiru bertso botatzea.

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa	1990	Finalista (txikitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1987	Finalista (txikitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1988	Finalista (txikitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1990	Taldeka txapeldun Hernaniko taldean (txikitan)

IKASTOLAN OMENALDIA

Bertso eskolan hasi eta oso denbora gutxira parte hartu genuen lehen aldiz Eskolarteko Txapelketan. Gure bertso eskolatik bi aurkeztu ginen, Unai Agirre eta ni, eta biok finalera pasa ginen.

Unaik txapela irabazi zuen eta omenaldia egin ziguten ikastolan. Laubidietako gelen kanpoaldean, pasilloan, banku baten gainera igo arazi gintuzten biok eta ume mordo bat genuen guri begira. Uste dut bertsoren bat edo beste kantatu genuela. Unaik txapela zuen buruan eta nik hari emandako kopa. Baldako saioarena baino oroitzapen hobea daukat.

SARIKETAK

Lizardi saria	1990	Parte-hartzaile
Lizardi saria	1991	Parte-hartzaile
Lizardi saria	1993	Parte-hartzaile
Lizardi saria	1994	Parte-hartzaile
Lizardi saria	1997	Parte-hartzaile

ASTEARTETAKO BILERAK

Ikastolako bertso eskolan bat-batean ari ginenok Anatx genuen irakasle eta astearteko bileretara joateko gonbitea iritsi zitzaigun. Ederra zen, ume ginenontzako jende helduarekin kantatzeko aukera bat. Tourrerako ekipoan sartzea bezala. "Astearteko bertso eskolara noa" esaten genuen, beste konnotazio bat zeukan.

TXAPELKETAK

Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	parte hartzaile (Hernani-txisplau taldean)
Txapelketa Nagusiko Gipuzkoako sailkapena	2001	lehen fasea

Sariketaren batera edo bestera aurkeztu nintzen eta ez nuen horrelako arrakastarik eduki. Gipuzkoako Txapelketan behin parte hartu nuen eta gero denak utzi nituen. Txapelketarako behar diren konpetentzia puntua eta preparatzeko diziplinarik ez daukat eta mundu horrek ez dit barrua betetzen.

Gipuzkoako Txapelketan Sandiusterrin kantatu nuen. Egia esan, askoz hobeto egin nuela uste nuen eta askoz aurrerago ikusten nuen neure burua. Jaitsi eta sentitzen nuena esan nuen "ni nola ostia geratu naiz hain atzera? ez dut eta hain saio txarra egin!". Bertso eskolako lagunek erantzun zidaten "hi, hiru poto egin dituk, e!". "Orduan bale, hi, orduan azkena behar nian!".

BERTSOA UTZI

Garai bat izan nuen bertsoa erabat utzi nuena. 16 urtetik aurrera bizikletan ere hasi nintzen eta bertsoak ez ninduen batere asebetetzen. Bertso eskolatik deskonektatuta ibili nintzen. Barruak ez zidan deitzen. 18 urterekin Soriara ere joan nintzen ikastera, eta handik bueltan berriz hasi nintzen bertso eskolara inguratzen.

SORIATIK BUELTAN IRAKASLE

Lagun koadrila batekin berriro piztu zitzaidan bertsotarako gogoa baina beste ikuspegi batekin. Orduan hasi nintzen irakasle, eta 3-4 urtean aritu nintzen. Azken urtean irakasle gazteekin koordinatzaile lanean, erreleboa ematen.

PLAZAK

Lehenengo plaza Astigarragan egin nuen, kantu-lagun, besteren artean, Unai Agirre eta Aner Mertzero zituela.

Lehenengo plazak, gu txiki ginela, Juanjo Uriaren bidez egiten genituen. Egundokoa izaten zen, Elgetaraino ere joan ginen kantatzera. Kantatu eta dirua ematen ziguten, eta harrituta geratzen ginen. Deskubrimendua zen guretzat.

Umetan behin Oriora joan ginen, Estropalari auzora (Asier Gozategiren auzoa), eta Asier Gozategi bera aritu zen gai-jartzen eta momentuan asmatu zituen gaiak.

Saio mordo bat herrian egiten genuen. Marroi mordoa jan dugu, eta saio ederrak ere bai. Geroztik plazan gutxi aritu naiz. Neroni ez naiz sekula kontzienteki saio bila joan.

Oso oroitzapen ona daukat Tabernetako Txapelketa batekoa. Batez ere gustura aritu nintzelako bertsotan eta egon zen giro ederragatik.

GAI-JARTZAILE

Nolabait bertsoarekin harremanetan jarraitzeagatik hartu nuen gai-jartzailetza. Niri oholtza gustatu egiten zait eta jendaurrean hitz egitea ere bai, eta gai-jartzailetzak horretarako aukera ematen zuen. Probatu egin nahi nuen, nahiz eta aurrez banekien bere arriskuak zituela: konnotazio txarra izan du, saio txarra ateratzen bada gai-jartzailearen ardura da... Hasieran gustura ibili nintzen eta txapelketa batean ere aritu nintzen gai-jartzen, eta geroztik plaza gehiago egin nituen. Orain urtean hiru saio egiten ditut. Gustatzen zait noizean behin egitea, bertso eta bertsolariekin harremanetan jarraitzeagatik, eta gustatzen zaidalako bertso saioa oholtzatik bizitzea.

Gai-jartzen aritua naiz Martindegin, Hernanin, Goizuetan, Usurbilgo San Esteban auzoan, Larraulen, Errezilen...

ERREZILEN BIZI

Kultur talde bat daukagu, Atala, eta urtero egiten dugu bertsoarekin zerikusia duen ekitaldiren bat. Hor aritzen naiz antolatzen. Eta herrian bertso saioren bat edo afariren bat tokatzen bada, gai-jartzen ere egiten dut.

BERTSO JARRIAK

Behin animatu nintzen bertso paper lehiaketa batera aurkeztera. HIESA zeukan pertsonaren larrutik jarri nituen, orduan furi furian zegoen gaia. Niretzat sekulako arrakasta zen zortzi bertso egitea lortu izana. Denbora hartuta, urtebete edo ez dakit zer pasatu nuen. Ustez ez ziren hain txarrak. Aitor Mendiluze zegoen epaileen artean, eta esan zuen "ba, hori maila eskasa sariketa honetan! nigatik lehen saria eman gabe utziko nuke!". "Hi, ba nireak ere tartean dituk!" "A bai? ba han ez zegoen bertso onik, e!" bota zidan.

Gorka Tolosa eta Aitor Mendiluze Eskolarteko Txapelketan kantari. Atzean Unai Agirre eta Maialen Lujanbio.

2001eko Euskal Herriko Txapelketarako Gipuzkoako Sailkapena (martxoaren 24a, Hernani)

Hasierako agurra.

Oiartzun aldeko boza
da aurkari aproposa,
donostiar bat ere tartean
Bilintxek ze poza!
Iraola eta Osa
Aritzek taldea osa,
baina gregario lanetarako
ez dator Tolosa.

Hitza: Zorra

Gazteentzako bizimodua
gertatu ohi da gogorra,
aipa diteke langabezia
edo ta etxe alorra;
ez dut izan nahi nik modelo bat
edo ta aiton jatorra,
nahiz ta ilobek opari gisa
nahi duten haren altxorra,
nere ilobei herentzi gisa
utzi behar diet zorra.

MAIALEN LUJANBIO ZUGASTI

1976an jaioa Laubidietan

Arte ederretan lizentziaduna. Bertsolaria afizioz eta ofizioz. Letren bueltan bizi da. Bat-bateko bertsogintza landuz nagusiki, letra idatzietan ere bai tarteka, eta hitzetatik abiatutako bestelako sorkuntza saiakeratan murgilduta.

Ez daukat garbi esateko nola izan zen bertsoekiko lehen harremana, pauso zehatzetan. Gogoratzen naizena da gure bizilagun bat hasia zela bertso eskolan, eta nik uste bertsoa egiteko ahaleginetan lehenengo bera sumatu nuela. Oraindik baldar, asko ez zekiela. Hari sumatu nion jolas bat zela.

ESKOLAN ZIRIKAN

Momentu bertsuan, 11 bat urterekin, ikasgelan hiru lagun hasi ginen elkarri bertso moduko batzuk jartzen: Anjel Telleria, Iñaki Lete eta ni. Auskalo zer ziren, gutxi gora beherako bertso batzuk, elkarri zirikan. Egun batean batek idazten zion beste bati, eta gelaren aurrean kantatzen zuen, hurrengo egunerako beste hark erantzuna ekartzen zuen... horrelako jolas batean sartu ginen. Irakasleak zaletasun hori ikusita, ikastolako bertso eskolan sartzea proposatu zigun.

Astean behin ikastolan bazkaltzen hasi ginen, eta bertsotako lehenengo pausoak hantxe eman genituen, idatziz.

ETXEKO GIROA

Gure etxean ez zegoen bertso giro berezirik. Zaletasun hau azaleratu nuenean, orduan hasi ziren gurasoak niri bertsoaren berri ematen. Gure aitak Txirritaren bertsoak erakutsi zizkidan. Nik ikasitako lehenengotakoak haiek izan ziren. Ni bertsotan hasi izanak eragin zien almazenean zeukatena ateratzea.

URUMEA IKASTOLAKO BERTSO ESKOLA

Hasieran hirurok biltzen ginen, Anjel Telleria, Iñaki Lete eta ni. Beste lagun batzuk tarteka azaldu ziren baina gure edadeko nukleoa gu ginen. Gure lehenengo irakasle egin zuena Gregorio Olasagasti izan zen. Gregoriorekin oso hastapeneko bertsogintza landu genuen. Nik lehenengo irakasletzat Jon Eizmendi dut. Jonekin urte batzuk egin genituen, eta hura izan zen benetako murgiltzea.

Argazkia: Dani Blanco / Argia.

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Euskal Herriko Eskolarteko IV. Txapelketa	1992	Finalista (handitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa	1990	Txapeldun orde (txikitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa	1991	Finalista (handitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa	1994	Txapeldun orde (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1988	Finalista (txikitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1990	Taldeka txapeldun Hernaniko taldean (txikitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1991	Txapeldun (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1992	Txapeldun orde (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1993	Finalista (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1994	Txapeldun (handitan)

Lehen saioak ikastoletan egin genituen. Jende aurrerako saltoa emateko saioak ziren, bertsoak buruz ikasita eramaten genituen. Ikastolako jaialditan ere kantatzen genuen.

Eta benetako saltoa, bat-batean, Eskolarteko Txapelketan eman genuen. Lehen aldiz 11-12 urterekin atera nintzen. Hondarribian izan zen lehen saioa eta finalera pasa nintzen. Jokin Sorozabal zen aurkezten. 11-12 urte nituen baina oso kirolzalea nintzen. Niri eman zizkidaten lau oinak ziren: Cubino, Pino, Marino, animo. Badirudi jendea pixka bat izutu egin zela, juxtu neskato bakarra izan eta teorian ezagutu behar ez nituen oin horiek tokatu! Kuriosoa izan zen, ze jende artean grabagailu bat zegoen, Juanjo Uriak eskutan zeukana, eta haien komentarioak eta kezka ere entzunda dauzkat grabazio hartan. Baina ni oso enteratua nengoen kirol munduaz. Eta kantatu nuen:

Karreran lehenengua
zijuan Cubino,
harek lehen atzetikan
zedukala Pino
baina eroi in ziran
bera ta Marino
hala ta guztiz haiei
milaka animo!

Nire lehenengo bertsoa horixe izan zen.

Buelta Españako karreran horixe pasea zen. Hantxe, ziklismoko leziotxoa eman nuen.

SARIKETAK

Lizardi saria	1991	Finalista
Lizardi saria	1992	Txapeldun ordea eta bertso onenaren saria
Lizardi saria	1993	Txapeldun ordea
Osinalde saria	1992	Txapeldun eta bertso onenaren saria
Xenpelar saria	1990	Finalista
Xenpelar saria	1991	Finalista eta bertso onenaren saria
Hernaniko Txapelketa	1996	Finalista

AUTODIDAKTA

Urumea ikastolan bertso eskolara joaten nintzen, normal. Baina Hernaniko bertso eskolara pasatzeko pauso hori kosta egin zitzaidan. Jon Eizmendik zirikatzen gintuen joateko, baina bertigo pixka bat ematen zidan. Han hainbeste ezagutzen ez nuen jende bat zegoen, eta hara joanez gero oso ondo kantatu behar zen! Estutasuna pasatzen nuen eta ez nintzen askotan joaten. Joaten nintzenean ere konbertsazioa ahalik eta gehiena luzatzen saiatzen nintzen, astearte guztia hizketan pasatzeko. Halako autoexigentzia gehiegizko bat nuen, bertso eskolara joan eta kristoren bertsokera egin behar banu bezala. Gerora beste motibo batzuengatik ez naiz astearteko taldera joan izan: astebururo plazan nenbilen, eta joera gutxiago nuen bertso eskolara kantatzera joatekoa. Egin dudana nire kasa egin dut.

LEHENENGO PLAZA

Nire lehenengo plaza potolotzat daukadana 15 urterekin egin nuen eta markatuta geratu zitzaidan. Hondarribian izan zen, martxoak 8ren inguruan. Anjel Mari Peñagarikano, Andoni Egaña, Kristina Mardaras eta ni ginen. Horra joateko deitu zidateneko sentsazioa oso oso gordeta daukat: ez zela posible nik Egañarekin eta Peñarekin kantatzea! Nik zortziko handi bat egiteko kristoren lanak neuzkan! Nola kantatuko nuen bertsolari horiekin? Antolatzaileari esan nion ezetz, ni ez nengoela maila horretan eta beldurra ematen zidala. Grabatuta geratu zitzaidan antolatzaileak eman zidan erantzuna: "aizu, al toro por los cuernos!". Horrelaxe bota zidan, hor bazaude ba tira! Moztuta utzi nin-

Argazkia: Dani Blanco / Argia.

duen. Eta azkenean joan egin nintzen. Sentitzen nuen oso berde nengoela, bertsotan ez nekien kasi, zortziko handi bat egiteko kristoren maniobra egin behar eta Egaña eta Peñarekin kantari. Ez zen naturala. Hondarribiko saio hori ongi atera zen, Hitzetik Hortzera telebista programan eman zuten eta hortik hasi zen nire ibilia.

ZURRUNBILOA

Saiatzen nintzen plaza handi horiek saihesten, edo behintzat ez asko joaten. Kontziente nintzen hori ez zela nire lekua eta nire maila. Beldurtu xamar nengoen, ez nuen zurrunbilo batean sartu nahi: 15-16 urterekin derrepente herriz herri ibiltzea, saioak eginez gauetan, oso jende helduarekin, eta bertsotan maila juxtu juxtu emanaz (behintzat nire pertzepzioz, gero kanpotik igual korrekto aterako zen, baina nik sufritu egiten nuen oraindik bertso bat egiteko)... Kontuz ibili nintzen hor gehiegi ez sartzeko. Nahiko garai zaila izan zen, ez nuen nahi eskutik aldegitea eta neurriz kanpoko zerbait bihurtzea.

Horri buelta emateko klabea taldea izan zen, bai Euskal Herri mailan sortu zen gazte belaunaldia eta baita Hernaniko bertso eskolako lagun koadrila ere.

2011n Legazpiko saioan.
Iturria: http://legazpi.hitza.info.

PLAZAZ PLAZA

Lehenengo fase delikatu hori pasa ondoren, gazte talde horrekin plazan benetan murgildu nintzen. Aldi berean nenbilen ikasten eta bertsotan, baina atentzioa gehiago nuen bertsotan jarria. Bertsotan eta plazan ikasten eta bertsolari egiten ari nintzen.

Oso rol jakina konplitu nuen urte askoan, 2001 arte edo. Neskaren papela jokatzea tokatzen zitzaidan, nahiko rol gogorra egiten nuen, erantzulea, lotsagabea... gazteen artean erosoago aritzen nintzen, malguago eta errealagoa zen dena, baina bertsolari helduekin saioan nengoenean eta gazte edo neska bakarra nintzenean, bisualki ere kontraste bat sortzen zen, oso paper jakin bat jokatzera eraman ninduena. Lekua egiten eta nire burua aurkitzen ari nintzen, eta bertsotan ere ikasten, testuinguru horretan ttarraka ttarraka hazten. Bada bertsotan fase bat mundu guztiak pasatzen duena, bertsoarekin enamoramendua bizi duguna. Ni orduan oso apasionatuta nengoen bertsoarekin. Saioa non hara joan, bertsoak ikasi, entzun, grabatu... Momentu hori gaztaro edo hasiera hartan izan zen. Oso polita da, flipatu egiten duzu baten bukaerarekin, bestearen bertsoarekin...

Behin, bertsotan aritzekoak lau ginen, Igor Elortza eta Unai Iturriaga ziren tartean, eta gogoratzen naiz saioaren aurretik Unaik nola esan zuen esplizituki: "Andoni eta Sebastian ez daude, asike ardura guk hartu behar dugu". Ordura arte Andoni eta Sebastian gabeko saio bat kasi pentsaezina zen, eta ez zen beharrezko guk ardura hartzea. Beste pauso bat izan zen eta pixkanaka gure belaunaldiari, edadez ere tokatu zaio karroari tiratzea, saiotan erreferente nagusiak izatea.

Behin, Ergoien auzoan puntua jarri nion Maialeni. Orduan ere Roldan eta abarrekin korrupzioa furi-furian zegoen:

Egunez ikusi ta
gauean eraman...

hori ez da egiten
bakarrik Zegaman

(hortik aurrera ez dakit, ez zait batere interesatzen). [**Iñaki Aranzadi**]

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Txapelketa	1995	Final-aurreak
Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Lehen kanporaketa. (Hernani-Txisplau taldean)
Gipuzkoako Txapelketa	2003	Txapelduna
Txapelketa Nagusia	1997	Finalista
Txapelketa Nagusia	2001	Txapeldun ordea
Txapelketa Nagusia	2005	Finalista
Txapelketa Nagusia	2009	Txapelduna
Txapelketa Nagusia	2013	Txapeldun ordea

2001EKO TXAPELKETA: BERTSOKERAN BIRAKETA PUNTUA

Erabat izan zen kontzientea, maniobra oso pentsatua egin nuen. Nire barrenean kabitu ezinaren ondorioz etorri zen. Beti rol jakin bat eta beti paper bertsuak interpretatzen ibiltzeaz nekatuta nengoen. 15 urtetatik 20 urtera bizitza ere aldatzen da. Esperientzia asko gertatzen zaizkizun momentua da eta pertsona bezala ere hazten ari zara. Ni ez nintzen 15 urterekin nintzena, baina bertsotan rol bera jokatzen ari nintzen, artistikoki ere ildo beretik jarraitzen nuen... nire bertsokera eta nire izateko modua elkarrengandik gero eta urrunago baleude bezala nabaritzen nuen.

Kasik ez zidaten bakarkako gairik jartzen. Bazirudien ez neukala gauza handirik esateko edo ez zela nire fuertea. Hori ere "aldarrikatu" nahi nuen. Azaldu nahi nuen nire alde sentiberagoa. Nire niaren alde pila bat ez ziren oraindik azaldu bertsotan. Pixkanaka nire ahalegina horiek ateratzen joatea izan zen, hasieran tonu lotsagabe eta umorezkoa baldin baneukan, gerora bestelako tonu batzuei ere toki egitea.

Prozesu oso kontzientea zen. Horren esponente nagusia 2001eko Txapelketa Nagusia izan zen. Eskaparate bezala erabili nuen, hainbeste jende eta espektatiba dagoen tokian zure karta berriak erakusten badituzu eta zure printzipioen deklarazio bat egiten baduzu, hori da plazarik ederrena, proposamen berri hori mundu guztiak azkarren ikusiko duena.

Orain arteko ibilian 2001eko Txapelketa mugarri nagusietakoa da. Prozesu guzti horren plazaratzea izan zelako eta nire ibilbide artistikoan maila aldaketa bat izan zelako. Kristoren oihartzuna izan du nigan, eta hango sentsazioak berdintzea oso zaila da, grabatuta geratu zait.

Maialen Lujanbio Zugasti 2009ko Euskal Herriko Txapela buruan (ikus agurra 671. orrian).

2003KO GIPUZKOAKO TXAPELA

Oso lasai nengoen, disfrutatu egin nuen kantatzerakoan... 2001ean intuitu zen posible zela ni egun batean txapeldun izatea. 2003n esperagarria zen. Sorpresa emana zegoen. Txapela lortzea oso pozgarria izan zen, baina niretzat ez zen 2001eko txapelketa bezain garrantzitsua izan. Ez da marka bat nire bidean.

Maialen Lujanbio, txapeldunaren agurra:
Txirrita ez baina orain niretzat
kolpeak ta igurtziak
hainbat jasoko ez dituztenei
muxuak ta goraintziak.
Muxuak bertso eskolakoei
Juanjo Urian bitxiak
honen zati bat ere badute
lagun minek ta etxiak.
Baina behin behar ta omendu behar
gaur emakume guziak
ta bereziki zernahi bidetan
abitu ziren gutxiak
gizarte honek euren ametsen
erdibidean utziak.

2005EKO TXAPELKETA NAGUSIA

BEC guztian gaizki pasa zuen pertsona bakarra ni izango nintzen. Nire kontua izan zen, presioa, eta neronek bakarrik eraikitako sentsazio bat.

Arazoa zen ez nuela lehengoa egin nahi (2001ean egindakoa). Nire buruari jarri nion baldintza, lehen erabilitako doinuak ez nituela erabiliko, eta lehen erabilitako estrategia edo estilo hura, istorioa kontatzekoa, ez nuela erabiliko. Gogor jarri nintzen hor. Ez nintzela ongi ateratzen zitzaizkidan egiteko moduei tiraka ibiliko. Ukatu egin nion hori nire buruari, zail jarri nion. Banekien lehen egindakoa ez nuela errepikatu nahi, baina ez nekien zer egin nahi nuen. Horra nire segurtasun falta denen laburpena. Bilaketa bat izan zen dena. Atera nuen doinu berria ere bai. Baina ez zen atera edo ez nuen asmatu ongi eramaten.

2009KO NAGUSIAN TXAPELDUN

Nire bidean 2009koa ez zen iraultza bat izan. Ardura sentimendua aurretik zetorren zerbait zen. Lorpen hori momentuan gozatu nuen. Gero ez da izan lau urteko estasia. Oso lasai ibili naiz. Nire belaunaldiarekin oso konpartituta bizi izan dut. Nik hala bizi izan dut, ez naiz sentitu figura nabarmendu bat. Gaur egunera arte iritsi banaiz bertsolaritzan, taldeagatik izan da, neurri handi batean. Horrela eraman dut lau urteotan txapela.

[**Argia**, 2.394. alea 2013-12-08]

SORMEN LANAK

Proposamenak kanpotik etorri izan zaizkit. Niretzat garrantzitsuena urtebetez Berriako zutabegile egindako lana izan zen. Egunero idatzi nuen. Oso ariketa interesgarria izan zen gauzei buruz pentsatzeko, enfokeak lantzeko, hizkuntza, erreferentziak, baliabideak... Geroztik egin ditut lan "literarioak" enkarguz, kantuetako letrak...

ORNITORRINKUS

2005eko txapelketak ez zuen dena txarra izan. Neke horrek eta kabitu ezin horrek "beste zerbaiten" bila eraman ninduen. Beti kanpotik etorritako proposamenei erantzunez aritu ondoren, neronek proposatzeko garaia zela sentitzen nuen. Judith Montero saxo jolearekin batera, bestelako esateko modu eta eduki batzuen bilaketa abiatu genuen, eta bilaketa horretan, Xabier Erkiziarekin batera hirurok "Ornitorrinkus" proiektua gau-

ERTZ#11 festivalean, Beran Alessandro Bosettirekin eskainitako saio berezian.
Argazkia: Asier Gogortza.
Iturria: http://www.flickr.com.

ERTZ#11 festival ean, Donostiako Artelekun eskainitako saio berezian.
Argazkia: Asier Gogortza.
Iturria: http://www.flickr.com.

zatu. Musika esperimentala eta hitzak nahasiz, ahotsak eta soinuak erabiliz, deseraikiz, frogatuz, geure esateko modu bat aurkitzen saiatu ginen. Ornitorrinkoa izan zen lan haren sinbolo eta metafora: sailkatzen asmatu ezin izan zuten animalia.

Lan oso garrantzitsua izan zen niretzat. Bertsoetatik aparteko eremuetan ibili nintzen, deserosoak zitzaizkidan lurraldeetara behartu nuen neure burua. Eta askotan zail gertatzen zitzaidan arren, gerora oso emankorra gertatzen zen bide haiek ibiltzea.

"Ornitorrinkusen" haritik etorri dira gerora proiektu desberdin gehiago. Bertsoa eta hitz idatzia abiapuntu izan dutenak denak, baina ez bertsoa bere forma arruntean emana. "Txori Mugariak" (2011ean) eta "Hegi, egia, egiak" (2013ko udan) dira horietako bi lan, Xabier Erkiziarekin egin eta irrati performance deitzen ditugunak. Zuzeneko irratsaio-kontzertu-irakurtaldi-kantaldi gisakoak dira. Oso aberasgarriak eta aukerakoak letren jira-bueltan askeago lan egiteko.

Sormen lan gehiago ere egin izan ditut: Jon Maia eta Igelaren bandarekin bertso musikatuak, Bertso jazza, Artelekun, Bertsolari filma...

2010-06-13 Ereñozu jaialdia

Hilabete pasatxo da Hernanin zabor-bilketa sistema berria, atez atekoa, jarri zutela. Zer moduz moldatu zara?

Lehen prentsan ta behebarrutan
ze kritika ze atake!
Askok etsirik ez zun hartu nahi
dena geldiarazi arte
baina azkenean ta zorionez
hasi ginen atez ate
baretu eta normaldu gera
gaur ze patxara ze pake!
Askoren esku-keinutxo batek
herri bat alda dezake.

Orain zaborra pilatzen dugu
guk ere zuen modura
bi kubo marroi badauzkagu ta
organikoak barrura
ta plastikoak ta errefusak
nahiz batzutan egin duda
indartsu eta pozik hasi dut
berria den abentura
lana txikia dulako eta
haundia berriz onura.

Denentzat ez zen atsegin izan
ez zen hain ona harrera
segurtasuna galtzea baitzen
abitutako karrera
ez zitekeen beti bezela
dena bota kontainerrera
ohitura aldatze horrek beldurra
eman zigun baina keba!
Bideak gauza ederrak dauzka
ausartzen baldin bagera.

Maialen Lujanbiok ere badarama urte dezente San Antonioko bertso jaialdi honetara etorriz, eta urtero ohitura du San Antoniori bisitatxo bat egitekoa eta kandelak piztekoa. Aurten ere horixe egin du, baina San Antoniok, Jon Maiak, kezka dezente badu; urtero datorkio eta ez du aurrerapen handirik ikusten. Gaur galdezka hasi zaio.

J. Maia:
Beti etortzen zera
aurpegi tristea
aurten ere etortzea
ez da albistea
ezin al dezu bete
urteko eskea?
Edo bizio bat al da
kandela piztea?

M. Lujanbio:
Urtero etorri naiz
zugana gaur arte
bihotzeko kontuek
galduta naukate
ez pentsatu ligatzen
ez dedanik bat'e
baino kandelak aina
irauten didate.

J. Maia:
Hori zure errua
izango da noski
ligea izan dezu
lau, bost, sei zein zazpi
kandelak'e trukoak
batzuk badakizki
jarri afari goxo bat
kandela ta guzti.

M. Lujanbio:
Kandeladun afaia
ze-nolako plana!
Baino santuarekin
daukat nik afana
tranpa ote litzake
Antonio laztana
kandela bat jartzea
itzaltze ez dana?

J. Maia:
Nola galdetu dezun
hain modu eztian
ez dizut erantzungo
era garestian:
ligatu nahi badezu
zuk gaba guztian
jarri zaitez kalean
farola azpian.

M. Lujanbio:
Hainbeste estrategi
truko eta mezu
inoiz exitorik ez
ta ni beti kexu.
Begira nengoela
gaizki ez zaude zu
azkenean zeorrek
jaitsi beharko dezu!

J. Maia:
Baina zure besotaz
ez naiz asko fio
zuk hala nahi badezu
ze erremedio!
Ni jaisteak agian
ez dizu balio
ni jaitsi ta bestia
ezin bada i(g)o.

M. Lujanbio:
San Antonio ere
amante epela
nik ez det bilatuko
lagunik ez bela!
Esaten da bertsotan
txukuna naizela
baina hortan ez nuke nahi
Txirrita bezela.

J. Maia:
Txirrita ez zan heldu
hortan urrutira
ta beste Lujanbiok
ondoren segida
adio Madalena
amante, querida!
Jarraitu sin pecado
baina concebida.

M. Lujanbio:
Hain zuzen ere negon
horretxen desiran
baina ez det kunplitzen
zure jira-biran.
Konpetentzira noa
abailan, segidan
eta ia San Joanek
ze ematen didan!

2003-10-18, Hernani

Andoni Egaña-Maialen Lujanbio. Gaur egunean hainbat aldizkari eta egunkaritan bertsolariak agertzen dira sekulako pila. Gaur egun badirudi bertsolariak intelektualak direla.

A. Egaña:
Bertsolariak intelektualtzat
nolako disparatea!
Izan liteke euskaldunaren
osasunaren kaltea.
Bertsolaria beti izan da
moxkortxio, paketea.
Gaur egunean egunkarien
zutabe pila betea
ta gure lanak izan behar luke
grafitiak egitea.

M. Lujanbio:
Bueno Andoni ez dakit dedan
hainbeste merezimendu.
Eskertzen dizut baldin badezu
zure lorea mantendu.
Zirika nahia, pentsaraztea
nere idatzien zimendu
baina egunero idazten dunak
nahiz ez meriturik kendu
alperrik gauza asko esateko
arriskua izaten du.

M. Lujanbio:
Hainbeste ikusi zutabeetan
eta nola ez aztora!
Nik ez dakit dan interesgarri
edo azkenaldiko moda.
Bertsotara're deus jakin gabe
joaten gera edonora
ta azken finean antzekoa da
idaztearen aproba:
hutsetik sortzen dakigulako
horregatik izango da.

A. Egaña:
Baina hala're izaten ditut
hura irakurtzeko grinak
artikuloak izaten dira
goxo eta atseginak.
Asko ez dira asko esanda
sekula ez huts eginak
zuri bentaja egiten dizu
han goi parteko izkinak
txarra nolatan ezabatzen dun
kafesnean zipriztinak.

A. Egaña:
Bertsolariak zer pintatzen du?
Hori da nere galdera.
Igual tokia ematen zaio
ospearen arabera.
Hala're mailak neurtzen jarrita
homologableak gera.
Hortikan gora batzuk badaude
ejenplutzat, hara, bera:
Berrian beti jotzen dut zuzen
bosgarren orrialdera.

M. Lujanbio:
Zipriztinekin disimulatzen
bada askoz ere nahio.
Egunkarian eta bertsotan
gabiltz kontuen karraio.
Gaur adibidez eingo ditugu
hemen bi ordu ta gehio
eta gustora joango gera
egia da ze arraio!
Zuetan bati bertso txiki bat
geratzen baldin bazaio.

A. Egaña:
Egia da bai bertsolariek
badute bere nibela
denetarako, edonoiztako
erabiliak horrela.
Zoritxarrean izan liteke
muturrik ez dun kordela.
Aizu Maialen sentitu izan dut
pentsatzen ari naizela
bertsolariak gera gu baino
pakean utz gaitzatela!

M. Lujanbio:
Baina pakean utzi gaitzaten
guk behar dugu lagundu
guk behar dugu bistatik ihes
ez gure hitzak txukundu.
Bazter guzitan hortxe gabiltza
plazaz plaza, munduz mundu
bertsolari bat ikusi gabe
ezin pasa bi segundu.
Bazter guztitan ageri danak
ze sinesgarritasun du.

A. Egaña:
Bertsolariak han eta hemen
bertsoakin ez da giro!
Bertsolariak han eta hemen
bertsolariak berriro.
Bertsolariak hitzez pun eta
bertsolaiek lumaz tiro.
Nahiz Audientzia Nazionalik
ez genukeen behar igo
akaso igual izango gara
"juglares sabelotodo".

M. Lujanbio:
Leheno bertsotan gai izaten zan
mailua, atxurra, pala
akaso behia ernai zegola
gaizki zetorrela txahala...
Leheno bertsotan dena izaten da
etxe-giro gai apala.
Ta derrepente bat sortu gendun
bertsolai intelektuala
ta oain uste dute bere ondorengo
guztiak hala gerala.

A. Egaña:
Batek bidea ireki eta
besteak atzetik pozik
pentsamentuan ez da izaten
hain artalde aproposik.
Bertsolari ta intelektuala
ondo esan dezu kasik
badauka horren itxura eta
ez du falta horren trazik
halare kulpa ez da nerea
Amurizarena baizik.

ARITZ ZERAIN MINER

1973an Ereñozun jaioa

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko koordinatzailea, 2008tik. Hernaniko Kronikako langile izana, sorrerako urteetan.

ZALETU

Aita oso bertsozalea zen. Bertso askorik ez nion entzun, baina bertso kontuak bai. Ereñozu beti izan da oso auzo bertsozalea, bertso saioak ere dezente izaten dira eta hortik zaletu nintzen.

Hasi nire kasa hasi nintzen. Eskolara Juanjo Uria eta Joxe Mari Mujika "Anatx" etorri izan ziren klaseak ematera eta haiekin puntu erantzunak eta egiten genituen.

Koadrilan ere parrandetan bertsotan aritzen ginen, gure kasa, gozatuz.

Oraindik faltan nabari dut oinarri tekniko hori, sekula ez dut landu izan, beti gure kasa ibili izan gara. Ez genekien egiturak nola ziren, ez doinuak, zortziko handi eta txikia ez genituen bereizten...

HERNANIKO TABERNETAKO TXAPELKETA

1998an, adinean nahiko aurreratuta, 24 urterekin edo eman zidaten bertan kantatzeko aukera. Nik ordura artean ez nuen pentsatzen inoiz jendaurrean aterako nintzenik. Bat falta zutela eta azken momentuko abisua izan zen. Hor topatu nuen ordura arte bertsotan bilatzen nuena, festa giroa, taberna giroa, lagun giroa... plaza berezia da, lehenengo aldiz kantatu behar duen edozeinentzat, eroso sentitzeko modukoa. Hura irabazi nuen, eta handik etorri zitzaizkidan gero Osinalden kantatzeko deia, bertso eskolan hastekoa... hortik hasi nintzen. Tabernetako Txapelketaren 10. urteurrenean ere parte hartu nuen, eta irabazi.

HERNANIKO BERTSO ESKOLARA

Tabernetako txapelketan egindako lehenengo saio haren bueltan, Estitxu eta Itziar Eizagirre bixkiak izan ziren ni eta lehengusua Ibon gehien animatu gintuztenak "bertso eskolara joateko eta joateko eta joateko". Ordura arte sekula ez genuen izan bertsoa serio hartzeko asmorik eta "animatuko gaituk" esan eta elkarren anparoan bertso eskolako afari batera joan ginen. Handik bertso eskolan hasi ginen eta gero eta gusturago aritzen ginen bertsotan. Orduan hasi ginen serioxeago ikasten, beti ere bertso eskolak duen "seriotasun"aren barruan.

Oroitzapena daukat dena oso azkar gertatu zela, asimilatzen ere pixka bat kosta egin zitzaidala.

SARIKETAK

Axari saria	1999	Parte-hartzaile
Orixe saria	2003	Finalista
Osinalde saria	1998	Finalista
Osinalde saria	1999	Parte-hartzaile

TXAPELKETAK

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2007	Lehen fasea
Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Lehen kanporaketa (Hernani-Txisplau taldean)
Txapelketa Nagusia	2003	Azken-laurdenak (Elorrio)

TXAPELKETAK

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa (1999) etorri zen: oso giro ona sortu zen, Hernanin hiru talde atera genituen eta berehalako emaitzak oso onak izan ez baziren ere, luzera begira oso emaitza onak eman zituen. Hor beste maila bat hartu genuen.

2001ean etorri zen Euskal Herriko Txapelketarako sailkapen fasea. Dinamika horretan sartuta nengoen, eta pixkanaka aurrera egin nuen eta sailkatu egin nintzen Euskal Herriko Txapelketarako. Txapelketa Nagusiko oroitzapena nire bizitzako onenetako da. Nahiz eta aurrera ez pasa saio harekin oso gustura geratu nintzen, Igorren. Txapelketa haren bueltan bertso eskolan entrenatzen ibili genuen giroa ederra izan zen.

Hurrengo txapelketetan atera izan naiz eta ez dut lortu orduan egin nuena egiterik. Geroztik ez dut hain oroimen onik txapelketan. Emaitzaren arabera neurtzen dira, eta geroztik ez zaizkit gauzak hain ondo atera.

Zurrunbilo batean bezala sartu nintzen bertsotan, azkar gertatu zitzaizkidan gauza asko, eta gero pixkanaka pixkanaka bere onera etorri ziren. Pentsa, jendaurrean lehenengo aldiz kantatu eta hiru urtera Euskal Herrikoan kantatzea tokatu zitzaidan. Ezohiko bidea da, 24 urterekin lehen saioa egitea.

Tabernateko, txapelketan. Txapelduna.

PLAZATAN

Berritasun horretan saio batzuek egin nituen, inguruan. Ereñozuko festetan egindako bat gogoan daukat, auzoan bertan eta festetako jaialdian kantatzea gauza handia da. Aranoko jaialdi bat ere gogoan daukat. Bolada bat eduki nuen, irrikarekin, plazarako gogoz... baina pixkanaka itzaltzen joan zen gogo hori. Orain bertsoarekin gozatzen dut baina niretzat aritzen naiz, jendaurrean kantatzeko gogo berezirik ez daukat. Garai batean mikrofono gosea eduki nuen eta geroztik ez dakit ase egin nintzen, baina orain ez daukat goserik. Bertsotan disfrutatzeko eta lagunarterako bai baina plazako garaiak pasa zirela uste dut.

GAI-JARTZEN

Auzoko jaialditan normalean gai-jartzen izaten naiz, eta Hernaniko jaialdian ere jarri izan ditut. Gustatzen zaidan lana da. Mikrofono gosea horrek ere kentzen du.

BERTSOZALE ELKARTEAN

Elkarteko lanak asko baldintzatzen du bertsotako ibilera. Ase ere bai, batzuek taula gainetik egiten dute ekarpena eta beste batzuek atzeko lanetik. Denak dira beharrezkoak. Bertsozale Elkartekoa ez da lan soila, badu borondatezko partea, eta horrek dezente asetzen nau.

Egia da burokrazi lanak ez dizula bertsolaritza behar beste gozatzen uzten. Kargu hori dudan bitartean ez dut uste txapelketan aterako naizenik, edo tokatzen zaidanik. Txapelketa giroa asko gustatzen zait eta inbidi puntu hori beti edukiko dut.

BERTSOAK EMAN DIDANA

Tabernetako Txapelketa hartan kantatu ez banu nire bizitza bera ere seguru asko oso diferentea izango zen. Orduan kantatu eta bertso eskolan hasi nintzen. Bertso eskolan Jexux Mari Irazu eta Unai Agirre ezagutu nituen. Horiekin Hernaniko Kronika proiektua atera genuen aurrera, eta hor nengoelako deitu zidaten Bertsozale Elkartetik... Tabernetako Txapelketan atera edo ez, erabaki horrek nire bizitza bide batetik eraman du. Hori bertsolaritzak eman dit.

Ez naiz sekula jendaurrekoa izan, nire burua ez nuen inoiz imajinatuko jendaurrean hizketan, eta bertsotan aritzeak hori ere ematen dizu, erraztasuna edo ez dakit lotsagabekeria den. Asko eman dit bertsolaritzak.

2001eko Euskal Herriko Txapelketarako Gipuzkoako Sailkapena (apirilaren 21a, Urnieta)

Aritz Zerain eta Iñaki Zelaia. Zu, Iñaki, hirugarren aldiz zoaz diru eske Aritz esponsorrarengana, Everesteko espedizioa dela-eta. Aurreko bietan ez duzu gailurra zapaldu.

I. Zelaia:
Bi alditan igotzen
saiatua lehen,
baina ez nuen izan
nik nahi aina kemen;
ta hirugarren aldiz
ni neu nago hemen
ta neuk egiten dizut
propaganda gehien.

A. Zerain:
Eskean zatoz berriz
aldarte onian
ta ni berriro nago
ezezko planian;
propaganda egiten
zure esanian,
baina zertarako det
txarretik denian.

I. Zelaia:
Zu entzutiak orain
ematen dit pena,
oraindikan hanketan
badaukat kemena;
inork uste ez dula
igoko naizena,
ta txarrena bihurtu
daiteke onena.

A. Zerain:
Mendizalea zera
baina ez jatorra,
Everesta badakit
hain dala gogorra;
igo nahi dezu eta
badezu hor zorra,
Iberia har zazu
Iñaki esponsorra.

I. Zelaia:
Iberiakin ezin
juan urrutira,
aspaldi jarri nintzen
beraiei begira,
baina ni igoko naiz
Everest mendira,
buru gogorrak beti
igotzen baitira. (bis)

A. Zerain:
Buru gogorra zera
eta astakirten,
horregatikan berriz
nahi zenduke irten;
baina zure ametsak
nahi ditut nik eten,
buru gogorra naiz ta
nik ez det ematen.

IBON MINER SANTAKRUZ

1974an Ereñozun jaioa

Aitona eta ama zaleak dira, Hitzetik Hortzeraren garaiak gu ume ginela harrapatu gintuen eta igandetan sakratua zen hori aditzea...

Ikasitako aurreneko bertsoak, Anastasio zenak, gure bizilagun batek erakutsita nekizkien: "haiziak bidali du"... Anastasio aranoarra zen, Oskar bere bilobarekin harengana joaten nintzen eta hark askotan bertsoak kantatzen zizkigun.

EREÑOZUKO ESKOLAN

Berak ezetz esaten du, baina nik uste Juanjo Uria etorri zela lehenengo, hitzaldiren bat ematera edo, eta gero hasi zen Joxe Mari Mujika "Anatx" Ereñozuko eskolan bertsolaritza erakusten. 12 bat urte genituen, 6.-7. mailan genbiltzan. Puntuka jartzen gintuen, ariketak eginarazten zizkigun... Bertso sail bat idatzi eta beste eskoletara joaten ginen haiek kantatzera.

KOADRILAN

Anatxekin ikasi, eta hurrena koadrilan parrandan hasi ginen bertsotan.

Parrandetan ohitura handia genuen gure koadrilan bertsotan aritzekoa. Ni isilenetakoa nintzen, errazkerian botatzea ez zitzaidan gustatzen eta gehiago kostatzen zitzaidan. Koadrilan denak aritzen ginen, gehiago edo gutxiago. Mikel Iturbe, Jon Beasain, Jon Ansa...

Eta Aritz Zerain lehengusuarekin asko aritzen nintzen. Futbolera jokatzera joaten ginen eta bueltakoan "bertso bidea" deitzen geniona hartzen genuen propio, sagardotegitako bidetik; kotxez mantso mantso etortzen ginen, elkarrekin bertsotan aritzeagatik.

Institutuan ere bai, atzerago jarri eta bertsoak idazten genizkion elkarri... Batez ere Aritzekin zaletu naiz.

HERNANIRAKO PAUSOA

Aritzen bidez etorri zen. Aritzi kasu egin zioten Hernaniko Tabernetako Txapelketan kantatzeko eta irabazi egin zuen. Eta Hernaniko bertso eskolatik hasi ziren Aritz animatzen, hara joateko. Horren aurretik bazkari bat egin genuen auzoan, bertso eskolako dezenterekin ere gure koadrilakoekin. Mikel Iturbe hasi zen gaia jartzen eta kantatu arazi egin zidan, gogoratzen naiz Jon Iraolarekin aritu nintzela. Hernaniko bertso eskolara joateko eta joateko esan zidaten, eta Aritzek ere animatuta, horrela hasi nintzen.

Gaimur bazterreko lokal hartara joan nintzen. Bakarne Urreagarekin kantatu nuen aurreneko, gaia jarri zidaten... eta handik aurrera astero joaten hasi nintzen. Ibilian ibilian errazago egiten duzu bertsotan, gainera ikusita Aitor Mendiluze edo Jexux Mari Irazuk, hasieran errespetua ematen dutenak, zein eskuzabal hartzen zaituzten, konfiantza hartu eta lasaitu egiten zara, eta gustura joan. Bertso eskolako koadrilan sartu eta zaletu egin nintzen.

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2003	Lehen fasea
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2007	Lehen fasea
Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Parte hartzaile (Hernani-Ereñozu taldea)

1999ko Bat-bateko lehen saioa Herriartekoa izan zen.

Bakarka animatuko ez nintzena, taldean parte hartzera animatu ninduten. Ereñozuko taldean nintzen, eta Ereñozun saioa izango zenez, kantatzea tokatzen zitzaidan. Ia egunero bildu ginen bertsotarako, sekulako esperientzia izan zen niretzat. Asko lagundu zidan erraztasuna hartzen, eta oso oroimen ona daukat: taldean bildu, elkar animatu, txapelketako emozio eta kantatu behar horrekin beldurraz gain erronka sentitu... bertsotan jendaurrean kantatzea gauza handia zen eta gainera sozidadean, etxe aurrean egitea... inoiz ez nuen kantatu etxekoen aurrean, eta lagunen artean ere serio eta gaiekin ez... oso tentsio polita izan zen.

Nik parte hartu dudan txapelketetan lehen fasean kanporatu izan naiz baina gustura geratu naiz egindakoarekin. Momentuan amorrazioa ematen dizu, baina sentsazio onarekin gogoratzen ditut, asko aportatzen du txapelketak.

2007ko Gipuzkoako Txapelketan, semea jaiotzear zen eta burua giro horretatik kanpo neukan. Txapelketa hartan izena eman ez banu, bertsotarako biltzeari uzteko arriskua neukan. Horregatik eman nuen izena eta behar bezala prestatu gabe atera nintzen eta gero hori nabaritu egiten da. Txapelketak beste errespetu bat behar du, buruak eman lezakeena ematen saiatu behar da behintzat, ez erdizka joan.

PLAZAN

Ereñozuko festetan aukera eman izan didate baina ez naiz kantatzera ausartu, izen potoloen ondoan... arantza hori badaukat baina errespetu handia ematen dit plaza honek. Ugaldetxoko festetan kantatu dut, Portuko festetan, Hernanin, Ur-Mia elkartean...

2004ko Bertso -Latako jaialdian.



2001eko Euskal Herriko Txapelketarako Gipuzkoako Sailkapena (martxoaren 23a Pasaia)

Kartzelako gaia: Zahar-etxe bateko langilea zara. Egunean zehar, hainbat aiton-amona ikusten dituzu egoera desberdinetan. Oharkabean, zeure zahartzaroa imajinatzen hasi zara.

Bi makulu edo sila batean
zahar hauek ikustean,
"Hi ere zahartzen ari haiz motel"
pentsatu det bapatean.
Nik ez nuke ez hola zahartu nahi
pentsatu ohi det kaltean,
zahartzaroa prestatuko det
orain tartean-tartean,
andre gazte bat lagun hartuta
Kubako irla batean.

Egun guztian zainduko nauen
prestatzaile fisikoa,
ondo jan eta ondo edanez
eman bizitza bapoa.
Poltsikoa ere betea daukat
hori izan leike kakoa,
egoistatzat ez dut burua
ez dut izan nahi gaiztoa;
ehun bat urtetan bizitzeakin
izan dezaket nahikoa.

Zortzi orduak beteak dittut
eguneroko antzera,
orain banoa aiton gaixoei
oheraino laguntzera.
Kubako dena ez zen egia,
onartutzen det, bai zera!
Belarrik makur, triste antzean
joan beharko det etxera
esnaturikan egina dudan
ametsetik esnatzera.

Zuk, Ibon Miner, gaur jantzi dituzu eskiak lehenengo aldiz. Itzala bezala beti hor izan duzu Amaia Agirre, zure monitorea. Egun osoan lurretik ezin altxa ibili zara.

I. Miner:
Makilak hartu eta
joan eskiatzera,
ta zu ibili zera
itzalan antzera.
Gutxi zutitu eta
gehienean behera,
zuk izan behar zendun
nere enfermera.

A. Agirre:
Enfermera kontuak
ahaztu itzazu,
zure itzal leiala
bihurtu naiz, aizu.
Lurretik altxatzeko
ere zenbat pisu!
Lehenengo erantzun:
oinez ba al dakizu?

I. Miner:
Diote monitora
onena zerana,
ez dezu alperrikan
hainbesteko fama.
Gaur lurretik altxatzen
ia egun dana;
gutxitan egin dezu
hainbesteko lana.

A. Agirre:
Zuri lagunduz nabil
hain era eztian,
hoztu egingo zera
horren lur bustian.
Lurrean zabiltzanez
denbora guztian,
hartzazu plastiko bat
ipurdi azpian.

I. Miner:
Zertako plastikua
zertako papera?
aprobetxatu nahi dut
hartako aukera.
Bapo jostatuko naiz
hartzen det tankera
telesillan ibiliz
gora eta behera.

A. Agirre:
Bi hanketan lehenengo,
lau hanketan gero,
halare ikasi nahian
zabiltz bero-bero.
Telesillana ona
denik ez espero
kola sortuko dezu
erori ezkero.

IKER ALUSTIZA LASA

1974an Donostiako Antiguan jaioa

Bidaniko aitona zalea zen, eta zaletasuna hortik datorkidala sentitzen dut. Gure aitak eta osabak garai batean bertsolariak kontratatu izan zituzten osabaren etxe azpiko txokoan jarduteko. Aitak askotan kontatzen du kotxe gutxi zirenean Manuel Lasarte ekarri eta etxera eraman zuenekoa eta Uztapide ere behin baino gehiagotan eraman zuela...

SANTO TOMAS LIZEOAN

Donostiako Santo Tomas Lizeoan bertso doinu eta kantu zahar asko ikasi genituen eta zaletu egin nintzen. Gogoan dauzkat eskolara etorritako bertsolariak: Anatx eta Xabier Eguzkitze. Eta Xabier Amurizari elkarrizketa egin genion. Atentzioa piztu zidaten, eta horrek ere bere alea utzi zuen. Joxe Mari Aranalde neukan irakasle, eta bertsoak erabiltzen nituen nota hobeak lortzeko.

Santo Tomas Lizeoan Eguzkitzek ematen zuen bertsolaritza, eta berarekin aritu nintzen lizeoko azken urtean.

TOLOSATIK HERNANIRA

Hitzetik Hortzera hasi zenean, bertan ikusi nuen Tolosako bertso eskolan ikastaro bat zegoela. 17-18 urte nituen, eta hartu eta deitu egin nuen. Autobusean joaten nintzen Tolosara, eta han non topo egin nuen Ibai Esoain, Xabier Sukia, Jexux Mari Irazu...

Tolosan egin nituen nire lehenengo pausoak Mikel Mendizabal, Jokin Sorozabal eta Andoni Egañarekin.

Irazuk esan zidan "eta nolatan Antiguatik Tolosaraino? Gu Hernanin elkartzen gara, nahi izanez gero joan eta probatu". Hala egin nuen, nire beldurrarekin. Gustuko nuen baina bertsotan egiten ez nekien.

HERNANIKO BERTSO ESKOLA

Lehenengo egunean ez nekien zertara nindoan, zer eskatuko zidaten... Hara iritsi eta lagun talde bat topatu nuen: "hasi egingo gara bertsotan!" eta halaxe egiten genuen. Lehen asteetan joaterako "zer kantatuko dut nik?" kezka hori izaten nuen, eta bertsoren bat goitik behera pentsatuta eramaten nuen, nahikoa kostata. Baina ikusten nuen ez zela etsamina, inork ez zuela negatiboki baloratzen egiten zena, animoa besterik ez zen ematen eta laguntasuna bultzatzen zen batik bat. Geneukan giroak engantxatu ninduen, agian bertsoak baino gehiago.

PISZINARA SALTO

Gutxika beldurra galdu nuen. Gerora kontziente egin naiz zer hanka sartze egiten nituen, zer ostiko ematen nizkion euskarari... baina asko balio izan zidan ikasteko, hiztegia aberasteko, erregistroak... konturatzen nintzen kapitaleko umea nintzela, ezberdin-

tasun hori nabaritzen nuen. Baina piszinara salto egiten nuen. Edozein lekutan kantatzen ausartzen nintzen, hanka-sartze latzak egiten nituen arren. Nik egoera horietan salto egin dut, eta asko ikasi dut.

PLAZARATZEA

Nire lehenengo plaza Eskolarteko Txapelketa izan zen. 18 urterekin, parte hartu nezakeen azken urtean. Azpeitiko kiroldegian kantatu nuen. Gerora pentsatzen dut "aurpegia behar zen han jartzeko, neukan bertso mailarekin!". Irakaspen handiak jaso nituen, beraz, pozik nago.

Hernaniko bertso koadrilan aipatzen zen "aizue, hemengo festetarako esan dute bi joateko eta zeinek nahi du?". Noiz-behinka baietz esaten hasi nintzen, eta horrela egin nituen plaza batzuk, auzotako festetan bertso pare bat kantatuz...

Aitor Mendiluze, Joxe Luis Urdangarin, Jexux Mari Irazu edo Unai Agirrerekin joanez gero beti bestelako babes bat izaten zen. Banekien bertsotan nik baino gehiago egiten zutela eta "zergatik ez naiz joango? bidelagun onak ditut" sentitzen nuen.

GARAPENA

Hasieran gauza asko kontrolatu behar dira (zer kantatuko dut eta nola eta nondik ekarriko ditut errimak...) baina gero barneratzen dituzunean atera egiten dira. Heltzen joan ahala, beste patxada bat hartu dut jendaurrean hitz egiteko, plazan egoten ikasi dut, espektatibak ere garbiago nituen... ez naiz oso exigentea izan nire buruarekin.

PUNTAKOEKIN

Azken hiru-lau urtetan Sahararen aldeko saioetan Andoainen punta puntako bertsolariekin kantatu dut: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze, Anjel Mari Peñagarikano... hori erronka handia da.

Donostiako Aste Nagusian bertso saioak berreskuratu zituzten eta donostiarra izanik haietan ere kantatu dut.

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	1995	Lehen fasea
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2003	Lehen fasea
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2007	Lehen fasea
Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Parte hartzaile (Hernani-Ereñozu taldean)

Bertso koadrilak animatuta ematen nuen izena txapelketetan eta plaza bat gehiago egiteko aukera moduan hartzen nituen. Ez nuen sufritzen puntutan neurtzen zen emaitzarekin edo aurrera joatearekin. Prestatu naizenarekin lortu dudana bat dator, orekatuta dago. Konplitzera joaten nintzen, helburua nire buruarekin gustura geratzea izaten zen. Baina kontraesana hor zegoen, ez nuen behar bezala prestatzen, parte hartu dudan txapelketa denetan hilabete lehenago hasi naiz prestatzen. Gezurra esango nuke txapelketarako errimak idazten bi aldiz jarri naizela esango banu. Hori hasieran ongi egon daiteke, baina gero gehiago eman behar da.

2007an Gipuzkoako Txapelketan.

BERTSO IRAKASLE

Garai batean bost bertso eskola eraman nituen aldi berean, eta horri esker segi nuen bertsotan.

Donostia inguruan bertso girorik ez nuen ezagutzen, eta giro hori ni bizi nintzen ingurura eraman nahi nuen. Inoren laguntzarik gabe proiektu txiki bat egin nuen eta proposamena idatzi nion Jakintza ikastolako Guraso Elkarteari. Begi onez hartu zuten eta hasi egin nintzen. Tolosan jasotako fitxa batzuk medio eta Mikel Mendizabalek emandako liburuxka batzuetatik, horrela hasi nintzen, nekienetik. Hurrengo urterako bi talde atera ziren hor.

Lizeo Santo Tomasen Eguzkitzek ematen zuen bertso eskola, eta berak utzi egin zuen eta neronek hartu nuen testigua. Han ere beste bi talde izan nituen.

Antiguan, Bertsozale Elkartea zegoen lekuan, La Sirena etxearen azpian, helduen bertso eskola bat zegoen, Estitxu Arozenarekin biltzen zena. Estitxuk utzi zuen eta ni hasi nintzen.

Langintza horretan oso gustura sentitu naiz. Horrek mantendu dit burua bertsotan. Pentsatzen nuen "zuretzako bertsoari ez diozu denborarik eskaintzen, baina besteekin bai".

Poza hartu nuen Eskolarteko Txapelketetara Antiguako hainbat seme-alaba joan zirelako, eta sekula pentsatuko ez nukeen jendea bertsotan ikusi nuelako... Eskolarteko finalera ere iritsi ziren batzuk, eta ez diot lorpenari hainbesteko garrantzirik ematen, baina ibilbideari bai: nondik hasi ziren ikusita, nire burua islatuta ikusten nuen, ez zutelako bertso girorik bizi izan, eta nik izan nituen zailtasun eta beldurrak zituzten... eta txapelketan kantatzeko gai izan ziren, eta gerora helduagotan euren artean gauzatxoak antolatu zituzten... "hemen zerbait sortu da" pentsatu nuen. Horrek asko pozten nau, neronek bertsotan egin dudanak baino askoz gehiago.

2001eko Euskal Herriko Txapelketarako Gipuzkoako Sailkapena (martxoaren 16a Andoain)

Gertakari beraren aurrean sentipen desberdinak dituzue. Zuen herriko prostituzio etxea erre da.
Eta horren aurrean Jon Garmendia "Txuria" poztu egin da, Iker Alustiza, berriz, atsekabetu.

J. Garmendia:
Ez zitzaidan gustatzen
lokalan tankera,
eta gaur poztutzeko
izan det aukera.
Nere poza baitoa
barruko aldera,
bertan lanean zeuden
neskatxen artera.
Haiek´e poztu dira
nerekin batera.

J. Garmendia:
Bertan lanean zeuden
hainbat neska lerden
ta zurekin ez zeuden
inola ondoen.
Esango dizut berriz,
ni poztu ondoren
lasai esplikatzeko
zer gertatzen hemen:
batzuk sufritu batzuk
goza dezazuen.

J. Garmendia:
Sexuan dute batzuk
bere bizioa,
beren nahikundea ta
baita afizioa;
neska gazte tristeek
bere ofizioa,
aizu ez daukat orain
zure desioa.
Aukera al da bada
inposizioa?

I. Alustiza:
Putetxeak bazuen
herri hontan sona
urrutitik lanera
etorriak hona.
Pasatu zaien hori
gero ez da broma!
Zu ezin zera izan
ez pertsona ona,
besteen gaitzarekin
pozten dan gizona.

I. Alustiza:
Probatu gabe pasa
ditut hainbat urte,
eta probatu gabe
jarraitu nahi nuke.
Agian ez daukate
nahi aina bertute,
baina hortik kanpora
nahi dutela uste,
aukeratzeko aukera
eduki balute.

I. Alustiza:
Dirua ematen diote
lehendik daukanari,
lortzeko teiluta bat
ta hainbat janari,
baina gero alperrik
hainbeste opari.
Pozik bizi ez direla
nik diet nabari
kalte ez dute egiten
ta poztu ugari.

JON ALTUNA "OXAN"

1967an Bergaran jaioa, Oxanguren baserrian - Hernanin bizi da

Argazkia: Estitxu Eizagirre

Gurasoekin bertso txapelketak ikustera joaten nintzen. Euskal Herriko final guztietan egon naiz.

Bertsotan hasi parrandaren batean hasiko nintzen. Bergaran banituen bertso lagun batzuek, eta aritzen ginen, gure mailan. Bergarako festa batzuetan, Irurako Luis Otaegirekin sekulako gau-pasa egin genuen bertsotan.

HERNANI

1992an heldu nintzen Hernanira. Orduan asko handitu zen nire zaletasuna eta maila. Hernanin edonork egiten du bertsotan, sagardotegietan... Pisuan Iñigo Elkororekin (Bergarako betiko laguna nuena) eta Iñaki Iurrebasorekin jarri nintzen, orduan ezagutu nuen Jon Garmendia «Txuria» ere... lagunartean hasi ginen bertsotan. Ni ez naiz inoiz bertso eskolan ibili, beste ordu eta leku batzutan ikasi dut bertsotan. Telebistako Hitzetik Hortzera programak ere lagundu zigun.

ESTEBAN MARTIARENA

1965ean Oiartzunen jaioa

Gure auzoan bazen bertsozale amorratu bat, Martin Urtegi "Beltza", eta hark bi-hiru mutil kozkor hartu gintuen (10-11 urte genituen). Bertsoak paperean idatzita ematen zizkigun eta doinua kasete batean grabatuta. Guk buruz ikasten genituen bertsoak eta plazetan aritzen ginen, baserritarrez jantziak eta Ducados itzali bat eskuan: Oiartzungo auzo guztietan, Oreretan... horrela ibili ginen hiru-lau urtean.

Uztapideri plaza jarri zioten Ergoienen, bera bizi zen auzoan. Inaugurazio egunean Euskal Herriko bertsolari onentsuenak han ziren, eta gu mutil kozkorrak eraman gintuzten bertso batzuek botatzeko. Ondoren Mitxelenaren jatetxean zen bazkaria. Bazkalostean bertsolari guztiak hasi ziren kantatzen, mikrofonoa gugana iritsi zen eta guk ordurako ez geneukan bertsorik prestatuta! Eta nik aurreko saio bateko agurra bota nuen.

Ondoren parrandetan hasi ginen bertsotan. Hogeita piku urterekin aukera izan nuen Oreretako bertso eskolan hasteko, eta orduan eskema guztiak hautsi zitzaizkidan: orduan jakin nuen zer zen zortziko txikia, nola errimatzen zen... Orduz geroztik bertso eskolan aritu nintzen, eta 2000. urte ingurutik bertso irakasle nabil Irunen eta Oiartzunen.

Argazkia: Estitxu Eizagirre.

HERNANI

90eko hamarkada hasieran etortzen nintzen. Xabier Santamaria "Xanta"rekin egoten nintzen batik bat, gero Oxan eta Xapo ezagutu nituen... Nire lehenengo bat-bateko jendaurreko saioa, Hernaniko Tabernetako Txapelketan egin nuen. Orduan bertsoa denerako erabiltzen genuen. Jexux Mari Irazuk esaten zidan "hirea ez duk zaletasuna, hirea gaixotasuna duk, motel!".

BERTSO JARRIAK

Niri idaztea gustatzen zitzaidan. Edozein tokitan, serbilleta batean...

Sari batzuk baditut irabaziak: Zapirain Anaiak bi urtez segidan irabazi nuen eta Manuel Lekuona sarian hirugarren egin nuen.

Kantuetako hitzak egin izan dizkiet Alaitz eta Maiderri eta bertso musikatuekin diskoa grabatu genuen Oiartzungo bertso eskolak.

AITOR BARRENETXEA

1977an jaioa, Santa Barbara auzoan

Argazkia: Estitxu Eizagirre,

Aita (Pedro Juan) kamioneroa nola izan den, beti bertsoren bat kantari aritzen zen kamioian. 11 urterekin Martindegira bizitzera joan ginen, eta han bizilaguna dugu Tturko. Bere bertsoak buruz ere badakizkit.

Gerora, koadrilan edo sagardotegian beti aritzen ginen. Koadrilan ez dago halako bertso zaletasunik, ni nintzen gehiena aritzen nintzena, baina beti baten bat inguratzen zen.

OMENALDIETAN

Urtero egiten da omenaldia Martindegiko festetan, eta han kantatu izan dut, Izaskun Muruarenean. Tturkoren omenaldian ere kantatu nuen.

BERASTEGIN BERTSO AFARIAN

Nik kobratu ere egin izan dut bertsoa kantatzeagatik, eta kalitate-prezioan ondo gainera!

Ibon Karrera elduaiendarrarekin parranda asko egiten genituen eta bertsotan bukatzen genuen beti. Behin deitu zidan: "bertso afaria daukat Berastegin eta laguna falta. Etorriko haiz...", "nola joango nauk ni bertso afarira jende aurrean kantatzera? Lotsak akabatuko nauk..."; "ezetz, bi potrorekin etorri eta bota!". Ez nuen joan nahi, baina nahikoa esan nion "bueno, ez baduk beste inor bilatzen, joango nauk". Berastegira joan, eta seko lotsatuta. Eseri gara mahaian, eta ondoan neska batzuek. Esan zidaten "hi, gazte, hik ez duk ardo gehitxo edaten?", "bai, gaur ahal dudan gehiena edango dut nik!". Blokeatzeko beldurra nuen, eta nonbait ardoak egin zuen bere eragina, eta mikrofonorik ezin kendu eskutatik! "Mutil hau nondik ekarri duk?" galdetzen zioten Iboni. Soinua jo zuten, dantza egin genuen eta 120 euro kobratu eta etxera! Autobian behera, gustora.

JOSEBA ANDONI AGIRRE

1976an Errezilen jaioa - Hernanin bizi da

Bertsoarekiko eta Hernanirekiko lotura familiatik datorkit. Unai eta Eñaut Agirre lehengusuak ditut.

Gure aitona zenak (Inazio Orbegozo, amaren aldekoak) bertsotan egiten omen zuen. Apustuan, segan eta ibili omen zen. Arreba gogoratzen da Errezilgo soziedadean Unai Agirreren aitari bertso kantari jarduten zuela. Nirekin egiten zuen lo 5-8 urte nituen arte eta bertsoak kantatzen zizkidan.

Bertsotan Errezilgo elkartean, Beltxane-n hasi nintzen. Unai Agirrek Eskolarteko Txapelketan irten zuen eta noizean behin kantatu egiten zuten eta guk ere, ez errima eta ez neurri, belarriz, kantatu egiten genuen 8-9 urterekin, lotsagabe lotsagabe.

Urteetan ezer egin gabe egon nintzen, koadrilan inork ez baitzuen kantatzen. Baina urtero Gabonetan Errezilgo elkartean kantatzen genuen. Nire kasa ere aritzen nintzen kotxean, autopistako bakardadean.

26 urterekin jakin nuen Azpeitian bertso eskola zegoela eta hor aritu nintzen 2012. urtera arte.

Argazkia: Estitxu Eizagirre.

TABERNETAKO TXAPELKETAN

2008an kafea hartzera joan nintzen txapelketara. Eta barran apoiatuta nengoela, beso luze batek sorbaldan kolpetxo batzuk jo zizkidan: "beno, hik ez nauk ni ezagutzen baina bertsotan egiten omen duk...". Asko ez zuen negoziatu behar izan gizonak (Oxan zen). Urte horretan afarira joan gabe kantatu zuen bakarra ni izan nintzen. Eta geroztik urtero kantatu dut.

2011KO GIPUZKOAKO TXAPELKETAN

Buru gogorkeriz eman nuen izena. Lehiatzea gustatzen zait eta neure burua probatu nahi nuen, ea kantatzeko gai nintzen. Jarri nintzen oholtzan, kantatu nuen eta aurrera. Gustura aritu nintzen.

MIKEL ALKORTA

1971an Donostiako Egia auzoan jaioa

Argazkia: Estitxu Eizagirre.

Etxean denok gara zaleak. Amonak abesteko joera handia zuen eta amak (Mertxe Aizpurua) bertsotan ere egiten zuen.

Aitak bertsotan egiten du (Iñaki Alkorta): bazeukan halako izen bat Igeldo aldean eta ni txikia nintzela, ezkontza batean beste bertsolari batzuekin batera kantatzeko deitu zioten. Txikitan Tolosara joaten ginen apustuak ikustera eta kotxean bertsotan aritzen zen. Orbegozon aritzen zen lanean, eta bertako beste langile batek bertso hau egin zion, nik ikasi eta kantatu nezan:

Ni Mikel Alkorta naiz
mutiko gaztia
hamar urte oraindik
baina bai trastia
bi zaletasun ditut
bat da jolastia
eta bestia berriz
bertso abestia.

BERTSOA BALIATU

Urte askoan baliatu nuen "ni Mikel Alkorta naiz..." bertso hori. Eta nire alabek egun erabiltzen dute.

Eskolan ere, zortzigarren mailan idatzitako bertsoak banituen, zuzendariari pelota eginez.

Parranda urteetan, berriz, bertsoa nesketarako oso erraminta ona iruditzen zitzaidan, normalean esatera lotsatzen garen gauzak bertsotan beste era batera esan baitaitezke.

Arreba eta biok soinua jotzen hasi ginen, bertsotan zerbait ikasi genuen eta askotan hasiera emateko bertsoak abesten genituen, bi ahotsetara.

LEHEN SAIOA

Parrandetan eman genuen bertsotan saltoa, tartean Hernanin. Parrandetan elkartzen ginen Iurrebaso, Oxan, Txuria...

Egiako gaztetxeko azken kontzertuan Joseba Tapiak jo zuen eta han atera ginen bertsotara Xomorro usurbildarra, Inaxio Usarralde eta hirurok. Jendaurrean egindako aurrenetako saioa hura izango zen.

Gero Usurbilgo bertso eskolan aritu nintzen German, Tola, eta hauekin.

MIKEL LUJANBIO "XAPO"

1968an Hernanin jaioa

Maialen Lujanbio lehengusua dut, eta berak 16 urte zituela, Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan lehenengotako jaialdia egin zuen: Peñagarikano, Lizaso, Joxe Agirre... denak han ziren. Harrituta geratu nintzen: saioa bukatu zen denak berarekin sartuz eta hamasei urterekin hura denen artean ederki defendatzen zen. Zaletu hortik egin nintzen.

Harakina naiz, eta hiltegian lanean aritzen ginenok bazkari asko egiten genituen eta bertsoren bat edo beste bota ere bai.

TABERNETAKO TXAPELKETAN DEBUTA

Bertsotan lata pixka bat ematen nuen gauetan, parrandan. Eta 1999an Ibon Goia "Zirilo"k eta Alberto Elosegi "Fray"k eurek apuntatu ninduten lehenengo aldiz Tabernetako Txapelketan. Arratsaldea jai hartu lanetik, eta Bapatean 89 liburua hartu eta bertsoa estudiatzen aritu nintzen, "nik nora joan behar dut!" pentsatuz. Eskerrak afaritan patxarana edan eta ongi pasa genuen! Nire lehenengo saioa hura izan zen.

Bertsoak idatzi ditut, hiletetarako, urrezko eztaietarako...



Argazkia: Estitxu Eizagirre.

gaiak

HERNANI 90

Hernanin bertso jakituria hori badagoenez, gure etxean ere kondar bat bazegoen. Halako bacground bat, bertso giro ez-esplizitua. [**Maialen Lujanbio**]

Hernanin beti egon da poso bat. Jende pila batek irratian bertsoak entzuten zituen, bertsolariak zein ziren bazekien, eta sasi bertsolariren bat egongo zen. Nahiz igual kalean ez zen lehen adina egiten. Orain ere bertsotan hasi, eta belaunaldi guztietako jendea inguratuko litzateke. Eta lehen ere bai. Poso hori mugitzen hasten denean, orduan ikusten da herria bertsozalea den edo ez. Zaletu daiteke herria zerotik hasita, baina poso hori dagoen herrietan zerbait berezia azaltzen da. [**Unai Agirre**]

Hernaniko bertso giroa zabaltzen ere hasi zen. Ikastolatik saioak antolatzen ziren eta beti gu izaten ginen bertsotan: Gorka Tolosa, Aitor Mendiluze, Unai Sasiain, Aitor Zubeldia, ni, ikasitako bertsoak kantatzen genituenak. Guri Hernaniko bertsozaleak etorri egiten zitzaizkigun entzutera edo kasu egitera. Bagenuen mundu hori, baina uste dut ikastola giroan guretzako antolatutako mundua zela. [**Unai Agirre**]

Bertso giroa ikastolan eta bertso eskola inguruan ezagutu dut. Eskolarteko Txapelketetan hasi ondoren betiko deiak jasotzen hasi ginen, eta hor ezagutu dugu Hernaniko bertso giroa. [**Iñaki Zelaia**]

Hernanin talde mugimendu handia zegoen, ekitaldiak, bazkari eta afariak... oso aktibo zegoen herria eta bertsolaritza denean sartzen zen. Edozein bertsolarirekin bazkari edo afari xinple bat antolatu eta ehun lagun biltzen ziren. Bertso-lataren hasiera ere bazen. [**Iker Osa**]

Gu bertsoak aurrez ikasita joaten ginen. Txalaparta Festa batzuk tokatu zitzaizkigun, Osinagako festetako saioa, Portukoa... Santa Barbaran, errondetan, Bertso Latan... nahi adina saio bazen herrian bertan. [**Estitxu Eizagirre**]

Bertso eskolan jende gehientsuena bildu ginen garaia izan zen. [**Jon Iraola**]

(Martindegin) San Ferminetan beti bertso saioa izaten zen, eta saioaren ondoren bertsolariek tabernan bazkaltzen zuten. Gure osabaren etxean familiako bazkaria egiten zen eta bertara etortzen ziren bertsolariak eta trikitilariak. Gu ere hara joaten ginen postrea eta kafea hartuz, eta bertsoak kantatzen zituzten. Urtero Anjel Larrañaga izaten zen titularra, eta nik han ume nintzela beti bertsoren bat edo beste kantatzen nuen, eta auzoko festetan bertsolarien aurretik bertso pare bat. Telonero lan hori egiten nuen.

Migel Arozamena bertsolaria bera ere bertara etorria zen bizitzera; nik ez nuen ezagutu. Auzo bertsozalea da. Baserrietan beti egon da bertso kultura hori. Gaur da eguna afalosteetan sasi bertsolari mordo bat agertzen garena. [**Gorka Tolosa**]

(Ereñozun) San Antoniotako igandean bertso jaialdia egiten da. Kultur astean (udazkenean) bertso afaria egiten da Ur-Mia elkartearekin. Urte askoan ez zen egin eta berreskuratu egin zen. Hirubidieta eta Ugaldetxokoak dira egiten diren beste saioak. [**Ibon Miner**]

1999-06-04 Osinaga jaialdia

Aitor Mendiluze-Xabier Legarreta "Arano". Zuek biok etorkizun igarleak zarete. Nola ikusten dituzue Osinagako festak 2100. urtean?

A. Mendiluze:
Festa onak igertzen
ditugu behinepin,
abuztun bukatzeko
maiatzean ekin;
jende pila bat bertan
umoriarekin,
musika eta dantza
denetik lor dedin
eta bertsolariak
linterna banakin.

X. Legarreta:
Orduan'e izango da
hainbat jende jator,
hainbat baserritar ta
hainbat burugogor;
sagardotegietan
milaka egoskor,
baina zerbait aldatu
liteke ziur hor:
barran ez da egongo
zuetako inor.

A. Mendiluze:
Gauzak hobetu nahian
aldaketen truke,
guk zer igertzen degun
galdetu digute,
ta zuengan pentsatu
nahi genuen guk'e;
barran inor ere ez,
hala degu uste,
kafia aterpean
serbituko dute.

X. Legarreta:
Errepara zaitezte
bigarrengo kezkan,
errepara zaitezte
ixkinako neskan;
hemendik ehun urtera
zer izango ez dan!
Produktoa garesti
Osinako festan,
Keler txiki botila
hogei mila peztan.

A. Mendiluze:
Hala gerta liteke,
egia degu bai,
bainan hala ta guzti
zaudetela lasai;
orduan ere denak
Keler txikian zai,
hogei mila peztatan
jarrita nolanahi,
orduan ere inork
ez baitu urik nahi.

X. Legarreta:
Adelantu gehiegi
ez degu jasango,
beraz oso aurrera
ez gera juango;
erdi burusoilduta
hemengo ta hango,
bertsolari bakoitzak
sasoiko bi zango,
ta hankapean kablerik
ez dute izango.

A. Mendiluze:
Nola aldatuko den
hemengo partea
galdetu digute ta
hobe esatea;
igertzeko genuen
guk borondatea
ta gustokoa bazen
guri eman pakea,
zuen lana delako
hala izatea.

X. Legarreta:
Osina juango da
nahiko urrutira,
adelantuk medio
ditugula, tira;
baina komeniko da
dakigun neurrira,
neska brillantedunak,
begira-begira,
autopista berritik
etorriko dira.

HERRIKO BERTSO ESKOLA

IRAKASLEAK

- Jon Eizmendi, Joxe Luis Urdangarin, Iñaki Zelaia
- Aitor Mendiluze, Itziar Eizagirre, Estitxu Eizagirre, Iker Osa, Bakarne Urreaga, Karmele Apezetxea, Gorka Tolosa.

1980an aktibatu zen Urumean bertso eskola eta Langilen pixka bat beranduxeago. Bakoitza bere kabuz aritzen zen eta alde ona zuen ikastola bakoitzak bazuela bultzatzaile bana.

1989-90ean pauso bat eman zen: herri mailako bertso eskola sortzea. Juanjo Uria, Ixiar Otamendi eta Malores Etxeberriak sustatu zuten pauso hori. Haiek eman ziguten enkargua hiru gazteri, ikastoletatik atera eta astearteko bilerarako pausoa emana genuen hiruri. Horrela, Jon Eizmendi, Iñaki Zelaia eta ni neu izan ginen lehenengo irakasleak. Helburua zen metodologia baten bidez ikasi genuenok aritzea bertso eskolan irakasten, gure barruan ikusi genuena aplikatzeko. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Zatiketak inoren onerako ez dira. Beti bilatzen nuen edozein aitzakia Urumeako arduradunekin hitz egiteko: orduan Maritxu zen zuzendaria, eta Baldan urte pare batean berarekin egon nintzen hizketan: "ongi ari gara, bai zuek eta bai gu, eta luze baino lehen hemen belaunaldi bat etorriko da, eta gazte hauek elkarrekin etorriko dira". Berak ondo hartzen zuen mezu hori. Eta hortik etorri zen Hernaniko Bertso Eskola. [**Juanjo Uria**]

Hiru irakasle ginenez, hiru taldetan banatzen ginen: talde batean sartzen ziren handientsuenak, bat-bateko formatuan. Beste talde batean hasiberriak baina helduxeagoak zirenak, eta beste taldean hasiberriak eta txikixeagoak. Talde bakoitzak erritmo ezberdina zuen, baina egitura hauxe: lehenik bertso zaharrak abestu (hor lantzen ziren batez ere doinua, errimak eta esamoldeak); gero idazketa ariketa batzuk egin, bertsoaren egitura garbi eduki zezaten eta idazteko soltura eduki zezaten. Ariketak guk prestatzen genituen edo Mikel Mendizabal eta Antton Kazabonek Ikastolen Elkartearekin sortutako materiala erabiltzen genuen. Eta jada bukaerako partea bat-batekoa izaten zen. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Garai hartan Euskal Herrian sustatu zen eredua selektibo izatea zen, Eskolarteko Txapelketan nabarmentzen zen jendea kuttun bihurtu, zaindu eta bultzatu. Eta hori beharrezkoa zen, baina horrek ez zion erantzuten inguruan geratzen ginen beste batzuei, bertsotan egin nahi baina eliterako aukerarik ez geneukanoi. Hernanin horri erantzun bat eman zitzaion. Eta horrek ekarri zuen halako talde bat eratzea. Eskolarteko Txapelketan aritu, Eskolartekoa bukatu eta jarraitu nahi zuen jende hori asteartetako bilerara bideratzen zen. Hernanin bertso eskolak arrakasta izan badu, horrexegatik izan da, ikasleek irteera bat eduki dutelako, astearteko taldea. Eta alderantziz, astearteko bileratik bideratzen ziren irakasleak. Hori izan da arrakastaren beste gako bat, kapaz izan garela gure bertso eskola irakaslez hornitzeko.

Gu ez ginen bertso eskola indartsuena. Guri eredu bezala jartzen zizkiguten Arrasatekoak, Oiartzungoak, Zumaiakoak... gure puntu diferentziala, nire iritziz, ziklo hori izan da. Ona edo txarra, gogoa zeukan jendeari irtenbide bat eman zaio. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Bertso eskolako lagun giroan, parrandan, bertso afaritan... nik hor bizi izan dut bertsoa eta horri balio osoa ematen diot. Garrantzia handia ematen diot Hernanin bertso eskolan egon den mugimendu horri, aukera eman digulako plazako atetik aurrera ibili ez garenoi herri mailan jarduteko. [**Itziar Eizagirre**]

Ostiraletako bertso eskola idatzizkoa izaten zen, 14-15 urtera arte. Gero ohitura zen asteartetako jende bat ere ostiraletan biltzea ikasle horiekin, lotura lana eginez. Bolada batean gu aritu izan ginen bai asteartetan eta ostiraletan. [**Iker Osa**]

ERRELEBOA

Horrela hasi zen eta hala jarraitzen du, beteranoenak irakasle jarri, eta haiek aspertzean eskailera mailan hurrena zena sartzen zen. Logikoa da hainbeste bertsolari dagoen herrian erreleboa horrela pasatzea. [**Iñaki Zelaia**]

17-18 urterekin aritu nintzen Hernaniko Bertso Eskolan. Irakasle izatea memorian geratzen den esperientzia da. Inpresiorik handiena 11 urteko 10 ume gobernatzea izan zen. Oso esperientzi aberatsa da, bereziki urte batzuk pasa eta gero. Baina 17 urterekin gogorra. [**Iñaki Zelaia**]

Bertso eskolan helduenetako bat izatera pasa eta zaharragoak lanean hasten ziren neurrian, hurrengo belaunaldiak heltzen zion. Txanponaren beste aurpegia probatzeko aukera izan zen. Guk umetan egiten genituen barrabaskeriak ulertzeko modu bat. Esperientzia oso polita. [**Aitor Mendiluze**]

1995ERA ARTE

Material aldetik, sarea ez zegoen artikulatuta. Gu ikasle izan gineneko ariketak erabiltzen genituen, zinta zaharretatik hartutako bertso sailak, eta klaseak nahiko inprobisatuak izaten ziren. [**Iñaki Zelaia**, irakaslea]

Neskek ez zuten bat-batean inoiz kantatu nahi izaten eta egindako bertsoak kantatu ere ez. Mutilak, berriz, segituan atrebitzen ziren, baina gero neskek egindako bertsoak askoz hobeak ziren mutilenak baino. [**Iñaki Zelaia**, irakaslea]

Saiatu nintzen jendea bultzatzen, beldurra galdu arazten. Zaila da, ze inori ez zaigu gustatzen nabarmen geratzea inoren aurrean. Perfekzionismo puntu hori kentzea ez da erraza.
[**Joxe Luis Urdangarin**, irakaslea]

Joxe Luis Urdangarinen ikasle ginela jaialdia antolatu zen Galarretan eta agur bereziak kantatu genituen.
[**Itziar Eizagirre**, ikaslea]

Beste eskoletara ere joaten ginen Joxe Luis Urdangarinekin, bertso eskolaren irekiera garaian jendea apuntatu zedin.
[**Estitxu Eizagirre**, ikaslea]

Gure irakasleengandik (Iñaki Zelaia eta Joxe Luis Urdangarin) horixe ere ikasi genuen: ikasleekin batera eta bestera ibiltzen. Hartu kotxea eta halako afaritara edo saiotara joan, pote batzuk elkarrekin hartu eta etxera ekarri... Momentuan asko, baina gerora izugarri estimatzen diet egin zuten lana, ez bertsotan erakutsi bakarrik, bertso koadrilan sartzen ere lagundu baitziguten. Hurrengoekin berdin egiten saiatu ginen. [**Estitxu Eizagirre**, ikaslea]

1995ETIK AURRERA

Gazteagoak ikusten dituzu zuk pasa dituzun momentu berdintsutatik pasatzen. Eta zuk izandako ilusio berdintsua daukatela gaur egun ere. Oso polita da hori. [**Iker Osa**, irakaslea]

Bi ikasturtetan aritu nintzen bertso eskolako irakasle, 1999tik-2001era. Bertso eskolakoa izan da haurren irakaskuntzan izan dudan esperientzia bakarra eta interesgarria izan zen, benetan! [**Bakarne Urreaga**]

Gure kezka beti zen: nola irakatsi? Lehen urtean jolasak eta materialak ateratzen saiatu ginen (altxorraren bila bertsotan, bertsolariekin kartak, tribiala...), hutsuneak betetzeko ariketak sortzen... geroago ariketa gutxiago egin eta hasieratik bat -batean jartzen genituen ikasleak... [**Estitxu Eizagirre**, irakaslea]

Beti eduki ditut ikasle batzuk oso onak zirenak bertsotan, eta beste batzuk inoiz bertsorik kantatzen ez zutenak. Baina gitarra ekartzen zuten eta haiek doinua jartzen zuten, beste batzuk kantatu... bakoitzak bere lekua bilatzea da garrantzitsua. [**Gorka Tolosa**, irakaslea]

Ez gara inoiz irakasle erreferente-eredu izan. Beti saiatu gara taldearen barruan ikusezinak izaten. Irakasle izan baino gehiago dinamizatu, eta hartu dezala taldeak dinamika eta bere burua antolatu dezala, jakin dezala bere kasa aritzen.

[**Estitxu Eizagirre**, irakaslea]

Taldean aurrera segi genuenak, Joxe Anjel Aranburu, Izarne Zelaia, Joseba Aizpuru, Iñigo Etxaniz, eta Jon Loinaz "Mirri" ginen. Aitor Mendiluze genuen irakasle eta egoskortu egiten gintzaizkion, egia da. "0 atala" ekartzen zigunean, guk parra egiten genuen, "hizki-zopak egitera al gatoz bertso eskolara!", bertsolarien izenak bilatzea ez zitzaigun asko gustatzen. Oinak jartzen zizkigunean beti Mendiluzeri atakatzea izaten zen jolasa. Bueltan aditzen genituen kristorenak, baina bai.

[**Agin Laburu**, ikaslea]

Lehenengo eguna zelebrea izan zen. "0 atalak" deitzen zituenak ekarri zituen Aitor Mendiluzek, bederatzi puntuko bertsoaren oinak bete, eta horrelako paperak. 8-9 lagun juntatu ginen, banaka banaka eman zizkigun paperak, eta Agin Laburuk tak, bueltan papera eman eta "hi, astean nahikoa eskribitu diagu eta kantatzeko gaia jarri, edo puntu batzuk edo zeoze" esan zion. [**Joxe Anjel Aranburu**, ikaslea]

Hiru belaunaldirekin tokatu naiz: lehenbiziko klase hartan, ni gogoratzen naizela Agin Laburu bazen, Joxe Anjel Aranburu, Joseba Aizpuru, Mikel Arrieta, Axier Arrizabalaga... Gure adineko talde bat bazegoen, hauekin ez genuen harreman handirik izan: Unai Ezeiza, Jon Otxotorena, Peru Iurramendi, Unai Huizi... Gero Agin Bilbora joan zen ikastera, Joxe Anjel lanean hasi zen, eta gehiago bildu ginen gazteagoekin: Aitor Larretak jarraitu zuen gurekin, Arnaitz Lasarte, Unai anaia gurekin ibiltzen zen, Amaia Otxotorena, Asier Azpiroz beranduago... [**Beñat Gaztelumendi**, ikaslea]

17:00etan bertso eskola bazen, 16:00etarako tabernan izaten ginen. Pintxo bana jan, mosto hartu, kontu batzuk esan, bertso eskolara joan, eta ateeran tabernan beste ordubete bota... oso gure anbientea zen. [**Joxe Anjel Aranburu**, ikaslea]

Gurekin asmatu dute azkar kantatuarazten. Bat isildu eta bestea hasi, bertso eskolan horrekin Gorka Tolosak estutu gintuen. Azkizura asteburu pasa joaten ginenean Eñaut Agirrek ere bai... Hernaniko bertso eskolaren ezaugarrietako bat izan dela uste dut eta eskertzen da, asko. [**Agin Laburu**, ikaslea]

Urte haietako oroimenik onena Gorka Tolosa irakaslearena daukat. Ondo pasatzen genuen eta ostirala iristeko amorratzen egoten ginen. [**Agin Laburu**, ikaslea]

(11 urterekin) Txapelketa prestatzeko lehenengo aldiz Hernaniko bertso eskolara etorri ginenean, taberna batean bildu ginen, mahai bueltan. Guretzat hori berria zen, ohituta geunden bertsotan klasean egitera, klaseko ariketak, irakasle batekin, bat da klasea ematen duena eta besteak dira ikasleak... hona etorri, mahai bueltan eseri eta bat hasi zen kantari eta besteak segi eta zeinek baino zeinek handiagoa bota... desberdintasun hori hasieratik nabaritu genuen.

Esaten dute bada garai bateko bertsolariak tabernan juntatu eta aritzen zirela? Hemengo formatuak horren antza handiagoa dauka. Hernanikoak zure nortasuna lantzeko balio du, zure nortasunetik kantatzeko. [**Beñat Gaztelumendi**, ikaslea]

Hernanin hasi nintzenean nire sentsazioa zen munduko hoberenekin kantatzera nindoala. Zaharragoekin ibiltzen ginen. Bixkiak (Itziar eta Estitxu Eizagirre) ziren irakasle baina denok kantatzen genuen eta irakasle-irakaslerik ez zegoen, batak jartzen genion gaia besteari... ez daukat klase-klaseen oroitzapenik, orain gure artean biltzen garen bezala zen, batak besteari gaiak jarri, hitz egin, pipak jan... [**Unai Gaztelumendi**, ikaslea]

EREÑOZUKO ESKOLAN

Juanjo Uria eta Anatx etorri izan ziren Ereñozuko eskolara, eta gero bolada batean hutsunea egon zen. Gero Joxe Luis Urdangarin hasi zen, eta gero Florian Oiarbide. Florianek urte batzuek egin zituen eta gero kasu egin zidan ea nik hartuko nuen. Hasi nintzen baina nekeza egin zitzaidan nik bakarrik eramatea, eta Ibon Minerri deitu nion eta bion artean ibili ginen. [**Aritz Zerain**, irakaslea]

Urte pila batean Florian Oiarbidek lan eskergarria egin du, auzoan gazte gehienek bertsoarekiko harremana eduki dute, etxetik ez bada eskolatik, Florianen bidez. [**Ibon Miner**]

Laugarren mailan ginenean, 9 urterekin, euskarako ordutan bertsolaritza ematen hasi zen Aritz Zerain. Urtebete Aritzekin egin eta hurrengo urtean txandaka etortzen ziren Aritz eta Ibon Miner. Lehenengo bertso zaharrak kantatu (normalean Txirritarenak), gero lau oinak ematen zizkiguten, eta ordu osoa lau oinekin bertsoa egiten pasa... [**Arnaitz Lasarte**, ikaslea]

Gu izan ginen Ereñozutik Hernaniko bertso eskolara arrimatzen lehenengoak. Eta gu Hernaniko bertso eskolan hasi eta segidan Txirrita eskolan bertsolaritza ematen hasi ginen Ibon eta biok, eta hortik guk klaseak eman genizkion zenbait ikasle (Arnaitz Lasarte, Amaia Otxotorena, Oier Iurramendi...) orain Hernaniko bertso eskolan dabiltza. Bide hori ireki izanak asko asetzen nau. [**Aritz Zerainek**, irakaslea]

ELIZATXO IKASTOLAN

Ikastolan, aukerazko ikasgaietan bertsolaritza sartzea zen Eli Labururen kapritxoa. Erdaldun jendea ez zen arrimatzen hara, baina gure koadrilako lau-bost bai, gustura: Joseba Aizpurua, Iñigo Etxaniz, Mikel Fernandez, goizuetarren bat edo beste... bospasei biltzen ginen. Bertsoak irakurri, puntuka egin, elkarri zirika aritu... 16 urterekin, ikastola bukatu eta bakoitza eskola banatara joan zenean, koadrilako erabakia izan zen denak bertso eskolara etortzea, "beno mutilak, kale edo bale, egitez gero orain joan behar dugu. Astean behin denok juntatzeko bada ere joan egin behar dugu".
[**Joxe Anjel Aranburu**]

BERTSO UDALEKUAK: GOIZUETA, BEIRE, EULATE, AZKIZU

Azkizura (Getaria) Aste Santutan joaten ginen, asteburu pasa. Eskolarteko Txapelketa handik gutxira izaten zen, eta baliatzen genuen umeekin ahal zen gehiena kantatu eta jario handiagoa hartu zezaten. Egunean zehar talde txikitan banatzen genituen eta kantatzeko oinak eta gaiak jarri, eta jolasak ere egiten ziren frontoian. Eta azken gauean, Txapelketa: Afalostean egiten zen, begiraleok patxaran pixka bat hartu eta katxondeo erabatekoa izaten zen. Ariketa xelebreak... eta bukaeran beti enpate. Bakoitzari eltze tapa bana jarri buruan eta denak gustura! Umeek sekulako ateraldiak botatzen zituzten, adibidez Jon Otxotorenak "behiak egiten du marru-muuu!" errimatu zuen. [**Estitxu Eizagirre**]

Bixkiak (Itziar eta Estitxu Eizagirre) ni baino bost urte zaharragoak dira. Salto bat bazen guretzat. Udalekutan puskatu genuen barrera hori. Nik 18 urte neuzkala Goizuetako udaleku haietan egin ginen zaharragoen taldeko: afalondoan bixkiekin eta Unai eta Eñaut Agirrerekin geratu, patxarana edaten hasi... diferentzi pixka bat markatu genuen "koskortu gara zer edo zer edo koskorrarazi gaituzte"... [**Joxe Anjel Aranburu**]

Lehen aldiz Goizuetako udalekuetan begirale ahizpa eta biok, Eñaut eta Unai Agirre eta Nagore Soroa izan ginen. Oinez joan ginen Besabitik umeekin. Primeran pasa genuen astebetez eta sorpresa bat jaso ere bai: gau batez, denok ohean geundela, kanpotik norbaitzuk leihoak kolpatzen eta builaka hasi ziren. A ze beldurra! Eñaut eta Unai atera ziren, gantzontzilotan, pala bana eskutan hartuta nor zebilen ikustera. Zein izango, eta Joxe Luis Urdangarin eta Gorka Tolosa, albornoze-

Goizuetako Axerra Bordan bazkaritan.

kin eta zintzarriekin mozorrotuta, umeei broma egiteko. Eta umeak seko lo, enteratu ere ez ziren egin! Uste dut guri emandako sustoa adinakoa hartu zutela eurek bidean, piura harekin nahastuta beste baserri batera sartu baitziren. [**Estitxu Eizagirre**]

Goizuetara oinez joan ginen. Nik 8 urte besterik ez nituen. Peru anaia bide osoan xaxatzen aritu zitzaidan. Gauerako gaztaina morkotxak sartu nizkion zakuan. [**Oier Iurramendi**]

Gu hasiberri ginela udalekutara Elantxobera abiatu ginen eta Sarrian (Araba) bukatu genuen (Elantxobeko aterpetxean Madrilgo familia batekin egin baikenuen topo). Han harreman dexente egin nuen gu baino zaharragoak ziren Unai Huizi, Xabier Erdozio, Urtzi Irazusta, Jon Otxotorena, Asier Arrizabalaga, Mikel Arrietarekin... Gorbeara igo, eta erdi galduta ibili ginen. Bixitan etorri zitzaizkigun Eñaut Agirre eta Gorka Tolosa... Udalekuen oroitzapenak ederrak ditut. [**Arnaitz Lasarte**]

Eñaut Agirre kopla kantari
(doinua: *yelow submarine*)
"Axerrako arratoiak
zenbat gazta jan ditu?
bat, bi, hiru edo hamalau
nora begira zegon Unai hau!".

Eulaten gau batean jolasean ibili ginen. Joan gara aterpetxera eta baten batek aterpetxeko giltzak galdu! 20-30 ume geunden kanpoan, eta ez genuen sinesten txantxa ez zenik. Kanpo santura itzuli eta han aurkitu genituen giltzak. [**Asier Azpiroz**]

Beiren, lehen gauean buelta bat eman genuen herria ezagutzeko, eta ni bahitu nindutela zabaldu zuten begiraleek beste umeen artean. Taldetik bereizi ninduten eta nonbait gorde. [**Eli Pagola**]

Harrigarria izan zen umeek euren artean erakutsi zuten jarrera: ez dakit zenbat milioi eskatzen zituztela Eligatik eta batek "nire aitak bi jarriko ditu", "ez dakit noren gurasoek dirua badute eta haiei eskatuko diegu"... [**Asier Azpiroz**]

Beiren igerilekura joateko baziren bi bide. Ume batzuek bide bat hartu nahi zutela, eta Eñaut Martikorenak bestea. "Ziur Eñautek esaten duena egingo dugula!" bota zuen ume batek. Eta Eñautek: "Nik nahiago dut nik esandakoa ez egin" kank! denok hankaz gora utzi gintuen esaldi horrek, eta gero azaldu zuen: "bide horretatik joanda badakit zer aurkituko dudan, eta besteek esaten dutena eginda beste zerbaitekin egingo dut topo". A zer lezioa, bizitzarako! [**Estitxu Eizagirre**]

ASTEARTETAKO BILERAK BITERIN

Hasieran zerbait berezia zen, gero errutina bihurtu zen, baina nahi genuen errutina. Momentu puntualetan, txapelketak prestatzeko edo hego-haizeak jo zigulako, halako lanketa egiten genuen... baina askotan berriketan joaten zitzaigun arratsaldea. Lagun talde bat ginen, 18 urtera arte biltzen jarraitu genuen, gorabeherekin. [**Unai Agirre**]

Bertsoa konpartitzeko jende bat hurbil izana eskertu nuen: Euskal Herriko bertsolari gazteen belaunaldia batetik, baina aldi berean Hernanikoa. Hernaniko bertso eskolan belaunaldi indartsua geunden eta gure arteko harremanak estutu ziren..

Ordura arte bertso eskolan zeudenak helduagoak edo tradizionalagoak ikusten nituen bizieraz eta munduz. Nire bizimoduan neuzkan afizioak bestelakoak ziren eta beste mundu batekin konektatzen ninduten, eta hor bazen bi munduen arteko desajuste moduko bat. Nik mundu horiek denak batera egotea nahi nuen. Baina ez nuen jende asko bilatzen afizio horiek denak batera konpartitzeko. Hor klabea izan zen niretzako Unai Agirre, eta etorri zenean Jexus Mari Irazu. Taldetxo bat sortu zen, beste mentalidade, beste biziera bat zuena, bertsoa beste era batera ulertuko zuen jende bat.

Ordura arte bertso eskolara gutxi joaten nintzen, eta oso harreman ona genuen, baina bertsotarako. Gero beste talde horrekin harremana pertsonalagoa egin zen, lagun harremana eta bertsoaz aparte gauza gehiago konpartitzekoa. Bertsoa beste bizimodu mota batean txertatzekoa. [**Maialen Lujanbio**]

Bertso eskolara jende bila joaten nintzen. Niretzako bertso eskola gehiago da lagun talde bat, testuinguru bat, entrenatzeko edo kantatzeko leku bat baino. Ni gutxiena kantatzera joan naiz bertso eskolara. Gehiena bestelako gauzak egitera afaltzera, elkartzera, Bertso Latara... Txapelketa garaitan bertso eskolara arrimatu izan naiz berriro. [**Maialen Lujanbio**]

Lehen bitan egiten zen bertso eskola, ikastola batean nahiz bestean, eta azkenean batu zenean, gu astearteko bileran sartu ginen. Bertso eskolan taldetxo bat sortu ginen, gure generazioa eta aurretik zeuden beste batzuekin osatua: Añorgatik Josu Gartzia etortzen zen, Eñaut Agirre zaharxeagoa zena, Iker Artola, Jon Ziganda, Aranotik Xabier Legarreta, Iker Osa eta biok... geure kasa ere biltzen aritu ginen.

Bazegoen edade gehixeago zeukatenen beste talde bat, Jexux Mari Irazu, Iñaki Zelaia, Joxe Luis Urdangarin... [**Jon Iraola**]

Laukote harena oso oroimen polita daukat: "Arano", Iraola, Osa eta laurak nola aritzen ginen. Gure koadrila txikia egin genuen, beste koadrila handiago horren barruan. Asko ibiltzen ginen elkarrekin, bertsotarako biltzen ginen, baina hortaz gain beste plan batzuk ere egin genituen; Errezilera joan ginen laurok egun batzuk pasatzera... ni neroni askoz gusturago aritzen nintzen koadrila txiki hartan, bertsotan sueltoago, lasaiago, publikorik gabe... bertsoa denbora-pasarako erreminta zen. Gehiena librean egiten genuen, txapelketa garaia iristen zen arte. Lige kontua asko ibiltzen genuen, parranda kontua, gero diskusioren bat edo beste ehiza kontuan... [**Eñaut Agirre**]

Asteak zazpi egun bazituen zortzi aldiz igual arituko ginen bertsotan! Sariketa bat ez bazen txapelketa bat beti izaten zen eta juntatzeko aitzakiarik ez genuen behar izaten. Biterin noiznahi juntatzen ginen. [**Xabier Legarreta**]

Lau-bost seiko koadrila hori (Eñaut, Arano...) asko biltzen ginen. "Zuek gaixo zaudete!" esaten ziguten. "Hi, bihar geratuko gaituk?" eta ra biltzen ginen. Edo txapelketa bat zetorrenean prestatzeko hartzen genituen egunak (gaur egun hainbeste hartuko bagenitu...). [**Iker Osa**]

Geroztik asteartetako talde denak elkartuz joan ginen. Hor hasi ginen Aitor Mendiluzerekin, Iñaki Zelaia, Joxe Luis Urdangarin, Unai Agirre, Jexux Mari Irazu, Maialen Lujanbio (azaltzen zenean)... talde bakarra sortu zen. [**Eñaut Agirre**]

14-15 urterekin "zaharrekin" elkartzen hasi ginen. Lehen hartu-emana izan genuenean, Jokin Sorozabal han zen; gure lehenbizikoa bere azkeneko bilera izango zen. 15-20ko koadrila izango ginen, han korroan jarri eta gure txanda iristerako nerbioak airean, gaur eguneko txapelketako saioa izango balitza bezala. Gu hasi ginen hartan jende asko biltzen zen, astearteko bilerak pisu handia zuen.

Lehenbizi berotzeko puntutan egiten genuen, gero librean beste ez dakit zenbat buelta, gero segun zenbat lagun ginen ofizioren batzuk, edo sagardotegira zuzenean... **[Iker Osa]**

Lotsa, palmerak, pipak.... Helduagoak aritzen ziren gehiena, guk tartean zerbait kantatzen genuen, ordulaurdenero bertsoren bat... kontentu etxera. **[Jon Iraola]**

Beste generazio bat genuen aurretik, beste generazio bat atzetik... Guretzat bidea jarraitzea izan zen. **[Jon Iraola]**

Joxe Urdangarinen ikasle ginela, oso giro ona genuen eta asko saiatzen zen bat-batekorako pauso hori emanarazten. Baina hor gure jarrera aurrera-atzerakoa zen, eta berak tira behar zigun.

Etorri zen eguna esan ziguna: jada zuen kasa egiteko edadean zaudete, eta hemendik aurrera helduen taldean bildu eta hemen ez dago irakaslerik. Hor eman genuen pausoa. Helduekin biltzen ginenean dinamika jarria zegoen, juntatu eta bertsotan egin, eta kito. Han ez zaizu inor hasiko "mesedez, atera, oso ongi egin duzu..." animatzen, nahi baduzu atera eta bestela eserita egongo gara. **[Itziar Eizagirre]**

Umetan jendea deseatzen egoten da helduen taldean sartzeko. Bertsotan jarraitzen du badakielako helduen talde bat dagoela, dinamika erakargarria duena eta inkontzienteki pentsatzen du noizbait hor egongo dela. Behin horra sartzen zarenean ardurak ematen zaizkizu, norbera ere hartzeko pronto egoten da, izaten dira garai batzuk oso dinamikoak, taldearekin ere emozionatzen zara... ekimen pila bat pizten dira. **[Itziar Eizagirre]**

Astearteko bileran eskolatik errealitatera pasatzen zara. Ordura arte irakasleak zer esan hura egiten da, eta gero iristen da garaia ohartzen zarena: "ez, ez, hemen egingo duzu zuk nahi duzuna eta ahal duzuna (beraz, saiatu zaitez)". Eta talde horretan gauza bat da bertsoa, bestea da zabaltzen zaizun koadrila, eta bestea da bertsoarekin herrian egin ditzakezun gauzak. Orduan gauzak antolatzen hasten zara, eta hor jada engantxea kristorena da. **[Estitxu Eizagirre]**

Asko eman digu guri asteartetako Biteriko bilerak, nik esango nuke erreferentzi bat zela jende multzo handi batentzat: erreferentzi bat bertso kanturako (txapelketa garaian intentsuagoa eta beste garai batean lasaiagoa), erreferentzi bat gauzak antolatzeko, elkarren babesean eta elkarren lainezean bestela antolatuko ez ziren hamaika gauza atera ziren aurrera, eta erreferentzi bat inguruan kantatzeko aukerarik ez zuten askorentzako, guregana bildu zirelako. Bertso eskolaren jarraipena bermatzeko ere oso garrantzitsua izan da, orain denok faltan botatzen dugun zerbait. **[Iñaki Zelaia]**

Aranoko elkartean egindako bazkarian, bertso koadrilako argazkia.

IRAULIO PANTTALONE

Hainbat ekintza antolatzen hasi ginenean, Joxe Luis Urdangarinek proposatu zuen hobe zela helduen taldeari izen bat jartzea (Iraulio Panttalone) ekintza horiek beregain hartzeko. Eta bertso eskolari beste bat jartzea (Paulo Ttikia), bereizteko.
[Estitxu Eizagirre]

Gauza berriak egiten hasi ginen. Horien artean urte bukaera eta hasiera artean antolatzen dugun Bertso-Lata, egun pasak, irteerak, bertso-antzerkiak beste herrietan, txapelketetara taldean joan, parrandak... [**Gorka Tolosa**]

Talde hark transmititzen didan sentsazioa da: zer irrika zeukan jende pila! Zenbat gauza egin dituen helduen talde horrek! Herrira begira edo barrura begira, gogoa zeukalako. Oso talde bizia izan da. Energia handia ematen du talde horrek. [**Itziar Eizagirre**]

Hasieratik erabaki zen herrian antolatzen ziren ekimenetan norberak bere izenean parte hartu edo atxikimendua emango zuela, baina taldeak ez. Aziertoa izan zen, horri esker oso pentsaera ezberdineko jendea primeran moldatu gara eta ez dugu bertsoa ez zen eztabaidetan denbora askorik galdu. [**Estitxu Eizagirre**]

Helduen Bertso Eskola.

HELDUEN BERTSO ESKOLA

Oxan, Tani, Bixenta, Zirilo... taldea dezentea zen.

Irakasle Unai Agirre, Jexux Mari Irazu eta Maialen Lujanbio izan genituen. Joxe Luis Urdangarin hurrengo urtean izan zen.
[**Joxe Angel Oiartzabal**]

Paperean sorta bat idatzarazten ziguten. Mejora beti nabaritzen zen.
[**Mikel Iturbe**]

Hernanin bertsoen orbitan jende asko ibiltzen zen, asteburutako parrandatan bertsotan hasten zirenak, edo hasiko liratekenak, bertsoak jartzen ikasi nahi zutenak... Hernanikoak: Arruti, Iturbe, Joxeangel, Oscar, Zirilo,... Astigarragakoak: Garmendia, Urko, Txini, Olaso, Goñi... Donostiako Sagastume...

Horiei laguntzeko antolatu ziren helduen bertso eskolak. Maialen Lujanbio eta biok aritzen ginen laguntzen. Primerako giroa sortzen zen. Bigarren-hirugarren egunerako, gaizki ateratakoan inork parrik egiten ez zuela ikusirik, lotsak galduta denak animatzen ziren azkenean kantura. Ez zen bertso eskolan umeekin aritzea. Jendeak kantatu egin nahi zuen, bere burua probatu. Askoz ikasle saiatuagoak ziren, garbi zuten zertara zetozen. [**Joxe Luis Urdangarin**]

GAZTE SARIKETAK

Lauaxeta saria antolatu zuten eta finala Mungian jokatu genuen Iñaki Murua, Millan Telleria eta abarrekin. Ernest Alkatek eraman zuen txapela. Izugarrizko beroa egiten zuen eta kartzelako lanerako kamioneta batean ezkutatu gintuzten, toldo azpian. Hori aski ez dela, ez entzuteko ez ziguten bada kamioneta arrankatu! "Hemendik bizirik irtetea nahikoa egingo diagu!" esaten nion Muruari. [**Joxe Fermin Argiñaren**]

90eko hamarkadako urte haiek izan ziren bai sariketetan, bai bertso eskolan eta bai plazan gehien ibili ginenak. Bi hilabetera beste sariketa batean parte hartuko genuen, eta sei hilabete lehenago beste batean, kate horretan sartuta geunden. Orduan, gainera, bertsolari kopuruagatik, aukera gehixeago izaten zen sariketetan parte hartzeko. [**Iñaki Zelaia**]

Aurreneko Lizardi sarian parte hartu nuenean Hernanitik hamar-hamabi joan ginen kantatzera. Geroztik igual hamar aldiz aterako ginen. Beste sariketak ziren Orixe, Osinalde, Xenpelar... batzuetan parte-hartzea libre izaten zen eta beste batzuetatik deitu egin behar zizuten. Libre zenetara denok joaten ginen. [**Jon Iraola**]

Xenpelar sarian.

Osinalde eta Lizardi ziren guretzat fijoak eta motibazioa haiek ematen ziguten. Dexente preparatzen ginen, Lizardi uda bukaeran izaten denez eta udan denbora asko genuenez, bertso eskolako lokalean mila aldiz biltzen ginen Joxe Anjel Aranburu eta biok. [**Agin Laburu**]

Eskolarteko Txapelketen garaia bukatu nuen egunean, aurrean amildegi bat neukala sentitu nuen. Urtero daukazu plaza bat aseguratua, Eskolartekoa, eta bukatzen da eta dena da lainoen gainean ibiltzea bezala, ez dakizu hurrengo pausoa non eman behar duzun edo zer egin behar duzun. Urte hartan deitu zidaten Lizarditik lehenengo aldiz, eta hor jada ikusten duzu bide bat egiteko aukera daukazula. [**Beñat Gaztelumendi**]

Osinaldeko final batera joan eta han dagoen giroa, bertsolarien artean ere sortzen dena (saioa bukatu eta denak puntuka hastea), magia hori Eskolartekoan ez dago, hori gero hasten zara bizitzen. [**Beñat Gaztelumendi**]

Eskolarteko azken urtean ondo egin baduzu eta izen pixka bat hartu baduzu, gero sariketetatik deitzen dizute. [**Unai Gaztelumendi**]

Oso egokiak dira kantatzeko. Mikel Laboa saria antolatu berri da Antiguon eta gustura kantatu dugu. Aztiri eta Gabiriko saioetan ere bai, Plazatik Gaztetxera sariketan ere bai, Erniarraitzen ere bai, Gasteizen Bertsokatu egin izan da azken urteetan eta gaztetxean egin zen finala ederra izan zen, jende asko bildu zen... [**Asier Azpiroz**]

Biltzeko balio dute. Abuztu bukaeran Lizardi Saria dagoen aitzakian biltzen gara udan zerbait kantatzeko. Bertsolari gisa gehiago egiten zara: desberdin kantatuko duzu Gabiriko elkarte batean edo Algortan, nahi gabe aldatzen duzu bertsokera, eta hizkuntza asko. Kantatzeaz gain afaltzera joaten zara, eta ezagutzen ez dituzun beste bertsolariekin tratuan egon behar duzu, antolatzailearekin... asko ikasten duzu, jarri egiten zara. [**Asier Azpiroz**]

LIZARDI SARIA

Azpeitian basoan ari ginen lanean eta Uztapideren ilobarenean (Pakita Agirre Gabiria Olaizola) genuen ostatua. Egun batez deitu zidan Lasarteko Artetxek (Miren Artetxeren aitonak). Nonbaitetik jakin zuen nafarren bat bazela bertso munduan, eta ez dakit nondik topatu ninduen. Eta esan zidan: "Fermin, Patxi Larrañagak deitu dit Zarautzen Lizardi saria antolatu duela eta zure izena eman dut. Eta ez dizut baimenik eskatu gainera! Joan egin behar duzu!" "Baina, baina zer egin duzu! Nik ez dakit hori zer den ere eta!". Nik inori ez nion esan. Ez anaiari, ez Pakitari... Afaldu genuen eta Zinemara. Zineman hor ikusten ditut Imanol Lazkano, Sebastian Lizaso... esaten nuen "hi nora ostia etorri haiz hona? Zer egin behar duk hik hemen? Alde egin ezak hemendik!". Joxe Mari Iriondo, Joxe Mari Aranalde... haiek ikusi nituenean eskema guztiak hautsi zitzaizkidan. Kantu-lagunak nituen Millan Telleria, Zelaiatarrak... hasi ginen eta nik ez dakit zer egin nuen, oraindik ez dut sinisten txapela nola jantzi nuen. Ni lotsatu, eman zizkidatenak hartu eta Meagatik aurrera nindoala nire kasa esaten nuen "Fermin, gaur zer kristo egin duk hik?". Anaia ez nuen esnatu ere egin eta mesillaren gainean utzi nituen sariak, ez neukan non utzirik eta. Biharamunean esaten zidan Pakitak "atzo zer egin duk? Isilik egin dituk gauzak hik! Non ibili haiz?". Ni berriz lotsatuta. [**Joxe Fermin Argiñarena**]

Lizardi sari batera ikustera joan nintzen. Uholdeak izan ziren, 1983koak igual izango ziren. Hainbeste hildako... Anatxek bukaeran bota zuen:
ez dakit Jainkoa oporretan edo zer dagoen...

Txapelarekin zer egingo duzu? eta Anatxek:

Bihar goizean behiaren buztanak jo ez nazan, buruan jartzeko ondo etorriko zait!

[**Iñaki Aranzadi**]

1989 inguruan izango zen. Urtero bagenekien Lizardi sarian parte hartzeko Zarauzko kultura zerbitzura deitu behar zela, bagenekien gutxi gora behera Euskal Festen inguruan izaten zela, eta urte hartan deitzeko ardura nirea zen, deitu nuen eta "Lizardi sarian izena emateko aurten?" irailaren hogeitapikoan zela izena emateko epea. Besteei esan nien "Aurten beranduago duk Lizardi", eta gu lasai. Andoni Egaña orduan antolatzen ibiltzen zen, eta telefonoz deitu zigun "aizue, ez al duzue parte hartu behar? 5 parte-hartzaile bakarrik daude eta Hernaniko koadrila osoa falta da!". Hernanitik 6-9 joaten ginen, eta hutsunea nabaritu zuten. Orain kontuak aldatuta daude, baina orduan antolatzaileek deitu ziguten parte hartzeko. [**Iñaki Zelaia**]

1990ean, Eskolarteko Txapelketan Jon Maia eta Joxe Munduate zebiltzan puri-purian, txapel guztiak eramanez txandaka. Eta urte hartako Lizardin bigarren sartzeko aukera izan nuen, bien tartean. Postuari lotutako pare bat saio baziren, "bi lehenengoentzat". Gogoratzen naiz Jon Maiarekin Errenterin egindako saio batekin. Osinalde sarian kantatu ondoren ere saioren bat egin nuen. Baina gainerakoan ez dut nabaritu sariketen ondorioz saiotarako deitu didatenik. [**Iñaki Zelaia**]

Lizardi sarira joan, igual finalera pasa eta han egur handiagoa hartzen genuen... hurrengoan ez ginen lehen saiotik pasatzen, hurrengoan berriz finalera, "hark nik baino gutxiago merezi zian"... esanda aurrera! Jarraipena emateko balio zuen, elkarrekin biltzeko aitzakia izateko, ea zerbait hobetzen genuen (okertzea zaila izaten zen eta!). [**Iker Osa**]

Lizardiko kanporaketa, 16 bat bertsolari ilaran jarri eta sei bertsora jokatzen zen, kara edo kruz. Seina bertso bota eta zortzi apartatzen ziren. Han zen Ekaitz Goikoetxea, eta ni baino lau-bost urte zaharragoa zen jendea, telebistan ikusia nuena... han azaldu nintzen lehen txapelketara, bixkiek (Itziar eta Estitxu Eizagirrek) eramanda eta bertsolari haien artean saio ona atera izanak asko poztu ninduen. [**Joxe Anjel Aranburu**]

Lizardi sarian bixkien tranpa (1998an)

Finaleko egunean bertan, ahizpa eta biok saioa erdibana egitea okurritu zitzaigun, 1991ko Jon Sarasua gogoan, txapelketekiko gure desadostasuna azaltzeko. Ni Itziarren arropekin atera nintzen (inork ez zekien bere arropa zenik, baina guk bai) eta bera nireekin, eta bakoitzak bestearen izenean hasi genuen saioa. Kartzelako lana iristean, komunetan arropa goitik behera trukatzea zen asmoa eta orduan saioa bakoitzak bere izenean kantari bukatuko genuen, beraz, puntuazioak nahastu egingo ziren, eta ez zuten ezer balioko. [**Estitxu Eizagirre**]

"Itziar Eizagirre" esaten zutenean Estitxu altxatzen zen eta gertuko jendea ere ez zen konturatzen. Ikusi nahi genuen bukaeran aldaketa egindakoan ere ea hango ezagunei ziria sartzen genien. [**Itziar Eizagirre**]

Suerte txarra izan genuen, niri tokatu zitzaidalako lehenbiziko kantatzea. Ez neukan kartzelara ateratzerik eta ezin genuen aldaketa egin. Lehenbiziko ofizioa elkarrekin tokatu zitzaigun eta bertso guztiak hasten genituen nik "aizu Estitxu" eta berak "baina Itziar", txiste horrekin. [**Estitxu Eizagirre**]

Gaia: Uda honetako gaia izan dugu dopinarena, Tourrean hasiz geroztik atertu gabe dabilena, dena susmagarri bihurtzeraino. Bertsolaritzara ere iritsi omen da susmo gaiztoa; bertsolari batzuk dopatu egiten omen dira bertsoak errazago botatzeko edo. Zein da zuen iritzia, ustea, susmoa edo dena delakoa.

"I. Eizagirre":
Nahiz ta dopinak lagun dezakeen
garunak berotu arte,
publiko dena engainatzea
ez al litzateke kalte?
Nik ez det hartu sekula eta
zuk ere ziur ez bate,
pixkat hartuko bazenu Estitxu
ni aina baizinateke.

"E. Eizagirre":
Zu bezelaxe daukat Ixiar
berezkoa eta sena,
buru barrua bixia eta
mingainan sobra kemena.
Amurizaren hiztegia da
gure dopinik onena,
sobredosirik ez dut hartu gaur
eta hori daukat pena.

"I. Eizagirre":
"Amurizaren hiztegia baino
hobeagorik ez dago";
esan didazu bat-batean ta
ni harritu naiz zeharo.
Hartu behar det haxixa edo
egin patxaranai trago;
bere rollorik ez det ulertzen
dopatuta ez banago.

"E. Eizagirre":
Haxixak ditu, Ixiar maite,
ondorio garestiak,
biharamuneko aje itzelak
ez baitira hain eztiak.
Bertsoak ondo botatzen ditu
nere ondoko bixkiak,
telepatiaz kentzen baitizkit
nere ideia guztiak.

"I. Eizagirre":
Ez al degu egin adierazpen
guk moralista xamarra?
Ondo pentsatzen hasi ezkero
daukat zuzendu beharra;
azken batean pixkat hartzea
ezin da izan hain txarra
ta ea teak baretzen didan
hankean dudan dardarra!

"E. Eizagirre":
Ixiarrek du bere hanketan
izan ere dardar pranko;
mikrofonoa botatzeko're
ez zaio falta izan asko!
Hartu ezazu jeringilla bat
ta jarri txokoan bapo,
zainetan sobra nerbiua ta
odola sartu beharko.

Itziarrek, (alegia "Estitxu"k) kartzelako lanarekin irabazi zuen bertso onenaren saria. Eta "Estitxu" (alegia, Itziar) bigarren geratu zen, beraz, gure tranpa egin bagenu, "Itziar"en saioa "Estitxu"ren kartzelarekin batuta, txapela erdibana hortxe hortxe izango genuen. [**Estitxu Eizagirre**]

Kartzelako gaia: Iragarki bat dator egunkarian, hauxe dioena: "Afrika. Primerako gidari bat behar dugu, paterak Europara fundamentuz eramango dituena; dirua ez da arazo".

Hondoa jota dago Afrika,
helburua dute goia;
gosea eta bizi beharra
migrazio arrazoia.
Baina Europa urrezkoa're
ez da hain lurralde doia,
bistan baitauka dizdira baina
bere barruan da lohia;
diruak ez nau inoiz egingo
heriotzaren patroia.

Europa aldeko politikoek
asko egin dute hitza:
"behar da mundu justua eta
behar da mundu anitza";
baina Afrika zuzendu dute
euren eraso bortitza;
dirua dute helburu eta
han kentzen dute bizitza;
Afrikan dago altxorra baina
Europa da haien gaitza.

Nik kantatu nuen Estitxuren izenean, eta "bertso onenaren saria, Estitxu Eizagirrerentzat" esan zutenean bera altxatzera zihoan eta "mekaben.." esaten nion. [**Itziar Eizagirre**]

ENTZULEEN SARIA

Osinaldeko sariketara entzule joan nintzen eta Joxe Anjel Aranburuk saio oso ona egin zuela gogoratzen naiz, niretzat nabarmena zen irabazi zuela. Gabiri bertsozalea izanik eta Joxe Anjelen bertsokerarekin, "ba, fijo irabazi duela" pentsatu nuen. Papera eman ziguten entzulearen saria nori eman idazteko eta erabaki nuen "nola Joxe Anjelek irabaziko duen, Oihana Bartrari emango diot entzulearen saria". Eta Oihana Bartrak irabazi zuen Osinalde eta Joxe Anjelek entzulearena. Harrezkero ez dut kiniela askorik egin. [**Agin Laburu**]

1993-04-24 Gabiria Sariketa

Zuek hiru hizki edo hiru letra zarete, hiru bokal hain zuzen. Unai Agirre A hizkia; Iñaki Zelaia E; Jexux Mari Irazu I. Defenditu bakoitzak zuen hizkia.

U. Agirre:
Orain hasi behar det
gure gai petrala,
I hizkiak burua
aidean duala,
eta E-k hiru hanka
martzianok bezala,
A hizkia izango da
ona ta normala.

I. Zelaia:
Abezedarioak
badauka indarra,
jendeak erabiltzen
digu barra-barra,
baina nere kasoan
ez al degu txarra
beti honen atzetik
ibili beharra?

J.M. Irazu:
I hizkiak'e badu
bere garrantzia,
hitz batzun esanahia
ez daukat ahantzia,
kristau izpiritua
gure iritzia,
Iparraldea eta
Independentzia.

U. Agirre:
Irazuk gaur kristona
bota du erdira,
baina ni hasiko naiz
berari begira,
hor nik ere garrantzi
latza daukat, tira,
bi hizkiak A-rekin
bukatzen baidira.

I. Zelaia:
Ordena aldatzeko
ez daukagu betik,
horragetikan ez det
beztuko kopetik,
E hi motel ze habil
esanaz kolpetik,
kasu horretan nago
Irazun aurretik.

J.M. Irazu:
Unai izanagatik
nahiko hitz zabarra,
I-an bukatzen zaigu
hori ez da txarra,
eta gainera daukak
onartu beharra,
Txirritak bi I zeuzkak
eta A bakarra.

1997-09-05 Zarautz Sariketa

Iker Osa eta Iñigo Mantzizidor "Mantxi". Zuek biok paparazziak zarete, elkarren oso lagunak eta sozioak gainera. Joan den asteburuan ere elkarrekin ibili zineten Parisen Lady Diren atzetik. Argazkiak ere egin zenizkioten, baina bakarra ondo, zuk, Iker, atera zenuen bakarra. Mantxik karrete osoa gastatu zuen, baina oso-osorik hondatu egin zitzaion. Orain, arazo bat duzue: ondo ateratako argazki horretan garbi asko ikusten dela Mantxi Lady Diri argazkiak ateratzen.

I. Osa:
"Paretik kendu zaite",
hala esan nizun,
nere lanari nahiko
nioke erantzun.
Garesti salduko det
argazkia, entzun,
eta zuri auskalo
zer pasako zaizun.

I. Mantxi:
Hirugarren bat badet
aipatu beharrian,
parian jarri nintzen
ni modu txarrian,
diana egin zendun
modu earrian,
bestia nik egingo det
zeure muturrian.

I. Mantxi:
Argazkia atera
zenuen konpleto,
bertan azaltzen bainaiz
hanka eta lepo.
Gainera asmoekin
zabiltza saltzeko,
nik galdu behar al det
zuk irabazteko?

I. Osa:
Lana ondo eginda
baztertu ohi naute,
hala ta ere zuek
jatorrak zerate.
Salduko nizuke nik
nahiko bazenduke,
argazkiaren puska
milioi batzun truke.

I. Osa:
Ametsa betetzeko
baneukan aukera,
betean asmatu det
gutxi gorabehera.
Txantajea egin nahi-ta
posible ote da,
diana bat atera nahi
eta bi atera!

I. Mantxi:
Argi dago, ez zera
lagun mundiala.
Gogoan det Diana
eskubian zala,
ta zuk ezkerraldera
bota berehala,
lehen ere esan nizun
tika zeneukala.

2000-04-15 Gabiria Sariketa

Zuk, Estitxu Eizagirre, Gabonetan zure kanpin-denda utzi zenion Eñaut Agirreri eta orain, Aste Santurako behar duzula eta eskatuta itzuli dizunean, konturatu zara ez dagoela erabiltzeko moduan.

E. Eizagirre:
Kanpina nola dagon
ez al da ezagun?
Gaurtik aurrera Eñaut
nik ez zaitut lagun;
kanpinakin zer kristo
ote zinen jardun...
barrikadan erdian
akanpau al zendun?

E. Agirre:
Ernio alde hortan
joera epela,
badakizu mutiko
formala naizela;
ta esan zenidanez
fiatzen zinela,
ibili det neria
balitza bezela.

E. Agirre:
Lagunakin gustora
akanpau Ernion
ta hara gure lagunak
hasarre zer dion!
Lehenago erreparatu
biharko zenion
zeini ta zertarako
utzi behar zaion.

E. Eizagirre:
Besteren kanpinakin
egiten du plana,
dana txikitutzeko
daukazu afana.
Zuria balitz bezela
didazu esana,
neri ekarri beste bat
zuria ez dana.

E. Eizagirre:
Lehendik ezagutzen det
Ernio mendia,
hara juateko sarri
daukat egarria;
han zer ibili zinan
dizut igarria:
barillekin egin zun
gurutze berria.

E. Agirre:
Aizu nere esanak
kontuan har itzazu,
nik behintzat zuriari
ez diot eingo kasu;
oso neska formala
ta ona zera zu,
hurrungo urterako
konpondu ezazu.

2001-04-08 Donostia Sariketa

Zu, Unai Agirre, ez zara kristaua; eta hala, datorren Ostegun Santuan eta Ostiral Santuan lanera joango zarela esateko asmoa duzu Iñaki Zelaia nagusiari.

U. Agirre:
Aste Santutan dator
hamaika albiste,
baina hainbat prozesiok
ipintzen nau triste.
Hola gerauko danik
ez zazula uste!
Nahiz langilea naizen
ni jai eta aste,
udaran egun gehigo
hartu nahi nituzke.

I. Zelaia:
Dirudienez zaude
jai egin penetan,
ta udara daukagu
laister hemen bertan.
Zurea xelebrea
ez al da benetan?
Lan egin nahi dezula
Aste Santuetan,
gero golperik ez jo
egun normaletan!

U. Agirre:
Bainan egin dezagun
nagusi, tratua,
eta ez zaitez izan
hain gizon kaikua.
Orain lan egin nahi det
alajangoikua!
Bestela gutxi eta
dago etsitua.
Urtean behin eitea
ez al da nahikua?

I. Zelaia:
Nere ustez badezu
buruan haizea,
egun bat lan egin ta
a ze balantzea!
Ta Aste Santuan nahi
hona azaltzea,
prozesio hoiekin
ba omen da trantzea,
ez da beharrezkoa
elizan sartzea.

U. Agirre:
Bainan telebistatik
entzun nun noizbaiten,
nundik botako duten
zaila da jakiten.
Neri ate guztiak
nahi dizkidazu eten,
lan ein nahi detela ta
ez jarri irakiten,
zuk urtean behin ere
ez dezu egiten.

I. Zelaia:
Oporretarako zuk
ez dezu egin plana
ta lanerako dezu
zuk kriston afana.
Alperra naizela ta
gaur zatoz nigana,
zuk ondo badakizu
egiten dedana,
zu lanean jartzea
baita nere lana.

2006-09-01 Zarautz Sariketa

Hitza: Mahaia.

Agin Laburu:

Esaten dute pasa dirala
momenturik gogorrenak
baina askotan ez du barkatzen
hemen denboraren trenak;
batzutan bide okerrak dira
eta gutxitan zuzenak
baino prest gaude gehienak.
Mahai bat osatu behar degula
nahiz eta dion barrenak
mahai horrek hanka gutxitxo dauzka
eta dauzkanak herrenak.

Alperrik galdu dira gaur arte
hamaika aukera ear:
Arjelekoa, Garazikoa
jadanik gelditu da zahar;
ta orain degun bidea ere
nahiz ta dagon ilun samar
ez al da aukera bakar?
Nahiz ta dituen hanken gainean
nik hitz egin dedan azkar
mahaian gainean jartzen dutenak
egingo du on edo txar.

Nahiz konfidantza haundiegirik
ez dedan nik askorengan
nahiz konfidantza eskatze'utenek
lagun asko sartu ziegan
baina konpondu behar omen da
gaur egun dioten eran;
batzuen ustez primeran.
Nik ere danak eseritzea
nahiz ta nahi nukeen aukeran
iruditzen zait aulki bat edo
beste badala soberan.

2008-09-05 Zarautz Sariketa

Zu, Alaia Martin, museo bat ikustera joan zara, eta aurreko paretan dagoen koadro zuri-zuri bat ulertu nahian zabiltza. Alboan daukazu Unai Gaztelumendi, koadroaren egilea.

A. Martin:
Museoan barrena
nire pasioa
koadro honek faltan du
igual akzioa.
Eman zazu mesedez
zure lezioa.
Holako zerbait al da
inspirazioa?

U. Gaztelumendi:
Horrela al zabiltza
museora helduta?
Ezjakintasun hori
ezin dezu ixkuta.
Ridikuloan zaude
ez da nere kulpa
kuadroak ere parra
egiten dizu-ta!

U. Gaztelumendi:
Zuri esplikatzea
da nere asmoa.
Elur paisaje bat da
azaltzera noa:
ez dezula ulertzen
da nere susmoa
oraingo eskimalen
inpresionismoa.

A. Martin:
Ausardia behar da
hona ekartzeko
ausardia lan latz hau
sakrifikatzeko.
Falta al zaizu puntu
zu konturatzeko?
Ez dela horren zaila
faltsifikatzeko.

A. Martin:
Nahiz arretaz aditu
Unai zure hitzak
abstraktuak dira-ta
ezin hartu aintzat.
Hobeto bereizteko
horko elur printzak
elur panpin bat jarri
iezaiozu behintzat!

U. Gaztelumendi:
Bale! Marrazki huts bat da
ezin zan bestela.
Jakin zazu artista
alfer bat naizela
baino ez izan tontoa
ez izan ergela
buruakin hola ein
guztiek bezela.

2009-09-04 Zarautz Sariketa

Uxue Alberdi-Agin Laburu: Basektomia egitera joan zarete ospitalera, eta zain zaudete itxarongelan. Atea zabaldu eta hurrengoa nor den galdetu du erizainak.

A. Laburu:
Honaino etorri naiz
ausardiz gainezka
baino a ze zalantza
beldur eta kezka!
Medikua hor dabil
"Hurrena?" galdezka
hurrengua ni banaiz
hurrengorik ez da!

U. Alberdi:
Neria ja bildu da
beraren baitara
txikia espero behintzat
hor dutela laga
behintzat hori galtzea
ere ez da traba
jadanik badauzkat ta
sei seme-alaba.

U. Alberdi:
Neri're graziarik
ez dit ba ematen
eta hementxe nago
nerbioak jaten!
Korapiloa egin,
iturria eten...
Ea gizontasuna
kenduko didaten!

A. Laburu:
Batek joan bihar eta
ze erremedio
lehenbiziko pausua
zintzo demonio
beldur gehio pasako
bainuke dedio
andriai "Ez det egin"
esango banio!

A. Laburu:
Baino oraindik ezin
degu entenditu
gorputzian bi bizi
nola ez kabitu?
Ez al daukazu penik?
Begitu! Begitu!
Gure lagun txikiez
nola despeditu?

U. Alberdi:
Bai nik ere badaukat
nahiko konpromisu
ta zure egoeran
ni nago berdintsu:
ez egin ta etxera
juteko naiz izu
ze igual orduan berak
ebakiko dizu!

2011-09-02 Zarautz Sariketa

Odei Barroso-Asier Azpiroz. Zuen buruaz beste egiten saiatu zarete biok, baina ez duzue lortu. Larrialdi zerbitzuan zaudete orain, elkarren ondoan.

A. Azpiroz:
Aldez aurretik whiski bat eta
kubata on bat hartua
zazpigarrengo pisura igo
itxuraz nahiko altua
salta det eta ez naiz akatu
nolakoa den patua!
Zeinek arraio jarri du hemen
pago madarikatua?

O. Barroso:
Baina adarrak ekar dezake
zure ta bere haustura
lehen ez ginen pozik ibilki
orain ez gaude gustura
estu ta larri nago hementxe
ta bat-batean barrura
neska-laguna espero eta
erizaina agertu da.

O. Barroso:
Zure buruai bota errua
ta ez bota pagoari.
Ustez hiltzea izanen zela
zorionaren atari
hemen esnatu ta ikusi dut
nahiko garbi nahiko argi
larrialditan kableek eusten
diotela bizitzari.

A. Azpiroz:
Ospital hontan kaso ugari
a ze nolako trantzea!
Alboko gelan neska bat hilda
familian gurutzea.
Gure bizitza nolakoa den
nik nahi nuke galdetzea
hil nahi degunok bizirik eta
bizi nahi dunak hiltzea.

A. Azpiroz:
Andreak atzo utzi ninduen
ta bi semeek ere bai
langabezian nago aspaldi
neretzat egunero jai.
Nere pagoa aipatu det lehen
ta oraingo honetan ai
adar hontatik zintzilik ez det
askoz gehiago segi nahi.

O. Barroso:
Heriotzean bizitzak nola
hartu dezake atsegin?
Zuk zazpigarren pisutik salto
ta oraindik berdin-berdin.
Hemendik irten ta berehala
berriz behar dugu egin
zuk zortzigarren pisutik eta
nik soka lodi batekin.

EUSKAL HERRIKO GAZTE BELAUNALDIA

Orduan gazte berriak sortzeko bolada zegoen, gero pixka bat kupoa bete da. Suertea izan nuen garai horretan tokatuta. **[Jexux Mari Irazu]**

Gu oso garai jakin batean atera ginen, neska gutxi zeuden garaian, eta pixka bat "behartu" ere egin zen gure plazaratzea. Ez neskena bakarrik, gazte belaunaldi baten premia zegoen. Eskolarteko Txapelketan nabarmentzen zirenekin zerbait egiteko gogoa zegoen. Horregatik hasi ginen plazatan gutako batzuk hain gaztetxotan. Prozesu naturala azeleratu egin zen. **[Maialen Lujanbio]**

Bakar xamarrik sentitzen nintzen, gizonezko heldu artean, bertsolari oso onekin... baina aldi berean leku guztietan jende gaztea ateratzen ari zen plazara. Unai Iturriaga eta Igor Elortza, Estitxu Arozena, Jexux Mari Irazu beranduxeago ezagutu genuen... eta hor gazte talde bat sortu zen, guretzat askoz naturalagoa zena. Gure mundua konpartitu ahal izatea oso inportantea izan zen niretzako. Antolatzaileak ere gazte saioak egiten hasi ziren... babes horretan eman nuen aurrera jarraitzeko pausoa, gazte talde hori klabea izan zen niretzat. **[Maialen Lujanbio]**

Jendearentzako oso efektista zen: ni 15 urteko gaztetxoa, neska, eta munstro horiekin, bertsolari hain eginekin kantatzen ikustea. Baina ez zen batere erreala. Eta leku batean bi aldiz gertatu zitzaidan pasarte desagradable bat: kantatzeko deitzen zidaten baina saioa baino lehen deitu izan zidaten "beno ba gaiak esango dizkizut...". Iraingarria zen. Kantatzeko ez badaukat mailarik bada ez deitu. Baina ez eraman ni han itxura egitera eta saioa edertzera, eta aurretik gaiak esaten ibili. **[Maialen Lujanbio]**

Garai hartan "bertsolari gazteen plaza" zegoen. Geroztik "gazte" asuntoa aldatu da, gurea luzatu egin da, aurrekoek oso goiz utzi zutelako. Gu 23 urterekin gazte ginen, eta 30 urterekin ere gazte izaten segitzen genuen. Ni 25 urterekin harrapatu ninduen olatuak, Jon Maia, Unai Iturriaga eta hauek ere bai, eta pixkanaka erantzukizun maila igotzen zioan, baina pisua oraindik lehengoengan zegoen, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Iñaki Murua eta jende horrengan, 2001 arte behintzat. **[Jexux Mari Irazu]**

BERTSO-LATA

HASIERAN, ERREGE EGUNEKO SAIOA

1992an egin genuen lehen Errege eguneko bertso saioa eta 1996an azkena. Ondoren Bertso-Latarekin hasi ginen.

1990eko irailean hasi nintzen Hernaniko Udalean lanean. Euskara Zerbitzua sortzea erabaki zuen garai hartako Udalak (Agustin Ezponda zen alkate eta Koro Etxeberria kulturako zinegotzi). Euskara teknikari lanpostua sortu zuten, baita administrariarena ere (Marian Apezetxea). Alkate eta zinegotzi horiek sentsibilitate handia zuten euskararekiko eta dinamika eta ilusio handia zegoen. Bertsolaritza sustatzea oso gogoan zuten eta harreman estua zuten, gainera, bertso munduan tiraka zebiltzan Juanjo Uria eta horiekin. Joxe Legarreta saria ordurako sortua zuten, eta bertsolaritzaren inguruan ari ziren gauzak antolatu nahian. Bertso-eskolak diruz laguntzea ere garai hartantxe kokatu behar da.

1991ko maiatza-ekainean amaitu zen legegintzaldi hori eta Joxean Rekondok hartu zuen alkatetza. Euskara arloaren ardura, berriz, EAJ-k, Iñaki Eizmendik, zehazki. Lehen egunetik bi helburu jarri zituen: Udal Euskaltegia egitea eta bertso eskola bultzatzea, tartean, saio handi batekin.

Hor hasi ginen Errege eguneko saioa antolatzen.

Bertso-eskola laguntzaile genuen orduan. Udala zen antolatzailea: Kiroldegia erabiltzeko baimenak tramitatu, bertsolariei deitu, tabladua apaindu Sandiusterritik ekarritako lore lehorrekin... Bertso eskolak laguntzen zuen bertsolariak hautatzen, eguna antolatzen, propaganda zabaltzen... Bertsolariak hautatzeko irizpide bat zen haietatik bi hernaniarrak izatea.

Legealdia etorri legealdia joan, kolore batekoak zein bestekoak, modu folklorikoagoan batzuk, euskararen sustapenarekin eta normalizazioarekin lotuago beste batzuek, denek bultzatu dute bertsolaritza Hernaniko Udaletik. Urterik galdu gabe egin da geroztik zita hori (Errege egun, bezpera edo inguruan). [**Malores Etxeberria**, Hernaniko Udaleko euskara teknikaria]

1992an zen lehenengoz Errege eguneko saioa, eta Lazkao Txikirekin kantatzeko ohorea izan nuen. Niretzat izugarria izan zen, gainera saioa baino lehenago hamaiketakoa egitera joan ginen, eta berak girotu gintuen. Kiroldegiko frontoian izan zen [**Joxe Luis Urdangarin**]

1994an Galarretan antolatu genuen saioa. Andoni Egañaren bertso gogoangarriak tarteko. Egaña kantatzen ari zela, komunetik bueltan edo zetorren emakumea erori da frontoiko eskaileretatik behera estropezu eginda, eta Egañak, aukera ederki aprobetxatuta, harekin eman zion amaiera bertsoari. Entzuleak algaraka eta emakumea, zorionez, onik.

[**Malores Etxeberria**, Hernaniko Udaleko euskara teknikaria]

1992-01-06 Lehen Errege eguneko saioa.

Joxe Mari Arrieta aritu zen gai jartzen. Eta kantuan: Joxe Miel Iztueta "Lazkao Txiki", Jon Sarasua, Joxe Mari Mujika "Anatx", Joxe Luis Urdangarin, Gregorio Larrañaga "Mañukorta" eta Jon Lopategi.

Lazkao Txiki eta Anatx, Aitona bilobak zarete. Joxe Miel urteak aurrera joanda, lanerako gauza ez dela gelditu da. Eta hor ikusi du berak hainbeste aldiz astindutako atxurra erdoia jotzen hasia dela.

Lazkao Txiki:
Ustekabean iragaten da
munduko aldi laburra
eta guk izan degun bizitza
ez zan bizio xamurra
nere iloba hazi da eta
egiten diot agurra
ni zahartu nauk ta orain hartu zak
nik utzitako atxurra.

Anatx:
Zuk utzitako atxurra hor det
erdoiturikan ikusi
aitona entzun zazu, mesedez
arrazoiez nahi det hasi
horrekin lana egitea gaur
nola ez duan merezi
atxurrarekin ezin liteke
ogirikan irabazi.

Lazkao Txiki:
Gazte maite hau atxurrarekin
haserretuta dago aurrez
nik eskainita laister jarri da
bera hartzeko beldurrez
zoritxarrean gure mende hau
beterik dago alperrez
atxurrarekin ezer ez zegok
ta egin gabe ezer ez.

Anatx:
Aizu, aitona ez zaitez jarri
haserre edo berua
atxurra ez da zure ilobak
maite duan jenerua
gure etxean oraindik ere
atera leike gerua
traktoretxo bat erosi nahi det
eman zaidazu dirua.

Lazkao Txiki:
Ta aitonari diruan eske
gaztetxoa azkenean
ni horrekintxe aritua naiz
oraindaino bitartean
zuk sobra ezin badezu nola
sobra nik atxur lanean
ta traktorea erosi zazu
zeuk sobratzen dezunean.

Anatx:
Behin behar eta nere aitonan
arrazoia gendun ona
bainan gaur zaila hor atxurrari
atera behar zaiona
barkatu baino esango dizut
orain pentsatzen nagona
kalera noa, geldi zaitezte
atxurra eta aitona.

Lazkao Txiki:
Nere iloba harro xamar hau
zertsu ari zait esaten?
Zuk uste dezun dena ez erraz
baserrietan izaten
txiki izanda haundi nahi horrek
ez du ederki ematen
obispo egiten ere zaila da
apaiza izan baino lehen.

Anatx:
Segitu ere egin beharko
gu zer ginake bestela?
eta aitona zure iloba
aditu ezazu bela
lehen berak zion atxurrarekin
ezer egin ez duela
eta iloba nahi al zenduke
zu izan zeran bezela?

Lazkao Txiki:
Nere gazte honen etorkizuna
nik ikusten det iluna
pena bat daukat nere sasoia
aspaldian dala juna
zuretzat gero etorriko da
ta bildurtu da aitona
atxurra eta pala dirade
gu hondatuko gaituna.

Anatx:
Arrazoi pixkat badu aitonak
ilobatxoa ikusita
gauz berriari orain gazteak
egin nahi dio bixita
harrokerian mintza naiz baina
ez zaitez jarri etsita
berriz atxurra lodituko det
harrokeriak utzita.

1991ko Gipuzkoako bertsolarien txapela Jon Sarasuak irabazi baietz milioi erdi jokatu zuen Joxe Luis Urdangarinek. Orain topatu dira lehen aldiz.

Joxe Luis Urdangarin:
Ez nun espero berarengandik
bainan utzi nau horrela
txapela eskura zedukan eta
hauxen da ume txepela
ez nun egingo apusturikan
egin nuen bezain bela
jakingo banu txapelketetan
tongo egiten duela.

Jon Sarasua:
Nik tongorikan ez nuen egin
ta ez hasi ika-mikan
nik egin nuen denen aurrean
protesta bat bakarrikan
zerorrena da erru guztia
esango det zergatikan
bertsoa eta herri kirola
konfunditzeagatikan.

Joxe Luis Urdangarin:
Baina hala ere jokabidea
ez zait iruitzen justua
hau baiezkuan geratu zan da
luzatu zidan eskua
ta nun arraio daukagu orain
ordun eman zan jokua?
Hurrengo urteko txapelketan nik
Peñan alde apustua.

Jon Sarasua:
Hurrengo baten besteen alde
joka dezakezu lasai
neroni behintzat ez naiz sentitzen
txapela eramateko gai
ta deskuiduan arrisku hori
tokatuko balitz noiznahi
fama gehiegi gauza txarra da
eta neretzat ez dut nahi.

Joxe Luis Urdangarin:
Geroztik hemen egondua naiz
honek zer esango zun zai
pentsatu zazu egindakoaz
ni ez nagoela alai
gizajo batzuk txapelketa hortan
beti izaten degu jai
ta beste batzuk aukera izanda
txapelikan ez dute nahi.

Jon Sarasua:
Nolanahi ere aukera hori
ez zan gauza nabarmena
mentalidade jokozko horrek
ematen dit nahiko pena
saio batean ia edozein
izan liteke aurrena
ahaztu itzazu apustu hoiek
tontolapiko alena!

Egin dezagun kontu lehenengo haurra izatera zoazen neska soltera zarela.

Lazkao Txiki:

Ni hola utzi ninduen hura
gaur zein tokitan ote da?
Ni hemen nabil kuartoan bila
batera eta bestera
inork ez nau nahi ostatuz hartu
noan estalpe batera
gaur bi mila urte Maria juan
ta ibili zan antzera.

Jaio ordua ez dakit noiz dan
dan egunez edo gaba
halaz ta guztiz gaitzerdia da
ondo etorritzen bada
agian izan leike semea
ta izan liteke alaba
nolabait behintzat haziko al det
ondo etorritzen bada.

Nere mutilak leheno bazuen
santuak hainbat maitemin
ta berak nahi zituen guztiak
egin zituen nerekin
zer atsekabe etorri zaidan
bost minutuan atsegin
zakurrarena ein dit mutilak
hanka jaso ta aldegin.

Sevillan euskaldun gazte batzuk atxilotuta izan dituzte. Corcuerak eta Guardia Zibilek txakurrari bota die errua, kotxean atuna omen zeramaten marmitakoa egiteko, eta haren usainean atxilotu omen zituzten. Zer deritzozue?

Jon Sarasua:
A ze failoa egina duten
lau mutil gazteren kontra
nere ustetan Corcuerarenak
gehientsunak daude jota
kulpa zeineri bota behar zaion
asko ez zaie inporta
bi hankakoak failatu eta
lau hankakoari bota!

Joxe Mari Mujika "Anatx":
Sevilla hortan gertatu dana
ez da asunto txukuna
orain zakurrai errua botaz
dabil Corcuera jauna
harek berezi ez zitulako
bonba zan edo atuna
aitzaki danak onak dirade
kendutzeko euskalduna.

Joxe Luis Urdangarin:
Ta gainera maiz ibiltzen gera
hain egoera larritan
horregatikan hasi nahi nuke
ni Corcuerari erritan
orain Sevillan gertatu dana
ez da gertatzen urritan
atun usaina daukagu nonbait
euskaldunok bakarrikan.

Gregorio "Mañukorta":
Goseak dagon animaliak
maitatzen ditu hazurrak
ta hoien kulpa botatze hoiek
dirade gauza samurrak
lau euskalduni kulparik gabe
hor egundoko egurrak
ongi pentsatzen jarri ezkero
zeuek zerate txakurrak.

Jon Lopategi:
Euskaldunentzat mesfidantza ta
zakur batekin fedeak
zenbait familik izan zituen
pena ta miserereak
motibo gabe detenitzean
gazte musiko trebeak
holako asko sortuko ditu
Corcueraren legeak.

Lazkao Txiki:
Andaluzian txakurrarekin
dabiltza giza ehizian
hemengotarrei kalte gehiago
egin nahiaren haizian
eta goseak dago txakurra
jatenik eman ezian
aitzaki zeini emango zaio
denak zakurrak baizian.

Jon Sarasua:
Poliziaren lege berrian
guzti hoiek ondo daude
konforme dago PSOE eta
konforme da PNV
ta lege hori egin danetik
gure kalearen jabe
bazpare egon beharko degu
atunik probatu gabe.

Joxe Mari Mujika "Anatx":
Atuna jan zak baina atunez
ez juan Andaluzira
edo bestela Sevilla hortan
zer gertatu dan begira
lasaitasun bat etorriko zan
gu bizi geran herrira
hoiek etorri ziradenian
hola tratatu balira.

Joxe Luis Urdangarin:
Sevilla aldean beti daukate
registrotarako beta
oain euskaldunon aurka dabiltza
hartua diet arreta
arrain usaian eskusarekin
gaude amorruz beteta
arrandegitan kontuz ibili
laister hor dituzute-ta.

Gregorio "Mañukorta":
Oin'e Sevillan gertatu zaigu
oso gauza itxusia
batzuentzako egurra dute
askori kendu bizia
zer martxa dagon euskaldunentzat
degu ondo ikusia
nun dadukazute bihotza ta
nun dezute justizia?

Jon Lopategi:
Kolpe haundi bat ematea zen
Corcueraren ustea
irrati eta telebistatik
armatu zuten nahastea
zoritxarrean ez da bakarra
Sevillako albistea
zakurren mende bizi behar hau
ez al da gauza tristea?

Lazkao Txiki:
Hemen'e laister hori egiten
hasiko dira gainera!
Inori ezer galdetu gabe
etxe danetan sarrera
ipinitako lege txar hortaz
baliatzen da Corcuera
esate omen du "hay que revisar
por dentro eta por fuera".

1996TIK AURRERA BERTSO-LATA

1996tik aurrera, bertso-eskola ere indar handia hartzen ari zen, gogoa eta indarra zuten gauzak egiteko eta aste oso bat antolatzea proposatu ziguten: Bertso-Lata. Dirulaguntza baten truke (galerarik ez egitea ziurtatzeko) aste osoa bertsoaren inguruan.

Udalarentzako proposamen oso egokia zen. Batetik, askoz ere egitarau aberatsagoa proposatzen zuten eta, bestetik, zein egokiago bertso-eskola bera baino horrelako ekitaldiak antolatzeko.

Marian Apezetxeak eta biok gustoz utzi genien erreleboa. Handik aurrera eta gaur egun arte horrela agertzen da karteletan:

Antolatzailea: Bertso-eskola

Laguntzailea: Hernaniko Udala

[**Malores Etxeberria**, Hernaniko Udaleko euskara teknikaria]

Errege eguneko saioa antolatzen hasi eta hiru-lau urtera Iraulio Panttalone Bertso Kabiyak saio hori Bertso-Lata bihurtu zuen. Ondo dago jendeak astearteko bileran bertsotarako aukera edukitzea, eta gure arteko giro eta mugimendu bat egotea, baina horrek ere irteera balbula bat behar zuen, eta herrian ere erakutsi behar zen zer emaitza ematen ari ginen. Egitura guztiari grasa emateko modu bat da Bertso-lata. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Bertso jaialdia izaten zen Errege egunez eta Urte-Zaharretako Erronda urte amaieran (Ohitura Zaharrak taldearekin). Bi ekitaldi hauei tarteko egunetan beste zeinbat emanaldi erantsiz osatzen da Bertso-Latako egitaraua. [**Gorka Tolosa**]

Bertso esperimentua urtero Hernanin

Hernaniko Iraulio Panttalone bertso-kabiak ongi pasatzeko mila era zelebre daudela frogatu du azken hiru urteotan, bertso-lata antolatuz.

Iraulio Panttalone bertso-kabia Hernani aldeko hogei bertsolarik eta hainbat zaletuk osatzen duten lagun kuadrilatxoa da. Gazte edo gazte izandakoak dira guztiak, eta urtero gabonetako astean kalera irteten dute, herria bertsoz zipriztintzera. Horixe da Hernaniko bertso-lata: zazpi egunetan bertsoekin emandako lata edo bertsobredosia.

(...) Oso publiko ezberdinetara iristen diren ekintzak antolatzen dituzte urtero: helduen gustuko den erronda, gazteen saltsan eginiko bertso-afaria, haurren bertso saioa...

Ekitaldi hauek guztiak bertsoekin eginiko esperimentuak dira, imaginazio askoz eta lotsa gutxiz asmaturiko jolasak. Jende ugariren partehartze zuzena eskatzen dute: bertsolaritza lorategi botaniko oso zabala baita, eta belar xilbextre bakoitzak badu bere leku eta funtzioa. Ikusi besterik ez dago zenbat protagonista dituen bertso asteak: bertsolari konsagratuak batetik, baina baita bertso eskolako ikasle hasiberriak ere, edo taberna giroko errondetan trebatutako bertsolariak, baita bat-batean aritzen ez diren arren bertsoak idazteko gai direnak ere, eta batez ere, alprojakerietarako prest dagoen publikoa. Urtetik urtera, oihartzun handiagoa hartzen ari da, eta herritarren artean oso erantzun ona jaso du.

(...) Azter ditzagun bertso-lataren osagaiak: urtero ñabardura ezberdin bat hartzen badute ere, aste horretan zehar egiten diren ekintzak nahiko zehaztuta daude. Izan ere, 3 urtetan errepikatu izanak nortasun eta kutsu berezi bat eman dio ekitaldi bakoitzari. Hargatik, aurtengo bertso astearen inpresioak ixuri dizkizuegu hurrengo lerroetan, bertso-lata tipiko baten adibide izan daitezkeelakoan.

2002ko afari prehistorikoa: Unai Iturriaga eta Sustrai Colina bertsotan eta Josu Goikoetxea trama osatzen. Asisko Urmenetaren marrazkiekin girotua.

Bertso afari paranoikoa

Betiko 90ak bildu ziren abenduaren 25eko gauean, Langile Ikastolako jangelan. Diskoteka baino gehiago burdel kutsua ematen zuten zelofanez apaindutako argi gorri-berdeek. Egunak eskatzen zuen familia giroan afaldu, eta kuriosoenak mahai gainetako goxokizko pastilak jaten hasi zirenean, argiak itzali ziren. Orduan kandelak piztu, eta argiño dardarti haien pean itzal bihurtu ginen. Isiltasuna nagusitu, eta intimitate zirrara hartan bilduta hasi zen bertso-trama: ipuin paranoiko bat kontatzeari ekin zion Josu Goikoetxeak. Hura zen gidoigilea, haren esku zegoen tramako pertsonaien patua. Ordea, ipuin paranoiko horretako protagonistek tarteka bizia hartzen zuten: Sara, neska xarmant eta maripertxenta, Jon Sarasua bihurtzen zen, eta Jonatan, heroe garaitezina, aldiz, Jon Maia. Bertsolariek ipuineko pertsonaietan sartuta kantatu zuten, idatzitako gidoitik askatu nahian, aurredeterminatuta zuten etorkizuna aldatzeko ahaleginetan.

Ipuina, beti bezala, ongi bukatu zen, eta bertso afariak ere ohiko amaiera izan zuen: espontaneoen esku erori zen mikrofonoa, eta dozena bat sasi-bertsolari aritu zen habanerak botatzen.

Bertso-matoia

Bertso-matoiaren ikuspegia Inuzente egun batez: eguerdiko 12etatik arratsaldeko 19:00ak arte jarri naute herriko plazan. Haur, zahar eta gazteak geratzen zaizkit flipatu aurpegiarekin, eta ondoren irripar sinpatiko bat loratzen zaie, nik bere perfil onena islatzea nahi baitute. Baina, begi kritikoa dut nik: estudioko argazki prestatuak ez ezik barrunbeen erradiografiak ere atera ditzaket. Mila koloretako filtroetatik iragazten dut errealitatea, eta halakoa izango da bertsoaren tonua: zuri koipeemaleak, berde pikanteak, gorri biziak, arrosa pastelak... Arratsaldean 7 haur etorri zaizkit bere aita bizardun eta guzti. Txipa kargatzean flash batek bonbila piztu dit, eta bertso bat abestu diet, ondoren, kartulinan idatziz hauxe errebelatu dut:

Nahiz ta inondik ez den ageri
ipuineko sorgin zaharra
aurreko hauek ez al daukate
zazpi ipotxen irriparra
baso osoan hedatzen dute
bere jolas ta marmarra
desentonatzen dun bakarra da
Edurne Zurin bizarra

Bertso eskolako ikasleen saioa

Txirritak 14 urterekin kantatu omen zuen lehen aldiz jendaurrean. Harats! Bada, Hernaniko bertso eskolako ikasleek 14 urte eta 100 kilo baino gutxiago dute eta dagoeneko bertso saio bat egiteko aukera izan zuten abenduaren 29an. Jende piloa etorri zen ikustera eta urte osoko lana show bihurtu zen: hasi berriek bertsolaritzaren historia proiektatu zuten diapositiba eta antzerki bidez. Bigarren taldeak txapelketaren parodia egin zuen, bertsolari famatuak eta hauen bertsokera karikaturaraino exageratuz. Eta urte gehien daramatzaten bi taldeek, berriz, bertso saioetan ikusten diren ariketei erantzun zieten: emandako lau oini, jarritako bakarkako lanari...

Bertso musikatuak

Koktail berezia izan zen abenduaren 30eko ilunabarrean Bodega tabernan guztiak zoratu zituena. Bertsoa eta musika konbinaturik, kontzertu bat osatu zen Hernaniko eguneroko bizi erritmoa oinarri zuelarik.

Herriko gai ezberdinei bertso sailak idatzi zizkieten Hernaniko bertsolariek: lan eta industria munduari, sagardotegiei, Molotoff Irratiari, bertatik pasako den Abiadura Handiko Trenari, asteburuetako gaugiroari eta abar.

Hitzak doinu bihurtzeko, elkar ia ezagutzen ez zuten herriko musiko eta instrumentuak bildu ziren: bandan jotzen duen bibolin birtuosoa, festaz-festa berbenetan dabiltzan baxua eta gitarra, kafe bohemioetako saxofoia, euskal txalaparta-zalapartaria, eta ordenagailuen ahotsa den organu elektrikoa.

Max-mix hau ostiral arratsaldez gazte jendea poteatzen aritzen den zulo ezkutura eraman eta elementu guztiak kontzertu batean lehertu ziren: estu-estu eginda sartzen zen publikoaren dantza, berotasun eta oihuak, bertsolarien hitz eta ziri neurtuak, eta musikaren askatasun zirrarak.

Urte zaharretako erronda

Dios te salve...

Kantatu du kalez kale beste urte batez Ohitura Zaharra abesbatzak, eta ondoren bertsolariek hartu dute magnetofoia, bat-bateko koplak abesteko.

2004ko Urte Zaharretako erronda.

2005eko Bertso Latako jaialdian Julian Ezeiza "Aterpe" eta Antton Garin omendu zituen bertso eskolak Hernanin bertsolaritza iraunarazten egindako lana gogoan.

Bertso saioa

Urtero bertso saio indartsu batekin bukatzen da bertso-lata. Jaialdi hau da aste osoko ekitaldi nagusia, pastelaren ginda, labelaren zigilua. Telebista eta egunkarietan ohikoena den saio mota izanik, bertara inguratzen da publiko gehiena. Ariketa berriekin esperimentatzen bada ere, Iraulio Panttaloneko kideak betiko jaialdi serio eta formala antolatzeko ere gai badirela frogatzeko unea da.

Zein intxisuk eragiten ditu orduan, ordena hankaz gora jartzen duten ustekabeak? Duela lau urteko saioan, Andoni Egaña eta Unai Agirreri gauez kanposantura joan diren bi lagunen gaia jarri zieten. Egaña itzal beldurgarriez eta kalaberez bertsotan ari zela, publiko arteko emakume bat irristatu, eta abiadarekin eskilara denak jeitsi zituen goitik behera, erdi erorian. Egañak izugarrizko susto aurpegia jarri eta izpiritu bat ziztu bizian pasatzen ikusi zuela abestu zuen.

Aurtengo saioan berriz Iñaki Zelaia eta Aitor Mendiluzek gaztetxeari kantatu zioten. Mendiluzek gaztetxeko hormetako kartelak ere erortzen direla esan, eta une horretan bertan bere atzean zituen bertso-latako 14 kartel erori ziren. Zer ez ote da eroriko hurrengo urteko saioan?

[**Estitxu Eizagirre**, Argia, 1.702.alea, 1999-02-07]

2001-12-29 Hernani jaialdia

Abenduaren 31 gauean jarriko zaituztet, Urte Zahar gauean. Badakizue hor tabernariekin-eta badagoela halako konflikto bat: tragoa pezetetan ordainduko dugu, baina bueltatu eurotan egingo digute. Andoni Egaña, zu tabernaria izango zara. Maialen Lujanbio oraintxe eskatzera joan den mozkorra.

M. Lujanbio:
Larehun ta hogeita bost pezeta
dauzkat patrikan ta kito!
Atera zazu whiski txiki bat,
ron bat ta hiru zurito.

A. Egaña:
Berriro eta mantsugo esan,
aizu, aizu, aizu, aizu!
Lehendikan nahiko folloi badaukat,
erotu egingo nauzu!

M. Lujanbio:
Berriz esango dizut den-dena
ta ez da nere kaltera:
nik bitan esplikatuko dizut
eta zuk bitan atera.

A. Egaña:
Hiru gin-tonik, zazpi Keler ta
hiru zurito xuabe...
Igual gehiegi esatea da
baina bakarrikan zaude.

M. Lujanbio:
Hiru zurito, ron ta whiski bat
eskatu det alafede!
Kubatarikan ez det aipatu,
onartzen det hori ere.

A. Egaña:
Hori da hori zerrenda latza,
ene zenbat buruhauste!
Ispilukoa zerorri zera,
ez zazu edan hainbeste.

M. Lujanbio:
Ispilukoa ni neu naizela
zuk esan ta nik mantendu,
baina begira jartzen naiz eta
nik ainaxe edaten du.

A. Egaña:
Neroni ere jarria nago
ispiluari begira,
eta une batetik bestera
biak eroriko dira.

M. Lujanbio:
Joño, eskerrak eman diazun
ispiluaren abisu!
Atera tragoak neri eta
berak ordainduko dizu.

A. Egaña:
Eskerrik asko, borondatea
baitidazu erakutsi.
Hala, joan zaite komunera
ta txiprixtinik ez utzi!

M. Lujanbio:
Ta bitartean nahi baldin ba'zu
zuk barra botilaz bete.
Nahiago det kanbioik ez euki,
atera bukatu arte!

A. Egaña:
Berriro ere nahastu nahi nauzu,
besterik ez gendun falta!
Hala, barrura sartu zaite zeu,
ni kanporantza noa-ta!

Jexux Mari Irazu:
Fraga ta Aznar, Prestige
ta txapapotea...

Aitor Mendiluze:
harritzekoa al da
lotuta egotea?
Gobernuak izan du
jarrera torpea
ta Galiziko kosta
pozoiez betea
zeini tokatzen zaio
kontu ematea?

Jexus Mari Irazu:
Zenbat eman lezake
Ibarretxen planak?

Aitor Mendiluze:
Emango ote ditu
pentsatzen diranak?
Aurkezteko bederen
nolako afanak!
Baina izango dira
alperreko lanak
bere ingurura biltzen
ez baditu danak.

2005-12-30, bertso bazkaria, librean

Jexux Mari Irazu:
Gaia eta doinua
aldatu behinepin
ezin segiko degu
kontu berarekin.
Antzematen zaizue
aurpegikerakin.
Beraz galderatxo bat
nik Aitor zurekin:
zer esan nahi zenuen
prestakuntzarekin?

Aitor Mendiluze:
Zita baten aurreko
lan guztia omen
guk egin degun hori
finala baino lehen
baina bat jakituna
baldin bada hemen
titulo hoi zerorrek
lortuko zenuen;
ondona zuk dakizu
prestakuntza zer den.

Jexux Mari Irazu:
Ba erantzun zuzenik
ez daukat nabarmen
nahiz saiatu nintekeen
kanpo eta barren.
Batzuk pausoa bizi
ta besteak herren;
dena zuk esan dezu
litekeen ondoen
prestakuntza neuk ein nun
finala baino lehen.

Aitor Mendiluze:
Ahalegindu zinela
Irazu argi da
ahalegindu zinela
bertsoen harira;
egunero-egunero
tira eta tira
baina orain galderak
biderkatzen dira:
prestatu zinen baina
norantza begira?

Jexux Mari Irazu:
Txapelketak ametsak
damazki azpira
denak ondo irten ez
tira, tira, tira!
Orain galdezka zatoz
behar dan neurrira
txapelketa ez da dana
egia hori da
ta ni prestatu nintzan
luzera begira.

Aitor Mendiluze:
Saihesbide batetik
joaten da errezen
hala libratzen gera
ahal degunik maizen;
luzera begira ta
bota dezu ozen
baina erantzun egin
nahi det zuzen-zuzen
ondo geratu zaizu
baina gezurra zen.

Jexux Mari Irazu:
Horrelakoa al da
zure imajina?
Batzutan gertatzen da
nahi eta ezina;
zu berriz prestaketan
ez zera hain fina.
Hala're txapelketa
ederra egina...
Nora helduko zinan
prestatu bazina?

Aitor Mendiluze:
Prestakuntza lanari
ezin egin uko
baina ezin libratu
nahi nuen orduko;
beti harrapatuta
eroen moduko.
Halere izan nintzen
ni BECen lekuko
ta igual prestatu banintz
ez nintzan helduko.

Jexux Mari Irazu:
Bai Aitor bota dezu
arrazoi sakona
baina nik ez dakit ba
ez ote dan broma;
batzuk saiatzen eta
zure zoriona!
Lehen hirugarren, gero
atzera gizona;
nik ere lehenenguan
egin nun ondona.

Aitor Mendiluze:
Jendea postuekin
kezkatan zeharo;
ni berriz lasai-lasai
agian arraro.
Denek aurreratu nahi
ahal baino gehiago
baina postuarena
nigatik akabo:
orain lau urte baino
gustorago nago.

Jexux Mari Irazu:
Ordun ez zaude gaizki
jarraitu hain zuzen;
BECera iritsita
jardun zinan ozen.
Zure lehengo erantzuna
ahalik eta maizen
buruaren barrura
lehen nolatan sartzen?
Ondo geratu zaizu
baina gezurra zen.

Aitor Mendiluze:
Uste al dezu hitzak
oker datozela?
Ba behingoz konbenzitu
egin zaitezela;
uste det aurtengoa
ona izan zela
eta orain dela lau
urte ez bezela
aurten denek dakite
han egon nintzela.

2008-12-27 Hernani, jaialdia

Zuek biok aita-semeak izango zarete, Unai Agirre aita eta Igor Elortza semea; familia musulman bateko aita-semeak. Gaur Igor etxera etorri da, eta aitari Olentzero etxean ikusi nahi duela eskatu dio.

Unai Agirre:
Semia joan zait seko burutik
eta oraintxe akabo!
Nundik gatozen aizu maitia
nik esan dizut lehenago.
Arrautz paria harek jateko
da gutxitxo ta arraro
ta gure etxean horri jartzeko
txorixorikan ez dago.

Igor Elortza:
Aita betiko errietekin
arren ez zazu segitu!
Gizon haundi horren balentriak nik
kalean ditut aditu.
Nahi ez-ta ere etorriko da
eta ez zaitez harritu
dena omen du emateko ta
berak ekarriko ditu!

Unai Agirre:
Kontu berdina dute buruan
bai udara ta bai negu
hartzeko gauzak matte dituzu
hargatik mila erregu...
Etxe txikia da guk deguna
probre ta xume gaude gu
ta Olentzero hona sartzeko
tximinirikan ez degu.

Igor Elortza:
Beti kapritxoz omen nabil ni
eskari eta abusu
ekar ezazu eskilara ta
gorantza eman bi pausu
jo tetxuari ta zulo batzuk
laister egingo dituzu!
Nik Olentzero hartuko dut ta
zuk Ala ikusiko duzu.

Unai Agirre:
Gure semia seme da eta
ez det triste ikusi nahi
Olentzerorik ez dala izango
ez naiz esplikatzeko gai.
Hala nahi ba'zu etorriko da
eta egon zaite lasai!
Opari onak ekartzen ditu
baina ikatza ere bai.

Igor Elortza:
Lehengo egunean gelakide bat
han etorri zen trabeska
ta "Olentzero neure aita dela"
esaten zidan parrezka.
Nik telefonoz deituko diot
ta esango diot "Neska!
Ba zeure aitak izan beharko du
ze nirea behintzat ez da!".

2011-01-06 Hernani, jaialdia

Areto honetan ere ezin da erre.

Amets Arzallus:
Urte berriak jarri baikaitu
lege berrien menean
nik nola esan? Lasaitasun bat
sentitzen dut barrenean
ez dut erretzen beraz berdin zen
lehengo urtean zenean
baina aurten pozik eseritzen naiz
Unairen aldamenean.

Unai Iturriaga:
Niretzat berriz da kriston pena
putada eta tamala
demokrata naiz sortzetik baina
ta onartuko dut hala.
Lehen aipatu dut errepublika
bat hemen sortu behar zala
ta azkenerako atera zaigu
apur bat diktatoriala.

Iker Zubeldia:
Lege berria jarri digute
baina ez dakit zertako.
Beraz akabo afalosteko
hamaika Farias bapo!
Politikoek jarri dituzte
beste behin oztopo pranko
ezin da erre erre beharrekok
erretzen ez direlako.

Asier Azpiroz:
Erretzailea ez degu Azpi
daukat onartu beharra
baina etxean beti usaiakin
jertsia eta txamarra
tabernan beti eztula eta
ondokuaren marmarra.
Pixkat pentsatuz neretzat ez da
lege hau hortaino txarra.

Igor Elortza:
Nahiz ta parrandan neuk ere erre
zigarroa eta zera
onartu behar heldu direnez
guztiak debekatzera.
Kalean kea baino ez dabil
orain ertzetik ertzera
ta aretotara etortzen gara
arnasa lasai hartzera.

Unai Agirre:
Taberna eta tabladuetan
arindu dira arratsak
bertsolarien artean nonbait
honek piztu ditu saltsak.
Ai Zubeldia Zegamakuak
pasa behar ditu latzak!
Ta Iturriagak jango dizkigu
azkazalak ta behatzak!

HERNANIKO TXAPELKETAK

Guk 18-20 urte genituen hartan, dena zen bertsoa eta horren aitzakia. Beste gauza askoren artean Hernaniko Txapelketak antolatu genituen. Helduen bertso eskola antolatu zen, hortik entzule jende bat etotzen zen gure saiotara, batzuetan eurek kantatzen zuten eta gu izaten ginen entzule... Halako koadrila handi bat sortu zen eta giro horretan erabaki genuen Hernaniko Txapelketa antolatzea. Buru-belarri neroni aritu nintzen antolakuntzan eta nik irabazteko moduan preparatu nuen (kar-kar-kar!). Esan dezaket Hernaniko lehenengo txapelduna ni naizela. A, ez, ez! Aterpek kendu dit lehenengo txapelduna izateko ohorea! Aurrenekoa ez, gure belaunaldiko aurrenekoa naiz ni.

Beti izan zen desmadre bat eta horrelaxe bukatu zuen izaten, uste dut lau aldiz egin genuela eta beti nik jantzi nuen txapela. **[Unai Agirre]**

Asko gozatu dut herrian sortu izan den saltsa horregatik. Burura datorkit Larre-Gainen egin genuen final hura, por zierto, Pipirita-Tellerigainek irabazi genuena. **[Joxe Luis Urdangarin]**

Ariketa zailak eta gai zelebreak jartzen genituen erabat. 1998an, Langile ikastolan jokatu zen finalean, kartzelako gai hau jarri genuen: "denok ikusi ditugu Suedia Iparraldeko irudi lazgarriak, ez dago asteotan beste gairik komunikabideetan, eta han gertatutakoari hiru bertso". Jakina, ez zen ezer gertatu. Bertsolari batzuek sekulako larriarekin galdetzen zuten atzean albistea labur kontatzeko, eta Iñaki Zelaiak berriz, bazekienaren itxurak eginez, sekulako hiru bertso bota zituen, edozein gaietarako balio duten horietakoak. **[Estitxu Eizagirre]**

Hernaniko Txapelketa I (1996)

Finala: 1996-05-26 Langile ikastolan, bazkaritan

Txapelduna:

- Unai Agirre

Beste bertsolariak:

- Iñaki Zelaia
- Maialen Lujanbio
- Itziar Eizagirre
- Estitxu Eizagirre

1. Kanporaketa: 1996-05-05 Aralar tabernan 12:00etan

Bertsolariak:

- Gorka Tolosa
- Iñaki Zelaia
- Maialen Lujanbio
- Jon Eizmendi
- Joxe Mari Mujika "Anatx"
- Mikel Berasategi

2. Kanporaketa: 1996-05-09 Jarki tabernan 22:30ean

Bertsolariak:

- Xabier Santamaria
- Aitor Mendiluze
- Itziar Eizagirre
- Xabier Legarrega "Arano"
- Iker Osa
- Amaia Agirre
- Jon Garmedia "Txuria"
- Iker Alustiza

3. Kanporaketa: 1996-05-16 Gadafi tabernan 22:30ean

Bertsolariak:

- Jexux Mari Irazu Muñoa
- Unai Agirre
- Jon Iraola
- Jose Luis Urdangarin
- Estitxu Eizagirre
- Bakarne Urreaga
- Eñaut Agirre

Hernaniko Txapelketa II (1998)

Finala: 1998-06-14

Txapeldun: Unai Agirre

Hernaniko Txapelketa III (2002)

Finala 2002-12-22 Larregain sagardotegian 14:00etan

Txapeldun: Pipirita-Tellerigain taldea

Parte-hartzaileak:

- Gorka Tolosa
- Xabier Santamaria
- Aitor Mendiluze
- Jexux Mari Irazu
- Unai Agirre
- Aritz Zerain
- Joxe Mari Mujika "Anatx"
- Itziar Eizagirre
- Ibon Miner
- Xabier Legarreta "Arano"
- Iker Osa
- Jon Altuna "Oxan"
- Estitxu Eizagirre
- Joxe Angel Aranburu
- Eñaut Agirre
- Iker Alustiza
- Joxe Luis Urdangarin

Epai-mahaia

- Mikel Iturbe
- Jose Anjel Oiartzabal
- Juanjo Uria
- Maitane Legarreta
- Bakarne Urreaga

(2002) Kanteran kantari.

(2002) Orkolagan Xabier Santamariaren ateraldia.

Hernaniko Txapelketa IV (2002)

Formatua: Txapelketa azkara

Txapelduna Unai Agirre

Lehen Txapelketako lehen Kanporaketa: 1996-05-05 Aralar tabernan 12:00etan.

Inoiz kantatu duzuen agurrik zelebreena bota behar duzue.

Joxe Mari Mujika "Anatx":
Berrogei erdaldun ta bi euskaldun
bildu zaizkigu Grosian
iruditzen zait euskaldun gutxi
egongo dala Grosian
baina hala're sentitzen gera
gu sekulako pozian
pareja hori etorri bada
gure bertsuen gosian.

Jon Eizmendi:
Hasieran bertsoak
bazian sortaka
hemendikan aurrera
agurrak banaka
saio hau egin degu
denok denon aurka
agur zahar ta gaztiak
Jainkuak bedeinka
hartu bartuloak ta
ixten da barraka.

Mikel Berasategi:
Aldatu behar det ordena (bis)
hortako kriston kemena
gai-jartzailea izandu da
toka leiken okerrena.

Berriz esango dut nik ez ditudala gaiak jarri... Hi Joxe Mari Mujika "Anatx", arrazoi pertsonalengatik Jon Eizmendirekin hitz egin gabe egon haiz denbora luzean. Orain hizketan hasi zarete.

Anatx:
Lehen kastigatua det
lehenengo tirua
isilik egoteko
ez naiz jenerua.
Gaur bastante garbia
daukagu zerua
udaberriantzako
hau da hau girua.

Jon Eizmendi:
Zerua urdin eta
ostarte zabala
zein ote zan arrazoi
horren pertsonala?
katuak minagaina jan
balio bezala
nik uste nun betiko
mututu zinala.

Anatx:
...
zer moduz bizi zera
aspaldiko lagun?

Jon Eizmendi:
Elkar ikusi gabe
zazpi urte errez
denbora hori joanik
berriz gaude aurrez
bitartean ikasten
jardun det inglesez
zuri hitz egin eta
entenditu ezetz?

Anatx:
Munduan urtea're
joaten zaigu erraz
ez zera alperrik galdu
zenduan aukeraz
inglesez ere ikasi
omen dezu beraz
nik hoi ez det entenditzen
hitz egin euskeraz.

Jon Eizmendi:
Inglesarekin beti
nola egun ta arras
don't you understand Anatx
what is my class?
berriro ikustia
tokatu da horratx
hurrena alemanez
egingo diat Anatx!

Puntua:
Aspaldin omen zabiltz
itxura aldatuta

Anatx:
Guk ere andretxo bat
hartua degu-ta
gainera haur txiki bat
sortua zaigu-ta
nabil parranda bide
guztiak ahaztuta.

Puntua:
Beti izan al zera
zu horrelakua?

Jon Eizmendi:
Gauza xelebrea da
galdetutakua
ez al nauzu ikusten
mutiku guapua?
lehen hala nintzan baina
hobetuz nijua.

Puntua:
Behingoz itxi dituzte
sagardotegiak

Maialen Lujanbio:
Mobidak izan ziran
ordun gehiegiak
ahaztu zaizkigu Bilbo
aldeko jendiak
trapua burun jarriz
harro aurpegiak.

HERNANIKO TABERNETAKO TXAPELKETA

Oso informala izaten da eta tabernako kutsua du erabat. Ez du araudirik izaten eta katxondeoa izaten da nagusi. Sekula izan naizen bertso saio "anarkikoenak" dira.

Entzulegoaren gehiengoa ez zen bertsozalea, ez zen urtean zehar beste saiorik entzutera joango baina urtero hantxe zen saioaz gozatzeko prest. Epaileak ere beretsu. Azkenean, txapelketarena aitzakia bat baino ez zen. Bost inporta zuen txapelak, giroak eta disfruteak zuen garrantzia. [**Gorka Tolosa**]

Urte osoan ilusio handienarekin egiten dudan saioa izaten da. Ez da saioa bakarrik, afaria ere bada eta ondorengo parranda... bertsolariak ez dira betikoak, ia denek urtean behin kantatzen dute jendaurrean. Oso ondo pasatzen dut. [**Oier Iurramendi**]

NONDIK ETORRI ZEN

Nik Jon Garmendia "Txuria" eta Iñaki Iurrebaso ezagutzen nituen, Iurrebasok Mikel Alkorta ezagutzen zuen... 1994ko Gabon gauean nahiko "serio" aritu ginen Amara zaharreko Haritza elkartean. Hernaniko eta Donostiako 20 bat lagunek afaldu genuen bertan eta ondoren bi mahai elkartu genituen eta hori izan zen oholtza. Lau aulki jarri eta Jon Agirre "Triku" aritu zen gai jartzen eta lau bertsolarik bertsotan egin genuen: Jon Garmendia "Txuria", Mikel Alkorta eta Iñaki Iurrebaso eta ni.

Beste behin Besabiko Marizulo tabernan egin genuen eta beste bi-hiru urtetako Gabon gauetan, Donostiako Ikatz kaleko Beste bar tabernan egin genuen saioa. [**Jon Altuna "Oxan"**]

Urte haietan Gabon gauean kalean ez zen inor ibiltzen. Tabernak erdi hutsik egoten ziren. Beste bar irekitzen zuen "Tino"k, eta bost bat lagun elkartzen ginen bertsotarako. [**Mikel Alkorta**]

LEHEN TXAPELKETA JARKIN

Donostiako Gabon gaueko saio horiek lagunartekoak ziren. Jarkin ere antzerakoa egin nahi genuen, tabernaren atzeko komedorean. Ordurako lau ez, sei bertsolari ginen. Beste saioetako lauak eta Xabier Santamaria "Xanta", eta seigarrena behar genuenez, bertso eskolako Eñaut Agirreri esan genion. Hori ere itxia izatekoa zen, baina Jarki atzean zenez eta San Sebastian bezperan, tope bete zen. Iñaki Iurrebasok irabazi zuen. [**Jon Altuna "Oxan"**]

Hasierako urteetan epaimahaian aritu izan ziren Jon Altzaga Greñas, Juanpe Plaza, Koro Etxeberria, Miren Etxenike, Josu Arrieta, Elias Miner... edozein hartzen zen "hi, libre al hago?" galdetu eta kito. [**Jon Altuna "Oxan"**]

Urte askoan Goñi aritu zen gai-jartzen. Eta Mikel Arrieta. Eta Mikel Peruarena ere bai. [**Jon Altuna "Oxan"**]

Lehen hiru urteetan Jarki atzean egin zen (1995, 1996, 1997). Jarki itxi zen, eta urte batean Iruntxin (orain Tripontzi den horretan) egin genuen (1998an). Eta handik aurrerakoak Garinen. [**Jon Altuna "Oxan"**]

	TXAPELDUNAK	PARTE-HARTZAILEAK
1995	Iñaki Iurrebaso	Jon Altuna "Oxan", Jon Garmendia "Txuria", Mikel Alkorta, Xabier Santamaria "Xanta", Eñaut Agirre.
1996	Juan Mari Olano	Iñaki Iurrebaso, Jon Altuna, Mikel Alkorta, Xabier Santamaria, Esteban Martiarena.
1997	Jon Garmendia "Txuria"	Jon Altuna, Mikel Alkorta, Xabier Santamaria, Esteban Martiarena, Iñaki Iurrebaso.
1998	Aritz Zerain	Joxe Mari Mujika "Anatx", Esteban Martiarena, Jon Altuna, Mikel Alkorta, Xabier Santamaria.
1999	Esteban Martiarena	Jon Altuna, Jon Garmendia "Txuria"; Xabier Santamaria, Aitor Barrenetxea, Mikel Lujanbio "Xapo".
2000	Gorka Tolosa	Itziar Eizagirre, Esteban Martiarena, Aitor Barrenetxea, Mikel Lujanbio, Xabier Santamaria, Jon Altuna.
2001 "Txapeldunen txapelketa"	Aritz Zerain	Jon Garmendia, Esteban Martiarena, Gorka Tolosa, Aitor Barrenetxea, Mikel Lujanbio.
2002	Jon Altuna "Oxan"	Aitor Barrenetxea, Mikel Lujanbio, Esteban Martiarena, Xabier Santamaria, Ibon Miner, Oier Aizpurua, Joxe Anjel Aranburu.
2003	Jon Garmendia "Txuria"	Jon Altuna, Xabier Santamaria, Aitor Barrenetxea, Mikel Lujanbio.
2004	Mikel Lujanbio "Xapo"	Jon Altuna, Xabier Santamaria, Iñaki Petxarroman, Aitor Barrenetxea, Katalo.
2005	Diego Riaño	Jon Altuna, Mikel Lujanbio, Aitor Barrenetxea.
2006	Angel Arruti	
2007	Arnaitz Lasarte	Anjel Arruti, Iraitz Santa Kruz, Arkaitz Santa Kruz, Esteban Martiarena, Urko Kasado.
2008	Urko Kasado	Iraitz Santakruz, Jon Altuna, Angel "Abillats", Aitor Barrenetxea, Igor Muñoa.
2009 Kopla lehiaketa	Jon Altuna "Oxan"	Aitor Atxega, Joxe Mari Agirretxe "Porrotx", Joseba Andoni Agirre, Mikel Lujanbio, Aitor Barrenetxea, Iraitz Santa Kruz, Iñaki Esnal, Igor Muñoa, Urko Kasado, Igor Garmendia, Oier Iurramendi...
2010 Kopla lehiaketa	Aitor Barrenetxea	Urko Kasado, Esteban Martiarena, Jon Altuna, Mikel Alkorta, Aitor Atxega, Joxe Mari Agirretxe, Joseba Andoni Agirre, Gorkita, Arnaitz Lasarte, Amaia Otxotorena...
2011 Kopla lehiaketa	Iñigo Ugarte.	Iraitz Santa Kruz, Oier Iurramendi, Mikel Lujanbio...
2012	Oier Iurramendi	Amaia Otxotorena (bigarren), Jon Altuna, Aitor Barrenetxea, Mikel Lujanbio, Joseba Agirre, Gorkita, Urko Kasado, Andoni Garmendia, Iñigo Ugarte...
2013	Eli Pagola	Aitor Barrenetxea, Oier Iurramendi, Joseba Andoni Agirre, Izarne Zelaia, Amaia Otxotorena, Eñaut Martikorena, Andoni Garmendia, Jon Altuna, Iraitz Santa Kruz, Gorka Etxeberria, Pello Basurto.

TXAPELKETAREN BILAKAERA

Hasierako filosofia zen tabernetan egiten genuena txapelketa horretan egitea, lagunartean eta mozkorkerian. **[Esteban Martiarena]**

Aurreneko urteetan karga ideologiko handia zuten bertsoek. Egoera ere halakoa zen. **[Mikel Alkorta]**

Jarkin zerbezarik eta pururik gabe geratu ziren gau hartan. Kuadrila berak Amaxkarren (Oiartzun) eta Marizulon (Besabin) egindako beste bi saioetan ere botilatxo denak bukatu genituen. **[Esteban Martiarena]**

Urte batean hasierako agurra kantatu nuen:

Emen ez du inporta zein degun onena
ni bakarrik nator hustutzera
Garineko almazena!

[Esteban Martiarena]

Niretzako presio handia zen eta mozkortu egiten ginen. Eta bukaerarako, batzuek oso mozkorrak egoten "ziren". **[Mikel Alkorta]**

Lotsa kentzeko mozkortu, eta gero ezin bertsoa osatu. **[Jon Altuna "Oxan"]**

Anatxek Iruntxin kantatu zuen gurekin. Afarian urduri zegoen, ez gintuen ezagutzen... Txapelketako agurrak hasi zirenean, Oxan pasa pasa eginda zegoen. Kantari hasi eta ez doinu... Anatx nuen ondoan "posible al da?!" esaten zuen, izutua. Esan nion: "hi, hau ez duk hik bertsoaz ulertzen dukana. Ahaztu hura"! **[Esteban Martiarena]**

Iruntxin kantatu genuenean, kartzelako ariketa egiteko Bodegara eraman gintuzten. Bodegan patxarana edan eta dantzan ari nintzela, halako batean Eñaut Agirre "hi, Esteban, benga!", "Zer, benga zer?", "goazen!", "nora?", "kantatzera!" "mekaguensos!". Seko ahaztua. **[Esteban Martiarena]**

TXAPELA ETA EZ DELA...

Hasierako urteetan denek genuen sariren bat: bertsolari xalauena, astunena... Objektuak ematen ziren, destorniladorea, esposak, sukaldariaren txapela... **[Mikel Alkorta]**

Nik lehen urtean komoneko papera eraman nuen. "Kakalarri handiena pasa zuena"ren saria alegia. **[Esteban Martiarena]**

Urte batean Oxan epaimahaiko edo aurkezle edo aritu zen. Buruz-burukorako bigarren postuan enpate geunden Iraitz Santa Kruz eta ni. Oxanek hartu zuen mikrofonoa eta esan zuen "bueno, nola Estebanek jada txapela bat irabazi duen, bestea pasako dugu". Horrela hartzen genuen. **[Esteban Martiarena]**

"Txuria" zen batean gai-jartzen eta : "Aurtengo txapelduna... Aitor Barrenetxea!". Joan, txapela jantzi, eta handik pixka batera "a ez, ez, ez, barkatu, nahastu egin gara... txapelduna Oxan". Baina hori ez da okerrena! Berriz esan zuen gero: "a ez, ez, ez, nahastu gara, Aitor da...". Atzera jantzi berriz txapela, eta berriz, "a ez, Oxan"... [**Aitor Barrenetxea**]

Irungo bertso eskolakoak etorri ziren ikusle urte batean, eta haiek noski, beste ideia bat zeukaten. Eta esaten zidaten "ez etorri gehiago, Esteban, hona kantatzera. Ez ditek merezi". [**Esteban Martiarena**]

Jada bost final jokatuta nentorren. Urte hartan pentsatzen nuen "nahiko ondo aritu haiz, aurten ba igual bai!". Maialen Lujanbiok Euskal Herriko txapela aterea zuen (2009an), eta buruan zapi bat jarri zidaten, gobara. "Me kaben la puta! Aurten ere bigarren?" pentsatu nuen. Beste finalista atera zuten eta "hau bigarren!" eta horren ostean txapela jantzi zidan Maialenek. A zer lasaitua hartu nuen!
[Aitor Barrenetxea]

Txapela jantzi nuen urtean semea jaioa zen. Baina agurra desastrosoa bota nuen eta sukaldariari eskaini nion!
[Jon Altuna "Oxan"]

Saioa bukatu eta Antiguora gindoazela, Oxan etxera joan zen. Eta gero Axunek (bere bikoteak) kontatu zigun Oxan komuneko ispilu aurrean topatu zuela txapela jantzita bere buruari begira! [**Esteban Martiarena]**

"Gaur da nere bizitzako egunik zoriontsuena!" esan omen nion. Ez zion noski grazia handirik egin... [**Jon Altuna "Oxan"**]

Joxe Mari Agirretxek kantatu zuen, nik txapela jantzi nuenean. Ondorenean joan gara Pirritx eta Porrotx ikustera, eta emanaldi ostean umeak musu ematera, eta alabari esan nion "esan Porrotxi zure aitak bertsotan irabazi ziola" eta berak esan! [**Aitor Barrenetxea**]

ZAZPIGARRENA, TXAPELDUNEN TXAPELKETA

Zazpigarren urtean "txapeldunen txapelketa" egin genuen, aurreko sei txapeldunekin. Lehen biak ez ziren agertu, Olano eta Iurrebaso, eta Aitor Barrenetxeak eta "Xapok" kantatu zuten, seikotea osatuz (Iñaki Iurrebaso, Juan Mari Olano, Jon Garmendia "Txuria", Aritz Zerain, Esteban Martiarena eta Gorka Tolosarekin). [**Jon Altuna "Oxan"**]

"Meritua duenetako bat Aritz Zerain da: bi aldiz hartu du parte eta bietan txapeldun geratu da. Iruntxin kantatu zuen eta irabazi, eta txapeldunen txapelketa egin zenean kantatu zuen bigarrenez, eta berriz irabazi" **[Jon Altuna "Oxan"]**

Formaz ere berezia izan zen, bertso trama. Xantak egin zuen gai-jartzaile. Bakoitza etxe bateko pertsonaia bat zen (aita, ama, txakurra...) eta horren bueltan ibili ginen. Afaritan ez zuen ezer esan, eseri ginen tabladu atzean, eta orduan esan zuen trama zela. Eta "Txuriak" gaizki hartu zuen. Haserrean bukatu ez, haserrearekin hasi zen saioa! [**Esteban Martiarena**]

URAK FILOSOFIA ZALANTZAN JARRI ZUENEKOA

Garai batetik aurrera zailtasunak genituen benetan tabernetan ikasitako bertsolariak erakartzeko. Izena edo entzutea hartu zuen txapelketak eta erdi-purdi aritzen zirenek beldurra hartu zioten. [**Jon Altuna "Oxan"**]

Gure garaian bertso txarrak gehiago txalotzen ziren! [**Esteban Martiarena**]

Orduan erabaki genuen kanporaketa itxiak egitea, Kiden, Zumitzan, Iruntxin... [**Jon Altuna "Oxan"**]

Urte hartan parte hartu nuen eta hurrengoan ez. Iruditu zitzaidan filosofia galtzen ari zela. Ez zitzaian ongi iruditzen bertsotan ongi egiten dutenak (Xabier Legarreta "Arano", Unai Agirre eta Joxe Luis Urdangarin...) eta txapelketetan ateratzen direnak, gure bertsoak epaitzen aritzea, beti izan direnean bai kantuan aritu direnak bai epaimahaian egon direnak ikaragarriak ez direnak. [**Aitor Barrenetxea**]

Mikel Lujanbio "Xapo" eta Esteban Martiarena.

Katxondeo puntua zuen lehenago epaimahaiak, eta ariketak ere ez ziren txapelketetakoak. [**Esteban Martiarena**]

Bertso eskolako jendea sartu zen, bertsotan dexente zebilena eta maila zeukana... final aurretik afaria izaten zen eta denok ateratzen ginen kaxkartuta, berotuta edo batzuek moskortuta, eta etorri ziren gazte batzuek ura edanez, bertso guztiak neurrian txukun eginaz... [**Aitor Barrenetxea**]

2004-2005eko finalean, sei bertsolaritatik Mikel Alkortak bakarrik edan zuen! beste denak ura edaten aritu ziren! Hori zer tabernako txapelketa da! "Gaizki goaz" pentsatu genuen. [**Jon Altuna "Oxan"**]

Lagun giroa ere hautsi egin zen han. Tentsioa, irabazteko grina hori sartu zen. [**Esteban Martiarena**]

Bertso eskolako jendea etorri da eta kristorena egiten dute bertsotan. Saioa, bertso aldetik, hobetu egin da, orain, beste xarma galdu du. [**Mikel Lujanbio "Xapo"**]

Orduan beste buelta bat eman genion eta berriro itzuli ginen hasierako formatora (tabernetako sei hartuta). Eta azken etapan (2008an hasita) erabaki genuen kopla lehiaketa egitea: 12-16 lagun atera eta kanporatzen joan. Ondo ateratzen ziren; txarra da norberarentzat, jende asko ateratzen denez, hiru kopla kantatu eta kalera joan zaitezkeelako. Baina horrela da! [**Jon Altuna "Oxan"**]

Bertso kategorikoak ez du balio. Hemen behar duguna da "danba!". Neurria fuera eta errima fuera. [**Joseba Andoni Agirre**]

2013an kanporaketak egin ziren, eta ondoren mugikorrera mezu hau iritsi zitzaigun: Barrenetxeak esan du finalaren aurretik ez bada jesukristoren poteoa egiten ez duela kantatuko. [**Joseba Andoni Agirre**]

ANTOLAKETA

Hasieran Jon Garmendia "Txuria"ren saioa zen. Harek antolatzen zuen dena, Oxan hasi aurretik. [**Esteban Martiarena**]

"Txuria", Xanta, ni aritzen ginen ondoren antolatzen. [**Jon Altuna "Oxan"**]

2003tik antolaketaren pisua batez ere niri tokatu zitzaidan. Noski, denek laguntzen zidaten, bati esaten nion gaia jartzeko, besteari epaitzeko... eta 2013an erabaki nuen uztea eta bertso eskolari pasa diogu antolaketaren ardura. Oier Iurramendi, Amaia Otxotorena, Arnaitz Lasartek hartu dute. [**Jon Altuna "Oxan"**]

MOMENTU BITXIAK

Bigarren urtean txiste bat eman behar genuen bertsotan. Publikoari paperak banatu zizkioten zenbakiekin, eta txiste bakoitzari puntuazioa ematen zioten, paperak altxaz. Ez dakit gero zer kaso egiten zitzaion publikoari... Nik irabazi nuen txiste onenaren saria. Bertso hauxe bota nuen:

Aita Santuak eta Ardantzak
gizon guztien antzera
pitilin bana ba omen dute
(behintzat horrela uste da)
batek luzea ezik, omen du
lodi-lodia gainera
ta hau da nere galdera:
bitan norena ote da?
Joxe Antoniok hola egiten du [hatz lodia eta erakuslea lotuz]
eskua gora ta behera
Aita Santuak berriz horrela [eskuak zabalik gora eta behera]
hortik kontuak atera.

[**Esteban Martiarena**]

Txapela irabazi nuen urtean (2004an), txistean trabatu egin nintzen eta papera atera nuen. Amagoia Mujikak Garako atzeko orrian idatzi zuen "jendeak duda zuen aurretik egindako bertsoak ote ziren eta Xapok argi utzi zuen". Hauxe zen bertsoa:

Behin batian okindegian
holako gauz bat tokatu
hantxe itxoiten ni nengoela
punky bat zan arrimatu
ia atzoko ogia dezu?
hark egin zion galdetu
okindegikok baiezkoa esan
ta punkya parrez lehertu
erantzun zion "hurrengo baten
hobexio kalkulatu".

[**Mikel Lujanbio "Xapo"**]

Nik txiste hau kontatu nuen bigarren txapelketan:

Lagun batek bestiai
zein da zure izena?
Jojojojoxe naiz ni
ta gizon zuzena.
Tartamutua beraz?
bestiak hurrena
ez naiz tartamutua,
baizik aita zena
eta registrokua
kabroi haundiena.

[**Jon Altuna "Oxan"**]

Hurrengo txapelketa batean ere eskatu ziguten txistea prestatzeko eta hauxe bota nuen:

Balkoi batetik salto eginda
hartzen da osti polita
bosgarrengotik o lehenengotik
desberdin dela ikusita
ze alde dagon azalduko dut
adibide bat jarrita:
ai, ai, ai, ai, ai, ai, ai, ai pum!
bosgarrenetik jausita.
Eta pum! ai, ai, ai, ai, ai, ai, ai
lehenengotik erorita.

[**Jon Altuna "Oxan"**]

Nik urte hartan hau bota nuen:

Atlheticekoak garrantzia
eman nahian euskerari
erdal izenak euskalduntzeko
ekin diote lanari
Vales Balio, Kuko Kukua,
... (ez naiz oroitzen)
okerrena da orain Gerrero
egin zaiela Gudari.

[**Esteban Martiarena**]

Sekula bota den agurrik onena Igor Muñoak bota zuen. Igorrek esan zuen Txirritaren erara egingo zuela saioa: sagardoa lepo edan zuen afaritan, kafea eta patxarana hartu eta saioan zehar sagardoarekin jarraitu zuen. Pasa egin zen pixka bat, mareatu azkenerako. Eserita zegoen, buru-makur eta gai-jartzaileak "Igorri emango diogu halako sari eta bota azken agurra". Eta besoa altxa zuen luze luze eta kito. [**Jon Altuna "Oxan"**]

2002an buruz burukora iritsi nintzen. Xantak porro bat liatua zuen eta nik hura erre nuen. Kantatu nuen eta ikaragarri gustora geratu nintzen. Eta baten batek esan zidan "kaben sos, zer egin duk! Irabazia huen eta!". Ikusten denez bertsoa doinu batean hasi nuen eta beste batean bukatu. Eta ez nintzen enteratu ere egin! **[Aitor Barrenetxea]**

2009an koplaka egin zen txapelketa. Oxan "xun xun xun" esanaz hasi zen. Aitor Atxegak Heineken kaja bat hartu zuen soinua balitz bezala eta Oxanek basoarekin panderoarena egin zuen. Saio hori eginda semifinalera pasa zen Atxega eta Aitor Barrenetxearekin tokatu zen. Atxegak kopla bota zuen eta Barrenetxeak zortziko txikian erantzun zion. Atxegak esan zion "hi, niri kopletan egiteko esan zidatek eta nik kopla bakarrik egiten zekiat...". Bakoitza neurri banatan aritu ziren.

[Joseba Andoni Agirre]

Iraitz Santa Kruzek botea, atez atekoaz:
Amonarraiz una idea tuvo
un cuadrado al cubo.

[Joseba Andoni Agirre]

2010ean koplaka egiteko denentzat gaia jarri zuten, atez-atekoa. Estribilloa asmatu genuen "erreziklatu, guztiok erreziklatu" eta denok kantatzen genuen. Ondo hasi ginen, baina gero Gorka Etxeberria "Gorkita"k estribilloa aldatzen zuen, segi eta segi ez zen isiltzen, eta bota nion:

Gustora erreziklatuko
nuke Gorka mutikoa
ba al dakizue zuek zer den
kartoia edo plastikoa?

[Esteban Martiarena]

Behin gaia jarri zidaten Aritz Zerainekin. Bera txakurra zen, eta ni txakurra kotxean sartu eta akatzera eramatera nindoana. Lehenengo bertsoa bota nuen:

egun bateko negarra
ta betiko pakia.

Eta bigarrena bota nuen:

Disekatuta jarriko diat
kotxean lepoa muitzen.

[Mikel Lujanbio "Xapo"]

Bigarren urtean izan zen. Lehen urtean Iurrebasok irabazi zuen, poto batekin. "Txuria" agian hobeto ariko zen, bertsotan guk baino gehiago egiten zuen... eta haserretu egin zen. Bigarren urtean, Iurrebasok 22-25 puntuko agurra prestatu zuen "Txuria"ri egurra emanaz. "Ikoa" zuen errima:

hogeitabikoa
prehistorikoa
atipikoa
autentikoa
Txuriari gerra
sikologikoa (hori zuen bukaera).

Txuria Gipuzkoako txapelketan atera zenez, tabernetakoan aritzeko onegia zela esan genion eta gai-jartzaile aritzeko. Iurrek hori ikusi zuenean, beste agur bat bota zuen, Mahai Nazionalari eta Olanori buruzkoa, baina hogeitabiko hori hor zeukan. Saio bukaeran "Txuria" hasi zen sari banaketa egiten eta saioa bera baino luzeagoa izan zen sari banaketa, bakoitzari bederatzi puntuko bertsoa bota baitzion saria ematerakoan. Iurrebasori ere bederatzi puntuko bat bota zion eta pare parean etorri zitzaion, eta hogeitabiko bertsoarekin erantzun zion. [**Jon Altuna "Oxan"**]

Beti jartzen zizkiguten lan zailak: neurrian sartzen ez zen bukaera bat, edo lotu ezin ziren lau errima... eta urte batean jarri ziguten "bota bertsoa doinu berri batean". Neu lehenengo, eta zer egin pentsatzeko ere denborarik ez. Pentsatu nuen "hasiko naiz doinu batean, botako ditut puntu motz batzuek eta zelabait bukatu". Hasi nintzen:

Aspaldi etorri nintzan
ni neu Hernanira
batian Jarkira
bestian Txilira
edo Zintzarrira
Bodega erdira...

Halako batean begiratu nuen, paper bat neukan eskuan eta "aiba, gaia neukan eta!" eta irakurri nuen: Bilboko Metroa. Nola bukatuko eta:

Hernanin ere metro
asko e(g)iten dira.
[**Jon Altuna "Oxan"**]

Mikel Alkorta izan zen doinua atera zuen bakarra. Koplak uste dut zirela. Eta Esteban Martiarenak txandaka, puntu bat doinu batean eta bestea bestean, bi doinurekin bertso bikoitza osatu zuen. Iñaki Iurrebasok Donostiako doinuan egin zuen. [**Jon Altuna "Oxan"**]

Juan Mari Olanok "cara al sol" doinuan egin zuen, ukabila altxatuarekin, erabat mitinero. [**Esteban Martiarena**]

Doinu berria asmatu behar genuenean, niri jarritako gaia zen AHT. Justu aurreko bertsoaldi batean hanka-luzea atera zitzaidan eta horrelakoetan beti botatzen nuen "zazpi astoren gainean!". Bertsoa gaizki bukatuta ere hura bota eta jendea parrez hasten zen. AHT gaiari bota nion, bi doinuak nahastuta:

ni ez naiz joango trenian
askoz nahiago baitut ibili
"zazpi astoren gainian!"
[**Esteban Martiarena**]

2004an "Txuriak" ez zigun Zigor Iriondo eta niri parte hartzen utzi. Eta tarteka sartu eta kantatu egiten genuen, espontaneoen saioa egin genuen. [**Esteban Martiarena**]

FANS KLUBAK

Oxanek bazuen bere fans kluba: "sun, sun, sun, sun, sun, sun, Oxanguren txapeldun!" esaten zioten. [**Jon Altuna "Oxan"**]

Iraitzek ere bai: "kutz, kutz, kutz, Santa Kruz"! [**Aitor Barrenetxea**]

Nik orduan burua galdu nuen, hainbeste "sun, sun, sun Oxanguren txapeldun"! Oso gaizki portatu nintzen urte hartan. Audioa grabatuta zegoen eta entzuten hasi eta ordu erdi bakarrik aguantatu nuen. Mikroa kentzen nien besteei kantari ari zirela, nik bukatzen nuen besteen bertsoa... Lotsatuta geratu nintzen entzundakoan. [**Jon Altuna "Oxan"**]

1991KO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Non-noiz: Abenduaren 22an, Donostiako Belodromoan. Telebistak emandako bultzadari esker, eta bertsolari belaunaldi berriak zaletutako ikusleak medio, boom-aren txapelketa izan zen 1991koa. 11.000 lagun bildu zituen.

Bezperan, 101 urterekin Joxe Migel Barandiran hil zela eta, haren oroimenez minutu bateko isiltasuna gordez hasi zen saioa.

BERTSOLARIAK: Izen ematea libre. 54 bertsolari

Sailkapena:	
Anjel Mari Peñagarikano	708,5
Andoni Egaña	706,5
Xabier Perez, "Euskitze"	698
Jon Sarasua	696
Xebastian Lizaso	690,5
Iñaki Murua	685,5
Martin Rezabal "Olaso"	671,5
Mikel Mendizabal	669,5

Epaile eta gai-jartzaileak talde lanean aritu ziren.

Hiru faboritoak: Aparra medio, inoiz baino egunkari orri gehiago bete ziren txapelketaren kontuarekin. Bakoitzaren beldurrak, entrenamenduak eta gainerakoak bistan geratu ziren. Finalaren aurretik, Lizaso, Egaña eta Euskitze ziren faborito bakarrak. Diario Vascoko izenburu gogorrak garbi adierazten zuen (erderaz): "Txapela bat hiru bururentzat". Zaletuen iritzia ere horrela ematen zuen egunkari horrek "batek huts egitea, bale. Bik huts egitea, tira, baina hirurek huts egitea... hori ezinezkoa da".

Ordea, Anjel Mari Peñagarikanok irabazi zuen txapela eta entzuleen bihotza. Urte luzez txapeldun izandako Txomin Garmendiak jantzi zion txapela.

Kartzela bor-bor: Kartzela hartan egosi ziren txapelketako osagai gehienak. Kartzelan denak barrez eta kontu kontari aritu omen ziren. Denak bat ezik: Peñagarikano isilik eta kontzentratuta egon zen, bada ezpada. Bere txanda iritsita, kartzelako lanean hartu zion aurrea Peñagarikanok Egañari, ordura arte Egañak 512 puntu eta Peñagarikanok 486 puntu baizituzten. Lana bukatuta atzean eseri zenean, horrelaxe esan omen zion Egañak: "Anjel Mari, heu geratuko haiz gaur aurrena". Peñagarikanok: "Adarrik ez jo" zurbil batekin erantzun zion.

Kartzelako gaia bera, txapelketa horretan jarritakoen adierazgarri izan zen, guraso-seme-alaben arteko harremanen korapiloak, alegia: "Zu, ilunabarrean amari musu emanda zeure autoan atera zara festara, ordubiak alderako itzuliko zarela esanez. Une honetan goizeko seiak dira. Oraintxe gogoratu zara amari emandako hitzaz. Zauden egoeran zaudela, zer zauden tokitik hiru bertso". Egañak Eginen adierazi zuenez "Nere amari ez nion nik hemezortzi urterekin ere ezeren konturik ematen eta orain kosta egiten zait egoera horretan jartzea. Andreari kontuak ematea balitz, tira, errazago moldatuko nitzatekeen."

Sarasuak "Sortutako morboaren aurka erreakzionatu nahi" izan zuen. Zazpi puntuko bi bertsoren ostean, zortziko "eskas" (sic) bat bota zuen, propio. Morboaren kontra erreakzionatu, eta eztabaidarako gai bihurtu zen hurrengo egunetan".

[**Bertsolaritzaren datu-basea**, EHBE]

BERTSO ESKOLAKOEN PARTEHARTZEA

Final-aurrekoetan

- Jokin Sorozabal

Azken laurdenetan

- Joxe Luis Urdangarin

Kanporaketetan

- Jon Eizmendi
- Iñaki Zelaia

Gu ginen bertso eskoletako lehenengotako labealdikoak, eta txoke bat egon zen, betiko bertsolarien eta bertsolari gazteon artekoa. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Aurrenekoz parte hartu genuen txapelketa 1991koa izan zen. 18 urterekin, Hondarribiko arrantzaleen kofradian. Eizmendi eta biok ginen Hernanitik. Gustura geratu nintzen egindako saioarekin. Zehatz ez dakit, baina badakit puntu gutxirengatik ez nintzela pasa. [**Iñaki Zelaia**]

Zu, Anjel Mari Peñagarikano, rock talde bateko partaidea zara eta zu, Jokin Sorozabal, honen aitona. Zuri, Peña, ez dizute kalean ensaiatzeko lekurik uzten eta Sorozabal zure aitonari baserriko ikuilua eskatu diozu ensaioak egiteko.

Doinua: Antton eta Maria.

J. Sorozabal:
Errespeto haundian
didazu hitzegin,
saiatzen naiz izaten
zuretzat atsegin,
kaleko bajeretan
ensaiatu ezin,
ikuiluan sar zaitez
zure lagunekin,
aurrena ensaiatu
gero lanak egin.

A.M. Peñagarikano:
"Titi", ez dadukazu
burua galdua,
ez eta ere kandela
bat'e itzaldua,
kontutan hartu zazu
iloben gradua,
ikuilua zuk utzi
aiton onratua,
ta gustatuko zaizu
gure ganadua.

A.M. Peñagarikano:
Erantzungo al dezu
zuk nere galdera?
Baserrian hor daude
gurdi eta lega,
ikuiluan zintzilik
hor atxur da sega,
hori utzi zaidazu
aitona, "kolega",
hau baino leku hoberik
inun ba ote da?

J. Sorozabal:
Ganadu ona dago
mardul eta gazte
baina lana eskeinita
ihesean laste.
Zertan bildu dituzu
horrenbeste traste?
Ikuilurako bada
hamaika kontraste,
orain sardearekin
ensaia zaitezte.

J. Sorozabal:
Leku txarra da baina
zuretzat ederra,
ez nekien zinanik
hain buru okerra,
eman beharko didazu
ondoren eskerra,
lanean jardun gero
ez izan alperra,
hola kobratzen det nik
nere alkilerra.

A.M. Peñagarikano:
Ikuilura nator ni
ikasteko planez,
aitona hemen dabil
ardoa edanez
eta orain iloba
"oi ke guai!" esanez,
ikuilua utziko dit
aitortzen duanez,
pagatuko dizut nik
gero lan eginez.

1993KO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Hernaniko bertso eskolako kideak txapelketan:

Finalean:

- Jokin Sorozabal

Azken laurdenetan:

- Joxe Luis Urdangarin

1993-11-07 Laudio

Joxe Luis Urdangarin, lehendakaria zaitugu; eta Xabier Zeberio, bere sukaldaria. Joan deneko 10 egun hauetan, sukaldariak, angulak jarri dizkizu bazkaltzeko, egunero.

J. L. Urdangarin:
Egunero hor nabil
bazkarian eske,
ta sukaldaria're
hor dabil jo ta ke!
Egunero angulak,
hau posible ote?
Ta ekonomia gaizki
doala diote.

J.L. Urdangarin:
Honek egin duena
hau da hau eztanda!
Azkenerako, tranpa
zirudina, ganga.
Bainan iritxia da
egiaren txanda:
"Gulak" ekartzen dizkit
angulak esanda.

J.L. Urdangarin:
Kritika botea dit
oso modu alaiz,
bainan horrelakoak
entzunak ditut maiz;
ni're kolaboratzen
hasiko naiz garaiz:
mariskua janda're
konformatuko naiz.

X. Zeberio:
Nik ez dizut jarritzen
otordu aldrebesa,
zu ondo mantentzea
da nere ametsa.
Egunero angulak
zenbat gazi-geza!
Zurekin asmatutzen
ez dago erreza.

X. Zeberio:
Iriki behar ditut
hiru-lau bat lata,
ia aldatutzen dan
zure tonto planta;
bestela jarriko'izut
lau porru patata,
egite'zunagatik
nahikua da ta

X. Zeberio:
Mariskoa jan eta
ardo ona edan;
kejatzen da angulak
jarrita plateran.
Pipar gorri-gorri bat
badaukat aukeran,
ia parlamentuan
mobitutzen zeran.

1993-12-19, Donostia

Puntua:

"Gerrikoa estutu"
entzuten da sarri.

Jokin Sorozabal:
Erantzun behar zaio
jende klase horri:
gerrikoa estutzeko
mezua ekarri,
eta berak nahi duten
neurrikoa jarri!

Jokin Sorozabal, eskultorea; eta Sebastian Lizaso berriz zabor biltzailea, zarete. Jokin eskultoreak egin du bere eskultura; herriko plazan jarri du denek goza dezaten. Sebastianek zaborren kamioira bota du.

Doinua: Iparragirre abila dela.

J. Sorozabal:
Nere lanaren berri nahi nion
herriari erakutsi;
oraindainoko marka guztiak
zabor biltzaileak hautsi.
Haundia zera, baina
lanean, alajaina,
bastante ardura gutxi;
nere eskultura ontzira eta
zakarrak lurrean utzi.

S. Lizaso:
Zuk diozunez, apurtu ditut
zeneduzkan esperantzak;
nere lanean ari nintzaden
eta sortu dira saltzak.
Nik egin dut neuria,
eta hau komeria!
Kulturak ditu akatsak,
zenbaitentzako artea dena
zaborra baita neretzat.

J. Sorozabal:
Honek kultura ez du estimatzen,
behintzat hala ematen du;
hori beretzat zaborra dala
lotsik gabe esaten du.
Nere lagun Lizaso,
ezetz lurretik jaso
edo ezetz lurretik kendu,
coca-cola lata balitz gisan
makurtu behar bazendu.

S. Lizaso:
Makurtzeari utzi genion,
tresna batek egiten du;
nik deskuido bat izango nuen
eta bera nabarmendu.
Bidearen erdian
ta erdi pikardian
traban zegon eta kendu;
errespetatu egingo nuen
firmatu izan bazendu.

J. Sorozabal:
Hori bezela, beste hainbeste
harri baditut guztira,
herrian zehar jarritakoak
jendearen ikusmira.
Harek nere izena
ta lehen abizena
hantxe jarri omen dira,
baina begiratu're egin gabe
bota zenuen ontzira.

S. Lizaso:
Ez ikaratu, harriz beteta
dago herriko kantera;
eta nahi dezun harri klasetik
han badaukazu aukera.
Puskatu dut lehengoa,
emanikan gogoa,
ezin konpondu atzera,
eta beste bat berdina egin
artista baldin bazera.

1995EKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Non-noiz: Abenduaren 17an, Donostiako Gaska pilotalekuan. 3.000 entzule bildu ziren.

SAILKAPENA	
Aitor Mendiluze	646,0
Jesus Mari Irazu	627,5
Juan Jose Eizmendi "Loidisaletxe"	619
Mikel Mendizabal	610
Iñaki Murua	607
Iñaki Zelaia	604,5
Jokin Sorozabal	583,5
Jose Ramon Elorza	565,5

"Mazedonia bat bezela" definitu zuen finala Loidisaletxek, aurreko belaunaldiko lau eta berriko beste lau elkartu baitziren oholtzan. Txapelketa astean, adinen bataz-bestekoa 23 urtekoa zen. Bittor Agirre (59 urte), Narbaiza eta Xabier Zeberio (46na urte) ziren zaharrenak, eta Maialen Lujanbio (19 urte) gazteena. Txapeldun atera zen Aitor Mendiluzek berak, 20 urte ondo heldu zituen. Irakurri besterik ez dago, Manuel Lasartek txapela jantzi zion egun hartan esandakoak:

"Neronek asko egin dudala baino gehiago (...)", Euskaldunon Egunkaria

"Mendiluze, Aitor", Aizu

"Aitor Mendiluze, Gipuzkoako txapelduna", Aiurri

Distirarik gabeko bitxiak: Aurreko txapelketako boom-aren aparrak jaitsita zeuden. Hilabete asko ziren "Hitzetik Hortzera" telebista programa eten zela, eta finala ere ez zen telebistaz eskaini. Gainera, aurreko txapelketako faborito eta txapeldunek ez zuten parte hartu, belaunaldi berriari bultzada ematea baizen txapelketaren helburu nagusietako bat. Anjel Mari Peñagarikanok, hala zion hamaikagarren aldiz kontu horrengatik galdetu ziotenean (Argia, 1995-12-17): "Gu atera izan bagina ere, gutako asko atzean gera zitezkeen. Alferrikakoa da 'haiek atera izan balira...' esatea. Hor daude zortziak finalean, inork ez die ezer erregalatu."

Bertsotan ez, baina iritzia ematen aritu ziren aurreko txapelketako izarrak.

Kimu berriak: Bertso eskoletako fruitu hauek bertso eskolen inguruan mugimendua sorrarazi zuten, eta entzuleen artean antzematen zen, bai giroan, bai pankartetan ere, koadrilak eta hintxak non zeuden.

Txapelketan euren burua ezagutzera emateko aukera ederra zuten gazteek, eta ondo erantzun zioten ardura horri, Anjel Mari Peñagarikanok aitortu zuenez: "benetan inpresionatuta geratu naiz bertsoen kalitatearekin. Oso maila ona erakutsi dute." (Argia, 1995-12-17).

Lierni Elortzak, txapelketako koordinatzaileak, horrela baloratu zuen gazteen lana (Argia, 1995-6-11): "Plazaz-plaza aritzen diren bertsolarien esperientzia falta zaiela nabarmendu da, eta oraindik dezente landu behar dituztela euren bu-

ruak. Baina, era berean, esateko asko duen eta esaten dakien belaunaldi bizi baten testigantza utzi dute txapelketan."

Baina bertsolari gazteen kontrako iritzirik ere ez zen falta izan.

Klasizismoaz eztabaida. Maialen Lujanbiok Ordiziako finalaurrekoan bota zuen azken agurrak egurra eman zion, bere ustez txapelketak bertsolaritza klasikoari egindako apologiari.

[**Bertsolaritzaren datu-basea**]

BERTSO ESKOLAKOAK SAILKAPENEAN

Finalean

- Aitor Mendiluze, txapeldun
- Jexux Mari Irazu, txapeldun-orde
- Iñaki Zelaia, bosgarren
- Jokin Sorozabal, seigarren

Finalaurrekoetan

- Unai Agirre
- Maialen Lujanbio
- Jon Eizmendi
- Joxe Luis Urdangarin

Lehen fasean

- Iker Alustiza

Bertsolari Elkarteko Lehendakariak, Imanol Lazkanok, kantatua:

Doinua: Aita izena.

Kanporaketak pasa ondoren
lehenago hainbat herritan,
euskaldun denok jarriak geunden
gaurkoaren egarritan.
Zerbaitek behintzat elkartzen gaitu
beti ez gabiltz erritan,
seguru nago aurrera ere
batu gindezke sarritan,
gure zuhaitza udaberriro
baitegu kimu berritan.

Aitor Mendiluze Txapeldunaren agurra:

Doinua: Ligoi bizitza ez da izaten.

LASARTEK TXAPELDUNARI

Aitor Mendiluzeri txapela jar
tzi ondoren, Manuel Lasarte
kantatu zituen bi bertsoak:

Doinua: Haiziak bidali du

Zortzi bertsolariak
dira leihal jardun,
horren testigu gera
milaka euskaldun,
beraz Mendiluze zu
zaitugu txapeldun,
zorionak bihotzez
horixe nahi gendun.

Entzuleak bertsoak
desio dituzte,
nik ahal banu hortikan
aseko nituzke,
zuekin inoiz ahaztu
naizenik ez uste,
Lasarte zaharrak beti
maiteko zaituzte.

Nundik datozkit hainbeste txalo
ta nundik hainbeste sari,
lehenik eskeini behar atzean,
dagon zazpikoteari,
ta beste hainbat zuentzako gaur
publikoari berari,
txalo jo didatenari,
bueno, ta beste denori
eta nola ez atzo urteak
kunplitu zituenari,
Manuel hau zuri eskeintzen dizut*
atzoko partez opari.

* Manuel Lasarte

20 urterekin txapela irabaztea eta txapela Manuel Lasartek ematea da kolpetik zerua zabaltzea. [**Aitor Mendiluze**]

Finalaren bezperan Yausikan ibili ginen parrandan, eta ez dakit etxera noiz joango ginen. Nik orduan buruan ondo pasatzea izango nuen, seguruena. Pare xamarrean tokatu lanak, eta berriaren efektua, hori ere izango zen pixka bat, eta bigarren geratu nintzen. [**Jexux Mari Irazu**]

Finalaz ere oso rekuerdo ona dut. Miopiarekin hasia nengoen baina betaurrekorik ez nuen janzten eta Gaskan nik jendea ikusten nuen, besterik ez. Beti izan naiz jende askorekin kikildu ez naizena. Askotan okerrago pasatzen dut mahai batean hamar aurpegi gertu ikusiz, mila lagun aurrean edukita baino. [**Iñaki Zelaia**]

Ez nuen pentsatu ere egin bukaeran trabatu eta hargatik bigarren geratu nintzenik. Bukaerako agurra ere katxondeoan bota nuen: gai batean homosexualen paperean jarri gintuzten Joxerramon Elortza eta biak, eta ordurako berri xamarra zen gai hori, eta bigarren geratuta, ikuspegi pasota xamarretik bota nuen "batek daki zer trauma dagoen epaile baten bizitzan / homosexuala izan ez banintz txapeldun izango nintzan". Bigarren postu horri justifikazio bat emate aldera bota nuen! Baten batek pentsatu zuen "hau kexatu egin da"... baina ez zuen horretatik ezer. [**Jexux Mari Irazu**]

Azkenean txapelketak badakigu zer diren, neurri handi batean "suertea". Lehenengo saioa Mutrikun kantatu nuen eta azkeneko bertsoan poto egin nuen eta puntu erdiz pasa nuen lehenengo fasea. Txiripaz pasa, eta bigarren fasean konfiantza gehiago hartu, eta gero finalerdian hazten joan... azkenean finalean kantatu nuen. [**Iñaki Zelaia**]

Bertsolari talde bat bageunden aritzen ginenak, eskarmentu pixka bat genuenak. Gure inguruko jendea zen finalerako txartela jokatu behar genuenak. Denok borroka egin genuen, eta nik neronek kartzelan poto egin nuen. [**Unai Agirre**]

Beti esan didate txapel erdia Errenteriako finalaurrekoan irabazi nuela. Aurreko bi egunak gaixo egonda eta nekatuta joan nintzen, baina bertsotarako sentsazio bat baneukan, "egingo dut". Saioa hasi eta berehala etorri zitzaidan sentsazioa "ostra, hau duk buruaren emana! hau duk etortzea!" erraz, gustura aritu nintzen bertsotan. Bukatutakoan Anjel Mari Peñagarikanorekin egon nintzen eta hark esaten zidan "bertso hau oso ona, hemen akats txiki bat egin duk..." eta pentsatzen nuen "jendea fijatu egiten da nire bertsoekin, nik txapelketa honetan ezezaguna izan beharko nikek". Hasten ari den bertsolari batentzat bi osagaiak elkartzea zen, batetik nire sentsazioa, han bertsotan egiteko gai nintzela, eta bestetik nik baino askoz gehiago zekien jende baten sentsazioa bertsua izan zela. [**Aitor Mendiluze**]

1995-04-28, Urretxu

Gaur jakin duzu haurtzaroan hainbat parre eragin zizun pailazoa hil dela.

Doinua: Aita izena.

Jexux Mari Irazu:

Banekien bai ote zeundela
nahiko bajatu samarrik,
gogoratzen naiz zuri begira
ez nuen ba egin parrik!
Orain jun zera ta haur ginanak
utzi gaituzu bakarrik.
Zeru aldian ez da izango
parrik gabeko baztarrik.
Zinana izan zinadelako
ez det egingo negarrik.

Hainbat alditan egon ginan gu
zuri beira algaraka,
izan'e halako xelebriaren
planta betidanik daka.
Behin betirako gure ondotik
izkutatu ta aparta.
Hala ta guztiz irri batekin
agur negarrak lagata,
bizitza ere azken batean
komeria hutsa data.

1995-05-12, Villabona

Zu Maialen Lujanbio artista famatua zaitugu. Zure kuadroa pintura erakusketa baterako eskatu zizun kultur-etxeko zuzendariak Juanito Mitxelenak. Astebetera Maialen erakusketara etorri zara eta zure kuadroa azpikoz gora ikusi duzu. Hiruna bertso Maialen Lujanbio hasita.

Lujanbio:
Herrian aurkeztu det
nere lan sakona
ez da intelektuala
holako gizona.
Goiaren erretratu
txukun eta ona,
da zuk ikusi dezun
gauzik astraktona.

Mitxelena:
Artista jarri zera
zu penetan lehertzen,
gauz hoiek ikusita
bait zera aspertzen.
Kuadroa buelta emanda
hortxen da agertzen,
lehen zeguen bezela
ez zuten ulertzen.

Lujanbio:
Parrik ez zazu egin
zuk nere kontura,
nere kuadroak bazun
nahikoa lilura.
Orain inork ez al du
adierazten duda,
azalpenak idatzi
al dizkiozu ba?

Mitxelena:
Etzaitez hasarretu
hau dala medio,
jendeak gauza horren
berri hauxe dio:
egia esan hori
zer erremedio,
buelta eman ta gehio
duela balio.

Lujanbio:
Dirua're aipatu
dezu azkenian,
ze zentzu artistiko
dezun barrenian?
Behia goian dauka ta
goia dauka bihan
ta gaitzerdi aldrebes
jarri ez dunian.

Mitxelena:
Artista bat edonor
diteke etsita,
bere langintzak badu
hainbat garrantzi ta.
Itxura danez zaude
gutxitxo jantzita,
hurrengoa pintatu
begiak itxita.

1995-10-20, Usurbil

Doinua: Haiziak bidali du

Puntua:
Bururatzen al zaizu
pentsamentu txarrik?

Jon Eizmendi:
Nere gogoan ez da
desio zakarrik,
sortuko balitzaida
behin asmo baldarrik,
hura gordeko nuke
neretzat bakarrik.

Azken oina emanda neurri librean: Zain.

Doinua: Ezkondu eta ezkongai.

Jon Eizmendi:
Neskak Bilintxeri ja-jai,
ez zan geldituko lasai,
ni ere nago ezkongai.
Neskatxa bati telefonotik
hots egiten diot noiznahi
baina hark ez du esan bai,
nonbait ez du ausartu nahi,
bitartean hemen naiz zai.

1995-10-22, Arrasate

Puntua:
Enkargatu al duzu
lekurik zeruan?

Joxe Luis Urdangarin:
Bestela're nahiko lan
badaukat munduan,
baina egon nahi banu
Jaunaren onduan,
eskatu gabe ere
seguru banuan.

Puntua:
Jarrita al daukazu
txanpaina freskatzen?

Iñaki Zelaia:
Ni ezin naiz gaur hasi
gezurrak kontatzen.
Ez badet nik hobeto
gaurkoan kantatzen,
lan askorikan ez det
botilak askatzen.

1995-10-29, Zumaia

Bi guraso zarete. Loidisaletxek bere seme alabei ez die telebista pizten ere uzten. Aitor Mendiluzeri jarrera gogorregia iruditzen zaio.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza.

J.J. Loidisaletxe:
Nere jarrera hori da eta
izan nahi nuke hitzeko,
motiboik ez da telebistaren
aurrean beti ibiltzeko.
Haurrak ez dute ia ohiturik
pasiatzen ibiltzeko,
modu politak gehio badira
orduk ondo pasatzeko.

A. Mendiluze:
Denok dakigu neurritik kanpo
kaltegarrikoa dela,
baina ez dezu gauza onikan
inoiz lortuko horrela.
Munduan zehar zer berri dagon
enteratu ditezela,
gaur egun ezin gintezke bizi
kobazulotan bezela.

J.J. Loidisaletxe:
Nere jarrera antzina edo
zaharkitua omen da,
baina zaharraren esana sarri
arrazoidun izaten da.
Munduan berri jakin behar du
baina kalera ertenda,
telebistaren denbora pasa
gaixotasun bihurtzen da.

A. Mendiluze:
Gaixotasun bat izan liteke
ikusi ezkero noiznahi,
baina ona da ikusiz gero
neurri batez eta lasai.
Programaketa azter ezazu
egon zer ikusiko zai,
zer ahaztua badago baina
zer ikasia ere bai!

J.J. Loidisaletxe:
Kaja zahar horren aurrean ahaztu
egiten dira lagunez
eta zertxobait esan nahi dizut
orain zuri erantzunez.
Ezer onikan ez leike lortu
gezur pila hoi entzunez
zeure haurraren onerako da
ta joka zazu zentzunez.

A. Mendiluze:
Ez diet uzten telebistara
joaten goizean goizik,
baina noizbehinka uztea edo
zentzuzkoa leike kasik.
Izaten ezin jakingo dezu
argi erakutsi ezik,
hori ez dala kaja tontoa
maisu dotore bat baizik.

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua:
Preserbatiboakin
egiten al duzu?

A. Mendiluze:
Bai beti nagolako
ni gaitzekin izu,
zita're badedala
zuk jakin ezazu.
Bukatu egin zaizkit
bat ba al daukazu?

Azken oina emanda neurri librean: Papera.
Doinua: Aita izena.

J.M. Irazu:
Nik begirada luzatu nahi det
Amazonia aldera,
mundu guztiko baso ta oihanen
atseden-leku da bera.
Moztu ta moztu etengabean
aspalditik ari gera,
igual gu ere joan gintezke
oihanarekin batera,
horrexegatik bere neurrian
gastatu behar da papera.

1995-11-1, Alegia

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua:
Mesederako al da
lana banatzea?

Jokin Sorozabal:
Mesede izan leike
pixka bat kentzea,
baina beste aldeak
dakar hor trantzea.
Mesederik haundina
berdin kobratzea.

Puntua:
Adinik onenean
dator soldadutza...

Jokin Sorozabal:
baina ez du balio
zakurraren putza!
Burua nahasten du ta
hondatu gorputza
eta oraindik eman
nahi zaio laguntza.

Gartzelako gaia: Denboraldi bat etxetik kanpo pasa ondoren, itzuleran, etxeko ateari kanta hiru bertso.

Doinua: Aita izena.

Jokin Sorozabal:

Pentsatzen nuen herrian inork
ni ez ninduela maite,
ta horregatik alde egin nuen
begi bistatik aparte.
Gaur itzultzeko hartutakoan
horrenbeste borondate,
nik zer sorpresa hartua dedan
inork ere ez dakizute!
Denbora asko pasako nuen
atea aldatu baitute.

Eta orduan pixka pixka bat
larritu naiz berehala,
konturatu naiz ate berriko
giltzarik ez daukadala.
Lehengo giltza zan nere mendeko
xumea eta leiala,
orain txirrina jo egin behar
kanpotar batek bezala
ta espero det barrukon batek
zabalduko al didala!

Gazteoi beti gure etxeko
giroa ez zaigu gustatzen,
horregatikan aldaketara
errez ohi gera prestatzen.
Etorri eta zein da harrera
hortan ari naiz kezkatzen.
Nere denbora joanak joan dira
hasi nahi nuke askatzen,
barkamen eta erruki pixkat
besterik ez det eskatzen.

1995-11-05, Ataun

Martin Rezabal "Olaso" egundoko herrena eginez sartu da Maialen Lujanbio medikuaren kontsultan baja eske. Maialen Lujanbiok azterketa egin behar dio.

M. Lujanbio:
Hemendik entzun ditut
gizonan kejuak,
egiten ditun builak
ta bere ojuak.
Leheno txikia zana
txikitu kojuak
eta gainera baja
nahi du gizajuak.

M.R. Olaso:
Medikuak badauka
nahikoa malezi,
hola ilea hartzen
zergaitikan hasi.
Hanka motz ta luzea
dizkidazu nahasi,
motxena ez didazu
oraindik ikusi.

M.R. Olaso:
Burlaka hasia zait
bera derrepente
ta buruko ileak
jarri dizkit tente.
belaunen mina daukat
gainera dezente,
kejauko zinake zu
honela bazeunde!

M. Lujanbio:
Horrekin geratu da
berriz parregarri,
motxena omen dana
nik ez det igarri.
Keja berdinarekin
asko datoz sarri,
baina hor ezin dizut
igeltsorik jarri.

M. Lujanbio:
Itxura penegarriz
etorri zera zu,
horregatikan egin
behar dizut kasu.
Hanka benetan motza
ikusten det aizu!
Eta beste belauna
normal al daukazu?

M.R. Olaso:
Sendagilea dator
gaur nahikoa trebe,
adarra jotzen bera
nahiz ikusi grabe.
Ta erantzungo dizut
suabe, suabe,
tente egoten da hori
igeltsorik gabe.

Azken oina emanda neurri librean: Irakurri.

Doinua: Aita izena.

Maialen Lujanbio:

Txapelketetan aritzen gera
denak estu eta larri,
bertsoak duen mamia ere
ia ezin degu igarri.
Biharamona izaten degu
gu guzion lasaigarri
ta Rufinoren kronikak ere*
irakurtzen ditut sarri,
baina gezurra jartzen du dena
ta inork ez irakurri.

*Rufino Iraola, El Diario Vasco-n argitaratzen zituen kronikak.

1995-11-19, Azpeitia

Oina: Berriz.

Joxe Luis Urdangarin:

Hogeigarrengo urteurrena
orain burura ekarriz,
Francon izena daukat buruan
bere bigote ta irriz.
Haren menpean gure herriak
pasatako une larriz,
ibilia da, triste gosea
erdi hilda ta egarriz;
nere gurasuk pasatakoa
ez nuke pasa nahi berriz.

Martin Rezabal "Olaso" mendiko iturri zaharra zaitugu eta Joxe Luis Urdangarin iturri horretan freskatzen jarrita dagoen coca-cola. Hiruna bertso Martin hasita.

M.R. Olaso:
Nere bizitzan, mendian puntan
sortu dedan eragina,
hainbat egarri etorri danai
kendu ohi diet samina.
Ta zu're orain nereganaino
heldu zera alajaina!
Nere beharrik ez zenedukan
zeu ona izan bazina.

J.L Urdangarin:
Belarri hontara mina eginez
etorri zait zure hitza,
nahiago nuke mendi honetan
beste iturririk balitza.
Aizu, mesedez, ez zaitez orain
erraz nere aurka mintza!
Azken aldian, nere kolore
berdinarekin zabiltza.

M.R. Olaso:
Zuk neregana etorritzea,
ez zenedukan ahaztuta,
piskat mejoratu nahi zenduke
hemen nigan freskatuta.
Hor honuntza zu etorri zera
beste norbaitek hartuta,
kolorea du betz beltza eta
gain(er)a botika nahastuta.

J.L Urdangarin:
Gaurko honetan jarria naute
nahiko iturri merkean,
hori esaten det nere ondoan
dedan ura ikustean.
Nere iritziz, hemen jartzea,
izan da nere kaltean;
hau da hau nazka, hartzen dedana,
zapaburuen artean!

M.R. Olaso:
Eta inor'ek ez dizu esan
zapaburuei heltzeko,
azken aldian, nahiz ta urritu
oaindik ez dago galtzeko.
Zu eran eta jende gehiena
jarritzen dezu trantzeko,
gero tragoa nei eiten didate
zure gustoa kentzeko.

J.L Urdangarin:
Zure ondoan, egon beharraz,
guztiz nazkatuta nago,
magal hortako zikinkeri ta
goroldioen esklabo.
Orandik epel, epel naukazu
nahiz ta itxaron luzaro;
bazkaltzen hasi nahi dute eta
eman presio gehiago!

1995-11-26, Errenteria

Mikel Mendizabal haziendako inspektore zara eta Aitor Mendiluze parrokoa. Parrokoak, zergak ordaintzen ez dituelako, inspektorearen bisita izan du.

Doinua: Kantatzera nijoa.

M. Mendizabal:
Parrokoan etxera
bisita juanta,
honek armatua dit
hainbat zalaparta.
Ordaindu zazu zerga
kontuak lagata,
Jainkoaren aurrean
berdinak gera ta.

A. Mendiluze:
Denak berdinak gera
horra zure hitza,
hobe genduke beti
beteko balitza.
Jainkoaren etxea
nola den eliza,
nere faktura danak
berak ordain bitza.

M. Mendizabal:
Elizako kontuak
zabiltz adierazten,
baina diferentzirik
ez degu ikusten.
Zuek tranpatarako
horrenbeste ezten,
haziendak ez du ordea
ezer'e bereizten.

A. Mendiluze:
Ez duela bereizten
haziendak bela,
laister konponbiderik
ez dator horrela.
Zuk ez al dezu entzun
hark esan bezela,
kristau onak barkatu
egiten duela.

M. Mendizabal:
Esaera hoiek ziran
nunbait'e aintzinan,
baina utzi itzazu
guztiak ezkinan.
Ez zaitez hasi orain
Kristoren dotrinan,
erlijiorik ez da
gure diziplinan.

A. Mendiluze:
Bueno, hasten bazera
holako hitz haundiz,
dena ordaindu egin
beharko det egiz.
Horra neure dirua
jarritako neurriz,
ta igandean poltsan
bota zazu berriz.

Azken oina emanda: errez.

Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi.

Jexux Mari Irazu:

Euskal Herriko arazo danak
konpondu behar indarrez,
tristura ere etortzen zaigu
hori pentsatu bakarrez.
Lehenago ere zer dakarkien
ikusia degu aurrez,
pakerik ezak nahiz eta denok
uzten gaituen negarrez,
hala're denak mahai inguruan
ez dira eseriko errez.

1995-12-03, Ordizia

Aita alabak zarete. Bixente Gorostidi aita, unibertsitateko irakaslea bera, eta Maialen Lujanbio alabari unibertsitatera joateko adina iritsi zaio baina ez du aukera hori hartu nahi.

Doinua: Nafarroako mendi gainetik.

M. Lujanbio:
Donostin dago campus eder bat
berdin Gasteizen bezela,
hirugarrena, Leioan dute,
EHUren kartzela.
Irakurtzen det fakultateak
oso gaizki doazela,
horrek izena dauka polita
eta barrua ustela.

B. Gorostidi:
Ondo diozu ez dabil sano
arrazoirik ezin kendu,
era horretan zure aitari
ahotsa orain ez ozendu.
Ta hobe dezu ondo hezitzeko
guregandik ez aldendu,
ez da munduko onena baino
zer ikasia eskaintzen du.

M. Lujanbio:
Gogoratzen det Paris aldeko
aintzinako iraultza hura,
baina Euskadira begiratuta
orduan sortzen zait duda.
Ez zazu pentsa ni erortzerik
hipokresian mundura,
euskara hutsean ikastearren
greba e(g)in behar den lekura.

B. Gorostidi:
Hanka azpiraino jaitsi ohi dute
sarritan gure hizkuntza,
baina jakizu beti atalka
hobetzen dela hezkuntza.
Ta jakin gabe zertako egin
horren kritika hain hutsa!
Gauzak hobeto egin daitezen
eskeini zure laguntza.

M. Lujanbio:
Nere laguntza eskeiniko det
hori badakizu jakin,
baina elkar lana egin behar da
beste jende guziakin.
Maiz entzuten det zereinik ez da
funtzionarioekin,
nik zu bakarrik ezautzen zaitut
ta nahikoa det horrekin.

B. Gorostidi:
Trapu zikinak astintzen orain
ez zaitez hasi mesedez,
zure heziketan ama ta biok
badegu nahiko interes.
Eta etxean ez usteltzeko
zu alperraren alperrez,
nik matrikula egingo dizut
gustoko izan edo ez.

Sorozabal-Unai Agirre. Bi boxealari zarete. Ring-ean elkar joka baina lurrera erori dena arbitroa da. Nork bota du?

U. Agirre:
Oso ona ez daukak
aizak punteria,

J. Sorozabal:
hiri eman banian
a ze aberia!

U. Agirre:
Arbitroa altxatzen
orain komeria,

J. Sorozabal:
hemen egin behar dik
bakoitzak beria.

U. Agirre:
Hurrena ikasiko dik
paretikan kentzen,

J. Sorozabal:
bestela nahiko lana
bizirik mantentzen.

U. Agirre:
Huraxe jotzia zen
guretzat errezen,

J. Sorozabal:
hi jo izan bahindut ere
lurrera joan hintzen.

U. Agirre:
Holakotxiak gaituk
boxealariak,

J. Sorozabal:
borrokan hasiez gero
kriston aberiak.

U. Agirre:
Arbitroarekiko
geure komeriak

J. Sorozabal:
hura bota diau ta
gaur txapeldun biak.

J. Sorozabal:
Nola ez zuen pitatzen
harek nere alde,

U. Agirre:
odolik nahi ez badek
bistatikan alde.

J. Sorozabal:
Potrotan eman diot
ta hik zeinek galde,

U. Agirre:
lantegia ez zaio
atera debalde.

J. Sorozabal:
Haundi hauek makalak
izaten baitira,

U. Agirre:
baina kolpe bakarra
nahikoa guztira.

J. Sorozabal:
Nik jotzen bahaut ez haiz
joango urrutira,

U. Agirre:
baldin probau nahi badek
ez hai erretira.

J. Sorozabal:
Txilipituarekin
nahiko txulo dabil,

U. Agirre:
orain ez dik pitauko
ez oso borobil.

J. Sorozabal:
Eskerrak medikua
zegoela hurbil,

U. Agirre:
deitu zaiok DYAri
ez baldin badek hil.

1995-12-17, Donostia

Aitor Mendiluze denda handi baten jarri zaituzten Olentzeroren irudia zara. Gauean Iñaki Zelaia sartu da lapurretara. Hor zaudete biok aurrez aurre.

A. Mendiluze:
Haur denentzako hemen badago
gutxinez jostailu bana
eta guztiak eramatea
gaurkoan zure afana.
Bainan umeen pozarentzako
hara zer nolako zama,
zuk lapurtzea neronek eman
beharko nien poz dana!

I. Zelaia:
Pistola duen inor ez dago
ta arituko naiz lasai,
hartuko ditut erropa danak
eta pitxiak ere bai.
Baina Olentzero zauden lekuan
egun gehiagotan jarrai,
nik ez bait nuke ume guztien
ilusiorik ohostu nahi!

A. Mendiluze:
Zuk asmo on bat badezu behintzat,
eta hainbestean grazik,
baina okerra bihur liteke
hori ondo egin ezik.
Ilusiorik lapurtu nahi ez
ez zabiltza zuzen kasik,
ni ez naiz haien ilusioa
nere opariak baizik!

I. Zelaia:
Opariren bat hartuko dedan
beldurtu egin al zara?
nik ume denak maitatzen ditut
eta ez izan ikara!
Beraientzako opari pila
sartuko ditut poltsara
ta bihar bertan jardun behar det
neuk Olentzero gisara

A. Mendiluze:
Lapur zintzo bat azaldu zaigu
egon beharko det lasai...
aspaldidanik nengoelako
ni horrelako baten zai.
Zuk Olentzero papera egin,
benetakoarentzat jai!
Umeentzako opari eta
Olentzerontzat ere bai.

I. Zelaia:
Gau iluna ta laban txiki bat
dira neretzako armak,
biharko egunez poztu nahi ditut
beharrean diran danak.
Pitxi ugariz eta larruzko
jantziaz datozte damak,
lehen ere opari nahiko badute
hona etortzen diranak!

Iñaki Murua etxetik kanpo lan egiten duzun emakume gaztea zara. Haurra izan duzu eta, Aitor Mendiluze, zure ama prestatu zaizu haurra zaintzeko. Zuk, Iñaki Murua, ordea, haurra haurtzaindegira eraman nahi duzu.

I. Murua:

Hobe dira haurtzaindegiak,
eman bakoitzai beriak,
haurrak haurrakin bizitzen ditu
bere komeriak.
Ama aditu egiak
ta ez tristetu begiak.
Nere haurrarentzat ez nituzke nahi
amonan maniak

A. Mendiluze:
Nere manien ikara,
horrekin kutsatu zara,
horregatikan eraman behar
dezula bertara.
Bainan aditu alaba,
ez gero eraman hara!
Familiakin baino hobeto
nun egongo da ba?

I. Murua:
Hasi hara eramaten,
ta ideara egiten,
familia ez da haur batentzako
beti onena izaten.
Ausartuko naiz esaten,
arrazoi on bat emate,
egun guztia ez du pasako
karamelu jaten.

A. Mendiluze:
Amonak nahi du harrapa,
zuk nahi ez, hauxe da marka!
Karamelurik ez det hartuko
kalterako da ta.
baina ez nigandik aparta!
Hori da erru galanta!
Zainketak sobran izango ditu,
maitasuna falta.

I. Murua:
Han ibiliko da alai
eta jolasean lasai,
gainera dauzka hiru edo lau
pertsona bere zai.
*"Hortxe isili egon hai! **
Erori egingo da ai!"
Ume mukizu mimatu baten
ama ez dut izan nahi!

A. Mendiluze:
Mimatzearekin izu
eta kejan jo eta su,
bainan nik ama zer den badakit,
egidazu kasu!
Maistrarekin fio zu,
ona dala badakizu;
baina hari ama deitutakoan
damutuko zaizu!

Zuk, Loidisaletxe, maitasunezko mezu bat bidali zenion zeure maiteari Aitor Mendiluze mezulariarekin. Zer gertatuko ordea, eta zure maitea mezulariaz maitemindu da.

Doinua: Nere senarrarekin.

J.J. Loidisaletxe:
Adar jotze polita
nei egin didazu!
Nere maitea orain
zurekin daukazu.
Eta horrek jartzen nau
erreta jo ta su!
Eskutitzan izena
aldatu al dezu?

A. Mendiluze:
Topo egin gendun da
zer erremedio!
Harrek konbidatuta
ni etxera io.
Zure mezuak soilik
ez zion balio,
urrutikoa baino
gertukoa nahio.

A. Mendiluze:
Nola nik nere lana
ondo egin dedan,
ez det ezer aldatu
zuk diozun eran.
Baina nahiz mezu ona
bidali aukeran,
hark aina esan nahi du
nola ematen dan.

J.J. Loidisaletxe:
Neskatxa kendua dit
neri ondotikan
eta horrek mindu nau
oso gogotikan.
Nahiz saltorik ez dedan
eingo balkoitikan,
hurrena saiauko naiz
telefonotikan.

J.J. Loidisaletxe:
Mezulariak daude
guri zerbitzeko,
honek egin duena
hain da harritzeko!
Nik soilik esan nizun
buzoian sartzeko,
neu're nahikoa nintzan
seilua jartzeko!

A. Mendiluze:
Aurrez aurre saiatu
behar da hizketan,
ez badezu egon nahi
ondoren penetan.
Bainan berriz zugana
joango naiz benetan,
karta bat idazteko
urtebetetzetan.

Doinua: Haizeak bidali du.

Puntua:
Errepidea malkoz
bustitzen da sarri...

Jexux Mari Irazu:
Irratitik entzun det
gauza horren berri,
eta ez ibiltzekotan
estu eta larri;
edan dunak bolante
aurrian ez jarri!

Puntua:
Kartzeletan ematen
al dute txanpaina?

Aitor Mendiluze:
Emango baliete
hobe alajaina!
Neroni ez naiz inoiz
bertan egon baina,
kontentu izatean
bazkaltzeko aina!

Puntua:
Hogeigarren mendeko
bukaeran gaude:

Aitor Mendiluze:
eta ez gera geure
buruaren jabe.
Munduan makina bat
arazo badaude,
horra hor hogei mende
ezer lortu gabe.

1997KO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

SAILKAPENA

1. Andoni Egaña	1340,0 puntu
2. Sebastian Lizaso	1272,5 puntu
3. Unai Iturriaga	1256,0 puntu
4. Jexux Mari Irazu	1241,5 puntu
5. Mikel Mendizabal	1233,0 puntu
6. Aritz Lopategi	1224,0 puntu
7. Jon Maia	1186,0 puntu
8. Maialen Lujanbio	1183,5 puntu

BERTSO ESKOLAKOAK SAILKAPENEAN

Finalean

- Jexux Mari Irazu, laugarren
- Maialen Lujanbio, zortzigarren

Final-aurrekoetan

- Aitor Mendiluze
- Unai Agirre
- Iñaki Zelaia
- Jokin Sorozabal

Azken-laurdenetan

- Jon Eizmendi
- Joxe Luis Urdangarin

Lehen fasean

- Xabier Legarreta

(Finalean) Ofizioka bertsolari handi batekin tokatu nintzen. Ura edaten hasi zen, basoa hartu eta dardararekin utzi egin behar izan zuen. Niri hark hotzikara sartu zidan, gu zer "ijiji" genbiltzan. Pertsona batek egun batean zer jokatu dezakeenetik begiratuta, guretzat askoz axalekoagoa zen, eta bazegoen beste jende bat basoa hartzeko gauza ez izateko situazioan jartzen zuena. Beranduxeago, bueltan bueltan guri etorri zaiguna. Oroitzapen oso ona daukat, hango jende pilarekin, konpromiso handirik gabe, erraz edo behartu gabe... [**Jexux Mari Irazu**]

Aramaion egin nuen lehen saioa Xabier Silveirarekin, eta Beran finalerdikoa. Bederatzigarren geratu nintzen, finaletik pauso bakarrera. Postuaz eta puntuazioaz aparte, jendaurrean plazer gehiena sentitu dudan eguna Berako finalerdia izan da. Gaskako finala (Gipuzkoako Txapelketa 1995) baino kasi emozionanteagoa kantu-kideengatik, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Loidisaletxe. Frontoiaren burrunbagatik eta egin nuen saioarengatik oroitzapen onena horkoa daukat. [**Iñaki Zelaia**]

1995ean Gipuzkoakoa irabaztea sorpresa izan zen, saltoa, eta handik bi urtera Euskal Herriko Txapelketa etorri zen.

Igorren, finalaurrekoan, Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua eta aritu ginen, saio negargarri bat eginez gainera, eta nik bi poto egin nituen asko konturatu gabe. Saio hartatik Sebastian bakarrik pasa zen aurrera. Gerora Sebastianek esaten zuen "hemen egin diagun kaka-pila, hirekin geneukan esperantzarekin!". Nirekin esperantza? "Bai, hik egingo duk gero ere, baina Gipuzkoakoa irabazita eta plazan nola habilen ikusita..". Lehenengo Euskal Herrikoaz sentsazio hori geratu zitzaidan, " guk ere igual zerbait egitea bagenuen!". [**Aitor Mendiluze**]

Finalaurrekoa Igorren zen. Han kantatzeko mentalizatu egin ginen, eta tope preparatu. Igorren, sei puntuko bertso batean kateatu egin nintzen, eta kosta egin zitzaidan bertsoa bukatzen. Baina ordura arte oso gustura geratu nintzen egindako bertsoekin. Eta tabladutik jaitsi eta jendeak "pattal, e!" esan zidan, ez nire lanagatik bakarrik, saioaz orokorrean. Eta "epa, hauek beste ur batzuk dituk" esan nuen. Orduan konturatu nintzen gure dimentsioz kanpo genbiltzala. Igorren saioaren kontrolik ez genuela eduki. Tabladu gainean giro arraro bat eduki genuen, Lizaso izan zen salbatu zen bakarra. Mendiluze bera bi potorekin, Igor Elortza gaizki, Murua... kartzelan gure artean esaten genuen "nahiko txukun ari gaituk, ez?" eta ez ginen ondo ari. [**Unai Agirre**]

1997-10-11, Tolosa

Zuek aiton-amonak zarete, Igor Elortza aitona eta Unai Agirre amona. Eman dezagun astelehen goiza dela eta txukun-txukun jantzita Tolosako ferira joan da aitona, bazkaltzera itzuliko dela esanez. Goizeko ordu bietan dator etxera, taxian eta bastoia galduta.

U. Agirre:
Nere senarrak badu
hainbeste bertute,
hara zer egin didan
fiatzean truke!
Hola etorriko zanik
gaur ez nuan uste,
Tolosa alde hortan
zer egin dizute?

I. Elortza:
Tolosaldea ez zegon
gaur jenderik barik,
hiru-lau trago ere
hartu dut azkenik;
mozkortu egin naiz eta
ondo ez naiz oraindik,
baina galdetu zazu
zer egin dudan nik.

U. Agirre:
Galtzak ta alkandorak
zeharo zikinak,
zure ibilerak ditut
lehenago jakinak;
bastoia ere ahaztuta
bere ahaleginak,
gauez ahazten zaizkio
herrenak ta minak!

I. Elortza:
Amonak dioena
ez ote dugu lar?
Nahikoa min badauzkat
gerrietan zehar.
Gauero ezin dugu
bada, egin negar,
behin etorri pozik ta
hauek entzun behar!

U. Agirre:
Berak esan duenak
badu garrantzia,
batzutan izaten du
kristoren trantzia.
Ez da harritzekoa
nik dudan letxia,
bihar ni irtengo naiz
zuk zaindu etxia.

I. Elortza:
Gauzarik errezena
dugu esatea,
baina ondorengoa
hola izatea.
Leku peligrosoa
Tolosa partea,
ez al dugu onena
batera joatea?

U. Agirre:
Mozkorra izaten da
zahartzaroan kalte,
horrelakoak hobe
nigandik aparte.
Alkohol kirats horrekin
nik ez zaitut maite,
galtzak erantzi eta
sofara joan zaite!

I. Elortza:
Esaten duenakin
nola egin kasu?
Alkoholaren usainak
antza enbarazu.
Bihar nire ondoan
etor zaitez aizu,
probatzen duzunean
gustatuko zaizu.

1997-11-16, Bera

Iñaki Zelaia ikastetxeko zuzendaria eta Maialen Lujanbio irakasle gaztea zarete. Maialen institutura irakasle sartu zenetik, mutil guztiak txoraturik eta aztoraturik dabiltza.

I. Zelaia:
Eskolan bagenduan
hobetzeko planik,
irakasle berri bat
heldu da jadanik;
badauka lan-gogorik,
badauka afanik,
baina txoramena hain
haundia izanik,
zer erakusten dezun
jakin nahi nuke nik.

M. Lujanbio:
Denetik erakusten
nahi nuke saiatu,
pedagogiaz eta
didaktikaz sartu;
nik hitz egin dezaket
baju edo altu,
txintxo portatu edo
jenioa batu,
baina atraktibo hau
ezin det aldatu.

I. Zelaia:
Gauzak hoberantza jo
behar zuten noizpaiten!
Erakusten du honek
irakurri-idazten,
eta atraktiboai
segi luze eusten;
bazabiltza denetik
bertan erakusten,
nik ere hasi behar det
berriro ikasten.

M. Lujanbio:
Zuk dadukazuna da
aurpegi galanta!
Ikasten hasi nahi du
ta hau da hau marka!
Nik onartuko zaitut
klasean presaka,
abisatuko dizut,
ez zan besteik falta!
Oraindik praktikara
ez gera pasa-ta.

I. Zelaia:
Irakasle gaztea
guztiok tentatzen,
taktika ona dala
ez degu ukatzen.
Lehen ni aritzen nintzan
klaseak banatzen,
ikasleengan guzti hau
onerako izan zen,
latigoa ez zitzaien
gehiegi gustatzen.

M. Lujanbio:
Ni klaseetan ez naiz
pasatu hainbeste,
nahiz ikasleak jardun
gehiagoren eske,
nik ez nien egin nahi
janzte ta biluzte;
kimika ikasterik
ez det asko uste,
baina gorputz atalak
ikasi dituzte.

1997-11-30, Beasain

Kartzelako gaia: Liburu bat zara, herriko liburutegiko apal batean. Azken hamar urteotan hautsa kentzeko baino ez zaituzte mugitu.

Jexux Mari Irazu:

Ez dakit baino esaten dute
anonimoa naizela,
egia da bai ez zait tokatu
halako suerte itzela;
bi mila urtetan edukia det
bilakaera ustela:
apal zaharraren umela
edota hautsa bestela.
Biblia nauzu ta hementxe nago
lehen idatzia bezela,
eta eskerrak apaiz xaharra
tarteka etortzen dela!

Apal batean nola liteke
hainbat urteko bizia?
Nere barruan gordea dago
kristautasunan hazia.
Ondo letuta gordean badet
piparra eta grazia;
baina hau ez da guzia,
bakar nagola auzia;
bibliotekaio gaixuak nauka
baztar batian utzia,
baina halare herriak nauka
ia buruz ikasia.

Oso begiko izana nau ni
beti Erroma kuttunak;
herriarengan ipini ditut
oso lezio astunak.
Nere begikin ikusi izan du
sarri pertsona itsunak;
nere orrialde lizunak
ta tartekako hutsunak.
Garai batean gazte asko ta
bakandu zaizkit egunak,
halare ez da hain gaizki bizi
nere beharrik ez dunak.

1997-12-14, Donostiako Belodromoan

Gabonetako jaiotza bizi bat antolatu dute herri honetan. Zuek jaiotza horretako bi ardi zarete.

Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio:

A. Egaña:
Behin espiritu santuak edo
ume txiki bat ernaldu;
hura gogoan dugu den-denek
herri gutxi batzuk salbu.
Odon Elortzak zinta moztean
hau goiz-goizetik zabaldu;
hemen gertatu zaigunak, aizu,
grazi dexente ez al du?
Oraindik ere gu ikustera
kristorik ez da azaldu.

M. Lujanbio:
Kristorik ez da azaldu, hau da
etsipenezko kolpea;
gure artzaiak erabaki du
gu biok hemen uztea;
gerora apaiz sotanadunak
bendizio bat botea,
kristautasuna da erlijio bat
dogma pozoitsuz betea,
ohore bat da jaiotza hontako
ardi beltza izatea.

A. Egaña:
Ni txuria naiz eta hargatik
ez daukat suerte makala!
Estalpe ondoan kokatu naute
artzaiek nola edo hala.
Horrexegatik daukat halako
belardi eder zabala,
eta zerorrek esan dezunez
zu ardi beltza zerala,
igoal hargatik jarri dizute
belar artifiziala.

M. Lujanbio:
Nahiago nuke loreen ordez
belar piloak banitu!
jaiotza hontan egon beharrak
baditu mila arrisku;
Jesus haurtxoa ere gertutik
ein da zeharo txikitu,
jaiotza bizi honen ideia
ez zait ona iruditu,
erreala egin nahi dute baina
guk ezin degu mugitu.

A. Egaña:
Gure gustoa ahal dala aske
hurreratzea larrera,
zoritxarrean jarri digute
arkume otzan papera.
Gu egizkoak gerala guztiz
egi osoa ote da?
Erregenetan hartuko dugu
kartoizkoaren tankera;
udaletxeko almazenetan
hobeto biziko gera.

M. Lujanbio:
"Udaletxeko almazenetan
hobe geundeke aukeran"
zuk esan dezu, nik hori bera
pentsatua nun haseran.
Ingurutara begiratuta
adizu ze beldur dedan:
Gabon egunez jarri gaituzte
jaiotzako pieza eran
ta Eguberri eguerdirako
artzaiaren kazuelan.

Zuen herrien egoerak kezkatzen zaituzten bi adiskide zarete, Sebastian Lizaso euskalduna eta Jexux Mari Irazu irlandarra. Egun hauetan biok Euskal Herrian zabiltzate.

S. Lizaso:
Herrian kezkak elkarrizketa
sortua digu propio,
zerbait konpontzen hasteko badut
zuk hainbeste intentzio;
behin betirako pakea lortu,
ez dut besterik desio;
elkarrizketan egin dezute
Irlandan hainbeste saio,
zuen bideak Euskadirako
ez ote digu balio?

J.M. Irazu:
Adibidea nere herrian
ia ezin argiago:
begiak itsu baldin badaude
orduan dena akabo.
Mahai inguruan eseri dira
ta gauza dago oparo;
mahaian aitzakin Irlanda aldean
pakea da hurbilago,
eta hemen bat ez da mugitzen,
bestea kartzelan dago.

S. Lizaso:
Aste honetan izan ditugu
adibide nabarmenak:
batu nahi gendun kritikatzeko
epaiketaren kondenak,
ta atzo Bilbon biltzeko ginan
abertzalerik gehienak,
baina ametsik ez digu bete
zoritxarrez ondorenak;
esnatu ezkero eteten dira
ametsikan politenak.

J.M. Irazu:
Geronek ere bizitzan degu
urte askotako pena;
Jerry Adams ta Tony Blairekin
nolako aurrerapena!
Batzuk hizketan eta besteek
bota zuten suetena;
zuek ametsak ta esnatzean
desegin omen da dena;
konpromezua behar da hemen
baina alde guztiena.

S. Lizaso:
Aznarrek garbi erakusten du
Franco txiki baten planta;
Mayor Orejak ez entzuteko
belarri pare galanta;
Espainia aldetik prentsak gogorra
gure aurka daukan lata,
baina bidea aurki dezagun
konponezinak lagata,
itxaropena gorde dezagun
oraindik bizi gera-ta.

J.M. Irazu:
Zuek halatsu eta guk ere
borrokatzen urte pranko;
itxaropena ta odol beroa
daramakigu biharko.
Lasaitu zaitez, egoera honek
noizbait hobetu beharko;
gurearekin laster zuentzat
bakea helduko da bapo,
penagarria izateaz gain
lotsagarria dalako.

Ekitaldi eta ospakizun jendetsuetan lapurretan aritzen zaren karterista zara. Besteak beste, Sevillako Expo 92an ere ahaleginak egin zenituen. Orain jakin duzu hogeita hamabost mila milioiko zuloa agertu dela.

Maialen Lujanbio:

Ondo dakigu ze izaten dan
gu pobreonon patua:
patriketako txanpon mordoxka
aspaldian agortua.
Karteren bila ibili nintzan,
batzuk ezin ulertua,
eta gertutik gertua
diru mordoxka lortua;
hogeita hamabost kiloko zorra
bat-batean agertua,
ta nik barrenen damu bakar bat:
gehiago ez lapurtua.

Ordun Felipe Gonzalez zegon
gaur Aznar dagon antzea,
bere negozio eta proiektu
haundia joan zan hutsea.
Milioi pilo bat auskalo non-da
banketxeetan haizea!
Ni jendearen ertzea
juanda kartera kentzea,
ez da pekatu ta ez espero
jendaurrean damutzea,
ia ekintza on bat'e bada
lapurreri lapurtzea.

Asperturikan nola nengoen
pobreziaren kolorez,
lapurretako nere bizitza
hautatu nuen umorez
eta Sevillan politikoak
euki ere parez parez;
gehientsunak irrifarrez,
ni barne umore txarrez.
Hango dirua banatu izan
baligute neurri berez,
Sevillan zuloik ez zan egongo
ta gure patrikan ere ez.

1999KO GIPUZKOAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA

Arduraduna: Unai Agirre

Non-noiz: Abenduaren 19an jokatu zen, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. 2.000 entzule kabitu ziren, estu estu eginda. Zarautz Jai-Txiki eta Erniope taldeak aritu ziren lehian. Talde bakoitzetik, bertsolari hauek: Zarautz Jai Txikiko Julen Zulaika, Andoni Egaña eta Iñigo Manzisidor,"Mantxi". Erniopeko Txomin Garmendia, Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazu.

SAILKAPENA

Txapeldun	Zarautz Jai Txiki	1.856,5 puntu
Txapeldun orde	Erniope	1.830 puntu

Taldeak: Taldekako izaera hori medio, inoiz izan den partehartzerik jendetsuena izan zuen. Aspaldi txapelketan atera ez edo bertsoa utzita zutenek ere parte hartu zuten. 24 talde aritu ziren. Taldea bertsolariek, gai-jartzaile banak eta epaile banak osatzen zuten. Guztira, 166 lagun bildu ziren taldetan, hauetatik 101, bertsolariak. Donostia eta Deba behea parte hartu gabe geratu ziren, epez kanpo izena eman zutelako.

Oholtzatik herrira: Txomin Garmendiak horrela definitu zuen Herri arteko txapelketa: "Ez dakit, ez ote den izango Gipuzkoan izan den txapelketarik herrikoiena." (Euskaldunon Egunkaria, 1999-9-8). Andoni Egañak ere, "Herriko bertso giroa indartzeko era bezala" ikusten zuen txapelketa hura (Diario Vasco, 1999-9-8).

Herri askotan aspaldi bildu ez zen jendea elkartu zen,txapelketa prestatzeko aitzakian. Eta txapelketa bera antolatzeko ardura ere herrira eraman zen, Felix Irazustabarrena epaileak azaldu zuenez: "Txapelketaren helburua bertsolari eta bertsozaleak antolakuntzan inplikatzea da eta lehen faseko joan-etorriko saioak lekuan lekukoek antolatuko dituzte." (Gara, 1999-9-8).

Herri izaera horri eusteko, txapelketa eskualde mailan hasi zen.

Oso giro ezberdina lortu zen: kanporaketa asko afalostean jokatu ziren, herrien arteko desafioak piztu ziren, eta txapelketa giroa baino jai giro handiagoa izan zen finalean ere.

Nahasketa helburu: Belaunaldi ezberdinak elkarrekin nahastea eta tradizio eta estilo ezberdinetako bertsokerak lehiarako berreskuratzea zen txapelketaren helburua. Eta lortu zen, parte hartu zuen bertsolari gazteenak 18 urte baitzituen, eta zaharrenak 71. Horrela definitu zuen Imanol Lazkanok: "Txapelketa bat baino gehiago da erakusketa bat. Gipuzkoan urteotan bertsolaritza izan denaren argazkia izango da." (Euskaldunon Egunkaria, 1999-9-8).

Andoni Egaña ere kontziente zen txapelketa hura transmisiorako bide egokia zenaz: "Asko erraztu du belaunaldien arteko harremana. Guretzat inportantea da gazteagoei eta gu baino plaza gutxiago egiten dituztenei gure esperientzia batzuetan eta eskarmentua besteetan transmititzea." (Gara, 1999-12-20). Bapo bete zuten lan hau, Julen Zulaikak nabarmendu zuenez: "Txapelketa honetan izugarri ikasi dut." (Gara, 1999-12-20)

[**Bertsolaritzaren datu-basea**]

BERTSO ESKOLAKOAK SAILKAPEN TAULAN

Finalean:

- Jexux Mari Irazu, "Erniope" taldearekin: Amaia Agirre, Aitor Usandizaga, Txomin Garmendia.

Final erdietan:

- Andoain-Urnieta taldea: Aitor Mendiluze, Jokin Sorozabal, Joxe Mari Mujika "Anatx", Jon Garmendia "Txuria", Fermin Argiñarena (epaile)

Lehen fasean:

- Hernani-Txisplau taldea: Gorka Tolosa, Maialen Lujanbio, Itziar Eizagirre, Aritz Zerain, Mikel Iturbe (epaile).
- Hernani-Ereñozu taldea: Unai Agirre, Iker Alustiza, Ibon Miner, Estitxu Eizagirre, Juanjo Uria (epaile), Mikel Peruarena (gai-jartzaile).
- Hernani-Iraulio taldea: Iker Osa, Jon Iraola, Eñaut Agirre, Iñaki Zelaia, Joxe Luis Urdangarin, Joxe Anjel Oiartzabal (epaile), Xabier Legarreta "Arano" (gai-jartzaile).

Txapelketekin saltoak ematen goaz, Belodromotik BECera, gauza salgarriak egin nahi dira, eta halako batean jendea mentalizatu zen "hori hor doa, baina tartean taka, ertzetik kuña bat sartu behar dugu ". Horregatik egin zen Herriartekoa, eta Gipuzkoako Txapelketarekin hasiera hartan zalantza asko egon zirelako ere bai. Kuantitatiboki Gipuzkoatik zegoen parte-hartzerik handiena Txapelketa Nagusian, eta jende igualtsua iristen zen bietan finalera, eta batzuek esaten zuten Txapelketa Nagusi bat bi aldiz egitea bezala ote zen. Zalantza horien artean, beste zerbait egitea pentsatu zen. Bazegoen aurrekari bat, Euskadi Irratian garai batean Joxerra Gartziak egin zuena, eta handik esperientzia ona zuen jendeak. **[Jokin Sorozabal]**

Tartean behin egin beharrekoa, oso esperientzia polita izan zen. Aurretik etorri ziren Hernaniko auzoetako txapelketak, eta batetik auzotako horrek nola funtzionatzen zuen ikusita, eta bestetik Pernando Amezketarra Sariaren garaian herriartekoak nola funtzionatzen zuen ikusita, hortik etorri zen egiteko asmoa. Denak kantuan jarrita egitea defendatu nuen Gipuzkoako Elkartean, adin eta maila guztietakoak bilduko zituena. **[Jexux Mari Irazu]**

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa gauza oso polita izan zen, beste helburu batzuekin egindakoa. Oso parte-hartzailea, antolatu eta kantatu behar zutenak denak nahastuan. Herriz herri bilera asko egin ziren, bertso eskola eta taldeekin harreman asko... saio asko afaritan egin ziren... nahiz txapelketa izan, kantatzeko ere trankilxeagoa zen. Merezi izan zuen. **[Jokin Sorozabal]**

Gipuzkoako Elkartean antolatzen eta kantatzen aritu nintzen eta niretzat oso berezia izan zen. Ni sartzerako filosofia landuta zeukan Elkarteak, eta nik oso bat egin nuen filosofia horrekin: oinarria zaindu, behar duen garrantzia eman, azpi azpitik lan egin, jendea lotu, zerbait nahi duenak zerbait eman dezala, elitea eta elitea ez dena nahastu, txapelketaren inpultsoa baliatu eta bestela aukerarik ez lukeen jende bat finalera sartu... **[Unai Agirre]**

Honek poso handi bat utzi zuen. Gai-jartzen eta abar parte hartu zuen jende asko izan da gero bertsolaritzari eutsi diona. Tartean behin hori egin behar da. Garai hartan ere baziren ikuspegi desberdinak horren inguruan, eta ikuspegi bat zen bertsolaritza mota bat bultzatzea, esfera batekoa. Eta beste ikuspegi bat zen gurea, bertsolaritza bere osotasunean hartu eta bere osotasun bultzatzea, auto-antolakuntzaren ikuspegitik. Herriartekoak 200 lagun inguru jarri zituen lanean. Lanean hainbesteko taldea jartzen duen ekitaldi batek, derrigor zerbait utzi behar du, txapeldunez gain. Eta utzi zuen. Hori ez da inoiz gaizki etorriko. **[Jexux Mari Irazu]**

Hernanin eztabaida egon zen herriko hiru taldeak orekatu edo bat ona egin. Afizioak nahi zuena egin balitz, hiru bertsolari handienak bilduko ziren, baina barrutik ikusi genuen txapelketaren filosofia bertso eskolan aplikatu behar zela. Hernanin nahastuan atera ginen denok, gutxiago ibiltzen zirenak, plazaz plaza zebiltzanak, gazteak, zaharragoak... taldeak orekatu egin genituen eta ez zen talderik oso aurrera iritsi. [**Unai Agirre**, Hernani-Ereñozu taldea]

Oso giro ona sortu zen. Hernanin berehalako emaitzak oso onak izan ez baziren ere, nik uste luzera begira oso emaitza onak eman zituela. [**Aritz Zerain**, Hernani-Txisplau taldea]

Gure taldeak bi saio egin genituen Errenteriaren kontra, eta galdu egin genuen. Nahiz eta ez hain talde gogorra eduki espero genuen pasa egingo ginela, hasi aurretik. Baina Errenteriak uste baino bastante bertsolari hobeak ekarri zituen. Bertsotan egin egiten zuten. Baina oso giro ona sortu zen gure artean eta oroitzapen oso ona daukat.

[**Unai Agirre**, Hernani-Ereñozu taldea]

Herriarteko Gipuzkoako Txapelketan, Oiartzunen Hernanik galdu egin zuen eta gero bueltako saioa Peña Otañon egin zen. Gustatu zitzaidan hernaniarrek saio hartan zer egur eman zuten. Hor gustura aritu nintzen epaile.

[**Joxe Angel Oiartzabal**, Hernani-Iraulio taldea]

ENTRENAMENDUAK

Orduan lagunartean pasatzen genuen ondo eta badakit lagunartekoa zela, baina nork bere burua estutzen duenean eta atzera jartzen denean ez du bertsotan egiten. Bilera batzuk egin genituen Aitor Mendiluzeren baxeran, astero bilduz. Han lagunartean gustura sentitzen nintzen baina bateko juradua, besteko publikoaren tentsioa, eta kamerak... ez da nire mundua. [**Joxe Mari Mujika**, **"Anatx"**, Andoain-Urnieta taldea]

Erniope taldean bestela harreman zuzenik izango ez nuen jendearekin biltzen ginen: Txomin Garmendiarekin eta, Amaia Agirreren baxeran. Ariketa batzuk ere baziren, ustez lehenagoko mentalitate batetik begiratuta arraro xamarrak zirenak, "gauza baten alde, kontra eta erdibidea". Eta gogoratzen naiz Txominekin entrenamendutan nola ibili ginen: gaia jarriko dugu, "kondoia". Propio aritzen ginen mutur xamarreko gaiak jartzen, haietan ondo egiten bazuen errazean ongi egingo zuelako. Txomin erdibidean jartzen genuen, hori garbi geneukan. Batek alde, besteak kontra, eta Txominek nolabait ere maneiatu. Hori zen estrategia "bestela ere berea botako dik, asike bukaerarako utzi". [**Jexux Mari Irazu**, Erniope taldea]

FINALA

Oso gauza politak egon ziren: Txomin Garmendia bat, nahiz eta bertsolari ona izan adinagatik finalera iritsiko ez zena Irazuren eta eskutik finalera iritsi zen! edo Iñigo Mantzizidor "Mantxi" bat, nahiz eta oso ona etorri oraindik oso gaztea zena Egañaren eskutik finalera iritsi zen! Eta finalean demostratu zuten bertsotan egiten zutela! Txapelketa oso berezia izan zen. [**Unai Agirre**]

Finala ere oso hunkigarria izan zen, bi talde eta bi mila lagunetik gora joan zen ikustera... oso txapelketa polita izan zen.

[**Jexux Mari Irazu**, Erniope taldea]

1999-09-17, Hernani

Taldeak: Hernani-Txisplau vs Andoain-Urnieta

Gai orokorra: Kursaala.

Hernani-Txisplau taldea
1999ko Herriarteko Txapelketako argazki ofizialean.

Jokin Sorozabal:
Bertsotan hasi beharra degu
Kursaal zahar horren peskizan
azken aldian beste hainbeste
mintzatu izan den gisan
ta nik ez dakit egin dutenak
gaur zer pentsatzen dabiltzan,
pareta okerrak dauzkan etxeak
ezin du zuzena izan.

Joxe Mari Mujika "Anatx" mendizalea da eta Maialen Lujanbio sherpa, mendizaleari tresnak garraiatzen laguntzen diona. Gaur 8.000 metrotik gorako hamalaugarren mendia igota etxerantz zoazte maldan behera.

M. Lujanbio:
Azkenik egin dugu
rekor nabarmena
nagusiak poza eta
sherpak nahiko pena
zerorri izango zera
munduan aurrena
motxila aurrekaldean
eraman duena.

J.M. Mujika "Anatx":
Gizonak atzetikan
motxila aurrera
baina gizona ere
heldu gailurrera
orain pozez beterik
nihoa etxera
mila esker Maialen
portatua zera.

M. Lujanbio:
Gaur arte egin nituen
zortzi milako bi
eta hamalaugarrena
pixkana erori
zuk beti behar artean
mila puro lodi
nik'e probatu nahi det
oxigeno hori.

J.M. Mujika "Anatx":
Estuasun batean
puruarekin arre
eta zurekin ere
ez nago haserre.
Puruak kalterikan
ez dauka ezer'e
aukera orain dezu
nahi badezu erre.

M. Lujanbio:
Mendian gora joaten
nintzan tirri-tarra
gailurreko fotoa
balio bakarra
berde, zuri eta gorri
ditu hamar marra
har zazu zuretzako
zure ikurrin zaharra.

J.M. Mujika "Anatx":
Zu portatu zerade
sherparen neurrira
eta eraman nauzu
behar zan tokira
nahi badezu fotoa
nahi bazu dizdira
eraman nahi zintuzket
nik Euskal Herrira.

Puntutan aritzeko gaia: Joxe Mari Mujika "Anatx"-Gorka Tolosa. Arratsalde plana egin duzue eta Santa Barbarara joan zarete eskalatzera. Momentu honetan sokak jartzen ari zarete.

G. Tolosa:
Igo beharko degu
poliki-poliki

J.M. "Anatx":
azkar ez naizela joango
beronek badaki

G. Tolosa:
soka eteten hasi
egin leike aurki

J.M. "Anatx":
baina bide berria
nahi nuke ireki.

G. Tolosa:
Leheno kontu hauetan
ibili al zera?

J.M. "Anatx":
Prueba bat egina det
nik zure antzera

G. Tolosa:
behintzat ez zaitez erori
gaur sokatik behera

J.M. "Anatx":
hortikan probetxurik
ezin da atera.

G. Tolosa:
Esku handiak baina
tripa ere berdin

J.M. "Anatx":
hala ere saiatu
nahi nuke ahalegin

G. Tolosa:
gainean dezun karga
gora igo ezin

J.M. "Anatx":
zuk nire paretikan
zeuk ezin aldegin.

J.M. "Anatx":
Zuk badakizu karga
handia detena

G. Tolosa:
Ordun bada ezpada
abitu aurrena

J.M. "Anatx":
neretzat jarri behar da
sokarik fuerteena

G. Tolosa:
fuerteena ez dakit baina
behintzat lodiena.

J.M. "Anatx":
Arratsalde bat pasa
nahi nuke gustora

G. Tolosa:
horretarako dugu
bastante denbora

J.M. "Anatx":
hanka sendoak dauzkat
igo nahi det gora

G. Tolosa:
ez bagera erortzen
behean dagoen zulora.

J.M. "Anatx":
Argala degu baina
ni naiz azkarrena

G. Tolosa:
baina hori ez da hemen
gauza inportanteena

J.M. "Anatx":
berehala pasako naiz
ermitan barrena

G. Tolosa:
hori izan liteke
gauzarik onena.

G. Tolosa:
Baezpa Aita Gure bat
errezatu zazu

J.M. "Anatx":
zerorrek egin zazu
baldin badakizu

G. Tolosa:
gaurko gauza onean
zuk egin nahi baezu

J.M. "Anatx":
ni ez naiz eroriko
zertan hainbat izu.

G. Tolosa:
Lehenago karga asko ta
gehiago hartu nahi

J.M. "Anatx":
nerekin eramango det
egon zaitez lasai

G. Tolosa:
Ez duela gauza ona
hartzen diot usai

J.M. "Anatx":
zergait jarri zera
eroritzeko zai?

J.M. "Anatx":
Mendian igotzeko
egin da planoa

G. Tolosa:
badaezpada zugandik
ni urruti noa

J.M. "Anatx":
Elutxetan ere bada
plan oso sanoa

G. Tolosa:
orain ere jarri dit
gaurkoan amoa.

J.M. "Anatx":
Nahiz ta soka fuerteak
ditugun hor bota

G. Tolosa:
hori esanda ere
neri ez dit inporta

J.M. "Anatx":
Elutxetara noa
ezin det igota

G. Tolosa:
a zer bi baserritar
burutikan jota.

1999-09-17, Ereñozu

Taldeak: Hernani-Ereñozu vs Xenpelar

Osaba-ilobak zarete, Iker Goñi iloba eta Ibon Miner osaba, apaiza gainera. Gaur, ilobak, osabaren mesanotxean kuxkuxean zebilela kondoi pakete bat aurkitu du. Oraintxe sartu da osaba gelara.

I. Goñi:
Hauxe ikusi eta
ezin erretira
nere buruan duda
bat dantzan hasi da
hau galdetu nahi dizut
osaba begira:
Hemengo globo hauek
niretzat al dira?

I. Miner:
Galdezka segitzen dek
iloba hala ere
baina ez nau jarriko
oraingoan grabe.
Alper-alperrik ari
zara lotsagabe
eta ikasiko dek
esplikatu gabe.

I. Miner:
Kuxkuxero zer ari haiz
kajoian lanean?
Lotsagabe ari haiz
beraz gehienean,
globoekin jostatuko
hazten haizenean
probetxu aterako
ziot bitartean.

I. Goñi:
Orain ikusten zaitut
eskuak dardarka
osaba urduri zaude
ene hau da marka!
eta esan behar dizut
eta osaba barka:
Kadukazio fetxa
pasatuta dauka.

I. Goñi:
Itxuraz sortu dizut
hainbat enbarazu
osaba lasai egon
egidazu kasu
ni zalantzatan nago
orain bertan aizu:
Nola erabiltzen diran
esplika zaidazu.

I. Miner:
Estu hartu nau bada
honek azkenean
ai lotsa gabe nola
ari den lanean
horregatikan daude
kajoi barrenean
onak ibiltzen ditut
patrikan soinean.

Lau hilabete dira haurdun geratu zarela, baina gaur medikuak datorren haurrak atzeratua izateko posibilitateak dituela esan dizu.

Unai Agirre:

Senarrarekin haurdun jartzea
pentsatu nuen lehenbizi.
Mediku jaunak hitz egin eta
eskemak dizkit gaur hautsi
baina bazterrak ezin litezke
kontu honekin nahasi
atzeratua mundu berri bat
gertatu liteke kasi
bi gauzak egin beharko ditut
irakatsi ta ikasi.

Esan didana asimilatzen
lan handia det oraindik
baina benetan maiteko zaitut
hori ondo badakit nik.
Amak altzoan hartu ezkero
ez dago ume eskasik
atzerapenak ez du gauz txarrik
edo hainbesteko gaitzik
mundu honetako joan-etorrian
traba bat gehiago baizik.

1999-09-24, Oiartzun

Taldeak: Hernani-Iraulio vs Oiartzun

Udako gau izartsu magiko matekin gozatzera joan da Jon Martin Oihalekuko bordara, ez da asko gozatzen ari baina, Iker Osa mozkitoak du horren errua.

Jon Martin:
Izarrak aidean eta
borda hau tarteko
zeruan bakarrikan
nengoke hobeto.
Mendi guztia duzu
hegan egiteko
eta nigana zatoz
kozka egiteko.

Iker Osa:
Zuretzako badaukat
nahiko borondate
baina nonbait omen naiz
mesede aina kalte.
Ni ere izar bat naiz
enteratu zaite
ni ere txikia naiz
bertan jarri arte.

Jon Martin:
Izar urrezko denen
eztizko dizdira,
ilargia ere orain
begira ari da.
Jatea baino gauza
hobeak badira
eta disfruta zazu
zerura begira.

Iker Osa:
Zuk esandakoari
ezin egin kasu.
Txintxo-txintxo etorri ta
omen enbarazu.
Neretzat ere izarrak
hortxe daude aizu
zurekin bat gozatzen
utzi akidazu.

Jon Martin:
Orain arte nengoen
nahikoa atsegin
gogoa daukat hola
dena gera dadin.
Badaezpada kozka
ez zaidazu egin
edo bestela zuk zeuk
hartuko dezu min.

Iker Osa:
Teorian jatorra
eroa praktikan
nik nere esaera
badaukat patrikan.
Neskak bidali zaitu
bakarrik, utikan
ta horregatik zaude
moskeaturikan.

Elkarrekin karrera ikasitakoak zarete, gaur topo egin duzue. Zu, Itziar Eizagirre bulego batean idazkari eta guzti, eta zu, Jon Garmendia "Txuria", kristalak garbitzen kanpoko aldetik.

I. Eizagirre:
Kobratzea da gauza handia
lana ez degu sanoa.
Inbidi pixkat ote didazun
hartua dizut susmoa.
Goi karguetan igotzeko ere
gerora badut asmoa,
zuk aldamioan iraun ezazu
ni aszensorean noa.

J. Garmendia "Txuria":
Aszensorean kontuarekin
utzia nauzu erreta.
Aizu mesedez azken hitza det
eta ipini arreta
diskrezioa utzi behar det
ta jarraitu garbiketa
bestela berriz aldamiotik
erori behar det eta!

Bi futbolista zarete. Zu, Aritz Zerain, regionaleko jokalaria zara eta beti jokatzen duzu. Zu, Jon Garmendia "Txuria", eliteko jokalaria zara, baina beti bankilotik ikusten dituzu partidak.

A. Zerain:
Diferentzi ugari
degu alajaina
handiagoa dezu
patrikan tamaina
baina jokatzen banaiz
aizu zure aina.
Eserita egoteko
zera zu bikaina.

J. Garmendia "Txuria":
Eserita nago ni
gainera gustora
horregatikan nola
ninteke aztora.
Misterrak ez nau sartzen
sekula jokora
lesionatuko naizen
beldur izango da.

Tximeleta kolekzionista zara, kolezioko bilduma osatzeko mota bakar bat falta zaizu. Lore baten gainean ikusi duzu eta harrapatzeko eskua luzatu duzunean, zast! Ihes egin dizu.

Maialen Lujanbio:

Latinez duen izenarekin
nahiz izan mila endredo,
gau eta egun pentsatzen nuen:
nere eskutan balego...
Lore gain baten ikusi det ta
barrena jarri zait bero,
alde egin dit ta geratu naiz
erdi pozturikan edo
gerorako zer izango nuke
ametsa bete ezkero?

Zu, Itziar Eizagirre, zure kotxe deportiboan Xoxokan gora zoazela garo-gurdia luze bezain zabal duen Aitor Mendiluzerekin egin duzu topo.

I. Eizagirre:
Kotxea "rojo pasion"
ta gurpilak hori
hiritar txulo honek
zenbat kategori!
Aizu baserritarra
larga batzuk tori
pazientzia galtzear
naukazu galzori
zenbat astokoa da
zure kotxe hori?

A. Mendiluze:
Bakarra dauka eta
doa lasai-lasai
beraz, egon beharko
noiz mugituko zai
biak ez geralako
hor kabitzeko gai.
Ehun zaldiak mantsotu
beharko dira bai
astoak ez badie
pasatzen utzi nahi.

1999-10-09, Errenteria-Orereta

Taldeak: Hernani-Iñatzu vs Xenpelar

Zu, Unai Agirre isunak jartzeko asmoarekin zabiltzan udaltzaina zara. Hara non ikusten duzun kotxe bat egundoko abiaduran. Kotxea geratu eta autotik jaitsi da Aitor Albistur udaltzainburua balantzaka.

U. Agirre:
Walky talkytik pasa
didate lau mezu
ta hau harrapatzera
joan naiz jo ta su
kartzelara joateko
moduan zaude zu
ta gainera bidea
ezagutzen dezu.

A. Albistur:
Arrazoia izango
duzu nonbait tira
baina ezin aritu
jefeari begira
nire mendeko tipoa
harrotzen ari da,
paga jaitsiko dizut
gainera erdira.

A. Albistur:
Kotxeakin abailan
ibiltzen naiz usu
abiaduran bainaiz
guztietan maisu
berde edo gorria
ez du inporta aizu
daltoniko naizela
ahaztu egin al zaizu?

U. Agirre:
Holakoa zinanik
gaur arte ez nekin
eta haserre xamar
nago gaur zurekin.
Paga jaisteari zuk
nahi baduzu ekin
baina osatuko dut
gaurko multarekin.

U. Agirre:
Halere hasiko naiz
ondotik herritan
daltonikoa dala
nola esan ditan.
Failo handiegirik
ez duzu begitan
abiadura dago
numero txuritan.

A. Albistur:
Honek egiten ditu
mila gauza gordin
gustora egon nahi nuke
zure multarekin
baina ene laguna
gaur ez zabiltza fin
alkoholemia kontrola
ez didazu egin.

Zuek bi errugbi taldeko jokalari zarete. Azken partiduan Jon Ansak Estitxu Eizagirreri buruarekin kolpe bat eman eta hortzak dilindan utzi zizkion. Orain jatetxe batean egin duzue topo, txuleta jaten ari den Jonek purea jaten ari den Estitxu nabaritu du berari begira.

J. Ansa:
Nere kaskoan badet
nik nahikoa indar
hortzak barreiatuak
belarretan zehar
zu ez haserre jarri
ta ez jarri zakar
rugbirako ez dezu
hortzarikan behar.

E. Eizagirre: (Hortzik gabe bezala bokalizatzen du)
Aitortu behar tipoak
txispa bai badula
postizorikan ez det
ipini sekula
jakin zure botika
probatu duzula
uste al duzu zopak
fideoa zula?

J. Ansa:
Ai nolako grazia
nolako algara!
Lehen jada esaten zuen
eta orain "jada"
arbitroentzat hobe
zaude orain hara
partidotan gutxigo
kexatuko zara.

E. Eizagirre:
Bai, hortzek ez didate
egiten ez traba
zelaiaren erdian
nitunetik laga.
Zuk bi txuleta pare
jan dituzu jada
gaurkoan begi gabe
aterako zara.

J. Ansa:
Orain kardoa zara
lehen zinen lorea
ez dut ondo ulertu
zure umorea
alderdi on bat ere
badauka ordea
irabazten baduzu
merito doblea.

E. Eizagirre:
Hitz egiten ez duzu
nahi adina zentzun
konturatu "kardoa"
nola esan didazun
hauxe desio dizut
lagun modu gozun:
ea mingainai kozka
egiten diozun.

1999-10-10, Hernani

Taldeak: Hernani-Iraulio vs Oiartzun.

Zu, Arkaitz Goikoetxea, korrikalaria zara, ez nolanahikoa gainera, munduko txapelduna. Gaurko honetan, ordea, eskuan zenuen poltsa ostu eta korrika alde egin dizu lapurrak. Eñaut Agirre poliziarengana joan zara eta guztia kontatu diozu.

Hernani-Iraulio taldea 1999ko Herriarteko Txapelketako argazki ofizialean.

A. Goikoetxea:
Aztoratuta nengoen
poltsa(re)kin zeharo
eta bi segundu ere
ez dira igaro.
Ni bizkorra naizela
hori ziur dago
baina lapurra ere
ez zen motelago.

E. Agirre:
Guk geldirik daukagu
aurre eta atzea
poliziaren bizitza
hau da bizitzea!
Zuk pasatu badezu
holako trantzea
ez duzu pentsatuko
nik harrapatzea?

A. Goikoetxea:
Hain lotsa gutxi zuenik
ez nuen igerriko
poliziak badira
zerorren neurriko
poliziak ez badu
neurririk jarriko
pentsa ezazu ez dela
hona etorriko.

E. Agirre:
Orain pasatu dana
ederra izan da,
grazi pixkat egin dit
egia esanda
recordman-a utzita
ihesi joan da
nonbait dopatu gabe
egongo zinan da!

A. Goikoetxea:
Lapurrak erasan dit
modu berezian
poltsa eskutik kendu
lehenengo jauzian.
Ni motzean naiz ona
ehun metro hesian
ta ezin nion jarraitu
distantzi luzian.

E. Agirre:
"Benga segi atzetik"
hartu nauzu estu
baina ez naiz aurkitzen
joateko prestu.
Milioiak darabiltza
eskurikan esku
hamar mila peztaren
premirikan ez du.

1999-11-11, Beasain

Taldeak: Goierri-Ordizia vs Andoain-Urnieta

Askotan bezala, Jokin Sorozabal, atzo gauean parrandara atera zinen. Gaur goizean zure alboan norbait dagoela iruditu zaizu. Begiak ireki eta Mikel Mendizabal ikusi duzu zure ondoan biluzik.

J. Sorozabal:
Esnatu eta aldamenean
nor ote duten zalantzan,
atzo Beasaingo bertso saioa
oso luzea izan zan.

M. Mendizabal:
Itxura onik ez du azaltzen
Jokin zure aurpegiak
ez zera ari ametsetan eta
zabal itzazu begiak.

J. Sorozabal:
Nik aitortzen det ez daukadala
itxurarik ederrena,
zure ondoan esnatu naiz ta
sustoarena da dena.

M. Mendizabal:
Nola gertatu zan esangoizut
ez zaitezen egon dudan:
Zuk ekarri behar ninduzun baina
neonek ekarri zintudan.

J. Sorozabal:
Besten etxea bilatu ezinik
lagunaren ahalegina
jakin nahi nuke zenbat tokitan
jo ote zuen txirrina.

M. Mendizabal:
Asmatu nuen portala eta
ondo sartu nuen giltza.
Zu ez zinake hemen egongo
ni etorri ez banintza.

J. Sorozabal:
Komunerako ohitura det nik
goizean jeiki orduko
ta espero det han ez gerala
biok batera sartuko.

M. Mendizabal:
Ahaztuko komona ta has dezagun
maitasunaren jokoa
ahaztu dezagun zer pasatu zan
goza dezagun gaurkoa.

1999-12-05, Tolosa

Taldeak: Erniope vs Andoain-Urnieta.

Jon Garmendia "Txuria", medikua zaitugu. Eta zu, Txomin Garmendia, bere gaixoa. Txomin, mila aldiz aztertu zaitu eta mila galdera egin dizkizu medikuak. Azkenean, esan dizu zure lanerako adikzioa dela zure gaixotasuna, lana gehiegi gustatzen zaizula alegia.

T. Garmendia:
Aspalditxoan erdi-gaixorik
hauxe da gauza ziurra
oraingo hontan osasunetik
nik hartua det egurra.
Etengabean lan egiteko
izan det beti adurra
sendagile hau ona ez ote dan
hori da nire beldurra.

J. Garmendia "Txuria":
Lana noiznahi da langilearen
sufrimendu enbarazu
gerri aldetik benetan gaizki
aspaldian zabiltza zu.
Medikua naiz ta jakituna
beraz orain egin kasu
eta ohetik egin daitekeen
lanen bat hartu ezazu.

T. Garmendia:
Nere aldean izango dezu
ikasketa berezia
eta nik berriz, sendatutzea
ez ote det merezia?
Nik uste nuen lana nuela
osasuna eta bizia,
baina halere, zintzo egingo det
esaten dezun guzia.

J. Garmendia "Txuria":
Nere esana betetzekotan
seguru zaude zeharo,
baina garaia pasatu da eta
erremedioak akabo!
Aizazu Txomin, zuk ere Txomin,
bazenekien lehenago
gorputz zaharreko edadearentzat
medikuntzarik ez dago.

T. Garmendia:
Egia esan, holako gaitzik
ez nun izaten gazterik
orain gerritako minez nago ta
badaukat buruhausterik
ta mediku honek esan duenak
neri utzi nau tristerik;
gizajo honek gaur ez daduka
diru ametsa besterik.

J. Garmendia "Txuria":
Leheno oheko lanan kontua
aipatu dizudanez nik
uste dedanez pixka bat gaizki
nenbilelarik jadanik.
Aizazu Txomin, orain ez zazu
esan arrazoi dudanik
gerritik gaizki bazabiltz ez da
zutzat oherako lanik.

Zu Aitor Mendiluze bertsolaria zara eta Jexux Mari Irazu argitaletxe bateko zuzendaria. Durangoko azoka dela eta Aitor, zure biografia idazteko konpromezua hartu zenuen eta baita bete ere. Jexux Marik, ordea, ez du zure lana argitaratu nahi.

A. Mendiluze:
Ni nolakoa naizen
ederki dakizu,
bertsotan ez naizela
ni inorren maisu.
Hala ere, memoriak
egin ditut, aizu,
ta zuri memoriak
failatzen al dizu?

J.M. Irazu:
Hirurehunen bat orri
ederki beterik
denak letu ditut ta
a zer zurikerik!
Barkatu, hau ez dago
argitaratzerik
ez baitezu kontatzen
gezurra besterik.

A. Mendiluze:
Nik zure enkargua
kunplitu det garaiz,
baina orain ez zaude
zu aurpegi alaiz.
Egia da, gezurrak
kontatzen ditu maiz,
ez al zera ohartu,
bertsolaria naiz!

J. M. Irazu:
Lehendik ere banuen
halako oroitza
pentsamendu horretan
pasatu det goiza,
baina neurtu ondoren
zure hitz bakoitza
ez zait interesatzen
nortasun bikoitza.

A. Mendiluze:
Nik kontatu dedana
egia izanik
gezur pixka bat ere
erantsi diot nik,
baina ez du izango
oso tratu onik.
Berriro ez agindu
alperreko lanik.

J. M.Irazu:
Plazaz plaza daukazu
halako jarduna,
zure bizimodua
hain da ezaguna.
Kanpotikan zer zeran
jendeak entzuna,
orain idatzi zazu
sentitzen dezuna.

Gertutik ezagutu zenituen GALen zipriztinak, lagun bat hil baitzizuten. Irratian entzun duzu Espainiako Gobernuak esan duela GALen auzia berehala ahaztu behar dela.

Jexux Mari Irazu:

Gobernuak beti badu
eskupean hainbat truko
ez gaituzte nahi bezala
betiko zirikatuko
ta lehen afera ahazteak
ez ote gaitu minduko?
Gurea ez da izango,
hori ez degu hartuko.
Lurpean daudenak eta
hainbat zauritu lekuko,
ederki pentsatu zuten
kolpe gogorrena nun jo;
egin bezate legea
gu ez gera beldurtuko
haiek aspaldi ahaztu zuten
guri ez zaigu ahaztuko.

Brouard eta Muguruza
horren postura finean,
oin ederrakin hasiak
horren era gordinean.
Beste hainbateko zerrenda
beti odolaren minean,
orain ere segitzen dun
Gerestaren izenean.
Zer eman behar diegu
halakoei ordainean?
Barruan sufrimendua
etengabeko grinean
egin bezate legea
segi bezate zinean,
oroitzapena ez da ahazten
hilobiaren gainean.

Pertsonak eta herriak
biak sartu nahi lurpera,
baina barrutikan dira
kimu berriak atera.
Orain hamabost urte hasi
gauzak egin du zahartzera.
Lehengo berriak al datoz
orain berriz berritzera?
Zerbait egin beharra dago
horretaz jabetzen gera,
baina hobe pentsatuta
aurkituko degu era,
barkatu, barkatu leike
nahiz ez iritsi ahaztera
adiskidetzeko prest gaude
berdinetik berdinera.

Hitza: Ametsa. Jon Garmendia "Txuria"k alde kantatuko du, Jokin Sorozabalek kontra eta erdibidean Aitor Mendiluze geratuko da.

J.G. "Txuria":
Amets goxotan bete ohi dut nik
gau beltzetako despentsa.
Ametsik gabe errealitate
onik ez dagola pentsa.
Hizlari batek behin esan zu(e)n da
hola egingo defentsa:
Ameslaria hil leike baina
inoiz ez haren ametsa.

J. Sorozabal:
Ametsa inoiz ez dela hiltzen
hori omen da jakina
gure herriak ere egina du
bere ametsik handina
baina amets soilak neretzat behintzat
urria du etekina
deus egiteko gai ez direnak
kontsolatzeko egina.

A. Mendiluze:
Gu joan da ere ametsek segi
behar dute indar betean,
besterik egin ezin duenak
ametsa ez du kaltean.
Nahiz ta ametsak bizirik segi
gu mundu hontatik joatean
egi bihurtzen saia gaitezen
bizi geran bitartean.

Zu, Aitor Mendiluze, burua galtzeraino maitemindua zaude. Txomin Garmendiak maitasun kontuak ez ditu kontuan hartzen.

A. Mendiluze:
Nere bihotza joan da
nahiko urrutira
berak maite duena
zegoen tokira.
Zuk ez dezu federik
horretan ta tira
maitasuna(re)n kontuak
zer diren begira,
ez dira sinisteko
sentitzeko dira.

T. Garmendia:
Aitor nik nahi nizuke
gaur jakinarazi
batekin dezu
hortxe mila grazi
ta erdi eroturik
hor zabiltza kasi
ta hauxe nahi nizuke
nik adierazi
burua galtzerikan
ez dula merezi.

A. Mendiluze:
Horrela hitz egiten
ote du lagunak?
Burua galduta nik
nolako jardunak
zer ekarriko ote
dit etorkizunak?
Nahiz ta burua galdu-
arazi kuttunak
ez al du gehigo galtzen
bihotzik ez dunak?

T. Garmendia:
Bihotz kontua izan
liteke mikatza
eta beti zuzentzen
ez dago erraza.
Ahoa zabaldurikan
har zazu arnasa
mundua handia da
bizi zaitez lasa
eta neurritikan
zu ez zaitez pasa.

A. Mendiluze:
Pentsatu gabe ez da
pasatzen egunik,
baina ez uste neurririk
pasatzen degunik.
Zuk ez badezu izango
zuretzat kutttunik,
ez badezu maiteko
halako lagunik,
lasai zabiltza baina,
erruki zaitut nik.

T. Garmendia:
Aitor zuk maite dezu
Maria Antoni
ta zer esan behar (d)iot
gazte polit honi
hemen hasarratzerik
ez baita komeni.
Hortik etorri leike
hamaika agoni;
bi ho(r)i(e)tatik aspaldi
pasea nago ni.

1999-12-19, Azpeitia: FINALA

Taldeak: Erniope vs Zarautz Jai-Txiki

Julen Zulaika-Jexux Mari Irazu

Julian Retegi pilotariaren zale amorratuak zarete. Zuk, Julen Zulaika, uste duzu hobe duela erretiratzea. Jexux Mari Irazuk aldiz, frontoiean noiz berragertuko zain dago.

J. Zulaika:
Hamaika txapel buru gainean
egindako lanarekin
orain saioa bajatu zaio
eta ez dabil horren fin
frontoira ez joanda hobea duela
behar duzu lagun jakin
ehizera joanda nahikoa dauka
daukan edadearekin.

J. M. Irazu:
Ehizera joanda miatu ditu
zenbait uso eta laino
baino oraindik ez da iritsi
erabat eskasteraino.
Aupa Julian segi zazula
ia jubilatzeraino
haren herrena hobea baita
zenbaiten bi hankak baino.

J. Zulaika:
Garai batean bizkorra gendun
azkarra eta nahiko bala
baina gaur egun galduta dauka
lehengo hori, eginahala.
Hanka herrenarena zuk ere neri
esan dezu berehala
baina ez zera zu konturatzen
hanka sartuko duala.

J. M. Irazu:
Harek hankarik ez du sartuko
zer den ez zuen ikasita
handi xamarra gerta liteke
banakoarekin hasita
baina binaka oraindik ez da
Julian zaharra etsita
ta joatekotan joan dadila
azken txapela jantzita.

J. Zulaika:
Batek noiz hasi ta noiz bukatu
norberak behar ikasi
eta Julian garai batean
gendun jaun eta nagusi.
Orain frontoira ez joatea
hobe izango da kasi
beregatikan sufritu baino
nahiago det ez ikusi.

J. M. Irazu:
Hark partiduak jokatzen ditu
sufritu ez, jokatzeko,
desiratzen ni nago frontoira
Julian zaharra itzultzeko.
Jenio biziz, indar betean
beti kopeta beltzeko
holakoren bat beharko baita
Goñi arrastuan sartzeko.

J. Zulaika:
Arrastotikan irtenda dabil
bere buru galduakin
baina Julianek galduak dauzka
lehengo zenbait etekin.
Frontoira ere joan dadila
beste lantxoren batekin
ta partiduak eman ditzala
Xabier ta Tolosarekin.

J. M. Irazu:
Retransmisio ona izango da
gerta litekeen apurra
ta partiduak eman lezake
emozio eta beldurra.
Lau'terdikoan "mano a mano"
elkarri emanaz egurra
Azkoitin ongi etorria eta
Azpeitin berriz agurra.

2000ko hamarkada

Ekimen festa

1998an garai berri bat hastear zela bistan zen. Urte hartako irailaren 12an Lizarran akordioa sinatu zuten alderdi politiko, sindikatu eta herri mugimendu ugarik. Irlandako ereduari jarraituz Euskal Herriak bizi zuen gatazkari amaiera ematea zen helburua. Hortik gutxira ETAk su-etena iragarri zuen. Baina urtebeteren ostean gorabeherak hasi ziren eta mende berriarekin borroka armatuari ekin zion berriz ere ETAk, indar handiz gainera. Bestalde, 2000. urtean PPk gehiengo absolutua lortu zuen Espainian eta Aznarrek ETAren "entornoaren" kontrako errepresio eta ilegalizazio estrategia are gehiago sustatu zuen.

Urte gutxian alderdi politikoak, erakundeak eta euskalgintza osoa bera ere Estatuaren jomugan jarri ziren. AEKrentzat izan zen euskalgintzako elkarteen kontrako lehen atzaparkada 1999an, eta hortik lau urtera Euskaldunon Egunkariaren kontra jaurti zuen Guardia Zibilak bere makineria guztia. Euskararen eremuan ezagunak diren pertsonak atxilotu eta torturatu zituzten eta Euskaldunon Egunkaria itxi, besteak beste. Operazio horretan Hernanitik Pello Zubiria (egunkariko lehen zuzendaria) eraman zuten eta erietxean bukatu zuen. Herritarren erreakzioa baina, berehalakoa izan zen, manifestazio masiboez gain, egunkari berri bat kaleratzeko laguntza handia eman zuten –Egunero egunkaria Hernaniko Plaza Berrian egin zen hainbat hilabetez, Antton Adarraga gozogileak utzitako lokal batean– eta euskal kulturaren defentsan ekitaldi ugari jarri zituzten martxan. Egun, horietako batzuek diraute, Donostian kalean kantuan aritzearena, adibidez; hura eredu hartuta hasi ziren Hernanin ere kalez kale kantari, 2005ean.

Bestelako jarrera solidarioak ere izan ziren hamarkada horretan gure herrian. 2005ean Jangela Solidaria ekimena jarri zuten martxan, 90eko hamarkada hasieratik Etiopiako Wukron lanean zihardueen Angel Olaran misiolari hernaniarraren lana babesteko. Urtebete beranduago hasi ziren Wukroren aldeko bazkari arrakastatsuak, elkartasun egunak, diru bilketak, jardunaldiak... 2012an Wukrorekin Gobernuz Kanpoko Elkartea sortu zuten hainbat lagunek, hernaniarren solidaritatea epe luzera ere sustatzeko asmoz. Angel Olaranek, berriz, Gipuzkoako Diputazioaren Urrezko Domina jaso zuen egindako lanagatik.

Iraganean herrian bertan izandako injustiziak erreparatzeko eta memoria historikoa berreskuratzeko lanei ere ekin zitzaien. 1936ko udazkenean Hernaniko hilerrian faxistek hobiratutako hamarnaka lagunen izen-abizenak jakiteko eta haien gorpuzkinak azaleratzeko ekimena jarri zuen martxan Udalak 2003an, Aranzadi Zientzia Elkarteko eta EHUko ikerlariekin batean. Zoritxarrez, ezin izan zen taxuzko indusketarik egin, baina ikerketa historikoak gertatutakoari argi gehiago eman ahal izan zion behinik behin. 2006ko azaroaren 8an Argi Horma izeneko eskultura inauguratu zuten hilerrian, eraildakoen izenekin. Ekitaldian izan ziren, besteak beste, fusilatutakoen senideak eta Juan Jose Ibarretxe lehendakaria.

Urte horietan, Hernani itxuraldatuko zuten obra faraonikoak hasi ziren: 2004an Urumean autobia egiteko 250 arbola bota zituztela salatu zuten talde ekologistek; 2007an Mandazubi eta Bakero baserriak hondeamakinek jan zituzten; 2010ean Donostiako bigarren saihesbidea ireki zuten; 2012an hasi ziren AHTren lehen espropiazioak eta obrak... 2009an ANVk galdeketa egin zuen, herritarrek zein ekipamendu nahi zuten jakiteko: kultur gune baten proiektua irten zen garaile. Krisiaren lehen kolpeak hasita zeuden arren, udalek oraindik diru-sarrerak aurreikusten zituzten, aurreko urteetan izandako "loraldi" ekonomikoaren azken zantzuak ziren haiek.

2000ko hamarkadan, eraikuntzan oinarritutako burbuila izugarri handitu zen Espainian, eta hein batean Hego Euskal Herrian ere bai. Udalek etxebizitzetatik lortutako etekinak zituzten diru iturri nagusi eta terrenoak urbanizatzea ahalbidetu zuten behin eta berriz. Hernani ez zen salbuespen izan. 2006an Arau Subsidiarioen proposamenak 4.500 etxebizitza berrirentzako tokia aurreikusten zuen etorkizuneko Hernanin –azkenean 2.693 izan ziren–, aldiz, Aztikerrek egindako ikerketa baten arabera, 2003an 528 etxebizitza huts zeuden. Espekulazioak eta finantzetan oinarritutako kreditu errazek prezioen gorakada itzela eragin zuten, eta askorentzat ezinezkoa zen etxe bat erostea. Hernanin Ate Joka eta Elkartzen gisako taldeek egoera hori salatu zuten behin eta berriz: aztoratzeak, akanpadak, okupazioak... 2005ean, esaterako, hainbat gaztek Gay Mur ondoko maisu etxeak okupatu zituzten "etxe beharrak eraginda".

Dena dela, AEBetan 2007an *subprime* kredituen auzia lehertu zenean amaitu zen Espainian eta Euskal Herrian eraikuntzaren zoramena, eta hamarkada berriaren atarian, ordura arte ezinezkoa zirudien gauza bat ikasi zuten herritarrek: etxebizitzen prezioak jaitsi egin daitezkeela.

URKO APAOLAZA AVILA

JOXE ANJEL OIARTZABAL

1976an jaioa, Epelen

Aita bertsozalea zen, etxean bertso zaharrak bazituen.

Bizilaguna, Martin Otxotorena, guretzako aitona bezala izan zen, eta hark bertso asko zekizkien. Bera ere aritzen zen bertsotan eta haren arrastoan zaletu ginen. Harekin bertso zahar asko ikasi nituen, 6-7 urterako Joxe Latxekoaren bertsoa kantatzen nuen. Otxotorenak bazituen andreari jarritako bertsoak, auzoko jendeari jarritakoak... Urtean behin egiten da epeletarren afaria eta han beti ateratzen zen kantatzera.

KOADRILAN

Koadrilan Iker Osarekin, Xabier Legarretarekin eta Jon Iraolarekin ibiltzen hasi nintzenean, erabat zaletu nintzen. Horien atzetik arrastan ibiltzen nintzen beti! Osarekin eta ostegunetan askotan joaten ginen Marizulora: afaldu eta haiek bertsotan aritzen ziren eta ni haiei begira egoten nintzen.

Koadrilan bertsotarako gogoa genuenak bertso zaharrekin hasten ginen, eta gero abilidadea zutenek bat-batean segitzen zuten. Bolada izan genuen tabernan mozkortzean kantatzekoa, Gorka Ezeizarekin eta isiltzen ez ginenekoa.

HELDUEN BERTSO ESKOLAN

Kantatzeko eman nuen pausoa orduan egin nuen, baina atrebitu ere gutxi egin nintzen.

EPAILE

1999ko Herriarteko Txapelketan gustura aritu nintzen epaile. Herrikoak juzgatu behar genituen, txapelketa ere ez zen banakakoa bezain serioa izan... Ni Hernani-Iraulio taldearekin atera nintzen: Iker Osa, Jon Iraola, Iñaki Zelaia, Joxe Luis Urdangarin eta Eñaut Agirrerekin. Astero biltzen ginen epaileak entrenatzeko. Gauza polita zen.

Tabernetako txapelketa ere polita da epaile aritzeko, ez du halako konpromisorik.

Baina gero beste maila bat dago, bertsolariak banaka aritzen direna. Gauza aldatu egiten da. Hor jada gogoaren kontra gehiago aritu naiz. Nahiago dut ez joan. Gogorra egiten da besteren lana juzgatu beharra.

2003 eta 2007ko Gipuzkoakoan Txapelketetan aritu nintzen.

BERTSO JARTZEN

Bi-hiru urtean aritu nintzen nire agendan egunero bi edo hiru bertso jartzen, egunean egin nuenaz.

LANEAN KANTARI

Lantokian askotan aritzen gara bi lagun elkarrekin lanean, eta puntutan aritzen gara.

BAKARNE URREAGA ETXEBERRIA

1978an jaioa Santa Barbaran

Euskal Filologia ikasketak eginak ditu eta irakasle eta arduradun lanetan dabil Astigarragako AEKn.

AITAREKIN UKUILUAN

Oso oso txikia nintzenean, hor ibiltzen nintzen aitarekin ukuilu bueltan. Asko ez nuen lagunduko, baina saltsan aritzen nintzen, eta aita bertso zaharrak kantatzen entzuten nuen beti. Eta tarteka berriak ere botatzen zituen. Hortik zaletu nintzen. Beragandik ikasi nituen Txirritaren bertso asko, Xenpelarrenak, Otañorenak, Pello Errotarenak... 7-8 urte izango nituen.

Koxkorragoa nintzela, berak behiak jezten zituen bitartean puntuka aritzen ginen biok.

Gogoratzen naiz behin lau senideoi bertso bana jarri zigula. Zaharrenarena hau zen, gutxi gora behera:

Gure seme zaharrena
izenez da Kepa
hau ederki bizi da
jolastu ta aupa
ikusten dezutenez
tripa ederra dauka
mundu hontan bizi da
holako hamaika!

BERTSO ESKOLAN

17 urterekin hasi nintzen bertso eskolan, Biterin. Jon Eizmendi izan nuen irakasle aurrena, eta Iker Osarekin eta tokatu nintzen gelan. Parrandatan ere kantatzen genuen, bertsoak idazten nituen... gero Joxe Luis Urdangarin izan nuen irakasle eta gero Aitor Mendiluze.

Bertso eskolan hastea bertsotan hastea baino askoz gehiago izan zen niretzat; nerabe lotsatia nintzen eta sozializatzeko, lagunak egiteko, nire buruarengan konfiantza izateko, autoestimurako... izugarri lagundu zidan.

SARIKETAK:

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1996	Parte-hartzaile
Hernaniko Txapelketa	1996	Parte-hartzaile
Lizardi	1997	Parte-hartzaile
Lizardi	1999	Parte-hartzaile
San Prudentzio	1999	Finalerdiak

PLAZARATZEA

Bertso eskolan hasi eta handik hilabeteetara, Eskolarteko Txapelketan hartu nuen parte. Nik ez nuen asmorik, inondik inora ere! Baina nire izena eman zuen bertso eskolako irakasleak. Kantatu nuen behintzat eta gero ez zen hain gaizki atera. 1996an, Astigarragako frontoian. Hura izan zen nire aurreneko plaza.

Handik urtebetera gauza bera pasa zitzaidan Lizardi sariketan. Eta han ere uste baino gusturago aritu nintzen!

Hernaniko Txapelketan ere kantatu nuen, batean taldeka eta bestean banaka, Gadafin.

Eta Lizardi sariketan eta San Prudentzio sariketan (1999an), Gasteizen ikasten ari nintzen bitartean. Azken honetan finalerdietara pasa nintzen.

Izugarri nerbioso jartzen nintzen. Oso gaizki pasatzen nuen.

Behin Osinagako jaietako saioan kantatu nuen bertso eskolako lagunekin batera; handik astebetera Nikolas Aldairen Euskadi Irratiko saioa entzuten hasi eta hara non entzuten dudan Osinagan egin nuen bakarkako saioa!

KONTU ESKE

Martxo batean Orixe Sariko finalean epaile izan nintzen, eta hurrengo irailean, Donostiako estropadetan parrandan genbiltzala, bertsolari bat etorri zitzaidan eta esan zidan: "Bakarne, Orixe sarian halako bertsoalditan halako bertsoan bosta jarri zenidan eta esplikatu al didazu zergatik?". "Jo! oraintxe ez naiz gogoratu ere egiten zer bertso zen" esan nion, eta ra! bota zidan bertsoa. Erdi katxondeoan aritu ginen komentatzen zergatik bai eta zergatik ez. Kuriosoa izan zen sei hilabete beranduago etorri izana, tartean hiru-lau aldiz ikusi nuenean. Edandakoan atrebitu hura ere.

KANTATU

Orain kantatu? Parrandaren proportzioan, beraz lehengo aldean oso gutxi! (Jon Iraola, Iker Osa, Xabier Legarreta, Joxe Anjel Oiartzabalen) Koadrilako edozein afari edo bazkari eta gero lehenago ez ginen isiltzen: mahaiaren bueltan bertso jarriak gehiago kantatzen genituen bat-batekoak baino Gorka Ezeizak eta Kepa anaiak eta... eta parrandan bat-batean egiten genuen. Baina orain bertso jarririk ere ez dugu kantatzen!

EPAILE

Gipuzkoako Txapelketa	2003	Epaile
Gipuzkoako Txapelketa	2007	Epaile
Gipuzkoako Txapelketa	2011	Epaile
Euskal Herriko Txapelketa	2009	Epaile

Niretzat aurreneko aldia Hernaniko Txapelketan izan zen. Gauza informala zen eta norbait behar zen. Serio antzera Gipuzkoakoan jardun nintzen, 2003koan. 2007ko Gipuzkoakoan finaleraino epaitu nuen. 2011koan ere aritu nintzen.

Euskal Herriko lehenengoa 2009koa izan zen. Kristoren errespetua izan nion.

Gustatzen zait, bertsoaren tripak ezagutzeko aukera ematen didalako.

EÑAUT AGIRRE GOIA

1977an jaioa

Niregatik izan balitz, seguru asko ez nintzen bertso eskolan hasiko. Baina etxeko giroak bultzatuta hasi egin nintzen. Bertsoak entzun ere asko egiten genituen, bertsozaleak genituen etxean...

Bolada batean anaiak bertsoa besterik ez zuen. Errezilerako bide guztian bertsotan joaten ginen. Asko bizitu genuen bertsoa garai hartan.

Osaba Koldo oso bertsozalea genuen, eta haren etxera joaten ginen bertsotara: berak ere kantatzen zuen eta idatzi ere bai... harek dena zirikako bertsoa izaten zuen normalean, baina idatzian hunkigarriak ere bai.

Aitonak ere oso behar zuen bertsozalea izan, eta haren liburuak etxean asko ziren...

Oso gustura egin dudan bidea eta prozesua da bertsolaritzarena, beraz etxeak behartuta ez dut esango, baina bakarrik utzi baninduten seguru asko beste norabait joango nintzen.

ERREZIL

Bertsotan hasi ginenean Errezilgo saiotara joaten hasi ginen. Orduan Errezilen herriko txapelketa ere egiten zen, eta bertsolari dexente juntatzen ziren. Batzuk kalean entzuten genituenak eta besteak ez: Errekondo, Porttual xaharra eta Porttual gaztea, Loidisaletxe gaztea (oraingoaren anaia), eta gehiago... Han kalean bertsoa presenteago zegoen. Soziedadera joan eta batzuk erabat bertsotan aritzen zirenak baziren, eta momentu horiek baditut gogoan, telebistako irudiak balira bezala, Begihaundi eta Zaku bertsotan aritzen zirenekoak; eta Porttual xaharra, eguna zuenean, eta Bidaniko beste bat inori txandarik uzten ez ziona, eta... Igandetan hori nahiko gauza normala izaten zen, eta gu soziedadean sartzen baginen anaiari (Unairi) segituan ekiten zioten.

BERTSO ESKOLAN

Mikel Mendizabal Langile ikastolara etortzen zen, eta halako bertso saio moduko bat egiten zuen. Haren ondorioz edo hasi ginen bertso eskolan, 9-10 urte ingururekin. Hasieran gelako ia denak, edo nire koadrilan behintzat gehientsuenak sartu izango ginen. Geroztik ia denek utzi zuten eta neronek segi nuen.

Gu Juanjo Uriarekin hasi ginen. Txikienok bertsoak kantatu egiten genituen, berak bi sail edo ekartzen zizkigun, eta niri zati hura gustatzen zitzaidan gehiena. Kantatzen genituen Juana Bixenta Olaberenak, Betroiarenak... Juanjo Uriak ekartzen zituen bertso gehienak istorio batekin lotzen nituen nik. Asko ziren Txirritarenak. Bilintxen Zaldi zuriarenak gustatzen zitzaizkidan niri, izugarri. Juana Bixenta Olaberenak txoratu egiten ninduten, eta gero errima sailak egiten genituen, eta gai baten gainean bertsoa idatzi.

Geroago bai, ikusten nituen ondoko gelan zaharragoak, hango txoko batean bat-batean nola aritzen ziren. Baina hura oso urruti bezala ikusten nuen hasieran. Gero pixkanaka-pixkanaka ailegatu ginen gela izkina hartaraino.

Idatzizkotik bat-batekora saltoa gutxik, oso gutxik eman genuen. Neronek ere Laubidietan urte bete edo egingo nuen bat -batean. Ordura arte beste hiru bat urtean edo idatzian bakarrik aritu ginen. Nire gelatik ni neroni bakarrik pasa nintzen bat-batekora, gero gazteagoak Iker Osa, Jon Iraola, Jon Ziganda, Iker Artola, horiek ziren gure belaunaldian bat-batean aritu ginenak.

Bat-batean urtebete egin eta Biteriko bertso eskola hasi zen. Jon Eizmendi izan genuen irakasle. Eta gero jada ni Gasteiza joan nintzen ikastera.

DOINUAK

Bolada batean gure etxean bertsoa beste konturik ez zen. Eskolarteko Txapelketa garaian anaiak aitari doinuak erakusteko eskatzen zion. Baina doinu bereziak nahi izaten zituen, plazan-eta gehiegi entzuten ez zirenak. Aitak solfeoa bazekien eta Bertsotan liburua hartu eta bukaerako doinutegitik aukeratzen zituen. Hasten zen aita (eskuarekin erritmoa markatuz) "do -si-si-do", eta guk: "hori ez, beste bat". Eta Unairi gustatzen zitzaiona "ba horixe!". Horrekin egoten ziren egun bat, bi, hiru, lau, aita solfeatzen eta Unai hura ikasten (edo hura ikasi ezinda, kar-kar-kar). Nik segituan ikasten nituen doinuak. Egun guztian buruan doinu huraxe ibiltzen nuen... Behin gogoan daukat ikastolan bertsoren bat kantatu behar Unaik, eta doinu ikasi berri batekin hasi zela, eta gogoratzen ez... eta nik atzetik joanda esan behar izan nion. Bera ere gogoratuko da, bai, hartaz!

BAT-BATEAN

Idatzitik bat-batekora pasatzea izugarrizko saltoa izan zen niretzako. Idatzizkoa eta kantua gustura egiten nituen bezala, bat-bateko hori oso gogorra egiten zitzaidan. Bat-batean jende baten aurrean, zer esan ez nekiela kantuan hastea, gogorra zen niretzako. Baina arian-arian azkenerako ikasi egin behar; ikasi edo... Izugarri kosta zitzaidala daukat gogoan. Nire burua asko behartu behar nuelako, asko kosta zitzaidan, eta gerora ere asko kosta izan zait beti bat-batean egitea. Orain, bai prozesu polita izan zela, aldi berean!

Nik neronek bat-bateko ibilia oso apala izan dut. Geroztik igual kontzienteago naiz ez nuela ondo pasatzen, ez nuela gozatzen jendaurrean bat-batean kantatu behar horrekin. Bakoitzak gehien gozatzen duen horretatik segitzen du eta gutxiago gozatzen duen hori pixkanaka utzi egiten du. Olatuak eraman gintuen bitartean denetik egin genuen, baina pixkanaka bat -batekoa utziz joan nintzen.

ASTEARTEKO BILERAN

Bolada batean nahiko utzia eduki nuen bertsolaritza. Biteriko astearteko bileran segi genuen Langilen bat-batean hasi ginen horiek berak. Xabier Legarreta gehitu zitzaigun, eta asko aritzen ginenak horiexek ginen: Legarreta, Artola, Osa, Iraola, Ziganda, Barrena eta ni. Gero zaharragoekin bat egin genuen. Hor hasi ginen Mendiluzerekin, Zelaia, Urdangarin, Unai, Irazu, Maialen (azaltzen zenean, jeje)...

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Txikitan bi aldiz kantatu genuen, taldeka. Hernanin orduan nire edadekoa ni bakarrik aritzen nintzen. Hurrengoak gaztetxo ziren kantatzeko, eta irla baten moduan geratu nintzen, bakarrik samar. Lehenengo txapelketan izkina banatako "kondarrekin" osatu genuen taldea eta hirukote bat irten ginen: Josu Añorgakoa, Bidaniko Zelaia eta ni. Lau oinekin kantatzea tokatu zitzaidan niri, eta han nahiko komeria ibili nuen.

Hurrengo urtean jada Hernaniko laukote batek sortu genuen taldea, eta Sandiusterrin kantatu genuen. Agur xelebre xamar batzuk prestatu genituen, kasik ez gogoratzea hobe.

Handik aurrera urtero hartu nuen parte 18 urtera arte. Lehen aldiz handien mailan atera nintzenean, lau oinetan trabatuta ibili nintzen, eta gero gaia jarri zidaten. Nire aurretik anaiak kantatu zuen, eta begetarianoaren gaien bat jarri zioten hari. Nire txanda iritsi zen eta gaia jarri zidaten: telebistari begira zaudela ikusi duzu Afrikan nola dauden goseak, eta zu bazkaltzen ari zara. 14 urte, eta nik ez neukan nondik heldu gai hari. Eta gogoratzen naiz bukaeran kantatu nuela:

gaurtik aurrera belarra jangot
nere anaiak bezela.

TXAPELKETAK

Eskolarteko Txapelketetan 18 urtera arte, eta hortik aurrera inguruko sariketetan parte hartzen genuen denok, Lizardi zela, Bilintx sariketa bazen orduan Donostian, Osinalde Gabirin (bertso onenaren saria atera nuen bi aldiz), Araban San Prudentzio txapelketan...

Gipuzkoako Txapelketan Herriartekoa izan zen lehenengo parte hartu nuena, taldeka, eta uste dut bat bateko nire saiorik onena hortxe egin nuela, Peña Otaño elkartean. (ikus 558 orria)

Eta hitza emanda ere hauxe bota nuen: Heriotz Zigorra.

Hirugarrengo mundu aldera
salto egin nahi det horra
kulparik gabe jasaten dute
borrero zaharraren borra
batzuek asko besteek gutxi
zeinen gauza derrigorra.
Gu afaritan haiek goseak
ez al da gauza gogorra
batzutan gerok firmatzen degu
euren heriotz zigorra.

Geroztik beste txapelketa batean hartu nuen parte. Uholde edo zurrunbilo hartan denok aritzen ginen txapelketarako preparatzen, eta bildu ere gehien bat txapelketa genuen garaian egiten ginen. Azken bi astetan juntatu eta txapelketarako.

Txapelketako bidean ez dut ezer esanguratsurik egin eta ez daukat horren penarik ere. Sentipena dut garai hartan gehienek egin zutena egin genuela, eta prozesu horrekin, elkartzen ginen une horiekin oso oroimen ona daukat.

PLAZAK

Herri inguruan saio dezente egiten genituen. Askotan kantatu genuen Portun, Osiñagan... Donostialdean Altzan, Intxaurrondon...

Geroztik behin deitu ziguten Bizkaitik Payatarrak (Xabi eta Fredy) Agirretarren kontra aritzeko, Algortan. Enpatean geratu zen, nahiko saio polita egin genuen oroitzapena daukat.

Goizuetan behin Aitor Mendiluzerekin aritu nintzen bertso afaritan, ehiztari koadrila batekin.

Bertso afaritan kantatu izan dut behin Urnietan, Hernanin bi-hirutan...

Baina plazetan oso gutxi ibili naiz.

BERTSO MUSIKATUAK

Ai, Martin! izan zen nire hasiera. Orduan aurkitu nuen nire lekua, jende aurrean bertsoak kantatzeko. Lehenago ere asko gozatu izan dut bertsotan koadrila txikian kantatuz, gure artean. Baina jende aurrean egiatan gozatzera orduan ailegatu nintzen.

Ikusi nuen bazegoela bide bat, inork gutxik egin zuena, eta jendeak oso gustura hartzen zuela. Bide horri heltzea erabaki nuen. Hasieran bide bakarra Ai, Martin! modukoa zela ikusten nuen eta beste horrelako bat egiteko ametsak ibili nituen bolada luze batean. Baina pixkanaka hozten joan nintzen.

Bestelako erronka txikiak sortu zitzaizkidan: Gabiriatik deitu ziguten bertso kantu afariren bat egingo ote genuen, eta oso polita atera zen. Hitzetik Hortzeran bertso sailak kantatzen zituzten eta galdetu zidaten ea atera nahi al nuen. Beste estilo bateko kontua zen, ez zen jendaurrera atera eta eroarena egitea, baina oso erronka polita zen: batzuetan bertso zaharren batzuk kantatu, bestetan neronek egindako sailen bat kantatu, haientzako doinuak bilatu, haiek kantatzeko tonua bilatu... Hark eman zidan bidea ondoren beste leku batzuetatik deia jasotzeko. Bertso munduan jendea nire izenarekin gelditu bada, bertso kantari bezala izan da. Anekdota bezala, horren presajioa aurrez Osiñalden esan zidan bertsolari beterano batek: "hik gaztia, kantatu, kantatu egiten duk ondo!".

Ni azkeneko urteetan beti bi musikarirekin ibili naiz, formaturik errazena ere bada entseatzeko, eta jendaurrerako ere oso formatu polita geratzen da. Imanol Kamio akordeoiarekin eta Aitor Atxega gitarrarekin.

Bertso Egunean kantatu izan dut eta Argia astekariaren 90. urteurreneko jaialdian (2009an) ere kantatu nuen, Victoria Eugenian. Algortan ere bai, Ahobi sarietan.

BIZITZAREN PARTE

Bertsoa nire bizitzaren parte egin dut. Zer bide jorratu? Badut gogoa bertsoak kantatzetik zerbait egiteko. Baina aparte, hobby bezala bertsoa beti mantenduko dut. Astero juntatzen garen koadrila horrek berak ere asko balio du, gure artean daukagun giro horrek... kasi 9 urtez gero bertsoa ezagutu dugu eta ez nuke entendituko bizitza bertsorik gabe.



2006ko Bertso Egunean Kursaalean kantari.

2001eko Euskal Herriko Txapelketarako Gipuzkoako Sailkapena (martxoaren 23a Pasaia)

Gehienetan patruila berean ibiltzen zareten bi ertzaina zarete. Zuk, Aitor Albistur, gaur jai zenuen, eta afaria izan duzu lagunekin. Etxera bueltan zatozela, Eñaut Agirre patruilakideak geratu zaitu ordu txikietan alkoholemia egiteko.

A. Albistur:
Gustora aritu naiz
afari legean,
kopa pila hartuta
hain modu trebean.
Mozkorra nago guztiz
aldarte grabean;
Turnoa ez al zendun
bihar goizaldean.

E. Agirre:
Kotxian zien por hora
badu nahiko kemen,
hau Ertzantzakua da
ez al da nabarmen?
Hemen putz egin zazu
ahal danik ondoen,
ba al dakizu nola
funtzionatzen duen?

A. Albistur:
Kartzelan sartu nahi nau
nahiz ta nagon aske,
hona etorria zait
putzadaren eske.
Bi koma bi eman dut
baina ez jarri triste,
lehenengoa kenduta
ez da horrenbeste.

E. Agirre:
Ez dala horrenbeste
zeinen hitz apaina,
oraintxe egin dezu
kristoren hazaina.
Honek gaur eman baitu
mando batek aina,
kartzelan hobe dago
holako ertzaina.

A. Albistur:
Nonbait ez da zuzena
ertzainen kondukta,
baina buka dezagun
daukagun disputa.
Hobe genduke gaua
ondo bukatuta,
kalabozo barruan
whiskyak hartuta.

E. Agirre:
Karneta kenduko'izut
neretzat hobia,
horrela izaten baita
ertzainan legia.
Gaurtik aurrera egon
zu ezker aldia,
seguridadiantzat
nolako aldia!

PRELUDIOA

Ereñozura materiala
ibaian gora aletan
ikatza berriz zan nahikua
txoko eta magaletan
ura goitikan bideratu
makina bat kanaletan
Hernani beti egona da
industriari zeletan
Aparraindikan Karabelera
ia 400 urte(re)n bueltan
burnia lantzen jardun zuten
hamasei burdin-oletan.

Pasaiako portuak zuen
jende mugimendu latza
merkantzien joan etorria
bale-bakailu arrantza
guztiei jaten emateko
sagastia ta baratza
gure ekonomiak horri
esker egin zun gorantza
Hernanirentzat ze gozoa
sagardoaren mikatza
herri zahar honen historia
mugitu duen ardatza.

Nafarroatik irteera
Nafarroko azken trena
itsasoko azken portua
auzoak hor du izena
Hernanitikan Europara
errege bidea zena
jenderik inoiz falta ez zen
pasa leku nabarmena
traturako puntu jakina
urte luzetan barrena
gure azokak daramaki
gure lurrak dakarrena.

Etxebizitza ordaintzera
gaztea ez da ailatzen
zelaiak ari dira galtzen
eta sagarrak mailatzen
bankuetxeetan zulo beltza
ez da errez makilatzen
baina alperrik ari gera
krisi soinuak pilatzen
gogoz ta lanez ez da zaila
bi puntak korapilatzen
nundik gatozen ahaztu gabe
bide berriak bilatzen.

[**Eñaut Agirre**, 2012ko ekainak 16]

ETORKIZUNA

1
Pentsamendu bat badarabilkit
nere barruan dantzari,
erreparatuz gizaldietan
aldatu dan langintzari.
Aurten mila ta bederatzirehun
ta berrogeita hamabi,
bertso berriyak neronek jarri
dizkat etorkizunari
pezeta baten daukazu saila
eskerrik asko! Aiba bi!

2
Bart ametsetan ixpiritu bat
inguratu da nigana
esanaz: "hemen bada gizon bat
geruaz kezkatzen dana.
Aiton erua, ni naiz gerua
handikan nator zugana,
etorkizuna deritzen naute
eta nik badakit dana"
7 bertsotan kontatuko det
harek aitortu didana".

3
80garren urteak hartzen
dira kanbio urtetzat
Modernitate baten zantzuak
baitatoz bertsoarentzat
bertso kantuan hasiko dira
lehenbiziko Gonzalezak
apaiz ateo batek bi txapel
jantziko ditu beretzat
ondoren ruso baten semiak
ta gero Bizkaiko beltzak.

4
Etorkizunak luze jardun dit
bertsoaren aldaketez,
Barakaldoko saio batera
joango den milaka jendez.
Txapelan bila saiatuko'idan
patilladun eta neskez...
Galdetu diyot: "neskai txapelik
ez die emango! mesedez!"
"bertsolaritza aldatuko da
pixka bat bai, hainbeste ez".

5
Txapeldunak zein izango diran
galdetu diyot propiyo
ta erantzun dit galdera horrek
hola ez dula baliyo.
"Txapelduna zein, ta zenbat aldiz,
omen dala egokiyo.
Zarauztar batek behin jantzi zuen
ta ez du erantzi gehio
Francori azken arnasak baiño
gehiago irauten diyo".

6
Galdetu nion: "dena joango al da
txapelketaren neurrian?".
Erantzun zidan: "ez! beste batzuk
badabiltza indarrian
taberna zulo baten bertsotan
jo eta su egurrian,
beste diskurtso bat entzun nahi dun
jende mordo bat aurrian
detaileren bat kendu ezkero
lehengo ohitura zaharrian".

7
Hartu arnasa, bertsoa utzi
dezute bide onian
zuk ez dituzu ezagutuko
baina etorkizunian:
zu eta beste bertsolariyak
zauzkate oroimenian
konparaziyo, besteak beste:
bi mila seigarrenian,
zure bertsoak entzungo dira
Bertsolari Egunian.

[**Eñaut Agirre**, 2006ko Bertso Egunean kantatuak]

MIKEL ITURBE ITURZAETA

1971n jaioa, Urnietan



Bertso giroa beti izan da gure etxean. Bertsoak zirenean irratia beti jarrita egoten zen eta denok isilik egon behar izaten genuen. Aita bertsotan aritzen da pixka bat, umorean amari arpa jotzen. Anaia bat eta iloba ere aritzen dira eta Gabon gauean urtero bertsotan jarduten gara, goizaldera arte. Anaia zaharrenak puntua jarri eta aita oso azkarra da erantzuten. Sortak ere idatzi izan zituen 60ko hamarkadan.

HELDUEN BERTSO ESKOLAN

Helduen bertso eskolan gehien bat paperean idatzarazi ziguten. Mejora beti nabaritzen zen. Baina lotsa kentze hori ez genuen ikasi. Parrandan, gaueko erreleboan aritzen ginen bertsotan. Baina garesti oso, edari asko behar genuen!

Orain tarteka kantatzen diot neure buruari, segun zer lanetan ari naizen.

EPAILE

- Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa 1999 (Hernani-Txisplau taldean)
- Txapelketa Nagusirako Gipuzkoako sailkapena 2001
- GR 4 (2004an), bertso eskolek antolatutako liga
- Gipuzkoako Txapelketa 2003

1999ko Herriartekoan, "Hernani Txisplau" taldean ziren Maialen Lujanbio, Aritz Zerain, Itziar Eizagirre eta Gorka Tolosa. Talde bakoitzean gai-jartzaile eta epaile bana behar ziren eta epaile aritzeko deitu zidaten. "Baina ni sekula ez nauk aritu!" pentsatu nuen. Txapelketa izatez gero norbaitek epaile behar izaten du, ezetz ezin esan eta horrela hasi nintzen. Baina neure borondatez aurkeztuta ez.

Geroztik GRn aritu nintzen epaile eta 2003ko Gipuzkoakoan ere bai.

Bere gauza du epailetzak. Niri ez zait gustatzen. Saio guztian oso kontzentratuta egon behar duzu. Gauza askok alde egiteko arriskua du... Kanporaketa bada tira, baina gero eta aurrerago joan, maila ere handiagoa izaten da eta estutzen joaten da lana. Saioa bukatu eta "ufff", lasai geratzen zara, bertsolaria bezala azkenean.

XABIER LEGARRETA ETXARRI

1976an jaioa, Aranon

AITONA

Gure etxean zalea aitona zen. Ni hizketan hasi baino lehenago kantatzen zizkidan hark bertsoak. Hari adituz eta telebistan ikusiz zaletu nintzen. Abiera aitonak eman zidan.

Asko kantatzen zizkidan, batez ere Txirritaren bertso zaharrak. Berak erakutsita, nik lehenengo kantatu nuen bertsoa "ikusten duzu goizian" izan zen.

Aitonak non-nahi kantatzen zuen. Saskigilea zen, eskulanetan oso trebea, eta lanean ari zela ere bere gisa kantari aritzen zen. Telebistari begira ari zela ere bai, afalaurrean eta afalondorenean ere bai... oso ume zalea ere bazen eta gurekin ordu asko pasatzen zituen. Ez zen inoiz ailegatu plazan kantatzera baina badakit bastante trebea zela, bere kasa ari zenetan neronek ere sumatu nuen. Aranon Santa eskean ateratzen zirela esaten zidan, eta koplari aritzen zela. Gu jaiotzerako bukatu zen hura.

Aita eta osaba bastante zaleak dira, baina ez plazaz plaza ikusiko zenukeen jendea. Ni hasi nintzenean gehixeago zaletu ziren.

Aranon bertso zaharrak ikaragarri dakizkien jendea bada. Edozein garaitan hara joan eta edozein sumatuko duzu tabernan bertso zaharrak kantatzen.

GOIZUETAKO BERTSO ESKOLATIK HERNANIRA

Goizuetako eskolan ibili ginen hamar urtean. Lontxo Aburuza etortzen zen Iruñetik, eta astean ordubete edo bi orduz bertso eskolak ematen zizkigun. Nik uste jolas ordua ere harekin pasatzen nuela, latan, bat-bateko bat kantatu arazi behar izaten nion etortzen zen guztian. Koadrila dezentea ginen Goizuetan aritzen ginenak. Dozena erdi bat igual: Dani Narbarte, Jon Eskudero, Agustin Elizegi, neroni...

Zortzigarren mailan nintzela hasiko zen bertso eskola Goizuetan Joxe Oiartzabalekin (emaztea hangoa du). Festetan eskolako taberna jartzen duten etxe hartan izaten zen. Hantxe juntatzen ginen larunbata ilunabarretan, arratsaldeko 19:00etatik 21:00ak aldera arte. Bertso zaharrak kantatzen genituen, tarteka liburu bat edo beste ekartzen zuen Oiartzabalek. Gero bat-batean lau oinekin kantatzen genuen, puntutan, puntua erantzunaz ere bai, ofiziotan ere bai... talde polita juntatu ginen eta oso giro ona genuen. Baina bizimoduaren gauzak direla eta, batzuk lanean hasi ziren, gauza bat eta beste zela bakandu ginen, eta gehienek utzi egin zuten.

Joxe Oiartzabalek ikusten zuen gogoz aritzen nintzela eta "ez ezak utzi, joan hadi Hernanira" esaten zidan. Horrela, Hernanira ekarri ninduen. Bi-hiru txandatan lagundu zidan, eta segituan egin nituen lagunak.

Ni lehenbiziko etorri nintzenean Biterin bildu gintuzten. Korroa galanta bai! Ederki lotsatua sartu nintzen. Koplatan ari ginen. Ni berria nintzela-eta bakoitzaren aurkezpena egin behar izan genuen, edo bakoitzaren ezaugarriak eman bertsotan. Ordurako Hernanin hasi nintzen eskolan, EPOn. Arratsaldea bertsoarekin betetzen genuen, estudiatzen ez ginen asko saiatu eta!

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Lehenengo aldiz parte hartu nuen Eskolarteko Txapelketan, ama eta biak Iruneraino joan ginen trenean Hernanitik, han Baztanesa hartu, eta Bera Bidasoara joan ginen. Aranotik hara trenean eta autobusean joateko, hainbeste kolpetan, egu-na gehiena behar genuen. Bidean gaizki pasa nuen, nerbioso. Oraindik bertso eskolan hasi gabea nintzen, eskola ordutan emandako harexekin nindoan, eta afizioa banuen, baina jende aurrean kantatzea bueno, sekula pentsatu gabea nintzen. Ez dakit bat-batekoa irabazi nuen eta idatzizkoan bigarren egin, edo alderantziz. Gustura bueltatu nintzen etxera.

Mugitu beharra zail egiten zitzaidan. Dezente desegokia da Nafarroa herrialdean mugitzeko, eta berez nerbioso egonda, luze egiten zitzaidan. Baina han bertan ezagun mordoxka bat egin nuen, topaketetan ere juntatzen ginen eta nahiko giro polita genuen. Orduan Nafarroan bertsolaritza bera berritzen ari zen, eta Xabier Silveira, Estitxu Arozena, Estitxu Fernan-dez eta Iñigo Olaetxearekin Lesakako bertso eskola oso furian zegoen. Etxarri Aranazkoak ere ale batzuk baziren, giro polita zegoen eta dezente mugitzen nintzen alde hartara ere.

Hernanin sustraiak pixka bat bota nituenean gero eta gutxiago joaten nintzen.

PLAZARATZEA

Lehenengo plaza sariketaren batean egingo nuen. Xenpelar saria ez ba-zen Bilintx, edo horietakoren batean.

Sariketatik aparte, Donostia alde horretan beti izaten zen bertso afari tipoko enkarguren bat. Behin Jon Iraola eta Iker Osarekin joan nintzen Intxaurrondo aldera. Nora joan behar zen jakin ez, eta okertuta kuartel aldeko bidea hartu genuen. Bagindoazen eta "hi, hori ez al huen guar-dia zibila?" galdetzen genion batak besteari. "Keba!". Gero eta bertarago joan eta "zapel hori guardia zibilarena huan!". Mekaguen, baila ikusi ge-nuenean hura ziztua eraman genuen beste aldera!

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Gai-jartzaile (Hernani-Iraulio taldean)
Nafarroako Txapelketa	1995	Kanporaketa
Nafarroako Txapelketa	1996	Kanporaketa
Nafarroako Txapelketa	1997	Finalista
Txapelketa Nagusia	1997	Kanporaketa
Nafarroako Txapelketa	1998	Txapeldun ordea
Nafarroako Txapelketa	1999	Finalista
Nafarroako Txapelketa	2000	Txapeldun ordea
Nafarroako Txapelketa	2001	Final-aurreak
Nafarroako Txapelketa	2002	Finalista

Nafarroako Txapelketan Oskar Estangarekin.

NAFARROAKO TXAPELKETA

Iparraldearekin batera egiten zen orduan Nafarroako Txapelketa. Gu baino dezente zaharragoekin ere kantatzea tokatzen zitzaigun. Lehenbiziko aldiz Alduden kantatu nuen, bertso afari tipora egin zen. Izpegin barrena joan ginen aita, aitaren lehengusua, Jon Iraola, Iker Osa eta ni. Alduden kantatu eta konforme etorri nintzen etxera.

2000. urtean Amets Arzallus, Sustrai Colina eta Xabier Silveira finalean zirela bigarren egin nuen txapelketan. Ordurako jendaurrean pixka bat kantatua nintzen. Aurretik ere bigarren egin nuen beste txapelketa bat izan zen, Estitxu Arozenaren atzetik. Eta urte hartan bertan ere plaza dezente egitea tokatu zitzaidan. Talde indartsu horrekin bigarren egin nuen, eta orduan jada gehiago ibili nintzen plazan.

Gero ez nuen suerterik izan, ondoko txapelketak nahiko kaxkarrak egin nituen, eutsi behar nion garaian pixka bat behera egin nuen.

Nafarroan txapelketa urtero egiten da, eta aspertu egin nintzen. Gainera, nahiz entrenamendutan gozatu hara joan eta ez nintzen gustura aritzen, ez nuen nezakeenik egiten. Ez nion neure buruari asko utzi ere egiten.

Nik uste Nafarroako bertsolaritzak urte onentsuenak eman zituen garaian txapelketan ongi ibili nintzela eta horrekin konforme gelditzen naiz.

PLAZAZ PLAZA

Nafarroako Txapelketan Amets Arzallusen atzetik egin nuen urte hartan 35 bat plaza egin nituen Euskal Herri osoan; Bizkaira mugitu nintzen, Gipuzkoa aldean, Nafarroan dezente...

Orduan plazan zebiltzan gehientsuenekin kantatu nuen. Unai Agirre, Jexux Mari Irazu, Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Jon Sarasuarekin kantatu izan dut, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Aitor Sarriegi, Xabier Silveira, Estitxu Arozena...

2009-07-10, Iruñea, jaialdia

Zuek biok talde bereko txirrindulariak zarete, Igor Elortza Amstrong eta Xabier Legarreta Contador. Bi oilar oilategi berean.

I. Elortza:
Lehengoan nik eginaz
zaude bero-bero
gure taldean lider
zarela-ta edo.
Baina Alberto Contador
zaitugunez gero
hasi zaitez kontatzen:
"Hiru, bi, bat, zero!".

X. Legarreta:
Hiru, bi, bat, zero ta
erlojua atzera
indartsu omen zatoz
lehenagoko antzera
baina zurekin noa
lehenbailehen batzera
edo etorri al zara
tronua kentzera?

I. Elortza:
Parka baina tronua
neroni dagokit
Europara etorri naiz
Ameriketatik.
Zu zertara zatozen
oso ondo ez dakit
hirugarren munduko
herri horretatik!

X. Legarreta:
Hirugarren munduak
dit arnasa eten
Amerika bakarra
dela du ematen.
Aizu hemen ez geunden
zuri itxaroten
ta zuk ez al dakizu
etxean egoten?

I. Elortza:
Kontxo! Hoixe bakarrik
guk falta genuen
beti egon naizenean
altutan altuen!
Zuri Contadorrena
kantatu dizut lehen
zuk ez dakizu amstrong-ek
zer esan nahi duen.

X. Legarreta:
Etorri ta hala're
nahi duena bota!
Lehenengo egunean
egin dit pelota.
"Zer esan nahi ote du?"
dabil ate joka
ez dakit ta gainera
neri ez zait inporta.

I. Elortza:
Zure lagunek eingo
zuten noski porra!
Gaurkoan daukagu guk
etapa gogorra
arm arma duzu eta
amstrong da zigorra
pentsa ezazu zein den
datorkizun porra!

X. Legarreta:
Ziklistaren bizitza
buila ta zarata
zu behintzat hemen zabiltz
hona ta haraka...
Aurten ez zara joango
Tourra aterata
denak Amstrong-en kontra
joango gera-ta!

IKER OSA ZELAIA

1978an Hernanin jaioa



ETXEKO GIROA

Zaletasuna denok genuen, gehixeago edo gutxixeago. Gurasoek, anai-arrebek... bertso giro dezentea sumatzen nuen nik.

Gure osaba Gotzon (Anjel) saltsa askotan ibilia zen, eta bertsotan ere etxeko zaleena bera izan zen. Parrandatan bertsotan egiten zuen. Eta antolakuntzan asko mugitzen zen Juanjo Uriarekin, Antton Garinekin eta horiekin. Gogoratzen naiz 1989ko Txapelketa asko jarraitu nuela osabaren bitartez. Giro hori asko sartu zitzaigun orduan.

BERTSO ESKOLAK

10-11 urte genituela, Langile ikastolan, Laubidietan, ikusten genuen gure ikaskideak nola aritzen ziren bai Anatxekin eta bai Juanjo Uriarekin, bertsolaritza ikasten. Eta gu ere zaletu ginen. Orduan oraindik lotsa pixka bat edo gehiegi izango genuen, baina nolabait ere arrimatu ginen gu ere Eli Igartzabal irakaslearen bitartez. Lau-bost bat ginen hasi ginenak: Iker Artola, Jon Ziganda, Jon Iraola, ni...

Lehenbiziko urtea Juanjo Uriarekin egin genuen, 11 urterekin, Langile ikastolan.

Gure bigarren urtea izan zen bi bertso eskolak Biterin batu zirenekoa. Han 14 urtera arte idatzizkoa egiten aritu ginen Jon Eizmendirekin eta azken urtean Joxe Luis Urdangarinekin. Gero jada gure kasa biltzen ginen.

PLAZAK

Lehen saioa: Hernanin, 1990ean, Sandiusterri aretoan, Joxe Legarretaren oroimenezko saioan, bertso-eskolako lagunekin.

Bazkari eta afari guztietara joaten ginenean, urtean igual 20 plaza egiten genituen; Andoain, Urnieta; Altza, Herrera, Donosti, Hernaniko auzoak... Baina ez zen izan txapelketaren batean zerbait egin genuelako edo bertso maila bat eman eta ez dakit nondik deitu zigutelako. Batez ere ezagun eta lagun pila bat genituelako izaten genituen deiak batetik edo bestetik. Eta bai herrian eta bai inguruan mugimendu handia zegoelako. Hor bi-hiru-lau urte politak pasa genituen.

Zizurkil Goian gaztaina jatera urtero ez baina dezentetan joan izan ginen. Hango herriko asko oso lagunak ditugu eta ezagunak ia danak. Eta han gustura geratzeko saioak egin izan ditugu, baserritarren egunean ere bai...

SARIKETAK

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1996	Finalista (handitan)
Argi Berri saria	1998	Parte-hartzaile
Argi Berri saria	1999	Parte-hartzaile
Argi Berri saria	2000	Parte-hartzailea
Hernaniko Taldekako Txapelketa	1996-2002	Behin irabazi (Pipirita-Tellerigain taldean)
Lizardi saria	1997	Finalista
Lizardi saria	1998	Finalista
Lizardi saria	2000	Finalista
Lizardi saria	2001	Finalista
Orixe saria	2001	Parte-hartzaile
Orixe saria	2003	Parte-hartzaile
Xenpelar saria	1998	Parte-hartzaile
Xenpelar saria	2000	Parte-hartzaile

TXAPELKETAK

Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Parte-hartzaile (Hernani-Iraulio taldean)
Gipuzkoako Txapelketa	2003	Azken laurdenak
Gipuzkoako Txapelketa	2007	Lehen fasea
Gipuzkoako Txapelketa	2011	Azken laurdenak

Saio eguna iritsi arte gustura egoten nintzen beti, kristoren ilusioarekin... saioko eguna denetik izan dut. Behar baino garrantzia handiagoa eman eta azkenean bertso eskolan baino maila baxuagoan aritzea gertatu ohi zait, urduritasunak ere ez du laguntzen... baina gustora. Hori gaixotasuna da eta alferrik da ihesi ibiltzea.

2011ko Gipuzkoako Txapelketan.

ESTILOA

Niri gustatzen zaidana bat-bateko bertsoa da. Saiatu horretan egiten naiz, lortzen dudan edo ez, beste kontu bat da. Erantzunekoa eta ahal den denbora gutxienean pentsatuta.
Baina txapelketan beti erortzen gara ez garen horretara.

2001 Euskal Herriko Txapelketarako Gipuzkoako Sailkapena (martxoaren 24a, Hernani)

Puntua:
Aspalditxo iritsi
ginen ilargira

Iker Osa:
eta oraindik gaude
beraiei begira,
gugan utzi baitzuten
holako dizdira;
oraindikan batzuek
bertan bizi dira.

LAN MUNDUA

1
Irakasleek dute
sekulako ganga
lanean hasterako
kobratzeko txanda
asko lasai "langile
fina naiz" esanda
nirekin lan handirik
etzuten izan da.

2
Eskola utzi eta
sei hilabetera
bete nahiean hutsik
zegoen kartera
joan nintzen poteoko
taberna batera
kostata pasa nintzen
barraz bestaldera.

3
Lagunak juergan eta
nik lana galanki
heldu nahi nion beste
behar mota bati
lan gogorrari bildur
gutxitxo izaki
baso lanak bihurtu
ninduen basati.

4
Langilerik finenak
udaletxekuak
ondo goguan dauzkat
beraien datuak
zazpi ordu: gosai ta
hamaiketakuak
Txirritaren legia
ikasitakuak.

5
Obran ikus liteke
hainbeste mutiko
erotikan gehiegi
eurotikan nahiko
teilatu, aldamio
salto eta brinko
nik bizitza zintzilik
ez nuke jarriko.

6
Bela aspertu nintzen
haizkoran ta segan
beste nunbait biziko
bainintzan primeran
enpresa potolo bat
banuen aukeran
ordu(a)n ikasi nuen
entxufe bat zer dan.

7
Gu gara dena eta
geu gaude ondoen
Zikuñagan ta Epelen
zenbat ke dagoen
Urumea ere noizbait
egon zen garbien
ta ez dakit kaltea
zeinek egin dien.

8
Enpresa bakoitzeko
beste hainbat buru
dena da estuasun
ta dena apuru
nahiz eta lanpostu bat
den gure helburu
diru faltak gehiago
kezkatzen gaitu gu.

[**Iker Osa**, 2003an Joxe Legarretaren omenez Hernanin egindako bertso-emanaldirako jarriak]

JON IRAOLA MARTINEZ

1978an Hernanin jaioa

Bertsozaleak ginen denok etxean eta saioetara joaten ginen etxekoekin. Handitu ahala gure kasa joaten hasi ginen.

BERTSO ESKOLAN

Juanjo Uriarekin hasi ginen, Langile ikastolan, 11 urterekin. Ikastoletako bertso eskolak Biterin batu zirenean, gu astearteko bileran sartu ginen.

Bertso eskolan taldetxo bat sortu genuen, gure belaunaldikoekin eta aurretik zeuden beste batzuekin, eta talde horrekin geure kasa ere biltzen aritu ginen.

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Behin bat-batean hasita, taldeka izaten zen txapelketa txikien mailan, eta nik gogoan dudala bi aldiz atera ginen. Nekane Igarriz, Iker Osa, Eñaut Agirre eta ni. Iker Artola ere bai, urte batean. Eta gero bakarka ere atera izan naiz, urtero, 18 urte egin arte.

SARIKETAK

Aurreneko Lizardi Sarian parte hartu nuen eta Hernanitik hamar-hamabi joan ginen kantatzera. Geroztik igual hamar aldiz aterako ginen.

TXAPELKETAK

Gipuzkoakoan pare bat aldiz kantatu dut eta 1999ko Herriartekoan ere bai. Niretzako ur handiegiak dira, ilusio eta gogo handia neukan baina. Esperientzia bat eta bertsotan jarraitzeko aitzakia izan dira.

2001eko Euskal Herriko Txapelketarako Gipuzkoako Sailkapena (martxoaren 24a, Hernani)

Puntua:
Denetik daukagu ta
hala ere eske,

Jon Iraola:
horrela ibiltzen da
horrenbeste gazte;
gauz gehiagokin izan
baigintezke aske,
baina ondorenian
gauz txarrak datozte.

PLAZAK

Afariak eta festa giroko saioak izaten genituen, jaialdietan eta gaiekin oso saio gutxi egiten genituen. Horretarako izen gehiago zuten bertsolariak deitzen ziren. Gu, tokatzen zitzaigun terrenoan hortxe ibiltzen ginen, gustura. Entzuteko eta kantatzeko, bitarako, afalondorena edo bazkalondorena nahiago ditut. Mahaiaren buelta.

Bertsolaritza jarraitzen dugu baina lagunartekoa gehiago. Sozidadean elkartu eta bertsotan egin... elkarren ondoan ederki pasatzea da kontua.

ITZIAR EIZAGIRRE KEREJETA

1979an Hernanin jaioa - Larraulen bizi da

HASIERAK

Familiak pisua izan zuen, batez ere amonak.

Langile ikastolan suertez Ixiar Otamendi izan genuen irakasle: bertsolarien pasadizoak kontatzen zizkigun, eta zaletasuna transmititzen zuen. Berak bideratu gintuen Juanjo Uriaren bertso eskolara.

Eta batez ere bertso eskolan zegoen helduen talde horrek zaletu gintuen umetatik. Umetatik erreferente genituen Juanjoren gelan helduenak zirenak, bertsotan egiten zutenak eta sekulako pasioarekin bizi zutenak. Denaren eragina izan zen.

ATAKA

Biteriko bertso eskolan Iñaki Zelaia izan genuen irakasle lehenik eta Joxe Luis Urdangarin ondoren.

Bat-batekorako pausoa eman beharra etorri zenean atzera egin genuen. Eta gainera hurrengo urtean beste taldekide gehienek bertso eskola utzi zuten. Estitxu ahizpa, Karmele Apezetxea eta ni gelditu ginen. Guretzat handiak ziren Iker Osa, Jon Iraola eta horiekin elkartu gintuzten. Bolada estua pasa genuen, ez genuen utzi nahi baina ez genuen bat-batean egin nahi...

Jada piszinara salto egin behar duzunean inseguridade pila sentitzen dira. Edade horretan dena konplejuak direnean, jendaurrean kantatzea eskatzen zaizu... momentu hori tragoa da, nik behintzat ez nuen gozatzen, izorraketa latza zen zer eta helduagoak ziren mutilen aurrean kantatu araztea. Tentsioan bizi nuen. Baina ez nuen utzi nahi, bertsoa gustatzen zitzaidan. Atakan aurrera edo atzera egin behar izatera iritsi nintzen. Guk aurrera egin genuen, seguruena giroagatik, bertsoa asko gustatzen zitzaigulako...

Egia da, bestalde, piszina aurrean jartzen zaituztelako probatu egiten duzula. Agian nire kasa utzita ez zitzaidan behin ere aterako. Eta probatzea ona da, behintzat saiatu egin zara, eta gero erabakitzen duzu aurrerago joan edo ez.

SARIKETAK		
Axari saria	1999	Finalista
Axari saria	2000	Finalista
Aztiri saria	2001	Txapeldun
Hernaniko Txapelketa	1996	Finalista
Lizardi saria	1998	Finalista eta bertso onenaren saria
Lizardi saria	1999	Parte-hartzaile
Lizardi saria	2000	Parte-hartzaile
Osinalde saria	1998	Parte-hartzaile
Osinalde saria	1999	Parte-hartzaile
Osinalde saria	2000	Parte-hartzaile
Osinalde saria	2001	Finalista
Lehenbiziko saskiberri saria		Txapeldun

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Parte-hartzaile (Hernani-Txisplau taldean)
Gipuzkoako Txapelketa	2003	final-laurdenak

PLAZAN

1999ko Gipuzkoako Herriartekoaren ondoren saio bat edo beste egin nuen. Andoainen festetan, Jokin Sorozabal, Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbiorekin...

Afari giroko saioetan eta tabernetan bai, gozatzen nuen. Baina jaialditan oso gaizki pasatzen nuen. "Ea zenbat bertso falta diren bukatzeko, ea bukatzen den, ea bukatzen den" egoten nintzen saio osoan.

Saio baterako deitzen bazidaten, pentsatzen nuen "zertarako esan diot saioari baietz?". Agobiatuta, arrastaka pasatzen nuen aste osoa eta hara ere beldurtuta joaten nintzen.

Erabaki nuen bertso eskolara joaten jarraitzea, horko jarduna gustatzen zitzaidalako, baina jendaurrean ez nuela kantatu nahi ezta herrian ere. Eta kito.

UTZI

Bertso eskolan irakasle nintzen, helduen taldean ere biltzen nintzen... eta haurdun gelditu nintzenean, erabaki nuen "dena utziko dut". Nire buruari kristoren peligroa ikusten nion. Gure bizitza "orduko ehun kilometroan eta kurban derrapeak eginez" izan zen. Saltsa guztietan sartu, denari bai esan, oraintxe bertso eskola, oraintxe udalekuak, oraintxe topaketak... erabaki nuen "Utzi dena, ze bestela erotu egingo zara zu, aldamenekoa eta umea. Hartu lasai, disfrutatu oraingo momentua umearekin...". Eta dena uztea zen dena, asteartetako taldea ere bai. Ez naiz gauzak erdizka egin zale, ezin dut egon baina ez egon; edo nago eta gauzetan laguntzen dut eta banaiz parte, edo ez egotekotan nahiago dut distantzia hartu. Hor erabat deskonektatu nuen.

BERTSOZALE ELKARTEKO LANGILE

Euskal Herriko Bertsozale Elkartean militantziaz 18 urterekin hasi nintzen Transmisio batzordean, Koldo Tapia zegoen garaian. Elkarteak antolatutako lehen bertso udalekutan begirale izan ginen ahizpa eta biok. Eta 2004 urteaz geroztik bertako langile naiz, Transmisio Batzordeko eragilea.

2001eko Euskal Herriko Txapelketarako Gipuzkoako Sailkapena (martxoaren 16a, Andoain)

Hasierako agurra:

Denentzat tokirik ez da
final handiko saiuan,
bost hauek lagunak dittut
zertan hasi sesiuan?
Epaileentzat oferta bat dut
beherapenen sekziuan:
bi bixki pasa gaitzakezue
bakarraren preziuan.

Puntua:
Eguzkiak alaitzen
al zaitu goizero?

Itziar Eizagirre:
Sarritan izaten naiz
parrandan bezero,
etxea ez dut topatzen
aizu egunero.
Ta kalean jotzen nau
sarri bero-bero.

2001-04-07 Gabiria Sariketa

Iñaki Apalategi eta Itziar Eizagirre. Interneten bidez ezagutu zarete, elkarren lagun egin ere bai, baina hau da elkar ikusten dezuen lehenengo aldia. Ze inpresio izan dezue edo?

I. Apalategi:
Modem batekin pozik
gure mutikoa,
tarifa planarekin
txatak'e nahikoa...
Polita omen zinen,
jokatu lepoa.
Kalean ikusita
hau da disgustoa!
Barkatu, zu al zera
argazkitakoa?

I. Eizagirre:
Ni ere horren plana
ez nago gizona!
Zu ere ez zaitugu
horren play-boy ona.
Internetak bazuen
bere alde sakona,
lehen begiratuan
ixkutun dagona,
erakutsi zaidazu
zure punto com-a.

I. Apalategi:
Ordenadore ona
bageneukan bana
ta biok elkartzeko
egin gendun plana:
bostetan antzokian;
nolako afana!
Zuk baloratzen zendun
gehiegi izana,
zergatik zenioen
"itxura ez da dana".

I. Eizagirre:
Edertasuna ez da
nere balorea,
baino zuk dadukazu
hain-hain-hain gordea!
Atzetik beituta're
ez da dotorea;
zure planta bai dala
benetan grabea,
realidade birtuala
baitegu zurea!

I. Apalategi:
Baina orain sinisten
nik badauzkat lanak!
Ez zera hain polita
pantailetatik at.
Aurpegira beidatzen
ere lana daukat
ta esango dedana
hartu zazu aintzat:
idazten txarra zera,
onar zazu behintzat!

I. Eizagirre:
Romantiko jartzea
nahiz dagon modako,
nik ez det ez balio,
aitortu beharko.
Baino zu ere ez zera
ibilia bapo.
Sarbidea ixten dizut
nere buzoirako,
gaurtikan ez didazu
birusik pasako!

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

1979an Hernanin jaioa - Larraulen bizi da

Ikus-Entzunezko komunikazioa ikasi du Leioan. Argia astekarian erredaktore 2001etik, zuzendari 2013tik.

AMONA

Amonari eskerrak sartu ginen bertso munduan. Maria Antonia Rekalde Zapirain, Urnietako Zulueta baserrikoa. Oso bertsozalea zen eta txiki ginenetik "Markesaren alaba"ren bertsoak, eta artzainarenak, asko kantatzen zizkigun. Bertsoekiko maitasuna hortik hartu genuen.

Juanjo Uriak Langilen bertso eskola jarri zuenean guk 8 urte genituen eta bertso eskolara amonaren eskutik joaten ginen.

Berarekin jarraitzen genuen Hitzetik Hortzera, txapelketak... Udan siestarako hiruok ohe berean sartu eta radioan bertsoak aditzen egoten ginen.

Eskolatik ateratakoan arratsaldeak berarekin pasatzen genituen eta asper asper eginda geundenean, hor hasten zen, zekizkien denak kantatu eta kontatzen.

KALERAKO BIDEA

Gu umetan ez gara kalean ibilitakoak. Lehenengo irteera guztiak bertso eskolarekin egin ditugu, umetan Juanjo Uriarekin Santa Agedetan kopla kantari, gaztetan lehen parrandak...

BITERIKO BERTSO ESKOLA

Ikastoletako bertso eskolek Biterin bat egin zutenean Iñaki Zelaia izan genuen irakasle, eta idatziz egiten genuen. Bat-batean Joxe Luis Urdangarinekin hasi ginen, eta taldean biltzen ginen Iratxe Apaolaza, Karmele Apezetxea, Itziar ahizpa, Urko eta Iker Apaolaza.

Hor pare bat urte egin genituen. Eta Karmele, Itziar eta hirurok gelditu ginen aurrera egiteko eta helduekin nahastu gintuzten (Iker Osa, Jon Iraola, Eñaut Agirre, Xabier Legarreta...). Gogoratzen dut etxera bidean beti esaten genuela "bueno, zuek segitzen baduzue nik segiko dut", "bueno, beste astebetean etorriko gara". Astero astero beti hor ginen, utzi edo jarraitzeko mugan. Azkenean zergatik segitu genuen? Bestela horrelako koadrila ederrik gabe geratuko ginelako.

ESKOLARTEKO TXAPELKETAN

Gogoratzen dut han ikusi nuela Maialen Lujanbio kantari. Eta momentuan pentsatu nuela: "klaro, eske, neskek ere kantatu dezakete. Ez dira futbolean bezala aritzen, mutilak alde batetik eta neskak bestetik". Gogorra da esaldia, baina hala da. Lehen aldia zen tabladu gainean neska bat ikusten nuena kantari. Neskak idazten aritzen ginen eta kantuan beti ziren mutilak. Etxera etorri eta amonak komentatu zuen: "ba omen dago neska bat bertsotan aritzen dena... joño, horretan ere hasi al dira?" bera ere poztu zen. Irudi hark "klak" egin zigun buruan.

NERABEZAROAN, ERABAKIA

Hasi berritan bat-batekoa kosta egiten den ariketa bat da, eta badauka bere grazia horretan saiatzeak baina era berean erraza da gaur aurreratu duzuna bihar hoztutzea... txapelketatik txapelketara funtzionatzen duzu. Momentu horretan Joxe Urdangarin izan zen (gure irakaslea) saioak bilatzen zituena, eta gaueko 11etan gure etxean telefonoa jotzen zuenean bi ahizpok errietan hasten ginen: "hartu zuk, Joxe da eta; ez hartu zuk, aurrekoan nik hartu nuen eta" eta beti zen hurrengo goizerako saioren bat; eta beti ematen genuen erantzun bera, ez genuen nahi baina ez genekien ezetzik esaten.

Baina Lizardiko sariketa etorri zen, eta nola udan zen eta ez zegoen bertso eskolarik, preparatzeko geratu behar izan genuen. Iker Osa, Jon Iraola, Itziar eta laurok geratzen ginen, eta Unai Agirrek eta Jexux Mari Irazuk prestatzen lagundu ziguten. Adinagatik eta gure burua prestatzeko ardura geuk hartu genuelako, hor eman nuen aldaketa.

Lizardiko saio horiek politak atera ziren, gustura geratu ginen, eta bertsoekiko jarrera aldatu zitzaidan. Jada ez zen bertsotarako pereza, egin nahi eta borroka bat zen.

SARIKETAK

Aizkorpe bertso txapelketa	2004	Parte-hartzaile
Argi Berri Saria	1999	Osinalderako sailkatua
Argi Berri saria	2000	Osinalderako sailkatua
Axari saria	1999	Osinalderako sailkatua
Aztiria saria	2002	Osinalderako sailkatua
GR-4 bertso bidea	2004	Parte-hartzaile
GR-5 bertso bidea	2005	Parte-hartzaile
Hernaniko taldekako txapelketa	2002	Parte-hartzaile
Hernaniko Txapelketa	1996	Finalista
Lizardi saria	1998	Finalista
Lizardi saria	1999	Finalista
Lizardi saria	2000	Finalista
Lizardi saria	2001	Parte-hartzaile
Orixe saria	2003	Txapeldun
Osinalde saria	1999	Finalista
Osinalde saria	2000	Finalista
Osinalde saria	2002	Finalista
Xenpelar saria	2002	Finalista
Zarauzko Kopla Txapelketa	2003	Txapeldun ordea

2003KO ORIXE SARIA

Ez nengoen batere prestatuta. Sailkapeneko afaria nuen astean gertatu zen Euskaldunon Egunkaria itxi zuteneko dena. Horregatik, tripetatik kantatu nuen. Finalean ere amorru horretatik kantatu nuen. Kartzelara atera ginenean oso paretsu gindoazela esan ziguten eta kartzelan erabakiko zela saioa. Jata salto egitea erabaki nuen, bertso eskolan behin ere kantatu ez nuen doinu eta neurrian, zortzi puntukoan.

Kartzelako gaia: Gaur goizean burrunba handi batek esnatu zaitu. Dozenatik gora hegazkin militar pasatu dira zure etxe gainetik gerrara bidean.

Lanpara denak erori dira
eta mahaia dago dantzan
burura eraman eskuak eta
berehalaxe naiz etzan.
Aita ta amai deitu ohi diet
norbaitek lagundu nazan
eskuak ondo gurutzatuta
errezatuz esperantzan.
Hegazkin batzuk ikusten ditut
burnizko txorien trazan
misil batzuek bota dituzte
nola gaituzten erasan!
Ala jainkoa lagun zaidazu
nik ezin baitet hau jasan
zerua dator gainera edo
mundua dago zalantzan!

Oso garbi dut txapel hori amorrua bertso bihurtu nuelako irabazi nuela. Txapela Pello Zubiriari eskaini nion, eta askatu zutenean Argian egin genion ongi-etorrian eman nion. Argazki hau Egunero-ko (Euskaldunon Egunkaria itxi zutenean langileek hainbat hilabetez kaleratu zutena) azala izan zen.

Amerikarrak mehatxatuaz
ari dira aspalditik
espainiarrak haiei lagunduz
eta inglesak bestetik.
Orain artean bezela ere
gero bizi nahi nuen nik
gu ondo gaude eta munduan
gertatuak ez dit inportik.
Gaur erasoka etortzen dira
eta ez dakit zergatik
diotenez guk buruzagi bat
txarra izateagatik
lepo gaineko burua berriz
nik ez dut galdu oraindik:
hura hiltzaile izan liteke
ni ez naizela badakit.

Guregan dago gure arbaso
ta gudarien itzala
nik ere burka eramaten dut
nire amonak bezala.
Europearrek ez dute ulertzen
guretzako da normala
baina halare errespetua
ez ote da printzipala?
Jarri nahi dute euren txanpona,
erlijio ta azala
horregatikan guri tratatu
arratoi zahar hoiek hala
zerura beida jarri naiz eta
hala eskatzen dizut Ala:
munduan bizi ezin bagara
lurrak tragatu gaitzala!

BERTSO ESKOLAKO IRAKASLE

16 urterekin hasi ginen irakasle eta 25ekin utzi nuen (Larraula joan ginen bizitzera, eta 27 urte nituela jaio zen gure alaba zaharrena).

Nik primeran pasatu dut irakasle. Izugarri disfrutatu eta ikasi dut, beste irakasleekin eta ikasleekin. 10 urtean jende mordoa pasa da, baina garaian garaian talde bat izan gara, euretako bat sentitu naiz. Eta zenbat barre eta zenbat erokeria egin ditugun! Urbieta kopiak-ekoak esaten zigun bezala "ui, bixkiak maleta eta kartulina pila batekin... ke peligro!". Umeentzat sormenerako eta besteekin harremanetan euren burua lantzeko leku bat izatea nahi nuen.

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	1999	Parte-hartzaile (Hernani-I)
Gipuzkoako Txapelketa	2003	Final-aurreak
Euskal Herriko Txapelketa	2005	Lehen kanporaketa

Baditut txapelketako oroitzapen oso politak, gustora geratu izandakoa, eta zer ederra den! Txapelketan ongi kantatzen duzun unea, hori hortxe geratzen da, luxu bat da. Baina ez dut kontrolatzen zein diren txapelketaren klabeak. Prestatzen ari zara, landu duzu eta ustez ongi aritzeko moduan zoaz, eta beste alde batetik etortzen zaizu zaplakoa.

2003ko Gipuzkoako Txapelketa: Final laurdenetako ze oroitzapen ona daukadan, eta aldiz finalerditan zer sentsazio gaitza akojonatu egin nintzela eta ez nuela ezer egin! Azkeneko gaian soltatu nintzen, baina ordura arte bukaera iristeko desiatzen eta eskakeatzen egon nintzen...

2005eko Euskal Herrikoa. Kristoren ilusioa eta gogoa jarri nuen. Ustez prestatzen aritu nintzen, eta ustez ongi ari nintzen, entrenamendutan gustura nenbilen. Eta hara iritsi eta saio grisa egin nuen. Ez nintzen saio horretan egon, ez nuen ezer egin, ez ongi eta ez gaizki esatekorik.

GARIALEA

Garialea bloga 2001eko txapelketarekin sortu nuen. Bertsoari lotutako lehenengotako bloga eta webgune bakanetako zen, hasi nuenean. Pello Zubiriak bultzatzen zuen internet Argian, eta asmoa azaldu nion eta segituan jarri zuen martxan. 2013ra arte bertan idatzi nituen iritzi artikuluak, albisteak, lan luzeak... eta formulario bat betez eskaera egiten zidanari bertsoak jartzen nizkion!

LARRAULEN ETXEAN BERTSOTAN

2007an Larraulera joan ginen bizitzera eta bertsotako eguneroko koadrila aldatu zitzaigun, baina nolabait bilatzen ditugu bertsotan egiteko txokoak.

Bildu izan gara sozidadean, bertsotan egiteko. Umeak bueltan ibiltzen dira, eta nahi dutenean entzun eta nahi dutenean zerbait kantatzen dute. Bestalde, Larraulen baserriz baserri erronda egiten da Gabonetan eta Santa Agedetan. Hor koplari gustura aritzen naiz.

Nire umeei asko kantatu diet, tripa barruan nituenetik. Inixio (umeen aita) amorratua da eta denok ere librean asko aritzen gara etxean eta kotxean, etorri ahala botaz.

gaiak

HERNANI

Hernanin zegoen bertso zaletasuna ez zen nolanahikoa; ezta bertso eskolan genbiltzan gazte taldea ere. Koadrila bat bezalakoa zen gurea: giro mundiala zegoen gure artean eta primeran pasatzen genuen bertsoaren aitzakian. Bereziki gogoan ditut Bertso-Latako afariak, antzerkiak, Hernaniko txapelketako saioak, bertsolari gazteen topaketak... luxu handia izan zen guzti horren parte sentitzea. [**Bakarne Urreaga**]

Hernanin auzoko jai asko zen: Santa Barbaran, Portun, Etxeberrin, Osinagako jaiak hasi zirenetik bertso eskolako saioa egiten da urtero... festa guzti horietan gu hantxe izaten ginen. Generazio guztiak pasatu gara hortik. [**Jon Iraola**]

Auzotako saioak dira egokienak bertso eskolan lehenbiziko urteak dituztenek lehen saioak egin ditzaten. [**Iker Osa**]

Niretzako garai hori izan zen politena. Jon Iraola eta biok orduan ibili ginen gehiena batera eta bestera. Bazkaria edo afaria bazen, Iraola eta ni han izaten ginen, dispuesto. Bai Hernanin eta baita inguruan ere pixka bat mugitu ginen eta oso gustura ibili nintzen. [**Iker Osa**]

YAUSIKA

Yausika dantzalekuan bukatzen genituen parrandak, askotan bertsotan (Osa, Iraola, Irazu, Maialen...). 2000. urtean Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak Kulturarteko Topaketak antolatu zituen, munduko inprobisatzaileak bilduz. Haien lainezean, bolada izan genuen Yausika kanpoan erdaraz bertsoak-edo osatzen saiatzeko. Guk bat osatzerako Maialen Lujanbiok hiru kantatzen zituen! Goiz batean amak: "bart gauean lorik ezin izan nuen hartu, mozkor batzuen builagatik. Eta zein izango eta zuek, bertsotan!" gu parrez hasi eta "ojo, bakoitzak zer kantatu zuen ere esango nizueke eta!". Handik aurrera parrandetako saioxkak amari agurra botaz hasten genituen. [**Estitxu Eizagirre**]

Doinua: Habanera

Tabako, ron ta zurito
astebururoko zita
"sorpresas te da la vida"...
bestela ez du merezi-ta!
"Se fue, se fue, mi amor se fue"
rantxeratan intzirika,
zurekin baino su gabe
nago aspertzen hasita.
"Come-on, zipaio laztana"
"zatoz ene Adelita!"
"Emostasu musutxue"
txanogorritxo jantzita
beti geratzen da zerbait
muga guztiak hautsita
maiteminduentzat Paris
eta guretzat Yausika!

[**Jexux Mari Irazu**]

HERNANI LEHEN ETA ORAIN

1
Santa Barbarara igo eta
begiratu Hernaniri
garai bateko herri txikia
nun bihurtu zaigun hiri.
Batzuen disgusturako eta
beste askoren inbiri
teilatu, horma eta kamio
besterik ez da ageri.

2
Begien bistan eduki arren
hitzez ezin dut azaldu
azken aldean ez zera gutxi
luzatu eta zabaldu.
Baserriari lurra jan eta
eraikuntzak txit ugaldu
nortasun berri bat hartu dezu
eta lehengo zaharra galdu.

3
Bukatu ziran uztarri eta
bukatu kamarrarroak
bukatu ziran estratetako
gurdi zorrotzen marroak.
Bukatu ziran akuilu eta
itzai zahar haien orroak
etxez etxeko esne partitze
eta ijito karroak.

4
Azken denboran ekonomia
asko indartu da gerriz
etxe bakoitzak bere kotxea
famili askok bi berriz.
Nahiz eta hilaren azkenean
kontua zenbaki gorriz
pobre edo aberats zer garen
elkarri ezin igarriz.

5
Beteko ez dutena eskaintzen
hor ari zaizkigu ezti
hauteskunde kanpainan hori da
politikoen abesti.
Gaztedia biziko litzake
gustorago ta amesti
lan postu eta etxe bizitzak
ez baleude hain garesti.

6
Eten ezinik gabiltz lepoa
estutzen digun lazoa
garai bateko antzera dago
morrontzaren arazoa.
Etxean hala bizi beharra
ez da gauza erosoa
oraindik morroi dago Hernani
eta Euskadi osoa.

[**Jose Mari Arrieta**, 2003an, Joxe Legarretaren omenez Ereñozun egindako bertso-emanaldirako jarriak]

IGANDE SOZIALAK

Doinua: Haizak hi mutil mañontzi.

1
Andre Kalen sartu ahala
hau da jendetza zabala
barrarik-barra dabiltz manifa
balitza bezala!
hau egarri nazionala,
gora gu ta Erreala!
Reboluzio eguna degu
"Igande soziala".

2
Ze euforia daukaten
igande infinito baten,
langabetuak ikusten ditut
problemak edaten.
Nahiz xoxik ez den izaten,
inori ez zerbeza ken,
bihar jeikitzen gutxinez lana
eduki dezaten.

3
Son Cubano ta bolero,
pasioz Apeadero,
Karmona berriz, rantxerak jarriz
dabil gerrillero.
Mamboa zainetan, bero
zoramenak janda edo
munduan azken eguna balitz
bezala igandero.

4
Gaiztotzean irriparra,
ta zorroztu hatzaparra,
argia piztu, musika itzali
ta itxi da barra.
Gazte guztiek marmarra,
"zenizienta" trauma zaharra:
zapata galdu baino lehenago
etxeratu beharra!

[**Itziar eta Estitxu Eizagirre**, 2003an Joxe Legarretaren omenez Ereñozun egindako bertso-emanaldirako jarriak]

BERTSO ESKOLA III

Larre-Gaingo bazkari erraldoia.

Hernaniko bertso eskolaren historian zehar parte hartutako kideak elkartu ginen Larre-Gaingo bazkarian. Bazkalostean saiotxo bat egin zen Maialen Lujanbiok gidatuta. Bertso-eskolaren historia errepasatuz, eta kasu batzuetan belaunaldi berekoak eta beste batzuetan nahastuta kantatuz osatu zen. [**Gorka Tolosa**]

"Hurrengo tragua nausi ttikian kontura" bota zuen Arnaitz Lasartek. [**Joxe Mari Mujika "Anatx"**]

Bertso eskolako irakasleak

- Itziar eta Estitxu Eizagirre, Gorka Tolosa, Joxe Anjel Aranburu.
- Oier Iurramendi, Amaia Otxotorena, Arnaitz Lasarte, Asier Azpiroz, Unai Gaztelumendi.

2008-06-26, Hernani jaialdia

Aurten Hernaniko jaien hasierako txupinazoa Bertso Eskolak bota du. Zu ere han zinen, beste askoren artean. Zer sentitzen du hernaniar batek halako egoera batean.

Maialen Lujanbio:

Hogeita zazpi urte badira
ez da broma ez da burla!
Ordutik hona zenbat lan egin
dun jende askok kalkula!
Talde giroa ta herrigintza
bertso eskolan formula.
Balkoiean zer sentitu gendun
ez degu ahaztuko sekula:
taldean ta ondo eindako lana
herriak eskertu dula.

Zenbait proiektu ta zenbait amets
ajatzen ditu denboak
baina guretzat oaindik kolore
ederra dauka geroak.
Errimaz, doinuz eta euskeraz
bete dauzkagu ahoak
bertso eskolan bat eiten dira
ilusio ta gogoak.
Lehengoei esker gaude gu eta
guri esker hurrengoak.

Proiektu onak hola eiten dira
pixkana eta xuabe
protagonismo nahirik ez eta
kriterio haundien jabe.
Maisu handiak izan ditugu
gure ondoan, gure alde
eta gu ere bide horretan
aurrerako gogoz gaude.
Gaurko plaza're ez da betetzen
inork lanik egin gabe.

3-4 urtean aritu nintzen, oso gustura, bertsolaritza beste era batera erakusten: motibagarriago eginez edo behintzat dibertsitate handiagoz. Ikasle asko ez zen bertsoak erakarrita etortzen, eta astero gustura etortzeko formulak bilatzen genituen. Bertsolaritzarekin harremantzea zen lehen helburua eta zenbaitetan beste alor batzuekin uztartzen genuen –musika, antzerkia, jolasa...–. [**Gorka Tolosa**, irakaslea]

Koadrila da bertsotan aurrera egiteko bertso eskolak ematen duen garrantzitsuena, eta lehen urteetan klasea emateari beldurra kendu ondoren, ondorengo urteetan irteerak eta ekintzak antolatzeari ekin genion: urtero sagardotegira joaten ginen, Eskolarteko Txapelketak ikustera autobusean, Aste Santutan Azkizura asteburu pasa, udan bost egunez udalekutara (Goizueta, Eulate, Beire), Bertso-Latan umeen saioa antolatzen genuen, Uganera (Ikaztegietako auzoa) joaten ginen ikasleekin kantura urtero, eskoletan saioak egitera... taldea osatzea genuen helburu. Ekintza horietan asteartetako jendea ekartzen saiatzen ginen, helduekin ikasleek harremanak egiteko, eta asko estimatzen genuen haien laguntza (ekintza asko ez ziren aurrera aterako bestela).
[**Estitxu Eizagirre**, irakaslea]

Hernanikoa talde bat zen. Hernanin hasi izan ez banintz, gaur agian ez nintzen bertsolari izango. Inguruan lagun talde bat gabe, 14 urterekin zu bakarrik bazara zure herrian bertsozalea, zaila da horretan segitzea.
[**Beñat Gaztelumendi**, ikaslea]

Iker Osak erabaki zuen niri erreleboa ematea. Nik ez nuen ezer erabaki, hura egina zegoen. Bertso eskolan nenbilen bigarren urtea izango zen: Iker Osa genuen irakasle, urte batzuek bazeramazkien, eta ez zuen denborarik galdu; pare bat hilabete pasatzerako "beno, Joxe Anjel, jarri gaia! Hurrengo urtean hik jarri beharko dituk eta!". Zeharka botatzen zidan, nik ezezkorik eman ez, eta hurrengo urtean txikien talde bat nik hartu nuen: Arnaitz Lasarte, Amaia Otxotorena eta hauek oso txikiak zirenean. Haiekin lau bat urte egin nituen. Karrera bukatzea konplikatu zen arte. [**Joxe Anjel Aranburu**, irakaslea]

Hasieran zail xamarra egin zitzaidan, nire ikasleak 10-11 urteko edadean ziren eta nik 10-11 urterekin ez nuen bertso eskola bizi izan. Ni jada 16rekin sartu nintzen bertso eskolan. Niretzako arrotzak ziren beraien erreakzioak, ikaratze hori, "nik ez dut kantatu nahi"... Gu bertso eskolan hasi ginenean, bat-batean egitera joan ginen, paperak harrika botatzera... beste fase batean sartu ginen. Ikasleei hasieran asko insistitu behar izaten nien, nik ere pazientzia hartzen ikasi behar... gero ohitu ginen. [**Joxe Anjel Aranburu**, irakaslea]

Hernanira Langile ikastolara etorri nintzenean, bertso eskolan orduan apuntatu nintzen, 12 urterekin. Joxe Anjel Aranburu genuen irakasle eta geroztik bixkiekin aritu nintzen. Nahiko goiz hasi ginen gure kabuz biltzen, 15 urterekin edo, Biteri ondoko lokalean, asteartetan. [**Arnaitz Lasarte**, ikaslea]

Gu ikasle ginen garaian dozena inguru ginen eta oso talde polita osatzen genuen: Ane Lujanbio, Amaia Otxotorena, Oier Iurramendi, Joxeba Lizeaga, Eki Jauregi, Jon Hidalgo... Batzuek bertsotan egiten genuen, eta besteak beti zeuden prest entzuteko, gaia jartzeko, giro ona genuen. Ikastoletan propaganda egin genuen eta jende pila bat hasi zen. Aurreneko urtean bertsotan gauza handirik egin ez baina umeek ondo pasatzen saiatu zen Estitxu Eizagirre eta gero pixkanaka bertsoa lantzen hasi zen. [**Arnaitz Lasarte**, ikaslea]

2005eko Txapelketa Nagusiko bazkarian.

Hasi ginenean larunbat goizetan ere geratzen ginen bertsotan egiteko, Estitxu eta Itziarrekin, Andrearekin... bertso gaixo batzuek ginen. [**Arnaitz Lasarte**, ikaslea]

Azken urtean Unai Gaztelumendirekin eman nien klasea Eli Pagola, Eñaut Martikorena, Aritz eta Aingeru Otxotorena, eta Imanol Sarriegiri (hurrengo urtean Jon Iturbe sartu zen). Lehen egunean Eñaut Martikorena (8 urte zituen) zer eta bertsotan sartu zen atetik! "Hau badugu norbait!" pentsatu nuen. Ez zuen neurtu eta errimatzen, jardun eta jardun egiten zuen. Bere kantu hura bukatu zuenean hasi nintzen "ongi etorri! eseri eta zuen izenak..." eta Eñautek "hau ez al da bertso eskola? ez al dugu bertsotan egin behar?" bota zuen. Buruan "klak" egin zidan "arrazoia!" pentsatu nuen, eta ordura arte ikasleekin idatziz hasten baginen, urte hartan hasieratik bat-batean egin genuen. Umeei ezer esplikatu gabe, utzi bere kasa aritzen eta guk ere eurekin kantatu. Arituz arituz, denborarekin neurria eta errima barneratu zituzten, bakoitzak bere garaian. [**Estitxu Eizagirre**, irakaslea]

Beste behin, Eñaut Martikorenak esan zuen: "noiz egingo gara bertsolariak?" eta guk "nola bertsolariak?" eta berak "noiz joango gara sagardotegira?". [**Estitxu Eizagirre**, irakaslea]

ERRELEBOA

Azken urtean irakasle gazteekin aritu nintzen koordinatzaile, erreleboa ematen. Bertso-eskolaren izpiritua eta zentzua transmititzea zen kezkarik handiena: Bertso-eskola gozamenarekin lotutako eremu bat zela batik bat. Horrez gain, eskatzen zituen gai formalak landu genituen. Diru laguntza eskaerak eta irteeren antolaketak...

Egokia iruditzen zait gurean erreleboa emateko erabili den modu naturala. Ikaslea irakasle izatera pasatzen denekoa. Hala ere, beti irakaslearen formazioaren lanketa faltan bota dut. Intuizioari jarraituz, inprobisazioari zenbaitetan leku

gehiegi emanez eta aurreko irakasleen ereduak aintzakotzat hartuta bideratu du bere egitekoa irakasleak gehienetan. Gure bertso-eskolak hartu duen dimentsioa –ikasle kopurua, herrian duen lekua...– kontutan izanda planteamendu orokor eta landuago baten beharra duela uste dut. Haurren bertso-eskola eta bertako kide garenon helduen arteko zubiak eraiki eta dauden apurrak ere indartu beharko lirateke. Formazio eta ikuspegi didaktikoari dagokionean, Bertsozale Elkartearen babes falta sumatu izan dut. Urtetan hezkuntza arautuan jarri izan du indarra eta baliabide gehien eta bertso-eskolek gure kabuz ahal duguna egin behar izan dugu. [**Gorka Tolosa**, utzi zuen irakaslea]

Elkarrekin irakasle hasitako Iker Osak, Karmele Apezetxeak eta Aitor Mendiluzek pixkanaka utzi egin zuten eta Itziar ahizpak eta biok jarraitu egin genuen, Joxe Anjel Aranbururekin eta Gorka Tolosarekin. Joxe Anjelek ere utzi zuen, Tolosak astero ezingo zuela etorri... Erreleboak loa kentzen zidan momentua iritsi zen. Ikasle zaharrenek 16 urte zituzten. Gu ordurako klaseak ematen hasiak geunden, alde horretatik ez zen nobedadea. Baina gu irakasle hasi ginenean, asteartetako bileretan helduen taldearen babesa genuen. Aldiz, ordurako asteartetako helduen taldea Biterin beharrean sozidadeetan gauez biltzen zen, eta gaztetxoak ez ziren sozidadeetara etortzen.

Ahizpa haurdun geratu eta bertso eskola utzi zuenean erori nintzen arbolatik. Beti ez nintzen bertso eskolako irakasle izango... [**Estitxu Eizagirre**, utzi zuen irakaslea]

Guk aurrekoekiko hamar urteko adin diferentzia daukagu. Eta gure ondorengoekiko bostekoa. Gu bertso eskolan hasi ginenean zaharragoek beste trote bat zeramaten eta azpikoak gertuago ikusi nituen. [**Unai Gaztelumendi**]

Ondorengo irakasleak ahalik baldintza onenetan uzteko, urtebetez elkarrekin eman genituen klaseak. Armairutan materiala txukun uzten aritu ginen... alde batetik primerakoa da erreleboa ematea eta garaian garaiko irakasleek bakoitzak bere erara gauzak egitea. Baita ere uste dut irakasle belaunaldi bakoitzak beti utzi dietela ondorengoei eurek jaso zuten bertso eskola baino antolatuagoa, osatuagoa eta urteekin esperientzia asko aberastu dela. Baina bestetik pena da batzuek etortzeko motiboa besteak joatea izatea. [**Estitxu Eizagirre**, utzi zuen irakaslea]

Bixkiek aurrera begirako beste plan batzuk zituzten, eta eurek utzi aurretik gu ere klaseak ematen hasi ginen. Nik Estitxurekin batera ematen nien klasea umeei, 15 urterekin. Oier Iurramendik eta Amaia Otxotorenak ere elkarrekin ematen zioten klasea talde bati. Eta hurrengo urtean gure esku geratu zen bertso eskola. [**Arnaitz Lasarte**, irakasle hasi zena]

Erreleboa hartu eta lehen urtean, 15-16 urterekin irteerak eta udalekuak antolatzeko larri ibili ginen eta batzuetan Agin Labururi eta Joxe Anjel Aranbururi deitzen genien irteeretan laguntzeko. [**Oier Iurramendi**, irakasle hasi zena]

Estitxuk utzi zuenean ni hasi nintzen Arnaitzekin klaseak ematen. Igual behar baino goizago izan zen, tartean beste inor ez zegoelako eta lekukoa norbaitek hartu beharra zeukalako. [**Asier Azpiroz**, irakasle hasi zena]

Arduraren zentzua bagenuen: hiru urte egin genituen ikasle, bagenekien aurretik jende asko ibili zela, eta guk hain ongi pasatzen genuenez, bertso eskolak segitzea nahi genuen. Baina oinarririk ez nuela sentitzen nuen, bertso zaharrik ez dakit buruz, material falta... [**Arnaitz Lasarte**, irakasle hasi zena]

Segurtasun falta eta beldurra genuen, ikasletik irakasle izatera pasa ginelako. "Nik zer erakutsi behar diet hauei?" sentitzen genuen. Ahal genuen bezala, batzuetan bertso zaharrak eraman, hutsuneak bete, bixkiek material asko utzi ziguten paperetan eta hortik tiraz egin genituen aurreneko urteak. Lehenengo urtetan bertsotan ere egiten genuen baina gure helburua ikasleek ongi pasatzea zen. Doinuak eta bertso zaharrak ikasten hasi ordez, ikasleak lotu egin nahi genituen, astean behin ordubete gustura etor zitezela. Batez ere klasean ongi pasatzea zen gure lana. [**Oier Iurramendi**, irakasle hasi zena]

SOZIDADEKO BERTSO ESKOLAK

Ereñozuko eskolan entrenatu ostean.

1999an etorri zen Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa. Talde handia ginen eta bertso eskolan erabaki genuen prestatzeko taldeak egitea, eta horrela hasi ginen bakoitza bere aldetik biltzen. Gure taldean Iker Alustiza, Ibon Miner, Estitxu Eizagirre eta ni ginen eta Ibon Ereñozukoa izanik, han biltzen ginen askotan.

Hurrengo txapelketa (2001ekoa) prestatzeko talde horiei eutsi genien. Orduan hasi ginen bertso eskola ez Biterin biltzen. Batzuk Ereñozun biltzen ginen, beste batzuk Peña Otañon, gero gurutzatu egiten ginen, azkenean denak denera joan izan gara. Gero Ereñozuko taldea Aranon hasi ginen biltzen. [**Unai Agirre**]

1999ko txapelketaren aitzakian hasi ginen soziedadetan biltzen. Guztion bizitza planaren arabera moldatu beharra zegoen elkartzen jarraitzeko modua. Asteartetako bileraren gainbeherari eusteko modu bat izan zen. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Txapelketa prestatzeko Ereñozuko eskolan eta elkartean biltzen ginen. Aritz Zeraini eta bioi asko eman digu horrek, eta auzoko jendeari ere bai. Maialen Lujanbio, Jexux Mari Irazu, Aitor Mendiluze... horiek denak hemen ikusita gertukoago sentitzen ditu. Beti gogoratzen da bat nola bertsolari horiek 2001eko Txapelketa Nagusitarako entrenamenduak hemen egiten zituzten. Guretzat berezia izan zen. [**Ibon Miner**]

Peña Otañon inguruko mahaietan beste afaltiarrak zirela kantatzen genuen: batzuetan entzutera, gaia jartzera edo kantatzera ere inguratzen ziren. Giro berezia sortzen zen, aste pare bat azaldu gabe pasa ezkero baita kargu hartu ere.
[**Iñaki Zelaia**]

Gipuzkoako nire lehen txapelketa (2003an) prestatzea tokatu zitzaidan, artean, hura zer zen oso ongi jakin gabe. Joxe Anjel Aranburu eta biok ordu asko pasa genituen elkarrekin, baina ohartu ginen, beti elkarrekin jardunda ez genuela mejorarik egiten. Hala, bertso eskolako arrain potoloengana hurbildu ginen. Urratsa guk eman genuen. Elkarri esan: "joango gaituk?" eta non eta noiz biltzen ziren galdetu eta juntatzen hasi.

2003ko txapelketa hura 2 elkartetan bereizita prestatzen zuten, tarteka elkartzen baziren ere. Egokieragatik, Joxe Anjel Peña Otañora gehiagotan joaten zen Iñaki Zelaia, Iker Osa, Jon Iraola eta Joxe Luis Urdangarinengana. Ni berriz, Ereñozura gehiago, Unai Agirre, Aritz Zerain, Eñaut Agirre, Estitxu Eizagirre...

Urteekin, arrain potoloen bizitza fase aldaketak (umeak ekarri izanak alegia) Peña Otañoko taldea desegitera bultza zuen. Ereñozuko taldea berriz, Aranora igo da azken boladan, baina ez asteroko maiztasunarekin. Maizena biltzen garenak Iñaki Zelaia, Aitor Mendiluze, Unai Agirre, Xabier Legarreta "Arano", Aritz Zerain, Eñaut Agirre eta neroni izango gara.

Faltan sumatzen ditut belaunaldi berriak, guk 18 urterekin esan genuen "joango gaituk?" hori esango dutenak.
[**Agin Laburu**]

Orain helduen taldea horrela dago banatua. Eta gero gazteagoak daude: bidea irekita dute, baina kontua da ezordutan ibiltzen garela askotan. [**Unai Agirre**]

Aurreko belaunaldiarekin lotura izan dugu. Euskal Herriko txapelketa preparatzeko Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta horiekin kantatu izan dut. Sozidadetako taldeetara joan izan gara, Oier Iurramendi Peña Otañokora eta ni Ereñozukora... [**Arnaitz Lasarte**]

SAGARDOTEGITAKO SAIOAK

Zenbat bertsolari geunden ikusita, eta plazan ateratzeko aukerak gutxi zirenez, esaldia atera zen: "guk aurkitu beharko ditugu plazak". Sagardotegi batzuekin hitz egin eta eurekin adostu zen asteguna. Halako egunetan joan, afari truk kantatu, eta entzule bertsozale eta euskaldunak badaude ondo, eta bestela, afaldu, konplitu eta etxera. Orokorrean esperientzia oso ona izan zen. [**Iñaki Zelaia**]

Lehenbiziko urteak hotz xamarrak izan ziren baina jendea hasi zen ohitura hartzen halako egunetan halako sagardotegitan bertsolariak bazirela.

Larre-Gainen, Lizeagan, Rezolan eta Oialume Zar-en hasi ginen. Oialume-Zar utzi egin genuen eta pare bat urtean Astarben egin zen. [**Iker Osa**]

Hasierako helburua kantatzea zen. Formatu polita zen, sagardotegiei gustatu zitzaien, eta azkenean beraiek etorri izan zitzaizkigun "zer, aurten ez al duzue egin behar?". Bost urtetik gora iraun zuen. Herriko 15 bertsolari hasi ginen, eta gero tartean tartean kanpotik sartu ziren, Zarauztik Iñigo Mantzizidor "Mantxi", Bizkaitik Onintza Enbeita, Xabi Paya, jende talde polita sortu zen. [**Jon Iraola**]

Propagandarik ez genuen egin, nahiago genuen espontaneoa izatea. Giroak laguntzen bazuen bertso afari bihurtzen zen eta bestela joandako bi edo hiru bertsolarik euren artean egiten zuten bertsotan eta kito. [**Iker Osa**]

Txapelketaz kanpo gehien gozatu ditudan momentuak izan dira. Bereziki gogoratzen naiz Rezolan egindako bi saiorekin. 21:00etan hasi eta goizeko 2:00etan han ginen, eta ez gu latan ari ginelako, jendeak ez zuelako alde egiten eta "segi" esaten zigulako baizik. [**Iñaki Zelaia**]

20-30 entzule, aurpegiz aurpegi, euren parrak eta lotsak zuzenean sartuta. Hain zenez gertukoa entzulea, behin baino gehiagotan beste afari baterako zita jartzen zen koadrila berarekin. [**Iñaki Zelaia**]

Batean Unai Muñoarekin tokatu zitzaidan, ordu erdi aritu ginen bertsotan biok gogoz geundelako, baina ez zegoen entzulerik. Horrelakoak ere gertatzen ziren. [**Iñaki Zelaia**]

Mahaiez mahai joanda, sagardotegikoari informazioa eskatu nongo koadrilak diren, sorpresaz harrapatu... mila anekdota izan ditugu. Batean Mantxirekin Rezolan, txotxean jendea ari zen erabat "paziente" eta horrelakoak esanaz, eta komentarioa egin genuen, "hauek nolabait ere medikuak edo dira". Hortik bideratu genuen saioa, "gure artean bada jendea gaixotuz gero laguntzeko moduan..." eta bete betean asmatu genuen, ospitaleko 30-40 pertsona ziren, erdiak baino gehiago euskaldunak eta sekulako sorpresa hartu zuten. Horrelako egoerak oso politak dira sagardotegian. Edo halako politikari dela edo halako kultur taldekoak direla, bertsolariak garenik jakin gabe zirikatzea. [**Iñaki Zelaia**]

Sagardotegitako saiotan gozatzen dut gehiena, terreno horretan gehiago identifikatzen naizelako izango da, formatu aldetik gehiago gustatzen zaizkidalako. [**Jon Iraola**]

Izugarri gustatzen zitzaidan sagardotegitan kantatzea. Afaldu, eta inork ezer espero ez zuela, hasi kantari! Fuerte kantatu behar ziren lehen bertsoak jendearen arreta lortu arte. Oso heavya zen. 2006an "ni astero kantatzeko prest!" esan nien. Asteartero Lizeagan, eta beste bertsolariren batek ezin bazuen, ostegunetan han eta hemen aritu nintzen. 19 saio egin nituen urte hartan sagardotegietan. [**Estitxu Eizagirre**]

Nik bi aldeak probatu ditut: bertsolari eta sagardotegiko arduradun. Bertsotara joanda, gogorrena hastea egiten zitzaidan, jendeak ez zekielako bertsotara gindoazenik, baina hasi aurretik ez zen zaila izaten igartzea gau hartan entzulerik izango genuen edo ez.

Sagardogile ikuspegitik, oso polita zen giroa sortzen laguntzen zuelako. Giro sanoa. Azken urtetan ordea, krisiaren eraginez, entzulerik izango ote zen kezka gero eta handiagoa zen. Lehen urteetan, ostegunero 100 lagunetik gora izaten ziren gure etxean eta azkenekotan 50 elkartuz gero pozik. Gaur egun, sagardotegiren batean salbu, ez dago baldintzarik hori egiteko, ostegunetan ez behintzat. [**Agin Laburu**]

Ostegunetan Larre Gainen egiten ziren. Joxe Anjel Aranburuk eta Aitor Mendiluzek egindako saioa daukat gogoan. Eibarko eta Portugaleteko AEKko ikasleak zeuden eta sekulako giroa piztu zen. Mendiluzek kristoren saioa egin zuen eta Joxe Anjelek hobea, nire iritziz. Beste saio bat ere ederra izan zen, Aitor Mendiluzek eta Xabi Payak egin zutena.

[Arnaitz Lasarte]

GR BERTSO BIDEA

2004an GR-4 Bertso Bidearen aurkezpenean.

2004an hasi zen eta Gr-4 Bertso Bidea deitu genion, lau herri lotzen zituen ligaxka zelako: Orioko Bertso eskola, Lasarteko bertso eskola, Oiartzungoa eta Hernaniko Iraulio Panttalone. Herri bakoitzarekin joan-etorrikoa jokatu genuen. Oso giro polita sortzen zen, Hernanin saioak egin genituen Anboto tabernan, Zingi-Zangan, Aralarren... Ekaitz Bergara Calongek egin zuen karteletako marrazkia.

Finala Orion egin zen, Satxota sagardotegian. Lasartearrek irabazi zuten.

Arrakastaren seinale, urtez urte gero eta bertso eskola gehiago elkartu ziren eta ligaxka beste lurraldeetara ere zabaldu zen (Bizkaian, Araban, Lapurdin eta Nafarroan). 2008an 16 herrik hartu zuten parte.

[Estitxu Eizagirre]

2004an Zingi-Zangan, kupel artean oiartzuarrekin borrokan.

Oso ekimen politta eta lagun artekoa izan zen. Leihak beste ezerk baino garrantzia txikiagoa zuen. Herri bakoitzeko taldeak beste herri bateko taldearekin kanta-

tzen zuen. Tabernetan izaten ziren saioak batez ere, afalostean zenbaitetan, eta talde bakoitzak bertsolariak, gai jartzailea eta "epailea" jartzen zuen. Ez zegoen kantatu beharrekoaz araudirik. Oso saio informalak izaten ziren. **[Gorka Tolosa]**

Gure taldeak saio bat egin zuen Mallabirekin. Hernaniko Tripontzin egin zen eta saio umoretsua irten zen. Mallabiko kide batek hainbat bertsolari ezagun ere imitatu zituen... **[Gorka Tolosa]**

Azken urtean edo azken aurrekoan kantatu nuen, 16-17 urterekin. Hernanin pare bat saio egin genituen eta Zarautzen eta Lesakan. Asko ginen bertsotan hasi berriak eta oso gustura ibili nintzen, kanpora ateratzeko aukera ere bazen.

[Oier Iurramendi]

GR-16 bertso bideak 16 talde eta 51 saio izango ditu aurten, apiriletik udazkenerarte

Berrikuntza ugari dakartza abiatzear dagoen GR-16 bertso-bideak: ibilbidea luzatu, eta hamasei herritako bertsolari eta bertsozaleak bilduko ditu aurtengoan, eta apirilean hasi eta udazkenean bukatuko da. Plaza gutxi egiten dituzten bertsolariei aukera ematea eta herrietako bertso-eskoletara jende berria gerturatzea ditu helburu egitasmoak.

Duela bost urte jarri zuten martxan proiektua Hernani, Oiartzun, Lasarte eta Orioko bertso-eskolek. Duela hiru urte Orereta gehitu zitzaion hasierako laukoteari; duela bi urte Zarautzek, Lesakak eta Mallabik GR-8ra zabaldu zuten proiektua, iaz lau talde berrirekin (Azpeitia, Goierri, Urretxu-Zumarraga eta Zumaia) GR-12 bertso-bidea osatu genuen, eta aurten, beste lau talde berrirekin, GR-16 bertso-bidea osatuko dugu; Gasteiz, Hendaia, Oñati eta Zestoa dira lau talde berri horiek. Beraz, Gipuzkoan, Bizkaian, Araban, Lapurdin eta Nafarroan arituko gara norgehiagoka, lagun arteko zirikan, bertso-kantari.

Kilometroa, ordea, ez da GR-16 proiektuaren handitasuna neurtzeko parametro egokiena. Udaberri-udazkena bitarteko egutegia osatzen ari dira dagoeneko hamasei herrietako bertso-eskolak. Apiriletik udazkenera bitartean, asteburuz asteburu eta herriz herri izango da txapelketako jaialdiren bat. (...) guztira 51 saio jokatuko dira.

Saio guztietan, etxeko taldearen ardura izango da saioa antolatzea, eta hark aukeratuko ditu emanaldiaren formatua, lekua eta ordua. Tabernan egin ohi dira saio gehienak, baina bestelako formatuei ere irekia dago GR-16a, hots, librean egiten diren saioei, trama-itxurakoei...

[Bertsoa.com 2008-04-02]

HAMAIKA BERTUTE

2006an Beran egin genuen bilera fundazionala. Tartean ziren Miren Artetxe, Julen Zelaieta, Andoni Otamendi,Unai Muñoa, Uxue Alberdi, Jon eta Alaia Martin, Ander Lizarralde, Jon Ansa, Ainhoa Agirreazaldegi, Iñaki Gurrutxaga, Iñigo Izagirre... asmoa xinplea zen: bertso eskoletatik bertsotan egiten zekien jende pila ateratzen zen, baina sariketez aparte plaza gutxi genituen. Antolatzaileei eskaintza egitea erabaki genuen, gure burua talde bezala ezagutzera ematea (gure izenak ez zituzten ikasiko baina "11 Bertute" bai), telefono baten atzean eskuragarri egotea. Zer eskaintza egin? bada kantatzea beste pretentsiorik ez genuenez, eskerrik askoren truke kantatzeko prest geundela. 25 euro kobratzen genuen saioko (gasolinarako) eta horietatik 5 euro taldeko boterako ziren, saioak lotzeko telefono gastuak eta abar ordaintzeko.
[**Estitxu Eizagirre**]

Sariketak banituen, baina hortik aurrera ez nuen aurrerabide handirik ikusten. Hamaika Bertuten ikusi genuen bertsotan eta ongi pasatzen segitzeko aukera.

Hamaika Bertute bertsotan egin nahi duen bertsolari talde bat da. Antolatzaileek batzuetan beharra izaten dute, saioak Lanku bidez antolatzeko adina dirurik ez eta inguruan bertsolaririk ezagutzen ez dutelako. Modu antolatuan elkartu gara bertsolari talde hori eta antolatzaileek telefono bat badaukate taldearengana zuzentzeko. [**Agin Laburu**]

Hemen, harria jo eta azpitik bertsolaria ateratzen den honetan... Gure belaunaldian hori lortu da behintzat, nahiz eta txapelketan aurreregi egiteko zorterik ez eduki, jende horrek orain saioak dauzka. [**Agin Laburu**]

Gu jada dinamika bat hartuta zegoenean sartu ginen.

Nik Hamaika Bertutetik bi gauza azpimarratuko nituzke: bertsolari diferente askorekin kantatu dudala eta Hamaika Bertuten ere koadrila egin dudala. Eta lehenago saiorik egiten ez zen herri eta elkarteek orain baliabideak dituztela saioak antolatzeko. [**Unai Gaztelumendi**]

11Bertuteren bertso musikatu emanaldia, Orion. Iturria: karkara.com

Kantatu behar duenaren ikuspegitik, antolaketa oso oso egokia eta komodoa zuen. Hilero taldekide batek zuen telefonoaren eta e-mailen ardura. Antolatzaileen enkarguak jaso, eta denoi e-maila bidaltzen zigun saio haren berri emanaz. Denok erantzun behar genuen e-maila, libre nor zegoen jakiteko. Hileko arduradunak osatzen zuen taldea, eta antolatzaileekin jartzen zituen harremanetan. Niri aukera eman zidan zer boladatan gehiago eta zer boladatan gutxiago kantatu erabakitzeko. Eta baita ere saio motak aukeratzeko: adibidez, haurra eduki nuenean gutxiago kantatzen nuen eta egunez ziren saioetan. [**Estitxu Eizagirre**]

Hamaika Bertutek horretan aukera ematen dit, batzuetan saiorik hartu ez eta bestetan saio mordoa hartzeko. [**Agin Laburu**]

Esperientzia oso aberasgarria izan da, baina bazituen bere akatsak, azkenean taldea desagertzera bultza dutenak. Beti jende bera tiraka eta jende bera remolkean. Azkenean, normala den bezala, tiraka ari dena nekatu egiten da. [**Agin Laburu**]

Taldean sartu nahi zuen guztiari baiezkoa esaten zitzaion, baina inork ez bazuen berarekin kantatu nahi? Azkenerako, saio horretara zein joango zen jakin zain egoten nintzen nire izena bota, edo ez bota erabakitzeko, bestela, gozatzeko behar lukeen saio bat marroi bat bihur zitekeelako. Joan zaitez ba Somorrostrora bertsokidearekin harreman pertsonal gutxi eta bertsotan juxtu egiten duela jakinda! [**Agin Laburu**]

Hamaika Bertute proiektuak urtebete bete dau honezkero: 50 bertsolari plazarik plaza eta 170 saiotik gora izan dira Euskal Herriko hainbat txokotan. 2007ko urtarrilaren 13an sortu zan Hamaika Bertute. Egun haretan egin zan lehen Hamaika Bertute eguna Donostian. Dana dala, proiektua mamitzen urtebete lehenago hasi ziran bertsogintzan buru-belarri ebiltzan lagunak. Hogeita hamar bertsolarigaz eta bi gai-jartzailegaz hasi zan proiektua eta gaur egun 44 bertsolari eta 3 gai-jartzaile dabilz. Hasiera-hasieratik proiektua edegia izan da, eta holan izaten jarraitzen dau. Bertsotan fundamentuz egiten dauen edonork hartu leike parte proiektuan lan egiteko gogoz baldin badator.
Bertsolari eta gai-jartzaile horreek Euskal Herriko herrialde guztietakoak dira kasik. Izan be, Hamaika Bertuteko kide gehienak gipuzkoarrak eta bizkaitarrak badira be, taldean kide nafarrak, lapurtarrak eta arabarrak be badira.

Hamaika Bertute. Lehen urteurrena.

Saio barri mordoa sortu da Hamaika Bertuteri esker. Antolatzaileei kontaktu bideak erraztu egin jakez eta asko animau dira lehen aldiz bertso-saio bat antolatzera. Itxita egozan zenbait plaza be berreskuratu dira.
Mueta guztietako saioak egiteko prestutatsuna izan dogu, eta dogu orain be. Saio gehienak lagunarteko saioak izan badira be (bertso poteo, tabernetako saioak, bertso bazkari edo afariak...) bestelako plazetan ibili gara: bertso jaialdi, egun pasa, mendi urteeretako saio batzuk...

Hainbat ekimen berezitan be parte hartu dogu. Berbarako, Herri Irratian Mikel Markezek zuzentzen dauen saioan bi hilebetez astero ordu erdiko bertso saioak egin doguz (poesia gaitzat hartuz, gai orokor baten inguruan kantatuz, kantuak gaitzat hartuz, librean...). Ikastetxeetan be bertso saio pedagogikoak egin doguz. Azkenik, bitan izan gara Bartzelonan, bertako Euskal Etxearen eta euskalzaleen saioetan parte hartuz.

Kuban be kantau dogu, bertako Euskal Etxeak antolatutako bertso saio batean.

Bertsolariek alkar ezagutu izana, talde dinamika bat sortu izana eta proiektu komun baten inguruan batzea lorpen garrantzitsua izan da. Hamaika Bertute autogestinoaren bidez aurrera doan proiektua da. [**www.hamaikabertute.net**]

IRAULIO PANTTALONE BAND

HERNANIRI BURUZKO BERTSO MUSIKATUAK

Bertso-Latan, bi urte generamazkien bertso musikatuak ekartzen; lehenengo Zazpi Eskale ekarri genituen eta hurrengo urtean Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Igelaren banda aritu ziren.

Bertso-Lata osteko bileran, Maialen Lujanbiok hurrengo urtera begirako proposamena egin zuen: polita litzatekeela Hernanin hainbeste bertsolari eta musikari izanda, bertso musikatuak elkarrekin egitea. Maialenek Xabier Legarreta eta nire izenak ere aipatu zituen, biok beti eduki genuelako kanturako joera. Hordagoa bota zuen eta guk segituan heldu genion! [**Eñaut Agirre**]

Heltzeko oso pronto nengoen baina gabeziarik handiena zen hainbeste bertso sorta zeinek egingo zizkigun. Guk doinuak aukeratuko genituela eta bertso eskolako jendeak sortak egingo zizkigula, hala gelditu ginen. Lehenagotik guk bagenituen ale bat edo beste... Eguzkin juntatzen ginen, Elosegitarren etxean, eta sekulako entseguak egiten genituen. Lehenbizikoz tonuak hartzen asko kosta zitzaigun! [**Xabier Legarreta**]

Musikaritarako, lehenengo Susi Elosegirekin hitz egin genuen. Susi bera ere orduan asko ibiltzen zen bertso eskola inguruan, helduen bertso eskolarekin bere inguruko jende asko bildu zen bertso eskolara. Bera emozionatu egin zen, eta beste musikariak berak bilatuko zituela esan zigun. Ea zer instrumentu nahi genituen, eta guk sailean kristoren pila bota genizkion! [**Eñaut Agirre**]

Musikari ziren Susi bera, baxuan anaia Alberto Elosegi, akordeoia Idoia Noble, gitarra elektrikoa Pepe Otxandorena, biolinarekin Amets, saxofoiarekin Judith Montero, txalapartarekin Arkaitz Martinez eta Igor Otxoa... musikari pila izan zen lehen saio hartan. [**Eñaut Agirre**]

Hala erabaki genuen: kantatzeko eta hori dena muntatzeko ardura guk hartu dugu baina bertso sailak bertso eskolako jendeak egin! Denera 10-11 sail ziren, hauetatik hiruzpalau guk egindakoak. Denak Hernaniri buruzkoak. Gaiak guk atera genituen eta bakoitzak saila egin zuen. [**Eñaut Agirre**]

Lehenengo saio hura egun bakarrerako pentsatua zen. Bodegan izan zen, Bodega bete jende zegoen. [**Eñaut Agirre**]

Geroni ere musikariekin koadrila galanta ginen! Bertso eskola bera, bere ingurua, orduan tropa mugitzen ginen. Han kristoren anbientea sortu zen. [**Xabier Legarreta**]

Hurrengo saioa Xoxategin izan zen, Plaza Berrin. Orduan gazteek lokal bat hartu zuten eta harako deitu ziguten. Hernanin izanda, sail pare bat aldatu genituen eta gainontzekoak lehengoak kantatu genituen. [**Eñaut Agirre**]

Gero Ereñozutik deitu ziguten, festetarako. Gainera tartean Ereñozuri jarritako sail bat bazen. Han ere ustekabekoa izan zen, argirik gabe gelditu ginen. [**Xabier Legarreta**]

SEGIDA EMATEKO AI MARTIN!

Gero Lasartetik deitu ziguten. Eta Lasartera ezin joan bada erabat Hernaniko sortekin! Orduan erabaki genuen ezin zela saio horrekin segi, errepertorioa aldatu egin beharra geneukala, aurrera segiko bagenuen. Gu oso animatuak geunden orduan, hainbeste jende juntatzen ginen entseguetan! Izugarrizko entsegu pila egin genuen, oso gustura aritzen ginen musikarekin kantatzen, musikariek oso giro polita zeukaten beraien artean... pena handia ematen zuen hura bere hartan uzteak. Orduan erabaki genuen pixka bat esportagarriagoa zen ekitaldi bat preparatzea. Horrela sortu zen Ai Martin!
[**Eñaut Agirre**]

Musikariak eta ahotsak elkar ongi hartzea kosta zitzaigun gehiena eta doinuak eta ez genituen aldatu, moldaketa batzuk egin genizkien, baina batez ere aldatu zena gidoia izan zen. Hasierako emanaldian denak ziren Hernaniri buruzko bertsoak baina ez zuen gidoi handirik. Baina bigarren emanaldia jada Martinen bizitza zen, jaiotzetik hil zeneraino zer bilakaera izan zuen kontatzen zuen. [**Xabier Legarreta**]

Eskema bat behar genuen hamar bat sail kantatzeko eta egun bakarrean egin genuen. Pertsona arrunt-arrunt baten bizimodua kontatzea erabaki genuen, jende askorekin identifikatuko zena. Bizitzako hamar etapatan banatu genuen, jaiotzetik hiltzeraino. Joxe Luis Urdangarinek egin zuen gidoia. Eta floritura pixka bat eman zioten musikariek: sailetik sailera pertsonaren fase bakoitza girotzeko musika jakin batzuk bilatu zituzten, bertsotarako ez ziren oso doinu ezagunak ere bai... [**Eñaut Agirre**]

Eñaut Agirre eta Xabier Legarreta "Arano" etorri zitzaizkidan galdezka, ea lagunduko al nien funtzio berri baterako gidoia prestatzen. Bertso sorta desberdinak kateatu nahi zituzten, gero musikariekin janzteko. Gidoi bat proposatu nien, eta lehendik eginak zeuden kantu batzuk enkajatzen saiatu ginen. Gero Iraulio Panttaloneko kideei bertso paperak egiteko eskatu zitzaien, guk gaiak jarrita, gidoi horretara egokituz. Bertso sorta oso politak egin ziren eta musikariek ere kristoren lana egin zuten. Doinuak oso ondo jantzi zituzten. Horrekin funtzio berezi bat lortu zen. Orain maiz ikusten dira baina bere garaian nahiko nobedade izan zen. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Bertso jarriak kantatzen ziren, baina antzerkiaz eta musikaz lagunduta.
Eñautek eta Xabierrek arropak aldatzeko behar zuten denbora horretan nik aurkezle lana eginez saioen arteko lotura josten nuen. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Ikusi behar zuenarentzako formatu oso entretenitua zen. Gaur ez dakit ausartuko ginen baina orduan ausartu ginen eta batek baino gehiagok eskertu egin zuen, barre batzuk egiteko ere ongi etortzen zen. Joxe Luis Urdangarinek egiten zuen

lana ere azpimarratzekoa zen. Berak zuen lanik zailtxoena edo luzitzen zailena. Halako hitz jarioa du berak, askotan bat-batekoari eusten zion eta egokitu egiten zuen lekura, bordatu egiten zuen. Gu ere hazi egiten ginen bere sarrera horiekin. [**Xabier Legarreta**]

Saio batzuk memorableak izan ziren. Asko esan nahi zuen non egiten zen. Batzuk elkarte batean izan ziren afalondoan, jendez lepo eta giroa jada bero bero zela... Londresera ere joan ginen, Euskal Etxera. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Hainbeste musikari izanik, beren artean askotan ordezkoa bilatu behar izaten zuten. Orduan sartu ziren baxuan Aitor Atxega, teklatuan Eñaut Frantzesena, eta Maddi Uria akordeoiarekin. Gero Ametsek utzi egin zuen eta biolinik gabe jarraitu genuen, eta txalapartariek ere lehen emanaldia bakarrik egin zuten. Taldea pixka bat txikitu ginen, baina hala ere nahiko juntatzen ginen! Eta gero Joxe Urdangarinek eta Gorka Tolosak egiten zuten aurkezle lana, txandaka.
[**Eñaut Agirre**]

Bertso saio batera joatea kostako litzaiokeen jendeak oso ondo pasatzen zuen, askoz digeribleago egiten zitzaion formatu hori. [**Joxe Luis Urdangarin**]

Musika bere hutsean hartuta, han jotzen zenak ez zuen inorako balio. Antzerki hark ez zuen mailarik emango inorako ere. Bertso sail politak lortu genituen, garrantzia horri eman zitzaion, bertsotik abiatutako zerbait zen. Baina nahiz bi gauzetan herren egin, hirurak batean jarrita zerbait polita gelditzen zen. Jendearentzat janerraza zen eta joaten ginen tokira joanda estimatzen zuten. Beti egiten genuen sailen bat propio herri hartarako, bisa ere preparatuta izaten genuen, bat-bateko saio bat ere sartzen genuen... [**Xabier Legarreta**]

Maila altuko musikariak genituen. Asko ziren kontserbatoriotik atera berriak, puri purian zeudenak, ikaragarri pieza konplikatuak jotzen zituztenak... "Ari naizela, ari naizela" jotzea oso xinplea zen haientzako. Harrituta geratu ziren publikoan zer tiradizo zeukan ikusita. [**Eñaut Agirre**]

Emanaldi dezente egin genuen, 40 kontatu genituen. [**Eñaut Agirre**]

Guk ez genekien musika talde bat zenbat ibiltzen zen. Guk bagenekien bertsolari bat zenbat ibili zitekeen. Musikariak harrituta zeuden zenbat tokitatik deitzen zuten eta zenbat genbiltzan. Gainera berentzako musikalki ez zen sekulako lorpena eta hain gauza gutxirekin horrela ibiltzea harrigarria zitzaien. [**Xabier Legarreta**]

Gauza bera egiten bi urte pasa genituen eta pixka bat aspertu egin ginen. Beti bertso berak kantatuz eta beti txiste berak eginez eta aldiro grazia eman nahian txiste berari... bere bidea egin zuela erabaki genuen. Geroztik dei mordo bat jaso genuen baina aparkatu egin genuen. [**Eñaut Agirre**]

Egun handia da gaurkoa. Gaur gauean Mattin irten eta Martin itzuliko da goizaldera.

Doinua: "Habanera".

1

(Narratzaileak)
Zazpi bixarren jaiotza,
zazpi jostunen haria
feromona leherketa,
ormonen asekabia
gauerdiz beti izerdiz
bustitako maindiria.
Bigarren txupete aroa
venus engainalaria
kabituezina lotsatan
itto zeneko aldia,
beti gauz bera buruan:
tentaldi pekataria!
pasioz ta kalbarioz
senaren gurutzbidia
hori ta askoz gehio da
lehendabiziko ligia.

2

("Narratzailea", Martin eta neska)
"Taberna ilun bateko
komunan deskantsiluan...":
– Hurrena zu? –Bai, ni nua...
– eske...–Ba aurretik juan.
– ze ote du neskatxa honek?
– hau're orain behar nuan!
– bale, aio!– Ez horreatik!
(datorrela hurrenguan!)
– Joe! Ze tipo jatorra!
– Joe! Ze ona zeguan!
– E! Epa.. ka... kaixo... zea...
– kalimotxo bat orduan!
(gaur bai, gaur bai, ligatzen det!)
– ezetz guztia traguan!
– ez, ez, pixkanaka hobe da...
– zaude, geroko esperuan!

3

– Zure anaia ezagutzen det...
– Ze nazka entzun hutsian!
– Balontzeston zabiltz, ezta?
– Baina denbora gutxian...
– Maikel Jordan gustatzen zait...
– Nei Sarasua motxian.
– Zer dezu gustokoena?
– "Fauna txiki bat" kotxian
– Zer moduz istitutuan?
– Gorri gaurkuan antxian
– Ta zer, aitak bronka asko?
– Bai, beti malaletxian
– Ze orduk arte uzten dizu?
– Hamabik laurden gutxian
– Punttu punttun jungo gera...
– Lasai, gaur ez daude etxian!

4

– Txoin, komunera nijua...
(etxian apenas dakan...)
– Zeren bila ote dijua?
– kabituko al zait galtzatan?
bi bihotz larru gorritan...
bakoitza amets banatan:
– Jo! ze ondo pasa nuen
– ilargipeko gau hartan...
– Berak jarri zepua ta...
– Bera erori zen tranpan!
– Dena zen goxotasuna...
– Filmetako eszenatan!
"bi gorputz harnas estuka
ta behatz bat ttipi ttapan"
– "Maite zaitut" esan zidan...
– Gezur hobe baten faltan!

[Jexux Mari Irazu]

Gaur eman diote Martini bere karrerako tituloa. Bilboko uraren apar artean nor ezagutuko, eta andrea. Gure Martin gaur Gugenheimaren aurrean deklaratu zaio. Zorionekoa, gizonak behar duen guztiaren jabe zaitugu: emazte xarmangarria, Hernaniko Latxunbe auzoan pisu eder bat, ITV pasatzeko lanak dituen autoa, eta nola ez, prestamo hipotekarioaren hileroko kuota.

Doinua: Naufragoarena.

1
Estudiante bolada hura
pasatu zen ta lan bat eskura
biharra neukan ezin jarraitu
beti amaren kontura
bizitzaren abentura
tren karrilian sartu da
normaltasuna helmuga
neska batekin ere hasi naiz
ta biok guaz pisura
gizonak gizon izatekotan
zer besterik behar du ba?

2
Adosatu bat zein egokia
ehun ta hogeita lau zenbakia
ladrilu gorriz atze ta aurre
bi jardini atxikia.
Diruaren aitzikia
beruan erabakia
erosi eta pakia!
orain guria balitz bezela
gozatzen degun tokia
gure kabia, gure zuloa
gure kartzela txikia.

[Maialen Lujanbio]

3
Berrogeita hamar urte luzean
bankua bete ta gu hutsean
bestentzat diren txanponak doaz
neke tanta bakoitzean
nahiz ta jeiki goiz antzean
ta itzuli iluntzean
asteburua heltzean
igande pasa egingo degu
telebistaren ertzean
zein zoriontsu izango geran
Laboralaren etxean.

4
Larogehi metro ditu errenkan
metroko kilo erdi zorretan
pasilotxo bat, bi gela txiki
eta komun bana bertan
bi famili bi aldetan
berrehun etxe bueltan bueltan
paperezko paretetan
nahiz dena entzun, nahiz ta amakak
ez kabitu jardinetan
gainian inor ez izatea
asko da mundu honetan!

Andrea eta zu propio deskuidatu zineten gau ero hark eman du fruitua. Baina Aitor semea jaio da eta etxean gauzak aldatzen hasi dira. Andrearen jarrera ez da lehengo bera eta Martin baztertua sentitzen da, jeloskor jartzen hasia da. Bere etxeko nagusitasuna arriskuan ikusten du baina ez du tronoa hain erraz utziko.

Doinua: "Xagutxo batzuekin".

1
Zortzi hilabete ta
hogeita bost egun
pasata izan ginen
guraso zortedun
altxor txiki bat omen
dira baina, segun.
Guk lau hilabetera
konprobatu gendun
sei kiloko haur batek
zenbat pisatzen dun.

2
Mailarik gorenera
belaxe zen io
amaren poxpolina
amaren jenio
nahiz azkar izendatu
zun patrimonio
gaitzerdi bilakatzen
utzi ez banio
gure aingeruari
nere demonio.

3
Bularra ta papila
ta mila istori
aitari "tati tati"
haurrai "tori tori"
aita plako plako ta
haurra lodi lodi
"jeje!" egiten al dek?
mutur zikin hori?
Ez zaigu bizi bera
tokatu biori.

4
Inbiriak harturik
nenbilen batetan
bakarrik harrapatu
nun sehaska bueltan
lepotik heldu eta
hilko nuen bertan,
baina ama sartu zen
momentu horretan:
"gure ninitxoakin
nabil jostaketan".

5
Nerekin baino nahio
haurrarekin etzan!
Hura emaztea ez,
beste zeozer zan!
Behin planteatu nion
erabaki zezan:
"semia edo aita
aukeratu ezan!"
nonbait ez nion modu
onenean esan...

[**Eñaut Agirre**]

Andreak etxetik bidali eta sarraila aldatzen ikusi zenuenean larritzen hasi zinen. Zureak egin du, Martin. Galdu dituzu andrea eta semea. Orain etxeko atean zaudete andrea, umea eta hirurak.

Doinua: Ai, Martin.

(Martin, andrea, "semea")

1
Gogoan daukat etxera
itzuli nintzen gau hura
esku bat tinbrean eta
burua atez barrura
berak ez dakit nigatik,
nik beragatik lilura
bihotza iriki zazu
zure senarra heldu da

Ai, Martin! Bizi zinen nerekin
ez dezu ba egon nahiko nere semiarekin!

2
– Andrea, barka zaidazu
laister erotzera nua
– Mesede egin diguzu
alferrik dezu damua
– "Ama, zein da gure etxeko
atarian dagon hua"!
– Nik kontatzen dizkizudan
ipuinetako mamua

Zurekin, pozik bizi zen Martin
erruki behar zenuke maite zaituztenekin

[Xabier Legarreta eta Eñaut Agirre]

3
– Garaizko damua beti
baliozko damu omen
zu gabeko bizitza hau
bilakatu zait eromen
gogora zazu ni nintzen
gizonetatik gizonen...
– Gogoratzen dudalako
gaude zu hor ta ni hemen.

"Ai, ama! zein da etorri dana?
ez genioke utzi behar inguratzen gugana"!

4
– Lehenago're muzin egin
diet hainbat gizontxori
ez naiz sekulan bi aldiz
zulo berian erori
– "Ama jope! ama zein da
atean dagoen hori?"
– Emaiozu muxu eta
esan agur aitatxori .

– Laztana, aita da etorri dana
Aita da etorri dana ta aita da dijuana!

Lur jota dago Martin. Amaren etxea aurkitu du baina galdu du iparra. Bere burua martirizatzeko, egunero 8 orduz ibiliko da Hernaniko kalbario batetik bestera. Riojanotan hasi eta Juxtora, Juxton hasi eta Riojanotara...

Doinua: Leteren "Langile baten semea naiz ni...".

1
Lagunak beti ibiltzen ginen
parrandan festetan
horrela segi nahi genun arren
berrogei urtetan
hasi ez banintz nesketan
gaur ez nengoke kezketan
goiari eutsiz behera jaitsi
ezin da benetan.

2
Sekula ere ez naiz izandu
oso ederra baina
zahartu zaizkit lepo azpia
eta lepo gaina
lehen burun raia apaina
ta orain ileak aina
gure etxean ere egin du
denborak azaina.

3
Kolonia pranko boteagatik
kolko ta buruan
neska gazterik ez da agertzen
nire inguruan
datorrena deskuiduan
etorri orduko juan
ez dut ulertzen nire aurpegiak
zer arraio duan.

4
Aste egunez ni izaten naiz
kaleko errege
territorio denak markatuz
bada ezpada're
ardo berezia lege
lau hankatan ere trebe
tabernariei nork egin die
nik aina mesede?

5
Mendian libre doan zezena
izan nahi zuena
hidian gisan nabil etxeko
ukuilun barrena
egun erdiz lo aurrena
txikiteora hurrena
Mariajexux atera zazu
hamaseigarrena.

[Joxe Luix Urdangarin]

BERTSO ANTZERKIAK

Hernaniko bertso eskolak zenbait antzerki egin ditu. Eta denek zeukaten arrazoi bera: Bertso-Latako egun batean emanaldi berezia izaten dela. Normalean bertso antzerki bat.

Aurrenekoa Aralar taberna aurreko plazan dauden leihoak aprobetxatuta egin genuen. Bikote baten adar kontuak ziren tartean.

Bigarrena, Iraulio (Unai Agirre) eta Iraulia (Joxe Urdangarin) erosketetara joan zirenekoa, Pizarro astoarekin dendaz denda. Elurra egin zigun.

Hirugarrena Irizarren egin genuen, harri jasotzeko desafioarena.

Horietako antzerki batekin emanaldi batzuek egin genituen, dozena erdi bat edo: Gabirian, Lasarten Zabaleta auzoan, Zubietan, Ereñozun, Orexan...

Beste antzerki bat Idiazabalen eta Elduaienen ere eman genuen.

Afari truke joaten ginen, festa zen guretzat. [**Gorka Tolosa**]

Antzerkietako bat babes ofizialeko etxebizitzen inguruko parodia izan zen, obrako lan baldintzekin eta zozketetan egon daitezkeen tranpekin... Lehenengotako saioa Gabirian egin genuen eta ederra izan zen, aldamioko tabloira salto egin eta puskatu zenean. Ia ia benetako lan-istripua izan genuen! [**Gorka Tolosa**]

Idiazabalerako zerbait bereziki bertakoa egitea eskatu ziguten. Idiazabalgo gaztaren eguna zen, eta Aritz Zerainek eta Unai Agirrek gidoi bat egin zuten eta denoi emailez bidali ziguten. Batzuk artzain eta beste batzuk sukaldari joan ginen, bakarren bat ardiz mozorrotu zen... [**Gorka Tolosa**]

Bertso eskolako bakoitzak genuen funtzio bat. Antzerkian biziagoa zenak gehixeago antzezten zuen, beste bat bertsotan hobeto moldatzen bazen gehiago kantatzen zuen, kantatzen oso deseroso sentitzen zenak bertso bat edo bi kantatzen zituen, beste batek jarritakoak... ederra zen, inork agindu gabe sortzen zen egitura bat, non bakoitza eroso sentitzen zen zeukan lanarekin. Hori ere bada bertso eskola, bakoitza bere lanean eroso sentitzea. [**Gorka Tolosa**]

Jata afaloste batean egiten genuen gidoia. Gazta jaten hasi eta orujoa bitarte horretan antzerkia osatzen genuen. [**Gorka Tolosa**]

Eizmendi sagardotegia zenean funtzio oso berezi bat egin genuen. Bertso saio baten parodia. Erdi mozorrotuz, han ere tokatu zitzaidan erdi aurkezle aritzea. Bertsozale Elkarteko Batzarra zen eta guk imitatzen genituen guztiak aurrean ziren. Festa ikaragarria izan zen. Eta inoiz jendeak sinistu ez badigu ere, gehiena bertan inprobisatzea tokatu zitzaigun. Hitzetik Hortzeran ere saioa oso-osorik bota zuten. [**Joxe Luis Urdangarin**]

ORNITORRINKUS

Ornitorrinkus: Maialen Lujanbio, Judith Montero eta Xabier Erkiziak 2009an Venezian eginiko emanaldia.
Argazkia: Asier Gogortza. Iturria: http://www.flickr.com

Bestelako giro eta beste jende batengana iristeko modua egin nahi nuen eta bertsoarekin ere bestelako gauzak egiten saiatu. Ornitorrinkus ez da bertso zirkuituan ibiltzeko gauza bat, behar bada hor ere bai baina oso leku jakinetan.

Bertsoaren logika beste bat da; halako lekutatik deitzen dizute, gaiak jarri egiten dizkizute, zu erantzuten ari zara eta erantzunetan dago zure mundu bat. Baina hau izan da galdera ere neronek egitea.

Artearen munduarekin, musikaren eta soinuaren munduarekin kontaktuan jartzea niretzat esparru berria izan da. Sorpresa hartu dut hor bertsoak zer leku izan dezakeen ikusita. Bertsoa lehengai hartuta zenbat bide eta zirrikitu egon daitezkeen. Bertsoak suerte hori dauka, oraindik bide pila dauzkala ibiltzeko eta probatzeko. Hau horietako bat da.

Askoz gauza esperimentalagoa, libreagoa izan da. Bertso ibilbidean rol batetik atera eta beste tonu batzuk bilatzen aritu nintzen, eta hau izan zen hurrengo pausoa; beste eremu batzuetara, beste tonu batzuetara pasatzea.

Emanaldiak egin genituen eta CD liburuxka bat atera ere bai. [**Maialen Lujanbio**]

Bertsoa eta musika garaikidea elkarrizketan

Obra: Ornitorrinkus
Saxofoia: Judith Montero
Hitzak eta bertsoak: Maialen Lujanbio
Musika elektronikoa: Xabier Erkizia
Argiztapen eta eszena zuzendaritza: Miguel Galindo
Atrezzorako eskultura: Juan Gorriti
Jantziak: Ixiar Zugasti
Lekua eta eguna: Hernaniko (Gipuzkoa) Leoka labaderoa, ekainaren 9an, 22:30ean. Euria bada, ekainaren 10ean, ordu berean.

"*Ornythorhyncus paradoxus*: Baldin eta sailka ezina, orduan sailka ezin bezala sailkatua". Ereduetatik kanpoko izaerak eta izan ezinak lantzen ditu emanaldi esperimental honek. Eguneroko bizitza "normalean", "garrantzitsuan", prentsan, ikusezinak diren gaiak ere bai. Esperimentazio bakoitza izango da bakarra, eta bigarren emanaldi hau Leoka labaderoan egingo dute. Justu herri zentrotik kanpoko uretan, plazaren garrantzia eman ez zaion emakumeen bilgunean, jende arruntaren kontuak jotzen ziren harrietan.

Musika garaikideak (saxofoi sopranoa, altua, tenorra eta baritonoa) eta bertsoak (formarik zabalenean, hitzetik beretik abiatuta) bat eginik hizkuntza propioa osatu dute. Musika garaikidean eta bertsotan, bietan arakatu eta urratu du Ornitorrinkusek bidea, eta bi generoen arteko elkarrizketa sortu. Ez dira, beste emanaldi askotan bezala, bata nagusi eta bestea laguntzaile, ez bi petatxoren batura, ez elkar jaten duten zipriztinak. Ornitorrinkusak espezieen topikoak nola, musika garaikideak eta bertsoak ere euren topikoak hautsi dituzte: Musika garaikidearen ustezko ulertezinkeria eta bertsoaren ustezko tradizionalkeria.

Iazko abenduan, Hernaniko Bertso-Lata astearen barruan egin zen lehen esperimentazioa. Ornitorrinko bat zen publikoa bera, sekula areto berean batu ez ziren ezaugarriz osatua: musika garaikideko artistak, bertso mundukoak eta zerbait desberdina entzun nahi zuen kaleko jendea. Barruak mugituta irten ziren aretotik: artistikoki hunkituta asko, eta gehienak, oso barruko kontuak adierazita ikus-entzun zituztelako. Musikak eta hitzak iradokitako sentsazioen esperientzia hartan, dena ulertzeko pretentsioari momentu hura bizitzeak gain hartu zion. Bizitzan eta zure barruan ezer mugitzeak edo planteatze hutsak beldurtzen bazaitu, ez zaitu erakarriko emanaldiak. Emanaldi ausartari publiko ausarta zor zaio.

[**Estitxu Eizagirre Kerejeta**, Argia, 2007ko ekainaren 3a]

INAXITO

Galtza gorriei to! Inaxito!
Emanaldiko eszena bat.
Gorka Tolosa eta
Xabier Sukia aktore.

Iturria: karkara.com

Proiektu hura sortu nuen, bertsolaritzarekin neukan nolabaiteko hutsunea betetzeko. Aukera ematen zidan askoz gusturago sentitzen nintzen diziplina batekin, antzerkiarekin, bertsora iristekoa, nahiz eta ez hain bat-batekoa izan.

Bestetik egundoko hutsunea ikusten nuen umeentzako bertso eskaintzan. Orduan apenas egiten zen umeei begirako saiorik. Gogoratzen nuen ume nintzela bertso saiotara joan eta egundoko aspertua hartzen nuela.

Zaila zen leku erdaldunetara bertsoa iristea eta modu honetan lortu genuen bertsolaritza toki desberdinetan zabaltzea. Gaur da eguna hori esateko harro nagoena. Tokatu zaigu Santurtzi edo Tafallara joan eta hurrengo urtean umeek aurreko urteko azken kopletako estribilloa kantatzea. Ume horiek kopla bat ikasi dute eta badakite zer den. Bertsolaritza gerturatzeko modu txiki bat da.

Lehenengoa "Inaxitoren ametsak" izan zen, bigarrena "Bat, bi, hiru Inaxito" eta hirugarrena "Galtzagorriei to, Inaxito". Hiru hauek Trikuharri taldearekin egin ditugu: Xabier Sukia, Ibai Esoain eta hirurok osatzen dugu taldea. Hiru emanaldietako gidoiak gureak dira, eta bakoitzean pertsona batek lagundu digu: lehenengoan Joxe Luis Urdangarinek, bigarrengoan Maialen Lujanbiok eta hirugarrengoan Alaitz Olaizola antzerki idazleak.

Lehenengo antzerkian ez genuen hain definitua, baina hurrengoetan saiatu gara antzerki bakoitzarekin umeei balore bat transmititzen: bigarren antzerkian sormena lantzen genuen jolas baten bidez eta hirugarrenean euskal mitologia eta heriotza modu positibotik: Inaxito da aitona bati hiltzen laguntzen diona, eta heriotza da aitona horrek gehien desio duena.

Guztira 200 emanalditik gora egin ditugu sei urtean. Urte batzuk izan ziren umeen merkatua puri purian jarri zena, eta antzerki munduko jende asko umeentzako antzerkiak egitera pasa zen. Gurea "bertso" izen horregatik asko saldu zen, baina nik uste antzerkiari beste ekarpen bat egin diogula, freskotasunean. Gidoi baten gainean lan egiten dugu baina askatasunez, ez hain lotuta. Kontuan hartzen dugu testuingurua, plaza ireki eta itxitan aritzen gara eta tope inprobisatzen dugu.

Bide bat ireki dugu, bertsoa eta antzerkia uztartuz.

[**Gorka Tolosa**]

BERTSOA.COM

Bertsoa.com-ek Interneteko Argia Saria irabazi zuen 2012an.
Argazkia: Dani Blanco.
Iturria: argia.com

Bertsoa.com-en asmoa bazen komunikazio proiektu bat izatea, bertsoaren zabalkunderako internetek aukera handiak ematen dituelako, espazio handiko eremua delako, eta beste medioekin konparatuta ez daukalako denboran eta espazioan mugarik. Baina informazioaren ikuspegitik begiratuta, dibertsifikazioaren beharra sumatzen nuen. Informazioa lehen ere asko zegoen, baina bati ematen zaio bultzada eta beste askori ez. Nik hor desoreka handia ikusten nuen. **[Jexux Mari Irazu]**

Proiektua gorputza hartzen joan da, urtean 200 saio biltzen dira orain, bi kamarekin eta ekipamendu tekniko sendoarekin. Gaur egun bertsolaritzari buruz eduki informatibo eta bertso eduki gehien biltzen eta zabaltzen duen medioa da. Eta zuzenekotasuna izan zen nobedadea (astero saio bat ematen da zuzenean). **[Jexux Mari Irazu]**

Denbora bat egin nuen grabatzen eta gero sagardotegi bolada zela eta utzi behar izan nuen. Gustura aritu nintzen baina gogorra egin zitzaidan. Ez naiz bertso gaixo horietakoa eta momentu bat iritsi zen hainbeste saiorekin saturatu nintzena. **[Agin Laburu]**

Bertsoa.com-en ari naiz lanean. Bertsoa.com-ek hasi zuen lehen aldiz bertsoen eta albisteen eguneroko jarraipena. Mugimendu handia dago bertsoaren inguruan, lan asko egiten da eta merezi du oihartzuna ematea. **[Beñat Gaztelumendi]**

Etorkizuna, baliabideen araberakoa izango du, baina jendea sartzen da, gero eta produktu txukunagoa eskaintzen da, eta aurrera begira lanean ari gara sinergiak biltzeko eta Bertsozale Elkartearekin proiektu bakar batean biltzeko. Zenbat eta indar gehiago bildu produktuak irabazi egingo du, dudarik gabe. **[Jexux Mari Irazu]**

2001EKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Hernaniko bertso eskolako parte-hartzaileak Andoni Egaña txapeldunarekin.

Sebastian Lizasok ez parte hartzea erabaki zuen.

1993ko finalistak: Iñaki Muruak eta Jokin Sorozabalek eman zuten izena. Aukera baliatu ez zutenak: Xabier Amuriza, Jon Enbeita, Imanol Lazkano, Jon Lopategi, Anjel Mari Peñagarikano, Eguzkitze eta Jon Sarasua.

[bertsolaritzaren datu basea / Bertsozale Elkartea]

SAILKAPENA	
1. Andoni Egaña	(1.922)
2. Maialen Lujanbio	(1.906,5)
3. Aitor Mendiluze	(1.274,5)
4. Jon Maia	(1.257,5)
5. Sustrai Colina	(1.256,5)
6. Unai Iturriaga	(1.252)
7. Igor Elortza	(1.235,5)
8. Jexux Mari Irazu	(1.222)

BERTSO ESKOLAKOAK SAILKAPENEAN

Finala

- Maialen Lujanbio: Txapeldun ordea
- Aitor Mendiluze: Hirugarren
- Jexux Mari Irazu: Zortzigarren

Finalaurreak

- Unai Agirre
- Jokin Sorozabal

Final laurdenak

- Aritz Zerain
- Iñaki Zelaia

Amurrioko frontoi hotz hartan geratu ziren ilusio denak, eskerrak nire aurretik juxtu juxtu sailkatu zena Unai Agirre zela.

[**Iñaki Zelaia**]

Euskal Herri mailan ez ginen ezagunak. Nik uste dut jendeak esan zuela "ostras, honek ere maila horretan bertsotan egiten bazekik!". Baina badakit akatsak egin nituela. Lehen aldiz Markinako finalaurrekoan sentitu nuen "bai, jada maila honetan kantatu dezakezu", saio hura jada kontrolatu egin nuen. [**Unai Agirre**]

Txapelketara doazen denek jokatzen dute, galdu edo irabazi ez da igual, nahiz galtzeko edo irabazteko gehiago izan. Baina 1997koan dena korrontearen alde zen bezala, 2001ekoan lehengoa demostratu behar genuen gutxienez, eta koska bat aurrera egin. Eta gainera, ongi eginda ere okerrago geratzeko arriskua genuen. [**Jexux Mari Irazu**]

Finalean gauza batzuk txukun egin nituen, eta bazkalondoan berriz, lo hartzen nuen eta hamarreko txikiko saioan ezin bertsoa bukatu aritu nintzen. Burua blokeatuta ere eduki nuen. Bakarka eta beste gauza batzuetan, nire ikuspegirako gauza politak egin nituen. Baina txapelketak barkatzen ez duena da momentu batzuetan erortzea. [**Jexux Mari Irazu**]

Belodromo mitikoan kantatzea pentsa zer izan zen. Hirugarren egin nuen, Txapelketa Nagusian orain arte egin dudan posturik onena, eta aldiz sentsazioa dut ez nuela gogoratzeko moduko ezer utzi. Bertso onak akaso izango ziren, zerbaitegatik egingo nuen hirugarren, baina inor ez da gogoratuko nik han zer kantatu nuen. Finaletan, irabazten saiatzeaz gain, jendearen gogoan zerbait utzi behar da. Badaude bertso batzuk onak, Maialen Lujanbiorekin hasieran egindako saiokoak, baina horiek forofoek bakarrik gogoratuko dituzte, publiko kolektiboaren memorian ezer ez utzi izanaren sentsazio gazi -gozo hori dut. Pena hori geratuko zait, ez nuela bertso brillanterik bota. [**Aitor Mendiluze**]

Nire ibilbideko gailurretako bat da.

Emozioak, tentsioa, Belodromoan jende guztia txaloka... testuinguru horretan ondo ateratzen bazaizu egin nahi duzuna, kristoren satisfazioa da. Bertsoak nahi duzun ildotik egiten badituzu, nahi duzun moduan, kristorena da. Kontrakoa ere probatu dugu... sentsazio oso potenteak dira alde guztietara.

[**Maialen Lujanbio**]

Oso kontzentratuta egon nintzen egun horretan eta tentsioa eta nekea oroitzen ditut. Baina tentsio ona. Goizean goizetik oso zentratuta nengoen eta buruan kristoren presioa neukan, belozidadea denbora guztian, ezer ez eskapatzeko. [**Maialen Lujanbio**]

Buruz burukoa ondo atera zen, eta batzuetan ezustean poto bat egiten duzun bezala, nik suertea eduki nuen. Errimak ahazten zitzaizkidan, eta azkeneko momentuan etortzen zitzaidana hobea zen! Horrelako irristada batzuk egin nituen eta sekulako suertea eduki nuen, bertsoa mejoratu egin zidaten.

[**Maialen Lujanbio**]

Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio, buruz-buru.

Ikara, irabazteko ikara nuen. Ez nuen irabazi nahi. Ez nengoen preparatuta, ez mentalizatuta. Belodromo osoa gainera eroriko zitzaidan. Ez nuen disfrutatuko. "Txapelduna... Andoni" esan zutenean kristoren lasaitasuna sentitu nuen. Orain-dik gaztetxoak ginen, aurreikusita zegoen Andonik irabazi "behar" zuela. Gogoratzen naiz Jexux Mari Irazuk nola esaten zidan "estu hartu behar duzu Andoni, estu hartu!" eta nik esaten nion "ez, ez, hau ez da gure txapelketa, gure txapelketa hurrengoa da". Niretzako prozesuz hala zen, eta 2001ekoa goizegi topo egitea izan zen. [**Maialen Lujanbio**]

2001ean bigarren egin eta gero publikoki beste "errekonozimendutxo" bat neukan, eta bestelako proposamen batzuk iristen hasi zitzaizkidan. Kristoren oihartzuna izan zuen, eta hango sentsazioak berdintzea oso zaila da, ondorengo txa-pelketei itzal egin die. [**Maialen Lujanbio**]

Azaroaren 4a, Elorrio

Zu, Aritz Zerain, urduritasunez beteta, gidatzeko karneta ateratzeko azterketa egiten ari zara. Kale estu baten gora zoaze-la, Igor Muniategi aitona tirriki-tarraka zebrabidea gurutzatzen hasi zaizu.

A. Zerain:
Karneta ateratzeak
zailtasuna dauka;
aspaldi hasi nuen
horretan burruka.
Aitonari ari naiz
kotxetik ijuka;
nahiago nuke honen
patxada baneuka!

I. Muniategi:
Patxadaz nago orain
neroni hizketan;
abantaila ederra
dugu hau benetan;
zeroa ziur duzu
azterketa honetan;
preferentzia neuk dut
zebrabideetan.

A. Zerain:
Gainera haundienak
berak esateko!
Gertatu daitezke gaur
zuretzat kalteko.
Hori ez dakidanik
ez duzu usteko.
Baina pasatzeko bai,
ez geldi egoteko.

I. Muniategi:
Zapaldu ta zapaldu,
ekin eta ekin...
buruan zer edo zer
baleuka behinepin!
Zapaltzen banauzu zuk
behar duzu jakin:
buruan joko zaitut
makuluarekin.

A. Zerain:
Makulu eta guzti
paretik ez kentzen!
Oraintxe ari zaigu
burua zuzentzen.
Baina honen kasurik
nik ez det ulertzen;
testetan ez da inoiz
aitonik agertzen!

I. Muniategi:
Neure bidean noa
pozik lasai-lasai,
ta pasatu nahiean
hau hementxe dut zai.
Esplikaziotxo bat
dizut nik eman nahi:
testetan agian ez,
baina kalean bai.

A. Zerain:
Dirudinez hori da
kaletako moda.
Beno, aitona da ta
ez det nahi aztora.
Lagun gisan hartzea
ona izango da;
igo kotxera eta
goazen pasiora.

I. Muniategi:
Azterketa kontua
ahaztu zaio jada;
pasio kontuekin
hona eta hara.
Ideia nahiko ona
dugu beharbada;
karneta duzunean
biok joango gara.

Kartzelako gaia: Pailazoa zara. Urte guztiko lanaren ondoren, oporrak hartzeko garaia heldu zaizu. Zure oporraldia lurralde txiro bateko haurrekin pasatzea erabaki duzu.

Unai Agirre:

Oporrak hartu ditudanean
hasi da nere azaña;
urte osoan zirko batean
lan eginaren ordaina.
Afganistana joan nahi nuke,
hori lurralde bikaina!
Saiatu naiz, alajaina! (bis)
Hemengo umeei parre eragiten
gauza zaila degu baina,
irripar batek balioko du
hango guztienak aina. (bis)

Erdi gordean muga pasatu
ta etorri naiz propio;
taliban batek bilatu ezkero
banuke mila sesio!
Sudur gorria, zapata haundiak
ta hainbeste ilusio...
Ume txikiak sozio; (bis)
esaten diet "gure lurretaz
zuek ez zaitezte fio";
hango jendeak pozari ere
prezioa jartzen dio. (bis)

Zuek negarrez ikusi ezkero
banuke nahiko frakaso,
baina ahaleginak ondorio bat
ekarriko dit akaso.
Bizitza oso luzea dezute
ta animo hoiek jaso;
pozik eta gozo-gozo. (bis)
Zuen lurrean ibili beharra
arriskutsua zait oso;
nere buruan pentsatu banu
ordea ez nintzen pailazo. (bis)

Aritz Zerain:

Pailazoa nun aitona eta
pailazoa aita zena,
eta nola ez nik ere hartu
pailazoaren izena!
Irriparren bat sortzea da guk
jasoa degun ordena,
eta horretan jarri ohi det nik
indarra eta kemena.
Hemen irrika utzia det ja
nik Euskal Herri gehiena;
orain urruti hartu behar det
nunbait nere atsedena.

Afganistango paraje hori
ez litzateke hain txarra,
nagusi baita han gerratea,
nagusi bonben indarra.
Haurrak dabiltza hara ta hona
gurasoekin tirri-tarra,
eta bertatik ikusi nahi det
hain egoera zakarra.
Eta gainera neronek ere
daukat probatu beharra
nola lortzen dan benetan behar dun
umearen irriparra.

Herri honetan badet ospea,
hemen badaukat nik sona;
irrati eta telebistetan
hainbat alditan egona.
Baina Afganistan aldean orain
dagona ez da gero broma!
Norbaitek junda egin behar du
horrelako lan sakona;
eta noizbait'e lortuko banu
haurtxo baten zoriona,
betiko hantxe geratuko da
pailazoa ta gizona.

Azaroaren 17a, Etxarri-Aranatz

Jubilatu zinenetik maiz joaten zara mendira bakarrik, nahiz zure seme-alabek, beste norbaitekin joatea hobe dela esan. Gaur, maldan gora zoazela, ondoezak jota lurrera erori zara. Hiru bertso nahi duzun neurri eta doinuan.

Doinua: Haizea dator ifarraldetik.

Maialen Lujanbio:

Hirurogeita hiru urtekin
lanpostutik erretira
egin nuen, ta orain goizero
abiatzen naiz mendira;
maiz pentsatzen det "nere lagunak
animatuko balira!",
baina alferrak izaki eta
bakarrik joango naiz, tira.
Aldapan gora asnas estua,
ezin ikus urrutira;
inor ez daukat aldamenean,
inor ez nitaz kupira;
erdi etzanda mareatuta
laguntza eskean di-da:
"Etorri bila, etorri bila",
baina beranduegi da.

Hanka meharrak eta adina
nere kontra, nere etsai;
nik nahi nuena aldapa hontan
abitu ta gora jarrai.
Erori egin naiz, baina gaitzerdi,
bihotzak taupaka darrai;
eta gizon bat hor inguruan,
salbazioa leike, ai!
Besoak altxa ta oihu egin det
"hemen etzanda nago, bai!";
ez dakit asko iraungo dudan,
nago izerdi hotzez blai;
"etorri zaite ni laguntzera,
hementxe nago zure zai",
baina gizonak ez nau ikusten
edo ez nau ikusi nahi.

Malkar batean, noraezean,
hemen nago parregarri;
une batean elkartu zaizkit
heriotz eta jatorri;
ezin naiz jeki, ezin oihu egin,
ezin dut etxera korri;
"nere arnasa geratuko da...",
hemen estu eta larri.
Seme-alabek neri errita
ein izan didate sarri,
ta orain negar egingo dute
ta arrazoi eman elkarri.
Nik adio bat esaten diet
ta zuek hona etorri;
beti hainbeste maite nituen
arrosa gorriak jarri.

Abendua 16a, Donostiako Belodromoan, finala

Hasierako agurra:

Doinua: Iparragirre abila dela.

Jexux Mari Irazu:

Saioa umorez hasi nahi nuke,
lagunei adarra juaz:
Egaña igual etorriko zan
txapelerako asmuaz;
Lizaso eta biak,
bertso torre bikiak,
beren ke ta beren suaz...
bat bere kaxa erori da-ta
bestearen bila guaz.

Kartzelako Gaia: Aturritik Ebrora herri bat badela Belodromoa izan liteke lekuko. Urte asko daramatzazu zuk nahi baino tristura gehiago ikusiz. Zure ondorengoentzat beste zerbait nahi zenuke.

Doinua: Habanera.

Jexux Mari Irazu:

Aturritikan Ebrora
mendetako ibilera,
joan daneko aspaldian
ez ote doa gainbehera?
Buruak ez du ematen,
bihotzak berriz minbera,
bidea baitijoa hor
bakar batzun arabera;
kolpeka bakarrik goaz,
baina norantza gainera?
Irriparrerik ez dago,
sufrimentua sobera.
Herri bat omen gera bai,
baina ezin egin aurrera,
lau urtean behin bakarrik
elkartzen baldin bagera.

Ekintzarikan ez dago,
hitz politak mingainean;
geroari guk zer utzi
hor ari gera lanean.
Ezer geldituko ote
saiatzean ordainean?
Bertsoak elkartzen gaitu,
elkartzen gaitu sailean.
Herri hau Belodromoa
bere zentzu gordinean,
txirrindularitza pista
hor daukagu eskinean,
Euskal Herria horixe
baitegu azken finean;
buelta ta buelta gabiltza,
baina irten ezinean.

Gerorako nahi det herri
bat ederra ta anitza,
sinbolo ez du zertan izan
betiko bertsolaritza.
Atertu behar hortako
alde bietako ekaitza,
geldi beharko hortarako
hainbeste eraso bortitza.
Zein ote irtenbidea
ta zeinek ote du giltza?
Denek berea jarri nahi,
denek daukate baldintza.
Kontua hala omen da:
erabakia ta hitza;
hau konponduta zegoen
hori bakarrik balitza!

Zuek nortasun agiri edo identifikazio kartak zarete. Aitor Mendiluze, ENA edo Euskal Nortasun Agiria zara, eta Maialen Lujanbio, Espainiako nortasun agiria. Biok zaudete pertsona beraren karteran.

A. Mendiluze:
Gaur bi agirik topo egin degu,
baina zer demontre da hau?
Bistakoa da: bere buruan
aurretik eginak dirau.
Nahi ez duela heldu zaizkio
hainbat lege, hainbat arau;
zu jarrarazi egin zaituzte
eta ni berak jarri nau.

M. Lujanbio:
Baina bidea nik libre daukat
ta zuk bete-bete trabaz;
ni gazteleraz inprimatua
eta zu berriz euskaraz.
Gure jabea beti dabil zu
beste baterako lagaz,
argazkia ere muituta dezu
izango zuen dardaraz!

A. Mendiluze:
Biak batera zeuzkan ordea
dardara eta zentzuna.
Ni egitea izan da beraz
zurekiko erantzuna.
Nik azaltzen det jabeak duen
berearen maitasuna;
zuk bere izena azaltzen dezu
ta nik bere nortasuna.

M. Lujanbio:
Biak patrika berean gaude,
biak elkarren hurrean;
ni zurekin ez baina zu zaude
nerekiko haserrean.
Zu nortasuna omen zerala
diozu modu errean,
nortasuna ere galtzen du batek
goardia zibilen aurrean!

A. Mendiluze:
Goardia zibilen aurrean nahiz ta
susto bat duen hartua,
ni atera nau nahiz eta izan
zuregatik galdetua.
Jarrera horrek ni indartzen nau
ta zeu zera kaltetua;
indarra dezu baina horrela
kenduko dizut lekua.

M. Lujanbio:
Neri lekua kendu nahiean
al da zure jo ta kea?
Oraindik indar haundia daukat,
beharko dezu tartea.
Nere aurpegiak sortarazten du
patxara eta pakea;
zure aurpegiak irekitzen du
kalabozoko atea.

Andoni Egaña-Maialen Lujanbio

Euskal Herrian aspalditxotik bizi dugun gatazka honetan seme bana galdu duzue biok. Zuk, Maialen Lujanbio, seme ihes-laria galdu zenuen; Andoni Egañak seme ertzaina. Hilerritik etxera bidean hizketan hasi zarete.

Doinua: Iparragirre abila dela.

M. Lujanbio:
Nere semeak alde egin zuen
herri urrun batetara;
han minbiziak jo zuen eta
ez da itzuliko jada.
Ni behin ama izana,
eta zu ere ama,
ulertu zaitzaket, hara:
modua ez da berdina baina
hutsunea berbera da.

A. Egaña:
Zure semea herriz kanpora
joan, hori zuen xede,
borroka baten ilusioak
egin baizituen bere.
Nere zenak soldata
nominaz aterata
bizibehar, alafede!
Nere semeak ez zuen izan
aukeratzerikan ere.

M. Lujanbio:
Ez batentzat ta ez besteantzat
ez da amaiera polita,
amak ez dauka zertan sufritu
bere semearen kinka.
Zurea zan polizi,
boterean kutizi,
nerea tiroz hasita...
Baina ama baten ideologia
maitasuna bakarrik da.

A. Egaña:
Nere semean oroitzapenik
ez zait ahaztuko sekula,
hain gendun mutil gazte sanoa,
formala eta mardula.
Zatoz nere ondora,
bihotzetik kolkora
zera nahi dizut xuxurla:
gauza batean seguru nago,
berdin maite genitula.

M. Lujanbio:
Atzapar beltzak harrapatu zun
ta hura nigandik kendu;
ez esker on ta ez animo hots,
gaur ezer ez da ukendu.
Zu ere zabiltz berdin,
bizitza dezu samin,
ta nahi nuke nabarmendu:
seme-alaba bat hiltzen duenak
bere ama ere hiltzen du.

A. Egaña:
Ez det pentsatzen geranik ere
zu laiotz ni egutera;
biok daukagu gure bihotza
sufrimenduz egarbera.
Kontuak esateko,
lagunak izateko,
goazen taberna batera;
gure hutsunea berdina bada,
bete dezagun batera.

Buruz burukoa. Kartzelako gaia: Zure lagun min bat hil zen joan den astean Himalayan. Gaur jaso duzu berak handik bidalitako postala. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Doinua: Habanera.

Maialen Lujanbio:

Kaixo Maialen: zer moduz?
Oroimena daukat zugan,
presente zauzkadalako
nere mendi abenturan.
Zorionean gabiltza
mendiarekin loturan;
badakizu, beti gisa,
nahi ta ezinaren mugan.
Makaluko gailur horrek
gu jartzen gaitu liluran;
etzirako egongo gera
gailurrarekin joskuran.
Har zazu muxu bero bat,
jarri konfiantza gugan.
Zein bero zen muxua ta
nik zeinen hotz hartu dudan!

Negar egin nahi dut baina
ez egitea hobe da,
malkoak jausiko dira
bestela postal gainera,
ta korritu ta borratu
hemengo muxu ta zera...
Intzirika hasi nahi baina
nijoa aguantatzera.
Imajinatu dezaket
kanpo-base hartan bera...
Bere ilusio ta amets
guzia juan da gainbehera,
ikurrinarekin juan nahi
zazpi milako batera,
ta orain Makalun dago
heriotzaren bandera.

Irratiak eman zuen
elur-jauzien abisu,
baina zuk ametsarekin
horrenbeste konpromisu
bazendun, ta holakotan
egoskor bat dirudizu;
aurrera segiko zendun,
beti egin dezu berdintsu.
Bizitzan ilusioa
herioren paradisu;
gero arte esaten ere
ez didazu utzi, aizu;
ta zuri azken hitz batzuk
esan nahiean naukazu,
karta bat egingo dizut,
akaso jasoko dezu.

Buruz-burukoa. Hitza: Eskua.

Doinua: Zaldi zuriarena.

Maialen Lujanbio:

Langileek lakar ta
pianistek fin-fin,
instrumentua joaz
bost hatz hoiekin.
Eskua eman leike
edo kendu berdin.
Sinbolizatu nahi det
nik herriarekin;
hemen hainbeste min
eta biziezin,
hainbat negar gordin,
behingoz buka dedin,
heldu eskutik eta
aurrera egin.

2003KO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

BERTSO ESKOLAKOAK ANTOLAKUNTZAN

Txapelketako antolatzaile eta arduraduna: Aitor Mendiluze.

Antolakuntzan: Joxe Fermin Argiñarena.

Gai-jartzaile taldean: Gorka Tolosa.

Epai-mahaian: Mikel Iturbe, Joxe Anjel Oiartzabal, Bakarne Urreaga.

SAILKAPENA:	
1. Maialen Lujanbio	(760,5)
2. Jon Martin	(726)
3. Aitor Mendiluze	(514)
4. Jon Maia	(505,5)
5. Iñaki Gurrutxaga	(505)
6. Jexux Mari Irazu	(502)
7. Ekaitz Goikoetxea	(500)
8. Amaia Agirre	(478)

BERTSO ESKOLAKOAK SAILKAPEN TAULAN

Finala:
- Maialen Lujanbio: Txapelduna
- Aitor Mendiluze: Hirugarrena
- Jexux Mari Irazu: Seigarrena

Final erdiak:
- Iñaki Zelaia
- Estitxu Eizagirre

Final laurdenak:
- Aritz Zerain
- Unai Agirre
- Joxe Luis Urdangarin
- Iker Osa

Bigarren fasea:
- Agin Laburu

Lehen fasea:
- Joxe Anjel Aranburu
- Ibon Miner
- Jon Iraola
- Iker Alustiza

Aitor Mendiluzek esan zidan "kantatuko duzu Gipuzkoakoan..." "nik? bai zera!" "ba orduan epaile edo gai-jartzaile edo zer edo zer, jendea behar dute eta". Azkenean konbentzitu ninduen eta horrela hasi nintzen epaile. [**Bakarne Urreaga**]

Oihartzunen kantatu nuen, eta oso puntu gutxigatik ez nintzen aurrera pasa. Sailkapen bat zegoela kontziente izan nintzen saioa bukatu eta gero. Burutik pasa ere ez hurrengo saioren batean kantatuko nuenik, eta oholtzatik jaitsita pentsatu nuen "ostra, berta geratu haiz bada, behin etorriz gero!". [**Joxe Anjel Aranburu**]

Joxe Anjel Aranbururi eta bioi elkarrekin kantatzea tokatu zitzaigun, hamarreko txikian, argia joan zeneko hartan. Argia joan zelako pasatu nintzela leporatu izan didate, baina bueno! Ez nuen batere espero pasatzerik, 18 urterekin berri paperean joan nintzen, eta argazkika gogoratzen dut. Irudi bat dut kartzelatik oholtzara nentorrela, Jexux Mari Irazu mantsoago joateko esanaz, arnasa hobeto hartzeko. [**Agin Laburu**]

2003ko Gipuzkoako Txapelketara lanak eginaren sentsazioarekin joan nintzen. Nik gozatu nuen, soziedadera joan, Ereñozuko lokal hartan gure burua estutu, afaritan bandeja-kada piper jan, kristorenak esan... [**Joxe Anjel Aranburu**]

Gu bertso eskolan gure artean biltzen ginen eta jardun egiten ginen, baina estutu gabe. Baina Ereñozun Unai Agirre, Aritz Zerain eta hauekin biltzea guretzat beste presio bat zen. Beste maila bateko bertsolariekin ari ginen. Salto bat eman genuen. [**Agin Laburu**]

Txapelketa finalerditara arrimatu ahala, sparring libreenak gu ginen, ikasten ari ginen eta. Arratsalde batean bertso eskolako lokalean aritu ginen Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta hirurok. "Nik zer pintatzen dut hemen?" pentsatzen nuen. Batek gaia jarri eta beste biak kantari hasi eta "beste bat bota arazi beharko diot, hau finalerditan dago"...
[**Joxe Anjel Aranburu**]

"Ni honaino iritsi banaiz aurrekoan, oraingoan ere iritsi behar dut" espero izaten da. Eta saio tristea egin nuen. Tabladutik jaistean lagun batek esan zidan "motel, motel, zer ibili haiz, egiten zuen beroarekin jertsea ere ez duk kendu-eta!". Hain lekuz kanpo nengoen... Txapelketa horren ondoren bertsotan segi nuen, gu Aranon biltzen ginen. Baina saio gutxiago genituen, ingurutik deitu eta ezezkoa esan ere bai, geldialdi bat izan nuen. [**Unai Agirre**]

Agurrean aipatu nuen lehenengo emakume txapelduna nintzela. Aipatu nahi izan nituelako "bide horretan abitu eta segitu ahal izan ezin zutenak". Burutan neukan Arantzazu Loidi bezalako pertsona bat. Gu lehenengotakoak gara, baina gu baino lehen beste batzuk egon dira eta traba batzuk haiek kendu dizkigute gero guk bide egiteko. "Nik lortu dut sari hau" sentitzen nuen, baina "ezin izan dutenei" eskaini nahi izan nien. Ez euren ezintasunagatik, testuinguruagatik baizik.
[**Maialen Lujanbio**]

Gauza horiek sinbolikoak dira. Niretzako garrantzitsua zen ez lehenengo emakumea nintzelako, Gipuzkoako txapela zelako baizik. Baina irakurketa sozial batetik eta kanpotik begiratuta ez dut ukatzen garrantzia duenik, mugimendu sozial baten, eboluzio baten adierazle delako: horrek esan nahi duelako bertso eskoletan neska pila bat daudela, emakumeak espazio publikoan gero eta gehiago daudela... [**Maialen Lujabio**]

Urriaren 25a Oñati

Zuek, Iñigo Izagirre eta Estitxu Eizagirre, bikotea zarete. Estitxuk bost urte zituela oparitu zioten hartza txikiarekin egiten du lo oraindik. Une honetan hirurok ohean zaudete.

I. Izagirre:
Ohera sartu zera
baba dariola
hartzezko pelutxea
maittea, potxola;
estu-estu hartu dezu
besoetan hola.
Akordatu ni ere
ohean nagola.

E. Eizagirre:
Zu(e)re baietz estutu
hartza hau bezela!
Hirurekin ohea
bai dela epela!
Baino uste det bere
mailan ez zaudela:
hau neri hogei urtez
izan zait fidela.

I. Izagirre:
Besterik ez du eta
ezautu oraindik
ez omen da banatu
bera zuregandik
trioari baietza
emango diot nik
baina hartzak ez dauka
iniziatibarik.

E. Eizagirre:
Zuk iniziatiba asko
gainera zakarki
ohetik ere bota
behar nauzu aurki
ta gainera marmarka
ari zera beti
honek behar danean
isiltzen badaki.

I. Izagirre:
Beraz isildu ohi da
behar dan bezala
nik proposamen bat det
ez da hain makala:
jakizu norbait asko
maitatzen dudala
ta ekarriko al det
gure etxeko txahala?

E. Eizagirre:
Hartza ta ni bikote
perfektua gara
eta txahala kontukin
zertan hasi zara?
Kasik beste ideia
hobe bat det, hara:
ikuiluan pasako
dezu gaurko gaba.

Kartzelako gaia: Badira urte batzuk zure sexua aldatu zenuela. Une honetan zeure buruari begira zaude.

Estitxu Eizagirre:

Begiratuta gaur bistan dago
emakume bat naizena
baina lehenago zakil bat nuen
nere praketan barrena.
Futbolerako traketsa nintzen
eta korrika herrena
muñekak zaintzen adierazten nun
nere amatasun sena.
Nola onartu nere guraso
ta gizartean problema?
Ez ikusia ta ez onartua
egiten nuen aurrena.
Operatzeko pausoa nahiz ta
izandu dedan azkena
nere burua ikustea da
aldaketa haundiena.

Teorian da erreza baina
garestia da praktikan
milioi mordoa gastatu baitet
ebakuntzan ta botikan;
ispiluari esaten diot
"ez da izan alperrikan".
Bizarrik ez dut ta muskuluak
findu zaizkit azkenikan
oso gustora erreparatzen
det ezpain eta tititan
lehengo itxura soilik mantentzen
det ile eta begitan.
"Jo, zenbateko kontraesana!"
Pentsatzen det nik sarritan:
ez naiz lehengoa ta aldiz orain
bai, orain ni naiz egitan.

Ebakuntzatik aldatu ditut
nere izen ta abizen
lanetik joan ta beste herri
batean jarri bizitzen
lehengo lagunak gaizki esaka
baitzirelako aritzen
nere aldaketa nik onartu dut
ta ez dute entenditzen.
Gorputz honekin gustora nago
berdin argal edo gizen
ezer faltako ez zaidanikan
ere ez zait iruditzen
baina barruan arantz txiki bat
oraindikan zait gelditzen:
ai nere amak jakingo balu
ni zeinen ederra naizen!

Azaroaren 9a, Andoain

Amona eta biloba zarete. Zuk, Aritz Zerain, bilobak, zailtasun handiak izaten dituzu hilaren bukaerara iristeko. Amaia Agirre amonak, berriz, bere pentsiotik zerbait aurreratzea lortzen du hilero.

A. Zerain:
Hil bukaeran beti izaten det
majina bat desengaino
nahiz ahorratzen jarri ohi dedan
ez dakit zenbat enpeino.
Nik poltsa hutsa ta zuk karteran
majina bat diru soino
nere soldata bajuagoa al da
zure pentsioa baino?

A. Agirre:
Hirurehun euro ta mila euro
hor bada nahikoa alde
nere soldata eskuratzen det
baina hori ez da debalde.
Biloba maite ez zera egingo
inoiz sos apurren jabe
hiru pauso(e)re eman ezean
tabernetan sartu gabe.

A. Zerain:
Baina derrigor ez al da izaten
tabernara juatea?
Han izaten det pake pixka bat
ta han det lagunartea.
Amona izan bilobarekin
esku on ta borondatea
soluzioa izan daiteke
neri paga ematea.

A. Agirre:
Nik diru asko ez eta bera
ondotikan atakean
itxaropena jarri al dezu
amonan borondatean?
Arratsaldero zatoz nigana
egongo gera pakean
gastu haundirik ez dezu izango
nerekin zauden artean.

A. Zerain:
Behar duenak ez dauka eta
daukanak berriz aldrebes
bizitza honen errepartua
nik uler nezake nekez.
Zurekin ez naiz amona joango
ez zaidazu eska mesedez
diru beharrik ez det izango
bizi gogorik ere ez.

A. Agirre:
Mesede truke egin nahi zaitut
nere pagaren bezero
bizi gogoa zapuztu omen
dizut ta zenbat endredo.
Zatoz nerekin zahar etxera
biloba arratsaldero
eta han paga emango dizut
punttun irabaziz gero.

Azaroaren 1a, Hernani

Hasierako agurra.

Joxe Luis Urdangarin:

Belarrik erne begirada hotz
eta ipurdia estu
zutik mantendu egiten gera
eta gainera abestu.
Bertsolaritza deitzen diote
baina honek izenik ez du
nahiz eta nere etorkizuna
ez dagoen zuen esku
hauenak ez du inporta baina
ni behintzat txaloz babestu.

Zuek neska-mutilak zarete. Joxe Luis Urdangarinek, haurdun dagoela-eta, Agini Labururi, mutil lagun ohiari deitu dio aitatasun frogak egin ditzan eskatuz.

A. Laburu:
Ni naizen edo ez ote naizen
egin behar al det aipa?
Hainbat denboraz ibili zinan
neskatxa neri jarraika.
Zure umea zuk berdin-berdin
egin behar dezu maita
baino ni al naiz zure umeantzat
desio zenukeen aita?

J.L. Urdangarin:
Aizazu Agin elkarren ondun
pasatua degu jaia
baina une gozo hoiei iritsi
egin zitzaien amaia.
Esan zenidan: "Nik betirako
maitatzea det nik nahia"
horra, heldu da maitasun hori
erakusteko garaia.

A. Laburu:
Nahiz itxi nizun biok bizitza
bat egiteko atea
zure umea izan liteke
neretzat ere kaltea;
nahiz nik zaitudan nahiz beste era
batean oso maitea
zuk nahi al dezu maite zaitudan
medikuek esatea?

J.L. Urdangarin:
Esan dizudan motibo hauxe
dirudienez asko da
barkatu baina zure ondotik
ez naiz joango inora.
Zure ondoan nahiz ta ibili
ohe kontutan gustora
erakuts zazu zerbait zerala
gerri aldetikan gora.

A. Laburu:
Bizitza guztiz alda lezake
adin hontan ume batek.
Aitatasuna frogatu nahian
proba egin nahi dit honek
haurra izatean erabakia
ezin det hartu neronek
eta umea nerea bada
nik neuk ere maiteko det.

J.L. Urdangarin:
Familia bat sortzeko ideia
nonbait ez zaizu gustatzen
baina hasi naiz nire kontura
famili hori prestatzen.
Zure ondotik joango gera
ez bazaitugu kezkatzen.
Zure iguala ez izatea
besterik ez det eskatzen.

Iñigo Mantzizidor "Mantxi" semea. Agin Laburu aita. Zuk, Mantxi, Maria landarea landatu zenuela-eta aitak sekulako errita egin zizun. Gaur, aita ikusi duzu landareari ura botatzen.

I. Mantxi:
Neri errita eginda
nolako muturra!
Mariai ura bota
ta mugitu lurra.
Usaira etorri zera
nolako sudurra!
Orain badakit nor den
auzoko lapurra.

A. Laburu:
Alperrikan egingo
didazu kritika
arrazoia eman nahi
nizuke nik ti-ta:
ama gauean pozik
datorkit korrika
bazkaritan letxuga
tartian jarrita.

I. Mantxi:
Eta seguru jango
dituzula bapo
baina beste kezka bat
aitortu beharko:
gaur santuen eguna
antzeko dalako
ez zenitun hartuko
kanposanturako?

A. Laburu:
Ahaztu egin al zaizu
utzi ni pakian!
Inor ez dago kanpo
santura joatian.
Guk biok in genuen
aurreko urtian:
aitona sartu gendun
baratzan lurpian.

I. Mantxi:
Agin ni ez naiz hortaz
ohartu gabia
gajo harek hiltzeko
bazun edadia;
gustora egongo da
gauza nabaria:
orain alboan dauka
amona Maria.

A. Laburu:
Beraz hobiak dira
aitonan ametsak
zeozer jotzen dio
zeruko txepetxak.
Ixil zaitia, ikusi
biharko'ia beltzak
hau ona omen da-ta
kalenturarentzat.

Azaroaren 9a, Andoain

Aita semeak zarete. Zuk, Iker Osa, emaztearekin eztabaida gogorra izan eta Aitor Sarriegi semearen gelara joan zarenean negarrez aurkitu duzu.

I. Osa:
Gelara sartu eta semeak
tristetu egin nau pranko
zu egon lasai elkarbizitzan
moldatzen baikera bapo;
alde batera utzi itzazu
zure negar, zure malko
ama nerekin haserratu da
asko maite nauelako.

A. Sarriegi:
Edredoipea izan dut beti
gordeleku segurua
eta gaur ere heldu zaizue
eztabaidaren ordua.
Hainbeste maite baldin bazaitu
astin ezazu burua
oso arraroa iruditzen zait
adierazteko modua.

I. Osa:
Ondo ez dakizu baina holakoak
izaten dira loturan
sentimentuen korapiloak
horrela dabiltza gugan.
Ez ulertuak zure amatxo
sartua dauka tristuran
zoaz harena ta esaiozu
nik e(re) zenbat maite dudan.

A. Sarriegi:
Ondo dakizu sarri zerate
era horretan ibili
nere aurrean ezin dezue
ia gehiago estali.
Beti berdintsu egiten dezu
lehenik giroa kiskali
ta trapu zaharrak konpondu asmoz
gero semea bidali.

I. Osa:
"Ez haserretu" zuk gurasoei
hala esaten diezu
baina tartean egunez egun
bada hainbat konpromezu.
Gu haserretu egiten gera
gero errezu ta errezu
noizbait ezkontzen baldin bazera
ordun ulertuko dezu.

A. Sarriegi:
Ezkontzak eta aguantatzeak
zer ikusi asko dute
dirudienez ia ez dezue
elkar horrenbeste maite;
agian biok banandu ere
egin behar zenukete
nik zoriontsu nahi baitzaituztet
batera ala aparte.

Azaroaren 16a, Eskoriatza

Kartzelako gaia ongi atera zen Maialen Lujanbiorekin nintzelako, eta asko estimatzen dudalako bertsotan eta pertsona moduan. Gaiak bide eman zigun konplizitatea adierazteko. Niretzako horregatik izan zen polita. [**Estitxu Eizagirre**]

Aspaldiko lagunak zarete. Urteak daramatzazue elkar ikusi gabe. Gaur, zahar etxean egin duzue topo.

Doinuak: Haizak hi mutil mañontzi.

M. Lujanbio:
Denbora juanan enkargu
karga haundia dakargu
ta lagun zaharrak ikuste honek
enkantua badu.
Berdin-berdinak gera gu
bueno, urte batzuk salbu
parre egiten genion hura
ailegatu zaigu.

E. Eizagirre:
Aulki berean jarrita
degu lehengokoen pinta
berriz bertsotan hasi dezagun
betiko ika-mika.
Nago ezin sinetsita
hau ezusteko polita
zu aurkitzea galdu zenuen
txapela jantzita.

M. Lujanbio:
Garai bateko zirika
orain ere aldarrika
kaso egiteko iruditu zait
itxura polita.
Nere txapela jantzita
al dakat xelebre pinta?
Atzera beira bizi naiz maite
aurrera ezin-ta.

E. Eizagirre:
Lasai, buruan txapela
dezu merezi bezela
iruditzen zait lehengo Maialen
berbera zarela.
Hernani berriz horrela
zeharo aldatu dela
zabalik al da zure etxean
ein zendun hotela?

M. Lujanbio:
Entrebista bat bailitzan
nola galdezka zabiltzan
zer gertatu dan egi-egitan
hobeto det esan:
nere etxean bizitzan
brilloa asko nabari zan
hura gaztetu egin zuten ta
ni zahartu nitzan.

E. Eizagirre:
Berdin astegun eta jai
bertsoai ekin nolanahi
zahartu gera baina sekula
gu ez gera etsai.
Amondu zerala zu, ai!
Baino egon zaitez lasai
nere eredu zinan gaztetan
ta orain ere bai.

Abenduaren 14a, Irun finala

Zu, Aitor Mendiluze, suhiltzailea zara, eta Maialen Lujanbio, zure bikotekidea. Maitasun-jolasetan ari zaretela, larrialdi -deia jaso duzu zure bilagailuan edo buskan.

A. Mendiluze:
Behingoz ari ginala
ohean hasita
entzun dedan dei hori
ez da hain polita.
Lastima izatea
suarekin zita
neure etxeko suak
piztuta utzita!

M. Lujanbio:
Suak itzali behar
piztu dituenak
piztuta hor uzteak
dakartza problemak.
Ze oportunismo txarrak
"Pi-pi-pi" horrenak
hain finak ez dauzkazu
bilagailu denak!

A. Mendiluze:
Baina ene Maialen
zertan ari zera?
"Pi-pi-pi"-ak deitu nau
norbait salbatzera.
Zu egon ta mantendu
oraingo antzera
iritsiko naiz brasak
aprobetxatzera.

M. Lujanbio:
Denekin kunplitzeko
zu zabiltza adi
baina beti arreta
gehio kanpoari.
Brasak aprobetxatzen
ez zabiltza argi
nik su emango diot
nere buruari.

A. Mendiluze:
Lasai maitea gorde
tristura ta penak
gero izango dira
txisparik onenak.
Balio baldin badu
piromanoenak
berriz piztu dezake
behin piztu duenak.

M. Lujanbio:
Bonberoak duena
aurpegi itzela!
Joan nahi baldin badezu
benga, zoazela!
Baina gogora ezazu
gertatu leikela
beti piztu ta piztu
ta beti epela.

Zu, Maialen Lujanbio, preso zaude, eta jarritako zigorra arintzeko, lan bat proposatu dizu Jon Maia kartzela-zainak: egunean zehar kartzela berri baten eraikuntzan lan egitea.

M. Lujanbio:
Ai gizarajo ez zaude ez zu
hain borondate hutseko:
egun txiki bat neri opari
mailukada bakoitzeko...
kartzela berri bat eraikitzen
esklabu baten antzeko
nere kondena laburtzeko ta
besterena luzatzeko.

J. Maia:
Nik ondo dakit: atzekaldean
utzi nahi dezu kartzela
kondena luze-luzea dezu
luzea eta krudela
ta hobe dezu zuk pentsatzea
eskatzen dudan bezela
ipintzen dezun harri bakoitzak
askatuko zaituela.

M. Lujanbio:
Nik lanak dauzkat zure harriak
askatasunai josteko
ezautzen zaitut zu korbatadun
hipokrita peto-peto.
Españai kontra egitearren
urtetan zure menpeko
beste bizpahiru pasako ditut
zuri kontra egiteko.

J. Maia:
Nere aukera izan liteke
askatasunaren golde.
"Noiz irtengo naiz? Noiz irtengo naiz?"
sarri egin dezu galde.
Eraikin hori ez da izango
orain zuretzat debalde
beti hain kontra ez egin eta
egin zazu zure alde.

M. Lujanbio:
Eta zuk noiztik egiten dezu
nere aldeko marmarra?
Aizu zuk noiztik dezu ezagun
koherentziaren marra?
Kolperik ere ez det nik joko
ai, kartzelero zakarra
nola alde egin pentsatzea da
nere eginbehar bakarra.

J. Maia:
Nola arraio nahi dezu galdu
horma artean bizitza?
Urte luzetan izan baitezu
horren bizimodu hitsa.
Nola alde egin pentsa ta pentsa
beti hola bazabiltza
azken harria jartzerakoan
neuk emango dizut giltza.

Puntua:
Zer eskatzen diozu
zuk Olentzerori?

M. Lujanbio:
Oraindik bizi al da
gizon gizen hori?
Aspaldi dauka tripa
bapo eta lori
nik ez diot eskatzen
kanpoko inori.

Kartzelako gaia: Ospitaleko itxarongelan zaude, sendagilea noiz etorriko zain.

Maialen Lujanbio

Goizeko ordubi t'erdiak eta
sentitzen nintzen arraro
nahiz eta hartu bi aspirina
ta urari hiru trago.
Pentsatu nuen "Gora igotzea
ez al da hobe izango?".
Igo behar banun igo naiz eta
nerbio denak akabo
silla naranja txiki batean
bi ordu t'erdiz itxaro
urgentzitako gelan egon behar
baldin bada hain luzaro
urgentziaren berri egun bat
lehenago eman beharra dago!

Urgentzitako gela txiki hau
nola izan inoren poza?
Giro atsegina topatzeko ere
ez da toki aproposa.
Nere ondokoak sufritu ei du
akzidente baten bortxa
eta barrengo minetan dago
bestaldeko hanka motza
pareko amonak barruan dauka
bere beldurraren hotsa
ta hango neskak dantzan dabilki
izu batean kokotza...
Gela berde hontan juntatzen dira
bizitza ta heriotza.

Jo eta fuego tiraka dabiltz
enfermero eta ate
beraien presa ez da izango
zai dagon inoren kalte.
Batzuk ta bestek begi bietan
etsipena daramate
hemen zenbaitek pentsatuko du:
"Eutsi dezaket, noiz arte?".
Azken batean ni ondo nago
pozez eta tripa bete
ez daukat ez nik nere ondokoek
aina pena, aina neke
azken batean nere umetxoa
hementxe jaio liteke.

(Ikus txapeldunaren agurra 440 orrian).

2005EKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

SAILKAPENA	
1. Andoni Egaña	(1.796,5)
2. Unai Iturriaga	(1.746)
3. Amets Arzallus	(1.206,5)
4. Maialen Lujanbio	(1.206,5)
5. Igor Elortza	(1.174)
6. Sustrai Colina	(1.171,5)
7. Aitor Mendiluze	(1.156)
8. Jon Maia	(1.156)

BERTSO ESKOLAKOAK SAILKAPEN TAULAN

Finala:

- Maialen Lujanbio: Laugarren
- Aitor Mendiluze: Zazpigarren

Finalerdiak:

- Jexux Mari Irazu

Kanporaketak:

- Iñaki Zelaia
- Estitxu Eizagirre

Ilusioa eta gogo handia jarri nuen. Prestatzen aritu nintzen, ustez ongi ari nintzen, entrenamendutan gustura nenbilen. Eta lehen kanporaketara iritsi eta gogoratzen dudan bakarra da jende pila bat aurrean, Xabier Silveira tabladuan, eta saio grisa egin nuela. Ez nintzen saio horretan egon, pentsa Lekunberrin kantatu eta azken agurrean "Agur Lakuntza" bota nuen! Ez nuen ezer egin, ez ongi eta ez gaizki. A zer muturrekoa hartu nuen! [**Estitxu Eizagirre**]

Inoiz gehien prestatu dudan txapelketa izan zen, batik bat bakarkako ariketa. Urtarriletik hasi nintzen Naufragoa doinuan kantari, baina azkenean hori bakarrik egin nuen itxurantzean, bakarkakoa. Hor ikasi nuen txapelketan burua gehiegi estuzea ez dela batere ona. [**Iñaki Zelaia**]

Finaletik kanpo geratu nintzen. Ez dira momentu gozoak izaten. Saioa ez zen brillantea izan, gainera bi poto egin nituen... Aurreko bi finaletan egonda, banekien finalerako borroka egongo zela baina iritsi nahi hori behintzat baneukan eta ez zen tokatu. Bigarren finalaurrekoan, Hendaian, xuxenxeago aritu nintzen baina ez nuen aurreko zuloa tapatzeko adina egin. [**Jexux Mari Irazu**]

Finalean mundu guztia txoratzen zegoen eta ni nintzen han gaizki pasa zuen bakarra. Bezperan ez nuen ia batere lorik egin, leher eginda nengoen. Inseguridade handiarekin iritsi nintzen, ez nengoen nire buruarekin eta bertsotarako ziur... eta hori azkenean atera egiten da. Egoera horretan hainbeste jenderen aurrean hainbeste ordutan egotea oso oso gogorra da. Ezkutatzeko eta alde egiteko gogoa neukan. [**Maialen Lujanbio**]

Arratsaldeko saioan lehenengo zenbakia tokatu zitzaidan, eta lehenengoa ez da ederra izaten, baina nik hartu nuen poza aurrena bukatuko nuelako, eta bakea! 13.000 pertsona hor, eta ateratzen nintzen aldiro ezintasuna, bertsoak ekarri behar bat... "gaizki ari zara", psikologikoki nire burua matxakatzen aritu nintzen. Oso gaizki pasa nuen. [**Maialen Lujanbio**]

Daukadan penarik handiena da hain egun potentea, hain egun zoragarria eta mundu guztiarentzako grabatuta geratu dena izanik, niri hain sentsazio txarra geratu izana. [**Maialen Lujanbio**]

Urriaren 23a Arrasate

Kartzelako gaia: Errezeloak zenituela eta, etxean kamera ezkutu bat jarri zenuen.
Orain grabatutakoa ikusten ari zara.

Doinua: Naufragoarena.

Iñaki Zelaia:

Bizi naiz gizon zintzo antzean
emaztea det nere ertzean
ta alaba bat hogei urtekin
beste semerik ezean;
jeikitakoan goizean
kezka denbora luzean
alaba gelan sartzean
horregatikan kamaratxo bat
ipini nion etxean
beldur bainintzen sartu ote zen
drogaren zulo beltzean.

Nere alaba hain da ahula
nahiz ta ustetan izan mardula
bere barruan zer gertatzen den
errez ezin det kalkula.
Dibertitzeko formula
porroa edo pilula
ez nun usteko sekula
inguratu ta esango diot
nahiz ez ondo disimula
ez nagoela haserre baino
hitz egin behar degula.

Hogei urtekin egin nahi hegan
ondo badakit nik hori zer dan
baina hamaika kezka izkutu
izan ditut nik neregan.
Nahiz ta alkoholik ez edan
drogak dauzka bere gelan
oker dabil izaeran
aita hain harro ta hain alaia
alaba dabilen eran...
Etxe berean egonagatik
zein urruti bizi geran.

Azaroaren 26a, Urretxu

Jon Martin eta Jexux Mari Irazu, mendira elkarrekin joan zareten bi lagun zarete. Bidean, Jexux Mari, ikusten dituzuen gauza guztien berri emanez doa. Itxuraz Jexux Marik den-dena daki.

J. Martin:
Ditugu asko nekatzen
ez diren bi zango
ikusi nahi genitun
hemengo ta hango;
dena nolakoa den
azaltzen dit ondo
turismo ikaslea
ez zera izango?

J.M. Irazu:
Aizu kontuai deitu
behar dan bezela
ikaslea ez baizik
maisua naizela.
Begira harri koxkor hau
fosila duela
bi milioi urte bada
hemen dagoela.

J. Martin:
Joño zenbat dakizun
nolako laguna!
Horrelakoxea da
jende euskalduna.
Bi milioi urte ditu
tipo jakituna
ta lehenbizikoa da
begiratu duna.

J.M. Irazu:
Beti begiratzen det
ondo hemen, fin han
gauzak nolatan izan
genitun antzinan.
Begira hor har ttiki
borobila eskinan
duela bi milioi urte
holakoa zinan.

J. Martin:
Holakoa nintzenik
ezin dut ukatu
baina harranarekin
ezin da bukatu;
zure jakindurian
zeure baitaratu
zu egia esan ez zera
askorik aldatu.

J.M. Irazu:
Denbora joan eta
ni lehengo berbera
hizketan eman diot
halako hasera.
Jon begira ezazu
hango gailurrera
bi milioi urte barru
iritsiko gera.

J. Martin:
Zuk segi zazu hemen
zure harrarekin
nik gailurraraino gaur
nahi bainuke egin.
Nahi banu gauza denen
azalpena jakin
etorriko nintzake
hiztegi batekin.

J.M. Irazu:
Azken bertsoan bota
didazu egia
eta gorritu egin da
maisu aurpegia;
bat behar izanez gero
ni naiz hiztegia
guztia dakidana
baina luzeegia.

Abenduaren 18a, Barakaldo BECen, finala

Aspaldiko partez bi begiak busti zaizkizu.



Aitor Mendiluze:

Zenbait egunez lanetik ere
hartu genuen erdi jai
etxean bertan egon nahi nuen
ahal nuen artean lasai;
hasi aurrera begira eta
ustezko hamaika dohai
banituela pentsatzen nuen
bila joan nintzen baina ai!
Ilusioa izan daiteke
halakotan geure etsai
ez nintzen sinisteko gai
ez nuen sinisterik nahi;
ez zetorren nahiz eta luzaro
egon ginen gu bere zai
zoritxarrean ez nuen egin
gero zorionean bai.

Aita bakarrik izan nahi nuen
helburu haundia bera
amagaia ere pronto zegoen
ta jo genuen aurrera
ustekabean erdibidean
eten zen gure karrera
mediku batek hala esan zigun
eta ametsak gainbehera
aurretik egin genituenak
ondoren geure kaltera
pentsatuz beste aukera
nola irtengo ote da?
Bigarrena ere galdu genuen
ilusioaz batera
baina orduan ere zergatik
ez zen malkorik atera?

Halere Idoia animatzeko
hartu nuen nahiko kemen
bere gogoa, bere indarra
akitu baitzen nabarmen
holakoetan aitaren lana
babes ematea omen
eman nuen bai baina neuk ere
beharra sentitu hemen
pasa zaionak ondo badaki
haurtxo bat galtzea zer den
baina bi galdu ondoren
horra Jontxu non dagoen
eta malkoak atera zaizkit
eskuz estali baino lehen
zuk lasai seme utzi negarrez
aspaldi egin nahi nuen.

Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio. Hiru ume txikiren gurasoak zarete. Aspaldiko partez asteburu osoa zuek biok bakarrik pasatzeko aukera duzue.

M. Lujanbio:
Ez da bat eta ezta bi ere
hiru ta hiru da hiru:
hiru neke ta hiru lan karga
bider hiru zenbat diru!
Umeak nola gainetik kendu
pentsatzen gabiltz beti gu
ta orain bakarrik geratu eta
ia ze ein ez dakigu.

U. Iturriaga:
Hain emankorrak izan gu eta
hiru haur etorri ziren.
Presarik gabe behingoagatik
elkartu garenez hemen
igual aukera dugu gaurkoa
zera egiteko ejem...
Ia ahaztuta daukat maitea
gu lehen nondik hasten ginen.

M. Lujanbio:
Nere eguna hiru umekin
hasten da eta bukatu
senarrak berriz beti lanen bat
aitzakian mila datu.
Beti bezela zure ejem hori
berriro ere aipatu
ezagun dezu diferentzirik
zuk ez duzula sumatu.

U. Iturriaga:
Nire laztana, nire maitea
ez zaitez jarri horrela
zurekiko dut berotasun bat
berotasun bat itzela
ez dakit zer den beherago edo
berotu zaidan sabela...
Kauen la letxe berriz mobila
ziur zure ama dela!

M. Lujanbio:
Ai nere amak une txarretan
deitzen du eta akabo!
Ia ze parte berotu zaizun
ez nago ziur zeharo.
Hara, nikian, ipintzen dizun
bezelaxe hola nago
nik ere etxean horixe daukat
hiru ume ta gehiago.

U. Iturriaga:
Amak umeak beti buruan
hori da betiko lege
eta gizona txoriburua
gizona beti xelebre
baina eske daukat labea gori
ta egin behar zaitut neure
ze bero-bero ipintzen nauzu
haserre zaudela ere.

Kartzela bateko hormaren bi aldeak zarete. Zu, Maialen Lujanbio, barrura begira dagoena. Zu, Sustrai Colina, kanpora begira dagoena.

M. Lujanbio:
Ladrillo batzuk tarteko
gera bi horma azal peto:
zu aukerako jendea joan
etorri ikusteko
ni itzalaren menpeko
lagun ez gabiltz antzeko
nik beti aurpegi berriak eta
beti geratzeko.

S. Colina:
Nahiz kanpotik ofensiba
misterio ta satira
egin asmotan grafiti batzu
nigan egin dira.
Eguzkiaren argira
horitzen naiz baina tira
finean nago presoen gisan
kanpora begira.

M. Lujanbio:
Zure inguru hortan hotz
hemen goxoago askoz
kanpora beira baina barruan
ez da hainbeste poz.
Hartu zerbait punta zorrotz
ta markatzen naute gogoz
egun zaharrak joanagatik
berri gehio datoz.

S. Colina:
Ez beldur ta ez erruki
nigandik oso urruti
ez dira aurkitzen kaputxa jantzi
nahi duten bi punki
eginez zenbait grafiti
idatzi dute poliki:
kartzelak itxi behar dira ta
tabernak iriki.

M. Lujanbio:
Grafiti eta endredo
egitik zerbait balego...
Nik ere hainbat marka nukeenik
ez zazu espero.
Bihar, etzi edo gero
lan egin behar egunero
eta ni ere eroriko naiz
zu bota ezkero.

S. Colina:
Biak gabiltz elkartean
ez elkarri atakean.
Hara Galindo ekarri dute
furgona batean
lotu dezagun katean
ez da izango kaltean
gure barruan gorde dezagun
usteldu artean.

2007KO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

SAILKAPENA	
1. Aitor Mendiluze	(946)
2. Beñat Gaztelumendi	(914)
3. Jon Martin	(555)
4. Jon Maia	(553)
5. Jexux Mari Irazu	(548,5)
6. Aitor Sarriegi	(546,5)
7. Unai Agirre	(541,5)
8. Iker Zubeldia	(520,5)

BERTSO ESKOLAKOAK SAILKAPEN TAULAN

Finalean:

- Aitor Mendiluze: Txapelduna
- Beñat Gaztelumendi: Txapeldun ordea
- Jexux Mari Irazu: Bosgarren
- Unai Agirre: Zazpigarren

Final erdietan:

- Iñaki Zelaia

Final laurdenetan:

- Agin Laburu
- Joxe Luis Urdangarin

Lehen fasean:

- Aritz Zerain
- Ibon Miner
- Iker Osa
- Iker Alustiza
- Unai Gaztelumendi
- Arnaitz Lasarte

Epaile: Joxe Anjel Oiartzabal, Bakarne Urreaga.

TXAPELDUNAREN AGURRA

Abenduaren 16a, Donostia.

A. Mendiluze:

Aurrena aita zenari
ni nun nengoke bestela?
Etxekoei ta lagunei
ia zorretan bezela
bertso-eskolari noski
badakit hor dagoela
ta lagundu didan hari
nahiz jakin gogorra zela.
Guztioi dagokizue
itzalpe honen epela
baina ezin ditudanez
denak aipatu honela
nolabait maite hitzari
lotu nahi diot txapela:
ditudanek ta nautenek
bere senti dezatela.

Arnaitz Lasarterekin, eta Usurbilgo bertso eskolan Xabier Sukia eta Ibai Esoainekin aritu nintzen preparatzen. Ustez ongi nenbilen bertsotan. Kontua da gaixotu egin nintzela, ingresatuta egon nintzen, kristoren kilo pila galdu nituen... Ospitaletik atera eta lau egunera nuen saioa. Saio ona izan zen, puntuazio altukoa. Arantza geratu zitzaidan osasunez ongi egonez gero gehiago prestatu eta aurrera egin ote nezakeen... [**Unai Gaztelumendi**]

Txapelketa baino lehen esaten nuen, "txapelketako gazteena izateko eta Juanito Mitxelenarekin argazkian ateratzeko bakarrik aterako naiz". [**Arnaitz Lasarte**]

Bertsotan gehien egiten nuen garaia zen, Ereñozun astean bi-hiru aldiz biltzen nintzen Aritz Zerain, Ibon Miner eta Iñaki Zelaiarekin. Eta Unai Gaztelumendi eta biok ere geratzen ginen preparatzeko. Preparazioa oso ona izan zen.
[**Arnaitz Lasarte**]

Ni Gipuzkoakoan proba egiteko hasi nintzen. Kontziente nintzen 20 urte neuzkala, eta nik uste bertsolari denen bizitzan txapelketa momentu batek merezi duela. Bestelako goranahirik gabe joan nintzen, banekien ongi ari nintzela bertsotan baina ikusten nuen ez nintzela besteak baino gehiago. Nik uste faktore askok bat egin zutela eta horri esker iritsi nintzela iritsi nintzen lekura. Baina txapelketa bera hilabete lehenago edo beranduago izan balitz, seguru asko lehenengo fasean kanpoan geratuko nintzen. [**Beñat Gaztelumendi**]

Txapelketan ateratzeko asmorik ez neukan jada. "Berriz txapelketara, zertara?". Baina suerte edo desgrazi bat badaukagu, Hernanin bizi garela, eta asko gara. Bata bestearen anparoan berriz ere sartu egin ginen txapelketan. Aranon biltzen garenon kasuan, uste dut batik bat Agin Laburugatik parte hartu genuela. Bera etorri zen Aranoko bertso taldera, txapelketa horretarako ilusioz beteta. Guk denok laguntzen genion prestatzen, baina hura beste erritmo batean zetorren! Ilusioa galdua genuenok, bera preparatzeko horretan berriz mozkortu egin ginen eta berriz hasi ginen bertsotan geroz eta txukunago egiten. [**Unai Agirre**]

Beste txapelketak baino askoz gehiago preparatu nuen. Koadernoarekin, liburutegian, esaera zaharrak begiratu, errimak jarri eta asko entzun. Bertsoa.com-ekin grabatzera joaten ginen bakoitzean koadernoarekin joan eta zerbait gustatuz gero apuntatu... [**Agin Laburu**]

Orixe saritik deitu zidaten eta ezezkoa eman nien "edade honetan jada ez daukat Orixera joaterik!". Baina baten bat falta zitzaien eta azkenean esan nien "joan egingo naiz ba!". Joan eta irabaztea tokatu. Harekin pixka bat motibatu nintzen, Aranon ere gero eta egur handiagoan hasi ginen... Gipuzkoako Txapelketa etorri zen eta niretzako kantatzeko ederra izan zen: lasai nengoen, disfrutatzera bakarrik joandako txapelketa izan zen, eta dena parean tokatu zitzaidan. [**Unai Agirre**]

Jendeak estilo bat aitortu dit orain, eta ni inoiz ez naiz estilo baten bila joan. Nik horrelaxe kantatu dut beti. Tokatu zen bai ni eta bai Aitor Sarriegi, aparkatuta geunden bi bertsolari, Gipuzkoako txapelketan hasi eta finaleraino ailegatzea, gauza txukun batzuk eginda, eta orduan azalpenen bat bilatu behar izaten da. [**Unai Agirre**]

FINALA

Ilunbeko finalaren sentsazioa ederra da, hainbeste txalo eta hainbeste jenderen aurrean kantatzea. Baina bertsolari bezala nik uste gehiago markatu ninduela Tolosako saioak. 1997ko Txapelketan entzun nuen Jon Maia, eta Tolosako saioan berarekin kantatzera ateratzeko deitu zidatenean, oraindik gogoan neukan zer bertso kantatu zituen 1997ko finalean. Zure eredu izan denarekin bat egiten duzu saioan eta bertsotan norbait bazarela ikusten duzu. [**Beñat Gaztelumendi**]

Finala Ilunben zen, 9.000 lagun... lehenengo aldiz iritsi nintzen finalera, baina edade bat banuen eta gutxieneko taula batzuk ere bai, saioa itxura antzean salbatzeko. [**Unai Agirre**]

Bukaera ederra izan zuen Ilunben, Gipuzkoako txapelketa batek aspaldi izan ez zuen errematea. Finaleko koadrila ere oso ona zen... txapelketan zehar eta finalean gustu onarekin geratu nintzen. [**Jexux Mari Irazu**]

Finalean gure artean komentatzen genuen "joe, hau, handi xamarra da, e!". Hasierako agurra bota eta trumoia bezala entzuten ziren txaloak! [**Beñat Gaztelumendi**]

Buruz burukora pasatzerik ez nuen espero. Izenak irakurrita bakarrik zortzigarrenerako borrokan joan nintzen, burutik pasa ere ez zitzaidan egin buruz burukora pasatzerik, inozentzia horrekin joan nintzen. Esan zuten nire izena eta momentu batean flotatzen ari nintzela sentitu nuen. Gero Aitor Mendiluzerena esan zuten eta "beno, orain kantatu egin behar da berriz eta honi segitu egin behar zaio". Nik gozatu egin nuen buruz burukoan. Alde on hori daukat, nahiko hotza naiz eta buruz burukoan ez naiz nerbioso jartzen. [**Beñat Gaztelumendi**]

Bertsozale Elkartean eta inguruan nahiko momentu xelebrea pasata nengoen eta esaten duzu "pasatzen dena pasatzen dela, plazara joan eta bertsoa egiteko oraindik kapaz banaiz behintzat". Ez da momentu txarra txapela jantzi eta "bertsotan jarraituko dugu, denaren gainetik" esateko. Lehenengo txapelak jo eta erotzeko poz hori ematen badu, bigarrenak beste lasaitasun bat ematen du, beste pisu bat. [**Aitor Mendiluze**]

Irailaren 22a, Orio

Puntua:
Gaua ura edanez
pasatu ezkero

Agin Laburu:
ertzainai "Zemuz hago?"
esan leike gero
baino hori errexa
ez litzake edo
bestela egingo nuke
gauero-gauero.

Irailaren 23a, Hernani

Zu, Unai Agirre, berandu esnatu zara, eta presaka abiatu zara autoz lanera. Semaforo batean geldi zeundela, Uxue Alberdi kristalak garbitzen hasi zaizu.

U. Agirre:
Ahal zenikan azkarren
etxetik atera;
despertadore zaharra
da nere galera.
Bihotzak buelta eman dit
noa esatera;
ustez nahiko berandu
nijoan lanera;
zu lantegi honetan
noiztik ari zera?

U. Alberdi:
Aspalditikan nabil
baitut diru gutxi;
zikinkeriz autoa
daukazu itsusi;
aparrakin hor nabil
igurtzi ta igurtzi
ta aparrezko bihotz bat
hortxe dizut utzi
ta arren orain nirea
ez zazula hautsi.

U. Agirre:
Semaforoan hona
etorri jo ta su
igual egin zezakeen
zenbait enbarazu.
Bentanillan hizketan
ai gera ni ta zu;
hau da hau lantegia
pobrezia kasu!
Garbia dago baina
garbitu ezazu.

U. Alberdi:
Makurtu egiten naiz
zure ohorera.
Holako gizonikan
gelditzen ote da?
Eskobilla pasa dut
nik goitikan behera;
garbituko dizkizut
ta merke gainera
beira ta kontzientzia
guztia batera.

U. Agirre:
Berriz hitza hartu dut
ur pixkat edanda
nahiz ta egin nahi nukeen
zure propaganda;
berriro(e)re berdean
hor jarri da danba!
Nahiz bihotza xamurtu
lau kontu esanda
agur orain banoa
propina emanda.

U. Alberdi:
Gizon batzuk bihotza
haundia daukate.
Zurekin elkartzea
ez da izan kalte;
dirua duzu baina
kezkarik ez bate(re);
berde jarri da eta
bagoaz aparte
ni(e)re banoa berriz
gorritzen dan arte.

Irailaren 23a, Zaldibia

Zu, Aritz Zerain, bakarrik bizi den adineko pertsona bat zara, eta konpainia egingo dizun gazte baten bila zabiltza. Iragarkia jarri duzu egunkarian eta Unai Gijarro etorri da.

A. Zerain:
Larogei urte bete
berriak ditut nik
eta adin honetan
ez dago gauz onik.
Ez nun uste inor nik
hartu behar nunik
baina ez pentsa hartzeko
seguru nagonik:
zure etxean zaindu
al dezu aitonik?

U. Guijarro:
Lehenago eduki nun
aitona etxean
eta hura zaintzen nun
hala behartzean
ta orain zu hor zaude
nere aurrerantzean;
gertu izango nauzu ni
zure aldamenean
eta zainduko zaitut
denbora luzean.

A. Zerain:
Zaharrak bizi ohi gera
egoera estutan
eta are gehiago
etxe haundi hustutan;
plaza honen bila zu
etorri disputan.
Aitona zaindu dezu
hartu det kontutan
baina zenbat iraun zun
hark zure eskutan?

U. Guijarro:
Zahar-zaharra hil zen
hoi ez da problema;
nik alaitu ohi nion
eunero barrena
ta triste zegonean
emanez kemena.
Zuri hala egiteko
hemen det ordena
nik emango baitizut
falta dezun dena.

A. Zerain:
Ni egoskorra nago
bainago zahartua
honezkero egongo
zera ohartua.
Beno konforme zaude
beraz onartua
baina ez da izaten
hain errez tratua:
lehenengo egingo dizut
proba kontratua.

U. Guijarro:
Honen galdeketa hau
behintzat ez da broma
azterketa latza da
ta sakon-sakona
baina ni naiz seguru
zuretzat dagona.
Heldu gerritik eta
etor zaite hona
goazen paseatzera
kalera aitona.

Irailaren 30a, Hondarribia

zkontzera zoazte, eta gonbidatu-zerrenda egiten ari zarete. Zu, Nerea Elustondo, ohartu zara Iñaki Zelaiak aurretik izan dituen bikotekide guztien izenak idatzi dituela zerrendan.

N. Elustondo:
Inbitazioetan
hor gabiltz galako
eta ez dira izen
gutxi aterako:
gonbidatu dituzu
neskalagun franko;
nere beharrik ba al
dezu gauerako?

I. Zelaia:
Zuk presta soinekua
prestatu pastela;
neretzako zerrenda
ta gaueko gela;
ezkontzera noala
jakin dezatela
lata ematen segiko
baitute bestela.

N. Elustondo:
Beraz orain nahi dezu
dena kontrolatu
zure esana nahi nun
orain aintzat hartu ;
hamabost ex horrela
kolpetik kontatu
eta nere ama ez
dezu gonbidatu.

I. Zelaia:
Hamabost exak dauzkat
bistan parez pare
zu berriz zera sendi
haundiaren jabe;
zure ama ederki
ezautze't hala(e)re
ta hura etorriko da
gonbidatu gabe.

N. Elustondo:
Hori kantatu dezu
oso modu lasaiz
halakoak aditu
izana naiz ni maiz;
denak gonbida itzazu
oaindik zabiltz garaiz;
badezu nun hautatu
ni joaten ez banaiz.

I. Zelaia:
Hamabost abentura
bizitzan barrena
gaur zu ez etortzia
litzateke pena;
bihotzez entzun zazu
esango detena:
betirako dedala
hamaseigarrena.

Urriaren 6a, Errenteria

Unibertsitatera joan zarete matrikulatzera. Ikasgaiak aukeratzeko orduan, zuk, Iker Osa, gaur egungo bertsolaritza hautatu duzu. Zuk, Ibai Esoain, bertsolari klasikoak.

I. Osa:
Nahiz ez diodan egin
hainbat amenazu
bada ez bada ondo
aukera ezazu;
lehengo bertsolaritza
zertan zabiltza zu?
Alde earra Iriondo
edo Elizasu.

I. Esoain:
Elizasu guapoa
diote horrela
baina ez daukate lehen
zeukaten kordela;
uste det klasikoa
askoz hobe dela
nundik ikasi dute
gaurkoek bestela?

I. Osa:
Baina klasiko hori
dana oroitzapena
egungoa ez al da
ikasi behar dena?
Ezagutzen al dezu
hernaniar zezena?
Aurten gipuzkoakoa
jantziko duena.

I. Esoain:
Gaurkoa ta gaurkoa
a ze erraminta!
Ez dezu nahi itxuraz
asko ikasi ta...
Hernaniko zezena
zabiltza nahasita
han bat ezagutzen det
ta hura Txirrita.

I. Osa:
Baina lehengorik ez det
ahaztuko sikira
Txirritak sortu ohi du
hainbeste kupira.
Txapelketan sortu nahi
dutenek diztira
entrenatu ohi dira
Egañai begira.

I. Esoain:
Gaurko bertsolaritza
aztertzera noa:
ez da lehengoa bezain
jatorra, sanoa
haundin, txikin, kartzela
denetara doa
bazpa(e)re hobe izan
lasikomanoa.

Urriaren 20a, Azkoitia

Zu, Jexux Mari Irazu, zure bikotekideari barruko arropa sexya erostera joan zara. Dendaria, Agin Laburu, bikotekiaren aita da.

J.M. Irazu:
Lentzerira sartu naiz
nahiko pixkanaka
ikusi eta ia
bueltan atzeraka;
leopardozko tanga
zaidazu aparta
ai laguntxo batentzat
oparia da-ta.

A. Laburu:
Ez zaite jun hain azkar
zanpa zazu galga!
Oraindik ez da pasa
iraileko malda;
lagun batentzat ta ni
zurekin asalda:
ehizera joateko
lagunantzat al da?

J.M. Irazu:
Bai zure reflejoa
hartu behar det ontzat
ehiza kontuarekin
harremana behintzat;
ehiza lehen egin nuen
zuzena deritzat
kasu honetan degu
eskopetarentzat.

A. Laburu:
"Lagunarentzat dala
ez esan inori"
ahopeka esan dit
nik ulertu ongi.
Ta eskopetarentzat
tori, tori, tori
punteri txarra badu
alperrik du hori!

J.M. Irazu:
Uste det punterian
bera dala maisu.
Oraindik kotoaren
berri ez dakizu;
lentzeriako jauna
aizu, aizu, aizu
igual pizti txikin bat
iritsiko zaizu.

A. Laburu:
Beraz basapizti bat
aurre ta atzia
eta aitarentzako
hau da hau trantzia!
Pizti txiki bat bada
badu garrantzia
aitan iguala bada
kaiolan sartzia.

Urriaren 20a, Azkoitia

Zu, Unai Agirre, udaltzaina zara. Goizeko lauretan, artean taberna bat irekita zegoela-eta, isteko agindua ematera joan zara. Eta hara non ikusi duzun Xabier Sukia alkatea.

U. Agirre:
Kaixo alkate jauna
etxerik ez al zen?
Gaur ere ari zera
zu papelak galtzen;
laurak arte ez nintzan
tabernara sartzen;
berriz harrapatu det
ejenplua jartzen.

X. Sukia:
Zatoz barrura sartu
ta itxi atea;
zerbeza baso bat dut
zuretzat betea.
Bihar lehen orduan
sar zazu partea
baina ahaztu gabe
zein dan alkatea.

U. Agirre:
Honek ibili ohi du
hainbat kontrabando
hori gauza onena
ez degu izango.
Bihar hitz egingo deu
lasai eta ondo;
a lehenenego orduan
ez zera egongo.

X. Sukia:
Bueno ba hamabitan
juango naiz aupa;
herriak horregatik
ni ninduen hauta.
Porra xahar horrekin
nola egin zaunka?
Nere boligrafoak
indar gehio dauka!

U. Agirre:
Oraintxe berak ein du
porraren galdea
gaia desbiatzeko
abilidadea.
Agur alde egiteko
daukat nik idea;
bilatuko al dezu
etxera bidea?

X. Sukia:
Alkatea beti da
kondaira ta mito;
lasai ni etxera gaur
bainaiz iritsiko.
Bai, bai segi aldegin
atea itxi, kito;
Praxku beste kaina bat
ta jarri Benito!

Hitza: XXL

Agin Laburu:

Haunditasunan menpe
gabiltza beti gu
bat baino askoz hobe
baldin bada hiru;
arrakasta topera
behar aina diru;
handikerian ere
hain gera gatibu;
askon usteak taila
hain zuzen hori du.

Urriaren 27a, Eibar

Atzo adarrak jarri zenizkieten zuen bikotekideei. Zuk, Iker Zubeldia, lasai egin duzu lo. Iñaki Zelaiak berriz ez.

I. Zubeldia:
Kezkatzen zaituena
bikotean bronka;
kirioak dauzkazu
lepora igota
ta nei berriz gaurkoan
bat e(re) ez dit inporta
ohera joateko
nekauta nago-ta
lo egingo ez det ba
lau asalto jota!

I. Zelaia:
Lau asalto jotzea
ez degu normala;
badaukazu indarra
ez zera makala!
Baina nik berriz baju
daukat gaur morala
uste baitet adarrak
gaur esan bezala
nere andriarekin
jarri dizkadala.

I. Zubeldia:
Hala (e)re ez zait alda(t)u
neri kolorea
hala ere badaukat
nahiko balorea;
emakumatan beti
izan naiz trebea;
beti ezin ibili
bakoitzak berea
etxean egongo da
har zazu nerea.

I. Zelaia:
Orain esan dezunak
nolako ardura!
Ez pentsa hasieran
nik egin det duda
baina gaur segituan
etorri burura:
zuk tratatzen badezu
diozun modura
seguru nekatuta
dagoela hura.

I. Zubeldia:
Izango du izerdie
lepo ta kopetan
asko ateratzen da
horrelakoetan.
Nekatuta dagola
ai da errietan.
Etxera ez joateko
triste ta penetan
hartuko deu trago bat
argi gorrietan.

I. Zelaia:
Orain argi gorria
zutzat ez da traba;
onartzen det: ematen
didazu ikara;
bihar pikatxoiakin
lanera, plazara;
ohean horren ona
trebea bazara
jornala atera zazu
gigolo gisara.

Azaroaren 17a, Eskoriatza

Beñat Gaztelumendi eta Unai Agirre. Bi futbolari zarete. Gaurko partidan hamabosgarren gol aukera ere huts egin duzue.

B. Gaztelumendi:
Uste det porteria
estutu dutela

U. Agirre:
bateon bat sartuko nun
gaurkuan bestela;

B. Gaztelumendi:
Unai guk ezin degu
jarraitu horrela;

U. Agirre:
uste det porterua
onentsuna dela.

B. Gaztelumendi:
Baloia iritsi da
harea barrura

U. Agirre:
zuk eman akiozu
nik det mila duda;

B. Gaztelumendi:
erdiratuko dizut
nik zuri burura

U. Agirre:
ta nik emango diot
berriro eskura.

U. Agirre:
Portero gabe ere
sartuko al degu?

B. Gaztelumendi:
Keba! Horretarako
desastre gaude gu;

U. Agirre:
"Aldegin zak paretik!"
ein diot erregu.

B. Gaztelumendi:
Hamaseigarrenian
sartu dezakegu.

U. Agirre:
Bizi guztia hontan
ta ezin asmatu

B. Gaztelumendi:
baina hala're ondo
ohi degu kobratu;

U. Agirre:
gaur gol gehiegi ezin deu
guk guretzat batu

B. Gaztelumendi:
baino baten bat edo
behar degu sartu.

B. Gaztelumendi:
Bukatzear daukagu
bigarren zatia;

U. Agirre:
ni korrika nihoa
hemendikan ia;

B. Gaztelumendi:
nik ere ikusi det
zure desmarkia;

U. Agirre:
alde egingo det nik
utzi ta pakia!

U. Agirre:
Bate(re) ez asmatzeko
hobe ez saiatu

B. Gaztelumendi:
baina itxura pixkat
behar degu hartu.

U. Agirre:
Han beste bat bakarrik
azkar konturatu;

B. Gaztelumendi:
zaleak baietz aurki
gukin hasarratu!

B. Gaztelumendi:
Aurki bidali dute
direktiba ere;

U. Agirre:
hura bera joan da
egizu mesede.

B. Gaztelumendi:
Hau bukatzera doa
ta saiatu trebe

U. Agirre:
bate(re) ez saiatzea
ez al degu hobe?

U. Agirre:
Berriz ere segundan
baietz Erreala!

B. Gaztelumendi:
Arbitroak txistua
jo behar duala;

U. Agirre:
ea eskapa zaitez
nola edo hala!

B. Gaztelumendi:
Keba, keba gaur ere
galdu deu finala.

Azaroaren 17a, Eskoriatza

Paseatzen topo egin duzuen bi lagun zarete. Zuk, Jexux Mari Irazu, zure aita daramazu gurpildun aulkian. Zuk, Beñat Gaztelumendi, zure semea haur kotxean.

Doinua: Haiziak hi mutil mañontzi.

J.M. Irazu:
Nik aita daramat bertan
zu semearekin bueltan;
alde ederra soma liteke
bien gurpiletan.
Ikusten da egietan
keinu bana begietan;
hara hementxe gure bizitza
fase guztietan!

B. Gaztelumendi:
Metafora ederrena
ikusten degu gardena
biok bizitza arnastuz goaz
parkean barrena;
berdin-berdin da izena
aulki edo kotxearena
gurpilan bueltan jarraitzea da
ajola duena.

J.M. Irazu:
Zaila da hori berdintzen
ez zaio asko gelditzen;
"Kurpilak segi baina noiz arte?"
galdetzen det maizen.
Zu ongi semea zaintzen
ni ere ibili nintzen
baino aita zaintzen ez dira beti
semeak ibiltzen.

B. Gaztelumendi:
Hizketan ideiaz lepo
eta begira parkeko
zuhaitzak daude biluzik, lurra
alfonbra antzeko;
aukera degu konpleto
hostoetan ikusteko
zaharrek erori behar dutela
berriak sortzeko.

J.M. Irazu:
Bizitzaren parabola
ezin aldatu inola;
zuk borobildu duzu guztia
beti dariola;
semea bertan dagola
ipini eskutan hola.
Seguru nago muxu haundi bat
eman nahi diola.

B. Gaztelumendi:
Bi eskuak kotxetxora
haurtxoa bere altzora
muxua eman nahiko balio
emango dio ba!
Sentitu dadin gustora
gelditu dadin denbora
gonbidatuta zaudete biok
bere bataiora.

Abenduaren 16, Donostiako Illunben, finala

Hasierako agurra.

Doinua: Zaldi zuriarena.

Beñat Gaztelumendi:

Hau omen da Illunbe
aibala, aibala
uste nun haundigua
izango zala!
Etorri gera zazpi
zezen eta txahala;
kantatu nahi det lasai
banengo bezala
pentsatuz hau dala
nere etxeko sala;
bi adarrak hala
zorrotz ditudala...
Gainditu nahi nauenak
sufri dezala!

Farmazialaria zara, Beñat Gaztelumendi. Guardian zaudela, Unai Agirre etorri zaizu, goizeko bostetan, kondoi eske.

B. Gaztelumendi:
Silloian esertzea
nuenez mesede
amets egitea nun
gaueroko lege;
ta kondoi bila zatoz
orain alafede!
Ni bezela ametsetan
al zeunden zu ere?

U. Agirre:
Hara! Bilatua det
farmazi edo denda;
goizeko ordu txikitan
hain gustoko prenda...
Gaua zer dan dakizu
isil zaitez benga!
Gutxina uste danean
ordun tokatzen da.

B. Gaztelumendi:
Bai zu ikusi eta
zail da pentsatzea
ez zera uste nuen
ligoian klasea;
farmazi bila dezu
gau dena pasea
soilik gelditzen zaizu
neska bilatzea.

U. Agirre:
Gaurko kondoi kaja da
oso garestia!
Neskak hemen ez daude
baina urrun ez dia;
gaur bat nik bilatu det
ona ta eztia...
Ez dezu pentsatuko
zuri aurkeztia?

B. Gaztelumendi:
Beraz txikiak eman
ohi dizu ikara;
inbiritan al zaude?
Hara, hara, hara!
Gaurkuan ligatzia
hain erreza bada
farmazia itxi ta
goazen tabernara!

U. Agirre:
Ikusi dedanian
begien diztira
zurekin ez nijoa
lagun urrutira;
ligatzea zaila da
baina ai! Begira:
kondoiak garestigo
ateratzen dira!

Jexux Mari Irazu - Aitor Mendiluze. Abokatu bufete bat daramazue bion artean.
Emakume bat bortxatu duen batek bera defendatzeko eskatu dizue.

J.M. Irazu:
Abokatu naiz nere ofizioan
asko ikusia nago
kontzientzian gainetik nere
ofizioa oparo;
kondena ezin eman liteke
epaitu baino lehenago
eta bortxatu egin duela
frogatu egin beharra dago.

A. Mendiluze:
Bai, bai nahiz eta medioetan
epaiturik duten aurrez
bufete hontan erabakiak
ez dira hartzen hain errez;
guk defendatu ta epaitzea
hala dagokio legez;
epaile batek esan behar du
erruduna den edo ez.

J.M. Irazu:
Ikusten da bai gaurko hau dela
benetan kasu gogorra
ikuitzen baitu indarkerian
generoaren alorra.
Defenditzean aldekoa naiz
bere argudioak horra;
entzun ondoren eskatuko det
tokatzen zaion zigorra.

A. Mendiluze:
Gure lan honek badauzka beraz
aurrea eta atzea;
nola liteke defendatu ta
zigortzeko eskatzea?
Ba horixe da, tokatzen zaigu
bi alde kontra jartzea
galdu dezala desiatu ta
irabazten saiatzea.

J.M. Irazu:
Irabaztea desio igual
izan leike azkenean;
gertaera baten alde bakar bat
daukagu aldamenean;
honi baietza eman ta segi
geure abokatu lanean
ta berdin baietz esango degu
biktima etortzen danean.

A. Mendiluze:
Biei emango zaie baietza
ta lanari lotu estu;
bien aldeko frogak bilatu
biak legeaz babestu;
biekin joan epai gelara
ta bien frogak aurkeztu...
Hortik aurrera pasako dena
ia ez dago gure esku.

Aitor Mendiluze-Beñat Gaztelumendi. Bi espermatozoide zarete. Hil edo biziko lasterketan zoazte.

B. Gaztelumendi:
Salto egin degu ta
hor guaz aurrera

A. Mendiluze:
baina hau ilun dago
zergatik ote da?

B. Gaztelumendi:
Ta zera nun galdu da?
Hori da galdera

A. Mendiluze:
segi, segi ta noizbait
iritsiko gera!

A. Mendiluze:
Hor aurrean behar du
mugitu buztana!

B. Gaztelumendi:
Beraz entzun behar det
zerorrek esana

A. Mendiluze:
baina milaka goaz
eta hau ez da plana...

B. Gaztelumendi:
Helduko da azkarren
ibiliko dana.

B. Gaztelumendi:
Ta nik dadukat askoz
itxura hobea;

A. Mendiluze:
biok aukera bera
daukagu ordea.

B. Gaztelumendi:
Txikitasunak badu
bere balorea;

A. Mendiluze:
mugituz azaltzen da
abilidadea.

A. Mendiluze:
Ta behin heldutakoan
zer eiten da gero?

B. Gaztelumendi:
Nik jakingo dedanik
ez zazu espero;

A. Mendiluze:
akaso sartu behar da
arraultzera edo;

B. Gaztelumendi:
orain konturatu naiz:
egiten du bero.

B. Gaztelumendi:
Baino ni helduko naiz
zalantzarik gabe;

A. Mendiluze:
biok karrera hontan
goaz parez pare;

B. Gaztelumendi:
ni txoko guztitatik
sartzen naiz hala're...

A. Mendiluze:
Hor dezu ba txoko bat
ta zeren zain zaude?

A. Mendiluze:
Hara han ikusten da
zera borobila;

B. Gaztelumendi:
lehen ere irten gera
gu beraren bila;

A. Mendiluze:
bai baina zure aldean
nik daukat hurbila

B. Gaztelumendi:
baina azkarrena dena
iritsi dadila.

B. Gaztelumendi:
Eta azkenerako
nik egin det salto;

A. Mendiluze:
bai baina azaletik
ez zera pasako.

B. Gaztelumendi:
Beraz pixkat gehiago
saiatu beharko;

A. Mendiluze:
zugandik gauza onik
ez da aterako!

A. Mendiluze:
Beno azken kolpea
ta biok barrura.

B. Gaztelumendi:
Beraz biok lortuko
al degu helmuga?

A. Mendiluze:
Bixkiak dira, juxtu
nahiko zuten hura.

B. Gaztelumendi:
Zeozer egiteko
garaia heldu da.

2009KO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Talde antolatzailean: Aritz Zerain

Epai-mahaian: Bakarne Urreaga

SAILKAPENA	
1. Maialen Lujanbio	1.630,75 puntu
2. Amets Arzallus	1.582 puntu
3. Jon Maia	1.060 puntu
4. Andoni Egaña	1.058 puntu
5. Unai Iturriaga	1.046,25 puntu
6. Sustrai Colina	1.037 puntu
7. Aitor Mendiluze	1.009,25 puntu
8. Aitor Sarriegi	983,75 puntu

BERTSO ESKOLA SAILKAPEN TAULAN

Finala:

- Maialen Lujanbio: Txapelduna
- Aitor Mendiluze: Zazpigarrena

Finalerdiak:

- Iñaki Zelaia
- Beñat Gaztelumendi

Final laurdenak:

- Jexux Mari Irazu
- Unai Agirre

Aho zapore gozoena utzi zidan txapelketa izan zen hau. Haurraren jaiotza zela eta gutxien prestatu nuen txapelketa eta oholtzan gehien gozatu nuena, finalerdietako 2 itzulietan kantatuz Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze.... bezalako bertsolari konsagratuekin. **[Iñaki Zelaia]**

TXAPELDUNAREN AGURRA

Abenduaren 13a, Barakaldo

Doinua: Martxa baten lehen notak

Maialen Lujanbio:

Gogoratzen naiz, lehengo amonen
zapi gaineko gobaraz
gogoratzen naiz, lehen amonaz
gaurko amaz ta alabaz.
Joxei ta zuei, mila zorion
miresmenaren zirraraz
ta amaituko dut txapel zati bat
zuek guztiontzat lagaz.
Gure bidea ez da erreza
hete legez, juizioz, trabaz.
Euskal Herriko lau ertzetara
itzuliko gara gabaz
eta hemen bildu dan indarraz,
grinaz eta poz taupadaz
herri hau sortzen segi dezagun
euskaratik ta euskaraz.

Maialen Lujanbio Zugasti, Joxe Agirrek jantzitako txapela buruan.
Argazkia: Dani Blanco/Argia.

MAIALEN TXAPELDUN

Emakumea eta boterea bada gai bat. Agian kosta egiten zaigu leku horretan egotea ere. Agian badu horretan zerikusia emakume izateak. Zenbaitek esan dit "ez da ikusten txapeldun bat zugan". Estilo kontu bat ere bada, nik ez dut azpimarratzen hori. Edo agian beldurra? Bietatik izan dezake. Azpimarratu nahi ez izatea izan liteke beldur bat edo baita gauzak beste era batera bizitzeko gogoa ere. Hori bai, asumitzen dut nire lekua, leku horren garrantzia eta sinbolikotasuna. Egon behar zen tokian egoten saiatu naiz. Baina toki guztietan ez egoten ere saiatu naiz, bistan ez egoten tokatzen ez zenean, ez zaidalako gustatzen.

[Argia, 2013-12-05, 2.394 alea]

HITZETIK HULTZERA

Bertso eskolako harremanetatik lan proiektuak ere atera dira. Horrelaxe sortu zen Hitzetik Hultzera web telebista saioa: Agin Laburu (Info7 irratia), Jexux Mari Irazu (Bertsoa.com) eta ni (Argia) bildu eta hiru medioen elkarlanean egina. Aginek irratiz ematen zituen saio denak, eta nik Argiarako jarraitzen nituen, beraz, edukia (gidoia) bion artean osatzen genuen, eta aurkeztu ere bai.

Ederrak ziren astelehen goizeko gosari horiek: bion artean asteburuko bi saioak errepasatu, bakoitzetik bertsoaldi batzuk hautatu, analisia adostu, eta Argiako gela txiki batean grabatzera. Gidoia oso xinplea zen, eta Asier Lopezek (Argia) grabatzen zuen. Kamera aurrean sortzen zen beste dena. Elkartzean berez ateratzen zaigu arpa-jotzea eta umorea (txorakeria ere bai gehiegitan) eta hori nola-hala pantailara iristen zen. Batez ere Aginek grabatzerako momentuan bertan izaten zituen erreakzioekin. Erreportaje zirikatzaileak ere egin genituen, "Asociación de Víctimas del Bertsolarismo" adibidez.

Irazuk Bertsoa.comerako grabatzen zituen bertso denak eta berak pasatzen zizkigun irudiak.

Finala Hitzetik Hultzeratik eman genuen zuzenean Bertsoa.com, Info7 eta argia.cometik, Anne Igartiburuk bezala (berak TVErako). Publikoko jende ezagunari elkarrizketak egin genizkion zuzenean, Aginek Jokin Sorozabal eta Anjel Mari Peñagarikanorekin batera egiten zituen komentarista lanak bertsoen artean...

Programa ganberroa izan zen, euskarazko lehen web telebista saioa egin genuen, eta hiru medioen arteko elkarlana abiarazi.

[Estitxu Eizagirre]

Urriaren 18a, Zarautz

Kartzelako gaia: Telefonoa jo eta jo ari da, baina ez duzu hartu nahi.

Unai Agirre:

Hilabete bat pasatua det
halamoduzko peskisan
herriko festak izaten dira
orain hor eta berriz han.
Neronek ondo jakin nezake
nundikan nora zabiltzan
neu're gazte izan nitzan
garai batean bizitzan.
Jo ta jo dabil jo ta jo berriz
amorratuaren gisan
goizeko lautan telefonoa
ona ezin leike izan.

Zerbaitek dio ordubetean
geldi geratu nadila.
Gurasoaren bizitza degu
batzuetan marabilla
baina besteetan gure barruan
sortzen dan kezka isila...
Imajinatzen dut hila
edo gaxoa, zurbila.
Jaiki ohietik arnasa hartu
lasaitu zaitez mutila!
Mundua ez da beti beltza ta
salara joan zaitez bila.

Hainbeste bildur sartuko zenik
ez nuen asko usteko!
Baina azkenean atrebitu naiz
ondo batekoz besteko.
Amesgaizto hau buka dadila
buka dadila konpleto!
Egiz garbi esateko
ez zait atera hain terko.
Berak esan dit "Atta etorri"
parre-murritz bat tarteko
gasolinarik gabe dagola
ta bere bila joateko.

Azaroaren 7a, Bergara

Herri bereko bi herritar zarete. Zu, Jon Martin, igandero joaten zara mezetara, eta eliza erdi hutsik egoten da. Gaur telebista meza grabatzera datorrela-eta, inoiz ez bezala, Maialen Lujanbio ere etorri da.

J. Martin:
Hainbat kamara eta
mikroak zintzilik
nahiz ta deskonektatu
gu ez gaude hilik.
Bada zu bezelako
pertsona abilik
fedea duzu bainan
telebistan soilik.

M. Lujanbio:
Jainkoa ere dabil
estu eta larri.
Ni elizara ez naiz
ez azaltzen sarri
baina ezin leporatu
hori herritar horri
Jainkua ere badabil
juan ta etorri.

M. Lujanbio:
Orduan telebista
da zuretzat mamu
juxtu bihurtu dena
neretzako amu.
Etorriko nintzake
ez nintzake damu
koro hau zenutela
jakin izan banu.

J. Martin:
Gaur loditu da dagon
jendean zerrenda
beteagoa dago
Luxianan denda.
Jainkoa leku guztitan
egoten da benga
ez dagonean ere
bertan egoten da.

[Argia joan zen eta bertsolariek mikrorik gabe jarraitu zuten]

J. Martin:
Lehen mikrofonoak
ederki zebiltzan
baina ohartu zara
dagoen baldintzan:
argia eten dute
ikusten den gisan
Jainkoaren zigorra
ez ote da izan?

M. Lujanbio:
Elizak ari dira
husten, husten, husten...
Zuen poltsarik ez da
ja gehiago puzten.
Nahiz ta gaur telebistan
grabatu gaituzten
lasai ETB ez du
inortxok ikusten.

2009-11-07 Bergara

Beñat Gaztelumendi eta Maialen Lujanbio. Zuen semeak neska bat bortxatu eta hil zuen. Haren aurkako epaiketa gaur hasiko da, eta oraintxe sartu zarete epaitegian.

M. Lujanbio:
Urtebete bat pasa da baina
oraindik ez nago lasai
gaur da eguna epaitegira
sartzeko izerdi hotzez blai.
Ama den harek umetokia
besten bizitzen bizigai
nere semean ama naiz baina
neska harena ere bai.

B. Gaztelumendi:
Gure semea zen joaten zena
guri helduta parkera
txikia zela zeuzkana hiru
urte ta mila galdera.
Ez dit ardura zenbat urtean
dijoan ziegara bera
nere semea ere hil baitzen
neska harekin batera.

M. Lujanbio:
Hil zen semea ta hil ginen gu
egun hortan juan zen dana
orain arteko gure historia
kolpez bihurtu zen drama.
Hala're badet kezka sakon bat:
gu gera aita ama
hari erne zaion amorru hura
hari guk erein izana.

B. Gaztelumendi:
Esaten nion "Hitz egin asko
eta borrokatu gutxi
inoiz ez zazu etsi nahiz dena
nahiko beztuta ikusi".
Ja hemeretzi urte baditu
dagoeneko da nagusi
eta neska bat hala tratatzen
nik ez nion erakutsi.

M. Lujanbio:
Ikasiko zun ordun kanpoan
zegon denbora apurrean.
Kontuak kontu neskaren ama
distantzia laburrean...
Eska dezaket errukia edo
belaunikatu lurrean
baina "Barkatu" ze hitz hutsa den
heriotzaren aurrean!

B. Gaztelumendi:
Bere argazki guztiak bota
behar ditugu ta punto
epaiketatik berriz etxera
gu inguratu orduko.
Amarengana barkamen eske
alperrik inguratuko
neri gertatu izan balitzait
ez bainuen barkatuko.

Kartzelako gaia: Argazkilaria zara. Oraintxe iritsi zara gertakariaren lekura, eta lanean hasteko unea da.

Doinua: Martxa baten lehen notak.

Maialen Lujanbio:

Irratiak zio(e)n kaleetan
zela jendetza demasa
pankarta baten ostean oihuz
bete kale eta plaza.
Egoera da tentsoa eta
bazun iskanbila traza
hemen norbere hitzari eusten
ere ez dago erraza.
Orandik entzuten da oihartzuna
hori pelotazo jasa!
Lurrean odol arrasto batzuk
ta tentsiozko arnasa...
Kordoietik hara-hona nabil
foto bila nere kasa
baina kaskodun batek esan dit:
"Hemen ez da ezer pasa".

Jendeak ihes ein du korrika
behe-barru ta taberna
hasi denean pelotazoen
eta tiroen galerna.
Lehen ere hau ikusia baitut
hainbat urteetan barrena
ikusi ezta ere hori pasa da
imajina nezakeena.
Poliziari aurre eginez
nere argazkilari sena
espaloi hutsak atera eta
esplikatu leike dena.
Nahiz eta ez dela ezer pasa
den esaten didatena
pasa ez denak erakusten du
sarri asko pasa dena.

Lehen ere problemak izan dira
orain sei urte inguru
lan egiten nun egunkariak
ze komeri! ze apuru!
Herritarrekin bat egin eta
beste berri bat helburu
eta geroztik Euskal Herria
dibujatzen dihardugu.
Herri berean gaude zu ta ni
baina nolako bi mundu!
Zure zentsura, zure ezetza
bortitz segunduz segundu.
Baina herri honen berri emateko
nola beti gauden gertu gu
argazkirikan ez izan arren
hitzak jarriko ditugu.

Azaroaren 8a, Gasteiz

Hilabete daramazue ezkonduta. Gaur Xabier Paya, Iñaki Zelaiak esan dizu ezin duela zurekin segitu.

Doinua: Haizak mutil mañontzi.

X. Paya:
Ezkontzea zen asmoa
ez al zan asmo sanoa?
Bete genuen baina sortu da
txarraren susmoa.
Eman dizut kariñoa
musua eta mimoa
horren gogorra ote da nire
sexu erritmoa?

I. Zelaia:
Polita izan zen boda
famili dana gustora
orain latigoz jotzea omen da
azken sexu moda
gauez erabat aztora
nabilki behera ta gora...
Hilabetean pasatu zera
usotik otsora. (bis)

X. Paya:
Gorputza gogoz nekea
baina heldu zan urtea
ezkondu eta zabaldu gendun
sexuan atea.
Ez zan traba esatea
hobe gendula maitea
ezkondu aurretik galtzea biok
birjinitatea.

I. Zelaia:
Juan ginan ezkontzera
zuk esan dezun antzera
biok birjinak gero gauean
hain goxo etxera...
Aurrera eta atzera
gehiegi aritzen zera
diferentzia haundia dago
galtzetik galtzera.

X. Paya:
Misionero gisako
ibiltzen zinan galako
niretzat aski ez da hori baina
zuretzako nahiko.
Akabo soka ta salto
felazio ta asalto
baina azkena egin dezagun
despedidarako.

I. Zelaia:
Beti gaude izerditan blai
sexua da gure etsai
eta gureai hartu diozu
despedida usai.
Zuk zure bidetikan jai
ni gabe ibil zaite lasai
nik despedidan kanposantura
ez nuke joan nahi.

Azaroaren 21a, Gernika-Lumo

Kartzelako gaia: Hirurehun eurorekin irten zara etxetik, eta ezer gabe itzuli zara berriz.

Doinua: Habanera.

Beñat Gaztelumendi:

Teniseko pilota hok
gora eta behera dabiltz
artekariek azpitik
so egiten dute irriz.
Haseran Aimarren alde
jokatu det kontu handiz
baina gero asperturik
nago jada Retegi Biz
dirua galdu ta galdu
ta ezer ez irabaziz
sarritan jokatu ohi det
era hontan arinkeriz
ta gaur beti bezelatsu
nahastuko nintzen neurriz.
Pilotaleku batera
ez naiz etorriko berriz.

Galdu nuen gaueroko
ardo eta patxarana
galdu nuen baserria
eta galdu nuen lana
galdu nuen burua ta
nere emazte laztana
galdu nuen familia
galdu aita eta ama
galdu nuen neukan hura
soilik gelditzen zait drama
galdu nuen semetxoa
dena eman diodana
galdu nuen bizi hontan
inporta zitzaidan dana
eta trukean zer izan
da irabazi dudana?

Famili normala ginen
zoriontsua tarteka.
Parkean ibiltzen ginen
umearekin lasterka
andrea ere zegoen
ta maitasunez beteta
baina hartu nuen dena
urrun bidaltzeko beta.
Sarri esaten zidaten:
"Jokua ez da errenta"
baina hain da tentagarria
apustuen erruleta
ta berriro egingo det
mundu ilun hontatik buelta
bizirik sentitu nadin
modu bakarra da-eta!

Azaroaren 22a, Iruñea

Iñaki Zelaia eta Aitor Mendiluze. Animalia exotikoen zaleak zarete. Etxean pitoiak, tarantulak, eskorpioiak, eta halakoak dituzue. Orain, egongelako mahaiaren gainean zaudete biak, azpian duzuen saguarekin ikaraturik.

I. Zelaia:
Oso gustoko animaliak
iguana ta tarantula
ta xagu batek ikaratzerik
ez nun usteko sekula.

A. Mendiluze:
Tarantula ta sugeei buruz
irakurrita geunden gu
baina hau ez det inoiz ikusi
ta honek zer egiten du?

I. Zelaia:
Honen berri nik telebistatik
jakina det ozta-ozta
zer egiten dun ez dakit baino
gu jaitsi ezkero kozka.

A. Mendiluze:
Halere ez da txarra izango
harrapatu ta akabo
terrariotik gure pitoia
begira-begira dago.

I. Zelaia:
Pitoia ere gosiak dela
oraingoz hala dirudi
ta kozka zeini egingo dio
xaguari edo guri?

A. Mendiluze:
Gelditu egin da begira dago
gauza xelebrea ezta?
Ez dakit ziur zertan ari den
beldurrez edo parrezka.

I. Zelaia:
Geuk moldatu behar deu nola hala
laguntza inork ez eskeini
zenizeroa botako nuke
baina nik ez dakit zeini.

A. Mendiluze:
Bota hautsontzi eta zapata
eta traste denak buka
badaezpada ere ondo apuntatu
arma gutxi dauzkagu-ta!

I. Zelaia:
Arma gutxitxo dauzkagula ta
hori ez da gero broma!
Beraz tiroa bakarra degu
izan beharko du ona.

A. Mendiluze:
Igual badago beste aukera bat
mahai honetatikan behera:
zure aldean ez da kristona
salta zaiozu gainera!

I. Zelaia:
Ez da komeni orain hemendik
horren azkar saltatzea
ez al da hobe mobila hartu
ta bonberoei deitzea?

A. Mendiluze:
Beranduegi izan liteke
hauxe da azken aukera
hil ala bizi eman eskua
ta goazen biok batera.

Azaroaren 29a, Donostia

Iñaki Gurrutxaga eta Maialen Lujanbio. Finalerako sarrerarik gabe geratzeko beldurrez, atzo jarri zineten leihatilaren aurrean, kanpin-denda eta guzti. Lerroan zuen aurretik zegoenak erosi ditu azken sarrerak.

I. Gurrutxaga:
Gure aurrean bi txorimalo
ta azkenak beraientzat
rebentarako aukera behintzat
emango ahal dute behintzat!

M. Lujanbio:
Bi txorimalo hoiek dauzkagu
gertuan ta parez pare
bertsoak aditzeko rebentan
zenbat patzeko prest zaude?

I. Gurrutxaga:
Bi txorimalo nola dauzkagun
rebentako parez pare
momentu hontan salduko nuke
nere bikotea ere!

M. Lujanbio:
Txapelketa aurten halako boom
ta exitoa izan da, ño!
Klasifikatzea errezago
sarrerak lortzea baino!

I. Gurrutxaga:
Beraz sarrerak lortzea zaila
omen degu geurekiko
lau urte barru badakit beraz:
apuntatu eta kito!

M. Lujanbio:
Hara! Hor pasa da Iturriaga
harrotasunez beteta
eska zaiogun seguru asko
erosiak zeuzkan-eta!

I. Gurrutxaga:
Erosita bi izango zitun
Iturriagak bazpa're
baina Durangon erosi gabe
lehendikan dexente daude.

M. Lujanbio:
Hor pasa da Iñaki Murua're
lehendakari ohoredun
horren xuabe hitz egiten du
ia ze borondate dun!

I. Gurrutxaga:
Hara Lizaso! Cuatro por cuatro
batekin dator xuabe
seguru bera sartuko dala
bat'e sarrerarik gabe!

M. Lujanbio:
Baina gu sartzea hain erreza
izango danik ez uste!
Antolakuntzako peto hoiek
txinotan saltzen dituzte.

I. Gurrutxaga:
Antolakuntza utzi ezazu
badaezpada apartean
ETB 1en ikusiko deu
anuntzioen artean.

M. Lujanbio:
Hainbeste denbora hemen pasa ta
ez sarrera ta ez bat'e!
Ba hamaka hontan geldituko naiz
U Dos-en kontziertoa arte!

Abenduaren 13a, Barakaldoko BEC, finala

Aitor Mendiluze, zure lehen laneguna da gaur, eta eguerdian lankideekin irten zara nonbait bazkaltzeko asmotan. Andoni Egaña ama dago atean, babarrunak termoan dituela.

A. Mendiluze:
Lehenengo lan eguna
hasi det honela
atarira irten ta
sorpresa itzela.
Sentitu nahi nuen bai
etxean bezela
baina esan nizun ama
hau gehiegi zela.

A. Egaña:
Klaro gero "Prip" ta "Prap"
han zortzi bat putre
babarrunak jatea
mesede zenuke
lana ze arraio dan
badakizu zuk'e
ta horrela azkarrago
egingo dezute.

A. Egaña:
Etxean beti gose
ta beti asekaitz
hargatik taperrakin
etorri ni garaiz.
Lantegitik irtena
zazpi lagun alaiz
denentzako egin det
zuekin joango naiz.

A. Mendiluze:
Uxatzeko esan det
ta zuk bueltan irri
semea berriz ere
denen parregarri.
Zerbait eskatzen dizut
ama nago larri:
ez zaidazu lepoan
serbilleta jarri.

A. Mendiluze:
Berehala topatu
dezu zuk lekua
berehala konpondu
besteekin tratua
denentzako taper bat
ondo berotua
ta gero bulegoan
haize girotua.

A. Egaña:
Noski hori zuretzat
litzake tristea
nik ez neukan burutan
horra iristea
baina eskatzen dizut
ai seme gaztea
bukatzean ahoa
garbitzen uztea.

Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio. Zuen ama gaur irtengo da anorexia gaixotasunetik sendatzeko zentrotik. Hirurentzako bazkaria prestatzen ari zarete.

Doinua: Haizak hi mutil mañontzi.

M. Lujanbio:
Gure amak ze gaitz grabe
eta guk ze atsekabe!
Itxuran miran ia ez zala
berrogeiren jabe...
Lehenik pure bat xuabe
gero arraia; hala're
astiro-astiro joan gaitezen
baina etenik gabe.

A. Arzallus:
Urteetako palizan
buelta hartu du balizan
ta orain garai berri bat hasten
dugunez bizitzan.
Arrai pixkat bere ditxan
asko ez, betiko gisan
berak ere ezetz esan beharrik
ez dezala izan.

M. Lujanbio:
Guazen beraz pausuz pausu
amari eginez kasu.
Animo ama proba itzazu
kutxaraka batzu
ispilua're hor daukazu
andre ederra zera zu
ispiluari gezurra zuk zeuk
esaten diozu.

A. Arzallus:
Ene zenbat korapilu
platera eta katilu
ispiluaren aurrera juan ta
bi begien brillu...
Baina ze ispilu istilu!
Ze arma ta ze iskilu!
Gaurtik aurrera gure begiak
dituzu ispilu.

M. Lujanbio:
Denborak aurrera darrai
garai batean nolanahi
esaten zigun "Bazkaritan ez
ba meriendatan bai!".
Lana da sinistea ai
lana da egoten lasai
gu bioi jaten eman zigunak
ez duela jan nahi!

A. Arzallus:
Ez zazu egin zalantza
irauliko da balantza
nik hartzen diet Eguberri zahar
pasatakoen antza.
Ama hor daukazu saltsa
jan lasai ta hartu hatsa
baina hori bai bukatu aurretik
ez zaitea altxa!

Medikua zara, Maialen Lujanbio . Minbizia duten ume bi ikusten dituzu ospitaleko korridoreetan gurpil-aulkiekin lasterketak egiten.

Zabal-zabalik geratzen zaizkit
nere begi nere aho
ospital hontan sartu zirala
denbora joan da luzaro:
abuztu, irail eta urria
bihurtu zaie azaro
ta zai-zai daude noiz irtengo edo
noiz aginduko "Akabo!".
Elkarri nola deitzen dioten
"Burusoiltxo!" eta "Kalbo"
minbizi duten bi umeeri
begira-begira nago
eurengan minak badu indarra
baina bizitzak gehiago.

Egiten dute irrifar eta
begitan dute dizdira
etsitzen dute nahiz ta lagunak
eta eskola desira.
Denborarako egin zieten
laguntxoei despedida
eta orain biak hemen dabiltza
juerga, salto, buelta, biba...
Tututxo batek lotuta dauzka
oxigenoan harira
baina kontentu ta lasai daude
jolas hoietan argi da
ta maitasuna behar dutenak
euren gurasoak dira.

Aita ta ama hor ikusten ditut
ta nola ez konprenitu?
Esperantzako eskatzen dute
arren zerbait zirrikitu.
Euren aurrean negar ein nahi ez
ta barrun ezin kabitu
urruntzen dira umeengandik
ta orduan begiak blaitu.
Nik gurasoei esaten diet
"Jarraitu! Gogor jarraitu!
Zuen umeak indartsu dira
hemen ez da deus amaitu
ze bizitzeko gogoa dunak
bizitzea lortzen baitu".

Buruz-burukoa. Kartzelako hitza: Sua.

Maialen Lujanbio:

Hura asmakizuna
homo habilisena!
Bazun intentzioa
bazuen sena!
Bi harrik elkar jota
txispa bat aurrena
asmakizun haundina
mendeetan barrena.
Sua da problema
zenbait basorena
edo jaki dena
berotzen duena
eta bi begiradek
sortzen dutena.

2010eko hamarkada

Etorkizunaren hazia

Aldaketa handiena ingurumenaren arloan gertatu da Hernanin 2010eko hamarkadan, hondakinen kudeaketan hain zuzen. 2002an Gipuzkoako Aldundiak errausketa aurreikusten zuen hondakinen plana aurkeztu zuenean hasi zen eztabaida. Txingudi inguruko medikuek lan itzela egin zuten errausteak sor ditzakeen osasun kalteez kontzientziatzen eta kontrako plataformak berehala ugaldu ziren. Errauskailuaren kokapen zehatza behin eta berriz aldatu izanak kontrako iritzia zabaltzen lagundu zuen gainera –Hernaniko mugan dagoen Igoin-Azpin jartzea ere proposatu zuen Donostiako udalak–. Azkenik, errauskailua Zubietan jarriko zutela erabaki zuten agintariek.

Errausketari alternatibak bilatu nahian, Usurbilen hondakinak atez ate biltzen hasi ziren 2009an, eta 2010eko maiatzean Hernanin ere sistema hori jarri zuten. Ordurako Hernanin Zero Zabor taldea sortuta zegoen, hondakinen kudeaketa burutsu baten alde lanean. Gerora Zero Zabor taldeak Gipuzkoa osora zabaldu ziren. Atez ateko bilketak herritar zenbaiten artean mesfidantza sortu zuen eta ika-mika eta oposizio handia izan zen –alderdi politikoak eta hedabideak tarteko– sistema hori ezarri aurretik eta ondoren. Aitzitik, emaitzak ikusgarriak ziren: %30 birziklatzetik %80 birziklatzera igaro ziren hernaniarrak. Gerora, Usurbil eta Hernani eredu gisa txalotu izan dira munduko hainbat tokitan, hondakinen kudeaketaren arloan; 2013an Luis Intxauspe alkatea Europako Parlamentuan izan zen azalpenak ematen.

Bilduk 2011ko hauteskundeen ondoren Aldundian eta udal askotan agintea hartu zuen eta atez atekoa Gipuzkoako beste zenbait herritara zabaldu zen. Gorabehera askoren ondoren, 2013an Zubietako proiektua etetea erabaki zuen Hondakinen Partzuergoak. Hondakinen eztabaidak herritarren pentsaera aldarazi du eta zero zabor filosofiarekin bat eginez urrats gehiago ematen ari dira toki askotan, autokonpostaren inguruan, esaterako.

Ezin da frogatu errausketak epe luzera osasunean kalteak sortzen ez dituenik, baina askok oso gogoan dute amiantoarekin gertaturikoa. Euskal Herrian milaka izan daitezke kaltegarria ez omen zen substantzia horrekin lan egiteagatik kutsaturiko lagunak, asko dira jada minbiziak hildakoak. 2010ean CCOO sindikatuak Hernaniko Orbegozo fabrikan amiantoarekin lan egindakoei ohartarazi zien Osalanekin harremanetan jartzeko; 2013ko ekainean Pedro Grijalba langile ohia hil zen amiantoak sortutako minbiziak jota.

Heriotza ilun gehiago ere izan dira urteotan. 2011ko uztailean Rosario Roman labankadaz hil zuen bikote-kide ohiak. Hilketa hark erakutsi zuen emakumeen kontrako indarkeria oso zabalduta dagoela XXI. mendeko Hernanin. Baina ez da muturreko egoeretara joan beharrik, arazoa estrukturala da eta guztiok gara horren parte: Udaleko Berdintasun sailaren arabera, genero indarkeriaren jatorria "emakumeek bizitzaren arlo askotan jasaten duen berdintasun eza da".

Urte hark beste ezusteko bat ere ekarri zuen amaitu aurretik. 2011ko azaroaren 6an azken hamarkadetako uholde larrienak bizi izan ziren Urumeako erriberan. Kalte handiak izan ziren –Elorrabiko zubia bera ere eraman zuen errioak– eta erakunde arteko mahaia osatu zen, uholdeen aurrean behingoz epe luzerako neurriak hartzeko –besteak beste Karabelgo zubia botatzea aurreikusten da–.

Hamarkada gaztea dugu oraindik honakoa, baina gertaeren zerrenda luzea da dagoeneko: Ereñozu auzo udal izendatzea; musika bandaren 150. urteurrena, *Hernaniko Kronikaren* 10.a; Kontrakantxa gaztetxearen eta gazte asanbladaren susperraldia; euskal jaiak berriz ere ospatzen hastea; errugbiko mutilen taldea ohorezko mailara igotzea; pelotan herriartekoan eta paletan irabazitako txapelak; futbolean eta atletismoan lortutako emaitza bikainak eta... bandera espainola udaletxean jarri behar izatea.

ETAk 2011ko urriaren 20an borroka armatua behin betiko bertan behera utzi zuela iragarri zuen. Bake prozesuan aurrera egiteko, preso politikoen egoerari irtenbide bat eman beharra ezinbesteko jotzen dute Euskal Herriko eragile ia guztiek. Aitzitik, Espainiako Estatua ez da mugitu ere egin errepresio mekanismoak lasatzeko, ezta bultzada politikoa duten auzietan ere. 2012ko irailean Hernaniko eta Urnietako 10 gazte epaitu zituzten Espainiako Auzitegi Nazionalean talde terroristako kide izatea leporatuta. Fiskalak 7 eta 9 urte arteko kartzela zigorra eskatu zuen bakoitzarentzat. Frogak? Inkomunikazio aldian egindako adierazpenak, kamisetak, pinak... Azkenean epaileak denak absolbatu behar izan zituen.

2008an ekonomiaren kaskarraldi bat baino ez zela uste zena, 2010ean jada ziurtzat zen gure artean geratzeko etorritako krisi sistemikoa zela hura. Langabezia bikoiztu egin da azkeneko bost urtetan: 2008ko irailean 790 langabetu zeuden, 2013ko uztailean 1.446 ziren lanik gabe zeudenak. Egoera larriagoa da kontuan hartzen badira iraupen luzeko langabetuak edo langabezia saririk gabe geratu direnak. Urteotan, bestalde, ez dira gutxi Hernanin itxitako enpresa eta tailerrak, horien artean Gureola Celulosas de Hernani S.A, paper lantegi historikoa.

Kaleratze, murrizketa, etxegabetze eta erreformei aurre egiteko langileek euren esku dagoen arma nagusia erabili dute: greba orokorra. Dozena erditik gora greba orokor egin dira eta paro partzial eta sektorial ugari ere bai. 2012ko martxoaren 29an lan erreformaren kontra egindakoa dateke guztietan sendoena, sindikatu nagusi denek babestua izan baitzen. Patronalak berak egun hartako greba orokorraren arrakasta onartu zuen.

Grebak eta sindikatuen ekintza bateratua langileen eskubideen defentsarako funtsezkoak diren gisan, krisitik irteteko alternatibak eskaintzea ere oso beharrezkoa da. Hernaniko Udalak 2013ko apirilean hitzarmena sinatu zuen Fiare banku etikoarekin eta herrian talde bat sortu da proiektu hori bultzatzeko. Gero eta zabalduago daude mundu finantzarioaren roletik kanpo aritzen diren kooperatibak, enpresak eta elkarteak, tokiko ekonomia sozialari begiratzen diotenak, ez gutxi batzuen patrikak betetzeko, baizik, guztion onerako jarduten saiatzen direnak.

URKO APAOLAZA AVILA

JOXE ANJEL ARANBURU JALON

1983an Hernanin jaioa



Etxean ez zen hainbesteko bertso girorik, igande bazkalondoko Hitzetik Hortzerari begiratu eta "hau hobea duk hau baino" esatea... Bizilaguna bai, Joxe Mari Arrieta, liburua aterea zuen eta bertsotan egiten zuen.

ELIZATXO IKASTOLATIK BERTSO ESKOLARA

Hasi, hasi, Elizatxo ikastolan hasi ginen, 6-7 urterekin egiten den ariketa klase horrekin: puntua jarri bi hitzen faltan eta ea eskua altxa eta zeinek betetzen duen. Orduko irakasleak, Rosa Tapiak gure amari esana zion: "bertso eskolan apuntatu behar duzu". Pare bat urte bertso eskolan egin nituen, tankera handirik hartu gabe; gazte xamarra nintzen agian han zeudenentzako, eta ikaratu eta etxera egin nuen. Ostera 14 bat urterekin pixka bat gehixeago zailduta jarri nintzen ikastolan, Eli Laburuk (Agin Labururen amak) bertsoa eskola orduz kanpo ematen baitzigun. Eta 16 urterekin berriz ere bertso eskolara egin nuen saltoa, baina orduan jada zaharrenak gu ginela, alde ederrean.

Bat-batean batere egin gabeak ginen, idatzi egiten genuen asko, bata besteari zirika. Klasean puntua paperean pasa batak besteari eta erantzunarekin ostera papera ekarri... baina bagenekien plazarako noizbait egitekotan orduan egin behar genuela. Gu bertso eskolara jada plazara ateratzea erabakita joan ginen.

Aitor Mendiluze izan genuen irakasle eta gero Gorka Tolosa, urte berean.

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	2000	Finalista
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	2001	Finalista

SARIKETAK

Hernandorena Saria	2006	Finalista
Lizardi Saria	2002	Finalista
Lizardi Saria	2004	Finalista
Osinalde	2004	Finalista eta entzularen saria

PLAZARATZEA

Hasiera hartan Agin Laburuk eta biok saio mordoxka bat egin genituen, gehientsuenak elkarrekin. Nik bidea ireki eta Aginek hautsi, normalean horrekin jokatzen genuen. Ni atentoxeago egoten nintzen bakoitza zein zen, eta esaten nion "hi, orain gorriko harekin sartuko gaituk".

Garai hartako politentsuena Loiolako jaitako hura izan zen. Joxe Luis Urdangarinek han zuen lehengusu baten bidez bidali gintuen biok; han bazen, Loiolako gazte koadrila bat San Inazio bueltan herri bazkaria egiten zuena. Astegun buruzurian, kalean inor ez eta festak zirenik antzematen ez zen garaian. Han bazkaritan bertsotan pixka bat egin eta gero arratsaldean kalejira bat egiteko gu bidali gintuzten eta bost urtean segidan joan ginen. Haiek askorik ez zuten behar eta guretzako kristoren aukera zen.

Gogoan daukat lehenengo kobratu genuen plaza Loiolako hori izan zela eta gainera bertsotan egin aurretik pagatu ziguten: "ostia, hi, Joxe Anjel, patu egin zigutek eta! Orain bertsotan ongi egin beharko diagu". Librean ikasi eta bertsotan soltatu, plaza horietan egin ginen. [**Agin Laburu**]

2003KO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Oihartzunen kantatu nuen (lehen fasean), eta oso puntu gutxigatik ez nintzen aurrera pasa. Niretzat txapelketa hura prestatzea mugarria izan zen, "periodikoa leitu egin behar dik" esaten zigun Unai Agirrek... Ordura arte pintxo bat jan eta bertso eskolara joan, eta asteroko ziria zer modutara esan izaten zen kontua. Han ez genion beste konplikaziorik eskatzen geure buruari. Jada txapelketa hartan gaiak beste buelta bat eskatzen zuen, politika zer edo zer jakitea, izen propio batzuk ezagutzea, beste errekurtso batzuek manejatzen jakin behar zen... ez zen betiko Eskolarteko Txapelketako bertsoa botatzea errima estuago edo zabalagoarekin. Gaiei buruzko iritzi bat eduki behar zen, eta ezin da iritzia hamar segundoan eraiki, aurretik landua eduki behar da.

2005ean GR Bertso Bidean kantari, Oiartzunen kontra.

PLAZETAN

2004an Bertso-Latako saioan kantatu nuen. Hura izan zen nire lehen plaza potoloa. Anjel Mari Peñagarikano, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Iker Osa, Amets Arzallus eta ni ginen. Egun hartako oso sentsazio politak ditut. Bakarka jarri zidaten gaia, eta jarri izana estimatu nuen. Errausteagiaz zen, Eñaut Agirre zen gaia jartzen, eta pare bat gai lehenago abisatu zidan "bakarka jarriko dizut".

Saio baten oroimen ona, dudarik gabe, Joxe Mari Mujika "Anatx" eta Jokin Sorozabalekin Portun egindakoa dut. Shangai tabernan, 15 lagunen aurrean, gehiago ez. Aranoko pilota partidako finala utzi nuen propio han kantatzeagatik. Anatxen nerbioak eta izerdiak dauzkat gogoan, eta oso gustura ibili nintzela. Beraien garaitako kontua besterik ez zen aipatu bi ordutan eta ez nintzen jokoz kanpo sentitu.

Urtero xamar inork deitu gabe egiten genuen saioa zen, Astigarragan Santa Anatakoa, Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluzerekin. Han izaten ginen bazkaltzen eta saioren bat edo beste egiten genuen bukaeran.

Jokin Sorozabalekin buruz buru aritu nintzen San Isidro batzuetan, baserritarren eguna berreskuratu zen urtean, 2005ean.

Behin Oialumeko festetan, Gorka Tolosa gai jartzen zela, Jexux Mari Irazu eta Sebastian Lizaso kupel artean ziren, Tturko bertsotan hasi zitzaien eta. Mikroa libre zegoen eta Agin Laburu, Tolosa eta hiruok bertsotan aritu ginen.

BERTSOA APARTATU

Aitonak eta amonak pare bat gaitz luze xamarrak eduki zituzten, segida xamarrean. Urte bat endredatuta pasatu nuen. Karreran ere urte bat atzeratu eta laugarren mailara ailegatu nintzen ikasgai zailentsuenak azkenerako utzita... ikusten nuen urte bat serio xamar hartu beharra neukala. Niretzat errazena zen ingeniaritzako matematika liburu bat hartu eta buruan bertso doinua ibiltzea, eta doinua buruan izanez gero, errima batzuk etorri egiten dira... Konturatzen nintzen distraitu egiten ninduela. "Deskantsu hartu behar diat" esan eta bertso liburu bat hartu eta ordubete hura leitzen pasatzen nuela. "Hau ez badut burutik kentzen, ez diat karrera bukatuko" pentsatu nuen.

Karrera bukatzearekin batera praktikak egin eta lanean hastea suertatu zitzaidan. Orain kontrako prozesua egin beharko nuke, nire buruari "bertsotan hasi egin behar diagu" esan. Orain astean zehar afaltzera joan eta berandu xamar erretiratzea endredoa da niretzako, hurrengo goizean goiz mugitu behar baitut lanerako.

Bertsoa uzterik ez dago, beti barruan ibiltzen da bueltaka. Baina plazara ez nintzateke edozein modutan aterako, arrisku ederra edozer gauza egin eta plazari beldurra hartzeko. Egitez gero fundamentuz egin nahiko nuke, irakurri eta bertso eskolako martxara itzuli...

Urtean saio bat egiten dut, Astigarragan.

BERTSO JARRIAK

Sariketa bat irabazi nuen 2005ean, Anpo enpresak antolatzen duena: 2006 arte MCCko langileen artean egiten zen. Enpresako giza baliabideetako arduradunak esan zidan: "hi, gainontzean ez gaituk ezertarako agertzen kooperatibetan eta sikiera sorta bat idatzi eta premioren bat eramaten baduk"... Iker Osak ere idatzi zituen eta esan zidan "hik irabazi al duk, nola duk posible, nireak hobeak izango hituen eta!".

BERTSOKERA

Gaiekin egindako saioek baino gustu hobea utzi didate beti libreko saioek. Bertso txarrekin gogoratzea zailagoa delako gaietan baino. Errazagoa da asmatutakoekin gogoratzen, hutsegindakoekin baino. Orokorrean begiratzen zaio saioari, ez da bertsoa aleka botatzean bezala neurtzen. Tabladoan nire burua gehiegi estutzeko zalea izandu naiz. Nire gustuko bertsokerarako mahai buelta nahiago dut, sueltoago egon, errimekin tarteka lizentziaren bat hartu astakeriaren batzuk esateko...

"Elkarrizketarako oso egokia da, oso kantu-lagun ona. Haustailea ez dena baina tarteka distira ateratzen dakiena, mahai bueltarako perfektua". [**Agin Laburu**]

GRABATZEN

Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin grabatzen aritu nintzen. Agin Laburu Bilbora joana zen ordurako, eta bertso eskolako gure taldea galdu xamarra zegoen. Helduagoak sozidadetan biltzen ziren. Nik gehixeago egiteko gogoa banuen, eta artean kotxerik ez, eta grabatzearena baliatzen nuen. "Jexux Mari Irazuk kantatu behar du Durangon" esaten zidaten, eta harekin zita egin eta harekin kotxean joan, eurek kantatu bitartean grabagailua jarri eta saioa entzun, mokadu bat afaldu eta etorri... aitzaki horretan buelta asko egina naiz eta plaza asko ezagutu nituen, bertsolariekin egon eta saioen aurreko eta osteko euren komentarioak entzun...

Aiherra Sariketa 2006-12-09

Hilabete pasatzeko asmoz Latino Ameriketako herri batera joan zareten bi lagun. Zu, Beñat Gaztelumendi, han hilabete pasa eta itzultzea pentsatu duzu. Zuk, aldiz, Joxe Anjel Aranburu, han geratzea erabaki duzu.

B. Gaztelumendi:
Uda haseran bidea hartu
nuen Argentinarako
baino bukatu bukatu da ta
etxera juan biharko;
nere etxian nere ohean
hola ibiltzen naiz bapo
toki guztitan dagoen hori
inongoa ez delako.

J.A. Aranburu:
Txango eder bat egin genduen
indigenengana edo;
hemen ikusi dedan guztia
ez nuen asko espero!
Hauek zer jana lortzen ez dute
erreza ez egunero;
nongoa naizen ez zaie inporta
pixkat lagundu ezkero.

B. Gaztelumendi:
Dirudienez indigena hoiek
badute nahiko bertute
zure herria ahaztu baitezu
maitasun pixkaten truke;
indigenekin gustora zaude
bueno hala dezu uste
baino zer janik ez duten hoiek
burua jan al dizute?

J.A. Aranburu:
Ur ponpa zahar bat konpondu nuen
ur pixkat eramateko
ta andre horri lagundu nion
haurrei ematen jateko.
Bururik ez dit neri inork jan
bateko edo besteko;
zerbait lagundu diet nik baino
dena dago egiteko.

B. Gaztelumendi:
Ta egin gabe dagoen hori
egin nahi dezu hala(e)re;
amona bati laguntzen edo
gustora jardun zerade;
ponpa bat ere konpondu dezu
nunbait baitzegoen grabe...
Hemen badago zer konpondua
Amerikara jun gabe!

J.A. Aranburu:
Gure herrian nunahi daukate
ospitala ta eskola;
ez konparatu herri honetan
ez dira-ta bizi hola.
Etxera itzuli behar badezu
ez zait askorik ajola;
nere amari muxu bat eman
ta esan ondo nagola.

AGIN LABURU REZOLA

1985ean jaioa, Astigarragan

Biografia:

Rezola eta Ipintza sagardotegietako semea izanik, bertan aritzen da parrillero. Kazetaritza egin du, eta, besteak beste, Hernaniko kronikan, Euskadi Irratian, Gaztesarean eta Info7n aritu da lanean. Hamaika Bertute ekimeneko kide izana. Lehen plaza: Hernanin, 2000n, Biteri Kultur Etxean, Bertso-Latako haurren saioan

[**Bertsolaritzaren datu basea / Bertsozale Elkartea**]

ETXEKO GIROA

Igandetan aitaren gurasoen etxera joaten ginen, eta Astigarragatik Oiartzuna bidean beti bertsotan joaten ginen eta bueltan ere bai. Familiako bazkaritan beti aitona, aita eta hiruok aritzen ginen. Aitona Urnietakoa nuen, Xoxokakoa, gero Lezon eta azkena Oiartzunen bizi zena.

Ikasi nituen lehen bertsoak Lasarterenak ziren, aitona eta aita haren zaleak zirelako. Umetan bertsotan lardaskan egiten nuen, eta klasean beti esaten zidaten "Agin, kantatu bertso bat!". Eskurtsiora joaten ginen bakoitzean, edo kurtso bukaeretan irakasleei kantatzea tokatzen zitzaidan... halakoetan aitak idatzitako bertsoak kantatzen nituen.

MARTUTENEKO IKASTOLATIK HERNANIKO BERTSO ESKOLARA

Joxe Luis Urdangarinekin hasi ginen ikastolan bertan bertsoa lantzen, eskola orduz kanpo. Hura bukatu genuen, eta egia esan, orduan ez nion zentzu askorik bilatzen bertso eskolan hasteari, etxean eta familian beti aritu garelako bertsotan. Amak konbentzituta apuntatu nintzen Hernanin. Gogoan daukat lehenengo urtean Jon Eizmendirekin ibili ginela baina hurrengo urterako utzi egin nuela. Gero berriz hasi nintzen Joxe Anjel Aranbururen taldean, Aitor Mendiluze irakasle genuela. 14 urte izango nituen.

Lehenengo urtean Aitor Mendiluze izan genuen irakasle, eta urte bukaeratik aurrera Gorka Tolosa. Eta hurrengo urtean Iker Osa.

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa	2001	Finalista
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	2000	Parte-hartzaile
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	2001	Txapelduna
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	2002	Finalista
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	2003	Parte-hartzaile

SARIKETAK		
Hernandorena	2005	Parte-hartzaile
Lizardi Saria	2004	Finalista
Lizardi Saria	2005	Finalista
Lizardi Saria	2006	Txapeldun ordea
Osinalde	2005	Finalista
Plazatik Gaztetxera	2007	Txapelduna

LEHEN SAIOAK

Hasiera haietan, saio denak librekoak ziren: poteo tipora, plazan Astigarragan herri kirolak ziren bitartean, Santio Mendin Ama Birjinetakoa egiten dugula ere urte batzuk badira...

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2003	Bigarren fasea
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2007	Azken laurdenak
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2011	Finalista
Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa	2013	Final-erdiak

2003KO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Gipuzkoako Txapelketako entrenamenduak mugarri izan ziren niretzat. 2003an, sozidadetan biltzen hasi ginenean. Txapelketa hura Ereñozuko eskolako goialde hartan preparatu genuen, bai Joxe Anjel Aranburuk eta bai nik, han biltzen zen taldearekin.

Oihartzunen kantatu nuen eta aurrera egin nuen.

Urte hartan, 18 urterekin, Eskolarteko Txapelketako bost bertsotatik Gipuzkoako 14 bertsora pasatzea tokatu zitzaidan, ez nuen sariketek ematen duten ibilbide hori egiteko tarterik izan. Saltoa ikaragarri handia sumatu nuen. Niretzako txapelketa hura beste mundu bat zen. Bertsotan mugarria izan zen, txipa aldatu arazi zidan.

2007KO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ez dut aldaketa handirik sentitu. Nik uste bertsotan baino gehiago pertsona moduan heldu naizela. Etxetik kanpo Bilbon bizi izanak bastante zaildu nauela uste dut. Mundu hau zer den gehiago ikasi dudala lau urte hauetan.

2001ean, Antonio Camposen eskutik jasotako Eskolarteko txapela buruan.

PLAZETAN

Hernanin saio potolotan bi aldiz kantatu dut, bat San Joanetan plazan eta beste behin Bertso-Latan Biterin.

Lehenengo saio potoloenetako bat Santio Mendin egingo nuen, Maialen Lujanbio eta Imanol Lazkanorekin. Eskolarteko Txapela irabazi eta hurrengo urtean. Harrezkero urtero kantatzen dut Santio Mendin.

Astigarragan saioren bat denean normalean nirekin akordatzen dira. Suertez, nik aukeratzen nuen San Roketan Astigarragan zeinekin kantatu. Gustuko askorekin orduan kantatzeko aukera izan dut.

Beste saio potolo bat Aranoko Santio festetan egin nuen, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Unai Iturriagarekin. Unai Elizasu zen gai jartzen.

Ereñozun ere kantatu genuen Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Joxe Lizaso, Julen Zelaieta, Jokin Uranga eta nik. Gai-jartzen Aritz Zerain aritu zen.

TABLADOAN

Igo aurretik beti dut kezka eta ongi egin nahia. Gaizki eginaren sentsazioarekin jaisten banaiz, etxera umore txarrean itzultzen naiz, baita lau katurentzat aritu banaiz ere. Kontzentratzea gehiago kostatzen zait mahaian. Bertsoa hasi eta buka kontzentratuago botatzen dut mikrofonoan, zutik. Horretara ohitu gara.

BERTSOPAPER LEHIAKETAK

Koldo Mitxelena Literatur Sariketa	2000	1. saria
Koldo Mitxelena Literatur Sariketa	2001	1. saria

2006-12-30 Hernani, jaialdia

Jokin Sorozabal senarra eta Agin Laburu emaztea zarete. Biok taberna batean sartu zarete. Tragoa eskatu eta berehala senarra makina txanponjalera hurbildu da emaztea bakarrik utzita. Emazteak barran kafesnea edan du, eta senarrarengana hurbildu da goxo antzera.

A. Laburu:
Nere kafesne bat hartu det ta
zuk berriz zure tragoa
ta igandero bezela zoaz
makina horren ondoa;
adizu Jokin badet zurekin
hitz egiteko gogoa:
nere ahotsa ez al da klink-klink
hoi baino goxoagoa?

J. Sorozobal:
Arrazoi dezu zure ahotsa
polita da gehienian
baina makinan jokatzen det nik
tabernan nabilenian;
suerterik bada honek'e klink-klink
egiten du azkenian
zuri ahotsa aldatzen zaizu
hoi entzuten dezunian.

A. Laburu:
Ene senarrak hola hitz egin
behar al dit alafede!
Txanponen joku horretan nahiz ta
ibili ohi zeran trebe
zure ahotsa ene maitia
sarri ez det egiten nere;
ez dakit inoiz zure ahotsa
aldatzen ote dan ere.

J. Sorozobal:
Nere ahotsa berdina omen da
eskasa edo ustela...
dudik ez dago bere onenak
aspaldi eman zituela.
Bakoitzak bere diruarekin
bete behar du papela
eta neurea gastatu nahi det
nik nahiko nukeen bezela.

A. Laburu:
Zuri dirua zuk gastatzea
lasai edota urduri
inportik ez dit nahiz ta ardoa
alkandoratik isuri;
baino afaria diru horrekin
prestatutzekotan zuri
afaldu behar dira hiru limoi
edota hiru marrubi.

J. Sorozobal:
Oraingo hontan izurratu dit
gaur iluntzerako plana;
hain zuzen hori ez da izango
neure buruan neukana.
Zenbaitek badu loteriakin
suerte hartzeko afana;
azken batean Estatuari
ematen diogu dana.

A. Laburu:
Hogeita hamar urte ezkondu
hogeita beatzi aldrebes...
Zure izaera kanbiatzia
kostatu behar zait nekez.
Estatuari dirua eman
omen diot nik'e errez;
zuk'e norbaiti emango zenion
andreari behinipin ez.

J. Sorozobal:
Estaduari dena emateak
neri ematen dit mina
ta ikusten det zeure aldetik
nola dagoen ezina;
hila joan eta hila etorri
kartera gordin-gordina...
nahiago nuke diruagatik
hasarretuko bagina.

BEÑAT GAZTELUMENDI ARANDIA

1987an jaioa, Añorgan



ETXEAN

Ama Albizturkoa da, eta kontatzen du bere aitona bat bertsotan aritzen ote zen...

Gure aitona gurekin bizi da etxean, eta gustatzen zaio errimatuz hitz egitea. Amonak bertso zahar pila bat dakizki.

Saiotara joateko ohitura hartu zuen aitak, euskararen mundua transmititu nahi zigulako, Donostia izkina honetan nahiko zaila izaten baita mantentzea. Bertsozaletuz gero, beti euskal hiztunak izango ginela pentsatzen zuen.

Gu jaio eta berehala hasi zen gure aita Usurbilgo bertso eskolan. Etxean hasieran bertso zaharrak kantatzen genituen, gero egokitutako bertsoak kantatzen hasi zitzaigun, gero eta bost urte genituenerako Amasorrain ikastolako bertsolariak ginen, bertsotan jakin ez arren. Txirritaren bertso zaharrak kantatuz aritzen ginen ikastolan.

GAIXO

8-9 urterekin gaixotasun bat eduki nuen. Urtebete egon nintzen gurpildun aulkian, eta aitaren kaseteak hartu nituen, 1989ko Txapelketako bertsoak, eta denbora haiekin pasatzen nuen. Nik uste 9-10 urterako bat-batean egiten nuela. Etxean ikasi nuen, eta Gabonetan eta kantatzen genuen... bertso eskolan beranduago hasi ginen, 10-11 urterekin.

BERTSO ESKOLETAN

10 urte neuzkanean bat-batean zerbait egiten nuen, tira bat-batean, idatzi gabe baina pentsatzen bost minutu pasatuz, eta txapelketan parte hartu nahi nuen: bat-batekoan ez nuen parte hartu baina idatzizkoan bai eta aipamen berezia atera nuen. Eta ama bertso eskola baten bila hasi zen, taldeka parte-hartzeko, ilusioa ikusten zidan...

Iker Alustizarekin jarri ginen harremanetan eta berarekin hasi ginen Luberri Ikastolan.

Bestalde, aitak egun batean Usurbilgo bertso eskolara eraman ninduen berarekin eta han zeuden Ibai Esoain eta Xabier Sukia, eta beraiek esan zidaten nola asmoa zeukaten Igeldon bertso eskola bat jartzeko eta ea animatuko nintzen.

11 urterekin bi bertso eskolatara joaten ginen: larunbat arratsaldetan Igeldora, arratsalde pasa gehiena; joan eta bertso zahar batzuk kantatu, tarteka bat-batean zer edo zer egin, bukatutakoan tabernara joan eta batido bat ateratzen ziguten eta gustura... eta Alustizarekin 11 urte neuzkala hasi ginen, abendu aldera, txapelketara begira Antiguako taldearekin prestatzen. Urte horretan atera nintzen lehenbiziko aldiz Eskolarteko Txapelketan.

Eskolarteko hartan nirekin parte hartzen zutenak ni baino bi-hiru urte zaharragoak ziren, azkeneko urtea zuten taldeka ateratzeko. Alustizak ikusten zuen jarraitzeko ilusioa bagenuela, eta talde batean sartu nahi gintuen.

Beñat eta Unai Gaztelumendik zerbait gehiago behar zutela ikusi nuen. Bertso giro hori zabaldu egin behar zen, ezin zen pareta batzuen artean gelditu eta Hernanira bideratu nituen. [**Iker Alustiza**]

HERNANIKO BERTSO ESKOLA

Hurrengo urteko Eskolarteko Txapelketa baino hilabeteren bat lehenago sagardotegian bazkaria egin zen Hernaniko bertso eskolako ikasleekin. Jexux Mari Irazu eta Unai Agirre aritu ziren Txirrita eta Pello Errota jantzita euren bertsoak kantatzen... Iker Alustizak eraman gintuen; hori izan zen Hernaniko bertso eskolarekin gure lehenengo kontaktua.

Hernanin hasiera hasieran Estitxu eta Itziar Eizagirrerekin ibili ginen urte gehienetan, gero Joxe Anjel Aranburuk hartu zuen taldea, eta bukaeran gure artean biltzen hasi ginen, irakaslerik gabe.

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa	1999	Txapeldun (txikitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa	2000	Txapeldun (txikitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa	2001	Txapeldun (txikitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2002	Txapeldun (handitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2003	Txapeldun (handitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2004	Txapeldun (handitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2005	Finalista
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	1999	Finalista
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	2000	Txapeldun (txikitan, Hernaniko taldean)
Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa	2001	Txapeldun (txikitan, Hernaniko taldean)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2002	Txapeldun (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2003	Txapeldun (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2004	Txapeldun (handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2005	Finalista (handitan)

Eskolartekoan nire ibilbidea beti egon da sariekin lotua. Beti tokatu zait aurre xamar ibiltzea. Nik uste zerikusi handia izan zuela gaixotasun horrekin. Urtebete pasatzen baduzu kirolean galtzen duzun denbora bertsotan emanaz...

Bat-batekoan parte-hartu nuen lehen aldian ume bat nintzen: 11 urte, 1 metro eta 36 zentimetro. Ez zara kontziente, igotzen zara eta kantatzen duzu, jolas bat bezala. Lehenengo urtean Euskal Herrikoa irabazi nuen, eta hurrengo urtean, nabaritzen duzu jendeak begiratu egiten dizula, presio hori duzula. Nire ibilbide guzia izan da horrelakoa. Oholtzara igota ez nengoen lasai, irabazi nahi horrekin joaten nintzen, eta nik uste nire ondoko jende asko berdin joaten zela.

Suertea izan nuen, ez nintzen erori eta talde baten babesa ere izan nuen. Erori banintzen, ez dakit zer pasatuko zen.

Nik 1989ko Txapelketako kaseteak entzuten nituen eta 1989ko Txapelketan bezala egiten nuen bertsotan: bukaera karga karga karga egin, eta ordura arte bertsoa eraman. Ume batek kantatzen zuen nire ahotik, baina heldu baten ahotsa balu bezala. Sententzia oso definitiboekin, ez dakizu ezer baina dena jakingo bazenu bezala botaz. Eskolarteko Txapelketan sentsazioa neukan urtero gauza bera egiten ari nintzela, zazpi urte kantatuz eta beti antzerako sentsazioekin.

SARIKETAK

Abra	2006	Txapelduna
Erniarraitz	2006	Txapeldun ordea
Hernandorena	2006	Txapelduna
Lizardi	2005	Finalista
Osinalde	2006	Finalista
Osinalde	2007	Finalista
Xenpelar	2006	Finalista
Lizardi	2007	Txapelduna
Plazatik Gaztetxera	2006	Txapeldun ordea
Plazatik Gaztetxera	2007	Finalista

Lizardi sarian parte-hartu nuen lehen aldian finalera pasa nintzen baina finala oso handi geratu zitzaidan. Baina hor hasi nintzen ikusten bertsoa beste era batera ere bizitu zitekeela, berriz ere umetako jolas horretara bueltatuz.

Urte hartan Lizardin kantatu nuen, Erniarraitz sarian ere bai, Plazatik Gaztetxeran ere bai (kariño handiz gogoratzen dut, hor hasi bainintzen bertsoarekin berriz adiskidetzen, ikuspegi ludikoa ematen), Osinalden ere bai... urtero sariketa gehienetan kantatu dut. Xenpelarren kantatu izan dut, Hernandorenan ere bai...

Irabazitako sariketa batzuk baditut, baina giroa ere bestelakoa denez, txapel horiek erlatibizatzen ikasten duzu.

Bertso estiloan ere aldaketa handia egin nuen Eskolarteko Txapelketatik aurrera. Sariketetan zuretik gehiago kantatzen hasten zara. Arrazoiak ere ez dira hain kargatuak, ez dira hain definitiboak, erlatiboagoak dira, gazteagoak ere bai... estilo aldaketa horrek publikoarekin berriz konektatzen lagundu zidan, eta nire burua aurkitzen.

LEHEN PLAZAK

Añorgan urtero egiten zen bertso afaria Sebastian Lizaso eta Andoni Egañarekin. Niretzat polita izan zen, lehen aldiz eurekin kantatzera altxa gintuztenean. Hori da dudan umetako oroitzapenik politena. Ez genuen saio mundiala egingo, baina gutxi gora behera erritmoa segitzen genuen. Auzo baten babesa ere sentitu genuen.

Beste behin Algortan kantatzeko deitu zidaten, 12-13 urterekin. Aluzinatuta nengoen, Algortara adin honekin eta zertarako deitu didate niri? Joan eta Mañukorta eta Fredi Paiarekin kantatu behar nuela ikusi nuen. Antolatzaileak susto aurpegiarekin begiratu zidan, eta "zer gertatzen da?" galdetu nion. "Beñat Gaztelurrutiari deitu nahi genion baina nahastu egin gara, baina hala ere kantatuko duzu, ezta?", "bai". Egun guztiko saioa izan zen eta oroimen polita daukat.

PRESTAKUNTZA

Nik umetan bertso asko idazten nuen. Pila bat, koadernoak beteta dauzkat, ia gaixotasuna zen; besteak futbolean ari zirenean nik ez neukan zeregin hoberik eta bertsoak idazten nituen. Orain irakurri eta grazia ere egiten dute batzuek, "Euskal Herriko egoera politikoaz" 11 urterekin...

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2007	Txapeldun ordea
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2011	Txapeldun ordea
Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa	2009	Final-erdiak
Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa	2013	Finalista

2007KO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Txapelketek ere markatzen dute zure garapena nola doan.

Gustura ari nintzen bertsotan udaran, eta Lizardin nire anaiaren ordez kantatzea tokatu zitzaidan: niri ez zidaten deitu baina bera gaixotu egin zen eta azken momentuan nik kantatu nuen. Eta txapela atera nuen. Inportantea izan zen oholtza gainean nire buruarekin berriro konfiantza hartzeko.

Lehenengo saioa Orioko kultur etxean izan zen, eta kasualitatez sartu nintzen bigarren fasera, repeskatik. Eta bigarren faseko saio fuertea tokatu zitzaidan, Aitor Mendiluze eta Jon Maiarekin kantatzea. Tolosan zen eta azkeneko saioa zenez jende pila bat zegoen aditzen. Oroimen onena saio horretatik daukat. Tolosan zortziko handian Jon Maiarekin kantatzera atera eta ikusi nuenean ez ninduela jan eta erantzun egiten niola, bertsotan ari nintzela sentitu nuen, 10 urteko bidearen ondoren gai nintzela Jon Maiarekin ofizioka erridikulurik ez egiteko.

Beñat Gaztelumendi 2011ko Gipuzkoako finalaren atarian.

Iturria: http://irutxulo.hitza.info.

Azaroaren 4a, Tolosa

Zuri, Jon Maia, gustatzen zaizu tarteka lagunekin heriotzaz hitz egitea. Gaia ateratzen duzun bakoitzean, Beñat Gaztelumendik isiltzeko esaten dizu.

J. Maia:
Oraindik txiki samarra zera
bildurtia peto-peto;
hainbeste gauzai diozu oraindik
beldur eta errespeto
eta dardarka hasi ohi zera
hitza esan bakoitzeko;
aipatzea da era onena
mamu guztiak kentzeko.

B. Gaztelumendi:
Baino hitz egin orduko jartzen
da dena mamuz betea;
beti hartzen dezu zuk heriotzaz
hitz egiteko tartea
ta horregatik ez al da askoz
ere hobe Jon maitea
hori bakarrik helduko da ta
bizitzaz hitz egitea?

J. Maia:
Baina bizitzaz ez da bakarrik
bete pertsonaren poltsa
beti taupaka ez da egongo
gure barnean bihotza;
aipatu zazu, hitz egin zazu
ez baita horren arrotza:
bide bereko pausoak dira
bizitza ta heriotza.

B. Gaztelumendi:
Baino gaurkoa polita zan ta
biharkoa're polita;
biak batera daude bai baino
zertarako dezu kinka?
Zu beti zaude triste samarrik
ta beti beltzez jantzita
eta bidea ez da gozatzen
helmugaren zain jarrita.

J. Maia:
Ohituta nago beti honela
beltzez jantzita ibiltzen;
neri kolore faltsuak ez dit
hainbesterako agintzen;
hasi gaitezen nere hilobiko
hilarrietan ipintzen
"Bildurrik gabe bizi izan zen
ta bildurrik gabe hil zen".

B. Gaztelumendi:
Beraz beldurrik gabe aurkitu
zuen erremedioa;
beldurrik gabe bizitzea zen
eta bere desioa.
Tolosara joan ta azal dezagun
bertsozko afizioa;
ikas dezagun zein den benetan
bizitzaren balioa.

Ilunbeko finalaren sentsazioa ederra da, hainbeste txalo eta hainbeste jenderen aurrean kantatzea. Baina bertsolari bezala nik uste gehiago markatu ninduela Tolosako saioak.

Finalean buruz burukora pasatzerik ez nuen espero. Nik gozatu egin nuen buruz burukoan.

Beñat Gaztelumendi Bertsozale Elkarteko Iker Taldeko kidea, 2011ko Bertsolamintza jardunaldien aurkezpenean. Andoni Egaña eta Ainhoa Agirreazaldegirekin.

Iturria: irutxulo.hitza.info.

PLAZAZ PLAZA

Txapelketa baino lehen, bertsolaritza nire bizitzako gauza inportante bat zen. Batzuetan eguneroko bizitzatik alde egiteko terapia, nahiz eta bertso eskolara etorri eta igual bertsorik kantatu gabe egon. Urtean 40-60 saio egiten nituen, ongi.

Baina 2007ko Gipuzkoako Txapelketaren ondoren plazan ere eman beharra zegoen. Lehen plazara tarteka esperimentatzera joaten ginen, orain jada segurutik joatea gehiago gustatzen zait... alde horretatik aldaketa izan da.

Bertsolaritza bigarren planotik lehen planora pasa da. Baina sariketetan bizi nuen bezala bizi dut, gozatzera joaten naiz eta saio bakoitzaren ondoren ez dut ezer galtzen. Igual gaizki aterako da eta ez da ezer pasatzen, hurrengo astean beste saio bat egongo da, erlatibizatzen ikasi dut. Gipuzkoakoaren ondoren jendeak niri begiratzeko era aldatu da. Lehen saioko umea nintzen eta orain bat gehiago naiz. Kontzientzia hartu dut bertsotan zerbait banaizela.

Nire estiloa aurkitu dut, gustura nabil bertsotan, barrutik kantatzen dut eta saio bakoitzaren ostean polita da "gaur neukana eman dut" sentitzea, eta etxera hustuta iristea.

Bertso Eguna, 2012-01-28 Donostiako Kursaalen

Beñat Gaztelumendi, hogeita bost urte dituzu. Andoni Egaña, zuk bitan bete dituzu hogeita bost urte; hau da, berrogeita hamar urte dituzu. Imanol Lazkanok, berriz, hirurogeita hamabost urte ditu. Berrogeita hamar urteko soka da zuena. Zuetako bakoitzak bertsolaritzaren garai batzuk ezagutu ditu. Garai horretako bertso saioak, garai horretako bertsolari bizimodua, bertsolari belaunaldiak; miresten dituzue elkarren belaunaldiak ere, beste bertsolaritza garai hauek.

B. Gaztelumendi:
Bertsolaritzan belaunaldiek
eman digute oparo
baina ez gera ez adinaren
ta ez denboraren esklabo.
Belaunaldi ta bertsolariak
aurrera dira igaro
baina oraindik oholtza honetan
denontzat tokia dago.

A. Egaña:
Beti ixkinak diran tokian
batek behar du tartea
bai adinez ta bai belaunaldiz
hortan izan det partea.
Ez nau harrotzen txapelak edo
noizbait BECera joatea
baizikan eta hauen artean
zubi-lana egitea.

I. Lazkano:
Mende laurden ta mende erdiko
bi hauek sasoi senduan
garrantzitsuak dirade biak
gaur bertsolari munduan.
Galdera hau da: moda-modako
bi izar hauen onduan
ajatutako aiton zahar honek
zer kristo pintatzen duan.

B. Gaztelumendi:
Pintatzen dezu zure tonoa
eta zure bertsokera
pozik joaten naiz ni(e)re Imanol
gaur zure aldamenera
erreleboan gertatzen baita
dominoaren antzera
pieza batek huts egiten badu
guztiok erortzen gera.

A. Egaña:
Horrexegatik aitortu det lehen
hortaz harrotzen naiz ia.
Ai Xebaxtianen arranke hura
eta Peñaren grazia!
Neronek eta nere lagunek
hor eman degu guzia
noizbait Beñati pasa genion
Imanoli ikasia.

I. Lazkano:
Egia esan haurtzarotikan
maitatu degu bertsoa
gero berari eskeini ere
ia-ia bizitz osoa.
Guk egin degun lana izan da
xume bezain erosoa
gaurko haueri eskura pasa
lehengoengandik jasoa.

B. Gaztelumendi:
Transmisioan egin zenuten
ta benetan lan txukuna
hala heldu da gureganaino
lehenago egin zenu(e)na.
Orainaldian juntatzen gera
lehena ta etorkizuna
ta juxtu gauza hortatik dator
gure aberastasuna.

A. Egaña:
Nahiz oraindik neu gaztea egon
ta aprobetxatzekua
tartean nago baina ez gunean
ez al da pentsatzekua?
Ia garaia heldu zait neri
atzean pausatzekua
ta Beñat zuri iritsi zaizu
aurrera pasatzekua.

I. Lazkano:
Zueri esker ikusi degu
gure ametsa gauzatzen
gazte maiteok utz zaidazute
idea bat proposatzen:
bertsolaritza bertsolariak
bakarrik ez du osatzen
saia zaitezte herri jator hau
mimatu eta gozatzen.

B. Gaztelumendi:
Hemen kontuak horren arraro
ez dira joaten hala're.
Aizu Andoni mila gaztetxe
parrez ipinia zaude
ta hori da ona danok jartzea
*oholtza baten parez pare **
denok aurrean jarri gaitezen
inor atzera joan gabe.

A. Egaña:
Lazkanon garai haietan lagun
bertsoa ta irratia
nere jirako bertsolaiontzat
telebista tematia
eta Beñaten belaunaldia
ez al da Internet ia?
Hala(e)re denok osatzen degu
bertsoaren barrutia.

I. Lazkano:
Azken mezu hau eman nahi nuke
jendeak uler dezala:
enbor zaharrari geroago ta
zailago zaio ezpala
adinak eta nere zentzuak
agintzen didan bezala
herriz herriko nere jarduna
aurten bukatzen dedala.

* Azken hiru bertsoak kantatzeko mikrofono guztiak ilaran jarri zituzten. Ordura arte, Beñat Gaztelumendi eta Imanol Lazkano bi alboetan eta Andoni Egaña erdian, beste biak baino aurrexeago, aritu ziren.

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA

1988an Añorgan jaioa

ETXEKO GIROA

Gu txiki txikitandikan hasi ginen, Aita oso zalea da. Usurbilgo bertso eskolan aritzen zen eta guri bertsozaletasun hori transmititu nahi zigun. Txirritaren bertsoak kantatzen zizkigun, eta bertso zaharrak ikasteko puntuka hasten ginen bi anaiak, tarteka hitz berriren bat sartzen genuen, eta horrela hasi ginen.

Ikastolara joan, gu oso txikiak ginen, eta zaharragoak etortzen ziren eta "bota bertsoa, bota bertsoa!" esaten ziguten eta anaiak igual zer edo zer asmatuko zuen, baina nik beti "haiziak bidali du" kantatzen nuen.

BERTSO ESKOLAK

Aitaren bidez Xabier Sukia eta Ibai Esoainekin hasi ginen Igeldoko bertso eskolan, 7-8 urterekin. Bertso eskolan lehenbizi Lasarteren bertsoa ikasi nuen "aitontxua eskasturik" hasten dena. Irakasle hasi nintzenetik, talde berriren bat hasten denean beti bertso hori erakusten diet.

Han oso gustura ibiltzen ginen, eta Beñatek Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan atera nahi zuenez, urtebete egin genuen Antiguako Luberri ikastolan Iker Alustizarekin. Beñat ongi ibili zela ikusi, eta hurrengo urtean "ba, nik ere atera behar dut ba!" pentsatu nuen eta Hernaniko taldearekin atera ginen, gure adineko talderik ez baikeneukan ez Añorgan eta ez Donostian. Gu bi anaiak, Peru Iurramendi eta Aitor Larreta atera ginen. Hernaniko bertso eskolara etortzeko lehenbiziko pausoa hori izan zen.

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2000	Txapeldun	(Txikitan, Hernaniko taldearekin)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2001	Txapeldun	(Txikitan, Hernaniko taldearekin)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2002	Finalista	(Txikitan, Hernaniko taldearekin)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2003	(parte-hartzailea)	
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2004	Finalista	
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2005	Txapeldun	(Handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2006	Finalista	(Handitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2002	Txapeldun	(Txikitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2005	Finalista	(Handitan)

SARIKETAK

Berritxu	2005	
Axari	2007	
Osinalde	2007 eta 2008	
Aztiri	2008 eta 2009	
Erniarraitz	2008 eta 2010	Txapeldun ordea
Hernandorena	2009	Txapeldun ordea
Bertxoko	2010	
Lizardi	2008tik 2012ra	Bertso onenaren saria 2008an
Plazatik Gaztetxera	2009	Txapelduna
Xenpelar	2010 eta 2012	
Mikel Laboa Bertsolari Txapelketa	2011 eta 2013	Txapelduna 2011n
Udarregi	2012	

Nik lehenbiziko sariketa Osinalde izan nuen. Kanporaketa Aztirian izan zen, kristoren giroa zegoen, ikaragarri gustura aritu nintzen. Anaia eta Uxue Alberdi pasa ziren finalera eta zer da kontua, eta Uxue Alberdi eta Ander Lizarralde Kuban ziren, abioia galdu zuten eta "zuek joan beharko duzue finalera!" esan ziguten. Osinaldeko finala jendez betea izaten da, bertso txarrari ere txalo jotzen zaio fuerte, eta oso gustura aritu nintzen.

Erniarraitzen aritu naiz, bigarren egin nuen eta puntu erdigatik gainera!

Baita ere bigarren egin nuen, puntu erdigatik, Iparraldeko Hernandorena sarian. Kotxean maldizio ederrak bota nituen.

Unai Gaztelumendi 2005eko Gipuzkoako Eskolarteko txapela buruan.

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2007	Lehen fasea
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2011	Final zortzirenak

Arantza hori daukat, ez dudala nire burua ikusten txapelketako bertsolari gisa. Txapelketa bat ona egitea nahi nuke.

PLAZAK

Ume umetatik beti eduki ditut plazak. Txikitan, bi anaiok besteak baino gaztexeago ginela kantatzen genuen bat-batean. Gainera, 11-12 urte bagenituen ematen zuen pare bat urte gutxiago genituela. Urnietako festetatik deitu ziguten Andoni Egaña, Xabier Amuriza eta Jexux Mari Irazurekin kantatzeko eta gu han, ume umeak ginela, gustura.

Txiki txikitatik beti izan ditugu urtero bost-sei saio, beti. Urtetik urtera gehitzen, eta 16 urtetik hona anaiarekin asko ibili naiz, bertso afariak eta egiten.

Anaiak 2007ko Gipuzkoako Txapelketan bigarren egin zuen, eta bera jada beste mota bateko saioetan hasi zen, oholtzakoetan. Anaiak bigarren egiteak niri ere saio gehiago ekarri dizkit, baina diferenteak, gaztetxe eta sozidadeetan, tabladuko saioak oso gutxi. Nire mailan eta nire edadean nahiko saio egiten ditut.

Julio Sotorekin Bartzelonara joan nintzen, Julen Zelaietarekin Madrilera...

2006-01-07 Zumaia, jaialdia

Unai Gijarro eta Unai Gaztelumendi. Bata añorgarra da eta bestea, berriz, oikiarra; herri handiago bateko auzotarrak biak ere. Hala ere, zer aldarrikatua izango duzue.

U. Gaztelumendi:
Biak auzotar jaio ginen ta
biak auzotarrak berez.
Ni Donostian barruan edo
senti naiteke aldrebes;
ñoñostiarren herritik azkar
egin nahiko nuke ihes...
donostiarra izan naiteke
baina ñoñostiarra ez.

U. Gaztelumendi:
Inpuestoekin badaukate bai
herriek mila aitzaki
ta kontra egin nahiko genuke
kontra bai baina egoki:
donostiarren aurkakoa naiz
ta hala izan naiz beti;
mugetan gertu egonagatik
nortasunean urruti.

U. Gaztelumendi:
Gaur kantatzera etorria naiz
honaino Zumaiaraino.
Donostiarren buruan dago
nik ez dakit zenbat laino;
handik urruti joan nahi nuke
ahal dan urrutien, koño!
etxekoago bainaiz Zumaian
Donosti aldean baino.

U. Gijarro:
Herri txikiak sentitu ohi du
barrutik ta bihotzean;
beti egoten da pixkat aparte
eta harago ertzean.
Baina gauza bat eskatu nahi det
hasi nahi nuke eskean:
ez ditezela soilik gogora
inpuestoak kobratzean.

U. Gijarro:
Hori esaten gabiltza Unai
hainbat eta hainbat urte
herri txikiak beregan badu
ez dakit zenbat bertute;
neri burura hori etorri zait
ta kantatu dezu zuk'e:
herri txikiek haundiek baino
nortasun gehiago dute.

U. Gijarro:
Pozgarria da leku denetan
bat gustora egotia;
pozgarria da herri txikiak
izatea bere tokia.
Arrazoi dezu eta alaitu
kantua ta bekokia
mapa denetan azal daitezen
Añorga eta Oikia.

2012-08-17 Donostia, jaialdia

Hemen dituzue bi pirata. Gau osoan parrandan ibili ostean, gaupasa egin ostean, beroak harrapatuta, leku fresko baten bila dabiltzanak. Halako batean, Artzain Onaren katedrala ikusi duzue, eta pentsatu duzue "Hori bai toki freskoa". Sartu zarete bertan, eta egonaldi bat eginda, zuk, Unai Gaztelumendi, esan diozu "Beno, Iñaki, freskatu gara eta goazen", baina Iñaki Apalategik ez du irten nahi elizatik. Zerbait igarri du, errebelazioren bat edo.

I. Apalategi:
Abordajea eginda gero
elizan biharamona
rebelaziorik euki gabe ere
oso gustora nengona.
Nahiz ta piratok edaten degun
gustora txalupan rona
kaliz honetan bada zeozer
dagoena nahiko ona.

U. Gaztelumendi:
Eskorbutoko nikiarekin
hau berez punki mardula
eliza baten sartu gabea
izango zinan sekula
ta orain dio hemen barruan
pozik gelditu nahi dula
uste det atzo gauez Iñaki
gehiegi edan zenula.

I. Apalategi:
Baino jendea hemen sartzeko
ipini ohi da ileran
eta guk ere aprobetxatu
behar genduke aukeran.
Gurutze baten hor bizardun bat
etzanda dago primeran
gera gaitezen Unai ez dakit
muitzen hasi ez ote dan.

U. Gaztelumendi:
Elizan sartu eta gustora
gelditu da berehala
gurutzean dagon tipoai beida
ipini gero aibala!
Zuk jarri dezun aurpegi hori
ez da gero naturala
bizarra ikusi eta uste du
Sebastian Lizaso dala.

I. Apalategi:
Ez naiz fijatu baino bai dago
hura Sebastian bezala
lehen keinu txiki bat egin arren
ez da moitzen berehala
baina barruan segitu nahi det
bere ondoan nola hala
ze kanpoan nun aurkituko det
hemen dagoen itzala.

U. Gaztelumendi:
Zuk kritikatzen dituzu beti
kristautasunan problemak
zureak izan dira gaur arte
beti idea punkienak
ta orain hemen itzala dago
eskatzen dizu barrenak
baino badira itzalen batzuk
erre egiten dutenak.

I. Apalategi:
Oraintxe bertan ikutu dezu
nere moralaren langa
ta konbentzitu ein nauzu Unai
egia garbi esanda.
Beti ibiltzen gera egiten
antikriston propaganda
joan gaitezen gurutzeari
buelta erdia emanda.

ARNAITZ LASARTE SANTA KRUZ

1989an jaioa, Ereñozun

Argazkia: Estitxu Eizagirre

Hernaniko Ereñozu auzoko bizilaguna da, Larre-Gain sagardotegiko semea. Lehen plaza: Hernanin, 2002ko maiatzean, Hernaniko kultur etxean, Eskolarteko Txapelketan. Unai Gaztelumendi, Jon Hidalgo eta Ane Lujanbiorekin. [**Bertsolaritzaren datu-basea / Bertsozale Elkartea**]

ETXEKO GIROA

Bertsolari inor ez, baina denak dira zaleak, aita, aitona, ama... Hitzetik Hortzera igandero ikusi, bertsoak entzun... Giro horretakoak, saio batera eta bestera joaten direnak. Aitonak (Pedro Santa Kruz) bertso pila dakizki baina etxean oso gutxi entzun dizkiogu. Aita bai, kotxean beti aritu zaigu bertsotan. Eta bi arrebak ez dira inoiz plazara atera, baina nik adina egiten dute bertsotan.

EREÑOZUKO ESKOLAN

Laugarren mailan ginenean, 9 urterekin, euskarako ordutan bertsolaritza ematen hasi zen Aritz Zerain. Aritzekin urtebete egin eta hurrengo urtean txandaka etortzen ziren Aritz eta Ibon Miner, eta astean ordubete edukitzen genuen bertsoak egin, entzun eta kantatzeko. Han hiru urtean ibili eta gero Hernanira Langile ikastolara etorri nintzenean, orduan apuntatu ginen bertso eskolan, 12 urterekin, Amaia Otxotorena eta biak, Ibon eta Aritzen bidez.

Joxe Anjel Aranbururekin hasi nintzen eta geroztik Itziar eta Estitxu bixkiekin. Nahiko goiz hasi ginen gure kabuz biltzen, 15 urterekin edo, Biteri ondoko lokalean, asteartetan.

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2002	Finalista (txikitan, hernani taldean)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2003	Finalista (txikitan, hernani taldean)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2006	finalista (haditan)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2007	finalista (handitan)

Oroimen onak dauzkat. Hasieran ez genion inportantziarik ematen.

SARIKETAK

Dena urte berean izan zen, 2007an: Eskolarteko Txapelketan gustura aritu, Erniarraitzen finalera iritsi, Tabernetako Txapelketa irabazi eta Gipuzkoako Txapelketan parte hartu nuen. Nire urte onena izan zen.

Erniarraitzen seigarren egin nuen baina hala ere txoratzen geratu nintzen. Azpeitiko gaztetxean izan zen finala, topera eta kristoren giroa zegoen. Bilbon ikasten hasi berri nintzen eta ostegunetan Santutxuko bertso eskolara joaten nintzen Unai Gaztelumendirekin. Hernanin biltzen ginen ostiraletan eta 2007ko Gipuzkoako Txapelketako entrenamentua ere nabaritu zen.

Tabernetako Txapelketan ez nintzen kantatzekoa, eta azken momentuan esan zidaten Inhar Olanok ezin zuela. Gustuen geratu naizen saioa hori izan zen. Jende aurrean txarra naiz, gaizki pasatzen dut, baina orduan oso ondo pasa nuen eta erraz egin nuen bertsotan. Txapelak ilusioa egin zidan. Gaztea nintzen oso, oraindik ez nuen alkoholik edaten. Urte hartan kanporaketak egin ziren Kide tabernako goiko partean, eta hiru lehengusu pasa ginen finalea: Arkaitz Santa Kruz, Iraitz Santa Kruz eta ni. Ofizioka biekin egitea tokatu zitzaidan, eta oso gustura aritu nintzen. Buruz burukoa Iraitzekin jokatu nuen. Ez naiz jario handikoa izan baina gau hartan etorri zitzaidan!

Lizardin ere bi aldiz hartu dut parte.

PLAZAK

Bertsoa gustatzen zait baina ez dakit jende-aurrea den, nagia den... ez dut nire burua batean eta bestean ikusten. Bertso eskolan kantatu eta gero komentatzea gustatzen zait, saltsa hori.

Osinagan, adibidez, gustura kantatzen dugu. Lehen aldiz Iker Osa eta Jon Iraolarekin joan ginen, 14-15 urterekin. Gero guk bakarrik jarraitu genuen eta orain Eli Pagola eta Eñaut Martikorena hasi dira. Portun, Santa Barbaran eta Ugaldetxon ere kantatu izan dut.

Niretzat grazia handia duena San Joanetako txupinazoa da, 2006tik 2012ra kantatu dugu Oier Iurramendik eta biok festei hasiera emanez. Omenaldietan ere dexentetan kantatu dut. Dantzari Festan, Txalaparta Festan...

2005-2006an Ereñozuko Aste Kulturalean kantatu genuen Aritz Zerain, Ibon Miner, Unai Agirre, Iñaki Zelaia eta nik.

2012an jaialdi batean gai jartzaile aritu nintzen. Auziperatuta zeuden 10 gazteren epaiketarako dirua biltzeko saio bat antolatu zen Hernaniko frontoian, eta bertsoak azken aldian eman didan satisfazio handienetakoa izan zen. Frontoia goraino bete zen osteguna izanda, saio oso ona atera zela esango nuke... Hunkigarri xamarra izan zen.

TXAPELKETAK		
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2007	Lehen fasea
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2011	Lehen fasea

2007KO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Kolpe dexentekoa hartu nuen. Ez fasez pasatzeko esperantza nuelako. Baizik eta, jendeak nirekin sufritu egin zuelako. Hernaniko saioan abestea tokatu zitzaidan: Unai Agirre, Joxe Luis Urdangarin, Manex Mujika, Uxue Alberdi eta Gorka Etxeberriarekin. Biteri aretoa lepo zegoen: familia, koadrilla, ezagun asko, eta orduan pasatako urduritasunak ez ditut sekula pasa. Lehen bertsotik urduritasuna transmititu nuen. Zortziko handian nahiko txukun ibili nintzela esango nuke, baina zortxiko txikian hasi ziren arazoak... Uxue Alberdirekin kantatu nuen, eta bertso bat ere ez nuen osatu pare bat aldiz geratu gabe....



Iturria: XDZ

2011 GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Lehen fasean bi saio izan ziren. Nik Orion eta Gabirin kantatu nuen. Oriokoan gustora geratu nintzen. Bakarka kaka egin nuen, ordea. Eta saio txarrak ez dira erraz ahazten... Gabirin ere ale politak bota nituela uste dut baina irregular, beti bezala. Hala ere, balorazio positiboa egiten dut txapelketaz.

Gipuzkoako Txapelketa, 2007-09-23 Hernani

Kartzelako gaia: Tren geltokian zaude trena noiz iritsiko zain.

Arnaitz Lasarte:

Goizean jeiki ta ondo jantzi
hori da dedan diztira;
korbata txukun, galtza berriak
mutiko onen neurrira;
tren geltokira iritsia naiz
begiratu urrutira;
bakar-bakarrik nago oraindik
hara ta hona begira...
Zai zaudenean tren azkar denak
moteldu egiten dira.

Orain artean kobarde samar
ta egin behar aproba;
zulo beltzean sartua nago
ta irten nahi nuke gora;
hain ondo jantzi hain guapo egon
ta nago oso gustora;
lasai antzean jarraitu nahi det
nahiz ta pasa den denbora
pazientzia hartu ezkero
nahi dedana helduko da.

Azkenerako iritsi da ta
hau soinuak trenarenak!
Neska eder bat jaitsi da noizbait
ahaztu dira nere penak;
hau ondo daki itxarotea
zer den probatu duenak;
hain dago polit, hain da ederra
ditu jantzirik onenak...
Denbora askoz zain egon arren
merezi izan du denak.

OIER IURRAMENDI ETXEBERRIA

1990ean Hernanin jaioa

Iturria: Kutxa Ekogunea.

Etxean bertsozalea aita da.
Dakizkidan bertso zahar gehienak etxean ikasiak dira, anaia eta biok txikiak ginela aitak guri kantatzeko ohitura handia zeukan. Gauetan liburutik kantatzen zizkigun, beste batzuek ipuinak kontatzen dituzten bezala.

EREÑOZUKO ESKOLA

Nik Ereñozuko eskolan ikasten nuen eta bertan jangelarik ez zegoenez, egunero bazkaltzen genuen Florian Oiarbideren etxean. Berak askotan kantatzen zizkigun bertsoak.
Ereñozuko eskolan Aritz Zerain eta Ibon Miner guri bertso klasea ematen hasi ziren. Han bi-hiru urtean ibili nintzen, eta gero nik Peru anaia Hernaniko bertso eskolan neukan, Unai eta Beñat Gaztelumendirekin batera Eskolarteko Txapelketan aterea. Haren bidez animatu nintzen ostiral batean etortzera.

HERNANIKO BERTSO ESKOLA

Joxe Anjel Aranburu izan nuen lehenik irakasle eta gero Estitxu eta Itziar Eizagirre. Gero gure artean biltzen hasi ginen, bata besteari gaiak jarriz. 14 urterekin hasi nintzen bertso eskolan irakasle, eta lehen urtean Amaia Otxotorena eta biok hartu genuen talde bat elkarrekin.

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Ez dut esperientzia onik izan baina gustura ibiltzen ginen. Eskolartekoa prestatzerakoan giro ona egoten zen. Ni txikien mailan finalera iritsi nintzen.

SARIKETAK

Tabernetako txapelketan hiru-lau aldiz hartu dut parte. Gustura kantatu izan dut, jende asko egoten da eta oso giro ona.

Herrien arteko GR txapelketan ere kantatu izan dut.

PLAZAK

Lehenengo plaza Ugane auzoan (Ikaztegieta) egin nuen. Izeba dugu han eta bere bidez hasi ginen festetan Hernaniko bertso eskolakoak saioa egiten (2000. urtean edo), eta gaur arte iraun du.

Gehien bat 16-17 urterekin mugitu nintzen bertsotan. Gaur egun Hernaniko saioetan kantatzen dut, Txalaparta Festan, AHTren kontra, Dantzari Festan, San Joanetako txupinazoan, omenaldietan, Osinagako festetan, Santa Barbarako saioan, Ugane auzoan, sagardotegitako saioetan aritu gara...

Gustuena Elkartasun eguneko saioekin geratu naiz, nahiz bertso mailaz ez onenak izan, ideia ona izanez gero eta nola-hala botaz gero, giro oso ona egoten delako.

ASIER AZPIROZ IZTUETA

1991n Donostian jaioa - Zubietan bizi da

Argazkia: Estitxu Eizagirre.

Familia euskalduna dugu eta bertsoa beti gustatu izan da, baina ez bereziki ere. Baina beste giro batekoa izan banintz ez nuke bertsoa hain barruan edukiko.

HASIERAK

Amasorrain ikastolan bertso eskola sortu zen eskola orduz kanpo eta koadrilatxo bat hasi ginen han, Amaia Agirrerekin. 10 urterekin hasi eta bi urte egin genituen.

Gero Amaiak segi ezin zuela eta Agin Laburu etorri zen eta harekin urtebete pasa genuen. Berak ikastera Bilbora joan behar izan zuenean Gaztelumendi anaiekin segi genuen.

HERNANIKO BERTSO ESKOLA

Udaleku batzuetara joan nintzen Hernaniko bertso eskolarekin. Jendearekin harreman ona egin eta handik aurrera Hernaniko bertso eskolara etortzen hasi nintzen, eta orain arte.

Hemen Itziar eta Estitxu bixkiak izan nituen irakasle. Haiekin urte batzuk egin, eta gure kasa hasi ginen bertsotan geratzen. Eta orain gu ari gara irakasle.

ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Lehenengo aldiz 10 urterekin atera nintzen. Gaizki pasa nuen, ez dut gogoratzen eta ezta nahi ere. Baina bueno, nire buruarekin nahiko gustura geratu eta hurrengo urtean taldea atera genuen Añorgako hiruk. Sorpresa hartu genuen, finalera pasa ginen. Niri behintzat horrek moral handia eman zidan, gainera Amasorrain ikastolatik autobusa joan zen ikustera, agur bereziak egin genituen...
Gero Hernanin hasi nintzenean beste txikitako bi urteetan finalera pasa ginen eta behin Euskal Herrikora ere sartu nintzen nolabait! Handitako lehen urtean finalera sartu nintzen, hanka eskaiolatuarekin kantatu nuen finalean. Hurrengo urtean ez nintzen finalean sartu eta azkeneko bi urtetan bai.

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2001	Parte-hartzaile (Txikitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2002	Finalista (Txikitan, Añorgako Taldean)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2003	Finalista (Txikitan, Hernaniko Taldean)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2004	Finalista (Txikitan, Hernaniko Taldean)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2005	Finalista (Handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2006	Parte-hartzaile (Handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2007	Finalista (Handitan)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2008	Finalista (Handitan)
Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2003	Finalista (Txikitan)

SARIKETAK

Erniarraitz	2010	
Axari	2010 eta 2011	
Bertxoko	2010-2012	
Lizardi	2010-2012	
Abra	2011	Txapelduna
Aztiri	2012	
Xenpelar	2012	
Bertsokatu Txapelketa	2011 eta 2013	
Mikel Laboa Bertsolari Txapelketa	2013	Txapelduna
Lizardi	2013	Txapelduna

Sariketetan dexente ibili naiz urte batzuetan (18tik 21 urtera arte).

Asier Azpiroz eta Patxi Etxeberria bertsolariak 2013ko Lasarteko San Pedrotako bertso saio berezian.

Iturria: Txintxarri aldizkaria.

PLAZAK

Plazetan 2011tik nabil. Ikasketengatik Gasteizen egon naizenez bizitzen, inguru hartako plaza batzuk egin ditut eta Hernani ingurukoak ere bai. Usurbil-Lasarte-Orio-Igeldo-Donostia alde horretan ere bai. 2012 eta 2013an urtean 30 bat saio egin ditut. Gu bertsolari ezagunen alderantziz gabiltza: Udan jaialdi asko izaten da eta normalean horietan ez dugu lekurik izaten, gu gehiago aritzen gara negu aldean, gaztetxeetako bazkari eta afarietan edo poteotan...

2013ko ekainean Lizartzan kantatu nuen Iker Zubeldiarekin. Gaztetxeak antolatuta, 80 lagunek afaldu genuen. Oso giro ona zegoen eta bertsotan asmatu genuela iruditzen zait, etxera kotxean kontentu etorri nintzen behintzat.

Asko kantatu dut bertso eskolakoekin, gehiena Unai Gaztelumendirekin. Eta bestela adin beretsukoak diren Beñat Iguaran, Mikel Artola, Oier Aizpurua, Aitor Urbieta, Ane Labaka... Agin Labururekin noiz edo noiz ere bai...

TXAPELKETAK

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa	2011	Final zortzirenak

Oso esperientzia ona izan zen. Txapelketa formatoa oso egokia zen guretzako. Bakoitzak bi saio egiten genituen. Bazkariak antolatu ziren eta giro ederra egon zen.

Irailean Azkoitian kantatu nuen eta han berriz oso saio txarra egin nuen.



2011ko Gipuzkoako Txapelketan, Zumarragan kamisetan erraustegiari moratoria eskatuz.

Pankarta, manifa, lema
kapitala ta sistema.
Politikaren dema
fartsa hutsa da dena
ni beti apolitiko,
nirea egin ta kito!

Bikotera banaiz batu
ezkontzea dut sakratu.
300 gonbidatu,
luntx ta festa pribatu
eta elizatik noski,
soineko txuri ta guzti.

Independizatu nahian
jubilatzeko garaian,
pisu txiki bat kaian
Donostian, Zumaian
ta ordaintzeko bikoteka,
hartuko dut hipoteka.

Bizi naiz izorratuta
lan baldintzek behartuta,
10 ordu sartu ta
700 kobratuta
baina hori bai lana da,
afortunatuak gara!

Greba deitzen badigute
motiboak mila guk e(re)
Baina grebaren truke
soldata kentzen dute,
hobe lanera zuzendu,
nagusiak esaten du.

Erosketetan merkantzi
soineko ta bainujantzi.
Markadun elegantzi
eta kontsumo antsi
arropa eta arropa
merkealditan dago ta.

Herrigintzan murgiltzeko
lokarturik gabiltz asko.
Negua arintzeko
kontsolan aritzeko
lokal barruan gotortu,
ta kaleak basamortu.

Musika bera aditzen
Usurbilen ta Parisen.
Diskografia gizen
eta urrezko izen
musika berri, askea,
gora Euskadi Gaztea!

Kultura artean hegan
aritzeko nago greban.
Abuztu bukaeran
pasako dut primeran
hango diskoteken brisan
aste osoa Ibizan!

Gazteri ez kontsumista
ta antikapitalista
eratzeko argizta
buru hoiek aldizka.
Antolatu ta oldartu,
ezin gaitezke lokartu.

[**Asier Azpiroz**, Usurbilgo Santixabel Bertso-Paper Lehiaketa]

2010-03-12 Azpeitia, sariketa

Urte askotan izan duzue bikote harremana. Orain Asier Azpirozek uztea erabaki du, eta Maialen Velardek ezin du onartu.

A. Azpiroz:
Gaurtik aurrera gera
gu bikote ohiak
pasatu diralako
lehengo sasoiak.
Ohe kontuan ginan
gu biok lehoiak
astintzen genituen
sofa eta ohiak
ta orain bihurtu gera
rutinan morroiak.

M. Velarde:
Sinistu nahiko nuke
diotsut serio
rutinan omen gaude
ze erremedio!
Elkarrekin pasata
lau kalendario
lehen lagun eta orain
elkar arerio...
Buruak baietz baina
bihotzak ezetz dio.

A. Azpiroz:
Nun da garai bateko
neskatxa ausarta?
Herriko politena
ohean aparta
ta ez dezu onartu nahi
jesus hau da marka!
Arrazoia hauxe da
esatea barka:
begietan ez dezu
lehengo txinparta.

M. Velarde:
Txinparta joaten zaizu
hogei segunduan
ta berdina pasatzen
ohe inguruan
nik maitasuna nuen
nire helburuan
baina aldatu zaizu
azkenengo orduan:
sexua bakarrikan
daukazu buruan.

A. Azpiroz:
Sentimentuak ere
badauzkat ta aizu
ta zuk burua altxa
eta ez egon kexu.
Zure bizitzarekin
jarrai dezakezu
oraindikan benetan
polita zaude zu
ta ni baino hobe bat
bilatuko dezu.

M. Velarde:
Sentimentuak ditu
zeinen romantiko!
Sentimentuak aspaldi
utzita mutiko.
Maitasuna betiko
ez du ikusiko
azpikoa egiten da
ximeldu ta kito
ta ni ez naiz zure zain
betiko jarriko.

AMAIA OTXOTORENA GAMIO

1989an Ereñozun jaioa

BERTSOZALETASUNA

Txikitatik datorkit. Etxean amonak (Felipa Huizi) beti kantatzen zizkigun bertso zaharrak. Buruz bertso sorta asko ikasi omen zituen gaztea zela eta guk kantatzeko eskatzen genion, gehienetan "Bizkaiko Txerriaren" bertsoak. Aita ere bertsozalea zen eta gaiak jartzen aritzen zen. Bertsotan ere bazekien eta ni baino hobea zela esanez sarritan hasten zitzaidan bertsotan eta nola ez, erantzun egin behar. Familiako bazkari eta afarietan ere ez ziren bertsoak falta. Urte batzuetan urte zahar gauean lehengusuek (Hernaniko bertso eskolan ibiltzen ginen Otxotorena lehengusuek) bertso idatziak prestatu eta familiaren aurrean kantatzen genituen.

EREÑOZUKO ESKOLAN

Bertan bertsolaritza lantzen genuen Aritz Zerain eta Ibon Minerrekin. Gelakideen artean nituen Arnaitz Lasarte eta Oier Iurramendi eta gustora joaten ginen. Ereñozuko eskola bukatu genuenean Aritz Zerainek animatu gintuen Hernaniko bertso eskolara joateko eta horrela hasi ginen.

HERNANIKO BERTSO ESKOLA

Hernaniko bertso eskolan hasi ginenean talde berean geunden Oier Iurramendi, Arnaitz Lasarte, Ane Lujanbio, Itsaso Zubiria, Iñaki Otxotorena.... Hasieran Joxe Angel Aranburu izan genuen irakasle eta geroago Estitxu Eizagirre. Ostiralero izaten genuen klasea eta ederki pasatzen genuen asteburu pasa Askizura joatean edo udako astebeteko udalekuetan. Kanpora joaten ginenetan zaharragoekin elkartzen ginen (Gaztelumendi anaiak, Unai Huizi, Unai Ezeiza, Jon Otxotorena, Jon Apaolaza...) eta ederki pasatzen genuen, bai bertsoak eginez, bai bestelako kirol ekintzak eginez ere.

BERTSO SAIOAK

Ez naiz jende aurrean asko kantatu duenetakoa. Dantzari Festa, Hernaniko festetako txupinazoa, Osiñagako festak... horietan kantatu dut noiz edo noiz baina horietaz aparte bi saio ditut gogoan. Bat Portuko festetan kantatu nuenekoa. Gai jartzaile Jon Eizmendi zen eta aitarekin bertso eskolan ibilia zen eta egun hartan ezagutu ninduen.

Beste saioa, Hernaniko AEKk 2007ko Emakumeen Egunean Oialume sagardotegian antolatu zuena. Han aritu nintzen Estitxu eta Itziar Eizagirre, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Amaia Agirre eta Nerea Elustondorekin batera.

GAI JARTZAILE

Aitor Mendiluzek eskatuta aritu nintzen 2010-2012 artean Hernaniko Bertso-Latako saioa aurkezten. Eta 2013an Ereñozuko festetako saioan ere bai.

EÑAUT MARTIKORENA LIZASO

1995ean Zikuñagan jaioa

Argazkia: Estitxu Eizagirre.

Gurasoak nahiko zaleak dira, aita, izeba eta osaba ere bai... ezagutu ez nuen aitona (Jose Domingo Lizaso, Amezketakoa) oso oso zalea omen zen.

Txikitan Lazkao-Txikiren marrazkiak ikaragarri gustatzen zitzaizkidan eta etxean kantatu ere egiten nuen, zer edo zer. Eta bertso eskolan hasi nintzen, 8 urterekin.

BERTSO ESKOLAN

Lehen egunean kantari sartu nintzen atetik. Oso lotsatia behintzat ez nintzen. Nik ondo pasatzen nuen bertso eskolan. Lehen urtean Unai Gaztelumendi eta Estitxu Eizagirre izan nituen irakasle eta geroztik Unai Gaztelumendi.

ESKOLARTEKOAN

Esperientzia ona izan da, beste bertso eskoletako jendea ezagutzeko. Bertso gutxi kantatzen genuen, hori bai. Txikitan bertso bakarra, beraz urduri jarri eta hanka sartzeko beldurrak joaten nintzen. Handien mailan bost bertso. Nik finaletan kantatu izan dut, eta behin Gipuzkoakoan bigarren egin nuen eta Euskal Herrikoan kantatu nuen. Han sufritu egin nuen.

PLAZAN

Hernani inguruko auzoetan kantatu dut. Ereñozun Ugaldetxoko saioan, Osinagan, Santa Barbaran... Igeldon ere bai.

NEUK EGIN ETA...

Andoaingo festetan neska bat etorri zitzaidan, inondik inora ezagutzen ez nuena, esanaz bere lagunentzat bertsoa egiten lagundu behar niola. Lagundu ez, nik idatzi nion bertsoa berak irakurtzeko. Kantatzera joan zenean bueltan etorri zitzaidan "lagundu kantatzen...". Altxa eta berarekin, kantatzera. Eta berarekin kantatu eta gero, jende guztia arpa jotzen hasi zitzaidan "zuk ere bota beharko duzu...". Nik lehenago egindako bertsoari erantzunez bi bertso nolabait moldatu nituen eta aurrera.

GUTXIAGO IDAZTEAGATIK...

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 14-15 urterekin, bagenuen ikasgai bat, "hiritartasuna". Idazlan bat egin behar genuen, eta nik gutxiago idazteagatik bertsoak idatzi nituen. Irakasleari eman nizkion, eta oso ondo zeudela eta "Parez pare" sariketa zegoela Donostian eta hara bidaltzeko esan zidan. "Emakumea lan munduan" zen idazlanerako gaia, eta nire bertsoei eman zieten saria. Gutxiago idazteagatik saria eman zidaten!

ELI PAGOLA APEZETXEA

1995ean Fagollagan, Ereñozun jaioa

Argazkia: Estitxu Eizagirre.

Nire aitona moldatzen omen zen idazten eta bere birraitona ona omen zen bertsotan: Txabolategi. Niri ez zait bere istorio askorik iritsi.

Ez dut oroitzen oso giro bertsozalea genuenik. Etxean noizbehinka bertso batzuek aditzen genituen, baina niri ez zitzaidan Hitzetik Hortzera batere gustatzen.

IKASTOLAN

Langile ikastolan bagenuen irakasle bat, Itziar Otamendi, eta hark pila bat bultzatzen gintuen. Fernando Amezketarraren istorioak kontatzen zizkigun... ikastolara abisua iritsi zen bertso eskolako ikasturtea hasiko zela eta nahi zuenak izena emateko. Niri ez dakit zer txispa sartu zitzaidan eta esan nuen "ni horra joango naiz!".

BERTSO ESKOLARA

8-9 urterekin hasi nintzen. Bakar bakarrik joan nintzen. Amari esan nion: "ama, hona joan nahi dut" eta azaldu egin nintzen. Lehen eguna gogoan daukat: Azkena iritsi nintzen eta begiratu eta neska bakar bakarra ni! Sartu, eta nola ile motza nuen ez zidaten sinisten Elixabete izena nuenik. Onena izan zen banaka joan ginela: Eñaut Martikorena (Elizatxotik), Aritz eta Aingeru Otxotorena, Imanol Sarriegi (Donostiara joaten ziren eskolara) eta ni ginen taldean (hurrengo urtean Jon Iturbe sartu zen). Bakoitza eskola batetik gentozen eta koadrila txiki bat egin genuen.

Lehen urtean Unai Gaztelumendi eta Estitxu Eizagirre izan genituen irakasle eta geroztik Unai Gaztelumendi (16-17 urte egin arte). Hasierako ikasle taldea aleka joan zen bakantzen. 15 urterekin Eñaut Martikorena eta biok bakarrik ginen. 17 urtetik aurrera irakaslerik gabe bildu gara Asier Azpiroz, Oier Iurramendi, Martikorena eta laurok.

ESKOLARTEKOA

Urtero aurkeztu naiz eta finalera iritsi izan naiz. Ni ez naiz izango hutsetik bost bertso on botatzen dituena, mantsoago hasi eta bertso batzuen beharra daukat.

PLAZAN

Gaztetxeko saio lizunean kantatu nuen 2011n, 16 urterekin. Nire lehenengo plaza-plaza hori izan zen. Unai Gaztelumendi eta Azpeitiko "Ministro"rekin kantatu nuen. Niretzako handia zen, eta urduri joan banintzen ere, gero gustura aritu nintzen.

Gehiena Hernaniko auzotan kantatu dut: Santa Barbaran hirugarren urtea egin dut (2010. urtetik), 2012ko Bertso-Latan kantatu nuen, baserriz baserri egiten den gabon errondan...

Santa Barbarako festetan urtez urte bada koadrila bat gogorarazten didana lehen urtean (2010ean) Txatarrero bati kantatu nion bertsoa. Aurrean zegoen, polo hori-hori bat zeukan jantzita eta erdi-erdian ardo orbana egin zuen. Eta hauxe bota nion ba:

Ardoan mantxa erori zaizu
kamisetaren erdira
orain ere egongo zinen
andreren bati begira.

Parrandan noizbehinka bertsotan aritzen naiz, besteren batekin elkartzean. Bestea bertsotan ni baino okerragoa edo askoz hobea bada ere, problemarik gabe.

GOIZUETAN

2009an, festetan, erromeria zegoen. Ez zegoen jende askorik plazan eta mutil bat igo zen oholtzara udalekutako bere lagunei bertsoa kantatzera. Lagunak xaxatzen hasi zitzaizkidan, "igo beharko duzu, erantzun beharko diozu...". Zentzudunarena egiten hasi nintzen "ez, ez, ez naiz igoko, gaixoak lagunei kantatu die...". Bukatu zuen eta musikarietako batek esan zuen "beno, ez al dago inor erantzuteko?" eta "ni!" garrasi egin nuen eta igo nintzen tablatura eta gustura geratu nintzen kantatuta. Berak kantatu zuen udalekutako begiraleak izan berri zirela eta inoiz ez zituztela une horiek ahaztuko... tragoarekin zebiltzan eta erantzun nion:

dena goatzerikan
etzazula espero
eskuan duzuna edaten
jarraitu ezkero.

TABERNETAKO TXAPELKETA

2013an parte hartu nuen lehen aldiz. Etxean bezala aritu nintzen. "Nire lehenengo urtea, txikituko naute!" pentsatuz joan nintzen. Gaia jarri eta segituan ideiak etortzen zitzaizkidan, besteak bertsoa bota eta erantzuna pentsatu gabe etortzen zitzaidan, kasi bertsoa bakarrik osatzen dela. Oso solte ibili nintzen. Txapela jantzi nuen.

gaiak

2010 HERNANI

Atez atekoaren ongi etorri jaialdia Hernanin, 2010ean. Oier Iurramendi, Unai Gaztelumendi eta Eli Pagola.
Iturria: http://www.flickr.com.

2011ko txotx denboraldiari hasiera Hernaniko Bertso Eskolak eman zion.
Iturria: pupilbags.blogspot.com

Bertso eskola honetan jende bat ez da 24 orduz bertsolaria izango baina bertsoa beti buruan bueltaka dauka. Hernanin bertsozalea aktiboa da: nahiz eta ez kantatu, saioak antolatzen ditu, bertsolariekin harreman zuzenagoa du. **[Beñat Gaztelumendi]**

Hernanin parrandan atera eta askotan esaten dizute "bai, ni ere egun batean bertso eskolara joan nintzen". Jende asko da bertso eskolatik pasea. **[Unai Gaztelumendi]**

Pare bat koadrila gaude parrandan gaua tokatzen bazaigu bertsotan isiltzen ez garenak. Baina beste askorengan ezjakintasun handia ikusten dut bertsoa zer den, urtean zehar zer saio dauden... **[Arnaitz Lasarte]**

Arnaitz Lasarte, Beñat eta Unai Gaztelumendi, Asier Azpiroz, elkartzen bagara parrandan, normalean bertso saioren bat izaten da bukaeran, etxeratu ezin horretan. Ingurukoren bat ere igual sartzen da tartean.... Patatak erosi, koskan eseri eta perla batzuk ateratzen dira. **[Oier Iurramendi]**

Bakoitzak gure koadrila daukagu, baina parrandan bertso eskolakoak ikusiz gero trago bat behintzat hartzen dugu, eta askotan elkarrekin bukatzen dugu, koadrila ahaztuta. **[Asier Azpiroz]**

Hernanin bertsolari erreferente asko dauzkate. Bertsolaririk ez dagoen herri batean zailagoa da bertso eskolarako pausoa ematea. **[Unai Gaztelumendi]**

PLAZAK

Bertso zirkuitua nahiko finkoa eta egonkorra da: Bertso-Lata, Tabernetako txapelketa... ez dago dinamika berririk. **[Oier Iurramendi]**

Gaztetxean bertso saio lizuna egin izan da, azkena 2011n. 2013an Gazte Asanbladak beste saio bat antolatu zuen. **[Asier Azpiroz]**

Hernanin bertso eskolak protagonismoa dauka. Beti presente dago herrian, eta edozein ekitaldi dela, Dantzari Festa, presoen ongi etorriak... bertso eskolakoren bati deitzen diete. Kantatzeko aukera izaten da Hernanin, ez luze baina bertso bat-bi-hiruko saioak bai. **[Asier Azpiroz]**

2012an Gazte Asanbladak antolatutako saioaren kartela.

Iturria: hernanikogazteasanblada.com.

Osinagako festetan, Portuko festetan, San Inazio egunean Santa Barbaran... beti daude bertso eskolarekin lotutako plaza batzuk, eta bertso eskolan bazabiltza lehenago edo beranduxeago kantatzea tokatzen zaizu. [**Asier Azpiroz**]

Elkartasun afari bat ere egiten da urtero, eta nire bertso ibilbidean momentu ederrenak hortxe pasatu ditut. Unai Gaztelumendi, Arnaitz Lasarte, Asier Azpiroz eta laurok biltzen gara, eta Jon Altuna Oxan aritzen da gai-jartzen. Santa Barbara elkartean izaten da, luze aritzen gara eta gustura! [**Oier Iurramendi**]

EREÑOZU

"Ereñozu oso bertsozalea" esaten da, baina bertso afari bat antolatu eta kosta egiten da erantzuna lortzen. Atzetik jendea badator, Amaia Otxotorena, Arnaitz Lasarte, Oier Iurramendi... beraien artean bertsotan egiten dute, segida eman diote Hernaniko bertso eskolari... Ereñozun bertsozaletasuna beti izango da eta segida izango du.

Gure ondorengo gazte koadrilan ere (nire anaiaren koadrila kasu) bada jende dexente bertsotan moldatzeko adina egiten duena, baina parrandan bakarrik, guk hasieran egiten genuen bezala. "Helduen bertso eskola bat egingo genuke" beti izan dugu ideia buruan baina ez dugu gauzatu. Aber noizbait hori egiteko kapaz garen. [**Aritz Zerain**]

Etxeetan zaletasuna oraindik badago. Auzo honetan gehienak bertsozaleak dira, gutxiago edo gehiago. Eskolako irakaslea bera ere harrituta geratzen da bertsoa zenbat gustatzen zaien umeei. Gure umea, edo Aritzena, ikusten dituzu hiru urterekin eta bertsotan aritzen dira, edo bertsotan ari balira bezala. Falta dena da bertso eskola bat sortzea, eskolaz kanpokoa. Zaletasuna beti izan da, baina beti bukatu dugu koadrilan puntuka, parrandan. Hor geratu da beti, pauso bat gehiago eman dugunak Aritz, Arnaitz eta hiruok gara, baina Hernaniko bertso eskolan bildu garelako. Bertan bertso eskola bat falta da edo bestela Hernanirako bidea gehiago irekitzea. [**Ibon Miner**]

HERNANI ETORKIZUNEAN

1
Hogei urtera gaur halako bi
Hernani irudikatuz
Oria Menditik Donostiraino
auzo berriak finkatuz
herriko saltsa aldatuko da
bizimoduan fijatuz
nahiz ta astero plazan elkartu
kartel bat eta bi katuz
"Donosti a(d)ina europearrak
ez gara" aldarrikatuz.

2
Donostitikan Hendaiaraino
bat egitea a(ha)l bada
ezinezkoa eman lezake
baina asmoa hala da
ta badakigu metroa ere
beharrezkoa dala ba
lur azpitikan batuko dira
Bretxa eta Orkolaga
Euro-Hiriko suburbioak
behar du bere parada.

3
Lau agure zahar lehengo garaiak
ezin analizatuan
hanburgesari kozka eginez
ritmo paralizatuan
euskera hutsean Maxi-txotxeko
kupel galbanizatuan
hori izango da txakur berdea
artalde leziatuan
gure oxigeno bonbonatxoa
mundu globalizatuan.

4
Mestizajeak ekarriko du
munduko hainbat aurpegi
ilobak berak izan litzazke
oriente aldeko bi begi
larru azala ilun-iluna
zuri-zuri nahiz beilegi
apatx hartuta pentsatuko det
"hau bertsolaria bedi!
Afizioa gorde zak ondo
baina aitonari ez segi"!

[**Unai Agirre**, 2003an Joxe Legarretaren omenez Ereñozun egindako bertso-emanaldirako jarriak]

BERTSO ESKOLA IV

Irakasleak:

- 2011-2012 ikasturtean: Asier Azpiroz, Arnaitz Lasarte, Oier Iurramendi eta Unai Gaztelumendi.
- 2012-2013 ikasturtean: Asier Azpiroz, Arnaitz Lasarte eta Oier Iurramendi.
- 2013-2014 ikasturtean: Arnaitz Lasarte, Oier Iurramendi eta Eli Pagola.

3-4 talde izaten ditugu, bakoitza 8-9 ikaslekoa. Hasiberriekin talde bat osatzen dugu eta ia erabat idatziz aritzen dira. Beste talde bat egiten dugu bertso eskolan gutxienez bi urte egin dituztenekin eta hauetako batzuek idatziz eta besteek bat-batean egiten dute. Eta hirugarren talde bat osatzen dugu lau-bost urtean bertsolaritza landu dutenekin eta ia erabat bat-batean egiten dute. [**Asier Azpiroz**]

Bertsolaritza halako boom bat bizitzen ari da eta guraso askok beren umea bertso eskolara bidali nahi dute, hizkuntzarekin jolasean aritzeko. Izen pixka bat badu Hernanikoak eta kanpotik ere jendea etortzen da. [**Asier Azpiroz**]

Nik irakasle oso maitea nuen Unai Gaztelumendi. Ez genuen dena bertsotan egiten, hitz egin ere bai. Berak saiotarako ate asko ireki zizkigun, auzotara joateko eta deitzen zigun, babes berezi bat sentitu genuen beragandik. [**Eli Pagola**]

Prestaketetan boladak izaten dira: Batzuetan etxean ustez sekulako jokoak asmatzen dituzu eta eskolara eraman eta hamar minutuan bukatzen dira, beste batzuetan gutxirekin zoazelakoan hariari tiraka klase osoa joaten zaizu... Lasai hartzen eta umeekin tratuan ikasten duzu. [**Arnaitz Lasarte**]

HEZKUNTZA ARAUTUAN

Hernanin sumatu dut azpia ahultzen joan zela, jende aldetik fintzen joan zaigula. Bolada batean belaunaldi fuerte bat egon zen, baina taldeak osatzea gero eta gehiago kostatzen zen, esaterako, ikastetxe batean irakasle bat postuz aldatu delako eta haren ordez zegoenak ez zuelako bertsoa lantzen. Hernanin ere oso talde txikia izatera iritsi zen.

Nik uste Bertsozale Elkartetik ikastetxeetan bertsolaritza lantzeko proiektua gorpuztu denetik beste emaitza bat izan dela: 4 talde atera ziren 2009an Eskolarteko Txapelketan. 6 urte lehenago ez dut uste lau talde aterako zirenik. Oinarrizko lan hori oso inportantea da. [**Jexux Mari Irazu**]

Bertsozale Elkarteko langile Unai Muñoa aritzen da Hernaniko eskola denetan bertsolaritza ematen eta laguntza handia da bertso eskolarentzat berarentzat. Bertso-Lataren barruan idatzizko lehiaketa antolatzen dugu 2010. urtetik, eta iragartzeko orriak guk egiten ditugu baina Muñoa arduratzen da eskola denetara zabaldu, bertso sortak jaso eta guri emateaz. Bertso-Latan umeen saioa egiten da eta hor banatzen dira sariak, eskola bakoitzeko sari bat eta beste sari orokor bat. Saria izaten da irabazlearen gelak bertsolari bat aukeratzea: bertsolari hori joaten da eskolara eta elkarrizketa egiten diote. [**Oier Iurramendi**]

Gipuzkoako Bertso Eskolen Egunerako Hernaniko antolaketa ere Unai Muñoak egiten du. Umeek oso ondo pasatzen dute, asko dira urtero hutsik egiten ez dutenak, eta badira bertso eskolara ez eta Bertso Eskolen Egunera joaten direnak. Bertsozale Elkarteak antolatzen du, eta autobusa herriz herri pasatzen da gure bila. [**Oier Iurramendi**]

Eskoletako proiektu hori languntza handia da bertso eskolako irakasleentzat ere, bertso eskolara datorren ikaslea jada hezkuntza arautuan probatuta bait dator. Neurriei buruz zerbait badaki, bertsoa idazteko gai da, doinu batzuek badakizki, bertsoa zer den badaki. [**Asier Azpiroz**]

Muñoak interesa duen ikasleren bat ikusten duenean, bertso eskolara bideratzen du. Ume asko etorri dira berak bultzata. [**Oier Iurramendi**]

IRTEERAK

Aste Santutan Askizuko asteburu-pasa egiten jarraitzen dugu. Oso gustuko dute umeek. [**Asier Azpiroz**]

Lehen Eskolarteko Txapelketa prestatzeko kontzentrazio moduko bat izaten zen. Orain beste norabide bat hartu du, asteburua elkarrekin pasatzeko eta taldea egiteko baliatzen dugu. Gauean txapelketa egiten dugu oraindik. Ikasleak desiatzen egoten dira, eta dezente dira jada bertso eskolan ez dabiltzanak baina asteburu pasa etortzen direnak. [**Oier Iurramendi**]

GAZTEEN TALDEA

Nahi baino gutxiago, baina bertsotarako biltzen saiatzen gara. Ostiraletan umeei eskola eman eta ondoren gu aritzen gara. Oier Iurramendi, Asier Azpiroz, Eli Pagola eta Eñaut Martikorena. Arnaitz Lasarte tarteka. [**Oier Iurramendi**]

2011KO GIPUZKOAKO TXAPELKETA



2011ko Gipuzkoako Txapelketako finalistak, ilunben:
Alaia Martin, Aitor Sarriegi, Beñat Gaztelumendi, Jexux Mari Irazu, Iñaki Apalategi, Agin Laburu, Jon Martin eta Unai Agirre.
Iturria: http://irutxulo.hitza.info

SAILKAPENA:	
1. Aitor Sarriegi (txapelduna)	1.051 puntu
2. Beñat Gaztelumendi	1.045,5 puntu
3. Alaia Martin	594 puntu
4. Iñaki Apalategi	590 puntu
5. Agin Laburu	588,5 puntu
6. Jexux Mari Irazu	578 puntu
7. Jon Martin	577,5 puntu
8. Unai Agirre	572 puntu

Oñatiko saioan, Hernaniko bertso eskolako hiru kide: Iñaki Zelaia, Jexux Mari Irazu eta Agin Laburu.

Iturria: goiena.net.

BERTSO ESKOLAKOAK SAILKAPEN TAULAN

Finala:

- Beñat Gaztelumendi: Txapeldun ordea
- Agin Laburu: bosgarren
- Jexux Mari Irazu: seigarren
- Unai Agirre: zortzigarren

Final laurdenak:

- Iñaki Zelaia
- Unai Gaztelumendi

Final zortzirenak:

- Asier Azpiroz

Lehen fasea:

- Iker Osa
- Arnaitz Lasarte

Aitor Sarriegi txapeldun, ondo merezita

Beñat Gaztelumendik jokatu zuen buruz burukoa, eta 5,5 puntura geratu zen. Sarriegik Mikel Mendizabali eskaini zion txapela.

Aitor Sarriegik jantzi zuen Gipuzkoako txapela, atzo Illunben, ia 10.000 lagunen aurrean. Lehenengo lanetan berak dominatu zuen, eta buruz burukora 16 puntuko aldearekin pasa zen, Beñat Gaztelumendirekin batera. Gaztelumendik bukaera ikaragarria eman zion saioari, eta bigarren postua lortu zuen, bigarren aldiz segidan. Final ederra izan zen, bertso mailaz eta jendez. Sarriegiri Laxaro Azkunek jantzi zion txapela, eta Mikel Mendizabali eskaini, bertso maisu izandakoari eta bertso munduan hainbeste lan egindakoari.

Orokorrean saio parekatua izan zen atzokoa. Alaia Martin eta Iñaki Apalategi hazi egin zituen plazak, eta hirugarren eta laugarren postuan geratu ziren, saio ederra eginda. Agin Laburuk bosgarren postua lortu zuen eta ale ikaragarriak utzi zituen. Jexux Mari Irazuk puntu bat gehiago behar izan zuen, aurrean sartzeko, saio erregularra eta ona egin baitzuen. Jon Martin eta Unai Agirre izan ziren zazpigarren eta zortzigarren, eta haiek ere ale ederrak utzi zituzten.

Hernaniko bertso eskolako kideek lan ezin hobea egin dute, txapelketa osoan, eta lau kide sartu dituzte finalera. Emaitza ederra, beste behin ere. [**Hernaniko Kronika**, 2001-12-19]

2011ko Gipuzkoako Txapelketan, Arrasateko saioan Beñat Gaztelumendi Alaia Martinekin kantari. Iturria: goiena.net.

Abenduaren 18a, Donostiako Illunben

Beñat Gaztelumendi eta Agin Laburu. Bi hilabete daramatzazue dieta zorrotza egiten. Auzoko dendan Gabonetako saskia egokitu zaizue.

B. Gaztelumendi:
Saski honetan sobran daukagu
janari ta edaria
turroi usaina urrutitikan
ere hain da nabaria.
Nere sabela tanborradako
notekin hasi da ia
hau izango da bi hilabetek
merezi zuten saria.

A. Rezola:
Dunkan dieta hasi genuen
ta hasieran atsegin
aitortuko dit bizpahiru aldiz
nola nuen nik hutsegin
ta orain berriz, saski aurrian
hortza zorrotzekin Agin
esaten ditek destinuai ezin
zaiola kontrarik egin.

B. Gaztelumendi:
Nabaritzen da betaurrekoak
lurrunduta dauzkazuna
janaritara luzatu ohi da
sarri gure maitasuna
gu ez bezela, Dunkan dieta hori
hori bai dela astuna
dietistak zerbait badaki baina
hemen dago osasuna!

A. Rezola:
Ikusten diat turroi tableta
ta txokolate printzia
ez dek errexa baba-jario
Beñat hemen isiltzia
ez dek komeni galtzatan ezin
kabiturik ibiltzia
baino askozez hobia ez dek
izango penaz hiltzia.

B. Gaztelumendi:
Guk nahi genuen uda heltzean
ondartzan sentitu arin
baina jadanik nekatu xamar
gaude Beñat eta Agin
zeren zain zaude kendu estalkia
eta jateari ekin!
Gure tabletan egingo dira
txokolate bigunakin.

A. Rezola:
Txokolatien kontuak nahiz ta
piztu lezaken mamua
gaur lehendabizi probatuko det
eta horkonpon damua
hitz kentzak beso hori hortikan
kozka egitera nua
edo lehenengo kozkan jango dit
igual brazo jitanua!

Bi mendizale zarete. Hamaiketakoa egiteko unean, Unai Agirrek txorixoa eta ardoa atera ditu, eta Alaia Martinek Isostar eta barrita energetikoak.

U. Agirre:
Zer negargure dedan
ez noa esatera
bota gorri hoiekin
gora eta behera
barrita ziztrin hoiek
neri ez atera!
Erniora igo gera
ez Everestera!

A: Martin:
Lehendik igoak ditut
nik Everest batzuk
zuk tortila jan eta
ardoari zurrut!
Zahatotik tragorikan
nolatan hartu guk
bestela malda doble
ikusiko baitut!

U. Agirre:
Eskutan ditugunak
nahi lituzke truka
malda gora ta behera
nolako burruka
malda doble ikusten da
hori ezin det uka
baina ez dio ajolarik
beherantza degu-ta.

A. Martin:
Ez duzu nahi ohiturak
guztiz apurtzea
nahi duzu tragoxka bat
zuri lapurtzea
merezi duzu izerdi
patsetan urtzea
zugatik jarri dute
goiko gurutzea.

U. Agirre:
Ospatzekoa ez al da
hartu degun blaia?
zuk figura nahi dezu
mehea ta galaia
ez dezu disfrutatzen
nahiz gogotik saia
zuk izena bakarrik
daukazu alaia.

A. Martin:
Izana ere badut
ez izen bakarra
baina zure ondoan
gertu dut negarra
geratu zaitez bertan
edaten pattarra
gorantza goaz ni ta
nire Isostarra.

Korrikalariak zarete. Hanka bana galdu zenutenetik, hanka ortopedikoarekin ibiltzen zarete lasterketetan. Donostiako maratoian Jexux Mari Irazuk bistan darama hanka ortopedikoa, Beñat Gaztlumendik ezkutuan.

Doinua: Haizak hi mutil mañontzi.

J.M. Irazu:
Behin jarri eta finkoa
hanka-laguna tinkoa
nere ondoan lotsati zaude
kezka haundikoa.
Azaltzea begikoa
baita nere neurrikoa
kontzientzia ez dedalako
ortopedikoa.

B. Gaztelumendi:
Nik ere korrikalari
moduan nahi nuke ari
inork ez dio erreparatzen
kontzientziari.
Ondoan begi ugari
egongo baitira adi
daukagunari baino gehiago
falta zaigunari.

J.M. Irazu:
Falta zaiguna arazo
izan liteke akaso
guk maratoia egingo degu
hori ez da frakaso.
Egin korri pausoz pauso
ta burua gora jaso
irteeran hanka erakutsi ta
helmugan bi beso.

B. Gaztelumendi:
Nahiz ta bi eskuak igo
nahiz aurrera jo astiro
istripu harek eragiten dit
nahikoa bertigo.
Hemen ez delako giro
ikusten dedan aldiro
zauri itxiek mina ematen
didate berriro.

J.M. Irazu:
Lehengo modu berdinean
ez gaudela jakinean
hala (e)re korri egiten degu
pauso arinean.
Istripuaren minean
ta zaurien ezinean
ez al zenuen hau sinatuko
UBIn zinenean?

B. Gaztelumendi:
Goizero entrenatzera
zazpi terdiak aldera
bai, egia da, pozik helduko
nintzen sinatzera
eta hemendik aurrera
bakoitzak bere karrera
nahiko garaipen bada honaino
iristea bera!

Gaixotasun batetik sendatzeko baja eman zizun sendagileak. Hala ere, haurrak zaindu eta etxeko lanak egin behar izan dituzu. Lehen eginda eta minez zoaz ohera.

Doinua: Habanera.

Beñat Gaztelumendi:

1
Atzo goizez jeiki nintzen
ni sabeleko min haundiz
lanera joan edo ez
pentsatu det mila aldiz
baja eman didate ta
orain ere hemen gabiltz
barruko minetan baina
seme-alabekin irriz.
Bazkaria jarri diet
berriz goxo eta neurriz
barrenetik egon arren
atsedenaren inbiriz
orain zera pentsatzen det
izarak gainean jarriz:
desberdina litzakeela
gizon jaio izan banintz.

2
Gizarteak eta biok
dauzkagu gaixotasunak
gaur ere lan asko zeukan
ta nere mutil-lagunak
zaindu ditut umeak ta
garbitu ditut komunak
hogeita lau ordu ez ditu
guztiontzako egunak.
Pentsamenduak argitzen
dizkit gelako ilunak
nola guztia ez duen
sendatuko maitasunak
bajak kendu dizkit nere
lantoki aldeko jardunak
baina lan gehiegi daude
ikusten ez ditugunak.

3
Emakume bakarra naiz
gure bulego partean
gehiegi gelditu ziren
igoeraren atean
behintzat badaukat lan bat ta
hori ez da nere kaltean
nahiz beste hiru haur ere
izan nere gonapean.
Azken finean genbiltzan
gu honen borondatean
diote aurrera omen
goazela gizartean
eta hala segiko det
ahal dedan bitartean
bi bizitza bizituaz
bizitza bakar batean.

2013KO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Sortzi finalistak BECen.

SAILKAPENA:	
1. Amets Arzallus	1.737,5 puntu
2. Maialen Lujanbio	1.686,5 puntu
3. Igor Elortza	1.164 puntu
4. Aitor Mendiluze	1.155 puntu
5. Aitor Sarriegi	1.106 puntu
6. Beñat Gaztelumendi	1.099 puntu
7. Unai Iturriaga	1.099 puntu
8. Sustrai Colina	1.082,5 puntu

BERTSO ESKOLAKOAK SAILKAPEN TAULAN

Finalean:

- Maialen Lujanbio: Txapeldun ordea
- Aitor Mendiluze: Laugarren
- Beñat Gaztelumendi: Seigarren

Final-erdietan:

- Unai Agirre (1.362 punturekin, finalerako azken sailkatu zen Aitor Sarriegirekin berdinduta geratu zen)
- Jexux Mari Irazu
- Agin Laburu

Final laurdenetan:

- Iñaki Zelaia

TXAPELKETA ZENBAKITAN

13.500 ikus-entzule batu ginen 2013ko abenduaren 15ean BECen (hilabete lehenago sarrera denak agortuta zeuden eta milaka lagunek, tartean bertsoaren muineko jendeak, era guztietako zozketetan parte hartzeko erromesaldiari ekin zion). 17.757 ikus-entzule ibili dira Txapelketa osoan zehar, 13 saioetan. Hauei gehitu behar zaizkie ETB1en uneren batean finalaren ikusle izan ziren 355.000 herritar (bataz beste euskaldunen %28k jarraitu zuen emankizuna egun osoan zehar) eta bertsoa.com-etik zuzenean internetez jarraitu zuten 4.000tik gora ikus-entzule.

[**Estitxu Eizagirre**, 2013 Euskal Kulturaren Urtekaria]

Eskerrik asko

Eskerrik asko ezer baino lehen BEC-eko oholtza gainera igo zineten zortzi bertsolarioi. Egiatan diot aspaldian hartu dudan gozaturik handienetakoa hartu nuela, eta iritzi konpartitua izan zela badiot ez dut uste oso oker ibiliko naizenik. Banituen finalaren aurretik bi sentipen. Bata: finalaurrekoak arte askoz ere presenteago zeudela bertsolarien hutsegiteak jendearen ahotan, egindako lan txukunak baino. Bigarrena: nire inguruan sumatzen nuen aurreko txapelduna Maialen izan arren txapelaren defentsa Ametsek egin behar ote zuen. Jende askok aldez aurretik jarri zion txapela Ametsi eta horrek bere karga du.

Baina tira, usteak uste eta irudipenak irudipen, BEC-en goizeko hamaikak jo eta finala hutsetik hasi zen bertsolari guztientzat. Lau urte lehenago baino giro hotzagoa, beharbada, aulkietan, goizez, ez hala arratsaldean. Baina agurrak entzun eta lehen bertsotik hasita benetan gauza zoragarriak guztien ahotik. Maialenen lehendabizikoak intentzio-deklarazio izan nahi zuela zirudien: gaiari eman zion begirada hori saio osoan zehar mantendu zuen. Elikagai-banku batean kamioia kargatzen ari denaren paperetik "eskatutako borondatea borondatea ote da?" galdetu zuen momentutik hasi zen entzuleoi atximurka. Bertsoen kalitate estilistikoaz haragoko bertsokera batez gozatzeko parada izan genuen: ideologia oso bat, ikuskera bat, prisma bat eta dimentsio berezi bat. Izugarria begitandu zitzaidan Maialenen BEC-eko saio oso-osoa. Ospitaleko pailazoaren ahotik "barrea ere barreago da minarekin nahastuta". Edo "bizitzeko ia berandu da ta hiltzeko oso garaiz", emakume urtetan sartuaren paperean. Zaurietatik zetozen ahotsak entzun genituen hernaniarraren ahotik. Ahots urratuak gure giza kondizioaren zaurietan beretan arakatu eta orbantzen laguntzeko. Ez zuen txapelik jantzi, baina inoizko Maialenik onena entzun genuela ez dut zalantzarik egiten.

Txapelduna Amets Arzallus zela esan zuten momentua.
Argazkia: Dani Blanco / Argia.

Txapela, izan ere eta honezkero dakizuen bezala, Ametsen burura joan baita bi mila eta hamahirugarren honetan. Amets gozo bat entzun genuen, aurreko txapelketetan mundua jatera zihoan gazte hura atzean geratu da, mundua murtxikatzen hasi da, talentuz, pazientziaz, pausaz. Goizeko lehen pare bat ariketetan bertsotan buruarekin, arrazional, klasez sumatu banuen ere, laster jaitsi zuen bere errotaren ardatza sabelera, eta barrutik kantatu zigun, denok magalean hartuta. Kafearekin topa egin genuen, barrea margotu zigun sarri-sarri eta hunkitu noiznahi. Buru onean jarri zuen txapela Joanito Dorronsorok.

(...) Finalaurreko bi saioetako arantzak atera zituen bestea Aitor Mendiluze. Oso goitik, esango nuke inoiz egin duen finalik onena egin duela aurten. Begiratu ironiko hori paseatzera atera zuen behin baino gehiagotan: agudo iltzatu zitzaigun buruan nagusiaren paperetik Sustrairi kantatu ziona, "lan gutxi dagoela dio alajaina, ea baduten zuri emateko aina". Berdin seiko motzean Ametsekin egindako lana ere, puntu motzak eder josiz eta edukiz kargatuz. Makillajerik gabeko bertsokera ederra, entzun izan dioguna eta aspaldion aditu gabea, txapelketan. Asko poztu gintuen, eta jendearen estimuak ere adierazi zuen garbi.

Beñatekin ere puska batean akordatuko da bertsozalea. Finaleko debutari bakarrak ere hortzak erakutsi zizkigun, eta ez zion mingainari horzkarik egin. Emozioa transmititzen asmatu zuen bete-betean, eta ez zen momentu batez ere itzali. Egunak luze jotzen du BEC-en, baina bizkar gainean eraman zuen bertsoz bertso karga guztia, kanpokoon begietara arintasun erabatekoz. Kantaera lehen begiratuan ingenuo baina poetikoak limurtu gintuen, azken agurrean anaiari kantatuko bertsoan negarrez jartzeraino.

(...) Honekin joan da txapelketa. Txapela aldatu da buruz, gehiegi esatea ez bada, nik gogoratzen dudan finalik onenean. Atzera berriz lehengoa: eskerrik asko, bihotzez, eskerrik asko. [**Iñaki Gurrutxaga**, argia.com abenduaren 16an]

Azken bi txapelketetan finalera iritsi banintzen ere, gris arituaren sentsazioa nuen, saio bat hasi eta bukatu txukun egin gabe. Banekien plazan askoz gehiago egiten nuela bertsotan horrelako plaza handi batean baino. Niretzat garrantzitsua izan da jendeak esatea "Mendiluzek final on bat egin du". Jendearen gogoan zerbait uztea. Nire aurreikuspenak gainditu ditu final honek, zentzu horretan. Hernaniko koadrilan egindako lanketarekin, uste dut bertsokera bat erakutsi dugula. Neurri motzetan, erantzunetan, puntutan egiteko era bat. Hori erakusteko apustu kolektiboa ere bagenuen. Elkarrekin konpartitutako ikuspegi hori islatzea nahi genuen. [**Aitor Mendiluze**]

Oholtzatik kanpoko Beñat oholtza gainean azaldu dela sentitu dut, lehen aldiz. Kantatzen dudan hori erabat sinetsita kantatzen dut, barrutik kantatzen dut. Bide baten hasiera izan da niretzat txapelketa hau. Finalean lehen aldiz aritu naiz. Bertsolariok taldean bizi dugun egun bat da. Umetan finalarekin amestean nire burua bakarrik imajinatzen nuen han, baina iritsitakoan ohartzen zara taldeak egiten duela final hori. Giza harremanetatik sortzen den giro berezi bat da. Luzea egin zitzaidan eguna, fisikoki gogorra. Baina aldi berean gozamena da jendea horrela ikustea. Elkartean mila bilera egiten ditugu eta umetatik bertso eskolan aritu gara, eta bizitzan ondoan eduki duzun jende hori dena egun batean batuta ikusten duzu. Sentsazio ederra da bertsolaritzaren inguruko lanean aritzen diren hainbeste mila lagun denak parean ikustea, finala egiten. [**Beñat Gaztelumendi**]

Niretzat berezia izan da, behetik gora egin dudalako bertso mailan. Nire buruari zor nion. Urte asko daramatzat txapelketetan eta bertsotan baina inoiz ez zitzaidan tokatu borobil xamar ateratzea. Aurten ongi atera zait eta gustura geratu naiz. Txapelketa enfokatzeko txipa erabat aldatu dut, orain askoz lasaiago bizi ditut eta saiatzen naiz alde positiboarekin gelditzen, eta alde negatiboei ahalik leku gutxien egiten. Doinu berria ateratzea nire kapritxoa izan da. 2011ko Gipuzkoako Txapelketan sentipena nuen doinu bat gabe ari nintzela, ez neukan garbi zerekin kantatu. Honakoan ez zitzaidala hori gertatuko erabaki nuen, Imanol Kamiori eskatu nion eta egindako hauxe asko gustatu zitzaidan. Entzuleak normalean gu ez gaitu entzuten, ahaztuta zauzka, eta pixka bat gora egiten baduzu esaten du "hau oraindik bizi da!". Asko nabaritu dut hori. Eta eragin handia izan du aurtengoan final-aurreak zuzenean telebistaz eman izanak. Jende askok ikusi ditu. Txapelketari esker saio askotarako deitu didate. [**Unai Agirre**]

Nire bosgarren Txapelketa Nagusi hau aukera bezala planteatu diot neure buruari, neure bertsokerari beste landualdi bat eman eta bidean aurrera egiteko plaza eder gisa, bere arrisku eta kontraesan guztiekin, noski. Gogoz, ilusioz eta mimoz prestatu dut, agian inoiz ez bezala. Egindako lanarekin, orokorrean, oso gustura gelditu naiz, bai ofiziotan eta batez ere bakarka. Niri plazan apenas ez zait bakarkakorik jartzen eta txapelketan emaitzarik onenak lan mota horretan sortu izango ditut. Hortik aurrera, zer esan... onartzen dut txapelketa ez dela bertsoa bera bakarrik, behar bada hala izan da lehen ere eta hala izango da gero ere. [**Jexux Mari Irazu**]

Beste eskarmentu bat izan da txapelketa hau, azken urteetan nola garatu naizen ikusteko. Oraingoan kontzienteago izan naiz zer egin nahi nuen eta zer ez. Eskola garrantzitsua izan da, prestaketetan asko ikasi dut. 2011ko Gipuzkoako Txapelketa izan zen inflexio puntua niretzat, orduan eman nuen nire burua jendartean ezagutzera. Baina oraingoarekin konturatu naiz Gipuzkoakoak nik uste nuena baino eragin txikiagoa zeukala. Askorentzat oraindik ezezaguna nintzen, eta horientzat agian sorpresa izan naiz. Plazetan Gipuzkoakoari esker sartu nintzen, lehenago urtean 10 saio egiten banituen, Gipuzkoako Txapelketaren ondoren 50 egitera pasa nintzen. Txapelketek kantatu dudan zonaldeetan eman dizkidate saioak: Gipuzkoakoan Oñatin kantatu nuen eta geroztik urtero saio pare bat egiten ditut han, eta Euskal Herrikoan Markinan kantatu nuen eta Bizkaian saioak atera zaizkit. [**Agin Laburu**]

Lehenik sorpresa izan zen: ez nintzen parte hartzekoa eta maiatzean jakinarazi zidaten aukera nuela, beste bertsolari batek uko egin ziolako. Ordutik saiora arte, motibazioa eman digu desordutan bada ere elkarrekin biltzeko eta prestatzeko eta oso ongi pasatu dut. Txapelketan ere nahiz eta lehen saioa egin eta kanpo geratu naizen, elkarri lagunduz biltzen jarraitu dugu eta beraz bukaera arte jarraitu dut. Ikasteko aukera handia izan da. Saioarekin ere oso gustura geratu nintzen, egindako lana ikusi zelako. [**Iñaki Zelaia**]

2013-12-15 Barakaldo

Puntua:
Kazetari ugari
bada kartzeletan.

Aitor Mendiluze:
Egia kontatuta
sartu dira bertan
askatasuna aipatu
ohi da berrietan
badutela sinisten
al dugu benetan?

Puntua:
Idaztea bihurtzen
denean delitu.

Aitor Mendiluze:
Egiarekin ezin
gintezke aritu
baina gezurrarekin
nahiz eta kunplitu
bide horrek aurrera
pauso gutxi ditu.

Puntua:
Zuk ematen al duzu
zure iritzia?

Aitor Mendiluze:
Inoiz ez ukatzera
nago iritsia
nahiz eta ez nagoen
denetan jantzia
benetan esateak
dauka garrantzia.

Bakarkako gaia: Adimen-urritasuna duten gazteekin balleteko dantza-taldea sortu zenuen urte hasieran. Gaur duzue estreinaldia.

Doinua: Habanera.

Beñat Gaztelumendi:
Antzoki bat alokatu
dugu nahita guretzako
hirurehun bat gonbidapen
famili denak aintzako
erdi betea zegoen
gu hona iristerako
hor daude zuriz jantzita
media banakin galako
argiak piztu dira ta
nik isuri hainbat malko
teloi gorria hartuta
beraien ametsen marko
denak hor hanka punttetan
horren fin ta horren guapo
emandako urrats bakoitza
salto handi bat dalako.

Sarri ispilu hautsi bat
urritasuna hori da
ikus litekeena segun
nondik jartzen den begira.
Hortxe dantzari parea
doa fokoen argira
eta gero solista bat
irten da oholtza erdira
irribarretsu dabiltza
beren jauzi eta bira
gurasoek ta lagunek
zenbat txalo, zenbat biba.
Joan dira oholtza gainera
alturara, antzokira
eta lehenbiziko aldiz
parez pare jarri dira.

Askorako ematen du
sarri ordu ta laurdenak
pozik daude dantzariak
eta begira daudenak
flashak eta irrintziak
aitenak eta amenak
denengana heltzen dira
artearen ahalmenak
astean ordu betean
ahazten dituzte penak
ta hor pistaren erdira
hortxe irten dira denak
publikoaren txaloak
publikoaren gorespenak
urritasuna dauka hau
ulertu ezin duenak.

Aitor Mendiluze Olentzero eta Igor Elortza Aita Noel zarete. Tximiniatik sartu ezinik zabiltzate.

Aitor Mendiluze:
Gabon adiskidea
nolatan zu hemen

Igor Elortza:
ikusi beharko da
adiskide garen

Aitor Mendiluze:
nik baietz pentsatu det
ukatu baino lehen

Igor Elortza:
berba egingo dugu
amaitu ondoren.

Igor Elortza:
Zergatik zatoz horren
itxura beltzeko?

Aitor Mendiluze:
Ezin da txuriz joan
ikatza lortzeko.

Igor Elortza:
Gogoa al daukazu
haurrak izutzeko?

Aitor Mendiluze:
Ta zuk berriz guztiak
barrezka jartzeko.

Aitor Mendiluze:
Zeinen ridikulua
uniforme hori

Igor Elortza:
ba Coca-Colak dio
nagoela ongi

Aitor Mendiluze:
falta dira zintzilik
bola bat edo bi

Igor Elortza:
zure kapoitxo hoiek
ekartzea tori.

Igor Elortza:
Kontuz nirekin daude
CIA eta Nasa

Aitor Mendiluze:
ta halere sartzeko
ez zera kapaza

Igor Elortza:
ez didazu ipintzen
ez bide erraza

Aitor Mendiluze:
lagun handiak baina
laguntza eskasa.

Aitor Mendiluze:
Ze tximini estuak
gaurko etxeetan

Igor Elortza:
neu ere sartu ezinik
nabil bai benetan

Aitor Mendiluze:
gainera su bajurik
ez da kaleetan

Igor Elortza:
amaitu behar dugu
gaur biok penetan.

Igor Elortza:
Sartzeko beste bide
bat ba ote dago

Aitor Mendiluze:
nik Mepansaren ordez
atea nahiago

Igor Elortza:
zoaz zu aurretik ta
gero ni errazago

Aitor Mendiluze:
lan zikinak egiten
ni ohituta nago.

Aitor Mendiluze:
Baina ta zer umeak
esnatzen badira?

Igor Elortza:
baten bat ikusi dut
leihotik begira

Aitor Mendiluze:
ez gaitzala ikusi
azkar erretira

Igor Elortza:
nik ipuinak kontatu
ta zeuk jarri tira.

Igor Elortza:
Noski bion artean
hobe izango da-ta

Aitor Mendiluze:
ia ba sartzen geran
elkarri tiraka

Igor Elortza:
azkenik egin dugu
langintza aparta

Aitor Mendiluze:
eskerrak ia errege
eguna bada-ta.

Zu, Igor Elortza, autobusean zoazela, Maialen Lujanbio zure ondokoa telefonoz hizketan hasi da. Bikotekideak jo egiten duela eta gehiago ezin duela esanaz jardun da, negarrez hasi eta moztu duen arte. Musuzapia eskaini diozu.

Igor Elortza:
Beraz behin izan zena
egizko maitasun
bihurtu da ez bero
ta ez etorkizun.
Negarrari zapiaz
diot gaur erantzun
eta denerako prest
nengoke ni, entzun,
malko hoiek benetan
lehortu ditzazun.

Maialen Lujanbio:
Laguna bihurtu zait
maitale ez, putre
nire begi ertzetan
malkoak itute
musuzapia ematen
hara ze jardute
zapia hartzen dizut
keinu horren truke
eta musua ere
eskertuko nuke.

Igor Elortza:
Beraz eskatu eta
emanda aski du
mundu hontan berdintsu
gabiltza beti gu
bakarrik sentitzea
ohi dugu deskuidu
ez zara beti izango
zu bere gatibu
hortik irten liteke
neu nauzu testigu.

Maialen Lujanbio:
Zuk ere pasatuak
egunik beltzenak,
ez dakit ba berdinak
ote garen denak...
Orain min ematen dit
senarran izenak
ez ninduen maitatu
maitale ez zenak
ta odolik gabeak
zauririk latzenak.

Igor Elortza:
Zauri hoientzat eman
dizut lehen zapia
konpartitua baitut
zure lubakia.
Azaldu nahi nizuke
ondo zergatia
neure arreba izan zen
behin ikaratia
nahi baduzu har zazu
haren zenbakia.

Maialen Lujanbio:
Ba eskertuko dizut
ta zuri hori zor
ia leuntzen didan
nire hainbat minsor
telefonoz nenbilen
eztarria idor
zuk entzutea behar
bainuen derrigor
telefonoz bestalde
ez zegoen inor.

Aitor Mendiluzek eta Amets Arzallusek beren seme-alaba nerabeak topatu dituzte, biluzik, elkarri argazkiak ateratzen. Aitor kezkatuta dago; Ametsek ez dio aparteko garrantzirik ematen.

Doinua: Haizak hi mutil mainontzi.

Aitor Mendiluze:
Heziketa da lehena
ta emateko kemena,
ahalegina ta konpromisoa
da gurasoena
baina jakinda hauena
gaur egun gertatzen dena
biluztea ez, argazkia da
kezkatzen nauena.

Aitor Mendiluze:
Bi bular koxkorrak hara
bien artean konpara
eta diozu deskubritzea
hain txarra al da ba?
ez baina iristen bada
sare sozialetara
denek ez dute izango agian
zure begirada.

Aitor Mendiluze:
Zer pasa liteken egun
nahiz ta kontatu diegun
agian errez delako edo
kontzientziz bigun
zergatik epaitzen jardun
nola aukera daukagun
eser gaitezen eurekin eta
hitz egin dezagun.

Amets Arzallus:
Argazki baten flash hutsa
zorrotza da, ez amutsa
ai, baina Aitor bi gorputz hoiei
emaiezu funtsa
bi bular koxkor goruntza
hanka tarteetan huntza
zer dauka txarra deskubritzeak
besteen gorputza?

Amets Arzallus:
Zabiltz neurritik irtena
egin ezazu etena
ez baita Aitor hainbestekoa
seme-alabena
egin gabeko hobena
ez dezazula kondena
ez zazu zuk zeuk imajinatu
egin ez dutena.

Amets Arzallus:
Ta gorputza goitik behera
bi begien arabera
azter dezagun ta gero egin
hurrengo galdera
zer sartu Internetera
edo eta zer atera
geronek ere ikas dezagun
eurekin batera.

Bertokoei lana kentzen diezula entzun behar izan duzu berriz ere.

Doinua: Naufragoarena.

Aitor Mendiluze:

Arrantzontzian kresaletan blai
ez asteburu ez luzeko jai
han Senegalen ikasi eta
ustez badet nahiko dohai
baina inor ez dago lasai
antza asko lan honen zai
nik betetzen det eta ai!
Orain gorrotoz zuzentzen zaizkit
ta ez naiz ulertzeko gai
itsasoratu nintzen garaian
inork ez zuen joan nahi.

Portutik irten da baporea
zai daukat sare ta alde ohea
baina portuan utzi dudana
ez da oso dotorea.
Lanerako adorea
neuregan daukat gordea
askok ez du nahi ordea.
Ta gauza ez da azal zuria
edo beltza den hobea
gaur egun denen arazoa da
diruaren kolorea.

Ez naiz sentitzen horko erregea
ez esklaboa, ez titerea.
Denek bezala soldata baizik
ez baita nire xedea.
Honetan banaiz trebea
saiatzea det legea
neuretzako mesedea
ta portukoek konprenituko
dutela badet fedea
neuk ere pena dudala baina
errua ez dela nerea.

Buruz-burukoa. Kartzelako hitza: Altzoa

Maialen Lujanbio:

Helduok bihotzean
zenbat harramazka
bizitzaren bizitzez
indarrak gasta
nekeak eta minak
askotan arrasta
uzten gaituzte eta
hori nola aska?
Bihotzeko zasta
bizkarreko lazta
banoa arnaska
hartzen nau xarmaz ta
altzoa da helduok
dugun sehaska.

DAMUTUKO ZAIZUTE!

web telebista saioa egin zuten Argia.com-en Arnaitz Lasartek eta Unai Gaztelumendik, Mirari Martiarena eta Ander Lizarralderekin batera. Astero umore kolpeka astindu zituzten txapelketako asteburuetako saioak. Bertso gaxoentzat droga hutsa.

Buruz-burukoa. Kartzelako gaia: Itzultzeko garaia da.

Doinua: Martxa baten lehen notak.

Maialen Lujanbio:

Beti berdin amaitzen ote da
etorkinen pelikula,
bukaeran bat idatzi al da
geronek ez dakigula?
Ekuadorren saldu ziguten
arrakastaren formula
eta orduan Espainiarantz
jarri genuen brujula.
Zenbat ate jo ote ditudan,
zenbat ofizina zula
zenbat etxe garbitu ta zenbat
zahar zaindu dudan kalkula.
Han miseritik ihesi eta
hemen krisia mardula
balirudike guk pobrezia
gurekin dakarkigula.

Etxerik etxe garbitzaile lez
nun bizi berria hasi
hemengo jardun modua egin
eta ohiturak ikasi
dena beltzean paperik gabe
dena murritz ta eskasi
asko dutenen etxeetan ere
ezin asko irabazi.
Nere buruai esaten nion
"horrela noiz arte haiz hi?"
Euskal Herrira ere heldua
nahiko mixeri ta krisi
eta hemen juxtu egoteko
nahiago han juxtu bizi
billeterako adina diru
bildu behar det lehenbizi.

Papel ofizialak falta ditut
berdin billete papela
nere lardaska eta lan txiki
moldatzen naiz dena dela
han dauzkat haurrak han familia
han etxe baten epela
ta itzultzeko garaia da ia
garbi ikusi dut horrela.
Euskal Herrian hainbestek jarri
didate keinu ospela
beste batzuek abegiz hartu
ezin zitekeen bestela
eurak inoiz migrante badira
argi izan dezatela
guk hartuko ditugu eurek gu
hartu gaituzten bezela.

2013-11-30 Maule-Elextarre

Adineko bikotea dira Aitor Mendiluze eta Unai Agirre. Zahar-etxera bizitzera joatea erabaki zuten. Lehen gaua han pasatu, eta gosaltzen ari dira.

Aitor Mendiluze:
Gu adineko bikote gisan
ia laurogeiren mugan
hainbat objektu txiki edukiz
eguneroko ohituran
hainbat gauzatxo, hainbat momentu
ta hainbeste keinu gugan
orain esnatu, bila hasi ta
non nagoenaren dudan
ia ez dakizu gauza hoiek faltan
nola botatzen ditudan.

Unai Agirre:
Urte ugarin bizitu gera
badet zenbait eskarmentu
gu bezelako ugari degu
gosari orduan gertu
bildurrez zaude Aitor maitea
ta oraintxe zera lehertu
gainontzekoak ikusten ditut
gustura eta kontentu
gure berdina pasako zuten
ta edozeini galdetu.

Unai Agirre:
Hiruroitamar urtekoa ni
ta laurogeikoa bera
bizi erreza izan dugunik
ez nijoa esatera
urte askotan bizitutako
gure etxetik atera
pauso geldian etorri gara
gu zaharren etxe batera
nahiz gauza asko ditugun faltan
pixkana ohituko gera.

Aitor Mendiluze:
Arrazoi dezu hemen ez gaude
lekurik okerrenean
nahiz eta kezka eta zalantzak
bildu nere barrenean
zertan kezkatu bakardadeaz
jendea biltzen denean
etxea eta lehengoa faltan
bota ditut aurrenean
gertuxeago izango ditut
semea datorrenean.

Aitor Mendiluze:
Beraz urtetan aurrera goaz
ta indarretan atzera
zerbait beharko genuen, noski
ta erabakia hauxe da
geurea utzi eta etorri
gera biok zahar etxera
baina zalantzak eta beldurrak
biltzen zaizkidan antzera
ez dakit inoiz helduko naizen
honi etxea deitzera.

Unai Agirre:
Nahiz adinean aurrera eginda
egin degun umiltzera
honek joera badu joateko
goitik behera amiltzera
seme-alabak etorri baietz
sarri gurekin biltzera
hainbeste negar ez daigun egin
eta goazen isiltzera
gu bizitzera etorri gera
ez gera etorri hiltzera.

Kartzelako gaia: Nehork ez zuen espero baina lortu egin duzu.

Jexux Mari Irazu:

Ez neukan alde haizea
dena traba ta leizea
baina buruai heltzea
maite dut nire etxea
gaztea eta pentsatzen zuten
seguru da partitzea
hau Parisera joango zaigu
ta tokatu isiltzea
laborantxara bildu naiz eta
lortu ere segitzea
sosak atera bizimodua
neurera erabiltzea
erakutsi det posible dela
Xuberoan bizitzea.

Urteetako etena
asko hemendik ertena
zen Parisen garaipena
eta euskaldunen pena
egoerari buelta ematea
gazte zenbaitzun lorpena
ingurukoek etsipena ta
nik ez nuen nahi azkena
berrehun bat ardi latxa ipini
neure pentzean barrena
aberastu ez naiz aberastuko
dirua ez baita dena
izpirituak badu nahikoa
lurrak ematen duena.

Lehen kanpora ate joka
han bizimodua topa
inori ez diot opa
hobe sorterrian koka
usteen kontra lortu dut eta
barrua daukat borborka
baina erabat ez naiz konforme
martxan dabilkit errota
jende gehiago, gazte gehiago
bai soina ta bai arropa
proiektu hontan sartu nahi ditut
Parisen nahiaren kontra
lortuko dudan ez nago ziur
hori da nere erronka.

2013-11-17 Murgia

Lankideak zarete. Fredi Paya, Beñat Gaztelumendirengana hurbiltzen zaren aldiro Beñatek ordenagailuan leiho bat ixten duela konturatu zara.

Fredi Paia:
Harrituta naukazu
azken egunetan,
pantaila jaisten duzu
baldin banaiz bertan.
Zer aurkitzen duzu ba?
Nabil galdeketan,
bertso-porno jartzen dun
pestaña horretan?

Beñat Gaztelumendi:
Zu agertzen zera ta
itxi ohi det di-da,
baina Fredi mesedez
hortik erretira.
Bertso-pornotan nabil
begira-begira
baina zureak soilik
ateratzen dira.

Fredi Paia:
Ba gaztea etorri
batetik bestera.
Kubara joan nintzan
ni innobatzera.
Bertsoa hasten baitut
sexuaz batera
pendulo itxurarekin
daukat habanera.

Beñat Gaztelumendi:
Beraz zu Kuban izan
zinen oporretan
eta Kariben daude
zurekin zorretan.
Sarri nabigatzen det
horrelakoetan
horregatik naiz ona
bakarkakoetan.

Fredi Paia:
Hola ezin da sortu
ez plazer ez sendi.
Zure entrenatzaile
izango da Fredi
alde hortarantz makurtu
Gaztelumelendi
ta ia nere habanera
zenezakeen senti.

Beñat Gaztelumendi:
Nik ez det funtzionatzen
zure arabera
beraz beste batentzat
utzi habanera.
Jefea ondoan dago
ta benga lanera
zu CIAkoak baino
txarragoa zera.

Kartzelako gaia: Prest duzu dena. Gonbidatuak falta dira.

Unai Agirre:

Doinua: Unai Agirrek txapelketan plazaratua.

Egun haundia, egun ederra,
gaur ez da egun kaxkarra.
Atsalde osoa ni sukaldean
badet barruan indarra.
Patatak eta gusanitoak,
bokadiloz barra-barra.
Mila irripar dauden tokian
ezin liteke hasarra.
Gaur ez degu egun txarra,
ez nuen uste baino benetan
nago urduri xamarra.
Tarta gainean ipini diot
bere kandela bakarra

Lagun guztiak gonbidatuta,
hau atontzera abitu.
Gure ttikia, gure semea
nola nahi degun serbitu.
Sendia ere pixkana doa
haunditu eta haunditu.
Hemen denbora pasatzen zaigu
nahiz eta ez iruditu,
hamabi hilabete ditu,
festa haundi bat egin nahi degu
ta barrutikan sentitu.
Guztiek txalo joko diote
nahiz berak ez entenditu.

Ordua iristen ari da Unai,
mugi zaittez, benga mugi!
Lehen semea dedan ezkero
ez det hainbat jakinduri.
Izeba eta osabak datoz,
asko dirala dirudi.
Gaur oparien zakua ere
egongo da guri-guri
nahiz ta malkoak ixuri,
berari ez baino omenaldi bat
egiten digute guri.
Semea dago lasai arraio
ta aita dago urduri!

2013-11-16 Oiartzun

Bikotea zarete, eta gaztetan hasi zen zuen arteko harremana. 7 urte kartzelan egin ostean, orain hilabete gutxi askatu zuten Agin Laburu. Aitor Sarriegi, gaur esan dizu zuen artekoa bukatu dela.

Aitor Sarriegi:
Bi txoritxoren gisara
maitasuna halakoa da
hasi ginenok pasa ditugu
makina bat traba
gaur bukatu dela hara
esanez zatoz bertara
barruan egon zaren garaitik
zer aldatu da ba?

Aitor Sarriegi:
Eduki zaitut aparte
zure sarraila ta ate
ta horrek bioi sortu dizkigu
makina bat kalte,
espetxean zazpi urte
ni joan ta etorri jo take
ta hortaz ez al zera ohartu
irten zeran arte? (bis)

Aitor Sarriegi:
Horrek nola eman didan su
ene zenbat enbarazu
nik txintxo-txintxo egin baitizut
giltzapean kasu.
Bizitzen ikastera zu
zoaz eta badakizu
maitatzen ere ikas daiteke
hala nahi badezu. (bis)

Agin Laburu:
Bihotza bi puska hautsi
desberdin bihar ta etzi
ze aldatu dan galdetzen dezu
erantzuna eutsi.
Espetxeak ez dit gutxi
urteotan erakutsi
sentimenduak ezin dirala
giltzapean utzi. (bis)

Agin Laburu:
Zazpi urte eta piku
errepide ta istripu
gure harremanak hamaika muga
gaindituak ditu.
Zer pasa zaidan begitu
ahal badezu entenditu
sentitu igual egingo nuen
ez naiz atrebitu (bis)

Agin Laburu:
Zazpi urte aparteko
gaur ez gaude aldarteko
baino ez uste ez zaitudanik
gehiago maiteko
nahiz ta mindu zeran seko
erabakia hau tarteko
gezur batean bizi ezkero
ez gaude hobeto. (bis)

2013-11-10 Tolosa

Aitona-bilobak zarete. Zu, Iñigo Mantzizidor "Mantxi", aitona, eta Jexux Mari Irazu biloba. Orain arte familiatik kanpoko zaintzaile batek zaindu izan zaitu Mantxi. Orain, Jexux Mari biloba lanik gabe geratu da, eta zu berak zaintzea proposatu dizu.

Iñigo Mantzizidor "Mantxi":
Ya lana galdu dezunez
libre erantzukizunez
ni zaintzeko prest omen zaudela
jardun naiz entzunez
hasi gaitezen zentzunez
ta gauza bat erantzunez
ze ingo dezu diruagatik
edo maitasunez?

Jexux Mari Irazu:
Aitona beti alerta
bere ondoan zer gerta
esan nahi zidan aizu biloba
ken zazu kareta
nik maitasunez arreta
zuk ere neuri fereka
eta horrela zainduko dezu
nere hipoteka

Iñigo Mantzizidor "Mantxi":
Hoi mingaina zorroztea
ta nahiko dezu poztea
prest omen zaude orain zaintzeko
etxeko lastrea
badezu diru eskea
gustura dator gaztea
ba nik beti izan det nagusi
txarraren ospea.

Jexux Mari Irazu:
Banekin ez zala broma
nolako ezinegona
kanpotik ere entzuna nuen
zuk zeneukan sona
nik borondate sakona
ta zaude lasai aitona
nagusi txarrak izaten baitu
herentzia ona.

Iñigo Mantzizidor "Mantxi":
Hango arropaz jantzia
peruana bat dultzia
nahiago det nik zu baino nere
ondora etortzia
ta entzun azken sententzia
agortu zait pazientzia
bizkarreko bat izango dezu
nere herentzia.

Jexux Mari Irazu:
Haserretu zera dena
pilatu baitzaizu pena
diru trukean zaindu nahiean
nolako problema
bizkarreko nabarmena
laster helduko zaitena
agian hori izan liteke
lezio onena.

Kartzelako gaia: Nehork ez zuen espero baina lortu egin duzu.

Jexux Mari Irazu:

Ez neukan alde haizea
dena traba ta leizea
baina buruai heltzea
maite dut nire etxea
gaztea eta pentsatzen zuten
seguru da partitzea
hau Parisera joango zaigu
ta tokatu isiltzea
laborantxara bildu naiz eta
lortu ere segitzea
sosak atera bizimodua
neurera erabiltzea
erakutsi det posible dela
Xuberoan bizitzea.

Urteetako etena
asko hemendik ertena
zen Parisen garaipena
eta euskaldunen pena
egoerari buelta ematea
gazte zenbaitzun lorpena
ingurukoek etsipena ta
nik ez nuen nahi azkena
berrehun bat ardi latxa ipini
neure pentzean barrena
aberastu ez naiz aberastuko
dirua ez baita dena
izpirituak badu nahikoa
lurrak ematen duena.

Lehen kanpora ate joka
han bizimodua topa
inori ez diot opa
hobe sorterrian koka
usteen kontra lortu dut eta
barrua daukat borborka
baina erabat ez naiz konforme
martxan dabilkit errota
jende gehiago, gazte gehiago
bai soina ta bai arropa
proiektu hontan sartu nahi ditut
Parisen nahiaren kontra
lortuko dudan ez nago ziur
hori da nere erronka.

2013-11-17 Murgia

Lankideak zarete. Fredi Paya, Beñat Gaztelumendirengana hurbiltzen zaren aldiro Beñatek ordenagailuan leiho bat ixten duela konturatu zara.

Fredi Paia:
Harrituta naukazu
azken egunetan,
pantaila jaisten duzu
baldin banaiz bertan.
Zer aurkitzen duzu ba?
Nabil galdeketan,
bertso-porno jartzen dun
pestaña horretan?

Beñat Gaztelumendi:
Zu agertzen zera ta
itxi ohi det di-da,
baina Fredi mesedez
hortik erretira.
Bertso-pornotan nabil
begira-begira
baina zureak soilik
ateratzen dira.

Fredi Paia:
Ba gaztea etorri
batetik bestera.
Kubara joan nintzan
ni innobatzera.
Bertsoa hasten baitut
sexuaz batera
pendulo itxurarekin
daukat habanera.

Beñat Gaztelumendi:
Beraz zu Kuban izan
zinen oporretan
eta Kariben daude
zurekin zorretan.
Sarri nabigatzen det
horrelakoetan
horregatik naiz ona
bakarkakoetan.

Fredi Paia:
Hola ezin da sortu
ez plazer ez sendi.
Zure entrenatzaile
izango da Fredi
alde hortarantz makurtu
Gaztelumelendi
ta ia nere habanera
zenezakeen senti.

Beñat Gaztelumendi:
Nik ez det funtzionatzen
zure arabera
beraz beste batentzat
utzi habanera.
Jefea ondoan dago
ta benga lanera
zu CIAkoak baino
txarragoa zera.

Kartzelako gaia: Prest duzu dena. Gonbidatuak falta dira.

Unai Agirre:

Doinua: Unai Agirrek txapelketan plazaratua.

Egun haundia, egun ederra,
gaur ez da egun kaxkarra.
Atsalde osoa ni sukaldean
badet barruan indarra.
Patatak eta gusanitoak,
bokadiloz barra-barra.
Mila irripar dauden tokian
ezin liteke hasarra.
Gaur ez degu egun txarra,
ez nuen uste baino benetan
nago urduri xamarra.
Tarta gainean ipini diot
bere kandela bakarra

Lagun guztiak gonbidatuta,
hau atontzera abitu.
Gure ttikia, gure semea
nola nahi degun serbitu.
Sendia ere pixkana doa
haunditu eta haunditu.
Hemen denbora pasatzen zaigu
nahiz eta ez iruditu,
hamabi hilabete ditu,
festa haundi bat egin nahi degu
ta barrutikan sentitu.
Guztiek txalo joko diote
nahiz berak ez entenditu.

Ordua iristen ari da Unai,
mugi zaittez, benga mugi!
Lehen semea dedan ezkero
ez det hainbat jakinduri.
Izeba eta osabak datoz,
asko dirala dirudi.
Gaur oparien zakua ere
egongo da guri-guri
nahiz ta malkoak ixuri,
berari ez baino omenaldi bat
egiten digute guri.
Semea dago lasai arraio
ta aita dago urduri!

2013-11-16 Oiartzun

Bikotea zarete, eta gaztetan hasi zen zuen arteko harremana. 7 urte kartzelan egin ostean, orain hilabete gutxi askatu zuten Agin Laburu. Aitor Sarriegi, gaur esan dizu zuen artekoa bukatu dela.

Aitor Sarriegi:
Bi txoritxoren gisara
maitasuna halakoa da
hasi ginenok pasa ditugu
makina bat traba
gaur bukatu dela hara
esanez zatoz bertara
barruan egon zaren garaitik
zer aldatu da ba?

Aitor Sarriegi:
Eduki zaitut aparte
zure sarraila ta ate
ta horrek bioi sortu dizkigu
makina bat kalte,
espetxean zazpi urte
ni joan ta etorri jo take
ta hortaz ez al zera ohartu
irten zeran arte? (bis)

Aitor Sarriegi:
Horrek nola eman didan su
ene zenbat enbarazu
nik txintxo-txintxo egin baitizut
giltzapean kasu.
Bizitzen ikastera zu
zoaz eta badakizu
maitatzen ere ikas daiteke
hala nahi badezu. (bis)

Agin Laburu:
Bihotza bi puska hautsi
desberdin bihar ta etzi
ze aldatu dan galdetzen dezu
erantzuna eutsi.
Espetxeak ez dit gutxi
urteotan erakutsi
sentimenduak ezin dirala
giltzapean utzi. (bis)

Agin Laburu:
Zazpi urte eta piku
errepide ta istripu
gure harremanak hamaika muga
gaindituak ditu.
Zer pasa zaidan begitu
ahal badezu entenditu
sentitu igual egingo nuen
ez naiz atrebitu (bis)

Agin Laburu:
Zazpi urte aparteko
gaur ez gaude aldarteko
baino ez uste ez zaitudanik
gehiago maiteko
nahiz ta mindu zeran seko
erabakia hau tarteko
gezur batean bizi ezkero
ez gaude hobeto. (bis)

2013-11-10 Tolosa

Aitona-bilobak zarete. Zu, Iñigo Mantzizidor "Mantxi", aitona, eta Jexux Mari Irazu biloba. Orain arte familiatik kanpoko zaintzaile batek zaindu izan zaitu Mantxi. Orain, Jexux Mari biloba lanik gabe geratu da, eta zu berak zaintzea proposatu dizu.

Iñigo Mantzizidor "Mantxi":
Ya lana galdu dezunez
libre erantzukizunez
ni zaintzeko prest omen zaudela
jardun naiz entzunez
hasi gaitezen zentzunez
ta gauza bat erantzunez
ze ingo dezu diruagatik
edo maitasunez?

Jexux Mari Irazu:
Aitona beti alerta
bere ondoan zer gerta
esan nahi zidan aizu biloba
ken zazu kareta
nik maitasunez arreta
zuk ere neuri fereka
eta horrela zainduko dezu
nere hipoteka

Iñigo Mantzizidor "Mantxi":
Hoi mingaina zorroztea
ta nahiko dezu poztea
prest omen zaude orain zaintzeko
etxeko lastrea
badezu diru eskea
gustura dator gaztea
ba nik beti izan det nagusi
txarraren ospea.

Jexux Mari Irazu:
Banekin ez zala broma
nolako ezinegona
kanpotik ere entzuna nuen
zuk zeneukan sona
nik borondate sakona
ta zaude lasai aitona
nagusi txarrak izaten baitu
herentzia ona.

Iñigo Mantzizidor "Mantxi":
Hango arropaz jantzia
peruana bat dultzia
nahiago det nik zu baino nere
ondora etortzia
ta entzun azken sententzia
agortu zait pazientzia
bizkarreko bat izango dezu
nere herentzia.

Jexux Mari Irazu:
Haserretu zera dena
pilatu baitzaizu pena
diru trukean zaindu nahiean
nolako problema
bizkarreko nabarmena
laster helduko zaitena
agian hori izan liteke
lezio onena.

2013-10-13 Altsasu

Unai Agirre eta Beñat Gaztelumendi. Bikotea zarete. Kreditu txartela lapurtu dizuete. Salaketa jarri, eta gaur jakin duzue zuen alabak erabili duela.

Beñat Gaztelumendi:
Gure etxean ez degu izan
ez goserik ta ez hotzik.
Pentsatzen nuen etxean denok
ibiltzen ginela pozik.
Alabak bere txanponen faltaz
inoiz ez du egin hitzik,
ni lapurtzeak ez nau kezkatzen,
eskatu ez izanak baizik.

Unai Agirre :
Etxe guztitan da miseria
berdin hemengo ta hango.
Langabezian ondo gaudenik
orain ez dizut esango.
Lapurtu digu txartela eta
etxetikan urrun dago.
Bai bai zekien eskatu ezkero
Ez geniola emango.

Beñat Gaztelumendi:
Urrun joana izan liteke
guretzat kate astuna.
Sortu genuen familia ta
atzean det eraztuna.
Berak hautatu duen bidea
degu bidean estuna.
Amodioak ematen baitu
diruak lortzen eztuna

Unai Agirre :
Ondo pentsatu beharra degu
esaten ni naiz hasiko.
Gure alabari zer nahi egiten
ere ez diogu utziko,
salaketakin segi ezkero
ni ez nintzake biziko.
Ta salaketa kendu ezkero
ez du inoiz ikasiko

Beñat Gaztelumendi:
Azkenekoa zen koadrilan ta
azkenekoa klasean.
Ez nuen uste zebilenikan
ordea galdu antzean.
Hamasei urte ta familia
ezin da utzi atzean.
Lasai berriro bueltatuko da
kreditua bukatzean

Unai Agirre:
Ez dezu bota aizu maitia
hain arrazoi borobila.
Bi mila euro bakarrik daude
ta gastatu ditu mila.
Neronek ere desiatzen det
lehenbailehen etor dadila.
Bere guraso biok gera ta
Beñat goazen bere bila.

Kartzelako gaia: Gaia ateratzen duzun bakoitzean, gaiz aldatzen du.

Doinua: Habanera

Beñat Gaztelumendi:

Mahaiko entsalada degu
ordu erdiz ahoratu
Egunean zehar pasa
zaigun dena gogoratu
Lagunen mila istori
ta laneko mila datu
Bi urteko harremanak
hori izaten baitu tratu
Bere begi itzalitan
begiak ditu iltzatu
eta hala galdetu diot:
"Zer pasatzen da? Kontatu!"
Ezer pasa ez balitz gisa
halaxe du gaiz aldatu,
baina zergatik ezin dit
begitara begiratu?

Ezagutu ginenean
zenbat mimo, zenbat kasu
Goizero jaikitzen ginen
elkarrekin irrifartsu
Egunak enpalagoso
"maite zaitut", "maite nauzu"
Baina urruntzen hasiak
ote gera pausuz pausu
Gaur dena azaleko gai
eta elkarrizketa antzu
Bai badakit zeozerk
egin dizu enbarazu
zer duzun galdetu eta
mutu geratu zera zu
ez didazu ezer esan
ta dena esan didazu

Begi parea malkotan
dauka puztua, betea.
Ta kolpera lehertu zaio
esan ezinen nekea.
Masailan bera doazen
malko latzen atakea,
"Ez nago ondo" esan dit
ta baretu aldartea,
"Zalantzak dauzkat laztana,
zer nahi dezu esatea?"
Nik hala erantzun diot
"Zabalik dago atea,
Behar den denbora dena
lasai har zazu maitea,
zor didazun bakarra da
zoriontsu izatea"

Doinua: Itsaso hori dago zatarra.

Jexux Mari Irazu:

Delikatua eta berezi
baino ezin joan hortik ihesi
Gaia atera ta beste aldera
ez ninduen hola hezi
Ama lehen bixi-bixi
zahartu dala notizi
Adin handira iritsi
"ama etorri nere etxera"
"motel txoratu al haiz hi?"
90 urte bete ta
ezin du bakarrik bizi

Nere arduran badut partea
etxean egin diot tartea
Gaia atera ta beste aldera
normala da izatea
Badu bere aguantea
hori ez da bere kaltea
Zabaldu zaio atea
ta bi aukera gelditzen zaizkit
badaukat borondatea
Neure etxera nahiko ez balu
neu bere etxera joatea

Hauek ez dira kasu bakanak
nahiz moldatzeak dakartzan lanak
Nola edo ahala estutu behar
gure arteko harremanak
Zer esana iraganak
gerora datozen planak
Nik beteko ditut danak
bizi dan arte nere laguntza
edukiko baitu amak
Hori ta gehio merezi baitu
arnasa eman zidanak

2013-10-12 Hendaia

Iban Urdangarin eta Iñaki Zelaia bikotea dira. Iñakik autokarabana bat erostea izan du amets. Azkenean, erosi dute, baina oporretara doazen aldiro, Ibanek nahiago du hotelera joan.

Iñaki Zelaia:
Nik Iban konbentzitzen
zer nolako lana,
mendira egin nahi nuen
asteburuz plana
hoteletan gastatuz
gure diru dana,
adornutako al degu
autokarabana?

Iban Urdangarin:
Nire garai batean
hain gaztea nintzen,
pospolo kaja baten
mundua korritzen.
Baina zu ezagutu ta
ia ez naiz harritzen,
nazka-nazka egin naiz
platerak garbitzen.

Iñaki Zelaia:
Beraz platerarekin
eskutako mina,
beraz horrek izan du
kriston eragina,
praktika gehio izango
zenuke jakina,
etxean gehiagotan
ariko bazina.

Iban Urdangarin:
Parking xelebre baten
kanpora begira,
kantzontzilo zikinak
polsan sartuz tira.
Tortilla xelebre bat
gose bat neurrira,
horrelako oporrak
oporrak al dira?

Iñaki Zelaia:
Alper hutsa zera ta
ez egin negarrik!
Saiatu ezkero egin
leike plan earrik.
Zerbeza hartu eta
zu sofan bakarrik,
hortako ez dago etxetik
atera beharrik.

Iban Urdangarin:
Autokarabana hau
Iñakiren kalten.
Ia aspertuta nago
zopa zaharrak jaten.
Gaur lo egin behar det
"tres estrellas" baten
ta zuk aparka zazu
hotelaren aten.

Kartzelako lana: Lor zenezakeen guztia lortu duzu baina jendeak ez dizu begirune handiegirik.

Doinua: ETAren su-etentik.

Iñaki Zelaia:

"Empresariales" karrera
nuen nere gustokoa.
Nota onez atera nun
ez zen izan oztopoa.
Gero lan bat aurkitu nahi
eta gero gerokoa,
herriko aurrezki kutxan
egin zidaten txokoa.
Bentanillan izan nuen
nere lehenengo puestoa,
eskalatzeko izan det
abilidade nahikoa,
bankuaren goi kargura
iristeko ainakoa.

Peoi, igeltsero edo
irakasle zein mediku,
batere neurririk gabe
eman degu hainbat kreditu.
Orain garai txarrak datoz
eta ezin errenditu,
ta epaile baten aurrean
gurea ez da delitu.
Kalean kaso egin gabe
bakarrikan naiz gelditu,
jende honentzako ezin det
irtenbiderik aurkitu,
krisi honek trapu zikin
gehiegi atera ditu.

Beraz aurkeztu nahi nuke
nere dimisio karta:
"Agur banoa" esanez,
sinadura eta data.
Hasi nahi nuke nik beste
gurdi batetik tiraka,
lan apalago batean
nere hurrengo etapa.
Agur nere traje beltzak
ta agur nere gorbata,
ta are okerragoa,
adio nere soldata!
Lagunak edukitzeak
preziorik ez dauka ta!

2013-10-05 Markina-Xemein

Puntua:
Ezagutzen al duzu
San Mames barria?

Agin Laburu:
Bilbotarrentzat degu
ikaragarria
dirua gobernuak
propio jarria
ez dakit nun daukagun
batzutan neurria.

Puntua:
Polita bada baina
garesti xamarra.

Agin Laburu:
Horregatik zegoen
lagundu beharra.
Nunbait mugitzen baita
Bizkaian zakarra
baina eskertzen dute
denek barra barra.

Puntua:
Bertso finala bertan
ospatu ezkero?

Agin Laburu:
Ni juango naizenik
ez zazu espero
Estiballesek gaur hau
egin eta gero
gauza normaltzat joko
degu honezkero.

Palmaresa

TXAPELKETAK

Euskal Herriko Txapeldunak

- 1936an Jose Manuel Lujanbio "Txirrita"
- 2009an Maialen Lujanbio

Gipuzkoako Txapeldunak

- 1995ean Aitor Mendiluze
- 2003an Maialen Lujanbio
- 2007an Aitor Mendiluze

ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	1999	Txikien mailan	Beñat Gaztelumendi
Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2000	Txikien mailan	Beñat Gaztelumendi
Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2001	Txikien mailan	Beñat Gaztelumendi
Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2002	Txikien mailan	Beñat Gaztelumendi
Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2002	Txikien mailan	Unai Gaztelumendi
Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2003	Handien mailan	Beñat Gaztelumendi
Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2004	Handien mailan	Beñat Gaztelumendi
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	1983	Txikien mailan	Jon Eizmendi
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	1984	Txikien mailan	Jon Eizmendi
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	1986	Handien mailan	Pablo Joxe Aristorena
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	1987	Txikien mailan	Unai Agirre
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	1988	Txikien mailan	Unai Agirre
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	1989	Txikien mailan	Unai Agirre
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	1990	Txikien mailan	Hernaniko taldea
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	1992	Handien mailan	Aitor Mendiluze
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	1993	Handien mailan	Aitor Mendiluze
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2000	Txikien mailan	Hernani-Antigua Taldea (Beñat Gaztelumendi / Unai Gaztelumendi / Peru Iurramendi / Aitor Larreta)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2001	Txikien mailan	Añorga-Hernani Taldea (Beñat Gaztelumendi / Unai Gaztelumendi / Jon Otxotorena / Aitor Larreta)
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2001	Handien mailan	Agin Laburu
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2002	Handien mailan	Beñat Gaztelumendi
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2003	Handien mailan	Beñat Gaztelumendi
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2004	Handien mailan	Beñat Gaztelumendi
Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa	2005	Handien mailan	Unai Gaztelumendi

SARIKETAK

Abra Saria	(2006 Getxo)	Beñat Gaztelumendi
Abra Saria	(2011 Getxo)	Asier Azpiroz "Azpi"
Armuño Saria	(1999 Brinkola)	Aritz Zerain
Artxanberri eta Patxi Errota Saria	(1985 Zaldibia)	Pablo Joxe Aristorena
Artxanberri eta Patxi Errota Saria	(1989 Zaldibia)	Jokin Sorozabal
Axari Saria	(2004 Idiazabal)	Joxe Anjel Aranburu
Axari Saria	(2006 Idiazabal)	Beñat Gaztelumendi
Aztiri Saria	(2001 Gabiria)	Itziar Eizagirre
Berritxu Saria	(2004 Berriatua)	Beñat Gaztelumendi
Euskal Herriko Bertso Afari Txapelketa	(2011 Etxarri Aranatz)	Beñat Gaztelumendi
Hernandorena Saria	(2009)	Unai Gaztelumendi
Kataxulo Bertso Txapelketa	(2009 Oiartzun)	Beñat Gaztelumendi
Lizardi Saria		Fermin Argiñarena
Lizardi Saria	(1985 Zarautz)	Pablo Joxe Aristorena
Lizardi Saria	(1986 Zarautz)	Jokin Sorozabal
Lizardi Saria	(1990 Zarautz)	Jon Eizmendi
Lizardi Saria	(1991 Zarautz)	Iñaki Zelaia
Lizardi Saria	(1993 Zarautz)	Unai Agirre
Lizardi Saria	(1994 Zarautz)	Unai Agirre
Lizardi Saria	(2007 Zarautz)	Beñat Gaztelumendi
Lizardi Saria	(2009 Zarautz)	Agin Laburu
Lizardi Saria	(2013 Zarautz)	Asier Azpiroz
Mikel Laboa Bertsolari Txapelketa	(2011 Donostia)	Unai Gaztelumendi
Mikel Laboa Bertsolari Txapelketa	(2013 Donostia)	Asier Azpiroz
Orixe Saria	(2003 Donostia, Añorga)	Estitxu Eizagirre
Orixe Saria	(2007 Donostia, Añorga)	Unai Agirre
Osinalde Saria	(1985 Gabiria)	Pablo Joxe Aristorena
Osinalde Saria	(1992 Gabiria)	Maialen Lujanbio
Plazatik Gaztetxera	(2007 Mutriku)	Agin Laburu
Plazatik Gaztetxera	(2009)	Beñat Gaztelumendi
Saskiberri saria	(2001 Lesaka)	Itziar Eizagirre
Xalto Saria	(1997 Goizueta)	Xabier Legarreta "Arano"
Xenpelar Saria	(1986 Errenteria)	Jokin Sorozabal
Xenpelar Saria	(1991 Errenteria)	Jexux Mari Irazu
Xenpelar Saria	(1992 Errenteria)	Jexux Mari Irazu
Xenpelar Saria	(2010 Errenteria)	Agin Laburu
Zarauzko Kopla Txapelketa	(2011 Zarautz)	Beñat Gaztelumendi

ITURRIAK

ELKARRIZKETAK

- Unai Agirrek eta Jexux Mari Irazuk eginiko 35 elkarrizketak: Antonio Zubiarrain; Pedro Joxe Mujika "Anatx"; Julian Ezeiza "Aterpe"; Florian Oiarbide; Joxemari Ormazabal "Tturko"; Antton Garin; Joxemari Arrieta; Juanjo Uria; Joxe Mari Mujika "Anatx"; Jon Eizmendi; Jexux Mari Irazu; Joxe Luis Urdangarin; Iñaki Zelaia; Unai Agirre; Gorka Tolosa; Maialen Lujanbio; Aritz Zerain; Ibon Miner; Iker Alustiza; Mikel Iturbe; Joxe Anjel Oiartzabal; Bakarne Urreaga; Eñaut Agirre; Xabier Legarreta; Iker Osa; Jon Iraola; Itziar Eizagirre; Estitxu Eizagirre; Joxe Anjel Aranburu; Agin Laburu; Beñat Gaztelumendi; Unai Gaztelumendi; Arnaitz Lasarte; Oier Iurramendi; Asier Azpiroz.
- Estitxu Eizagirrek eginiko 15 elkarrizketak: Joxan eta Mikel Ruiz; Joxe Fermin Argiñarena; Julian Albistur; Iñaki Aranzadi; Inaxio Mari Zubeldia; Mikel Alkorta; Aitor Barrenetxea; Esteban Martiarena; Jon Altuna "Oxan"; Joseba Andoni Agirre; Mikel Lujanbio; Eñaut Martikorena; Eli Pagola; Manuel Huizi, Pablo Joxe Aristorena.

BESTE HAINBAT

- Mikel Zalbideren Euskaltzaindiko sarrera hitzaldia, Donostian, 2007an
- Wikipelia
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Bertsolaritzaren datu basea.
- Xenpelar Dokumentazio Zentroa

PRENTSA

- *Zeruko Argia* (1919-1936) astekariak.
- *Argia* (1963-2013) astekariak.
- *Hernaniko Kronika* egunkaria.
- *La Estampa* aldizkaria.
- *Bertsolariya* aldizkaria.
- "*Txabolategi bertsolaria, antzinako bertso desafio handienen protagonista*" artikulua. Unai Agirre, *Hernani 2007/08* urtekaria.
- *"Olegario Garin, bertsolari hernaniarra"* artikulua. Antton Garin, Hernaniko Urtekaria 2009

LIBURUAK

- *Gure baserriak. Hernani.* Hiazinto Fernandorena, Kultura Batzordea, Hernaniko Udala
- *Txirrita (1860-1936) 50.urteurrena.* Juanjo Uria Zubiarrain, Euskara Batzordea
- Hernaniko musika banda: 150 urte herria doinuz alaitzen . Urko Apaolaza Avila
- *Migel Arozamena Larralde.* Joxe Mari Iriondo, Bidegileak bilduma 54

AUSPOA SAILA

- *Txirrita: Jose Manuel Lujanbio Retegi.* Antonio Zavala, Auspoaren Sail Nagusia
- *Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak.* Jesus M. Etxezarreta, Auspoaren Sail Nagusia
- *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak.* Antonio Zavala, Auspoaren Sail Nagusia
- *Xenpelar eta bere ingurua.* Antonio Zavala, (Auspoaren Sail Nagusia)
- *Lengo egunak gogoan*, Manuel Olaizola "Uztapide", Auspoa
- *Neronek tirako nizkin,* Sebastian Salaberria, Auspoa 38
- *Pernando Amezketarra bertsolaria,* C. Muxika, Auspoa 54
- *Iru bertsolari: Agustin Zakarra, Patxi Bakallo, Pedro Santa Cruz,* Antonio Zavala, Auspoa 66
- *Ipuiak.* Agustin P.U. Iturriaga, Auspoa 71
- *Iru anai bertsolari,* Antonio Zavala, Auspoa 73
- *Pastor Izuela (1780-1837), Ezkioko ta Segurako itxuak*, Auspoa 106
- *Mikel Arozamena. Nere aldia*, Antonio Zavala, Auspoa 127
- *Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak,* Antonio Zavala, Auspoa 142
- *Berridi eta Kuxkullu bertsolariak,* Auspoa 146
- *Lexoti bertsolaria,* Iñaki Arbelaitz Gelbentzu, Miren Mitxelena Belauntzaran, Joxe Anjel Arbelaitz Irastortza, Mariano Ostolaiz, Antonio Zavala, Auspoa 157
- *Nere ondar alea,* Joxe Mari Arrieta, Auspoa 162
- *Nere soroko emaitzak,* Sebastian Salaberria, Auspoa 172
- *Ia kantatuz bezela,* Paulo Zubiarrain, Auspoa 190
- *Gaziak eta gozoak,* Paulo Zubiarrain, Auspoa 194
- *Frantzesteko bertsoak II,* Antonio Zavala, Auspoa 213
- *Sagardotegiak,* Sebastian Salaberria, Auspoa 247

aurkibidea

1800-1900

ORDUKO HERNANI 12

BERTSOLARIAK

JOSE JUAKIN ERROIZENEA INTXAUSPE "TXABOLATEGI" 11
JUAN BAUTISTA BELAUNTZARAN ZABALA "PATXI BAKALLO" 16
PEDRO ANTONIO SANTA KRUZ ETXEBESTE 18
AGUSTIN PASCUAL UGALDE ITURRIAGA "AGUSTIN ITURRIAGA" 22
JUAN ANTONIO LEKUONA UGALDE "KUXKULLU" 26

GAIAK

TXABOLATEGIREN DESAFIOAK 29
BERTSO PAPERAK 33
GERRAKO BERTSOAK 39

1940 ARTE

ORDUKO HERNANI 77

BERTSOLARIAK

JOXE MIEL OTXOTORENA 79
OLEGARIO GARIN ADURIZ 81
JOXE MANUEL LUJANBIO RETEGI "TXIRRITA" 86
SAIBURUTARRAK JUAN JOXE LUJANBIO "SAIBURU" 92
SAIBURUTARRAK NIKOLAS LUJANBIO 95
SAIBURUTARRAK ANJEL LUJANBIO 97
JOSE MANUEL "ARTZAI TXIKIA" 98
"FRANTZES TXIKIA" 101
MATEA JOXEPA ZUBELDIA ELIZEGI 104
BERTSO BERRIK ANDRE BATEK JARRIK ERNANIKO BERRIK OSO ARRIGARRIK 107
ELIO 110
JUAN JOXE ANDOLA 112
JOXE BLANCO SALVADOR 114
ZUBIARRAINDARRAK PAULO ZUBIARRAIN OTXOTORENA "HERNANI TXIKIA" 116
ZUBIARRAINDARRAK ANTONIO ZUBIARRAIN 123

GAIAK

ORBEGOZO AURREKO HERNANI 127
PORTUKO BERTSOLARIAK 130
SAN JOAN ERRONDA 133
BERTSO PAPERAK 137
HERNANIKO EUSKAL FESTETAN 147
TXAPELKETAK 149
SAGARDOTEGIAK 155
HERNANIKO TRANBIA 160
TXIRRITAREN HITZAK 165
GARAIKO BERTSOLARI HANDIEKIN 167
TXIRRITARENAK 172
CANOVASENAK 179
HAURRA GALDU ZEN HARRIA 181
ZUK HIL ZENDUEN ARTZAIA 182
TXIRRITARI OMENALDIAK 184
TXIRRITA IKUSI ZUTENEKOA 187
PELLO ERROTA ETA TXIRRITA EMANALDIA 188

1940-1960

ORDUKO HERNANI 191

BERTSOLARIAK

SETIENDARRAK PATRIZIO SETIEN, IEROLAKOA 193
*SETIENDARRAK I*NAZIO SETIEN, ZINKOENEAKOA 194
JOXE MANUEL UGALDE 195
JUAN MARKO "ALTXO" 196
SEBASTIAN SALABERRIA 199
JOSE LUIS LEKUONA "LEXOTI" 201
PEDRO JOXE MUJIKA BIDEGAIN "ANATX" 207
MIGEL AROZAMENA LARRALDE 209
MANUEL HUIZI LEGARRETA 212

GAIAK

HERNANI 214
EREÑOZU 218
LUISTARRAK 221
ERRONDAK 222
TXAPELKETA NAGUSIAK 228
NAFARROAKO TXAPELKETAK 237
DONOSTIAKO PERLA-N 251

LEXOTI ETA ALTXO 253
PATXI BAKALLO ETA PEDRO SANTA KRUZI OMENALDIA (1967) 254
BERTSO JARRIAK ZERUKO ARGIAN IRAKURGAI 256

1970EKO HAMARKADA

ORDUKO HERNANI 277

BERTSOLARIAK

JULIAN EZEIZA LANDA, "ATERPE" 279
FLORIAN OIARBIDE 282
JOXE MARI ORMAZABAL "TTURKO" 286
ANTTON GARIN 291
JOXE MARI ARRIETA LASARTE 292

GAIAK

HERNANI 299
HERNANIKO TXAPELKETAK 307
HERNANI-USURBIL DESAFIOA 310

1980KO HAMARKADA

ORDUKO HERNANI 319

BERTSOLARIAK

JUANJO URIA 321
JOXE MARI MUJIKA OTAÑO "ANATX" 325
JOKIN SOROZABAL ANSA 332
JON EIZMENDI GOIBURU 337
JOXE FERMIN ARGIÑARENA OTAMENDI 342
JULIAN ALBISTUR 346
IÑAKI ARANZADI 349
PABLO JOXE ARISTORENA LASA 351

GAIAK

ERNANI ETA EUSKERA 357
AMURIZAREN IKASTAROA 359
ASTEARTETAKO BILERA 360
BERTSO ESKOLAK 364
UMEAK BERTSOTAN? 369
ESKOLARTEKO TXAPELKETAK 370
SAGARDO FESTAK 1990EAN 376
JOXE LEGARRETA BERTSO-PAPER LEHIAKETA 378

BERTSOZALE ELKARTEA 384
1980KO TXAPELKETA 389

1990EKO HAMARKADA

ORDUKO HERNANI 393

BERTSOLARIAK

JEXUX MARI IRAZU MUÑOA 395
JOXE LUIS URDANGARIN GOÑI 402
IÑAKI ZELAIA IRAZUSTA 409
AITOR MENDILUZE GONZALEZ 415
UNAI AGIRRE GOIA 424
GORKA TOLOSA USARRAGA 431
MAIALEN LUJANBIO ZUGASTI 435
ARITZ ZERAIN MINER 446
IBON MINER SANTAKRUZ 450
IKER ALUSTIZA LASA 454
JON ALTUNA "OXAN" 458
ESTEBAN MARTIARENA 459
AITOR BARRENETXEA 460
JOSEBA ANDONI AGIRRE 461
MIKEL ALKORTA 462
MIKEL LUJANBIO "XAPO" 463

GAIAK

HERNANI 90 464
HERRIKO BERTSO ESKOLA 466
ASTEARTETAKO BILERAK BITERIN 472
GAZTE SARIKETAK 475
EUSKAL HERRIKO GAZTE BELAUNALDIA 487
BERTSO-LATA 488
HERNANIKO TXAPELKETAK 502
HERNANIKO TABERNETAKO TXAPELKETA 506
1991KO GIPUZKOAKO TXAPELKETA 515
1993KO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA 518
1995EKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA 520
1997KO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA 538
1999KO GIPUZKOAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA 546

2000KO HAMARKADA

ORDUKO HERNANI 569

BERTSOLARIAK

JOXE ANJEL OIARTZABAL 571
BAKARNE URREAGA ETXEBERRIA 572
EÑAUT AGIRRE GOIA 574
MIKEL ITURBE ITURZAETA 581
XABIER LEGARRETA ETXARRI 582
IKER OSA ZELAIA 586
JON IRAOLA MARTINEZ 589
ITZIAR EIZAGIRRE KEREJETA 590
ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA 594

GAIAK

HERNANI 598
BERTSO ESKOLA III 601
SOZIDADEKO BERTSO ESKOLAK 606
SAGARDOTEGITAKO SAIOAK 607
GR BERTSO BIDEA 609
HAMAIKA BERTUTE 611
IRAULIO PANTTALONE BAND 613
BERTSO ANTZERKIAK 621
ORNITORRINKUS 622
BERTSOA.COM 625
2001EKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA 626
2003KO GIPUZKOAKO TXAPELKETA 635
2005EKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA 647
2007KO GIPUZKOAKO TXAPELKETA 654
2009KO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA 670

2010EKO HAMARKADA

ORDUKO HERNANI 685

BERTSOLARIAK

JOXE ANJEL ARANBURU JALON 687
AGIN LABURU REZOLA 691
BEÑAT GAZTELUMENDI ARANDIA 695
UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA 702

ARNAITZ LASARTE SANTA KRUZ 706
OIER IURRAMENDI ETXEBERRIA 709
ASIER AZPIROZ IZTUETA 710
AMAIA OTXOTORENA GAMIO 714
EÑAUT MARTIKORENA LIZASO 715
ELI PAGOLA APEZETXEA 716

GAIAK

2010 HERNANI 718
BERTSO ESKOLA IV 721
2011KO GIPUZKOAKO TXAPELKETA 723
2013KO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA 729

PALMARESA

TXAPELKETAK 749
SARIKETAK 750

ITURRIAK

..... 751

BERTSOAREN HARIA HERNANIN

Antza S.A.L.ek inprimatu du
2014ko martxoan